ETA Euskadin jardunean jarraitzen duen erakunde terrorista bakarra da. Indarkeria terroristaren bidez hildako pertsona gehienak –orain arte 933, hain zuzen ere– haren ekintza kriminalengatik hil dira. Gainera gizarte babesa du. Babes hori, ikuspegi kuantitatibotik oso murritza bada ere azterlan soziologikoen arabera, nahiko sartuta dago udalerri ezberdinetako gizarte sarean –biztanle gutxiko udalerrietan batez ere–, eta horrek berekin dakar larderia, isiltasuna eta beldurra biztanleriaren multzo garrantzitsu batentzat. Argi eta garbi dago ETAren ekintzak gaitzesten ez dituen euskal biztanle sektore bat egon eta jarraitzeak erakunde terrorista honen jarraitutasuna eta birsortzea errazten duela. Gaitzespen falta hori indarkeria justifikatzera iristen da zenbaitetan, eta giza eskubideekiko errespetuaren etikaren disolbatzaile gisa jarduten du. Giza eskubide horiek aipatutako gizarte sektore horren mundu ikuskeraren mende eta haien azpian geratzen dira.

Esan berri denak dimentsio bereziki kezkagarria hartzen du hori elikatzen duten planteamenduak adingabekoek eutsi eta defendatzen dituztenean. Arartekoa gure haur eta nerabeen balioen egoerari buruzko txosten baten idazketa amaitzen ari da, zehazki giza eskubideen funtsezko gaietako errealitate zehatzekiko dituzten ideiei eta jarrerei buruzkoa. Haietako gehienek zerikusia dute, txostena argitaratzen denean ikusi ahalko den moduan, talde jakin batzuei eragiten dieten bereizkeriarekin edo gizarte desberdintasunarekin. Txosten horren oinarriak finkatu genituenean, uste izan genuen indarkeria terroristaren gaitz ikaragarriak, giza eskubide oinarrizkoenen benetako minbizi hondatzaileak, agertu egin behar zuela belaunaldi gazteenek giza eskubideei buruzko balioen etikaren osasuna neurtu nahi zuen txosten batean. Adierazitako txostenaren prestakuntza amaierara iristen ari da, denboran bat eginez terrorismoaren biktimei buruzko txosten honekin. Hori dela eta, egokia iruditu zaigu ETAren indarkeriari buruzko ideiak eta harekiko jarrerak biltzen dituen zatia txosten honetan sartzea, hura hitzez hitz jasoz. Izan ere, ematen duen informazioa oso erabilgarria izan daiteke tresna eraginkorrak eraikitzeko, tresna horiek adingabeei balioak helarazteko eta haiek balioak bereganatzeko bideetan eragina izatea nahi bada. Helburua balio horiek giza eskubideekiko errespetu etikan kokatzea da, inolako salbuespenik gabe.

Terrorismoaren biktimei erakundeen eta gizartearen aldetik ematen zaien erantzuna xedetzat duen txosten batek hitza eman behar die nahitaez biktimei. Arartekoak, bere izenaren esanahiari jarraiki, bitartekaritza lana bete behar du gizarteko errealitate eta taldeen eta administrazio publikoen artean, eta horren arabera jardun du eta, zuzenean eta zeharka, biktimen iritzia jaso du haiei zuzendutako jarduera eta politika publikoen gainean. Halaber, beren oinarrizko eskubideak babesteko eta egia, justizia, memoria, duintasuna eta ordain morala erabatekoak izateko estali beharko liratekeen beharrei buruz galdetu die.

ETAren indarkeriak hainbat talde ditu jomugan. Horiek, terroristek egindako izugarrikerien arabera, jazarpen indarkeria deitzen den horren pean egongo lirateke. Beharrezkoa iruditu zaigu berariazko kapitulua eskaintzea errealitate izugarri horri. Horretarako, bizitzako hainbat lekukotza bildu dugu eta protagonistei hitza eman diegu, pairatzen duten egoera iraingarriari buruz hitz egin diezaguten. Elkarrizketatu ditugun pertsona guztiak anonimotasunean egongo direla zaindu da, askatasun osoz eta beren buruei buruz hitz egin dezaten. Mehatxupean dauden pertsonak dira, baina esan beharra dago heriotza mehatxu honen esparru subjektiboa are zabalagoa dela. Bizitza eta osotasuna

defendatzeko bizkartzainarekin bizi behar duten pertsonen kopurua eta aniztasuna beldurgarriak dira, eta hazten doaz ETAren ahultasuna areagotu ahala, ETAk larderia eta derrigortze saiakerak geroz eta pertsona eta sektore gehiagotara zabaltzen dituelako, demokraziaren aurkako bere proiektua ezarri nahian. Beldurra geroz eta gehiago zabaltzeko infernuko dinamika horretan, ez dago muga politiko eta ideologikorik, ezta muga pertsonalik ere. ETA baldintzarik gabe babesten dutenak alde batera utzita, gainerako guztiak gaude edo egon gaitezke ETAren mehatxupean. Alderdiekiko atxikipenaren esparruan, adibidez, argi dago abertzaleak ez diren alderdietako kideak ETAren mehatxupean daudela, baina, halaber, argi dago alderdi abertzaleetako kargu publiko eta kide batzuk ere atentatu, mehatxu eta derrigortzeen biktima ere izan direla, eta bizkartzain baten babesarekin bizi behar dutela. Hori dela eta, euskal gizartean geroz eta zentzu handiagoa dute Bertol Brechti egotzitako hitz ezagun batzuek (antza, Martin Niemöllerrek idatzi zituen benetan):

*“Naziak komunisten bila etorri zirenean,*
*isilik geratu nintzen,*
*ni ez nintzelako komunista,*
*sozialdemokratak espetxeratu zituztenean,*
*isilik geratu nintzen,*
*ni ez nintzelako sozialdemokrata,*
*sindikalisten bila etorri zirenean,*
*ez nuen protestarik egin,*
*ni ez nintzelako sindikalista,*
*judutarren bila etorri zirenean,*
*ez nuen protestarik egin,*
*ni ez nintzelako judutarra,*
*nire bila etorri zirenean,*
*ez zegoen protesta egin zezakeen beste inor”.*

ETAren mehatxua, bada, guztion ardura da, eta haren desagerpena guztiok geure gain hartu beharreko eskakizun etikoa da. Eta ez bakarrik, noski, biktima gehiago ez egoteko, baizik eta gizartearen babesa duen terrorismoak bizirik irauteak biktimen oinarrizko eskubideak babestean eragiten duelako eta etengabe kaltetzen duelako. Ekintza terrorista bakoitza kolpe latza da biktima guztien kontzientzietan eta bihotzetan, biktimak memoriaren, partekaturiko minaren, solidaritatearen eta abarren hariek lotuta daudelako, eta hari horiek astindu egiten direlako biktima berri bat sortzen den bakoitzean.

Aipatu dugun etika eskakizunaren oinarri sendoena da giza eskubideak errespetatu egin behar direla, eta terrorismoak sistematikoki eta krudeltasunez urratzen ditu horiek. Gizarte modernoak pertsonen eskubideak erabat babestean eta giza eskubideekiko errespetuzko balioak etengabe lantzean oinarritzen dira, edo oinarritu beharko lukete, eta balio horiek ezin dira zalantzan jarri eta pertsona guztiek bereganatu behar dituzte.

Amaitzeko, barkamena eskatu nahi dut txosten honen idazketa atzeratu delako, hasierako asmoak kontuan hartuta. Saihestu ezin izan diren alderdi neurtezinak alde batera utzita, esan behar dut hasierako planteamendua nabarmenki loditu joan dela, eta ez bakarrik geure buruari azken emaitza ahalik eta kalitate handienekoa izateko eskakizun eta helburu berriak jarri genizkiolako, baizik eta baita ere erakundeek eta administrazio

publikoek terrorismoaren biktimen arretaren esparruan bideratutako ekimenak areagotu egin direlako, zorionez, nabarmenki azken urteotan, eta, ondorioz, aurreikusi zena baino nekezagoa izan delako horiek guztiak txostenean sartzea. Halaber, barkamena eskatu nahi dut txosten honetan egon daitezkeen akatsengatik.

Eskerrak eman nahi dizkiet Faustino López de Forondari eta Gema Varonari, liburu hau lantzean eta idaztean egindako lan ikaragarri eta paregabeagatik, eta baita ere Deusto Fundazioko taldeari, Javier Elzoren zuzendaritzapean gure haur eta nerabeez garatu duen azterlan bikainagatik. Haren zati bat txosten honetan jaso dugu.

Era berean, bihotzez eskertu nahi ditut biktimen elkarteen partaidetza eta beraien ekarpenak, baita txosten hau egiten gurekin parte hartu duten biktimen eta terrorismoaren zentzugabekeria askatasun-suntsitzaileak mehatxatuta bizi diren pertsonen ekarpenak ere. Horien guztien testigantzak eta iritziak funtsezkoak izan dira. Eta, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet txosten honetan lanean aritu diren Arartekoko pertsona guztiei ere, ahalegin ikaragarria egin behar izan baitute lan hau argitaratzeko.

**Iñigo Lamarca Iturbe**
**Arartekoa**

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatza

# I. ATALA

## TXOSTENAREN HELBURUAK, METODOLOGIA ETA EGITURA

## JATORRIA

Ezohiko txosten hau landu izanaren arrazoia Ararteko erakundeak terrorismoaren biktimekin eta haien eskubideekin hartutako konpromiso sakona izan da, bereziki beharrezkoa baita ETAren jardun terroristak berean jarraitzen duela ikusita.

Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta merezi duen talde gisa hartu du terrorismoaren biktimen taldea, erakundearen beraren barruan jarduteko esparru zehatza sortuz[1]. Txosten hau lantzeko Ararteko erakundeak izandako ekimenaren arrazoia hau da: erakundea konbentzituta dago beharrezkoa dela Euskadin jazotzen diren eskubide urradura larrienak aztertzea. Hala eta guztiz ere, honakoa legebiltzarreko talde ezberdinek eskatutako azterlana ere izan da, urteko txostena aurkeztu den osoko bilkura ezberdinetan. Halaber, milaka euskal herritarrek ETAren jazarpen indarkeria deiturikoaren pean egoteagatik aurre egin beharreko egoera ikaragarriari buruzko kapitulu bat erantsi da. Kapitulu honen bidez Gipuzkoako Batzar Nagusiek egindako eskaerari erantzuten zaio. Izan ere, hainbat erakunderi eskatu zion, tartean Arartekoari, arauz besteko proposamen bidez, Euskadin kargu publikoek bizi zuten egoera aztertzea, beren oinarrizko eskubideen babesari dagokionez. Proposamenak hasieran zuen arrazoitzeari jarraiki, erreferentziatzat hartu behar ziren horiek jasaten dituzten bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako mehatxuak.

Gainera, terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakien betetze mailari dagokionez 2007ko urriaren 17an onetsitako hamaseigarren ebazpenean, Eusko Legebiltzarrak zera eskatu zion Eusko Jaurlaritzari: *"gainerako erakunde eta administrazioekin lankidetzan jarraitzeko eta lankidetza hori areagotzeko, bereziki foru aldundiei, udalei, Eudeli eta Arartekoari dagokienez; betiere, terrorismoaren biktimen aldeko ekintza publikoa optimizatzeko eta ekimen pribatua sustatzeko".*

## PROTAGONISTAK ETA AZTERLANAREN MUGAK

Horrelako azterlan bat egiteko, beharrezkoa da nahitaez xedea eta mugak ezartzea. Erakunde honek txostena hasita zuelarik, Eusko Legebiltzarrak beste bi erakunderi eskatu zien haiek ere txostenak lan zitzatela. Agindu hori, noski, aintzat hartu da, martxan

---

1 Ikusi hurrengo helbidean: http://www.ararteko.net.

jarritako txosten ezberdinetan errepikapenak eta gainjartzeak saihesteko. Hain zuzen ere, 2007ko urriko osoko bilkuran hartutako ebazpen multzoaren barruan, lehenengo ebazpenean Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari zera eskatu zion: *"kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarriz biktimen identifikazioan eta indarrean dagoen legedian aitortzen diren eskubideen aitortza mailaren ikerketan".* Bestalde, bigarren ebazpenean zera agindu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzari: *"motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimen errealitatearen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarriz biktimen identifikazioan eta aitortza moral eta ordaintza egiteko beharrezko neurriak aztertzen".* Gauzak horrela, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari aldi berean agindutako biktimizazio analisien berariazko azterketa testu honen xedetik kanpo geratzen da hasiera batean.

Ararteko erakundeak EAEn jazotako eta EAEn jazotzen ari den biktimizazio terrorista hartu du oinarri. Noski, horietatik azaleratu egiten da egunero eta zoritxarrez ETAk eragindako biktimizazioa, funtsean bizitzari, osotasun fisikoari eta askatasunari eragindako urradurei dagokienez.

Horrez gain, berariazko zehaztapenen kaltetan izan gabe, terrorismoaren biktimei buruz ari gara beti zentzurik zabalenean, zuzeneko eta zeharkako biktimizazioak nahiz jazo baino lehenagokoak hartuz, hau da, ETAk mehatxaturiko taldeetakoak izateagatik mehatxu lausoa bizi dutenak. Horrekin batera, herritar guztiei zabaltzen zaien biktimizazio sozialaren gaia jorratzen da, nahiz eta ondorioak eduki batez ere talde profesional eta politiko jakin batzuengan.

## BERARIAZKO HELBURUAK ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

Kapitulu bakoitzean helburuen xehetasunezko deskripzioa eta horiek lortze aldera erabili den metodologia azalduko dira. Funtsean, legebiltzarrak gai honetan hartutako erabaki ezberdinek euskal administrazio publikoen aldetik duten betetze maila ebaluatzen saiatu gara, diziplina arteko ikuspegitik begiratuz eta hainbat teknikaren konbinaketa erabiliz.

Metodologia kualitatiboaren aurrean gaude; hori, kapitulu bakoitzaren garapena gorabehera, aldi berean gizarte ikerketako baliabide batzuk erabiltzean islatzen da. Agiriak behatu eta nazioarte, estatu, autonomia erkidego eta toki mailako testu arautzaileak aztertzearekin batera, doktrina azterlan ezberdinetako ondorio batzuk bildu nahi izan ditugu labur. Doktrina azterlan horiek terrorismoaren biktimen eskubideei buruzkoak izan dira. 4/2008 Lege garrantzitsuak, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoa, Eusko Legebiltzarrak onetsitakoa 2008ko ekainaren 19an txosten hau lantzen hasita geundela jada, ildo gidaria izan da txosteneko kapitulu batzuetan jarraitutako eskema lantzerakoan.

Teoriaren eta praktikaren arteko alderaketa Ararteko erakundeak euskal administrazio eta erakunde eskudun ezberdinei helarazitako informazio eskaerei eman zaizkien

erantzunen azterketa soziojuridikoaren bitartez egin da[2]. Horrekin batera, terrorismoaren biktimek eta biktima talde ezberdinek landutako eskubide bakoitzaren gainean zituzten iritzi eta erreakzio ezberdinak bildu dira, bigarren mailako iturrien bitartez batez ere.

Azkenik, azterlan enpiriko propioa landu dugu bi biktimizazio inkestaren bitartez. Biktimologiaren alorrean gehien aurreratu duten azterlanek emandako eskema teorikoa jarraitu da. Lehenengo inkestan zeharkako iturriak erabili dira, eta horiek eraso terroristak jasan dituzten biktimek erakunde eta gizarte ekintzen gainean duten balorazioa adieraztea ahalbidetzen dute. Bigarrenaren bitartez, ETAk mehatxupean edota derrigortzeen pean dituen pertsonek jasaten dituzten biktimizazio esperientzien zati bat harrapatzen saiatu gara. Horretarako, modu osagarrian, eztabaida taldea erabili da. Protagonisten euren ahotsarekin batera, bigarren mailan baino aberasgarri izanez ere, aditu eta profesional kopuru mugatuari egindako elkarrizketen emaitzak erantsi ditugu.

## EGITURA

Txostenak hamar kapituluko egitura izango du. Lehenengo kapitulu honekin hasten da, eta bertan helburuak, metodologia eta txostenaren egitura jaso dira. Bigarren kapitulua da hurrena, gaiaren gainean dagoen nazioarteko araudiaren deskribapenari eta baloraziori buruzkoa. Gaiaren alorreko nazioarteko araudia deskribatzen eta baloratzen hasiko da, izan ere, onartu egin behar da araudi hori izan dela, Nazio Batuena, Europako Kontseiluarena eta Europar Batasunarena funtsean, pizgarri izan dena terrorismoaren biktimen aitorpen publikoa eta haiekiko solidaritatea sustatzeko garaian. Elkarteen mugimenduko eskaerak bildu dira. Hirugarren kapituluan araudi espainiarrak eta autonomikoak egindako bidea eta egun bizi duten egoera ikusiko da, arreta berezia jarriz EAEn.

Laugarren kapituluak terrorismoaren biktima den pertsona bakoitzaren gertuko eta eguneroko errealitatea agertzen du, hau da, haien eskubideak udal esparruan nola aplikatzen diren egiaztatuko da.

Jarraian, terrorismoaren biktimen eskubide ezberdinen kontzeptua eta helmen praktikoa garatuz doaz, EAEn, orokorrean Eusko Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 19an terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko onetsitako 4/2008 Legeak hartutako eskema jarraituz. Horretarako, bostgarren kapituluan duintasunerako, ordain morala eskuratzeko, justiziarako, egia jakiteko eta memoriarako eskubideak jorratuko dira. Seigarren kapituluan arreta emango diogu terrorismoaren biktimen ordain eskubideari, osasunaren –fisikoa zein psikikoa–, jabetzaren (etxebizitza, ibilgailuak, merkataritzako establezimenduak, alderdien eta erakundeen egoitzak...),

[2] Euskal administrazioek erantzun beharreko galdeketa 2007an bidali bazuen ere Ararteko erakundeak, erantzunak 2007 eta 2008an zehar jasoz, eguneratu egin ditugu horietako gehienak 2009ko maiatzera bitarte, horretarako kasuan kasuko web orrialdeak, berariazko kontsultak eta hemerografiako iturriak baliatuz. Hori guztia txosten honek Ararteko erakundearen web orrialdearen berariazko arloaren bitartez eguneratzeak topatzearen kaltetan izan gabe, azkenaldian eta etengabe hainbat ekimen bidean jartzen ari delako.

lanaren, trebakuntzaren eta irakaskuntzaren alorretan islatzen den moduari begiratuz. Zazpigarren kapituluan biktimen eta gizarte osoaren interes legitimoari heltzen zaio: terrorismoari gizartean legitimotasuna kentzeko eskubidea, aipamen berezia eginez hezkuntzari eta gizarte hedabideei.

Zortzigarren eta bederatzigarren kapituluetan terrorismoaren biktima batzuen lekukotzak eskaintzen zaizkio irakurleari. Hemen, eskerrak eman behar dizkiegu bihotz-bihotzetik laguntzeko borondatea eskaini zuten pertsonei, adituekin, profesionalekin eta elkarteko kideekin batera.

Ararteko erakundearen txosten guztietan gertatzen den bezala, terrorismoaren biktimen eskubideak gauzatzen laguntzeko helburu irmoaren ondotik, bukaerako hamargarren kapituluan ondorio eta gomendio orokorrak eta bereziak egin dira, kapitulu bakoitzari dagokionez. Horiei egitura emateko Eusko Legebiltzarraren 4/2008 Legean jasotako eskubideak erabili dira.

Azkenik, egokia iruditu zaigu sei eranskin sartzea. Horiek txosten osoa ulertzeko azterketa elementu zabalagoak eskaintzea ahalbidetzen dute. Lehenik eta behin, talde terroristek 1960tik aurrera erraildako biktimen izenak jaso dira. Bigarrenik, udalerrika, hildako biktimen berariazko zerrenda erantsi da, EAEri mugatuz. Hirugarrenik, biktimen alde eta terrorismoaren aurka hiru batzar nagusien akordioen zerrenda dago. Laugarrenik, DBHko ikasleei indarkeria terroristari buruz eta horrekin lotutako eta hortik sortutako beste gai batzuen inguruan galdetzeko erabili zen galdera sorta erantsi da. Iritzi horiek txosten horretako VII. kapituluan jaso eta aztertu dira. Atal batean euskal gazteek terrorismoaren biktimekiko duten jarrera jaso da, eta hori Arartekoak egin duen txosten monografiko luzeago batetik atera da, *Adingabeek baloreak berenganatzea*. Bosgarrenik, nazioarte, estatu, autonomia erkidego, foru eta toki mailetan gai honetan garrantzitsuak diren araudi eta agiri zerrendak sartu dira. Seigarrenik eta azkenik, terrorismoaren biktimen eskubideak defendatzeko erakundeen zerrenda eta terrorismoan oinarritzen diren biktimologiako berariazko erakundeenak sartu dira.

## AMAIERAKO BALORAZIOA LORTU NAHI DEN HELBURU OROKORRARI DAGOKIONEZ

Txostenaren izaera aintzat hartuta, erakundeko bertako baliabideekin egitea erabaki zen. Erabaki horrek, gaiaren sakontasunarekin eta erabilitako metodologiarekin batera, azaldu egiten du txostenaren lanketa bi urte edo gehiago luzatu izana. Azkeneko helburua ezkutuko errealitate baten gaineko lehen ikuspegi bat eskaintzea izan da, ondoren gai honen adar guztiei argi gehiago emango dieten azterlanak egitea bultzatuz. Konbentzituta gaude ezagutzak lagundu egingo duela euskal erakunde eta gizarteak terrorismoaren biktimen giza eskubideekin duten benetako konpromiso iraunkorrean. Uste dugu haien eskubideak gure eskubideak ere badirela, eta horiek errespetatzeak azkenean bakea eta justizia izango dituen etorkizuna bermatzen duela. Gustatuko litzaiguke txosten hau terrorismoaren biktima bakoitza herritar gisa funtsezkoa izatearen aitorpentzat hartzea.

# II. ATALA

## NAZIOARTEKO ARAUDIA ERREFERENTZI ESPARRU MODURA TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO ERREKONOZIMENDU ETA SOLIDARITATE POLITIKENTZAKO

*“Horretan datza ezagutzaren garapena, ez gauzei buruzko datuen pilaketan, baizik eta horien arteko ezkutuko harremanak islatzen dituen metafora topatzean, horiek hartuko dituen kontzeptua ikustean, horiek baino askoz ere sinpleagoa izan arren: hain zuzen ere, nola izena duten jakitea, izena jartzea”.*

Sampedro (2006, 2)

# I. SARRERA

## 1. Helburuak

Terrorismoaren biktimek babes juridikoa bilatzen dute, eta ez babes erretorikoa, epaitegien aurrean eska ditzaketen eskubideen subjektu modura onartuko dituen araudia[1]. Gaiaren alorreko nazioarteko araudiak gutxieneko printzipio edo estandarrak eskaintzen ditu, eta, orokorrean, *soft law* edo juridikoki ez lotesle bezala har daitezke. Hori horrela izanik ere, horien garrantzia hiru alderditan dago:

1. Nazioarteko adostasunetan oinarritzen dira, estatuek berretsitakoak horiek, oinarrizko giza eskubideen gainean.
2. Betebehar moralak eta politikoak eragiten dituzte.
3. Estatu mailako legedia eta etorkizuneko nazioarteko konbentzioak lantzeko oinarri gisa balio dute.

Zehazki, atal honetan horiek terrorismoaren biktimentzako duten benetako garrantzia azpimarratzen saiatuko gara, bost arrazoi emanez:

---

1 Ikusi Murtziako Victimología Fundazioaren proiektua, Víctimas del Terrorismo Fundazioak babesturikoa, terrorismoaren biktimen biktima eskubide sorta bati buruzkoa. Bertan, egia argitzeko eskubidea, desbiktimazio eskubidea sartzen ziren, jendea bere babesaren garrantziaz jabearazteko eskubidea bezalaxe. Gardentasun eta komunikazio printzipioari garrantzia ematen zaio, terrorismoaren biktimen babesaren barruan. Administrazioarentzako jarduera irizpide modura, konpromisoen gutunen eta kontzientziazioaren beharra erantsi dira (Rubio 2007, 143-144).

1. Nazioarteko araudia biktimologiaren arabera informatzen da, hau da, gaian egindako ikerketak kontuan hartzen ditu eta ezagutza fidagarria eta alderatua agertzen dute.
2. Nazioarteko araudiak lehen definizio egoki bat ematen du terrorismoaren biktimen gainean.
3. Nazioarteko araudiak aipaturiko eskubideak ezin dira "eduki programatiko" bezala eratu. Izan ere, azken batean, Estatu orok errespetatu beharreko giza eskubideen zehaztapen prozesuaren ondotik etorritakoak dira.
4. Nazioarteko araudiak harremana ikusten du terrorismoaren eta gizateriaren aurkako krimenen artean, zigorgabetasunarentzat tokirik gera ez dadin.
5. Nazioarteko araudiak herrialde bakoitzaren praktika ebaluatzeko adierazleak eskaintzen ditu.

Gure kasuan, Eusko Legebiltzarrak berak nazioarteko baliabide eta lankidetzaren garrantzia onartu du zera eskatzean: *"...Eusko Jaurlaritzari terrorismoaren biktimen arretaren gaian lankidetza eta esperientziak trukatzeko sarea bultza dezala eskatzea, Estatuko gainerako administrazioekin koordinatuz eta Europar Batasunaren eta Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen baitan. Bertan herri administrazioak nahiz gobernuz kanpoko erakundeak sartuko lirateke"*[2].

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legeak, Eusko Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 19an onarturikoak, "biktimen eskubideak" jorratzen dituen Titulu bat sartu du berrikuntza moduan, giza eskubideen urratze larri eta sistematikoak pairatzen dituzten biktimen nazioarteko babesa oinarritzat hartuta[3]. Lege horretan azpimarratu egiten da interpretazio eta doktrina lotura horrek biktimak jartzen dituela eskubide subjektu gisa, nahiz eta programa edukikoak horiek.

Terrorismoaren biktimen babes juridikoak Estatuan orokorrean delituen biktima izandakoen aldeko nazioarteko mugimendua izan du aitzindari, sistema zehatzaileetan ahazturik utzi izan baitira tradizionalki. Mugimendu hori bereziki nabarmena izan zen nazioarteko eremuan XX. mendeko laurogeiko hamarkadan, nahiz eta terrorismoaren biktimei dagokienez I-11ko atentatuetara arte itxaron behar izan zen[4].

Kapitulu honen helburua terrorismoaren biktimen babeserako EAEko araudian eta praktikan errespetatu behar diren nazioarteko estandarrak zehaztea da. Estandar horiek sarrerako hitzekin heldu nahi izan dugun *metafora* dira. Oinarrizko printzipioak edo gutxieneko tratukoak dira; horien edukia giza eskubideen garapena da egon daitezkeen ahultasun kasuei dagokienez, adibidez biktimizazio terrorista. Estandar horien arabera, biktimen aldeko politika oro duela gutxiko ikerketa biktimologikoetan oinarritu behar

---

2 Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5eko osoko bilkuran onartutako hamalaugarren ebazpena, terrorismoaren biktimei zuzendurikoa.

3 4/2008 Legearen I in fine atalaren zioen azalpenean adierazten denez, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean oinarritutako irizpenak aipatzen zuen jada terrorismoaren biktimen eskubideen gaineko aitorpen politikoaren beharra, nazioarteko aitorpenen oinarriaren gainean (4.b puntua).

4 Terrorismoaren biktimen elkarte ezberdinen paper eraginkorrari dagokionez, garrantzi moralarekin AEBetako politika publikoetan (Israel, Ipar Irlanda eta, mugaturik, Espainiarekin alderatuta) Hoffman eta Kasupski ikus daiteke (2007).

da. Politika eraginkorrak, iraunkorrak eta bidezkoak izan behar dira, azken batean, biktimazioa deuseztatuko dutenak edo, nahiago bada, eremu pertsonala, harremanena eta gizartearena lehengoratuko dutenak.

Nazio Batuen Erakundeak onartu egiten du bere estandar eta arauen azken xedea giza eskubideak sendotzea eta herrialde guztietan Zuzenbide Estatua izatea dela. Justizia zehatzaileari buruzko estandarrek egitura zuzenagoak eta eraginkorragoak bilatzen dituzte, garrantzia argitzen duten hiru dimentsioen bitartez. Lehenengo dimentsioak nazioarteko adierazleak ematea esan nahi du, herrialde eta lurralde ezberdinen praktika alderatzeko. Bigarrenak aldaketen beharra ebaluatzea suposatzen du[5]. Hirugarrenak positiboki ebaluatutako praktiken adibideak jartzea eta gaian nazioarteko lankidetza egiturak ematea esan nahi du (Nazio Batuen Erakundea, 2006b, 1).

Komenigarria da argitzea terrorismoaren biktimei buruzko nazioarteko araudiak ez dituela bakarrik gobernuen ordezkari diren adituen interesak biltzen, erakunde askeenak ere biltzen direlako. Zentzu horretan, gizarte justiziako eta demokraziako gaiak bermatzen dira, hau da, kalteturiko pertsonek, babeserako elkarte eta taldeen bitartez, eragiten dieten arazoen definizioan eta lankidetza beharrezkoa duten erantzunetan parte har dezakete.

## 2. <u>Metodologia</u>

Kapitulu honetan ez da ikuspegi juridikorik hartzen, biktimologiaren ikuspegia eta ikuspegi soziojuridikoa baizik. Aipatutako testu juridikoak horien aplikazioa eta ebaluazioa bermatzen duten beste batzuekin uztartzen dira, gaiaren alorrean egindako ikerketa ezberdinen emaitzekin bat etorriz.

Lehen aipatutako helburua lortze aldera, erabilitako metodologiak elkarrekin lotura duten hiru lan dira:

1. Terrorismoaren biktimei buruzko araudi zehatzaren gaineko azterketa, nazioarteko erakunde ezberdinetatik datorrena.
2. Delituen biktimei buruzko nazioarteko araudi orokorraren egokitzapena terrorismoaren biktimei, zehazki EAEn, eta mehatxaturiko pertsonak sartuz.
3. Terrorismoaren biktimak babesteko nazioarteko gutxieneko printzipioen zerrenda lantzea.

Eranskinean adierazitako baliabide juridikoak berraztertu egin dira, ikerketa biktimologiko garrantzitsuenekin batera. Xedea aipatutako helburuari buruzko gaiak planteatzea da: zer estandar dator testu bakoitzetik eta zein da horren oinarri biktimologikoa? Aldaketa beharra ebaluatzerakoan, zeintzuk dira EAEn duen aplikazioan plantea daitezkeen hobekuntzak?

---

5 Ikusi, orokorrean, Waller (2003, 23).

Aztertutako baliabideak datu base arautzaileetan bilatuz eta nazioarteko erakunde ezberdinen web orrialdeak kontsultatuz eskuratu dira, gaiaren alorrean dagoen bibliografia berraztertzearekin batera. Gainera, 2007ko urriaren amaiera aldera, kontsulta zehatza egin zitzaion Segurtasun Kontseiluko Terrorismoaren aurkako Batzordeari (TAB) eta Drogaren eta Delituaren aurkako Bulegoko Terrorismoaren Prebentziorako Azpisailari (DDNBB), informazio xehatua eskatuz terrorismoaren biktimen alor zehatzean garatutako jardunari buruz eta, zehazki, jazarpen indarkeriaren biktimei buruz. Bestalde, 2007ko uztailetik, harremanak izan dira Ines Staiger andrearekin, Europa mailan Lehengoratze Justiziaren Foro Europarreko justizia lehengoratzeari eta terrorismoaren biktimei buruzko proiektu europarraren arduraduna. Foro hori Europako Batzordeak finantzaturiko proiektuaren barruan egongo litzateke, Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuarekin (Herbehereak), *Victim Support* erakunde herbeheretarrarekin eta Terrorismoaren eta Indarkeria Politikoaren Azterlan Zentroarekin (St. Andrews Unibertsitatea, Erresuma Batua) batera. Proiektu horren barruan, deklarazioa onartu zen 2008ko martxoaren 11n terrorismoaren biktimei emaniko laguntzaren gainean.

Biktimazio terroristaren alorrean dauden datu enpiriko eskasek, bai gure herrialdean, bai hemendik kanpo, biktimazio terroristaren banakako eta taldeko inpaktua neurtzeari eman diote arreta, inpaktu psikologikoa batik bat. Halaber, bigarren mailako biktimazioa prebenitzeari arreta eman zaio. Egintza terroristen gainean azterlan mugatuak egin dira Ipar Irlandan, Israelen, AEBn, Espainian eta Ingalaterran (Lima 2006, 56 eta 68). Edonola ere, indarkeriazko delituen biktima direnen gaineko azterlan argiak ere baditugu, zehazki indarkeriak haiengan duen eraginaren eta haien beharren gainean[6]. Horrela, ezkutuko, bigarren mailako, errepikaturiko biktimazioa; biktimazio inkestak; biktima izatearen arriskua; desbiktimazio prozesuak... bezalako kontzeptuak sortu dira, eta orrialde hauetan zehar aplikatzen joango dira gure testuinguruko terrorismo delituei heltzerakoan.

Halaber, Zuzenbidearen Soziologian berezkoak diren kontzeptuak erabiliko dira estatu mailako legedi eta praktiken eta nazioarteko estandarren artean agertzen diren zartadurak aztertzeko. Horiek neurri handi batean –jada adierazi den bezala– *soft law* gisa hartzen dira.

## 3. Egitura

*Terrorismo* eta *terrorismoaren biktima* kontzeptuetan zehaztapen terminologikoak egin ondoren, araudia aztertuko da maila unibertsalaren (Nazio Batuak) eta Europako eskualdeetakoaren (Europako Kontseilua, Europar Batasuna eta ESLA) arteko bereizketa eginez. Gainera, nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde batzuk egindako

6 Biktimazio inkestek, adibidez, hogeita hamar urtetik gorako tradizioa dute mendebaldeko zenbait herrialdetan eta hogei baino gehiago nazioarte mailan (Waller 2003, 12-21). Zenbatespenak egitea ahalbidetzen dute kopuru beltza edo ezkutuko biktimazioa deitzen den horren inguruan, hau da, kontrol juridiko zehatzaileko agentzientzat ezezagunak diren eta bereziki larriak diren horien gainean. Horien artean egongo lirateke esate baterako terrorismo mehatxuak eta derrigortzeak. Aitzitik, ez dago inkesta monografikorik edo terrorismoari eta/edo jazarpen delituei buruzko galdera zehatzak biltzen dituenik EAEren barruan edo handik kanpo –ezta beste herrialde batzuetan ere–.

gomendioak sartuko dira. Horiek terrorismoaren biktimen eskubideen alorrean lan egiten dute. Azkenik, biktimen politikan aplikatzeko eratorritako printzipio batzuk eskuratuko dira gai horretan.

## II. TERMINOLOGIA ZEHAZTAPENAK

### 1. Terrorismoa

Kochek dio terrorismoaren definizioan adostasunetara iristeko nazioarteko saiakeren ezaugarri komuna dela arrakasta eskasa izatea (2007, 1). DDNBBren web orrialdeak *adostasunerako definizio akademikoa* sustatzen du: *"Terrorismoa indarkeriazko jardueren metodo iraunkorra da. Antsietatea sortzen du eta banan banako, taldeko edo estatuko jardule (erdi) ezkutuek erabilitakoa da arrazoi idiosinkrasikoak, kriminalak edo politikoak izanda. Bertan, hilketa kasuetan ez bezala, indarkeriaren xede zuzenak ez dira helburu nagusiak. Indarkeriaren giza biktimak ausaz aukeratzen dira normalean (aukera helburuak) edo xede den biztanleriaren barruan aukeratuta bestela (helburu ordezkatzaileak edo sinbolikoak), eta mezuaren sortzaile gisa balio dute. Terroristaren (bere erakundea), biktimen (arriskuan jarritakoak) eta helburu nagusien arteko mehatxu eta indarkerian oinarrituriko komunikazio prozesuak helburu nagusia (entzuleak) manipulatzeko erabiltzen dira eta hura terrorismo, eskari edo arretaren xede bihurtzen da, nagusiki lortu nahi dena larderia, derrigortzea edo propaganda den gorabehera"*[7].

Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarraren 1.426 Gomendioak, 1999koak, zera hartzen du terrorismo jardueratzat: *"indarkeria edo mehatxua herrialde baten, haren erakundeen, biztanleri orokorraren edo pertsona zehatzen aurka erabiltzen duten gizabanakoek edo taldeek egindako edozein delitu. Horiek, xede separatistak, muturreko ideologia, fanatismoa edo arrazoirik gabeko faktoreak eta faktore subjektiboak izanda, beldur giroa sortu nahi dute herri agintarien, gizabanako batzuen edo gizarte taldeen artean edo jendearen artean orokorrean"*[8].

Europar Batasunaren baitan, Kontseiluaren 2002ko ekainaren 13ko Esparru Erabakiak terrorismoaren aurkako borrokan bederatzi delitu mota bitarteko terrorismo asmoen gaineko definizioa eransten du. Asmo horien artean honakoak egongo lirateke: herrialde edo nazioarteko erakunde bat larriki kaltetzea biztanleria serioski beldurtzeko; gobernu edo nazioarteko erakunde bat jarduera jakin bat egitera edo egiteari uztea behartzea; herrialde bateko edo nazioarteko erakunde bateko funtsezko egitura politikoak, erakundeetakoak, ekonomikoak edo gizartekoak serioski ezegonkortu edo hondatzea.

---

7 Ikusi http://www.unodc.org/unodc/terrorism_definitions.html. EAEn talde terroristatzat hartzen da biktimentzako laguntzen barne araudian definiturik geratzen direnak, hau da, ETA eta iraganean jardun duten beste batzuk (ETA-pm, Kapitalismoaren aurkako Komando Autonomoak, Batailoi Euskaldun Espainiarra, GAL eta A Hirukoitza). GRAPO eta terrorismo islamiarra ere kontuan hartu beharko dira EAEn jarduerak egin bezain pronto eta/edo euskal herritarrei eragiten dieten bezain laster.

8 http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta99/erec1426.htm.

Bestalde, Ekonomi Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA), enpresa aseguratzaileen[9] kezka kontuan hartuta, terrorismoari buruzko hurrengo definizioa proposatzen du baliabideen, eraginen eta asmoaren irizpideen pean: egintza bat, indarkeriaren erabilera eransten duen egintza bat, nahiz eta ez bakarrik indarkeriarena; kalte edo mehatxu larriak eragiten ditu bizitzaren aurka edo ondasun ukigarri edo ukiezinen gainean. Helburua edozein gobernu edo erakunde publikotan eragina izan edo egonkortasuna galaraztea da eta/edo beldurra eta segurtasun eza eragitea biztanleriaren zati batean edo guztian. Helburua politikoa, erlijiokoa, etnikoa, ideologikoa edo antzekoa izaten da (Koch 2006, 5).

## 2. Terrorismoaren biktimak

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen terrorismo jardueren biktimak babesteko printzipioek, 2005ekoak, terrorismoaren biktimen definiziorik topatzen ez dugula diote Giza Eskubideen Hitzarmen Europarrean, ezta Auzitegiaren jurisprudentzian ere. Hala eta guztiz ere, orokorrean delituen biktima izandakoei buruzko Nazio Batuen 1985eko Ebazpena eta Europar Batasuneko Kontseiluaren Esparru Erabakiaren 1. artikulua heltzen ditu, 2001eko martxoaren 15ekoa hura, prozedura zehatzailean biktimek duten kokalekuari buruzkoa[10]. Terrorismoaren biktima izango litzateke egintza terrorista baten ondorioz kalte zuzena, fisikoa zein psikikoa, jasan duen hura eta, horrelakorik balego, bertan sartuko lirateke hurbileneko senideak[11]. Definizio horrek ez du loturarik gaizkilearen identifikazioarekin, atxiloketarekin, auzipetzearekin edo zehatzearekin[12].

---

9 Kochentzat (2007, 11), aseguru enpresak kontuan hartzen dituen terrorismoaren biktimentzako kalte-ordain ereduen edozein eskema harrapatu nahi den eremuaren –delitu larrien beste biktimekiko eta hondamen naturalekiko alderaketa saihestu gabe–, gizarte segurantzako barne erregimenaren, aseguru enpresen merkatu pribatuaren, kalte-ordain kulturaren nahiz Estatu mailako beste faktore batzuen mendekoa izango da (solidaritate nazionalaren ideia adibidez, adibide frantziarrari jarraiki). Ikusi http://www.oecd.org/dataoecd/55/2/34065606.pdf. ELGAk terrorismoaren prebentzioari buruzko azterlanak egiten ditu ere, herrialde baten garapen ekonomikoa galarazten duen elementu gisa. Bertan sartuko lirateke terroristek erabilitako kapitalak zuritzeari buruzko alderdiak. Horrela, terrorismoak sortutako biktimazio lausoaren eragin ekonomikora hurbil gaitezke, gure herrialdeko azterlan enpirikoetan hain gutxi ebaluaturikoa hura. Ikusi Calleja (2006).

10 Artikulu horren arabera, biktima da kalte fisiko edo mentala, sufrimendu emozionala edo galera ekonomikoa jasan duen edozein pertsona fisikoa, hori barne zuzenbide zehatzailea urratzen duten egintza edo egintza faltak zuzenean eragindakoa bada. Ondoren, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen (2006)8 Gomendioaren 1.1. artikuluan, delituen biktimei emaniko laguntzari buruzkoa hura, biktimaren definizioa jaso zen ere kalte fisikoa, mentala, emozionala edo galera ekonomikoa jasan duen pertsona fisiko gisa, estatu batean sailkatutako egintza edo egintza faltak sorturikoa izatean. Gainera, zuzeneko biktimaren hurbileko familia edo haren mende daudenak aipatu dira.

11 Giza Eskubideen Gorte Europarraren jurisprudentziaren interpretazioa muturrera ere eraman daiteke zera ulertzeko: agintariek ez badiote behar bezalako erantzuna ematen terrorismoaren biktima zuzena izandako baten senideari, hark agintarien jokabidearen biktima izatea erreklama dezake zuzenean, adibidez Giza Eskubideen Hitzarmen Europarraren 3. artikuluaren kontrako tratua jaso izana alegatuz. Desagerturiko senide bati buruzko informazioa eskuratzeko saiakera egin zuen pertsona bati agintariek emaniko isiltasunari dagokionez, ikusi Zipre vs. Turkia, 2001eko maiatzaren 10ekoa. Urraduraren funtsa agintarien erreakzio eta jarreretan zegoen egoera jakin horren aurrean, are gehiago kontuan hartuta zeintzuk diren pertsona baten sufrimenduari dimentsio partikularra ematen dioten faktoreak.

12 Zentzu horretan bertan, ikusi 1985eko Nazio Batuen Aitorpenaren 2. paragrafoa eta Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen delituen biktimei emaniko laguntzari buruzko (2006)8 Gomendioaren 2.3. paragrafoa.

Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideen Bulegoak antolaturiko goi mailako topaldian, Vienan 2006ko irailean eginikoa[13], terrorismoaren biktimaren definizioa eztabaidatu zen. Nazioarteko hitzarmenetan definiziorik ez dagoela azpimarratu zen berriro ere, Nazio Batuen 1985eko aitorpenari (1. eta 2. artikuluak)[14] eta 2005ekoari (8. eta 9. artikuluak)[15] helduz. Gainera, "biktima" terminoa erabiltzearen zailtasuna azpimarratzekoa da, pertsona batzuk amaierarik gabeko biktimismo edo ahultasun iritziei uztarturikoa dela uste izateagatik. Bestalde, delitu ezberdinen edo delitu eredu ezberdinen biktima hierarkiak saihestea eztabaidatu zen, horiek zentzugabekoak edo eraginkortasunik gabekoak badira praktikan.

Zehazki, **mehatxu eta derrigortze** terroristen biktimei buruz, Nazio Batuen, Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren nazioarteko araudiak aipa ditzakegu, lekukoen babesaren eta justiziari laguntzen diotenenaren alorrean. Aitzitik, Euskadin mehatxaturik dauden pertsonen arazoak salatari eta/edo lekuko gisa izan dezaketen papera gainditzen du.

## III. NAZIO BATUAK ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

Garai hartan Nazio Batuen idazkari nagusi zen Kofi Annanek 2005eko martxoaren 10ean emandako hitzaldian, Madrilen, Atotxako atentatuen lehenengo urteurrena betetzen zen hartan, zera esan zuen argi eta garbi: *"Biktimak errespetatu egin behar ditugu. Entzun egin behar ditugu. Gure esku dagoen guztia egin behar dugu haiek laguntzeko"*[16].

Terrorismoari buruzko nazioarteko araudi sorta garrantzitsua dago, baina oso eskasa da terrorismoaren *biktimen* gai zehatzean. Hirurogeiko hamarkadatik terrorismoaren aurkako nazioarteko baliabideak daude, eta haren errepresiorako biktima jakin batzuen berariazko maila publikoa kontuan hartzen da[17]. Hain zuzen ere, terrorismo egintzen egozpena biktimak babesteko modu orokorra da, baina, Zuzenbide zehatzaile modernoaren alorrean tradizioz gertatu den modura, kaltegilearen irudiari ematen zaio arreta

---

13 Ikusi haren lan dokumentua helbide honetan: http://www.osce.org/documents/odihr/2007/09/26120_en.pdf.

14 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpena, Batzar Nagusiarena, Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioei buruzkoa.

15 1985eko Ebazpenari jarraiki Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpena onartu zen, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroei buruzkoa.

16 Biktimei emaniko laguntza espres hori berretsi egin zen 2005eko irailaren 16ko Batzar Nagusiaren Ebazpenean.

17 1963tik aurrera, terrorismoa prebenitzeko eta deuseztatzeko baliabide juridiko unibertsalak landu dira. Horietara hurrengo helbidearen bitartez irits daiteke: http://www.unodc.org/unodc/es/terrorism.html.

(Gozzi eta Laborde 2005)[18]. Fernández de Casadevantek (2005, 14) dioen moduan, hasieran erabateko arduragabetasuna sumatzen da terrorismoa jasaten zuten estatuei eta haren biktimei dagokienez.

Aitzitik, I-11ren ostean, Segurtasun Kontseiluaren eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpen ezberdinek mina eta solidaritatea adierazten dituzte biktimekiko. Hala eta guztiz ere, bidea dago oraindik egiteko. I-11tik aurrera, egile batzuk aldaketa nabarmena sumatzen dute nazioarteko Zuzenbide publikoan, terrorismoa giza eskubideen urraduratzat hartzeagatik[19] eta nazioarteko krimenaren izaera eztabaidatzera ere iritsiz. Halaber, terrorismoaren biktimak eskubideen titulartzat hartzen dira, giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen eta nazioarteko Zuzenbide zehatzailearen arteko mugan (Fernández de Casadevante eta Jiménez 2005, 100-7), nazioarteko Zuzenbide gizatiarra barne[20].

Edonola ere, lehen "terrorismo" terminoaren definizioan orokorrean adierazitako zailtasunak zaildu egiten du hitzarmen zehatzagoak onartzea eta benetako bermeak izango dituen biktimen babeserako sistema ezartzea.

Nazio Batuek funtsezko lana garatzen dute gutxieneko printzipio edo estandarrak jartzerakoan, biktimak modu egokian tratatze aldera. Kasu askotan, estandar horiek artikulu zehatz bihurtu dira estatu bakoitzaren legediaren barruan eta nazioarteko hitzarmenen barruan[21].

Justizia zehatzailearen eremuan Nazio Batuek estandarrak jartzeak bost hamarkada hartzen ditu. Estandar horiek estatuetako politiken egoera eta garapena ebaluatzeko balio dute, eta Nazio Batuek horien aplikazioan indarra jartzen dute egun eta ez bakarrik barne zuzenbidean eranstearen eta positiboki ebaluatutako esperientzien trukearen gaian. Halaber, garrantzitsua da estatuak eta gobernuz kanpoko erakundeak gaiaren alorreko nazioarteko proiektuetan sartzea.

---

[18] Kontua ez da bakarrik haren jokabidea erreprimitzea, baizik eta giza eskubideak babestea estatuko gehiegikerien aurrean. Hori da, adibidez, 2005ean giza eskubideen eta terrorismoaren aurkako neurrien errespetuari buruzko komisario bereziaren sorreraren arrazoia. Haren agintaldia hiru urtekoa da Nazio Batuen Erakundearen baitan (Sundberg 2005).

[19] Beste alderdi bat da estatukoak ez diren jardule terroristei giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eremuan erantzukizuna eskatzea zaila dela (Fernández de Casadevante 2005, 17-9). Ikusi *infra* giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen urradura argien biktimen eskubideari buruzko eta errekurtsoak jartzeko edo bestelako ordaina jasotzeko nazioarteko zuzenbide gizatiarraren urradura larriei buruzko printzipio eta oinarrizko gidalerroak, 2005eko abenduaren 16an onarturikoak NBEren Batzar Nagusiak.

[20] Gozzi eta Labordek, nazioarteko Zuzenbide gizatiarra biltzen duten Genevako konbentzioei helduz, adierazten dute ezin dela terrorismoaren biktimentzako nazioarteko babes txikiagoa eutsi bake garaian (2005, 297-8).

[21] Ikusi http://www.victimology.nl. Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuak (Herbehereak) garatutako web orrialdea da. Orrialde horren bitartez ere, hurrengo dokumentuaren 2006ko bertsiora hel daiteke: *Delituak Prebenitzeko eta Justizia Zehatzailerako Estandar eta Arauen Nazio Batuen Bilduma* http://www.unodc.org/unodc/compendium.html. Nazioarteko legediaren balio juridiko eta praktikoari buruz jakiteko, ikusi Gozzi eta Laborde (2005, 286-9).

Jarraian, terrorismoaren biktimei buruzko Nazio Batuen araudiari helduko diogu, hura lantzeko izandako eremu ezberdinak bereiziz (elkarren artean lotura izanda): giza eskubideen babes orokorra eta barne eta nazioarteko justizia zehatzailea.

## 1. Giza eskubideen babes orokorra

Nazio Batuen Erakundea, terrorismoaren alorrean giza eskubideak sustatzeari dagokionez, gaizkileen giza eskubideez arduratu da batez ere, egon zitezkeen botere abusuen aurrean. Edonola ere, argi dagoela dirudi terrorismo jarduera orok pertsona zehatzen giza eskubideak urratzen dituela. Horrela, Giza Eskubideen Batzordeak hiru eremutan zehazten du urradura (Fernández de Casadevante eta Jiménez 2005, 172): bizitza eskubidea, askatasuna eta gizabanakoen duintasuna; gizarte demokratikoaz gozatzeko eskubidea; eta gizarte bakea eta orden publikoa izateko eskubidea, beldurrik gabe bizitzeko biztanleriak duen eskubidearekin batera.

Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Konferentzian, Vienan 1993an eginikoa, hartu zen jada biktimaren ikuspegia nolabait. Giza eskubideei eta terrorismoari buruzko 1995eko 50/186 Ebazpenak, Batzar Nagusiarena, egintza terroristak onartzen ditu forma eta adierazpen guztietan, eta giza eskubideen urradura larria eratzen dute inolako inguruabarren pean justifikatzeko aukerarik izan gabe. Modu berean, terrorismoaren biktimekiko solidaritate printzipioa adierazten da. Halaber, terrorismoaren biktima direnentzako Nazio Batuen borondatezko fondoa ezartzeko aukera aipatu zen, biktimak lehengoratzeko eta berriro integratzeko elkarrekin lana egitea bezalaxe. Nazio Batuek onartu egin dute terrorismoa nazioarteko bake eta segurtasunerako mehatxu larrienetako bat dela[22]. Gainera, *"...terrorismo jarduerak, metodoak eta praktikek forma eta adierazpen guztietan giza eskubideak, funtsezko askatasunak eta demokrazia hondatzea dute xede..."*.

2003/37 Ebazpenak, NBEren Giza Eskubideen Batzordearena, espresuki aipatzen du terrorismoaren biktimen beharrei eta haiek gizarteratzeari arreta emateko beharra. Halaber, *Terrorismoaren aurkako Nazio Batuen Estrategia Globala* azpimarra daiteke, 2006koa eta Batzar Nagusiak 60/288 Ebazpenean onarturikoa. Dokumentu horretan terrorismoa hedatzen laguntzen duten baldintzei aurre egiteko neurriak bilduko dituen ekintza plana ezartzen da. Baldintza horien artean hurrengoak aipatzen dira: *"...terrorismoaren biktimei gizatasuna kentzea forma eta adierazpen guztietan..."*. Hartutako neurrietako bat honakoa da: *"borondatez, laguntzako sistema nazionala ezartzeko aukera aztertzea, terrorismoaren biktimen eta haien familien beharrei arreta emanez eta haien bizitza normalizatzea erraztuz. Horri dagokionez, estatuei gonbitea luzatzen diegu, Nazio Batuen erakunde eskudunei sistema nazional horiek sortzeko laguntza eska dezaten. Halaber, nazioarteko solidaritatea bultzatzeko esfortzua egingo dugu, biktimak babestuz eta gizarte zibilaren parte-hartzea sustatuz terrorismoaren aurkako eta hura zigortzearen aldeko mundu mailako kanpaina batean. Kanpaina horren zati modura, Batzar Nagusian biktimei laguntza emateko mekanismo praktikoak lantzeko*

[22] Ikusi 2005eko Mundu Mailako Gailurraren azken dokumentua, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onarturikoa 60/1 Ebazpenean.

*aukera azter daiteke".* Terrorismoa prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien artean, tamaina handiko egintza terroristetako biktimei laguntzeko nazioarteko lankidetza egongo litzateke. Azkenik, giza eskubideei errespetua izango zaiela bermatzeko neurrien artean, azpimarratzekoa da terrorismoaren biktimen eskubideak sustatu eta babesteko beharra. 2008ko irailean terrorismoaren biktimei buruzko nazioarteko sinposioa egin zen Nazio Batuen Erakundearen egoitzan. Bertan, ahotsa eman zitzaien biktimei eta hobeki ebaluatutako biktimei laguntzeko programak eztabaidatu ziren.

Bestalde, terrorismoaren biktimen kexak entzun eta eztabaidatzeko Nazio Batuen foro eskasetako bat Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea da (Sundberg 2005, 320).

## 2. Lankidetza justizia zehatzailearen esparruan (nazioartekoa eta barrukoa)

Berezko sistematizazioa jarraituz, hemen Nazio Batuen Erakundeak justizia zehatzailearen eta delinkuentziaren prebentzioaren lan eremuan bideratutako ekimenak xehatuko dira, nazioarteko delinkuentzian eta, orokorrean, delituen biktimetan oinarrrituriko testuen artean bereizketa eginez.

### 2.1. Nazioarteko delinkuentzia

Nazioarteko delinkuentziaren kontzeptuaren barruan, globalizazioaren fenomenoari heltzen zaio estatu guztien interesekoak diren delituak daudela adierazteko. Izan ere, mugak igarotzea beharrezkoa da (nazioez haraindiko antolaturiko kriminaltasuna) edo giza eskubideen urradura larria da (nazioarteko krimenak), eta biak elkarrekin agertzera ere gerta liteke. Terrorismoa eredu batean edo bestean koka daiteke. Horrek eragina du prozesuei dagokienez justizia unibertsal deituriko horretan[23].

#### *2.1.1. Terrorismoaren biktimak nazioz haraindiko delinkuentziaren biktima bezala*

Nazioz haraindiko kriminaltasunaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena, Palermoko Hitzarmena bezala ezaguna dena, 2000ko azaroaren 15eko A/RES/55/25 Ebazpen bitartez onartu zen eta indarrean jarri zen 2003ko irailaren 29an[24]. Terrorismoa sartzea proposatu zen arren, azkenean antolaturiko kriminaltasuna bakarrik aipatu zen mozkin ekonomikoak lortzeko helburu bakarrarekin. Edonola ere, haren 25. artikuluak biktimen babeserako printzipioak biltzen ditu, eta horiek terrorismoaren biktimei buruzko nazioarteko etorkizuneko araudian jarraitu beharreko eredua eratzen dute. Drogaren eta Delituaren aurkako Bulegoak (DDNBB) praktika egokien gidaliburua landu du antolaturiko kriminaltasunarekin zerikusia duen prozedura zehatzailean lekukoak

23 Ikusi BJLOren 23.4. artikulua.

24 Espainiak 2002ko martxoaren 1ean berretsi zuen hitzarmen hori.

babesteari buruz[25]. Antolaturiko krimenaren biktimei buruzko bibliografia eskasean biktimen ahultasun handiagoa azpimarratzen da (van Dijk 2002).

AEBetan 2001eko irailaren 11n izandako atentatuen ostean, Segurtasun Kontseiluak 1.373 (2001) Ebazpena onartu zuen, Terrorismoaren Aurkako Batzordea (TAB) ezarriz. Batzorde honek terrorismoaren aurkako politika diseinatzen du, eta haren aplikazioa ikuskatzen du. Aitzitik, jarduerek gaizkileengan oinarritzen jarraitzen dute berriro ere.

Lehen, Drogaren eta Delituaren Aurkako Bulegoa nazioarteko terrorismoaren aurkako lankidetzari buruzko gaiez arduratzen zen. 2002an bere Terrorismoaren Prebentziorako Azpisailaren laguntza tekniko eta juridikoko jarduera programa zabalagoa onartu zuen, estatu kide guztiek terrorismoaren aurkako araubide juridiko unibertsal funtzionala ezartzea lortze aldera. Araubide hori Zuzenbide Estatuaren printzipioekin bat etorriko litzateke, gaizkilearen ikuspegitik. Horren froga gisa, esan daiteke "biktima" terminoa DDNBBk 2006an argitaratutako *Terrorismoaren aurkako baliabide unibertsalak legedian sartzeko eta aplikatzeko gida* lanean bilatuz gero hogeita hamabost alditan aipatzen dela, gidak hirurehun eta hirurogeita hamahiru orrialde izan arren. Funtsean, horiek biktimaren izaera juridikoari mugatzen zaizkio bahiketak izatean eta nazioarte mailan babesturiko pertsonen kasuan, lekukoak babesteko berariazko neurririk ez egotearenean eta terrorismoaren biktimei kalte-ordaina emateko mekanismoen sorrerarenean, terrorismoaren finantzazioa deuseztatzeari buruzko 1999ko hitzarmenarekin bat etorriz[26]. Edonola ere, terrorismoaren biktimekiko "solidaritate sakona" aipatzen da, eta haurren ahultasunari heltzen zaio berariaz[27].

### *2.1.2. Terrorismoaren biktimak gizateriaren aurkako krimenen biktima bezala*[28]

Terrorismoa nazioarteko krimen gisa (gerrakoa eta gizateriaren aurkako larri gisa) hartzeko dagoen interes politikoa eta biktimen aldekoa biktimak zigorgabetasunetik babestean dago, preskribaezintasunari eta amnistiak eta indultuak mugatzeari

[25] Hurrengo helbidean azter daiteke: http://www.unodc.org/unodc/en/organized-crime/index.html. Ikusi Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren eremuko krimen antolatuaren araudia. Bertan, urratsak egiten ari dira biktimak babestearen alde, eta ez bakarrik gaizkileen jokabidea zigortzearen alde.

[26] 8. artikuluaren laugarren paragrafoan, hitzarmenak eskatu egiten die estatuei mekanismoak jar ditzatela aktiboetan harrapaturiko kopuruetatik etorritako fondoak terrorismo delituen biktima izandakoei eta haien senideei kalte-ordaina emateko. Gidan adierazten da posible litzatekeela barne Zuzenbidean berariazko xedapenak sartzea, zehapenen emaitza terrorismoaren biktima direnentzako berme fondora zuzentzeko. Lehen aipatutako 50/186 Ebazpenean bezalaxe, 1.566 (2004) Ebazpenak, Segurtasun Kontseiluarenak, nazioarteko fondoa sortzeko aukera planteatu zuen, arrakasta gehiegirik gabe. Hala eta guztiz ere, diru izaerakoak ez diren beste jarduera batzuetarako interesgarria izan liteke. Ebazpen hori nazioarteko erreakzioaren zati bat izan zen Errusiako Federazioan Beslango ikastetxea eraso zuten terrorista txetxeniarren aurrean.

[27] Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2005/20 Ebazpena, delituen biktima eta lekuko izandako haurrei buruzko alderdietako justiziari buruzko gidalerroak onartzen dituena.

[28] Sistematizazio helburua izanda, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen barruko jarduerak biltzen dira hemen, DDNBBri bakarrik mugatu gabe.

dagokionez[29]. Gizateriaren aurkako krimen bat izateko larritasun edo sistematizazio berezia behar da. Peruko Herriaren Defendatzaileak interpretatzen duenaren arabera, Giza Eskubideen Amerika Barruko Gortearen jurisprudentzia aztertzean, nahikoa da gertaerak giza eskubideen urradura larritzat hartzea, adibidez tortura izatea, eta gizateriaren aurkako krimen larri gisa hartu behar izan gabe eta gizateriaren aurkako krimen gisa hartuz bakarrik (Herriaren Defentsa Erakundea 2007, 137-9). Nazioarteko Zigor Gortea sortu zuen Erromako Estatutuak terrorismoa sartzen ez badu ere berariaz, Erromako Konferentziako Amaierako Aktaren E Ebazpenak etorkizunean hura sartzeko aukera jasotzen du[30].

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenaren bitartez, honakoa onartu zen: *Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroak*[31]. *"Talde gisa helburutzat hartutako pertsona taldeen aurka"* zuzendutako biktimazioko modu garaikideei buruz ari da. Kalte-ordainak bost erantzun mota hartzen ditu:

1. Ondasunak lehengoratzeko neurriak, posible bada. Helburua delituaren ondorioak gutxitzea da, biktimak eta haien senideak lehengoratuz eta delitua baino lehen bizi zituzten baldintza berdinetara itzuliz.
2. Kalte-ordain neurriak. Kalte-ordainak ekonomikoki baloratzea esan nahi du kalte materiala eta morala, aukera galera eta laguntza juridikoko gastuak.
3. Berregokitzapenerako neurriak. Berregokitzeko neurriek osasun neurriak, neurri psikologikoak eta/edo psikiatrikoak nahiz kaltea gainditzeko behar izan daitezkeen hezkuntza eta gizarte eta lan neurriak biltzen dituzte.
4. Gogobetetasun neurriak. Gogobetetasunak egintza sinboliko eta iraina ordaintzekoak hartuko lituzke: monumentuak, omenaldiak, errekonozimenduak...

---

[29] Ikusi Espainiako Zigor Kodearen XXIV Tituluan bildutako delituak; bertan, genozidioa preskribaezintzat jotzen da gaiaren alorreko nazioarteko araudiari jarraiki.

[30] Europako Kontseiluaren eremuan eta Nazioarteko Zigor Gorteak izan dezakeen eskumenari dagokionez gizateriaren aurkako krimen gisako terrorismoari buruz, ikusi 1534 (2001) eta 1644 (2004) gomendioak. Eransketa hori COVITE eta SOS-Attentats (http://www.sos-attentats.org) erakunde frantziarrak bezalako elkarteek babesten dute. Ikusi Italian http://www.vittimeterrorismo.it. Oraintsu, ikusi Bou eta Fernández de Casadevante (2009).

[31] Printzipio horiek adituen, gobernu arteko erakundeen, gobernuz kanpokoen eta estatu kideen arteko lantze prozesu luzearen emaitza dira. Hasiera batean, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordearen Diskriminazioak Prebenitzeko eta Gutxiengoak Babesteko Azpibatzordeak Theo van Boven izendatu zuen 1989an errelatore berezi. Hark, 1993an, behin betiko txostena argitaratu zuen izenburu honen pean: giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urradura argien biktimen lehengoratze, kalte-ordain eta errehabilitazio eskubideari buruzko azterlana (E/CN.4/Sub.2/19993/8). Azterlan horretan ondorioztatzen da giza eskubideen urradura guztiek biktimaren eskubidea dakartela kalte-ordaina jasotzeko, sufrimendua arindu eta justizia egite aldera. Kalte-ordain horrek biktimen behar eta nahiei erantzun behar die. Nazioarteko Zuzenbideko krimenen kasuan, kalte-ordainak halabeharrez dakar gaizkileak auziperatzea eta zigortzea. Ikusi 1997an M. Joynet errelatore bereziak aurkeztutako txostena. Bertan, "Biktimak kalte-ordaina jasotzeko duen eskubideari" buruzko atala erantsi zen (E/CN.4/2000/62). 2000n, Cherif Bassiouni irakasleak hurrengo izenburua duen txostena aurkeztu zion Giza Eskubideen Batzordeari: giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide gizatiarraren nazioarteko arauetan urradurak jasan dituzten biktimen eskubidea errekurtsoak jarri eta kalte-ordaina jasotzeko. Oinarrizko printzipioak eta gidalerroak (E/CN.4/2000/62). Bertan, biktimek justizia izateko, kaltea konpondua izateko eta urradurei buruzko benetako informazioa eskuratzeko eskubideak jaso ziren.

5. Berriro errepikatuko ez denaren bermea. Horretarako, poliziaren, justizia Administrazioaren, hezkuntzaren, hedabideen, eta abarren inguruko egitura erreformak egin beharko dira adibidez. Gogobetetasun eta ez errepikatzearen bermeak eremu ekonomiko edo materialetik haratago joan nahi dute, eta desbiktimazio jarduerak, ikerketa eta arduradunen zehapena biltzen ditu, amnistietan edo preskripzioetan babestu gabe. Halaber, memoria berreskuratzea[32], prebentziorako hezkuntza, eta abar[33] lortu nahi dira.

## 2.2. Delituen biktimen interesak lehengoratzea justizia zehatzailean

Edozein delituren biktimak, delitu larrietan modu nabarmenagoan, ahaztu egin zituen Zuzenbide zehatzaile modernoak, auziperatuarentzako bermeei arreta ematean. Zuzenbide Estatu ororen eraikuntzan hori beharrezkoa bazen ere, denborarekin ikusi ahal izan da bigarren mailako biktimazioa edo biktimei eragindako kalteenaren eragina hor dagoela, Justizia Administrazioaren jardunaren beraren ondorioz. Joan den mendeko laurogeiko hamarkadatik pixkanaka protagonismoa berreskuratzen ari gara biktimen eskubideak eta gaizkileena bateratzeko sisteman, eta nabarmenki bultzatu da nazioarteko erakundeetatik.

### 2.2.1. *1985eko Deklarazioa Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen gainean*

Nazio Batuen Erakundeak printzipio garrantzitsuak garatu ditu delituen eta botere abusuaren biktimen gaian eta biktimazioaren prebentzioan orokorrean. Horiek terrorismoaren biktimei aplika dakizkie erabat. Printzipio horiek hiru testutan biltzen dira funtsean:

– Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioei buruzko Deklarazioa, 1985eko azaroaren 29ko Batzar Nagusiaren 40/34 Ebazpenaren eranskin modura jasoa.

---

[32] Travesok argitu egiten du nola egungo memoriaren kontzeptua hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera hedatu zen gizarte zientzietan, eta egun "omenaldi obsesioaren" arriskua dagoela (2007). Halaber, Historiaren eta memoriaren artean ezberdindu behar da. Egungo Historiak, ahozko kontakizunen bitartez, bere iturrietako bat bezala hartzen du memoria: *"Memoria kualitatiboa da, berezia, ez du kezka handiegirik alderaketengatik, testuinguruan kokatzeagatik, orokortzeengatik... Askotan, oso zaila da ahozko iturriekin lan egiten duten historialarientzat enpatiaren eta distantziaren arteko oreka zuzena topatzea, berezitasunen eta ikuspegi orokorraren arteko errekonozimenduaren artean"* (ibídem 2007, 22; 25). Traversok aipaturiko Hobsbawnen esaldi bat egokituz: biktimei zuzenduriko historia ez litzateke historia ona izango, hura egiten dutenak kontsolatzen baditu ere. Zentzu berean, Paul Valéryk zera ziurtatzen du: *"oroitzapena olerkaria da, ez nahi izan harengandik historialari bat egitea"*. Ikusi biktimazio terroristaren adibide zehatzak Euskal Autonomia Erkidegoan, Etxebarria (2007). "Justizia anamnetikoari" dagokionez, ikusi Mardones eta Mate (2003). Memoriari buruzko ondorengo kapitulua zabalago begiratu.

[33] Kalte-ordaineko lau ereduren adibideak ikus daitezke Perun, Herriaren Defentsa Erakundean (2007, 208-29).

- Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak onartutako Ekintza Plana uztailaren 28ko 1998/21 Ebazpenean.
- Justizia Gidalerroak edo Jarraibideak Adin Txikiko Biktima eta Lekukoei dagokienez, kontseilu horrek harturikoak uztailaren 22ko 2005/20 Ebazpenaren bitartez.

Jada aipatu den bezala, printzipio horiek bermatzeko urrats garrantzitsua nazioarteko hitzarmen ezberdinetan sartzea izan da. Horiek juridikoki lotesleak dira behin estatuek berretsita. Horrela, hurrengoak izango litzateke: Nazioarteko Zigor Gortea ezartzen duen Erromako Estatutuaren 15.3., 68, 75, 79 eta 82. artikuluak; krimen antolatuaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren 25. artikulua eta Pertsonen Trafikoa Prebenitzeko, Deuseztatzeko eta Zigortzeko Protokolo Osagarriaren 6. eta 8. artikuluak nahiz Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren 32. artikulua. Joera horrek sendotzeko joera du, eta terrorismoaren biktimei buruzko xehetasun gehiagoko nazioarteko hitzarmen eta baliabideei eragingo die.

1985eko Deklarazioa, Biktimen Karta Magna modura nazioartean izendaturikoa, adostasunez hartu zen eta benetako inpaktua izan zen. Hala eta guztiz ere, ezin esan daiteke zorrozki biktimen eskubideen babesak herrialde gehienetan izandako aurrerapenaren arrazoia deklarazio hori izan zenik. Urteetan zehar hura betetzen zuten ebaluatzeko galdera sorta erantzutea eskatu zaie estatuei[34], kontuan hartuz erantzun prozesuak “sentsibilizazio efektua” duela bere horretan[35]. Edonola ere, biktima politiken diseinatzaileentzako Gidaren sarreran, 1999koan, adierazten da ziurrenik ez dela herrialderik izango biktimekiko tratamendua deklarazioarekin bat etorriz betetzen duenik. Hain zuzen ere, beste hainbat helburuen artean, Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuak (Herbehereak) garatutako datu baseen aplikazioa erraztea dago[36].

### *2.2.2. Nazio Batuen Hitzarmen Proiektua Delituen eta Botere Abusuaren Biktimei emaniko Justizia eta Laguntzaren gainean*

1985eko Deklarazioa funtsezkoa izan zen biktimen eta haien eskubideen kontzeptuaren nazioarteko definizioan eta Nazio Batuen Erakundeak Delituaren eta Botere Abusuaren Biktimen Justizia eta Laguntzari buruzko Proiektuarentzako oinarria izan zen. Hura Biktimologiako Mundu Mailako Elkargoko eta Biktmologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuko (Herbehereak) aditu eta kideek idatzi zuten 2005ean. Hura onartzerakoan Estatuak berretsi ondoren, testu lotesle baten aurrean egongo ginateke, kontrolerako berariazko mekanismo batzuekin. Horregatik, eta, funtsean, 1985eko Deklarazioaren edukia biltzeagatik, haren edukiaren gaineko azterketa laburra egingo dugu.

---

34 Ikusi hurrengo dokumentuak: Implementation of the Declaration of Basic Principles of Justice for Victims of Crime and Abuse of Power (Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1989/57 Ebazpena) eta Plan of Action for the Implementation of the Declaration of Basic Principles of Justice for Victims of Crime and Abuse of Power (Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1998/21 Ebazpena).

35 V. kapitulua, C. 4. paragrafoa, 2.a.

36 http://www.victimology.nl helbidea.

Proiektuaren hitzaurrean terrorismoak eta biktimei laguntza egokia ez emateak sortzen duten sufrimendua onartzen da[37]. Bigarren artikuluan berariaz jasotzen da terrorismoa hitzarmenaren xede den biktimazioaren arrazoi bezala[38]. Biktima jakin batzuen kasuan, ahultasunagatiko diskriminazio positiboaren aukera aurreikusten da (3.3. art.). Neurriak aplikatzerakoan, aldi baterako planifikatu behar dira lehentasunak (3.2. art.). Estatuek konpromisoa hartu behar dute prebentzioarekin, hau da, biktimazioa txikitzearekin faktore anitzeko ikuspegitik (4. art.). Estatuek funtsezko lau eskubide bermatu behar dizkiete biktimei, eta horrek Estatu mailako hainbat betebehar ekartzen ditu:

A. Justizia eta bidezko tratua izateko eskubidea. Mekanismo judizialetara eta egoera konpontzekoetara iristea prozesu azkarra, bidezkoa, doakoa eta irisgarria izan behar da[39]. Horretarako:
   a) Biktimak entzun egin behar dira arrazoizko epe baten barruan, egoera lehengoratzeko eskubidea zehazte aldera.
   b) Prozesuaren fase ezberdinetan haien interesak aurkeztu eta kontuan hartzeko aukera izan behar da.
   c) Poliziak edo beste erakunderen batek berreskuratutako jabetzak ahalik eta lasterren itzuli behar dira.
   d) Kasu bat artxibatua izatearen aurka egiteko eskubidea izan behar dute.
   e) Prozesu informaletan, administratiboetan eta judizialetan laguntza egokia eman behar zaie, epaiketetara laguntzea barne.
   f) Biktimei[40] kalteak eta erosotasun ezak gutxitzeko eta pribatutasuna babesteko neurriak hartu behar dira.
   g) Biktimen eta lekukoen babesa bermatu egin behar da, haien familiena bezalaxe[41].
   h) Behar ez bezalako atzerapenak gaitzetsi egin behar dira prozeduretan.
   i) Egoera lehengoratzeko neurriak aplikatzen direla bermatu behar da.

B. Informazio eskubidea. Lehenengo momentutik biktimek jakin egin behar dute informazioa eskuratzeko eskubidea dutela, eta bertan hurrengo alderdiak sartzen direla: laguntza jasotzeko dituzten zerbitzu eta antolamendu moten gaineko informazio orokorra eta zehatza, osasun laguntza, gizartekoa eta beste mota batzuetakoa barne; non eta nola jar dezaketen salaketa; salaketaren prozesua eta bertan duten papera; ikerketaren garapena, prozedura judizialena eta izan dezaketen parte-hartzea; babesa lortzea; laguntza juridikoa eskuratzea; kalte-ordain publikoa eskuratzeko prozedurak, eta informazio gehiagora iristea.

---

37 2006ko azaroaren 14ko proiektuaren bertsioa aipatzen dugu. Hura http://www.victimology.nl helbidean kontsulta daiteke.

38 Hain zuzen ere, aditu batzuk "terrorismoaren biktimen" berariazko aipamena proposatzen dute Hitzarmen Proiektuaren tituluan. Bangkokeko 2005eko Deklarazioan, Delituaren Prebentzioari eta Justizia Zehatzaileari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Hamaikagarren Biltzarrean onarturikoa, gogorarazi egin zen estatuek juridiko eta ekonomikoki atenditu behar dituztela terrorismoaren biktimen behar bereziak eta lehengoratze justiziako politikak babestu, horrelakorik dagoen kasuan.

39 Mekanismo horien barruan lehengoratzeko justizia sartzen da.

40 Zehapen prozedurako gastuak itzultzea barne.

41 Ikusi 6. art.

Eskubide hau aplikatzerakoan kontuan izango dira egon daitezkeen kultur oztopoak, ezintasunekoak edo beste mota batekoak.
Gainera, nahi duten biktimei bermatu egin behar zaie bere eskaera edo salaketaren inguruko emaitzari edo faktore garrantzitsuei buruzko informazioa eskuratzeko aukera, epai judizialaren gainekoa bezalaxe. Bereziki biktimentzako arriskua badago, akusatua edo kondenatua aske utzi dutela jakinarazi behar zaie.

C. Laguntza materiala, medikoa, psikologikoa eta soziala jasotzeko eskubidea, koordinatutako tokiko eta lurraldeko sareen bitartez. Laguntzaren barruan berehalakoa edo presazkoa sartzen da, epe ertain eta luzean behar dena bezalaxe. Eskubide hau biktimen intimitatea eta bizitza pribatua izateko eskubideari errespetu izanez erabili behar da.

D. Egoera konpontzeko eskubidea. Estatu mailako legediak egintza terroristen egileek beren biktima, familia edo haien mendekoei zor dieten kalte-ordaina jaso behar du. Egoera lehengoratzeak jabetza itzultzea edo jasandako kaltea edo galera ordaintzea esan nahi du, biktimazioaren ondorioz egin ahal izan diren gastuen itzulera, zerbitzuak lortzea eta eskubideak lehengoratzea. Erantzukizun zibila ez badu gaizkileak betetzen, estatuak nahita egindako delituek ekarritako kalte fisiko edo psikiko larrien biktimei nahiz haien senideei kalte-ordaina eman behar die, batez ere biktimazioaren ondorioz hildako biktimen mendekoei. Fondo publikoak, estatu, lurralde eta toki mailakoak, jarri eta zabaltzea sustatu behar da, ekonomikoki biktimei kaltea ordaintzeko tratamendu fisiko eta psikikoengatik nahiz diru-sarrera galeragatik, hileta gastuengatik eta mendekoen mantenu baliabideen galeragatik. Konpentsazioa edo kalte-ordain publikoa bidezkoa, azkarra eta egokia izan behar da heriotza, kaudimen falta edo erantzulearen identifikazio falta tartean bada. Gainera, informazio zehatza eman behar zaie onuradun izan daitezkeen guztiei, horietara irits daitezen.
Kaltea lehengoratzeko eskubideari dagokionez, lehengoratze justiziarako eskubidea sartu behar da. Izan ere, biktimek informazioa eta babesa jaso behar dute biktimen interesak lehentasun modura kontuan hartuko dituzten bitartekaritza konpontzaileetan parte hartzeko aukerari dagokionez [8. art. B.e) eta 9. art.]. Estatuek azpimarratu egin behar dute beharrezkoa dela gaizkileek beren erantzukizuna gain hartzea egindako delituengatik eta biktimarentzako horrek dituen ondorio negatiboak onartzea. Parte-hartzea borondatezkoa izango da beti, duintasunari eta eskubideei errespetua izanez.
12. artikuluan eta hurrengoetan aplikaziorako eta Konbentzioa betetzen dela kontrolatzeko mekanismoak ezartzen dira. Azpimarratu egiten da garrantzitsua dela biktimekin harremanetan dauden langileen eguneroko praktikaren gaitasunak eta jarrerak, betiere, “*diziplina arteko eta lankidetzako ikuspegitik*” (12.2. art.).
Estatuek legediak, araudia eta prozedurak berraztertu eta ebaluatu behar dituzte aldizka (13.1. art.). Justiziari eta Delituen eta Botere Abusuaren Biktimei Laguntzeari buruzko Batzordea ezartzea aurreikusten da, eta horrek txostenak jasoko ditu aldizka hitzarmenen egoeraren gainean, errazten duten faktoreak eta egon daitezkeen oztopoak adieraziz. Txosten horiek publikoak izan behar dira idazten dituzten herrialdeetan bertan. Batzordeak *in situ* egin ditzake bisitak herrialdeetara (14. eta 15. artikuluak).

### *2.2.3. 1985eko Deklarazioa aplikatzeko gidaliburuak*

Nazio Batuen lana ez zaio mugatzen estandarrak lantzeari, Estatu bakoitzaren barruan zein neurritan aplikatzen diren aztertzeaz ere arduratzen baita. Horrela, delituaren prebentzioan eta zigor justizian Nazio Batuen Erakundeak dituen estandar eta arauei buruzko 2006/20 Ebazpenak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak onarturikoa, eskatu egiten dio DDNBBri aditu taldea bil dezala aplikazio horren gaineko datuak jasotzeko baliabidea diseinatzeko eta horren guztiaren sustapena aztertzeko. Urte hartako ohar batean, DDNBBk agindu hori azpimarratzen du, eta, besteak beste, Europako Kontseiluarekin, Europar Batasunarekin eta beste erakunde batzuekin duen berezko koordinazio lana azpimarratzen du, biktimen beharrak ikertzea sustatzearena bezalaxe. Estatu kideen kasuan, DDNBBk hamar betebehar identifikatzen ditu:

1. Nazioarteko estandarrekiko errespetua biktimei eragiten dien legediaren, prozeduren, politiken eta praktiken garapenean.
2. Aplikazioa sustatzeko eta ikuskatzeko mekanismoak eta baliabideak ezartzea.
3. Norberaren hizkuntzan nazioarteko printzipioak argitaratu eta hedatzea erakunde eta elkarte egoki guztietan.
4. Nazio batuen 1999ko gidaliburuen erabilera –horiek eguneratzea proposatzen da–.
5. Prestakuntza programen garapena biktimekin harremanetan dauden langile eta boluntario guztientzat.
6. Jardueraren ebaluazioa biktimekin, DDNBBk garatutako baliabideak barne.
7. Biktimazio inkestak egitea, biktimazioaren helmena eta biktimen esperientzia eta iritziak ezagutze aldera.
8. Lankidetza beste estatu batzuekin eta Nazio Batuekin.
9. Oinarrizko printzipioekiko errespetua, egoera lehengoratzeko 2002ko Justizia programak aplikatuz.
10. Berariazko neurrien garapena biktima ahulenentzako.

Zazpigarren puntuari dagokionez, biktimazio inkestak Biktimologia modernoaren funtsezko baliabide bihurtu badira ere, ez da ahaztu behar egokitu egin behar direla ezkutuko kriminaltasuna harrapatzeko, adibidez mehatxuak eta terrorismo derrigortzeak. Hori bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen badugu horrelako inkestetan aitzindari eta sustatzaile izandako herrialdeetan ez zela ohikoa terrorismoa eta, ondorioz, ez dugula terrorismoaren biktimei berariaz zuzendutako biktimazio inkestarik[42].

---

[42] Nahiz eta zenbait aldarazpenekin, eremu ingelesean erabilitako laginak eta galdera sortak, hogeita hamar urtetik gorako esperientziarekin, nolabaiteko egonkortasuna gorde dute, denboran zehar alderatzea erraztuz (Varona, 2001). Biktimazio inkesta osatuenen adibidea eratzen dute, normalean lau atal erantsiz:

1. Biktimazioaren neurria eta haren aldagaiak, salatu edo ez alde batera utzita -salaketa ezeko portzentajeek kopuru beltza aztertzeko balio dute-.
2. Delituarekiko beldurra eta biktimazio arriskuarekin duen lotura.
3. Kontrol juridiko zehatzaileko agentzien balorazioa.
4. Jarrera zehatzaileak.

### *2.2.3.1. Delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioei burutzko Deklarazioaren erabilera eta aplikazioari buruzko Justizia Gidaliburua (1999)*

Delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioei buruzko Deklarazioaren erabilera eta aplikazioari buruzko Justiziari buruzko gidaliburua (1999) berrogei herrialdetik gorako aditu talde batek landu zuen Drogen eta Delituaren Prebentzioaren Kontrolerako Nazio Batuen Bulegoarentzat[43]. Ia ez dago berariazko aipamenik terrorismoaren biktimei buruz[44], baina biktimei laguntzeko programak praktikan jarri eta hobetzera zuzendutako baliabidea da, berariazko gidaliburuen beharraren kaltetan izan gabe. Gidaliburuaren edukian biktimazioaren inpaktuari zuzendutako zatia eta laguntzari zuzendutakoa bereiz daitezke.

Biktimen arretarako programak diseinatu aurretik, biktimazioaren **inpaktua** edo eragina eta handik eratorritako beharrak zeintzuk diren jakin behar da. Esan daiteke egintza terrorista orok eragin fisiko, ekonomiko eta psikologiko askea sortzen duela gizarte beldurraz gain. Hura are larriagoa izan daiteke bigarren mailako biktimazioarekin, hau da, erakunde eta gizartearen aldetiko ahaztearekin. Eragin hori biktima zuzenetik haratago doa: *"ikerketen arabera, biktimazioaren talka uhinaren (shock wave) eraginek ez dutela bakarrik biktima kaltetzen, harekin batera familiak ere jasotzen duelako kalte hori..."*[45]. Eragina nabarmenagoa da nolabaiteko gizarte bazterkeria eta/edo aldez aurretiko desoreka emozionalak bizi dituzten pertsonengan.

Biktimazioaren gainean dauden ikerketak ez dira behin betikoak. Gizakiaren jokabidea anitza eta konplexua denez, oso zaila da biktimen erantzunak aldez aurretik ezagutzea. Eredu teoriko tradizionalak hiru aldi ezberdintzen ditu:

1. Hasierako shocka, beldurra, haserrea, babesgabetasuna, ezin sinetsia eta/edo errua. Horiek guztiak epaiketara, osasun tratamendura joatean edo beste pertsona batzuei antzeko gauzak gertatzerakoan biziberri daitezke. Gidaliburuaren arabera: *"...haserre, beldur, frustrazio, erru, lotsa edo tristezia erreakzio gehienek ez dute esan nahi biktimak ezohiko edo gaiztotasun ezaugarriak aurkezten dituenik. Besterik gabe, gizakiaren tristeziaren eredua islatzen dute, eraso kriminal bakarraren aurrean"*[46], aldez aurretik arazo emozionalak

[43] Biktimen lagundu eta biktimologian profesionalak direnei zuzendutako berariazko gidaliburuei buruz, terrorismoaren biktimentzako baliabide europarren sustapen proiektua ikus daiteke http://www.eureste.org helbidean. Ikusi Terrorismoaren Biktimen Sare Europarra (European Network of Victims of Terrorism); hark, Europako Batzordearen finantzazioarekin, erakunde ezberdinak multzokatzen ditu: http://www.europeanvictims.net. Bestalde, Estatu Batuetako Justizia Saileko Delituen Biktimen Bulegoak terrorismoaren biktimek beren buruari laguntzeko egindako gidaliburuaren edizio elektronikoa aipa daiteke. Ikusi AVTren gidaliburua (2004), lege izapideei buruzkoa bereziki. Gai psikologikoei dagokienez, Pérez, García eta Sáinz (2002).

[44] Gidaliburuaren izaera orokorra da, beraz, ez dira delitu motak zehazten. Edonola ere, terrorismoari egiten zaio aipamenen bat edo beste, adibidez, botere abusua.

[45] Gidaliburuaren gaztelerazko bertsioko 1. kapituluko 10. paragrafoa. Hurrengo helbidean azter daiteke: http://www.victimology.nl.

[46] II. kapitulua, C.2.

edo buruko osasunekoak dituzten edo beren buruarekiko edo beste pertsona batzuekiko min emateko moduan erreakzionatzen duten pertsonak egotearen kaltetan izan gabe.

2. Antolamendu ezeko aldiak, pentsamendu negatiboekin, amesgaiztoekin, depresioarekin, erruarekin, beldurrarekin eta konfiantza eta estimu galerarekin.
3. Berreraikitze, onarpen eta egokitzapen aldia.

Biktima guztiek ez dute trauma osteko estresa delakoa bizitzen, mantentzen diren eta nagusi diren oroitzapen negatiboekin. Fenomeno hori modu horretara aztertu zen laurogeiko hamarkadatik haratago funtsean, estres horren arrazoia gizakiari atxikitako ahultasunean ez zegoela argitzeko, baizik eta harengandik kanpo kokatzen zela esateko, oso faktore mingarri gisa. Edonola ere: *"Minarekin ikus daitekeen moduan, bizipen traumatikoa prozesu emozional eta kognitiboen bitartez iragazten da, muturreko mehatxu gisa ebaluatzeko aukera izan aurretik. Ebaluazio prozesu honetan dauden alderdiak direla eta, badirudi jendeak trauma maila ezberdinak dituela; batzuk babes gehiago dute eta beste batzuk joera handiagoa dute sintoma klinikoak garatzeko…"*[47]. Delitu oso larriekin egindako ikerketen arabera, biktima batzuk osatu egiten dira, beste batzuk urteetan zehar edota bizitza osoan zehar sintomekin jarraitzen duten bitartean[48]. Gainera, zenbait kasutan trauma bat gainditzen dutenen seme-alabek trauma osteko estres nahasmenduko sintomak ager ditzakete, edo, besterik gabe, biktimazioko sintomak modu orokorragoan.

Gizarte erantzunari dagokionez, gidaliburuak azpimarratu egiten du biktimek gure ahultasuna gogoratzen dutela eta, are gehiago esatearren, baita gure erantzukizuna ere. Gizarteak "isiltasun konspirazioa" sor dezake; horren aurrean, biktimei zaila egiten zaie beren bizipen eta ondorioak jakinaraztea. Ahal den guztia egin behar da biktimek mehatxuekiko, behartzeekiko eta/edo atentatu terroristekiko gizarte eta erakunde errefusa senti dezaten eta herritar modura duten balioa berrets dakien. Biktimak errespetuz eta behar besteko errekonozimenduarekin tratatzeak, eskubideak errespetatuz, egiaztatu egiten du biktima horientzako errefusa eta justizia bilatzea.

Edonola ere, hurbileneko bigarren mailako biktimazioa justizia zehatzailetik dator eta, normalean, *"...justizia zehatzailearen prozesuak eta prozedurak izapidetzeko ardura duten horiek biktimaren ikuspegia kontuan izan gabe egiten dutelako izaten da"*[49]. Bigarren mailako biktimazioa osasun, eskola, eliz[50], politika, hedabide... praktika eta jarreretatik ere etor daiteke, baita biktimei laguntzeko diseinatu diren berezko zerbitzuetatik ere. Biztanle multzo txiki eta landa zonalde batzuetan, terrorismoaren biktimei emaniko gizarte laguntza txikiagoa izanez, bigarren mailako biktimazioa nabarmenki altuagoa izan daiteke haiek babesteko betebeharra dutenen axolagabekeriaren aurrean.

---

[47] 1. kapituluko aipamena; B.1 atala, 3. paragrafoa.

[48] Biktima batzuk baliabide gehiagorekin egiten diote aurre ondorengo traumei; beste batzuk ahultasun handiagoarekin.

[49] 1. kapitulua, C atala, 2. paragrafoa.

[50] *"Elizen ordezkariek biktimak gidatzeko saiakera egin dezakete, barkamenaren eta adiskidetzearen bidetik, haiek prest egon baino lehen edo beren nahien aurka",* 1. kapitulua, C. atala, 3. paragrafoa.

Azken batean, euskal gizartearen kohesioaren gaineko biktimazio larri eta jarraituaren gizarte kostua ebaluatzeko dago oraindik.

**Laguntza** programek, edo agian hobe izango da biktimekiko *lankidetza* edo *solidaritate* idaztea –haien protagonismo aktiboa azpimarratze aldera–, kontuan izan behar dute baliabideak jartzearen helburua, biktimek biktimazioari aurre egin eta hura gainditu ahal izateko[51]. Biktimen segurtasuna, eta hori garrantzitsua da mehatxaturiko pertsonentzat, sustatu egiten da ere ekitaldiak kontrolatzeko aukerak ematen direnean; inguruabar teknikoak errespetatuz, beren segurtasunaren gaineko erabakietan parte hartzeko aukera dutela sentitzen dutenean: *"Biktimei beren aukeraketak egiteko aukera eman beharko litzaieke, erabaki garrantzitsu guztietan eta ahal den neurrian esku hartuz"*[52].

Biktimekiko solidaritate programak biktimazioak sortutako beharretara zuzentzen dira, alderdi anitz eta dinamikoetan. Hirutan laburbil daitezke: duintasuna/autonomia (partehartzea), justizia, eta lehengoratze eta memoria. Horrek konpromiso publiko argia izatea eskatzen du, gizarte zibil osoa harrapatuz. Justiziara iristeak, kasu bakoitza gorabehera, maila jurisdikzional guztiak hartzen ditu, lehengoratzeko justizia proiektuak eta estatu eta nazioarte mailak bezalaxe.

Laguntza programa bat hasteko beharrezkoa da haren xedea eta helburuak zehaztea, lantalde egokia izatea eta beharrezko koordinazioa edukitzea. Adibidez, terrorismoaren biktimei laguntzeko programa zehatza diseinatzerakoan jada existitzen diren behar eta baliabideak ebaluatu behar dira biktimazio indize eta motak zehaztuz, eratorritako salaketak ulertuz, horiek estaltzeko egon daitezkeen baliabideak ebaluatuz, beharrezko laguntzaren helmena eta eskuratzeko aukera, eta politika, lege eta prozedurak aldarazi edo sartzeko komenigarritasuna, koordinazioa bermatzeko eta bikoizketak saihesteko erakunde arteko lankidetzari buruzkoak sartuz.

Biktimen beharren azterketarako, gidaliburuak eranskina biltzen du prozedura zehatzailearen hurrengo parametro eragileekin: biktimen kalte-ordaina, osasun zerbitzu orokorrak, buru osasuneko zerbitzuak[53], biktimazioaren prebentzioa[54], hezkuntza sistema, babes izpirituala, gizarte segurantza, aseguru pribatuak eta gizartearen babes informala.

Biktimek ez badakite laguntza zerbitzuak eskura dituztela edo zerbitzu hauek ez badituzte bilatzen beste arrazoi batzuk direla eta, pentsatu egin behar da eraginkorrak izateko sorta zabaltzeko programa motan. Halaber, aipamen espresa dago gidaliburuan

---

51 Ikusi 2. kapitulua.

52 II. kapitulua, C.1.

53 Horien barruan, lehenik eta behin, buru osasuneko zerbitzurik badagoen galdetzen da. Erantzuna baiezkoa bada, honakoa galdetzen da: traumaren bat duten pertsonentzako eguneko 24 ordutan lanean dagoen telefonorik badago edo ez; eguneko 24 orduetan zerbitzu anbulatoriorik badago edo ez; buru osasuneko zentro komunitarioak daude edo ez; zeintzuk dira kostuak; zeintzuk dira zentro horien eta bertako profesionalen baliabideak (Biktimologian duten prestakuntza barne), eta nola egiten dira bideratzeak.

54 Biktimekin zerikusia duten zerbitzu guztietan kontuan hartu behar da zein da jasotzen duten informazioa edo jasotzera iris daitezkeena eta nola egiten den, biktimazioa txikitzeko erabiltze aldera.

*ombudsmanaren* lanaren gainean eta biktimekiko. Halaber, *ombudsmana* aipatu egiten da biktima politiken diseinatzaileen gidan. Izan ere, biktimentzako justiziara iristeko lehen bide bat eman dezakete, ondorengo ikerketa osatuago baterako gertaerak salatuz (Nazio Batuak 1999b, 9).

Hezkuntza publiko eta sentsibilizazio teknikei buruz, honakoak bildu dira: ikerketaren sustapena; urteurrenak; monumentuak; plaza eta kaleei izena eman edo zutena aldatzea; kirol eta/edo arte ekitaldiak egitea; ikastaroak eta jardunaldiak antolatzea; arazoari buruzko kultur obrak saritzeko deialdia egitea; liburutegiei fondo espezializatuak ematea; hedabideekin harremanetan jartzea; ahozko historiako agiritegiak sortzea; webguneen bitartez berariazko informazioa ematea, eta abar.

Biktimak atenditzen dituzten eta haiekin lan egiten duten profesionalentzako laguntza eta errekonozimendua ezin da faltatu. Jarraikako prestakuntza jaso behar dute, biktimen beharrak (beren ezaugarrien arabera), krisietarako erantzuna, indarkeriaren prebentzioa eta diziplina anitzeko lankidetza hartuz. Biktima asko lehen mailako taldeetara bakarrik joaten da (senideak eta ezagunak), beraz, gizartean biktimen errespeturako edo laguntzarako funtsezko ezagutzak eta balioak hedatu behar dira, biktimen osaketa horren guztiaren mendekoa baita.

Gidaliburuaren III. kapituluan biktimekin harremanetan jar daitezkeen zortzi agenteren berariazko papera berraztertzen da: polizia kidegoak; abokatu eta fiskalak; epaile eta Justizia Administrazioa; espetxeetako Administrazioa; hezkuntza erakundeak; osasunaren alorreko profesionalak; hedabideetakoak eta erlijioaren edo laguntza izpiritualaren alorrekoak.

A. Polizia kidegoak.

Kasu askotan polizia da biktimekin harremanetan jartzen den lehenengo erakunde publikoa, eta haiek emaniko tratuaren araberakoa izango da biktimak haiekin lankidetzan aritzea gertaerak judizialki argitzerakoan. Gidaliburuan zera zehazten da: *"Biktimari lasaitasuna eman beharko litzaioke, gertatu dena gizarteak gaitzesten duen zerbait dela eta komunitateak harekiko enpatia duela azpimarratuz. Prozesua poliziak biktima lasaitzean datza eta, horrelakorik posible denean -esku artean dugun kasuan bezala-, argi uztea gertatutakoa ez zela biktimaren errua izan"*[55]. Poliziaren zerbitzuek, gutxienez, hurrengo alderdiak izan behar dituzte:

- Ikerketa prozesuaren argibide orokorrak.
- Frogak babesteko moduari buruzko informazioa biktimentzako.
- Larrialdiko osasun zerbitzuetara laguntzea, horrelakorik behar duten kasuan.
- Eskubideen gaineko informazioa.
- Arreta eskain diezaieketen erakundeetara berehala bideratzea, ahoz nahiz idatziz.
- Haien segurtasuna, beren familiena bermatzeko eta biktimazio berria saihesteko neurriak.

---

[55] III. kapitulua, A.1 atala, 4. paragrafoa.

- Indarkeriazko delituen biktimek aldizka eta behar bezala ikerketen egoeraren gaineko informazioa jasotzen dutela bermatzeko prozedurak, horixe nahi badute.
- Esku-hartze aurreikuspenak krisi garaian.
- Laguntza zerbitzuetako profesionalekin harremanetan izatea[56].

Profesional ezberdinen jarduna aldizka aztertu eta ebaluatu behar da, terrorismoaren biktimei galdetuz (mehatxaturiko taldeak barne) nola tratatu dituzten, haien jarduna hobetze aldera. Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, laguntza lanean bideratutako lehenengo harremanak eta gero, galdera sorta laburra pasa liezaieke biktimei, jarduerarekin zerikusia duten alderdi hauei eta beste batzuei buruz galdetzeko. Halaber, agentzia eta erakunde ezberdinetatik jasotako tratuari buruz galdetuko litzateke, ezarritako protokoloen arabera eta betetzen dela bermatuz.

B. Biktimen abokatuak eta Fiskaltza.

Abokatuek jakin egin behar dute zeintzuk diren biktimen eskubide eta beharrak 1985eko Deklarazioa betetze aldera. Horretarako, behar bezalako prestakuntza izan behar dute.

Fiskalek ere betebeharrak dituzte biktimekiko: pasarazi, prozesuari buruzko informazioa eman eta beren eskubide guztiak babestu eta bermatzea, hori guztia tratu duinarekin.

C. Epaileak eta Justizia Administrazioa.

Hamar alderdi adieraz daitezke:

1. Biktimekiko errespetuzko tratua.
2. Epaitegietan zonalde egokiak jartzea, adibidez itxaroteko inguruneak eta bainugela bereiziak defentsarentzat eta fiskaltzaren lekuko eta biktimentzat.
3. Informazioa ematea arreta eta laguntza baliabideen eta auzien egoeraren gainean.
4. Interprete eta itzultzaile zerbitzuak.
5. Derrigorrezkoa denera bakarrik mugatzea epaitegietara egin beharreko bisitaldiak.
6. Biktimen jabetza frogatzeko materiala azkar itzultzea.
7. Babesa. Biktima eta lekukoen helbideak eskuratzeko mugak jartzea dakar, mehatxu edo larderiatik eta hedabideen aurrean intimitate eta bizitza pribaturako eskubidean izan ditzaketen abusuetatik babesteko. Bideokonferentzien erabilera ahalbidetuko da.
8. Krisi garaian esku hartzea lantalde egokiarekin.
9. Babeserako pertsonek biktimak laguntzea bultzatzea, epaiketek irauten duten bitartean.
10. Bereziki ahulak diren biktimekin, adin txikikoekin eta traumatizatutako biktimekin, luzapenak saihesteko eta bideokonferentziak erabiltzeko

[56] Esku artean dugun kasuan, lankidetzaren adibide on bat Barne Ministerioak terrorismoaren biktimei emandako etxez etxeko laguntza da.

saiakera egingo da. Auzipetu batek bere burua defendatzen badu, hark zuzenean biktimari galde egitea saihestuko da.

D. Espetxeetako administrazioa.
Justizia eskuratzeko eskubidea izanda, biktimek interesa dute gertatutakoa zigorrik gabe ez geratzeko eta espero dute gaizkileak arrisku bat ez izatea haientzako nahiz beste pertsona batzuentzako aske utzi ondoren: *"biktima batzuk oso beldur sakona dute, oso benetakoa, gaizkileen errepresaliekiko. Biktimei aldez aurretiko neurriak hartzea edo psikologikoki prestatzea ahalbidetu beharko litzaieke gutxienez"*[57]. Horrek haien informazio, askatasun eta osotasun fisikorako eskubideari eragiten dio.
Gidaliburuak dio biktimen iritzia, edo senideena, eskatu egin behar dela, komunitatearen onurarako lanak bezalako zigor alternatiboen garrantziaren eta egokitasunaren gainean. Baldintzapeko askatasunari dagokionez, beharrezkoa da erantzukizun zibilak betetzen direla ikustea[58].

E. Hezkuntza eta prestakuntza erakundeak.
Hezkuntzak eta prestakuntzak, maila eta eredu guztietan, eskubideen, beharren eta terrorismoaren biktimen balioaren gaineko ulermenean eta sentsibilizazioan laguntzen dute. Horrez gain, indarkeriazko portaerak prebenitzen dituzte ikastetxeetan. Biktimak ikasgeletan egoteari dagokionez: *"Biktimei eragindako inpaktuari buruzko eskolak eskola adinean dauden haurrak hezteko metodo garrantzitsu bezala erabili beharko lirateke"*[59].
Modu osagarrian, azpimarratu egin behar da beharrezkoa dela hasierako prestakuntza eta jarraikakoa terrorismoaren biktimen alorrean lan egiten dutenen langile eta boluntario guztientzat. Gidaliburuan biktimei hizlari gisa gonbitea luzatzea erantsi da. Unibertsitate mailako irakaskuntzari dagokionez[60], bultzatu egin behar da gaiaren gaineko interesa. Adibide modura eta euskal testuinguruaren barruan, adierazgarria da bizipen traumatikoen biktimen laguntzarako graduondoko ikastaroan ikasle bakarrak adieraztea terrorismoaren biktimen gaineko espezializazioan interesa zuela. Ikastaroa UPV/EHUk antolatu du lehenengo aldiz 2007-2008 ikasturterako.
Orokorrean, ikerketa enpiriko eta ebaluatzailea sustatu behar da.

F. Osasunaren alorreko profesionalak (fisikoa eta mentala). Polizia bezalaxe, askotan sendagileak, psikologoak, erizainak eta osasunaren alorreko gainerako langileak dira terrorismoaren biktimekin harremanetan jartzen diren lehenengoak. Garrantzitsuak dira haien ezagutza teknikoak (probak ez galtzeko eta baliabideak koordinatzeko) nahiz haien aldetiko errespetuzko tratua. Bertan konfidentzialtasuna ere sartuko litzateke, biktimazioa ez areagotze aldera.

---

[57] II. kapitulua, D, 1. paragrafoa.

[58] Gure espetxe sisteman ikusi Espetxeratuen Zaintzako Epaitegietako Prozedura Arautzen duen Lege Organiko Proiektua.

[59] III. kapitulua, E. 2 atala, 2. paragrafoa.

[60] Hurrengoak hartuz: Zuzenbidea, Soziologia, Psikologia, Medikuntza, Historia, Antropologia, Kriminologia, Gizarte Lana, Pedagogia...

G. Hedabideetako profesionalak.
Haien papera funtsezkoa da herri interesa bultzatzeko biktimekiko. Biktimazioa areagotzea eta biktimen eskubideak ahultzea ekarriko duten kazetaritza praktikak gutxitu eta kontrolatu egin behar dira. Beste gai batzuetan, deontologia kodeetan edo jarduera protokoloetan debekatu egin behar da biktima arriskuan jartzea hurrengoen bitartez: hedabideetan nor den identifikatzea; irudirako, intimitaterako eta bizitza pribatu eta familiarra izateko eskubidea ahultzea; morboa sustatzen duten edo haien duintasunaren aurka doazen argazkiak atera edo barreiatzea, eta, orokorrean, estaldura sentsazionalista ematea.

H. Ordezkari erlijiosoak eta izpiritualak. Gidaliburuan adierazten den bezala: *"Jurisdikzio batzuetan komunitate erlijiosoetako ordezkariak epaiketetara edo espetxeetara joaten dira auzipetuei babesa edo laguntza ematera, baina ez da antzeko programarik garatu biktimentzako"*[61]. Ordezkari erlijioso eta izpiritualek ulertu egin behar dituzte zeintzuk diren terrorismoaren biktimen berariazko beharrak eta, gidaliburuak dioen modura, erlijioan barkamenaren esanahiari interpretazio berria eman. Izan ere, "uler daitekeen moduan", biktimek ezin dute hura automatikoki egin. Biktimologiaren alorreko prestakuntza koordinatua eman behar da ordezkari horientzako.

### *2.2.3.2. Delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioei buruzko Deklarazioaren aplikazioari buruzko politikak eta maila arautzaileak diseinatzeko ardura duten agintarientzako gida (1999)*

Gida hori nazioarte mailako adituek landu zuten 1999an, eta, 1985eko Deklarazioaren egitura jarraituz, haren gaineko iruzkina egiten da. Hura herrialde bakoitzean, estatu, lurralde eta toki mailan, biktimen aldeko politikak diseinatzen dituzten agintariei zuzendurikoa da. Gidaliburua baino laburragoa den testua da, eta positiboki ebaluatutako praktikei aipamen egiten zaie bertan.

Onartu egiten da biktimak sistema zehatzaile modernoek ahaztutako pertsonak izan direla, eta hiru jarduera mota bultzatzen da:

- Goi mailako foroak edo lan taldeak sortzea, terrorismoaren biktimekin zerikusia duten alderdi guztiak koordinatzeko.
- 1985eko Deklarazioaren testua ahalik eta gehien barreiatzea eta toki bakoitzeko hizkuntzetan.
- Lege eta prozedurak sinpleagoak bihurtzea, biktimei aplikatzen zaiela errazteko.

Ottawako (Kanada) Unibertsitateko Kriminologia irakasle den Irvin Wallerrek herri erakundeei eta erakunde pribatuei zuzenduriko dokumentua landu zuen 2003an. Helburua biktimei eskainitako eskubideak eta zerbitzuak hobetzea izan zen 1999ko

61 III. kapitulua, I. 1, 1. paragrafoa.

Gidaliburua osatzeko xedez biktimen aldeko politiken arduradunentzako, eta bertan praktika onen adibideak biltzen ziren. Biktimen interesa azpimarratu egiten da biktimazioaren prebentzioan, erakunde ezberdinen maila ezberdinetako lankidetzaren eta etengabeko ebaluazioaren bitartez bakarrik izan baitaiteke eraginkorra.

### *2.2.4. Justizia zehatzailea ebaluatzeko baliabideak biktimen eta lekukoen gaian*

2006an, Nazio Batuen Erakundeak testu bat landu zuen, eta sistema zehatzailea biktima eta lekukoei dagokienez ebaluatzeko baliabide gisa balio du, nahiz eta ez duen berariaz aztertzen terrorismoaren biktimen gaia (Nazio Batuak 2006a, 2). Azken xedeak honakoak izango lirateke: lege erreformak proposatzea; biktimen aldeko politikak garatzea, dauden erakundeen gaitasuna zabalduz; programen inpaktua ebaluatzea; biktimazio inkestak egitea; biktimekiko solidaritate adierazleak garatzea, eta toki agintarien nazioarteko lankidetza sustatzea.

Biktimen aldeko politiken ebaluazio ororen helburuek hiru alderdi hartzen dituzte, eta horiek terrorismoaren biktimentzako egokituko ditugu:

1. Biktimazio tasaren zehaztapena, terrorismo delitu mota gorabehera. Biktimazio eredu nagusiak eta biktimen ezaugarri orokorrak identifikatzea.
   Horretarako, posible izan behar da hiru galdera multzori erantzutea:
   - Hurrengo estatistikak, urtero edo aldizka, jendearen eskura al daude? delitu indizea[62]; biktimazio indizea delitu eta biktima moten arabera (adina, generoa eta delitua egin den tokia); biktimen aldetiko salaketa tasa, salaketa zein erakunderen aurrean jarri den bereiziz; epaiketan lekuko gisa izan zen biktima kopurua eta mota; erreklamazio zibila beteta ikusi eta estatuaren aldetik konpentsazioa edo kalte-ordain publikoa (kopuruak barne) jaso zuen biktima kopurua; osasun laguntza, fisikoa edo burukoa, nahiz diru-laguntzak, gizartekoak edo bestelakoak jaso zituen pertsona kopurua, horien neurria argituz; zein erakundek lagundu zuen, zenbat denboraz eta biktima mota.
   - Orain dela gutxi egin al da berariazko azterlanik biktimazio inkesten, biktimek erantzuteko inkesten, talde jakin batzuen gaineko ikerketaren, eta abarren bitartez?
   - Terrorismoaren biktimen eskubideen, eta, bereziki, adin txikikoak direnen eskubideen sustapena egiteaz arduratzen den estatu eta toki mailako erakunderik ba al dago (gobernu erakundea nahiz gobernuz kanpokoa)?

2. Indarrean dauden politiken, legeen eta prozeduren eta horiek biktimengan duten inpaktuaren azterketa, hobekuntzak planteatze aldera. Biktimen beharren eta haiei eman beharreko arretaren gaineko ulermen orokorrera iritsi behar da, ahulenak direnak ere sartuz. Sistema judizialaren erantzuna biktimen beharrei egokitzeak zera esan nahi du: justiziara iristen direla eta bidezko tratua baloratzea; prozesuan duten paperari buruzko informazioa; interesak fase egokian adie-

---

[62] Salaturikoak, epaituak eta zigortuak, zigorren garrantzia bereiziz delitu moten eta zigortuaren profilaren arabera.

razteko aukera; laguntza; prozesuari erantsitako edo elkartutako biktimazioak gutxitzea; babesa, eta beharrezkoak ez diren atzerapenak saihestea. Hurrengo lau galderentzako erantzunak garrantzitsuak dira bloke honetan:

– Ba al da terrorismoaren biktimei buruzko berariazko legedirik? Noiz onartu zen, zein da haren edukia eta zein da lurralde ezberdinetan duen aplikazio praktikoa?
– Zeintzuk dira aldaketak behar dituzten gaiak zerikusia duten profesionalen eta biktimen eta giza eskubideen erakundeen arabera indarrean dagoen araudian eta biktimen eskubideak babestearen gaian?
– Zuzenbide prozesala aldatu al da biktimen[63] eta batez ere haurren eskubideekiko errespetua izango dela bermatzeko nazioarteko araudiari jarraiki?
– Prozedura judizialak eta administratiboak sinplifikatu egin al dira kaltearen konponketara iristeko?

Biktimekin harremanetan dauden eragile juridiko ezberdinen alorrean, polizia, fiskalak, epaileak eta espetxeetako administrazioa bereizten dira lehen ere jorratu ditugun gaiekin. Hala eta guztiz ere, laburki gogoraraziko ditugu jarraian:

a) Polizia kidegoei dagozkien galderen artean, hurrengoak egin behar dira: biktimek polizia zerbitzu ezberdinen gainean duten pertzepzioaren gainean ba al da informaziorik? Terrorismoaren biktimen eta polizia kidegoaren artean dagoen harremanari buruz, egin al da azterlanik? Poliziak ba al du prozedurarik segurtasuna bermatzeko eta biktimak berriro ere biktima izatea saihesteko? Biktimen babes eta laguntza eskaerei azkar erantzuteko gaitasunik ba al dute? Poliziaren agenteek ba al dute prestakuntzarik biktimen behar eta eskubideen gaian, zehazki terrorismoarenean, eta, bereziki, adin txikikoenean? Prozedura zehatzailearen alorrean poliziak garatutako ikerketari buruzko informazio egokia ematen al zaie biktimei? Beste zerbitzu batzuekin lankidetzarik garatzen al da laguntza eta babesa eskaintzeko? Biktimei ematen al zaie informaziorik bere burua babesteko eta frogak babesteko neurrien gainean? Biktimei laguntzen al zaie larrialdiko osasun zerbitzuetara beharrezkoa denean? Beste laguntza zerbitzu batzuetara bideratzen al dira? Dituzten eskubideen jakinaren gainean jartzen al dira? Poliziaren ikerketaren egoerari buruz biktimei aldizkako informazioa emateko prozedurarik ba al dago? Biktimei emaniko erantzunean diskriminazio praktikak sumatzeko frogarik ba al dago? Lekukoak babesteko berariazko programarik ba al dago?
b) Fiskaltza: fiskalek nola hartzen dituzte aintzat biktimen eskubideak eta, bereziki, ahulenak diren horienak? Biktimen behar eta eskubideen gaineko prestakuntzarik jaso al dute? Biktimen arretarako programarik ezarri al da edo gai hau berariaz jorratzeko jarritako langilerik ba al dago fiskaltzaren barruan? Biktimek fiskalen tratu eta lanarekiko duten gogobetetasunari buruzko informaziorik ba al dago? Prozedurarik aurreikusi al da informazio,

[63] Badirudi zuzenagoa dela bidezko tratua terminoa erabiltzea, “erruki” (*compassion*) hitzari heltzea baino. Azken hori nazioarteko araudian zenbaitetan erabilitakoa izan da. Gure testuinguruan, termino horrekiko gaitzespena dago biktimen euren aldetik. Izan ere, nolabaiteko harreman ezberdintasuna suposatzen du errukia eman eta jasotzen duenaren artean. Are zuzenagoa da errekonozimendu eta solidaritate terminoak erabiltzea, konnotazio publikoekin eta gizarte justiziarekin.

itzulpen, jakinarazpen eta lekukotza ematetik eratorritako eragozpenak mugatzeko oinarrizko zerbitzuak emateko? Fiskalak koordinaturik al daude lekukoak babesteko programekin? Biktimei jakinarazten al zaie hizkuntza xehean nola izango den prozedura zehatzailea? Adin txikikoak tratatu eta haiei galde egiteko prestakuntzarik jaso al dute? Fiskalek zer nolako interesa agertzen dute biktimen egoera lehengoratzeari dagokionez? Biktimei nola jakinarazten zaizkie hartutako erabakiak, artxibatze eskaerak barne? Prozesuak irauten duen bitartean egon daitekeen biktimazioa gutxitzeko zer neurri hartzen da?

c) Epaileak: biktimen behar eta eskubideen gaineko prestakuntzarik jaso al dute? Adin txikikoak bezalako biktima ahulenen kasuan berariazko neurriak hartzen al dira? Biktimekin lan egitera berariaz zuzendutako langilerik ba al dago? Nola jakinarazten zaie biktimei zeintzuk diren biktimazioa txikitzeko eskura dituzten zerbitzu edo neurriak? Behin-behineko askatasuna agintzerakoan, kontuan hartzen al da biktimaren segurtasuna? Zigorra betetzea etetea eta espetxeen inguruko aldeei buruzko erabakiak hartzerakoan, kontuan hartzen al dira biktimen funtsezko interesak? Nola babesten dira biktimak epaiketetan egin beharreko aitortzetan? Nola parte har dezakete prozesuan eta beren interesak adierazi? Laguntzeko pertsonaren babesarekin bertaratzea ahalbidetzen al zaie? Nola jakinarazten zaie biktimei prozesua eta haren emaitza? Akusatuentzako eta biktimentzako bereizitako itxaroteko gelak ba al daude? Biktimek nola adieraz ditzakete jasandako kalteak, erantzukizun zibilean horiek zehazterakoan kontuan har daitezen? Nola egiten da eraginkor erantzukizun zibila eta nola kontrolatzen da haien gogobetetasuna?

d) Espetxeetako Administrazioa: biktimei jakinarazten al zaie gaizkilearen zigorrean egon daitekeen aldarazpena? Espetxeraturikoaren aldetik edozein motatako mehatxuaren aurrean biktimen babesa bermatzen al da? Espetxeraturikoak erantzukizun zibila betetzen duela bermatzen al da?

Nazio Batuen Erakundeak biktimekiko solidaritatea eta bidezko tratua ebaluatzeko dituen adierazleetan aipamen berezia egiten zaio biktimen babes beharrari, gaizkilea erakunde terrorista bateko kide denerako (Nazio Batuak, 2006b, 14). Segurtasun arrazoiak direla eta, EAEn mehatxupean dauden pertsonen kasuan, zaila da erakunde aske batek babes neurrien funtzionamenduaren gaineko ebaluazioa egin ahal izatea. Hala eta guztiz ere, babestutako pertsonen gogobetetasun mailaren gaineko inkestak egin daitezke, bizkartzainen prestakuntza egokiari buruzko azterlanak egitearekin batera.

3. Dauden baliabideen egokitasunaren eta gaitasunaren balorazioa, sistema judizialaren beste alderdi batzuetako biktimak atenditzeko. Biktimen egoera hobetzeko laguntza teknikoko modu erabilgarrienak zeintzuk diren zehaztu beharko litzateke.

   Estatuaren konpentsazioa edo kalte-ordain publikoa dagoenean, Espainiaren kasuan bezala[64], honakoak kontuan hartuta egin behar da ebaluazioa: zein da erakunde arduraduna? Nola finantzatzen da? Biktimentzako prozedura sinplea eta azkarra al da? Nola jakinarazten zaie biktimei hura badagoela? Zeintzuk dira

[64] Ikusi Rodríguez Ruerta (2006, 411-437).

hartara iristeko baldintzak? Zeintzuk dira mugak? Ba al da informazio estatistikorik edo bestelako informaziorik haren funtzionamenduaren gainean? Laguntza ekonomikoaz gain, arreta material, mediko, psikologiko eta sozialeko beste mota batzuk kontuan izan behar dira. Adierazle orokorrek aurre egin behar diete, gutxienez, hurrengo galderei: terrorismoaren biktimei zerbitzuak eskaintzen dizkieten instituzio edo erakundeen zerrenda edo inbentarioa biltzen duen argitalpenik ba al da? Horien arteko koordinaziorik ba al da estatu, autonomi eta toki mailetan? Nola finantzatzen da? Doako zerbitzuak al dira? Alderik ba al da hiriguneen eta landa esparruen artean zerbitzuetara iritsi eta horien kalitatea eskuratzerakoan? Biktimazioaren ondorengo arretari dagokionez adibidez, ba al da denbora mugarik?

Nazio Batuek biktimen aldeko politiken praktika ebaluatzeko sustatutako azterketa baliabide honekin batera, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1989/57 Ebazpena aipa daiteke, delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioei buruzkoa. Bertan, estatuei zera egitea gomendatzen zaie: *"ikuskaritza eta ikerketa programa bat, etengabeko ikuskapenpean izateko biktimen beharrak eta emandako zerbitzuen eraginkortasuna"*, nahiz *"salatu gabeko delituen gaineko azterlanak, horien biktima direnen beharrak eta haien eskura zerbitzu egokiak jartzeko modua zehazte aldera"*[65]. Hori bereziki garrantzitsua da EAEn mehatxaturik dauden pertsonentzat. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1998/21 Ebazpenean, delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioen Deklarazioaren aplikaziorako ekintza plana jasotzen duena, zehaztu egiten da horren aplikaziorako eskuliburuari eta gidari egiten zaion eguneratzean kontuan izango direla froga eta biktima talde bereziei buruzko azterlanak. Bereziki aipatzen dira terrorismoaren biktimak[66]. Gainera: *"Estatu kide guztiei eta gobernu arteko erakundeei eta gobernuz kanpokoei gonbitea luzatzen zaie biktimei laguntzeko modu ezberdinen eraginkortasuna ebaluatzea susta dezaten, biktimen behar eta kezka legitimoak kontuan hartzen dituen justizia zehatzaileko prozesuaren mailaren ebaluazioarekin eta kalte-ordaina eta biktimen lehengoratzea bermatzeko modu ezberdinen ebaluazioarekin batera"* (8. paragrafoa).

Azkenik, Nazio Batuen deklarazioaren eta Europako Kontseiluaren (85) 11 Gomendioaren betetze mailaren azterketan, hura eratzen duten herrialdeetatik hogeita bitan eginikoa (Brienen eta Hoegen 2000)[67] zera ondorioztatu zen: neurriak modu eraginkorrean

---

65 3. f) eta g) puntuak.

66 3. paragrafoa. Aurrerago nazioarteko datu basearen garrantzia azpimarratu egiten da, biktimen arretarako praktika nazionalen eta lurraldekoen eta informazio bibliografiko eta legearen alorrekoaren gainean. Eremu honetako kasuan kasuko jurisprudentzia ere sartuko litzateke (5. paragrafoa). Gainera: *"Estatu kideei eta gobernu arteko erakundeei eta gobernuz kanpokoei gonbitea luzatu egiten zaie biktimazioaren gaineko datuak biltzeko metodoak landu eta erabiltzea areagotzeko aukera hausnar dezaten. Horien artean biktimazio inkestak egongo lirateke, biktima taldeei buruzko inkestak nahiz delinkuentzia antolatuaren biktima eta lekukoak eta terrorismoaren biktimak barne..."* (7. paragrafoa). Halaber, zehazki aipatzen da terrorismoa biktimazioaren prebentzioari dagokionez (9. paragrafoa). Halaber: "*Idazkari nagusiari eskatu egiten zaio eskatzen duten estatu kideei laguntza eman diezaiela estrategia bateratuak sortzeko eta biktimei laguntza emateko babesa mugiarazteko eta baita parte-hartze publiko zabalagoa eta lehengoratzeko justiziaren printzipioak sustatzeko ere"* (17. paragrafoa).

67 Villacampak dioen moduan (2006, 331), Nazio Batuen Deklarazioak entzute handiagoa izan du gomendio europarrak baino, biak 1985ekoak eta antzeko edukikoak izan arren.

sartzeko, horiek ez dira biktimen onurarako bakarrik pentsatu behar, baizik eta prozedura zehatzaile osoa hobetzeko, eta, gainera, oso modu argi eta zehatzean erantsi behar dira interpretazio aniztasuna ez eragiteko (Villacampa 2006, 327).

## IV. EUROPAKO KONTSEILUA ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

Europako Kontseiluak hainbat hitzarmen landu ditu eta horiek, behin berretsita, lotesleak dira juridikoki. Indarkeriazko delituen biktima direnei kalte-ordaina emateko 116. Hitzarmenaz gain, 1983koa hura[68], kontuan hartu behar da ere terrorismoaren prebentziorako 196. Hitzarmena, 2005ekoa azken hori. Aipaturiko azken hori indarrean jarri zen 2007ko ekainaren 1ean. Espainiak 2009ko otsailaren 27an berretsi zuen, eta urte hartako ekainaren 1etik aurrera aplika zitekeen bertan[69]. Hitzarmen honetan terrorismoaren biktimekiko eta haien senideekiko solidaritate printzipioak biltzen dira, babes, konpentsazio eta biktimen babeserako printzipioekin batera. Bertan, senideentzako laguntza ekonomikoa ere sartzen da (13. artikulua). Hitzarmenekin batera, Europako Kontseiluko erakunde ezberdinetatik eratorritako biktimazio terroristari buruzko testu batzuk ezberdinduko ditugu, nahiz eta horiek ez izan juridikoki izaera loteslerik: Ministroen Batzordea, Parlamentu Batzarra, Justizia eta Barne ministerioak, Giza Eskubideen komisarioa, Zehapen Gaietako Batzorde Europarra eta Terrorismoan Aditu direnen Batzordea. Ikus daitekeen moduan, Nazio Batuen eremuan bezalaxe terrorismoaren biktimen aldeko interesa Justizia zehatzailearen alorretik nahiz giza eskubideenetik dator.

### 1. Ministroen Batzordea

### 1.1. Terrorismo ekintzen biktimak babesteari buruzko printzipioak

2005eko martxoaren 2an, Ministroen Batzordeak egintza terroristen biktimen babesari buruzko printzipioak onartu zituen: *"terrorismoaren aurkako politiketan, legedian eta eraginkorrak nahiz giza eskubideekiko errespetuzkoak izango diren jardueretan gida praktiko izatera zuzendurikoak"*[70]. Biktimekiko solidaritate nazionalaren eta nazioartekoaren printzipioa jasotzen du, haien duintasunarekiko, bizitza pribatuarekiko eta familiarrarekiko errespetua, arreta berezia jarriz hedabideen paperean[71]. Bi une bereizten dira, eta, ondorioz, bi laguntza mota, hain zuzen ere: larrialdikoa eta jarraikakoa. Biek

---

[68] Horren aurrekaria (77) 27 Ebazpena izan zen, delituaren biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa, Ministroen Batzordeak onarturikoa 1977ko irailaren 28an.

[69] 2006ko abenduko CODEXTER bileran, Espainiak jakinarazi zuen berresteko prozedura gutxi barru beteko zela.

[70] Ikusi http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/Guidelines%20CM.pdf.

[71] Ikusi Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen Delituen biktimei laguntzeari buruzko Gomendioaren (2006) 109. paragrafoa. Ikusi Ministroen Batzordearen (97)19 Gomendioa, komunikabide elektronikoetako indarkeriaren irudiari buruzkoa, eta (99)5 Gomendioa, Interneten pribatutasuna babesteari buruzkoa.

alderdi medikoak, psikologikoak, gizartekoak eta materialak bildu behar dituzte. Gainera, laguntza izpirituala eskuratzea erraztu behar da, biktimek horrelakorik eskatzen badute. Laguntzaren barruan, etxebizitzari, hezkuntzari eta lanari[72] buruzko neurriak sartuko lirateke, justizia benetan eskuratzeko laguntza juridikoa bezalaxe[73]. Horrez gain, konpentsazio mekanismoak prozedura sinple eta azkarren bitartez artikulatu behar dira[74]. Prozesuaren fase guztietan errespetuzko tratuaren oinarrizko printzipioa jasotzen da: egintza terroristen biktimak errespetuz tratatu behar dira, haien egoera, eskubideak eta duintasuna aintzat hartuz[75].

Gainera, printzipio horietan biktima elkarteen paper garrantzitsua onartzen da[76]. X. printzipioan biktimek duten eskubidea berretsi egiten da, ikerketaren eta prozeduraren egoeraren gaineko informazioa jasotzeko[77]. Berariazko prestakuntzaren beharra eta biktimei arreta emateko baliabideena sendotu egiten dira[78].

## 1.2. Delituen biktima direnei laguntzeari buruzko (2006)8 Gomendioa

Biktimen beharren gainean azkenaldian egindako ikerketa biktimologikoak kontuan hartuta, (2006)8 Gomendioa onartu zen delituen biktimei laguntzeari buruz. Hori erabat aplika dakie terrorismoaren biktimei[79]. Biktimentzako laguntzaren eta biktimazioa

---

72 Ikusi Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen Delituen biktimei laguntzeari buruzko (2006)8 Gomendioaren 4.6. paragrafoa.

73 Ikusi Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen Delituen biktimei laguntzeari buruzko (2006)8 Gomendioaren 4.5. paragrafoa. Laguntza juridikoari eta prozesuko parte-hartzeari buruz, NBren 1985eko Deklarazioaren 6. paragrafoa; politika kriminalean parte-hartze publikoari buruz, (83)7 Gomendioa; zuzenbide zehatzailearen eta prozesalaren esparruan biktimak duen kokalekuari buruz, (85)11 Gomendioa; eta (87)21 biktimentzako laguntzari eta biktimazioaren prebentzioari buruz, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearena, eta 2001eko EBren Esparru Erabakiaren 6. artikulua.

74 Konpentsazioari dagokionez, ikusi Nazioarteko Zigor Epaitegiaren Estatutuaren 75. artikulua nahiz EBren Kontseiluaren 2004/80/CE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, delituen biktimentzako konpentsazioari buruzkoa.

75 Ikusi (85)11 Gomendioaren 8. paragrafoa; (2006)8 Gomendioaren 2.1a; Nazio Batuen 1985eko Deklarazioaren 4. paragrafoa; eta EBren 2001eko Esparru Erabakiaren 2. artikuluaren 1. paragrafoa.

76 Zentzu horretan ikusi ere (2006)8 Gomendioaren 4.6. puntua.

77 Europako Kontseiluaren (2006)8 Gomendioak ezarri egiten du informazioa ahozkoa eta idatzia izan behar dela, bertan jaso beharreko edukia bezalaxe (6.2. eta 6.4. paragrafoak). Ikusi EBren 2001eko Esparru Erabakiaren 4. artikulua. Bertan adierazten da biktimarentzat arriskua dagoen kasuan, eta beharrezkoa bada, auzipetu edo zigortua aske utziko dela jakinarazi behar dela. Zentzu horretan, ikusi, halaber, Europako Kontseiluaren (2006)8 gomendioaren 10.3. paragrafoa.

78 Ikusi XI. Printzipioa; ikusi NBren Deklarazioaren 16. paragrafoa; EBren 2001eko Esparru Erabakiaren 14. artikulua; eta Europako Kontseiluaren (2006)8 Gomendioaren 4.1. puntua.

79 Horixe adierazten da zehazki Terrorismoaren Biktimei Laguntzeari buruzko Txostenaren 7. puntuan, 2005eko ekainaren 21ekoan, Zehapen Gaietako Batzorde Europarreko Biktimei Laguntzeko eta Biktimazioa Prebenitzeko aditu taldearena. Halaber, (2006)8 Gomendioaren argibide memorian argitu egiten da helburuetako bat estatuei gida erabilgarria ematea dela, legedia eta terrorismoaren biktimei laguntzeko praktikak diseinatzeko (19. puntua 27. puntuarekin). Edonola ere, Zehapen Gaietako Batzorde Europarrak erabaki zuen terrorismoaren biktimen beharrak beste delitu batzuetako biktimek zituztenen berdinak zirela funtsean, kontuan hartuta egindako ikerketak eta, zehazki, Atzerriko eta Nazioarteko

.../...

prebenitzearen (87)21 Gomendioa ordezkatzen du[80], eta estatuko legedi eta praktikarentzako printzipio gidariak eta estandarrak ezartzen ditu. Hori da laguntza gaietan xehatua izatearen arrazoia.

Gaizkile eta biktimekiko estatuaren erantzukizuna berdina izatearen printzipiotik abiatzen da. 1.2. puntuan errepikaturiko edo behin eta berriro jazotako biktimazioa definitzen da pertsona berdinak delitu gertaera bat baino gehiago jasaten duen egoera bezala denbora tarte zehatzean. Behin eta berriro jazotzen den biktimazioaren aurkako babes printzipioa ezartzen da, larderia edo errepresalia arriskua duten biktimentzako berariazko neurriak jarriz (10.2.)[81]. Edonola ere, estatuek politikak garatu behar dituzte behin eta berriro jazotzen den biktimazioa identifikatu eta haren aurka egiteko. Haren prebentzioa funtsezko elementua izan behar da biktimen aldeko eta delinkuentzia prebenitu edo gutxitzeko politika guztietan (10.5.). Horretarako, prestakuntza eskaini behar zaie behin eta berriro jazotzen den biktimazio arriskuetan eta horiek gutxitzeko moduetan esku hartzen duten langile guztiei (10.6.), biktimei arrisku horien berri emanez eta gutxitzeko proposaturiko neurrien aplikazioan lagunduz (10.7.).

1.3. puntuan bigarren mailako biktimaziotzat[82] hartzen da erakundeek eta pertsonek biktimarekiko duten erantzunak sortutakoa, eta horien aurrean babes printzipioa ezartzen da [83]. Biktimek sufritzen dutenarekiko ulermen falta da, eta horrek bakardade, segurtasun ezeko eta konfiantza faltako sentimenduak sor ditzake erakundeekiko. Bigarren mailako

.../...

Zuzenbideko Max-Planck Institutuari eskaturiko txostenetik ateratakoak (Albrecht eta Kilchling 2005). Bertan adierazi zen hurrengo herrialdeek bakarrik zutela terrorismoaren biktimei laguntzeko berariazko politika: Frantzia, Italia, Grezia, Federazio Errusiarra, Espainia, Turkia eta Erresuma Batua (Ipar Irlanda). Are estatu gutxiagok eskaintzen die estatu mailako konpentsazioa orokorrean delituen biktima direnei eta, bereziki, terrorismoaren biktima direnei. Konpentsazio hori *ex ante* modura arautu behar da, aldez aurrekotasun eta tratu berdintasun printzipioetara egokitze aldera. Uste dugu Max-Planck txostenak ez zituela euskal gaiaren berezitasunak kontuan hartu, bertan berariazko legedia justifikatzea posible delako eta baita terrorismoaren biktimei emaniko laguntza zehatza ere. Izan ere, “salbuespeneko gertaera” horiek “Europaren bihotzean” ia berrogei urtez luzatu dira gure herrialdean, erakundeen eta gizartearen aldeko axolagabekeriarekin biktimekiko eta orain dela gutxi arte, nahiz eta eremu ezberdinetan izandako inpaktua larria izan. Iritzi hori adierazi zuen jada Erresuma Batuko Biktimen Babeserako Bulego Nazionaleko zuzendariak (*Victims Support National Office*), lehentasun eta espezializazio arrazoiak direla eta: *“Agintariek zerbitzu orokorrak, gizartekoak eta osasunekoak behar bestekoak direla ulertzeko joera dute, delituen biktimen behar bereziak tratatzeko. Biktimentzako Zerbitzuen Foro Europarraren esperientziak eta EBren Europa Ekialderako Phare programak diotenaren arabera, hori ez da horrela”* (Reeves 2003, 5-6). Iritzi horiek ez dira bateraezinak biktima guztientzako laguntza zerbitzuetara iristeko berdintasunaren defentsarekin (ibídem, 7). Ikusi indarkeriaren biktimentzako laguntzako sistema bakarrari buruzko legezkoa ez den proposamena, Eusko Legebiltzarrak onarturikoa (1998.05.15eko EHAA/166/13720/CA). Ikusi kasu italiarrari buruz Pavone (2006).

80 (87)21 Gomendioan biktimazio inkestak erabiltzea bultzatu zen, laguntza politika eraginkorrak diseinatzeko xedearekin behar eta biktimazio tasak ezagutzeko. Jarduteko beharrari dagokionez, ikusi Reeves (2003). Egile horrek, ikerketa eskasia ikusita, ordura arteko legedi eta zerbitzuak ebaluatzea gomendatu zuen.

81 Ikusi (2005)9 Gomendioa, lekukoen eta justiziari laguntzen dioten pertsonen babesari buruzkoa, Europako Kontseiluarena.

82 “Bigarren mailako desbideratze” terminoaren oinordekoa, etiketen Kriminologian berezkoa. Zehazki 1951ko Lemerten *Patología social* obran agertzen da, “estigma” kontzeptuarekin uztartuta (Varona 1998, 47).

83 Europako Kontseiluaren lekukoen eta justiziari laguntzen dioten pertsonen babesari buruzko gomendioei dagokienez, ikusi Villacampa (2006, 334-335).

biktimazioa prebenitzeko biktimen beharrei buruzko kontzientziazio politikoaren garrantzia azpimarratzen da, arreta berezia jarriz eremu honetan elkarteek duten paperari (16).

Laguntza printzipioak biktimaren bizitzaren eremu guztiak hartzen ditu beharrezkoa den kasuan (komunitatea, etxea, lantokia...) (3.1.), laguntza horren doakotasuna bezalaxe (3.2., 5.2. eta 5.5.)[84]. Espezializazio printzipioaren barruan, biktima ahulenei laguntzeko berariazko neurriak daude. Ahultasuna ezaugarri pertsonalengatik nahiz delituaren inguruabarrengatik etor daiteke (3.4.). Gainera, estatuek berariaz prestaturiko langileak hartuko dituzten zentro espezializatuak sortu eta mantentzearen alde egin behar dute (5.3., 5.4. eta 12.3.). Azterlan batzuk gobernuz kanpoko eta askeak izango diren laguntza agentziak sustatzea babesten dute (Brienen eta Hoegen 2000). Biktimentzako zerbitzu ezberdinen koordinazioa bermatu egin behar da (praktika egokien printzipioak eta araudi eta praktikaren aldetiko proposamenetan zerbitzuen parte-hartzea erantsiz) (5.6. eta 14.2). Lankidetza eta koordinazio printzipio honek ere nazioarteko eremua hartzen du (15).

Orokorrean, estatuak langileak aukeratu eta prestatzeko printzipio egokiak garatu behar ditu, bai profesionalak, bai boluntarioak direnean, eta biktimei laguntzeko ardura izango badute[85]. Prestakuntzaren barruan bigarren mailako biktimazioa sortzeko arriskuaren eta hura prebenitzeko gaitasunaren gaineko kontzientziazioa egongo lirateke (12.1.).

Gaizkilearen erantzukizun zibilaren garrantzia azpimarratu egiten bada ere biktimarekiko (7.2.), nahita egindako indarkeriazko delituen biktimentzako –edota senideentzako– estatuko konpentsazioaren printzipioa ezartzen da. Konpentsazio hori solidaritatean oinarritzen da, gizarte ongizateko egoera batean, eta subsidiariotzat jotzen da gaizkilearen, aseguru pribatuen eta Gizarte Segurantzaren erantzukizun zibilarekiko[86]. Estatuko konpentsazioaren kontzeptuaren barruan, kalte fisiko eta psikologikoen tratamenduaren eta errehabilitazioaren kostua sartzen da. Halaber, diru-sarrera galera, hiletako gastuak, mendekoen mantenu gastuak[87], sufrimendua nahiz jabetzaren aurkako delituak[88] ordaintzeko aukera hausnartzea onartu egiten da.

[84] Doakotasunaren gaia argi zehazten zen terrorismoaren biktimei emaniko laguntzari buruzko txostenean, 2005eko ekainaren 21ekoan. Hura Zehazpen Gaietako Batzorde Europarreko Biktimei Laguntzeko eta Biktimazioa Prebenitzeko aditu taldeak egin zuen.

[85] Eta, orokorrean, biktimekin kasu zehatzean jardun ahal izan dezaten, adibidez, Administrazioaren profesionalak osasunaren, etxebizitzaren, gizarte segurantzaren, hezkuntzaren, lanaren eta larrialdiko zerbitzuen gaietan (12.5.).

[86] Ikusi 9. puntua. Ikusi B. A. Kochek egindako txostena Europar Batasunaren Lankidetza Juridikoko Batzorde Europarrarentzat (2006). Ikusi Koch (2007). Goodeyk (2003, 17) terrorismoaren biktimentzako estatu mailako konpentsazioaren sistema espainiarraren aplikazioari buruz egindako hausnarketa negatiboei dagokienez, egia bada ere eraginkortasunari buruzko ikerketak falta direla, kritika larriek ez dute oinarri enpirikorik. Hipotesi bat da batez ere, eta gai politiko eta kulturalei eta erlijiokoei eragiten diete batez ere, diktaduraren, ongizate Estatuaren tradizio faltaren eta eliza katolikoaren paperaren tradizioarekin.

[87] Ikusi M-11 kasuaren epaia.

[88] Terrorismo delituen kasuan, prozedurak sinpleak izan behar dira eta ez da egintza terroristaren asmoa frogatzea eskatu behar. Zentzu horretan, ikusi terrorismoaren biktimei emaniko laguntzari buruzko txostenaren 1.3. puntua, 2005eko ekainaren 21ekoa. Hura Zehazpen Gaietako Batzorde Europarreko Biktimei Laguntzeko eta Biktimazioa Prebenitzeko aditu taldeak egin zuen.

Bitartekaritza edo lehengoratze justiziako prozesuen bitartez artikula daitekeen lehengoratzeari dagokionez, biktimen interesak babesteko printzipioa aipatzen da (13)[89].

Azkenean, gomendio horrek estatuak behartzen ditu biktimologia ikerketak bultzatzera, legediaren eta biktimei laguntzeko zerbitzuen esku-hartzearen eraginkortasuna aztertze aldera. Biktimen aldeko politika koherenteen garapenetan, frogetan oinarriturikoak, estatuek orain dela gutxiko biktimologia ikerketak aintzat hartu behar dituzte (17).

## 2. Parlamentu Batzarra

Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak, terrorismoaren aurrean demokrazia europarren gaiari heltzen dion 1.426 Gomendioaren bitartez (1999), egintza terroristen biktimentzako babes integralaren printzipioari heltzen dio. Halaber, eraso terrorista gisa hartzea gomendatzen da jabetzaren eta baliabide materialen aurka zuzendurikoak, xedea hori denean. Gainera, biktimen prebentzio interesa aintzat har daiteke 1.687 Gomendioan (2004), terrorismoari kulturaren bitartez aurre egiteari buruzkoa.

## 3. Justizia eta Barne ministroen bilerak

Delituen biktima direnei buruzko 1. Ebazpenean, Yerevanen (Armenia) 2006ko urriaren 12 eta 13an egindako bileraren barruan onarturikoa, berariaz heltzen zaio terrorismoaren biktimen gaiari laugarren puntuan. Halaber, bigarren mailako biktimazioa gutxitzeko beharrari heltzen zaio, prozedurak sinplifikatzearen eta diziplina anitzeko ikuspuntua duten zerbitzu eskudunetara iristearen bitartez.

Europan eguneroko indarkeria prebenitzeari buruzko ebazpenean, 2004ko azaroaren 7 eta 9an Oslon egindako bileran adosturikoa, azpimarratu egiten da biktimen babesari eta laguntzari zuzendutako ikuspuntua plangintza, gauzatze eta indarkeriari aurre egitearen ebaluazio ororen oinarrizko printzipio gisa.

## 4. Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa

2001eko martxoaren 9an Gil-Robles jaunaren txostena argitaratu zen, garai hartan Giza Eskubideen komisario zena. Txostena Espainiara egindako bidaiari buruzkoa zen, Euskal Autonomia Erkidegora eginikoari buruzkoa zehazki, 2001eko otsailean. Elkarrizketetan eta ETAren zuzeneko jardunaren egiaztapenean oinarrituta, *kale borroka* delakoa azpimarratu zuen intelektualen, kazetarien, abertzaleak ez diren alderdietako pertsonen, enpresaburuen, funtzionarioen eta segurtasun kidegoetako kideen beldur giroan laguntzen zuen elementu gisa. Erasoek haien familiak eta ondasunak harrapatzen

[89] Zehapen Gaietako Lehengoratze Justiziako Programen Aplikazioari buruzko oinarrizko printzipioak (2002) ikusi, Lehengoratze Justiziako Programaren Gidaliburua bezalaxe (2006), biak Nazio Batuen Erakundearena.

zituzten, eta erasotzaileen zigorgabetasuna gaitzetsi zuen. Egoera hori are larriagotzat jotzen zen biztanleria multzo txikietan.

Horrek guztiak zera eragiten zuen: *"zuzenean eragindako hainbat herritarrek (begi puntuan dagoen hiru mila pertsona inguru, testigantzen arabera) bizi duten segurtasun faltaren sentsazioa (errealitatea); kasu guztietan herritar komunitatearen zati batek eskubide zibil eta politikoak askatasunez erabiltzeko ezintasun zuzenaren arrazoia da"* (p. 5). Komisarioaren 2001eko gomendioen jarraipen txostenean, Urteko Hirugarren Txostenaren barruan sartua (GEKOM (2003) 7) eta Espainiako eta Euskadiko gobernuek emandako informazioan oinarrituta, *kale borroka* deiturikoak behera egin izanari eta atxiloketa eta bizkartzain kopuruek gora egin izanari buruzko datuak eman ziren. Espainiara 2005eko martxoaren 10etik 19ra eginiko bisitaren txostenean, azaroaren 9an argitaraturikoa hura, IX. puntua oso-osorik eman zitzaion terrorismoaren biktimen babes eta laguntzari. Laguntza mekanismoak arintzea eta koordinatzea gomendatzen zen, epaiketetara joaten diren biktima eta senideak egoki babestea bezalaxe gaizkileen senideen eta haren aldekoen irainen aurrean. Hurrengo puntuan, Euskal Autonomia Erkidegoari zuzendurikoa, *kale borroka* deiturikoaren aurkako neurri gehiago eskatu ziren eta biktimei emaniko arretak lehentasuna izan zezala. Positiboki azpimarratzen ziren Gobernuaren eta Eusko Legebiltzarraren jarduerak biktimen aldeko arreta hobetzeari dagokionez (aipamen espresa eginez 2003ko ekainaren 25eko Legezkoa ez den Proposamenari). Positibotzat jotzen zen, halaber, biktimen elkarte batzuekiko harremanetan sumatutako tentsioa gutxitzeko saiakera. Nabarmendu egin zen gaiaren alorrean lortutako akordioak erretorika hutsekoak ez izatea.

Bestalde, Giza Eskubideen komisarioak iradoki egin zuen atentatu bat egiten zuena goraipatzea edo biktimak iraintzea indarkeria pizteko edo zeharka bultzatzeko modua izan zitekeela[90].

## 5. Zehapen Gaietako Batzorde Europarra

Zehapen Gaietako Batzorde Europarraren barruan, aditu taldea sortu zen Biktimei Laguntzeko eta Biktimazioa Prebenitzeko[91], eta hark lehentasuna eman behar zion terrorismoaren biktimen aldeko lanari. Haren lan nagusia 2006(8) Gomendioa lantzea izan zen. 2005eko ekainaren 21eko *Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko txostenaren* 2.1.2. puntuan, zehaztu egiten zen aldez aurretiko laguntza zerbitzuetatik ateratako ondorioak aintzat hartu behar zirela, bai Estatu mailan, bai nazioartean. Ondorioz, elkarteen parte-hartzea sustatu behar da hurrengo jarduerak bideratzerakoan: testu arautzaileak landu eta terrorismoari aurre egiteko bestelako erantzun publikoak prestatzea; elkarteek xede horretarako eratutako polizia kidegoekin lankidetzan aritzea, zerbitzu pertsonalizatua lortze aldera; eta epe labur, ertain eta luzera jarduteko protokoloak lantzea –txostenean proposatzen den oinarrizko eskemari jarraiki–. Epe

---

90 Ikusi hurrengoa: http://www.coe.int/T/E/Commissioner_H.R/Communication_Unit/CommDH%282005%291_E.doc.

91 Ministroen Batzordearen erabakiaren ostean sortu zen 2004ko abenduaren 15ean.

luzera, biktimak bere buruarekiko duen pertzepzioa luzatzen laguntzea saihestu behar da: *"Egintza terrorista baten biktima ahul sentitzen da askotan bere komunitatearen barruan. Ondorioz, laguntza behar du komunitate horretan dagokion toki eta estimua berreskuratzeko"*. (2.2.3.68. puntua).

Bestalde, eta Nazio Batuen araudiarekin bat etorriz, txosten horretan esaten da giza eskubideak urratzen dituzten terrorismoaren aurkako politikek ez dutela zerikusirik terrorismoaren biktimen babesarekin, kontrakoa baizik. Gaizkileen eta beren burua gaizkileekin identifikaturik ikus dezaketen gutxiengoen giza eskubideak errespetatu egin behar dira.

## 6. Terrorismoan Aditu direnen Batzordea

Terrorismoan Aditu direnen Batzordeak (CODEXTER) txostena landu zuen 2005eko azaroan, Europako Kontseiluak terrorismoaren aurkako borrokan etorkizunean izan beharreko lehentasunezko eremuen inguruan. Bertan, terrorismoaren biktimak babesteko eta haiei kalte-ordaina emateko praktika egokien inguruko informazioa bildu zen. 2006ko abenduko txostenean[92], estatu ezberdinek garatutako praktika onenen gaineko informazioa biltzen jarraitzeko beharra azpimarratu zuen[93]. Aurreko bileretan ezezkoa eman zitzaion egintza terroristen aurkako banakako babes eskubideari eta estatuak bertan izan zezakeen erantzukizunari buruz eztabaidatzeari. Estatuaren desadostasunak ikusi ahal izan ziren, terrorismoaren biktimei berariazko babesa ematearen gainean eta indarkeriazko biktimen babes orokorrean sartzeari dagokionez[94].

---

92 CODEXTER (2006)57 – 2006ko abenduaren 4-6ko 11. bilerako txostena.

93 Argitalpen honen hurrengo kapituluaren kaltetan izan gabe, txosten espainiarrari dagokionez, ikusi CODEXTER (2004)15 – Terrorismoaren biktimak babesteko esparrua Espainian. Bertan, hurrengoak aipatzen dira terrorismoaren biktimei laguntzeko aurrekari arautzaile gisa: Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko 3/1979 ED Legegilea; Talde Armatuen eta Jarduera Terroristen Aurkako Neurriei buruzko 9/1984 Lege Organikoa, eta 1992tik aurrerako aurrekontu legeak. Terrorismoaren biktimei emaniko laguntza hobetzearen bidean eginiko urratsei dagokienez 2004ko apirilera bitarte –txostenaren erreferentziako data–, hurrengoak adierazten dira: 1996an unitate berezia sortzea Barne Ministerioaren barruan –laguntza pertsonalizatua eta koordinatua erantsiz–; Zerga, Administrazio eta Gizartearen Eremuko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legea; abenduaren 30eko 66/1997 Legea, besteak beste ibilgailu pribatuei eta aldi baterako etxebizitzan jartzearen alderdiak bilduz; 24/2001 Legea, abenduaren 27koa, kalte-ordainak zabaltzen dituena; martxoaren 7ko 288/2003 EDk onartutako Laguntza eta Kalte-ordain Araudia, besteak beste konpentsazio prozesuak aritzeko helburua duena; eta 32/1999 Legea, urriaren 8koa, Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzkoa –1968ko urtarrilaren 1etik aurrerako biktimazioei aplikagarri– eta hura gauzatzeko araudia. Araudi hori guztia lau jarduera motatan laburbil daiteke: 1- ohiko kalte-ordaina (kalte fisikoengatik eta heriotzagatik; kalte materialengatik; diru-laguntza eta bekengatik...); 2- ezohiko kalte-ordaina (gaizkilearen kaudimen faltaren kasuan); 3- pentsioak; eta, 4- errekonozimendu morala dominak ematearen bitartez. Txostenak konpentsazio sistema autonomikoen garrantzia azpimarratzen du (euskalduna, nafarra eta madrildarra). 2004ko abenduan, M-11ko atentatuen ostean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi komisarioaren irudia sortu zen. Hark gobernuko sail guztien jarduerak koordinatzeko ardura zuen; ondoren, Barne Ministerioaren barruko zuzendaritza batek ordezkatuko zuen.

94 CODEXTER (2005)34 – 2005eko azaroaren 9-12ko 9. bilerako txostena; eta CODEXTER (2005)36 – 2006ko ekainaren 19-21eko 10. bileraren txostena.

CODEXTERi 2004an aurkeztutako txosten espainiarrean aipatu egiten da laguntza pertsonalizatuaren garrantzia Barne Ministerioaren Zuzendaritzaren barruan 1996tik, kalte-ordain ekonomikotik haratago. Tratu gizatiarra bermatzean datza, hain zuzen ere honakoan: *"...asaskaldi orokorra nolabait bermatzea, zaintza eta arreta, biktimarentzat eta haren senideentzat, horri guztiari aurpegia eta izena jarriz. Halaber, ongietorri beroa ematean datza, entzunaldi atsegina emanez..."*, laguntzeko, lasaitzeko eta babesteko ekimen publikotik. Azken batean: *"Unitatean lan egiten duten funtzionarioek adierazi dute hildako eta zauritutako senideei egin dakien inkesta batean, Zuzendaritzaren laguntza edukita eta erantzun azkarra, beroa eta erabat gizakoia topatu izanda berehalako laguntza ekonomikoarekin batera, joera argia topatuko genukeela biktimaren portaeran. Argi dago diru-laguntzen mendetasun sindrometik alde egiten dutela, beren destinoak kontrolatzen dituztela, arazoei aurre egiten dietela eta ez zaizkiola egokitzen guztiok ezagutzen dugun hedabideetako eredu biktimizatuari"*[95].

## V. EUROPAR BATASUNA ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

Nazio Batuen giza eskubideen sistemaren antzera, terrorismoaren biktimek bermaturik dute babes orokorra Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Hitzarmen Europarrean nahiz Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean.

Zehazkiago, Europako Batzordeak 1999an[96] *delituaren biktimei buruzko komunikazioa* argitaratu zuenetik herritar guztien tratu berdintasuna bermatzeko, Europar Batasunak dokumentu garrantzitsuak landu ditu biktimen alorrean. Hasiera batean araudi europarraren funtsa herritar guztientzako zirkulazio askea bermatzean bazetzan ere bakoitzaren osotasuna babestuz, ondoren biktimen eskubideen babesari buruzko alderdi zehatzagoak eransten joan ziren, eta horiek ez zaizkie mugatzen justizia izan eta kalte-ordaina jasotzeko eskubideari.

### 1. Europako Parlamentuaren ebazpena, 2000ko ekainaren 15ekoa

Europako Parlamentuaren 2000ko ekainaren 15eko Ebazpenean, Delituen Biktimei buruzko Batzordearen komunikazioari buruzkoa, terrorismoaren biktimen sufrimendu berezia aipatzen da eta zera eransten: *"...biktima hauen eskubideak lege errekonozimendu eraginkor eta zuzenagoaren xede izan behar direla, bai estatu kideetan, bai Europar Batasunean..."*[97]. Modu horretara, biktima askok sufrimendu bikoitza izatea saihestuko da: "*lehenik eta behin delituaren biktima modura eta, bigarrenik, siste-*

---

[95] Ikusi *supra* erreferentzia 94. oharrean, 7. p. Berezko itzulpena.

[96] Europako Batzordea. 1999. *Las víctimas del delito de la Unión Europea: reflexiones sobre estándares y acción*. Bruselas: Europako Batzordea, 1999 (COM).

[97] Ebazpenaren A atala. D atalean zera azpimarratzen da: *"...prozedura demokratikoen ordez, helburuak inposatzen saiatzeko indarkeria erabiltzen duten talde zehatz batzuk daude"*.

*ma baten biktima bezala, babes egokia ez egoteagatik"*[98]. Nazioarteko araudian jada azpimarratzen diren beste gai batzuen artean, azpimarratu egin zen biktima modura senideak eta mendekoak ere onartu behar zirela. Zehazki, Europako Parlamentuak zera uste du: *"terrorismoak biktimen kategoria berezia sortzen du. Haien egoera ez da eremu pribatuko gai bat eta, zuzenean kalteturiko pertsonaz gain, hurbileko senideak, alargunak, umezurtzak eta abar ere biltzen ditu. Batzordeari aurrekoa kontuan izatea eskatzen zaio, bai biktimen definizioa egiterakoan, bai Komunikazioan aipatutako laguntza materiala edo psikologikoa eskuratzera zuzendutako neurriak hartzerakoan"*[99].

Gainera, parlamentuak zera hartzea eskatu zuen: *"biktimen eta lekukoen intimitatea babestera eta haien segurtasuna bermatzera zuzendutako neurriak prozesuaren fase bakoitzean, baita terrorismoaren alorrean ere; testuinguru horretan, ezinbesteko betekizun gisa jo behar da biktimen eta gaizkileen bereizketa"*[100]. Gainera, zera eskatzen zen: *"delituen biktimak ekonomikoki babestuko dituen sare europarra ezartzea, terrorismoa barne"*[101].

2004an, Europako Parlamentuak Terrorismoaren Biktimen Egun Europarra izendatu zuen martxoaren 11a.

## 2. Kontseiluaren Esparru Erabakia Biktimen Kokalekuaren gainean 2001eko Prozedura Zehatzailean

2001eko martxoan Kontseiluaren Esparru Erabakia onartu zen Biktimen Kokalekuaren gainean Prozedura Zehatzailean[102]. Horren helburua estatuetako legeak harmonizatzea zen, biktimei eta haien senideei laguntzako gutxieneko estandarrak emateko hurrengo alorretan: profesionalen prestakuntza, justizia eskuratzea, babesa izateko eskubidea, informazioa, egoera lehengoratzea eta beste herrialde batzuetan bizi diren biktimentzako laguntza nahiz biktima ahulenentzako berariazko arreta. Batzordeak esparru erabaki hori aplikatzeari buruzko informazioa ematearen ardura hartu zuen. Hura, orokorrean, 2004ko erdialderako bete behar zen, nahiz eta herrialde ezberdinetan urradurak sumatu diren. Haren garrantzia lotura juridikoan dagoenez eta ez, aldiz, Nazio Batuen beste arau batzuekiko eskubide zabaltzean, ez gara haren edukian gelditukoa[103].

[98] 1. atala.

[99] 9. atala.

[100] 6. 1) atala.

[101] 6. t) atala.

[102] DOL 82, 2001.3.22koa. Esparru erabakiak ez dira zuzenean aplikatzen, baina juridikoki lotzen dute eta haien arabera interpretatu behar da legedi nazionala, segurtasun juridikoko eta atzera eraginik ezeko printzipioak urratu gabe. Gai horiei buruz eta 2001eko Esparru Erabakiaren edukiari buruz, ikusi Villacampa (2006, 337-342). Ikusi txosten honetako V. eta VI. kapituluak.

[103] Azterlan espezializatuei heltzen diegu, adibidez García Rodríguezenari (2005).

## 3. Europar Batasunaren Kontseiluaren 2004/80/CE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, delituen biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa

Europar Batasunaren Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/80/CE Zuzentarauak, delituen biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa[104], lankidetza sistemak ezartzen ditu kalte-ordainera iristea errazteko mugez haraindiko doluzko indarkeria delituetan. Izan ere, kasu horietan administrazio prozedurak sinplifikatu egin behar dira, eta informazio hornidura osatu egin behar da.

## 4. Kontseiluaren Esparru Erabakia, 2002ko ekainaren 13koa, terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa

Kontseiluaren terrorismoaren aurkako borrokari buruzko 2002ko ekainaren 13ko Esparru Erabakian[105] terrorismoa hartzen da Europar Batasunaren oinarrizko printzipioen urradura larrienetako bat bezala: demokraziaren printzipioa eta Zuzenbide Estatuaren printzipioa. Terrorismoa ezin da hartu delitu politikotzat, ezta delitu politikoekin zerikusia duena bezala edo arrazoi politikoek eragindakotzat ere[106]. Gainera: *"Terrorismo delituen biktimak ahulagoak dira, beraz, berariazko neurriak hartzea ezarri beharko litzateke haiei dagokienez"*[107]. Biktimaren familiari laguntza egokia bermatzea eskatzen da (10.2. art.).

## 5. Europar Batasunaren Probako Proiektua terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa

Europako Batzordeak egintza terroristen biktimen eta haien senideen aldeko probako proiektua garatzen du, aurrekontuei dagokienez 2004tik ezarria. Proiektua haiek lehengoratzeari buruzkoa da, gizarte eta lege babesaren eta babes psikologikoaren bitartez. Babes hori erakunde eta/edo sareek emanikoa da. Halaber, mehatxu terroristaren gaineko kontzientziazioa bultzatu nahi da, publikoki gaitzets dadin (*Pilot Project in favour of victims of terrorist acts*). Beste hiriak beste, Donostiak hartu zuen parte (ikus. http://www.impact-kenniscentrum.nl/index.php?pag=596&userlang=en). Lehengoratze Justiziaren Foro Europarraren proiektua dago egun, Europako Batzordeak finantzaturikoa. Horrek, terrorismoaren biktimentzako oinarrizko laguntza printzipioak aztertzeaz gain, 2008ko martxoan egindako nazioarteko biltzarrean aurkezturikoak horiek, lehengoratze

[104] Ikusi, aurretik, Europako Parlamentuaren ebazpena indarkeriazko delituen biktimei emaniko kalte-ordainari buruzko ebazpena, 1989ko urriaren 9koa.

[105] DOL 164, 2002.6.22koa.

[106] Hirugarren Oinarria.

[107] Zortzigarren Oinarria.

justiziaren eta biktimazio terroristaren arteko harremana aztertzen du –eztabaidarako xede Kriminologiako nazioarteko biltzarrean, 2008ko uztailean–[108].

## VI. EUROPAKO SEGURTASUN ETA LANKIDETZAKO ANTOLAKUNDEA (ESLA) ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

ESLA kontinente ezberdinetako berrogeita hamasei herrialdez osatutako erakundea da, bakearen, segurtasunaren eta giza eskubideen zerbitzura. Printzipio horiek Helsinkiko Amaierako Aktan sartu ziren 1975ean.

ESLArentzat terrorismoa giza eskubideen urradura larria da[109]. Kontseilu Iraunkorraren 618. Erabakian, 2004ko uztailaren 1ekoa, agintariekiko eta gizarte zibilarekiko lankidetza bultzatzen da, solidaritatea adierazteko eta terrorismoaren biktimei eta haien familiei laguntza eskaintzeko.

2007an erakunde horrek azpimarratu egin zuen terrorismoaren biktimekiko solidaritatea, babesa eta errekonozimendua funtsezkoak zirela gaiaren alorrean egiten zen edozein politikarako. Horiek, tradizionalki, akusatu eta auzipetuen giza eskubideen babesari bakarrik eman diote arreta[110]. Terrorismoaren biktimei buruzko goi mailako topaketan, Vienan antolaturikoa Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideentzako Bulegoak 2007ko irailaren 13tik 14ra, azpimarratu egin zen biktimei entzuteko betebeharra, haien beharrak ezagutzeko eta laguntza neurriak ezarri aurretik. Edonola ere, solidaritateak ez du karitatea esan nahi, baizik eta banakako eta taldeko interesak konbinatzeko aukera. Biktimak ez dira *"filantropiaren hartzaile pasibo, baizik eta erresilientzia berrestean aktibista"*[111]. Biktimen solidaritatea taldeko segurtasunaren eta terrorismoaren prebentzioaren kontzeptuarekin uztartzen da. Biktimen gizatasun galeraren aurrean, gizarteak eta agintariek solidaritatez erreakzionatu behar dute. Izan ere, eraso terroristek gehien kalteturiko biktimengan duten inpaktua txikitu egiten da eta gizarte kohesioan laguntzen du. Behar bezala, agintariek biktima elkarte eta erakundeekin lan egin behar dute, foro eta hedabide publikoetan sartzen utziz eta gobernuekiko iritzi kritikoak adierazten badituzte ere[112].

---

108 Ikusi http://www.euroforumrj.org/Projects/projects.terrorism.htm. Jada adierazi den bezala, txosten hau egiteko programaren koordinatzailearekin jarri ginen harremanetan, Ines Staiger andrearekin hain zuzen, Lovainako (Belgika) Unibertsitatekoa. Helburuak alderdi ezberdinak eztabaidatzea eta Kriminologiako biltzar horretarako tailerra antolatzerakoan laguntza eskaintzea izan ziren.

109 ESLAren Ministerio Kontseiluaren 2003ko iraileko Lisboako bilera.

110 Aurretik, 2006ko martxoan, ESLAren tailer teknikoa egin zen Oñatin. Bertan, herrialde parte-hartzaileentzako galdera sortaren gainean lan egin zen. Hura terrorismoaren biktimen babeserako neurri praktikoei buruzkoa zen, eta helburua onenak barreiatzea izan zen.

111 Topaketa hartan aurkeztutako Lan Dokumentuaren 16. or. ikusi helbide honetan: http://www.osce.org/documents/odihr/2007/09/26120_en.pdf.

112 Lan dokumentuaren 15. or. Ikusi aurreko oharra.

## VII. GOBERNUZ KANPOKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK TERRORISMOAREN BIKTIMEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Orokorrean delituen biktimen eta batez ere terrorismoaren biktimen eskubideak sustatzen dituzten hainbat erakunde daude, gaiaren gainean deklarazioak eta gomendioak lantzen arituz. Hiru azpimarratzen ditugu:

- *Biktimentzako Zerbitzuen Foro Europarra.* Londresen sortu zen 1990an delituaren biktimentzako zerbitzu eraginkorren garapena sustatzeko Europa osoan zehar. Lau dokumentu garrantzitsu argitaratu ditu: Prozedura Zehatzailean Biktimen Eskubideen Deklarazioa (1996), Delituaren Biktimen Gizarte Eskubideen Deklarazioa (1998), Biktimek Gutxieneko Estandarrak izango dituzten Zerbitzuak Jasotzeko Eskubideen Deklarazioa (1999) eta 2007ko Adierazpena.
- *Lehengoratze Justiziaren Foro Europarra.* Terrorismoaren biktimei laguntzeko nazioarteko gutxieneko estandarretako lana, Europako Batzordeak finantzaturikoa, eta terrorismoaren biktimekin izandako lehengoratze justiziaren alorrean garaturikoa aipatu dira lehen ere. Terrorismoaren Biktimen Laugarren Egun Europarraren urteurrenarekin bat etorriz, 2008ko martxoaren 11n onartu egin zen nazioarteko biltzar batean terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko deklarazio bat. Deklarazioak lau gai hartzen ditu: justizia eskuratzea, lehengoratze justizia, kalte-ordaina edo lehengoratze ekonomikoa eta jarraikako arreta psikosoziala. Helburua Europar Batasun osoan estandar komunak garatzea da.
- *Terrorismoaren Biktimen Sare Europarra,* Europako Batzordearen finantzazioarekin, oraindik garapen fasean dago, proiektu hasiberriak ditu, eta 2007az geroztik, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguneko omenaldietan hartu du parte eta beren ahotsak dioena jaso du.

## VIII. ONDORIOAK: ERATORRITAKO PRINTZIPIOAK

Delitu egintzen eta botere abusuaren biktimak babesteko nazioarteko araudia, orokorrean, delitua prebenitzearen eta justizia zehatzailearen (barrukoa eta nazioartekoa) alorrean landu da, giza eskubideen babesaren eta nazioarteko zuzenbide gizatiarraren alorrean bezalaxe. Aurrekari horietan oinarrituz, I-11tik aurrera berariazko araudia garatzen ari da terrorismoaren biktimen gainean eta esparru unibertsalean eta Europako lurraldeenean, nahiz eta zati handienak ez duen juridikoki izaera loteslerik. Terrorismoa hamarkadatan zehar jasaten aritu den herrialdean gaudenez, gure barne araudiak nazioarteko erakundeek sustatutako printzipio gehienak biltzen ditu. Hala eta guztiz ere, horiek benetako aplikazioaren ebaluazio eta ikuskapen mekanismoen garrantzia azpimarratzen dute, zalantzarik gabe interesgarri suertatzen diren eraginkortasun adierazleak emanez.

Biktimazio terroristaren aniztasun, konplexutasun eta dinamismotik abiatzen da, elkarren artean lotura duten alderdi objektibo eta subjektiboekin. Gainera, komenigarria da terrorismoaren biktimen behar, itxaropen eta eskubideen arteko bereizketa egitea. Nazioarteko gutxieneko printzipio edo estandarrek biktimen eskubideak jasotzen dituzte, eta horiek estatuetako epaitegien aurrean exijitu behar dira. Ez da *desiderata* bat; izan

ere, jada adierazi den bezala, etengabe aplikazioa baloratzeko berariaz diseinaturiko baliabide beharrari aipamen egiten zaio. Azken batean, terrorismoaren biktimei buruzko nazioarteko araudia Nazio Batuen eremuan nahiz Europako Kontseiluan berretsitako hitzarmen nagusietan bildutako giza eskubideen zehaztapena da. Europar Batasunean printzipio horiek positibo bihurtzeko joera ere ikus daiteke.

Ondorioz, nazioarteko estandarrek terrorismoaren biktimen eskubideen barne babesean gutxieneko oinarri gisa balio dute, eta, aldi berean, estatu bakoitzeko babesari buruzko ebaluazio irizpide gisa. Gainera, Nazio Batuen 1985eko delituaren biktimen definizio orokorra terrorismoaren biktimei egokitzeak onarpen handia eskuratu du, nahiz eta terrorismoaren kontzeptua eztabaidagarriagoa izan.

Lehenengo urratsa terrorismoaren biktimen eskubideak izendatu edo zehaztea da; bigarrena, epe ertain eta luzean, horiek errealitate bihurtzea. Aztertutako nazioarteko arauditik hurrengo gutxieneko printzipioak atera ditzakegu, elkarren artean uztartuta, terrorismoaren biktimak errekonozitzeko. Printzipio horiek sarrerako hitzek heldutako metaforak bezala jarduten dute:

1. Estatuek betebeharrak dituzte, bai gaizkileari dagokionez, bai biktimei dagokienez, eskubideen bermean eta zerbitzuak ematerakoan. Biktimen giza eskubideekiko errespetua ez zaie kontrajartzen terrorismoagatik akusatu, auzipetu eta zigortuei zor zaizkien bermeei, ezta alderantziz ere, betiere, Zuzenbide Estatu batean elkarren mendekoa den eta zatiezina den ulermenaren barruan. Zentzu horretan, funtsezkoa da giza eskubideen eta betebeharren kultura biktimazio terroristaren prebentzioan.
   Biktimek biktimazio gehiago ez izatea espero dute, eta hezkuntzaren alorrean duten interesa epe luzerako prebentzio orokorrarekin du zerikusia, terrorismoari legitimotasuna kentze aldera. Agintari publikoak bereziki erantzuleak dira bigarren mailako eta etengabeko biktimazioaren prebentzioan. Terrorismoa eteteko beharrezko baliabide guztiak jartzen diren bitartean, herri erakundeek arriskuak eta biktimei eragindako kalteak gutxitzeko politikak garatzeko betebeharra dute, bai lehen mailakoak, bai bigarrenekoak. Halaber, biktimazioa kentzeko eta biktimazioaren aurrean eusteko faktoreei bultzatzeko betebeharra dute.
2. Biktimen aldeko politikak ezagutza fidagarri eta alderatuetan oinarritu behar dira, hau da, ikerketa biktimologiko garrantzitsuenetan oinarritu behar dira, giza eskubideen alorreko praktika egokien adibidetan bezalaxe.
3. Biktimei gizatasuna kentzeak terrorismoa mantentzen laguntzen du. Hura prebenitzeko funtseko neurria haiek errekonozitzea eta haiekin solidario izatea da, biktimazioa gutxitzeko eta gizarte kohesioan laguntzeko betebehar publikoa errealitate bihurtuz. Nazio Batuen eremuan “erruki” hitza baztertzen ari da, eta solidaritatearena hartzen hasi. Ez dira betirako mendekoak izango diren pertsonak sortu nahi, ezta laguntza eskatzaile soilak ere. Aldiz, sakonki bidegabekoa den gertaera baten protagonisten aurrean gaude, eta gizartean bizitzen eta bere aukera guztiak garatzen jarraitu nahi dute.
4. Biktimek eskubidea dute eragiten dieten erabakietan parte hartzeko. Elkarteen eta laguntza zerbitzuen lana funtsezkoa da terrorismoaren biktimen eskubideen sustapenean eta gizarte kontzientziazioan. Ondorioz, babes publikoa emateko saiakera egin behar da, jardueren ebaluazio askearekin batera.

5. Biktimek duintasuna izateko eskubidea dute. Biktimek tratu duina, errespetuzkoa eta pertsonalizatua behar dute, biktimazioaren fase guztietan eta, horrelakorik badago, baita prozedura zehatzailean ere. Une oro duintasun pertsonalarekiko errespetuarekin tratatu behar dira, eskubide eta interes legitimoekiko errekonozimenduarekin. Haien bizitza pribatua eta familiarra errespetatu egin behar da. Horretarako, eremu honetan lan egiten duten pertsonek behar bezalako prestakuntza eta koordinazioa izan behar dute, diziplina anitzeko ikuspegia eta, kexak aurkezten direnerako, ikuskapen aukera izanez. Berariazko prestakuntzak jarrera egokia hartu behar du ahultasun pertsonalarekiko eta harreman, testuinguru eta/edo gizarte ahultasunarekiko.
   Biktimekin lan egiten duten pertsonek, aldi berean, baliabide egokiak izan behar dituzte, haiek babesteko erakundeak erantsiz horrelakorik behar den kasuan.
6. Biktimek eskubidea dute justizia eskuratzeko. Horretarako, beharrezkoa da informazio zehatza eta egokia eskuratzea prozesuaren une bakoitzean (parte hartzeko moduari buruz, baliabideei buruz, prozedurari buruz...). Justizia zehatzailea eskuratzea funtsezkoa da egia publikoki ezarri eta hedatzeko, oinarrizkoa da biktimazioa gutxitzeko eta biktimen egoera konpontzeko. Gozzi eta Laborderen ustetan (2005, 292-3), kontua ez da bakarrik egoera konpontzera iristea, baizik eta hura zehazten duten erakunde zehatzaileetara iristea[113]. Horrek galarazi egiten du epe luzera, eta nazioarteko printzipio horiek errespetatuz, lehengoratze justiziako egoerak jazotzea Zuzenbide Estatuaren erantzun publiko gisa.
7. Biktimek eskubidea dute beren bizitza eta osotasun fisikoa babestua izateko mehatxuen eta behartzeen aurrean; egoera are larriagoa da etengabeko biktimazio kasuetan.
8. Biktimek eskubidea dute giza eskubideak ahultzeagatik sortutako kaltea konpontzeko. Kaltea konpontzeak bost erantzun mota hartzen ditu: lehengoratzea, kalte-ordaina, berregokitzapena, gogobetetasuna eta errepikatuko ez denaren bermea.
   Biktimazio terroristaren kostu pertsonal eta sozial handia argia izanda, horrek erantzun medikoak, psikologikoak, juridikoak, administratiboak, materialak (bertan etxebizitzarekin, hezkuntzarekin, prestakuntzarekin eta lanarekin zerikusia duten alderdiak sartuko lirateke), sozialak eta izpiritualak behar ditu. Laguntza eskubideak ez du loturarik gertaerak salatzearenarekin, atxiloketarenarekin edo gaizkileak bizi duen egoerarenarekin. Laguntza lan guztietan justizia zehatzailearen administrazioaren aurrean beldurragatik, presioagatik eta/edo konfiantza faltagatik salatzen ez duten biktimei laguntzeko modua planteatu behar da. Edonola ere, laguntzak ematerakoan justifikaziorik gabeko diskriminazioak saihestu egin behar dira.
   Errekonozimendua eta solidaritate publikoa hurrengo printzipioen arabera gauzatu behar da: koordinazioa; doakotasuna; prozeduren sinpletasun eta azkartasuna; laguntza eskaintzan jarraitasuna izatea, eta biktimen elkarrekikotasuna edo protagonismoa konpontzerakoan. Horrela, biktimazioa deuseztatzeko edo berriro gizarteratzeko proiektu orokorragoan eranstea posible izango da.

---

[113] Egile hauek uste dute justizia zehatzailearen ordain funtzioa funtsezkoa dela, biktimen lehengoratze pertsonalerako.

## IX. BIBLIOGRAFIA

ALBRECHT, Hans-Jörg eta KILCHLING, Michael. 2005. *Victims of Terrorism Policies and Legislation in Europe. An Overview on Victim Related Assistance and Support*. Friburgo: Atzerriko eta Nazioarteko Zuzenbideko Max Planck Institutua.

BACA BALDOMERO, Enrique. 2006. Terrorismo. *Manual de Victimología*-n, E. Baca Baldomero *et al.*-en koordinaziopean. Valentzia: Tirant lo Blanch.

BASSIOUNI, Cherif. 2004. Reconnaissance internationale des droits des victimes. *Terrorisme, victimes, et responsabilité pénale internationale*-n, S.O.S. Attentats-ek argitaratua. Paris: Calmann-Lèvy.

BERISTAIN IPIÑA, Antonio. 2007. *Víctimas del terrorismo. Nueva justicia, sanción y ética*. Valentzia: Tirant lo Blanch.

BRIENEN, M.E.I. eta HOEGEN, E.H.. 2000. *Victims of Crime in 22 European Criminal Justice Systems: The Implementation of Recommendation (85)11 of the Council of Europe on the Position of the Victim in the Framework of Criminal Law and Procedure*. Nijmegen: Wolf Legal Productions.

BOU FRANCH, Valentín eta FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE ROMANÍ, Carlos. 2009. *La inclusión del terrorismo entre los crímenes internacionales previstos en el Estatuto de la Corte Penal Internacional (Una propuesta del Colectivo de Víctimas del Terrorismo en el País Vasco, COVITE, para la Conferencia de Revisión del Estatuto de la Corte Penal Internacional)*. Valencia: MINIM.

CORTE IBÁÑEZ, Luis de la. 2006. *La lógica del terrorismo*. Madril: Alianza.

HERRIAREN DEFENTSA ERAKUNDEA. 2007. *El Estado frente a las víctimas de la violencia. ¿Hacia dónde vamos en políticas de reparación y justicia?* Lima: Herriaren Defentsa Erakundea.

ELORZA, Antonio, koord. 2006. *La historia de ETA*. Madril: Temas de Hoy.

FARRELL, Graham. 1992. Multiple Victimisation: Its Extent and Significance, *International Review of Victimology*, 2.

FARRELL, Graham eta PEASE, Ken. 2001. *Repeat Victimization*. New York: Criminal Justice Press.

FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE, Carlos. 2005. Hitzaurrea. C. Fernández de Casadevante eta F. Jiménez Garcíaren *Terrorismo y Derechos Humanos: Una aproximación desde el Derecho Internacional*-en. Madril: Víctimas del Terrorismo Fundazioa eta Dykinson.

FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE, Carlos eta JIMÉNEZ GARCÍA, Francisco. 2005. *Terrorismo y Derechos Humanos: Una aproximación desde el Derecho Internacional*. Madril: Víctimas del Terrorismo Fundazioa eta Dykinson.

GARCÍA RODRÍGUEZ, M. J. 2005. Una aproximación a las políticas de protección y asistencia a las víctimas de delitos en el contexto europeo. *Estudios de Victimología. Actas del Primer Congreso Español de Victimología*-n, Tamarit Sumalla, J. M-k koordinatua. Valentzia: Tirant lo Blanch.

GARKAWE, Sam. 2001. The Victim-Related Provisions of the Statute of the International Criminal Court: A Victimological Analysis, *International Review of Victimology* 8, 3: 269-89.

GOODEY, Jo. 2002. Whose Insecurity? Organised Crime, its Victims and the European Union. *Crime and Insecurity*-n, Adam Crawford-ek argitaratua. Willan.

GOODEY, Jo. 2003. Compensating Victims of Violent Crime in the European Union with Special Focus on Victims of Terrorism. Biktimentzako Kalte-ordainari buruzko Mahai-inguru Nazionalean aurkeztutako komunikazioa, ekainaren 10ean, Washington, D.C.: National Center for Victims of Crime.

GOZZI, Marie-Hélène eta LABORDE, Jean-Paul. 2005. Les Nations Unies et le droit des victimes du terrorisme, *Revue Internationale de Droit Pénal* 76: 275-98.

GREER, D., ed. 1996. *Compensating Crime Victims: A European Survey*. Friburgo: IUSCRIM.

HERRERA ARRANDO, José Vicente. 2003. Unión Europea y lucha contra el terrorismo: la aportación española, *Ciencia Policial* 65: 7-24.

KOCH, Bernhard A. 2006. *Report on Indemnifying Victims of Terrorism. A Comparative Survey for the European Committee on Legal Co-operation (CDCJ)*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.

KOCH, Bernhard A. 2007. *Indemnifying Victims of Terrorism. Preliminary Considerations with a Particular Focus on the Role of Insurance*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.

LIMA, M. de la Luz. 2006. Las víctimas del delito y el abuso del poder del terrorismo, *Eguzkilore. Kriminologiaren Euskal Institutuaren koadernoa* 20: 41-74.

MAGUIRE, Mike eta CORBETT, Claire. 1987. *The Effects of Crime and the Work of Victims Support Schemes*. Aldershot: Gower.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 1999a. *Handbook on Justice for Victims: On the Use and Application of the Declaration of Basic Principles of Justice for Victims of Crime and Abuse of Power*. New York: United Nations Office for Drug Control and Crime Prevention eta Centre for International Crime Prevention.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 1999b. *Guide for Policy Makers on the Implementation of the United Nations Declaration of Basic Principles of Justice for Victims of Crime and Abuse of Power*. New York: United Nations Office for Drug Control and Crime Prevention eta Centre for International Crime Prevention.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 2006a. *Cross-Cutting Issues. Victims and Witnesses. Criminal Justice Assessment Toolkit*. New York: United Nations Office on Drugs and Crime.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 2006b. *Compendium of United Nations Standards and Norms in Crime Prevention and Criminal Justice*. New York: United Nations Office on Drugs and Crime.

PAVONE, Mario. 2006. 2006. Vittime del terrorismo e della criminalità. Responsabilità oggettiva e risarcibilità del danno. Kriminologiaren Elkarte Italiarraren XX. Biltzar Nazionalean aurkeztutako txostena, urriaren 19-21ean, Gargnano del Garda.

PÉREZ, Kepa, GARCÍA, L. eta SÁINZ, A.. 2002. *Guía de atención psicológica a las víctimas del terrorismo. Manual de autoayuda psicológica*. Bilbo: Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana.

REEVES, Helen. 2003. *The Relevance Today of Recommendation Nº R (87)21 on Assistance to Victims and Prevention of Victimisation*. Estrasburgo: Zehapen Gaietako Batzorde Europarra. Kriminologiako Zientzia Kontseilua.

RODRÍGUEZ PUERTA, M. José. 2006. Sistemas de asistencia, protección y reparación a las víctimas. *Manual de Victimología*-n, E. Baca Baldomero *et al.*-en koordinaziopean. Valentzia: Tirant lo Blanch.

RUBIO, Pedro Ángel *et al.* 2007. Derechos victimales de las víctimas del terrorismo. Biktimologiako Elkarte Espainiarraren II. Biltzarrean. Conocer, reconocer y reparar a las víctimas, Donostia-San Sebastián, 2007ko ekainaren 25-26-27. Laburpenen liburua. Donostia.

SAMPEDRO, Javier. 2006. Sare zientifikoan *Babelia, El País,* 06.05.27: 2-3.

SANZ-DÍEZ DE ULZURRUN LLUCH, Marina. 2004. La víctima ante el Derecho. La regulación de la posición jurídica de la víctima en el Derecho internacional, en el Derecho europeo y en el Derecho positivo español, *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales* 57, 1: 219-310.

SCHNEIDER, Hans Joachim. 2000. *Victimological Developments in the World during the Last Three Decades: Proceedings of the Montreal Symposium*. Mönchengladbach: World Society of Victimology.

SUNDBERG, Ulrika. 2005. Human Rights and Terrorism: Some Comments on the Work of United Nation's Commission on Human Rights, *International Review of Penal Law* 26: 319-337.

VAN DIJK, Jan J. M. 2002. Empowering Victims of Organized Crime; on the Compliance of the Palermo Convention with the UN Declaration on Basic Principles of Justice for Victims, *ERA-Forum* 3, 1: 33-37.

VARONA MARTÍNEZ, Gema. 1998. *La mediación reparadora como estrategia de control social. Una perspectiva criminológica*. Granada: Comares.

VARONA MARTÍNEZ, Gema. 2001. Metodología para la recogida de información de interés policial sobre las víctimas de infracciones penales contra las personas. Fase II. IVAC-KREI eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren arteko 2001eko lankidetza Hitzarmenaren barruan garatutako ikerketa. Donostia-San Sebastián: IVAC-KREI (argitaratu gabeko lana).

VARONA MARTÍNEZ, Gema. 2002. Invitación a la investigación en torno al terrorismo mediante categorías criminológicas. *Estudios jurídicos en memoria de José María Lidón*-en, Juan I. Echano Basaldúak argitaratua. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

VILLACAMPA ESTIARTE, Carolina. 2006. Protección internacional de las víctimas. *Manual de Victimología*-n, E. Baca Baldomero *et al.*-en koordinaziopean. Valentzia: Tirant lo Blanch.

WALLER, Irvin. 2003. *Crime Victims: Doing Justice to their Support and Protection*. Helsinki: European Institute for Crime Prevention and Control (HEUNI).

WERGENS, A. 1999. *Crime Victims in the European Union*. Umeå: The Crime Victim Compensation and Support Authority.

Yanay, U. 1993. Victims of Terrorism: Is it a Non-Issue?, *Journal of Sociology and Social Welfare* XX: 2.

**Kontsultatutako web orrialdeak:**

St. Andrews zentroa, terrorismoa eta indarkeria politikoa aztertzeko (Erresuma Batua): http://www.st-andrews.ac.uk/academic/intrel/research/cstpv/pages/about.html.

Delituaren Biktimen Nazioarteko Inkesta, Leiden: http://ruljis.leidenuniv.nl/group/jfcr/www/icvs/.

Lehengoratze Justiziaren Foro Europarra: http://www.euforumrj.org.

Biktimei Laguntzeko eta Bitartekaritzarako Institutu Nazionala, Paris: http://www.inavem.org.

Erresuma Batuko Barne Ministerioa, Justizia eta Biktimak Unitatea, Londres: http://www.homeoffice.gov.uk/crime-victims/.

Biktimei Laguntzeko Erakunde Nazionala, Washington, DC: http://www.try-nova.org.

Nazioarteko Biktimologia Orrialdea, Haga: http://www.victimology.nl/.

Terrorismoaren biktimentzako baliabide europarren sustapen proiektua http://www.eureste.org.helbidean.

Terrorismoaren Biktimentzako Sare Europarra (*European Network of Victims of Terrorism*). Europar Batasunaren finantzazioarekin, terrorismoaren biktimen eskubide eta interesen alorrean lan egiten duten erakunde ezberdinak biltzen ditu: http://www.europeanvictims.net.

Biktimologiako Mundu Mailako Elkartea, Monchengladbach: http://www.worldsocietyofvictimology.org.

Victim Support Europe, Biktimentzako Zerbitzuen Foro Europarra, http://euvictimsesrvices.org.

## X. ERANSKINA: KONTSULTATUTAKO ARAUDI ETA NAZIOARTEKO DOKUMENTUEN ZERRENDA[114]

### NAZIO BATUAK

- Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioa (1985).
- Biktimentzako Justizia Gidaliburua: Nazio Batuen Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioaren aplikazioari eta erabilerari buruzkoa (1999).
- Nazio Batuen Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioa aplikatzeko agintarientzako gida (1999).
- Delitu eta Botere Abusuaren Biktimentzako Justizia eta Laguntzaren Hitzarmen Proiektua (2006).
- Lehengoratze justiziako programen erabilerari buruzko Oinarrizko Printzipioak zehapen gaietan (2002).
- Lehengoratze Justiziaren Programa Gidaliburua (2006).
- Justizia Gidalerroak Biktima diren Haurrentzako eta Delituen Lekukoentzako.
- Txosten bereziak biktimen gainean.
- NBen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenaren bitartez onarturiko Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroak.
- Erromako 1999ko Estatutua.
- Egia jakiteko Eskubideari buruzko azterlana. Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi-komisarioaren Bulegoak egindako txostena (E/CN.4/2006/91, 2006ko urtarrilaren 9koa).
- Zigorgabetasunari buruzko Nazio Batuen idazkari nagusiaren txostena (E/CN.4/2006/89, 2006ko otsailaren 15ekoa).

[114] Gaian eta nazioarte mailan garrantzia gehien duen araudia bakarrik erantsi da, txostenekin eta horien aplikazioarekin zerikusia duten beste testu batzuekin. Gaikako ordena eta orden kronologikoa jarraitzen dira. Zerrenda orokor zabalagoa ikusteko, jo txosten honetako eranskinera.

– Batzar Nagusiaren eskubide gizatiarrei eta terrorismoari buruzko 1995eko 50/186 Ebazpena.
– *Terrorismoaren aurkako Nazio Batuen Estrategia Globala,* 2006koa, Batzar Nagusiak 60/288 Ebazpenean onarturikoa.

## EUROPAKO KONTSEILUA

### Hitzarmenak

– Terrorismoa deuseztatzeko 90. hitzarmena.
– Indarkeriazko delituen biktimak konpentsatzeari buruzko 116. hitzarmena.
– Terrorismoaren prebentziorako 196. hitzarmena.
– Kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruzko 198. hitzarmena.

### Ministroen Batzordearen gomendioak eta gidalerroak

– (2006)8 Gomendioa, Ministroen Batzordearena, delituen biktimei laguntzeari buruzkoa.
– Terrorismo egintzen biktimak babesteari buruzko gidalerroak (2005).
– (2005)9 Gomendioa, lekukoen eta justiziaren laguntzaile direnen babesari buruzkoa.
– (99)19 Gomendioa, zehapen gaietan bitartekari izateari buruzkoa.
– (87)21 Gomendioa, biktimei lagundu eta biktimazioa prebenitzeari buruzkoa.
– (85)11 Gomendioa, biktimak Zuzenbide zehatzailearen eta prozesalaren esparruan duen kokalekuari buruzkoa.
– (82)1 Gomendioa, nazioarteko lankidetzari buruzkoa egintza terroristen ikerketa eta deuseztapenaren gainean.
– (83)7 Gomendioa, parte-hartze publikoari buruzkoa politika kriminalean.

### Parlamentu Batzarraren gomendioak

– 1.426 (1999) Gomendioa, demokrazia europarrei buruzkoa terrorismoaren aurrean.
– 1.687 (2004) Gomendioa, terrorismoari kulturaren bitartez aurre egiteari buruzkoa.

### Ministerio ebazpenak

– Europan eguneroko indarkeria prebenitzeari buruzko ebazpena (2004).
– 2. Ebazpena, justizia zehatzailearen sistemaren gizarte misioari buruzkoa –lehengoratze justizia– (2005).

### Adituen txostena

– Terrorismoaren biktimak – Politikak eta legedia Europan: Biktimei emandako Laguntzaren eta Babesaren gaineko Gainbegiraketa.

## EUROPAR BATASUNA

– Europar Batasunaren estandarrak eta jarduna delituaren biktimen gainean.

- Phare Horizontal Programme on Justice and Home Affairs. 2002. *Reinforcement of the Rule of Law: Final Report on the First Part of the Project*. Bruselas: Europako Batzordea.
- Kontseiluaren Esparru Erabakia Biktimen Kokalekuaren gainean Prozedura Zehatzailean (2001).
- Esparru Erabakia betetzeari buruzko 2004ko txostena (2001).
- Kontseiluaren Esparru Erabakia elkarrekiko errekonozimendu printzipioaren aplikazioari buruz (2005).
- Kontseiluaren Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, delituaren biktimak konpentsatzeari buruzkoa.
- Prestakuntza egintza terrorismo egintzen biktimen alde (2006).
- Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko deklarazioa, Terrorismoaren Biktimentzako estandarrei buruzko Konferentzian onarturikoa 2008ko martxoaren 11n[115].

## BIKTIMENTZAKO ZERBITZUEN FORO EUROPARRA (VICTIM SUPPORT EUROPE)

- Biktimek Prozedura Zehatzailean dituzten Eskubideei buruzko deklarazioa.
- Delituaren Biktimen Gizarte Eskubideen deklarazioa.
- Biktimek Zerbitzu Estandarrak Eskuratzeko duten Eskubidearen deklarazioa.
- Europarako Manifestua.

[115] Lehengoratze Justiziaren Foro Europarrak sustatutako proiektua, Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko (Herbehereak) Institutuarekin batera. Lovainako Unibertsitate Katolikoaren, Terrorismoaren eta Indarkeria Politikoaren Azterlan Zentroaren (St. Andrewseko Unibertsitatea, Edinburgh) eta *Victim Support* erakunde herbeheretarraren laguntza ere izan da. Proiektu honek Europako Batzordearen VICT 2006 Programaren finantzazioa jaso zuen (Justizia, Askatasuna eta Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia). Konferentzia 2008ko martxoaren 10 eta 11n garatu zen Tilburgeko Unibertsitatean (Herbehereak) eta Kanpo Arazoetako ministerio espainiarraren ordezkari bati gonbitea luzatu zitzaion. Aldez aurretik bi mintegi egin ziren 2007ko azaroan.

# III. ATALA

## BARNE ARAUDIAREN PIXKANAKAKO EGOKITZAPENA, BIKTIMIZAZIO TERRORISTA MURRIZTEKO BIDEAREN ABIABURU GISA

Kapitulu honetan, terrorismoaren biktimen egoera arintzeko barne araudiaren ekoizpenean egindako bidea errepasatuko dugu[1]. Bide hori berandu hasi zela esanez hasiko gara, nahiz eta pixkanaka prestazioak sortu eta zabaltzen ari direla ikus daitekeen. Arau horiek, hasiera batean kalte-ordain ekonomikoa ematera mugatzen baziren ere, ondoren alor ezberdinak hartzen hasi ziren eta laguntza psikologikora, etxebizitzara, trebakuntzara, enplegura eta ordain moralera iritsi. Hausnarketa hori Estatuko araudiaren nahiz araudi autonomikoaren kasuan aplikatzen dela egiaztatu da.

Autonomia erkidego guztiek ez dute legedia atera gai honen gainean. Txosten hau amaitu den unean, sei erkidegok bakarrik egiten dute. Lurraldean biktimizazio terroristak zuen neurria ikusita, EAE izan zen terrorismoaren biktimen alorrean arauak egin zituen lehenengoa. Orokorrean, laguntza autonomikoak subsidiarioak eta osagarriak dira.

Edonola ere, hemen aztertutako arauak abiaburua dira beti, ez helmuga, eta hori egon daitezkeen hutsuneetan, sakabanatzean eta, azken batean, benetako aplikazioan antzeman ahalko da.

## I. ESTATUKO ESPARRUA: 1979tik 2008ra

### 1. <u>Nazioarteko aurrekariak</u>

Aurreko kapituluan terrorismoaren biktimei buruzko nazioarteko araudia errepasatu dugu. Orain, barne legediarentzat eta legedi autonomikoarentzat eredu izandako testuak zeintzuk izan ziren argitzea komeni da. Jada adierazi den moduan, nazioarteko esparruan, beharrezkoa zen indarkeriazko delitu ororentzako ordain ekonomiko subsidiarioa izatea, eta hori, hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, balio juridiko ezberdineko hainbat arauek defendatzen zuten. Hala eta guztiz ere, laurogeita hamarreko hamarkadara bitarte itxaron behar izan zen benetako konpromisoa ikusteko Estatuaren aldetik eta autonomia erkidego ezberdinen aldetik terrorismoaren biktimei ordain egokia ematearen gaian.

---

1 Idatz-zati honetan aipatzen diren arauak amaierako eranskinean agertzen den zerrendan ikus daitezke. Bertan, horiek on-line eskuratzeko esteka erantsi da.

Barne araudian aintzat hartu ziren honakoak: irailaren 28ko 27. Ebazpena (77), delituen biktimei eman beharreko kalte-ordainari buruzkoa; Europako Kontseiluaren Hitzarmena, indarkeriazko delituen biktima izandakoentzako kalte-ordainari buruzkoa, 1983ko azaroaren 24koa[2] (Sanz-Díez 2007, 154-6); Europako Parlamentuaren Ebazpena, 1981eko martxoaren 13koa, indarkeriazko egintzen biktimentzako kalte-ordainari buruzkoa, eta Delitu eta Botere Abusuen Biktimen Justizia Printzipioen Deklarazioa, 1985ekoa, Nazio Batuen Erakundearena. Testu horiek biktima guztien eskubideen aldeko gizarte mugimenduek bultzatu zituzten.

Gainera, Europako Parlamentuko Eskakizunen Batzordeak indarkeriazko delituen biktima direnentzako kalte-ordainei buruz egindako txostenean, 1989ko martxoaren 6an aurkezturikoa eta izen bereko ebazpena ekarriko zuena irailaren 12an, azpimarratu egiten da eskura daitekeen kalte-ordainak ez duela behar beste harrapatzen ordaina eskuratzeko eskubidearen edukia, eta, ondorioz, beste laguntza eta informazio neurri batzuk erraztu behar direla. Hamar urte ondoren, Europako Batzordearen 1999ko uztailaren 14ko Komunikazioak, EBn delituen biktima direnei buruzkoak, ezarri egin zuen debekaturik zegoela bereizkeria erabiltzea biktima europarren artean prebentzioari, gizarte laguntzari, zehapen prozesuan parte hartzeari, konpentsazioari, informazioari eta esku hartzen duten profesional ezberdinen trebakuntzari dagokienez. Ideia horiek Europar Batasuneko Kontseiluaren hurrengo Esparru Erabakian ere islatu ziren: Zehapen Prozesuan Biktimak duen Zuzenbide Estatutuaren Esparru Erabakia, 2002ko martxoaren 15ekoa. Bertan, laguntza modu integralean definitzen da, zuzenbide, osasun, psikologia eta gizarte alderdiak harrapatze aldera (Sanz-Díez 2007, 158-163).

## 2. Prestazioen justifikazioa

Hasieran batean, nazioarte mailan nahiz barrukoan, eztabaidatu egin zen zein izan behar zen Estatuko konpentsazio horren justifikazioa. Kontua ez zen eztabaida filosofiko soila ebaztea, gai hori konpontzeak gai praktikoak ekarriko zituelako, eta, are gehiago esatearren, karga ekonomikoak gain hartu beharra ekarriko zuelako erakunde publikoen aldetik. Esparru europarrean eta gure inguruneko beste herrialde batzuetan bezala, gure barne araudian bereziki larria eta esanahi politikokoa zen biktimizazioarekiko solidaritatean oinarritu zen haren funtsa. Justizia eta berdintasun printzipioei ere heldu zitzaien, baina Estatuaren erantzukizunarena baztertu zen (Sanz-Díez 2007, 145)[3].

Pixkanaka, funts horren pean, Estatuak eta autonomia erkidego batzuk, Euskadik adibidez, prestazio publikoak erantsi zituzten osasunaren, etxebizitzaren, lanbidearen, eta trebakuntzaren alorretan, eta baita ordain morala, sinbolikoa edo ohorezkoa ahalbidetzeko neurriak ere. Horrez gain, delituak burutu izan dituzten eta biktimei kalte-ordain ekonomikoa emateko ardura duten pertsonek, orokorrean, kaudimenik ez dutenez, edo kaudimen hori ezagutu edo identifikatzea ezinezkoa izaten denez, Estatua litzateke erantzukizun ekonomiko hori gain hartuko lukeena subrogazioaren bidetik.

---

2 Espainiak berretsia 2001eko abenduaren 29an.

3 Ikusi Espainiako Auzitegi Gorenera iritsi diren errekurtsoei buruzkoa, Estatuak izan dezakeen ondare erantzukizunari buruzkoak ikusteko. Lloveras (2002).

Bestalde, baina justifikazio berdina oinarri hartuta, 1983ko Europako Hitzarmenaren eskakizunak jarraituz, Estatuko laguntza publikoak indarkeriazko beste delitu batzuen biktimei ere zabaldu zitzaizkien, delitu sexualen biktimak barne[4]. Kopuruei eta emakida prozedurari buruzko baldintzak onuragarriagoak badira ere terrorismoaren biktimen kasuan, alderdi batzuk berdintzen doaz denborak aurrera egin ahala (Rodríguez Puerta 2006, 429-430).

## 3. Bidea geroz eta zabalagoa den araudian zehar

Terrorismoaren biktimei Estatuaren aldetiko kalte-ordaina eskuratzeko eskubidea onartzen zien Estatu mailako lehenengo araua herritarren segurtasuna babesteko 3/1979 Errege Lege Dekretua izan zen (7. art.), nahiz eta kasu hartan kasuan kasuko biktimaren errenta mailaren araberakoa izan. Lege hura 484/1982 Errege Dekretuak osatu zuen, legea garatzeko egin baitzen. Ondoren, aintzat hartu behar dira 1984ko abenduaren 26ko Lege Organikoa, talde armatuen eta elementu terroristen jardunaren aurkakoa, eta hura garatzeko onartu ziren erregelamenduak (1986ko urtarrilaren 24ko Errege Dekretua eta 1988ko urriaren 28koa). Kopuruak baliaezintasun mailaren eta faktore pertsonal, familiar edo lanbidekoen bitartez zehazten ziren. Rodríguez Puertarekin bat etorriz (2006, 430), legedi horren berezko bi ezaugarriak hauek ziren: beste laguntza batzuekiko subsidiariotasunik edo bateragarritasunik ez edukitzea eta gorputzean jasandako kalteei mugatzea.

Ezaugarri horiek ondoren onartzen joan den legedian aldaraziko ziren. Legeak, hain zuzen, hauek izan ziren: 1992ko ekainaren 19ko Errege Dekretua; 13/1996 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga, administrazio eta gizarte motako neurriei buruzkoa, eta 1211/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, terrorismo delituen biktima direnei laguntzeko eta kalte-ordaina emateko dena. 1992ko dekretuak estaldura zabaldu zuen ohiko etxebizitzako oinarrizko elementuetaraino nahiz kalte psikikoetaraino, horien tratamendua barne. 1996tik aurrera, ohiko etxebizitzan funtsezkoak ez diren elementuak sartu ziren, eta baita ohiko etxebizitza ez den horretako elementu batzuk, merkataritzako establezimenduetakoak edo industriakoak, alderdi politikoen, sindikatuen, gizarte erakundeen lokaletan eta ibilgailuetan jasandako kalteak ere. Edonola ere, kalte materialengatik jasotako ordaina subsidiarioa da eskura daitezkeen beste batzuekiko. Heriotza eta lesioengatik eskuratzen den kalte-ordainari dagokionez, ezberdina izango da eragindako kaltearen ondorioak gorabehera nahiz familia, ekonomia eta lanbide inguruabarrak gorabehera. Gainera, tratamendu psikologikoa ere estali egiten da zenbait mugarekin, eta heriotza edo lesioengatiko kalte-ordaina bateragarria da erabat eskubidez eskura daitekeen beste edozeinekin.

---

4 Ikusi 35/1995 Legea.

## 4. Prestazioen ohiko eta ezohiko araubidea[5]

Ondorioz, 13/1996 Legeko 94. artikuluan, ezarri egiten da heriotzagatiko, lesioengatiko eta kalte materialengatiko ohiko araubidea edo araubide orokorra, eta, aldiz, terrorismoaren biktimekiko solidaritateari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legean ezohiko araubidea ezarri zen, izandako erreformari jarraiki[6]. Bi araubideak bateragarriak dira erabat eta terrorismoaren edozein biktimari aplika dakizkioke, egintzaren egilea zein banda edo taldekoa izan alde batera utzita.

Bestalde, 2006ko otsailaren 17ko Errege Dekretuaren bitartez, kasuan kasuko aldarazpenak egin ziren barne legedia Europar Batasuneko Kontseiluaren apirilaren 29ko 2004/80 Zuzentaraura egokitzeko nazioarteko biktimizazio kasuen gaian (Rodríguez Puerta 2006, 436)[7]. 1989ko otsailaren 2ko epaian jada[8], Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak adierazi zuen bereizkeria debekatuta zegoela (EEEko Ituneko 7. art.) eta, ondorioz, horrek galarazi egiten ziola estatu bati bizileku baimena edo elkarrekikotasun hitzarmena sinatzea baldintza gisa jartzea, indarkeriazko delituaren biktima izandakoek Estatuaren aldetik kalte-ordaina eskuratzeko.

Terrorismoaren biktimekiko solidaritateari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legearen eta abenduaren 17ko 1912/1999 Errege Dekretuak onetsitako haren erregelamenduaren bitartez, Estatuak, salbuespen edo ezohiko modura, bere gain hartzen du subrogazioaren bidetik 1968tik jazotako delitu terroristen erantzukizun zibila, aldez aurretik eskuratutako laguntza ekonomikoak orokor bihurtuz. Hori baino lehen, ekintza zibilaren titularrak kalte-ordaina eskuratzeko eskubidea edo itxaropena igaro behar dio Estatuari epaia eman ez bada[9]. Inguruabar horrek orokorrean indarkeriazko delituen biktimentzako

---

5 Egun gai horretan indarrean dagoen araudia laburbiltzeko, laguntza eta prestazio motak, onuradunak eta eskatzeko prozedurak bereiziz, ikusi Barne Ministerioaren web orrialdea helbide honetan: http://www.mir.es/SGACAVT/indeyayu/ayudasvictimasterrorismo/. Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimentzako Laguntza Eremuko kalte-ordain atalaren arabera, ministerio horrek terrorismoaren biktimei ordaina emateko jarritako baliabide guztiak 59,10 milioi euro izan ziren 2004 urtean (kontuan hartu urte hartan M-11ko atentatuak jazo zirela). Horietatik 21,95 milioi ohiko araubideko ordain eta laguntzei egokitu zitzaien, abenduaren 30ko 13/1996 Legeko 94. artikulutik 97.era bitartekoek araututa. Gainerako 37,15 milioiak terrorismoaren biktimekiko solidaritateari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legeak ezarritako ezohiko araubidea estaltzeko erabili ziren. Zehaztasun handiagoarekin ikus daiteke helbide honetan: http://www.mir.es/MIR/PublicacionesArchivo/publicaciones/catalogo/anuarios/anuarios04/enlinea/victimasterrorismomo.pdf**, eta baita ministerioaren estatistika urtekari ezberdinetan ere.** Bestalde, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordaindutako kalte-ordainak egongo lirateke, eta baita Klase Pasiboen eta Gizarte Segurantzaren terrorismoagatiko ezohiko pentsioak ere. 2004ko martxotik, ministerioko eremu horretan bideratutako laguntza psikosozialeko jardueren datu estatistikoak ere jaso dira.

6 Ikusi 14/2000 Legea, abenduaren 29koa –bederatzigarren xedapen gehigarria– (*BOE, 313. zk., abenduaren 31koa*), eta 2/2003 Legea, martxoaren 12koa (*BOE, 62. zk., martxoaren 13koa*).

7 Helburua prozedurak sinpleagoak egitea eta hizkuntza zailtasunak gutxitzea da, delitua biktimaren bizitokia ez den beste estatu kide batean egiten denerako. Eskaera bizitokitzat duen Estatuan aurkez daiteke (1. art.). Prozedura hau indarkeriazko dolozko delituen kasuan bakarrik aplika daiteke.

8 186/87 Gaia (Ian William Cowan, Trésor Public-en aurka).

9 Orain urte batzutatik hona, Barne Ministerioak programa bat garatzen du, eta horren helburua hau da: “*aldeko epai irmoa duen biktima bakar bat ere eskubidez eskura dezakeen kalte-ordainik gabe ez geratzea. Iraganeko kasuak dira, 1996-2006 aldikoak batez ere. Hamarkada horretan, terrorismoak*

…/…

laguntzak arautzen dituen 35/1995 Legearekiko aldea ezartzen du[10], izan ere, Estatuaren subsidiariotasun horretarako baldintza da delituaren egileek ordaindu ez izana edo haiek zehatzea ezinezkoa izatea (Rodríguez Puerta 2006, 431).

Terrorismoaren biktimen kasuan, epairik ez badago, zuzenbide dilijentziak behintzat hasita egon behar dira. Terrorismoaren biktimaren izaera eta delituarekiko biktimizazioaren kausazko lotura Zuzenbidean onargarri den edozein froga bide erabilita egiazta daiteke. Bide horiek Kode Zibilak eta Prozedura Zibilaren Legeak ezartzen dituzte. Estatuko laguntza ere eskuratuko da, horretarako ezarritako baremoari jarraiki eta azkenean epaian erantzukizun zibilik ezarri ez bada ere.

Biktima bakoitzak kalte fisiko eta psikikoengatik eskuratuko duen kopurua, kalte moralak eta materialak kanpo utzita –13/1996 Legeak eta 1211/1997 EDk estaltzen ditu–, kopuru finko bat egokituz egingo da, heriotza, baliaezintasun handia edo ezintasun iraunkor absolutua, osoa edo neurri batekoa jazo izan gorabehera.

Modu osagarrian, bahiketagatiko kalte-ordaina ere hartzen da, eta baita osasun tratamendua estaltzekoa ere Gizarte Segurantzak edo aseguru pribatu batek estaltzen ez badu.

Lan Ministerioaren eremuan, ezohiko pentsioak ematen zaizkie biktimei eta haien senideei, Gizarte Segurantzaren edozein sisteman sartuta egon zein ez, eta baita funtzionarioei eta haien senideei ere, pentsiodunak eta erretiratutako langileak barne. Hasiera batean, ezohiko pentsio horiek ez daude muga edo zergei atxikita.

Bestalde, martxoaren 12ko 2/2003 Legearen bitartez, 1999ko Legeko 4. artikulua aldarazi zen ohorezko sariak ematea aurreikusteko. Ondorioz, Terrorismoaren Biktimentzako Aitorpen Zibileko Errege Ordena sortu zen. Beharrezkoa da interesdunek edo oinordekoek eskaera egitea eraildako, zauritutako edo bahitutako pertsonei ohorea erakusteko. Ohore pertsonalak eta eskuz aldatu ezin daitezkeenak dira, nahiz eta erailketen kasuan gertueneko zeharkako biktimek jasoko dituzten. Hirugarren idatzzatiaren arabera, *"aipatutako kondekorazioak ezingo zaizkie, inolaz ere, eman ibilbide*

---

.../...

*utzitako 302 biktimek, ETAren biktimak batez ere, ez zuten erantzukizun zibilagatik eskubidez eskura zezaketen 'konpentsazioa' eskuratu, hori delitutik eratorritakoa eta epai batean ezarritakoa izan arren. Arrazoia inork horren berri eman ez ziela izan zen. Orain, pertsona horiekin harremanetan jarri garenean, batzuk gustu txarreko txantxa zela uste izan dute (eta ulertzen dut). Epai topaketa deitu dugun programak (187 momentuz) 159 espediente izapidetzea ekarri du gaur arte. Horietan emandako kalte-ordaina, guztira, 2.474.785 eurokoa izan da, eta horri erantsi egin behar zaio KPIaren hazkundea 2000 urtea baino lehen emandako epaien kasuan*" (Rodríguez Uribes 2008, 58).

[10] Baita laguntza, psikologia eta gizarte alderdiak ere mota guztietako delituetarako. Hasiera batean, 35/1995 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriko bigarren atalak terrorismoaren biktimei eta indarkeriazko delituen eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktima izandakoei ordaina emateko araubideak pixkanaka homogeneizatzea planteatu zuen. Hala eta guztiz ere, xedapen hori indargabetu egin zuen zerga, administrazio eta gizarte motako neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legeak. 35/1995 Legeko zioen azalpenaren arabera, ezberdintasuna justifikatuta dago "*ardura finantzarioko funtsezko arrazoiengatik*". Gainera, "*araubide ezberdinek bat egiteak delitu terroristek eragindako biktimek jasotako kopuruak txikitzea ekarriko luke, eta hori onartezina litzateke egungo sentsibilitate politiko eta sozialerako*" (Martín Ríos 2008, 103-4).

*pertsonal edo profesionalean Konstituzioak eta lege honek irudikatutako balioen eta nazioarteko itunetan onartutako Giza Eskubideen aurka doazen portaerak erakutsi dituztenei".*

Terrorismoaren Biktimentzako Aitorpen Zibileko Errege Ordenak bi maila hartzen ditu:

1. Gurutze Handia. Hil ondoren emango da egintza terroristetan hildakoei.
2. Enkomienda, egintza terroristetan zauritu eta bahitutakoei emango zaiena.

Kalte materialak jasan izanagatik eskuratuko diren ohiko laguntzei dagokienez, haien estaldura pixkanaka zabaltzeko ibilbidea antolatu zen, eta, ondorioz, 1211/1997 EDa aldarazi egin zen 1998an, 2001ean eta 2002an. Azkenik, martxoaren 7ko 288/2003 EDa onetsi zen, terrorismoaren biktimentzako laguntza eta ordain erregelamendu berria aldarrikatze aldera. Ordain horiek ezarri eta eguneratzeko modua zehaztu ziren 2002ko urtarrilaren 1etik jazotako egintzentzako. Lanbide arteko gutxieneko soldata eta faktore pertsonalak, lanekoak eta gizartekoak aintzat hartu ziren. Adierazi den bezala, kalte fisikoen eta psikikoen tratamendua sartzen da (Rodríguez Puerta 2006, 432-436)[11].

288/2003 EDaren arabera, onuradunak izango dira delituaren erantzule izan ez, eta, zuzenean nahiz zeharka, kalteak jasan dituztenak gorputzean zein materialetan terrorismo delituen ondorioz edo horiengatik. Delituak talde armatuek edo elementu terroristek edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzen duen pertsona edo pertsonak eginikoak behar dute izan. Gorputzean jasandako kalteei dagokien horretan salbu, erregelamenduko kalte-ordain araubidea subsidiarioa da edozein erakunde publiko edo pribaturekiko.

Estatuak kalte-ordaina emango du kalte fisiko eta psikikoengatik, eta, gainera, osasun tratamenduetatik, protesietatik edo ebakuntzetatik eratorritako gastuak estaliko ditu modu subsidiarioan, heriotza, baliaezintasun handi, ezintasun iraunkor absolutu, oso edo partziala eta aldi baterako ezintasuna etorri badira (1. art.). Gainera, ibilgailuetan (29. art.), etxebizitzetan eta lokaletan jasandako kalte materialak estaliko dira, lehen ere adierazi den moduan, eta baita, hala badagokio, behin-behineko ostatu gastuak ere (23. artikulutik 31.era). Halaber, ikasketetarako laguntzak (11.etik 16.era bitarteko art.), laguntza psikologiko eta psikopedagogikoko gastuak epe laburrera eta epe luzera estaltzekoak (17.etik 22.era bitarteko art.), eta terrorismoaren biktimak ordezkatu eta

---

11 Ohiko eta ezohiko araubideari buruzko aurreragoko aldarazpenei dagokienez, ikusi hauek: 4/2005 Errege Lege Dekretua, martxoaren 11koa, terrorismoaren biktimentzako laguntzak eskatzeko ezohiko epea ematen duena; 199/2006 Dekretua, otsailaren 17koa, indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza araubidea aldarazten duena; 32/1999 Legea burutzeko araubidea; terrorismo delituen biktimentzako laguntzen eta ordainen araubidea, eta 6/2006 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, atentatu terroristengatik eratorritako ezohiko pentsioei buruzkoa. Halaber, ikusi 2/2008 Legea, abenduaren 23koa –laugarren azken xedapena–. Ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuko ezohiko neurrien **onuradun izaera** zabaldu egingo zaie etorkizunean **atentatu terrorista batengatik hildako pertsona batekin bizi izana nabarmen frogatzen duten** pertsonei, betiere, bizikidetza horrek senar-emazteen antzeko afektibitate harremana eratzen badu eta, gutxienez, heriotzaren aurretiko bi urteetan jazo bada modu iraunkorrean. Horien kasurako, eraginkortasun data errege lege dekretu hori indarrean jartzen den unean ezartzen da.

defendatzeko irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntza ematekoak (32.etik 42.era bitarteko art.) aurreikusi dira[12].

Erregelamenduko 1.3.d) eta 43. artikuluetan ezohiko laguntzak aurreikusten dira pertsonen edo familien behar egoerak arintzeko, horiek ohiko laguntzekin behar beste estalita geratzen ez badira. Batez ere talde terroristek edo banda armatuek mehatxupean dituzten eta horregatik ondasunetan kalteak jasan dituzten pertsonei eragindako kalte ekonomikoak konpontzera zuzendurikoak dira.

Eskaerak ebazteko prozedurari dagokionez, erregelamendu bidez arautuak, presak agintzen du. Prozedura 30/1990 Legeak ezartzen du eta Barne Ministerioa da eskumenduna.

Azkenik, azpimarratzekoa da jada aipatutako Terrorismoaren Biktimentzako Etxeko Arreta Programa. Hori Barne Ministerioak garatzen du 2006ko apiriletik, eta laburki aztertuko dugu biktimizazio esperientziei buruzko kapituluetan.

## 5. Estatuko legediaren balantze laburra egungo erreforma prozesuaren aurrean

32/1999 Legea terrorismoaren biktimaren kontzeptuaren araudia mugatzeko saiakera bat izan da[13], nahiz eta administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa den lege kontzeptuaren zehaztapen tekniko eta juridikoak egiteko ardura duena[14].

---

12 Diru-laguntzen xedea elkarteen mugimendua babestea da, funtzionamendu eta kudeaketako gastu orokorrak osatuz edo neurri batean horietan lagunduz (alokairuak, argia, telefonoa eta administrazio langileak). Gastu horiek terrorismoaren biktimei eta haien senideei laguntzeko arreta jardueren nahiz haien helburuak garatzeko laguntza teknikoaren ondotik etorri dira. Legediak hiru maila bereizten ditu:

1. Batez ere Estatuaren ekintzak osatzera zuzendutako laguntzak, biktimen lege, material, gizarte edo psikologiaren alorretan eta biktimak banaka zein taldeka hartuta. Arreta berezia ematen zaie ohiko laguntza motekin atenditu ezin diren egoerei edo elkarteen jarduera programen bitartez eraginkortasun handiagoarekin lagun daitezkeen horiei.
2. Trebakuntza eta lanbide orientazioa, biktimak gizarteratzea eta laneratzea errazteko. Boluntarioen funtzioa sustatu egiten da biktimei laguntzeko lanetan.

Informazioa eta sentsibilizazioa iritzi publikoarentzat, indarkeria terroristak gizartean dituen eraginen gainean eta, bereziki, biktimen taldean duen eraginaren gainean.

13 Lege horretako 2. eta 3. artikuluen arabera, hauek dira terrorismoaren biktima: “Egintza terroristen biktimak, edo banda edo talde armatuetan sartutako pertsona batek edo hainbat pertsonak edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzeko helburuarekin jardun duten pertsonek burututako egintzak jasan dituztenak”. Biktima zuzenak hiltzen badira, hauek hartuko dira biktimatzat: “a) kasuan kasuko epai irmoan eskubidea onartuta duten pertsonak edo haien oinordekoak; b) epairik ez dagoenean, legez bananduta ez dagoen ezkontidea, edo, hala badagokio, biktimarekin modu iraunkorrez eta ezkontideen antzeko afektibitate harremanarekin bizitzen aritu den pertsona, betiere, heriotza baino lehen elkarrekin bizitzen bi urte egin badira gutxienez. Salbuespena elkarrekin oinordekoak edukitzea litzateke; kasu horretan, nahikoa litzateke bizikideak izatea besterik gabe. Halaber, ahaidetasuneko bigarren mailarainokoak –gorantz nahiz beherantz– ere biktimatzat hartuko dira. Onuradun ezberdinen hurrenkera eta lehia printzipioak uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretuak onetsitako Terrorismo Delituen Biktima Direnei Laguntzeko eta Kalte-ordaina Emateko Erregelamenduan ezarritakoak izango dira.

14 2002ra bitarteko jurisprudentziaren bilakaerari buruz jakiteko, ikusi Lloveras (2002).

Lege horretan positiboki baloratu behar diren beste gai batzuk biktima guztientzako ohorezko saria eta delitu egintzagatiko kalte-ordainaren bermea dira. Azken inguruabar horrekin jaso beharreko kopuruan aldeak egotea saihestu nahi zen –orduan hogeita bat milioi pezetan ezarri zen, urteroko KPIaren arabera eguneragarri–. Jada adierazi den moduan, kopuru hori Estatuak hartuko zuen bere gain kaudimen falta jazotzen bazen edo egintzen egilea identifikatzen ez bazen edo zehatzen ez bazen. Hala eta guztiz ere, berdintasun arazoa planteatzen jarraitu zen. Izan ere, epai zehatzailea egon arte estatu mailako oinarrizko kalte-ordaina jasoko zen bakarrik. Aldiz, epai zehatzailea eskuan izanda, Estatuak judizialki deklaratutako erantzukizun zibilarekiko aldea ordainduko zuen.

Elkarteek araudian sakabanatzea, argitasun falta eta, agian, desberdintasunak zeudela kritikatu zuten, eta, horren aurrean, 2008ko maiatzean, Barne Ministerioak iragarri zuen lege integral berri batean lanean zihardutela, terrorismoaren biktimen inguruan zegoen araudi guztia bateratze aldera. Biktimen elkarte ezberdinek egungo legedia terrorismoaren biktimentzako laguntzaren eta haiekiko solidaritatearen alorrean hobetzeko hainbat proposamen egin zituzten.

2008ko urriaren 14an, hogeita hamar taldek bilera izan zuten Barne Ministerioan Terrorismoaren Biktimentzako Babes Integraleko eta Aitorpeneko Legea izango zenari buruzko proposamenak eztabaidatzeko. Legea lantze fasean zegoen txosten hau itxi denean. Ministeriotik iragarri zen gizarte eskubide berriak onartuko zirela, biktimen estatutua hobetuko zela zehapen prozesuetan eta gizarteak terrorismoaren biktimen aitorpenean duen papera sustatuko zela. Erreforma prozesu hau dela eta, 2009ko otsailaren 19an biktima elkarte gehienek[15] komunikatua jakinarazi zuten elkarrekin Ministerioak iragarritakoaren gainean[16]. Bertan, besteak beste, "*konparaziozko bidegabekeria onartezinak*" konpontzeko beharra planteatu zuten.

Erakunde eta elkarte ezberdinek planteatutako eskaera multzoaren laburpen modura, "Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean" aintzat har daiteke. Deklarazioa 2007ko otsailaren 24koa da, eta Euskadin Terrorismoaren Biktimen ARCO Taldeak, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteak, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarteak, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak, "Voces en Silencio" Elkarteak eta Biktimologia Fundazioak egin zuten, **"Solidaritate berria eraikitzen: terrorismoaren biktimen eskubideak" lehenengo lan jardunaldien** barruan. Deklarazio horretan nahiago da "biktimen eskubideak" terminoa erabiltzea, babes edo solidaritate terminoen aurretik. Legearen aldarazpenak estali beharko lituzkeen lege hutsuneei dagokienez, deklarazio horretan proposatutako bederatzi alderdi nabarmentzen ditugu[17]:

---

15 Komunikatua elkarrekin sinatu zuten hauek: Victimas del Terrorismo Elkartea, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Autonomikoen Federazioa, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkartea, COVITE, Miguel Angel Blanco Fundazioa, M-11ko Biktimei Laguntzeko Elkartea, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkartea, eta Dignidad y Justicia Elkartea. Foro de Ermua Gizarte eta Kultur Elkarteak ere komunikatua babestu zuen.

16 Hurrengo helbidean irakur daiteke: http://www.covite.org/covite_comunicados.php?lang=es.

17 Halaber, beste erakunde batzuk legearen erreforma sustatu dute, Estatutik kanpo jazotako atentatuak barne har daitezen.

1. Legearen denbora aplikazio-eremua mugagabea izan behar da terrorismoak jarraitu bitartean, eta ez dira denbora mugak ere egon behar prestazioei, laguntzei eta aitorpenei buruzko eskaerak aurkezteko.

2. Biktimen kontzeptu zabalagoa jaso behar da, mehatxuen eta derrigortzeen biktimak ere nahiz biktima guztien senideak hartuz. **Nazioarteko araudia jarraituz, hurrengo proposamena egingo da elkarte horien aldetik:** *"'Terrorismoaren biktimatzat' jotzen dira banaka zein taldeka kalteak jasan dituzten pertsonak, fisikoak edo psikikoak, emozionalak, galera ekonomikoak barne, edo oinarrizko eskubideak urratu zaizkienak, Estatuko lege zehatzaileak edo nazioartean onartutako Giza Eskubideekin zerikusia duten arauak urratzen dituzten egintza edo egintza falten bitartez. Halaber, 'biktimatzat' hartzen dira senide zuzenak edo zuzenean mendekoak direnak, nahiz biktimei sorospen modura laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartu duten pertsona zuzenak kaltea jasan badute".*

3. Administrazioak ofiziozko jarduerak bideratzea aurreikusi behar da biktimaren berri duen unetik, horren bitartez laguntzak, prestazioak eta aitorpenak eskuratzeko prozesua errazte aldera. Halaber, ahal den neurrian, eskaera eta emakida prozedurak sinplifikatu egin behar dira, eta biktimek peritu eta lege aholkularitzako gastuak bere gain hartu behar izatea saihesteko sistema aurreikusi.

4. Kalte-ordainen gaian, inork ezin du bereizkeria jasan zehapen epaia egon edo ez gorabehera.

5. Kalte-ordainen ohiko eta ezohiko araubideak bateratu egin behar dira arau bakar batean.

6. Arau horretan zabaltze handiagoak aztertu behar dira laguntza psikologikoari, irakaskuntzari, etxebizitzari, lanbideari, eta abarri buruz.

7. Mehatxu edota derrigortzeen biktimek, Euskadin jarraitzen duten edo ez alde batera utzita, etxebizitzari, lanbideari, eta abarri buruzko laguntza batzuk eskuratzeko eskubidea eduki behar dute.

8. Psikologiaren alorrean, beharrezko garrantzia eman behar zaie horrelako kalteei, babesa banaka emanez eta anbiguotasunak saihestuz. Horri dagokionez, nahiago da "kalte psikologikoa" terminoa erabiltzea, "psikofisikoaren" aurretik. Gainera, zuzeneko eta zeharkako biktimen kalte moralak aintzat hartu behar dira arau integral batean.

9. Ona litzateke berariazko baremoa ezartzea, zirkulazio istripuek dutenaz aparte, terrorismoaren biktimen baliezaezintasunik gabeko lesio iraunkorrak ebaluatzeko, kalte psikologikoa barne. Aldi batekoak diren eta osatzea posible duten kalte psikologikoengatik ere kalte-ordaina jasotzea posible izan behar da, aintzat hartuz hainbat urte geroago ager daitezkeela. Gainera, laguntza psikologikoa eman behar zaie hil ez diren biktimen senideei.

Azkenik, adierazi egin behar da 2008ko azaroaren 17an, Kongresuak izapidetzeko onartu zuen Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legea aldarazteko lege proposamena. Proposamen horrek ahalik eta azkarren konpondu nahi ditu zehapen bideak planteaturiko arazoak, Euskal Autonomia Erkidegoko kaleetan egintza terroristen egileei eskainitako plakei emaniko erantzunari dagokionez[18]. Horrekin 1999ko legeko 1. artikulua aldarazi nahi da, eta hirugarren xedapen gehigarria erantsi[19].

Proposamen horretako zioen azalpeneko azken-aurreko eta azken paragrafoen arabera: "*Biktimentzako, indarkeria behin betiko deuseztatzea bakarrik izan daiteke konpentsazio. Bere horretan terrorearen zorigaitza jasan dutenek guztioi eskatzen digute tolerantzia faltak, bazterkeriak eta beldurrak inoiz hitza eta arrazoia ordezka ez dezatela lortzeko gai izan gaitezela. / Lege hau, bada, akordioaren adierazpena da (...), bakea adiskidetzearen eta justiziaren emaitza izaten laguntzeko...*".

## II. EAEko ARAUDIA TERRORISMOAREN BIKTIMEN ALORREAN

### 1. Beste eredu autonomiko batzuekiko antzekotasunak eta berezitasunak[20]

Hogei urte igaro dira jada terrorismoaren biktimentzako laguntzak onartzen dituen lehenengo eta azken arau autonomikoen artean. Lehenengoak arau euskaldunak eta nafarrak izan ziren, 1988an, eta azkenekoa aragoarra, 2008an, Valentziako legea 2009ko apirilaren 14an aldatu den arren. Orokorrean, horrelako arauak laguntzak eransten joan dira modu subsidiario eta osagarrian, ondasun higigarri eta higiezinetan jasandako kalteak arintzeko. Bertan sartu dira ohiko etxebizitza, lesio fisiko eta psikikoengatiko osasun laguntza eta baita hildako biktimen edo lanerako ezgaitu bihurtu direnen mende ekonomikoki zeuden senideek ikasketak burutzeko laguntzak ere. Gainera, egun, ezohiko laguntzak eskuratzeko aukera aurreikusi da.

Laguntza hauek eskuratzeko betekizunen artean, terrorismoaren biktima izandakoa izatea dago, kasuan kasuko lurralde autonomikoaren barruan, eta autonomia erkidego batzuk, valentziarra kasu, ezohiko laguntzak aurreikustearen kaltetan izan gabe Estatuko beste toki batean edo handik kanpo biktima izan direnentzat, betiere, beste laguntza autonomiko batzuk eskuratzen ez badituzte.

---

18 *Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean* argitaratua. Diputatuen Kongresua, B seriea, 134-1 zk., 2008/11/21ekoa. Ikusi hurrengo helbidean: http://www.congreso.es.

19 Halaber, 1.2 artikuluaren arabera, Estatuak "gain hartzen du biktimen duintasunaren babesa, toki publikoetan monumentuak, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu edo oroimenezko aipamenak edo goraipatzekoak egotea edo terrorismoa edo terroristak banaka zein taldeka goraipatzea debekatuz". Aurreikusitako hirugarren xedapen gehigarriak sei hilabeteko epea planteatzen du administrazio publikoek beharrezko neurriak har ditzaten betebehar hori betetzeko, eta biktimek eta haien senideek beren ohore eta duintasuna defendatzeko bidera ditzaketen jardueren kaltetan izan gabe.

20 Multzo osoa ikusteko, ikusi Barne Ministerioaren web orrialdea gai autonomikoetan, lehen ere aipatu den moduan.

Nagusi den Estatuko oinarrizko legediarekin batera araudi autonomikoak biktimen aitorpena areagotu badu ere, oraindik inplizituki agertzen dira berdintasun printzipioarekiko urradura batzuk. Izan ere, onuradunak, betekizunak, eskaeretarako eta laguntza mota batzuetarako epeak definitzerakoan aldeak agertzen dira oraindik ere zenbaitetan. Jarraian ikusi ahalko dugu alderdi hori. Ez da ahaztu behar, ezta ere, berariazko araudirik ez duten autonomia erkidegoetan, Katalunian adibidez, biktima kopuru altua egon dela[21].

Jada adierazi denarekin bat etorriz, lehenengo araua Euskal Autonomia Erkidegoan egin zen 1988an, pixkanaka gai berritzaileak sartuz, adibidez, lanbidearen eta etxebizitzaren alorretan. Araudi horren gaineko hausnarketa egongo da hurrengo idatz-zatian, eta, zabalago, txosten honen xede den heinean, kasuan kasuko kapituluetan.

1988 urte horretan bertan, hilabete batzuk geroago, **Nafarroako** Foru Komunitateko Gobernuak 254/1988 Foru Dekretua egin zuen, urriaren 27koa, atentatu terroristek eragindakoei laguntzak ematea aurreikusten duena. Dekretu horrek zera arautzen du: "*bandetan edo talde antolatu eta armatuetan eta haiei uztarturikoetan sartutako pertsonek egindako atentatu terroristen ondorioz edo horiengatik kalteak jasaten dituzten pertsona fisiko edo juridikoei eman ahalko zaizkien laguntzak, betiere, kasuan kasuko egintzak talde horiek aldarrikatu badituzte edo garai bereko aurrekariak edo ondorengoak harmoniaz interpretatzeagatik arrazoiz ondorioztatu badaiteke kaltea jarduera terroristak sortutakoa izan dela*" (1. art.).

Zortzi urte geroago, **Madrilgo** Erkidegoak 12/1996 Legea onetsi zuen, abenduaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa[22]. Bertan, biktima onuraduntzat hartzen dira delitu jardueren ondorioz edo horiengatik kalteak jasaten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, jarduera horiek banda armatuek edo elementu terroristek egindakoak izan direnean Madrilgo Erkidegoaren lurraldean. Laguntzak banakakoak dira (1. art.), eta "*eragindako kalteen izaera eta tamainaren, hartzaileen inguruabar sozioekonomikoen eta une bakoitzean eskura dagoen aurrekontuaren arabera modulatuko dira*" (2. art.). Nafarroako araudiarekiko berrikuntza modura, heriotza jazotzen zen kasuan eman beharreko laguntzak erantsi ziren, subsidiariotasun eta osagarritasun printzipioei atxikita geratu gabe. Aitzitik, dekretu nafarrean bezala, espresuki mugatzen ziren balizko onuradunak Legea indarrean jarri ondoren jazotako egintzen biktimen kasuei.

Bestalde, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Valentziako Generalitatearen maiatzaren 24ko 1/2004 Legearen hitzaurreko seigarren paragrafoarekin bat etorriz, "*Egintza terroristen helburua gizartean beldur egoera sortu eta jartzea, eta balio demokratikoak eraldatzea da. Biktimak dira tolerantzia faltaren ondorioak zuzenean jasaten dituztenak. Guztiok dugu haiekiko zor morala eta materiala. Inoiz iritsiko*

---

21 Euskal Autonomia Erkidegoarekin, Madrilekin edo Kataluniarekin alderatzea ezinezkoa bada ere, baina bai Extremadura edo Valentziarekin, distantzia nabarmenera, Andaluzia eta Galizia egongo lirateke. Ikusi hildako biktima kopuruari buruzko grafikoa, zaurituena, beraz, kanpo utziz –oso kopuru altua da–. Grafikoa egintza terrorista eduki duen autonomia erkidegoka antolatu da, eta Victimas del Terrorismo Fundazioaren web orrialdean dago (http://www.fundacionvt.org).

22 Ikusi 51/2004 dekretua, apirilaren 1ekoa, Gobernu Kontseiluarena. Horren bitartez, eguneratu egiten da terrorismoaren biktimei eman beharreko laguntzen zenbatekoa.

*ez bagara ere ordain hori erabat osatzera, zor diegu gure errekonozimendua, arreta eta solidaritatea".*

Legearen artikuluetan jasotako laguntzek zera eransten dute: *"kalte-ordainak kalte fisiko edo psikikoengatik; kalte materialak osatzea; Generalitatearen diru-laguntzak eta laguntza egintzak biktimentzat, gertueneko senideentzat, ezkontideenaren antzekoa den afektibitate harremana zuten pertsonentzat edo biktimarekin modu iraunkorrean bizi diren beste pertsona batzuentzat haren mendekoak badira, eta arrazoia Valentziako Erkidegoan egiten diren egintza terroristak badira. Hori guztia bigarren xedapen gehigarrian Xedatutakoaren kaltetan izan gabe egingo da. Erregelamenduak ezarri egingo du zeintzuk diren laguntzen hartzaile izango diren hurbileneko senideak eta baita haien hurrenkera ere, laguntzak eta sariak emate aldera. Kalte materialengatik eskuratu beharreko kalte-ordainei dagokienez, hartzaile izan ahalko dira ere horiek jasan ahal izan dituzten pertsona juridikoak".*

1/2004 Legea 2004ko maiatzaren 27an jarri zen indarrean, haren aurreikuspenek 2003ko urtarrilaren 1etik jazotako egintzak hartzen badituzte ere. Kalte fisikoak edo psikikoak tartean badira, aipatutako legean xedatutakoa kalte horiek eragin dituzten egintzei aplikatuko zaizkie 1968ko urtarrilaren 1etik aurrera. Bestalde, kalte fisiko edo psikikoengatiko kalte-ordainak bateragarriak dira Legean aurreikusitako beste batzuekin. Lanbidearekin zerikusia duten neurriei dagokienez, hauek bi kasuri eragiten diete:

- Egintza terrorista baten ondorioz jasandako kalteengatik lana normal garatzea ezinezkoa duten pertsonak laneratzeko planen, autoenplegu programen edo enpresa berriak sortzeko laguntzen xede izango dira. Plan eta neurri horiek kasuan kasuko sailak proposatuko ditu.

- Langile publikoez ari garenean, lanpostu batetara atxikitzea erraztuko zaie, berezitasun fisiko eta psikologikoengatik egokien doakien horretara atxikitzea hain zuzen, funtzio publikoari buruzko legearekin bat etorriz. Edonola ere, bizitoki aldaketa saihestuko da, interesdunak hori eskatzen badu salbu.

Valentziako legea apirilaren 14ko 3/2009 Legearen bidez aldatu dute, eta helburua –aitzinsolasaren arabera– *"ez da nagusiki laguntzak ugaritzea, egoera bereziki larriei erantzunak emango dizkieten kontzeptu berriak diseinatzea baizik"*. Erreformak hainbat esparru hartzen ditu baitan: kalte ordainena, mendetasun egoeretarako laguntzak sartuta; laguntzarena, hezkuntza eta ohiko etxebizitzari dagokionez; zergena, zerga neurriak bultzatuz; enplegu publikoarena, eskubideak eta egoera administratiboak programatuz eta erakundeena, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzak Koordinatu eta Jarraitzeko Batzordea eratuz –nahiz eta horren osaeran biktimen ordezkaritzak kale egin duen–.

2005eko abenduaren 22an Terrorismoaren Biktimei Laguntza eta Arreta emateko Neurrien eta Bakerako Azterlanen Extremadurako Zentroaren Sorreraren Legea onetsi zen **Extremaduran.** Legearen onuren eraginetarako, terrorismoaren biktima edo haren senidetzat hartuko dira hurrengoak, betiere, autonomia erkidegoan erroldaturik egonez gero –egintza terrorista eta gero egitea barne–, Extremadurakoa izanez gero edo lurraldean geratuz gero, eta kasuan kasuko egintza bertan jazo izanez gero:

a) Egintza terroristen biktimak edo bandetan edo talde armatuetan sartutako pertsonek egindakoak, haien xedea herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzea izan bada.
b) Biktimaren senarra edo emaztea, edo harekin antzeko afektibitate harremana mantenduta modu iraunkorrean bizi izan den pertsona.
c) Biktimaren senideak, ahaidetasuneko bigarren mailaraino eta hura barne.

Gainera, legean biktimek bizitokitzat duten udalerriko gizarte langileen laguntza espezializatua aurreikusten da, banakako laguntza psikopedagogikoa eta iraunkorra bezalaxe adingabekoentzat.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, eta EAEk baino bi egun lehenago[23], terrorismoaren biktimen aldeko prestazioen inguruan berariazko araua onetsi zuen azkeneko autonomia erkidegoa **Aragoi** izan da. Terrorismoaren biktimen aldeko neurriei buruzko ekainaren 17ko 4/2008 Legeaz ari gara.

Beste araudi autonomiko batzuekiko eskakizun osagarri berritzaile gisa, eta Administrazioak ofizioz egiten duenean alde batera utzi badaiteke ere, adierazi egiten da balizko onuradunak Estatuko Administrazio Orokorrari eskatu behar dizkiola ezer baino lehen indarreko araudian, kasu berdinetarako, aurreikusi diren kalte-ordainak eta konpentsazioak. Estatuko Administrazio Orokorrari aurkeztutako eskaerari jaramonik egiten ez bazaio eta eskatzaileak Aragoiko Autonomia Erkidegoak onuradun izateko ezarri dituen baldintzak betetzen baditu, hark eskubidea izango du autonomia erkidego horrek aurreikusitako kalte-ordainak, laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzeko.

Emakidaren administrazio prozedura ofizioz hasi daiteke edo interesdunak hala eskatuta. Neurri ezberdinak eskuratu ahal izateko eskaera formalizatu egingo da horiek eskuratzea eragin duen egintza jazo zen egunetik aurrera, edo, bestela, sendatzea etorri den edo ondorioen helmena zehaztu den egunetik aurrera kalte fisiko edo psikikoen kasuan. Hala eta guztiz ere, 2008ko uztailaren 3a baino lehen egintza terroristen biktima izan diren pertsonek eskubidea dute, eskaera aurkeztuz, aurreikusi diren laguntzak eskuratzeko, betiere, kasuan kasuko egintzak edo gertaerak 1982ko abuztuaren 10aren eta lehen aipatutako dataren artean jazo badira.

Aragoiko Legeko hitzaurreko 8. eta 9. paragrafoen arabera, "*Terrorismoaren biktimek guztioi, gizarte espainiar osoari, eskatzen digute lan egin dezagula tolerantzia faltak, bazterkeriak eta beldurrak inoiz ordezka ez dezaten hitza eta arrazoia, eta ziur daude terrorismoa Legearen eta Zuzenbideko Estatuaren pisu guztia gainean jarrita eta indar demokratiko guztien batasunarekin batera bakarrik ezabatuko dela. / Ezerk ezin du orekatu terrorismoak eragiten duen kaltea. Inork ezin du itzuli indarkeria terroristak pertsonei kentzen diena. Baina, gutxienez, biktimizazio bikoitza deitu izan dena saihesteko asmoa duen laguntza politika garatu behar dugu, eta biktimizazio bikoitz hori biktimak abandonaturik edo hainbat familiatan, atentatu terrorista baten ondotik, sortzen diren beharrak erantzunik gabe uztetik eratorri ohi da. Gauzak horrela,*

[23] Bi arauen erreferentzia zenbakia 4/2008 da.

*lege honek laguntza politika osoa ezartzen du pertsonen eta familien hondamena arintzeko, hondamen hori atentatu terroristen ondotik datorrenean".*

Legea "*egintza terroristen biktimei edo banda edo talde armatuetan edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzeko helburuz jardun duten pertsonen kaltea jaso dutenei aplikatuko zaie, betiere, egintza horiek Aragoiko Autonomia Erkidegoaren lurraldean jazo badira. Halaber, gertaera berdin horiei dagokienez, lurralde espainiarreko edo atzerriko beste toki batean jazotzen direnean ere aplikatuko da adierazitakoa, betiere, horien biktimak Aragoikoak badira lege honen indarraldiak iraun bitartean*" (2. art.) eta bestelako laguntza autonomikorik eskuratu ez badute. Aplikazioa, zenbait kasutan, kalteturiko pertsona juridikoei zabaltzen zaie, eta baita biktimen eskubideen babeserako erakundeei ere. Bestalde, kalte fisiko, psikiko eta materialez gain, laguntza psikosoziala bereizten da epe labur, ertain eta luzera.

Berrikuntza modura, Extremaduran bezala, berariazko gizarte laguntzako programa jaso da kasuan kasuko biktima bizi den udalerrian. Gainera, Aragoiko gobernuak konpromisoa hartu du terrorismoaren biktimei arreta eskaintzen dieten profesional guztiei berariazko trebakuntza emango zaiela sustatzeko. Azkenik, **Aragoiko Gobernuak,** kasu bakoitzean ageri diren inguruabarrak baloratu ondoren, **ohorezko sariak eman ahalko dizkie** biktimei nahiz terrorismoaren aurka borroka eta sakrifizioa egin izanagatik nabarmendu diren erakundeei, **gizarte aragoarraren solidaritate eta errekonozimendua erakusteko.**

## 2. EAEko arau eta baliabideak

### 2.1. Eusko Jaurlaritza

*Dekretuak*

Araudi autonomikoa betetzeari buruz hainbat kapitulu xehakatu egin dira txosten honetan. Idatz-zati honetan, panoramika laburra besterik ez dugu egingo, irakurlearentzat legediaren egungo egoerari buruzko gida gisa balio dakion.

Jada adierazi den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoa, eraso terrorista gehien jaso dituena izaki, aitzindaria izan zen laguntza autonomikoak aurreikusten. Abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretua, 1991, 1993 eta 1995ean aldarazia, ekainaren 13ko 107/2000 Dekretuarekin ordezkatu zen azkenean. Hori, aldi berean, irailaren 24ko 214/2002 Dekretuarekin ordezkatu zen (abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuak aldarazia).

Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen irailaren 24ko 214/2002 Dekretuan, aurreikusi egiten dira laguntzak osasunaren alorrean, irakaskuntzarenean, etxebizitzarenean, kalte materialenean, bidaienean eta bizitokiarenean, kokaleku berria topatzearenean, bestelako laguntzenean eta ezohiko laguntzenean.

Terrorismoaren Biktimentzako Laguntza Programa arautzen duen dekretua aldarazteko abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuan *laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa eskuratzeko* neurriak aurreikusten dira.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Lege berriaren araudia garatu arte, azken bi dekretu horiek indarrean jarraitzen dute. Horiekin bat etorriz, laguntzen xede dira eragin kaltegarriak, bai pertsonalak, bai materialak arintzera zuzendutako neurriak, horiek pertsona fisiko edo juridikoak jasan badituzte eta ekintza terroristen biktima izan badira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan. Beste autonomia erkidegoen kasuan bezala, jarduera eremuak hurrengoak hartzen ditu: osasuna, alderdi psikologiko eta psikosozialak barne; irakaskuntza, etxebizitza, enplegua, kalte materialen konponketa, bidaia eta ostatu gastuak, kokaleku berria topatzekoak, kaltetutako ondasunetan kalte horiek konpontzeko kredituen kostu finantzarioa, ezohiko laguntzak eta elkarteei emaniko laguntzak. Aseguru erakundeen aldetik jaso ditzaketen zenbatekoekin bateraezinak dira.

Bestalde, beste autonomia erkidego batzuen kasuan gertatzen den ez bezala, ez dago gehieneko eperik laguntza horiek eskatzeko, kalte materialei buruzkoen kasuan izan ezik[24].

Beharrezkoa da, halaber, Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea sortzen eta arautzen duen otsailaren 10eko 31/2009 Dekretua aipatzea. Batzordea Euskal Autonomia Erkideagoan Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzarako Euskal Planean aurreikusi den organoa da.

*Eusko Jaurlaritzaren Kontseilua*

Kontseilu Politikoa delakoaren esparruan, Bake eta Bizikidetza Plana bideratzea erabaki zen, eta Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2006ko maiatzaren 2an. Plan horrek bost jarduera ardatz ditu: giza eskubideak, terrorismoaren biktimak, memoria berreskuratzea, eskubide zibilak eta politikoak eta tortura prebenitzeko ekimenak, bakean hezteari buruzko ardatz osagarri batez gain. Edonola ere, plan honek ez zuen terrorismoaren biktimen eskubideen alde lan egiten duten erakunde gehienen babesa izan.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2011) landu zuen, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsi zuen 2007ko abenduaren 26an. Bertan adierazten dena gorabehera, plan hori justifikatzen duena, lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarraren agindua da, terrorismoaren biktimei buruzko 2003ko eta 2005eko Legebiltzarreko erabakietan txertatzen dena (sarrerako lehenengo paragrafoa). Planarekin bat etorriz, "*gizarte demokratiko guztiek dute giza eskubideen eta bakearen ezagutza eta errespetu sakona herritarren artean sustatzeko betebeharra. Euskal gizartearen kasuari dagokionez, gaur egungo betebehar unibertsal horri, biolentziaren iraunkortasunak eta bereziki, ETAren terrorismoaren iraunkortasunak oztopaturiko gizartearen berezitasuna erantsi behar zaio. Gurearen moduko gizarte batean pertsona guztien bizitza, duintasuna eta eskubideak salbuespenik gabe babesteko hezkuntza-lan handia behar da. Lan horretan gizarte sektore askok parte hartu*

[24] Ikusi araudiaren laburpena Herrizaingo Sailaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren web orrialdean. Hona hemen helbidea: http://interior.euskadi.net/datvt/euskera/home.html. Orrialde horretan laguntzak eskatzeko formularioak ere behera karga daitezke.

*beharko dute eta erakundeek buruzagi izan, bultzatu eta koordinatu egin beharko dute, betiere, aintzat hartuz benetako protagonismoa gizarteari berari dagokiola".* (sarrerako hirugarren paragrafoa).

Espresuki aipatzen dira biktimen lekukotzak, bakerako hezkuntzaren baliabide modura (95.etik 97.era bitarteko orrialdeak), eta terrorismoaren biktimen arretan graduondoko trebakuntza sustatzeko aukera jasotzen da. Bestalde, eranskinean Euskal Irrati Telebista ente publikoaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren arteko lankidetza hitzarmen iraunkorra erantsi da, 2007ko maiatzaren 2an sinaturikoa. Bertan, terrorismoaren biktimekiko ekimen zehatzak biltzen dira.

Erakundeen arteko koordinazioaren barruan, espresuki aipatzen dira Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Erakunde arteko Batzordea (Eusko Jaurlaritza) eta Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sartzen da. Aipatzekoa da biktimen eskubideak babesteko erakundeek kritikatu egin zutela beren eskaerak ez zirela Hezkuntza plan honetan islatzen.

*Herrizaingo Saila*

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren barruan, bere sorrera eta jarduera propioaz gain, terrorismoaren biktimen eskubideak babesteko lanean diharduten gobernuz kanpoko erakunde ezberdinei emaniko laguntzak azpimarra daitezke[25].

## 2.2. Eusko Legebiltzarra

*Ebazpenak, legez besteko proposamenak, irizpenak eta erabakiak*

2003tik, Eusko Legebiltzarrak hainbat baliabide garrantzitsu onetsi ditu terrorismoaren biktimen gaian. Azpimarratzekoak dira hurrengoak: Terrorismoaren biktimei egoera arintzeko neurriei buruzko legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak onetsitakoa 2003ko ekainaren 25ean; Giza Eskubideen eta herritarren Eskaeren Batzordeak egindako irizpena terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak aztertzearen gainean, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitakoa 2005eko otsailaren 17 eta 18an; eta Eusko Legebiltzarrak onetsitako ebazpenak, terrorismoaren biktimei buruz hartutako erabakien betetzearen inguruan (2007ko urriaren 26koa).

Halaber, gai zehatzagoei buruzko ebazpen ezberdinak nabarmentzen dira. Horrela, 2008ko urriaren 1eko Ebazpenean adibidez, euskal udalek biktimen memoriari buruz Legebiltzarrak hartutako erabakia betetzearen inguruan egindakoa, oraindik

---

25 Ikusi 2007ko maiatzaren 30eko Agindua, Herrizaingo sailburuarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautzen dituena, eta 2005eko apirilaren 26ko Agindua, Herrizaingo sailburuarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzen deia egiten duena.

horrelakorik egiten ez duten udalei eskatu egiten zaie terrorismoa goraipatzen duten eta haren biktimen memoria iraintzen duten mota guztietako kartelak, pintadak eta sinboloak berehala eta sistematikoki ken ditzatela.

*Legeak*

Terrorismoaren biktimak aitortzeko urrats esanguratsuena ekainaren 19ko 4/2008 Legea onestea izan da, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa (EHAA, 124. zk., uztailaren 1ekoa). Adierazi denez, indarraldiari dagokionez, bigarren azken xedapenaren arabera honakoa izango da: "*Erregelamendu bidezko garapena argitaratu arte Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen 214/2002 Dekretuan (abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuak aldatua) aurreikusitakoa egongo da indarrean*".

4/2008 Legeko I. tituluan, espresuki errefusatzen da *terrorismoaren biktimen* kontzeptua definitzea, eta nahiago da definizio pragmatikoa ematea. Hala eta guztiz ere, "jurisprudentziaren doktrina solidoa" jarraitzen da, zabaltzeko joerarekin (zioen azalpeneko 33. paragrafoa). Helburua ahalik eta kasu gehien hartu ahal izatea da, horiek terrorista modura kalifikatutako taldeetako kideek eginikoak izan zein ez. Ondorioz, antolamendu egonkorrik gabeko banakako egintzak eta baita taldekoak ere sartzen dira, betiere, herritarren bakea eta segurtasuna larriki astintzea helburutzat izan badute (zioen azalpeneko 31. paragrafoa). Edonola ere, kontzeptu juridiko zehaztugabeen aurrean gaudela onartzen da (zioen azalpeneko 32. paragrafoa).

2. artikuluan "malgutasun" printzipioa ezartzen da Legearen aplikazio eremuan, eta beti biktimen alde. Aplikatzeko lurralde eremuari dagokionez, 2.3 artikuluak zera dio: "*Lege honetan aurreikusitako neurriak gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean izaten direnean aplikatuko dira, edo, beste leku batean izanez gero, eragina nozitu duten pertsonek bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutenean. Hala ere, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako laguntzak bakar-bakarrik aplikatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatutako ekintza terroristen kasuan*".

III. tituluak solidaritate neurriak hartzen ditu babes eta laguntzako sistema koordinatu baten bitartez. Horrek aukera emango du biktimei ordaina emateko, lehengoratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, arreta eta gogobetetasun morala hartuz (5. art.). Neurriek jabetzari, osasun fisikoari eta psikologikoari, irakaskuntzari, laneko trebakuntzari, etxebizitzari eta lanari buruzko alderdiak hartzen dituzte.

Biktimak eskubideen subjektu bihurtzen dira, eta legeak gizarte osoari zabaltzen dio zenbait kasutan. Legean bertan onartu egiten da giza eskubideen urradura larri eta sistematikoen biktima direnen nazioarteko babes araudiaren eragina jaso dela (zioen azalpeneko 11. eta 12. paragrafoak), eta egia ezagutzeko eskubidearen, justiziarako eskubidearen eta erreparaziorako eskubidearen printzipioek arautzen dutela, memoriarako eskubidea ere erantsiz horiei (17. paragrafoa). II. tituluak nazioarteko iturriekin duen "interpretazio eta doktrina-lotura" azpimarratzen dira, bertan kokatzen baitira eskubideak (15. paragrafoa).

Eskubideen edukia "*funtsean programatikoa*" dela adierazten da (16. paragrafoa), baina egia da ere interpretazioaren aldetik egindako loturek administrazio publikoei konpromisoa harrarazten diela hainbat betebehar zehatz hartzeko giza eskubideen babesaren eremu dinamiko zabalagoaren barruan. Betebehar horietatik batzuk 4/2008 Legearen araudiaren garapenean zehaztuko dira[26].

Legeko II. Tituluan hurrengo eskubideen funtsezko edukiari egindako aipamen espresak topa daitezke: justizia (3. art.), duintasuna (4. art.), erreparazioa, parte-hartzea (6. art.) (horien titularrak biktimak dira); egia (7. art.), memoria (8. art.) (biktimentzako eta gizartearentzat izan daitezkeenak); bakea, askatasuna eta elkarbizitza (9. art.) (euskal herritar guztiei zuzendurikoa). Eskubide bakoitzean aplikazio praktikorako hainbat jarraibide jaso daiteke.

## 2.3. Foru eta toki eremuak

Foru eremuan ez dago Batzar Nagusien berariazko araudirik terrorismoaren biktimen inguruan. Hala ere, biktimen aldeko eta terrorismoaren kontrako erakundeen zenbait adierazpen, hiru batzar nagusien osoko bilkuren zenbait erabaki edo mozio nabarmentzen dira, baita ere lehendakariaren hitzaldi asko, plakak edo eskulturak jartzearen bitartez erreparazioa bideratzeko ekimenak eta atentatu terroristak gertatzean horiekiko gaitzespena adierazten duten deklarazioak[27]. Bestalde, aldundiek erreferentzia batzuk jaso ohi dituzte diru-laguntzen eta zerga kontuen alorrean.

Udal esparruan EUDELen jardunari heldu behar diogu (Euskadiko Udalen Elkartea). Bertatik, *Bizitza eta Askatasuna Babesteko Erakundeen Manifestua,* 2001ekoa; *Pertsona guztiek bizitzeko eta askatasuna eta segurtasuna izateko duten eskubidea*

---

[26] 4/2008 Legearen arabera, erregelamenduan egon daitezkeen aldarazpen edo garapenek, haren ondorio, hurrengo alderdietan izango dute eragina:

- Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren eraketa eta funtzioak (6.5 art.).
- Prestazioen garapena kalte materialak arintzeko nahiz osasun psikologikoari, irakaskuntzari, laneko trebakuntzari, etxebizitzari eta lanari uztartutako berariazko neurriak (zioen azalpeneko 70. eta 72. paragrafoak).
- Ekintza terroristekin lotutako jazarpena, mehatxua edo hertsapena jasaten duten pertsona fisiko edo juridikoek diru-laguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan (17. art.).
- Prestazioak koordinatzeko organo eskumenduna izendatzea (25. art. eta 4. xedapen iragankorra). Organo horrek berehala jarduteko protokoloa diseinatu behar du etorkizunean jazotzen diren atentatuentzako (3. xedapen gehigarria).
- Eusko Jaurlaritzak, lege hau onesten denetik hasi eta sei hilabeteko epean, lege honetan jasotako aginduen ondorioz Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legean egin beharreko aldaketak aurkeztuko ditu (3. azken xedapena).

Erregelamendu bidez aurreikusiko da aparteko epea irekitzea, sei hilabetekoa izango dena, kalte materialak erreparatzeko laguntzak jasotzerik izan ez dutenek, eskabidea formalizatu gabe urtebete igaro zelako, ekintza terrorista gertatu zen unean terrorismoaren biktimei laguntzeko indarrean zegoen programan sartzeko eskatu ahal izateko (3. xedapen iragankorra).

[27] Ikusi hurrengo helbideetan: http://www.jjggalava.es, http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJG-PortalWEB/ eta www.jjggbizkaia.net.

*babesteko manifestu etikoa, eta Euskadiko Alkateentzako gutun irekia, udal esparruan aniztasunaren defentsa bultzatzeko, 2002ko martxoaren 27koa, aipatu behar ditugu.*

Azken dokumentu horretan gogorarazi egiten da "*Aniztasuna Errespetatu eta Defendatzeko Herri Foroa*" sortzeko konpromisoa dagoela, bertan "*era eraginkorrean konprometituta dauden indar politikoak barne hartuz. Herritarren eta elkarteen parte-hartzeari irekita egongo da foroa, eta aldian-aldian bildu egin behar da ideiak direla-eta mehatxatuta dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatzeko. Herri bakoitzeko iritzi sozial eta politiko desberdinen arteko hartu-emana sustatzeko topagunea izango da foroa. Bertan, dauden adostasunak ugaritu ahal izango dira eta arrazoi politiko edo ideologikoak direla-eta euskal gizartearen zati bat baztertzea saihestu*". Aniztasuna benetan gauzatzeko printzipio eta konpromiso eskema eransten da.

Azkenik, azpimarratzekoa da EUDELen 2002ko maiatzaren 3ko "Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa" ere. Adierazpen horren bitartez, udalerriek hurrengo konpromisoa hartu zuten: "*demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa*" onestea. Konpromiso hori berretsi egin zen terrorismoaren biktimen egoerari buruz Legebiltzarrak 2003ko ekainaren 25ean eta 2005eko otsailaren 17 eta 18an hartutako erabakietan. Akordioetan giza eskubideak errespetatzeko eta babesteko hainbat printzipio gain hartzen dira, eta baita "*ETAren ekintza terroristak*" gaitzestekoa. Halaber, konpromiso zehatz batzuk hartzen dira.

EUDELen deklarazioan ere, eta aipatutako Legebiltzarreko akordioetan ere gogoratu izanda, udalerriek konpromisoa berresten dute zera sortzeko herritarren partaidetza printzipioaren pean: "*ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbideratuko duten ekimenak garatuko ditu eta demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du*".

2009ko apirilaren 2an EUDELen aitorpena aurkeztu zen, udal demokraziaren hogeita hamargarren urteurrena dela eta. Bertan hildako eta mehatxuak jaso dituzten zinegotzien eta zinegotzi ohien lana publikoki errekonozitu da (http://www.eudel.net).

## III. LABURBILKETA

Estatu, autonomia erkidego eta toki mailan terrorismoaren biktimei buruzko araudi eta baliabideen gainean egindako ibilbidetik ondoriozta daiteke hura berandu eta hainbat mugekin hasi zela. Hala eta guztiz ere, ezin esan daiteke zuzenbide eta erakunde esparruan pixkanaka terrorismoaren biktimen eskubide eta itxaropen legitimoak hartu ez direnik. Lehen berrikuspen batean erakunde batzuk beste batzuk baino arau garrantzitsu eta osatuagoak sortu dituztela adierazi behar badugu ere eskubide horien aitorpenari dagokionez, eta, horrekin batera, nolabaiteko barreiapen eta koordinazio falta dagoela, aplikazioaren azterketak bakarrik emango digu ondorio zehatzak ateratzeko aukera, arau horiek hobetzeko moduaren gainean, bai testuari dagokionez, bai ekintzei dagokienez.

Helburua, beti, lehen mailako zein bigarren mailako biktimizazioa gutxitzea izango da. Hori da hurrengo kapituluetan garatuko dugun lana, araudi autonomikoa eta tokikoa oinarri hartuta eta Ararteko erakundearen eskumenak aintzat hartuta.

## IV. BIBLIOGRAFIA

LLOVERAS, Marc-R. 2002. Indemnizaciones a las víctimas del terrorismo. Evolución normativa y aplicación jurisprudencial. *InDret* 3: 1-25.

MARTÍN RÍOS, María del Pilar. 2008. La reparación a las víctimas del delito por parte del Estado: Análisis del caso español. *Revista di Criminología, Vittimologia e Sicurezza*, II, 3: 88-109.

RODRÍGUEZ PUERTA, M. José. 2006. Sistemas de asistencia, protección y reparación a las víctimas. *Manual de Victimología* lanean, E. Baca Baldomerok, E. Echeburúa Odriozolak eta J. M. Tamarit y Sumillak koordinatutako lana. Valentzia: Tirant lo Blanch.

RODRÍGUEZ URIBES, José Manuel. 2008. Tomarse en serio los derechos de las víctimas del terrorismo. *Terrorismoaren Biktimen Fundazioko aldizkaria,* 28: 58-9.

SANZ-DÍEZ DE ULZURRUN LLUCH, Marina. 2007. La posición de la víctima en el derecho comparado y en la normativa de la Unión Europea. *Panorámica actual y perspectivas de la Victimología: La Victimología y el sistema penal* lanean. Madril: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

# IV. ATALA

## ERAKUNDEEK TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERARI UDAL EREMUAN EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

## I. TERRORISMOAREN BIKTIMAK UDAL EREMUAN. AURREKARIAK

Erakundeek udal eremuan terrorismoaren biktimei eman beharreko erantzuna aztertzeak garrantzi handia dauka, herritarrengandik hurbilen dagoen eremua delako, hain zuzen ere. Herriak eta hiriak bizikidetza guneak dira eta bertan izaten dira pertsonen eta gizartearen arteko harreman estuenak, bai familiartean bai lagunartean, bai eta auzokideen artean ere.

Udal administrazioak eta toki erakundeak, aldi berean, herritarrengandik hurbilen dauden, zerbitzurik premiazkoenak ematen dituzten eta ordezkari demokratikoekiko hartu-emanik estuenak bideratzen dituzten instituzioak dira. Hori dela eta, hiri eta herrietan ageri-agerian dago zeintzuk diren elkarbizitza arazoak eta bertan azaltzen dira gordinen jazarpena jasan behar duten ordezkari demokratiko askoren zailtasunak. Ordezkari horiek euren zeregin publikoen jarduna mugatuta daukate eta euren askatasuna urratzen duen etengabeko presio pean bizi dira; gainera, segurtasun fisiko eta morala jartzen dute arriskuan, bai eta bizia bera ere. Hori guztia gure elkarbizitza demokratikoaren anormaltasuna da, Zuzenbide Estatu bati ez dagokiona, eta, horrek eragiten du gure udalerri batzuetan maiz gizarte demokratiko bateko oinarrizko arauen eta giza eskubideen kontrako erasoak izatea.

Ildo horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria zenak eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak ondokoa adierazi zuten biek batera izenpetutako artikulu batean: *"lehenengo momentutik oso garbi izan genuen gure lanaren funtsezko zatietariko bat udaletan garatu beharko zela; izan ere, udalerrietan garbien azaltzen dira gure gizartean ditugun bizikidetza arazoak"*[1].

Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzaren 2an onetsitako **Bake eta Bizikidetza Planean** hainbat konpromiso eta ekimen ezartzen dira memoria historikoari, aintzatespenari eta egiari dagokienez. Aurreneko ekimena zera da: *"Udalaren arloan biktimei begirunea erakustearen alde egitea"*. Ekimenaren nondik norakoak azaltzen diren zatian honako hauxe zehazten da: *"Gertuen ditugunen kontsolamendua eta laguntza behar dugu egoera zailetan; hala ere, tamalez, gizarte-ingurune hurbilenaren urruntasuna eta*

---

[1] Txema Urkijo Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako zuzendariaren eta Maixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren artikulua. *Euskadiko Udalen Elkartearen "Udala" aldizkaria*. "Euskadiko udalak bake eta elkarbizitzaren alde" zenbaki monografikoaren 4. eta 5. or.

*ahanztura sentitu dute biktimek gehiegietan. Horrexegatik, gure gizarteak terrorismoaren biktimei zor dien adore etikoa berreskuratzeko eginkizunak, hurbilen dituzten gizarte-ingurune txikienetatik hasi behar du, ezbairik gabe: hau da, udaletatik".*

Terrorismoaren biktimek Euskal Herriko udalerri askotan bizi dituzten zailtasunen berri ematen dute lekukotza askotan; izan ere, udalerri horietan biktimenganako egoera bidegabeak izaten dira eta biktimagileak goresten dituzte, bai eta jarduera terrorista bera ere. Udalerri txikietan aldeko nahiz kontrako adierazpenak agerikoagoak dira, eta zenbait kasutan horrek itolarriak eta etsaitasunak sorrarazten ditu; hori dela eta, biktima ugarik euren udalerritik alde egin behar izan dute edo Euskal Autonomia Erkidegotik. Kasu askotan biktimek euren herritik joateko erabakia hartzen dute, seme-alabak babesteko senide maitagarriak galdu ostean guztiz mingarria den gizarte bazterketako girotik.

V.L.k ondokoa kontatzen du: *"Nik, une hartan, autistarena egin nuen, isil-isilik egoten nintzen eta, orduan, lasai bizi nintzen. Baina hori bizitzeko modu tristea da, areago kaleko manifestazioetan Gora ETA oihuak entzuten direnean, eta hori isil-isilik jasan behar. Bizimodu tristea da, gizakiak askea izan nahi duelako eta hori lortu ezinik ibiltzea izugarria da. Pertsona heldu batek jasan dezake, baina haurrak giro horretan heztea eta haztea bizitza osorako zoratzea da psikologikoki. Horrexegatik etorri ginen Madrilera".*

Beste biktima batek, M.U.k halaxe deskribatzen du bere bizipena: *"Denbora igarota, denok, zirkunstantzia desberdinak direla eta, Euskal Herritik, gure herri zoragarritik, irten behar izan dugu. Batzuek presioari eusteko gauza izan ez direlako. Beste batzuk, ordea, luzaroago eutsi diogu. Orain dela gutxi etorri naiz Madrilera bizitzera".* Eta gehitzen du: *"Nik bederatzi urteko seme bat daukat eta harengatik pozarren nago Madrilera bizitzera etorri naizelako. Poz-pozik nago ikastetxean nola dagoen ikusita. Oso ondo integratuta dago, lagun asko ditu. (…) Neure burua hemendik joateko behartuta sentitu eta pena hori izan arren, orain bai, orain sinetsita nago zuzeneko erabakia hartu dudala neure herritik alde egitean".*

Beste lekukotza batean, M.A.A.k ondoko adierazi zuen: *"A. hil zutenean, maletak eta seme txikia hartu, jadanik ikasten ari ziren beste bi seme-alabengandik banatu eta Madrilera etorri nintzen; bertan nire gurasoak eta ahizpak bizi ziren, eta asko lagundu zidaten. (…) Itzultzea polita izango litzateke eta egunean batean etxe horretara itzuliko naizela usten dut; etxean denak segitzen du egun horretan utzi nuen bezala, A.k utzi zuen bezala. Etxe horretan seme-alabak hezi nituen, bertan jaten zuten, eta orain bueltatzeko prestatuta nago: horri buruz hitz egitea lortu dut negarrik egin gabe. Baina itzultzeko baldintza ETA desagertzea da"* (*Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*. Cristina Cuesta. Temas 2007).

Udal eremuan islatu behar da argien terrorismoa gizartean deslegitimatzeko ekimena.

**Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko eta 2005eko otsailaren 17 eta 18ko erabakietan** terrorismoaren biktimen egoerari buruzko konpromisoak hartu ziren; konpromiso horiek martxan jarri beharko lirateke udalerri horietan. Era berean, Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onetsitako Bake eta Bizikidetza

Planean printzipio horietariko batzuk jasotzen ziren. Gainera, **2007ko urriaren 5 eta 17an** Eusko Legebiltzarrak zenbait ebazpen onetsi zituen, terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak betetzearekin zerikusia zutenak.

Horregatik eta EAEko udalerriek nola jokatu zuten jakin ahal izateko, Ararteko erakundeak udalei informazioa eskatu zien Eusko Legebiltzarrak erabaki horietan hartutako neurrien inguruan; horretarako idazki bat bidali zitzaien 2007ko uztailaren 19an. Gauzak horrela, 2007ko abenduaren 10ean errekerimendu bat igorri zitzaien informaziorik eman ez zuten udal guztiei, betiere txostena egiterakoan lankidetza horrek zeukan garrantzia gogorarazteko. Udal horietariko askok erantzunik eman ez zutenez, 2008ko maiatzaren 6an berriro ere eskatu zitzaien informazioa erakunde honekin lankidetzan jardun ez zutenei. Halaber eta data berean, laguntza eman zuten udalei hasiera batean bidalitako informazioa handitzeko aukera eskaini zitzaien; izan ere, 2008ko lehendabiziko hilabeteetan terrorismoaren biktimen aldeko hainbat jarduera izan ziren EAEko udalerri askotan. EUDELi ere (Euskadiko Udalen Elkartea/Asociación de Municipios Vascos) informazioa eskatu zitzaion.

Aipatzekoa da, bestalde, Eusko Legebiltzarrak **Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea** onetsi zuela; araudi horrek atal honetan jorratzen diren gaietariko batzuk arautzen ditu.

Kapitulu honetan jasotako informazioa sistematizatuko da, zenbait kasutan bestelako iturri batzuekin osatuz, hala nola gai honi buruzko argitalpenekin, web instituzionalekin edo komunikabideetan agertutako berriekin. Horrek esan nahi du momenturen batean beharbada egin direla ekimenen batzuk, udalek bidalitako informazioan komunikatuak izan ez direnak. Eta gerta daiteke zenbait jarduketa egin izana laguntza eman ez diguten udaletariko batzuetan, baina, informaziorik eman ez digutenez, ezin izango dugu halakorik jaso. Nolanahi ere, informazio garrantzitsuaren berri izan denean, txostenean txertatu da.

Kapitulu honetan agertzen diren grafikoen kopuruak baloratzeko, gogoan izan behar da laguntza eman duten udalerriak hartu direla kontuan eta ez EAEko udalerri guztiak; izan ere, hala egin izan balitz, adierazleen emaitzak pixka bat desberdinak izango ziren.

Bestalde, azpimarratu beharra dago udalen partaidetza, oro har, ona izan dela, eta, beraz, eskatutako informazioa bidali dutela. Aitzitik, parte hartu ez duten udalen laguntza falta sentitzen dugu; izan ere, ez dute konplitu erakunde honi laguntzeko legez duten betebeharra, erakundeen arteko errespetu falta da eta kasu honetan terrorismoaren biktimenganako begirune falta.

Arabako Lurralde Historikoan ez dute lagundu, esaterako Aramaio, Campezo/Kanpezu, Labastida/Bastida, Laguardia, Oyón-Oion edo Salvatierra/Aguraingo udalek.

Bizkaiko Lurralde Historikoan ez dute lagundu, esaterako Amorebieta-Etxano, Markina-Xemein edo Mungiako udalek.

Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ere hainbat udalek ez dute lagundu, hala nola Azpeitia, Hondarribia, Oiartzun, Pasaia, Zumaia eta Zumarragako udalek.

Udalerri horiek nabarmendu nahi izan ditugu, biztanleriari erreparatuta, euren lurralde historikoan nahiko garrantzitsuak direlako.

**1. TAULA:**

**ARARTEKOAK TERRORISMOAREN BIKTIMEI BURUZKO PROPOSAMEN ETA EKIMENEN INGURUAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKAERARI ERANTZUN EZ DIETEN UDALEN ZERRENDA**

| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA |
|---|---|---|
| Aramaio | Amorebieta-Etxano | Abaltzisketa |
| Armiñón | Arakaldo | Aduna |
| Asparrena | Arantzazu | Aizarnazabal |
| Ayala/Aiara | Aulesti | Albiztur |
| Berantevilla | Berriz | Amezketa |
| Bernedo | Dima | Antzuola |
| Campezo/Kanpezu | Forua | Ataun |
| Labastida/Bastida | Gizaburuaga | Azpeitia |
| Laguardia | Kortezubi | Baliarrain |
| Lapuebla de Labarca | Larrabetzu | Beizama |
| Leza | Laukiz | Ezkio-Itsaso |
| Navaridas | Markina-Xemein | Gaztelu |
| Oyón-Oion | Meñaka | Hondarribia |
| Peñacerrada/Urizaharra | Mungia | Ibarra |
| Salvatierra/Agurain | Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz | Legorreta |
| Zambrana | Muxika | Lezo |
| | Zaratamo | Lizartza |
| | Zeberio | Mutiloa |
| | Ziortza-Bolibar | Oiartzun |
| | | Ordizia |
| | | Orendain |
| | | Orexa |
| | | Pasaia |
| | | Zaldibia |
| | | Zerain |
| | | Zumaia |
| | | Zumarraga |

**1. GRAFIKOA:**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN GALDERA SORTARI ERANTZUN DIOTEN UDALEN KOPURUA**




**2. GRAFIKOA:**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN GALDERA SORTARI ERANTZUN DIOTEN UDALEN KOPURUA**




**3. GRAFIKOA:**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GALDERA SORTARI ERANTZUN DIOTEN UDALEN KOPURUA**



**4. GRAFIKOA:**
**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GALDERA SORTARI ERANTZUN DIOTEN UDALEN KOPURUA**




Aipatu dugun bezala, EAEko udal garrantzitsu batzuek erakundearekin lankidetzan jardun ez duten arren, egiazta dezakegu eskatutako informazioa bidali ez duten udalen artean gehiengoa direla biztanle gutxi dituztenak. Hala ere, ez dugu ahaztu behar landa eremu txiki horietariko batzuetan izaten dela ETAren ideologia totalitarioarekin bat ez datozen pertsonenganako presiorik handiena; gainera, udalerri mota horietariko batzuetan herritarren oinarrizko eskubide asko larriki urratzen dira.

Gainera, zehaztu beharra dago gure udalen hiru laurdenek (horietan bizi da EAEko biztanleria gehiena) erantzun diotela informazio eskaerari; horrenbestez, ondoren aztertzen den informazioa oso adierazgarria dela esan daiteke.

## II. DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ANIZTASUNA ERRESPETATZEKO UDAL ERABAKIAK ONESTEA, EUDELEK 2002KO MAIATZAREN 3AN ONETSITAKO ADIERAZPEN ZIBIKOAREN ILDOTIK

### 2.1. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakiak. Aurrekariak

Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko eta 2005eko otsailaren 17 eta 18ko erabakietan (9 eta 3 p) ataletan, hurrenez hurren) ondoko ezarpen hauek jasota daude: batetik, *"Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa suspertzea eta foro zibikoak abian jartzea, helburu horien alde egiteko eta terrorismoak mehatxatutakoei laguntzeko eta babesteko"* eta, bestetik, antzeko hau ere *"Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa suspertzea eta foro zibikoak abian jartzea, terrorismoak mehatxatutakoei laguntzeko eta babesteko"*.

EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onetsi eta Legebiltzarraren erabakiek aipatzen duten adierazpen zibiko hori horrela kalifikatu zen Karmelo Sainz de la Maza EAEko udalerrien elkarteko buruak Arartekoari bidalitako informazio idazkian: *"adierazpen zibiko hori EAEko alkateek hartutako konpromisoaren inflexio puntua da, terro-*

*rismoaren biktimen alde jasotako printzipioekiko".* Nolanahi ere, bere ustetan ezin dira alde batera utzi *"egun hori baino lehenago aurrera eramandako jarduketak eta neurriak, hala nola Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin 2001ean sinatutako hitzarmena biktimei laguntzeko, Bizitza eta Askatasuna Defendatzeko 2001eko Erakunde Adierazpena edo Pertsona Guztien Bizitza, Askatasun eta Segurtasunerako Eskubidea Defendatzeko Adierazpen Etikoa".*

2002ko adierazpen zibikoaren atarikoan ondoko hauxe aipatzen da: *"Demokrazia eta hiritarrak inon estu-estuki elkarrekin bizi badira, Udaletxeetan gertatzen da halakoa; horrez gain, Udaletxeetan ere hiritarren parte hartzeko bidezko eskaera beste inon baino zuzenago hartzen da aintzat. Beraz, Udaletxeak sistema demokratikoaren eraikin osoa sostengatzen duten oinarrizko zutabeak dira. Udaletxeen demokraziaren kalitatea degradatuz gero, sistema osoak horren eragina jasoko du".*

Gainera, ondoko hauxe gehitzen da: *"Hori dela eta, udal arloko eguneroko kezkez gaindi, hiritar askoren egoera larriak,horien artean ETAren ekintza terroristek mehatxatu, kolpatu eta eraildako geure kideenak –batez ere Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularrekoei dagokienez-, eta ideia politiko demokratikoen defentsarako adierazpen-askatasunak jasandako erasoek, demokrazia eta askatasunaren aldeko erantzun irmo eta solidarioa eskatzen digute, baita euskal gizartearen aniztasunarekiko begirunearen aldekoa ere".*

2002ko adierazpen zibiko honetan, jakina denez, giza eskubideen eta, bereziki, bizitza eskubidearen aldeko hainbat printzipio onesten dira, bai eta gaitzetsi ere "*ETAren ekintza terroristak*"; era berean, "*aniztasun politikoa eraginkortasunez errespetatzea eskatzen da"* eta hainbat konpromiso hartzen dira, besteak beste *"Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa onartzea. Helburu hori lortzeko behar diren neurri ekonomiko, arau-emaile, politiko eta sozialak jasoko ditu akordioak, eta, era berean, euskal gizartea era aktiboan inplikatuko du akordioaren garapenean".*

Euskal gizartearen demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta aniztasuna errespetatzeko udal erabaki bat onestea EUDELen 2002ko maiatzaren 3ko adierazpen zibikoaren konpromiso nagusietariko bat zen; horren garrantzia agerian jarri zen Legebiltzarrak 2003 eta 2005ean xedatutako erabakietan. Hala eta guztiz ere, txosten honi amaiera emateko momentuan, gure informazio eskaerari erantzun dioten udalen erdiak baino ez dute ildo honetako erabakirik hartu.

Deigarria da, bestalde, egiaztatzea demokrazia eta askatasuna defendatzeko erabaki hau onetsi duten udalik gehienek 2002ko maiatzean egin izana (EUDELek onetsi zuen hilabete berean) edo ondo-ondoko hilabeteetan (urte bereko ekain edo uztailean).

## 2.2. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakiak Arabako Lurralde Historikoan

Arabako Lurralde Historikoan Arartekoaren erakundeak bidalitako galdera sortari erantzun dioten udalen %43k baino ez dute ildo honetako udal erabakirik hartu. Gainera, badira erabakia onetsi dutenentz beren-beregi adierazi ez duten zenbait udal,

baina, euren idazkiaren testuingurua kontuan hartuta, ondoriozta daiteke *ez* dutela halakorik onetsi.

**2. TAULA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIAK ARABAN**

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | BAI |
| Amurrio | BAI |
| Añana | EZ |
| Arraia-Maeztu | EZ |
| Arrazua-Ubarrundia | EZ |
| Artziniega | BAI |
| Baños de Ebro/Mañueta | EZ |
| Barrundia | BAI |
| Elburgo/Burgelu | BAI |
| Elciego | BAI |
| Elvillar/Bilar | EZ |
| Harana/Valle de Arana | — |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | — |
| Iruraiz-Gauna | EZ |
| Kripan | EZ |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | BAI |
| Lanciego/Lantziego | EZ |
| Lantarón | BAI |
| Laudio/Llodio | — |
| Legutiano | — |
| Moreda de Álava | EZ |
| Okondo | BAI |
| Ribera Alta | BAI |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | EZ |
| Samaniego | EZ |
| San Millán/Donemiliaga | BAI |
| Urkabustaiz | BAI |
| Valdegovía/Gaubea | BAI |
| Villabuena de Álava/ Eskuernaga | EZ |
| Vitoria-Gasteiz | BAI |
| Yécora/Iekora | EZ |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | BAI |
| Zuia | EZ |

**5. GRAFIKOA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIA HARTU DUTEN UDALEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Udal erabaki guztiak 2002an hartu ziren, EUDELen adierazpen zibikoa onetsi zen urtean eta gehien-gehienak maiatzetik ekainera bitartean, uztailean hartutako erabaki bat eta urrian hartutako beste bat izan ezik. Ondoko udalek onetsi dute erabakia: Alegría-Dulantzi, Amurrio, Artziniega, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Elciego, Lagrán, Lantarón, Okondo, Ribera Alta, San Millán/Donemiliaga, Urkabustaiz, Valdegovía/Gaubea, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia.

Zenbait udalek ondokoa jakinarazi digute: *"ez dela aurrera eraman aipatutako proposamenik edo jarduerarik batere* [betiere terrorismoaren biktimei dagokienez]*"* edo *"ez dela erabaki, ekimen edo proposamen zehatzik egin terrorismoaren biktimei dagokienez"*. Horixe gertatu da honako udal hauetan: Añana, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Baños de Ebro/Mañueta, Elvillar/Bilar, Iruraiz-Gauna, Kripan, Kuartango, Lanciego/Lantziego, Moreda de Álava, Ribera Baja/Erribera Beitia, Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Yécora/Iekora, Zalduondo eta Zuia.

Arabako hiru udaletan (Elvillar/Bilar, Kripan eta Lanciego/Lantziego) terrorismoaren biktimen inguruan jarduketarik aurrera eraman ez izana horrela justifikatu dute: *"gure udalerrian idazkian aipatzen diren jarduketetariko bakar bat ere izan ez denez* [terrorismoaren biktimekin zerikusia duten jarduketak], *udal honek ez du horri buruzko neurririk hartu"*.

Arabako ondoko udalek ez dute adierazi erabakirik hartu duten ala ez: Iruña Oka/Iruña de Oca, Laudio/Llodio eta Legutio.

## 2.3. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakiak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bizkaiko Lurralde Historikoan Arartekoaren erakundeak bidalitako galdera sortari erantzun dioten udalen %56k demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakia onetsi dute. Honako udala hauek izan dira erabakia hartu dutenak: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Arrigorriaga, Artea, Artzentales, Atxondo, Bakio, Barakaldo, Barrika, Bermeo, Bilbo, Busturia, Durango, Ea, Erandio, Ermua, Etxebarri, Etxebarria, Galdakao, Gamiz-Fika, Garai, Getxo, Güeñes, Iurreta, Izurtza, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa, Leioa, Lekeitio, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mallabia, Mañaria, Maruri-Jatabe, Mendata, Morga, Mundaka, Ortuella, Otxandio, Plentzia, Santurtzi, Sondika, Sopelana, Sopuerta, Ugao-Miraballes, Urduliz, Urduña-Orduña, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zamudio eta Zeanuri.

**3. TAULA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIAK BIZKAIAN**

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | BAI |
| Ajangiz | EZ |
| Alonsotegi | BAI |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | EZ |
| Arrankudiaga | EZ |
| Arratzu | EZ |
| Arrieta | EZ |
| Arrigorriaga | BAI |
| Artea | BAI |
| Artzentales | BAI |
| Atxondo | BAI |
| Bakio | BAI |
| Balmaseda | EZ |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | BAI |
| Basauri | — |
| Bedia | EZ |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Berango | — |
| Bermeo | BAI |
| Berriatua | EZ |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | BAI |
| Derio | EZ |
| Durango | BAI |
| Ea | BAI |
| Elantxobe | EZ |
| Elorrio | EZ |
| Erandio | BAI |
| Ereño | EZ |
| Ermua | BAI |
| Errigoiti | EZ |
| Etxebarri | BAI |
| Etxebarria | BAI |
| Fruiz | EZ |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | BAI |
| Garai | BAI |
| Gatika | EZ |
| Gautegiz Arteaga | EZ |
| Gernika-Lumo | EZ |
| Getxo | BAI |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | — |
| Güeñes | BAI |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | EZ |
| Ispaster | EZ |
| Iurreta | BAI |
| Izurtza | BAI |
| Karrantza Harana/ Valle de Carranza | BAI |
| Lanestosa | BAI |
| Leioa | BAI |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Lekeitio | BAI |
| Lemoa | BAI |
| Lemoiz | BAI |
| Lezama | BAI |
| Loiu | BAI |
| Mallabia | BAI |
| Mañaria | BAI |
| Maruri-Jatabe | BAI |
| Mendata | BAI |
| Mendexa | EZ |
| Morga | BAI |
| Mundaka | BAI |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | EZ |
| Nabarniz | EZ |
| Ondarroa | EZ |
| Orozko | EZ* |
| Ortuella | BAI |
| Otxandio | BAI |
| Plentzia | BAI |
| Portugalete | — |
| Santurtzi | BAI |
| Sestao | — |
| Sondika | BAI |
| Sopelana | BAI |
| Sopuerta | BAI |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | — |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | BAI |
| Urduliz | BAI |
| Urduña-Orduña | BAI |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | BAI |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | — |
| Zamudio | BAI |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Zeanuri | BAI |
| Zierbena | — |

* Zehaztu du hurrengo osoko bilkuraren aztergaien zerrendan adierazpen zibikoa onestea aurreikusita dagoela.

**6. GRAFIKOA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIA HARTU DUTEN UDALEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Bizkaiko udalen heren batek baino apur bat gehiagok ez dute udal erabakirik hartu EUDELek onetsitako adierazpen zibikoa aplikatzeko. Honako hauek izan dira udal erabaki hori hartu ez dutenak: Abadiño, Ajangiz, Amoroto, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Balmaseda, Bedia, Berriatua, Derio, Elantxobe, Elorrio, Ereño, Errigoiti, Fruiz, Galdames, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gordexola, Ibarrangelu, Igorre, Ispaster, Mendexa, Murueta, Muskiz, Nabarniz, Ondarroa, Orozko, Sukarrieta eta Zaldibar

Gainera, badira zenbait udal (horietariko batzuk garrantzitsuak, esate baterako Basauri, Portugalete eta Sestao) beren-beregi erantzun ez dutenak ea EUDELen adierazpen zibikoan ezarritako udal erabakia onetsi duten ala ez. Gauza bera egin dute Berangok, Gorlizek, Trucios-Turtziozek, Ubidek, Zallak eta Zierbenak.

Aipatzekoa da, Araban gertatzen den bezala, erabaki guztiak 2002an hartu zirela. Erabakirik gehienak urte horretako maiatz eta ekainean onetsi ziren, adierazpen zibikoa onetsi eta segituan. Hala eta guztiz ere, bi erabaki uztailean hartu ziren, bat abuztuan eta beste bi irailean.

Udal batzuek terrorismoaren biktimen inguruko erabakia ez hartzeko justifikazioak eman dituzte; hala, aipatu dute, besteak beste, udalerriak biztanle gutxi dituela, biztanle

guneak sakabanatuta daudela edo herri horretan ez dagoela terrorismoak eragindako biktimarik.

## 2.4. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakiak Gipuzkoako Lurralde Historikoan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan Arartekoaren erakundeak bidalitako galdera sortari erantzun dioten udalen %31k baino ez dute hartu EUDELen 2002ko maiatzeko adierazpen zibikoak aurreikusitako udal erabakia. Gauzak horrela, ondoko udal hauek izan dira erabakia hartu dutenak: Andoain, Arrasate/Mondragón, Beasain, Bergara, Donostia-San Sebastián, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Errezil, Getaria, Irun, Legazpi, Mutriku, Oñati, Orio, Tolosa, Urretxu, Zarautz eta Zegama.

Araba eta Bizkaiarekin gertatzen den bezala, Gipuzkoan ere udal erabaki guztiak 2002an hartu ziren, maiatzean eta ekainean; nolanahi ere, erabaki horietariko bat irailean onetsia izan zen.

Gipuzkoako udalen erdiak baino pixka bat gehiagok ez dute udal erabakirik hartu EUDELen adierazpen zibikoa betetzeko. Erabakia hartu ez duten udalak ondorengo hauek izan dira: Aia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Anoeta, Arama, Aretxabaleta, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Elgeta, Gabiria, Gaintza, Hernialde, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Leintz Gatzaga, Mendaro, Ormaiztegi, Segura, Soraluze, Urnieta eta Zestoa.

**4. TAULA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIAK GIPUZKOAN**

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Aia | EZ |
| Alegia | — |
| Alkiza | EZ |
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ |
| Andoain | BAI |
| Anoeta | EZ |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | EZ |
| Arrasate/Mondragón | BAI |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | — |
| Azkoitia | — |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Beasain | BAI |
| Belauntza | EZ |
| Berastegi | EZ |
| Bergara | BAI |
| Berrobi | EZ |
| Bidegoian | EZ |
| Deba | — |
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | BAI |
| Elduain | EZ |
| Elgeta | EZ |
| Elgoibar | BAI |
| Errenteria | BAI |
| Errezil | BAI |
| Eskoriatza | — |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | EZ |
| Getaria | BAI |
| Hernani | —* |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | BAI |
| Irura | EZ |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | — |
| Lazkao | EZ |
| Leaburu | EZ |
| Legazpi | BAI |
| Leintz-Gatzaga | EZ |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | BAI |
| Olaberria | — |
| Oñati | BAI |
| Orio | BAI |

**EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoarekin bat etorriz, onetsi al da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakirik?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Ormaiztegi | EZ |
| Segura | EZ |
| Soraluze-Placencia de las Armas | EZ |
| Tolosa | BAI |
| Urnieta | EZ |
| Urretxu | BAI |
| Usurbil | — |
| Villabona | —** |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | BAI |
| Zestoa | EZ |
| Zizurkil | — |

* Hernaniko Udalaren urriaren 13ko 8/2004 bozeramileen batzordeak Bizikidetza Batzordea eratzea proposatu zuen; hiru hilabeterik behin biltzea proposatu zen eta jarduketa marko gisa, besteak beste, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa (EUDELen adierazpena) oinarri hartzea.

** 2002ko otsailaren 14an, Billabonako Udaleko udalbatzak pertsona guztien bizitza, askatasun eta segurtasunerako eskubidea defendatzeko adierazpena onetsi zuen.

**7. GRAFIKOA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIA HARTU DUTEN UDALEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**



## 2.5. Demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakiak Euskal Autonomia Erkidegoan

Jasotako informazioaren arabera, EAEko 87 udalek –erakunde honek eskatutako informazioa bete dutenen %45– demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakia hartu dute, betiere EUDELek 2002ko maiatzaren 2an onetsitako adierazpen zibikoarekin bat etorriz.

**8. GRAFIKOA:**
**DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO UDAL ERABAKIA HARTU DUTEN UDALEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




Udal erabaki hau onetsi dutenen udalen artean, EAEko hiru hiriburuak aipatu behar dira: Bilbao, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteiz; era berean, gauza bera egin dute biztanlerik gehien duten udaletariko batzuk, besteak beste, Barakaldok, Durangok, Eibarrek, Errenteriak, Galdakaok, Irunek, Santurtzik eta Tolosak.

Alabaina, ezin da esan Azkoitia, Basauri, Laudio/Llodio, Portugalete edo Sestaoren gisako udalek gauza bera egin dutenik, nahiz eta beren-beregi ez adierazi erabakia hartu duten ala ez. Erabakia hartu ez edo gure informazio eskaerari erantzun ez dioten udalik gehienek biztanle kopuru urria dute. Egiaztatzen da Bizkaian onetsi direla adierazpen gehien eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan gutxien.

Aipatzekoa da erabaki hau hartu duten udal guztiek 2002an egin zutela, EUDELek 2002ko maiatzaren 3an adierazpen zibikoa onetsi eta handik gutxira. Eusko Legebiltzarraren bilkurak 2003ko ekainaren 25eko eta 2005eko otsailaren 17 eta 18ko erabakietan berariaz eskatu bazuen ere, EAEko udal bakar batek ere ez du erabaki hau hartu 2002az geroztik. Horrek agerian jartzen du, erabaki hauen onarpena (giza eskubideak errespetatzeko eta defendatzeko, “ETAren ekintza terroristak” gaitzesteko eta ildo honetako zenbait konpromiso zehatz hartzeko izan zuen garrantzia kolokan jarri gabe) nahiko mugatuta geratu dela eta beharbada eraginkorragoa izan daitekeela erabaki horiek jasotzen zituzten printzipioak bildu eta gaurkotzen dituen lanabes berriren bat.

# III. DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ANIZTASUNA ERRESPETATZEKO TOKIAN TOKIKO FOROAK BULTZATZEA

## 3.1. Tokian tokiko foro zibikoak sortzea. Aurrekariak

EUDELek 2002ko maiatzaren 3an demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko onetsitako adierazpen zibikoan honako konpromisoa hau hartzen zen beren-beregi:

"2.- *Toki esparruan demokrazia eta askatasunaren aldeko printzipioak eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespeturako printzipioak zabaltzea, politika eta gizartearen inplikazio ahalik eta handiena bilatuz ezarpen praktikoa eraginkortasunez gauzatzeko, udalez udal eta herriz herri.*

*Ondorio horietarako, udalek* ***demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko foroa*** *sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibilitate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibilitate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik.*

- *Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatuko ditu;*
- *Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du".*

Eusko Legebiltzarraren bilkuraren 2003ko ekainaren 25eko 9. neurriak eta 2005eko otsailaren 17 eta 18ko erabakien 3 p) idatz zatiak EUDELi (EAEko udalen elkartea) eskatu zioten *"tokiko foroak abian jartzea, helburu horiek bultzatzeko eta terrorismoak mehatxatutakoak babesteko".*

Bestalde, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko erabakia hartu zuten udalek foro parte-hartzaile horiek martxan jartzea aurreikusi zuten ebazpen horietan. Foru horiek elkarrizketa eta topaketa gune modura planteatzen ziren, betiere herritarrek parte hartzeko printzipioan oinarrituta.

## 3.2. Tokiko foro zibikoak Arabako Lurralde Historikoan

Aski deigarria da Laudioko Udalak adieraztea "*Lehendakaritzak eta EUDELek normalizazioaren eta baketzearen inguruan bultzatutako herritarren foru parte hartzaile baten esku hartu duela*"; izan ere, ez dago egiaztatzerik udal honek demokrazia eta askatasuna defendatzeko erabakirik hartu duen ala ez. Nolanahi ere, Arabako beste udalek adierazi digute ez dutela bultzatu demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik. EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoaren arabera, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko erabakia onetsi zutenek ere ez dute horrelakorik egin, eta ez dute egin nahiz eta erabaki horietan hartutako konpromisorik handiena izan tokian tokiko foro horiek bultzatzeko ekimena.

**5. TAULA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOAK ARABAN**

| Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?<br><br>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | EZ |
| Amurrio | — |
| Añana | EZ |
| Arraia-Maeztu | EZ |
| Arrazua-Ubarrundia | EZ |
| Artziniega | EZ |
| Baños de Ebro/Mañueta | EZ |
| Barrundia | EZ |
| Elburgo/Burgelu | — |
| Elciego | — |
| Elvillar/Bilar | EZ |
| Harana/Valle de Arana | — |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | EZ |
| Iruraiz-Gauna | EZ |
| Kripan | EZ |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | EZ |
| Lanciego/Lantziego | EZ |
| Lantarón | EZ |
| Laudio/Llodio | BAI |
| Legutiano | — |
| Moreda de Álava | EZ |
| Okondo | EZ |
| Ribera Alta | EZ |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | EZ |
| Samaniego | EZ |
| San Millán/Donemiliaga | — |
| Urkabustaiz | EZ |
| Valdegovía/Gaubea | — |
| Villabuena de Álava/Eskuernaga | EZ |
| Vitoria-Gasteiz | — |
| Yécora/Iekora | EZ |
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | — |
| Zuia | EZ |

**9. GRAFIKOA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




## 3.3. Tokiko foro zibikoak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bizkaiko Lurralde Historikoan gure galdera sortari erantzun dioten 93 udaletik 15ek baino ez dute ekimen hau bultzatu, hau da, udal horien guztien %16k baino ez. Gainerakoek beren-beregi adierazi dute ez dutela foro hori eratu (62 kasu) edo euren komunikazioan ez dute horrelakorik aipatzen, baina halako bilgunerik dagoen ala ez zehaztu barik; horregatik, horrek ez direla eratu pentsarazten badigu ere, ez ditugu ez-eratukotzat jo (16 kasu).

**6. TAULA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOAK BIZKAIAN**

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | BAI |
| Ajangiz | EZ |
| Alonsotegi | EZ |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | BAI |
| Arrankudiaga | EZ |
| Arratzu | EZ |
| Arrieta | EZ |
| Arrigorriaga | EZ |
| Artea | EZ |
| Artzentales | EZ |

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Atxondo | EZ |
| Bakio | EZ |
| Balmaseda | EZ |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | EZ |
| Basauri | EZ |
| Bedia | EZ |
| Berango | EZ |
| Bermeo | EZ |
| Berriatua | EZ |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | EZ |
| Derio | EZ |
| Durango | BAI |
| Ea | EZ |
| Elantxobe | EZ |
| Elorrio | — |
| Erandio | BAI* |
| Ereño | EZ |
| Ermua | EZ |
| Errigoiti | EZ |
| Etxebarri | BAI |
| Etxebarria | EZ |
| Fruiz | EZ |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | EZ |
| Garai | EZ |
| Gatika | EZ |
| Gautegiz Arteaga | EZ |
| Gernika-Lumo | EZ |
| Getxo | BAI |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | — |
| Güeñes | EZ |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | EZ |

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Ispaster | EZ |
| Iurreta | — |
| Izurtza | EZ |
| Karrantza Harana/Valle de Carranza | EZ |
| Lanestosa | EZ |
| Leioa | BAI |
| Lekeitio | EZ |
| Lemoa | EZ |
| Lemoiz | EZ |
| Lezama | EZ |
| Loiu | EZ |
| Mallabia | BAI |
| Mañaria | — |
| Maruri-Jatabe | BAI |
| Mendata | — |
| Mendexa | EZ |
| Morga | — |
| Mundaka | BAI |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | — |
| Nabarniz | EZ |
| Ondarroa | EZ |
| Orozko | — |
| Ortuella | EZ** |
| Otxandio | EZ |
| Plentzia | EZ |
| Portugalete | — |
| Santurtzi | EZ |
| Sestao | — |
| Sondika | — |
| Sopelana | BAI |
| Sopuerta | — |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | BAI |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | — |

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Urduliz | EZ |
| Urduña-Orduña | EZ |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | EZ |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | — |
| Zamudio | EZ |
| Zeanuri | EZ |
| Zierbena | — |

* Erandioko Udaleko bozeramaileen batzordeak aho batez onetsi du "foro zibiko hori eratzea; dagokion unean erabakiko da nortzuek hartu duten parte bilgunean".

** Ortuellak adierazi du "ez dela foroa eratu, baina aurten abian jartzea espero duela".

**10. GRAFIKOA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Aipatzekoa da foro parte-hartzaile hauek sortu dituzten udalen kopurua askoz ere txikiagoa dela demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakia onetsi zutenen aldean betiere.

Ekimen hau bultzatu duten 15 udaletatik –Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Areatza, Barakaldo, Bilbao, Durango, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Leioa, Mallabia, Maruri-Jatabe, Mundaka, Sopelana y Trucios-Turtzioz– guztiek onetsi zuten EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoa, Areatzak eta Turtziozek izan ezik. **Turtziozi** dagokionez, erabaki hori onetsi ez arren, aho batez onartu zuen 2002ko apirilaren 12an *"pertsona guztien bizitza, askatasun eta segurtasun eskubidea defendatzeko adierazpena, Eusko Jaurlaritzako, Aldundiko eta udaletako arduradun instituzionalek izenpetua"*.

Kasuetariko batzuetan –**Galdakao, Leioa, Mallabia edo Maruri-Jatabe**– foro mota hauen onespenaren inguruan baino ez da hitz egiten, baina ez da ezer zehazten euren jardunbideari buruz. Beste kasu batzuetan, adibidez **Areatza** edo **Mundaka**ko udaletan, zehazten da ekimen hau “Konpondu” ekinbidearekin uztartu dela.

**Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udalak** aipatzen du *“Konpondu ekimenaren proiektuaren barruan elkarrizketarako udal foro bat izan dela 2007ko maiatzean”*.

**Barakaldoko Udalak** jakinarazten du bozeramaileen 2004ko apirilaren 2ko batzorde batean idazkari nagusiak topaketa foro bat eratzeko estatutuen aurreproiektu bat aurkeztu zuela eta horren inguruan eztabaidatu zela. Alkateak idazkari nagusiari zera eskatu zion: *“udal ordezkaritza zuten alderdi politikoei eskatzea ordezkari titular bat eta ordezko bat izendatzea foru zibikoaren bilkurarako, betiere foro zibikoaren bilkurak bere araubide juridikoaren aurreproiektuari buruzko argibideak emateko; horrela, udalaren udalbatzaren aurrean tramita zitekeen, baina halakorik ez da egin orain arte”*.

**Bilboko Udalak** abian jarri du bakerako tokiko foro bat, bozeramaileen 2003ko urriaren 2ko batzordeak egindako balorazio positiboa aintzat hartuta. Foro hau berenberegi sortu da *“EUDELek 2002ko maiatzaren 3an demokrazia eta askatasuna defendatzeko onetsitako adierazpen zibikoaren ildotik”*. Foroa, alkatea buru, honako hauek eratu zuten: udal taldeetako bozeramaileak, EHUko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak, gotzaindegia eta Bakearen aldeko Koordinakundea. Horren ondoren, kide iraunkor modura sartu ziren Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria, bai eta terrorismoaren biktimak artatzeko zuzendaria ere. Foro honetan “Bakerako hezkuntza” izeneko ponentzia bat landu dute, “Bilboko bakerako astea” martxan jarri da urtero eta Doña Casilda parkean eskultura bat ipintzeko erabakia hartu da, terrorismoaren biktima guztien omenez.

**Durangoko Udalak** jakinarazten du “EUDELen hiru foro” egin direla 2003 eta 2004an, eta 2007an baketzerako foro bat jarri zela martxan.

**Erandioko Udalaren kasuan**, bozeramaileen batzordeak aho batez onetsi du *“foro zibiko bat sortzea; bilgune horretan bertan erabaki beharko da nortzuk izango diren kideak”*.

**Etxebarriko Udalak**, zentzu itxian foro bat martxan jarri ez duen arren, bai bultzatu du 2007an Etxebarriko elkarbizitzarako plangintza osoa, betiere Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bakerako hezkuntzari buruzko programak eta ekimenak diruz laguntzeko egindako deialdi baten barruan; ekimen hori Euskal Autonomia Erkidegoko udalek garatu behar dute. Gauzak horrela, plangintza horretan Etxebarrin *“udalerriko eragileek eta elkarte sareak eratutako batzorde bat”* eratzea aurreikusita dago.

Azkenik, **Getxoko Udalak** adierazi du 2007ko martxoaren 25ean elkarrizketarako bi foro egin zirela ondoko proiektu honen barruan garatu zirenak: “Herritarren partaidetzarako ekimena bakea eraikitzean”.

**Ortuellako Udalak** jakinarazten du *"ez duela fororik eratu, baina aurten abian jartzea espero duela"*.

Sopelako Udalak *"abian jarri du Sopelako foro zibikoa, edozein indarkeria mota erabiltzeari uko egiten diona eta giza eskubideei buruzko adierazpen unibertsala abiapuntutzat hartzen duena; foroaren xedea da eremu erkideak eta auzokideen arteko harremanak hobetzea, horretarako alderdi politikoen eta gizarte erakundeen arteko lana oinarri hartuz"*.

## 3.4. Tokiko foro zibikoak Gipuzkoako Lurralde Historikoan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan gure galdera sortari erantzun dioten 60 udaletatik 8k baino ez dute abian jarri udal fororik; hau da, guztira udal horien %13k baino ez dute horrelako ekimenik garatu. Gainerakoek berariaz adierazten dute ez dutela halako ekimenik bultzatu (40 kasu) edo ez dute aipatzen foro zibikorik sortu dutenik (13 kasu).

**7. TAULA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOAK GIPUZKOAN**

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Aia | EZ |
| Alegia | EZ |
| Alkiza | EZ |
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ |
| Andoain | EZ |
| Anoeta | — |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | EZ |
| Arrasate/Mondragón | EZ |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | EZ |
| Azkoitia | — |
| Beasain | — |
| Belauntza | EZ |
| Berastegi | EZ |
| Bergara | BAI |
| Berrobi | EZ |
| Bidegoian | EZ |
| Deba | — |

**Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | EZ |
| Elduain | EZ |
| Elgeta | EZ |
| Elgoibar | BAI |
| Errenteria | — |
| Errezil | — |
| Eskoriatza | EZ |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | EZ |
| Getaria | BAI |
| Hernani | — |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | — |
| Irura | EZ |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | — |
| Lazkao | BAI |
| Leaburu | EZ |
| Legazpi | EZ |
| Leintz-Gatzaga | EZ |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | BAI |
| Olaberria | — |
| Oñati | EZ |
| Orio | EZ |
| Ormaiztegi | EZ |
| Segura | EZ |
| Soraluze-Placencia de las Armas | EZ |
| Tolosa | EZ |
| Urnieta | EZ |
| Urretxu | — |
| Usurbil | — |

| Demokrazia eta askatasuna defendatzeko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko fororik bultzatu al da? GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Villabona | — |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | EZ |
| Zestoa | EZ |
| Zizurkil | BAI |

**11. GRAFIKOA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Gipuzkoan udal foro hauek bultzatu dituzten udalak honako hauek izan dira: Bergara, Donostia-San Sebastián, Elgoibar, Getaria, Lazkao, Mutriku, Zarautz eta Zizurkil.

Azpimarratu beharra dago, beste lurralde historikoetan bezala, Gipuzkoan ere EUDELen adierazpen zibikoa betetzeko erabakia hartu duten udalen kopuru txiki batek baino ez duela udal fororik sortu. Aitzitik, **Legazpik** eta **Zizurkilek** ez zuten demokrazia eta askatasuna defendatzeko udal erabakirik hartu, baina foro zibikoak bai jarri dituzte martxan.

Udal batzuek, esate baterako **Getaria**, **Lazkao** edo **Zizurkilekoek**, udal foroen berri ematen dute, baina ez dute datu bakar be eman horien osaerari edo egindako jarduerei buruz.

Beste udal batzuek, hala nola **Mutriku** eta **Elgoibarkoek** foro hau sartzen dute KOPONDU izeneko ekimenaren barruan.

**Bergarako Udalak** 2008an ezaugarri hauetako udal foro bat jarri du martxan.

**Donostiako Udalak** 2002an sortu zuen Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimen Udal Foroa *"egoera hori jasan duten pertsonengana hurbiltzeko eta horien gizarte inplikazio handiagoa lortzeko"*.

> *"Foroaren bitartez lortu nahi diren helburuak ondokoak dira:*
>
> *– Herritarrek eta erakundeek biktimenganako begirunea etengabe adieraztea.*
>
> *– Biktimei ahotsa eta hitza ematea, protagonista gisa duten zeregina sendotuz eta bakearen nahiz adiskidetzearen aldeko borroka prozesuan partaidetza aktiboa bultzatuz.*
>
> *Hiriko biktimak biltzen dituen foroa aldiro-aldiro batzartuko da lan batzordearen bitartez; foroak giza eskubideen, bakearen eta biktimekiko elkartasunaren aldeko ekintzak, ekimenak, programak eta kontzientziazio kanpainak diseinatzen eta abian jartzen jarduten du".*

Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimen Udal Foroaz gain, 1999tik Giza Eskubideen Batzorde Berezi bat dago, udal talde politikoetako bozeramaileek osatua; batzordearen helburua da, besteak beste, *"indarkeriaren eta terrorismoaren biktima guztien eskaerak kontuan hartzea"*. Batzorde honek zenbait adierazpen sinatu ditu; horien artean nabarmendu behar da terrorismoaren biktimen eta aniztasuna bizitzearen aldeko adierazpena. Donostiako Udalak azpimarratzen du batzordeak *"zeregin garrantzitsua betetzen diharduela oroimenaren lorategia (bakearen eta terrorismoaren biktimen aldeko proiektua) sortzeko prozesuan"*.

Azkenik, **Zarauzko Udalak** adierazi digu 2005ean fundazio bat kontratatu zuela, besteak beste, *"EUDELeko adierazpen zibikoan aurreikusitako foroa osatzeko aholkularitza teknikoa eman ziezagun"*. Gainera, 2006an fundazio bera kontratatu zen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen aldeko plangintza osoa egin zezan. Ez dakigu udal foroa abian jarri den ala ez, baina badakigu jakin herriko bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko diagnostiko bat egiteko hiru lan talde (herriko elkarteen ordezkariak, Guardia Zibila eta udaleko hiru ataletako teknikariak) eratu zirela Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Udal Plangintzaren eremuan, betiere metodologia parte-hartzailea aplikatuz.

## 3.5. Tokiko foro zibikoak Euskal Autonomia Erkidegoan

Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko foro bat bultzatzeko neurriak ez du oihartzun handirik izan Euskal Autonomia Erkidegoan. Erakunde honek eskatutako informazioa bete zuten 188 udaletatik 23k baino ez dute abian jarri ekimen hori, hau da, %12k besterik ez.

Deigarria da oso EUDELen 2002ko adierazpen zibikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren 2003ko eta 2005eko erabakien ildotik udal foroak sortzeko gomendioaren jarraipen falta. Orain arte sortutako bilguneak gutxi dira eta, gainera, zenbait kasuan, ez dago garbi lanean ari diren ala ez. Horietariko batzuk une honetan ari dira ezartzen eta beste batzuk ez dira oso eraginkorrak.

**12. GRAFIKOA:**
**TOKIKO FORO ZIBIKOEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




Halaber, kontuan hartu beharra dago foroa eratu dela baieztatzeko aintzat hartu den irizpidea ez dela batere zorrotza izan; gauzak horrela, foroa eratzeko edo formalki sortzeko beharrezko izapideak egin diren ala ez besterik ez da kontuan hartu, nahiz eta foroa benetan martxan dagoen adierazi ez.

Gainera, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko forotzat hartu dira bestelako organo parte-hartzaile batzuk, nahiz eta izaera horretakoak izan ez; hori bai, nolabaiteko lotura zegoen horien helburuen eta EUDELek 2002ko maiatzaren 3an onartutako adierazpen zibikoaren printzipioen artean.

Era berean, azpimarratu dugu adierazpen zibikoan ezarritako udal erabakia onetsi zuten udal askok ez dutela konpromiso nagusietariko bat bete, hau da, ez dutela fororik eratu.

Edozein kasutan ere, oso positibotzat hartu behar da sortutako udal foro batzuen esperientzia, batez ere Bilboko eta Donostiakoenak. Bi foro horiek metodologia eta osaera desberdina izan dute, baina, hala ere, lorpen handiak ekarri dituzte.

# IV. BIKTIMEN OROITZAPENEN ALDEKO UDAL EKIMENAK

## 4.1. Biktimei esker ona azaltzeko ekimenak udal eremuan. Aurrekariak

Ararteko erakundeak beharrezkotzat hartu du euskal erakundeek biktimen oroitzapenen aldeko balio demokratikoak sustatzeko ekimenak egitea. Ildo honi jarraituz, bada, Ararteko erakundeak berak 2002. urteaz geroztik bere idazki guztietan (bai euskaraz bai gaztelaniaz) jartzen du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua: "*Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea*"; horrekin batera, honako lelo hau agertzen da: "ETArik ez".

Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onetsitako Bake eta Bizikidetza Planak, beste konpromiso eta ekimen batzuen artean, honako hauxe jasotzen du 1) atalean: *“biktimen aintzatespena bultzatzea udal eremuan”.*

Horren ondoren, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 5. artikuluaren 3. idatz-zatiak ondoko hauxe ezartzen du: *“Erreparazio-neurrietan sartzen da, halaber, hainbat jarduera publiko bultzatzea, biktimei ordain morala emateko eta haien duintasuna, izen ona eta eskubideak jendaurrean lehengoratzeko. Horrela, honako hauek sustatuko dira biktimekin adostuta eta, hala badagokio, haien elkarteekin: omenaldiak egitea, oroigarriak altxatzea, terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta horiekiko enpatia izateko tokiko ekimenak sortzea, bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzak egotea, bai eta terrorismoaren biktimei babesa eta aitorpen sozial, etiko eta politikoa erakusteko izaera sinbolikoa duten bestelako adierazpideak izatea ere”.*

Txosten hau egin ahal izateko, Arartekoaren erakundeak EAEko udal guztiei galdetu zien ea biktimenen omenezko ekimenik bultzatu duten, hala nola terrorismoaren kontrako leloak edo biktimen aldekoak ezartzea inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan… edo ea biktimen aldeko monolitorik jarri duen edo izena kale, plaza edo udal instalazioren bati biktimen izenak erabiliz.

Jasotako erantzunetatik ondoriozta daiteke EAEko udaletariko askok ez dutela ekimenik bultzatu terrorismoaren biktimak gogoan izateko, esate baterako inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan... terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko leloak jartzea edo biktimen izenak erabiltzea kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko.

Terrorismoaren biktimak gogoan izateko ekintzak egin dituzten udaletan ekimenak era askotarikoak izan direla esan behar da.

## 4.2. Biktimen omenez aurrera eramandako udal ekimenak Arabako Lurralde Historikoan

Arabako Lurralde Historikoan udal askok (19) ez dute inola ekimenik egin, hau da, erakunde honek estatutako informazioa bete duten udal guztien %54k ez dute mota honetako ekintzarik gauzatu. Udal batzuek ekimen falta hori justifikatu dute udalerrietako biztanleria txikian edo adierazi dute euren herrietan ez dagoela biktimarik.

Arabako 7 udalek bakarrik jakinarazi digute biktimen omenezko ekimenen bat egin dutela, hau da, Arartekoaren erakundeari informazioa bidali dioten udalen %20k besterik ez. Udal horiek honako hauek dira: Añana, Artziniega, Baños de Ebro/Mañueta, Elciego, Samaniego, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia.

Gainera, erantzun diguten 9 udalek ez dute berariaz zehaztu ea ekimenen bat egin duten ala ez.

**8. TAULA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENAK ARABAN**

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | EZ |
| Amurrio | — |
| Añana | BAI |
| Arraia-Maeztu | EZ |
| Arrazua-Ubarrundia | EZ |
| Artziniega | BAI |
| Baños de Ebro/Mañueta | BAI |
| Barrundia | EZ |
| Elburgo/Burgelu | — |
| Elciego | BAI |
| Elvillar/Bilar | EZ |
| Harana/Valle de Arana | — |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | EZ |
| Iruraiz-Gauna | EZ |
| Kripan | EZ |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | — |
| Lanciego/Lantziego | EZ |
| Lantarón | EZ |
| Laudio/Llodio | — |
| Legutiano | — |
| Moreda de Álava | EZ |
| Okondo | EZ |
| Ribera Alta | EZ |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | EZ |
| Samaniego | BAI |
| San Millán/Donemiliaga | — |
| Urkabustaiz | — |
| Valdegovía/Gaubea | — |
| Villabuena de Álava/Eskuernaga | EZ |
| Vitoria-Gasteiz | BAI |
| Yécora/Iekora | EZ |
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | BAI |
| Zuia | EZ |

**13. GRAFIKOA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Ekimenen bat aurrera eraman duten udal gehienetan zera egin da: udaletxeetako balkoian leloren bat jasotzen zuen pankarta bat jartzea. Gauzak horrela, Arabako Errioxako **Baños de Ebro/Mañueta** eta **Eltziegon** honako pankarta hau jarri dute udaletxeetan: ETA NO/ETA EZ. **Añanako Udalak** ondoko testua jasotzen duen pankarta jarri du: “PAZ ETA NO”. **Artziniegako Udalak** honako lelo hau jasotzen duen pankarta jarri du balkoian: “BAKEA BEHAR DUGU”; **Zigoitiako Udalak**, bestalde, 2001eko azaroaren 21ean ondoko erabakia hartu zuen: *“terrorismoaren kontrako erantzuna eta gizarte sentsibilizazioa biltzeko lelo bat erabiltzea: Bakea eta Askatasuna, ETA ez”*. **Gasteizko Udal**eko osoko bilkurak 2001eko maiatzaren 2an onetsi zuen udaletxeko fatxadan ETA NO-ETA EZ pankarta jartzea; orduz geroztik ikusgai dago lelo hori.

Beste alde batetik, **Samaniegoko Udalak** ETA NO/ETA EZ leloa jarri du bere inprimaki guztietan.

**Vitoria-Gasteizko Udalak** ETAk hirian hildako biktima batzuen izenak erabili ditu zenbait kale eta plaza izendatzeko. Horrela bada, 2000ko martxoaren 2an lorategi bati Jorge Díez ertzainaren izena jarri zion; izan ere, egun batzuk lehenago hil zuten Fernando Buesarekin batera. 2000ko maiatzean Alfonso Parada izena eman zion plaza bati eta urte berean Máximo Casado izena jarri zion lorategi bati; bi horiek ETAren biktimak izan ziren. Era berean, martxoaren 11ko atentatuen omenez, biktimei glorieta baten izena eman zien, “Atxotxako glorieta”, hain zuzen ere.

Arabako hiriburuan atentatuak jasan dituzten ETAren azken biktimak gogoan izateko monolitoak altxatu dira. Arabako unibertsitateko campusean Jorge Díez eta Fernando Buesa oroitzeko monolito bat jarri da, hil egin zituzten tokian bertan. Alfonso Parada eta Máximo Casadoren omenezko monolitoak be jarri dira. Era berean, M-11ko biktimak omentzeko plaka bat ere jarri da.

Nabarmentzekoa da, bestalde, terrorismoaren biktima guztien omenez egindako obra bat, Agustín Ibarrolarena; lan hori 2002an inauguratu zen eta hiriaren sarbidean jarri zuten. Plakek estalitako muin moduko bat da eta bertan terrorismoaren biktima guztien izen-abizenak agertzen dira.

Beste ekimen aipagarria zera izan da: 2007ko martxoan onetsi zen terrorismoaren biktimen omenezko plakak jartzea ETAk hil zituen lekuan bertan. Hartara, guztira 23 plaka jarri dira Vitoria-Gasteizen 1978ko martxotik 2000ko urriaren bitartean hildako 31 pertsonen omenez. Metalezko plaka horiek altzairu herdoilgaitzez eginda daude eta zoruan txertatzen dira atentatua izan zen tokian. Hildako pertsonen izenak agertzen dira, atentatuaren data eta pentsalari baten aipamena (gaztelaniaz edo euskaraz), betiere jakinarazi nahi diren balio demokratikoekin zerikusia duena.

## 4.3. Biktimen omenez aurrera eramandako udal ekimenak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bizkaiko Lurralde Historikoan informazio eskaera bete duten udaletatik 14k baino ez dute biktimen omenezko ekimenik bultzatu, hala nola inprimakietan leloak jartzea, biktimak gogoratzeko kaleei izena jartzea… Horrek esan nahi du Bizkaian Arartekoaren erakundearekin lankidetzan jardun duten 93 udaletatik %15ek baino ez dutela halakorik egin. Udal horiek honako hauek dira: Arrigorriaga, Artea, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Durango, Ermua, Galdakao, Loiu, Mendata, Ortuella, Portugalete, Santurtzi eta Zalla.

Galdera sortari emandako erantzunean, Bizkaiko 60 udalek berariaz aipatzen dute ez dutela inolako ekimenik egin biktimak gogorarazteko; hau da, lurralde historiko honetan Arartekoaren erakundearekin lankidetzan jardun duten udalen %65ek ez dute ekimenik garatu.

Beste udal batzuek (%20) ez dute beren-beregi aipatu ildo horretako ekimenik aurrera eraman duten ala ez; alabaina, ondorioz daiteke ez dutela inolako jarduerarik egin ez baitute halakorik aipatu. Gauzak horrela, udal hauek ekimenik aurrera eraman ez duten erakundetzat hartu dira.

**9. TAULA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENAK BIZKAIAN**

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | EZ |
| Ajangiz | EZ |
| Alonsotegi | EZ |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | EZ* |
| Arrankudiaga | EZ |
| Arratzu | EZ |

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Arrieta | EZ |
| Arrigorriaga | BAI |
| Artea | BAI |
| Artzentales | EZ |
| Atxondo | EZ |
| Bakio | EZ |
| Balmaseda | EZ |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | EZ |
| Basauri | BAI |
| Bedia | EZ |
| Berango | EZ |
| Bermeo | EZ* |
| Berriatua | EZ |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | EZ |
| Derio | EZ |
| Durango | BAI |
| Ea | EZ |
| Elantxobe | EZ |
| Elorrio | EZ |
| Erandio | EZ* |
| Ereño | EZ |
| Ermua | BAI |
| Errigoiti | EZ |
| Etxebarri | — |
| Etxebarria | EZ |
| Fruiz | — |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | EZ |
| Garai | EZ |
| Gatika | EZ |
| Gautegiz Arteaga | EZ |
| Gernika-Lumo | EZ |

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Getxo | — |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | — |
| Güeñes | — |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | EZ |
| Ispaster | EZ |
| Iurreta | — |
| Izurtza | — |
| Karrantza Harana/Valle de Carranza | EZ |
| Lanestosa | — |
| Leioa | EZ |
| Lekeitio | — |
| Lemoa | EZ |
| Lemoiz | EZ |
| Lezama | EZ |
| Loiu | BAI |
| Mallabia | EZ |
| Mañaria | — |
| Maruri-Jatabe | EZ |
| Mendata | BAI |
| Mendexa | EZ |
| Morga | — |
| Mundaka | EZ |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | — |
| Nabarniz | EZ |
| Ondarroa | EZ |
| Orozko | — |
| Ortuella | BAI |
| Otxandio | EZ |
| Plentzia | EZ |
| Portugalete | BAI |
| Santurtzi | BAI |
| Sestao | EZ* |

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Sondika | — |
| Sopelana | EZ |
| Sopuerta | — |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | — |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | — |
| Urduliz | EZ |
| Urduña-Orduña | EZ |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | EZ |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | BAI |
| Zamudio | EZ |
| Zeanuri | EZ |
| Zierbena | — |

* Bestelako biktimak.

**14. GRAFIKOA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Beste udal batzuek, esate baterako Areatzak, Bermeok, Erandiok eta Sestaok jakinarazi digute gerra zibilaren edo frankismoaren biktimak gogorarazteko monumentuak edo monolitoak instalatzeko erabakia hartu dutela edo jadanik halakoak eraiki dituztela. Beste batzuek, adibidez Durangoko Udalak, terrorismoaren biktimen aldeko monumentu bat egin dute eta frankismoaren biktimen alde beste bat altxatu dute.

Frankismoaren biktimen gomuta errespetatzeko ekimenak goresgarritzat hartu arren, txosten hau taxutzeko orduan, ez dira halako ekinbideak kontuan izango; izan ere, bakar-bakarrik hartuko dira aintzat terrorismoaren biktimei zentzu hertsian eskaini zaizkienak.

Ekimenen bat aurrera eraman duten udalen artean, **Galdakaoko Udalak** labur-labur erantzun du jarduketaren bat aurrera eraman duela, baina ez du zehaztu zein jarduketari buruz ari den.

Udal batzuek, kasurako **Artea**, **Loiu** edo **Mendatakoak**, balkoian pankarta bat jarri dute ondoko lelo honekin: "Bakea behar dugu"[2].

**Barakaldoko udalbatzak**, 2001eko apirilaren 26ko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen: *"ETAri EZEZKO biribila ematea, irmo, garbi eta ñabardurarik gabe"*. Era berean, erabakiaren 2. atalean ondokoa eskatzen du: *"eraikin publiko guztietan pankarta bakarra jartzea NO A ETA/ETA EZ leloa erabilita"*. Erabaki hori betetzeko, Barakaldoko Udaleko inprimaki ofizial guztietan, goiko eskuinaldeko alderdian, honako leloa agertzen da: "ETA EZ ETA EZ".

**Bilboko Udalak** kanpaina bat egin du "Bilbo Bakea eta Tolerantzia" leloa erabiliz.

Terrorismoa gaitzesteko leloak onestea pankartetan txertatzeko eta dokumentu ofizialetan jartzeko, sarritan nahiko eztabaidagarria izan da, alderdi politikoek jarrera desberdinak izan baitituzte gaiaren inguruan[3].

**Ermuko Udalak**, halaber, adierazi du *"udalbatzak onetsitako erakunde izaerari buruzko gidaliburuan argi eta garbi azaltzen dela paper ofizial guztietan ETA NO-ETA EZ adierazpidea agertu behar dela"*.

Bizkaian gutxi dira biktimen izenak edo bakearen aldeko balioak kaleetan, plazetan edo kirol instalazioetan erabili dituzten udalak. Gauzak horrela, **Barakaldoko Udalak**, alkatetzaren 2003ko urtarrilaren 28ko dekretu baten bitartez, erabaki zuen herri eremu bati ELKARBIZITZAREN PLAZA/PLAZA DE LA CONVIVENCIA izena ematea *"terrorismoaren biktima guztien omenez, euren oroitzapena aldarrikatzeko eta korporazioak nahiz herri osoak familia horiekin duen elkartasuna adierazteko"*. Horren inaugurazioa 2003ko otsailaren 1ean egin zen eta Barakaldoko terrorismoaren biktimen senideak zein terrorismoaren biktimen elkarteak gonbidatu zituzten.

**Arrigorriagak** bere plazetariko bati "Argalaren Plaza" deritzo, José Miguel Beñaran Ordeñanaren omenez. ETAko buruzagi historiko hau biktima eragilea izateaz gainera,

---

[2] 1997an, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, "BAKEA BEHAR DUGU" ekimena sortu zen. Kanpaina hau gauzatu zen Bizkaiko udal guztiei egindako proposamen baten bidez, betiere kanpainari udal erabakien bitartez atxikitzeko.

[3] Adibide gisa, Barakaldoko Udalean, 2001eko apirilaren 26ko osoko bilkuran, Euzko Alderdi Jeltzalearen udal taldeak osoko emendakina aurkeztu zuen, "BAKEA BEHAR DUGU. ELKARRIZKETA BAI, ETA EZ" leloa proposatuz. Lelo hori gehiengo osoz baztertu zen. Gehiengo soilaz onetsi zen ondoko leloa: "NO A ETA-ETA EZ".

biktima ere izan zen, BVEk erakunde terroristak hil zuelako. Gai honen inguruan aurrerago hitz egingo dugu.

Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5. Epaitegiaren 2009ko urtarrilaren 27ko auto batean, plaza horretako plaka "*berehala*" kentzea agindu zen. Agindua kautelazko neurri gisa hartu zen, Dignidad y Justicia Elkartearen eskaera onartuz. Elkarte horrek beste 14 eskaera aurkeztu ditu beste horrenbeste udalerritan. Plakak "*erreferentzia espresa egiten dio terrorista bati (...). Arrisku argia dago errekurtsogileak, terrorismoaren biktimen duintasuna eragiteari buruz, salatutakoaren eragina benetan jazotzen aritzeko plaka bera existitze soilagatik*". Gogorarazi egiten du pertsonen duintasuna "*orden politikoaren eta gizarte bakearen oinarrietako bat*" bezala konfiguratuta dagoela[4].

**Ermuko Udalak** herriko kiroldegi publikoaren izena eskaini dio Miguel Ángel Blancori.

**Ortuellako Udalak** jakinarazi du udalbatzak erabaki zuela kale eta plazei pertsonen izenik ez jartzea, baina, hala eta guztiz ere, bi plazari ondoko izen hauek jarri dizkietela: "Giza Eskubideen Plaza" eta "Elkartasunaren Plaza".

**Sestaoko Udalaren** udalbatzak 2008ko ekainean erabaki zuen herriko kale do plaza bati "Terrorismoaren Biktimak" izena jartzea[5].

**Zallako Udalak** adierazi du "*gure herriko plaza bati ertzaina zen eta ETAk hil zuen herritar baten izena jarri ziola*".[6]

Bizkaiko udal batzuek terrorismoaren biktimen omenezko monumentuak edo monolitoak eraiki dituzte.

**Barakaldoko Udalak** eskultura bat instalatu zuen, "Gona" izenekoa, terrorismoaren biktimen omenez. Eskultura hau 2003ko otsailaren 1ean inauguratu zen biktimen aldeko omenaldi batean; ekitaldi honetara terrorismoaren biktimen senideak eta elkarteak gonbidatu zituzten.

---

4 Albistea hurrengo helbidean ikus daiteke: http://www.abc.es/20090205/nacional-terrorismo/juez-obliga-alcalde-arrigorriaga-20090205.html.

5 "*Sestaoko udalbatzak PP eta PSEren botoekin eta gainerako talde politikoen abstentzioarekin onetsi du popularren proposamen bat; horren arabera, herriko kale edo plaza bati 'Terrorismoaren Biktimak' izena jartzeko eskatzen zen (…)*

*Mozioan, gainera, ETA, GRAPO, Terra Lliure, muturreko Yihad islamiarra eta M-11ko biktimak aipatzen dira. 'Terrorismoaren Biktimak' kalearen kokapena erabakitzen denean, ekitaldi bat antolatuko da gizarte zibilaren partaidetzarekin eta biktimek jasan behar izan duten aitorpen falta eta askatasunak defendatzeko izan duten zeregin garrantzitsua kontuan hartzeko omenaldia egingo da', betiere mozioaren testuan agertzen denaren arabera*". Sestaoko Udaleko web gunea: www.sestao.net.

6 Txema Agirre ertzainari egiten dio men; ETAK erail zuen Guggenheim museoa zaintzen zebilen bitartean eta hari esker erakunde terroristaren atentatu bat saihestu zen eraikin esanguratsu honen kontra, inaugurazio egunean.

**Basauriko Udalak** eskultura baten diseinua agindu du. Eskultura lan hori herriko erdiko parkeren batean kokatuko da hemendik gutxira; eskulturaren mezu gisa "hitza" terminoa ageri da 60 hizkuntzatan baino gehiagotan idatzita. Herriko terrorismoaren biktimen senideei eskultura honen kopia txiki bat eman zitzaien[7].

**Bilboko Udalak** hiriko terrorismoaren biktimen aldeko eskultura bat instalatu du leku esanguratsu batean (Doña Casilda parkean, hain zuzen ere). Gainera, udalak "bakearen aldeko obelisko bat" jarri du Euskalduna jauregiaren kanpoaldean.

2007ko martxoaren 15ean **Durangoko Udalak** herriko terrorismoaren biktimak omentzeko monolito bat jarri zuen.

**Ermuko Udalak** zehaztu du 2002ko ekainean *"D. M. A. Blanco Garrido bahitu eta ostean erail zutela gogoan izateko ekintzen barruan, Ermuko San Pelaio plazan eskultura bat inauguratu zela terrorismoaren biktimen omenez. Eskultura hori Agustín Ibarrolak sortu eta eman zuen dohaintzan"*.

**Portugaleteko Udalak** erabaki zuen *"herritar guztiei gure herriko biktimak gogoan izateko eta euren omenez erabiltzeko moduko elementu bat eraikitzea"*. Monumentu hau indarkeriaren biktima bati eskainitako parkean (Ignacio Ellacuría) instalatu zen eta harkaitz batek lagundutako magnolia bat da; bertan terrorismoaren biktimak gogoan izateko plaka bat jarri da.

**Santurtziko Udalak** 2007ko martxoaren 29an monolito bat jarri zuen *"terrorismoaren biktima guztiak oroitarazteko"*.

## 4.4. Biktimen omenez aurrera eramandako udal ekimenak Gipuzkoako Lurralde Historikoan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan Arartekoaren erakundeak eskatutako informazio eskera bete duten 61 udaletatik 14k ekimenen bat eraman dute aurrera biktimen omenez; hau da, Gipuzkoan erakunde honekin lankidetzan jardun duten udalen %23k egin dute ildo horretako ekintzaren bat. Udal horiek honako hauek izan dira: Andoain, Astigarraga, Azkoitia, Bergara, Donostia-San Sebastián, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Tolosa, Zarautz eta Zestoa.

Gipuzkoako udal batzuek, hala nola Arrastekoak, gerra zibilaren biktimen omenezko monolitoren bat eraiki dute, EAEko beste udal batzuetan bezala; hala eta guztiz ere, ekimen hori ez da aintzakotzat hartu txosten hau egiteko orduan, horiek ez baitira zentzu hertsian terrorismoaren biktimatzat hartzen.

---

[7] 2009ko otsailaren 7a, Basauriko alkateak *Hitza* eskultura inauguratu zuen terrorismoaren biktimen omenez, Bizkotxalde parkean. Obraren hainbat erreprodukzio entregatu zitzaizkien polizia kidegoetako ordezkariei. 2008ko maiatzean, udalak eskulturaren erreplika bat entregatu zien udalerriko biktima izandako 14 pertsonaren senideei. Eskultura Miguel Antolinek egindakoa da, eta "hitza" terminoa darama hirurogeita hamar hizkuntzatan. Albistea *El País* egunkarian ikus daiteke, *2009ko otsailaren 8ko* alean, Euskal Autonomia Erkidegoko edizioa, 8. or.

Erakunde honek egindako informazio eskaerari erantzunez, udalen %61ek (31 udal) berariaz zehaztu du ez duela aurrera eraman terrorismoaren biktimak oroitzeko inolako ekimenik. Bestalde, udalen %16k (10 udal) ez du adierazi ea horrelako ekimenik gauzatu duen ala ez; nolanahi ere, ez dutela halakorik ondoriozta daiteke, ez baitute zerrendatu ildo honetako inolako jarduerarik.

**10. TAULA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENAK GIPUZKOAN**

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Aia | EZ |
| Alegia | EZ |
| Alkiza | EZ |
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ |
| Andoain | BAI |
| Anoeta | — |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | EZ |
| Arrasate/Mondragón | EZ* |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | BAI |
| Azkoitia | BAI |
| Beasain | — |
| Belauntza | EZ |
| Berastegi | EZ |
| Bergara | BAI |
| Berrobi | EZ |
| Bidegoian | EZ |
| Deba | EZ |
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | BAI |
| Elduain | EZ |
| Elgeta | EZ |
| Elgoibar | BAI |
| Errenteria | BAI |
| Errezil | — |

**Biktimak gogoan izateko ekimenik eraman al da aurrera? Esate baterako jarri al da terrorismoaren kontrako edo biktimen aldeko lelorik inprimakietan, fatxadetan, udal bulegoetan, monolitoetan edo biktimen izenik erabili al da kaleak, plazak edo udal instalazioak izendatzeko?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza | EZ |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | EZ |
| Getaria | EZ |
| Hernani | — |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | BAI |
| Irura | EZ |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | BAI |
| Lazkao | EZ |
| Leaburu | EZ |
| Legazpi | — |
| Leintz-Gatzaga | EZ |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | EZ |
| Olaberria | — |
| Oñati | BAI |
| Orio | EZ |
| Ormaiztegi | EZ |
| Segura | EZ |
| Soraluze-Placencia de las Armas | EZ |
| Tolosa | BAI |
| Urnieta | EZ |
| Urretxu | — |
| Usurbil | — |
| Villabona | — |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | EZ |
| Zestoa | BAI |
| Zizurkil | — |

**15. GRAFIKOA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Gipuzkoan neurriren bat aurrera eraman duten udalek agerian jarri dute, oro har, terrorismoaren biktimekin duten konpromiso handia; hori dela eta, zenbait kasutan, era guztietako jarduketen bidez ekimen batzuk garatu dituzte biktimen presentzia gogorarazteko. Gauzak horrela, Gipuzkoako udal batzuetan pankartak jarri dira udaletxeko balkoian edo herriko toki esanguratsuenetan. Arestian aipatu dugun bezala, kasu honetan ere leloak askotarikoak izan dira: batzuk bakearen aldeko aipamen orokorrak eta beste batzuk ETA erakunde terrorista beren-beregi gaitzestekoak.

**Bergarako Udalak** "BAKEA BEHAR DUGU" leloa jasotzen duen pankarta bat jarrita dauka.

**Donostiako Udalak** pankarta bat dauka udaletxeko fatxadan; pankarta horretan ondoko hauxe aipatzen da: "ETA EZ. Giza Eskubideak eta Bakezko Elkarbizitza. ETA NO. Derechos Humanos y Convivencia en Paz".

**Oñatin**, herriaren izen bereko plazan, musika kioskoan, kartel bat jarri da "BAKEA" lelorekin.

**Tolosako Udalak** ondoko lelo hau onetsi zuen: "PAKEA ORAIN/ETA EZ/ETA NO".

**Elgoibarko Udalak** biktimen omenez abian jarritako ekimena izan zen udal bulegoetan "OTOÑAL GRANDE" izeneko margolana ipintzea.

Gipuzkoako beste udal batzuek monolitoak eraiki dituzte terrorismoaren biktimak oroitzeko.

**Andoaingo Udalak** 2002ko apirilaren 18an onetsi zuen José Luis López de la Calleri monolito bat eskaintzea; lan horretan metalezko "L" letra txertatu zen *"libertatearen aldeko biktima guztiak ordezkatzeko eta oroitzeko"*. Halaber, ETAk 2003an herrian bertan eraildako Joseba Pagazaurtundua, Andoaingo udaltzaingoaren burua, gogoan izateko, eskultura bat instalatu zen herriko berdegune batean.

2007ko martxoaren 28an, **Azkoitiko Udalak** herriko leku garrantzitsu batean inauguratu zuen "Oroimenean" izeneko monolito bat, *"terrorismoaren eta indarkeriaren biktimenen omenez"*.

**Astigarragan** hiru monolito daude: bi GALek eraildako Agustín Irazustabarrena eta Bixente Perurenari eskainiak eta beste bat Batallón Vasco Españolek hildako Tomás Albaren omenez. Agustín Irazustabarrenaren monolitoan ETAren anagrama agertzen zen, baina 2003an ezabatu zuten udalaren erabakiaz.

**Errenterian**, 2006ko abenduan, terrorismoaren biktimen aldeko ekintza bat egin zen; gauzak horrela, *"Bakearen parkean monumentu oroigarri bat instalatu zen"*[8].

**Irungo Udalak** 2003ko apirilaren 14an egin zuen *"biktimen omenezko ekintza bat; hartara, Gernikako Arbolaren plazan biktimak gogoan izateko monolito bat jarri zen eta 'Loa a la Paz' izeneko eskultura"*.

**Zestoan** ere herrian jaio eta terrorismoaren biktimak izandako bi pertsona omentzeko monolitoak jarri dira, herritarrek hala eskatuta: bata, Grupos Antiterroristas de Liberaciónek (GAL) hildako Xabier Etxaide gogoan izateko eta bestea ETAk hildako José Mª Kortaren omenez.

**Eibarren** udalak plaka bat jarri du terrorismoaren biktimen oroimenez.

Zarautzen herriko parkean arbola bat landatu da eta ondoko testua duen plaka bat jarri da: "BAKEA, JUSTIZIA ETA ASKTASUNA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN OMENEZ".

Azkenik, Gipuzkoako udalerri batzuetan biktimen izenak erabili dira kale, plaza edo udal instalazioren bat izendatzeko.

**Andoainen**, esate baterako, herri parke bati "Parque José Luis López de la Calle-José Luis López de la Calle Parkea" izena jarri zaio, askatasunaren aldeko biktima guztiak ordezkatzeko eta oroitzeko.

Kale, plaza edo udal bulegoren bat izendatzeko erabakiak hartzea ez da erraza izan udalerri askotan. Andoaingo Udalak berak adierazi digu 2001ean inauguratu beharreko kultur zentro berriari José Luis López de la Calle izena jartzeko proposamenak ez zuela aurrera egin.

**Donostiako Udaleko udalbatzak** ETAren biktimei zenbait kale eskaintzeko erabakiak hartu izan ditu. Gauzak horrela, kale bati udaleko PPko zinegotzia izandako "Gregorio Ordóñez" izena jarri zion. Hiriko beste kale bat Fernando Múgica Herzog-i eskaini zion; pertsona hau 1978ko lehendabiziko gestora demokratikoko zinegotzi sozialista izan

8 COVITEren "Agravios a las víctimas del terrorismo en el País Vasco. Año 2007" izeneko dokumentuan azaltzen da Errenteriako terrorismoaren biktimak oroitzen dituen monolitoan *"Independentzia, gora ETA"* pintada agertzen dela.

zen eta ETAk hil zuen 1996an. Donostian ere Amara auzoko kultur zentroak "Ernest Lluch" izena dauka, ETAK 2000ko azaroan erraildako eta Donostiarekin lotura handia zuen buruzagi sozialistaren omenez.

**Errenteriako Udalak** zehaztu du *"biktimen oroimena duintzeko asmoz, kultur zentroko erakusketa gela berriari José Luis Caso izena jarri zaiola eta kaputxinoen auzoko parkeari José Luis Zamarreño izena. Pertsona horiek Errenteriako Alderdi Popularreko zinegotziak izan ziren eta ETAk hil zituen euren agintaldian".*

Azkenik, aipatu beharra dago **Lasarteko Udalak**, 2002ko martxoaren 8ko osoko bilkuran, erabaki zuela eraikitzen ari ziren parke berriari "Froilán Elexpe parke botaniko" iriztea, betiere ETAk erraildako zinegotzi sozialistaren oroimenez.

## 4.5. Biktimen omenez aurrera eramandako udal ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoan

Nabarmentzekoa da EAEko 35 udalek (Arartekoarekin lankidetzan jardun duten guztien %19) azaldu duten konpromisoa; udal horiek terrorismoaren biktimen oroimena eta terrorismoaren gaitzespena azaltzeko hainbat ekimen egin dituzte, hala nola udaletxeetan pankartak jartzea, monolitoak eta monumentuak eraikitzea edo terrorismoaren biktimak edo bakearen balioak azpimarratzeko izendapenak erabiltzea plaza, kale edo parketan. Ekimen horiek kontsolagarriak dira terrorismoaren biktimentzat eta euren memoria omentzen laguntzen dute.

Biktimen omenez egindako ekimen horietariko batzuek, hala eta guztiz ere, ez dute kontuan hartu biktimen iritzia edo, kasu batzuetan, ez dira jakinaren gainean egon, nahiz eta neurri horiek eurentzat kontsolagarriak izan edo horietan parte hartzeko aukera izan.

Zenbaitetan biktima batzuk ez daude ekimen horien jakitun, atentatua egin zeneko herritik alde egin dutelako beste leku batean bizitzeko. Batzuetan atentatu terrorista batean erraildako pertsonen senideak topatzeko zailtasunak egon daitezke udalerritik kanpo bizi direlako; batzuek, gainera, zenbait hamarkada daramate herria bizi izan gabe.

Vitoria-Gasteizen duela gutxi izandako jardunaldi batzuetan[9], AVTren fundatzaile eta presidente ohiak bere ustekabea azaldu zuen hirian izandako atentatu terroristen tokietan plakak jarriak zirelako. Hartara, adierazi zuen ez zegoela 2007an hartutako ekimen horren jakitun eta jardunaldietan parte hartzean enteratu berri zela. Bere senarra, Jesús Velasco komandantea eta Arabako Foru Aldundiko miñoi burua, hil zuten tokian plaka oroigarri bat jarri zen. AVTeko buru ohiak adierazi zuen, jakin izan balu, gustura hartuko zuela parte ekimen horretan.

---

9 Aldaketa eta Fernando Buesa Fundazioaren arteko III. Topaketak. "Terrorismoaren biktimen ikuspen sozial eta politikoa. Vitoria-Gasteizen, 2008ko urriaren 23an.

**16. GRAFIKOA:**
**BIKTIMEN OMENEZ AURRERA ERAMANDAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




EAEko hainbat udalek halako ekimen eta neurriak hartu dituzte eta hori pozgarria da; nolanahi ere, ezin dugu inola ere ahaztu gure erkidego autonomoaren udal gehienek ez dutela inola ekimenik aurrera eraman terrorismoaren biktimen oroimena iraunkortasunez omentzeko.

Modu negatiboan baloratu beharra dago atentatu terroristarik izan ez duten edo herritarren artean terrorismoaren biktimarik ez daukaten udalerri askotan horiek omentzeko ekimenik egitea beharrezkotzat jo ez izana. Udal korporazioen konpromisoaren indar sinbolikoak, zalantza izpirik gabe, lagunduko luke terrorismoaren gaitzespen sozial eta politikoa lortzen.

# V. BIKTIMEN OROITZAPENAREN AURKA EGITEN DUTEN, PERTSONEN DUINTASUNA IRAINTZEN DUTEN EDO HERRITARREN ESKUBIDE ZIBIKOAK URRATZEN DITUZTEN PINTADAK EDO KARTELAK EZABATZEKO JARDUKETAK

## 5.1. Biktimen oroitzapena iraintzen duten pintadak edo kartelak ezabatzea. Aurrekariak

Eusko Legebiltzarrak 2003ko ekainaren 25eko erabakian 7. neurria onetsi zuen; neurri horrek ondoko hauxe adierazten du hitzez hitz: *"Eusko Legebiltzarrak administrazio publiko guztiei eskatzen die pintada eta kartelak kendu eta ekitaldi publikoak debekatu ditzatela, biktimen oroitzapenaren, pertsonen duintasunaren edo horien herritar-eskubideen aurkakoak badira"*.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 17 eta 18an onetsitako erabakiaren 3 ñ) idatz zatian berriro ere eskatzen zaie herri administrazio guzti-guztiei *"lanean jarri dezatela pintadak eta kartelak kentzeko"*.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzaren 2an onetsitako Bake eta Bizikidetza Planaren 9. idatz zatian onetsi zuen *"biktimak iraintzen dituzten pintadak eta kartelak kentzea"*. Idatz zati horretan honako hauxe ezartzen da:

> *"…Ondorioz, eta biktimen aurkako irainak eta erasoak galarazteko, eta errespetu, tolerantzia eta bizikidetza baketsuaren kontrako balioak gizartean biderik ez emateko, terrorismoaren biktimen oroimena irain ditzaketen pintadak eta kartelak ez jartzeko etengabe zainduko du Eusko Jaurlaritzak, EUDELekin elkarlanean. Era berean, biktimen duintasuna eraso dezaketen ekitaldi publikoak ere debekatuko ditu.*
>
> *Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, heltzen zaizkion salaketa zehatz guztiei erantzungo die, Eusko Jaurlaritzak, horretarako, irainaren kokalekuari dagokion Udalei helarazi eta, adostutakoaren arabera jarduteko eskatuko die.*
>
> *Toki-administrazioek, horiek gauzatzeko dirua behar izatekotan, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzeko behar beste kontu-sail aurreikusiko ditu aurrekontuan".*

EUDELeko buruak 2006ko abenduaren 14an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean egindako agerraldian, oposizioko alderdiek hartu zuten parte gure udalerrietan biktimentzat iraingarriak diren pintadak eta kartelak daudelako. Pintadak eta kartelak kentzeari dagokionez, alderdi popularreko ordezkariak ondoko hauxe planteatu zuen: *"ea benetan dakiten ea pintadak eta kartel horiek kentzen ari diren; izan ere, herritarrok, EAEko udalerrietatik zehar pasatzen garenean, oraindik ere ikusten dugu kartel eta pintada mehatxatzaile horiek bere horretan jarraitzen dutela"*. Talde sozialistako ordezkariak ere eskatu zien *"udal guztiei, bereziki batzuei, kartelak eta pintadak kentzeko"* eta zehaztu zuen *"udal batzuek ekintza hauek aurrera eramateko izan ditzaketen zailtasun ekonomikoak gainditzeko, Jaurlaritzak edo aldundiek lagun dezaketela"*. Halaber, gaineratu zuen *"leku askotan arazo ikaragarria dela biktimek jasan behar izatea erraildako pertsonaren, haren senideen edo lagunen kontrako pintada guztiz iraingarriek sortzen duten mina"*.

Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5 eta 17an egindako osoko bilkuran ebazpen batzuk onetsi zituen terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak betetzeari dagokionez. Zehatzago, hamaikagarren ebazpenak ondoko hauxe adierazten du:

> *"Eusko Legebiltzarrak udalei eskatzen die areagotu ditzatela gure herrietako kale eta plazetatik terrorismoaren biktimak iraintzen eta umiliatzen dituzten pintadak eta kartelak desagerrarazteko ahaleginak; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatu ahal izango dute.*
>
> *Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2005eko otsailaren 17ko erabakiaren 2ñ puntua betearazteko; puntu horretan toki erakundeei zuzendutako diru laguntzak aurreikusten dira, pintadak, kartelak eta abar kentzeko lanari aurre egiteko orduan".*

Gainera, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b) artikuluak, biktimek duintasunerako duten eskubidea arautzen duenak, eskatzen du *"bereziki jokatzeko mota horretako pintaden eta kartelen kontra"*.

Sarri askotan biktimek eurek beren lekukotza eta adierazpenetan erakutsi dute guztiz iraingarri eta mingarria zaiela euren hiri eta herrietako hormetan ikustea kartel eta pintada mehatxatzaileak eta terrorismoa edo terroristak goraipatzen dituztenak. Ildo honi jarraituz, Fernando Buesaren alargunak, Natividad Rodríguezek, "Corazones de hielo" filmean kontatzen du, bere senarra hil eta egun gutxira" bere garajearen sarreran ondoko pintada zegoela: "ETA mátalos". Zenbait kasutan, gainera, pintadak atentatu terrorista bat iragartzen zuten atariko mezuak ziren eta biktimaren gizarte gaitzespena lortzen laguntzen zuten.

Ama batek ondoko esaldi adierazgarria egin zuen ETAk hildako bere semearen inguruan: *"Ez zegoen mehatxatuta. Ez zuen pintadarik ez bestelakorik izan"*[10].

Maiz biktimen senideek irainak jasan behar izan dituzte; izan ere, kusi behar izan dute nola jarraitu duten biktimen oroitzapena gutxiesten dei telefonikoen, anonimo edo pintaden bitartez.

Caty Romerok honakoa kontatzen du: *"Etxe aurrean pintadak izan ditut, behin baino gehiagotan. Horman ere margotu didate 'Morcillo, jódete'"*. Cristina Cuestak gogora ekarri du, Gipuzkoako gobernadore militarren kontrako atentatuaren ondoren (atentatuan Rafael Garrido, emaztea, seme bat eta oinezko bat hil ziren), *"Donostiako Filosofia Fakultateko Areto Nagusian, denbora tarte luze-luzean jasan behar izan zutela ekintza publiko eta pribatuetan ondoko pintada hau: 'La familia Garrido se fue como el humo de las velas'. Alboko sarreraren aurrean, izugarrikeria hau ikustea bidegabekeriarik latzenari egindako monumentu bat ikustea bezalakoa zen. Ez zen nahikoa erailtzea, familia bereko hiru pertsonen eta langile portuges baten erailketaren aurrean sorgorrarena egitea. Hori ez zen aski, ez, beharrezkoa zen besteen minaz barre egitea"*[11].

Alfredo Tamayo irakasle jesuitak zehaztu du lotsa sentitzeko betebeharra daukagula *"betiere eraildako pertsona berriro ere erailtzeko saiakera zoro horregatik, Gregorio Ordóñezen kasuan, bere hilobia profanatuz, edo Andoaingo kaleetan tiroz hildako José Luis López de Lacalleren kasuan bere etxeko hormetan 'José Luis, jódete' idatziz edo biktimaren alargunari deituz eta 'Estas navidades, turrón de la viuda' esanez"*[12].

Erakundeek pintada eta kartel mota hauek kentzeko hartutako konpromisoa gorabehera, oraindik ere EAEko herri askoren eguneroko errealitatearen zati dira. Horrek eragin du Eusko Legebiltzarrak 2008ko urriaren 1ean ebazpen bat onetsi izana EAEko udaletan biktimen oroitzapenari buruzko ebazpena betetzeari dagokiona; ebazpen horretan ondoko hauxe adierazten da besteak beste: *"Eusko Legebiltzarrak oso aintzat hartzen du kartelak, pintadak eta terrorismoa goraipatzen duten eta biktimen oroitzapena iraintzen duten ikur guztiak berehala eta sistematikoki kentzen dituzten udalen*

---

[10] Cristina Cuesta. *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo.*

[11] Cristina Cuesta. *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo.*

[12] Alfredo Tamayo Ayestarán. *Siempre a vuestro lado*. 124. or. SBDS Editores.

*lana, eta hori egiten ez duten udal guztiei eskatzen die 2007ko urriaren 5eko osoko bilkurak onetsitako hamaikagarren ebazpena betetzeko"*[13].

Luisa Etxenike idazleak, "Spray violento" izeneko artikuluan, argi adierazten du zein izan den pintada eta kartel horiekin bizitzeko egunerokotasunaren perbertsioa:

> *"… el Parlamento vasco acaba de aprobar una resolución en la que insta a los ayuntamientos que aún no lo hacen a borrar las pintadas y a retirar de sus lugares públicos los carteles que ensalcen el terrorismo y humillen a sus víctimas. Hay tragedias personales y sociales que caben enteras en muy poco espacio, que se resumen en signos o manifestaciones de tamaño mínimo: como en esas tres letras del adverbio aún. Todavía hay lugares en Euskadi donde este tipo de pancartas o mensajes no se retiran. Y todavía hay lugares en Euskadi donde aunque se retiran vuelven a aparecer, sistemática o puntualmente, con motivo de fiestas o conmemoraciones públicas; lo que equivale a decir que aún hay gente dispuesta a rescribirlas sobre las fachadas más visibles, con todo lo que eso supone en el terreno de las intenciones y los efectos.*
>
> *Pero una cosa son las fachadas de los edificios y otra, el interior de las personas. Una cosa es lo que se pinta sobre una pared dura y fija, y otra muy distinta los efectos de esas pintadas por dentro, en el blando terreno del dentro: las adherencias o adhesiones que provocan en las mentalidades y los sentimientos personales y sociales. Entiendo que lo más grave de esas pintadas no son sus efectos anti-ético-estéticos más visibles, sino los que producen en el fuero interno de quienes las realizan (muchas veces teledirigidamente) y de quienes, por proximidad, respiran las partículas de esa pintura tóxica, de ese spray violento; de quienes las han respirado durante muchos años. Que ya son decenios, es decir, vidas enteras de muchos adolescentes y jóvenes que no han conocido otra decoración urbana; que han crecido aceptando, como normal, porque habitual era, las pintadas violentas, los mensajes amedrentadores en las calles o presidiendo las fiestas (a veces suspendidos de las fachadas más principales de sus municipios). O las reivindicaciones de unos acaparando y apabullando el espacio de todos. Esto ha sido en Euskadi durante demasiado tiempo lo habitual y por ello ha podido verse por algunos como lo normal, e incluso como lo deseable".*

## 5.2. <u>Biktimentzat iraingarriak diren pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak Arabako Lurralde Historikoan</u>

Arabako Lurralde Historikoko 16 udalek adierazi dute ez dutela jarduketarik aurrera eraman biktimen oroitzapena iraintzen duten pintadak edo kartelak kentzeko; hau da, Arartekoaren erakundeak eskatutako informazio eskaerari erantzun dioten udalen %46k aipatu dute ez dutela halako jarduketarik egin. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 16 horietatik 12k aipatu dutela ez dutela halakorik egin behar izan, euren udalerrietan ez dagoelako mota horretako pintada edo kartelik.

Bestalde, 12 udalek (parte hartu dutenen %34) adierazi dute pintada edo kartel iraingarriak kentzeko jarduketak egin dituztela.

---

[13] *El País*, EAEko edizioa. 2008ko urriaren 6an.

Erakunde honekin lankidetzan jardun duten udalen %20k ez dute gai honi buruzko argibiderik eman.

**11. TAULA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETAK ARABAN**

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | BAI |
| Amurrio | BAI |
| Añana | BAI |
| Arraia-Maeztu | — |
| Arrazua-Ubarrundia | EZ |
| Artziniega | BAI |
| Baños de Ebro/Mañueta | EZ* |
| Barrundia | — |
| Elburgo/Burgelu | EZ* |
| Elciego | — |
| Elvillar/Bilar | EZ* |
| Harana/Valle de Arana | — |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | BAI |
| Iruraiz-Gauna | EZ* |
| Kripan | EZ* |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | BAI |
| Lanciego/Lantziego | EZ* |
| Lantarón | EZ* |
| Laudio/Llodio | — |
| Legutiano | — |
| Moreda de Álava | EZ* |
| Okondo | EZ* |
| Ribera Alta | BAI |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | BAI |
| Samaniego | EZ* |
| San Millán/Donemiliaga | — |
| Urkabustaiz | BAI |
| Valdegovía/Gaubea | BAI |
| Villabuena de Álava/Eskuernaga | EZ* |

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | BAI |
| Yécora/Iekora | EZ* |
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | BAI |
| Zuia | EZ |

* Ez dago halakorik.

**17. GRAFIKOA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Aipatzekoa da arlo honetan jardun ez duten udal gehienek adierazi dutela euren udalerrietan ez dagoela pintada edo kartel mehatxatzailerik. Kasuren batean zehazten da herrian "*zorionez*" ez dagoela pintadarik ez kartel iraingarririk. Hona hemen hori adierazi duten udalak: Baños de Ebro/Mañueta, Elburgo/Burgelu, Elvillar/Bilar, Iruraiz-Gauna, Kripan, Lanciego/Lantziego, Lantarón, Moreda de Álava, Okondo, Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga eta Yécora/Iekora, guzti-guztiak Arabako herri txikiak.

Arrazua-Ubarrundia, Kuartango, Zalduondo o Zuiako udalek adierazi dute ez dutela pintadak kentzeko jarduketarik aurrera eraman, baina ez dute adierazi zein den hori ez egiteko arrazoia.

Arraia-Maeztu, Barrundia, Elciego, Harana/Valle de Arana, Laudio/Llodio, Legutiano eta San Millán/Donemiliagako udalek ez dute gai honi buruzko aipamenik egin; beraz, ez dago jakiterik udalerri horietan pintada iraingarririk dagoen ala ez eta, halakorik egonez gero, udalek nola jokatzen duten.

Azkenik, **Alegría-Dulantzi**, **Amurrio**, **Añana**, **Artziniega**, **Iruña Oka/Iruña de Oca**, **Lagrán**, **Ribera Alta**, **Ribera Baja/Erribera Beitia**, **Urkabustaiz**, **Valdegovía/Gaubea**, **Vitoria-Gasteiz** eta **Zigoitiako udalek** adierazi dute pintada eta kartel iraingarriak kentzeko jarduketak egiten dituztela. Zenbait kasutan, zehaztu da ezabatze hori *"maiztasunez", "agertu ahala", "berehala", "horien berri izan dutenean"*… egiten dela. Erantzun askotan azaltzen da udal langileek kentzen dituztela pintadak.

**Vitoria-Gasteizko Udalak** jakinarazi du *"2006ra arte Hiri eta Etxebizitza Berritzeko Udal Agentziaren eskumena zela kartelak eta pintadak kentzeko eskumena; horretarako, horien kontrola egiten zen egunero eta erabateko lehentasuna ematen zitzaien herritarren eskubideen kontra egiten zuten pintadei; gaur egun, lan hori Ingurumen Sailaren eskumena da"*.

Gasteizko Udaleko Ingurumen Sailak zehaztu du *"hondakinak garbitu eta jasotzeko emakidaren bitartez pintadak garbitzeko urteko zerbitzua ematen da. Talde horren zeregina da garbitasunari buruzko ordenantza betetzen ez duten eduki edo ildo politikoko pintadak garbitzea"*. Era berean, erantsi dute *"zerbitzuaren kostua 134.604,16 eurokoa dela urtean, 2006ko prezioak kontuan hartuta"*.

Horrenbestez, oro har, ikusten da Arabako udal gehienetan ez dagoela halako kasuetan jarduteko jarraibiderik; era berean, ez dago jarduteko plan zehatzik, eta aurrekontuan ez da zerbitzu hori emateko partidarik gordetzen, oso garestia delako.

## 5.3. Biktimentzat iraingarriak diren pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bizkaiko Lurralde Historikoan 37 udalek beren-beregi aipatu dute biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak egin dituztela; hau da, guztira Arartekoaren erakundeari informazioa bidaliko dioten udal guztien %40k egin dute jarduketaren bat arlo honetan.

Bestalde, Bizkaiko 29 udalek jakinarazi digute ez dutela jarduketarik abian jarri biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten pintadak edo kartelak kentzeko; esan nahi baita, gure informazio eskaerari erantzun dioten udalen %31k ez dute halako zereginik bete.

Azpimarratzekoa da udal horietatik 13k jakinarazi digutela ez dutela inolako jarduketarik aurrera eraman, euren herrietan ez dagoelako biktimen oroitzapena iraintzen duen pintada edo kartelik.

Azkenik, 27 udalek ez dute berariaz jakinarazi ea herrietan terrorismoaren biktimentzat laidogarriak diren pintadak edo pankartak kentzen dituzten ala ez.

## 12. TAULA:
## BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETAK BIZKAIAN

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | BAI |
| Ajangiz | — |
| Alonsotegi | EZ |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | EZ* |
| Arrankudiaga | EZ* |
| Arratzu | EZ |
| Arrieta | EZ* |
| Arrigorriaga | — |
| Artea | BAI |
| Artzentales | EZ* |
| Atxondo | EZ |
| Bakio | BAI |
| Balmaseda | BAI |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | BAI |
| Basauri | — |
| Bedia | — |
| Berango | BAI |
| Bermeo | BAI |
| Berriatua | BAI |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | EZ |
| Derio | BAI |
| Durango | — |
| Ea | EZ* |
| Elantxobe | EZ* |
| Elorrio | — |
| Erandio | — |
| Ereño | EZ* |
| Ermua | BAI |
| Errigoiti | EZ* |
| Etxebarri | — |
| Etxebarria | BAI |

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Fruiz | — |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | BAI |
| Garai | EZ* |
| Gatika | BAI |
| Gautegiz Arteaga | EZ* |
| Gernika-Lumo | BAI |
| Getxo | BAI |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | — |
| Güeñes | BAI |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | — |
| Ispaster | — |
| Iurreta | — |
| Izurtza | — |
| Karrantza Harana/Valle de Carranza | BAI |
| Lanestosa | — |
| Leioa | BAI |
| Lekeitio | — |
| Lemoa | EZ |
| Lemoiz | BAI |
| Lezama | BAI |
| Loiu | BAI |
| Mallabia | EZ* |
| Mañaria | — |
| Maruri-Jatabe | BAI |
| Mendata | EZ* |
| Mendexa | EZ |
| Morga | — |
| Mundaka | BAI |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | — |
| Nabarniz | EZ* |
| Ondarroa | BAI |
| Orozko | BAI |

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Ortuella | BAI |
| Otxandio | — |
| Plentzia | EZ |
| Portugalete | — |
| Santurtzi | BAI |
| Sestao | BAI |
| Sondika | — |
| Sopelana | BAI |
| Sopuerta | — |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | — |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | — |
| Urduliz | BAI |
| Urduña-Orduña | BAI |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | BAI |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | BAI |
| Zamudio | BAI |
| Zeanuri | EZ |
| Zierbena | — |

* Ez dago halakorik.

**18. GRAFIKOA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**



Horrela, ondoren zerrendatzen diren udal hauek ez dute euren erantzunetan aipatu pintadak edo kartelak kentzeko jarduketarik egiten duten ala ez; hala ere, kasu askotan, uler liteke arlo honetan ez dela inolako jarduketarik aurrera eramaten. Udal horiek ondokoak dira: Ajangiz, Arrigorriaga, Basauri, Bedia, Durango, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Gorliz, Igorre, Ispaster, Iurreta, Izurtza, Lanestosa, Lekeitio, Mañaria, Morga, Muskiz, Otxandio, Portugalete, Sondika, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Ubide, Ugao-Miraballes eta Zierbena.

Abadiño, Alonsotegi, Amoroto, Arratzu, Atxondo, Busturia, Galdames, Gordexola, Ibarrangelua, Lemoa, Mendexa, Murueta, Plentzia, Sukarrieta, Zaldibar eta Zeanuriko udalek adierazi dute ez dutela inolako jarduketarik aurrera eraman pintada horiek ezabatzeko. Hala eta guztiz ere, Areatza, Arrankudiaga, Arrieta, Artzentales, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Garai, Gautegiz Arteaga, Mallabia, Mendata eta Nabarnizko udalek azaldu dute euren herrietan ez dagoela biktimen oroitzapena iraintzen duen pintada edo kartelik.

Pintadak kentzen jarduten duten udalen artean, batzuek, esaterako **Artea**, **Galdakao**, **Gamiz-Fika**, **Gatika**, **Leioa**, **Lezama**, **Maruri-Jatabe**, **Mundaka**, **Ondarroa** eta **Urdulizko** udalek jakinarazi dute pintadak kentzen jarduten dutela, baina ez dute horri buruzko argibide gehiagorik eman.

**Balmasedako Udalak** adierazi du *"bide garbiketari buruzko ordenantzak herri bideetako kartelak eta propaganda kentzeko betebeharra ezartzen duela"*.

**Barakaldoko Udalak** baieztatu du *"udal zerbitzuek zaintzen dutela hormetan, lurrean, hesietan… biktimen oroitzapena iraintzen duen edo senideen nahiz herritarren duintasunari kalte egiten dion pintadarik, kartelik eta abarrik ez egotea…"*

**Barrikan** adierazi dute mota horretako pintada edo kartelen bat egon dela eta halakoetan *"beherehala kendu dela, hori gutxitan gertatu den arren"*.

**Berangoko Udalak** azpimarratu du herrian *"pintada mota horiek garbitzeko betebeharra"* dutela; izan ere, herriko garbiketaz arduratzen den enpresarekin sinatutako kontratuan halaxe jasotzen da.

**Berriatuko Udalak** pintadak garbitu eta kartelak kentzen ditu toki publikoetan, bai eta pribatuetan ere, jabeek horretarako baimena ematen badute.

**Bilboko Udalak** zehaztu du *"obra eta zerbitzu atalak ildo horretako ekintza zehatzak egin dituela"*. Halaber, jakinarazi du *"Aste Nagusiaren testuinguruan mota horretako kartelak kendu direla"*.

**Derioko Udalak** honako neurri hau hartu du: *"pintada politikoak dituzten hormak pintatzea eta batez ere herritarren duintasunaren aurka egiten duten pintadak ezabatzea"*.

**Ermuko Udalak** jakinarazi du *"Debabarreneko Mankomunitatearekin bat (erakunde hori arduratzen da eguneroko garbiketaz), herrian egiten diren pintadak edo kartelak berehala kentzen edo garbitzen dira"*.

**Gernikako Udalak** dio *"pintada edo kartel horiek sarri-sarri kendu ohi direla, eta horretaz udalak kontratatutako enpresa arduratzen da"*.

**Getxoko Udalak** *"kontratatuta dauka herritik zehar egunero bi irteera egiten dituen lan talde zehatza, betiere pintada edo kartel mehatxatzaile, iraingarri edo laidogarriak antzemateko eta ezabatzeko"*.

**Güeñesko Udalak** ere baieztatu du pintada eta kartel hauek *"beherehala"* ezabatzen dituela.

**Karrantza Haraneko Udalak** pintadak kentzen ditu, *"jarduketa horiek beharrezkoak diren bakoitzean"*.

**Lemoizko Udalak** ere adierazi du pintadak kentzen dituela *"halakorik izaten denean"*.

**Loiuko Udalak** *"sistematikoki kentzen ditu biktimen oroitzapenari kalte egiten dioten pankartak, halakoen berri izaten duenean"*.

**Orozkoko Udalak** pintadak ezabatzeaz gain, *"Ertzain etxera jotzen du, gertakari horiek salatzeko"*.

Halaber, **Ortuellako Udalak** zehaztu du *"herri bideen garbiketa arautzen duten baldintza teknikoen agiriak era guztietako pintadak ezabatzea jasotzen duela"*.

**Santurtziko Udalak** ere adierazi du *"herri bidetik era guztietako pintadak eta kartelak kentzeko zerbitzua indartu duela eta erabateko lehentasuna eman diola pertsonen duintasunaren eta herritarren eskubide zibikoen kontrako elementuak kentzeari"*.

**Sopelako Udalak** baieztatu du *"jarduketa ugari egin dituztela pertsonak eta erakundeak mehatxatzen dituzten pintada, kartel eta pankartak kentzeko"* eta udalak jarduketa horiekin jarraitzeko duen borondatea berresten du; izan ere, *"zoritxarrez era horretako gertakariak sarritan izaten dira Sopelanan"*.

**Bakioko Udalak** pintadak *"berehala"* kentzen dituela adierazi du; **Urduñakoak** *"horiek egin eta handik gutxira"*; **Trapagarangoak** *"maiztasunez eta ahalik eta azkarren"*; **Zallakoak** *"jarduketa horien jarraipen etengabea"* egiten du; eta **Zamudiokoak** *"maiztasunez"*.

## 5.4. Biktimentzat iraingarriak diren pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak Gipuzkoako Lurralde Historikoan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan erakunde honekin lankidetzan jardun duten udaletatik 32k adierazi dute biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak egiten dituztela; hau da, guztira informazio eskaera bete duten udalen %52.

Aitzitik, Gipuzkoako 15 udalek zehaztu dute ez dutela ildo honetako jarduketarik gauzatzen, hau da, txosten hau egiteko eskatutako informazioa bete duten udalen %25ek. Azken horietatik, 3k jakinarazi dute ez dutela halakorik egin euren herrietan ez dagoelako pintada edo kartel iraingarririk.

Bestalde, 14 udalek ez dute ez baietz ez ezetz adierazi gai honen inguruan; hau da, informazioa bidali duten udal gipuzkoarren %23k ez dute argibiderik eman arlo honi buruz.

**13. TAULA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETAK GIPUZKOAN**

| Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da? GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Aia | — |
| Alegia | — |
| Alkiza | EZ |
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ* |
| Andoain | BAI |
| Anoeta | BAI |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | — |
| Arrasate/Mondragón | BAI |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | BAI |
| Azkoitia | — |
| Beasain | — |
| Belauntza | BAI |
| Berastegi | BAI |
| Bergara | BAI |
| Berrobi | — |
| Bidegoian | — |
| Deba | BAI |
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | BAI |
| Elduain | BAI |
| Elgeta | — |
| Elgoibar | BAI |
| Errenteria | BAI |

**Biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten, pertsonen duintasuna iraintzen duten edo herritarren eskubide zibikoak urratzen dituzten pintadak edo kartelak ezabatzeko jarduketarik egin al da?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Errezil | BAI |
| Eskoriatza | BAI |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | EZ* |
| Getaria | BAI |
| Hernani | — |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | BAI |
| Irura | BAI |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | BAI |
| Lazkao | BAI |
| Leaburu | BAI |
| Legazpi | BAI |
| Leintz-Gatzaga | — |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | BAI |
| Olaberria | — |
| Oñati | BAI |
| Orio | BAI |
| Ormaiztegi | EZ |
| Segura | BAI |
| Soraluze-Placencia de las Armas | BAI |
| Tolosa | BAI |
| Urnieta | — |
| Urretxu | BAI |
| Usurbil | — |
| Villabona | — |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | BAI |
| Zestoa | EZ* |
| Zizurkil | BAI |

* Ez dago halakorik.

**19. GRAFIKOA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Ondoren zerrendatzen diren udalek berariaz adierazi dute ez dutela aurrera eraman terrorismoaren biktimen oroitzapena irain dezaketen pintadak edo kartelak ezabatzeko inolako jarduketarik. Udal horiek ondorengoak dira: Alkiza, Altzaga, Arama, Asteasu, Gabiria, Hernialde, Idiazabal, Ikaztegieta, Itsasondo, Larraul, Mendaro eta Ormaiztegi.

Altzo, Gaintza eta Zestoako udalek aipatu dute ez dutela halakorik abian jartzen, euren herrietan ez dagoelako mota horretako kartelik edo pintadarik.

Bestalde, udal batzuek ez dute berariazko azalpenik eman gai honen inguruan; hona hemen udal horiek Aia, Alegia, Aretxabaleta, Azkoitia, Beasain, Berrobi, Bidegoian, Elgeta, Hernani, Leintz-Gatzaga, Olaberria, Urnieta, Usurbil eta Villabona.

Pintaden kontra jarduten dutela adierazi duten udalen artean, batzuek, esaterako **Anoeta**, **Astigarraga**, **Deba**, **Elgoibar**, **Eskoriatza**, **Irura**, **Getaria**, **Lazkao**, **Leaburu**, **Mutriku**, **Segura** eta **Zizurkileko** udalek, horrelakoetan jarduten dutela esan dute, jarduketei buruzko datu gehiagorik eman gabe.

Beste udal batzuek pintadak berehala kentzen dituztela adierazi dute, baina nahiko modu zehaztugabean. Gauzak horrela, de **Belauntza**, **Berastegi**, **Elduain**, **Irun**, **Tolosa** eta **Zarauzko** udalek *"berehala"* edo *"azkar"* jokatzen dutela esan dute, bai eta **Errezil** nahiz **Orio**ko udalek ere.

**Errenteriako Udalak** aipatu du garbiketa zerbitzuek pintadak eta kartelak *"ahalik eta azkarren"* kentzeko aginduta dutela; **Urretxukoak** *"ahal denik eta azkarren"* eta Legazpikoak *"hori gertatu dela jakin eta berehala"*.

Gipuzkoako beste udal batzuek oso konpromiso zehatzak hartzen dituzte pintadak eta kartelak kentzeko. Horrela bada, **Andoaingo Udalak** adierazi digu *"gure herrian pintadak eta kartelak kentzeko jarduketak etengabe izaten direla. Normalean udaltzaingoa izaten da pintada eta kartelen zerrendaren berri ematen du herrian egiten*

*dituzten ohiko ikuskapenen bidez. Zerrenda hori Zerbitzu Atalari jakinarazten zaio eta ataleko lan taldeak astelehenero horiek kentzeko zereginari heltzen dio. Kartelak edo pintadak pertsonentzat guztiz iraingarriak badira edo pertsona zehatzen kontrakoak badira, berehala kentzen dira. Hori guztia horrela egiten da, udalbatzak 2002ko maiatzaren 30eko bilkuran halaxe erabaki zuelako".*

**Donostiako Udalak**, bere aldetik, jakinarazi digu *"Donostiako Udalak kontratatutako garbiketa zerbitzuek pankartak, kartel edo pintadak ezabatzen edo kentzen dituztela pertsonen eta alderdi politikoen duintasunaren eta biktimen oroitzapenaren kontrakoak direla dakiten unetik aurrera, betiere 12 ordutik beherako epean, mezu horiek irakurtzeko modurik egon ez dadin. Horiek guztiak ezabatzen dituzte, posibilitateen barruan (horiek egiteko materiala, garbiketako langileei erasorik ez egiteko arriskua eta abar) 48ko orduko epean. Jarduketa mota hauetaz arduratzen diren 3 talde zehatz daude. Batez beste urtean era guztietako 20.000 pintada inguru ezabatzen dira".*

**Eibarko Udalak** ere jarduketa protokolo zehatza dauka kasu hauetarako. Bere idazkian jakinarazi digunez, *"udal honen araua da, biktimen kontra egiten duen, herritarren eskubide zibikoei kalte egiten dien edota terrorismoa edo antzekoak goresten dituen pintada edo kartelen bat aurkituz gero, gertakari horien berri ematen zaio herri bideen garbiketaren ardura duen Debabarreneko Mankomunitateari, pintada edo kartel horiek segituan ken ditzaten. Azpimarratzekoa da eraginkortasuna handi-handia dela, horiek guztiak berehala kentzen baitira".*

**Lasarteko Udalak** baieztatu du *"24 ordutik beheragoko epean kentzen direla terroristen aldeko pintada mehatxatzaile guzti-guztiak".*

Azkenik, **Soraluzeko Udalak** aipatu du udal horrek *"herri bideak hilero mantentzeko zerbitzua kontratatuta daukala eta zerbitzu horren barruan pintadak edo kartelak kentzeko lana sartzen dela. Gainera, udal korporazioak, osoko bilkurak halaxe erabakita, garbiketa hori gehienez ere 24 orduko tartean egitea ebatzi zuen, baldin eta alderdi politikoen egoitzetan egindako kartel edo pintadak izaten baziren".*

## 5.5. Biktimentzat iraingarriak diren pintadak edo kartelak kentzeko jarduketak Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoan 81 udalek adierazi dute biktimen oroitzapenaren aurka egiten duten, pertsonen duintasuna urratzen duten edo euren eskubide zibikoei kalte egiten dieten pintadak eta kartelak kentzeko jarduketak eramaten dituztela aurrera.

Aitzitik, 60 udalek zehaztu dute ez dutela pintada edo kartel horiek ezabatzeko jarduketarik egiten. Zorionez, EAEko udal askok aipatu dute ez dutela pintada edo kartel iraingarririk kendu behar izan, euren herrietan halakorik jartzen ez delako.

Azkenik, EAEko 48 udalek ez dute adierazi pintadak kentzeko eta ezabatzeko jarduketarik egin duten ala ez.

**20. GRAFIKOA:**
**BIKTIMENTZAT IRAINGARRIAK DIREN PINTADAK EDO KARTELAK KENTZEKO JARDUKETEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




Datu horietatik ondoriozta dezakegu biktimentzat iraingarriak diren pintadak eta kartelak ez direla berdin egiten ez hiru lurralde historikoetan, ez eta EAEko udalerri guztietan ere. Poztasunez esan daiteke asko direla horrelako ekintzarik jasan behar ez duten herriak; horrenbestez, ez dute arlo honetan esku hartu behar izan. Gainera, azken herri horietariko askotan sekula ez da atentatu terroristarik izan eta, beraz, ez dago terrorismoaren biktimarik.

Hala eta guztiz ere, zoritxarrez EAEko beste herri eta hiri batzuetan erruz izaten dira pintadak eta kartelak; esan daiteke horiek "eguneroko hiri paisaia"ren zati direla. EAEko udalerri askotan pertsonak, erakundeak edo alderdi politikoak mehatxatzen dituzten edo jarduera terroristaren apologia egiten duten pintadek hilabeteetan irauten dute edo urteetan. Kasu batzuetan, biktimenganako sentsibilitate faltagatik edo, besterik gabe, ETAren helburuekin bat etortzeagatik edo beldurragatik edo baliabide ekonomiko faltagatik, etengabeko bidegabekeria eta irain hori, hau da, kartel eta pintadak horiek ikustea, jasan beharra dago.

EAEko udal batzuek, aipatu dugun bezala, pintada eta kartel horiek ezabatzeko egiten dituzten jarduketen berri eman digute. Beste batzuek, ordea, argi onartzen dute ez dutela jarduketarik batere egiten edo ez dute gai honi buruzko aipamenik egiten.

EAEko udalek emandako datuen artean, zenbaki batzuk azpimarratzea komeni da, zalantzarik gabe.

Nekez zehatz daiteke zein den pintada kopurua eta zein arazotsua den horiek kentzea, baldin eta, geroago (askotan gertatzen den bezala) bestelako pintadak agertzen badira.

Donostiako Udalak adierazi du batez beste hirian *"era guztietako 20.000 pintada"* kentzen direla urtean; horrek iradokitzen digu pintada horiek ez direla mota honetakoak bakarrik.

Beste datu kuantitatibo garrantzitsu bat Gasteizko Udalak ematen du; izan ere, *"eduki politikoko pintadak"* ezabatzeko zerbitzuaren kostua "urtean *134.604,16 eurokoa da, 2006ko prezioa aintzat hartuta"*.

Datu horietatik ondoriozta dezakegu pintada kopurua oso handia izan daitekeela eta horiek kentzeko zerbitzuen kostua oso garestia.

Donostiako Udalak emandako informazioari esker lortu dugun baina eskuarki azaltzen ez den beste informazio jakingarri bat honakoa da: pintadak kentzeko edo zeintzuk pintada eta kartel ezabatu behar diren erabakitzeko ardura dutenen kontrako eraso arriskua. Donostiako Udalak zera adierazi du: horiek guztiak *"posibilitateen arabera"* kentzen dituztela eta horretarako eskuartean darabilten aldakietariko bat da *"garbiketako langileek jasan dezaketen eraso arriskua"*.

2008ko otsailean komunikabideek jaso zuten Errenteriako herri bideen garbiketa adjudikatuta duten enpresaren langileen aldagelan anonimo mehatxatzaile bat agertu zela; anonimo horretan *"beharrezko neurriak"* hartuko zirela mehatxatzen zen, langileek pankartak eta kartelak kentzen bazituzten. Enpresa esleipendunaren bozeramaile batek adierazi zuen langileak *"batzuetan egoera korapilatsuetan"* sartuak zirela, pintadak ezabatzen zituztenean edo kartelak kentzen zituztenean Gipuzkoako udalerri batzuetan[14].

Jasotako erantzunetatik ondorioztatzen da EAEko udal askok ez dutela bereizkuntzarik egiten pintada mota hauek ezabatzean; horientzat garbiketa arazo bat da, eta ez dute baliabide edo tresna zehatzik jartzen biktimen oroitzapenaren kontra egiten duten pintadak ezabatzeko.

Aitzitik, ez dira falta gai hau tratamendu zehatz bat behar duen eta herri bideen garbiketaren zeregina gainditzen duen zirkunstantzia modura hartzen duten udalak. Ildo honi jarraituz, aipatzekoak dira Andoaingo Udalak ezarritako prozedura (kasu hauetarako jarduketa protokolo zehatza ezarri dauka), Donostiako Udalak agindutako epe labur-laburra (12 ordukoa) edo Eibar nahiz Soraluzeren moduko udalek hartutako 24 ordukoa ere.

Beste udal batzuek ez dute eperik ezartzen, baina *"berehala"*, *"gertakariaren berri izan orduko"* edo "*ahal denik eta azkarren"* erantzuten dutela adierazi dute.

Igarri-igarrian dago gertakari hauek ez direla bakar-bakarrik garbiketa arazo bat; izan ere, biktimei eta gizarte osoari euren oroitzapenaren eta duintasunaren kontra egiten duten esaldiak saihestu behar zaizkie; azken batean, hori guztiori funtsezko eskubideen erabilerari egiten dioten mehatxuak eta bortxak ekidingo dituen printzipio demokratiko bat besterik ez da.

---

14 *El País* egunkarian agertutako berria 2008ko otsailaren 13an. Berrian aipatzen da enpresa horrek Errenteriakoez gain Donostia, Pasaia, Hernani, Irun, Hondarribia, Lasarte-Oria, Orio edo Zarautzeko kaleak garbitzen dituela.

# VI. BIKTIMEN OROITZAPENAREN KONTRA EGITEN DUTEN EDO EUREN DUINTASUNA URRATZEN DUTEN EKITALDI PUBLIKOAK GALARAZTEA

## 6.1. Biktimen oroitzapenaren kontrako ekitaldi publikoen debekua. Aurrekariak

Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko eta 2005eko otsailaren 17 eta 18ko erabakietan, 7. neurrian eta 3.ñ) idatz zatian, hurrenez hurren, herri administrazio guztiei eskatzen zaie, pintadak eta kartelak ezabatzeko gaiari dagokionez, *"ekitaldi publikoak debekatu ditzatela, biktimen oroitzapenaren, pertsonen duintasunaren edo horien herritar-eskubideen aurkakoak badira"*.

Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onetsitako Bake eta Bizikidetza Planean ondoko hauxe baieztatzen da 9. atalean: *"…Ondorioz, eta biktimen aurkako irainak eta erasoak galarazteko, eta errespetu, tolerantzia eta bizikidetza baketsuaren kontrako balioak gizartean biderik ez emateko, Eusko Jaurlaritzak, EUDELekin elkarlanean biktimen duintasuna eraso dezaketen ekitaldi publikoak ere debekatuko ditu"*.

Aurrerago, 4/2008 Legearen 4. artikuluko b) idatz zatiak ondorengo hau zehazten du: "[botere publikoek] *neurri egokiak hartuko dituzte* (…) *jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goresten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak"*.

Txosten hau egiteko, EAEko udal guztiei galdetu zaie ea inoiz galarazi duten biktimen oroitzapearen kontra egiten duen edo euren duintasunari kalte egiten dion ekitaldi publikorik.

## 6.2. Biktimen oroitzapenaren kontrako ekitaldi publikoen debekua Arabako Lurralde Historikoan

Arabako Lurralde Historikoan udal bakarrak, **Urkabustaizkoak**, erantzun du baietz; esan nahi baita, herrian terrorismoaren biktimen oroitzapenaren aurka egiten duten edo euren duintasuna urratzen duten ekitaldi publikorik galarazi duten galdetuta, Urkabustaizkoa izan da baietz adierazi duen bakarra. Arabako udal honek adierazi du *"udalak ez duela baimentzen terrorismoaren biktimen oroitzapenaren aurka egin edo euren duintasuna urra dezakeen ekitaldi publikorik"*. Erantzun horretatik, hala ere, ezin ondoriozta daiteke baimendu ez den ekitaldirik izan den ala ez.

**Eltziegoko Udalak** aho batez onetsi zuen 2001ko otsailaren 14ko osoko bilkuran *"ez zuela baimenduko, ez eta ahalbidetuko ere, jokabide edo jarrera faxistak izan dituzten pertsonak edo erakundeak publikoki edo ohorezko izaeraz aintzat hartzeko ekitaldirik edo erabakirik"*. Nolanahi ere, adierazpen horretatik ezin jakin daiteke erabakia aplikatu behar izan den ala ez.

Araban erakunde honen informazio eskaerari erantzun dioten udalen %51k ez dute erantzunik eman gai honi buruz; hau da, 18 udalek ez dute ezer adierazi gai honen inguruan. Udal horiek honako hauek dira: Amurrio, Arraia-Maeztu, Artziniega, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Elciego, Harana/Valle de Arana, Iruña Oka/Iruña de Oca, Laudio/Llodio, Legutiano, Moreda de Álava, Ribera Alta, San Millán/Donemiliaga, Valdegovía-Gaubea, Vitoria-Gasteiz, Yécora/Iekora, Zalduondo eta Zigoitia.

Bestalde, Arabako 16 udalek aipatu dute sekula ez dutela galarazi biktimen oroitzapenaren kontra egiten duen ekitaldi publikorik; hau da, guztira erakunde honi informazioa helarazi dioten udalen %46k adierazi du hori. Horietatik 11 udalek zehaztu dute ez dutela halako neurririk hartu, euren herrian halako ekitaldi motarik izan ez delako edo euren herrian terrorismoaren biktimen duintasuna urra dezakeen ekitaldi publikorik egiteko eskatu ez delako.

**14. TAULA:**
**BIKTIMEN OROITZAPENAREN KONTRAKO EKITALDI PUBLIKOEN DEBEKUA ARABAN**

| Inoiz debekatu al da biktimen oroitzapenaren aurka egiten duen edo euren duintasuna urratzen duen ekitaldi publikorik? ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
22 Halaber, delitu izan daiteke ETAko presoen argazkiak ez kentzea. Gauzak horrela, 2009an, Fiskaltzak ikerketa bat hasi zuen Arrasateko banku entitate pribatu bateko hesian jarritako argazki batzuen inguruko delitua argitzeko, eta, 2009ko martxoaren 12an, Ertzaintzari agindu egin zion egungo kartelak ken zitzala, *"eta baita etorkizunean jartzen diren guztiak ere"*. Halaber, *"kartelak jarri dituztenak identifikatzeko beharrezko ikerketa guztiak egitea"* agindu zuen. Udalak ezezkoa eman zion horiek kentzeari, hesia bere jabetzakoa ez zela arrazoitzeagatik (*El Mundo,* 2009ko martxoaren 12an).

Irizpide judizial ezberdinei eta administrazioarekiko auzien bidea zehapen bidea baino egokiagoa izateari dagokionez, Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko Legearen 1. artikulua aldarazteko lege proposamena, Kongresuan erregistraturikoa 2008ko azaroaren 13an, lehenengo aukeraren aldekoa da. Lege proposamen horretan ezarri egiten da araua indarrean jartzen denean udalek sei hilabete izango dituztela talde terrorista bateko kideen omenez edo ekintza terroristak egin dituztenen omenez izendatutako kaleak edo plazak eta jarritako plakak kentzeko. Gauzak horrela, *"biktimen duintasuna babestuz"*, debekatu egiten da toki publikoetan *"terrorismoa, banakakoa zein taldekoa, omentzeko, goraipatzeko edo goratzeko monumentuak, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu edo aipamen batzuk"* egotea. 2009ko otsailaren 12an, Kongresuak, osoko bilkuran, aho batez onetsi zuen PSOE eta PP alderdiek adostutako lege proposamen horri aintzat hartzeko aukera. Zuzenketen epean, hasierako testua hobetzea aurreikusi da, goraipatzeko eta omenaldiak egiteko debekua talde terrorista guztiei zabaltzeko modukoa izan dadin.

Herri eta hiri batzuetan ETAkideei eskainitako kale izenek irauteak udalerri horietarako herritar guztiei eragiten die, baina bereziki terrorismoaren biktimei, bai eta omenaldia egin zaion pertsonak eragindako biktimen senideei ere. Hernanin badago ETAkide baten izena daukan haur parke bat; terrorista horrek A.V.ren aita hil zuen eta A.V.k ondokoa adierazi zuen auzi horren inguruan: "honako honek adierazten du mundua alderantziz dabilela eta lazgarri eta ikaragarria da euren burua demokratikotzat duten alderdiek hori ahalbidetzea, beste leku batera begiratzea eta ezer ez egitea hori ekiditeko"[23].

Biktimen elkarteek gai hori azpimarratu dute. Horrela, ACVOTek (Asociación Catalana de Víctimas de Organizaciones Terroristas) zehaztu du Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babesa emateko Legearen aurreproiektuari egindako ekarpenetan *"biktimen oroitzapena errespetatzeak ezinbestean dakarrela euren duintasuna ez urratzea"* eta, horren ondorioz, *"EAEko herrietako kale eta plazetatik kendu beharko lirateke ETA talde hiltzailearen terroristak gogora ekartzen dituzten izen guztiak"*.

Plakak, argazkiak, kartelak eta pintaketak kentzeari dagokionez, informazio ezberdinak agertzen ari dira azkenaldian. Gauzak horrela, Dignidad y Justicia biktimen elkarteak salatu egin zuen "*lotsaren murru*" ezberdinak egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako udalerrietan barrena sakabanatuta (pintaketak, argazkiak eta kartelak daudela aipatuz). Ondorioz, Audientzia Nazionalari horiek "*berehala kentzea*" eskatu zion, Arrasateko kasuan bezala. Kasu hartan ETAko presoen argazkiekin egindako erakusketaria kendu zen Audientzia Nazionaleko Fiskaltzaren aginduz. Hurrengoak aipatzen dira: Donostia, Errenteria, Hernani, Usurbil, Oiartzun, Ibarra, Zaldibia, Azpeitia, Bilbo, Lekeitio, Ondarroa, Amorebieta eta Elorrio[24].

Bestalde, erabaki judizial ezberdinak egiten ari dira gai honen gainean.

Zentzu horretan, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5. Epaitegiko auto batean, kautelazko neurri gisa agindu zitzaion Getxoko Udalari ETAko kide baten omenez

---

23 *Fundación* aldizkaria. 21. zenb., 2007ko abendua, 30. or.

24 *Servimedia*, 2009ko martxoaren 30a.

jarritako plaka bat ken zezala. ETAko kide hori 1973an hil zen, eta plaza bati jarri zitzaion haren izena[25].

Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak Etxebarriko udalerri bizkaitarreko Udalari agindu dio 1975ean fusilatu zituzten "Txiki" eta "Otaegi" etarren izenak ken ditzala udalerriko plazetako batetik. *"Kalearen izena Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzak errekurritu zuen, esparru publikotik terrorismoa goraipatzea ekar zezaketen elementuak kentzeko Barne Ministerioarekin koordinatutako kanpaina batean (...). Behin Etxebarriko kasua erabakita, Gobernuaren Ordezkaritzak administrazioarekiko bost auzi ditu irekita lau euskal udalen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko kaleetatik etarren izenak desagertzea lortzeko. Horiek guztiak iazko uztailean Eusko Legebiltzarrak onetsitako Biktimen Legearen babesean daude. Kereila horiek arau honen lehen aplikazioa dira, terrorismoa goraipatzea bezala hartutako ekintzekin amaitzeko garaian, eta helburua «legea betebehar politikoekin konprometitzen hastea» da, Mikel Cabieces Gobernuaren ordezkariak adierazitakoari jarraiki. Administrazioarekiko Auzien epaitegiaren aurrean salatutako udalak Amorebieta, Arrigorriaga, Leioa eta Donostia dira. Kasu guztietan, epaitegien erabakiaren zain daude. Salaketen ezaugarrietako bat frankismoan fusilatutako taldeko kideei buruzkoa izatea da, etarren izenekin kaleak zituzten beste udal batzuen aurka orain dela gutxiago jarritako kereilek kendu zituztelako jada izenak (...). Gobernuaren ordezkariaren arabera, helburua Biktimen Legeak kasu hauek guztiak epaitzea da «XXI. mendeko begiekin, eta ez 1979ko ikuspegiarekin, ETAko kideei kale gehien eskaini zitzaizkien garaia». «Une hartan pentsatu zen taldea desagertu egingo zela Trantsizioarekin, eta hiltzen jarraitu du». Zentzu horretan, Cabiecesek dio fusilatuen kasuan «bizitzeko eskubideari» omenaldia egiteko aukera planteatu behar dela, «heriotza zigorra argi eta garbi errefusatuz. Baina ezin da talde terrorista bat sinbolizatzen duen izena mantendu». Zentzu horretan, Cabiecesek uste du kasu horietan Biktimen Legea erabiltzea «terrorismoari legitimazioa kentzeko garaian ona den legea aplikatzeko aukera dela, pedagogia argia defendatuz terrorismoaren gizarte gaitzespena bilatzeko garaian»"*[26].

Gai korapilatsua da izaera bikoitza duten pertsonena, hau da, biktima eragileak eta biktimak direnena. ETAk eragindako ehunka hilketek sortutako minari gehitu behar zaio ATE, BVE edo GALen moduko talde terroristek eragindakoa; izan ere, talde horiek kasu askotan orduko ETAkideak hil zituzten.

EAEko udal batzuek pertsona horiei eskaini dizkiete monolitoak edo kale izenak, gogoan izateko. Pertsona horiek, terrorismoaren biktimak diren aldetik, justiziarako eskubidea izango dute, eragindako gaitza konpontzeko eskubidea, bai eta terrorismoaren biktima modura egokitzen zaizkien gainerakoak ere. Hala eta guztiz ere, dilema morala agertzen da; izan ere, biktima eragileak ere diren aldetik, aztertu behar da ea bidezkoa den omenezko ekintzak eskaintzea, hala nola euren oroimenez eskainitako kale edota monolitoak.

---

25 *La Razón*, 2009ko apirilaren 9a.

26 *El Correo*, 2009ko apirilaren 21a. Kartelak, plakak edo pintaketak kentzeari buruzko azkeneko ekintza judizialei dagokienez, ikusi *Dignidad y Justicia* elkarteko web orrialdean, albisteen atalean, izandako eguneratzea (http://www.macrojuicio.com).

2008ko uztailaren 8ko ebazpen judizial horrek zuzen eta egoki adierazten du kale, plaza edota eremu publiko bati pertsona baten izena jartzeak berekin dakarrela erkidegoak, bere erakundeen bitartez, pertsona horri aitorpena egitea. Mezu argia transmititzen du, pertsona horrek jendaurreko aitorpena behar duela, alegia, betiere erkidegoarentzat onuragarria den zerbait egin duelako.

Edozein pertsona, kasu honetan erakunde terrorista bateko kideak diren pertsonak, hiltzeko bidegabekeria izugarriak berekin dakar terrorismo ekintza horiek zeharo gaitzestea eta, gainera, zorrotz erantzutea justizia eta ordain terminoetan, baina biktima izateak ez du herritar eredugarri bihurtzen biktima eragilea. Indarkerian eta bortizkerian jardun duten pertsonei kaleak eskaintzea berriro ere biktima bihurtzen ditu omenaldia egin zaion pertsonak eragindako biktimak; halaber, herritar guztiei bestelako mezua ematen zaie: erakunde terrorista bateko kidea izandako pertsona bati aitorpena egiten zaiola eta horretarako duintasuna duela.

Biktima eta gaizkile izatearen izaera bikoitza aztertu egin du kontzeptuaren nahiz etikaren alorrean Galo Bilbao Alberdi irakasleak[27]. Oso lan interesgarri batean, Galo Bilbaok zera dio: *"Terrorismoaren biktima guztiek (gaizkile den biktima barne) biktima izatearen errekonozimendu publikoa jaso dezakete. Horietatik guztietatik, orokorrean, haien «errugabetasuna» (ez dute ezer egin, zenbait kasutan larria bada ere, jasotako tratua jaso izateko) eta haien «pasibotasuna» (beste batzuen eskuetan urradura larria jasan dute oinarrizko eskubideetan) azpimarratzen dira, eta, horrela, aldi berean zikindu eta legitimazioa kentzen zaio demokrazian onartezina den jarduteko modu bati (terrorismoa asmo politikoko legitimaziorik gabeko indarkeria gisa)".* Eta zera esanez amaitzen du: *"Ondorioz, beharrezkoa da erabat gaizkile izan direnei edo egun oraindik direnei eta baita gaizkile izatearen baldintzari biktima izatearena ere eransten dutenei omenaldi publikoa eta gizartekoa egitea saihestea (herriko alaba edo seme kutuntzat hartzea; kaleak, plazak eta instalazio publikoak eskaintzea; haien omenezko eskulturak eta monolitoak jartzea...). Izan ere, horrelako ekimenetan ezinezkoa da gizarteari gaizkile eta biktima denaren irudiari buruz helarazi behar zaion mezua behar bezala, argi eta osorik mezuaren konplexutasuna adieraztea".*

# VIII. EAEko UDALERRIETAN TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUNA ZABALTZEN LAGUNTZEN DUTEN EKINTZA ETA EKIMENAK

## 8.1. Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna adierazteko ekimenak. Aurrekariak

2006ko maiatzaren 2an onetsitako Bake eta Bizikidetza Planaren konpromiso eta ekimenen barruan ondoko hauxe azpimarratu beharra dago: *"1) Udalaren arloan biktimei begirunea erakustearen alde egitea"*. Atal horretan honako hauxe adierazten da:

[27] BILBAO ALBERDI, Galo. "Jano en medio del terror. La inquietante figura del victimario-víctima". *Bakeaz*. Bilbo, 2009.

*"Horretarako, terrorismoaren biktimekiko elkartasuna eta begirunea adierazteari ekingo dioten ekintzak eta ekimenak antolatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, EUDELekin elkarlanean, atentatuak pairatu eta biktimak izan diren udalerrietan.*

*Udal bakoitzak ezarriko du ekintza hauen edukia, eta horrek, auzokideen eta bertako erakundeen berotasuna, adiskidetasuna, elkartasuna eta aitormena ingurune gertueneko biktimei helaraztea izan beharko du xede, honela, nolabait, horien oroimenak bizirik iraun dezan.*

*Planteatutako helburuak bete daitezen, honelako aitorpenek eta omenaldiek banan-banakoak eta pertsona zehatz baten ingurukoak izan beharko dute.*

*Biktimak ados badaude betiere, Euskadi osoan zehar sentimenduaren eta borondatearen adierazpena izan daitezela, begirunea erakusteko ekitaldi hauekin ahalik eta lasterren hasi nahi dugu".*

2007ko urriaren 15 eta 17ko bilkuraren zazpigarren ebazpenak ondorengoa adierazten du terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak betetzeari dagokionez: *"Eusko Legebiltzarrak EAEko erakunde publiko guztiei eskatzen die terrorismoaren biktimak omentzeko ekintzei jarraitzeko, betiere gizarte zibilaren partaidetza bultzatuz".*

Terrorismoaren biktimen erreparazioa arautzen duen ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 5. artikuluaren 3. idatz zatian honako hau ezartzen da: *"Erreparazio-neurrietan sartzen da, halaber, hainbat jarduera publiko bultzatzea, biktimei ordain morala emateko eta haien duintasuna, izen ona eta eskubideak jendaurrean lehengoratzeko. Horrela, honako hauek sustatuko dira biktimekin adostuta eta, hala badagokio, haien elkarteekin: omenaldiak egitea, oroigarriak altxatzea, terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta horiekiko enpatia izateko tokiko ekimenak sortzea, bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzak egotea, bai eta terrorismoaren biktimei babesa eta aitorpen sozial, etiko eta politikoa erakusteko izaera sinbolikoa duten bestelako adierazpideak izatea ere".*

## 8.2. Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna adierazteko ekimenak Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Lurralde Historikoan 20 udalek adierazi dute terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzeko ekimenak eraman dituztela aurrera; horrek esan nahi du Araban gure informazio eskaera bete dutenen %57k ildo honetako jardueraren bat burutu dutela. Hori adierazi duten udalak honako hauek dira: Amurrio, Añana, Arrazua-Ubarrundia, Baños de Ebro/Mañueta, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Elciego, Harana/Valle de Arana, Lagrán, Laudio/Llodio, Legutiano, Moreda de Álava, Ribera Alta, Ribera Baja/Erribera Beitia, Samaniego, Valdegovía/Gaubea, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Vitoria-Gasteiz, Yécora/Iekora eta Zigoitia.

Aitzitik, Arabako 12 udalek adierazi dute ez dutela aurrera eraman euren udalerrietan terrorismoaren biktimen aitorpena zabaltzen laguntzeko ekintza edo ekimenik; hau da, Araban gure galdera sortari erantzun dioten udalen %34k zehaztu dute ez dutela inolako ekimenik gauzatu. Hona hemen hori adierazi duten udalak: Arraia-Maeztu,

Elvillar/Bilar, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Kripan, Kuartango, Lanciego/Lantziego, Lantarón, Okondo, Urkabustaiz, Zalduondo eta Zuia.

Azkenik, ondoko hauek ez dute inolako argibiderik eman gai honen inguruan: Alegría-Dulantzi, Artziniega eta San Millán/Donemiliaga.

**20. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZAK ARABAN**

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | — |
| Amurrio | BAI |
| Añana | BAI |
| Arraia-Maeztu | EZ |
| Arrazua-Ubarrundia | BAI |
| Artziniega | — |
| Baños de Ebro/Mañueta | BAI |
| Barrundia | BAI |
| Elburgo/Burgelu | BAI |
| Elciego | BAI |
| Elvillar/Bilar | EZ |
| Harana/Valle de Arana | BAI |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | EZ |
| Iruraiz-Gauna | EZ |
| Kripan | EZ |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | BAI |
| Lanciego/Lantziego | EZ |
| Lantarón | EZ |
| Laudio/Llodio | BAI |
| Legutiano | BAI |
| Moreda de Álava | BAI |
| Okondo | EZ |
| Ribera Alta | BAI |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | BAI |
| Samaniego | BAI |
| San Millán/Donemiliaga | — |
| Urkabustaiz | EZ |
| Valdegovía/Gaubea | BAI |

| Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian? ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Villabuena de Álava/Eskuernaga | BAI |
| Vitoria-Gasteiz | BAI |
| Yécora/Iekora | BAI |
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | BAI |
| Zuia | EZ |

**29. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Arabako udal askok adierazi dute, atentatu terroristak izan eta gero, horiek **gaitzesteko elkarretaratzeak** egin direla, atentatua salatzeko eta herritarrak udaletxeen aurrean egindako gaitzespen ekitaldi horietan parte hartzera gonbidatzeko. Zenbait kasutan, zehaztu dute ekimen horiek EUDEL, Lehendakariak edo FEMPek egindako deialdiei jarraitzen dietela. Hori adierazi duten udalak ondorengoak dira: **Amurrio**, **Añana**, **Elburgo/Burgelu**, **Harana/Valle de Arana**, **Moreda de Álava**, **Ribera Alta**, **Ribera Baja/Erribera Beitia**, **Valdegovía/Gaubea**, **Yécora/Iekora** eta **Zigoitia**.

Udal batzuek erantzun dute atentatu terroristak gaitzesteko eta terrorismoaren biktimen senide eta lagunekiko elkartasuna azaltzeko **adierazpenak** onetsi direla. Hori adierazi duten udalak ondorengoak izan dira: **Barrundia**, **Elburgo/Burgelu**, **Harana/Valle de Arana**, **Moreda de Álava**, **Ribera Alta**, **Villabuena de Álava/Eskuernaga** eta **Yécora/Iekora**. **Yécora/Iekorako Udalak** zehaztu du *"atentatu terrorista bat dagoen bakoitzean krepe beltza jartzen dutela udaletxeko bandera guztietan"*.

**Elciegoko Udalak** hainbat akordio onetsi ditu giza eskubideak defendatzeko gaiari dagokionez; horrela, besteak beste, 2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatua gaitzesteko akordioa onetsi zen.

Arabako zenbait udalek adierazi dute atentatu terroristaren batekin zerikusia duten gaitzespen erabakiak hartu dituztela. Horrela bada, Legutioko Udalak, aparteko osoko bilkuran, herriko etxe-kuartelaren aurka izandako atentatua gaitzetsi zuen aho batez; atentatu horretan Juan Manuel Piñuel guardia zibila hil zuten eta beste lau pertsona zauritu zituzten.

**Zigoitiko Udalak** 2001eko azaroaren 21ean akordio bat onetsi zuen "terrorismoak egindako atentatu eta hilketen aurrera erakundeen erantzun bateratu eta partekatua emateko". Beste batzuen artean, ondoko neurri hauek onetsi ziren:

> *"Euskal erakunde guztiekin batera pertsonen bizitzaren eta askatasunaren kontra izandako atentatu guztien gaitzespen bateratu bat egitea, bai eta sustatzea ere euskal gizarte osoaren elkartasuna bortizkeriaren biktimen senide nahiz adiskideekiko.*
>
> *Gaitzespen adierazpen eta elkarretaratzeetan parte hartzeko deialdi bateratua egitea, betiere familiaren eta udalaren borondateari men eginda.*
>
> *Lelo bateratu bat erabiltzea, terrorismoaren aurrean gizartearen erantzun eta sentsibilizazioa bateratzeko: Bakea eta Askatasuna, ETA ez.*
>
> *15 minutuko geldialdi barerako erakunde deialdia egitea, udal, aldundi, gobernu eta gainerako erakundeetako egoitzen aurretan, dolua adierazteko eta izandako hilketa guztiak gaitzesteko".*

**Vitoria-Gasteizko Udalak** hiriaren domina eman zion Fernando Buesari, erail eta egun batzuetara. Halaber, 2006ko abenduan, Arabako hiriburuan ekitaldi bat egin zen ETAren terrorismoak 1975etik 2000ra bitartean hildako 48 biktima **omentzeko**.

## 8.3. Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna adierazteko ekimenak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bizkaiko Lurralde Historikoan erakunde honi informazioa bidali dioten udalen %48k adierazi dute ez dutela aurrera eraman euren udalerrietan terrorismoaren biktimen aitorpena eta elkartasuna zabaltzen laguntzeko ekintza edo ekimenik. Hori adierazi duten udalak ondorengoak dira: Abadiño, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Ajangiz, Alonsotegi, Amoroto, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Artzentales, Bakio, Bedia, Berriatua, Busturia, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Galdames, Gamiz-Fika, Garai, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gordexola, Ibarrangelu, Igorre, Ispaster, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mallabia, Maruri-Jatabe, Mendata, Mendexa, Murueta, Nabarniz, Plentzia, Sukarrieta, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zaldibar, Zamudio eta Zeanuri.

Bestalde, Bizkaiko 16 udalek, hau da, Arartekoaren erakundeari informazioa igorri dietenen %17k ez dute gai honi buruzko adierazpenik egin; beraz, ez dakigu biktimen aldeko ekimenik antolatu duten ala ez. Udal horiek honako hauek dira: Ea, Elantxobe, Elorrio, Fruiz, Güeñes, Iurreta, Izurtza, Lanestosa, Mañaria, Morga, Orozko, Otxandio, Sondika, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Ubide eta Ugao-Miraballes.

Aipatzekoa da lurralde historiko honetako 33 udalek baieztatu dutela terrorismoaren biktimen aldeko ekintza edo ekimenak egin dituztela, hau da, guztien %35ek. Hona hemen hori adierazi duten udalak: Arrigorriaga, Artea, Atxondo, Balmaseda, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bermeo, Bilbao, Derio, Durango, Ea, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gorliz, Leioa, Lekeitio, Mundaka, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopelana, Urduliz, Urduña-Orduña, Zalla eta Zierbena.

**21. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZAK BIZKAIAN**

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | EZ |
| Ajangiz | EZ |
| Alonsotegi | EZ |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | EZ |
| Arrankudiaga | EZ |
| Arratzu | EZ |
| Arrieta | EZ |
| Arrigorriaga | BAI |
| Artea | BAI |
| Artzentales | EZ |
| Atxondo | BAI |
| Bakio | EZ |
| Balmaseda | BAI |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | BAI |
| Basauri | BAI |
| Bedia | EZ |
| Berango | BAI |
| Bermeo | BAI |
| Berriatua | EZ |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | EZ |
| Derio | BAI |

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Durango | BAI |
| Ea | BAI |
| Elantxobe | — |
| Elorrio | — |
| Erandio | BAI |
| Ereño | EZ |
| Ermua | BAI |
| Errigoiti | EZ |
| Etxebarri | BAI |
| Etxebarria | EZ |
| Fruiz | — |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | EZ |
| Garai | EZ |
| Gatika | EZ |
| Gautegiz Arteaga | EZ |
| Gernika-Lumo | EZ |
| Getxo | BAI |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | BAI |
| Güeñes | — |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | EZ |
| Ispaster | EZ |
| Iurreta | — |
| Izurtza | — |
| Karrantza Harana/Valle de Carranza | EZ |
| Lanestosa | — |
| Leioa | BAI |
| Lekeitio | BAI |
| Lemoa | EZ |
| Lemoiz | EZ |
| Lezama | EZ |

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Loiu | EZ |
| Mallabia | EZ |
| Mañaria | — |
| Maruri-Jatabe | EZ |
| Mendata | EZ |
| Mendexa | EZ |
| Morga | — |
| Mundaka | BAI |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | BAI |
| Nabarniz | EZ |
| Ondarroa | BAI |
| Orozko | — |
| Ortuella | BAI |
| Otxandio | — |
| Plentzia | EZ |
| Portugalete | BAI |
| Santurtzi | BAI |
| Sestao | BAI |
| Sondika | — |
| Sopelana | BAI |
| Sopuerta | — |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | — |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | — |
| Urduliz | BAI |
| Urduña-Orduña | BAI |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | EZ |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | BAI |
| Zamudio | EZ |
| Zeanuri | EZ |
| Zierbena | BAI |

**30. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**




Udal batzuek, hala nola **Atxondo**, **Galdakao**, **Leioa** eta **Mundakakoek**, adierazi dute, besterik gabe, biktimekiko elkartasuna adierazteko ekintzak edo ekimenak antolatu dituztela, baina ez dute zehaztu zeintzuk edo nolakoak izan diren.

Bizkaiko hainbat udalek adierazi dute elkarretaratze isilak egiten dituztela udaletxearen ondoan atentatu terrorista bat dagoen bakoitzean, euren kaxa edo EUDELen, Lehendakariaren edo Eusko Jaurlaritzaren deialdiei jarraituz. Hona hemen elkarretaratze horiek egiten dituzten udalak: **Artea**, **Barrika**, **Berango**, **Bilbao**, **Derio**, **Ea**, **Gorliz**, **Ondarroa**, **Ortuella**, **Sopelana**, **Urduliz**, **Urduña-Orduña** eta **Zalla**.

Beste udal batzuek hartutako ekimena da terrorismoaren biktimei **urrezko domina** ematea. **Barakaldoko Udalak**, 2004ko abenduaren 16ko osoko bilkuran, herrian jaio edota terrorismoak udal mugarte barruan hildako biktima guztiei Barakaldoko Urrezko Domina emateko erabakia hartu zuen. Ekitaldi ospetsu batean, Barakaldon hildako hamalau pertsonen senideei dominaren kopia bat eman zitzaien. Horren ondoren, beste bi ekitalditan, urrezko dominaren kopia eman zitzaien ETAk EAEko beste udalerri batean hildako bi barakaldarren senideei.

Beste alde batetik, **Basauriko Udalak** 2001ean herriko urrezko domina eman zion *"biktimen bulegoko zuzendariari (...) terrorismoaren biktimak oso-osoan ordezkatzeagatik"*.

Bizkaiko udal batzuek adierazi dute terrorismoaren bortizkeria, oro har, edo ekintza terrorista zehatz batzuk, bereziki, gaitzesteko eta biktimekiko eta haien senideekiko elkartasuna adierazteko erabakiak onetsi dituztela. Gauzak horrela, **Bilboko Udalak**, esaterako, zehaztu du *"2000tik jarduketa protokolo bat dagoela atentatu terroristetarako eta horren arabera bozeramaileen batzordea biltzen dela gertakaria gaitzesteko eta hiritar guztiei gaitzespen manifestazio batera deitzeko"*.

**Arrigorriagako Udalak**, 2003ko irailaren 26an, *"Eusko Legebiltzarrak 2003ko ekainaren 25ean taldeen aho batez hartutako proposamena"* bere egiteko erabakia hartu zuen.

**Balmasedako Udalak** jakinarazi digu *"sarri askotan adierazpenak egin dituela erakunde mailan eta osoko bilkuran, era guztietako ekintza bortitzak gaitzetsiz"*.

**Erandioko Udalak** makina bat erabaki hartu du osoko bilkuran terrorismoaren biktimei dagokienez:

- *"2001eko uztailaren 26an hartutako erabakia; horren arabera, ekintza terroristen biktimei laguntzeko Herrizaingo Sailak eta Euskadiko Udalen Elkarteak taxututako lankidetza hitzarmenaren klausulak onetsi ziren.*
- *2001eko urriaren 25ean hartutako erabakia, terrorismoaren biktima guztiei berdintasunean eta salbuespenik gabe aitorpen publikoa egiteari buruzkoa.*
- *2002ko maiatzaren 30ean hartutako erabakia, pertsonen oinarrizko eskubideen errespetuari eta defentsari eta bertan agertzen diren gainerako atalei buruzkoa.*
- *2002ko maiatzaren 30ean hartutako erabakia, koherentzia demokratikoari, askatasunen defentsari eta oinarrizko eskubideei eta erabakian agertzen diren gainerako atalei buruzkoa.*
- *2002ko abenduaren 26an hartutako erabakia; bertan elkarbizitza baketsu eta demokratikorako oinarriak ezartzen dira, erabakian azaltzen den planteamenduaren arabera"*.

**Ortuellako Udalak** aipatu du *"osoko bilkuran atentatuak gaitzesteko talde politikoek sinatutako mozioak izapidetzen direla"*.

Beste udal batzuek zehaztu dute gaitzespen erabakiak hartu dituztela atentatuak izan direnean. **Ermuko Udalak**, esate baterako, adierazi du *"heriotza eragiten duen atentatu terrorista bakoitzean jarduketa protokolo bat jartzen dela martxan; horren ondorioz, bozeramaileen batzordea biltzen da talde politiko guztien artean gaitzespen adierazpen bat adosteko eta, horren ondoren, bando bat ateratzen da, herriko atari guztietan jartzen dena onetsitako adierazpenarekin eta herritar guztiei zuzendutako deialdi batekin batera, betiere udalerriko kale nagusiak zeharkatzen dituen manifestazio batean parte hartzea eskatzeko. Ekimen horrek bostehunetik mila pertsonara bitartean biltzen ditu eta lehenengo mobilizazioak 1992. urtean hasi ziren"*.

Aipatzekoa da gaitzespen erabaki horiek ETAren azken atentatuen ildotik ari direla hartzen, ez bakarrik hildakoak eragin dituenean, baizik eta pertsonen, instalazioen edo ondasunen kontrako eraso terroristak izan direnean ere. Zenbait udalek, adibidez **Durangokoak**, herri horretako etxe-kuartelaren kontra izandako atentatuak eragindako txikizioei erantzuteko udal konpromisoaren berri ematen dute.

Azpimarratzekoa da **Portugaleteko Udaleko** ekimen bat, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ere egiten duena; horren arabera, *"urtero-urtero, atentatu bakoitzaren egunean, alkatea biktima bakoitzaren senideekin harremanetan jartzen ahalegintzen da, maitasuna adierazteko eta hain denbora luzean bidegabeki kendu zaien aitorpena egiteko"*.

Hartutako beste ekimen bat da udalerri bateko seme edo alaba kutun izendatzea biktimak edo terrorismoaren aurka aritzeagatik nabarmendu diren pertsonak. Hartara, **Ermuko**

**Udalak** ondorengoa adierazi digu: *"zalantzarik gabe, terrorismoa desagerrarazteko lehenengo lerroan jartzen diren pertsonen aitorpena funtsezkoa da bortizkeriaren amaiera lortzeko. Baltasar Garzón jauna konpromiso irmo eta anbiguotasunik gabekoa hartu duen pertsonetariko bat da. Hori dela eta, Ermuko Udaleko udalbatzak magistratua herriko seme kutun izendatzeko erabakia hartu zuen"*.

**Ermuko Udalak** beste ekimen berritzaileak ere jarri ditu abian, esate baterako:

- 1998tik aurrekontuko partida zehatz bat gordetzea, "ekimenak" izenekoa, herritarren aldetik terrorismoaren aurka sortutako partaidetza ekimenei laguntzeko asmoz.
- Autobusak jartzen laguntzea, Ermuko herritarrak erakunde publikoek edo erakunde zibilek deitutako ekimenetara joan daitezen, betiere *"terrorismoaren existentzia eta beraren ondorioak saltzeko eta ETA talde terroristaren desegitea exijitzeko"*.

Bizkaiko udal honek udaletxean instalatu zuen Miguel Ángel Blanco fundazioaren "En pie de foto" erakusketa, terrorismoaren eraginei buruzko argazki bilduma bat, hain zuzen ere.

Biktimen aitorpena zabaltzen laguntzeko ekimenei buruzko atal honetan aipatzekoa da, bereziki, EAEko udalerri askotan terrorismoaren biktimen omenez, oro har, eta udalerri bakoitzekoen omenez egiten ari diren **omenaldiak**. Kasu askotan omenaldi hauek bat etorri dira biktimak gogoan izateko monolito edo eskultura baten inaugurazioarekin. Udalerri batzuetan omenaldi mota horiek urtero-urtero egin ohi dira.

Horrela, **Barakaldoko Udalak** biktimei omenaldi bat egin zien 2003ko otsailaren 1ean "Gona" izeneko eskultura bat inauguratu zuenean, terrorismoaren biktimak oroitzeko.

**Basauriko Udalak** 2008ko maiatzaren 10ean omenaldi bat egin zien udalerri horretako ETAren 13 biktimei eta biktimen senideei "Hitza" eskulturaren kopia bat eman zien; izan ere, eskultura hori hemendik gutxira instalatuko da herriko parke batean, terrorismoaren biktimak gogoratzeko.

**Bilboko Udalak** 2006ko otsailaren 2an Bilboko terrorismoaren biktima guztiak omentzeko ekitaldi bat egin zuen, Doña Casilda parkean instalatutako monolito baten inaugurazioarekin bat.

**Portugaleten** omenaldi hori biktima bakoitzaren senideekin egin zen banan-banan, biktimen omenez eraikitako monumentuan. Bizkaiko udal honek adierazi du ekitaldi horiek egiteko kontaktuetan *"biktima horien senideetariko askok bidegabe tratatuak izan zirela sentitzen zutela, gezurrekin eta guzti, eta beste batzuk isiltasunik handienarekin mesprezatuak izan zirela"*. Udal honek urtean egun bat ezarri nahi du udalerriarekin zerikusia duten terrorismoaren 13 biktimei aitorpena egiteko eta omenezko monumentuaren ondoan jendaurreko ekitaldi bat antolatzeko.

**Santurtzin** ere omenaldi bat egin zieten udalerriko terrorismoaren 10 biktimei 2007ko martxoaren 29an; egun horretan ere monolito bat jarri zuten biktimen omenez.

**Muskiz eta Zierbenako udalek** jakinarazi dute terrorismoaren biktimen oroitzapenezko aitorpen eta omenezko ekitaldiak antolatzeko erabakiak onetsi dituztela. Muskizen ekitaldi hori, oraindik ere zehaztugabea, urtero-urtero egin nahi dute. Zierbenan terrorismoaren biktima guztiak eta batik bat herriko biktima bakarra omentzeko ekimena izango da.

Azkenik, **Sestaoko Udalak** herriko terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldi bat egin nahi izan du behin baino gehiagotan, senideen partaidetzarekin eta guzti. Ekitaldi hori ezin izan da egin *"senideek onartu ez dutelako; izan ere, batzuetan ez daude prest egoera zail hori berriro ere bizitzeko eta beste batzuetan uste dute ekimena beranduegi jarri dela abian"*.

**Ermuko Udalak** omenaldi bat egin zion Miguel Ángel Blancori 2002ko uztailaren 20an, bere erailketaren hamargarren urteurrenean, hain zuzen ere.

**Leioako Udalak** ETAk hildako César Uceda omendu zuen; ekitaldi hori dagoeneko aipatu dugu txosten honen beste atal batzuetan.

Udal batzuek terrorismoaren biktimei eskainitako omenaldiak egin dituzte, nahiz eta erakunde honi emandako erantzunean halakorik adierazi ez. Horrela, **Arrigorriagako Udalak**, 2007ko otsailaren 19an, udalerriko biktimak omendu zituen. Polemikak zipriztindu zuen omenaldiaren ekitaldia; izan ere, udalbatzaren akordioan proposatu zen 1978an BVEk eraildako José Miguel Beñaran Ordeñana, "Argala" ETAko aktibista eta arrigorriagarra sartzea. Azkenik, "Argala" deialditik kendu zuten, familiak hala eskatuta. Herri honetako alkateak aitortu zuen erakundeek biktimekin izan duten ahanztura eta ondorengoa zehaztu zuen: *"Ahaztuta izan zaituztegu. Herri honetan ez gara bidezkoak izan zuekin eta zuen senideekin. Barkamena eskatu behar dizuegu eta nahita eta zintzo egiten dugu, kalte egin dizuegulako eta bene-benetan sentitzen dugu"*[28].

**Durangoko Udalak** herriko biktimei eskainitako omenaldia egin zuen 2007ko martxoaren 15ean. Lore eskaintza bat egin zen terrorismoak hildakoen oroimenez bertan instalaturiko monolito baten ondoan. Monolito horretan honako inskripzio hau agertzen da: "Terrorismoaren biktima guztien omenez"[29].

COVITErekin izandako bilera batean, elkarte honetako ordezkari batek (haren aita Durangon hil zuten) adierazi zuen ez zetorrela bat ekitaldi horrekin, uste zuelako biktimak ez zirela kontuan hartu ekitaldia antolatzean, ez eta monolitoan jarritako inskripzioaren edukia erabakitzean ere.

**Galdakaoko Udalak** herriko terrorismoaren 11 biktimak omendu zituen eta monolito bat inauguratu zuen haien omenez 2007ko apirilaren 27an. Ekintza honetara erakundeetako ordezkariak eta biktima baten senideak bertaratu ziren. Gainerakoak *"ezin izan ziren bertaratu, baina hurrengoetan etorriko dira"*, Maixabel Lasak esan zuenez.[30]

---

28 *Testimonio de silencio*. 14. zenb., 30. or.

29 *Testimonio de silencio*. 14. zenb., 37. or.

30 *Testimonio de silencio*, 2007. 15. zenb., 7. or.

Behin udalei eskatutako informazioa jasota, biktimen aldeko erabakiak hartu izan dira eta horiek azpimarratzea egoki irizten da. Gauzak horrela, 2009ko martxoaren 25ean, **Getxoko Udaleko** bozeramaile batzordea ados jarri zen eta erabaki zuen ETAren biktimei urteko omenaldia egitea eta hiriguneko toki gogoangarri batean monolito bat jartzea Getxon eraildakoen oroimenez[31].

Bestalde, 2009ko apirilaren 25ean, lore eskaintza bat egin zen **Portugaleteko** herriaren etxearen aurka izandako atentatuaren 22. urteurrenagatik. Kasu hartan, bi pertsona hil zen[32].

## 8.4. Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna adierazteko ekimenak Gipuzkoako Lurralde Historikoan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan gure erakundeari informazioa igorri dioten udalen %39k, hau da, 24k zehaztu dute euren udalerrian ez dela aurrera eraman terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna adierazteko ekimenik edo ekitaldirik. Hona hemen hori adierazi duten udalak: Aia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Arama, Asteasu, Berrobi, Bidegoian, Deba, Elgeta, Eskoriatza, Gabiria, Hernialde, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Leaburu, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Segura, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urnieta.

Beste 11 udalek, hau da, guztien %18k ez dute ezer aipatu gai honen inguruan; beraz, ez dakigu arlo honetan terrorismoaren biktimen aldeko jarduketarik egin duten ala ez.

Bestalde, agerian jarri behar da lurralde historiko honetako 26 udalek, hau da, erantzuna eman dutenen %43k adierazi dutela terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna azaltzeko ekimen edo ekitaldiak egin dituztela. Udal horiek honako hauek dira: Alegia, Andoain, Aretxabaleta, Astigarraga, Azkoitia, Beasain, Belauntza, Bergara, Donostia-San Sebastián, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Getaria, Irun, Lasarte-Oria, Lazkao, Mutriku, Olaberria, Oñati, Orio, Ormaiztegi, Tolosa, Usurbil, Zarautz, Zegama eta Zestoa.

**22. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZAK GIPUZKOAN**

| Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian? GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Aia | EZ |
| Alegia | BAI |
| Alkiza | EZ |

[31] *El País*, 2009ko martxoaren 26a, Euskal Autonomia Erkidegoko edizioa, 3. or.

[32] *El País*, 2009ko apirilaren 26a, 18. or.

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ |
| Andoain | BAI |
| Anoeta | — |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | BAI |
| Arrasate/Mondragón | — |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | BAI |
| Azkoitia | BAI |
| Beasain | BAI |
| Belauntza | BAI |
| Berastegi | — |
| Bergara | BAI |
| Berrobi | EZ |
| Bidegoian | EZ |
| Deba | EZ |
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | BAI |
| Elduain | — |
| Elgeta | EZ |
| Elgoibar | BAI |
| Errenteria | BAI |
| Errezil | — |
| Eskoriatza | EZ |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | — |
| Getaria | BAI |
| Hernani | — |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | BAI |
| Irura | EZ |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | BAI |

**Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duen ekintza eta ekimenik egin al da zure udalerrian?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Lazkao | BAI |
| Leaburu | EZ |
| Legazpi | — |
| Leintz-Gatzaga | EZ |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | BAI |
| Olaberria | BAI |
| Oñati | BAI |
| Orio | BAI |
| Ormaiztegi | BAI |
| Segura | EZ |
| Soraluze-Placencia de las Armas | EZ |
| Tolosa | BAI |
| Urnieta | EZ |
| Urretxu | — |
| Usurbil | BAI |
| Villabona | — |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | BAI |
| Zestoa | BAI |
| Zizurkil | — |

**31. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**



**Belauntzako Udalak** bakarrik aipatu du biktimekiko elkartasun ekitaldiak egiten dituela, baina ez du zehaztu zein ekitaldiri buruz ari den.

Udal batzuek atentatu bat izaten den bakoitzean **elkarretaratze isilak** egiten direla aipatzen dute. Hona hemen hori adierazi duten udalak: **Alegia**, **Andoain**, **Aretxabaleta**, **Lasarte-Oria**, **Lazkao**, **Mutriku**, **Oñati**, **Orio**, **Zarautz** eta **Zegama**.

Udal batzuk izan dira biktimekiko elkartasun mozioak eta terrorismoa gaitzestekoak onetsi dituztenak, hala nola **Aretxabaleta**, **Oñati** edo **Zarautz**.

Biktimekiko elkartasuna azaltzeko, **Getariako Udalak** EUDELek egiten dituen proposamenei jarraitzen die.

**Zestoako Udalak** aldiro-aldiro antolatzen ditu herriko terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldiak.

**Azkoitiko Udalak** herriko terrorismoaren biktimekiko elkartasun adierazpen bat onetsi zuen.

Beste alde batetik, **Beasaingo Udalak** Goierriko Bakearen aldeko Koordinakundeak jazarpenezko indarkeriaren biktimen alde aurkeztutako mozio proposamen bat onetsi zuen.

Udal batzuek atentatuak gaitzesteko mozioak eta biktimekiko elkartasuna adierazteko mozioak onesten dituzte. Gauzak horrela, **Astigarraga**, **Bergara** eta **Olaberriako** udalek ETAk Isaías Carrasco zinegotzi sozialista ohiaren heriotza eragin zuen atentatu terrorista gaitzesteko mozioak onetsi zituzten. Beste batzuek, esate baterako **Ormaiztegikoak** edo **Usurbilgoak**, Barajasko aireportuko T-4n Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacioren heriotza eragin zuen atentatu terrorista gaitzesteko mozioak onartu zituzten.

Biktimen alde oso aktibo jokatu duen **Zarauzko Udalak** erabaki asko onetsi ditu terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko. Erabaki horiek ez dira bakarrik hartu heriotzak eragin dituzten atentatuak izan direnean; izan ere, alderdi politikoen egoitzen, epaitegien eta antzekoen kontrako atentatuak gaitzesteko ere erabili dira. Halaber, Pilar Elíasi ere (Ramón Baglietto) elkartasuna adierazi diote; izan ere, pertsona horrek jasan behar du bere senarraren hiltzailea bera bizi den eraikinean kristaldegi bat jarri izana, nahiz eta egindako kalteaz inolako damurik agertu ez.

Azpimarratzekoa da Zarauzko Udaleko osoko bilkurak, 1998ko uztailaren 30ean, erabaki zuela ETAk 1998ko urtarrilaren 9an eraildako José Ignacio Iruretagoiena zinegotzi popularrari **hiriko urrezko domina** ematea, bai eta seme kutun izendatzea ere.

**Donostiako udal korporazioak** urrezko domina, hiriko ikur nagusia, eman zien bertako terrorismo eta bortizkeriaren biktimei 2003ko urtarrilean egin zen ekitaldi batean; ekitaldi horretara biktimen senideak eta erakundeetako ordezkariak hurreratu ziren. Halaber, hiriko alkateak hiriko urrezko domina eman zien Valentziako Terrorismoaren Biktimak izandako Estatuko Segurtasun Indarreko Elkarteko 25 kideri (ACFEF); izan

ere, horiek guztiek atentaturen bat izan zuten Donostian 1978tik 1998ra bitartean. Alkateak zehaztu zuen domina hori biktimei ematen zitzaiela *"hainbat urteren ondoren, justizi ekintza bezala; izan ere, neurri handi batean, ahaztuta egon ziren, ez zitzaien beharreko aitorpenik egin, eta hori, azken batean, biktimak eta familiak gogoan izateko ekimen bat zen"*.

Azkenik, aipatu beharra dago Gipuzkoako zenbait udalerritan terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldiak egin direla. **Donostiako Udalak**, esate baterako, 2002az geroztik, urtero-urtero antolatu ohi du terrorismoaren biktimak gogoan izateko omenaldi bat; ekitaldi horretan elkarretaratze isil bat egin eta udaleko terrazan kandelak pizten dira, "Argi izpia oroitzapenerako. Deiadarra bakerako" leloaren pean. Ekitaldiaren xedea da herritarrek eta erakundeek terrorismoaren biktimengana duten laguntza moral, maitasun eta elkartasuna adieraztea. Egun horretan udaleko balkoian pankarta handi bat jartzen da aipatutako lelo horrekin: "Argi izpia oroitzapenerako. Deiadarra bakerako".

**Eibarko Udalak** ekainaren 8an terrorismoaren biktimak gogoratzeko plaka bat jarri zuen. Omenaldi horretara Eibarren hildako biktimen senide guztiak gonbidatuak izan ziren.

**Errenteriako Udalak** ere 2006ko abenduan terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldi bat gauzatu zuen; ekitaldi horretan omenezko monumentu bat instalatu zuen eta bertara biktimen familia batzuk bertaratu ziren, bai eta erakundeetako zenbait ordezkari ere.

**Irungo Udalak,** 2003ko apirilaren 14an, terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldi bat egin zuen, omenezko monolito baten inaugurazioarekin bat.

**Zarauzko Udalak,** 2007ko apirilaren 27an, terrorismoak Gipuzkoako herri honetan hildako 17 biktimak omentzeko lehendabiziko ekitaldia antolatu zuen. Gauzak horrela, omenezko ekintza hori urtero-urtero egiteko erabakia hartu zen.

2008ko apirilaren 27an, Terrorismoaren Biktimen aldeko Urteroko II. Omenaldia egin zen Gipuzkoako udalerri horretan; ekitaldi horretara 200 pertsona inguru bertaratu ziren, terrorismoaren indarkeria jasan dutenei sostengua adieraztera. Omenaldi honetan ekimen berritzaile bat egin zuten; izan ere, liburu bat jarri zuten, nahi zuten pertsona guztiek terrorismoaren biktimei zuzendutako aipu bat idatz zezaten.

**Donostiako Udalak,** 2008ko urriaren 13an, aurreko mendeko 80ko hamarkadan hildako bi udaltzain omentzeko ekitaldi bat egin zuen; hartara, euren lantokian bi plaka jarri ziren omenaldi gisa[33].

---

[33] Miguel Garciarena udaltzain burua 1980an hil zuten eta Manuel Peronié udaltzaina 1983an.
Donostiako alkateak nabarmendu zuen era guztietako pertsonekin zor morala dagoela; izan ere, hil zituzten arren, ez zitzaien beharrezko aitorpena egin.
Senideek euren babes falta nabarmendu zuten eta bakarrik sentitu zirela.
*El País*, *El Correo*, *El Mundo*. 2008ko urriaren 14an.

**Andoainen** José Luis López de Lacalle omentzeko ekitaldi bat egin zuten 2007ko maiatzaren 7an, herri horretan hil zutenetik zazpigarren urteurrena zela eta[34].

**Legorretan** Juan Mª Jáuregui omendu zuten; Jáuregui herri horretakoa zen eta ETAk erail zuen Tolosan.

**Azkoitiko Udalak** 2007ko martxoaren 28an omendu zituen laurogeiko hamarkadan ETAk, CCAAk eta GALek hildako herri horretako 7 biktimak. Ekitaldian monolito bat inauguratu eta lore eskaintza bat egin zen[35].

2008ko apirilaren 20an, **Elgoibarko Udalak** omenaldi bat egin zien udalerri horretako terrorismoaren biktimei; ekitaldi horretara bostehun pertsona inguru hurbildu ziren. Gauzak horrela, Gernikako Arbolaren kimu baten aurrean lore eskaintza bat egin zuten[36].

Biktimetariko baten senideek eta beste baten arrebak ez bertaratzea erabaki zuten; izan ere, euren esanetan, elementu mutu bezala gonbidatu zituzten eta ez zitzaien hitzik eman. Euren iritziz, funtsezkoa zen aldez aurretik senideekin zuzeneko harremanak izatea eta ez prentsa bidez enteratzea[37].

Ekitaldian parte hartu zuten senideetariko batzuek euren eskerrona azaldu zuten, ekitaldia egin zela eta. Batzuek eskerrak eman zituzten *"hainbeste urteren ondoren"* emandako sostenguarengatik.

Omenaldia egin baino egun batzuk lehenago, Gipuzkoako udalerri honetan omendu nahi zituzten biktima batzuen kontrako kartelak agertu ziren[38].

2009ko apirilaren 25ean, **Elgoibarreko Udalak** terrorismoaren biktimei egindako jarraikako bigarren omenaldia egin zuen[39].

Ararteko erakundeak udalei eskatutako informazioa jasotzen amaituta, biktimen aldeko erabaki batzuk hartu dira. Zentzu horretan, **Beasaingo** Udalak aho batez erabaki zuen Zaldizurretako biribilgunean plaka bat jartzea Ana Isabel Arostegui eta Francisco Javier Mijangos ertzainen oroimenez. Biak ETAk hil zituen 2001eko azaroaren 23an[40].

Bestalde, **Tolosako** Udaleko osoko bilkurak aho batez erabaki zuen 2009ko martxoaren 31n urtero terrorismoaren biktimak aitortzeko omenaldia egitea. Helburua *"erraildako tolosar hauen guztien eta Tolosan erraildako pertsona guztien herritar*

---

34 *Testimonio de silencio*, 2007. 15. zenb.

35 *In memoriam. Reconocimientos sociales e institucionales a las víctimas del terrorismo*. 2007. 52 eta 53. or.

36 *Testimonio de silencio*. 19. zenb., 31. or.

37 *El Mundo*. 2008ko apirilaren 7an. 15. or.

38 *Diario Vasco*. 2008ko apirilaren 7an. 33. or.

39 *El País*, 2009ko apirilaren 26a, Euskal Autonomia Erkidegoko edizioa, 5. or.

40 *El Diario Vasco*, 2009ko apirilaren 4a, 20. or.

*izaera lehengoratzea da"*, eta *"erakundeen duintasun morala eta zibikoa berrestea, indarkeria terroristari legitimazioa kenduz helburu politikoak lortzeko bide gisa"*. Gainera, toki publiko batean plaka bat jartzea, erakusketak, eskaintzak, hitzaldiak eta kontzertuak egitea aurreikusi da. Onartu egiten da *"ez dela ahaztu behar terrorismoaren biktimek, maite duten pertsona baten heriotzaz gain, ahaztea, axolagabekeria eta auzotarren eta auzokideen jarrera txarra ere jasan dituztela"*[41].

Tolosako Udalak omenaldia egin zien 2009ko maiatzaren 30ean ETAren, GALen eta Komando Autonomo Antikapitalisten biktimei, Gipuzkoako herri horretan jaiotako edo hildako biktimei, hain zuzen. Omenaldian poema bat irakurri zen, non *"egileak galdetzen du zer esan ahal ote zaien hainbeste sufritu duten terrorismoaren biktima guztiei"*. Gero, Aranburu jauregiaren eta biktimak ordezkatzen dituzten taket zurien (*"itxuraz berdinak, baina guztiak desberdinak"*) parean jarritako monolitoa desestali zuten dozenaka haurrek[42].

## 8.5. Terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen duten ekimen edo ekitaldiak Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoan 81 udalek adierazi dute ez dutela ekimen edo ekitaldirik antolatu terrorismoaren biktimei aitorpen egiten laguntzeko; esan nahi baita, erakunde honi informazioa bidali dioten udalen %43k ez dute halako ekimenik gauzatu.

Biktimenen omenezko ekimen edo ekintzaren bat antolatu duten udalak 78 izan dira; horrek esan nahi du Arartekoarekin lankidetzan jardun duten udalen %41ek biktimak oroitzeko ekimenen bat jarri dutela abian.

**32. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIKO AITORPEN ETA ELKARTASUN EKINTZEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




41 *El Diario Vasco*, 2009ko apirilaren 1a, 32. or.

42 http://www.diariovasco.com/20090531/politica/tolosa-planta-arbol-20090531.html.

Ekimenak asko eta askotarikoak izan dira. Atentatu bat egiten den bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko udal ugarik elkarretaratze isilak egiten dituzte, herritarrak horietan parte hartzera gonbidatuz.

Kasu batzuetan baieztatu dute EUDELek, Eusko Jaurlaritzak edo Lehendakariak ildo honi jarraituz deitutako ekitaldiak babesten dituztela.

Udal askok adierazi dute terrorismoa gaitzesteko eta biktimekiko elkartasuna adierazteko mozioak onesten dituztela.

Udal batzuek herriko urrezko domina eman edo herriko seme edo alaba kutun izendatu dituzte herri horietako terrorismoaren biktimak edo biktimei laguntzeagatik nabarmendu diren pertsonak.

Abian jartzen ari den beste ekimen bat da terrorismoaren biktimei jendaurreko omenaldiak eskaintzea, herriko biktimen senideen, erakundeetako ordezkarien eta herritarren partaidetzarekin. Omenaldi horietariko askok Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren laguntzaz gauzatu dira[43].

Erakunde honek egindako informazio eskaerari erantzunez, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak honako hauxe jakinarazi zigun: *"zuzendaritzak azken urtean bilerak eta topaketak bideratu ditu erkidegoko udal askotako udal arduradun ugarirekin, udalerrietako terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko ekitaldiak egin daitezela eskatzeko"*. Halaber, ondorengoa erantsi zuen: *"Oraindik ere zeregin hau bete behar duten udal nahiko geratzen dira. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak udalen arloan aitorpen hori bultzatzeko lanari jarraituko dio; izan ere, zuzendaritzaren iritziz, lan hori toki erakundeek biktimen aintzatespena lortzeko aktibatu beharreko konspirazio baketsuaren eremuan eman dezaketen zerbitzu onenetariko bat da"*.

Biktimei Laguntzeko zuzendariak berak, Eusko Legebiltzarraren Biktimen Ponentzian izandako agerraldian[44], ondokoa adierazi zuen:

> *"…ez litzateke bidezkoa izango ez onartzea azken urteotan, batik bat, ez dela aldaketarik izan terrorismoaren biktimei aitorpen egiteko defizitaren gizarte pertzepzioan. Aldaketa hori gizartearen eta erakundeen jokabidean nabaritu da eta Euskadiko zenbait tokitan terrorismoaren biktimak oroitzeko egindako omenezko ekimen eta ekitaldietan islatu da. Hala ere, gutxi izan dira eta nahiko isolatuak.*

---

[43] Egindako ekitaldi eta omenaldiak aurrerantzean eguneratzeko, udalerri ezberdinen eta EUDELen (http://www.eudel.net) web orrialdeak kontsulta daitezke. Bertan, "terrorismoaren biktimak" erreferentziapean, bederatzi sarrera izan ziren 2009ko martxoaren amaieran. Horien bitartez "bakearen aldeko udalerriak" atalaren barruan kokatutako ekintzak ezagut daitezke, akordioak eta dokumentuak (zenbait udalerritan terrorismoaren biktimak oroitzeko monolitoak jartzeko ekitaldiko diskurtsoak, kasu), foroak, omenaldi zerrenda, praktika onen adibideak eta biktimak aitortu eta babesteko beste ekimen batzuk nahiz balioetan eta bakerako kulturan egindako hezkuntza. Web orrialde horretan EUDELen deklarazioa dago ere, udal demokraziaren hogeita hamargarren urteurrena dela eta, 2009ko apirilaren 2an aurkezturikoa. Bertan, publikoki onartzen da mehatxatutako zinegotzi eta zinegotzi ohien lana.

[44] Terrorismoaren Biktimen Ponentzian izandako agerraldia 2005eko abenduaren 1ean.

*Hori dela eta, 70eko amaierako, 80ko hamarkadako eta 90eko hamarkadako hasierako urte horiei begiratzea derrigorrezkoa da, bai eta pentsatzea ere urte larri horietan indarkeria jasan behar izan zuten familiengan. Faltan nabaritu zuten erakundeen laguntza, administrazioek ez zuten interesik azaldu, auzokideek ez zuten elkartasunik adierazi, gizarteak ez zuen adore zibikorik agertu. Beldur gehiegi izan genuen, uzkur eta lotsaz jokatu genuen eta, zeregina borobiltzeko, azalpen zitalak onartu genituen. Azken finean, biktimak bere kasa laga genituen eta hitzez ezin deskriba daitekeen egoera larria ahalbidetu genuen. Hori guztia bizi beharra dago".*

**23. TAULA**

**TERRORISMOAREN BIKTIMEI AITORPEN EGITEKO OMENALDIAK ANTOLATU DITUZTEN UDALAK**

| | |
|---|---|
| ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz |
| ARABA | Arrigorriaga<br>Barakaldo<br>Basauri<br>Bilbao<br>Durango<br>Ermua*<br>Galdakao<br>Leioa*<br>Portugalete<br>Santurtzi |
| GIPUZKOA | Andoain*<br>Azkoitia<br>Donostia-San Sebastián<br>Elgoibar<br>Errenteria<br>Irun<br>Legorreta*<br>Tolosa<br>Zarautz |

* Biktima bati bereziki egindako omenaldiak eta ez udalerrian izandako guztiei.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

**ARABA**




**BIZKAIA**




**GIPUZKOA**



Nolanahi ere den, EAEko udalerri askotan, euren herrietan heriotzak eragin dituzten atentatu terroristak jasan dituzten arren, ez da biktimak omentzeko ekitaldirik antolatu.

### HERIOTZAK ERAGIN DITUZTEN ATENTATU TERRORISTAK IZAN DITUZTEN UDALERRIAK

(zerrenda ikusteko II. eranskina / 31. taula: Heriotzak eragin dituzten atentatu terroristak izan dituzten udalerriak)

**ARABA**




**BIZKAIA**




* 3 biktima gehitu dira, edizio inprimatuan Areatzako biktimatzat jo zirenak, oker baten ondorioz.

**GIPUZKOA**




# IX. EAEko UDALERRIETAN ANTOLATU DIREN ETA TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO EKIMEN, EKITALDI EDO ESPERIENTZIAK

## 9.1. Terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako udal ekimenak

Atal honetan terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziak aipatuko dira, hots, aurreko ataletan aipatutakoez bestaldeko ekimenak jasoko dira honako zati honetan. Horrek esan nahi du aitorpen ekintzak (hala nola monolito edo monumentuak eraikitzea, atentatuak gaitzesteko eta biktimekiko elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak antolatzea…) bultzatu dituzten udaletariko batzuk ez direla atal honetan agertuko, baldin eta bestelako ekimenik abian jarri ez badute. Puntu honetan, beraz, aipatutakoez bestaldeko ekintza edo ekimenei egingo zaie men; kasu askotan, ekimenok ez zaizkie hainbeste lotzen biktimen oroitzapena omentzeko ekitaldiei, baizik eta bakearen aldeko balio eta printzipio demokratikoei edo bereziki gazteei zuzendutako bake heziketarako neurriei.

## 9.2. Arabako Lurralde Historikoan antolatu eta terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziak

Terrorismoaren biktimei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoan udal gehienek ez dute bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziarik jorratu, aurreko epigrafeetan berariaz adierazitakoez gain. Hona hemen hori adierazi duten udalak: Añana, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Elvillar/Bilar, Harana/Valle de Arana, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Kripan, Kuartango, Lanciego/Lantziego, Lantarón, Moreda de Álava, Okondo, Ribera Alta, Ribera Baja/Erribera Beitia, Urkabustaiz, Yécora/

Iekora, Zalduondo, Zigoitia eta Zuia. Horrek esan nahi du %58k ez dutela abian jarri bestelako jarduerarik.

Batzuk dira gai zehatz honi erantzunik eman ez dioten udalak. Hona hemen: Alegría-Dulantzi, Artziniega, Baños de Ebro/Mañueta, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Lagrán, Legutiano, Samaniego, San Millán/Donemiliaga, Valdegovía/Gaubea eta Villabuena de Álava/Eskuernaga. Udal horiek, guztira, Arartekoaren erakundeari informazioa bidali diotenen %31 dira.

Lau udalek bakar-bakarrik eraman dituzte aurrera bestelako ekimenak: Amurrio, Elciego, Laudio/Llodio eta Vitoria-Gasteiz hiriburua.

**24. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENAK ARABAN**

| Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da? ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Alegría-Dulantzi | — |
| Amurrio | BAI |
| Añana | EZ |
| Arraia-Maeztu | EZ |
| Arrazua-Ubarrundia | EZ |
| Artziniega | — |
| Baños de Ebro/Mañueta | — |
| Barrundia | — |
| Elburgo/Burgelu | — |
| Elciego | BAI |
| Elvillar/Bilar | EZ |
| Harana/Valle de Arana | EZ |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | EZ |
| Iruraiz-Gauna | EZ |
| Kripan | EZ |
| Kuartango | EZ |
| Lagrán | — |
| Lanciego/Lantziego | EZ |
| Lantarón | EZ |
| Laudio/Llodio | BAI |
| Legutiano | — |
| Moreda de Álava | EZ |
| Okondo | EZ |

| Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da? ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Ribera Alta | EZ |
| Ribera Baja/Erribera Beitia | EZ |
| Samaniego | — |
| San Millán/Donemiliaga | — |
| Urkabustaiz | EZ |
| Valdegovía/Gaubea | — |
| Villabuena de Álava/Eskuernaga | — |
| Vitoria-Gasteiz | BAI |
| Yécora/Iekora | EZ |
| Zalduondo | EZ |
| Zigoitia | EZ |
| Zuia | EZ |

**33. GRAFIKOA:**

**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




**Amurrioko Udalak** zineforumeko esperientzia bat eraman zuen aurrera; ekitaldi horretan bakerako heziketari buruzko zenbait alderdi jorratzen zituzten film batzuk eskaini ziren. Halaber, erakusketa ibiltari bat antolatu zuen, *"nazioarteko gatazka batzuen irudiak jasotzen zituzten hainbat panelekin, ikasleei nahiz bestelako ikusleei zuzenduta"*.

**Eltziegoko Udalak** oso aktibo jardun du; jarduera bortitz eta diskriminatzaileak gaitzesteko erabaki ugari onetsi ditu, bai eta bakearen nahiz giza eskubideen aldekoak ere. Gauzak horrela, Madrilen 2004ko martxoaren 11n izandako atentatu terroristak gaitzesteko erabakia hartu zuen, besteak beste. Txosten honen edukiari dagokionez,

udalbatzak aho batez onetsi zuen honako atxikimendu hau: *"maiatzaren 1eko leloak geure egiten ditugu; izan ere, horietan ezartzen da terroristek sortutako izu giroak eta jazarpenak langileen eta haien duintasunaren, eskubideen eta askatasunaren etsai nagusiak direla"*.

2004. urtetik aurrera, **Laudioko Udalak**, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailarekin elkarlanean zenbait programa eta ekimen jarri ditu abian bakerako heziketaren inguruan. Garrantzitsuenak ondokoak izan dira: bakerako ludoteka kooperatibo bat, giza eskubideen aldeko web gune bat, bakearen aldeko ibilbideak eta zinea nahiz giza eskubideak uztartzen dituen gelak. Nabarmentzekoa da "kontadazu" izeneko programa; izan ere, horren bitartez, udalak belaunaldien arteko topaketa bat sortu nahi izan zuen pertsona nagusiek zein umeek protagonismoa har zezaten, era guztietako kulturak eta errealitateak berreskuratzeko eta ezagutarazteko. Aldi berean, aipatzekoa da "Elkarbizitzarako plan integrala" ere; egitasmo hori 2010era arte luzatuko da eta auzokideen arteko arazoei helduko die.

Bestalde, **Vitoria-Gasteizko Udalak** adierazi du zenbait lankidetza hitzarmen izenpetu dituela Fernando Buesa Blanco Fundazioarekin, biktimen eta bake kulturaren aldeko zenbait jardueraren inguruan.

### 9.3. Bizkaiko Lurralde Historikoan antolatu eta terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziak

Bizkaiko Lurralde Historikoan, udal gehienek (guztira, 55, hau da, %59) adierazi dute ez dutela bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziarik jorratu, aurreko epigrafeetan berariaz aipatutakoez gain; hala ere, horietariko batzuek, esate baterako Areatzak eta Otxandiok gerra zibileko biktimen inguruan egindako beste ekimen batzuk aipatu dituzte. Nolanahi ere den, hona hemen bestelako ekimenik antolatu ez duten herriak: Abadiño, Ajangiz, Alonsotegi, Amoroto, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Arrigorriaga, Artzentales, Atxondo, Bakio, Balmaseda, Basauri, Bedia, Berango, Berriatua, Busturia, Derio, Ea, Erandio, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Galdames, Gamiz-Fika, Garai, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gordexola, Ibarrangelu, Igorre, Ispaster, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mallabia, Maruri-Jatabe, Mendexa, Mundaka, Murueta, Muskiz, Nabarniz, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sukarrieta, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zaldibar, Zamudio eta Zeanuri.

Beste udal batzuek, 22k, ez dute beren-beregi adierazi ea biktimen inguruan bestelako ekimenik aurrera eraman duten ala ez. Horixe gertatzen da ondokoen kasuan: Elantxobe, Elorrio, Fruiz, Gorliz, Güeñes, Iurreta, Izurtza, Lanestosa, Mañaria, Mendata, Morga, Ondarroa, Orozko, Sestao, Sondika, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Ubide, Ugao-Miraballes, Urduliz, Urduña-Orduña eta Zierbena.

Azkenik, 16 udalek, guztira, %17k terrorismoaren biktimekin zerikusia duten beste ekimen interesgarri batzuen berri eman dute. Udal horiek ondorengoak dira: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Artea, Barakaldo, Barrika, Bermeo, Bilbao, Durango, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Leioa, Lekeitio, Ortuella, Sopelana eta Zalla.

**25. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENAK BIZKAIAN**

| Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da?<br><br>BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Abadiño | EZ |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | BAI |
| Ajangiz | EZ |
| Alonsotegi | EZ |
| Amoroto | EZ |
| Areatza | EZ* |
| Arrankudiaga | EZ |
| Arratzu | EZ |
| Arrieta | EZ |
| Arrigorriaga | EZ |
| Artea | BAI |
| Artzentales | EZ |
| Atxondo | EZ |
| Bakio | EZ |
| Balmaseda | EZ |
| Barakaldo | BAI |
| Barrika | BAI |
| Basauri | EZ |
| Bedia | EZ |
| Berango | EZ |
| Bermeo | BAI |
| Berriatua | EZ |
| Bilbao | BAI |
| Busturia | EZ |
| Derio | EZ |
| Durango | BAI |
| Ea | EZ |
| Elantxobe | — |
| Elorrio | — |
| Erandio | EZ |
| Ereño | EZ |
| Ermua | BAI |
| Errigoiti | EZ |
| Etxebarri | BAI |

**Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Etxebarria | EZ |
| Fruiz | — |
| Galdakao | BAI |
| Galdames | EZ |
| Gamiz-Fika | EZ |
| Garai | EZ |
| Gatika | EZ |
| Gautegiz Arteaga | EZ |
| Gernika-Lumo | EZ |
| Getxo | BAI |
| Gordexola | EZ |
| Gorliz | — |
| Güeñes | — |
| Ibarrangelu | EZ |
| Igorre | EZ |
| Ispaster | EZ |
| Iurreta | — |
| Izurtza | — |
| Karrantza Harana/Valle de Carranza | EZ |
| Lanestosa | — |
| Leioa | BAI |
| Lekeitio | BAI |
| Lemoa | EZ |
| Lemoiz | EZ |
| Lezama | EZ |
| Loiu | EZ |
| Mallabia | EZ |
| Mañaria | — |
| Maruri-Jatabe | EZ |
| Mendata | — |
| Mendexa | EZ |
| Morga | — |
| Mundaka | EZ |
| Murueta | EZ |
| Muskiz | EZ |
| Nabarniz | EZ |
| Ondarroa | — |

**Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da?**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Orozko | — |
| Ortuella | BAI |
| Otxandio | EZ* |
| Plentzia | EZ |
| Portugalete | EZ |
| Santurtzi | EZ |
| Sestao | — |
| Sondika | — |
| Sopelana | BAI |
| Sopuerta | — |
| Sukarrieta | EZ |
| Trucios-Turtzioz | — |
| Ubide | — |
| Ugao-Miraballes | — |
| Urduliz | — |
| Urduña-Orduña | — |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | EZ |
| Zaldibar | EZ |
| Zalla | BAI |
| Zamudio | EZ |
| Zeanuri | EZ |
| Zierbena | — |

* Bai, bestelako biktima batzuen kasuan (Gerra Zibileko biktimak).

**34. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**



Irizpide sistematiko bati jarraituz, aurkeztutako ekimenetariko batzuk kapitulu hau egituratzeko erabilitako aurreko ataletariko batean sar litezke. Horrela, **Abanto-Zierbenako Udalak** adierazi du elkarrizketarako udal bilgune bat eratu duela 2007ko maiatzean "Konpondu" izeneko ekimenaren proiektuaren barruan. **Arteko Udalak** atentatu terrorista bat izaten denean egiten dituen elkarretaratzeen berri eman du, EUDELek eta Eusko Jaurlaritzak deitutakoak. Ildo horri jarraituz erantzun du **Barrikako Udalak**. Hori dela eta, ekimen horiek dagokien tokian aipatu dira, sistematikoagotzat jotzen dugulako, baina betiere beharrezko aipamena eginda.

**Galdakaoko Udalak** honakoa adierazi du: *"udal honetako zinegotzi guztiek terrorismoaren biktimak garela sentitzen dugu, herritar guztiei, oro har, eragiten dien arazoa delako; hori dela eta, gure jarduketetan beti izaten dugu kontuan egoera hori".*

**Leioako Udalak** zehaztu du César Uceda jaunaren omenez egindako ekitaldiak nabarmen daitezkeela. Ekitaldi hori César Ucedari egindako omenaldi bat izan zen; izan ere, César Uceda Leioako Udal Kontserbatorioko irakaslea eta militarra zen, ETAk tirokatu zuen 1982ko urriaren 21an kontserbatoriora bidean eta handik egun batzuetara hil zen[45].

Atal honetan terrorismoaren biktimen oroitzapena omentzetik harago doazen ekimenak aipatu nahi diren arren, ideia horri lotuta egon behar dute. Izan ere, bakearen kulturaren balioak bultzatzera zuzendutako ekimenak dira, elkarbizitzarako eremuak sustatzera, bakerako heziketaren aldekoak laguntzera eta abar.

Hartara, **Bilboko Udalak** BILBOBUSen eta kalean "Bilbao Paz y Tolerancia/Bakea eta Tolerantzia" izeneko kanpaina bat egin zuen. Gainera, udal honek UNESCOrekin hitzartu du UNESCO/Bilbao sariaren finantzazioa, giza eskubideen aldeko kultura sustatzeko asmoz (2008-2012). Era berean, Bizkaiko hiriburuko bakerako bilgunean "bakerako heziketa" ponentzia aurkeztu da eta urtero-urtero bakerako asteak antolatzen dira; horietan bakearen kulturaren aldeko hainbat ekimen garatzen dira.

**Durangoko Udalak** gatazken konponketarako eragileak prestatzeko ekimen bat jarri du martxan Baketik kolektiboaren laguntzaz.

---

[45] Eusko Legebiltzarraren Biktimen Ponentzian 2006ko abenduaren 14an izandako agerraldi batean EUDELeko lehendakari eta Leioako alkatea zenak adierazi zuen César Uceda omentzeko kontzertu bat egin zutela familiarekin batera (guztiak musikariak ziren). Bere esanetan, zirraragarria izan zen. Gainera, pozgarria izan zen herri guztia ordezkatuta ikustea, gizarte, kultur, ekonomi taldeak, talde politikoak, ia herri osoa. Horren ostean, musikari gazteei zuzendutako lehiaketa bat sortu zen handik; izan ere, César Uceda horretan sinesten zuen eta hori maite zuen, musika. Eta gainera zuen ikusi zuela beste urrats bat ematen ari zirela, ordura arte ez emandako urratsa. Eta hori aitorpena zen, iraganean egiten ez zena, baina orain etapa berri bat zabaltzen zuena.

Atentatu hau guztiz zitala izan zen. César Ucedak bederatzi umezurtz utzi zituen. Bere alabak kontatu zuen ospitaleratu zutenean berriro ere ahalegindu zirela hiltzen, baina ez zutela lortu segurtasun neurriak onak zirelako. Pertsona bat atxilotu zuten, gelan poltsa batekin sartzen saiatu zena. Gainera, bere hilketarekin ez ziren mehatxuak amaitu. Goizaldean dei iraingarriak jasotzen genituen. Arteta, I. y Galletero, A. *Olvidados*. 149-157. or.

**Ermuan**, udalak Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Fundazioarekin batera Espainiako konstituzioaren 25. urteurrena ospatu zuen Miguel Ángel Blanco kiroldegian, “Etorri zaitez Gernika koloreztatzera” ekimenaren barruan; ekitaldira horretara ehunka ikasle bertaratu ziren Picassoren “Gernika” artelanaren irudi erraldoi bat margotzera.

**Etxebarriko Udalak** bakearen eta elkarbizitzaren kulturaren aldeko toki ekimenak bultzatu ditu Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko aginduan oinarrituz; izan ere, agindu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko udalek garatutako bakerako heziketari buruzko egitarau eta ekimenak diruz laguntzera zuzendutako laguntzen emakida arautzen da. Ekimen hori garatzeko, bada, bakearen eta giza eskubideen aldeko jardunaldiak izan dira, bai eta jorratu ere elkarbizitzarako nahiz bakerako prestakuntza eta gaikuntza prozesuak.

**Getxoko Udalak** ere erkidegoko bitartekaritza eta bakerako heziketa sustatzeko plangintza bat onetsi du; horren bitartez, 2005etik urtero-urtero ondoko jarduerak egiten dira: gatazkak konpontzeko eta bitartekaritza bultzatzeko prestakuntza ekintzak, “Getxo: bakerako 50 ideia: bakerako kulturari eta gatazken eraldaketari buruzko gida” izeneko argitalpena, bakerako kulturari eta herritarren partaidetzari buruzko topaketa ziklo bat, erkidegoko bitartekaritzaren eta bakerako kulturaren eremuan “elkarbizi” erakusketa, haurrei bakerako kulturari buruzko nozioak hurbiltzeko ipuin kontalarien ziklo bat eta erkidegoko bitartekaritza nahiz bakerako kultura garatzen laguntzeko interesa duten pertsonen batasun sare bat.

**Lekeition**, udalak “bakearen kultura-kulturaren bakea” izeneko egitaraua bultzatu du Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta; programaren bitartez, elkarbizitzarako jarraibideak erakutsi nahi izan dizkiete. Halaber, “Lekeition elkarbizitzeko 10 arau” izeneko foileto bat eman du argitara eta udaleko web gunean programa elkarreragile bat jartzeko asmoa dauka.

Bestalde, Sopelako Udalak zenbait programa antolatu ditu bakea sustatzen duten balioen berri emateko, bereziki herriko ikastetxeei zuzenduta. Gauzak horrela, “Sopelana zibismoaren alde” programa antolatu zuten eta herriko institutuko ikasleek bakearen aldeko uso bat apaindu zuten. Gainera, biktimek herrialde gatazkatsuetan betetzen duten zereginari buruzko ekitaldi bat egin dute. Azkenik, gatazken konponbideari eta kulturaniztasunari buruzko unitate didaktikoak egiteko programa bat aipatu dute, udalerriko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleei zuzenduta.

Beste ekimen batzuk ondokoak dira: udalek parte hartzea erakundeek edo gizarte eragileek biktimen alde antolatutako omenaldietan. Esate baterako, **Bilboko Udalak**, Euskal Autonomia Erkidegoko beste udal askok bezala, terrorismoaren biktimak omentzeko ekintza batean parte hartu zuen eta urtero-urtero esku hartzen du, alkateak ordezkatuta, Bakearen aldeko Koordinakundeak biktimekiko elkartasuna adierazteko antolatzen duen ekitaldian.

Azkenik, udal batzuek giza eskubideekin zerikusia duten edo terrorismoaren biktimen alde egin diren filmen emanaldi zikloak antolatzen dituzte, hala nola **Barakaldoko Udalak**; udal honek herriko antzokian eman zuen “Sin libertad” filma, terrorismoaren biktimen bizipenak islatzen dituena.

## 9.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoan antolatu eta terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziak

Gipuzkoako Lurralde Historikoan udal gutxik adierazi dute aurreko ataletan aipatutakoez bestaldeko ekimen, ekitaldi edo esperientziak antolatu dituztela terrorismoaren biktimei dagokienez. Horrela bada, atal honi dagokionez, ondoko udalak izan dira ekitaldirik antolatu ez dutenak: Aia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Andoain, Arama, Aretxabaleta, Asteasu, Astigarraga, Azkoitia, Berrobi, Bidegoian, Deba, Elgeta, Eskoriatza, Gabiria, Getaria, Hernialde, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñati, Orio, Ormaiztegi, Segura, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urnieta. Horrek esan nahi du Gipuzkoan erakunde honekin lankidetzan jardun duten udalen %56k ez dutela aipatutakoez bestaldeko ekintzarik gauzatu.

Beste udal batzuek ez dute beren-beregi adierazi ea biktimen inguruan bestelako ekimenik aurrera eraman duten ala ez. Hona hemen: Alegia, Anoeta, Arrasate/Mondragón, Beasain, Belauntza, Berastegi, Bergara, Eibar, Elduain, Elgoibar, Errezil, Gaintza, Hernani, Legazpi, Olaberria, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zegama, Zestoa eta Zizurkil.

Azkenik, zehaztu beharra dago lurralde historiko honetako 6 udalek bestelako esperientziak gauzatu dituztela terrorismoaren biktimen inguruan. Udal horiek, guztien %10, ondorengoak dira: Donostia-San Sebastián, Errenteria, Irun, Lasarte-Oria, Tolosa eta Zarautz.

**26. TAULA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENAK GIPUZKOAN**

| Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da? GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Aia | EZ |
| Alegia | — |
| Alkiza | EZ |
| Altzaga | EZ |
| Altzo | EZ |
| Andoain | EZ |
| Anoeta | — |
| Arama | EZ |
| Aretxabaleta | EZ |
| Arrasate/Mondragón | — |
| Asteasu | EZ |
| Astigarraga | EZ |

**Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da?**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA**

| | |
|---|---|
| Azkoitia | EZ |
| Beasain | — |
| Belauntza | — |
| Berastegi | — |
| Bergara | — |
| Berrobi | EZ |
| Bidegoian | EZ |
| Deba | EZ |
| Donostia-San Sebastián | BAI |
| Eibar | — |
| Elduain | — |
| Elgeta | EZ |
| Elgoibar | — |
| Errenteria | BAI |
| Errezil | — |
| Eskoriatza | EZ |
| Gabiria | EZ |
| Gaintza | — |
| Getaria | EZ |
| Hernani | — |
| Hernialde | EZ |
| Idiazabal | EZ |
| Ikaztegieta | EZ |
| Irun | BAI |
| Irura | EZ |
| Itsasondo | EZ |
| Larraul | EZ |
| Lasarte-Oria | BAI |
| Lazkao | EZ |
| Leaburu | EZ |
| Legazpi | — |
| Leintz-Gatzaga | EZ |
| Mendaro | EZ |
| Mutriku | EZ |
| Olaberria | — |
| Oñati | EZ |

| Udalerrian terrorismoaren biktimekin zerikusia duen eta nabarmendu nahi duzun bestelako udal ekimenik egin al da? GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | |
|---|---|
| Orio | EZ |
| Ormaiztegi | EZ |
| Segura | EZ |
| Soraluze-Placencia de las Armas | EZ |
| Tolosa | BAI |
| Urnieta | EZ |
| Urretxu | — |
| Usurbil | — |
| Villabona | — |
| Zarautz | BAI |
| Zegama | — |
| Zestoa | — |
| Zizurkil | — |

**35. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN**




**Donostiako Udalak** aurreikusita dauka *"oroitzapenaren etorkizuneko loraategia"* sortzea. Bestelako ekimenak ere jarri ditu abian, hala nola *Terrorismoaren biktimei laguntzeko europar erakundeen gida* eta "Bakearen aldeko lorategi iragankorrak, errespetua eta mestizaia". Halaber, aipatzekoak dira "Bakerako eta gatazken konponbiderako hezkuntza topaketak" eta *"terrorismoari eta haren biktimei buruzko zinea"* izeneko zikloa. Biktimak omentzeko "Argi izpia oroitzapenerako. Deiadarra bakerako" ekitaldien barruan ikus-entzunezko muntaia bat eman zen 2006an terrorismoaren biktimen omenezko aipu eta oroigarriekin.

**Irungo Udalak** urteetan garatu ditu tolerantziaren, giza eskubideen errespetuaren edo elkartasunaren gisako balioak zabaltzera zuzendutako jarduerak eta ekimenak. 2005etik aurrera, "Irun, bakerako eta elkarbitzitzarako hiria" izeneko ekimena jarri du martxan; ekimen honen helburu nagusiak bakearen eta elkarbizitzaren defentsa eraginkor bihurtzeko lan egitea eta terrorismoaren biktimak oroitzeko eta laguntzeko ekimenak bultzatzea, egoera bidegabe hori jasaten duten pertsonen gizarte inplikazio eta hurbilpen handiagoa lortzeko. 2005ean ere erakunde adierazpen bat onetsi zuen Terrorismoaren Biktimen Omenezko Europar Egunari atxikimendua adierazteko. Adierazpen horretan indarkeria terrorista munduko edozein bazterretan jasan duten edo jasaten duten guztiak ekartzen dira gogora, bereziki Madrilgo atentatuetan hildakoak, *"bai eta Irunen terrorismoaren erruz bizitza galdu duten guztiak eta galera hori eta samina bertatik bertara bizi behar izan duten senideak eta lagunak"*.

**Lasarte-Oriako Udalak** aurrekontuetan garapenerako lankidetza partida bat ezarri du "Froilán Elexpe" izenaren pean (zinegotzi sozialista hau ETAk hil zuen) Nejapa udalerriarekin (El Salvador). Udal honek terrorismoari buruzko hitzaldietan hartzen du parte Espainiako hainbat tokitan, hala nola Sevillan, A Coruñan, Madrilen… Halaber, Donostiako Atano frontoian kargudun mehatxatuei egindako omenaldian hartu zuen parte 2002ko urrian.

**Tolosako Udalak**, 2008ko apirilaren 23ko bilkuran, erabaki zuen batzorde bat sortzea, Tolosako terrorismoaren biktimen alde egin daitezkeen jarduerak aztertzeko eta programatzeko. Udal taldeetako ordezkariek, biktimen ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak osatzen dute batzorde hori. Udal honetan urteurrena betetzen denean, osoko bilkuretan herriko biktimak oroitzeko omenaldi bat egiten da. Tolosako korporazioak 2005ean erabaki interesgarria hartu zuen terrorismoaren biktima baten jabetzako pabiloi baten berreraikuntza zergetatik eta tasetatik salbuesteko, eta, gainera, ondasun higiezinen zergatik salbuetsi zuen bost urtez, behin Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren proposamena kontuan hartuta.

**Zarauzko Udalak** ekimen garrantzitsua jarri du martxan herriko ikastetxeetan, bakerako heziketari buruzko proiektua garatzeko. Era berean, beste bi ekimen esanguratsu nabarmendu behar dira: "elkarbizitzaren eta giza eskubideen udal plangintza" eta "elkarbizitzarako eta giza eskubideetarako plangintza integrala". Elkarbizitzaren plangintzan *"funtsezko bi zutabetan oinarrituko da: horietariko aurrenekoa giza eskubideen defentsa izango da eta bereziki bizitzarako eskubidea, hori gabe bestelako eskubideek zentzurik ez dutelako, eta bigarrena biktimekiko oroitzapen eta duintasuna gordetzea, iraganeko akatsak ez errepikatzeko"*.

## 9.5. Euskal Autonomia Erkidegoan antolatu eta terrorismoaren biktimekin zerikusia duten bestelako ekimen, ekitaldi edo esperientziak

EAEko udal gehienek, guztira 109k, adierazi dute ez dutela aurrera eraman aurreko epigrafeetan aipatutakoez bestaldeko ekintza, ekimen edo ekitaldirik.

Beste udal batzuek, 54k, ez dute zehaztu ea biktimekin zerikusia duten bestelako jarduerarik egiten duten ala ez.

Bestelako jarduerak aurrera eramaten dituztela baieztatu duten 26 udalek oso ekimen desberdinen berri eman dute; nolanahi ere den, horietariko gehienek balio demokratikoak eta bakerako kultura sustatzeko lanari heltzen diote.

**36. GRAFIKOA:**
**TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO UDAL EKIMENEN KOPURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**




Ekimen hauen barruan, udal batzuek jarduketa sistematikoak aipatzen dituzte, hala nola elkarbizitza eta bakerako balioak sustatze aldera egiten diren plangintzak. Udal batzuetan bakerako balioak bultzatzeko lana bereziki haurrei zuzendutako erakusketen, zineforumaren, jarduera parte-hartzaileen eta antzekoen bidez egiten da. Beste udal batzuek gida eta foiletoak eman dituzte argitara edo bakearen balioetan prestatzeko programak antolatu dituzte.

## X. ONDORIOAK

Kapitulu honetan aztertu da zein izan den erakundeek terrorismoaren biktimen egoerari eman dioten erantzuna, udalen arloan betiere. Neurri handi batean, biktimengandik hurbilen dagoen eremu horretan gauzatu behar dira oroitzapen, duintasun eta ordain moralari buruzko printzipioak.

Halaber, terrorismoa arlo etiko, sozial eta politikoan deslegitimatze aldera, funtsezkoa da EUDELen adierazpenetan, 2003, 2005 eta 2007ko erabaki parlamentarioetan eta Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean jasotzen diren printzipioak errealitate bihurtzea gure herri eta hirietan.

Urte askoan ahaztu zaigu, urte askoan ez gara biktimengana hurbildu, ez dugu enpatiarik azaldu euren saminarekin, baina, 4/2008 Legearen azalpen zatiak zehazten duenez, *"zorionez, azken urteetan herritarrek erreakzionatu egiten dute eta erreakzio horrek*

*isla izan du poliki-poliki instituzioen artean ere; horren eraginez laguntza neurriak onetsi dira eta biktimei aitorpen eta omenaldi publikoa egin zaie".*

Orri hauetan biktimen egoera islatzen ahalegindu gara udal eremuari erreparatuta; eremu horretan oroitzapearen bi erkidegok jardun dute aurrez aurre Xabier Etxeberriaren esanetan: *"Oroitzapenaren gutxienen erkidegoa, baina oso sendoa –ETAren terrorismoa ulertzeko eta berarekiko enpatia izateko eremuaren inguruan bilbatuta, bere tokiekin, bere adierazpideekin, ikurrekin, omenaldiekin, errituekin, aldarrikapenekin… horiek guztiak ikuspegi moral batetik biktima nor den ulertzeko kontzepzio zital batean oinarrituta eta biktimazio kolektibo baten ideiatik abiatuta–".* Oroitzapenaren beste erkidego handia terrorismoaren biktimena da eta haiekiko elkartasun aktiboa dutenena. Xabier Etxeberriak ondokoa adierazten du: *"zoritxarrez erkidego ahulagoa eta desegituratuagoa da, baina azken aldian sendotasuna eta presentzia eskuratu ditu"*[46].

Udalek emandako erantzunetan egiazta dezakegu oroitzapenaren bi erkidego hauen presentzia oso bestelakoa dela hiru lurralde historikoetan eta EAEko udalen artean ere.

Lehendabizi egiazta daitekeena honakoa da: hiru lurralde historikoetan asko direla terrorismoaren biktimen aldeko neurririk hartu ez duten udalak, erakundeen aldarrikapenetan, erabaki parlamentarioetan eta Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean adierazitakoa gorabehera. Horrek ez du esan nahi loturarik ez dagoenik biktimen kasuarekin; izan ere, zorionez, udalerri horietariko askotan ez da izan biktimentzat iraingarria gerta daitekeen egoerarik, ez eta biktima eragileen aldeko egoerarik ere. Udalerri horietariko asko landa gune txikiak dira.

Udal horietariko batzuek azaltzen dute biktimen inguruan ez dutela inolako ekimenik sustatu herriek biztanle gutxi dituztelako, auzoak sakabanatuta daudelako edo herritarren artean biktimarik egon ez delako.

EAEko udalerri batzuetan oraindik ere biktima eragileen aldeko omenaldiak egiten dira, kalei edo plazei euren izenak jartzen zaizkie, monolitoak eraikitzen zaizkie edo oroitzeko bestelako ekintzak egiten dira.

Aitzitik, oso ugariak ez baina aktiboak eta konprometituak diren udal batzuek beren gain hartu dute terrorismoaren biktimak ikusarazten ahalegintzeko zeregina.

Omenezko jardunak asko eta askotarikoak dira: atentatu terroristak gaitzesteko elkarretaratze isilak; ETAren kontrako lelo eta pankartak edo balio demokratikoen edo bakearen balioen aldekoak; terrorismoaren biktimei kale edo plazen izenak eskaintzea; biktimen omenez monolitoak edo eskulturak jartzea; omenezko errituak; omenaldiak… Ildo honi jarraituz, nabarmendu beharra dago Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egiten dihardduen lana; izan ere, omenaldi horiek dinamizatu eta sustatu ditu udaletan.

---

46 *Bakeaz.* "Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo". Xabier Etxeberria. 54 eta 55. or.

Halaber, garrantzi handikoak dira bestelako esperientzia eta proiektuen bitartez bakerako kultura eta beste balio batzuk sustatzera zuzendutako ekimenak; batzuetan, gainera, modu sistematikoan egin da plan eta hitzarmenen bidez.

Aipatzekoa da, gainera, azken urteotan egoera nabarmen hobetu dela aurreko urteen aldean; izan ere, garai horretan biktimen bakardadea ageri-ageriko kontua izan zen. Urte askoan gizartearen nahiz erakundeen axolagabetasuna mingarria izan da oso. Biktimen aldeko ekimen gehienak azken urteotan gauzatu dira. Biktima batzuk oso kexu dira, ekintza eta omenaldi horiek berandu iristen direlako. Beste kasu batzuetan, zeregin aktiboagoa eskatzen dute horiek prestatzeko eta garatzeko lanean edo, besterik gabe, terrorismoaren biktimen alde hartu diren neurriei buruzko informazioa.

Nolanahi ere den, itxaropena sorrarazten du gizarteak eta erakundeek terrorismoaren biktimekin duten konpromisoa gero eta handiagoa dela ikusteak eta inork ez duela ulertzen biktimak ahaztuko dituen oroitzapen kolektiboa sortzeko aukerak.

# V. ATALA

## TERRORISMOAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK: PARTE-HARTZEA, DUINTASUNA, ORDAIN MORALA, JUSTIZIA, EGIA ETA MEMORIA

## I. TERRORISMOAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK

Nazioarteko eta barruko arau esparruak aztertuta, baita udal esparruan duten adierazpena ere, bereziki Ararteko erakundeari bidalitako erantzunak baliatuta, Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteari buruzko ekainaren 19ko 4/2008 Legean jasotako arau ezarpenak eta benetako aplikazioa izango ditugu hausnaketa gai nagusi. Gure III. kapituluan adierazi bezala, legeko II. Tituluan hurrengo eskubideen funtsezko edukiari egindako aipamen espresak topa daitezke: justizia (3. art.), duintasuna (4. art.), erreparazioa, parte-hartzea (6. art.) (horien titularrak biktimak dira); egia (7. art.), memoria (8. art.) (biktimentzako eta gizartearentzat izan daitezkeenak); bakea, askatasuna eta elkarbizitza (9. art.) (euskal herritar guztiei zuzendurikoa).

Berezko sistema jarraitzen da, eskubideen titulartasun eta izaerari jarraiki. Lehenik kapitulu horretan gelditukoa gara, parte hartze, duintasun, ordain moral, justizia, egia eta memoria eskubideetan zehazki. Hurrengo kapituluan honakoak jorratuko ditugu: biktimen ordain pertsonala eta materiala osasun, etxebizitza, enplegu, irakaskuntza eta trebakuntza esparruetan. Eskubideen gaineko gaikako blokea bukatzeko VII. kapitulua dugu, bizikidetza bakean eta askatasunean garatzeari buruzkoa. Hizpide nagusi dauka hedabideen eta bortizkeria terroristari aurre hartzeko hezkuntzaren bitartez biktimek terrorismoa deslegitimatzeko duten interesa.

## II. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Zeharkako eskubide baten aurrean gaude, eta terrorismoaren biktimen eskubide bakoitzean proiektatzen da. Honen esanahia zehatz adierazi behar da, ordain pertsonala, materiala eta sinbolikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez egiaztatu ahal izango den moduan.

Orokorrean, parte hartzeko eskubidearen garrantzitik eta biktimen duintasunarekin duen harremanetik abiatu behar da. ETAren biktima baten alargunaren hitzetan honela adierazten zen: "*Tribuna honetatik hitz egiteko eman zaidan aukerak ez luke salbuespeneko ekintza bat izan behar, baizik eta erakunde publikoek terrorismo ekintza izugarrien biktima direnei eskaini behar dieten beharrezko keinua. Terrorismo ekintza horiek, nire kasuan bezala, familia baten bizitza apurtzen dute, eta keinu horrek gure mina kanporatzeko balio behar du. Modu nabarmenean errugabeenen sakrifizioari amaiera emateko beharraz ohartarazi dezakegun bakarrei hitza ematea*

*da... Uste dut terrorismoaren biktimen familiak nekatuta gaudela jada izugarrikeria horien aurkako borroka alderdien arteko barne gerratan nola galtzen den ikusteaz, gure herrialdean iraunkorra izango den bakea lortzeko prozesua zuzendu behar duen iparrorratza nola galtzen den ikusteaz. Hain zuzen ere, jarduera terrorista deuseztatzean datza bake horrek, eta guztion esfortzutik iritsiko da, izan ere, bestela, nire senarrarena bezalako heriotzek ez lukete izango niri eta nire familiari nolabaiteko kontsolamendua ematen digun zentzurik. Zentzu hori etorkizuneko belaunaldiei erreferentzia gisa balio izatearena da, demokrazian bizi den Estatu batean berriro gerta ezin daitezkeen gertakariak izan daitezela".*[1]

Biktimen giza eskubideen nazioarteko araudiak, bai maila unibertsalean, bai lurraldekoan, onartu egiten du funtsezko printzipio modura biktimek eurek parte hartzeko duten eskubidea. Biktimen interesak defendatzeko gobernuz kanpoko erakunde ezberdinengatik ordezkaturik sentitzen ez diren edo ordezkaturik ez dauden biktimak egon badaitezke ere, eta haiei ere parte-hartzearen printzipioa aplikatu behar zaie, biktimen multzo handi batek adierazi nahi duena adierazten du erakunde horien bitartez. Berrikuspen historikoan egiaztatu daitekeen bezala, Nazio Batuek 1985eko Deklarazioaren aplikazioari buruz 1999an egindako Gidaliburuan agerian geratzen den moduan, erakunde hauek "*funtsezko papera betetzen dute politikak eta zerbitzuak hasi, garatu eta aplikatzeko garaian*" biktimentzat.

Erakunde horiei esker, biktima batzuk lehenengo babesa eskuratzen hasi ziren eta, haiei esker ere, funtsezko aldaketa jazo da gizartean, hain zuzen ere ikusgaitasun handiagoa dago eta biktimizazio terrorista aitortzen da. Gai honetan egindako ikerketa zientifikoek, Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak "*etorkizun handiko praktika*" gisa jotakoak, argi uzten dute ordaina eskuratzeko programak eraginkorragoak direla aipatutako erakundeen laguntza edukiz gero eta banakako biktimek ere parte hartzen dutenean kaltetzen dituzten arazoak definitzeko garaian eta berariazko esku-hartze neurriak zehazterakoan, haien aplikazioa eta ebaluazioa barne.

Parte-hartze printzipioak garrantzia berezia hartzen du, biktimek ordaina eskuratzeko duten eskubideari dagokionez. Gauzak horrela, ordaina eskuratzeko prozesuan nagusi izan behar diren printzipioen artean, zioen azalpenak berak azpimarratu egiten du terrorismoaren biktimen parte-hartzearena, parte-hartze hori erakunde eta elkarteen bitartez bideratuta biktimekin zerikusia duten gaietarako guztietarako. Biktimen parte-hartze printzipio hau 4/2008 Legeko 6.1 artikuluan islatu zen, hain zuzen ere **Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua** sortzea dioen horretan. 4/2008 Legeko 3. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera, Kontseilua honela eratuko da modu paritarioan:

- Batetik, **euskal administrazio publikoak**.
- Bestetik Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza edo ordezkaritza duten **terrorismoaren biktimen elkarteak**, terrorismoaren biktima baten inguruan sortutako **euskal fundazioak** eta **euskal elkarte bakezaleak**.

---

1 Manuela Orantos. Terrorismoaren Biktimak Omentzeko I. Ekitaldi Instituzionala, Eusko Jaurlaritza, 2007. Ikusi prentsa informazioa hurrengo helbidean: http://interior.euskadi.net/datvt/castellano/home.html.

Gizarte zibil gehienaren ordezkaritza biktimen elkarteek eramango dute bere gain.

Kontseiluaren presidentzian "*prestigio aitortuko pertsona bat izango da, eta administrazioek eta gizarte zibilak adostasunez izendatuko dute*", 4/2008 Legeko 6.4 artikuluak adierazten duenari jarraiki.

Kontseilu honen helburua hau izango da:

- terrorismoaren biktimen partaidetza bideratzea haiei eragiten dieten gai guztietan;
- administrazio publikoei arlo honetako politika zehatzak abiaraz ditzatela proposatzea.

Arau hau garatuko duen araudian zehaztu egingo da Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren eraketa eta funtzioak zeintzuk izango diren. Edonola ere, bere erakundeen bitartez biktimen proposamenak eta kezkak bideratzea ahalbidetuko duen organo bat egoteak oso balorazio positiboa merezi du.

Parte hartzeko printzipioaren alderdietako bat 4/2008 Legeak terrorismoaren biktima antolatuei gordetzen dien paper garrantzitsua izango litzateke. Zentzu horretan, lege horretako zioen azalpenak zera dio:

> *"Terrorismoaren biktimei dagokienez, politika publikoek azken urteotan izandako berrikuntzetariko baten bultzada sartzen du 27. artikuluak lege honetan, hauxe: antolatutako biktimen protagonismoa, azpimarratzekoa dena.*
>
> *Orain arte, XXI. mende hasierako urteotan, terrorismoaren biktimei buruzko politika publikoak kudeatzeko eredu berria finkatu da; kudeaketa erretikulatu bat, horizontala eta deskontzentratua. Hala, botere publikoek koordinatze-lanak egingo lituzkete eta biktimen elkarteek, berriz, biktimei laguntzeko gero eta zabalagoak diren eremuen kudeaketa aktiboa hartuko lukete beren gain.*
>
> *Benetan, ezin da proposatu biktimei laguntzeko politika publikorik, biktimen elkarteek eta biktimak antolatzeko beste era batzuek hartu duten garrantziari erreparatu ez, eta dagozkien gaiei buruz euren iritzia kontuan hartu gabe.*
>
> *Lege honek, era berean, munta handiko erabaki politikoa dakar: egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten elkarteen ekimenak sustatze aldera, EAEko Administrazioak izango du baliabide ekonomikoak erabiltzeko aukera, betiere, baldin eta elkarte horiek euren kideen artean Euskal Autonomia Erkidegoan ekintza terroristak nozitu dituzten herritarrak daudela egiaztatzen badute".*

4/2008 Legeko IV. Tituluak izenburu hau du: "Elkarteen jarduerak sustatzea", eta arau bakar gisa aipatutako 27. artikulua du. Horrek biktimen elkarte eta erakundeen ekintzen sustapena arautzen du. Artikulu honek zera ezartzen du:

> *"1.- Eusko Jaurlaritzak izaera osagarria duten jarduerak bultzatuko eta sustatuko ditu, ordaina jasotzeko eta laguntzeko lege honetan ezarritako xedeak hobeto bete ahal izateko komenigarriak edo beharrezkoak badira.*

*2.- Sustapen-politika horren helburua elkarteek eta erakundeek sustatutako egitarauak eta jarduerak bultzatzea izango da, egitarau eta jarduera horien xedea honako hau denean: batetik, biktimei arreta eta giza laguntza ematea, lagunekin eta familiakoekin batera epaiketetara laguntzea, terrorismoaren biktimei orientazio edo laguntza psikosoziala ematea; edo, bestetik, gai honi buruzko foroak, ikastaroak eta mintegiak egitea eta hezkuntzara edo balio etiko eta demokratikoen sustapenera bideratutako bestelako jarduera eta proiektuak lantzea.*

*3.- Aipatutako laguntzen onuradun izendatzen dira ohiko jarduera terrorismoaren biktimen eremuan gauzatzen duten erakundeak eta elkarteak, elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute, bai eta eremu geografiko horretatik kanpo egon arren, beren kideen artean ekintza terroristak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan nozitu dituzten herritarrak dituztela behar bezala egiaztatzen duten elkarteak eta biktimen kolektiboak ere".*

## III. DUINTASUNA, ORDAIN MORALA, JUSTIZIA, EGIA ETA MEMORIA

### HIRUKO HAU: EGIA, MEMORIA ETA JUSTIZIA, ETA BIKTIMEN ESKUBIDEEN ISLA

4/2008 Legean, terrorismoaren biktimek eskubide edo printzipio hiruko bat aldarrikatu izan dute beren elkarteen bitartez, eta horiek aintzat hartu behar dira biktimen egoera jorratzerakoan: egia, memoria eta justizia[2]. Eskubide horiek, duintasunerako eskubidea eta ordain integrala eskuratzekoa –bai materiala, bai morala– bezalako beste batzuekin batera, ezin dira atal itsu modura hartu, elkarren artean oso lotuta daude eta. Kapitulu honetan duintasunerako, ordain moralerako, justiziarako, egiarako eta memoriarako eskubideei buruzko hainbat hausnarketa orokor egingo ditugu. Uste dugu guztiak modu konplexuan direla elkarren mendeko, beraz, teorikoki bereizketa zabala egiteak garrantzi praktiko gutxi izango lukeen ariketa litzateke txosten honi dagokionez, betiere, sistematizatzeko interesaren eta norabide horretan azterlan sakonagoak egitea sustatzeko beharraren kaltetan izan gabe.

COVITEk jasotako iritzi artikulu batean, zera adierazten da horren inguruan[3]: *"Biktimek indar gehiagorekin erreklamatu ohi dituzten eskaera orokor eta sozial guztien artetik –Memoria, Egia, Duintasuna, Justizia–, ikus dezakegu Justizia eskaera dela orokorrena, biktima mota guztien artean ohikoena, eta gainerako eskaerak, honek biltzen dituenak, gauzatzeko ezinbestean gauzatu behar dena. Justizia eraginkor eta zehatza biktima guztiek esparru zibilean berriro kokatzeko erabili behar duten baliabidea da, herritarren izaera berreskuratuz eskubideen subjektu modura, eta*

---

2 Horixe aldarrikatzen zuen COVITEk, Biktimen Lantaldearen aurrean izandako esku-hartzean 2002ko azaroaren 26an: *"Egia, memoria eta justizia funtsezkoak dira terrorismoarekin amaitzeko"*. Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 190. zk., 24.879 or. VII. Legegintzaldia.

3 http://www.covite.org/covite_articulos.php?lang=es&idNoticia=40&idSeccion=3 helbidean (ez da egilea aipatzen, nahiz eta argazki bat ageri den).

*lehengoratze pertsonalari ekinez. Memoriaren eskaera zehaztea zailagoa da, eta haren pertzepzioaren muga subjektiboagoa izan daiteke. Familia berdin baten barruan eta guzti daude gehiago eta gutxiago gogoratu nahi dutenak. Batzuk modu sinbolikoan egin nahi dute, eta beste batzuk, aldiz, erreferentzia fisiko nabarmenagoak behar dituzte. Gerta liteke ere horiek guztiak bat ez etortzea oroitzeko unearekin. Ondorioz, posible da Administrazioek guztien nahia ezin bete izatea gogoratzeko moduei eta desagertutako biktimen Memoria bizirik mantentzeko moduari dagokionez. Hala eta guztiz ere, ahaztearen aukera okerragoa izango da beti. Edonola ere, botere publikoen aldetiko Justiziarik gabeko Memoriak taldeko bekatuaren oroitzapena eratuko du beti. Duintasun eskaerak ere ibilbide subjektiboagoa du. Batzuk uste dute, nik adibidez, hildako askori beren bizitza, senideena, proiektuak kendu zizkietela, inoiz ez, ordea, haien duintasuna eraldatu. Ezin dugu ahaztu biktimen talde ugarik egun aldarrikatzen duten eskaera hori biziraun dutenei igarotzen zaiela: zaurituei eta eraildakoen senitartekoei. Estatuaren erantzunak ez badu erabateko Justizia osoa bilatzen, biktimari ordaina emango diona, gaizkilea zigortuko duena eta gizartearentzat prebentziokoa izango dena, hutsala litzateke fenomeno terroristaren aurreko Duintasunari buruz hitz egitea. Biktimek erreklamatzen duten Egia konstruktibistek lehen mailako errealitate gisa definitzen duten horretan oinarritzen da: 'Pertsona bat erail egiten dute, eta hiltzailea justiziaren aurrean jarri behar da'. Biktimak alde egiten du konstruktibistek interpretazio errealitate edo bigarren mailako errealitate deitzen duten horietatik: 'Pertsona bat erail egiten dute, oinarrian konpondu gabe dagoen gatazka bat dagoelako'. Dudarik gabe, Justizia interpretaziorik ez duen eta lehen mailakoa den errealitate horri mugatu behar zaio. Horren arabera, frogatzen diren egintzak guztion artean ezarri ditugun lege eta kode multzotik iragazten dira. Egia jakiteko eskaerak ere dimentsio handiagoa hartzen du Justiziaren ikuspegitik biktimek nazioarteko erakundeei eginiko eskaeraren ondotik, hain zuzen ere terrorismo egintzak gizateriaren aurkako delitutzat har daitezela eta, ondorioz, ez preskribatzea ahalbidetzea. Horrela, Egiak ere ibilbide luzeagoa egin dezake Justiziaren bitartez".*

Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5ean eta 17an onetsitako ebazpenetatik bosgarrenak, terrorismoaren biktimei buruz hartutako erabakiak betetzeari dagokionez, zera ezartzen du: "*...Eusko Legebiltzarrak bere egiten ditu terrorismoaren biktimentzat funtsezko diren jardute printzipioak: Oroimena, Duintasuna eta Justizia, eta uste du printzipio horiek behar dituztela alor honetan politikak busti*". Printzipio horiek, ondoren, 4/2008 Legeari erantsiko zitzaizkion. Hain zuzen ere, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeko lorpen handietako bat biktimak eskubideen subjektu gisa tratatzea izan da, edukia "funtsean programatikoa" bada ere.

Hainbat aldiz esan dugunez, 4/2008 Legeko II. Tituluaren izenburua "Terrorismoaren biktimen eskubideak" da, eta hiru kapitulu ditu bere baitan:

– I. kapituluak, "Terrorismoaren biktimen eskubideak" izenburu berdinarekin, justizia, duintasun, ordain eta parte-hartze eskubideak biltzen ditu.

– II. Kapituluak, "Biktimen eta gizartearen eskubideak" epigrafepean, egia jakiteko eskubidea eta memoria eskubidea arautzen ditu.

– Azkenik, III. kapituluak, "Euskal herritarren eskubideak" izenburua daramana, bake, askatasun eta bizikidetza eskubideak hartzen dituen araua darama.

Idatz-zati honetan terrorismoaren biktimen duintasunerako, ordain moralerako, justiziarako, egiarako eta memoriarako eskubideari emango diogu arreta, batez ere 4/2008 Legean duen araudia aintzat hartuz.

## 1. Terrorismoaren biktimen duintasunerako eskubidea

### 1.1. Duintasuna, balio juridiko gisa

Gizakiaren duintasuna babesteak, batez ere talde ahulenena izaera publiko edo pribatuko indarkeria larriaren aurrean, legitimo bihurtzen du giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, balio komunak topatzea ahalbidetuz mundu plural batean (Capps, 2009; Meyersfeld, 2009).

Duintasuna, halaber, funtsezko balio juridikoa da gure barne antolamenduan, eta banakako nahiz taldeko dimentsioa ditu funtsezko eskubideen baliatzean mugatzat hartzea justifikatuz[4]. Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikuluaren arabera, *"ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea".* Konstituzioak gainerako eskubideak arautu baino lehen duintasunari egindako aipamenak esan nahi du duintasuna *prius* logiko modura jartzen dela.

Apirilaren 11ko Konstituzio Auzitegiaren 53/1985 Epaiarekin bat etorriz, duintasuna balio izpirituala eta morala da, eta pertsona orori datxekio pertsona izateagatik bakarrik. Horrek zaildu egiten du juridikoki bakarrik zehaztea. Duintasuna, besteak beste, autonomia pertsonalean eta baliabide bihurtzeko debekuan adierazten da. Pertsonari onartu egiten zaio berezko xedea duen izakia dela, eta, inoiz ez, bere garapen pertsonalarekin bat ez datozen helburuak lortzeko baliabide denik. Ondorioz, biktimizazio terrorista biktimei argi eta garbi gizatasuna kentzen dien egoera bezala agertzen da. Ondorioz, gizatasun hori kentzen dien beste edozein erasoren aurrean are sentikorragoak bihurtzen dira[5].

Administrazio publikoek saiatu egin beharko lukete duintasunerako mehatxua, mugaketa edo lesioa den edozein jokabide saihesten eta horien aurrean erreakzionatzen delitu ekintza gauzatu ondoren, hau da, gizaki garen heinean pertsona guztiek merezi duten

---

[4] Esparru juridiko konstituzionalean, ikusi, *inter alia,* Gonzalez (2004), Alegre (1996), Fernandez (2008), Peces-Barba (2004) eta Prieto (2005).

[5] Ikusi terrorismoaren biktimak gutxietsi eta delituak goraipatzeari buruzko jurisprudentzia, eskematikoki hedabideei buruzko kapituluan heldutakoa. Halaber, berariazko azterlana merezi duen eztabaida zabalago eta konplexuago batean, aintzat hartu behar dira biktimek egindako eskaerak baliabide gisa erabil ez ditzaten edozein bake prozesutan eta justiziarako eskubideari dagokionez. Hori aipatzen da labur justiziari buruzko idatz-zatian.

estimua gutxiestea galarazi beharko dute. Estimu hori Zuzenbide Estatuaren bidezko bizikidetza bakezalearen esparru gisa antolatzen da, beraz, azpimarratu egin behar da banakako balio juridiko publiko baten aurrean gaudela.

## 1.2. Terrorismoaren biktimen duintasuna 4/2008 Legean

Terrorismoaren biktimen duintasun eskubidea arautzeari dagokionez, 4/2008 Legeak, zioen azalpenean, zera dio: "*bermatu nahi da biktimak gizalegez eta euren duintasuna eta eskubideak errespetatuz tratatuko direla, eta horretarako, biktimen eta euren senideen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko egokiak diren zenbait neurri jasotzen ditu.* Gainera, zera azpimarratzen da: "*biktimen duintasuna errespetatzeko, hauek guztiak behar dira: informazioa behar bezala erabiltzea, intimitatea eta irudia babestea, baita biktimek irainak, erasoak edo bestelako mespretxuzko tratuak, tratu iraingarriak edo umiliagarriak jaso ez ditzaten bermatzea ere".*

4/2008 Legeko 4. artikuluak arautu egiten du terrorismoaren biktimen duintasunerako eskubidea, eta zera zehazten du: "*Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute".*

Araua hurrengo jarduera ildoetan antolatzen da:

– Prozedura judizial eta administratiboek prozesu traumatiko berriak ez ekartzeko neurriak.

  Arau honetako a) idatz-zatiak adierazi egiten du euskal botere publikoek "*neurri egokiak hartuko dituztela, beren eskumenen barruan, justizia egitera eta kaltea erreparatzera bideratutako prozedura judizial eta administratiboek beste prozesu traumatiko batzuk eragin ez ditzaten".*

  Arau horrek uztartu egiten ditu duintasunerako eskubidea eta justizia eta ordain eskubideak, eta bigarren mailako biktimizazio kasuak prebenitzeko saiakera egiten du.

– Segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa eta biktimen eta haien senideen intimitatea bermatzeko neurriak.

  4. artikulu honetako b) idatz-zatiak adierazi egiten du neurri hauek hartuko direla hurrengoak prebenitu eta saiheste aldera:
  - Biktimen edo haien senideen mespretxua, umilazioa edo izena galtzea dakarten eta jendaurrean egin diren egintzak egitea.
  - Terrorismoa goraipatzea.
  - Terroristei omenaldia egin edo bereizgarri publikoak ematea.

  Gainera, zera esaten da botere publikoen gainean:
  - Zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek (mespretxua, umilazioa edo izena galtzea) dituzten pintaketei eta kartelei.

- Arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren (duintasunarena) defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.

– Biktimen eta haien senideen intimitatea eta irudia babesteko neurriak, gizarte komunikazioko baliabideen bitartez.

4. artikuluko c) idatz-zatiak agerian uzten du hedabideek ebatzi beharreko gatazka morala, terrorismoari eta haren biktimei eman beharreko tratamendu informatiboari dagokionez.

Tradizioz, oreka bilatu beharraren alderditik planteatu izan da gai hau, hain zuzen ere informazio eskubidea errespetatzearen eta biktimek eta haien senideek intimitatea eta irudia izateko duten eskubidearen arteko oreka. Arau horrek, ordea, funtsezko beste elementu bat sartzen du hedabideen paperaren gaia jorratzerakoan, eta hau da: informazioaren askatasunaren mugaren gainean egiten den edozein balorazioan, aintzat hartu beharko da biktimen duintasuna. Hain zuzen ere, konstituzio auzitegiaren jurisprudentzia aberatsa dago gai honen inguruan. Jurisprudentzia horrek onartu egiten du egiazko informazio eskubidea ohore eskubidearen gainetik geratzen dela nolabait, betiere, duintasunaren aurka egiten ez bada. Ondorioz, juridikoki, duintasuna balio publikoa da, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea baliatzeak zeharkatu ezin dezakeena.

– Terrorismoaren biktimekin profesionalki nolabaiteko harremana duten pertsonak berariaz trebatzeko neurriak.

4/2008 Legeko 4. artikuluko d) eta e) idatz-zatiek trebakuntza neurriak sustatzea aurreikusten dute.

Gauzak horrela, d) idatz-zatiak zera aurreikusten du euskal botere publikoen aldetik: *“biktimen eta haien familiakoen eskubideen eta duintasunaren defentsa sustatzeko, informazioaren profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak bultzako dituzte”.* Trebakuntza aurreikuspen horrek lotura estua du biktimen eskubideak babestearekin, hedabideetan irudi desegokiak erabiltzea saihestuz.

Bestalde, e) idatz-zatiak ezarri egiten du euskal botere publikoek: *“prestakuntza-sistema espezifikoak bultzatuko dituztela biktimei arreta emateko ardura duten pertsonentzat, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideentzat, Justizia Administraziokoentzat, gizarte-zerbitzuetako eta terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza ematen dieten kolektiboetako kideentzat”.*

Txosteneko beste idatz-zati batean, nazioarteko araudiari eskainitakoa hura, azpimarratu egiten ziren nazioarteko baliabide batzuk eta horiek bigarren mailako biktimizazioa prebenitzeko beharra islatzen zuten.

## 2. Terrorismoaren biktimen ordain moralerako eskubidea

Hemen ordain moralaren kontzeptuari buruz ari gara, eta ez delituzko egintza batetik eratorritako erantzukizun zibilaren osagarri bezala[6], baizik eta izaera sinbolikoko ordain publiko modura, zerikusi estua izanez memoria eskubidearekin, berariaz ikusiko den moduan.

Halaber, duintasunarekin zerikusi estua edukita, ordain moralaren edo sinbolikoaren kontzeptua laburki jorratu da Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko Legean arautako ohorezko bereizgarrien bitartez gauzatzen diren ordainei buruzko kapituluan. Adierazpen hau banakakoa da zorrozki, Legean omenaldi publikorik arautu izan gabe.

Kasu ezberdinak badira ere, egiari eta memoriari buruzko idatz-zatietan zehaztuko dugun moduan, abenduaren 26ko 52/2007 Legea aipatu dezakegu, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatetsi eta zabaltzen dituena eta haien aldeko neurriak ezartzen dituena[7], ordain morala aintzat hartzen duen estatu mailako arau gisa, bai banakako alderdietan, bai familia edo taldekoetan. 1. artikuluan onartu egiten da Espainiako Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenek ordain moralerako eskubidea eta norberaren eta familiaren memoria lehengoratzekoa dutela. Halaber, onartu eta aitortu egiten da espainiar askok gerra zibilean eta diktadura frankistan jasan behar izan zuten erbesteratzea bidegabekeria

---

6 Estatuak erantzukizun zibilari dagokionez *ex delicto* duen subrogazioari buruz, ikusi barne araudiari buruzko kapitulua. Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salako sekzio ezberdinetako jurisprudentzia aztertuta, ikus daiteke kalte morala kalte-ordainaren kopurua zehazterakoan aintzat hartzen ari dela pixkanaka eta zenbaitetan modu desberdinetara bada ere (Zigor Kodeko 113. art.). Adibidez, mehatxu, erailketa edo erailketa saiakuntzako delituetan ikus daiteke hori, betiere, biktimek eurek egin ditzaketen salaketen kaltetan izan gabe. Adibide modura, Auzitegi Nazionalaren 60/2006 Epaia aipa daiteke, azaroaren 8koa: *"'Kalte moral' deitu ohi den horri dagokionez, Auzitegi Goreneko II. Salako Jurisprudentzia azpimarratzen aritu da ezinezkoa dela froga zuzen bat edukitzea, horren bitartez irizpide ekonomikoekin komeni den kalte-ordaina zehazteko. Izan ere, neurri ezberdinak eta homologaezinak dira, beraz, kasu horietan, gertakarien larritasuna azpimarratu, benetan jazo ziren edo ahal izan ziren zehaztu, horien garrantzia eta gizarte errefusa adierazi besterik ezingo da egin, irainduen inguruabar pertsonalak zeintzuk diren argitzearekin batera, eta, logika arrazoiak direla bide, akusazioak eskatutako kopuruak ikusi (AGren 2000ko maiatzaren 12ko Epaia). Kalte materialak frogatu egin behar diren bezala, kalte moralek ez dute behar froga behar hori hasiera batean, kaltea dagoela gertakarietatik argi eta garbi ondorioztatzen denean. Horiek biktimek jasandako nahasmendu patologiko edo psikologikoekin zehaztea ere ez da beharrezkoa izango, eta nahizkoa izango da biktimei zor zaien ordainaren ebaluazio orokorretik eratorritakoa izatea (AGren 2000ko maiatzaren 29ko Epaia). Kalte morala minaren prezioak halabeharrez harrapatzen duen kontzeptu bat da, hau da, delituak hurbilekoei eragin diezaiekeen sufrimendua, atsekabea, arrangura eta tristezia, frogatutako gertakarian gertatu den horretatik logikaz eratorria denean eta egiaztatzeko beharrik izan gabe. Ondorioz, ezin da alde batera utzi kalte moral hori epailearen iritzi askearen barruan proiektatzen dela, eta zeharka ekonomikoak diren kalte batzuk ebaluatzeko behin betiko quantumean, izan ere, izaera horretako berehalako ondoriorik ez dute bere horretan ondarearen esparrura ez igarotzeagatik. Izan ere, kalte materialek eta haien eraginek ez bezala, froga beharrik izan gabe kalte moralak sortzen dira horrelako arau-hausteetan, pertsonaren ondasun preziatuena modu larrienean urratzen baita, hau da, bizitza, eta, kalte-ordaina bezalako justifikazio batetik haratago, benetan garrantzia duena kopuru zehatz bat jartzeko parametroak finkatzeko ezintasuna da (AGren 2001eko ekainaren 29ko eta 2003ko urtarrilaren 3ko Epaiak)".*

7 Ikusi zioen azalpena eta 2.1 artikulua.

bat izan zela. Halaber, onartu egiten da diktaduran zehar Espainian araubide demokratikoa ezartzeko borroka egin zutenek edo haren arabera bizitzeko saiakera egin zutenek jasan zituzten zehapen eta zigorrak ez zirela legitimoak izan. Edonola ere, adierazpen orokor hauek osatu egiten dira berariazko prozedura batekin, adierazpen pertsonal bat eskuratzeko, eduki lehengoratzailea eta ordaintzailea izango duena[8].

Bestalde, adierazi dugu 4/2008 Legeak terrorismoaren biktimen ordain moralaren kontzeptua sartzen duela, bertan dimentsio ekonomikoa, materiala eta laguntzazkoa hartuz, baina baita ordain morala erantsiz ere. Ordain moral hori ezin da ekintza sinboliko zehatzetara bakarrik mugatu, eta ekintza iraunkorra eta indarkeriari legitimazioa zorrozki kentzera zuzendurikoa izan beharko da.

4/2008 Legeko 5.3 artikuluak ordain morala arautzen du honela: *"biktimei ordain morala emateko eta haien duintasuna, izen ona eta eskubideak jendaurrean lehengoratzeko"*. Legeak azpimarratutako jarduera publiko horiek biktimekin eurekin eta haien elkarteekin adostu beharko lirateke, eta hauetan zehazten dira:

- Omenaldiak egitea.
- Oroigarriak altxatzea.
- Terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta horiekiko enpatia izateko tokiko ekimenak sortzea.
- Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzak egotea.
- Terrorismoaren biktimei babesa eta aitorpen sozial, etiko eta politikoa erakusteko izaera sinbolikoa duten bestelako adierazpideak.

Ordain moralerako neurriak, beraz, mota ezberdinetako jardueren bitartez adierazten dira, batzuk izaera sinbolikokoak eta beste batzuk biktimen lekukotza edo haien aitorpena edo haiekiko enpatia bilatzen dutenak. Praktikan, zaila da ordain moralerako eskubidea eraginkor bihurtzeko neurriak duintasun, egi eta memoria eskubideei buruzkoetatik bereiztea. Azken horiek, aldi berean, ordain eskubidearekin bat egiten dute berriro errepikatuko ez denaren bermea ematearen aldetik, terrorismoari legitimazioa kentzeagatik.

## 3. Justiziarako eskubidea

### 3.1. Biktimen eskaerak eta betebehar publikoak justizia administrazioari dagokionez

Justiziarako eskubidea Euskadin terrorismoaren biktimek eta haiek biltzen dituzten elkarteek egindako aldarrikapen adierazgarrienetako bat izan da. Biktimizazio

8 4. artikuluaren arabera, kaltetu guztiek duten eskubidea da eta haiek, senideek edo kargu edo jarduera garrantzitsua garatu ahal izan duten erakunde publikoek baliatu ahalko dute. Ikusi 1791/2008 Errege Dekretua, azaroaren 3koa, Espainiako Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen ordain eta aitorpen deklarazioari buruzkoa.

esperientziei buruzko kapituluetan egiaztatu ahal izan den moduan, terrorismoaren biktimen lekukotza askotan aldarrikatu egiten da beharrezkoa dela justizia eskuratzea eta zuzenbide Estatuaren funtzionamendu onean konfiantza izatea, mendekuari uko eginez (Arroyo 2007, 290).

Biktimek alor honetan planteatutako eskaeren adibide modura, "Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean" aintzat har daiteke. Deklarazioa 2007ko otsailaren 24koa da, eta Euskadin Terrorismoaren Biktimen ARCO Taldeak, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteak, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarteak, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak, "Voces en Silencio" Elkarteak eta Biktimologia Fundazioak egin zuten, **"Solidaritate berria eraikitzen: terrorismoaren biktimen eskubideak" lehenengo lan jardunaldien** barruan. Justizia administrazioaren esparruan, besteak beste, hurrengo eskubideak erreklamatu zituzten:

- *"Prozedura judizialei buruz informazioa eskuratzeko eta horietara bertaratzeko"* eskubidea.
- "*Edozein unetan erasotzaileen espetxe egoera ezagutzeko"* eskubidea.
- *"Bizikidetzat eduki nahi ez dutenetatik urruntzeko"* eskubidea. "*Urruntzeko aginduak aplikatzea eskatzeko eskubidea, mehatxu kasuetan eta guzti"*. Urruntzearena kautelazko neurri nahiz zehapen zigor gisa ulertzen da hemen.
- *"Administrazioaren aldetik bigarren mailako biktimizazioa ez edukitzeko"* eskubidea (*administrazio izapide konplexu eta luzeak, biktimari gertakarien errudun sentiarazten dioten epaitegi ebaluatzaileak, koordinazio falta, tratuan gizatasun falta, informazio falta, biktimei laguntzen dieten profesionalentzako trebakuntza falta, eta abar)"*.

Horrez gain, terrorismoaren biktimei buruzko estatuko egungo legedia aldarazteko prozesuaren ondotik, 2009ko otsailaren 19an, elkarte gehienek[9] komunikatu bateratu bat egin zuten gai horri dagokionez[10]. Bertan, zera adierazi zuten: *"exijitu egiten du justiziaren erreklamazioa, zuzenbide Estatu bateko bizikidetza, tolerantzia eta askatasuna asaldatzen dituzten gaizkileak jazarri eta kartzelaratzeko"*.

Argi utzi behar da idatz-zati honetan ez garela ari "justiziari" buruz abstraktuan, baizik eta modu mugatuago batean biktimek dituzten eskubideei buruz "justizia administrazioari" dagokionez[11]. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen (85) 11 Gomendioan jada, biktimak zehapen zuzenbidean eta zehapen prozeduraren esparruan duen kokalekuari buruzkoa, adierazi egin zen zehapen justiziaren funtsezko funtzioetako bat biktimen beharrei erantzutea eta haien interesak babestea izan beharko litzatekeela, horren

9 Komunikatua elkarrekin sinatu zuten hauek: Terrorismoaren Biktimen Elkartea, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Autonomikoen Federazioa, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkartea, COVITE, Miguel Angel Blanco Fundazioa, M-11ko Biktimei Laguntzeko Elkartea, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkartea, eta Dignidad y Justicia Elkartea. Foro de Ermua Gizarte eta Kultur Elkarteak ere komunikatua babestu zuen.

10 Hurrengo helbidean irakur daiteke: http://www.covite.org/covite_comunicados.php?lang=es.

11 Bereizketa horri dagokionez, ikusi Scherer (1992).

bitartez bigarren mailako biktimizazioa murrizteko, justizian duten konfiantzaren alde egiteko eta hari laguntzeko. Biktimen ordezkari batzuk beren buruari galdetzen diote ea bateraezina den biktimekiko tratu gizatiarra edukitzea eragile juridikoen zehapen berme eta profesionaltasunarekin. Zentzu horretan, haiek izan dezakeen beldurra aipatzen dute, biktimen zoritxarrak pertsonalki eragin, eta inpartzialtasuna galaraziko ote dien (Arroyo 2007, 289-90).

Arazo praktikoei garrantzia kendu nahi gabe, izaera juridiko eta kriminologikoko ikerketa zientifiko berrienetan, biktimen nahiz gaizkileen interesak babestuko dituen sistema baten aukera eta abantailak egiaztatzen dira argi eta garbi (Sanz-Diez 2007, 146; Alonso eta Villacampa 2006, 381-98). Berme guztiak edukiko dituen epaiketa batek, besteak beste, zehatuaren errugabetasun presuntzioaren eskubidea eskatzen badu ere, lehentasunez ere esan nahi izan behar du benetan jazotako biktimizazioan zulo sakonagoa ez egitea, egilea zein den alde batera utzita. Biktimizazio horretatik biktimentzako eskubideak[12] eta botere publiko eta gaizkileentzako betebeharrak sortzen dira. Eragile juridikoak biktima eta gaizkileen eskubideek justizia administrazioan tokia dutela jabetzeak bakarrik berma dezake terrorismoaren biktimekiko tratu duina eta bidezkoa[13]. Tratu horrek zerikusi estua du gizartean osatzearekin eta justiziaren gaineko pertzepzioarekin.

Orain bi hamarkada baino gehiago, Nazio Batuen, Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren nazioarteko araudian, testu garrantzitsuak daude biktimen eta justizia administrazioaren gaian, eta horiek parametro izan behar dira barne araudirako eta araudi autonomikorako, administrazio bakoitzak dituen eskumenak gorabehera. Txosten honen kasuan kasuko kapitulura jotzearen kaltetan izan gabe, bi dira gai horretan ulerkorrago agertzen diren nazioarteko testuak: a) Nazio Batuen Gidaliburua, delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioen Deklarazioa erabili eta aplikatzeari buruzkoa (1999), eta b) Europar Batasuneko Kontseiluaren Esparru Erabakia, biktimak zehapen prozesuan duen estatutuari buruzkoa, 2001eko martxoaren 15ekoa. Dokumentu horien arabera[14], biktimek justizia administrazioari dagokionez dituzten eskubideak bost idatz-zatitan multzokatu daitezke:

---

[12] Ikusi Biktimologia Fundazioak 2007an argitaratutako CDa, terrorismoari dagokionez biktimek dituzten eskubideen gainean. CD hori material pedagogiko gisa erabil daiteke eragile juridiko guztien trebakuntzan.

[13] Matek zera dio (2008, 7-8): *"...gizartea (...) eskuzabala izan daiteke presoekin, baina ez dio zentzurik lapurtu behar biktimei eragindako bidegabekeriari (...). Bidegabekeria da bestearen sufrimendua helburu politiko bat erdiesteko baliabide gisa erabiltzea"*. Bidegabekeria horri bigarren mailako biktimizazioak erantsi zaizkio.

[14] Gidaliburuak birtualtasun morala eta politikoki loteslea ditu bakarrik, informazio eta ebaluazio izaerarekin. Izan ere, nazioarteko estandarrak bultzatzen dira barne politikak martxan jartzen eta ebaluatzen direla sustatze aldera. Esparru erabakiak estatuak behartzen ditu beren legediak egokitzera, horren bitartez erabakiak arautako inguruabarrak biltzeko. Horrez gain, epaitegiak lotzen ditu barne antolamendu juridikoaren interpretazioari dagokionez (María Pupinoren kasua, 2005eko ekainaren 16ko epaia, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiarena). Esparru erabakiak biktima kontzeptu mugatuagoa erabiltzen badu ere, uste da biktimen interesak "*jarduera*" guztietan atenditu behar direla, eta hori "*zehapen prozedurarena"* baino ideia zabalagoa da. Izan ere, hark biktimek beren arrazoiagatik edozein agintari, zerbitzu publiko edo babes erakunderekin izandako harremanak biltzen ditu, zehapen prozesua baino lehen, hark iraun bitartean edo ondoren (Sanz-Díez 2007, 164; 184-5).

1. **Parte-hartzea prozeduran eta zehapen jardueretan**. Justizia eskuratzeak esparru jurisdikzional ezberdinak harrapatzen ditu, nazioarteko erakundeak eta lehengoratzeko justiziako balizko mailak.

   Erakunde ezberdinek azpimarratu egin dute geroz eta gehiago eskatzen ari den alderdi bat: terrorismoaren biktimek aholkularitza eta laguntza izan ditzatela epaiketetan. Biktimek prozesuaren alderdi bat izateko aukera eduki behar dute[15] edo, behintzat, entzunak izan eta frogarako elementuak aurkeztu.

   ETA pm-k 1980ko irailean erraildako bi biktimaren seme-alaben kasuan, adierazgarria da gaur arte kasua judizialki ebatzi ez izana. Zigorgabetasuna salatu dute eta justizia eskaera adierazi, egindako kaltearen aitorpen publikorik edo damu adierazpenik ez baitzen egon –eta ondoren ere ez da jazo–. Haientzat, justiziak ordainketa alderdiak bildu behar ditu, biktimei eragindako mina ordainduko duen zehapena jarriz eta gizarteratze aktiboa, parte hartzekoa eta barruko integrazioa edukiz interesdunen aldetik, eta ez bakarrik pasiboa agintariek emana (Altuna eta Ustaran 2005)[16]. Azkeneko bake saiakeraren aurrean, biktima batzuk beldur izan ziren justiziarik gabeko bakea iritsiko ez ote zen. Hemen eskaintzen ditu lehengoratze justiziak jarduera esparru ezberdinak edo esparru osagarriak zehapenarekiko. Horiek ez dute zigorgabetasuna ekarriko eta biktimaren ordaina, adiskidetze eta bakeaz ezberdina dena, prozesuaren erdigunean kokatuko da (Varona 2008).

   Materekin bat etorriz, biktimei justizia egiteak esan nahi du kalte pertsonala, ahal den neurrian, konpontzea, eta baita mezu terroristak suposatzen duen kalte politikoa konpontzea ere (terroristak amestutako gizartean soberan zeudela esatea). Kalte politikoa konpontzeko, aitorpen publikoak eta gizartearen aldetikoak egin behar dira (erakundeen aldetik baino gehiago), adiskidetzeaz hitz egin baino lehen. Konpontzeak ere esan nahi du bidegabekeria berriro ez gertatzea: *"Etorkizunean politikatik indarkeria oro deuseztatzeko, gain hartu behar da iraganeko indarkeriari buruzko erantzukizun guztia (...). Kontua ez da espetxeetako politikak edo zigor kodea gogorragoak egitea. Kontua da hiltzen duena konturatzea egiten ari den bidegabekeriaz eta biktimari, gizarteari eta bere buruari eragin dion minaz" (2008, 41-2).* Maite Pagazaurtundúak Escrivaren hitzaurrean idazten duen moduan (2006)[17], iraganeko akatsak saihestu behar dira eta ez erori *"espetxeratutako terroristek berriro gizarteratzeko adierazi behar duten benetako borondatea eta indarkeriaren eta*

---

[15] Gure antolamenduan gertatzen den moduan zehapen ekintza baliatzearen bitartez (Prozedura Kriminalaren Legeko 101, 109 eta 110. artikuluak). Biktima prozeduran alderdi gisa agertzen ez bada, fiskaltzaren papera bultzatu behar da Espainiako Konstituzioaren 124. artikulua, bere estatutu organikoko 1 eta 3.10a, eta Estatuko Fiskaltza Orokorraren zehapen prozedura bateko biktimen tutoretza eta babesean eduki beharreko informazio betebeharrari buruzko uztailaren 26ko 8/2005 Instrukzioa jarraituz.

[16] Maite Pagazaurtundúa (2006).

[17] Gobernuek biktimak aintzat hartu gabe sustatutako gizarteratzeari dagokionez, hau da, eragindako sufrimenduarekiko gutxieneko damua eskatu gabe, biktima askok zigorgabetasun gisa eta biktimizazio berri baterako arrisku faktore gisa interpretatzen dutena, ikusi Escrivá (2006).

*gorrotoaren kultura bertan behera haiek uzteko beharra ahazteko akatsean, bertan behera uzte horretan agente aktibo gisa jardunez"* (2-3 orr.).

2. **Duintasunaren, intimitatearen eta segurtasunaren babesa**. Biktima bakoitzaren berezitasunak eta hark izan ditzakeen ahultasunak aintzat hartu behar dira, prozesuan zehar neurriak hartzea erraztuz eskubide horien babesgabetasuna saiheste aldera[18]. Hedabideen aurrean intimitatea zaintzeaz gain[19], erakunde batzuk eskatu egiten dute epaitegiko presidenteak jardun dezala biktimarekiko edo hari laguntzen diotenekiko portaera erasokor edo mehatxuzkoen aurrean. Halaber, eskatu egiten dute *"biktimen duintasunerako erasokorrak diren sinboloak erakusten dituztenei sarrera debekatzea"* (Arroyo 2007, 288).

   Babesa, lehenik eta behin biktimekiko et haien senideekiko, zabaldu egin behar zaie ere babestutako lekukoei eta perituei, egun indarrean dagoen legedia gora-behera[20]. Erakunde batzuk zera salatzen dute: *"inputatuekin tokia partekatu behar duten lekuko eta perituen, defentsen lekukoen eta haien ingurunearen egoera, Auzitegi Nazionalaren bulegoetan haientzako bereziki jarritako tokia falta izateagatik"*. Hori bereziki larria da pertsona horiek EAEn bizi direnean (Arroyo 2007, 288).

   Duintasunari eta babes, parte-hartze eta ordain eskubideei dagokienez, Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salako 3. sekzioaren 37/2003 epaia, azaroaren 12koa, jarriko dugu adibide modura. Bertan, epaitegiko presidenteak prestakuntza biktimologikoa erakusten du: *"Eta orain epaiketan I-ren interesak defendatzen zituen abokatuak adierazitako kexari eman behar diogu gure arreta. Hark adierazitakoaren arabera, hildako Guardia Zibilen alargunek lekuko gisa jardungo zuten pertsonak ikusi ahal izan zituzten, senarren lankideak, haiek epaileak, fedemailea, Fiskaltza eta akusazioaren abokatua eta abokatu babeslea zeuden toki berdinean jartzeagatik. Toki hori jendearentzat gordetako tokitik berezita dago beira blindatuekin, eta horiek gortinekin estali ziren lekukoen eta perituen babeserako Legea aplikatzeagatik. Abokatuak protesta egin zuen, izan ere, harentzat, hori bereizkeriazko tratua zen, pribilegiatua kalteturiko bi pertsonekiko, epaituaren emazteei, gainerako senideei eta lagunei emanikoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegotik etorrita berariaz epaiketa mugaketarik gabe ikusteko. Baina gauzak ez dira*

---

[18] Ikusi abenduaren 23ko 19/1994 LOa, eta Prozedura Kriminalaren Legeko 448, 455, 503.1.c), 544 bis, 707 eta 713 artikuluak.

[19] 35/1995 Legeko 15.5 artikuluaren arabera, Fiskaltzak biktima babestu behar du nahi ez duen publizitate orotik, publizitate horrek bere bizitza pribatuari buruzko datuak agerian uzten baditu edo bere duintasuna kaltetzen badu.

[20] Nazioarteko esparruan, ikusi hurrengo dokumentu hauek: Biktimak eta Lekukoak (Zehapen Justiziaren Ebaluazio Baliabidea, Nazio Batuena, 2006); R (97) 13 Gomendioa, 1997ko irailaren 10ekoa, lekukoekiko larderiari eta defentsaren eskubideei buruzkoa; R (2005) 9 Gomendioa, lekukoen eta justiziari laguntzen diotenen babesari buruzkoa, biak Europako Kontseiluarenak; Epaileen Aholku Batzordearen 8. Iritzia (2006), Ministroen Batzordearen Arretarako, gai honekin: "epaileen papera legezkotasun printzipioaren eta giza eskubideen babesean, terrorismoaren testuinguruan"; eta, estatu mailan, 19/1994 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, lekukoak eta perituak babestekoa auzi kriminaletan. Txosten honetako arau zerrendan kontsulta daitezke, on-line horietara iristeko jarraibidea jarraituz.

*abokatu defendatzaileak esaten dituen bezala. Eta gaia bidezko modu batean antolatzeko, esan ez diren premisak hartu behar dira abiaburu. Horiek argi eta garbi adierazi beharko ditugu, agerian erdizka esandako egiak dirudite-nak erdizkako gezur baino gehiago dira eta. Egia da aipatutako kalteturiko pertsonak ez zirela jendearentzat utzitako tokian egon, biek lekuko gisa adierazpenak egin ostean, eta hori Epaimahaiak hori erabaki zuelako izan zen. Baina –eta hau funtsezkoa da–, erabat ezinezkoa izateagatik, toki hori gainezkoa zegoelako, Euskal Autonomia Erkidegotik etorritako pertsonek beteta hain zuzen, protesta eragin duen erabakia hartu zen, bidera zitekeen bakarra zelako eta beste hautabidea alde batera utzi zen. Beste hautabideak bi alargunak Salatik kanpo utziko zituen, Guardia Zibil lekukoek senarren erailketari buruz esaten zutena entzuteko aukerarik ere izan gabe, eta hori bai zatekeela bidegabekeria onartezina. Eta ez zitzaien lekukoak ikustea galarazi arrazoi nabarmenengatik, senarren lankideak ziren, eta ez dago esateko beste ezer".*

Beharrezkoa den kasuan, babesak biktimen ordezkari juridikoak harrapatu behar ditu, eta baita egon daitekeen akusazio partikularra ere. Hona hemen horietako batek esaten duena: *"…bizkartzainarekin bizi gara, eta inguruabar hori azpimarratu egiten dut borroka juridiko soilaren alorrean horrek herritar batentzat, biktima zein ez, esan nahi duena agerian uzteko"* (Arroyo 2007, 285).

3. **Informazioa.** Informazioa eskuratzeko eskubideak zehapen prozesuaren fase guztiak biltzen ditu. Erakunde batzuk agerian uzten dute esparru erabakiko 4. artikulua ez dela eraginkortasunez hartu, batez ere delitu egintzaren eta epaiketaren artean urteak igaro badira eta, batez ere, epaiketa hori jazotzen ez bada. Horri dagokionez, *"...instrukziogilearen ekintza bereziki onuragarria litzateke biktimarentzat, aukera emanez (arrazoiz komenigarria den horren barruan) auziaren eboluzioa ezagutzeko eta hura ulertzeko"* (Arroyo 2007, 287). Biktima batek eskuratu behar duen gutxieneko informazioak, esparru erabakiaren arabera, hurrengoak hartuko ditu: eskura ditzakeen zerbitzuak edo erakundeak; horietatik eskura dezakeen babesa; salaketak aurkezteko tokia eta modua eta prozesuan zehar harekiko duen papera; babesa eskuratzeko baldintzak; doako aholkularitza edo laguntza juridikoa, horretarako eskubidea dagoenean; balizko kalte-ordain eskubide baterako betekizunak, eta informazio osagarri egokia beste Estatu batean biziz gero[21].

4. **Ordaina eta laguntza eremu juridikoan, materialean, psikologikoan, moralean eta gizartearenean**. Gai honetan errepikapenak egotea saiheste aldera, estatu mailako araudiari eta, orokorrean, ordaina eskuratzeko eskubideari

[21] Inguruabar horien barne araubideari dagokionez, ikusi 35/1995 LOa, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntzari buruzkoa (15. art.); Prozedura Kriminalaren Legeko 109, 771, 776.1, 785, 789.4, 802.3 eta 973.2 artikuluak, eta Estatuko Fiskaltza Orokorraren uztailaren 26ko 8/2005 Instrukzioa, zehapen bateko biktimen tutoretza eta babesean eduki beharreko informazio betebeharrari buruzkoa.

buruzko epigrafeetara jotzeko adieraziko dugu. Orain, besterik gabe, Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salako 3. Sekzioaren azaroaren 12ko 37/2003 Epaia aipatuko dugu berriro ere, biktimologikoki jakinarazitako epai gisa. Bertan zera adierazten da alargunen gainean: *"Epaimahai honen aurrean egon ziren eta lekuko gisa deklaratu zuten, ministerio publikoaren eta alderdien abokatuen onespenarekin. Biek zintzotasunez beteriko lekukotzak eman zituzten, biziak eta emoziozkoak, eta bi pertsonei eragindako kalte moralaren tamaina handiaren ideia argia eskaini zuten, bikoteak bat-batean eta zorigaiztoko modu batean hil zitzaizkielako, hain adin goiztiarrean eta elkarrekin bizitzen oso denbora gutxi zeramatelarik. Kalte horiek jarraitu egiten dute gaur oraindik eta, arintzen saiatzeko, bi emakumeak tratamendu psikiatriko eta psikologikoa jarraitu beharrean daude, etengabe sendagaiak hartuz"*. Emakume bat alargun geratu zen, bi eta hiru urte besterik ez zuten bi seme-alabarekin. Beste emakumeak *"senarra galdu zuen, galera gertatu zen inguruabarretan (lurrean guztiz akabatuz fede txarrenaz, zauriturik zegoenean baina kontziente), harekin ezkonduta bost hilabete zeramatzanean, eta lau hilabeteko haurdunaldiarekin, eta zailtasunez betetako erditzeari aurre egin beharrean –zorionez gaindituta-, eta guzti hori gertaera krudel horien ondorioz. Bi pertsona horiei eragindako kalte morala igartzen zen eta, dudarik gabe, ezin da konpondu. Ondorioz, kalte-ordaina emateak horrenbeste min arintzeko besterik ez du balioko"*. Horrekin batera, kalte materialei heltzen zaie: *"bi emakumeek gauetik egunera ikusi zuten senarrik gabe geratu zirela eta etorkizun zailari aurre egin behar ziotela, izan ere, bakoitzaren soldatapeko lanik gabe geratuta, beren beharrei eta seme-alabenei aurre egin behar izan zieten, lehenengoa oso gaztea eta bigarrena jaiotzeko"*.

5. **Prebentzioa**. Delitu eta Botere Abusuaren Biktima direnentzako Justizia eta Laguntzaren Nazio Batuen Hitzarmen Proiektuaren 4. artikuluan, zera esaten da: *"Estatu Kideek konpromisoa hartu beharko lukete, biktimei justizia eta babesa errazteko eta biktimizazioa murrizteko, nazioarteko gidalerroei jarraiki, inter alia, hurrengoak garatuz: (...) b) Delituak egoteko arriskua murrizteko neurriak, arrazoi anitzak jorratuz"*. Ideia horrek lotura handiagoa du berriro ez errepikatzeko bermeekin; horiei aurrerago helduko diegu.

## 3.2. 4/2008 Legearen aurrekariak justiziarako eskubideari dagokionez

Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Erabakiak, terrorismoaren biktimen egoerari buruzkoa, 6. idatz-zatian, espresuki eskatzen dio Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari honakoa: *"ukitutako guztiei jakinaraz diezaiela zertan diren terrorismo-krimenak egin dituztenen kontra irekitako prozesuak, eta, behar izanez gero, lagun diezaiela prozesu horietan sartzen"*.

Erabaki berdineko 11.c) idatz-zatian, adierazi egiten da hau: *"aztertzea Eusko Legebiltzarra edo Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza terroristen kontrako epaiketetan sistematikoki akusazio partikular gisa aurkezteko aukera"*.

Eusko Legebiltzarreko 2005eko otsailaren 17 eta 18ko 2.c), d) eta e) idatz-zatiek ezarri egiten dute biktimei buruzko lantalde iraunkorrak hurrengo funtzioak izango dituela besteak beste:

*"c) Biktimek prozesu penalean parte har dezaten lagundu edo horretarako aukera emango duten lege-aldaketak egiteko proposamenak Estatuan eskudun diren organoei iritsarazteko modu egokiena aztertzea.*

*d) Terroristen aurkako epaiketetara Eusko Legebiltzarra edo Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritza sistematikoki akusazio partikular gisa agertzearen aukera aztertzea.*

*e) Terrorismoaren Biktimen Lantaldearen ordezkaritzak biktimak epaitegietara laguntzeko konpromisoa hartzea hala nahiko luketen biktimekin".*

Legebiltzarreko erabaki horretako 5. idatz-zatiak, bestalde, zera dio:

*"5. Justizia, egiarekin eta oroitzapenarekin batera, elkarbizitza berreraikitzeko izan behar den oinarria da. Egiak, oroitzapenek, gizartearen berrespenik ez badute, sufrimenduaren eta berbiktimizazioaren berresle huts bihurtzen dira. Beharrezkoa da justiziaren funtzionamendua hobetzea, biktimei bere duintasuna berrezartzeko. Horretarako, biktimek justiziaren pertzepzio gogobetegarria edukitzea bilatu behar da.*

*Ildo horretan, terrorismoaren biktimei buruzko lantalde iraunkorrak azterlan batzuk egiteari ekingo dio eta proposamen batzuk egingo ditu, biktimek prozesu penalean parte-hartze ahalik eta egokiena izan dezaten sustatzeko.*

*Alabaina, eta kontuan harturik eskumen-arazoak daudela gaur egun arlo honetan, modurik egokienak bilatzen saiatuko da Estatuko erakundeei helarazteko proposamenak eta azterlanak, bai eta iristen diren konklusioak ere.*

*Hori dela eta, eskari hauek egiten dira:*

*a) Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritzari eskatzen zaio kaltetutako guztiei jakinaraz diezazkiela terrorismo-krimenen egileen aurka irekitako prozedurak zertan diren, bai eta, hala badagokio, erraztu dezala kaltetu horiek prozeduretan parte hartu ahal izatea.*

*b) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzen zaio leihatila bakarra zabal dezala Auzitegi Nazionalean. Leihatila horretan, besteak beste, informazio etengabea eta ahalik eta zehatzena emango zaie biktimei terrorismo-delituak direla-eta tramitazioan diren auzien egoeraz".*

Gainera, Bakea eta Bizikidetza Planean, Eusko Jaurlaritzak onetsitakoa 2006ko maiatzaren 2an, bigarren ardatzak izen hau du: *"Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna erakustea"*, eta haren barruan honakoa agertzen da: *"egindako kaltearen oroimena, justizia eta aitormen alorreko aldarrikapen guztien alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu"*. Zehazkiago, 13. idatz-zatiko 8. puntuan, *"Arreta, ordaina ematea eta justizia"* izenekoan, adierazi egiten da hurrengo laguntza ildoa mantendu eta sendotuko dela besteak beste: *"biktimei, dagozkien zigor-prozesuen egoerari buruzko informazioa bideratzea"*. Horretarako, zera esaten da: *"Prozesuak jarraitzeko biktimek izaten duten gabeziei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, zigor-prozesuei buruzko ahal beste informazio bideratuko die eskatzen duten biktimei, eskatzekotan, prozesuetan esku har dezaten edo epaiketara lagundurik joateko bidea irekiz eta erraztuz"*.

Erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara jo zuen, informazioa eskuratzeko erabaki horien betetze-mailaren inguruan. Zuzendaritza horrek helarazitako erantzun idazkian zera esan zitzaigun:

*"b) Denbora askoan zehar, Auzitegi Nazionalean Terrorismoaren Biktimentzako Informazio eta Arreta Bulegoa sortzearena, organo judizial horretan egindako epaiketen eraginak jasotzen zituztenei informazio zehatza eta egokia emate aldera, gehien errepikatu zen aldarrikapenetako bat izan zen, bai biktima taldeen aldetik, bai Zuzendaritza honen aldetik (Diputatuen Kongresuko terrorismoaren biktimen azpibatzordearen aurrean izandako agerpenean, 2003ko azaroan adibidez).*

*Aitzitik, 2005eko martxora arte itxaron behar izan zen bulegoaren sorrera ikusteko. Zorionez, harekiko koordinazioa, Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimak Babesteko Zuzendaritzaren mendekoa, oso ona da, beraz, hark helarazten digun informaziotik abiatuz, autonomia erkidego honetan bizi diren biktimei martxan dauden eta eragiten dieten prozedura judizial guztien gaineko informazioa helaraz diezaiekegu.*

*Inguruabar horri esker, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ahozko ikustaldietara bertaratzen da erregulartasunez familiekin batera, haiek, epaiketa egingo zela jakinarazi ondoren, haiekin egoteko eskatu badigute. Hau da, lehenik eta behin familiei dei egiten zaie epaiketa laster egingo dela jakinarazteko, eta, ondoren, Zuzendaritzak ahozko ikustaldietara laguntzearen aukera eskaintzen die. Hori hainbatetan gertatu da azken urtean zehar.*

*c) Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ez du akusazio partikular gisa jardun delitu terroristengatik izandako epaiketa bakar batean ere. Egiatan uste dugu neurri horrek ez duela lehentasunezko tokia biktimen taldeak administrazio honi helarazten dizkion eskaeren artean. Eta, bestalde, egia esan, ez dugu uste botere publikoek esparru horretan jarduteko duten modua biktimaren interesak gogobetetzearen eta erruduna gehiago zigortzearen arteko lotura sendotzeko ekimenen bitartez bideratu behar denik, hori planteamendu legitimoa izan badaiteke ere eta, batez ere, ikuspegi pertsonal eta pribatutik ulergarria izan badaiteke ere.*

*Administrazioaren jardunak zaindu egin behar du izaera publikoa edukitzeagatik interes partikular eta publikoetatik haratago doan interesa, eta haien gainetik egon behar du, horiek oso errespetagarriak iruditzen bazaizkigu ere".*

Hala eta guztiz ere, terrorismoaren biktimen elkarteen ordezkariekin izandako bileretan, adierazi ziguten balio sinboliko handikoa zela erakunde publikoak alderdi gisa azaltzea terrorismoagatik akusatutako pertsonen aurkako zehapen prozeduretan. Neurri hori indarkeria eta terrorismoa erabiltzeari legitimazioa kentzen dion mezu garbia dela uste dute. Horrela ikusiko da ez dela biktimen arazo pribatu bat, baizik eta gizarte demokratiko osoaren aurkako erasoa.

Amaitzeko, biktimen ordezkariek uste zuten euskal erakunde demokratikoak delitu terroristengatiko epaiketetan alderdi bezala ez agertzea deigarria dela, ETA erakundearen ingurunearen aurkako epaiketetan Eusko Jaurlaritza behatzaile gisa egoten dela jakinik.

### 3.3. Justiziarako eskubidea 4/2008 Legean, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoa

4/2008 Legeko zioen azalpeneko 3. idatz-zatiak adierazi egiten du nola jasotzen den justiziarako eskubidea arauko 3. artikuluan, eta zera esaten:

> *"Biktimei dagokienez, justizia-eskubideak gutxienez bi alde garrantzitsu ditu: Justizia juridikoarena eta justizia zuzentzailearena. Justizia juridikoak legea eta ordena berriro izatea ezartzen du; justizia zuzentzailea, berriz, biktimei eragindako kalteak, ahal den neurrian, erreparatzen eta egindako urraketen gaineko erantzukizunak ezartzen ahalegintzen da. Dena den, eskumen-arrazoiak direla-eta, lege honen kasuan, artikulu horrek bere edukia mugatzen du justizia eskubidearen osagarrizko alderdiak arautzera, Estatuari baitagokio funtsean hori arautzea. Beraz, biktimarentzat interesgarria den guztia ekartzean datza oraingo eginkizuna, bere eskubidea gauzatzen laguntze aldera, batez ere informatzeari eta laguntzeari buruzko kontuei dagokienez".*

4/2008 Legeko 3. artikuluan, II. tituluko *"Terrorismoaren biktimen eskubideak"* izena duen I. kapituluaren barruan kokatzen dena, hiru alderdi arautzen dira, lehen aipatu den nazioarteko araudiaren ildo beretik eginez:

> *"1.- Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek lagundu egingo dute, ahal duten neurrian eta eskumenek ahalmentzen dieten heinean, terroristen zigorgabetasunak eragindako egoera bidegaberik edo babesgabetasun-egoerarik izan ez dadin. Hartara, biktimek benetako babes judiziala jasotzean euren eskubideak zaindu daitezen, euren gorabehera bereziak kontuan har daitezen eta horrek eragin diezazkiekeen eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezen sustatuko dute botere publikoek.*
>
> *2.- Horretarako, esleitutako eskumenen barruan eta botere judizialari zor zaion errespetuarekin, xede hauek dituzten neurriak ezarriko dira:*
> *a) Eragiten dieten prozeduren egoerari buruzko informazioa ematea.*
> *b) Zigor-arloko prozesuetan eta administrazioarekiko auzi-prozesuetan zehar biktimek prozeduretara irispidea izatea eta behar ditzaketen baliabide juridiko, ekonomiko, tekniko eta psikologikoak eskuragarri izatea.*
> *c) Ekintza terroristen eraginpeko bihurtu dituzten ekintza terroristak direla-eta egiten diren epaiketetara joateko laguntza pertsonala eskaintzea.*
> *d) Biktimen segurtasunaren eta intimitatearen zaintza sustatzea, prozesu judizialetan parte hartzen dutenean, esku-sartze ez-legitimoetatik edo beldurrarazte- eta errepresalia-egintzetatik eta bestelako edozein irainetatik edo laidotatik babesteko.*
>
> *3.- Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek lankidetzako baliabide egokiak ipiniko dituzte Justizia Administrazioarekin eta Fiskaltzarekin artikulu honetako 2. paragrafoko neurriak abian jartzeko".*

Jada adierazi dugun moduan, gainera, Legeko 27. artikuluak aurreikusi egiten du elkarte eta erakundeek sustatutako programak eta jarduerak sustatuko direla, baldin eta horien xedea, besteak beste, hau bada: *"biktimei (...) lagunekin eta familiakoekin batera epaiketetara laguntzea".*

# 4. Biktimen eta gizartearen eskubideak: egia jakiteko eta memoriarako eskubidea

4/2008 Legeak II. Tituluko II. Kapituluan jasotzen ditu biktimei ez ezik gizarte osoari ere badagozkiola uste diren eskubideak. Eskubide horiek, 7. eta 8. arauetan arautuak, egia jakiteko eskubidea eta memoriarako eskubidea dira.

## 4.1. Egia jakiteko eskubidea

### *4.1.1. Kontzeptua eta nazioarteko konfigurazio juridikoa*

Beste epigrafe batean terrorismoaren biktimen babes, informazio, parte-hartze, laguntza, ordain eta prebentzio eskubideei eman badiegu ere gure arreta justizia administrazioari dagokion alorrean, hemen justizia funtsezko printzipio edo balio etiko-juridiko gisa aipatu nahi dugu, egia jakiteko eskubidearekin uztartuta. Zentzu horretan, justiziak esan nahi du aldi berean prozesu bat eta emaitza garatzen direla, Zuzenbide Estatuaren barruan, eta horrek zigorgabetasunik ez dagoela esan nahi du. Zigorgabetasuna jazo egiten da publikoki aitortzen ez denean biktimizazioa eragin dutenen erantzukizuna eta ordaintzeko betebeharra.

Egia jakiteko eskubidea lotu egiten da biktimizazio terroristaren gaineko ikerketa eraginkorra, azkarra, osoa eta inpartziala sustatzeko betebehar publikoarekin, zigorra eskatzen duen giza eskubideen urradura larria den heinean. Hori, aldi berean, zuzenbide estatuaren barruan kokatzen da, legezkotasun, erantzukizun, gardentasun demokratiko eta errekurtso eraginkorra izateko eskubidearekin batera.

Egia, ezagutza publiko modura, taldeko memoriaren aurreko urratsa litzateke, memoria hori oroimena berriro lantzea edo berriro gogoratzea litzatekeelako aitorpen moduan (Fraser eta Beltrán 2007).

Hemen ez gara ari egiari buruz arazo ontologiko edo erabateko egi modura, baizik eta biktimizazioari buruzko ezagutza alderatuari buruz, eta terrorismoaren biktimek eta baita gizarteak berak ere eskubidea dute hori eskuratzeko zentzurik zabalenean. Zentzu horretan, egia jakiteko eskubidea uztartuta dago historiarekin, biktimizazioaren aztarnak edo arrastoak berreskuratze horretan. Horretarako, metodo zorrotza erabili behar da. Metodo hori jazotako biktimizazioa zalantzan jartzen duen begiradarekin hasi behar da, naturala edo saihestezina balitz bezala ez onartuz. Beraz, lehenik eta behin, ikusgai bihurtu behar da duen hedadura osoan, nahiz eta beti geratuko diren igartzeko ikuspegiak eta haren interpretazioa beti izango den irekia[22].

Materentzat (2008, 29), *"biktimak ezagutzari eransten diona alderdi ikusezinaren ikuspegia da, edo, hobe esanda, nahita ezkutatu den, isilarazi den alderdiarena,*

[22] Bestalde, Laura Martínek, Juan Carlos García Goenaren alargunak, GALek erraildakoa, zoritxarrekotzat jo du epai baten bitartez egi judiziala eskuratu ezin izana. Edonola ere, ekitaldi publikoa eta erakundeen aldetikoa eskertuko luke, bertan *"GALekin gertatu zena Publikoki Aitortzeko Deklarazioa iragarriz"* (*El Diario Vasco,* 2009ko apirilaren 1a, 27. or.).

*esanahia kendu zaion horrena"*, edo, agian, ez entzunarena jaso duen alderdi horrena. Adibide modura: *"Plus horren gaineko ideia bat egin dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoko auzotar baten hausnarketa aintzat hartuz gero: ez, hemen ez da ezer gertatzen, prentsak tokitik ateratzen dituen kontuak dira. Biktimarentzat gauzak ezberdinak dira, eta haren ikuspegiak ez ditu gauzak tokitik ateratzen: igartzen du modu jakin batean pentsatu edo jarduten duen edonor mehatxatuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan. Biktimek eta ikusleek gauza berari begira diezaiokete, eta gauza ezberdinak ikusten aritu".* (Mate 2008, 36)[23]

Historiarekin uztartuta eta Carmen Iglesiasi jarraituz (2008, 25): *"historia... ez da besteari burura jaurti beharreko adreilu bat, baizik eta une historiko bakoitza biziki berreraikitzea intelektualki ahalik eta modu zintzoenean, eskura dauden eta irakurleari edo adituari, edo, labur esatearren, herritarrari eskaintzen zaizkion datu ikertuen arabera. Horrela, iragana bera ezagutzeaz gain, ahal den heinean eta nahi izanez gero, elementu egokiak edukiko dira norberaren jarrerari buruzko erabakiak hartzeko orainean eta etorkizuneko aukeraketan: inolaz ere berriro errepikatu behar ez den hori".*

Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoak egindako txosten monografikoarekin bat etorriz, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aurkeztua 2007ko ekainaren 7an, giza eskubideen urradura larrietan egia jakiteko eskubidea sortzen ari den, autonomoa den eta besterenezina den eskubidea da, eta uztartuta dago Estatuak babes eta ordain eraginkorrak bermatzeko duen betebeharrarekin[24]. Eskubide absolutu baten aurrean gaude, indargabetu ezin daitekeena eta mugaketei atxikita ez dagoena, eta banakako eta gizarteko dimentsioak ditu. Gertaerak, protagonistak –biktimak eta gaizkileak– eta haien berariazko inguruabarrak ahalik eta gehien ezagutzea esan nahi du. Zigorgabetasuna eta etorkizuneko bitkimizazioak saihestera zuzenduta dago, kaltetuen duintasuna, justizia eta ordainari dagokienez. Hain zuzen ere, nazioarteko zenbait testutan, egia jakiteko eskubidea ordaina eskuratzeko moduen artean onartzen da.

Araudi aurrekari modura, 1949ko Genevako Konbentzioei egindako I. Protokolo Osagarriko 32. eta 33. artikuluetan pentsa daiteke, nazioarteko gatazka armatuen biktimak babesteari dagokionez[25]. Haren konfigurazio juridiko berriena XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadakoa da, pertsonen desagerpenari dagokionez, eta gai horri buruzko Nazio Batuen 2006ko abenduaren 20ko Nazioarteko Konbentzioko 24.2 artikuluan espresuki onartu da[26]. Edonola ere, egun eskubide hori, garapen demokratikoari estuki lotuta doana, pertsonen desagerpenetik haratago doa, 60/147 Ebazpenaren bitartez onetsitako hurrengo agirian onartu bezala: Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan

---

[23] Biktimizazio esperientziei buruzko kapituluak ikusi. Orokorrean, ikusi Cuestan (2009) bildutako terrorismoaren biktimen lekukotzak, eta ETAren derrigortze edota mehatxu terroristen biktimei buruz jakiteko, ikusi Arteta eta Galletero (2009).

[24] Aurrekari modura Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 2005/66 Ebazpena ikus daiteke, egia jakiteko eskubideari buruzkoa.

[25] I. Protokolo Osagarria 1977ko ekainaren 8an hartu zen.

[26] Pertsona Guztiak Nahitaezko Desagertzeen Aurka Babesteko Nazioarteko Konbentzioa.

Urradura Larriak Jasan dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina eskuratzeko.

2000 urtetik, Nazio Batuek barne legediaren eta konstituzio jurisprudentziaren pisua onartzen dute, Kolonbiaren kasuan adibidez, eta baita beste nazioarteko erakundeen pisua ere[27], egia jakiteko eskubidea araudi barruan jartzeari dagokionez banakako nahiz gizarteko dimentsioetan. Nazioarteko araudiak aukera ematen du erakunde juridikoek eskubide hori sustatzeko, zehapen prozedura ez den beste bide batzuk erabiliz. Bide horiek baztertzaileak baino, osagarriak dira[28].

Gauzak horrela, egia jakiteko batzordeak eta horiek egindako gomendioak betetzen direla zaintzeko ardura duten erakundeak aipa daitezke, batez ere aldez aurretiko amnistia eta indultuetan nahiz epaiketarik ez duten kasu horietan aplikatzen direnean. Biktimizazioak ezkutatzen dituzten amnistia eta indultuek, horien arduradunen identitatea ezkutatzen dutenek bezalaxe, biktimek informazioa eskuratzeko, egia jakiteko eta ordaina lortzeko duten eskubidea urratuko lukete, eta inoiz ezin dira izan biktimek beste eskubideei uko egitearen mendeko.

Egiaren batzordeak sortzeak[29] giza eskubideen nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebehar bat betetzea dakar[30]. Valdezi jarraituz (2004, 1): *"Batzorde hauei emaniko agindua herrialdeetan barne gatazka larrietan jazotako berariazko gertaerak iker ditzatela da, eta Zuzenbide Estatua lehengoratzeko une historikoetan sortzen dira araubide demokratikoa heltzearekin batera. Bestela, nazioarteko esku-hartzeak daudenean sortzen dira ere, eta helburua bake prozesuak babestea eta bizikidetzarako oinarrizko premisak ezartzea da. Horien sorreraren helburua gertatu dena ikertzea da, hori ekarri zuten arrazoiak ezagutzea eta erantzukizunak ezartzea esku hartu duten sektore ezberdinetan. Egia jendaurrean jartzeak behar bikoitzari erantzuten dio: batetik, Estatuak giza eskubideen urratzaileak ikertu, jazarri, epaitu eta zigortzeko*

---

27 Zehazki, Amerikako Estatuen Erakundea. Ikusi erakunde horretako Batzar Orokorraren Ebazpena, 2007ko ekainaren 5ean onetsia, egia jakiteko eskubidearen eta gai horren alorreko azterlanak sustatzen jarraitzeko konpromisoaren gainean. Halaber, kontsulta itzazue Giza Eskubideen Batzorde eta Gorte Inter-amerikarrek, hurrenez hurren, hartutako gomendio eta epai ezberdinak. Horietan giza eskubideen urraduren banakako kasu ezberdinetan egia jakiteko eskubidea onartzen da.

28 Espresuki aipatzen da herriaren defendatzaileek izan dezaketen jarduna, adibidez kasu mexikarrean. Osagarritasunaren beharraren gainean, ikusi Europako Batzordearen Parlamentu Biltzarraren 1.613 (2008) Ebazpena, "egiaren batzordeen" esperientzia erabiltzeari buruz.

29 Historian zehar herrialde ezberdinetan sortutako egiaren batzorde guztien zerrenda ezagutzeko, jo Amnistia Internazionalaren orrialdera: http://www.amnesty.org/es/international-justice/issues/truth-commissions. Orain urte batzuk, COVITEk egiaren batzorde bat sortzea eskatu zuen terrorismoaren biktimen gaian. Bestalde, Eusko Legebiltzarrak, 2008ko azaroaren 28an, hiruko gobernuaren (EAJ, EA eta EB), Aralarren eta EHAKren botoekin, erabaki egin zuen euskal gobernuari eta gobernu espainiarrari "egiaren batzordeak" sor zitzatela eskatzea, frankismoaren errepresaliak jaso zituztenei ordaina emateko.

30 Ikusi Nazio Batuen Erakundeko adituen bi txosten bereziak: Theo Van Boven ("Giza Eskubideetan eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradurak (larriak) Jasan Dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, ordaina eskuratzeko", E/CN.4/1997/104. 53. bilera aldia. 1997ko urtarrilaren 16koa) eta Luis Joinet (Giza eskubideen –eskubide zibilak eta politikoak– urraduren egileen zigorgabetasunaren gaiari buruzko amaierako txostena. L. Joinetek prestaturikoa izan zen Bereizkeriak Saihesteko eta Gutxiengoak Babesteko Azpibatzordearen 1.996/119 ebazpenarekin bat etorriz. 49. bilera aldia. 1997ko ekainaren 26koa).

*duen betebeharra neurri batean betetzea, eta bestetik biktimek eskatzen duten egiari erantzuna ematea".*

Zentzu horretan, etorkizunean izan dezakeen funtzionaltasunaren kaltetan izan gabe, Euskadin egun egiaren batzorde bat sortzeak zentzua izango luke adierazitako azken behar horri dagokionez: Giza eskubideetan eta gaizkile terroristen aldetik urradura larriak izan dituzten biktimek eskatutako egiari erantzuna ematea, batez ere biktimizazio bati epairik eman ez bazaio hainbat urte itxaroten egin izan ondoren, eta iraganari dagokionez 'historia komun' horren oinarriak jartzea. Honekin ez da justizia administrazioa ordezkatu nahi, harekin lotura estua duelako hark biktimizazio prozesuetan egi juridikoa ezartzeagatik epaian frogatutako ekintzen bitartez eta kaltea baloratzearen bitartez. Edonola ere, egia beti izango da zabalagoa, alderdi subjektiboentzat ere tokia edukiz.

Horrekin guztiarekin bat eginez, gure eremuan egiaren batzorde bat edukitzea ez litzateke trantsizio justiziaren eredu baten barruan kokatuko, bai, ordea, ordaina emateko prozedura juridikoek eta, erakunde demokratikoen bitartez, iraganari buruzko esanahi publiko partekatuak sortzeak bat egiten duten tokian, justiziarekin, egiarekin eta memoriarekin lotura mantenduz.

### *4.1.2. <u>Egia jakiteko eskubidea 4/2008 Legean</u>*

4/2008 Legeko zioen azalpenak honela hartzen du egia jakiteko eskubidea: "*biktimen sufrimendua arintzeko funtsezko alderdia".*

Egiaren ideiak, biktimen eta haiek biltzen dituzten elkarteen aldarrikapen handietako bat, zera suposatzen du zioen azalpenaren arabera: *"gertakariak guztiz eta osorik ezagutzea, gertakarietan nortzuk hartu zuten parte jakitea eta egindako urraketen inguruabar espezifikoak eta motibazioak ezagutzea".*

Beste herrialde batzuetan martxan jarri diren ekimen batzuk hemen jartzeko, adibidez *"egiaren batzordea"* sortzea *"guztiei bakea duen, askea den eta bizikidetza harmonikoa duen gizarte zintzo batean sartzen"* laguntzeko, beharrezkoa litzateke terrorismoa behin betiko amaitzea.

4/2008 Legeko 7. artikuluak egia jakiteko eskubidea arautzen du eta, lehenengo idatz-zatian, euskal botere publikoek honakoan lagunduko dutela ezartzen du:

- Ekintza terroristetatik eratortzen diren giza eskubideen urraketei buruzko egia eta biktimizazioaren benetako arrazoiak ezagutzen.
- Egia hori jendaurrean aitor dadin, biktimek eta haien familiakoek horretarako duten eskubidea betetzeko.

7. artikulu honetako bigarren idatz-zatiak euskal botere publikoek bultzatu beharreko neurri aktiboak aurreikusten ditu:

- Biktimen memoria eta aitorpena ziurtatzeko, duintasun eskubidean aipatzen diren ekimenetan biktimek parte har dezaten, presentzia izan dezaten eta arretaren erdian egon daitezen bultzatuz.

- Biktimek eta haien familiakoek beren eskubideen defentsarako eta ikerketa historikorako datu edo informazio garrantzitsua dagoen artxibategi ofizialetara jotzeko duten eskubidea bermatzeko eta/edo sustatzeko.
- Biktimak identifikatzeko, haien nortasuna edo egonlekua ezezagunak direnean, edo heriotza izan bada, lurperatuta dauden tokia ezagutzeko.

## 4.2. Terrorismoaren biktimek eta gizarteak memoriarako duten eskubidea

### 4.2.1. Memoria kontzeptuak: historia, banakako memoria eta taldeko memoria

Doktrinaren aldetik ez dago akordiorik memoria kontzeptu bakar baten gainean, baina aditu guztiek aldi berean adierazten dute konplexua eta beharrezkoa dela[31]. Matek dio aldaketa kultural baten aurrean gaudela, biktimen memoriari dagokionez (2008, 65). Memoriari eta historiari buruzko eztabaida biziberritu egin da gure ingurunean, trantsizio espainiarrarentzako memoria historikoaren legea aldarrikatzearekin batera. Historia ezagutzeko eta memoria izateko eskubidea arau batean jasotzen den lehenengo aldia da. Hala eta guztiz ere, komenigarria da azpimarratzea testuinguru soziopolitiko ezberdinen aurrean gaudela. Gainera, terrorismoa ez da oraindik amaitu. Hemen arreta emango diogu memoriaren kontzeptu mugatuari, beste xede batzuetarako ibilbidea azpimarratu gabe.

Materentzat, *"memoria adiskidetzearekin amaitzen den prozesuaren hasiera da; termino horrek legena sortzen du, anbiguoa (biktimetatik urrunen egon direnek erabiltzeko joera dago) eta goiztiarra (konkordia arrastorik ez duen egoera aurreratu nahi duelako) izateagatik. Adiskidetzeak esan nahi du gizartearentzat biktimak eta gaizkileak berreskuratzen direla: biktimak, esanahi politikoa burutzearen bitartez; gaizkileak, 'barkapen politikoaren' kontzeptuaren inguruan antolatutako prozesu baten bitartez, biktimaren aldetik debaldeko keinu bat, ez, ordea, doakoa, gaizkilearen aldez aurretiko keinua dela uste baita".* (2008, 9-10)

Biktimek memoriaren alorrean duten eskubidea, betebehar publikoari dagokionez, uztartu egiten da giza eskubideen nazioarteko zuzenbide publikoan egia jakiteko, justiziarako, duintasunerako eta ordainerako eskubidearekin, funtsean aipatutako Joinet Txostena agertu zenetik. Eskubide bat bezala baino, gaur egun zigorgabetasuna saihesteko betebehar publiko gisa konfiguratzen da. Zehazki, Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoak egia jakiteko eskubideari buruz argitaratutako txosten monografikoan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aurkezturikoa 2007ko ekainaren 7an, adierazi egiten da taldeko memoriarako eskubideak betebehar publiko bat dakarrela,

---

[31] Memoriaren azterketa diziplina artekoa izan behar da, elkarren artean uztartutako gai neurologikoak, psikologikoak, historikoak, soziologikoak, juridikoak... hartzen dituelako. Memoria historikoaren eta gizarte memoriaren edo taldeko memoriaren arteko bereizketari buruz nahiz ahaztearekin eta ikaskuntzarekin duen zerikusiari buruz, ikusi Aguilar (2008, 29-51).

giza eskubideen urradura larrien biktimen biktimizazioari buruzko agiritegietara sarbide publikoa edukitzea sustatu, mantendu eta errazteko[32].

Duranek zera baieztatzen du: *"alderdi ez komunak ez onartzea bezain iruzurtia da alderdi komunek duten balioaz ez jabetzea, bakoitzari bestearengan bere burua ikustea ahalbidetzen diona ez ikustea eta norberarengandik memorian aurreratu edo atxiki bat izatea"* (1998, 11). Bestalde, *"giza espeziean, guztia ezin da gogoratu, ezta ahaztu ere; bi kasuetan zoramenean erortzen da (...).* (Trantsizio espainiarrari dagokionez eta gabeziak eta eragin negatiboak edukita ere, belaunaldien sektore garrantzitsu batek) *jakin zuen senez ezetz esaten zoramenari eta gorrotoari, oroimenaren eta memoria historikoaren beharrezko erabilera traumatismoa sendotzeko eta herri bat hondatu duten hondamendien urteurrena ospatzeko (Bruckner) bakarrik erabiltzen denean sortzen den gorroto iraunkor hain zuzen, azkenean continuum bat bezala barneratzen delako, eta memoria horrela bakarrik erabiltzeak ondorio itzelak sor ditzake".* (Iglesias 2008, 612)

Taldeko memoriak, gogoetatsua eta ulertezina, erakutsi egiten digu gizarteak baliabideak dituela arazoei aurre egiteko, *"baldin eta afektibitatez jarduten jakiten bada eta jarduteko pentsatu egiten bada"* (Iglesias 2008, 619; 736). Memoriari buruzko hausnarketarako beharrezkoa da epe luzerako lan bat egitea, egiatik igarotzen dena, eta, beraz, ezin da bat-batean edo berehalakoan egin. Gainera, biktimizazio terroristan, oraindik irauten duenez, urruneko memoria bat dago, lehenengo hamarkaden inguruko memoria, eta beste hurbilagoko bat, gaur arte iristen dena eta etorkizunean berriro landu beharko dena.

Edonola ere, memoriaren garrantzia honetan datza: *"... (Paul Ricoeurren arabera) memoria beti da proiektuak dituen norbaiten memoria. Edo, Kosellecken hitzetan, itxarote horizonte baten eta esperientzia gune baten arteko lotura da (...). Pentsalari alemaniar handia kezkatu egiten du oraindik hark neurriz gaineko memoriak eta taldeko memoria deitzen duen horretan aldi berean gertatzen den memoria faltak (...): neurriz gaineko memoria porrotak bakarrik gogoratzeko edo, bestela, alderdi onak bakarrik; eta memoria falta portaera baztertzaile edo fanatiko batzuk nora daramaten jakiteko..."* (Iglesias 2008, 735).

Banakako memoria bat dago, terrorismoaren biktima bakoitzean subjektiboa, baina hemen, funtsean, biktimizazio terroristaren multzoaren taldeko memoriari buruz ari gara memoria plural, konplexu, partekatu, adostu bezala baina ez manipulatu bezala. Memoriarako nahi publikoak ez du saihesten sentimenduak sartzea, borondate ekintza bat delako, bai arrazoitua, bai sentitua (Durán 1998, 41-2). Edonola ere, oroitzapen emozional bat baino askoz ere gehiago da, eta ezin da geratu gizarte taldeen arteko samina betirako pizten arituko den memoria ideologizatu gisa (Iglesias, 2008, 26; 732), bai, ordea, Zuzenbide Estatuarekin konpromisoa edukiko duen memoria gisa, bertan argi utziz indarkeria ez dela inoiz justifikatuta egon eta gaizkileak beren ekintzen

---

32 Agiritegien Nazioarteko Kontseiluak onetsitako ebazpenari dagokionez, ikusi helbide hau: http://old.ica.org/new/citra.php?ptextid=resolutions&ptextannee=2003&plangue=eng. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean memoria kontzeptuari dagokionez, ikusi Macklem (2005).

erantzule direla. Taldeko memoriak aukera eman dezake zorra ahazteko, ez, ordea, egindakoa ahazteko. Azken helburua oroitzapenak biktimentzako eta etorkizuneko belaunaldientzako eraikitzeko balio izatea da, eta ez hondatzeko, betiere, joko demokratikoaren arauen pean jardunda. Noski, hori askoz ere zailagoa da banakako memorien kasuan[33].

Historiak metodo zientifikoa behar du, gizarte zientzietan berezkoa, eta haren lanketan ez dute zertan biktimek parte hartu zuzenean[34]. Iturri egokiekin, eraiki nahi den kontakizun historikoa arrazoiz alderatzean datza. Ahozko historiak pertsonen ahozko lekukotzetara jotzen du beste dokumentu batzuekin alderatzeko. Lekukotza horiek, bere horretan bakarrik, ez dute ahozko historia eratzen, baina badira harentzako eta taldeko memoriarentzako iturri. Hori, halaber, tokiko izenen, ospakizunen, museoen, monumentuen eta beste arte adierazpen batzuen bitartez adierazten da.

Memoria publikoa edo taldekoa ez da iraganaren berreraikuntza historikoa, baizik eta jasandako bidegabekerien arrazoizko errekonozimendu publikoa lehen pertsonan kontatuta, elkarrekin posible den etorkizuna eraiki ahal izateko.

Denbora askoan zehar, terrorismoaren biktimen banakako memoriak gaitzetsi eta ezkutatu egin dira, eta taldeko memoriarik ez da egon. Taldeko memoria ez da "zatien pilaketa kaotikoa", baizik eta zentzua duen kontakizuna: *"...kontakizun hori ez da hutsean gertatzen, ez da gure ondotik igarotzen eguzki errainu bat bezala, gu apurtu edo zikindu gabe. Memoriak nortasuna sortzen du, argia eman eta hondatu egiten du aldi berean. Subjektuak eta gertakariak harrotu eta desegiten ditu aldi berean, horien gainean bere linternaren argi printza isuriz edo ilunpetan utziz".* (Durán 1998, 44)

Terrorismoaren biktimak ikusgai bihurtzen ari dira pixkanaka. Hasieran, heriotza ekartzen zuten erasoetakoak bakarrik ezagutzen ziren, ez, ordea, bizirik irtendakoak. Ondoren, aitorpena zeharkako biktimei ere zabaldu zitzaien, eta, haien barruan, beranduago, bigarren eta hirugarren belaunaldietan biktimizazioak dituen luzerako eraginak jorratzen hasi dira. Denborak aurrera egin ahala, lehenengo hamarkadetan biktimizazioa jasan zuten pertsonak ere ikusgai bihurtu dira, mehatxaturik egon zirenak edo

---

33 Trantsizio espainiarrari eta holokaustoari dagokienez, ikusi Iglesias (2008, 731). Memoria Historiko espainiarraren Lege deiturikoak onartu egiten du norberaren memoria eta familiarena, batez ere *"izaera publikoko gatazken eraginak jaso baditu, herritar demokratikoen estatutu juridikoaren zati badira (...). Onartu egiten da zentzu horretan, herritar bakoitzaren memoria pertsonala eta familiarena izateko banakako eskubidea".* Ikusi 2. artikulua. Bestalde, zioen azalpenean, adierazi egiten da Legearen helburua gure historia eta "memoria demokratikoa" ezagutzeko politika publikoak sustatzea dela. Zioen azalpena honela amaitzen da. *"Ez da legegilearen eginbeharra taldeko memoria jakin bat ezartzea. Bada, ordea, legegilearen betebeharra, eta Legearen eginbeharra, biktimei ordaina ematea, arauak onartzen duen zorroztasun handienarekin memoria pertsonalaren eta familiakoaren eskubidea onartu eta babestea, herritar demokratikoen adierazpen den heinean, konstituzio balioak sustatzea eta gure iraganari buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, ordura arte bizi izandako tolerantziarik gabeko egoerak eta giza eskubideen urradurak errepikatzea saihesteko".* Azterlan sakonago eta alderatuago baterako, ikusi Aguilar (2008).

34 Biktimek parte hartzen dute, halabeharrez, beren kontakizun propioen bitartez egia prozesuetan, biktimizazioaren aitorpen publiko gisa.

daudenak eta Euskaditik alde egin behar izan zutenak edo dutenak bezalaxe. Beraz, taldeko memoriako subjektuak areagotzeak kontakizun konplexuaren aberastasuna denboran areagotzea ekarriko du. Edonola ere, beti errespetatu beharko da biktima batzuk ez dutela memoria berreskuratzean lagundu nahi, edo ez dutela horretan une zehatz batean lagundu nahi. Noski, beti irudituko zaie garrantzitsuagoa eta egiazkoagoa beren memoria pribatua.

Euskadiko biktimizazio terroristaren memoria konpondu ezin den horren memoria da, deserosoa askotan. Duranek (1998, 51) dioenaren arabera, horrelako memoriek esan nahi dute *"gogoratzeko ariketa ez dela beti erraza edo atsegina. Ohi ez bezalako buru argitasuna behar da, Formanen hitzekin esateko, zenbaitetan lan gogor eta penagarria bihurtzen den balio berezia"*. Bertan, azpimarragarriak dira biktima askoren askatasuna eta norberak bere burua gainditzeko nahia jasotzen dituzten historia unibertsalak, eta terrorismoaren justifikazioa edo gaizkileen goraipatzea onartuko ez duen bizikidetza anitza edukitzeko nahi komuna[35]. Biktimizazio hori ezkutatu egin denez, egun pribilegiatua izan behar da, hura geldiaraziz eta bertan dagoela jabetuz.

### *4.2.2. Udalerriak eta memoria*

Memoria eskubidearen aplikazio praktikoa aztertzeak agerian uzten du haren eraginkortasunak zerikusia duela hurbiltasunarekin eta toki mailan gauzatzearekin, betiere, estatu eta nazioarte mailan egiten diren aitorpenen kaltetan izan gabe. Izan ere, toki mailan ageri diren zailtasunengatik, horiek dira lehenik eta behin sustatu ohi direnak.

Biktimizazio terrorista hiri eremuetan jazo da batez ere, baina esanahi politikoari dagokionez herritar kontzeptu zabalenarekin uztar daiteke, landa eremuetan erantsitako biktimizazioa aintzat hartuta.

Hiria edo udalerria gutxiengo ezberdinen ikuspegitik nola eraiki den hausnartu denez, adibidez emakumeen ikuspegitik, deigarria da terrorismoaren biktimen ikuspegitik gauza bera egitea. Biktimei ez zaie, bakarrik, iragana interesatzen; funtsean, etorkizuna interesatzen zaie. Biktimen itxaropena da biktimizazio terroristaren memoria herrikoia konpromiso komunetik etortzea, eta ez epai baten edo arau baten ondotik bakarrik jazotzea, udalean aldez aurretik borondaterik ez egoteagatik.

Biktimizazio terroristaren taldeko memoriak ikuspegi aldaketa eskatzen du, eta baita eguneroko errealitatearen, iraganekoa eta etorkizunekoa, eskala aldaketa ere. Horrek, lehenik eta behin, borondate ekintza eskatzen du: hiriko zenbat museok jasotzen ditu, euskal udalerri bakoitzean, biktimizazio terroristaren hondakinak? Galdera honi emandako erantzuna alderatu egin behar da txosten honetan, mapa modura, erakusten den

[35] Azken alderdi horri dagokionez, ikusi Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko urriaren 9ko 32/1999 Legea aldarazteko lege proposamena, Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa 2008ko azaroaren 21eko 134-1 zk.an. Ikusi, halaber, COVITEk Gipuzkoako Batzar Nagusien presidenteari helarazitako gutuna, Batzar Nagusiek terrorismoaren biktimei eskainitako eskulturaren egilearen adierazpenei buruz (helbide honetan: http://www.covite.org).

biktimizazioaren kartografiarekin. Bertan, terrorismoak Euskadin zein tokitan eragin dituen hildako gehien markatuta agertzen da. Horri erantsi egin beharko zaizkio udalerri bakoitzean jazotako biktimizazio modu ugariak.

Memoriaren museo edo etxe deituriko horien behar eta garrantzi praktikoari dagokionez, zera esan da: *"Museoak ikastetxeak eta ospitaleak bezain beharrezkoak dira herrialdeentzat. Horietan ikasgeletan bezain beste, eta zenbaitetan baita gehiago ere, hezten da, eta, funtsean, modu sotil, pribatu eta iraunkorragoan, gure maisu-maistrek egiten dutenaren aldean. Haiek ere sendatu egiten dute, ez gorputza, baina bai burua, ezjakintasunak, aurreiritziek eta superstizioek eta gizakiak euren artean komunikatzea galarazten duten eta haserretu eta hiltzera daramatzaten arazo guztiek eragindako lausotik. Museoek bizitzaren eta gauzen gaineko ikuspegi txikia, herrikoia, zekena, alde bakarrekoa, zitala ordezkatzen dute, eta ikuspegi zabal, eskuzabal eta anitza jartzen. Sentsibilitatea fintzen dute, imajinazioa pizten dute, sentimenduak ñabartzen dituzte eta izpiritu kritikoa eta autokritikoa esnatzen dute pertsonengan".* (Vargas Llosa 2009, 33). Museoak toki biziak izan daitezke, jazotako biktimizazioen froga ukigarria eskaintzen dutenak eta protagonistek publikoki beren istorioak idazteko aukera ematen dutenak.

Museoak birtualak ere izan daitezke, lekukotzak, material pedagogikoa eta memoriaren udal kartografiak (izaera terroristako giza eskubideen urradurekin zerikusia duten udalerriko puntuak)[36] eskaintzen dituzten dokumentazio zentroak bezala. Hiriko museoetan edo memoriaren etxeetan atalak prestatzearekin batera, adierazpen eta dokumentu publikoak pentsa daitezke, aldizkako kontzertuak eta baita beste arte adierazpen batzuk ere, toki publikoen izenak, omenaldiak eta terrorismoaren biktimentzako berariazko arreta emango duten udal zerbitzuak eta topaketen sustapena biktimen, erakundeen eta adituen artean.

Bestalde, hedabideei buruzko kapituluan azpimarratzen den bezala, tokikoa orokor bihurtzen da hedabideek udal ekimen horien guztien berri ematen dutenean, alor horretan ekimen adierazgarriak sustatzen lagunduz.

Ekintza horiek guztiak konpontzaileak izan ahalko dira bakarrik *"biktimen duintasuna eta memoria altxatzen badituzte, eta ezberdin pentsatzen duten horiek deuseztatzearekiko errefusa sinbolizatzen badute"*[37]. *"Gertatutakoa iradokitzen duen eta inoiz ez ahaztera behartzen duen arrastoa"* uzteko aukera ematen dute. Arrasto horrek eragin konpontzailea izateko, bost dira aintzat hartu beharreko baldintzak: a) kasuan kasuko ekintza agintari publikoek sustaturikoa izatea; b) jazotako biktimizazioa gaitzestea eta erantzukizunak ezartzea onartzea; c) erreakzioak sortzea; d) definizioan biktimek parte har dezatela, eta e) haien eta agintari publikoen arteko harremana eralda dezala, omenaldiaren une soiletik haratago joate aldera. Sinboloak apaingarri hutsetatik bereiztean datza. Azken horiek biktimizazio gehiago besterik ez dute eragiten.

---

[36] Adibide modura, Kolonbiako Memoria, Bakea eta Adiskidetze Zentroa, birtuala eta fisikoa, hurrengo helbidean: http://www.centromemoria.gov.co.

[37] Ekimen kolonbiarrei buruz, anonimoa, hurrengo helbidean: http://indh.pnud.org.co/redir.plx?d=indh.pnud.org.co/files/boletin_hechos&f=Reparacion_S.pdf.

### 4.2.3. Memoriarako eskubideari eta terrorismoaren biktimei buruz Euskadin

Terrorismoaren helburuetako bat egindakoa justifikatuta egotearen kontakizuna gainerakoei ezartzearena da. Hori biktimei zor zaien memoriaren nazioarteko printzipioaren nahiz Zuzenbideko Estatu plural batean ordezka ezin daitezkeen herritar gisa duten esanahi politikoaren aurka joango litzateke. Terrorismoaren biktimen memoria ez da jasandako biktimizazioan ixten, baizik eta haren aurreko erreakzioaren protagonismoan. Memoriak zentzua ematen dio biktimizazioari, indarkeriaren aurkako erresistentzia gisa (Magris 2008, 177). Jada adierazi den moduan, gogoratzea mingarria da, baina baita itxaropentsua ere. Horregatik, adierazitakoa justizia modu bat da biktimak ahaztetik babesten direnean.

Balmasedako 2007ko Deklarazioan[38], jada aipaturikoa, eskatu egiten da botere publikoek biktimen duintasuna eta memoria zain dezatela. Memoriaren legatuari buruz, zera esaten da: *"bada garaia agintari politikoek gertakarien gaineko erretorika gainditzeko garaia biktimekiko solidaritateari buruz hitz egiterakoan, izan ere, terrorismoaren biktima garenon duintasun prozesu honetan erronkak lege eta arau mekanismoak hartzea izaten jarraitzen du, duintasuna eman diezaguten, etorkizuneko belaunaldiei tolerantziako, bakeko eta solidaritateko legatua utziz"*.

Memoria, halaber, aldarrikapen argia da eta espresuki aipatu da birritan elkarte nagusiek elkarrekin egindako komunikatuan, 2009ko otsailaren 19an, 32/99 Legearen erreformari buruz.

Eremu teorikoan, bada gai honi buruzko azterlan monografiko bat, terrorismoaren biktimek Euskadin bizi duten egoerari aplikatuta. Bakeaz GKEaren bakerako hezkuntzaren eremuko arduradun den Xabier Etxeberriaren (2007) liburu bat da, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak babestua argitalpenean[39]. Funtsean etikoa den ikuspegi bat da; bertan, terrorismoaren biktimen memoriarako eskubide gizatiarra berresten da justiziarako eskubidearekin uztartuta. Aintzat hartzen dira dimentsio pertsonalak eta taldekoak. Etxeberriak azpimarratu egiten ditu memoriaren etika batek alor honetan izango lituzkeen inplikazio praktikoak, eta hirutan laburbildu ditugu (ibídem, 104-5):

---

[38] Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean. Deklarazioa 2007ko otsailaren 24koa da, eta Euskadin Terrorismoaren Biktimen ARCO Taldeak, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteak, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarteak, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak, "Voces en Silencio" Elkarteak eta Biktimologia Fundazioak egin zuten, **"Solidaritate berria eraikitzen: terrorismoaren biktimen eskubideak" lehenengo lan jardunaldien** barruan.

[39] Bakeazek, Deustuko Unibertsitateko Etika Mintegiarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin batera, Memoriari eta Terrorismoaren Biktimei buruzko I. Topaketa sustatu du 2009ko apirilean. Hori datozen hurrengo bi urteetan jarraituko den proiektua dela aurreikusi da. I. Topaketa nazismoak kaltetutako Europa mailako hainbat intelektualen pentsamenduaren ingurukoa izan zen, *"haien mezuak terrorismoaren biktimen errealitatean izan dezakeen aplikazioa ikertuz"* (proiektuaren justifikazioko 3. or.). *"Intelektual horien (Jean Amery, Joseph Roth, Stefan Zweig, Primo Levi, Paul Ricoeur, Walter Benjamin eta Hannah Arendt) pentsamenduak biktimekiko dituen ideia-ardatzen gainean (…) (herritarrak hutsaren hurrengo bihurtzea, erbesteratzea, hondamendiaren aurrean hausnartzeko gaitasuna, lekukoaren boterea, memoriaren betebeharra)"* hausnartzea da kontua. (proiektuko edukietako 12 eta 13 orr.).

- Biktimizazio terrorista ahaztu eta existitu ez dela esateari uko egitea. Hori erreferentzia izan behar da taldeko memoria publikoan, Todorovek (2000, 32) adierazitako terminoetan eta honetarako: *"iragana erabiltzea orainerako ikuspegiekin, jasandako bidegabekeriek erakutsitakoa aprobetxatzea egun jazotzen direnen aurka erabiltzeko, eta nire burutik aldendu gainerakoengana hurbiltzeko"*.
- Biktimen eskubide eta interes legitimoak errespetatuz beti, haiek kontatzen dutena entzun eta enpatiaz lagundu behar dira, iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hitzaldi publikoa aberasteko eta hark eragina izan dezan sozializazio prozesuetan.
- Hurbileko eta biktimen parte-hartzea duten ospakizunak bultzatzea eta gaizkileei egindako omenaldiak galaraztea.

### *4.2.4. Memoriarako eskubidea 4/2008 Legean*

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko ekinaren 19ko 4/2008 Legeak, zioen azalpenean, uztartu egiten ditu memoriarako eskubidea eta egia jakiteko eskubidea, eta zera adierazten: *"Egiak gertakariak ezagutzea esan nahi badu; memoriak, berriz, gizarteak gertakari horiek aitortzea esan nahi du. Jendaurrean eta ofizialki aitortzea errugabe bati eragindako sufrimendua eta biktima izateagatik duen esanahai politikoa"*.

Zioen azalpenak hiru plano ezberdinetan jorratzen du memoriaren gaia:

- Memoria *"absenteena, erraildakoena, baina baita bizirik irtendakoena, zaurituena, bahitutakoena, estortsionatutakoena, mehatxatutakoena eta haien guztien familiakoena eta lagunena"*.
- Memoria *"gizartearen eta terrorismoaren biktimen topaleku gisa. Elkarrekiko memoria, gizarte libre eta gehitzailea eraikitzeko, biolentziaren ezbeharra berriro egon dadin saihesteko, ezer gertatu izan ez balitz bezala bukatu dadin ez onartzeko. Eta memoria, azken batean, exijitzeko terroristek ez dezatela gizartearen etorkizuna baldintzatzea lortu, etorkizun horretako gizartean bazterketak eta askatasun faltak ez baitu lekurik izan behar. Alde horretatik, memoria terrorismoaren deslegitimizazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko elementua da"*.
- Memoria terrorismoaren biktimen esanahi politiko gisa, izan ere, *"ekintza terroristak egiten dituztenek motibazio politikoak bultzatuta jarduten dute. Esanahi politiko horren baitan ETAk bere proiektu totalitarioa eta baztertzailea inposatze aldera suntsitu nahi zuen eta suntsitu nahi duena dago: Askatasuna, gure eskubideen eta askatasunen bermatzaile den Zuzenbide Estatu demokratikoan eta elkarbizitza barneratzailearen arauetan gauzatzen dena. Zeren eta biktimen esanahi politikoak gainditu egiten baitu biktima izatea bera. Biktima izatea ez da bilatu den zerbait, biktimek ez zuten beren bizia eman, kendu egin zieten bizia. ETAk berak, bere proiektu totalitario baztertzailea inposatu nahian, ematen die biktimei haien esanahi politikoa, desagerraraztean bizitzeko eskubidea ez ezik herritarrak izateko eskubidea ere ukatzen baitie"*.

8. artikuluak memoriarako eskubidea zehazten du eta zera adierazten: *"bere baitan hartuko ditu ekintza terroristak jasan dituzten herritar errugabe guztiek nozitutako bidegabekeriak"*.

- 1. idatz-zatian zera dio: *"Euskal botere publikoek eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzen lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin sustatuko dute"*.
- 2. idatz-zatian zera dio: *"Memoriarako eskubidean, halaber, funtsezko elementua izango da terrorismoaren biktimen esanahi politikoa, eta esanahi horren baitan terrorismoak bere proiektu totalitarioa eta baztertzailea inposatze aldera suntsitu nahi duen guztia dago: Zuzenbide Estatu demokratikoaren ezaugarri diren askatasunak eta elkarbizitza integratzailea izateko herritarrek duten eskubidea. Terrorismoaren biktimen esanahi politikorako ezinbestekoa da herritarrek horren aitorpena gizartean egitea"*.
- Azkenik, 3. idatz-zatiak, zera aurreikusten du: *"Memoria eta terrorismoaren biktimen esanahi politikoa iraunaraztea funtsezko tresna da orobat terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa egiteko"*.

4/2008 Legearen artikuluetatik, oro har, ondoriozta daiteke ezen, atentatu bat gertatu denean, erreparazio moralak berekin dakarrela, kasua bada, jaiak bertan behera uztea[40].

### *4.2.5. Euskal erakundeen ekimenak, terrorismoaren biktimen memoriaren eta ordain moralaren alde*

#### *4.2.5.1. Eusko Legebiltzarraren ekimenak ordain moralaren esparruan*

Txosten honetan zehar, aintzat hartu da Legebiltzarrak terrorismoaren biktimen inguruan garatutako jarduna berariazko batzordearen lanetan eta 2007 eta 2008ko osoko bilkura monografikoetan. Horren guztiaren emaitza Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea izan da.

Idatz-zati honetan bere jarduna azpimarratu nahi dugu ordain moralaren alorrean. Horretarako, bost jarduera mota bereiziko ditugu:

---

40 Guztiz kontrakoaren adibide bat ETAren biktima izandako pertsona baten alargunaren testigantzan ikus daiteke, Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimak Omentzeko egindako I. Ekitaldi Instituzionalaren barruan emandako hitzaldian (07-04-22), prentsa informazioan hurrengo helbidean: http://interior.euskadi.net/datvt/castellano/home.html: *"Manuela Orantos naiz, Avelino Palma Brioa guardia zibilaren alarguna, Euskal Autonomia Erkidegoan erraildakoa 1980an beste bi lankiderekin batera, orain dela 27 urte hain zuzen, Agurainen gazte eta kadeteentzako txirrindulari lasterketa bat estaltzera zihoanean. Herria jaietan zegoen, eta orduko alkateak ez zituen herriko jaiak bertan behera utzi nahi izan. Avelinoren erailketaren berri eman zidatenean, negar eta oka besterik ez nuen egin (...). 29 urterekin bakarrik geratu nintzen, nire seme-alaba txikiekin (...) eta soldata miserable batekin (...). Oso zaila da argitzea nire senarraren bizitzarekin amaitu zuen atentatuak nire bizitza eta nire familiarena betirako nola markatu zuen. Ekintza izugarri honen uhin hedakorra nire familiarekin dator denborak aurrera eginagatik ere, haien iragana ez ezik etorkizuna ere eraginez..."*.

## A. Harreman pertsonalizatuak

Eusko Legebiltzarreko terrorismoaren biktimentzako arretari buruzko txostenaren erabakietako bat laguntza programen betetze-mailari eta eraginkortasunari buruzko jarraipena egitea izan zen[41].Horretarako, harreman pertsonalizatuak egitea erabaki zen biktimen elkarteekin eta zerikusia zuten beste erakunde batzuekin.

2006an, biktimentzako arretari buruzko lantaldearen ordezkari talde batek, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordekoak, hainbat bisita egin zituzten Estatuko biktima elkarte ezberdinetara, zehazki Andaluziara, Galiziara, Kataluniara, Valentziara eta Murtziara. "Dinamika ibiltari" honen funtsa hau izan zen: *"biktimen beharrak lehen eskutik ezagutzea, martxan jarritako babes neurriekin alderatzea eta horiek hobetzeko materiala biltzea. Baina ordezkaritzaren funtsezko misioa euskal herritarrek indarkeriaren biktimekiko duten babesa transmititzea da, eta baita elkarte horiek zenbaitetan eskatu izan duten gizakien aldetiko berotasuna erakustea ere".*

## B. Erakusketak antolatzea

Eusko Legebiltzarreko lehendakaritzak erakusketa bat antolatu du Estatu osoko biktimen elkarte eta fundazioen parte-hartzearekin eta hedabideen lankidetzarekin[42]. 2008ko apirilaren 12an inauguratu zen. Laurogei argazki eduki zituen, biktimen lekukotzak biltzen dituzten hainbat dokumental, legebiltzarrak berak ekoiztutako bideo bat, ETAk eraildako legebiltzarkideak gogoratzera zuzendutako espazioa, "led" elektronikoen gailu bati esker garatutako biktimentzako omenaldi eremua eta bisitarien enpatia piztera zuzendutako eskultura bat. 2008 eta 2009an zehar, erakusketa hori biltzar nagusietara, hamalau legebiltzar autonomikora, Senatura, Europako Kontseilura eta Europako Parlamentura eramatera iristea espero da.

## C. Omenezko eskulturak

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuraren beste agindu bat jarraituz, 2005ko otsailekoa kasu honetan, 2008ko apirilaren 11n terrakotako obra bat inauguratu zen legebiltzarreko egoitzan, terrorismoaren biktimekiko omenaldi gisa. Cristina Iglesias eskulturagile donostiarrak egindakoa izan da *Gauerdiko Ipar Orratza* tituluarekin. *"Terrorismoaren biktimekiko memoriari eta duintasunari, bakea bilatzeari eta indarkeria ezari egindako omenaldia da, helburu gisa balio etikoak izanez".*

## D. Biktima zehatzei egindako omenaldia

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak helarazitako idazkiaren arabera Ararteko erakundeak egindako berariazko informazio eskaerari dagokionez, alor honetan bi jarduera mota garatu da 2008an:

---

41 2008ra bitarte Eusko Legebiltzarrak izandako ekimen guztiei dagokienez, ikusi txosten monografikoaren lehenengo zatia hurrengo helbidean: http://www.parlamento.euskadi.net/pdfs_batzorde/100.pdf.

42 Ikusi erakusketa horren eremu birtuala hurrengo helbidean: http://www.victimasdeeta-parlamento.com/.

1. ETAk hildako parlamentariei eginiko omenaldia.

   Ganberan Fernando Buesa Blanco legebiltzarkidearen omenez plaka bat jarri zen. Helburu berdinarekin beste plaka bat jarri zen Gregorio Ordóñez Fenollarren omenez. Ekitaldia ekitaldi instituzional bat eta omenaldirako plaka jartzea izan zen. (2008-IV-5)

2. ETAk erraildakoei omenaldia 2008an.

   Legebiltzarreko erabakietako eduki eta izpirituarekin bat etorriz, Eusko Legebiltzarreko lehendakaritzak omenaldiak antolatu ditu 2008an ETAren atentatuen ondorioz jazotako hiru hildako biktimentzako. Omenaldiak hurrengoei egin zitzaizkien: Guardi Zibileko agente zen Juan Manuel Piñuel Villaloni, Ejertzitoko brigada zen Luis Conde de la Cruzi eta Ignacio Uria Mendizabal enpresaburuari, Legution, Santoñan eta Azpeitian erailak hurrenez hurren.

   Zehazki, Juan Manuel Piñuel Villalonen omenaldiari dagokionez, biktimetako batek zera baloratu zuen positiboki: *"Eusko Legebiltzarraren aurrean ikusi zen batasun irudia, guardia zibil eta ertzain batek lore eskaintza bat egin zutenean Piñuelen irudiaren aurrean. Alderdi guztiak bertan zirela. Orain arte ezezaguna zen keinu baten eta etorkizunerako adibide izango denaren lekuko. Horrekin geratzen naiz eta oso ongi ulertzen ditut Maria Victoriaren hitzak, Piñuelen alargunarenak, alegia, eskerrak eman zizkionean euskal herriari jasotako babesagatik. Oso ongi ulertzen dut ez baita ohikoa izan. Ezohikoa izan da gehiago. Eta guk, guardia zibilok, babesgabetasuna pairatu dugu denbora oso luzean zehar, gutako bat hiltzen zen bakoitzean eta lurralde honetatik joan egiten ginenean gure lankideen gorpuak bizkarrean hartuta"*[43].

### E. Adierazpen instituzionalak

Sistematikoki, ETAren atentatuak edo indarkeriazko jarduerak jazotzen diren bakoitzean, Eusko Legebiltzarrak adierazpen instituzionalak egiten ditu mahaiko bileretan, bozeramaile batzordeetan edo osoko bilkuretan.

### *4.2.5.2. Eusko Jaurlaritzaren ekimenak ordain moralaren esparruan*

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, azpimarratzekoa da Herrizaingo Saileko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren (TBLZ) lana, esparru ezberdinetan omenaldiak sustatzearen gaian, udal esparruan batez ere, eta baita ekitaldi horiek biltzen dituen urteko argitalpenean ere, zuzendaria bera bertan izanik.

[43] Leoncio Sainzen adierazpenak Terrorismoaren Biktimak Omentzeko II. Ekitaldian, TBLZak antolatua. Ikusi prentsa informazioa hurrengo helbidean: http://interior.euskadi.net/datvt/castellano/home.html.

Orokorrean, biktimen omenez eta haiei aitorpena egiteko egin diren bi ekitaldiak aipatuko ditugu, nahiz eta biktimetako batzuk zalantzak agertu dituzten horien inguruan, txosten honetako beste kapitulu batzuetan adierazi bezala[44].

Lehenengo ekitaldi instituzionala Bilboko Euskalduna jauregian egin zen 2007ko apirilaren 22an. Terrorismoaren biktimak aitortzeko deklarazio horretan, lehendakariak irakurritakoa, onartu egin zen biktimak anitzak direla, baliabide gisa haiek erabiltzea errefusatzen dela, solidaritate aktiborako eta bakean elkarrekin bizitza eraikitzeko konpromisoa hartzen dela eta aurreko urteetan jasandako abandonuaren aurrean haien memoriarekiko justizia sustatuko dela[45].

Bigarren ekitaldi instituzionala Donostiako Kursaalean egin zen, 2008ko maiatzaren 18an. Kasu honetan, adierazpen bat egon zen Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren aldetik nahiz biktima ezberdinen aldetik eta Pedro Miguel Etxenike irakasle eta zientzialariaren aldetik, gizarte zibileko pertsona ospetsu den heinean. Azken horren adierazpenetan, hurrengo hitzak bildu ziren: *"Gizarte batek, gizarte demokratiko batek batez ere, ezin du bere baitan tolerantzia faltako jarrerarik onartu, adibidez terrorismoa, tolerantzia faltaren adierazpen nagusia izaki, hori bateraezina delako gizarte demokratikoaren beraren oinarriekin. Ez gara ideologia politikoez ari; ideiak eta proiektuak aurrez aurre jarri baino lehenagoko zerbait da: aurrez aurre jartze horren oinarrian egon beharreko bizikidetzako esparru komuna da. Bizikidetzako esparru komun hori onartzen ez duena, bertako arauak onartzen ez dituena, ez dago prest gizarte batean bizitzeko, ez dago gizarte demokratiko bat partekatzeko baldintza egokietan. Proiektu ezberdinak posible dira. Baina edozein proiektuk, legitimo izateko, sinesmen demokratikoak bustita egin behar du. Indarkeria baliatzea posible dela uste izateak baliogabetu egiten du hari lotuta doan proiektua, proiektuaren ideiari berari eragiten diolako. Baliabideak eta xedeak ez dira elkarrengandik askeak".*[46]

### *4.2.5.3. Foru Aldundien eta Batzar Nagusien ekimenak ordain moralaren esparruan*[47]

Euskal Autonomia Erkidegoan, barneko lurralde-egitura deszentralizatua izaki, oso garrantzitsua da foru-aldundiek eta batzar nagusiek erakunde-sarean duten rola. Erakunde horiek, hain zuzen, hainbat ekimen eraman dituzte aurrera terrorismoaren biktimentzako erreparazio moralaren arloan.

Zehatz-mehatz aritzeko asmorik gabe, ekimen horietako batzuk aipatuko dira. Hala, bada, azpimarratu behar da foru-erakundeek terrorismoa arbuiatzeko hainbat erabaki

---

44 Ikusi Cristina Cuestaren aipatutako artikulua.

45 Ikusi hurrengo helbidean: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1074_3.pdf.

46 Ikusi prentsa informazioa hurrengo helbidean: http://interior.euskadi.net/datvt/castellano/home.html. Gainera, "Kursaalean jazotako guztiaren gainean" bi notariok egindako aktak ikus daitezke. Haien eskuhartzea berrikuntza bezala iragarri zen hedabideentzako informazioan, ekitaldia aurkezteko egindako prentsaurrekoan hain zuzen.

47 Udalei dagokienez, dagokion kapitulu monografikoari gagozkio.

onetsi dituztela eta gaitzesteko hainbat ekitalditara deitu dutela, edo halakoekin bat egin dutela.

**Araba**n, Arabako Foru Aldundiak urteetan zehar izan du ikusgai bere egoitzari dagokion eraikinaren fatxada nagusian “ETA NO, ETA EZ” goiburua zuen pankarta bat. Legegintzaldi honetan pankarta hori kendu egin da, lan batzuk direla medio, eta foru-bulego batzuei dagokien ondoko erakin batean dago jarrita, “Bakea behar dugu” goiburua euskaraz eta gaztelaniaz duten beste pankarta batzuekin batera.

Fernando Buesa Arabako diputatu nagusia izandakoaren eta Jorge Díez haren eskoltaren hilketaren ondorioz, kirol-pabilioi bati “Fernando Buesa Arena” deitu zitzaion, eta Arabako Espejo herriko gazte-aterpe baten izena “Jorge Díez” da.

Arabako Biltzar Nagusiek gaitzesteko deialdiak egin dute atentatu terrorista hilgarriak gertatu diren guztietan. Gainera, ugariak dira terrorismoa gaitzesteko eta haren biktimekiko elkartasuna agertzeko erakunde-adierazpenak eta mozioak. Erakunde-adierazpen horiek gaitzetsi dituzte terrorismoa, oro har, ETAren atentatuak –gehienetan, hilgarriak izan diren edo zaurituak utzi dituzten atentatuak–, bahiketak, eraikin eta egoitzen aurkako erasoak, edo kale-indarkeriako ekintzak. Bakearen alde eta indarkeriaren kontra ere agertu dira. (Ikus erabaki horien zerrenda bat III. eranskinean.)

Arabako Biltzar Nagusiek 2000ko martxoan, *Fernando Buesa Blanco jaun*aren omenezko eskultura bat agindu zieten Jorge Girbau eta Iñaki Larrumbe eskultoreei, eta eskultura erakunde horren sarreran jarri zuten.

**Bizkaia**n, 1997ko uztailean Bizkaiko Foru Aldundia “Bakea behar dugu” kanpaina sustatu zuenetik, erakunde horrek erakunde publiko nahiz pribatuekin jardun du lankidetzan haren sinbologia eta goiburua edukitzeko egoitza eta areto publikoetan, *“giza eskubideen defentsarako eta terrorismoaren kontrako erreferentzia saihestezin gisa”*.

Era berean eta ohikotasunez, erakunde horrek deialdia egin izan die haren langileei, oro har, bakearekin eta askatasunarekin duten konpromisoa nahiz biktimekiko elkartasuna agertzera, indarkeria terroristazko ekintza bat gertatzen den bakoitzean.

Bestalde, espezifikoki, 2007. urtean Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusia sortu zen, Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen arduraren pekoa. Sortu zenetik, eta EAEko beste erakunde batzuetako entitate homologoekin lankidetzan, besteak beste, ondorengo jarduerak sustatu, babestu eta finantzatu ditu 2008an zehar:

- “Gatazkak etikoki lantzeak”-erakundeak gaitzea (bertako langileak).
- Gatazkak etikoki lantzeko prestakuntza.
- Lankidetzan giza eskubideak barneratzeko prestakuntza.
- Giza eskubideen arloko prestakuntza, erakusketa ibiltari batean oinarrituta (Bizkaiko 50 eskola eta ikastetxe. Sentiberatzea),
- Giza eskubidetan hezteko jarduera eta proiektuetarako zuzeneko laguntza ekonomikoa, laguntzei buruzko dekretu baten bitartez.
- Giza eskubideen foroa (gizartea sentiberatzea).

– “Kultura eta bakea” jardunaldia (Gernika).
– Argitalpenak.
– Aisia hezigarria (lankidetzako jokoa eta bakearen kultura, udalekuak).

Bizkaiko Foru Aldundiak arlo horretan antolatu zituen jardueren aurrekontua, oro har, 102.415 euro izan zen 2008. urtean.

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1980ko hamarkadatik, hainbat erabaki hartu dituzte osoko bilkuran terrorismoaren kontra. (Ikus erabaki horien zerrenda bat III. eranskinean.)

Gernikako Juntetxean, 2008ko abuztuaren 14tik 31ra bitartean, “Biktimak” erakusketa egon zen ikusgai. Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen erakusketa, biktimak berak eta komunikabideak barne hartzen dituzten elkarte eta fundazio zenbaitek ere parte hartuta.

Bestalde, **Gipuzkoa**n, foru-aldundiak, 2002ko abenduaren 12an, omenaldia egin zien biktimei; ekitaldi hartan, diputatu nagusiak erakunde-adierazpen bat irakurri zuen, eta foru-jauregiko harrera-aretoko beirate batean grabatutako idazkun bat desestali zen, testu hau zuela:

*“IN MEMORIAM*
*INDARKERIAREN BIKTIMAK*
*VÍCTIMAS DEL TERRORISMO”*
*GIPUZKOA 2002-12-12*

Azkenik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek hainbat jarduera eraman dituzte aurrera terrorismoaren biktimen memoriaren alde. Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak, 2006ko ekainaren 22an, ez-arauzko proposamen bat onetsi zuen, lurralde-ganberako mahaiari galdatzeko terrorismoaren biktima guztien memoria eta ezagutzarako proiektu bat egin zezala.

Gipuzkoako Batzar nagusiek, *“bakezko etorkizuna ahaztean oinarritu ezin dela sinetsita”*, lehiaketa aurkeztu zuten esku-hartze artistikoa egiteko Miramongo eraikin berrian, terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztien memoria eta ezagutza iraunarazteko helburuarekin, eta, aldi berean, *“Gipuzkoako gizarteak, batzar nagusietan ordezkatuta, zalantzarik gabe bakearen alde egiten duen apustua”* berresteko.

Batzar Nagusien egoitza berrian terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztien oroimenez eta ezagutzaz esku-hartze artistikoa egiteko lehiaketaren oinarrietan xedatutako epaimahaiak Iñaki Olazábal Ezeizak aurkeztutako proposamena aukeratzea erabaki zuen 2007ko maiatzaren 24ko bileran.

Eskultura-multzoa giza eskalako hiru pieza ditu, zinkezkoak, eta terrorismoa eta hainbat motatako indarkeria nozitu dituen kolektibo horren pluraltasuna irudikatzen dute. *“Biktima horiek, ia ezaugarririk gabe gutxieneko era batean irudikatuta, justiziaren eta ezagutzaren nahia partekatzen dute, eta, piezetan, begien pareko irekidura horrek aurrez aurre gertatzen eta topatzen den begirada hori agertzen du. Begirada*

*eta irekidura horiek biktimen barne-esperientzia adierazten dute, eta kanpoaldeak, gune publikoa eta euskal gizartea".*

Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Eguna zela eta, 2009ko martxoaren 10ean lore-eskaintza egin zen Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan dagoen monumentuan, terrorismoaren biktima guztien oroimenez eta ezagutzaz, foru-erakunde horretako lehendakaria eta mahaia buru zirela.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 2009ko apirilaren 3an, terrorismoaren biktimen aldeko ezagutzazko ekitaldia egin zuten, urtero bezala. Ekitaldi horretan sei biktimak parte hartu zuten, eta guztira 60 biktima eta elkarte-ordezkari bertaratu ziren; elkarte horien artean egon ziren, besteak beste: Fundación de Víctimas del Terrorismo, ACVOT, COVITE, Fernando Buesa fundazioa eta Asociación de Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado Víctimas del Terrorismo.

Horrez gain, azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren biktimei buruz antolatutako erakusketa Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan instalatu zela 2008ko irailaren 8tik 26ra bitartean.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakaritzak espresuki gaitzetsi ditu ETAk egindako azken atentatuak, prentsari helarazitako hainbat komunikaturen bitartez[48]. Gainera, Batzar Nagusietako lehendakariak txostengile parte hartu du terrorismoaren biktimei buruzko zenbait biltzarretan; haietan, terrorismoaren biktimak jendaurrean nabarmentzeari eta indarkeria terrorista deslegitimizatu beharrari buruz aritu da[49].

Bukatzeko, azpimarratu behar da Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabaki ugari hartu dituztela terrorismoaren kontra eta bakearen alde. (Ikus erabaki horien zerrenda bat III. eranskinean.)

---

48 Autobus bati Hernanin eraso izana gaitzestea (2007ko urriaren 29a); Raúl Centeno eta Fernando Trapero guardia zibilak Capbretonen (Frantzian) hil izana gaitzestea (2007ko abenduaren 1a); PSEren Elgoibarko egoitzaren eta Artziniegako batzokiaren aurkako erasoak gaitzestea (2007ko abenduaren 13a); Félix Asensio batzarkide sozialistaren etxearen aurka Molotov koktelez egindako erasoa gaitzestea (2008ko otsailaren 9a); Balmasedako *herriko etxe*aren aurkako erasoa gaitzestea (2007ko abenduaren 25a); Hernaniko kale-indarkeriazko gertaera larriak gaitzestea (2008ko otsailaren 17a); PSEren egoitzaren aurkako atentatu terrorista gaitzestea (2008ko otsailaren 29a); Juan Manuel Piñuel Legutioko kuartel-etxean hil izana gaitzestea (2008ko maiatzaren 14a); EHUko errektoretza hartu izana gaitzestea (2008ko maiatzaren 21a); Zamudion *El Correo* egunkariaren errotatibaren aurka egindako atentatua gaitzestea (2008ko ekainaren 8a); Orion A-8 autobide zabaltzeko lanen aurka egindako atentatua gaitzestea (2008ko uztailaren 28a); Basaurin polizia nazionaleko kide baten aurka atentatua egiten saiatu izana gaitzestea (2008ko irailaren 16); Santoñan Luis Conde militarra hil izana gaitzestea (2008ko irailaren 22a); EHUko errektoregaien aurkako mehatxu eta erasoak gaitzestea (2008ko azaroaren 23a); Tolosan batzoki bati eraso izana gaitzestea (2009ko martxoaren 29a).

49 "La significación pública de las víctimas del terrorismo". Rafaela Romero, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria. "Víctimas del terrorismo. Una mirada desde los derechos humanos" mintegia. Santander, 2008ko ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean. Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatea.

"La deslegitimación de la violencia terrorista. Una visión desde Euskadi". Rafaela Romero, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria. III Seminario sobre asistencia a víctimas del terrorismo y de otros delitos violentos. Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren Prestakuntza Zentroa. Cartagena de Indias, Kolonbia, 2009ko martxoaren 16tik 20ra bitartean.

### 4.2.5.4. *Esparru publikoan bidera daitezkeen beste ekimen batzuk*

Ordain moraleko ekintzak uztartu egin behar dira erakunde sustatzaileen euren sinbolismoarekin, biktimei benetako laguntza eta itxaropen konpromisoa transmititzeko helburu horretan. Irakaskuntza publikoko erakundeen barruan, erakusketak, omenaldi ekitaldiak eta plakak edo monumentuak jartzea bezalakoak garatzea pentsa liteke, Espainiako hainbat unibertsitatetan jada egin den bezala[50]. EHUn ez da horrelako jarduerarik egin, betiere, atentatu ezberdinengatik egindako gaitzespen adierazpenen kaltetan izan gabe.

## IV. BIBLIOGRAFIA

AGUILAR FERNÁNDEZ, Paloma. 2008. *Políticas de la memoria y memorias de la política*. Madril: Alianza.

ALEGRE MARTÍNEZ, Miguel Ángel. 1996. *La dignidad de la persona como fundamento del ordenamiento constitucional español*. Leon: Leongo Unibertsitatea.

ALONSO RIMO, Alberto eta VILLACAMPA ESTIARTE, Carolina. 2006. La víctima en el sistema de justicia penal (I y II). *Manual de Victimología* lanean, E. Baca Baldomerok, E. Echeburúa Odriozolak eta J. M. Tamarit y Sumillak koordinatutako lana. Valentzia: Tirant lo Blanch.

ALTUNA, Ángel eta USTARÁN, José Ignacio. 2005. Justicia retributiva, justicia reparadora y reinserción activa, *El Diario Vasco*, 05.05.23, 16. or.

ARROYO ZURIARRAIN, Sonsoles. 2007. La victimización relatada por las víctimas del terrorismo. *Panorámica actual y perspectivas de la Victimología*: *La Victimología y el sistema penal* lanean. Madril: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

ARTETA ORBEA, Iñaki eta GALLETERO SEPÚLVEDA, Alfonso. 2009. *El infierno vasco*. Malaga: Sepha.

CAPPS, Patrick. 2009. *Human Dignity and the Foundations of International Law*. Londres: Hart.

CUESTA GOROSTIDI, Cristina. 2000. *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*. Madril: Temas de Hoy.

---

50 Xehetasunetan galtzeko inolako asmorik izan gabe, hurrengoak bezalako unibertsitateak aipa daitezke, publikoak eta pribatuak: Segoviako Unibertsitatea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, Valladolideko Unibertsitatea, San Pablo CEU (Madril), Rey Juan Carlos I Unibertsitatea (Madril), Zaragozako Unibertsitatea... Antonio Beristainek Alcala eta Valentziako Unibertsitateak ere aipatzen ditu COVITEren X. Urteurrenean irakurritako artikuluan (helbide honetan: http://www.covite.org/covite_10aniversario_articulos02.html).

DURÁN, María Ángeles. 1998. *La ciudad compartida. Conocimiento, afecto y uso.* Madril: Espainiako Arkitekto Elkargoen Goi Kontseilua.

ESCRIVÁ, Ángeles. 2006. *ETA. El camino de vuelta*. Bartzelona: Seix Barral.

ETXEBERRIA, Xabier. 2007. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo.* Bilbo: Bakeaz.

FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco. 2008. *Dignidad de la persona, derechos fundamentales, justicia constitucional*. Madril: Dykinson.

FRASER, Ronald Angus eta BELTRÁN, Jordi. 2007. *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros: Historia oral de la guerra civil española*. Bartzelona: Crítica.

GONZÁLEZ AMUCHASTEGUI, Jesús. 2004. *Autonomía, dignidad y ciudadanía: una teoría de los derechos humanos*. Valentzia: Tirant lo blanch.

HALBWACHS, M. 2004. *Los marcos sociales de la memoria*. Bartzelona: Anthropos.

IBÁÑEZ FANÉS, Jordi. 2009. *Antígona y el duelo. Una reflexión moral sobre la memoria histórica*. Bartzelona: Tusquets.

IGLESIAS, Carmen. 2008. *No siempre lo peor es cierto. Estudios sobre Historia de España*. Bartzelona: Círculo de Lectores.

KARSTEDT, Susanne, 2009ko ed. *Legal Institutions and Collective Memories.* Londres: Hart.

MACKLEM, P. 2005. Restitution and Memory in International Human Rights Law, *European Journal of International Law*, 16, 1: 1-23.

MAGRIS, Claudio. 2008. *La historia no ha terminado. Étca, política, laicidad*. Bartzelona: Anagrama.

MATE, Reyes. 2008. *Justicia de las víctimas. Terrorismo, memoria, reconciliación.* Bartzelona: Alternativas Fundazioa eta Anthropos.

MEYERSFELD, Bonita. 2009. *Domestic Violence and International Law.* Londres: Hart (prentsan).

MIDDLETON, D. eta EDWARDS, D., etab. *Memoria compartida. La naturaleza social del recuerdo*. Bartzelona: Paidós.

NOVALES, Félix. 1989. *El tazón de hierro. Memoria personal de un militante de los Grapo*. Bartzelona: Crítica.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. 2006. La doble victimación. *El significado político de las víctimas del terrorismo*: *el valor del Estado de Derecho y de la ciudadanía* lanean. Fernando Buesa Fundazioa. Vitoria-Gasteiz.

PECES-BARBA, Gregorio. 2004, 2. ed. *La dignidad de la persona desde la Filosofía del Derecho*. Madril: Dykinson.

PRIETO ÁLVAREZ, Tomás. 2005. *La dignidad de la persona: núcleo de la moralidad y el orden público, límite al ejercicio de libertades públicas*. Madril: Cívitas.

RICOEUR, Paul. 1999. *La lectura del tiempo pasado: Memoria y olvido*. Madril: Arrecife/UAM.

SANZ-DÍEZ DE ULZURRUN LLUCH, Marina. 2007. La posición de la víctima en el derecho comparado y en la normativa de la Unión Europea. *Panorámica actual y perspectivas de la Victimología*: *La Victimología y el sistema penal* lanean, J. P. González Gonzálezek zuzendua. Madril: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

SCHERER, Klaus R., 1992ko ed. *Justice: Interdisciplinary Perspectives*. Cambridge: Cambridge University Press.

TODOROV, Tzvetan. 2000. *Los abusos de la memoria*. Bartzelona: Paidós.

VALDÉZ, Patricia. 2004. Comisiones de la verdad: un instrumento de las transiciones a la democracia, CPA Estudios 6/2003, helbide honetan http://www.uned.es/dcpa/estudios.html.

VARGAS LLOSA, Mario. 2009. El Perú no necesita museos, *El País*, 2009ko martxoaren 8an, 33. or.

VARONA MARTÍNEZ, Gema. 2008. La Criminología ante la justicia restaurativa en delitos de terrorismo de ETA: Para que el sueño no se convierta en pesadilla. Posibilidades futuras en la materialización de la interdependencia de los derechos humanos. *Restorative Justice and Victims of Terrorism – Policy Implications* tailerrean aurkeztutako argitaratu gabeko komunikazioa, Bartzelonan, 2008ko uztailaren 24an, Kriminologiako Nazioarteko Elkartearen XV. Mundu-mailako Kongresuan: “Criminalidad y Criminología: Investigación y acción”.

# VI. ATALA

## TERRORISMOAREN BIKTIMEK ORDAIN PERTSONALA ETA MATERIALA ESKURATZEKO DUTEN ESKUBIDEA: ESKUBIDEAREN PROIEKZIOA OSASUNAREN, ETXEBIZITZAREN, ENPLEGUAREN, IRAKASKUNTZAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ALORRETAN

# I. ORDAIN PERTSONALA ETA MATERIALA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

## 1. Ordaina eskuratzeko eskubidearen kontzeptua definitzen duten faktoreak

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeko zioen azalpeneko 3. idatz-zatiak zera dio: "*... bere artikuluetan arautzen direla Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzean onartutako Bakea eta Bizikidetza Planean jasotako printzipio asko, aipatu den izaera programatikoari eutsita*". Printzipio horiek eskubide ezberdinak arautzeko moduan islatzen dira, besteak beste ordaina eskuratzeko eskubidea arautzeko moduan. Ordaina eskuratzearen kontzeptu hori legearen beraren tituluan ere eransten da.

Zioen azalpena gorabehera, ordaina eskuratzeko eskubideak, 5. artikuluan jasotakoa aurrerago ikusiko den moduan, "*ekintza terroristen ondorioz nozitu dituzten kalte mota desberdinengatik biktimei ordaina emateko erabil daitezkeen neurri guztiak biltzen ditu (...). Testuinguru horretan, arauak ezartzen duenez, eragindako kalteen erreparazioa egiteak zenbait neurri mota jaso ditzake: lehengoratzekoak, kalte-ordainak ematekoak, errehabilitatzekoak eta laguntza integrala zein ordain morala ematekoak*".

Nazioarteko araudiari buruzko kapituluan adierazi den moduan, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradura Larriak Jasan Dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina Eskuratzeko (2005) agiria onetsi zuen, eta bertan, ordainaren kontzeptuaren barruan, biktimizazioa "berriro ez errepikatzeko bermeak" sartzen dira. Horrek esan nahi du egitura erreformak egin behar direla poliziaren, justizia administrazioaren, hezkuntzaren, hedabideen eta abarren alorretan, begirada zabalagoa erabiliz izaera material eta moraleko ordainei dagokienez. Zentzu zabalago horren baitan, ordainaren definizioak ere aipa daitezke lehengoratzeko justiziari buruzko nazioarteko araudiaren esparruan[1].

---

1 Zehapen Gaietako Lehengoratze Justiziako Programen Aplikazioari buruzko oinarrizko printzipioak (2002) ikusi, Lehengoratze Justiziako Programaren Gidaliburua bezalaxe (2006), biak Nazio Batuen Erakundearena.

4/2008 Legean adierazi egiten da ordaina eskuratzeko eskubidearen oinarrian funtsezko lau ideia daudela:

1. **Ordain integralaren kontzeptua**
   Estatu espainiarraren eremuan jarraitzen den ildo beretik, ordain integralaren kontzeptuaren helburua, ordain ekonomiko soila emateaz gain, ekintza terroristen biktimei zor zaien aitorpen morala islatzea ere izan behar da.
   Ordain integralaren kontzeptuak dimentsio ekonomikoa, materiala eta laguntzazkoa biltzen ditu, eta, edonola ere, baita beharrezko ordain morala ere. Biktimak subjektu aktibo, dinamiko eta plural gisa ikustea da kontua, eta inoiz ez laguntzen hartzaile soil gisa.
   Ordain moralari dagokionez, 4/2008 Legearen zioen azalpenak ez du bakarrik biktimaren ordaina lortu nahi, baizik eta baita ere "*elkarbizitza baketsua lortzea eta gizartea berreraikitzea eta eraldatzea*". Zentzu horretan, ordain moralak zerikusia du bai biktimen duintasunarekin, bai guztiok bidezko bizikidetza plurala eta askatasunean garaturikoa edukitzeko dugun eskubidearekin.
   Ordain integralaren kontzeptuak esfortzua eskatzen du kasuan kasuko egoera ekintza terrorista jazo aurreko unera ekartzen saiatzeko, nahiz eta kasu gehienetan ezinezkoa izango den. Izan ere, gai honi buruz egindako ikerketa zientifikoen arabera, biktimizazioa beti joango da biktimekin. Hala eta guztiz ere, datu batzuen ondotik baiezta dezakegu babes programa jakin batzuei esker pertsonak osatu eta herritar gisa dituzten aukera anitzak gara ditzaketela, gizarte kapital demokratikoa aberasten lagunduz. Inolako zalantzarik gabe biktimizazioak biktimak eraldatzen baditu betiko, haiekin aldatzen doan gizarteak bakarrik gainditu ahalko du giza eskubideen benetako errespetuaren erronka, herrikideen ahultasunaren eta haiek bere burua gainditzearen aurrean gizartearen ikuspegia era erantzukizuna aberastuz.

2. **Ordaina prozesu bat izan behar da eta ez une zehatza**
   Zioen azalpenak zera azpimarratzen du: "*kontua da ekimen iraunkorra –eta ez une batekoa edo egoeraren araberakoa– abian jartzea, honako hau, hain zuzen: biolentzia errotik deslegitimatzea eta berariaz onartzea inoiz ez dela biolentzia justifikatzeko arrazoirik izan*".

3. **Ordaina hurrengo printzipioek osatzen dute: proportzionaltasuna, malgutasuna, egokigarritasuna eta, jada adierazi dugun moduan, integraltasuna.**

4. **Biktimek eurek ordainaren kontzeptua definitu eta aplikatzerakoan parte hartzea, eta, orokorrean, baita eragiten dieten gaietan guztietan ere.**

## 2. Ordainaren printzipioak eta xedeak

4/2008 Legeko 5. artikuluak terrorismoaren biktimek ordaina eskuratzeko duten eskubidea arautzen du, adierazi berri diren zioen azalpeneko irizpideei jarraiki. Agindu horretako 1. idatz-zatiak ezarri egiten du euskal botere publikoek "*biktimei erreparazio*

*eraginkorra eta integrala egitea sustatuko dutela, lehengoratzeko, kalte-ordainak emateko, errehabilitatzeko, laguntzeko eta kalte morala ordaintzeko neurriak hartuz".*

Aipatu den 5. artikuluko 2. idatz-zatiak Legean aurreikusitako laguntza integraleko sistemaren aplikazioak lehentasunez jorratuko dituen **printzipio eta xedeak** biltzen ditu:

1. Biktima, ahal den neurrian, kaltea egin aurreko egoerara itzul dadin ahalegintzea.
2. Biktimari askatasuna, identitatea, familiako eta gizarteko bizitza eta bizitza politikoa berreskura ditzan laguntzea.
3. Biktima bere bizilekura itzul dadin, edo, hala badagokio, bizilekua aldatu eta bere lanean baldintza egokietan berriro has dadin sustatzea, eta lanera itzultzen lagunduko dioten baldintzak ezartzea.
4. Biktimaren egoera aintzat hartuta, ahalik eta azkarren babes eta laguntza sistemaren prestazioak eskuratzeko erraztasuna bermatzea.
5. Biktimaren eguneroko bizitzako eremuak zaintzea, ekintza terroristak eremu horietan egindako kaltea leunduko duten ongizate-baldintzak sortzeko.

Kapitulu honetan, Legeko III. Tituluan arautako biktimentzako babes sistema eta laguntza integralekoa aztertuko da, hurrengo alderdiei eragiten dien horretan: osasuna, bai fisikoa, bai psikikoa; etxebizitza, bertan etxebizitzan eta beste establezimendu eta lokal batzuetan jasandako kalte materialak konpontzea barne hartuz; lana eta funtzio publikoa, eta irakaskuntza eta trebakuntza. Terrorismoaren biktimen osotasun edo ordain moralari zuzendutako neurriak txosten honetako beste kapitulu batean jorratu dira.

## II. OSASUNA ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

### 1. <u>Aurrekariak</u>

Erakundeek terrorismoaren biktimei emandako erantzuna aztertzerakoan kontuan hartu beharreko gaietako bat hau da: osasun publikoak biktimen osasun beharrak nola jorratzen dituen, behar horiek fisikoak nahiz psikologikoak izan alde batera utzita.

**Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 17 eta 18ko Erabakiak**, terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrei buruzkoa, zera eskatzen du 3. proposameneko i) idatz-zatian: "*Administrazio publiko eskudunei eskatzen zaie eskain dezatela, osasun publikoaren arloan, osasun-laguntza espezializatua (bereziki, psikologikoa), eta, horretarako, presta ditzala terrorismo-gaietan eta terrorismoaren ondorioetan berariazko gaikuntza izango duten profesionalak".*

Gainera, **Bakea eta Bizikidetza Plana** deituriko horretan, Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onetsitakoa, "Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna erakustea" izena duen 2. ardatzeko 8. idatz-zatian, adierazi egiten da hurrengo laguntza ildoak mantendu eta sendotu behar direla:

*"Osasun-laguntza eta arreta psikologikoa emateko programen garapena.*

*Tamalez, denborak ez du beti indarkeria terrorista pairatu dutenen zauri psikologikoak osatzen. Are gehiago, horietako askok, samina, oinazea baita sumindura ere, anonimaturik penagarrienean murgildurik bizi izan dutela kontuan hartzen badugu. Iragandako denborak iragatearren, arazo psikologikoek bere horretan irauteak, ahalegin handiagoa egitea eskatzen digu, eta hori erdietsi nahian, osasun-eremu honetan adituak prestatzeko mintegiak, topaketa zientifikoak, lan-taldeak eta prestakuntza-ikastaroak antolatuko dira.*

*Bereziki psikologiaren esparruko gero eta espezialista gehiago eta adituagoak izateko helburua lortzeari ekingo diogu, euren ahalegin guztiak biktimek dituzten arazoak ahal den kalitaterik onenarekin trata ditzaten".*

Aurreikuspen horiek edukita, Osasun Sailari planteatu egin zitzaion ea zeintzuk ziren sail horrek garatutako neurri zehatzak Legebiltzarreko aurreikuspenei eta Bakea eta Bizikidetza Planak ezarritakoei erantzute aldera. Sail horrek zera adierazten zuen:

*"...Autonomia erkidego honetako Osasun Sistema Publikoak osasun laguntza ematen dio erreferentziako taldeari, buruko osasunerako arreta barne. Ematen den laguntza terrorismoaren biktimentzako Laguntza Programa arautzen duten Eusko Jaurlaritzaren dekretuek ezarritako osasunaren araudi orokorrean eta berariazkoan aurreikusi da (irailaren 24ko 214/2002 Dekretua eta abenduaren 30eko 313/2002 Dekretua).*

*Hala eta guztiz ere, laguntza psikologikoari eta psikosozialari dagokionez, gogorarazi egin behar dira Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari emandako funtzioak aipatutako dekretuen bitartez. Horrela, kasuan kasuko Gobernuaren Programan gauzatutako interesari erantzuten zaio, terrorismoaren biktimei eta haien familiei nahiz terrorismoaren fenomenoari uztartutako edozein motatako indarkeria, xantaia, estortsioa edo jazarpena jasaten duen pertsona orori hurbilagoko arreta eta arreta zuzenagoa emateko.*

*Zehazki, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen Dekretuko 4bis artikuluak ezarri egiten du terrorismo ekintzek egindako kalte pertsonaletarako laguntza psikologikoa behar bada, Euskal Autonomia Erkidegoaren Osasun Sistema Publikoaren bitartekoez baliatzeaz gainera, dekretu horretan jasotako mekanismoak ere erabili ahal izango direla.*

*Mekanismo horiek, funtsean, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak biktimek behar dituzten banakako tratamendu psikologikoen kostua finantzatu eta kudeatzea izaten dira, tratamendu horiek psikologo pribatuek emanikoak izatean".*

**Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak**, orain dela gutxi onetsitakoa, biktimen osasun beharrak jorratzen ditu, bai fisikoak, bai psikologikoak. Jada badakigun moduan, lege horrek ordain integralaren kontzeptua planteatzen du, eta, zioen azalpenean, zera adierazten: "*Erreparazio integralaren kontzeptuak statu quo ante-ra bueltatzeko ahalegina eskatzen du, nahiz eta konponbide hori kasu gehienetan ez den posiblea izango".*

## 2. Terrorismoaren biktimen osasun behar fisikoekiko arreta

4/2008 Legeko III. Tituluaren izenburua "Laguntza integraleko sistema" da, eta laguntzaren eremua jorratzen du. Titulu horretako 18. eta 19. artikuluek osasun fisikoaren

eta laguntza psikologikoaren eremuak jorratzen dituzte. Gauzak horrela, osasun fisikoa 4/2008 Legeko 18. artikuluak arautzen du. Arau horrek bat egiten du ordain integralaren ideia honekin, eta 1. idatz-zatian zera dio:

> *"Ekintza terrorista baten ondorioz kalte fisikoak edo psikofisikoak nozitu dituzten pertsonek aukera izango dute kaltea eragin zuen gertakariaren aurretik zuten egoera fisikoa ahalik eta ondoen berreskuratzeko beharrezko diren osasun-zerbitzu guztiak jasotzeko".*

Arau horiek bat datoz Legeko zioen azalpeneko aurreikuspenarekin. Horren arabera, biktimen eskubideak idazterakoan aintzat hartu behar dira gaiaren alorreko nazioarteko adierazpenak. Nazioarteko hainbat baliabideren artean, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenaren bitartez, 2005eko abenduaren 16koa, honakoa onartu zen: "Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradura Larriak Jasan dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina Eskuratzeko". Ebazpen horretan, ordainak bost erantzun mota biltzea eskatzen du, horien artean **berriro egokitzeko neurriak** deiturikoak. Berriro egokitzeko, besteak beste, osasun neurriak, neurri psikologikoak edota psikiatrikoak hartu behar dira kaltea gainditze aldera.

Nazio Batuen 1999ko Gidaliburuak, Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioaren aplikazioari eta erabilerari buruzkoa, berariazko idatz-zatia eskaintzen dio osasun fisiko eta psikikoaren profesionalen paperari.

Bestalde, Nazio Batuen Hitzarmen Proiektuak, 2006koa, Delitu eta Botere Abusuaren Biktima direnentzako Justizia eta Laguntzari buruzkoa, funtsean Delituen eta Botere Abusuen Biktimentzako NBEren Oinarrizko Justizia Printzipioen 1985eko Deklarazioa jasotzen duena, adierazi egiten du biktimen oinarrizko lau eskubide bermatu behar dituztela Estatuek. Horien artean laguntza materiala, medikoa, psikologikoa eta soziala jasotzeko eskubidea dago, koordinatutako tokiko eta lurraldeko sareen bitartez. Laguntzaren barruan berehalakoa edo presazkoa sartzen da, epe ertain eta luzean behar dena bezalaxe. Eskubide hau biktimen intimitatea eta bizitza pribatua izateko eskubideari errespetu izanez erabili behar da. Ondorioz, bai kapitulu honetan, bai nazioarteko araudiari buruzkoan, aipatutako nazioarteko agiri guztiak behar fisiko eta psikologikoei buruzkoak izango dira aldi berean.

4/2008 Legean aurreikusitako osasun arreta "*Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemari atxikitako bitartekoak erabilita emango da*" hasiera batean (18.2. art.). Hala eta guztiz ere, arauak bi salbuespen jaso ditu hemen:

- "*Berebiziko larrialdia izateagatik, itundu gabeko zentro pribatuetan eman behar bada*". Kasu horretan, "*osasun arloan eskumenak dituen sailak finantzatuko ditu*" kasuan kasuko gastuak.

- "*Pazientearen beharrek hala gomendatzen badute eta tratamenduaren egokitasuna objektiboki justifikatuta baldin badago, baina lekurik ez baldin badauka osasun publikoaren sarearen barruan*". Kasu horretan, "*eremu horretatik kanpo emandako tratamendu medikoak baimendu ahal izango dira eta tratamendu horien kostua Administrazioaren kontura joango da*

*eta gaixoari laguntzeagatik izandako gastuak, betiere, erregelamendu bidez ezartzen den mugarekin".*

Beharrezkoa da azpimarratzea Euskadiko osasun sistema izena Euskal Osasun Zerbitzua baino zabalagoa dela, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko baliabideak ez ezik, itunpeko zentro pribatuak ere hartzen dituelako.

Bestalde, 18. artikulu honek, 3. idatz-zatian, terrorismoaren eraginak jasan dituzten pertsonei, **protesiak jartzea** behar badute, onartu egiten die Administrazioak protesi horietatik sortutako gastuak gain hartzea. Hain zuzen ere, zera da adierazten duena:

*"Administrazioak bere gain hartuko ditu protesiak jartzeagatik eragindako gastu guztiak, eta protesien aldizkako hobekuntzak beharrezkoak badira horien gastuak ere bai, baita errehabilitazioak dakartzan gastuak ere, ohiko osasun-babesaren parametroetan sartuta dauden ala ez alde batera utzita".*

## 3. Laguntza psikologikoa terrorismoaren biktimentzat

Askotan, ekintza terrorista bat jasan dutenek kalte psikologiko larriak izan dituzte, eta horietarako beharrezkoa da ekintza traumatiko horrek eragindako ondorioak gainditzera zuzendutako **laguntza psikologikoa** edukitzea. Behin sendagile publiko batek arreta hori beharrezkoa dela egiaztatzen duenean, interesdunek Euskadiko osasun sistemako baliabideetara edo profesional pribatuek eskainitako tratamendu psikologikora joatea erabaki dezakete.

Hain zuzen ere, 4/2008 Legeko 19.1 artikuluak, zera dio:

*"Ekintza terroristen ondoriozko eraginak gainditzera bideratuta dagoen laguntza psikologikoa, psikosoziala eta psikopedagogikoa barne direlarik, mediku publiko batek egindako egiaztagiri baten bidez horren premia duela baieztatzen duen edozein pertsonari emango zaio. Interesdunak aukeratu ahal izango du agindutako tratamendu psikologikorako Euskadiko osasun-sistemari atxikitako bitarteko publikoez baliatzea edo pribatuak erabiltzea".*

Terrorismoaren biktima askok profesional pribatuetara jotzeko aukera egin dute laguntza psikologikoa eskuratzeko, izan ere, kasu horietan, tratatuko dituen pertsonarekiko konfiantza funtsezkoa da. Kasu horietan, "*Administrazioak bere gain hartuko du horren kostua, eta interesdunari laguntza ekonomikoa zuzenean eta osorik emango dio tratamenduarekin hasi aurretik. Laguntza hori bateraezina izango da beste administrazio publiko batzuek arrazoi berberengatik eman ditzaketen antzeko laguntzekin*" (19.2 art.).

Halaber, 4/2008 Legeak, 19.3 artikuluan, laguntza ekonomikoak nola jasoko diren arautzen du. Horiek ordaintzeko modua hau izango dela ezartzen da: "*igarotako hiruhilekoka jasoko da, Gastuen eta ordaindutako zerbitzu-sarien fakturak aurkeztu ondoren, eta ezin izango du gainditu norbanakoaren tratamendurako erregelamendu bidez ezarritako zenbatekoa. Hala ere, horrek ez du albo batera uzten, diagnostiko medikoaren bilakaera ikusirik, emandako laguntza salbuespen gisa handitzeko aukera*".

Terrorismoaren biktimei eragindako kalte psikologikoa ez du behar beste jorratu literatura zientifikoak. Aitzitik, gai hori aztertu duten lan zientifiko edo barreiapeneko batzuk ez dira falta izan. Gauzak horrela, "Víctimas del terrorismo: del trauma a la superación"[2] izeneko artikulu batean, Enrique Echeburúa irakasleak, gai honetan ospe gehien duen profesionaletako bat eta txostenaren beste idatz-zati batean aipatu duguna, zera dio:

*"Kalte fisikotik haratago (eragindako lesio eta ondorioak), biktima askok kalte psikologikoa jasaten dute atentatu terrorista baten ondotik, eta horrek eragin negatiboak ditu haien bizi kalitatean. Kalte fisikoarekin gertatzen den ez bezala, kalte psikologikoa (ez kalte moral soila) ez da ia aztertu edo aintzat hartu, adibidez kalte-ordainaren eraginetarako".*

**27. TAULA:**
**KALTE PSIKIKOA INDARKERIAZKO DELITUEN BIKTIMENGAN**

**(Esbec, 2000, aldatuta)**

- Sentimendu negatiboak: apalkuntza, lotsa, errua edo haserrea.
- Antsietatea.
- Etengabeko kezka traumarengatik, gertatutakoa berriro bizitzeko joerarekin.
- Depresioa.
- Norberarenganako konfiantza pixkanaka galtzea, bizitako babesgabetasun eta itxaropen ezeko sentimenduen ondorioz.
- Autoestimuak behera egitea.
- Interes eta kontzentrazio galera, lehen atseginak zitzaizkion jardueretan.
- Aldaketak balioen sisteman, batez ere gainerakoenganako konfiantzan eta bidezko munduarekiko sinesmenean.
- Etsaitasuna, oldarkortasuna, alkohola eta drogak neurriz gain kontsumitzea.
- Harremanak aldatzea (mendetasun emozionala, isolamendua).
- Ahultasuna areagotzea, mundu arriskutsu batean bizitzeko beldurrarekin, eta norberaren bizitzaren gaineko kontrola galtzea.
- Errotiko aldaketa bizitzeko estiloan, ohiko tokietara joateko beldurrarekin. Bizitokia aldatzeko presazko beharra.
- Loaren erritmoa eta edukian aldaketak.
- Sexu disfuntzioa.

Iturria: *Bake hitzak,* 67. zk.

Enrique Echeburúa irakasleak zera baieztatzen du:

*"Pertsona batzuk atentatua jasan dute eta, hala ere, ez dute tratamendu psikologiko edo sendagai bidezkorik behar. Aldez aurretiko oreka psikologikoak, denborak aurrera egiteak, eguneroko bizitzaren eskakizunei emaniko arretak eta familiaren eta gizartearen babesak lagundu egiten dute askotan trauma bat irensten. Horrela, pertsona horiek, gorabehera emozionalekin eta oroitzapen mingarriekin eta guzti, gai dira lan egiteko, beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko, eguneroko bizitzaz gozatzeko eta proiektu berrietan esku hartzeko.*

---

2 *Bake hitzak*, 67. zk., 13-22 orr.

*Aldiz, beste pertsona batzuk jasandako gertaeran harrapaturik sentitzen dira, ez dituzte konstante biologikoak berreskuratzen loari eta goseari dagokienez, etengabeko sufrimenduarekin beldurtuta bizi dira, emozioak eta pentsamendua kontrolatzeko zailtasunak dituzte, gizartetik isolatzen dira eta eguneroko bizitzaren eskakizunei aurre egiteko ez dira gai sentitzen. Zenbaitetan, portaera kaltegarriak hartzen dituzte (neurriz gain edaten dute, behar baino gehiago edo gutxiago jaten dute, sendagaiak nahi bezala hartzen dituzte, eta abar). Traumak gainditu egiten dituen pertsona horiek berariazko laguntza psikologikoa behar dute, eta, zenbaitetan, baita sendagai bidezkoa ere.*

*Laguntza behar duten pertsona horien artean, aurrekari psikopatologikoak dituztenak daude batez ere, atentatu terrorista baten ondotik ondorio larriak jasan dituztenak, bakarrik sentitzen direnak, seme-alaba txikiak zaintzapean dituztenak, baldintza ekonomiko kaskarretan geratzen direnak edo egoera irregular edo ezegonkorrean dauden etorkinak direnean".*

Echeburúa, Corral eta Amorrek (2004, 2005) terrorismoaren biktimen eremuko tratamendu psikologikoak nolakoak izan behar diren teorizatu dute[3]. Tratamendu hauek ezaugarri batzuk eduki behar dituzte:

*"a) Berehalakoak izan.*
*Tratamendua ahalik eta lasterren hasi behar da terapia behar dutenen kasuan. Tratamendua goiztiarra izateak sintomak kroniko bihurtzea galarazten du, eta biktimari egunerokora itzultzea ahalbidetzen dio.*

*b) Denboran jarraitutasuna edukitzea eta pertsona berdin bati uztartuta egotea.*
*Egituratutako tratamendu bat terapeuta berdinak garatu behar du, eta aldizkakotasun zehatzari atxikita egon, adibidez, asteroko bisitak jarriz. Halaber, gaixoak enpatia emozionala eratu behar du terapeutarekin, eta horretarako, beharrezkoa da harremanean jarraitutasuna edukitzea. Tratamendu konbinatua badago (psikologikoa eta sendagai bidezkoa), profesionalen arteko koordinazioa egon behar da.*

*c) Denboran muga edukitzea*
*Tratamenduek hasierako puntua eta amaierakoa eduki behar dute, helburu terapeutikoei jarraiki eta frogan oinarrituriko psikologia klinikotik eratorritako teknika terapeutikoak aplikatu ondoren.*
*Beharrezko malgutasuna edukitzeaz eta pertsonen aldagarritasunari arreta emateaz gain, tratamendu batek 3 eta 6 hilabete arteko iraupena eduki dezake, eta baita urtebeteraino luzatu ere. Denbora luzeagoz mantentzea, kasu berezietan izan ezik, kaltegarria izan daiteke gaixoarentzat, biktima gisa jarraitzeko joera dagoelako eta terapeutarekiko mendetasun emozionala sortzeko (eragin iatrogenikoak), eta hori helburu terapeutikoekiko kontraesanean dago".*

Ondorioz, jada adierazi dugun moduan, oso garrantzitsua da laguntza psikologikoa eskuratzeko biktimaren eskubidea jasotzen duen lege araua, eta, gainera, laguntza hori profesional pribatu batek ematea aukeratu ahal izatea. Arauketa hori, egia esan, aurreikusita zegoen jada terrorismoaren biktimentzako laguntza prestazioak arautzen dituzten dekretuetan. Terrorismoaren biktima bati emandako tratamendu psikologikoak

---

[3] Bake hitzak aldizkariko 67. aleko adierazitako artikuluan aipatua. Gai honi buruz, ikusi, halaber, Baca Baldomero. 2006. Terrorismo. *Manual de Victimología* lanean, E. Baca Baldomerok, E. Echeburúa Odriozolak eta J. M. Tamarit y Sumillak koordinatutako lana. Valentzia: Tirant lo Blanch.

konfiantzazko harremana eskatzen du gaixoaren eta terapeutaren artean, atendituko duen profesionalarekiko enpatiazko harremana sortzea, alegia.

Biktimen elkarteetako ordezkariekin izandako bileretan, bertaratu ziren pertsona batzuk kezka agertzen zuten osasun sistema publikoan zer profesionalek atenditu zitzaketenari buruz. Hori dela eta, zenbait kasutan, profesional pribatuetara jotzen zuten jasandako atentatuaren ondorio fisiko edo psikikoengatik tratamendua jaso behar zutenean.

Terrorismoaren biktimak biltzen dituzten elkarteek garrantzia berezia ematen diote ekintza terroristak eragindako kalte psikologikoak tratatzeari. Terrorismoaren Biktimen Extremadurako Elkarteak (AEVT), Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Babesteko Lege aurreproiektua baloratzerakoan, zera azpimarratu zuen biktimen eskubide gisa: "*berriro erabat gizarteratzea ahalbidetuko dien arreta morala eta psikologikoa, biktimizazioa ahalik eta gehien saihestuz*".

"Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean" izeneko agirian ere, 2007ko otsailaren 24koa eta estatuko araudiari buruzko kapituluan ere jada aipatutakoa, idatz-zati garrantzitsua eskaintzen zaie eskubide psikologikoei. Eskubide horiek honela tratatzen dira:

> *"**Alderdi psikologikoei dagokienez**:*
>
> - *Psikofisiko terminoa zaharkituta dago, eta aldatu egin beharko litzateke. Subjektiboa eta anbiguoa ere bada. **Kalte psikologiko** esateagatik ordezka liteke.*
>
> - ***Kalte moralak** (sufrimendu psikikoaren pertzepzioa, kaltearen sentsazioa, sentimendu subjektiboagoa) ez dira TBSLn jaso eta bertan jaso eta onartuta egon beharko lukete (bai lehen mailako biktimen kasuan, bai bigarren mailakoen kasuan).*
>
> - *Baliaezintasuna ez dakarten lesio iraunkorrak baloratzeko, TBSLak Ibilgailu Motordunen Zirkulazioan Erantzukizun Zibilari eta Aseguruei buruzko Legean ezarritako baremora jotzen du, horrelako lesioengatiko kalte-ordainen kopurua zehazte aldera. Sistema hori pertsonei, zirkulazio istripuetan, eragindako kalte eta eragozpenak ebaluatzeko aurreikusi da. Aitzitik, terrorismo ekintzek edo 32/1999 Legearen aplikazio eremuan bildutako ekintzek sor ditzaketen kalte 'psikofisikoak' **(kalte psikologikoa)** zirkulazio istripu batek sor ditzakeenez ezberdinak dira. Arrazoi hori dela eta, hobe litzateke berariazko baremoa ezartzea, terrorismoaren biktimei baliaezintasuna ez dakarkien lesio iraunkorrak ebaluatzeko.*
>
> - *Solidaritatearen Legean, garrantzi gutxiago ematen zaie lesio psikologikoei fisikoei baino, eta lesio psikologikoentzako kalte-ordainak ez daude fisikoak bezain bermatuta. Puntu honetan ikus daiteke TBSLak biktimek jasandako kalte fisiko edota psikofisikoak ordaintzeko modukoak izan beharko liratekeela ezartzen badu ere, ondorengo idatz-zatietan eta 32/1999 Legea Gauzatzeko Araudian islatuta geratzen dena dela kalte psikologikoengatik*

*(atzera bueltarik ez duten lesioak) bakarrik emango direla kalte-ordainak. Aldiz, gerta daitezkeen aldi baterako eta atzera buelta baduten kalte psikologikoak ez dira aintzat hartzen, eta behar besteko garrantzia dute horiek aintzat hartzeko, eta kalte-ordaina ordaindu beharko litzateke horiengatik ere.*

- *TBSLek zuzeneko biktimaren senideak bakarrik aintzat hartzen ditu, biktima hiltzen den kasuan. Hil ez diren biktimen familiak ere aintzat hartuko beharko lirateke, izan ere, kasu askotan, biktima izatera igarotzen dira ere, eta osasun psikologikoaren eskubidean sartuta ere egon beharko lukete.*

- *Lesio psikologikoek denboran duten iraupena. Sintomak urte asko igarota ager daitezke.*

- *Lesioak atzera buelta dutenak badira, ezin dute kalte-ordainik jaso. Baina gerta liteke pertsona batek atzera buelta duen lesioa izatea eta, kanpoko inguruabarrak direla eta, hura kroniko bihurtzea, eta hori ez dira TBSLn sartzen atzera buelta dutenetakoa izateagatik.*

- *Biktima bakoitzak laguntza psikologikorako eskura dezakeen gehieneko kopurua ez da mugatu behar; aldiz, pertsona bakoitzak behar duen horretara egokitu beharko da. Eta laguntza horiek beharra duten biktimen senideei ere zabal dakizkiekeela".*

Gai hauetako batzuk jaso dira jada onetsi berri den terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean. Beste batzuk, osasun laguntzarekin zorrozki zerikusirik ez dutenak eta bai, aldiz, kalte-ordain alderdiekin, beste testu arautzaile batzuetan kokatu beharko dira.

Biktimek osasun sistema publikora edo baliabide pribatuetara jotzeko duten eskubidea alde batera utzita, arauak arreta mota honetarako baliabide espezializatuak osasun sistema publikoaren barruan sortzearen alde egiten du. Nahi hori ez da berria, eta, jada adierazi dugun moduan, 2006ko Bakea eta Bizikidetza Planak berak trebakuntza ikastaroak antolatzeko beharra planteatzen zuen espezialistentzat, eta baita horien kopurua eta kualifikazioa areagotzeko beharra ere.

Ararteko erakundeak informazioa eskatu zion gai honen gainean 2007an Osasun Sailari. Sail horretako sailburuak zera erantzun zion: "*gaian aditu direnen berariazko trebakuntzari dagokionez, Osasun Sailak ez du aukera hori aintzat hartu*".

4/2008 Legeak, 19.4 artikuluan, aurreikuspen hori biltzen du zera adieraztean:

> *"Administrazio sanitarioak bide emango du, osasun-sistema publikoko osasun mentaleko sarearen barruan, ekintza terroristen ondorioen tratamendu psikologikorako baliabide espezializatuak sor daitezen".*

Jada aipatu den moduan, Delituen eta Botere Abusuen Biktimentzako NBEren Oinarrizko Justizia Printzipioen 1985eko Deklarazioa aplikatzeko gidaliburuen artean, 1999an deklarazio hori aplikatu behar duten profesionalentzako gidaliburua landu zuten

40 herrialdetik gorako adituek. Adituen ustetan, biktima guztiek ez dute trauma osteko estresa delakoa bizitzen, mantentzen diren eta nagusi diren oroitzapen negatiboekin. Biktima batzuk osatu egiten dira, baina beste batzuk sintomekin jarraitzen dute urtetan zehar eta baita bizitzan zehar ere zenbaitetan. Gainera, zera adierazten da: "*bigarren mailako biktimizazioa osasun praktika edo jarreretatik ere etor daiteke*". Hori dela eta, gidaliburuak biktimekin harremanetan dauden profesional ezberdinen berariazko papera jorratzen du. Profesional horien artean osasunaren alorreko profesionalak egongo lirateke, eta zera esaten du haien inguruan: *"Sendagileak, psikologoak, erizainak eta osasunaren alorreko gainerako langileak dira terrorismoaren biktimekin harremanetan jartzen diren lehenengoak. Garrantzitsuak dira haien ezagutza teknikoak, probak ez galtzeko eta baliabideak koordinatzeko, nahiz haien aldetiko errespetuzko tratua. Bertan konfidentzialtasuna ere sartuko litzateke, biktimizazioa ez areagotze aldera"*. Zentzu horretan bertan, Europako Kontseiluaren 8 (2006) Gomendioa azpimarra daiteke, delituen biktimei laguntzeari buruzkoa, osasunaren alorreko profesionalen berariazko trebakuntzari buruzko alderdiari dagokionez.

Hori dela eta, uste dugu berebiziko garrantzia duela 4/2008 Legearen 19.4 artikulua aplikatzeak.

Azkenik, atentzioa jarri nahi dugu hurrengo alderdiaren gainean: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den indarkeriak pertsonen osasunean duen ondorio nabarmena ez da behar beste aztertu ikerketa epidemiologikoaren ikuspegitik. ISAVIC taldeak –taldeko indarkeriak osasunean duen inpaktuaren gaztelerazko akronimoa– egindako azterlan oso interesgarriaren berri bakarrik dugu. Talde horretan, osasunaren alorreko profesional ezberdinak daude, eta lanaren izenburua honakoa da: "Taldeko indarkeriak osasunean duen inpaktuari buruzko azterlana"[4]. Lan horrek Fernando Buesa Fundazioaren babesa eduki du.

Komenigarria litzateke botere publikoek azterlanak sustatzea horrenbeste urtean Euskal Autonomia Erkidegoan egondako indarkeria terroristak osasunean izandako eraginaren gainean, eredu eta biktimizazio maila ezberdinak bereiziz zentzurik zabalenean. Gainera, gure eremuan egiaztatu egin behar dira gaiaren gainean egindako beste azterlan zientifiko batzuetako ondorioak. Gauzak horrela, nazioarteko araudiari buruzko kapituluan jada aipatu den moduan, batzuk zera ondorioztatzen dute: *"Agintariek zerbitzu orokorrak, gizartekoak eta osasunekoak behar bestekoak direla ulertzeko joera dute, delituen biktimen behar bereziak tratatzeko. Biktimentzako Zerbitzuen Foro Europarraren esperientziak eta EBren Europa Ekialderako Phare programak diotenaren arabera, hori ez da horrela" (Reeves 2003, 5-6).*

[4] "Taldeko indarkeriak osasunean duen inpaktuari buruzko azterlana. ISAVIC azterlana". Argitaratu gabeko txostena; laster argitaratuko du Fernando Buesa Blanco Fundazioak. Ordura arte, aurkezpenaren ikusentzunezkoa ikus daiteke, 2009ko otsailaren 19an egina, fundazio horretako web orrialdean.

# III. ETXEBIZITZA ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

## 1. Aurrekariak

Jarduera terroristak arazo eta behar larriak eragin ditu askotan, terrorismoaren eraginak pairatu dituzten pertsonen etxebizitzen eremuan. Ekintza terroristen ondotik plantea daitezkeen inguruabarrak ugariak dira, baina, funtsean, hurrengoen bidetik bideratu ahal dira:

a) bizitokia aldatzeko beharra edo ohiko etxebizitza egokitu beharra, "terrorismoaren kaltetu" izaera hartzeagatik;
b) atentatu terrorista baten ondorioz etxebizitzan eragindako kalte materialak konpontzea;
c) segurtasun neurriak hartu beharra, jazarpen terrorista prebenitzeko.

Terrorismoaren eraginak jaso dituzten pertsonek etxebizitzaren alorrean dituzten beharrak pixkanaka jorratu dituzte botere publikoek. Gauzak horrela, **Eusko Legebiltzarreko 2003ko ekainaren 25eko Legez besteko proposamenean,** 1. neurriko d) idatz-zatian, zera eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari: "*terrorismoaren biktima baten babes ofizialeko etxebizitza berriro berkalifikatzeko errazago sal ezan eta egoitzaz aldatzeko erraztasunak izan ditzan*".

Gainera, **Bakea eta Bizikidetza Plana** delakoan, Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onetsitakoa, "Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna adieraztea" izeneko ardatzeko 8. idatz-zatian, zera aurreikusten da: "*Terrorismoaren biktimei eta euren elkarteei prestazio materialak eta diru-laguntzak bideratzeari buruzko politikak bere horretan mantentzea, eta hala badagokio, hobetzea*".

Mantendu eta sendotu beharreko laguntza ildoetako bat hau da: "*Etxebizitza-aldaketa bideratzearren, babes ofizialeko etxebizitzak birsailtzeko egitasmoa zabalago egitea. Hainbat biktimek pairatzen dituzten egoera zehatzen ondorioz, komenigarria izaten da egoitzaz aldatzeko gomendio egitea. Gizarteratzeko zailtasunez ari gara, baina baita senitartekoen edo afektibitate-erreferentzien galeraz edo presio, bortxakeria eta mehatxuzko egoerez ere. Biktimaren etxebizitza babes ofizialekoa denean, Eusko Jaurlaritzak ahalik eta irtenbiderik egokiena bilatuko du hori besterendu edo birsailkatzeko, jabeari babes ofizialeko etxebizitzek berariaz dituzten mugez salbuetsiz*".

Bestalde, Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak, III. Tituluko I. kapituluan, arautu egiten du laguntzen emakida, horiek ekintza terroristen ondorioz etxebizitzetan jazotzen diren kalteak konpontzeko direnean. Halaber, laguntzak ezartzen dira kalte horiek merkataritzako edo industriako establezimenduetan jazotzen direnean eta baita alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte erakundeen egoitzetan jazotzen direnean ere.

Kapitulu hau bat dator Legeko zioen azalpenean adierazitakoarekin. Horren arabera, biktimen eskubideak idazterakoan aintzat hartu behar dira gaiaren alorreko nazioarteko adierazpenak.

Zentzu horretan, behin eta berriz nabarmendu izan den bezala, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenaren bitartez, 2005eko abenduaren 16koa, honakoa onartu zen: “Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradura Larriak Jasan Dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina Eskuratzeko”. Ordainak bost erantzun mota biltzen ditu, besteak beste **ondasunak lehengoratzeko neurriak** izenekoak, horrelakorik posible bada. Neurri hauen helburua delituaren ondorioak gutxitzea da, biktimak eta haien senideak lehengoratuz eta delitua baino lehen bizi zituzten baldintza berdinetara itzuliz.

Gainera, kasuan kasuko kapituluan jada esan den bezala, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak ekintza terroristen biktimak babesteari buruz 2005eko martxoaren 2an adierazitako Printzipioek eta 8 (2006) Gomendioak, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak delituen biktima direnei laguntzearen inguruan onetsitakoa, etxebizitzari buruzko neurrien aurreikuspena biltzen dute orokorrean.

4/2008 Legeko III. Tituluko II. Kapituluan, kalte materialak prebenitzeko aukera ere jasotzen da, horretarako etxebizitza eta establezimenduetan segurtasun sistemak instalatuz.

Gainera, III. Tituluko III. kapituluak, “Laguntza Eremua”, jorratu egiten du, besteak beste, etxebizitzaren eremua.

## 2. Kalte materialak etxebizitzetan, merkataritza eta industriako establezimenduetan eta alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte erakundeen egoitzetan

ETAk azkenaldian burututako atentatuetatik asko ibilgailuetan lehergailua jartzearen sistemarekin egin dira euskal udalerri ezberdinetan. Horien ezaugarri izan da etxebizitza eta merkataritzako lokaletan kalte material ugari eta garrantzitsuak eragitea, toki horiek eztandaren tokitik gertu egoteagatik.

Ekintza terroristek eragindako kalte materialak konpontzea terrorismoaren biktimentzako laguntzak eta kalte-ordainak arautu dituzten neurrien helburuetako bat izan da tradizioz. Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeko III. Tituluko I. kapituluak arautu egiten du adierazitako hori “Kalte materialak” izenenarekin. Arauketa hori oso xehakatua da, ia erregelamenduzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoan burututako ekintza terroristen ondotik ondasun higigarri eta higiezinetan eragindako kalte materialen konponketa partikularrei eta erakunde pribatuei zuzendurikoa da[5].

Arauak, gainera, xehetasun ugarirekin aurreikusten ditu hurrengo hauek 12., 13., 15. eta 16. artikuluetan: kalteak etxebizitzetan, behin-behineko bizitokia atentatuaren ondotik

[5] 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoa. 11. artikulua. Arau orokorrak.

kalteturikoek etxebizitza aldi baterako utzi behar dutenen kasuan; alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte erakundeen egoitzetan eragindako kalteak konpontzea, eta industria eta merkataritzako establezimenduetan eragindako kalteak konpontzea.

12. artikuluak **etxebizitzan eragindako kalteak konpontzeko** neurriak arautzen ditu. Batetik, etxebizitzan egiaztatutako kalteak nola ordainduko diren aurreikusten du, eta, horrekin batera, ohiko etxebizitza erabat eta oso-osorik galtzen denerako kasua ere jasotzen da, etxebizitza konpontzea ezinezkoa denerako edo behar diren obren kostuak eragindako higiezinaren balioaren % 50a gainditzen duenerako.

Halaber, jabeen egoera ez ezik, etxebizitza bat gozamen, erabilera edo bizitzeko toki modura erabiltzearen benetako eskubideen arabera etxebizitza okupatzeko egon daitezkeen beste egoera batzuk ere aintzat hartzen dira.

Arau horrek, beraz, bereizi egiten ditu konponketa posible duten higiezinetan eragindako kaltea eta, kaltea hain handia izateagatik, konponketa ezinezkoa duten edo konponketa horien kostua kaltetutako etxebizitzaren balioaren % 50a gainditzen duten higiezinen kasua.

Lehenengo kasuan, "*etxebizitzak lehen zuen bizigarritasuna berreskuratu ahal izateko, bertako egituran, instalazioetan eta altzarietan jasandako kalteen balioa ordainduko da, baina kanpo geratuko dira luxuzko izaera duten elementuak. Erreparazioei ekiteko beharrezkoak diren ikerketetatik, proiektuetatik, baimenetatik eta, oro har, dokumentu guztietatik eratorritako gastuak ere barne daude. Jabetza horizontalaren araubidearen menpe dauden etxebizitzen elementu komunetan eragindako kalteen balioa ere ordainduko da. Horretarako, eraikineko elementutzat joko dira garajeak edo eraikinean dauden bestelako egoitzak*" (12.1 art.).

Erreparazioaren zenbatekoa "*etxebizitzen jabetza dutenei ordainduko zaie, edo bestela, erreparazioa legitimoki egin edo agindu duten errentariei edo okupatzaileei*" (12.2 art.).

Arau horrek argi uzten du nola kalkulatzen diren eragindako ondasun higiezinetan izandako kalteak, eta zera esaten: "*erreparazioaren balioa hartuko da kontuan, eta ez da inolako zenbatekorik kenduko erabileragatik edo kontserbazio-egoeragatik. Inola ere ez da sartuko laguntzaren barruan aurrekoaren hobekuntza. Ondasun higiezinetan sortutako kalteen balioa zehaztu ahal izateko, kontuan edukiko da eragindako ondasunek kaltea jasan aurreko unean zeukaten benetako balioa* (12.3 art.).

Ekintza terrorista baten ondorioz jasaten diren kalteak konpontzea ezinezkoa den kasuan edo konponketa hori gauzatzeko behar diren obren kostuak higiezinak atentatuaren unean zuen balioaren % 50a gainditzen badu, ohiko etxebizitzaren galera osoa eta behin betikoa jazotzen dela uste da. Kasu horietan, higiezin galeraren ordainketa honela zehaztuko da, 4/2008 Legeko 12.4 artikuluarekin bat etorriz:

- Jabeak antzeko ezaugarriak dituen beste etxebizitza bat erosi edo galdutakoa berriz eraiki nahi badu, lehenengo paragrafoan aurreikusitako ordaina galdutako ondasunaren benetako balioa izango da. Kasu horietan, ez da gehieneko kopuruaren muga ezarriko, lege honetako 11.4 artikuluan aurreikusitakoa.

- Pertsonak beste etxebizitza bat jabetzan hartu nahi izan ezean, urtero funts galdurako diru-laguntza bat jaso ahal izango du beste etxebizitza bat alokatzeko, gehienez ere 20 urterako, eta erreferentziatzat bizi behar duen autonomia erkidegoko udalean alokairua batez beste kostatzen dena hartuko da, aurreko egoerarekin alderatuta galerarik izan gabe. Kasu horietan ere ez da gehieneko zenbatekoaren mugarik ezartzen.

- Etxebizitza bateko okupatzaileak, gozamenerako, erabilerarako edo bizitzeko eskubideei jarraiki, urtero diru-laguntza bat jaso ahal izango du, itzultzerik gabekoa, beste etxebizitza bat alokatzeko, gehienez ere 20 urterako, eta erreferentziatzat bizi behar duen autonomia erkidegoko udalean alokairua batez beste kostatzen dena hartuko da. Arauak etxebizitza bat ohiko etxebizitzatzat hartzeko izango diren irizpideak ezartzen ditu, eragin hauetarako[6].

Arauak, halaber, jada adierazi dugun moduan, atentatu terrorista baten ondorioz etxea behin-behineko utzi, eta aldi batez beste toki batean egun batzuetan, aste batzuetan edota hilabete batzuetan ostatu hartu behar dutenen egoera jasotzen du, atentatu terroristak kaltetutako etxebizitza konpondu bitartean. Kasu hauetan, Administrazioak **behin-behineko bizitokiak** eragiten dituen gastuak ordaintzen lagunduko du.

Gastu hauek ordainduko dira: "*atentatu terrorista baten ondorioz aldi baterako beren etxeak utzi behar dituzten pertsonen behin-behineko ostatuak eragiten dituen gastuak, etxean erreparazioak egiten diren bitartean, baita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik igarotzean beren ibilgailuak baliogabetzen dituzten kalteak jasaten dituzten pertsonen ostatu-gastuak ere*" (13.1 art.).

Gastuak ordaintzeko, Administrazioak:

- "*Hitzarmenak edo erabakiak sinatu ahal izango ditu beste administrazio publiko batzuekin edo ezbeharretan eta hondamendietan kaltetutakoei laguntzen dieten organizazio espezializatuekin. Aipatutako hitzarmen edo erabakietan alderdiek ostatu-gastuetarako eman beharreko laguntzaren ehunekoa eta denbora-muga ezarriko dira*" (13.1 art., in fine).

- "*Hitzarmenik izan ezean, Administrazioak ezbeharra jasan duen etxebizitzaren antzeko baten alokairua edo ostalaritza-establezimendu bateko ostatu-gastuak ordaintzen lagunduko duen diru-laguntza eman ahal izango du, bai eta horrek ekar ditzakeen joan-etorrien gastuak ordaintzen laguntzeko ere, erreparazio-lanak egiten diren bitartean. Erregelamendu bidez ezarriko dira zenbatekoari eta denborari buruzko mugak*" (13.2 art.).

[6] "Ohiko etxebizitzatzat joko da, paragrafo honen ondorioetarako, kaltetutako pertsona urteko gutxienez sei hilabete eta egun bateko epean bizitzen bada etxebizitza den eraikinean. Ohiko etxebizitzatzat joko da, halaber, bertan urtebetez baino gutxiago bizi izan arren, bertan bizitzen hasi den egunetik denbora erdia baino gehiago egin duenean bertan" [12.3.c) art., in fine].

Ezinbestekoa da ohartaraztea kasu hauetan beharrezkoa dela berehalako administrazio erantzun azkarra ematea, ekintza terroristaren kaltetuek bizi duten egoera premiazkoa delako ohiko etxebizitza berehala utzi behar izateagatik.

Bestalde, aintzat hartu behar da kasu askotan ekintza terroristek **industriako eta merkataritzako establezimenduei** ere eragiten dietela. Hori gertatzen denean, kalteen ordainak beharrezko konponketen balioa hartuko du, baina baita merkataritza edo industriako jarduera aldi batez utzi behar izateak eragindako galera ekonomikoak ere.

Hain zuzen ere, "*merkataritza- edo industria-establezimenduetako kalteen konpentsazioak establezimendu horiek berriro martxan jartzeko erreparazioen balioa hartuko du bere gain, baita jarduera aldi baterako, zati batean edo osorik eteteak titularrei eragin dizkien galera ekonomikoak ere, hala badagokio; kalteei dagokienez, berariaz jasoko da zenbateko osagarri finko bat, erregelamendu bidez zehaztuko dena, merkataritza-funtsean eta bezeroen balizko galeran eragindako kalte gisa*" (16.1 art.).

Kasu horietan, merkataritza eta industriako establezimenduetan eragindako kalteek, ekintza terrorista baten ondorioz, aldez aurretik zeuden lanpostuak mantentzeari eragin diezaiokete.

Hori dela eta, 4/2008 Legeak aurreikusi egiten ditu 16.2 artikuluan establezimendua martxan jartzearen alde egiteko eta lanpostu horiek mantentzeko neurriak. Horretarako, "*Administrazioak dagozkion izapideak burutuko ditu kaltetutakoen alde interesik gabeko maileguak edo ahalik eta interes txikienarekin lortzeko, finantza-entitate publikoen bitartez edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean jarduten duten pribatuen bitartez, helburua establezimendua martxan jartzea eta dauden lanpostuei eustea denean. Helburu horrekin, betiere, maileguak sorostea erabaki ahal izango du, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera*".

Kasu askotan, ETAren jarduera terroristak saiatu egin dira bere proiektu totalitarioa eta baztertzailea ezartzen, eta horretarako **alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte erakundeen egoitzak** eraso dira, zenbaitetan kalte material larriak ekarri dituzten lehergailuak erabiliz. Alderdi politiko baten egoitzari egindako eraso horietako baten kasuan, bi pertsonaren heriotza jazo zen[7].

4/2008 Legeak, 15. artikuluan, eragindako kalteen konpentsazioa aurreikusten du. Bertan, hurrengoak sartuko dira: "*jarduteko lehen zituzten baldintza berberak berreskuratzeko egin beharreko erreparazioen gastuak, altzariak eta kaltetutako ekipamendua berriz ipintzea barne dagoelarik*".

## 3. Segurtasun sistemak instalatzea

Jazarpena, mehatxuak edo derrigortze terroristak jasan behar dituzten pertsona fisiko edo juridikoak ugariak dira. Kasu horietan, prebentzio gisa, komenigarria izan daiteke

[7] "Mendeku" taldearen erasoa Portugaleteko herriaren etxeari. 1987ko apirilaren 27an hil egin ziren Maite Torrano eta Felix Peña alderdikide sozialistak, suzko jaurtigaiekin egindako erasoaren ondorioz.

etxebizitza edo establezimenduetan segurtasun sistemak instalatzea. 4/2008 Legeak egoera hori arautzen du III. tituluko II. Kapituluan "Kalte materialen prebentzioa" izenburuaren pean eta "*segurtasun-sistema ezartzea*" 17. artikuluaren barruan.

Kasu horietan, jazarpen terrorista pairatzen duten pertsona fisiko eta juridikoek "*dirulaguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan".*

Euskal Autonomia Erkidegoan segurtasun publikoaren alorrean eskudun den organoak zehaztu egin beharko du, aldeko txostena eginez, beharrezkoa dela eta egokia dela segurtasun sistema hori instalatzea, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko Legeko 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

## 4. Neurriak etxebizitzaren eremuan

Ekintza terrorista batek etxebizitzarekin zerikusia duten beharrak eragin diezazkiekete kalteturiko pertsonei, zuzenean edo zeharka.

Atentatu terrorista baten ondotik pertsona batek ezintasun fisikoa dakarren kalte pertsonala jasaten badu, **ohiko etxebizitza inguruabar berrietara egokitzeko** beharra eduki dezake. Kasu hauetan, 4/2008 Legeko 22.a) artikuluak diru-laguntzak ematea aurreikusten du, etxebizitza egokitu beharraren gastuei aurre egiteko, ezintasunaren mailak egokitzapen hori komenigarri egiten duenean. Araudiaren bitartez, egokitzapen gastuei aurre egiteko behar diren diru-laguntzak ezarriko dira.

Beste kasu batzuetan, ekintza terroristengatik eragindako pertsonek **bizitoki aldaketa** behar izaten dute, horretarako arrazoiren bat tarteko. Horretarako, arauak, 22. artikuluko b) idatz-zatian, adierazi egiten du Administrazioak beharrezko mekanismoak antolatu beharko dituela, bizitokia trukatzea edo babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa kentzea ahalbidetzeko. Horren helburua kasu bakoitzean behar den bizitoki aldaketa erraztea izango da. Jada adierazi dugun moduan, neurri hau 4/2008 Legea baino lehen ere aurreikusi zen baina oso gutxitan aplikatu izan da.

2007ko urrian, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aurreikuspen horien berri eman zigun: "*... terrorismoaren biktima baten babes ofizialeko etxebizitzaren birkalifikazioari buruz, haren salmenta erraztu eta bizitoki aldaketaren alde egiteko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sail honek babes ofizialeko hiru etxebizitzaren kalifikazioa kentzea baimendu du: bi Gipuzkoan (bata 2003 urtean eta bestea 2004an) eta bat Bizkaian, 2004an".* Ez dugu 2008ko datuen berririk. Edonola ere, eta Sailak emandako datuetatik abiatuz, esan daiteke neurri hori oso gutxitan hartu izan dela.

4/2008 Legeko 22.b) artikuluko araudi aurreikuspenari dagokionez, babes publikoko etxebizitzei kalifikazio hori kentzea onartzen duena, adierazi egin behar dugu horrek aplikazio praktikoko arazoak ager ditzakeela, babestutako etxebizitzei kalifikazioa kentzeari dagokionez azken urteetan sektoreko araudian jarri izan diren mugengatik. Horien

adibide garbiena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako ezarpena izan daiteke. Horren arabera, "*babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzek etxebizitza babestuaren kalifikazio iraunkorra edukiko dute*".

Aurrekoarekin bat etorriz, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, 11. artikuluan, babes ofizialeko araubidearen iraupenari eta kalifikazioa kentzeari buruzkoa hain zuzen, adierazi egiten du modu eztabaidaezinean babes ofizialeko etxebizitzei ezingo zaiela kalifikazioa kendu, eta, salbuespen bakar modura, bizileku berrietarako jarritako etxebizitza publikoena jartzen du (behin betiko kalifikazioa igarotzen denetik 20 urte igarotzen direnean).

Bestalde, uste dugu Etxebizitzari buruzko etorkizuneko Legeak, kalifikazioa kentzearen gaia arautzerakoan, behar bezala bateratu beharko dituela bere aurreikuspenak eta 4/2008 Legeak ezarritako truke edo kalifikazioa kentzeko aukerak.

Azkenik, Legeko 22.c) artikuluak ezarri egiten du mekanismoak martxan jarri behar direla babes publikoko **etxebizitzak** terrorismoaren biktimei **lehentasunezko tratua emanez esleitzeko**[8], bai salerosketa araubidearen pean, bai alokairu edo azalera eskubidearen lagapenarenean.

Babes publikoko etxebizitzak esleitzeko sisteman tratu bereizia emateko mekanismo horiek aintzat hartzen dira jada etxebizitza beharra duten eta egoera berezian dauden beste talde batzuen kasuan, adibidez genero indarkeriaren biktimak eta hondatutako zonaldeetako jarduketa eremuetako auzotarrak.

Hain zuzen ere, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 12.3 artikuluan, hurrengo aurreikuspena ezartzen du terrorismoaren biktimen gaian:

> *"Era berean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez, etxebizitza esleitzeko prozeduratik salbuetsi ahal izango dira terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak eta degradatutako eremuetako biztanleak –halakotzat hartuko*

---

8 *"22. artikulua.- Etxebizitzaren eremua.*

*Ekintza terrorista batetik zuzenean edo zeharka eratortzen diren etxebizitzaren premia bereziak kontuan hartuko ditu Administrazioak, eta hauetarako aukera ematen duten bitartekoak erregelamenduz garatuko ditu:*

*a) Ekintza terrorista baten ondorioz ezintasunen bat duten pertsonentzat ohiko etxebizitza egokitzeko, hori bada komeni dena. Horretarako erregelamendu bidez ezarriko dira egokitzapen-gastuei aurre egiteko diru-laguntzak.*

*b) Babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko edo, hala egokituz gero, kalifikazio hori kentzeko, terrorismoaren eragina nozitu izangatik, ez bestelako arrazoiengatik, etxebizitza aldatzeko justifikazioa duten pertsonentzat.*

*c) Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko sisteman lehentasunez sartzeko aukera edo baldintza orokorrak bete behar ez izatea ahalbidetzen duten bitartekoak sartzeko, bai salerosteko, bai alokatzeko edo azalera-eskubidean lagatzeko ere".*

*dira berariazko araudian jasotakoak–, baita premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuetakoak ere, baldin eta kolektibo horiek sektorean indarrean dagoen araudiak definitu baditu, haien premiak etxebizitzarekin zerikusirik badu, eta, betiere, kolektibo horien eskubideak babesteko erakunde eskudunak hala egiaztatzen badu".*

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduraren egungo erregulazioarekin bat etorriz, bada, terrorismoaren biktimek etxebizitza babestua eskura dezakete etxebizitzaren alorreko sailburu eskudunaren berariazko aginduaren bitartez, zozketaren ohiko prozedurara jo beharrik izan gabe.

## IV. ENPLEGUA ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK

### 1. Aurrekariak

Askotan, biktimizazioaren ondorio fisikoak eta psikikoak ikusita, ekintza terrorista baten eraginak jasotzen dituen pertsonak zailtasunak izaten ditu lanpostu bat topatzeko edo ekintza terrorista jazo zen unean zuena mantentzeko. Kalte materialen biktima batzuk, halaber, eraginak pairatu behar izaten dituzte lantokian edota ibilgailuan[9]. Biktimaren kontzeptu zabala hartuz gero, mehatxuen edota derrigortze terroristen biktimek ere kaltea jasaten dute lanbidean. Gainera, zuzeneko biktimizazioaren ondorio horiek aintzat hartuta, ondorio ekonomikoak barne, hildako edo zauritutako biktimen senideek lana eta lan hori zauritutako pertsonaren zainketarekin edota arreta gehiago behar izan dezaketen zeharkako adingabeko biktimen zainketarekin bateratzeko modua berriro planteatu behar izatea etortzen da.

Terrorismoaren biktima batzuk esaten dute ekintza terrorista jasan zuten unean haiek edo haien senideek ahultasun edo babesgabetasun sentsazioa bizi izan zutela. Une horretara arte egondako ziurtasun guztiak desagertu egiten dira, haien mundu guztia zartatu egiten da. Eragin emozional handiko une horretan, biktimak hainbat erabaki hartzera behartuta daude, eta horiek eragin kaltegarriak eduki ditzakete etorkizunean.

Lanaren eremuan erabaki oker bat hartzen bada –aholku txarra jasotzeagatik edo egindako aukeraketan baldintzatzaile emozionalak agertzeagatik–, biktimen etorkizuneko bilakaerak ondorio adierazgarriagoak jasan ditzake. Ekintza terroristak biktimentzat dituen kalteen ondorioz, askotan alor psikologikoan, pertsona hauek zailtasunak dituzte lanpostu bat eskuratzeko.

Biktimen lekukotza batzuetan, azpimarratu egiten da alargun askok jasan behar izan zuten egoera. Senarraren erailketa etorri arte, etxeko lanetan aritzen ziren eta lanpostua topatzea ezinezkoa izan zitzaien prestakuntza teknikorik ez zutelako. Biktimizazio esperientziei buruzko kapituluan aipatutako lekukotzetako batek zera zioen: *"Nire lehenengo kezka lana topatzea zen, nire alaba aurrera ateratzeko".*

---

[9] Alderdi honi dagokionez, ikusi etxebizitzari, lokalei, merkataritzako eta industriako establezimenduei eta ibilgailuei buruzko txostenaren kapitulua. Konpentsazio ekonomikoak galera finantzarioei eta lanpostuak bermatzeari buruzko neurriak hartzen ditu, merkataritzako eta industriako establezimenduen kasuan (4/2008 Legeko 16. art.).

Biktima batzuen kontaketan, argi geratzen da zaila dela lanpostua betetzen jarraitzea, bai geratzen diren ondorio fisikoengatik, bai lanean kontzentratzea zaila izateagatik, errendimendua jaisteagatik edo profesionalki atentatua baino lehen izandako etekin berdina lortzea ezinezkoa dela ikusteagatik. Askotan, pertsona horiek lana uzten amaitzen dute.

4/2008 Legeak, 23. eta 24. artikuluetan, neurriak aurreikusten ditu terrorismoaren biktimak lan munduan sartze horren alde egiteko edo aurretik zuten lanean geratzea errazteko.

## 2. Enplegura iristea

4/2008 Legeak hurrengo aurreikuspena biltzen du artikuluetan: "*ekintza terroristaren ondorioz laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen lan-kontratazioa sustatuko du Administrazioak, eta horretarako laguntza ekonomikoen lerro espezifiko bat sortuko du*".

Arau horrek, Legeko zioen azalpenean bertan adierazten denarekin bat, aintzat hartzen ditu gaiaren alorreko nazioarteko adierazpenak. Hala da, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina Eskuratzeko Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradura Larriak Jasan dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipio eta Gidalerroetan jasotzen dira **berregokitzapenerako neurriak** deritzenak. Berriro egokitzeko, besteak beste, gizarte eta lan neurriak behar dira kaltea gainditze aldera. Delitu eta Botere Abusuaren Biktima direnentzako Justizia eta Laguntzaren Hitzarmen Proiektuaren arabera, Nazio Batuena eta 2006koa hura, biktima lantokira eta bere komunitatera itzultzea ahalbidetuko duten neurriak sustatu beharko lirateke (8. art.). Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen Delituen biktimei laguntzeari buruzko (2006)8 Gomendioaren 4.6 paragrafoan, enpleguari buruzko neurriak ere jaso dira. Bertan, biktimekin gai hauek jorratzen dituzten profesionalen berariazko trebakuntza azpimarratzen da.

4/2008 Legea onetsi aurretik, Eusko Jaurlaritzak 2003-2006ko Erakunde Arteko Enplegu Plana onetsi zuen 2003ko uztailaren 22an, "*Gobernuak ekintzak garatzeko konpromisoan eratzen da, enpleguko politika aktiboen gaian*". Zera lortu nahi da gobernuaren aldetik: "*enpleguaren maila eta kalitatea hobetzen eta arlo honetan arazorik handienak dituzten kolektiboak lan-munduratzeko ahalmena hobetzen lagunduko duten neurri eta tresna berriak sustatuko ditu*".

Tresna horietako bat lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua izan zen. Bertan, jarduera ildo ezberdinak jorratzen dira, eraginkortasunez laguntzeko lan mailak eta kalitatea hobetzen nahiz laneratzeko arazo gehien dituzten taldeen laneratzeko gaitasuna hobetzen.

Irailaren 13ko 239/2005 Dekretuak aipatutako 329/2003 Dekretua, lanerako laguntzak arautzen dituena, aldarazten du. 239/2005 Dekretuan sartutako aldarazpenek ez diote kalterik ekartzen aztertzen ari garen gaiari, beraz, 329/2003 Dekretuari helduko diogu.

Araudiko arau horretan bost jarduera ildoren arteko lehenengo nagusi bat aurreikusten da. Horren helburua hau litzateke: "*lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten giza taldeetako pertsonen laneratzea erraztea*". 6.1 artikuluak lan merkatuan sartzeko zailtasun gehien dituzten taldeak zeintzuk diren zehazten du, besteak beste, 45 urtetik gorako pertsonak, 30 urtetik beherako gazteak, ezintasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak, denbora luzez langabezian egindako pertsonak, guraso bakarreko familian aita edo ama direnak, genero indarkeria pairatu dutenak, toxikomano ohiak edo espetxeetan sartutako baina lanpostua eskuratzeko araubidepean dauden pertsonak.

Lan merkatuan sartzeko zailtasun gehien duen taldeetako bat bezala ere agertzen da terrorismoaren biktimena. Hain zuzen ere, 6.1. artikuluko g) idatz-zatiak lan merkatuan sartzeko zailtasun gehieneko talde modura deklaratzen ditu hauek: "*terrorismo-ekintzen biktimak izan diren pertsonak, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen irailaren 24ko 214/2002 Dekretuaren III. kapituluak pertsona horien kontratazioa sustatzeko ezarritako baldintzetan, eta terrorismo-ekintza baten biktima baten seme-alabak eta ezkontidea, biktima hiltzen denean edo ordaindutako jarduera batean aritzea eragozten dion baliaezintasun-egoeran geratzen denean*".

Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko I. eranskinean, II. Kapituluan aurreikusitako diru-laguntzei buruzko eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa ezartzen duena, zera azpimarratzen da: "*Terrorismoaren biktimak izan diren pertsonen kontratuen kasuan, aurreko lanpostua normal betetzea zaildu edo eragotzi duten zirkunstantziak terrorismo-egintzaren ondorioz gertatu direla egiaztatuko duen dokumentazioa. Kontratatutako pertsona terrorismoaren biktimaren ezkontidea edo seme edo alaba bada, Familia Liburuaren fotokopia eta biktimaren heriotza edo baliaezintasuna terrorismo-egintza baten ondorioa dela egiaztatuko duen dokumentazioa*".

Aztertu egin beharko litzateke 4/2008 Legeko arau horrek, terrorismoaren biktimak lanerako kontratatzen direla sustatzea aurreikusten duena, eskatu egiten duen edo ez aipatutako erregelamendu arauak egokitzea, horiek betetze aldera.

Bestalde, 4/2008 Legeak berak terrorismoaren biktimak laneratzea sustatzeko beste neurri bat aurreikusten du, 23.1 artikuluan zera adieraztean Administrazioaren gainean: "*halaber, pertsona horien enplegua enpresen gizarte-erantzukizunaren esparruan sartzea ere bultzatuko du*". Araua ekintza terrorista baten ondorioz lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituen pertsonari buruz ari da.

Europako Parlamentuaren 2007ko martxoaren 13ko Ebazpenak enpresen gizarte erantzukizuna arautzen du. Dokumentu hartako 21. artikuluak zera dio: "*EGEren esparruan kontratazio arduratsuak eta bereizkeriarik ez dakartenak aplikatzea, emakumeen lana eta ezintasuna dutenena sustatuz, Lisboako helburuak burutzen laguntzea da*". 25. idatz-zatiak zera dio: "*azpimarratu egiten du gizarte erantzukizunarekin jarduten duten enpresek lagundu egiten dutela modu nabarmenean batez ere emakumeei eta ezintasunen bat dutenei lan merkatuan eragiten dieten desberdintasunak deuseztatzen, batez ere lana eskuratzeari, gizarte prestazioei, trebakuntzari, lanbide garapenari eta bidezko soldaten politikari dagokienez. Azpimarratu egiten du enpresek Kontseiluaren 1976ko otsailaren 9ko 76/207/CEE Zuzentarauan oinarritu beharko luketela kontratazio politika. Zuzentarau hori*

*gizon eta emakumeen tratu berdintasuneko printzipioaren aplikazioari buruzkoa da, lana eskuratzeari, trebakuntzari eta sustapen profesionalari eta lan baldintzei dagokien horretan".*

4/2008 Legeko 23.1 artikulutik abiatuz, sustatu egin beharko litzateke enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan terrorismoaren biktimen enplegua ere sartzeko aukera.

## 3. Funtzio publikora iristea

Terrorismoaren biktimei funtzio publikorako sarbidean lehentasuna emateko ekimena **Eusko Legebiltzarreko 2003ko ekainaren 25eko Legez Besteko Proposamenean** jaso zen jada, 1. c) neurrian. Bertan, zera ezarri zen: *"Lan-eskaintza publikoetan portzentaje bat gordetzeko terrorismoaren biktima direnen sarbidea errateko, lehenesteko".*

**Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 17 eta 19ko osoko bilkurak terrorismoren biktimen egoera eta beharren gainean hartutako erabakian** antzeko proposamen bat planteatu zen, zehazki 3. k) idatz-zatian.

Ararteko erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailari planteatu zion 2007ko otsailean ea araudia aldarazteko proposamenen bat landu zuten, bertan, legebiltzarreko erabakietatik abiatuz, terrorismoaren biktimaren izaera zutenek lehentasunezko sarbidea izatea errazteko portzentajea jartzeko. Halaber, proposamenik egin ez zen kasuan, horrelako neurriren bat hartzea aurreikusi zuten galdetu zitzaien, hurrengo lan eskaintzetan terrorismoaren biktimentzako erreserba portzentaje hori eransteko. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen *"zentzu horretan ez dela lege ekimenik sustatu"*. Hori adierazteko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txosten bat hartu zen oinarri.

Erantzunaren idazkian adierazi zen "*legez adierazitakoa islatzeko toki egokiena Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua"* litzatekeela, eta une hartan Gorte Nagusietan eztabaidatzen ari zen. Aitzitik, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (7/2007 Legea, apirilaren 12koa), enplegu publikoa eskuratzea arautzen duen kapituluan, ez du ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserba besterik jasotzen. Arau horren lehen azken xedapenak zera ezartzen du: "*estatutu honetako xedapenak Espainiako Konstituzioko 149.1.18 artikuluaren babesean eman dira, haiek baitira funtzionarioen Estatutu araubidearen oinarriak eratzen dituztenak".*

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak adierazitakoaren arabera, Langile Publikoaren Estatutuan terrorismoaren biktimentzako erreserba aurreikuspenik sartu ez izatean "*agian, hurrengo gaiek, besteak beste, lagundu izango zuten:*

> *Plazak gordetzeak Konstituzioaren aldetik arazoa ekar dezake berdintasunaren ezarpenerako eta funtzio publikora iristeko merezimendu eta gaitasun printzipioei dagokienez.*
>
> *Onura dakarren ekintzaren xede den taldeak egitura bereizkeria nabarmena jasaten duela egiaztatzea, eta hartu beharreko eta lortu nahi diren helburuen proportzionaltasuna.*

*Biktima izaera esplizituki zehaztea".*

Bestalde, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak, Eusko Legebiltzarreko Biktimen Txosten batengatik izandako agerpenean, 2005eko abenduaren 1ean, zera esan zuen: *"... egun oraindik Funtzio Publikoaren Legearen lege aldarazpena egin gabe praktikara eramaten ari ez den jarduketa lan eskaintza publikoan terrorismoaren biktimaren izaera dutenek lehentasunezko sarbidea edukitzea erraztuko duen portzentajea gordetzeko ezarpenari buruzkoa da. Gai hori konplexua da eta arreta handiz jorratu behar da, genero indarkeriaren biktimena bezalako beste talde ahul batzuen eskubideak ez urratzeko adibidez...".*

Konstituzio Auzitegiak eduki du aukerarik jada berdintasun printzipioaren balizko urraduraren gainean hitz egiteko. Gaia talde jakin batentzat gordetako plazen ehunekoa gordetzea bereizkeriazkotzat jotakoek planteatu zuten. Urriaren 3ko 269/1994 Epaiak ezintasuna duen pertsona taldearentzat plazak gordetzearen konstituzionaltasuna jorratzeko du, eta 4. Oinarri Juridikoan zera dio:

> *"... argi dago ezintasun fisikoa bereizkeriako benetako arrazoia izan daitekeela. Hain zuzen ere eragindako taldeen enpleguan ondorio nabarmenak izan ditzakeen bereizkeria faktore izan daitekeelako, bai legegileak, bai nazioarteko araudiak (LANEren 159. hitzarmena) legitimo bihurtu dute ezintasun modu ezberdinak pairatu behar dituzten pertsonen aukera berdintasunerako sustapen neurriak hartzea. Horien helburua, labur adieraztearren, hasiera batean gizarte bizitzako hainbat alderditarako baldintza kaltegarrietan dauden pertsonen berdintasun substantziala ematea da, haiek pertsona gisa izango duten garapena bera ere lotuta dagoelako".*

Zehazki, Konstituzio Auzitegiak zera dio: "*argi dago lan eskaintza batean plaza portzentajea gordetzeak, horiek lana eskuratzeko zailtasun larriak dituen talde batentzat gorde direnean (...), ez duela EK-ko 14. artikulua urratzen. Beraz, legitimoa da erabat orain interesatzen zaigun ikuspegitik, eta, gainera, EK-ko 9.2 artikuluan jasotako agindua betetzen ari da, Estatuaren gizarte eta demokrazia izaerarekin bat (EK-ko 1.1 artikulua)".*

Goi auzitegiak ere ez du onartzen plaza erreserba horrek funtzio publikora berdintasun baldintzatan iristeko eskubidean zehazten den merezimendu eta gaitasun printzipioa urratzen duenik. Konstituzio Auzitegiaren adierazitako 269/1994 Epaiak, 5. Oinarri Juridikoaren amaieran, errefusatu egiten du berdintasun printzipioa urratzen denik, eta zera azpimarratzen: "*Gordetako plazak eskura zitzaketen hautagaiak ez ziren gaitasuna egiaztatu behar izatetik salbuetsi, eta probak gainditu behar izan zituzten. Oinarri komun horren ondotik, haiek puntuazio hurrenkera zorrotzari jarraiki eskuratu zituzten plazak. Egiaztapen hori, beraz, nahikoa da errespetatutzat jotzeko EK-ko 23.2 artikuluko eskakizunak...".*

Hori dela eta, Konstituzioaren barruan dago Legeak plaza portzentajearen erreserba jasotzea eta horiek lana eskuratzeko arazo larriak dituen talde batentzat jartzea lan eskaintza publiko batean. Zehaztu egin beharko litzateke terrorismoaren biktimaren izaerak lana eskuratzeko zailtasun larriak ekar ditzakeen edo ez eta bereizketa positiboko neurri hori justifika dezakeen.

Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Babesteko Lege Aurreproiektuko 21.2 artikuluak zera ezartzen zuen: "*euskal herri administrazioek plaza portzentajea gorde ahalko dute Lan Eskaintzetan, ekintza terrorista batetik eratorritako kalte fisiko pertsonalak edo psikologikoak jasan dituztenentzat*". Arau hori zentzu berdinarekin legebiltzarreko hainbat erabakitan egindako aurreikuspenengatik egin zen, jada aipaturikoak horiek.

Lege aurreproiektuko 21.2 artikuluak jasotakoa bezalako araudi aurreikuspen batek, lehenik eta behin, Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean eskumen banaketari buruzko azterketa egitea eskatzen du. Funtzio publikoaren gai honetako eskumen esparrua EHAEko 10.4 artikuluak ezarritakoa da, EK-ko 149.1.18 artikuluarekin bat.

EHAEko 10.4 artikuluak autonomia erkidegoari ematen dizkio "*Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere Toki Administrazioko funtzionarioen estatutuko eskumenak, Konstituzioko 149.1.18 artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe*". Izan ere, azken horrek Estatuarentzat gordetzen du, besteak beste, herri administrazioko funtzionarioen estatutu araubidearen oinarriak ezartzeko eskumena.

Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (7/2007 Legea, apirilaren 12koa) oinarrizko araudi esparrua da enplegu publikoari eta zerbitzu harremana hartzeari dagokienez. Arau horrek aurreikusten duenaren arabera, hautapen prozesuak irekiak izango dira eta lehia askea bermatuko dute, barne sustapenari dagokion horretan eta "*estatutu honetan aurreikusitako diskriminazio positiboko neurrietan*" izan ezik.

61. artikuluak arautu egiten du erreserba egiteko berariazko kasu bakar gisa ezintasuna duten pertsonei dagokiena. Horiei dagokienez, "*enplegu publikoko eskaintzetan lanpostu hutsen ehuneko bosta baino baxuagoa izango ez den kupoa gordeko da*". Autonomia erkidegoei dagokienez, aurreikuspen horrek esan nahi du araudi autonomikoak ezin duela alde batera utzi oinarrizko araudi aurreikuspen hori eta, halaber, bereizketa positiboko neurri hori hartu beharko dutela. Hori ezingo zaie funtzio publikora iristeko salbuespeneko beste kasu batzuei zabaldu, oinarrizko araudian aurreikusi ez badira. Gai hori zorrotz eta behar bezala jorratu zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, lege aurreproiektu horri buruz egindako irizpenean[10].

Ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 23.2 artikuluak zera ezartzen du: "*Euskal administrazio publikoek bereizketa positiborako neurriak bideratuko dituzte terrorismoaren biktimek enplegu publikoa lortze aldera, langile publikoen estatutu-erregimenaren oinarriek ezarritakoaren arabera eta adierazitako kasuetan*".

Arau honi 23.2 artikulua planteatu den moduan emandako behin betiko idazketak ebatzi egiten du Konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela esatearen gaia, lege aurreproiektuko 21.2 arauaren edukiak iradoki modura. Arau honek herri administrazioei agindu egiten die bereizketa positiboko neurriak antola ditzatela terrorismoaren biktimentzako, baina *"langile publikoen estatutu araubidearen oinarriek ezartzen dutenari jarraiki"*.

---

10 20/2008 Irizpena, otsailaren 12koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarena, terrorismoaren biktimen errekonozimendu eta babes legearen aurreproiektuari buruz; 87.etik 106.era bitarteko idatz-zatiak.

Biktimen aldeko "erreserba kupoak" ezartzeko nahiak, Legebiltzarreko erabaki ezberdinetan adierazitakoa, eskatu egingo luke lege autonomiko batek arautu baino lehen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aldarazpena egitea eta bereizketa positiboko berariazko kasu baten aurreikuspena eranstea hautapen prozesuetan, terrorismoaren biktimen alde. Beti gerta liteke Eusko Legebiltzarrak lege proposamena planteatzea lege ekimenak bideratzeko duen eskumena baliatuz Gorte Nagusien aurrean, eta bertan bereizketa positiboko neurri hori jasotzea.

Orain arte egindako hausnarketa guztiak talde ahulago baten alde erreserba kupoa eransteko aukerari buruz planteatu dira. Aitzitik, legegile autonomikoak, besteak beste, bereizketa positiboko bestelako neurriak hautatu ditu.

Gauzak horrela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko, aurreikusi egin da gaitasun berdina badago, lehentasuna ematea emakumeei gizonei baino lehen, emakumeen ordezkaritza %40a baino baxuagoa den lantalde eta kategorietan. Aurreikuspen hori Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 27. artikuluari erantsi zaio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bitartez. Arau horren justifikazioa Amsterdamgo Ituneko 141.4 artikuluan kokatzen da.

Terrorismoaren biktimei aplika dakiekeen horrelako neurri batek azterketa eskatuko luke, bereizketa positibo neurri mota hori, terrorismoaren biktimen enplegua erraztera zuzendua, arrazoizkoa eta proportziodun den erabakitzeko. Halaber, alderaketa ariketa bat egitea eskatuko luke, lana eskuratzeko zailtasunak ere badituzten beste talde ahul batzuekin. Edonola ere, beharrezkoa litzateke dauden aukerak aztertzea, 4/2008 Legearen 23.2 artikuluari edukia emate aldera.

## 4. Terrorismoaren biktimen eskubideak funtzio publikoaren eremuan

4/2008 Legeak, 24. artikuluan, funtzionarioen eskubide batzuk modulatzen ditu, kalte pertsonal, fisiko edo psikofisikoen biktima diren funtzionarioei aplikatzeko, horiek bereziki larriak direnean eta ekintza terroristetatik eratorritakoak direnean. Horrela:

- **Beraien kidego, eskala edo lan-kategorian antzeko ezaugarriak dituen beste lanpostu batera aldatzeko eskubidea,** lanpostu hutsa nahitaez betetzeko beharra izan gabe, beren burua benetan babesteko edo asistentzia jaso ahal izateko lehen zerbitzuak ematen zituzten herrian lanpostua utzi beharrean suertatzen badira. Lanpostu aldatze hori derrigorrezko lekualdatzea izango da.

- **Eszedentzia**, beren helburua benetan babesteko edo asistentzia jaso ahal izateko, gutxieneko epe batean lanean aritu beharrik izan gabe eta eszedentzian egoteko eperik eskatu gabe. Lehenengo sei hilabeteetan eskubidea izango dute lehen betetzen zuten lanpostua gordetzeko eta epe hori konputagarria izango da antzinatasunerako, karrerarako eta aplikagarriak zaizkien Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideetarako. Lanpostua gordetze hori luzatu ahal izango da hiru hilabeteko epeka eta gehienez ere hemezortzi hilabetetarako. Eszedentzian egondako lehenengo bi hilabeteetan ordainsari osoa jasotzeko eskubidea izango dute.

- **Justifikatutzat** joko da **lanera ez joatea**, guztizkoa edo partziala izan, arreta emateko gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek, kasuan kasuko egoeraren arabera, hala zehazten badute eta ezartzen dituzten baldintzetan.

- **Lanaldia murrizteko eskubidea**, ordainsaria ere proportzioan murriztuta, edo laneko denbora berrantolatzeko eskubidea, ordutegia egokituz, ordutegi malgua aplikatuz edo laneko denbora antolatzeko aplikagarriak izan daitezkeen bestelako moduak ezarriz, administrazio publiko eskudunak kasu bakoitzean ezartzen duenaren arabera.

Onartutako eskubide horiek terrorismoaren biktimen kalte pertsonal fisikoak edo psikofisikoak gainditzea errazagoa izatera zuzenduta daude.

Arau horrek ere eragina du funtzio publikoaren gaian, beraz, berriro ere plantea liteke Estatua – Euskal Autonomia Erkidegoa eskumen esparrua aztertzea, EK-ko 149.1.18 artikulua eta EHAEko 10.4 artikulua binomioa aplikatuz. Gai hori Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ere aztertu du, lege honen aurreproiektuagatik egindako irizpenean[11].

24. a) artikuluak hausnarketa interesgarria biltzen du irizpen horren gainean, eta eskubide gisa jartzen du beste lanpostu batera aldatzeko aukera eta ez lehentasunezko eskubide gisa. Horrek, irizpenak ere oso ongi adierazten duen moduan, malgutasun handiagoa ahalbidetuko du lanpostu berria egokitzerakoan, izan ere, lehentasunezko eskubide gisa mantendu izan balitz, lehiaketa behar izango litzateke lanpostuak hornitu ahal izateko.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak beste lanpostu batera aldatzeko eskubidea jasotzen du, mugikortasuneko kasu bat bezala eta, 82. artikuluan, horren aplikazioa arautzen du, adibidez genero indarkeriako kasuetan.

4/2008 Legeko 24. artikuluko b) idatz-zatiak funtzionarioei exijituriko eskakizunak modulatzen ditu, eszedentziaren administrazio egoerara igarotze aldera. Eszedentzia egoera arautzen duen arauaren mugak egokitzea egin izan da lehen ere, esate baterako laneko eta familiako bizitza bateratzearen aldeko neurriak babesteko.

Neurria oso egokia dela iruditzen zaigu, funtzionario izaera duten eta ekintza terrorista baten biktimei aukera emango dielako lan eremuan beren egoerari aurre egiteko, presazko erabakiak hartu beharrik izan gabe. Izan ere, presa horrek, zenbaitetan, oso eragin negatiboak eduki ditzake pertsona hauen etorkizunerako.

Lanera erabat edo neurri batean ez joatearena justifikatutzat jotzearen beste bi neurriek, behar den laguntza eskuratzeko, eta lanaldia laburtzeko eskubideak edo ordutegia berrantolatzekoak aukera emango dute ekintza terroristaren eraginak jaso dituen funtzionarioak lanean jarraitzea eta eskuratu behar duen laguntza eskuratzea bateratzeko,

---

11 Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, 107.etik 118.era bitarteko idatz-zatiak.

azken horien bitartez aipatutako ekintza terrorista horren kalte pertsonalei, fisikoei edo psikologikoei aurre egite aldera.

Adierazi egin behar da neurri horiek Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 2.1. artikuluan sartutako funtzionarioei aplikatzekoak direla, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileei; Herri Kontuen Euskal Epaitegikoei; Lan Harremanen Kontseilukoei; foru eta toki administraziokoei eta haren erakunde autonomokoei; Euskal Herriko Unibertsitatekoei, eta hori guztia Unibertsitatea Aldatzeko abuztuaren 11/1983 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenekin bat etorriz. Edonola ere, horrek ez du esan nahi unibertsitatearen autonomia eta batzar nagusiena errespetatzen ez denik. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei eta osasunaren alorreko estatutupeko langileei aplikatuko zaie. Ondorioz, neurri horietatik kanpo geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko polizia.

Azkenik, 4/2008 Legeko hirugarren azken xedapenak aurreikusi egiten du Eusko Jaurlaritzak, sei hilabeteko epean legea onesten denetik, aurkeztu egin behar dituela "*lege honetan jasotako aginduen ondorioz Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legean egin beharreko aldaketak*".

## V. TERRORISMOAREN BIKTIMAK IRAKASKUNTZAREN ETA TREBAKUNTZAREN ALORREAN

### 1. Sarrera

4/2008 Legeak onartu egiten badu ere nazioarteko araudiak eragina duela bere sorreran, irakaskuntzaren eta trebakuntzaren alorrean legeak garrantzi gehiago eman die diru alderdiei, gizarte babesekoei baino. Argi dago tasen ordainketaz salbuestea eta egon daitezkeen laguntzak ematea biktimen onurarako dela, baina enpatia gehiagoko eta haiekiko gertutasun gehiagoko aplikaziorik gabe, agian esanahi kontraesankorrak eduki ditzakete neurri horiek. Nazioarteko araudiaren ikuspegia zabalagoa izan daiteke agian alderdi honetan, hari eskainitako kapituluan argi geratu den moduan. Ikastetxeak eta trebakuntza zentroak gizartearen aldetik lehengoratzeko eta biktimizazioa murrizteko plataforma gisa ikustea da kontua. Hori ezin gerta liteke irakaskuntzako zentroek biktimizazioak ahazten badituzte eta ez ikusiarena areagotzen badute, baita gelan biktima diren ikasle, irakasle edo bestelako langileak elkarrekin jarduten dutenean ere.

Nazio Batuen 1999ko Gidaliburuak, Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioaren aplikazioari eta erabilerari buruzkoa, berariazko idatz-zatia jaso du ikastetxe, unibertsitate eta trebakuntza zentroentzat. Helburua "*biktimarentzako laguntzaren filosofia eta aplikazioa integratzea da, ikastetxeetan, unibertsitateetan eta irakaskuntzako beste programa batzuetan*". Gidaliburu horren arabera, gizarteratzea sustatzeko funtsezko faktoreetako bat "*lantokian edo ikastetxean babesteko aukerei arreta ematea da. Lantokian eskuratzen den babesa familiarena bezain garrantzitsua izan daiteke. Askok denbora gehiago pasatzen dute lankideekin edo ikaskideekin, familia ingurunean baino*". Gidaliburuak iradokitzen du ikastetxeek banakako arretaren alde egin beharko luketela berariaz trebatutako eta sentsibilizatutako langileen bitartez. Halaber, biktimek jasaten dituzten sufrimendu faseak ahoz adieraztea

posible egiten duten babes taldeak sortzeko aukera jasotzen da, horietan solidaritate aktiboa erakutsiz. Zentzu horretan, irakaskuntzaren alorreko agintariek biktimizazioa areagotu dezakeen edozein ekintza prebenitzeko betebeharra dute.

Laguntza ekonomikoko alderdiei bakarrik ematen badiegu arreta, nazioarteko araudiak izapideak bizkortzearen alde egiten du, baita administratzaileen euren ofiziozko jardueren bitartez, betiere, horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

## 2. Irakaskuntza eta terrorismoaren biktimak

4/2008 Legeak terrorismoaren biktimen egoeraren alde egitera zuzendutako hainbat neurri aurreikusten ditu irakaskuntzaren eremuan.

– **Irakaskuntzaren alorreko tasa guztiak ordaintzetik salbuestea** aurreikusten da, irakaskuntza maila guztietako ikasketen zentro ofizialetan hurrengoentzat: "*Kalte fisiko edo psikofisiko bereziki larriak nozitu dituzten pertsonek, horien ezkontideek edo horiekin modu iraunkorrean eta antzeko lotura afektiboekin bizi diren pertsonek, eta seme-alabek…*" (20.1 art.).

– Administrazioak ordaindu ahal izango ditu ***"pertsonek aukeratzen dituzten ikastetxe pribatuetako ikasketa akademiko ez-ofizialen edo ikasketa akademiko ofizialen zerbitzu akademikoen gastuak"***. (20.2 art.). Gastu horiek erregelamenduak ezarritako baldintza eta mugekin ordainduko dira.

– Pertsona horiek **laguntzak** eskuratu ahalko dituzte, **ikasketak egitea sustatzeko**. Laguntza horiek "*akademikoak ez diren zerbitzuak ordaintzeko izango dira, hala nola, eskolako materiala, garraioa, jantokia eta familiako etxetik kanpo hartu beharreko egoitza. Hezkuntza Administrazioak horretarako ezartzen duen urteroko deialdietan xedatutakoa hartuko da kontuan*" (20.3 art.).

  Laguntza horiek emateko, *"eskakizun ekonomikoak eta akademikoak malgutu egingo dira onuradunen premiak kontuan hartuta"*. Hain zuzen ere:

  - Laguntzak eta bekak eskuratzeko, muga gisa ezarritako errenta-mailari indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkio.
  - Bekak eskuratzeko familiako errentak zenbatzerakoan kanpo utziko da ekintza terroristaren ondorioz jasotako kalte-ordainen zenbatekoa.
  - Eta indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkie ekintza terroristaren ondorengo eskolako lehenengo urteetan batez besteko kalifikazioei dagozkien eskakizun akademikoei.

Izaera ekonomikoko laguntzak emateko neurri hauek guztiak saiatu egiten dira, ahal den heinean, ekintza terrorista batek biktimentzako irakaskuntzaren alorrera ekartzen dituen ondorioak arintzen.

Bestalde, hezkuntza administrazioek "*programa bereziak ezarriko dituzte terrorismoaren biktima diren ikasleek, ikasketak egoki buru ditzaten, beharrezko eta bakoitzari egokitutako arreta eta laguntza jasotzeko*". (20.4 art.).

Biktimen elkarteekin izandako bileretan, ordezkarietako batzuk zioten irakaskuntzarako laguntza horien izapideak egitea bereziki nekeza zela, oso arreta eta enpatia gutxi topatzen zutelako hezkuntzaren alorreko administrazioan. Adierazi zuten biktima askok, laguntza horiek behar izanda ere, nahiago zutela horiei uko egitea, errespetu gutxiko eta baita gutxiesgarria ere iruditzen zitzaien prozedura batetik igaro baino. Hori dela eta, bereziki interesgarria da 4/2008 Legeko 26. artikuluak prozeduren gainean egiten duen erregulazioa.

Arau honek 1.a) idatz-zatian printzipio hau jasotzen du laguntzak emateko egin beharreko izapideen gainean: "*biktimekin tratatzerakoan kontuan izango da haiek izan dezaketen ahultasun- edo desberdintasun-egoera berezia*". Gainera, 26. artikulu berdineko 2.a) idatz-zatiak zera ezartzen du: *"Biktimekiko harremanak eta eskabideak aurkeztea biktimei laguntzeko organora bideratzeko ahalegina egingo da, edozein izanda ere eskatu nahi den laguntza mota eta eskatutako prestazioa egikaritu behar duena".*

Prozedura aurreikuspen hauek erraztu egingo diete biktimei, zalantzarik gabe, eskubidez eskura ditzaketen laguntza prestazioen izapidetzea.

## 3. <u>Trebakuntza eta terrorismoaren biktimak</u>

Esan dugu ekintza terrorista baten ondoren, kalte pertsonal bereziki larriak jasan dituztenek, horiek fisikoak edo psikologikoak izan alde batera utzita, edo haien bikoteek edo haiekin bizi diren pertsonek eta baita seme-alabek ere, askotan, laneratzeko arazoak izaten dituztela. Hori dela eta, 4/2008 Legeko 21.1 artikuluak ezarri egiten du pertsona hauek "*eskubidea izango dutela Administrazioak antolatzen eta/edo finantzatzen dituen lanbide-heziketako eta lan-jarduerako ekimen eta jardunetan parte hartzeko, lan-merkatura sartzeko eta lanean hasteko erraztasunak izan ditzaten*".

Gainera, Administrazioak pertsona hauen parte-hartzea sustatuko du birziklatzeko ikastaroetan, ezagutzak eta gaitasunak eskuratzekoetan eta antzeko beste batzuetan, horren bitartez laneko merkatura nahiz lan mundura sartzea errazteko. Adierazitako arrazoiengatik onuradun diren pertsonentzako, ikastaro hauek doakoak izango direla bermatuko da.

Trebakuntza profesionaleko eta lan trebakuntzako neurri horiek erabakigarriak izan daitezke egintza terroristen eraginak jasotzen dituzten pertsonen laneratzea lortzen saiatzeko.

# VII. ATALA

## BIZIKIDETZA BAKEAN ETA ASKATASUNEAN GARATZEKO ESKUBIDEA: BIKTIMEK DUTEN INTERESA TERRORISMOARI LEGITIMAZIOA KENTZEKO HEDABIDEEN BITARTEZ ETA INDARKERIA TERRORISTA PREBENITZEKO HEZKUNTZAREN BITARTEZ

# I. TERRORISMOARI LEGITIMAZIOA KENTZEAREN ESANAHIAK

## 1. Legitimazioa kentzeari buruzko biktimen eskaerek nazioarteko araudian hartutako tokia

Gaizkileengatik, erakunde terroristengatik edo talde politiko eta sozial batzuengatik justifikaturik badago biktimizazio terrorista, zerk galaraz dezake berriro ere errepikatzea? Nola ez mindu biktimen duintasuna eta eskubideak horrelako legitimazioekin, haiei esan egiten bazaie objektu edo baliabide soil gisa erabili izana justifikatuta zegoela goragoko xedeak lortzeko? Ondorioz, terrorismoari legitimazioa kentzearen gaia hiru ikuspegitik jorratu behar da: etikoa, gizartekoa eta politikoa.

Nazioarteko araudian egun oraindik eskasa den baino geroz eta gehiago ugaritzen doan terrorismoari buruzko berariazko araudian honakoa da abiaburua: indarkeria mota hau ezin da inolaz ere justifikatu, eta are gutxiago zenbait giza eskubide defendatu nahi izateagatik[1]. Errefus hori edozein adierazpen terroristari dagokionez egiten da, kasuan kasuko ekintza zein tokitan jazo den edo jazotako biktimizazio mota zein izan den alde batera utzita. Inolako xederik ez dago bizitzaren eta askatasunaren gainetik. Hori jaso zen argi eta garbi Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak apirilaren 22an egindako 2002/35 Ebazpenean. Antzeko adierazpenak jasotzeagatik, EBko Kontseiluaren Esparru Erabakia aipa daiteke, 2002ko ekainaren 13koa, terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa, eta baita Terrorismoaren Biktimak Babesteari buruzko Gidalerroak ere, 2005ekoa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearena. Hain zuzen ere, gaizkileek justifikazio gisa ezarri nahi duten biktimizazio terroristaren testuinguruak aukera ematen du ondorioztatzeko beharrezkoa dela ikuspegi berezia aplikatzea terrorismoaren biktimen eskubide eta interes legitimoen aitorpen eta babesean. Hori ondoriozta daiteke EBk terrorismoaren biktimei laguntzeari buruz 2008ko ekainean egindako gomendio proposamenetik[2].

---

[1] Ezinezkoa da giza eskubideen kontzeptu abstraktuan sinestea, eta, aldi berean, norbait hiltzea edota erailketa, mehatxuak eta derrigortzeak justifikatzea. Biktimak ikusgai bihurtzeak lagundu egiten du "*giza eskubideak defendatzeagatik alderdi onean dagoela pentsatzen duen horren iruzur intelektualarekin amaitzen (...). Bizitza defendatzeko bide bakarra krimena ukatzea da*" (Mate 2008, 71).

[2] Gomendio proposamen hori Lehengoratzeko Justiziako Foro Europarrak sustatutako proiektuaren amaierako emaitza da, Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuarekin lankidetzan, Europako Batzordearen babesarekin.

Testuinguru espainiar eta euskaldunean, eskaera hori oso argia da. Biktimek eurek, Balmasedako[3] Deklarazioa bezalako dokumentuetan, aldarrikatu egin dute *“indarkeriaren aurkako prebentzio neurriak eskuratzeko eskubidea dutela, adibidez ikastetxeetan indarkeria ezan heztekoa”*. Eskubide horrek bat egiten du betebehar publiko honekin: *“bizikidetzarako, bakerako eta hiri kontzientziaziorako formulak antolatzea ikastetxeetan, hedabideetan, erakundeetan eta familian”*.

Halaber, Madrilgo Manifestua aipa daiteke, 2007ko urtarrilaren 30ekoa. Dokumentu hori Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eta San Pablo CEU Unibertsitateak antolatutako Terrorismoaren Biktimei buruzko Nazioarteko I. Kongresua ixteko ekitaldian irakurri zen. Bertan, besteak beste, COVITEk parte hartu zuen. Bertatik, biktimen bi aldarrikapen azpimarra daitezke:

*“– Hedabideei konpromiso iraunkorra eskatzen diegu terrorismoaren aurkako borrokan, neutraltasun faltsua eta objektibotasun iruzurtia saihestuz, eta hitz jokoekin, ezjakintasunarekin edo informazio nahasmenduarekin inoiz justifikatu edota ilundu ezin daitezkeen krimen batzuen errealitatea erakutsiz.*

*– Terrorismoaren biktimok ez dugu ez mendekurik, ez errebantxarik nahi. Terrorismoaren biktimok nahi dugun gauza bakarra da etorkizuneko belaunaldiek ez dezatela pairatu guk, gaizkile batzuen krudeltasunagatik egun batean biktima bihurtu ginen horrenbeste pertsonak, zoritxarrez, zuzenean edo zeharka jasan behar izan duguna. Eta konbentzituta gaude guztiok elkarrekin, gobernatzaile nahiz herritar anonimo, ahal izango dugula gure esfortzu eta lan bateratuarekin minak jarraitzea saihestu eta mundu hobe baten itxaropenari bizia eman”.*

ETAko preso batek idatzitako hitzak adierazgarriak dira: *“… ez dugu ‘berriro gizarteratzeko’ keinurik agertzen, ez ote da izango espetxeko tratamenduan zerbaitek kale egiten duela? Falta zaiena arrazoiaren ezkutua guk dugula da. Eta, porrota barneratzea salbu, ezer ez dela gaindiezina, ez eremu pertsonalean, ez politikoan”.*[4] Terrorismoari legitimazioa kentzeak esan nahi du porrot hori zalantzarik gabe publikoki berresten dela, hori barneratzeko norberaren borondatearen eta hori modu horretara onartzeko eta arduradunak sortutako biktimekiko ordain aktiboa sustatzeko esparruak sortzeko gizarte babesaren kaltetan izan gabe. Indarkeria terroristaren amaiera bakarra porrotarena da, aniztasuna defendatzen duen Zuzenbide Estatu baten barruan tokirik ez duen bakarrizketa mota bat delako.

Ikerketa enpiriko ezberdinek zalantzarik gabeko lotura igarri dute neutralizazio teknikak deituriko horien eraginkortasunean (Sykes eta Matza, 1957), eta horrek agerian uzten du gizartearen legitimazioaren eta norberaren motibazioaren arteko lotura. Egoeraz

---

[3] Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean. Deklarazioa 2007ko otsailaren 24koa da, eta Terrorismoaren Biktimen Euskadiko ARCO Taldeak, Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteak, Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkarteak, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak, “Voces en Silencio” Elkarteak eta Biktimologia Fundazioak egin zuten, “Solidaritate berria eraikitzen: terrorismoaren biktimen eskubideak” lehenengo lan jardunaldien barruan.

[4] ANko Arlo Penaleko Salako azaroaren 8ko 60/2006 Epaian agertzen den lekukotza. Preso hau aurretik ere epaitu zuten, pertsona askoren heriotza eta hainbat zauritu eragin zituzten atentatuetan parte hartu izanagatik.

jabetzea abiaburua izan daiteke terrorismoaren prebentzioan. Aurreko lekukotzaren aldean, Felix Novalesek, GRAPO taldeko militantea, onartzen du bere porrota. Ez du damuaz hitz egiten, bai, ordea, *"zuzenketaz"*, *"berreraikuntza moralaz"* eta *"banakako niaren eta gizarteko niaren arteko adiskidetzeaz"*. Hogeita hamar urteko kartzela zigorra jaso zuen 1978an egindako krimenengatik. Garai hartan hogei urte zituen. Onartu egiten du *"hil egiten zutela, gorrotoz gainezka geundelako"*, eta *"iraganaren beraren bahitu"* izaten eta gizatasuna erreklamatzen amaitu dutela. *"Kontzientzia lasaitzen zuen justifikazioa ez dagoela (…)"* onartzean, *"batek ulertu egiten du, porrotaren ondotik bada ere, faltsua zela ekintzei emandako balizko baliabide balorazioa"* eta *"horien aurrean bakarrik geratzen da, eragindako hondamen itzelak oinperatuta (…). Ezin dira eragindako minak ordaindu"* (2989, 239).

"Indarkeriari zilegitasuna kendu" izeneko dokumentu batean, 2008ko ekainekoa, Bakearen Aldeko Koordinakundea gobernuz kanpoko erakundeak hurrengo beharra azpimarratzen du: *"politikan zein gizarte eta giza harremanetan, terrorismoak horietan hedatu duen hondatze eta degradazioa gainditzeko eta, era berean, biktimenganako aitorpen eta elkartasunean aurrera egiteko lan egin behar dugu (…). Ezingo genuke egoeraren azterketa zuzenik egin, euskal gizarteak urte luzez erakutsi izan duen jarrera pasiboa aitortuko ez bagenu. Azaldu nahi izan da jarrera hori, baina zaila da justifikatzea (…). Giza bizitza edo beste funtsezko eskubide batzuk zergati edo ideario politiko batzuen zerbitzurako tresna bihur daitezkeela pentsatuz sozializatu izan direnen narriadura etikoa antzeman dugu. Hilketa edo biktimen jazarpena justifikatzeko edo babesteko, hauek etsaitzat edo norbere ideal eta sentimenduen erasotzailetzat hartu behar dira eta, horrela jokatu ezkero, beraienganako gorrotoa bizten da"* (1-2 orr.)[5].

Bartolome Ruiz filosofoak agertzen duen moduan (Maten, 2008, 164-165), *"terrorismoaren indarkeria estrategikoa legitimo bihurtzeko, beharrezkoa da bestea etsai gisa ikustearen ideia etengabe elikatzea (…). Indarkeriaren kulturak oso erro sakonak ditu, atentatuetatik haratago doaz eta eguneroko bizikidetzan mehatxuak, jazarpena eta umilazioa dakarten ekintzetaraino iristen dira"*. Aipatutako idazlearentzat, nortasun itxiek fanatismoa sustatzen dute heroi izateko modu bat bezala.

Bakearen Aldeko Koordinakundearekin bat etorriz, *"indarkeriari zilegitasuna kentzeak zera eragin behar du: indarkeriaren eta gizarte honetan Euskal Herriarekin identifikatzeko era desberdinetatik sortzen den arazo politikoaren artean kausazko lokarria ezarri nahi dutenei indar moral eta politikoa kentzea"*. (5. or.). Gainera, *"geroko belaunaldiak errespetua, elkarrizketa eraikitzailea, zuzentasuna eta elkartasuna bezalako balioetan heztea ezinbestekoa da gure geroa zuzentasunez, bakez eta askatasunez jantzita eraikitzeko"* (7. or.).

---

5 Ikusi dokumentua haien web orrialdean: http://www.gesto.org.

## 2. Terrorismoari legitimazioa kentzea Eusko Legebiltzarreko 4/2008 Legean

Eusko Legebiltzarraren 2007ko urriko osoko bilkura monografikoan onartutako Laugarren eta Hemezortzigarren Ebazpenetan, erakunde publikoei eta hedabideei eskatu egiten zaie terrorismoari legitimazio etiko, sozial eta politiko ken diezaiotela.

Ordainaren kontzeptuari dagokionez, horren inguruan hartutako neurri guztiak koherenteak izateko, 4/2008 Legeko zioen azalpenean zera adierazten da beren beregi: *"Kontua da ekimen iraunkorra –eta ez une batekoa edo egoeraren araberakoa– abian jartzea, honako hau, hain zuzen: biolentzia errotik deslegitimatzea eta berariaz onartzea inoiz ez dela biolentzia justifikatzeko arrazoirik izan"*. Gainera, *"alde horretatik, memoria terrorismoaren deslegitimizazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko elementua da"*.

Adierazi berri denaren ildo beretik, 8.1 eta 8.3 artikuluen arabera, *"Euskal botere publikoek eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzen lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin sustatuko dute. Memoria eta terrorismoaren biktimen esanahi politikoa iraunaraztea funtsezko tresna da orobat terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa egiteko"*.

9.1 artikuluaren arabera: *"herritarrengan, pertsona talde batengan edo partikularrengan izu-egoera sortzeko asmoz indar ez-legitimo baten erabilera edo mehatxua ezin justifikatuzkoa da edozein egoeratan, edozein izanda ere justifikatu nahi izateko erabil daitezkeen gogoeta politikoak, filosofikoak, ideologikoak, arrazakoak, etnikoak, erlijiosoak edo bestelakoak"*.

Zehazki, euskal botere publikoek *"terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako neurri aktiboak abiaraziko dituzte, Zuzenbide Estatu demokratikoaren zilegitasuna gizartean sustatuz eta, gure askatasunen eta bakezko elkarbizitzaren berme gisa, elkarbizitza integratzailerako arauetan antolatuz"* (9. artikulua, 3 d).

## 3. Hedabideak eta hezkuntza erakundeak terrorismoari legitimazioa kentzeko esku hartzen duten sozializazio agentzia gisa

Gazteek terrorismoaren biktimekiko duten jarrerari buruzko azterlanaren ondorioekin bat etorriz, erakunde honek adingabeek balioak berenganatzeari buruz gutxi barru Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko duen ezohiko txostenean jasotakoak, argi geratu behar du terrorismoari legitimazioa kentzeko helburu publikoak arazoaren konplexutasuna ulertzetik igaro behar duela, eta, bertan, sozializazio agente ezberdinak lehian ari direla nortasun eta gizarte esanahiak eraikitzen. Familiak garrantzia berezia du honetan.

Vicente Carrionek dioen moduan (2008, 26-27): *"Terroristen euren ingurune afektiboetan ere badaude isiltasunak eta ausardia ezak zanpatutako senideak. Indarkeriaren justifikazioa ez da zalantzan jartzen eta pertsona ororengan krimenak sorrarazten duen sufrimendu, harridura, atsekabe eta gogaitasuna adierazpen oinarrizkoenaren gainean geratzen da. Gaizkilearen babesa nahastu egiten da gaizki*

*egindako ekintzaren defentsarekin (...). Preso dagoen aita asko maita daiteke, hark egin zituen krimenak zertan justifikatu izan beharrik gabe. Berez, oso lan zaila da, baina ia ezinezko bihurtzen da indarkeriari eta harekiko konplizitate maila guztiei legitimazioa kentzeko betebeharra duten erakundeak epel, anbiguo eta harekiko adeitsu agertzen badira (...). Nola saihestu seme-alaben manifestaldiarekin ados ez dauden gurasoak isiltasunean geratzea, disimuloan, nagusi den tentelkeriaren aurka agertzeak herritik joan beharra ekarriko duen amesgaiztoaren hasiera izan daitekeela pentsatzearen sentsazioan? ...(...) estatistikoki ugariak dira zer esango ote duten onartu eta gainerakoek uste izango dutenaren arabera jarduten duten familiak, modu horretara herriko erradikalenei ematen zaien botere itzelaz jabetu gabe...".*

Terrorismoari legitimazioa kentzeak esan nahi du ekintza publiko koordinatua garatzen dela gizarte, egitura, kultura eta politika esparruetan nahiz hezkuntzaren, familiaren eta norberaren alorretan. Koordinazio horrek ere esan nahi du neurriak martxan jartzen direla epe laburrera, ertainera eta epe luzera. Kapituluaren gainerakoan arreta emango diegu bi sozializazio agenteri, terrorismoari legitimazioa kentzeari dagokionez pisu berezia dutelako biktimen aldarrikapenetan: hedabideak eta hezkuntza erakundeak. Horrek ez du galarazten beste erakunde eremu batzuetan (familia, aisialdi jarduerak, udal agintariak, eta abar) berariazko azterlan eta ekimenak behar direla azpimarratzea, terrorismoari legitimazioa kentzeko prozesuetan eraginkortasun maila ezberdinak onartuz.

## II. HEDABIDEAK

### 1. Hedabideak, terrorismoa eta terrorismoaren biktimak

Hedabideek terrorismoari eta terrorismoaren biktimei buruz informatzeko duten eginbeharra oso garrantzitsua da, baina, aldi berean, zalantza etiko eta deontologiko garrantzitsuak sortzen ditu informazio hori jorratu behar den moduaren gainean. Javier Davara irakasleak argi adierazten du:

> *"Terrorismoari buruz informatzea eginbehar konplexu eta zaila da. Isiltasun antzuaren tentazioa gaindituta, gure buruari galdetu behar diogu ea zein izan behar den informazioaren profesionalek eduki behar duten papera ekintza terrorista tamalgarrien aurrean, informazio kritikoa eta arduratsua lantzeko garaian.*
>
> *Uste dugu informatzaileak dilema konplexuaren aurrean aurkitzen direla. Batetik, herritarren informazio eskubidea bermatzeko betebeharra dute, eta, bestetik, terrorismoaren biktimen eta haien senideen intimitatearekiko errespetua zaindu behar dute.*
>
> *Horri erantsi egin beharko litzaizkioke hartu beharreko informazio kautelak, terroristek beren atentatu krudel eta bortitzekin lortu nahi duten propaganda helburua inkontzienteki ez barreiatzeko. Ekintza terroristek sorrarazitako ezbeharra eta atsekabea hain dira nabarmenak, hedabideek ispilu izan beharko luketela, bertan ekintza horien bortizkeria itzela bezain argia den zerbait islatuz".*[6]

---

[6] Davara (2004, 175).

Terrorismoaren fenomenoaren eta hedabideen arteko harreman estua aztertu egin dute komunikazioaren teorikoek. Florencio Domínguez irakasle eta analista politikoak zera dio gai horren gainean:

> *"Komunikazioaren teoria klasikoek ohartarazi egiten dute harreman estua dagoela terrorismoaren eta informazio bideen artean. Idazle askok, hura aztertzerakoan, azpimarratu egin dute informazio bide horiek berekin daramaten propaganda elementua. Horrela, esate baterako, Alex P. Schmidek aztertutako terrorismoari buruzko 109 definizioetatik, kasuen %21,5ean propaganda alderdiak aipatzen dira.*
>
> *Propaganda terrorismoarekin batera doan faktorea dela dioen definizio klasikoetako bat Paul Wilkinsonena da. Harentzat, mota horretako indarkeria honetan datza: erailketak, kaltea eta hondamena edo horiek gertatuko direnaren mehatxua sistematikoki erabiltzea beldur giroa sortzeko, arrazoi bati publizitatea emateko eta terroristen helburuak betetzeko sektore zabalagoa beldurtzeko.*
>
> *Publizitate hori behar bezala betetzea ezinezkoa litzateke hedabiderik gabe. Haiek, berezkoa duten informazio jardunaren garapenean, egintza terroristaren eta haren eraginen berri ematen diote gizarte osoari, indarkeriazko ekintza bertan zeuden lekukoei eta haien hurbileneko inguruneari mugatuz gero izango ez lukeen dimentsioa emanez".*[7]

Ondorioz, hedabideek jarduera terroristan izan dezaketen propaganda paperari buruz hausnartzera garamatza horrek, betiere, irizpide batzuk jarraitzen ez badira. Zentzu horretan, José Ángel Agejas irakasleak zera dio:

> *"Terrorismo modu orok baliabide basatiak erabiltzea ekartzen du: erailketa sistematikoki erabiltzea, helburuak eta metodoak bereizketarik gabe aukeratzea, eta, gaur, irailaren 11ko atentatuen ostean argiago ikus daitekeen moduan, gatazka nazioarteko bihurtzea eta sistemaren aurkako kontsignak barreiatzea.*
>
> *Arreta berezia jarri behar da, lehenik eta behin, hedabideen bahiketagatik terrorismoaren sare maltzurretan ez erortzeko: beren helburuak lortzeko hedabideek zer paper duten jabetzen dira eta badakite gertakari larriek entzute berezia dutela hedabideetan. Ondorioz, atentatu terroristei buruzko informazioa bereizketarik egin gabe ematea haientzako lehen propaganda modua izan daiteke eta hedabideentzat, aldiz, inkontzienteki emandako laguntza delikatua".*

Agejas irakasleak bi gai planteatzen ditu konpromiso deontologikoaren ikuspegitik: Batetik, zenbat informatu behar den, eta, bestetik, biktimen aldeko apustua, gizarte demokratikoan informazio askatasuna arduraz baliatzeko ariketa gisa.

Hiru informazio aukeren artean, alegia, isiltasunaren, bereizketarik egin gabeko informazioaren eta erdibideko aukeren artean, errefusatu egiten dira, logikoki, lehenengo biak, eta aukeratutako informazioa emateko jarraitu beharreko irizpideak zalantzan jartzen dira. Informazio aukeraketa zuhurtzia irizpideekin egin behar dela uste da, terroristen

---

[7] Domínguez (2004, 83-5).

helburuak, metodoak eta ekintzak gaitzesten laguntzeko moduan eta inolako salbuespenik gabe, eta, gainera, haien komunikatu eta erretorika gaitzetsi egin behar dira.

Agejas irakaslearen aukerarekin bat egiten dugu zera esaten duenean: edozein kazetarik, terrorismoari buruzko informazioa ematerakoan, Zuzenbide Estatu bateko aniztasunaren eta bizikidetzaren zerbitzura duen funtzioa jorratzeko modu bakarra, moralki legitimoa den modu bakarra hain zuzen, biktimen ikuspegitik egitea da. Hiru biktima motari buruz hitz egiten du: eraso terrorista zuzenaren xede den pertsona edo pertsonak, haien senideak eta, azkenik, gizarte osoa, haren erakundeak eta indarrean dagoen lege sistema.

Ekintza terrorista bat jasan duen pertsonaren eta haren senideen kasuan, beharrezkoa da haien intimitatea, mina, sufrimendua eta, kasurik txarrenean, haien agonia eta heriotza errespetatzea.

Gizarte osoari dagokionez, kazetariak neurtu egin behar du noraino laguntzen duen irudi eta informazio barreiapenak beldurra hedatzen eta noraino den gizarteak etsaien aurrean duen beharrezko babes zerbitzu bat[8].

Biktimek, beren biktimizazio esperientziari buruz egindako adierazpenetan, kontatu egiten dute zer eragin duten ekintza terroristei buruzko berriek eta terrorismoari ematen zaion informazio tratamenduak eurengan. Ez dira bakarrik pertsonalki pairatu zuten ekintza terroristari buruzko informazioaz ari, baizik eta etengabe beren zoritxarra gogoraraztea ekartzen dien beste ekintza terrorista batzuen gainean sortzen den beste edozein berriri buruz.

Askotan, biktimek hedabideen gainean duten pertzepzioa negatiboa da. Horrela, "Balmasedako deklarazioa terrorismoaren biktimen duintasunaren eta eskubideen gainean" izenekoan, biktimen eskubideen zerrenda batean, *"hedabideen aurrean babesa eskuratzeko eskubidea"* jasotzen da.

Urtetan, urte askoan, hedabideek ez ikusiarena egin diete biktimei, informazioaren aldetik erdi-ezkutatu egin zituzten.

Terrorismoaren biktimen ikusgaitasunari buruzko orain dela gutxiko jardunaldi batzuetan[9], Ana M. Vidal-Abarcak, Terrorismoaren Biktimen Elkartearen fundatzaileetako bat, adierazi egiten zuen nola laurogeiko hamarkadaren hasieran prentsaurreko bat iragarri zuten Madrilen elkarte honen sorreraren berri emateko, informazio interesa zuela uste izateagatik eta jende asko bertaratuko zela pentsatuz. Ekitaldira informazioaren bi profesional besterik ez ziren agertu.

Aurrerago, biktimak informazio interesera azaleratu ziren eta toki nabarmena bete, ez, ordea, duintasunarekiko errespetuzkoa beti.

---

8 Agejas (2004, 171-3).

9 Fernando Buesa Fundazioa (2008).

Ángel Arnedo kazetariak, *El Correo* egunkariko zuzendaria garai hartan, uste du *"indarkeriaren eragin krudelenak jendaurrean jartzearen fasea"* deitzen duen horren funtsezko data 1991ko urriaren 18a izan zela: *"...egun hartan telebistako ekipo batek Irene Villa neskatoaren irudi izugarriak hartu zituen hankak hondaturik zituela bonba baten biktima izan ondoren. Arratsaldeko lehen orduko albistegian emandako irudi haien inpaktua itzela izan zen, ordura arte inoiz ez zelako horrelako ezer eman".* Une horretatik aurrera, telebista kateak eta egunkariak beste fase batean sartu ziren eta bertan *"gorputz elbarrituei, odol putzu baten erdian ageri ziren gorpuei, itxura galdutako zaurituei, duintasun gutxiko jarreretan agertutako biktimei argazkiak egiten zizkieten, grabatu egiten ziren eta erakutsi egiten zituzten ondoren".*

Arnedok hausnartu bezala, izan daiteke irudi haiek kontzientziak mugiaraztea, baina egia da ere askotan irudi haiek ez zutela kalteturikoen mina eta ahalkea errespetatzen, eta haien sufrimendua areagotu besterik ez zutela egiten[10].

Luisa Palma albistegien editoreak ildo beretik adierazten du atentatu bat jazotzen denean inpaktu gehien duena atentatu horren irudiak direla. Haren ustez, irudi horiek ez dira inoiz iritsiko inoren sentsibilitatea ez mintzera, ukaezina den dramatismoa izaten dutelako gehienetan.

Luisa Palmak Manuel Zamarreñoren kasua gogoratzen du, 1998an Errenterian eraildako PPko zinegotzia. Gorpua apurtuta agertu zen hedabideetan, biluzik ia, odol putzu baten erdian. Inpaktu handiko irudia zen, baina, dudarik gabe, mingarria haren familiarentzat.

Kazetariak inpaktu bereko beste irudi bat gogoratzen du, nahiz eta hari beste tratamendu bat eman zitzaion. José Luis López de Lacalleren erailketa krudelaren ondotik, aterki irekia eta egunkarien poltsa ikus zitezkeen etxeko atarian, baina ez zen gorpua ikusten[11].

Eszena batzuk ikusleen erretinan geratzen dira betiko.

Guardia zibil baten aurpegiak, Vic-eko kuartel-etxearen aurkako atentatuaren ondoren alabaren gorpua besoetan zuela, islatzen zituen tristezia eta min amaigabeak ezingo dira inoiz ahaztu.

José Antonio Ortega Lara espetxeetako funtzionarioaren irudia, ETAk hilabeteetan bahituta izan zuen zulotik irtenez, mila hitzaldi baino adierazgarriagoa izan zen pertsona bati bihotzik gabeko baldintzatan eta legitimotasunik gabe askatasuna kentzearen krudeltasuna agerian uzteko.

Gauzak horrela, kontua mugak non dauden ikuste da, guztiongan eragina duten irudiei informazio tratamendua ematerakoan noraino iritsi daitekeen jakitea.

---

10 Arnedo (2004, 25-8).

11 Hainbat egile (2004, 141-61).

Batzuk gogoratu egiten dute hedabide iparramerikarrek informazio hotzarekin jorratu zutela dorre bikiek I-11n jasandako atentatua, eta haren informazio tratamenduan ez zela atentatuaren unean izandako milaka hildako eta zaurituen irudi bakar bat ere eman.

Lehen aipatu dugun artikuluan, Ángel Arnedok zera uste du:

*"Hirugarren fasea senideen intimitatean sartzearena izan zen. Desegoki izateagatik adibide gisa jar daitekeen beste une bat 1996ko otsailaren 14a izan zen. Egun hartan, ETAk Francisco Tomas y Valiente erail zuen, Auzitegi Konstituzionaleko presidente ohia. Erraildakoaren emaztea, alarguna jada, kalean zegoen eta ezin izan zioten berria berehala eman, beraz, seme-alabetako bat aitaren etxera joan zen eta kalean itxaron zion. Harekin batera, telebistako kameralari bat zegoen, eta irudiak eta soinua hartu zituen semeak amari gertatutakoa jakinarazten zion unean. Ikusleek sinestezintasun keinua ikusi ahal izan zuten lehenik eta behin, eta mina geroago, emakumearen garrasi beldurgarria entzutearekin batera. Senideen intimitatean sartu ziren, alargun baten minarekiko errespetu falta ikaragarria".*

Zentzu horretan bertan, hedabideek Miguel Ángel Blancoren gurasoen etxearen atariaren aurrean hartutako irudiak gogora ditzakegu, ondoren modu basatian erailko zuten zinegotziaren aita iristea itxaronez semea bahitu egin zutela ez zekielarik.

Biktima askok desadostasuna eta mina agertzen dute kasu batzuei terrorismoari buruzko albisteetan ematen zaien tratamenduagatik. Horrela, kontzeptu zintzo asko zikindu egiten direla azpimarratzen dute, ETAren mundutik gertu dauden sektoreek etengabe erabiltzearen ondorioz jatorriko zentzua galtzen duten arte; atentatuak testuinguru batean kokatzen saiatzen direla; gaizkileekin alderatzen direla, eta terrorismoaren biktimekiko asmo txarra estaltzen duen tratamendua objektiboa eta neutroa dela esaten dela.

Ararteko erakundeak biktimen egoera eta beharrak aztertzeko ardura zuen Eusko Legebiltzarreko lantalde baten aurrean izandako agerpenean[12], hausnartu zuen jada hizkuntzari eta biktimei buruz:

*"Gabriel Celaya poetak zioen 'poesia etorkizunez beteriko arma dela', nire belaunaldikook Paco Ibáñezekin hori kantatzen genuen behintzat.*

*Poesia, hitzak etorkizunez, ulermenez, sentipen onez beterik etor daitezke, baina baita bazterkeria, gorroto, arrangura sentimenez beteta ere, sotilki izan arren, ia oharkabean, pixkana errotuz doazelarik.*

*Hitzak, kontzeptuak ez dira neutroak, asmoez jantzita datoz, aldatu egiten dira, moldatu eta jatorrizko esanahia gaiztotzen dute. Batzuetan min ematen dute, askotan eraso egiten dute, zaurian berriro jo.*

*Euskadin, hainbat eta hainbatetan, hitz mingarriak bala hiltzailearekin batera etorri dira. Hitzok, berez, poetak zioen etorkizunez beteriko arma barik, arrangurazko arma*

---

12 Ikusi 2002ko Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena, I. eranskina, 543-547 orriak. Jarduneko arartekoaren agerraldia, terrorismoaren biktimen egoera eta premiak aztertzeaz arduratzen den hitzaldiak hala eskatuta.

*metaforiko bihurtu dira, eta batzuetan hain iraingarriak izan dira, non heriotza fisikoari nolabaiteko heriotza zibila ere gehitu dioten.*

*Txarrena da, denok, sarritan, oharkabean, hitzen erabilpen desegoki horretan parte hartu dugula, ulermenik gabeko, biktimekiko elkartasunik ezeko estalki lodia ehuntzen lagunduz.*

*Victor Klemperer filologo bikainak, bere La lengua del tercer Reich obran jada ohartarazten zigun 'Hitlerren propagandaren ondorerik indartsuena ez zutela hitzaldiek, esku orriek, kartelek eta banderek lortzen, ez zuela pentsamendu edo sentipen kontzientearen bidez har zedin ezerk lortzen', eta gehitzen zuen, 'nazismoa masen haragian eta odolean milioika bider errepikatuz ezarri eta pertsonengana mekanikoki eta inkontzienteki heltzen ziren hitz bakanen, adierazpideen, forma sintaktikoen bidez sartzen zela'.*

*Idazle alemanak zioen 'hitzek artseniko dosi txiki-txikien modura egin dezaketela; batek oharkabean irensten ditu, badirudi ez dutela ezer egiten eta handik gutxira toxikapena dator'. Kutsatzen duten hitzak.*

*Arcadi Espada kazetariak, bere Diarios obran, gure duela gutxiko iraganeko bidaian murgiltzen gaitu. Entomologo baten zehaztasunarekin zatikatzen ditu 1979an egunkari batean atentatu terroristen gainean agertutako albisteak.*

*Hizkuntza berriro ere, albisteari ekiteko orduko hizkuntza maltzurra, asmoz hain beterik dagoen ustezko hizkuntza neutroa. Zenbat eufemismo! Zenbat lerroalde justifikatzenedo! Nolako sakontasuna, ikaragarria, zeukaten garai bateko 'poliziaren salataria omen zen!', 'eskuin muturreko giroetan ibiltzen zela diote'... esaldi haiek!*

*Zenbat gogoetan gordetzen zen 'zerbait egingo zuen' doilorra, zenbat elkarrizketatan labaintzen zen 'bai, baina...' hipokrita hura.*

*Euskal gizartean guztiongana hainbestetan heldu den erlatibismo moralaren 'bai, baina...' hori.*

*Eta orain, beste Arcadi Espada batek antzeko azterlana egin nahi izango balu, gure egunkarietako edukien gainean, orain, duela egun batzuk, bihar bertan, hitz armatuak, sastakaiak bezain zorrotzak, iraingarriak, ankerkeriaz beteak aurkituko lituzke berriro ere. Gaur bertan, gertatutako guztiaren, gertatzen jarraitzen duenaren ostean, erakundeetako eta politika munduko hainbeste ordezkariren, hainbeste herritar xeheren hitz arduragabe eta mingarriekin egiten dugu topo.*

*Hitzak desarmatu behar ditugu, ezin dugu onartu gutako bakoitzak, gure elkarrizketa pribatuetan, gure harreman pertsonaletan, jakin gabe bada ere, bazterkeriaren zuloan sakontzen lagun dezagun, mina areago dezagun.*

*Desarma ditzagun hitzak, egin dezagun enpatia ariketa bat, jar gaitezen sufritzen duenaren tokian eta bete ditzagun gure hitzak ulermenez eta gizalegez.*

*Eta, batez ere, dei diezagun gauzei beren izenekin. Gaiztakeria semantikorik gabe, bizitzen ari garen errealitate izugarria mozorro dezaten eufemismorik gabe. Egiak libre egingo gaitu-eta".*

Kazetari batzuk ere hausnartu dute kontzeptuen erabileraren gainean, ETA erakundearen berezko terminologia erabiltzearen –"komando", "ekintza", "kale borroka", "zulo"...– eta talde terroristaren komunikatuak jakinaraztearen gainean.

José Antonio Sánchezek, hitz hauek idatzi zituenean RTVEko zuzendari orokor, gai horietako batzuk planteatu zituen:

*“RTVEko zuzendari orokor gisa, jakinarazi nahi dut terrorismoaren aurkako borrokan gure laguntza handiena, ñabardurarik gabea, informazioa ematerakoan hizkuntza zuzena erabiltzetik igarotzen dela, ankerkeria honen biktimei tratamendu egokia ematetik bezalaxe. Ahalik eta gehien errespetatu behar da, batez ere hain egoera mingarrietan, pertsona horien intimitatea eta eskubideak. Halaber, uste dut egoera jakin batzuetan ez direla irudiak erakutsi behar, irudi horien gogortasunak biktimen intimitate horren aurka egiten badu. Atentatu baten aurkako arbuioa ez da lortzen sentsazionalismoarekin edo izugarri gogorrak diren irudiak erakustearekin.*

*Erakunde terroristen propaganda hutseko edukiak barreiatzeko akatsean ez erortzearen aldeko direnekin ere bat egiten dut. Noiz edo noiz ikusi izan ditugu erakunde horietako liderrekin egindako elkarrizketak, eta haietan herritar errugabeen bizitza eskubidearen aurkako atentatua egiteko arrazoiak eman dituzte. Uste dut terrorismoaren arazoa konpontzen ez duela ezertan laguntzen erakunde terroristen propaganda hutseko edukiak barreiatzeak. TVE eta RNEri dagokienez behinik behin, kontra egongo gara beti defenda ezin daitezkeen arrazoiak defendatzeko hedabide publikoen gainean egin nahi den baliatze horren aurrean.*

*Aintzat hartu beharreko beste gai garrantzitsu bat terrorismoarekin zerikusia duten gaiez informatzerakoan erabiltzen den terminologia da, delitu ekintza mozorrotzera ere iritsi daitekeelako. Nahikoa da ‘zakarrak’, ‘erradikalak’, ‘herriko kartzelak’, ‘zerga iraultzailea’, ‘kide liberatu’, ‘informazio eta babes komandoak’ bezalako eufemismoak edo terroristei eman ohi zaizkien goitizen horiek erabiltzeaz, horien xedea argi eta garbi errefusatzeko modukoa den hurbiltasun harremana eratzea baita. Terroristak maila goreneneko kriminalak dira bakar-bakarrik, krimenari beldurra ere eransten diotelako. Askotan entzuten edo irakurtzen da ‘talde bortitzei’ edo ‘gazte erradikalei’ buruz hitz egiten duten informazioak, pertsona errugabeen bizitza edo ondasunekin amaitzen duten terroristei buruz edo terrorista horien laguntzaileei buruz aritzerakoan. BBC kate ingelesak –askotan aipatzen duguna beste herrialde batzuetan aplikatu beharreko telebista publikoaren eredu gisa– hemen azpimarratu nahiko nukeen printzipio bat biltzen du beste hainbaten artean: ‘Ez dugu hizkuntza terrorista hartu behar gurea balitz bezala’. Kateak, halaber, zera azpimarratzen du: ‘talde terroristek termino militarrak eta judizialak erabiltzen dituzte beren buruari kategoria emateko’. Esparru horretan, aurrerapauso ugari egin ditugu Espainian azken urteotan”.*[13]

Hedabideek terrorismoarekin eta haren biktimekin duten loturaren azterketa batean, ezin ahaztu dezakegu orain hamaika kazetarik bizkartzaina eraman behar dutela, erail ez ditzaten. Kazetariena mehatxu edo derrigortze terroristen, hau da, “jazarpen indarkeria” izenekoaren biktimei eskainitako kapituluan aztertuko dugun taldeetako bat da. Kazetarien aurka egindako erasoa adierazpen askatasunaren aurkako eraso ere deitzen da, eta Zuzenbide Estatuaren zutabeetako bat behera ekarri nahi du.

Jesus Ceberio kazetariak, garai hartan *El País* egunkariaren zuzendaria, zera zioen:

---

13 Sánchez (133-4).

*"Jazarpen sistematiko honen ondorioz, kazetariek heriotza mehatxuaren pean lan egin behar duten Europako toki bakarra da Euskal Autonomia Erkidegoa. Ez dira guztiak, bai, ordea, haien krimenak zentsuratzen dituztenak eta inork bere proiektu politikoa ezartzeko beste norbait hiltzeko eskubidea duela onartzeari ezezkoa ematen diotenak, atentatuak kontatze soiletik haratago ETAk eta haren terminal politikoek euskal gizartean sortu duten larderia kolektiboko giroa idazteari uko egiten ez diotenak. Haien jazarpen paroxismoak ez ditu kanpoan uzten etsaitzat hartutako hedabideetan lan besterik egiten ez dutenak, haien lanbideko egitekoek politikarekin edota informazioarekin zerikusirik ez edukita ere. Beldurraren zirkulu hori zabaltzeko borondateak bizitza baten kostua izan zuen (2001-5-24), Santiago Oleagarena hain zuzen, El Diario Vasco egunkariko finantza zuzendaria".*[14]

José Antonio Zarzalejos kazetariak eszena zirraragarri bat kontatzen du, eta Euskadin kazetari askok beren informazio lana nola garatu behar duten hausnartzeko balio du:

*"–Zure odol taldea?*

*–Barkatu?*

*–Zure odol taldea zein den galdetu dizut.*

*Nire emaztearen begiak zabaldu egiten zirela eta bere aurpegia zuritu egiten zela igarri nuen.*

*–Ez dut ulertzen zergatik egiten diozun galdera hori nire senarrari.*

*–Oso erraza da, andrea. Atentatu bat gertatzen bada, anbulantzia behar bezala prestatuta egongo da transfusio bat egiteko.*

*–Zero positiboa naiz".*[15]

Elkarrizketa hori kazetariaren etxebizitzan egin zen *El Correo* egunkariko zuzendari zenean, emaztearen aurrean, Ertzaintzaren bi agenterekin, eta ETAren komando bati poliziak kendutako zerrendetan helburutzat agertu izan ondoren.

José Manuel Gabriel kazetariak ideia hori azpimarratzen du zera gogoratzean:

*"Adierazpen askatasuna, informaziorako eskubidearekin batera, edozein gizarte demokratikoren balio sistema eusten duen eraikina da, gure gizarte eta politika garapenaren termometro gisa jardunez.*

*Horregatik guztiagatik, ETA taldea saiatu egin da lankide kopuru garrantzitsuaren ahotsa isilarazten. Burura datozkit hauen erailketa saiakuntzak: José Javier Uranga (ia 30 bala jaso zituen Diario de Navarra egunkariaren atean), Carmen Gurrutxaga (Euskal Autonomia Erkidegoa utzi zuena etxean bonba bat lehertu eta gero), Mikel Muez (Iruñeko etxebizitzan lehergailu batek eztanda nola egiten zuen ikusi zuena), Pedro Briongos (honen gurasoei eraso egin zieten lehergailuekin), Carlos Herrera (ETAk,*

14 Ceberio (2004, 36).

15 Zarzalejos (2004, 59).

*2000ko martxoan jaso zuen puru kaxa batean, ezkutatu zuen lehergailuaren detonatzaileak kale egitean bizia kasualitatez salbatu zuena), Jesús María Zuloaga (La Razón egunkariaren erredakzioan liburu lehergailu bat jaso zuena), Luis del Olmo (kriminalak hura akabatzen saiatu ziren baita 7 aldiz ere etxetik Onda Cero Radio lantokiraino dagoen tartean), Gorka Landáburu (Onda Ceroko lankidea ere, mutilazio larria izan zuena pakete lehergailu batengatik), Santiago Silván eta Marisa Guerrero (poliziak desaktibatzea lortu zuen pakete lehergailuak jaso zituztenak), edo Aurora Intxausti eta Juan Francisco Palomo (zauririk gabe suertatu zirenak etxetik hilabete gutxiko semearekin ateratzerakoan lehertu behar zuen lehergailuak kale egiteagatik).*

*Baina batez ere, kazetari eta demokrata guztiok dugun zor profesional eta pertsonal handiena terrorismoaren kolpekada miserablearen pean hil ziren horiekin dugu: José María Portell Manso, La Hoja del Lunes de Bilbaoko zuzendaria, 1978an eraila; José Luis López de Lacalle, El Mundon zutabea idazten zuena, tiroka hila Andoainen 2000n, eta Santiago Oleaga Elejabarrieta, El Diario Vasco egunkariko finantza zuzendaria, 2001ean bizkarretik tiroz josia eraila".*[16]

Hedabide ezberdinen egoitza eta bulegoen aurka egindako erasoak ere ugariak izan dira. 2008ko ekainaren 8an *El Correo* egunkariko instalazioei egindako eraso bortitzak benetako sarraskia ekar zezakeen, eta argi geratzen da beste behin ere prentsa askatasunarekin eta proiektu totalitarioa zalantzan jartzen dutenekin amaitzea ETA talde terroristaren helburuetako bat dela.

Zentzu horretan bertan, gogoratu egin behar da EiTBk Bilbon duen egoitzaren aurka ibilgailu lehergailu batekin 2008ko abenduaren 31n jasotako atentatua. Eraikin horretan, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko *El Mundo* egunkariaren ordezkaritza eta *Deiarena,* eta Antena 3 TV daude. Atentatu hori oso eraso larria izan zen adierazpen eta informazio askatasunentzako, hedabide publiko eta autonomiko baten aurkakoa izatean.

* * * *

Gauzak horrela, bi hausnarketa esparru planteatuko dira hedabideek terrorismoaren informazio tratamenduaren gaian duten esku-hartzeari dagokionez. Batetik, informazio horrek eskatu egiten du oreka topatzea adierazpen eta informazio askatasunaren eskubidearen eta biktimen duintasun eta intimitate eskubideen artean. Bestetik, informazioa terrorismoari legitimazioa kentzearen ideiatik jorratu behar da, eta, beraz, hedabideek terrorismoak xedetzat dituen helburuen alde konturatu gabe egitea saihestu behar da.

## 2. Botere publikoen proposamenak hedabideei eta terrorismoari dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoan

Hedabideek terrorismoaren biktimekin duten harremana nazioarte mailan jorratu da. Gauzak horrela, biktimizazioa prebenitzeari eta hedabideei dagokienez, Nazio Batuen 1999ko Gidaliburuak, Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen aplikazioari eta erabilerari buruzkoa, bi alderdi bereizten ditu funtsean.

---

16 Gabriel (2004, 126).

Horiek, argi eta garbi, lotuta daude elkarri eta biktimek eurek horien gainean esateko dutena entzun behar da:

1. Biktimizazioko kasu zehatzak tratatzea, sentsazionalismoa, fribolitatea eta duintasuna, intimitatea eta biktimen eta haien senideen segurtasuna urratzea saihestuz. Halaber, ez dira datuak argitara eraman behar, horrek poliziaren ikerketaren eraginkortasuna galaraziko badu.

2. Biktimizazio terroristaren kostu pertsonalari, sozialari eta ekonomikoari buruzko gizarte kontzientziazioa, behar bezala informatuta dagoen iritzi publikoaren pentsamendu kritikoa sustatuz eta biktimizazioa kentzeko prozesuetan laguntzeko aukerez ere jabetuz, prozesu konplexu, dinamiko eta heterogeneoak diren heinean. Horrek zerikusia du terrorismoari legitimazioa kentzearekin, terrorismoak hedabide horiek behar baititu bere mezuari publizitatea emateko.

Bi alderdi horien alde egiteko, hedabideetako profesionalen trebakuntza hobetu behar da, beren jardunak terrorismoaren legitimazioaren alde egin, eta biktimen eta haien senideen sufrimendu emozionala eta psikologikoa larriagotu dezakeela jabearaziz, haien segurtasuna arriskuan eta guzti jarriz. Azken batean, kazetaritzako etika eta profesionaltasuna aplikatzea da kontua, biktimetan oinarritzen diren proiektu ezberdinen bitartez. Adibidez, aipatutako gidaliburuan aipatu egiten da Kazetaritzako Fundazio Kanadarrak mintegi ezberdinak bultzatu dituela, bertan epaileak, fiskalak, biktimak, politiken diseinatzaileak eta kazetariak bilduz, bakoitzak biktimekiko dituen betebehar eta erantzukizunei dagokienez kontzientzia zabalagoa gara dezan. Bestalde, gure esparruan, zuzeneko biktimei, zaurituen senitartekoei, mehatxuen biktimei eta abarri egindako hainbat elkarrizketarekin argia jarri da Euskadiko biktimizazio terroristan gutxi ikertutako esparruetan, eta ikerketa zientifiko sakonagoak bideratzeko pizgarri izan dira[17].

Terrorismoari dagokionez hedabideek duten garrantzia islatuta geratzen da ere Eusko Legebiltzarreko erabaki ezberdinetan, Bakea eta Bizikidetza Planean eta 4/2008 Legean bertan.

**Terrorismoaren biktimen egoerari buruzko legez besteko proposameneko** 5. neurrian, Eusko Legebiltzarrak **2003ko ekainaren 25ean** onetsitakoa, zera eskatzen zaio EiTBri:

> *"... sakon dezala bere editorial-lerroan eta informazioaren eta eztabaidaren arloetan, euskal gizartean zabalduago egon daitezen zenbait balio etiko, hala nola bakea, giza eskubideak errespetatzea, tolerantzia eta terrorismoari kontra egitea".*

**Eusko Legebiltzarreko 2005eko otsailaren 17 eta 18ko Erabakian,** Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak terrorismoaren biktimen egoera eta beharren azterketaren gainean egindako irizpena onesten duena, zera eskatzen dio EiTBri r) idatz-zatiko 3. proposamenean:

---

[17] Ararteko erakundearen txosten horretan bertan, ugariak dira iturri hemerografikoei egindako aipamenak, batez ere biktimizazio esperientziei buruzko kapituluetan.

*"... eskatzen zaio euskal gizartean zabalkunde-lana egin dezala balio hauek sustatzeko: balio etiko eta demokratikoak, giza eskubideen errespetua, tolerantzia, bakea eta terrorismoari kontra egitea. Horretarako, bere ildo editorialean sakondu dezala, batik bat informazioaren eta eztabaidaren eremuetan.*

*Eskaera hau gehiago zehazten da: beharrezkoa da EITBk estilo-liburu bat egitea, lagungarri izan dadin ekibokoak uxatzeko eta gure irrati-telebista publikoak etorkizunean terrorismoaren aurka, askatasunen alde eta biktimak aintzat hartzearen onerako pedagogia aktiboa egitea ahalbidetzeko".*

Gainera, 3. proposameneko s) idatz-zatian zera adierazten da:

*"Era berean, EITBko zuzendaritzari eskatzen zaio sor ditzala saio espezifikoak, hain zuzen ere, erreportajea, eztabaida, sorkuntza artistiko edo beste edozein adierazpideren bitartez, terrorismoaren biktimen egoerari eta fenomenoari berari sakon eta ahal den ikuspegi guztietatik heltzeko, arazo horrek garrantzi publiko handia baitauka Euskal Herrian eta, ondorioz, beharrezkoa baita berari buruz gogoeta publikoa egitea".*

**Bakea eta Bizikidetza Plana** deituriko horretan, Eusko Jaurlaritzak onetsia **2006ko apirilaren 26an,** bost jarduera ardatzetan bereizia, 2. ardatzak izenburu hau du: "Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna erakustea". Planeko idatz-zati honetan hainbat konpromiso eta ekimen hartzen dira. a) epigrafean, Oroimen historikoa. Aitormena eta egia, honakoa erantsi zen 3. ekimen gisa:

*"**Komunikabideetan kanpainak garatuz, terrorismoaren biktimei begirunea erakustea eta gogoan izatea**.*

*Terrorismoaren biktimen onarpena gauzatzearen aldeko gizarte pedagogia, ezinbesteko elementu bihurtzen da indarkeria terroristak biktimei ebatsi zien posizioa itzuli nahi dien edozein bake politikatan. Honelako pedagogia eraginkorra izan, eta herritar guztiengan hel dadin, gizarte-hedabideetan kanpaina bat sustatuko du Eusko Jaurlaritzak, horretan, euskal gizarteari, biktimen aitorpena bakearen eta euskal herritar guztion arteko bizikidetzaren alde egiteko funtsezko aktibo baten antzera aurkez diezaion. Saminaren bidegabekeria izugarria eta berori erakusteko beharra helaraziko duen kanpaina.*

*Bakearen alde jardutean, gure artean bizi den samin pertsonala aitortzea eta bidegabekeria herriarengan bizirik iraunaraztea, horiexek izango dira Lehendakariak euskal herritarron etxe orotara igorriko dizkigun kanpainaren ardatz nagusiak".*

B) epigrafean (arreta, ordaina ematea eta justizia), 11. ekimena ezartzen da:

*"**Komunikabideetan terrorismoari buruzko berriak emateko kode etiko bat bultzatzea**.*

*Gizarte-hedabideen bitartez izaten dute gizarteko kide gehienek terrorismoaren eta biktimen inguruko arazoen berri. Beraz, edozein dela informazio-esparrua, hedabidea ezinbesteko elementua da herritarrengan heltzen diren edukiak egituratzeko orduan.*

*Zentzu honetan, terrorismoa eta, horrek sortzen dituen biktimak, hain arazo zail eta urrakor izanik, kontu handiz tratatzeak berealdiko garrantzia duela azpimarratu behar da, eta horrexegatik, premiazkoa eta beharrezkoa da, lehenbailehen, komunikabideetako*

*profesionalek arazo hau jorratzean erabili eta errespetatu beharko dituzten arauak ezarriko dituen Kode Etiko bat egitea.*

*Indarkeria terrorista zuzenean pairatu duten pertsonen sentikortasunari min egin gabe eta, beren duintasuna laidotu gabe informatzean datza, hau da, terrorismoari edo beraiei buruzko informazioa eman eta tratatzeko orduan, horiek ekiditean.*

*Hedabideetako profesionalen laguntza izango dugu ekintza hau garatzerakoan, euren nahiz biktimen pluraltasuna islatzen saiatuko beharko delarik. Mintegi eta topaketetan ekingo zaio honi, horietan, gaiaren inguruan eztabaidatu eta sakonduz, kodea osatuko duen oinarrizko arau etiko batzuk finka daitezen".*

Halaber, beharrezkoa da ere azpimarratzea Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetza Iraunkorreko Esparru Hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsia 2007ko maiatzaren 2an.

Hitzarmeneko azalpenen idatz-zatian, zera adierazten da: *"Euskal Ekintza Plana gauzatzen du komunikabideen alorrean, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren alorreko esferan".*

1. klausularen arabera, honakoa da hitzarmenaren helburua: *"Eusko Jaurlaritzaren eta EITB erakundearen arteko lankidetza-esparru iraunkorra ezartzea da, modu sistematiko, iraunkor eta koordinatuan indartu eta garatzeko giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntza-politika bat komunikabideen aldetik".*

Lehen klausula horretako 4. idatz-zatiak zera aitortzen du: *"Gobernu-politiken eta EITBren beraren artean lankidetza iraunkorreko esparru bat ezartzeko premia berezi eta hertsagarriari ere erantzuten dio lankidetza-hitzarmen honek, bereziki terrorismoaren biktimen presentziaren eta tratamenduaren gaiarekin zerikusia duten ekimen guztiak bideratu eta egituratzeko, Euskadin erantzun beharreko funtsezko piezetako bat baita hori bakean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren esparruan".*

Hitzarmeneko bigarren klausulak lankidetzarako baliabideak ezartzen ditu, besteak beste, gizarte sentsibilizazioa, *"giza eskubideen errespetuari, bakearen sustapenari eta, batez ere, terrorismoaren biktimen errekonozimenduari dagokienez"*, haurrentzako programazioa, *"arreta berezia emango zaie haurrentzako BETIZU saioan balioetan oinarritutako hezkuntzara eta giza baliabideen errespetura bideratutako gaiei"*, eta zabalkundea eta partaidetza soziala, *"hitzarmen honetan bildutako arloari dagokionez ekoitzitako dokumentalak eta obra zinematografikoak zabaltzea".*

Azkenik, hitzarmenean lankidetzako, plangintzako eta ebaluazioko organo mistoa sortzen da, hain zuzen ere "Giza Eskubideetan Oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseilua" izena duena. Bertan, EiTBren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak egongo dira, besteak beste, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.

**Terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak** betetzeari dagokionez onetsitako ebazpenen artean, **2007ko urriaren 5 eta 17ko Eusko Legebiltzarreko erabakian,** laugarren ebazpenean, terrorismoari legitimazio etikoa, politikoa eta soziala

kentzea eskatzen den horren 3. idatz-zatian zera esaten da: *"komunikabide guztiei eskatzen die, eskatu ere bereziki komunikabide publikoei, erakundeekin batera ari daitezela terrorismoari zilegitasuna kentzen eta balio etiko eta demokratikoak hedatzen".*

2007ko urriaren 5 eta 17ko Erabaki honetako hogeita batgarren ebazpenean, *"berriro ere adierazten du indarrean daudela 2005eko otsailaren 17ko erabakiaren 2r eta 2s ebazpenak, esaten baitzuten beharrezkoa dela komunikabideetan, eta bereziki-bereziki EiTBn, terrorismoari zilegitasuna kentzea".*

Azkenik, **4/2008 Legeak** berak, 9. artikuluan, hain zuzen ere euskal herritarrek bakea, askatasuna eta elkarbizitza izateko duten eskubidea arautzen duena, 3.c) idatz-zatian, zera ezartzen du:

> *"Gizarte-hedabideek oro har balio demokratikoekin, giza eskubideekin, bakearekin eta askatasunarekin konpromisoa izan dezaten sustatuko dute, eta bermatuko dute horien aurkako adierazpenak ez direla zabalduko euskal Autonomia Erkidegoko hedabide publikoetan, edo bestela gizarte aske eta demokratiko baten balioekin konprometituta dagoen editorialen ikuspuntutik jasoko direla".*

Ondorioz, aipatutako legebiltzarreko erabakietan, Eusko Jaurlaritzaren Bakea eta Bizikidetza Planean eta terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean bertan, hedabideei jarritako agindua, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide publikoei, eta, zehazkiago, EiTBri, hurrengo eskakizunetan laburbil daiteke:

- Editorialaren ildoan, informazio eta eztabaida eremuetan sakontzea, balio etikoak, giza eskubideen errespetuzkoak, tolerantziazkoak, bakekoak eta terrorismoaren aurkakoak barreiatzen laguntzeko.
  Eskakizun hori, EiTBren kasuan, estilo liburu bat lantzearekin zehazten da[18].

- Hedabideetan terrorismoari buruzko berriak emateko kode etiko bat bultzatzea[19].

- EiTBn terrorismoaren biktimen egoerari buruzko berariazko esparruak sortzea erreportajeen, eztabaiden, sormen artistikoaren edo beste adierazpen elementuren baten bitartez.

- Hedabideetan kanpainak garatuz, terrorismoaren biktimei begirunea erakustea eta gogoan izatea[20].

---

18 Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Erabakiko 5. neurria eta Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 17 eta 18ko Erabakiko r) idatz-zatiko 3. proposamena.

19 Bakea eta Bizikidetza Planeko 2. ardatzeko 3. ekimena, 2006ko apirilaren 26koa.

20 Bakea eta Bizikidetza Planeko 2. ardatzeko 3. ekimena, 2006ko apirilaren 26koa.

– Terrorismoari legitimazioa kentzen eta balio etiko eta demokratikoak barreiatzen aktiboki laguntzea[21].

## 3. Hedabideetan balio demokratikoen aldeko eta terrorismoaren aurkako ildo editoriala ezartzea

Eusko Legebiltzarreko urriaren 5 eta 17ko erabakietan, hedabideetan balio demokratikoen aldeko eta terrorismoaren aurkako ildo editoriala ezartzeko beharra jasotzen da. Eskakizun hori, EiTBren kasuan, estilo liburu bat lantzearekin zehaztu zen.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean izandako agerpenean 2006ko ekainaren 7an, *"argibideak emateko Osoko Bilkurak 2005eko otsailaren 17an eta 18an terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak aztertzeko hartu zituen erabakien betetze-mailari buruz"*, Eusko Jaurlaritzak eta EiTBk aurrerago sinatu zuten hitzarmenaren ildo nagusiak aurkeztu zituen. Besteak beste behar hau planteatu zuen: *"...prestakuntzako eta sentsibilizazioko barne ekimenak batera antolatzea. Hitzarmen orokorrak aukera emango luke 'akats' ohikoenen gaineko jarraipena egiteko eta gaiaren autoerregulaziorako ildoak zehazki finkatzeko, hurbiltasunez eta profesionalen euren esku-hartzearekin. Hedabideen sektore profesionala informazioaren eta tratamenduaren xede den gaiarekin lotzeko modu bat izango litzateke, informazio eta barreiapen zehatz eta egokiagoa ahalbidetzeko. Ikuspegi horretatik bidera daiteke EiTBren estilo liburua lantzea dioen eskaera, horrek, txosteneko irizpeneko 3.r. puntuak dioen moduan, akatsak argitzen eta gure irrati-telebista publikoak etorkizunean terrorismoaren aurkako pedagogia aktiboa egiten lagun dezan, askatasunak defendatuz eta biktimak aitortuz. Estilo liburua, beraz, ez litzateke agian eskatu behar abiaburu gisa diseinatzea, baizik eta hitzarmena bera hasiko duen lan sistemaren bilketa elementu gisa..."*.

Legebiltzarreko batzorde berdinaren aurrean 2007ko otsailaren 12an izandako aurreragoko agerpenean, Bakea eta Bizikidetza Plana jarraitzekoa, Giza Eskubideen zuzendariak azpimarratu egin zuen une horretan EiTBren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatzera zihoan hitzarmena "*bide zehatza izango zela modu ikusgarrian eta iraunkortasunez edukia emateko*" Eusko Legebiltzarrak alor horretan hartutako erabakiei, eta, are zehatzago, aztertzen ari garen gaiari buruzko erabakiei.

Helburu horiek betetzeko, adierazi zuen urtero plangintzaren xede izango zela eta bost eremu estrategiko hartuko zirela oinarri. Eremu horietako bat "prestakuntzarena" izango litzateke, eta honela zehazten da: *"...prestakuntzako, gaikuntzako eta sentsibilizazioko barne-ekimenak batera antolatzea. Prestakuntza ekintza horien helburua komunikabideen informazioaren jarraipen zehatza egitea izango da, autoerregulazio-lerroak finkatzeko moduan, komunikabide bereko profesionalen parte-hartzearekin..."*.

---

[21] Eusko Legebiltzarreko Erabakiko 4. ebazpeneko 3. idatz-zatia, 2007ko urriaren 5 eta 17koa, eta ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 9.3.c) artikulua.

2007ko ekainaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendariak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean izandako agerpen berri batean, 2005eko otsailaren 17 eta 18ko legebiltzarreko erabakien betetze-mailaren jarraipenaren berri emateko, zera adierazi zuen hedabideen programa sektoriala aztertzerakoan: *"Giza Eskubideen Zuzendaritzatik hasi dira jada antolamendu lanak, aurtengo [2007] ekainetik bertatik batzorde teknikoak bilera egin ahal izan dezan eta 2008an gauzatuko diren ekintzak planifikatzen joan"*.

Jada adierazi dugun moduan, Bake eta Bizikidetza Planak, 2006ko apirilaren 26koa, xede hori zehazten du hedabideetan terrorismoari emaniko informazio tratamendurako **kode etikoa** lantzea ezarriz. Jarduera hori garatzeko, aipatutako planak hedabideetako profesionalen eta biktimen euren parte-hartze plurala aurreikusten du.

Hasiera batean estilo liburu bat lantzeko agindua, eta kode etikoa lantzearena ondoren, ez da, beraz, oraindik garatu. Bake eta Bizikidetza Planaren betetze mailaren gainean egin zen urteko lehenengo ebaluazioan, ekimen hori "egiteke" dagoela esaten da.

**28. TAULA:**
**BAKERAKO HEZKUNTZAKO TESTIGANTZAK (I)**

| EKIMENA | EGOERA | BALIOESPENA |
|---|---|---|
| Komunikabideetan terrorismoari buruzko berriak emateko kode etiko bat bultzatzea | Egiteke | Biktimen Zuzendaritzak gai honi hurbiltzen hasteko Mahaia antolatu zuen lehen aldiz 2006ko ekainaren 13an |

Iturria: Bakea eta Elkarbizitza Plangintzari buruz lehen urtean egindako ebaluazioa

## 4. EiTBn terrorismoaren biktimen egoerari buruzko berariazko esparruak sortzea erreportajeen, eztabaiden, sormen artistikoaren edo beste adierazpen elementuren baten bitartez

Eusko Legebiltzarrak, hedabideen garrantziaz jabetuta, kasu honetan hedabide publikoen garrantziaz, terrorismoaren biktimen egoera jorratzeko berariazko esparruak sortzea aurreikusten du 2005eko otsailaren 17 eta 18ko Erabakietan. Zentzu horretan, EiTBko zuzendariak 2007an jakinarazi zigun programazioan adibide zehatz batzuk azpimarragarriak zirela, esate baterako, *"2004 eta 2005eko otsailaren 22an 'Asesinato en febrero' izeneko filma ematea, edo 2005eko otsailaren 29an 'Itzalpean. Nere bizitza haien eskuetan' filma ematea, ETBk berak ekoizturikoa. Joan den 2006an ere ETBk '13 entre mil' filma eman zuen. Eztabaiden ikuspegitik, 2005ean berariazko bi egin genituen 'Políticamente incorrecto' saioan, eta 2006an hiru izan dira egindako eztabaida monografikoak"*.

EiTBk 2008rako eta giza eskubideen, biktimekiko arretaren eta bakearen gainean egindako jarduera planean, informazio ekoizpen propioa, EiTBren programa bereziak eta gaiaren alorreko pelikula eta dokumentalak ematea aurreikusi zen. 2008ko ekitaldi honetarako, planeko aurreikuspena hau da:

***"Barneko informazio-produkzioa.***

***EiTBren programa bereziak.***

- Biktimen omenaldiak: EUDEL Euskal Udalerrien Elkartearekin batera, biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko ekitaldi garrantzitsuenak zein diren zehaztuko da. EiTBk informazio-materialen produkzio berezia egingo du, telebistaren, irratiaren eta Interneten bidez zabaltzeko.

- Zuzenean ematea 2008ko maiatzean biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko Erakundeek egingo duten ekitaldia.

- '24 ordu bakearen alde'. EiTB Taldearen hedabide guztien produkzio monografikoa, irailaren 21eko Bakearen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko.

- Giza-eskubideen gaineko Foruma. Irrati eta telebista bidezko debatea, giza-eskubideen, biktimei emandako laguntzaren eta bakearen gainean.

- Euskaditik kanpoko biktima-elkarteek egiten duten lanari buruzko erreportajea, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta.

- Gernikako Bakearen Museoko erakusketen informazio-jarraipena.

***Filmak eta dokumentalak ematea***

- 'La noche de…' saioak 'La vida es bella' filma emango du Bilboko IV. Bake-Astea egiten den egunetan.

- 'Hotel Ruanda' emango da Donostiako Giza-Eskubideen gaineko VI. Zinemaldia egiten den egunetan.

- Telebistan barne-produkzioko dokumental hauek emango dira: 'Corazones de hielo', 'Hombres de guerra, hombres de paz', 'Vidas en construcción' eta 'Sin vendas en la memoria'".

Informazio hori ikusita, uler dezakegu ETBri eremu horiek sortzeko jarritako legebiltzarreko agindua bete egin dela gaiaren alorreko berariazko film eta erreportajeak eta eztabaidako programazioa ematearekin. Hala eta guztiz ere, biktima elkarteekin izandako bileretan, ordezkari batzuk kritiko agertu dira film horietako batzuk eman ziren ordutegiarekin, gaueko ordutegian hain zuzen, horrek zaildu egiten duelako jende gehienak ikustea. Halaber, kritikak egon dira eztabaida saio batzuetako parte-hartzaileen egitura eta aukeraketarekin.

Egia da ere oraindik zailtasun objektiboak daudela, segurtasun arrazoiak direla eta, terrorismoaren biktimek normaltasunez parte hartzeko hedabideetan.

Hedabideen eta terrorismoaren biktimen egoerari buruzko legebiltzarreko agindu horiek betetzeari dagokionez, EiTBko zuzendariak zera jakinarazi zion Ararteko erakundeari

2007an: "*... azken urte hauetan, EiTBk hainbat ekimen bideratu ditu Legebiltzarreko lantaldeak proposatutako helburuei erantzute aldera. EiTBn erabili ohi dugun barne adierazlea gai honetan oso adierazgarria da. 2005ean, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, '**In Memoriam 2005. Reconocimientos sociales e Institucionales a las víctimas del terrorismo' liburua argitaratu zuen.** Liburu horrek, guztira, biktimei erakundeen eta gizartearen aldetik egindako 60 aitorpen ekitaldi biltzen ditu, eta ia guztietan (%80 baino gehiagoan) EiTBren hedabideak egon ziren, herritarrei zuzeneko informazioa emanez. Adierazle horrek, 2006 urtean, adierazi egin zuen EiTB bertan egon dela informazioaren aldetik biktimei egindako omenaldi ekitaldi guztietan. Aipamen berezia egin behar zaio Eusko Legebiltzarreko terrorismoaren biktimen lantaldeko ordezkariek Estatuko hiriburu eta erkidego ezberdinetara egindako bidaiak Biktimen kasuan kasuko elkarteekin bilerak egiteko*".

EiTBk giza eskubideei, biktimentzako arretari eta bakeari buruz 2008rako egindako jarduera planean, aurreikusi egiten da EiTBren informazio agendak lehentasun gisa ezartzea giza eskubideekin, biktimentzako arretarekin eta bakearekin zerikusia duten gertaera adierazgarrienak jarraitu eta barreiatzea. Logikoki, azpimarratu egiten da informazio agendak izaera irekia duela, urtean zehar gertatzen diren berriak erantsi behar dituelako.

2008rako informazio agendak "**informazio lehentasuna edukiko duten ildo**" hauek eransten ditu:

"• *V. Bake-Astea, Bilbon (urtarrila-otsaila).*
- *Biktimen Legea tramitatutako da Eusko Legebiltzarrean (otsaila-martxoa).*
- *Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna. 2008ko martxoaren 11a.*
- *Giza-eskubideen gaineko VI. Zinemaldia, Donostian, 2008ko apirilaren 18-25.*
- *Giza-eskubideen Nazioarteko Biltzarra, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak antolatua, ekainean, eta Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea eratzea.*
- *Bakearen Nazioarteko Eguna. Irailaren 21a.*
- *René Cassin saria, Eusko Jaurlaritzak emana Giza Eskubideen sustapen, defentsa eta zabalkundean konpromisoa erakutsi duten pertsona edo taldeei.*
- *Giza-eskubideen II. Saria, Donostia Hiriak emana.*
- *Terrorismoaren biktimei buruzko erakusketa, Eusko Legebiltzarraren ekimenez.*
- *2008ko Bakearen Nobel Saria.*
- *Arte eta Bake Jardunaldiak, Gernika Gogoratuz-ek antolatuak azarorako.*
- *Indarkeriarik gabeko jolasen aldeko kanpaina, Bakearen Aldeko Koordinakundeak abenduan antolatua.*
- *Giza-eskubideen Nazioarteko Eguna. Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Bake-heziketarako Planaren lehen ebaluazioa. (Abendua).*
- *Eusko Legebiltzarrak Cristina Iglesias eskultoreari agindutako monolitoaren inaugurazioa*".

Bai Eusko Jaurlaritzaren eta EiTBren artean sinatutako hitzarmena, bai Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariak legebiltzarrean izandako agerpen ezberdinetan, nahiz EiTBk 2008rako prestatutako jarduera planean, arreta berezia eman zaio haurrentzako programazioari.

Eusko Legebiltzarreko Biktimen Lantaldearen aurrean 2007ko otsailaren 12an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen zuzendariak izandako agerpenean, adierazi zuen jada garrantzitsua zela haurrentzako programazioa, eta zera adierazi zuen: *"arreta berezia emango zaio BETIZU saioan haurrei zuzendutako programazioari, balioetan eta giza eskubideen errespetuan heztera zuzendutako gaiei dagokienez"*.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariaren beste agerpen batean, 2007ko ekainaren 27an, Eusko Legebiltzarreko Biktimen Lantaldearen aurrean, azpimarratu egin zuen garrantzitsua zela BETIZUrekin eratutako hitzarmena, eta jakinarazi egin zuen eguberritako kanpaina egingo zela giza eskubideen sustapenerako. Gainera, adierazi egin zuen konpromiso horri 100.000 euroko kopurua emango zitzaiola.

EiTBren 2008rako jarduera planean, giza eskubideei, biktimentzako arretari eta bakeari buruzkoa, azpimarratu egiten da balio zibikoak, errespetua, tolerantzia eta bake kultura sustatzea arreta bereziaren xede izaten jarraituko duela EiTBko haurrentzako programazio osoan. Adierazi egiten da proiektu hori, "Betizu klubaren" bitartez, EiTBren eskakizun eta identitate seinale gisa planteatzen dela, denboran iraunarazteko asmoa izanez.

## 5. Komunikabideetan kanpainak garatuz, terrorismoaren biktimei begirunea erakustea eta gogoan izatea

Bakea eta Bizikidetza Plana deiturikoan, Eusko Legebiltzarrak onetsitakoa 2006ko apirilaren 28an, adierazi egiten da terrorismoaren biktimei begirunea erakutsi eta gogoan izan behar direla, hedabideetan kanpainak garatuz. Plan horren ustetan, ekimen hori gizarte pedagogiako adibide bat da, funtsezkoa edozein bake politikatan.

EiTBko zuzendari orokorrak, gai honi dagokionez, zera erantzun zigun 2007an: *"EiTBk hiru publizitate kanpaina eskaini ditu bere hedabide guztien bitartez. Lehenengoa 2003an, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak egina, eta bigarrena 2004an, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak eginikoa ("Ez ditzatela zure ezpainak josi")*. Eta zera erantsi zuen: *"une honetan bertan, gizarte kontzientziaziorako kanpaina berri bat eskaintzen ari da ere, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarena"*.

Kanpaina horri dagokionez, Biktimen Zuzendaritzak zera jakinarazi zion Ararteko erakundeari:

> *"...hedabideetan berariazko kanpaina bizia garatu zen terrorismoaren biktimen gainean. Kanpaina horretan biktima horien gizarte aitorpenaren mezuari eman nahi izan zitzaion arreta. Terrorismoaren biktimen aitorpen eraginkorraren aldeko gizarte pedagogia euskal gizartearen barruan, funtsezko elementu bat da dudarik gabe biktimentzako terrorismoak kendu nahi izan zizkien baldintza moralak eta politikoak*

*berreskuratu nahi dituen edozein bake politikarako. Eusko Jaurlaritzak euskal gizartea terrorismoaren oinazeak kalteturikoei hurbiltzea eta haiek begiratzea lortu nahi izan du kanpaina honekin, bakeranzko eta askatasuneranzko bidean funtsezko aktibo gisa. Zentzu horretan, kanpainak minaren bidegabekeria erradikala erakutsi zuen, haren hurbiltasuna eta partekatzeko beharra.*

*Azken batean, asmoa euskal herritarrek hausnarketa egitea zen, iraganean terrorismoaren jazarpena jasan zuten pertsonekiko izandako jarreraren gainean. Biktimak ikusgai bihurtzea pizgarri egokia izan dadila une honetatik aurrera kaleko edozein herritarrek 'sentitzen duzu' horretan jasotako edukia igartzeko, ondokoaren sufrimendua aitortzeko aukera berri eta eguneratu bat bezala.*

*Autokritika, indarkeriari legitimazioa kentzea, sufritzen dutenekiko enpatia eta etorkizuneko belaunaldientzako mezu pedagogikoa legatu modura izan ziren, bada, kanpainarekin lortu nahi izan ziren helburuak. Haren kostua 600.000 eurokoa izan zen eta Euskadin garatu zen soilik. Barreiapenerako, telebistako spot ezberdinak egin ziren, irratirako ziriak, iragarkiak prentsa idatzian eta markesinetan, eta iragarkiak zinema aretoetan.*

*2004 urtearen hasieran, Eusko Jaurlaritzak beste erakunde kanpaina bat egin zuen helmen handiko hedabideetan (kasu honetan estatu mailako hedabideetara ere iritsi ziren). Haren helburua jazarpen indarkeria salatzea eta beldurrak mehatxaturiko pertsonekiko solidaritatea agertzea izan zen".*

Eusko Jaurlaritzak 2008ko otsailean argitaratutako dokumentuan, "Elkarbizitza Plangintzari buruz lehen urtean egindako ebaluazioa" izenburupean, eta EiTBko zuzendariak aipatutako kanpainari dagokionez, ekimena beteta geratzen zela uste izan zen 2007ko apirilean "sentitzen duzu" lemapean egindako kanpainarekin.

**29. TAULA:**
**BAKERAKO HEZKUNTZAKO TESTIGANTZAK (II)**

| EKIMENA | EGOERA | BALIOESPENA | IRUZKIN GEHIGARRIAK ETA AURREKONTUA |
|---|---|---|---|
| Biktimenganako begirunea erakutsi eta zabaltzea, horretarako hedabideak erabilita. | Gauzatuta 2007ko ekitaldian | 2007ko apirilean egin zen urte horretako kanpaina, lelo hau zela gidari: "sentitzen duzu" | Aurrekontua: 600.000 € |

Iturria: Bakea eta Elkarbizitza Plangintzari buruz lehen urtean egindako ebaluazioa

Ondorioz, Bakea eta Bizikidetza Planean aurreikusitako ekimen hori, aurretik ere garatu izan zena, aurreikusitako baldintzatan bete da.

Komenigarria litzateke horrelako kanpainek, terrorismoaren biktimen aitorpena lortzeko, izaten duten gizarte eragina ebaluatzea, eta, hala badagokio, aldizka eginbehar den ekimena den baloratu.

Edonola ere, EiTBk giza eskubideei, biktimen arretari eta bakeari buruz 2008 urterako garatutako jarduera planean zera adierazten da:

*"Informazio-agendan jasotako ekitaldiez gainera, EITBk 2008ko lehen kausari indar handiagoa ematearren, kanpaina eta informazio-produkzio bereziak emango ditu, gizartea areago sentsibilizatzeko asmoz.*

***Publizitate kanpainak***

*2008. urtean hiru sentsibilizazio-kanpaina egingo dira, komunikazio-euskarri gisa publizitatea erabiliz.*

- *Apirila: Biktimekiko elkartasuna.*
- *Iraila: Bake-kultura.*
- *Abendua: Giza-eskubideak".*

Aurreikuspen horrek legebiltzarkide baten galdera ekarri du, izapidetzeko onartua, eta gai honekin: *"EiTBk biktimekiko elkartasunerako eta bakearen kulturarako egindako sentsibilizazio-kanpainei buruz"*[22]. Bertan, planteatu egin da ea nor den diseinuaren arduraduna, zer egin den horien baitan eta nola eman diren kanpaina horiek, eta zer balorazio merezi duten.

Urteko jarduera planak lantzea baliabide egokia izan daiteke ekitaldi bakoitzean terrorismoaren biktimen gaian hedabideetan egingo diren aitorpenaren barreiapen ekimenak zehazteko.

## 6. Hedabideen lankidetza aktiboa terrorismoari legitimazioa kentzeari eta balio etiko eta demokratikoak barreiatzeari dagokionez

Eusko Legebiltzarreko 2007ko urriaren 5 eta 17ko Erabakiko 4. ebazpeneko 3. idatzzatiak nahiz ekainaren 17ko 4/2008 Legeak berak, 9.3.c) eta d) artikuluetan, azpimarratu egiten dute hedabideek garrantzia dutela botere demokratikoekiko, giza eskubideekiko, bakearekiko eta askatasunarekiko konpromisoa sustatzeko eta terrorismoari legitimazio etiko, sozial eta politikoa kentzeko. Kontua da "terrorismoari legitimazioa kentzea" esaten zaion hori kontzeptu zehaztugabe bat dela, eta jarduera zehatzetan adierazterakoan, jarrera ezberdinak planteatzen ditu.

Gizarte erakunde batzuk, Bakearen Aldeko Koordinakundeak adibidez, kontzeptu horren gaineko hausnarketa egiten saiatu dira. Hain zuzen ere, orain dela gutxi irtendako "Indarkeriari zilegitasuna kendu" aipatutako argitalpenean[23], herritarren talde horrek azpimarratu egiten du hau: *"irrikatzen dugun bake eta normalizaziorako ibilbide hau oinarri sendoetatik egin behar dugu, terrorismoak, lehenengo eta behin biktima zuzenei, eta baita gizarte osoari ere, bizikidetasun eta politikan eragin dion egundoko kalteari aurre egin ahal izateko. Indarkeriari zilegitasuna kentzea da*

---

22 Galdera (08/10.05.03.2185). Eusko Legebiltzarreko Aldizkaria, 175. zk., 2008ko urriaren 17koa.

23 Bakearen Aldeko Koordinakundea (2008).

*funtsezko oinarri horietako bat. Kontzeptu eta jarrera honek, ETAk egin duenarekin eta gaur egun egiten diharduenarekin bat ez etortzea baino zerbait gehiago adierazten du".*

Dokumentuan, indarkeriari legitimazioa kentzea bezala zer ulertu behar den zehazten da eta zera defendatzen du:

*"...ez bakarrik teorian, erakundeen, alderdi politikoen eta, orokorrean, gizartearen eguneroko eginkizunetan eragina duten jarreren bitartez baizik, hala nola:*

- *Gizarteak bere egin behar du indarkeriaren gaitzespen morala, eta, horren ondotik, gizarte, politika eta norberaren alorrean jardun.*
- *Gizarteak, bere erakunde eta indar politikoak buru dituela, indarkeriaren biktimen aldeko aitorpen, elkartasun eta oroimenean sendo konprometitu behar du.*
- *Gizarte eta politika testuinguruari lotutako indarkeriaren aldeko edozein aitzakiari uko egin behar zaio argi eta garbi.*
- *Indarkeria eta politikaren arteko balizko lokarria behin-betiko deuseztatu behar dugu.*
- *Aniztasunetik elkarbizitza baketsua gauzatzearen aldeko erabateko apustua egin behar dugu.*
- *Terrorismoaren aurkako borrokak zehatz-mehatz errespetatuko ditu legeria eta giza eskubideak".*

Terrorismoari legitimazioa kentzeko ideia honen zehaztapenak eta balio demokratikoen defentsak, hedabideei dagokienez, zerikusi estua dute horren inguruko ildo editoriala ezartzearen helburuarekin eta hori estilo liburu batean edo kode etikoan islatzearekin. Azken hori, jada adierazi dugun moduan egiteke dago.

Informazio eta adierazpen askatasuneko eskubideekiko errespetuaren eta hedabideei, terrorismoaren legitimazioa kentzearen eta balio demokratikoak sustatzearen lanean laguntzeko, egindako lege agindua betetzearen arteko oreka zailaren aurrean gaude. Beste era batera esatearren, informazio eta adierazpen askatasuneko eskubideek ez lukete balio beharko hedabideak indarkeriaren erabilera justifikatzen duten jarreren edo balio demokratikoak edo giza eskubideak baliatzea zalantzan jartzen duten jarreren bozgorailu izateko. Hedabideen kode etikoa onartzea baliabide egokia izan daiteke terrorismoari legitimazioa kentzearen lana eraginkor nola bihurtzen den zehazteko.

Une hauetan, eztabaida gehien sortzen duen gaietako bat ETAren estrategiari uztartuta daudela uste izateagatik judizialki legez kanpo utzitako erakunde politikoei ematen zaien informazio tratamenduarena da.

Biktimen elkarteekin izandako bileretan, planteatu zen gaietako bat hedabide publikoek, eta, zehazkiago, EiTBk erakunde horiei ematen zien tratamendua zen.

COVITEk, "Agravios a las víctimas del terrorismo en el País Vasco. 2008" izenarekin landutako agiri batean, zera dio: *"martxoaren 9ko hauteskundeen gauean, ETBk*

*zuzeneko konexioa egin zuen Hernanirekin. Han EAE-ANV goraipatzeko ekitaldi bat egin zen, eta hauteskundeetan parte hartzeko onartu ez zen alderdi den EAE-ANVko alkatearen balorazioa eman zen. Baina, hala eta guztiz ere, gure ETBk beste alderdi bat gehiago dela uste du alderdiak emaitzak jarraitzen ari ziren hotel eta egoitzekin konexioak egiteko garaian".* Agiri berdinean, COVITEk kritikatu egiten du ETBk *"ETAren iheslari batekin"* grabatutako erreportajea eman izana, "*Parot epaiaren jurisprudentziaren ondotik justiziari oraindik ordaintzeko gaiak dituen batekin (...) eta jada leku ezezagun batean dago".*

Gai hori legebiltzarreko eztabaidetara eraman izan da hainbatetan.

Euskal Alderdi Popularreko legebiltzarkide batek Kultura sailburuari adierazitako interpelazio batean, *"EiTBk ETA banda terroristakoak izateagatik legez kanpo dauden edo jarduerak etenda dituzten erakundeetako bozeramaileen diskurtsoa zabaltzen ez laguntzeko neurriak hartzeari buruz"*[24], adierazi egiten du 2006ko urtarriletik une honetara arte (2008ko ekainaren 19a) euskal irrati eta telebistak berrogeita zortzi aldiz gonbidatu dituztela espresuki legez kanpoko elkarte edo alderdietako kide direnak ETBko "El punto" edo Radio Euskadiko "Boulevard" bezalako programetara. Zerrenda horrek ez du erakunde horien prentsaurrekoei emandako informazio estaldura hartzen.

Euskal Alderdi Popularrak Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako galderak, interpelazioak eta lege proposamenak ugariak izan dira, gaia EiTBk terrorismoari legitimazioa kentzearen alorrean duen papera izanez[25].

---

[24] Carlos M. Urquijo Valdivielso jaunak, Euskal Alderdi Popularreko legebiltzarkidea, Kultura sailburuari adierazitako interpelazioa, *"EiTBk ETA banda terroristakoak izateagatik legez kanpo dauden edo jarduerak etenda dituzten erakundeetako bozeramaileen diskurtsoa zabaltzen ez laguntzeko neurriak hartzeari buruz".* Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 96. zk., 2008ko ekainaren 19koa.

[25] - EiTBk terrorismoari zilegitasuna kentzen jokabide aktiboa izateari buruzko legez besteko proposamenaren aurkezpena (08/11.02.01.0456). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 125. zk., 2007ko urriaren 10ekoa.

- Urriaren 10ean Batasuna legez kanpokoaren bozeramaileari ETBko "El Punto" programan egindako elkarrizketari buruzko galdera. Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 125. zk., 2007ko urriaren 19koa.
- Batasuna legez kanpokoaren buruzagi Jone Goirizelaiak azaroaren 10ean ETB-1eko "Ordu txikitan" programan parte hartzeari buruzko galdera (08/10.05.03.1577). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 131. zk., 2007ko azaroaren 30ekoa.
- Legez kanpoko erakunde batzuen ordezkariek EiTBren programazioan parte hartzeari buruzko legez besteko proposamenaren aurkezpena (08/11.02.01.0488). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 139. zk., 2008ko urtarrilaren 18koa.
- Batasuna legez kanpoko alderdiko legebiltzarkide ohi batek urtarrilaren 30ean Euskal Telebistako eztabaida batean parte hartzeari buruzko galdera, Kultura sailburuak idatziz erantzutekoa. Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 142. zk., 2008ko otsailaren 15ekoa.
- EiTBk ETA banda terroristakoak izateagatik legez kanpo dauden edo jarduerak etenda dituzten erakundeetako bozeramaileen diskurtsoa zabaltzen ez laguntzeko neurriak hartzeari buruzko interpelazioa (08/11.03.00.0078). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 163. zk., 2008ko ekainaren 27koa.
- Legez kanpo utzitako Amnistiaren aldeko Batzordeetako bozeramaile bat ekainaren 19ko Teleberrin agertzeari buruzko galdera (08/10.05.01.0314). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 165. zk., 2008ko uztailaren 11koa.

.../...

Galdera eta interpelazio hauei emaniko erantzunetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak berretsi egiten du EiTBk konpromiso argia duela terrorismoari legitimazioa kentzearekin, eta azpimarratu egiten du *"EiTB adierazpen-askatasuna, komunikatzeko eskubidea eta informazioa askatasun osoz jasotzeko eskubidea aldeztu eta zaindu behar ditu, eta berez horixe egiten du"*[26].

Berriro ere azaltzen den kontua hau da: informazio eskubidea baliatzearen eta hedabideetan terrorismoari legitimazioa kentzearen konpromisoaren artean oreka topatzea.

Halaber, eztabaidagai izan dira ere ETBko programak ematen diren bitartean gainean inprimatzen diren SMS mezuak. Horiek, zenbaitetan, biktimentzako iraingarriak izan daitezkeen testuak biltzen dituzte, edo terrorismoari legitimazioa kentzen laguntzen ez dutenak direla pentsa daitezkeen horiek ageri dira.

COVITE elkarteak, "Agravio a las víctimas del terrorismo. 2007" agirian, hurrengo testua erantsi zuen:

*"ETBk onartu egiten du De Juana Chaos babesten duten SMSak agertzea eztabaida programa batean (otsailaren 8koa).*

> *Hamaika SMS agertu zen pantailan; ETBk ez zuen inolako iragazkirik jarri mezu horientzako, segundo batzuetan bakarrik irakurri ahal izan zen mezua barne: 'Lau lore zapaltzea terrorismoa al da?', Gregorio Ordoñezen hilobiari egindako erasoaren haritik. Aldi berean, eta ETB2ko "El conquistador del fin del mundo" programa ematen ari zirela, 'amnistiarik gabe ez dago bakerik' esaldia lehiakideen etxean argi eta garbi irakur zitekeelarik pantailan agertzea onartu zuten. Irudi grabatuak dira, editatuak, bazter daitezkeenak eta zuzenean eman ez direnak".*

Gai hori legebiltzarraren egoitzan jorratu zen Euskal Alderdi Popularreko kide baten ekimenez. Hark legez besteko proposamena planteatu zuen gai honen gainean: "testu mezuak bezalako (...) ikusleen parte-hartze sistemak ugaritzeari"[27] buruz. Legebiltzarkide horrek adierazi zuen *"hainbatetan, eta ez behin bakarrik, Euskal Telebistako programa ezberdinetan ikusi ahal izan dugu ETA talde terrorista babestearekin, indarkeriarekin eta indarkeria erabiltzen dutenekin zerikusia zuten SMSak sartu direla".* Berriro ere, legez besteko proposamen horren gaineko eztabaida adierazpen askatasunerako eskubidearen mugen kokalekuari buruzkoa izan zen. Beste eremu batzuetan, dilema hori

---

.../...

- Kale-terrorismoaren akusaziopean zeuden zenbait pertsonak uztailaren 1ean Oiartzunen emandako prentsaurrekoaz ETBk eskainitako informazio-lanari buruzko galdera (08/10.05.03.1998). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 165. zk., 2008ko uztailaren 11koa.
- Batasuna legez kanpoko alderdiko bozeramaile bati urriaren 14an Euskadi Irratian egindako elkarrizketari buruzko galdera (08/10.05.03.2209). Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 176. zk., 2008ko urriaren 24koa.

[26] Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, VIII. Legegintzaldia, 75. zk., 2007ko azaroaren 30ekoa.
Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 96. zk., 2008ko ekainaren 19koa.

[27] EiTBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordea. Batzordearen bilkuren aldizkaria, 2007ko martxoaren 14koa.

aintzat hartu dute auzitegiek behin eta berriro. Epaileek kasu partikular ezberdinetan hitz egin behar izan dute, terrorismoaren biktimekiko umilazio delituari dagokionez, aintzat hartutako adierazpenen banakako egileengatik[28].

Hedabideetan testu mezuei eman beharreko tratamenduak ere Ararteko erakundeari adierazi zaizkion hainbat kexa eragin ditu herritarren artean. Zehazki, hainbat kexa jaso ziren Radio Euskadiko interneteko foroen gainean eta bertan argitaratzen ziren mezu batzuen gainean. Kexaren sustatzaileen ustetan, mezu horiek erasokorrak ziren.

EiTBren zuzendariak Ararteko erakundeak bidali zion informazio eskaerari erantzun zion, eta zera san: *"adierazpen askatasunerako eskubidea eta aniztasun politikorako eta pertsonen duintasunerako eskubidea orekatzen saiatzearen aldeko gara erabat"*, eta zera onartu zuen: *"argi dago kasu honetan* (planteatu ziguten kexaren kasuan, alegia) *iritzi onartezin batzuen aurrean gaudela, eta horiek argitaratu izana gizakion akats baten ondotik bakarrik uler daiteke".* Adierazi zuen erakunde publikoak gainbegiratu egiten dituela herritarrek Interneteko guneetara sartzen dituzten iruzkinen edukia, eta gainbegiratze hori hainbat mezuren gainean egiten dela, ondorioz, giza akats bat edukitzea gerta litekeela. Datu garrantzitsu modura, zera azpimarratu zuen: "*Radio Euskadik 390.000 mezu baino gehiago jaso ditu aurten foroetarako".* Gainera, entzuleentzako foroak irekitzen dituzten hedabide gehienek zuzenean argitaratzen badituzte ere mezuak eta *a posteriori* gainbegiratzea egin, jakinarazi zigun Radio Euskadiren kasuan gainbegiratzea jendaurrean jarri baino lehen egiten dela.

EiTBk ahalik eta ardura, gainbegiratze eta kontrol handiena gauzatzeko konpromisoa hartu zuen, horrelako egoerak errepikatzea saiheste aldera. Neurri osagarri modura, erakunde publikoak adierazi zigun zera argitaratuko zuela: *"foro guztietan legenda bat, oinarrizko eskubide eta askatasunekin errespetuzkoak diren iritziak bakarrik argitaratuko direla, eta pertsona, erakunde edo gizarte instituzioen aurka zuzendutako laidoak edo aipamen iraingarriak dituzten mezuak ez direla argitaratuko adieraziz".*

---

[28] Ikuspegi juridiko penaletik, ikusi Capita (2008). Ikusi 2007tik Dignidad y Justicia elkarteak delitu honetako zuzenbide prozeduren eta terrorismoa goraipatzearen gainean egiten dituen jarraipenak helbide honetan: http://www.macrojuicio.com/noticias.asp. 61/2008 Epaian, Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salakoa, 2008ko abenduaren 1ekoa, 31 urteko Ordiziako herritar bat zehatu zen terrorismoaren biktimak umilatzeagatik Interneteko foro baten bitartez. Forora edonor iritsi zitekeen eta edukia inprimatzea posible zen. Bertan, irudiak eta atentatuen biktima zehatzekiko irainak jarri ziren. Auzitegiaren ustetan, frogatutako gertakariak Zigor Kodeko 578. artikuluko bigarren tartekiaren barruan kokatzen ziren, abenduaren 22ko 7/2000 LOak emandako idazketari jarraiki. Artikulu horren bitartez, terrorismoaren biktima diren herritarren ohorea babesten da, pertsonaren duintasunaren dimentsio sakonenean, orden politikoaren eta gizarteko bakearen funtsa baita (Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salako 2008ko uztailaren 9ko autoa). Aipatutako epaiak azpimarratu egiten du irainaren xede izandako biktimizazio kopurua eta adierazgarritasuna behin eta berriro errepikatu zirela, eta horrek gainditu egiten duela *"kritika ideologikoaren testuingurua, (kalteturiko) pertsonei zuzenean jotzeko"*. Ondorioz, Zigor Kodeko 578. artikuluaren bitartez, "*jazarri egiten dira adierazpen askatasuna baliatzearen aitzakiatan, Konstituzioak onetsitako eskubidea izaki, bizirautea lortu duten eta hildakoen senideen sufrimendua eta haiekiko presioa areagotzea xedetzat duten portaera doilorrak zabaltzen dituztenak, etengabeko beldur zurrunbilo baten barruan...".* Gainera, epai horrek gogorarazi egiten du, kasu honetan gertatzen ez bada ere, zigor arau hori aplikatzerik ere badagoela biktimak pertsona juridikoak direnean (terrorismoaren kaltea jaso dutenen eskubideak defendatzen dituen erakunde bat, esate baterako), banakako biktimak identifikatu beharrik izan gabe.

Aurreragoko idazki batean, 2003ko abenduan, EiTBk jakinarazi zuen konpromiso gisa hartutako "ohar legenda" maiz erabiltzen zela hurrengo ereduari jarraiki:

> *"Azken asteotan irain eta ospea zikintzen duten hitzez beteriko mezuak areagotu egin direla igarri dugu. Agian permisiboegiak izan gara orain arte, baina hemendik aurrera, irain bakar bat agertzen duen esku-hartzea ez da argitaratuko.*
>
> *Hitz egin, eztabaidatu eta hausnartzea da kontua, inoiz ez iraindu edo errespeturik gabe jardutea. Irainak zituzten mezuak ezabatu egin dira".*

2004an beste bi kexa jaso ziren, irratiko foroetan agertutako mezuak direla eta. Horiei dagokienez, EiTBko zuzendariak adierazi zuen mezuetako batean eztabaidagarria izan daitekeela testua argitaratu behar zen edo ez, eta Interneteko foro ireki eta parte hartzeko baten dinamikak horrelako egoeretara eraman dezakeela, inoiz ezingo direla %100ean saihestu. Edonola ere, haren ustez, gainbegiratze eta kontrol neurriak behar bezala funtzionatzen zebiltzan.

Helarazitako bigarren kexari dagokionez, EiTBk adierazi zuen garrantzitsua dela, testuaz gain, mezua bere testuinguruan kokatzea. Kasu honetan, entretenimendurako magazine erako programa batean agertutako mezu bat izan zen, zenbaitetan probokazioa, ironia eta umorea baliatuz. Edonola ere, testua kendu egin zuten eta barkamena eskatu zitzaion entzule horren aipamenak mindu ahal izan zuenari.

Azkenik, COVITEko ordezkariekin egindako bilera batean planteatu zen beste gai bat ETBko albistegietan berriak nola ematen diren zen. Haien hitzetan albisteak "kateatuta" ematen ziren, harremanak eratuz hasiera batean inolako loturarik edukiko ez luketen albisteen artean baina erabat ezberdinak diren errealitateen artean distantziakidetasun sentsazioa sorraraziz.

Beste behin ere, adierazpen askatasunaren eta informazio askatasunaren arteko oreka zehazteko zailtasunaren aurrean gaude, horren bitartez balio demokratikoak eta bizikidetzakoak eta terrorismoari legitimazioa kentzekoak errespetatze aldera. Gainera, egiaztatu egiten da kontrolerako mekanismo eraginkorrak ezartzerakoan, arazoak topa daitezkeela zenbait eremutan, adibidez parte hartzeko foro hauenean. Edonola ere, badirudi beharrezkoa dela hausnarketa egitea gai hauen inguruan, eta hausnarketa hori legebiltzarreko erabakiek terrorismoaren biktimen egoeraren gainean aipatutako estilo liburuaren edo kode etikoaren lanketari uztartzea.

## 7. Biktimen duintasun eskubidea eta hedabideak

Ekainaren 19ko 4/2008 Legeak, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko dena, 4. artikuluan arautzen du hedabideek biktimen duintasunarekin duten zerikusia. Hain zuzen ere, artikulu horretako c) idatz-zatiak zera jasotzen du euskal botere publikoentzako: *"hedabideetan biktimen eta haien familiakoen intimitatea eta irudia babes dadin sustatuko dute, haien irudiak modu desegokian eta gehiegikeriaz erabil ez daitezen".*

Lehen ere adierazi dugu iraultza jazo dela atentatu terroristei buruzko irudien tratamenduan, eta eboluzio hori biktimak terrorismoari buruzko albisteetan inolaz ere ez

ateratzetik, haien duintasunarekin beti errespetuzkoa den protagonismo batetaraino joan dela. Hori dela eta, beharrezkoa da informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzerakoan, terrorismoaren biktimen irudi eta intimitate eskubideari eragiten dion lerroa ez gainditzea, ezta, azken batean, haien duintasun eskubidea urratzea ere.

4/2008 Legeko 4.d) artikuluak zera aurreikusten du euskal botere publikoen aldetik: *"biktimen eta haien familiakoen eskubideen eta duintasunaren defentsa sustatzeko, informazioaren profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak bultzako dituzte".* Neurri horrekin, terrorismoaren biktimei laguntzeko ardura duten pertsonek trebakuntza egokia jasotzeko araudiak ezarritako beste arau batekin batera (*Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideentzat, Justizia Administrazioarentzat, gizarte-zerbitzuetako eta terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza ematen dieten kolektiboetako kideentzat*), bigarren mailako biktimizazioa saihesteko saiakera egin nahi da, kasu batzuetan profesional horiei dagokien lanean sortzen baita.

Terrorismoaren biktima askok kontatu egiten dute nola eragiten dieten ekintza terroristei buruzko albisteek, eta horiek, askotan, haiek edo senideren batek jasandako atentatua gogorarazten dietela. Hori dela eta, oso garrantzitsua da profesionalek gai horri buruzko berariazko trebakuntza jasotzea, albiste bat emateko moduak duen garrantziaz eta horrek biktimengan nahiz haien hurbilekoengan izan dezakeen ondorioaz jabetzea posible izan dadin.

## III. GIZA ESKUBIDEETAN HEZTEA BIKTIMIZAZIO TERRORISTA PREBENITZEKO

### 1. Definizioa eta esparru juridikoa

Esparru honetan hurrengoa bezalako kontzeptu hurrenkerarekin egingo dugu topo: giza eskubideetan heztea, pedagogia zibikoa, herritartasunerako hezkuntza, balioetan heztea, bakerako hezkuntza, bizikidetzarako hezkuntza, indarkeria prebenitzeko hezkuntza…[29] Alderdi teoriko eta praktikoei dagokienez bereizketa egitearen kaltetan izan gabe, idatzzati honetan horiei guztiei buruz arituko gara, terrorismoaren biktimen eskubideentzat interesgarri izan daitekeen horretan guztian.

Biktimizazio terroristari dagokionez, hezkuntzari buruzko alderdiak, gizarte interesekoak izateaz gain, banakako eskubideak ere badira prozesu horiek prebenitzeko hezkuntza eskuratzeko. Gainera, biktimek memoriarako eta egia jakiteko duten interes legitimoak erabateko zentzua izateko derrigorrezkoa da ikaskuntza demokratikoa izatea[30]. Ikaskuntzak suposatzen du giza eskubideak urratzen dituzten balio, jarrera eta indarkeriazko portaerak aldagarriak direla. Ondorioz, hezkuntzaren alorreko programa eraginkorrak daude; horiek biktimizazioa prebenitzen dute eta betebehar publikoen baitan jorratu behar dira.

---

29 Ikusi erreferentzia horiek guztiak, adibidez hurrengo helbidean: http://www.educacionenvalores.org.

30 Eztabaida filosofiko zabalago baterako Hegeli eta herritartasunerako hezkuntzari buruz, ikusi Heller (1996, 104-7).

Indarkeriazko portaerei buruzko ikerketa zientifiko garrantzitsuenak jarraituz, indarkeria terrorista gehiena gizarte ikaskuntza baten ondotik dator[31]. Ikaskuntza horrek motibazioa, justifikazioak eta jarrerak biltzen ditu, hau da, portaerak arrazionalizatu egiten dira. Elkarketa diferentzialaren teoriarekin bat etorriz, hasiera batean Sutherlandek proposaturikoa, gizarte elkarrekintza batzuk indarra hartzen dute ikaskuntza horretan, indarkeria saihestuko luketen beste batzuen aurretik. Edonola ere, komenigarria da Ronald L. Akersek bezala bereizketa egitea hasierako ikaskuntzaren eta errepikapenaren artean, esparru horretan indarkeriazko jarrera batzuk aldarazteko aukerak topa ditzakegun heinean.

Epe labur, ertain eta luzera iraunkorrak izango diren hezkuntza politika iraunkorrei buruz ari gara beti. Aguilarrek dioen moduan (2008,41), *"Ikusi dugu ikasteko gehien balio izaten diguten gertakariak gure bizitzaren hasierako etapa batean jazo zirenak direla (...). Jervisek erabaki politikoen eragin atzeratuak deitzen dituenak daude. Historiako ikasgai horiek aplikatzerakoan atzerapen hori izatearen arrazoia da belaunaldi gazte batean arrasto sakonena uzten duten ikaskuntzek hogei urte inguru behar izaten dituztela aplikatzeko. Hori da, gutxi gorabehera, belaunaldi batek esparru publikora iristeko behar duen denbora".*

Barne esparruan, aipatu egin behar dugu Hezkuntzaren Lege Organikoan sartu egin dutela Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza derrigorrezko ikasgaia, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak herritartasun demokratikorako hezkuntzari buruz onetsitako urriaren 16ko 2002/12 Gomendioa jarraituz[32]. Gomendioaren bigarren paragrafoaren arabera, *"herritartasun demokratikorako hezkuntzak harrapatu egiten du hezkuntzaren alorreko jarduera guztia, hura formala zein informala izan, eta familiarena barne. Horren bitartez, pertsonak bere bizitza osoan zehar jardun dezake herritar aktibo eta arduratsu modura, gainerakoen eskubideekiko errespetua izanez".*

Nazioarteko araudiak azpimarratu egiten du hezkuntzak herritartasun demokratikoaren, parte-hartzearen, gizarte kohesioaren eta aniztasunarekiko errespetuaren garapenean dituen aukerei buruzko kontzientziazioaren helburua. Horrek banakako nahiz gizarte osoko eduki etikoak edukitzea esan nahi du, bai ezagutzaren aldetik, bai giza eskubideen urraduren aurrean jarduteko, erreakzionatzeko eta horiek errespetatzeko gaitasunen aldetik. Bereziki parte-hartzekoa eta praktikara zuzendua dagoen metodologia erabiltzea suposatzen du, Giza Eskubideen Deklarazioan islatutako aniztasunetik. Hezkuntza zibikoak gizarteko agente guztiak harrapatzen ditu, eta *"bizitza osoan zehar"* gertatzen da, Europako Kontseiluko Hezkuntza Ministroen 22. Biltzar Iraunkorrak, 2007ko maiatzean, egindako deklarazioan adierazten dena gorabehera[33] (López Martínez 2007,1-2).

---

31 Mugaturik bada ere, ikuspegi kriminologiko teorikotik ikusi Cid eta Larrauri (2001, 101-2). Gorrotoaren gizarte sorrera eta transmisioari buruz, ikuspegi biktimologikotik eta terrorismoari aipamen berezia eginez, ikusi Baca Baldomero (2006, 261-2; 279-80).

32 Halaber, merezi du giza eskubideetan hezteari buruzko 1346 (1997) Gomendioa; norberaren erantzukizunetan hezteari buruzko 1401 (1999) Gomendioa; Europako hezkuntzari buruzko 1682 (2004) Gomendioa; eta giza eskubideek eta demokraziak Europan duten egoerari buruzko 1547 (2007) Ebazpena, guztiak Europako Kontseiluaren Biltzarrarenak, azpimarratzea.

33 Hona hemen deklarazioaren izena: "Construir una Europa más humana y más inclusiva: El papel de las políticas educativas".

Hezkuntzari buruzko nazioarteko testuek hurrengo alderdiak bultzatzeari heltzen diote: autoestimua, norberaren autonomia, askatasunaren balioa erantzukizunari uztartuta, autokritika, enpatia, iritzi kritikoa, gainerakoen eskubideekiko errespetua, lankidetza, aniztasunaren aberastasuna eta giza eskubideen babesa. Aldi berean, indarkeriako saiakera guztiak eta horien justifikazioa gaitzesten dira. Azterlan enpiriko ezberdinen ondorioek agerian uzten dute faktore horiek guztiek, pertsonen, testuinguruen eta gizartearen arteko harremanetan, eraginkortasunez prebenitzen dutela biktimizazio terrorista.

1978ko Konstituzioko 27.2. artikuluan, zera jasotzen da hezkuntzaren xede gisa: *"giza nortasuna oso-osorik garatzea (…), betiere, bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz"*. Alderdi zehatz horretan, komenigarria da azaroaren 30eko 27/2005 Legea azpimarratzea, hezkuntza eta bakerako kultura sustatzeari buruzkoa, eta baita azaroaren 2ko 1467/2007 EDko 3. artikulua ere, Batxilergoaren egitura ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena[34] nahiz uztailaren 12ko 2220/2007 Aginduko 9. eta 10. artikuluak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza antolatzen eta curriculuma ezartzen duena[35] eta uztailaren 12ko 2211/2007 Aginduko 9. artikulua, Lehen Hezkuntza antolatzen eta curriculuma ezartzen duena.

## 4/2008 euskal Legea eta Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana

4/2008 Legeko zioen azalpenaren arabera, *"bakeak, askatasunak eta elkarbizitzak euskal botere publikoen eginkizun babeslea dakarte berekin batera, zentzu honetan ulertuta: neurriak hartu behar dituzte pertsonen eta beroriek osatzen dituzten taldeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen behar diren baldintzak sustatzeko, baita hori guztia eragozten duten oztopoak kentzeko ere. / Baina, aldi berean, esan nahi du bakearen eta elkarbizitzaren aldeko hezkuntza eta kultura sustatu behar dutela. Horretarako, jarduera batzuk eramango dituzte aurrera eta horien artean bultzada nabarmena emango zaio balio etiko eta demokratikoetan eta bakean eta giza eskubideetan hezteari; hedabideek balio horiei zor zaien errespetuaren kulturarekin konpromisoa har dezaten sustatzeari; balio horien sustapenerako programetan biktimen lekukotza sartzeari; terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako neurri aktiboak abiarazteari; terrorismo-delituak pertsegitzeko beharrezkoa den polizien koordinazioari, eta Zuzenbide Estatu demokratikoaren gizarte-legitimazioa eta hori elkarbizitza integratzailerako arauen bidez ematea defendatzeari eta sustatzeari"*[36].

5.3. artikuluarekin bat etorriz, administrazio publikoek derrigorrez bete beharreko konponbideek zera ekarriko dute: *"bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-*

[34] Artikulu horretan adierazi egiten da Batxilergoak lagundu egingo duela herritartasun demokratikoa garatzen.

[35] Artikulu horietan ikasgai gisa aipatzen dira herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza eta hezkuntza etiko-zibikoa.

[36] Ikusi abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

*proiektuetan biktimen lekukotzak egotea".* Hori alor honetan elkarteen mugimendua publikoki sustatzearekin uztar daiteke (27.2. art.).

9.3.b), d) eta 9.4. artikuluen arabera, euskal botere publikoek: *"hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatuko dute.../Terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako neurri aktiboak abiaraziko dituzte, Zuzenbide Estatu demokratikoaren zilegitasuna gizartean sustatuz eta, gure askatasunen eta bakezko elkarbizitzaren berme gisa, elkarbizitza integratzailerako arauetan antolatuz./Balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatzeko egoki iritzitako ekimenetan, terrorismoaren biktimen lekukotza eta partaidetza kontuan hartuko dira".*

2007an, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana[37] sustatu zuen. Bertan adierazten dena gorabehera, plan hori justifikatzen duena Eusko Legebiltzarraren agindua da, terrorismoaren biktimei buruzko 2003ko eta 2005eko Legebiltzarreko erabakietan txertatzen dena (sarrerako lehenengo paragrafoa). Planarekin bat etorriz, *"gizarte demokratiko orok giza eskubideekiko eta bakearekiko ezagutza eta errespetuzko kultura sakona bultzatu eta sustatzeko agindua du herritarren artean. Euskal gizartearen kasuari dagokionez, gaur egungo betebehar unibertsal horri, biolentziaren iraunkortasunak eta bereziki, ETAren terrorismoaren iraunkortasunak oztopaturiko gizartearen berezitasuna erantsi behar zaio. Gurearen moduko gizarte batean pertsona guztien bizitza, duintasuna eta eskubideak salbuespenik gabe babesteko hezkuntza-lan handia behar da. Lan horretan gizarte sektore askok parte hartu beharko dute eta erakundeek buruzagi izan, bultzatu eta koordinatu egin beharko dute*" (sarrerako hirugarren paragrafoa).

Espresuki aipatzen dira biktimen lekukotzak, bakerako hezkuntzaren baliabide modura (95.etik 97.era bitarteko orrialdeak), eta terrorismoaren biktimen arretan graduondoko trebakuntza sustatzeko aukera jasotzen da. Erakundeen arteko koordinazioaren barruan, espresuki aipatzen dira Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Erakunde arteko Batzordea (Eusko Jaurlaritza) eta Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Ararteko erakundearen ordezkari bat sartzen dira.

Batzorde hori Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea sortzen eta arautzen duen 31/2009 Dekretuaren bitartez arautu zen. *"Erakunde aholku-emaile ofizial gisa"* definitzen da, gizartearen parte-hartzea bermatzeko eta eraginkortasunez koordinatzeko eskura dauden baliabide guztiak nazioarteko araudiari jarraiki. Kontseilua Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikita dago. Zioen azalpenean adierazten denaren arabera, *"jarduera politiko-instituzionalaren eta gizarte-ekimenaren arteko aliantza eta osagarritasunak lagundu egiten du, gainera, botere-egituren autoritarismoaren arriskuak ekiditen; izan ere, oinarri demokratikorik gabeko*

[37] Ikusi hurrengo helbidean: Http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19299/eu Plan hau eztabaida xede izan zen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean 2008ko apirilaren 2an.

*gizarte-ingeniaritzako marko-eragiketak egiten hasteko tentazioa izan dezakete egitura horiek. Gizartearen oinarrizko adostasunak politika publikoen bidez jarduera bideratua eta bermatua izan dezakeen gizarte zibilaren bultzadaz kudeatu eta aberastu behar dira. Baina horrek ez du esan nahi erantzukizun publikoaren printzipio nagusia ahaztu behar denik; izan ere, printzipio horren arabera, beharrezkoa eta ukaezina da instituzioen lidergoa, baina naturala izan behar da, alegia, indarrak batuta eta gizarteko indarrekin errespetuzko elkarlanean gauzatu behar da".*

Dekretu horretako 3.2.c) artikuluaren arabera, batzordearen osoko bilkuran elkarte eta erakundeen lau ordezkarietatik batek *"izan behar du bakearen aldeko hezkuntza-proiektuekin, eta zehazki, terrorismoaren biktimei zuzendutakoekin, lanean diharduela egiaztatzen duen erakunde batekoa"*.

COVITEko kide batek, Hezkuntzarako Planaren 2007ko azaroko bertsioari dagokionez, tamalgarritzat jo zuen zera: *"aipatutako dokumentuan aipamen espresik ez agertzea ETAren gainean edota haren terrorismoaren berezitasunaren gainean, eta Euskadiri buruzko deskribapena antzematera iristea ezinezkoa izatea gutxieneko inpartzialtasuna duen behatzailearentzat"* (Altuna 2007, 1). Urte horretako abenduko behin betiko bertsioan hiru aldiz bakarrik ageri da. Bestalde, pertsona horrek berak faltan botatzen zuen *"Justiziaren ideia nagusi izatea gizarte demokratiko ororen funtsezko ardatz nagusi gisa, eta justizia hori terrorismoaren biktimak eta gainerako delituen eta urraduren biktimak, giza eskubideen eremuan eskubide osoko herritar diren heinean, berriro bere tokian jartzen laguntzen duen moduan ez agertzea"* (Altuna 2007, 2).

Gainerakoak gorrotoan hezi dituzten euskal familiak dauden bitartean, *"ia 40 urte igarota balioetan emandako hezkuntza muturreraino eraman duen ehunka pertsonaren esperientzia dago: tolerantzia, errespetua, justiziaren ideia eta askatasuna bezalako balioak. Edonork egiaztatu ahalko du ez dela mendeku edota indarkeriazko erantzuneko kasu bakar bat ere izan terrorismoak kalteturiko pertsonen aldetik, ezta haien seme-alaba edo hurbilekoen aldetik ere. Hori dela eta, hemen aipatu eta gogoratu nahi nituzke gaur, hezkuntza eredu horren adibide modura, terrorismoaren biktimen emazteak, amak, alargunak eta alabak. Haiek ezarri dute jada hurrengo belaunaldiak hezteko moduaren adibidea, balioetan hezteko modu egokiaren adibidea eta, batzuk horren berri ez badute ere, sakontasun demokratiko handiko balioak dira. Baina, emakume gisa ere, esan egin beharko da emakume institutu ezberdinek eta antzeko beste talde batzuk ahaztu egin dituztela erabat, bidegabe nire ustez"* (Altuna 2007, 2).

Zentzu berean, baina oraingoan mehatxatutako pertsona baten aitaren hezkuntza lana aitortuz, zera zioen emakume batek euskal egunkari bateko zuzendariari helarazitako gutunen atalean: *"Atte, eskerrak ausarta izaten irakasteagatik, hegoak, arima eta pentsamendua mozten saiatzen direnetatik ezkutuka bizitzea tokatu zaigun herri honetan. Egoera honen aurrean minerako tokia bakarrik dagoela irakasteagatik, inoiz ez gorrotorako tokirik, eta sufrimendua guztion kontua dela ikustarazteagatik eta ez bakarrik gurea. Herri triste honekiko nazka sentitzen amai nezakeen, haren izenean iraindu egin zaituztelako, zu akabatuko zintuztela agindu zutelako, traidore deitu dizutelako, zure etxean bertan bahitu zintuztelako kalera irteteko bi itzalen beharra*

*edukiaraziz eta zu isildu nahi izan zaituztelako (...). Irakatsi egin didazu ez dela bera, ez dela herria, horrenbeste min egin diguna, baizik eta haren salbatzaile direla uste dutenak (...), izan ere, niretzat euskal gatazka deitzen den horrentzako konponbidea guztiok zuk bezalako norbait gertu edukitzea litzateke, begiratzen, arrazoitzen (...) eta, batez ere, aske izaten irakats ziezagun (...). Itota sentitzen zarenean, pentsatu zein harro nagoen ni zure ondoan honen guztiaren aurka borrokatzen aritzeagatik (...). Hori dela eta, askatasun istant bat bihurtu nahi izan dut gutun hau"*[38].

Azken batean, ez gara bakarrik biktimei zor zaien memoria printzipioaz bakarrik ari, baizik eta baita ere hezkuntzarako eskubideari buruz, jada eskura dauden baliabideak martxan jarriz, adibidez biktimen euren lekukotzak. Horien eraginkortasuna frogatuta dago.

## 2. Euskal nerabeen jarrerak terrorismoaren eta terrorismoaren biktimen aurrean

*"Bizitokitzat ditudan gela ilun horietan igarotzen ditut*
*egun astunak; zein grinarekin begiratzen ditut zenbaitetan*
*leihoak. -Noiz irekiko da*
*horietako bat eta zer ekarriko ote dit–.*
*Baina leihorik ez dago, edo nik ez dakit hura*
*topatzen. Eta agian hobe horrela.*
*Agian argi hori beste tortura bat izango da niretzat.*
*Batek daki zenbat gauza berri erakutsiko lituzkeen".*

*Kavafis*[39]

Ararteko erakundearen txosten bereziak lantzerakoan inoiz erabili ez den aukera metodologikoa bada ere, egokitzat jo da atal honetan ia bukatuta dagoen beste txosten bateko datuen analisia sartzea. Txosten horretan, gure haur eta nerabeek giza eskubideei buruzko gai garrantzitsu batzuez dituzten balioak jorratzen dira, eta, aldi berean, balio horiek nola helarazten eta bereganatzen diren aztertzen da. Txosten hori honako honen ondotik emango zaio Eusko Legebiltzarrari, eta bertan azterturiko aldagaietako bat hauxe da: ikasleek zein jarrera dituzten ETAren, oro har terrorismoaren eta indarkeria terroristaren biktimen aurrean.

Azterketa teknikoa, balioak berenganatzeari buruzko lanaren oinarri, Deustu Fundazioko ikertzaile talde batek egin du, Javier Elzo irakaslearen zuzendaritzapean. Aipatutako txostenean gure haur eta nerabeek giza eskubideen aurrean dituzten jarrerak neurtu nahi dira; ez, ordea, era abstraktuan, baizik eta gure gizartean agertzen diren eta pertsona eta talde ezberdinen giza eskubideen babesari eragiten dioten gai oso nabarmenen aurrean. Euskadiko DBHko ikasleek giza eskubideekiko eta balio horiek hartzearekiko dituzten

---

38 Ioana Etxezarreta, "Atte" ("aita" esateko modu maitekorra), *Diario Vasco* egunkariko Cartas al Director atalean, 2008ko ekainaren 10ean, 27. or.

39 "Ventanas", Konstantinos Kavafisena. [1936] 1998. *56 poemas*. Madril: Mondadori, 13. or.

balioak aztertzen dituen ikerketa batean, ezin zen alde batera utzi eskubide funtsezkoenen urradura ikaragarria sorrarazten duen gertakari bat: indarkeria terrorista.

Lan egiteko 762 gazteko lagina erabili zen, DBHko 1. mailatik 4.era bitarteko 12 eta 16 urte arteko gazteekin. Bertan, besteak beste, ETAren indarkeriazko ekintzekin zerikusia zuten galderak sartu ziren, terrorismoaren biktimekin eta Zuzenbide estatu demokratikoak babesten eta babestu behar dituen ETAko kideen eskubideekin ere zerikusia zuten galderekin batera, haiek egindako krimenak bereziki higuingarriak badira ere. Egokitzat jo zen lan honetan erabat erabilgarria zen informazioa aztertzea. Informazio hori gure haur eta nerabeen artean, irmo eta salbuespenik gabe, giza eskubideekiko errespetuzko balioak, eta, beraz, ETA eta indarkeria terrorista guztia gaitzestekoak nahiz indarkeria horren biktimekiko solidaritate eta enpatiazkoak sendotzera zuzendutako politika publikoak hartzen dituen errealitateari buruzkoa da.

Idatz-zati honetan landuko ditugun gaiek lotura estua du biktimen eskubideekin, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Lege berrian finkaturikoak horiek. Biktimek interesa dute biktimizazioa prebenitzen, bai lehen mailakoa, bai bigarren mailakoa, eta hori funtsezko elementua da egia jakiteko eskubidearen, ordaina jasotzekoaren, bakerako eskubidearen, askatasunerakoaren eta bizikidetza plurala edukitzekoaren edukian.

Azterlan hori jarraian azalduko dugu, lau zatitan banatuta. Hasteko, lehen irakurketan, Euskadiko DBHko ikasleek ETAren terrorismoaren eta bere ondorioen aurrean zer-nolako balorazioak egiten dituzten eta zer-nolako jarrerak erakusten dituzten ikusiko dugu. Gero, osagai nagusien faktore-analisiaz baliatuta, azalduko dugu ikasleek ETAren terrorismoaren eta giza eskubideen aurrean dituzten jarrerak hiru multzo handitan bereiz ditzakegula, kualitatiboki. Hirugarren, ETA gaitzesteari buruzko eskala bat egin dugu, oraingoan kuantitatiboki neurtu ahal izateko zenbat ikaslek eta zenbateraino gaitzesten edo aldezten dituzten ETAren ekintzak. Azkenik, faktore-analisia eta ETAren aurreko hiru jarrera-multzoak berriz hartuta, zera galdetuko diogu geure buruari: ikasle-multzo bakoitzean, ikasleen planteamenduetan zer-nolako garrantzia duten familiak, eskolak eta lagun taldeak, sozializazio eragile gisa.

### A) Terrorismoari buruzko balorazioak eta jarrerak. Lehen interpretazioa

Galdera-sortaren galdera berean (57. galdera), Euskadin jasaten dugun indarkeriaren gaineko bederatzi item edo adierazpen zehatz sartu ditugu, eta adierazpen bakoitzeko, ikasleei eskatu diegu esan diezagutela adierazpen horietako bakoitzarekin zenbateraino dauden ados, eskala honen arabera: “oso ados”, “nahiko ados”, “erdi ados”, “ez oso ados” edo “batere ados ez”. Horrela, 135.A, 135.B eta 135.C tauletan xeheki kontsulta daiteke ikasleek zer erantzun dioten proposatutako esaldi edo item bakoitzari, eta 136. taulan bederatzi esaldi horiei emandako erantzunen laburpena eskaintzen da, bi neurgailuren arabera: zutabe batean balio zentrala jarri dugu, hau da, eskala honen arabera lortutako erantzunen batez besteko balioa: 5 balioa “oso ados” erantzunari, 4 “nahiko ados” erantzunari, eta abar, 1 baliora (“batere ados ez”) iritsi arte; hortaz, balio zentrala 3 izango litzateke. Beste zutabe batean, batu egin ditugu “oso ados” eta “nahiko ados” dioten erantzunen portzentajeak, eta horrela lortu

dugu proposaturiko itemarekin argiro ados dauden ikasleen portzentajea. Irakurketa errazteko, laburpen-taulan ikasleen adostasunik handiena lortu duten itemetatik adostasunik gutxiena lortu dutenetara ordenatu ditugu.

**135.A Taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (% bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | ETA talde terrorista da eta biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 35,1 | 42,9 | 33,9 |
| Nahiko ados | 24,2 | 11,2 | 14,0 |
| Erdi ados | 16,4 | 17,7 | 20,8 |
| Ez oso ados | 6,8 | 8,9 | 10,4 |
| Batere ados ez | 11,1 | 11,8 | 13,6 |
| Ed/Ee | 6,4 | 7,4 | 7,3 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**135.B taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (% bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 26,0 | 23,4 | 12,2 |
| Nahiko ados | 18,7 | 10,1 | 11,9 |
| Erdi ados | 25,7 | 25,6 | 27,0 |
| Ez oso ados | 9,2 | 13,6 | 16,6 |
| Batere ados ez | 14,1 | 19,1 | 24,8 |
| Ed/Ee | 6,3 | 8,2 | 7,5 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**135.C taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (% bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka | ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 12,5 | 9,4 | 5,5 |
| Nahiko ados | 11,7 | 8,3 | 6,0 |
| Erdi ados | 23,5 | 20 | 18,1 |
| Ez oso ados | 19,2 | 18,3 | 16,8 |
| Batere ados ez | 26,2 | 37,3 | 47,1 |
| Ed/Ee | 6,9 | 6,7 | 6,6 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**136. taula. ETAri eta giza eskubideei buruzko bederatzi adierazpenekiko adostasun mailak, labur azalduta. Adierazpen horiek beroriekiko agertu den adostasun mailaren arabera ordenatu dira goitik behera**

| ITEMAK | Batez besteko adostasuna: 5-oso ados 1-batere ados ez | Adostasunaren portzentajea: oso ados + nahiko ados |
|---|---|---|
| Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | 3,70 | %59,30 |
| Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | 3,70 | 54,1 |
| ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da | 3,48 | 47,9 |
| Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | 3,36 | 44,7 |
| Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | 3,06 | 33,5 |
| Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke | 2,68 | 24,1 |
| ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | 2,62 | 24,2 |
| Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut | 2,30 | 17,7 |
| ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat | 1,99 | 11,5 |
| N | 762 | |

Datuak datu dira eta, soziologia-azterketetan egon daitezkeen errore-marjinen barruan, ezin eztabaidatuzkoak. Beste gauza bat da datu horietaz egin daitezkeen interpretazioak, batez ere interpretazio horiek xeheak badira eta xehetasunetan sartu nahi bada. Gizarte ikertzaile askok diotenez, gizarte-zientzietan ezinezkoa da objektibotasuna, ikertzailearen ekuazio pertsonala alde batera utzita gizarte-analisiak egiteko aukera gisa ulertuta. Hori orain dela urte asko adierazi zuen soziologiaren sortzaileetako batek, honako hau baieztatu zuenean: *"...ikertzailea eta bere garaia menderatzen dituzten baliozko ideiek erabakiko dute zein izango den ikerketaren mamia, eta ikerketa hori zein neurritan hedatuko den lotura kausalen mugagabetasunean"*[40]. Neutraltasun soziologikoa, beraz, ikertzailearen subjektibotasuna objektibatzearen parekoa dela esan daiteke.

---

40 Max Weber. "La objetividad cognoscitiva de la ciencia social y de la política social", 73. or. *Ensayos sobre metodología sociológica*, Buenos Aires Amorrortu, 39-101. orr. Zifra hori Manuel Mª Urrutiari hartu diogu, bere lan honetatik: "La cueva de minotauro: valores y ciencia social en la obra de Max Weber". *Inguruak, Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política*, 2003ko iraila, 159-180. orr.

Hori esan ondoren, goazen azaldutako datuen lehen interpretazioa egitera, kezkatzeko arrazoi dezente ematen baitute. Oinarri-oinarrizko giza eskubideekiko begirunerik eza erakusten duten balorazioak eta jarrerak dirautela adierazten dute datu horiek, portzentaje esanguratsuan gainera; sektore batzuk ekintza terroristak eta indarkeriazkoak ez gaitzestera edo justifikatzera iristen dira, edo, bestela, ontzat jotzen dituzte. Hasteko, azpimarra ditzagun honako zifra hauek: ikasleetatik %24,1en ustez (12,2+11,9), "batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke". Beste item bati emandako erantzunean, hain justu, "pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu" adierazpenaren aurrean, ikasleetatik %19,1ek adierazi dute ez daudela batere ados, eta %13,6k ez daudela oso ados. Nabarmendu beharreko hirugarren erantzuna hauxe da: %18k adierazi dute gaizki iruditzen zaiela inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dutela kale borroka. Eta, azkenik, azpimarratu behar dugu ikasleetatik %11,5en ustez (5,5+6), ETAren ekintzak Euskadirentzat onak direla. Emaitza hauek, hala ere, 141. taulan bildutakoekin alderatu behar ditugu, taula hartan berariaz erakusten baita ETArekiko gaitzespen-maila. Hori gero aztertuko dugu.

Zifra horiek argiro positiboagoak diren beste batzuekin osatu beharko ditugu, baina giza eskubideak baliatzean eta gai jakin batzuetan ez dago erdibideko baliorik. Hilketa justifikatu egiten da ala ez da justifikatzen, justifikatzeko edozein arrazoi emanda ere.

"ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti" dioen itemari ikasleek emandako erantzunak eskaintzen digu beste datu negatibo bat, izan ere, ez da %24ra iristen baieztapen horrekin ados daudenen portzentajea, eta %45etik gora daude argi eta garbi horren kontra. Agerikoa denez, kontua ez da erasotzailea –kasu honetan, indarkeria terrorista erabiltzen duena– biktimarekin parekatzea. Pertsona guztiek, pertsona izateagatik, giza eskubideak dituztela eta eskubide horiek une oro bete behar direla azaltzea da kontua. Printzipio etiko ukaezin horri epelki eusten zaio gure ikasleen datuetan.

Haatik, oso ontzat jotzen ditugun beste datu batzuk ere badirela adierazi behar dugu. Ikasleen artean, ia %60 daude terrorismoaren biktimen alde, adierazpenik argienean, eta %78ra iristen da erdibideko erantzuna ("erdi ados") gehitzen badiogu; eskalan "erdi ados" hori agertzeak azalpena behar du41. Baina terrorismoaren biktimen aldeko itemari berriro helduz, ohar gaitezen erantzun ez duen %6a alde batera utzita, %18 garbiki terrorismoaren biktimei zor zaien laguntzaren kontra agertu direla. Hortaz, dagoeneko talde bat itxura hartzen ari da: talde horrek, itemen arabera, ETAren eta ETA babesten duten taldeen planteamenduetatik hurbil dauden planteamenduekiko adostasuna erakusten du.

---

41 Eskalekin egindako galderetan beti zalantza geratzen zaigu ea horiek erantzunen zenbaki bikoitia edo bakoitia eskaini behar duten. Zenbaki bikoitiak erantzunean iritzia azaltzera "behartzen du", alde ala kontra. Zenbaki bakoitiak –azkenean hori aukeratu dugu kasu honetan, "erdi ados" erantzunari dagokionez– inorena ez den lurrean kokatzeko aukera ematen die erantzunari buruzko zalantzak dituztenei edo, kasuan kasuko arrazoiengatik, beren iritzia eman nahi ez dutenei. Proposatu ditugun itemak kontuz hartzekoak direnez gero, erantzuten diguten ikasle askoren adin txikia kontuan hartuta, ikasleenganako jokaera adeitsuagoa iruditu zaigu haiek beren iritzia ematera ez behartzea, agian ez baitzeukaten argi edo behar beste hausnartuta. Horrek, aldi berean, baliozkotu egiten ditu beren iritzia eman dutenen erantzunak.

Era berean, oso datu positibotzat jotzen da euskal ikasleetatik %54k, argiro, torturak eta tratu txarrak edozein egoeratan baztertu egin behar direla uste izatea. Hala eta guztiz ere, kezkaturik adierazi behar dugu ikasleetatik %20 ez direla aurreko adierazpen horren aldekoak.

Bi adierazpen geratzen zaizkigu iruzkinak egiteko. Bata, "Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin": item hori onartzen duten ikasleak (ia %45) gaitzesten dutenak (%23,3) baino gehiago dira; hala ere, azpimarratzekoa da ikasleetatik %25ek baino gehixeagok erdibideko iritzia dutela. Jarraian, galdera horretako bederatzi itemen osagai nagusien faktore-analisia egingo dugu (ONFA), eta analisi horrek argiago erakutsiko digu datu horiek nola interpretatu.

Aztertzeko geratzen zaigun beste itemak errealitate jakin bat jarri du agerian; errealitate horrek gure kezka handitu du eta erakutsi digu Euskadin oraindik ere lan handia egin behar dela giza eskubideak errespetatzearen aldeko balioetan hezteari dagokion guztian. Itemak honela dio: "ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da". Egiaz, item horren alde agertzen diren ikasleak askoz ere gehiago dira,%50etik gertu, baina %24 argi eta garbi horren kontra daude, eta erdibideko puntuan geratu diren %21etik hurbil. Edonola ere, esan behar dugu ETArekiko gaitzespen-maila (141. taulan bildu dugu eta gero azalduko dugu) datuok haztatu gabe egindako interpretaziotik ondoriozta litekeena baino dezente handiagoa dela.

## B) Hiru jarrera ETAren terrorismoaren eta giza eskubideen aurrean

Bederatzi item erabili ditugu eta arestian laburtu ditugu horiei emandako erantzunak. Goraxeago adierazi dugunez, item horien osagai nagusien faktore-analisia egin dugu (ONFA), analisi horrek ikasleen erantzunak beren antzagatik multzokatzen baitizkigu. Ondo uler bedi zer neurtzen den hemen. Datuek erakusten dutenez, ETAren ekintzak onak direla besteek baino neurri handiagoan uste duten ikasleak, adibidez, inor hiltzea gaizki iruditzen zaiela baina kale borroka beharrezko ikusten dutela eta ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar direla besteek baino neurri handiagoan uste duten ikasle berberak dira.

Horri gehitzen badiogu ikasle horiek "batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezkeela" uste dutelako ere nabarmentzen direla, pentsaera jakin baten profila izango dugu, dauzkagun itemetara mugatua, noski. ONFAk erantzunak multzokatzen ditu, ez pertsonak. Azkeneko hori testu honen hirugarren zatian egingo dugu, nahiz eta, normala denez, erantzunak pertsonen erantzunak ere badiren.

Horrela, informatika-trataerak, eskuz ezin egingo litzatekeen edo oso modu korapilatsuan eta motel burutuko litzatekeen lana eginez, hiru faktore edo multzo handitan bildu ditu ikasleek 9 item horiei emandako erantzun guztiak, eta bariantzaren –hau

da, hainbeste ikaslek eman ditzaketen hainbeste erantzunen sakabanatze handiaren– %62,53a bildu du, alajaina[42].

Lehen faktore edo multzoa jada azaldu dugu bi paragrafo gorago, eman dugun adibidearen bidez. Biztanle guztien artean, argiro ETAren ekintzak justifikatzen dituzten edo haien alde dauden ikasleen erantzunak biltzen ditu. Zenbat diren badakigu, itemez item, 135.A, 135.B eta 135.C taulei esker, eta indize orokorra ematen ahaleginduko gara hirugarren zatian. Hemen erantzun motak bildu ditugu, eta jarraian ikusiko dugu zein den erantzun batzuk ala besteak eman dituzten ikasleen profil nagusia.

Laburbilduz, erantzunen lehen faktore edo multzoa dugu. Erantzun horiek ETAren, kale borrokaren eta ETAko kideen giza eskubideak defendatzearen alde egoteagatik nabarmentzen dira. Lehen faktore horri "I. Faktorea" deitu diogu[43]. Ikusi 137. taula.

**137. taula. ETArekin zerikusia duten adierazpenen Osagai Nagusien Faktoriala (Bariantzaren %62,53a azaltzen du)**

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat | ,804 | -,138 | -,113 |
| Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka | ,796 | ,041 | -,040 |
| ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | ,733 | ,266 | -,104 |
| Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke | ,722 | -,105 | ,217 |
| Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | ,028 | ,793 | ,048 |
| Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | ,014 | ,743 | ,188 |
| Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | ,118 | -,050 | ,845 |
| Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | -,045 | ,394 | ,647 |
| ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da | -,378 | ,372 | ,554 |

42 Kontuan har bedi 762 ikaslerekin ari garela lanean, ikasle horiek bederatzi itemi erantzun dietela eta item bakoitzak bost erantzun-aukera dituela; beraz, eman litezkeen 41.148 erantzunetatik, egiaz eman diren 6.958 erantzunekin dihardugu lanean.

43 Gaizki interpreta daitezkeen gehiegizko etiketak kentzearren, eta, gainera, faktoreak etiketatzean ikertzailearen subjektibotasuna nabarmena denez gero, bereizitako hiru faktorez hitz egitea erabaki dugu, besterik gabe: I. Faktorea, II. Faktorea eta III. Faktorea.

II. Faktore edo multzoan biltzen dira giza eskubideak babesten dituztelako besteen gainetik nabarmentzen diren ikasleen erantzunak, ETAren ekintzez harago edo, nahiago bada, ETAren ekintzak alde batera utzita. Erantzunok honako item hauekin guztiz bat etortzeagatik nabarmentzen dira: “pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu” eta “torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan”. Ohar gaitezen erantzun horiek estuki lotuta daudela, halaber, terrorismoaren biktimen alde agertzearekin eta ETA suntsitu behar delako ideiarekin, baina bi item horiek hirugarren batekin elkartuko dira III. Faktorea osatzeko. Azken hori hurrengo paragrafoan azalduko dugu. Baina II. Faktorearekin jarraituz, ohar gaitezen, orobat, faktore hau osatzen duten erantzunak positiboki korrelazioan jartzen direla “ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti” dioen itemarekin, nahiz eta item hori nagusiki I. Faktorean bildu. Laburbilduz, II. Faktorean biltzen dira pertsonen giza eskubideak oro har defendatzeagatik nabarmentzen diren ikasleen erantzunak, pertsona horiek edozein direlarik ere. Jakina, horien barruan sartzen dira terrorismoaren biktimen giza eskubideak. ETAko kideen eskubideak ere hor sartzen direla ulertu dugu. Faktore horri “II. Faktorea” deitu diogu.

III. Faktore edo multzoan biltzen dira ETArekiko gaitzespena eta terrorismoaren biktimen alde agertzea esplizituki azpimarratzen duten erantzunak. Honako hau adierazten duten itemak dira: “gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin”, “ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte”, “ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da”.

Orduan, faktore-analisi horrek hiru multzo, faktore edo ardatz handitan bildu dizkigu –hitz horietako edozein erabiltzen da zientzia lanetan– DBHko euskal ikasleen erantzunak. Multzo batek, I. Faktorea deritzanak, ETAren ekintzak justifikatzea du bereizgarri; gainera, sentikortasun berezia erakusten du ETAko kideen giza eskubideekiko. Bigarren multzoak, II. Faktorea deitu dugunak, pertsona guztien giza eskubideak oro har defendatzea du bereizgarri; horrek berekin dakar ETAren indarkeria gaitzestea eta terrorismoaren biktimen alde agertzea, baita ETAko kideen eskubideak babestearen alde agertzea ere. Hirugarren multzoak, III. Faktore gisa identifikatu dugunak, ETAren indarkeria zeharo gaitzestea du bereizgarri, eta bereziki azpimarratzen du terrorismoaren biktimen giza eskubideekiko arreta.

Beste urrats bat dugu egiteko: zehaztu behar dugu zein den faktore-analisitik ateratzen diren hiru faktore horietako bakoitzean gehiago edo gutxiago agertzeagatik nabarmentzen diren ikasleen profil psikologiko bereizia. Datuak 138. taulan azaltzen dira.

**138. taula. ONFAren batez besteko faktorialak, DBHko ikasleei buruzko oinarrizko irizpide soziodemografikoetan oinarrituta**

| SEXUA | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| Neska | -,1499296 | -,0233757 | -,0361394 |
| Mutila | ,1467201 | ,0228753 | ,0353658 |
| ANOVA Sig. | .000 | .557 | .364 |

| SEXUA | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| **IKASTETXE MOTA** | | | |
| Publikoa | ,1279023 | -,1924988 | -,0889856 |
| Itundua | -,0649947 | ,0978199 | ,0452188 |
| ANOVA Sig. | .020 | .000 | .107 |
| **IKASTURTEA** | | | |
| DBHko 1. maila | -,1450682 | -,1251056 | ,0585793 |
| DBHko 2. maila | ,1371129 | -,1203310 | -,0914702 |
| DBHko 3. maila | -,1454280 | ,2498617 | -,0152519 |
| DBHko 4. maila | -,0132441 | ,2865636 | ,2410770 |
| ANOVA Sig. | 0,10 | 0.00 | .049 |
| **LURRALDE HISTORIKOA** | | | |
| Araba | ,0643798 | -,0169106 | -,2412636 |
| Bizkaia | -,1007328 | ,0463846 | ,1353239 |
| Gipuzkoa | ,1489887 | -,0774267 | -,0929315 |
| ANOVA Sig. | .018 | .397 | .001 |
| **HIZKUNTZA EREDUA** | | | |
| A | -,2554112 | ,1319685 | ,0884103 |
| B | -,0128207 | ,0050893 | ,2016079 |
| D | ,1940042 | -,0992111 | -,1993313 |
| ANOVA Sig. | .000 | .048 | .000 |
| **Zure etxean 'ETAren indarkeria onartezina da' esaten da** | | | |
| Askotan | -,2426420 | ,1760425 | ,3081580 |
| Batzuetan | ,0786629 | ,0465323 | -,1730413 |
| Gutxitan | ,2153191 | -,0106521 | -,0318949 |
| Inoiz *ez* | ,2327529 | -,3204678 | -,3405982 |
| ANOVA Sig. | .000 | .000 | .000 |

Taula hori honela interpretatu behar da: informatika trataerak "0" puntuan kokatu du faktore bakoitza osatzen duten itemen multzoari ikasleek emandako erantzunen balioa. Horren ondorioz, I. Faktorean adibidez, nesken kasuan (-.15) balioa eta mutilenean (+.15) balioa aurkitzen baditugu, horrek esan nahi du mutilak neskei nagusitzen zaizkiela I. Faktorea osatzen duten itemen multzoan. Biztanleria osoa hartuta, mutilak I. Faktorearen esanahiaren alde agertzen dira (+.15), eta neskak kontra (-.15). Zenbat eta handiagoa izan balio bakoitza, orduan eta sendotasun handiagoa du aztertutako faktorean.

Behean agertzen den zifra ["ANOVA Sig." (esanahiaren laburdura)] bariantza aztertzerakoan sarritan erabiltzen den estatistika-kontzeptua da eta horrek adierazten digu zenbaterainoko ziurtasunez esan daitekeen erlazionatutako aldagaien artean lotura dagoela, kasu honetan, sexuaren eta I. Faktorearen artean. Ikusten dugunez, balioa .000-koa da (milatik 999ko ziurtasuna, erraz esatearren). Hori da ikerlanetan exijitu ohi den gehienezko zifra, lotura dagoela ziurtatzeko. Normalean ulertzen da .05 zifrara arte (ehuneko 95eko ziurtasuna) aldagaien artean estatistika-lotura dagoela esan daitekeela.

ANOVA zifra .05etik gorakoa denean, lotura hori, estatistikaren ikuspuntutik, ez dela nahikoa uste izaten da, edo ez dagoela loturarik, zifra altuetara iristen bada.

Aurreko guztiaz zera esan daiteke, hitz sinpleagoak erabiliz, lehen aipatu dugun adibidean: mutilak neskei nagusitzen zaizkiela ETAren, kale borrokaren eta abarren alde agertzean. Datuen arabera, ETAren alde egitea gehiago da mutilen kontua neskena baino. Haatik, II. eta III. Faktoreetan ez dago alde nabaririk mutilen eta nesken artean.

Horrelako analisietara ohituta ez dagoen irakurleak tauletan irakur ditzake gehien interesatzen zaizkion alderdiak. Emaitza nagusiak jakinaraziko ditugu, besterik gabe.

Ikastetxeen titulartasunari buruz, hauxe ikusi dugu: ikastetxe publikoetan gehixeago onartzen eta justifikatzen dira ETAren ekintzak (I. Faktorea) eta sentikortasun gutxiago dago, argi eta garbi, pertsonen giza eskubideak babesteari dagokionez, pertsona horiek edozein izanda ere (II. Faktorea). Aitzitik, berriro ere, ez dago alde garrantzitsurik III. Faktorean.

Ikasleak zein urtetan edo mailatan ikasten ari diren begiratuta, egiaztatu dugu I. Faktorean ia ez dagoela alderik ikasturtearen arabera (orduan, ezta adinaren arabera ere; beraz, ez dugu kopiatuko adinen araberako taula). Hau da, ETAren eta kale borrokaren aldeko jarrera ez da aldatzen ikasturte batetik bestera, adin batetik bestera (12 eta16 urte bitartean; adin hori dute azterlan honetako gehienek). Datu hori arras garrantzitsua da, izan ere, adierazten digu ETAren ekintzen aldeko jarrera hori haurtzarotik datorrela, nerabezaroaren aurreko aldian eta lehen nerabezaroan ia ez baita aldatzen (Anova .10). Horrek guztiak pentsarazten du ETAren aldeko jarrera familian bertan sortzen dela; hori aurrerago egiaztatuko dugu, beste analisi-mekanismo batzuen bitartez. Datu hori are garrantzitsuagoa bihurtu da II. III. Faktoreekin ez dela gauza bera gertatzen ikusi dugunean.

Ohar gaitezen, egiaz, nola giza eskubideekiko sentikortasuna (II. Faktorea) areagotuz doan maila batetik hurrengo mailara igotzean (hortaz, adinarekin ere bai) modu lineal eta argian gainera (Anova .000). Horren antzeko zerbait gertatzen da III. Faktorearekin, baina hemen DBHko 3. mailatik 4. mailara igaro arte itxaron behar da jauzi hori ikusteko (hortaz, Anova .05). Alegia, ETAren aldeko jarrera lehenagotik dator eta ez da adinarekin aldatzen; beraz, oso errotuta dago. Aitzitik, eskola-umea helduz doan neurrian areagotu egiten da haren giza eskubideekiko sentikortasuna eta "ETAri ez" adierazteko jarrera. Gure iritziz, datu hori, garrantzitsua izateaz gain, argigarria ere bada, eta, neurri batean behintzat, ongi etorria. Izan ere, argitzen du ez direla gauza bera I. Faktorea berrestea eta horri eustea (gogoratu, "haren ekintzak onak dira Euskadirentzat", "kale borrokako ekintzak beharrezkoak dira", "batzuetan terrorismoa justifikatuta dago", eta abar) eta III. Faktorearen aldeko jarrerak hartzea (gogoratu, "ETAk sortzen du giza eskubideen urratzerik larriena", "ETA suntsitu beharra dago") eta giza eskubideen unibertsaltasunaz kontzientzia hartzea. Lehenbiziko kasuan, badirudi haurtzarotik emana datorren zerbait dela (beraz, familiarengandik); bigarrenean, berriz, urteak eta hezkuntza-zikloa aurrera joan ahala hartu diren jarrerak. Adieraz al dezakegu dagoeneko, hipotesi gisa, hezkuntza-lanak, hitzaren zentzurik zabalean (eskolak, hedabideek, familiek, erakunde-ahaleginek eta abar egindakoak)

"ETAri ez" esateko jarreran eta giza eskubideen unibertsalizazioan limurtzeko eta eragiteko ahalmena duela, eta, aldiz, jada ETAren aldekoak direnengan ahalegin horiek ez dutela inolako eraginik? Horrelako zerbait badagoela uste dugu, eta aurrerago sakonduko dugu ideia horretan.

Lurraldeei erreparatuta, ikasleak bizi diren tokiak aztertuz, beste azterlan batzuk kontuan hartuz espero zitezkeen hainbat diferentzia egiaztatu ditugu, baina, hala ere, ez dago alde handiez hitz egiterik. Egiaz, Gipuzkoak erakusten du garbiki I. Faktorearekiko aldekotasunik handiena, eta Bizkaiak gutxiena, baina alde izugarririk gabe (Anova .018). Ez dago batere alderik II. Faktorean, eta hirugarrenean, hasieran behintzat harrigarria den datua aurkitu dugu: Arabak III. Faktorearen kontrako jarrera erakutsi du.

Horrek berriro erakusten digu ez direla gauza bera ETAren ekintzen, kale borrokaren eta oro har terrorismoaren alde agertzea (I. Faktorea, non Araba ez baita ezertan nabarmentzen, biztanleriaren batez bestekoari jarraiki) eta ETA gaitzestea (hor Arabak kontrako jarrera erakutsi du, biztanleriaren batez bestekoaren aldean). Ezer esan baino lehen, egin dezagun beste urrats bat beste aldagai batekin, ikasketak zein hizkuntza-eredutan egiten dituzten oinarri hartuta. Hor ere antzeko zerbait aurkituko dugu.

Hasteko, ikasleen ikasketetarako hizkuntza-ereduen arabera egiten den bereizketak erakusten digu aldagai bereizle baten aurrean gaudela.

Ikasketak A ereduan egiten dituztenek argiro nabarmentzen dira (Anova .000) ETA gutxien justifikatzeagatik eta, baita ere, baina ez hain argiro (Anova .048), guztien giza eskubideekiko sentikortasunik handiena erakusteagatik. Jakina, ikasle desberdinez hitz egiten ari gara bi kasu horietan, nahiz eta biak A ereduan ikasten aritu. III. Faktorean, A ereduan ikasten dutenak biztanleriaren batez bestekoan kokatzen dira.

B ereduan ikasten ari diren ikasleak portzentajeetan nabarmentzen dira III. Faktorean, ETA eta beraren ekintzak indartsuki gaitzesten dituztelako. Bestalde, D ereduan ikasten ari direnen artean, portzentaje esanguratsu bat, beste bi ereduetako ikasleena baino handiagoa, I. Faktorean kokatzen da, alegia, ETAren ekintzak eta kale borroka ez gaitzesteagatik bereizten den horretan, eta, aldi berean, III. Faktorearen kontra agertzen da eta II. Faktorean zorrozki biztanleriaren batez bestekoan kokatzen da.

Hemen jada aurreratzen dugu atal honen azken puntuan ikusiko duguna: familiaren eragina. 138. taularen azpialdean agertzen diren datuak dira. Etxean "ETAren indarkeria onartezina da" esaten denean, ikasle batzuk garbiki III. Faktorearen alde jartzen dira. Etxean baieztapen hori egiten ez denean, ikasleak I. Faktorearen alde jartzen dira, aurrekoan bezain argi. Orobat, etxean "ETAren indarkeria onartezina da" sarritan esateak korrelazio positiboa du II. Faktorearekin, eta alderantziz, inoiz esaten ez denean, giza eskubideen defentsa ahuldu egiten da, galanki gainera.

Ez dago dudarik: familiako sozializazioa funtsezkoa da gai hauetan.

Ikasleen erantzunen profil soziodemografikoen laburpena honela egin liteke, hiru multzo handitan bilduta:

- Jarrerak argiagoak eta zehaztuagoak daude ETAren alde agertzeari edo ETA justifikatzeari buruzko iritzia ematerakoan. I. Faktorea osatzen duten itemez ari gara: ETA eta kale borrokaren ekintzak onak dira Euskadirentzat, batzuetan terrorismoa justifikatuta dago, eta ETAko presoen giza eskubideak errespetatu behar dira. Item horiekin konformeago daude mutilak, ikastetxe publikoetan ikasten dutenak, D ereduan ikasten dutenak eta Gipuzkoan bizi direnak, eta, aldiz, adina edo ikasturtea ez dira bereizleak. Jarrera horrekiko adostasunik gutxiena erakusten dutenak A ereduko ikasleak dira, neskak eta Bizkaian bizi direnak.

- III. Faktorean ETAren kontrako jarrera agertzen dutenen erantzunak biltzen dira, honako adierazle hauekin: eskubide-urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin, ETA suntsitu beharra dago eta biktimei lagundu behar zaie. Faktore horren aurrean, iritziak ez daude hain zehaztuta. Adierazpen horiekin ados egoteagatik nabarmentzen dira DBHko 4. mailako ikasleak, B hizkuntza eredukoak, eta Bizkaian bizi direnak. Ez daude ados, ordea, arabarrak eta D ereduan ikasten dutenak, arestian hipotesi gisa azaldu ditugun arrazoiengatik.

- Azkenik, II. Faktorean –giza eskubideen unibertsalizazioarekiko sentikortasuna– nabarmentzekoak dira, beraien adostasun mailagatik, DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleak, A eredukoak. Aitzitik, ikastetxe publikoetan ikasten ari direnek erakusten dute sentikortasun gutxiena. Ez dira bereizleak ez sexua, ez biziterria ere.

- Familiako sozializazioa eragile nagusietako bat bezala agertzen da ikasleek gai honetan dituzten iritziak azaltzeko orduan. Egiaz, familiako sozializazioa da hemen azterturiko faktore guztietatik erabakigarriena.

### C) ETA gaitzesteari buruzko eskala ordinal baten bila

Aurreko puntuan, osagai nagusien faktore-azterketan oinarrituta, ETArekiko jarreren arabera ikasleek zein ezaugarri dituzten jorratu dugu. Baina aztertzeko teknika horri jarraiki, ez dago esaterik (estatistika malabarismoa egin ezean) zenbat ikaslez hitz egiten ari garen kasu bakoitzean. Hemen helburu hori lortu nahi dugu: ahalik eta zehatzen zenbatzea ETAren terrorismoaren aldeko jarrerak eta gaitzespenak. Zehazkiago, ETArekiko agertzen duten gaitzespen mailaren arabera euskal ikasleak ordenatzen ahaleginduko gara.

Horretarako, ikasleen tipologia moduko zerbait eratuko dugu, ETAri buruzko adierazpen batzuekin zenbateraino dauden ados oinarritzat hartuta. Galdera-sortaren 57. galderari helduz –horrekin egin dugu Osagai Nagusien Faktoriala– eta faktore-analisiaren emaitzan oinarrituta, bederatzi itemetatik seirekin lan egingo dugu, inolako zalantzarik gabe ETAren ekintzekin zerikusia duten seiekin. Ez ditugu hartu, lehenik, faktore-analisian erdibideko puntuan kokatzen ziren bi itemak, hau da, “pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu” eta “torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan”. Era berean, alde batera utzi dugu “ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti” zioen itema, bada baieztapen hori ETAren ekintzez edozer pentsatuta ere egin daiteke. Egiaz, faktore-analisiak item horretan ETAren ekintzak gaitzesten ez dituzten ikasleak nabarmentzen direla erakutsi badigu ere, ikusi dugu II. Faktorearen aldeko jarrera

dutenak ere item horrekin ados daudela. Beraz, anbiguotasun oro kentzeko asmoz, gainontzeko sei itemak hartu ditugu, dudarik gabe ikasleek ETAren ekintzez, kale borrokaz eta horien ondorioez (besteak beste, sortzen dituen biktimez) egiten duten balorazioari buruzkoak.

Azken batean, sei item hartu ditugu DBHko euskal ikasleek ETAren terrorismoarekiko erakusten duten onarpen- edo gaitzespen-indizea osatzeko. 139.A eta 139.B tauletan agertzen direnak dira.

**139.A Taula. Adierazpen hauekiko adostasun-maila**

| ADOSTASUN MAILA | Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | ETA talde terrorista da eta biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da | Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 35,1 | 33,9 | 26 |
| Nahiko ados | 24,2 | 14 | 18,7 |
| Erdi ados | 16,4 | 20,8 | 25,7 |
| Ez oso ados | 6,8 | 10,4 | 9,2 |
| Batere ados ez | 11,1 | 13,6 | 14,1 |
| Ed/Ee | 6,4 | 7,3 | 6,3 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**139.B taula. Adierazpen hauekiko adostasun-maila**

| ADOSTASUN MAILA | Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke (Eskalaren zentzua aldatu da) | Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka (Eskalaren zentzua aldatu da) | ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat (Eskalaren zentzua aldatu da) |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 12,2 | 9,4 | 5,5 |
| Nahiko ados | 11,9 | 8,3 | 6 |
| Erdi ados | 27 | 20 | 18,1 |
| Ez oso ados | 16,6 | 18,3 | 16,8 |
| Batere ados ez | 24,8 | 37,3 | 47,1 |
| Ed/Ee | 7,5 | 6,7 | 6,6 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

Ikus daitekeenez, A taulako itemek ETAren ekintzekiko gaitzespena erakusten dute eta B taulakoek, aldiz, aldeko jarrera edo justifikazioa. Sei itemekin laburpen-eskala egin nahi bada, ezinbestekoa da seiak zentzu berean ordenatuta egotea. Horixe egin

dugu B taulako itemen zentzua aldatuz[44]; horrela, item bakoitzarekin ados egoteak esan nahiko du ETA eta beraren ekintzak gaitzesten direla.

Azkenean, taula guztietako emaitzak batuz, honako ibilbidea izango genuke: goiko muturretik hasita, 30etik (ikaslearen erantzun guztiak argiro ETAren kontrakoak dira eta hartutako sei itemekin "oso" ados daude, %100ean: 5 x 100, sei bider/100 = 30) beheko muturrera, 6ra (erantzun guztiak ez daude "batere" ETAren kontra; hortaz, 1 x 100, sei bider/100 = 6). Bestela esanda, sei item dituen eskala batukorra eraiki dugu: eskala horren gutxienezko balioa 6 izango litzateke (ikaslea item bakoitzaren guztiz kontra egongo litzateke eta, orduan, ETArekiko gaitzespena txikiena izango litzateke) eta gehienezko balioa, berriz, 30 (ikaslea erabat ados egongo litzateke sei itemekin eta, beraz, ETAren ekintzekiko gaitzespena handiena izango litzateke).

140. taulan zehatz-mehatz transkribatu ditugu ETArekiko gaitzespena erakusten duten zifrak, eta ikasleen erantzunak honela ordenatu ditugu: ETA gutxien gaitzesten dutenetatik (eskalaren 6 puntua) gehien gaitzesten dutenetara (30 puntua).

**140. taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala ordinal zehatza**

| ETA GAITZESTEARI BURUZKO ZIFRAK | DBHko IKASLEAK | |
|---|---|---|
| | Kopuru absolutua | Portzentajeak |
| 6,00 (Gaitzespenik txikiena) | 2 | ,3 |
| 8,00 | 2 | ,3 |
| 9,00 | 1 | ,1 |
| 10,00 | 8 | 1,2 |
| 11,00 | 2 | ,3 |
| 12,00 | 5 | ,7 |
| 13,00 | 7 | 1,0 |
| 14,00 | 19 | 2,7 |
| 15,00 | 14 | 2,0 |
| 16,00 | 24 | 3,5 |
| 17,00 | 18 | 2,6 |
| 18,00 Balio ertaina | 96 | 13,9 |
| 19,00 | 49 | 7,1 |
| 20,00 | 49 | 7,1 |
| 21,00 | 34 | 4,9 |
| 22,00 | 49 | 7,1 |
| 23,00 | 46 | 6,6 |
| 24,00 | 41 | 5,9 |
| 25,00 | 43 | 6,2 |
| 26,00 | 69 | 10,0 |

44 ETAren ekintzak Euskadirentzat onak direla dioen itemarekin oso ados dauden ikasleetatik %5,5, esate baterako, ETAren ekintzak Euskadirentzat onak "ez" direla dioen itemarekin batere ados *ez* dauden ikasleen %5,5 bihurtzen da.

| ETA GAITZESTEARI BURUZKO ZIFRAK | DBHko IKASLEAK | |
|---|---|---|
| | Kopuru absolutua | Portzentajeak |
| 27,00 | 34 | 4,9 |
| 28,00 | 21 | 3,0 |
| 29,00 | 22 | 3,2 |
| 30,00 (Gaitzespenik handiena) | 37 | 5,3 |
| Guztira | 691 | 100,0 |
| ED/EE | 71 | |
| ETA gaitzesteari buruzko eskalako batez bestekoa: 21,75 (6 eta 30 bitartean) | | |

Taula honela irakurri behar da: gure sei itemen arabera, bi ikaslek gaitzespenik txikiena erakutsi dute ETAren ekintzekiko (eskalako 6 puntua), eta, beraz, ez daude “batere ados” proposaturiko sei itemetako bakoitzarekin. Ikasleetatik %0,3 dira horiek. Kontrako aldean, 37 ikaslek gaitzespenik handiena erakutsi dute ETAren ekintzekiko (eskalako 30 puntua), bada “oso ados” daude proposaturiko sei itemekin. DBHko ikasleetatik %5,3 dira horiek[45]. Eta horrela balio ertainetarako.

Egia esan, taula hori zehatzegia da. Ikasleen erantzunak maila ezberdinetan multzokatu beharra dago. Maila horiei esker jakingo dugu zenbatekoa den ETArekiko gaitzespen-maila, zenbat ikaslek gaitzesten duten ETA eta nolako sendotasunaz. Hasteko, esan behar da gai honetan egiten den edozein multzokatze arbitrario samarra dela. Zer puntutatik aurrera esan daiteke ETArekiko gaitzespena erabatekoa dela? Eskalako 30 puntuan bakarrik, hau da, ikasleetatik %5,3k? Printzipio horren arabera, esango al genuke, halaber, ETAren guztiz aldekoak gure eskalako sei puntu lortu dituzten ikasleak direla, alegia, %0,3? Hori onartuta ere, zer egingo dugu ikasleetatik %94,4rekin? Nola ordenatuko ditugu ETArekiko erakusten duten gaitzespen handiagoaren edo txikiagoaren arabera? Aukera bakarra dago: 6tik –ETArekiko gaitzespenik batere ez– 30era –ETArekiko erabateko gaitzespena– bitarteko eskalan mozketak egin behar dira, eta mozketa horiek non egin erabaki. 140. taula eskaintzen dugu, izan litezkeen balio guztiak zehazki azaltzen dituena, irakurleak egoki irizten dien tokietan mozketak egin ditzan.

Luzaroan hausnartu eta hainbat proba egin ondoren, ikasleak zorrozki estatistika-irizpideen arabera mailakatzea erabaki dugu. Ikusi dugunez, eskala 6 eta 30 balioen artean mugitzen da, biak barne direla. Ibilbidea 4 zati berdin-berdinetan zatitu dugu, erdiko puntuan balio zentralari –18ari– eutsiz. Zifra horren azpitik daudenak ETArekiko gaitzespen txikienaren muturrean daude (edo aldeko jarrera edo justifikaziorik handieneko puntuan, nahiz eta ez duen gauza bera esan nahi). Aldiz, 18tik gorakoak ETArekiko gaitzespenik handieneko muturrean daude. Eta inorena ez den lurrean geratzen dira 18. puntuan daudenak, bada adierazten du “erdibidean daudela” ETAren alde ala kontra agertzean (barkamena eskatzen dugu gauzak esateko modu horregatik, baina argitasunik eta ulerterraztasunik handiena lortu nahi dugu, zenbaki eta estatistiketan

45 Item guztiei erantzun dietenetatik, izan ere, 762tik 71k ez diote erantzun itemen bati eta, beraz, analisitik kanpo geratu dira.

aditua ez den irakurlea gogoan). Era berean, mutur bakoitza bi maila berdin-berdinetan banatu dugu, ETArekiko gaitzespen ala justifikazio maila handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Horrela, bost maila lortu ditugu, horietatik lauk eskalako balio kopuru bera hartzen dute beren baitan, sei kasu bakoitzean, eta batek, balio zentralak soilik, 18 puntua. Hau da, eskalako ibilbidea lau kuartiletan banatu dugu, eta erdian gorde dugu eskalako batez besteko balioa. 141. taulan azaldu ditugu eta, maila bakoitzean, beren baitan hartutako ikasleen kopuru absolutua eta portzentajezkoa adierazi ditugu.

Ikus daitekeenez, bigarren zutabean, irakurleari lana errazteko, 6tik 30erako eskalako balioak 0tik 10erako eskala ohikoagora aldatu ditugu. Hortaz, 142.A taulatik 142.E taulara, 0tik 10erako eskala dezimala bakarrik azaldu dugu.

**141. taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasleen iritziak lau kuartiletan banatuta eta eskalako ibilbideko estatistika-puntu zentrala hartuta**

| ETA gaitzestea. Eskala-balioak 6-30 eskalan | 0-10 eskalara aldatzea (gaitzespenik handiena: 10) | IKASLE KOPURUA | IKASLEEN PORTZENTAJEA |
|---|---|---|---|
| 6tik 11ra (%25 txikiena) | Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 15 | %2,2 |
| 12tik 17ra (%25 balio ertainaren azpitik) | Gaitzespen gutxi (2,5- 5,0) | 87 | %12,6 |
| 18 puntua (Balio ertaina) | Gaitzespen ertaina (5,0) | 96 | %13,9 |
| 19tik 24ra (%25 balio ertainetik gora) | Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 268 | %38,8 |
| 25etik 30era (%25 handiena) | Oso gaitzespen handia (7,5 -10) | 225 | %32,6 |

Gure ustez, irakurketa, berez, aski argia da. Hartutako irizpidearen arabera –zorrozki estatistika irizpidea–, baterako eskala batukorrean honako hau izango genuke: ikasleetatik %2,2k oso gutxi gaitzesten dute ETA, eta %12,6k gutxi; orduan, euskal ikasleen artean %14,8 ETA gaitzestearen kontra daude, argiro. Erdibidean, %13,9 daude inoren lurrean, eta %71,4, berriz, ETA garbiki gaitzesten duen muturrean (azken hauetan, %38,8k ETArekiko gaitzespen maila handia erakusten dute eta %32,6k oso gaitzespen maila handia).

ETA gaitzesten ez duen ikasle bakar bat egoteak kezkagarria izan beharko luke guretzat. ETA dudarik gabe gaitzesten ez duten %15 inguru eta erdibidean kokatzen diren %14 egonda, kezka are handiagoa da. Jakina, gehienak, hamarretik zazpi baino gehiago, ETAren kontra daude, zalantza barik. Azken zifra baliagarria izan bedi euskal gazte gehienak ETAren aldekoak direla dioten iritzi batzuk indargabetzeko. Ikus daitekeenez, euskal nerabeen gehiengo kualifikatua, hamarretik zazpi baino gehiago, ETAren kontra agertzen da argi eta garbi. %14 inguruko talde batek jarrera anbibalenteak ditu eta, azkenik, eta hau benetan kezkagarria da, beste %14k ez du ETA gaitzesten, zalantzarik gabe. Kuantitatiboki hori esan daiteke orain, azterketa honen arabera, DBHko euskal ikasleek ETArekiko erakusten duten gaitzespen mailari buruz.

ETA gaitzesteari buruzko bost maila horietan tipologizatutako ikasleen oinarrizko profil soziodemografikoa ia guztiz bat dator faktore-analisian ikasleen hiru multzoak aztertuz ikusi dugunarekin. Irakurleei hori erakusteko, zenbait taula ekarri ditugu hona, hain zuzen, 142.Atik 142.Era zenbakitu ditugunak.

**142.A taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, sexuaren arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | SEXUA | | |
|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | ,9 | 3,5 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 12,4 | 12,8 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 13,0 | 14,8 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 37,9 | 39,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 35,8 | 29,3 | 32,6 |
| N | %691,100 | | |

Neskek mutilek baino zertxobait irmoago gaitzesten dute ETA. Nesken artean %73,7 argi agertzen dira ETAren kontra. Zifra hori %69ra jaisten da mutilen kasuan. Horren antzeko aldea ikusi dugu gaitzespenik gutxieneko mailan ere: nesketan %0,9, baina mutiletan %3,5ra igotzen da.

**142.B taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasleek beren ikasketak egiten dituzten ikastetxe-motaren arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | ESKOLA SAREA | | |
|---|---|---|---|
| | Publikoa | Itundua | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 2,2 | 2,2 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 13,4 | 12,2 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 18,2 | 11,7 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 45,0 | 35,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 21,2 | 38,3 | 32,6 |
| N | %691,100 | | |

Ikastetxe motari begiratzen diogunean –publikoa edo itundua–, ETArekiko gaitzespen maila handietan aurkitzen ditugu alde nagusiak: itundutako ikastetxea nabarmentzen da, ETArekiko gaitzespen maila oso handia erakusteagatik. Halaber, itundutako ikastetxeetako ikasle gutxiago kokatu dira gaitzespen ertaineko puntuan. Hala ere, ETA gutxien gaitzesten duten puntuetan (beraz, berriro diogu, ziur asko ETA mantendu dezaketenak) ia ez dago alderik bi irakaskuntza-sare horien artean.

**142.C taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikaslea DBHko zein mailatan dagoen kontuan hartuta (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | DBHn IKASTEN ARI DA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | 4. maila | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 1,9 | 2,5 | ,8 | 3,4 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 13,1 | 15,7 | 8,7 | 5,7 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 13,8 | 13,2 | 15,9 | 13,8 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 30,0 | 45,9 | 34,1 | 35,6 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 41,3 | 22,6 | 40,5 | 41,4 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | | |

Ikasmailaren (beraz, adinaren) eta ETA gaitzestearen arteko korrelazioak (142.C taula) hainbat gorabehera ditu, baina bada nabarmendu beharreko datu positibo bat: oro har, ikasketetan aurrera egin ahala (baita adinean ere), areagotuz doa ETArekiko gaitzespena. Datu hori ona da, bada, jakina, adinean aurrera egin ahala, arrazoitutako hautabideek garrantzi handiagoa hartzen dutela uste da. Korrelazio hori ez da garbia, DBHko bigarren mailan inflexio bat gertatzen delako. Horri baino garrantzi gutxiago eman diogu DBHko 4. mailako ikasleetatik %3,4k ETArekiko gaitzespenik txikiena agertzeari, izan ere, zenbaki absolutuetan ikasle bat gutxiago egongo balitz, gaitzespen ertainaren inguruan egongo litzateke.

**142.D taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikaslea bizi den lurraldearen arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | ZEIN LURRALDETAN BIZI DEN | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 2,4 | 1,3 | 3,6 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 14,2 | 9,9 | 16,7 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 14,2 | 12,9 | 15,6 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 44,9 | 35,2 | 41,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 24,4 | 40,6 | 22,4 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | |

Lurralde historikoei erreparatuz, emaitzek erakutsi digute Gipuzkoa dela ETA gaitzesten ez duen taldeak zale gehien dituen lurraldea, eta Bizkaia gutxien dituena. Araba bien artean kokatzen da.

**142.E taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasketak zein hizkuntza-eredutan egiten dituzten kontuan hartuta (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | HIZKUNTZA EREDUAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 0,5 | 1,5 | 3,8 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 7,7 | 13,3 | 15,6 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 10,6 | 10,7 | 18,4 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 34,8 | 34,7 | 44,4 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 46,4 | 39,8 | 17,7 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | |

Azkenik, ikasleek beren ikasketak egiten dituzten hizkuntza-ereduen eta ETA gaitzestearen arteko korrelazioak hauxe erakusten digu: A ereduan (gaztelaniazko eskolatzea, euskal hizkuntza irakasgaia izan ezik, hori euskaraz ematen baita) ikasten dabiltzanen artean aurkitzen dugu ETArekiko gaitzespenik handiena, eta, aldiz, D ereduan (euskarazko eskolatzea, hizkuntza izan ezik, hori gaztelaniaz ematen baita) ikasten dutenak nabarmentzen dira ETA gutxien gaitzesteagatik. Azkenik, B eredukoak (erdia euskaraz, erdia gaztelaniaz) gaitzespen ertaineko puntuan kokatzen dira.

Laburbilduz, DBH ikasten ari diren hamar ikasletatik zazpik baino gehiagok argiro gaitzesten dute ETA. %14k ez dute iritzirik ematen edo jarrera anbiguoa dute, eta gainontzeko %14a, hori ere argiro, ETA gaitzestearen kontra agertzen da. Hona hemen azken horien profila, alegia, esaldiari buelta emanez, ETAren proposamenekin konformeen egongo liratekeen ikasleena (nahiz eta badakigun, zehazki hitz eginez, ez gaitzestea eta aldeko agertzea edo onartzea ez direla gauza bera): DBHko 2. mailako mutila, Gipuzkoan bizi dena eta D hizkuntza-ereduan ikasten dabilena. ETA gehien gaitzesten duen ikaslearen profila, berriz, honako hau: neska, Bizkaian bizi dena, DBHko 3. maila edo, seguruenik, 4. maila ikasten dabilena, itundutako ikastetxe batean, A hizkuntza-ereduan.

## D) Sozializatzeko hiru eragilek zeharka duten garrantzia

Galdera-sortan hiru galdera berdin-berdinak egin ditugu, baina hiru testuinguru desberdinetan (26, 31 eta 35. galderak). Horien bitartez neurtu nahi da, zeharka, ea nerabeak sozializatzeko hiru eragilek edo espazio klasikok eraginik ba ote duten. Familiaz, eskolaz eta lagun taldeaz hitz egiten ari gara.

Espazio horiek eraginik ba ote duten zeharka neurtu nahi dugula esan dugu, izan ere, ikasleek erantzun behar dute ea beren “etxean”, “eskolan” edo “lagun taldean” zenbait gaiez hitz egiten den eta, zehazki, horietaz nola hitz egiten den. Galderak honela idatzita daude: “Zure etxean (eskolan, lagun taldean) esaten da...”. Eta jarraian, bederatzi adierazpen egiten dira, giza eskubideekin edo etorkinekin, ezinduekin, homosexualekin, emakumeekin eta ETArekin zerikusia dutenak. Kasu bakoitzean galdetzen zaie ea baieztapen horiek nolako maiztasunaz egiten diren hiru eremu horietan (familia, eskola eta lagunak), hau da, ea adierazpen zehatz horiek askotan, batzuetan, gutxitan esaten diren, edo inoiz ez diren esaten.

Ikusten denez, kontrolatu nahi da bederatzi adierazpen zehatz (orientazio garbia duten adierazpenak, irakurtzean egiaztatzen denez) zenbateraino agertzen diren etxeko, eskolako eta lagunen arteko solasaldietan. Adierazpenok batere neutroak ez direnez gero, zeharka ikusten dugu zein balorazio nagusitzen den hiru eremu horietako bakoitzean. Azken batean, bi gauza kontrolatzen ditugu: gai jakin batzuk etxean, eskolan eta lagunartean nolako maiztasunaz agertzen diren eta, zeharka, hiztunek zer-nolako iritzia duten hiru eremu horietako bakoitzean aipatutako gaiez.

### – Familiako, eskolako eta lagunen arteko solasaldietan bost gizatalde zehatz aipatzen ote diren eta horietaz zein iritzi agertzen diren

Lehenbizi, laburki adieraziko ditugu bederatzi adierazpen horietan lortutako emaitzak, eta, bigarren, zehazkiago azalduko ditugu ETAri dagozkion bi galderetarako erantzunak, hori baita txostenaren atal honetako oinarrizko helburua. Ikusi 143. taula.

**143. taula. Etxean, eskolan eta lagunartean nolako maiztasunaz hitz egiten den gai jakin batzuen gainean (familian aipatzen diren batez besteko maiztasunaren arabera ordenatuta, goitik behera)**

| ETXEAN, ESKOLAN, LAGUNARTEAN, NOLAKO MAIZTASUNAZ EGITEN DIRA HONAKO BAIEZTAPEN HAUEK | BATEZ BESTE 4: ASKOTAN; 1: INOIZ EZ | | |
|---|---|---|---|
| | Etxean | Eskolan | Lagunartean |
| Ezinduei bizimodu normala egitea erraztu behar zaie | 3,12 | 2,83 | 2,43 |
| Homosexualak pertsona normalak eta arruntak dira | 2,98 | 2,66 | 2,46 |
| ETAren indarkeria onartezina da | 2,77 | 2,30 | 2,25 |
| Etorkinek herrialdea aberasten dute | 2,03 | 1,99 | 1,82 |
| Etorkinek lana kentzen digute, laguntza gehiegi jasotzen dituzte | 1,85 | 1,84 | 1,80 |
| Ezinduek ez dute lanik egin behar | 1,66 | 1,71 | 1,68 |
| Badira ETAk jarduteko arrazoiak | 1,59 | 1,69 | 1,74 |
| Emakumeek ez lukete erantzukizun handiko lanik egin behar (politika, esaterako), beren seme-alabak zaindu behar dituztelako | 1,45 | 1,59 | 1,54 |
| Homosexualek ez lukete ezkondu behar, ezta seme-alabarik izan ere | 1,44 | 1,70 | 1,62 |

143. taularen gaineko iruzkina laburra izango da, bada lan honen beste zati batean aztertuta dago. Orain komentatzera goazen sailkapenean kokatzen dira aipatu ditugun lau gizatalde horiei buruzko datuak –zenbateraino hitz egiten den talde horietaz, eta zenbateraino onartzen diren–.

Lehenik, arreta berezirik merezi ez duten diferentzia txiki batzuk alde batera utzita, familian gai horietaz nolako maiztasunaz hitz egiten den kontuan hartuta taulan eskaintzen dugun sailkapena mantendu egiten da erreferentzia-eremua eskola eta lagunartea direnean ere. Gainera, eskuarki (salbuespen bakarrarekin), famili barruan hitz egiten da gehien gai horietaz, bereziki aipatutako taldeen giza eskubideak ontzat jotzen dituzten adierazpenez mintzo garenean. Beste azterlan batzuetan ere islatzen da ikasleek familia hartzen dutela sozializatzeko eragile nagusitzat. Lan honek ideia hori egiaztatu du.

Berehala erantsi beharra dago egiaztapen horrek (zenbaki hutsak, datuak) ez duela adierazten famili barruan hainbat talderen giza eskubideak errespetatzeko balio positibo gehiago dagoenik. Hemen ez da esaten familiak eskolak edo lagun taldeak baino giza balio gehiago ematen duenik. Beste zerbait esaten da: ikasleei balio positiboez maizen zein eremutan hitz egiten den galdetzen zaienean, lehen tokian eta argiro, “familian” erantzuten dutela.

Horrexegatik adierazi dugu honako hau: nerabeen esanean, familian aurkitzen dituzte bizitzan nondik nora jo jakiteko gauzarik garrantzitsuenak. Orain gehiago dakigu. Orain badakigu gauza horiek gehienetan giza eskubideak errespetatzearen aldeko balio positiboak direla. Egiaz, ez familia guztietan, eta, kasu askotan, ez nahiko genukeen portzentajeetan, baina ikasleek batik bat famili barruan bereganatzen dituzte, dudarik gabe, giza eskubideak errespetatzearen aldeko balio positiboetan aurrera egiteko oinarriak.

“Kasurik gehienetan” azpimarratu dugu, bada, aurrerago ikusiko dugunez, analisi zehatzago baten bitartez, familia balio negatiboak helarazteko faktore indartsua ere izan daiteke.

Era positiboan adierazitako itemei dagokienez, ezinduei lan normala egitea erraztu behar zaiela dioen itemarekiko erakutsi dute ikasleek sentikortasunik handiena; ondoren, bigarren tokian, homosexualak, besterik gabe, pertsona normalak direla dioen adierazpena kokatzen da; hirugarren tokian, etorkinak herrialdea aberasten dutela dioena; eta, azkenik, aurrekoetatik oso urrun, ETAk jarduteko arrazoiak badirela dioena. Item bakarrean aipatzen da emakumea, eta era negatiboan adierazita dago (“emakumeek ez lukete erantzukizun handiko lanik egin behar –politika, esaterako–, seme-alabak zaindu behar dituztelako”), baina formulazio horrek sortzen duen gaitzespenak (eskolan eta lagunartean gaitzespenik handiena) ondorio hau ateratzeko bide ematen digu: adierazpena era positiboan egin izan bagenu, adibidez, “emakumeek lanean gizonek dituzten eskubide eta soldata berberak izan behar dituzte”, item hori ezinduei buruzko adierazpenaren onarpen-maila berean edo antzekoan egongo zela.

Laburbilduz, alde txiki batzuk alde batera utzita, familiaren, eskolaren edo lagunartearen arabera, giza eskubideak babestu behar zaizkien taldeen sailkapena honako hau izango litzateke: lehen tokian, emakumea eta ezinduak; ia maila berean, homosexualak; maila bat beherago, etorkinak; eta ikuspegi oso bestelako eta aurrekoekin alderatzerik ez dagoen batekin, ETAri buruzko aipamenak agertzen dira, “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” dioen adierazpenarekin. Azken horrek ez digu ahantzarazi behar, ordea, adierazpen negatiboak (“ETAren indarkeria onartezina da”) aldeko jarrera asko sortu dituela.

Azkenik, hirugarren tokian, ohar gaitezen ezinduen eta homosexualen kasuan giza eskubideen defentsarako planteamenduak argiagoak direla, izan ere, talde horien eskubideei buruzko adierazpen positiboarekin ados daudenen eta adierazpen negatiboarekin bat datozenen arteko aldea handiena da. Gure iritziz, emakumeen kasuan adierazpen positiboa egin izan bagenu, gauza bera esan beharko genuke talde horretaz ere.

Ez da halakorik gertatzen etorkinekin eta are gutxiago ETAri buruzko aipamenekin. Etorkinei dagokienez, ohar gaitezen adierazpen positiboak (“etorkinek herrialde hau aberasten dute”) eskalan (“askotan”: 4; “inoiz ez”: 1) 2,77 zifra ematen digula famili barruan egindako adierazpenei dagokienez, 2,38 eskoletan egindakoetan, eta 2,25 lagunartean egindakoetan. Balio ertaina 2,5 dela kontuan hartuta, ondorioztatu behar da gai hori ez dela sarri aipatzen solasaldietan, bereziki eskolan, eta are gutxiago ikasleen artean.

Baina bada beste zerbait, hori bezain interesgarria. “Etorkinek lana kentzen digute, laguntza gehiegi jasotzen dituzte” adierazpen negatiboari erreparatzen badiogu, ohartzen gara, eskala beraren arabera, adierazpen hori 2,03ko maiztasunaz esaten dela familian (0,74 puntu adierazpen positiboaren azpitik), 1,84ko maiztasunaz eskolan (0,15 puntu azpitik) eta 1,80ko maiztasunaz lagunartean (0,02 gutxiago, beraz, ia parean). Horrek guztiak gauza izugarri garrantzitsua adierazten du: etorkinak gure artean izateak aberastu egiten gaituela onartzen duten ikasleak gehiago diren arren, ia parean direla etorkinek, hemen egonda, “lana kentzen digutela” eta “laguntza gehiegi jasotzen dituztela” uste dutenak, batez ere solasaldiak lagunartekoak, ikasle artekoak direnean. Eskoletan gertatzen denaz irakurri duguna ere ez da batere itxaropentsua.

Erraz esateko: etorkinenganako jarrerak nabarmenki hobetu daitezke.

ETAren kasuak berariazko tratamendua behar du. Gainera, atal honetako gaia da eta horretaz mintzatuko gara iruzkin honetan geratzen zaigun zatian.

### – ETAren presentzia eta ETArekiko jarrerak familiako, eskolako eta lagunarteko solasaldietan

Konparazio hutsezko analisia eginez gero, zalantza barik hauxe esan beharko litzateke: ETAren indarkeria onartezina dela dioen adierazpenean oinarrituta ETA askoz sarriago gaitzesten dela hiru eremu horietan (familia, eskola, lagunak), ETAren jarduera justifikatzeko arrazoiak daudela dioen adierazpenean oinarrituta ETA onartzen dutenen aldean. Esate baterako, ikasleetatik %58k adierazi dutenez, familien barruan maiz esaten da "ETAren indarkeria onartezina da"; aldiz, "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" adierazpenaz ari direnean, kopurua %18ra jaisten da, eta kopuru hori aintzat hartzeko modukoa da, nahiz eta aurrekoaren aldean, askoz kopuru txikiagoa izan. Ikusi 144. taulak.

**144.A. taula. Zure etxean esaten da...**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 39,0 | 6,7 |
| Batzuetan | 19,1 | 11,2 |
| Gutxitan | 16,6 | 14,7 |
| Inoiz *ez* | 22,6 | 64,2 |
| ED /EE | 2,7 | 3,0 |
| N=762 | %100 | %100 |
| Batez beste: 4-askotan, 1-inoiz *ez* | 2,77 | 1,59 |

**144.B. taula. Zure eskolan esaten da...**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 25,4 | 8,0 |
| Batzuetan | 14,5 | 11,9 |
| Gutxitan | 20,6 | 18,4 |
| Inoiz *ez* | 36,0 | 57,8 |
| ED /EE | 3,6 | 3,8 |
| N | %100 | %100 |
| Batez beste: 4-askotan, 1-inoiz *ez* | 2,30 | 1,69 |

**144.C. taula. Zure lagun taldean esaten da...**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 24,8 | 8,6 |
| Batzuetan | 14,6 | 13,8 |
| Gutxitan | 16,5 | 18,3 |
| Inoiz ez | 40,3 | 56,4 |
| ED /EE | 3,8 | 3,0 |
| N | %100 | %100 |
| Batez beste:<br>4-askotan, 1-inoiz ez | 2,25 | 1,74 |

Eskolan ETA gaitzesteko adierazpena maiz entzuten da, ikasleetatik %40k esan dutenez, eta ETAren aldeko adierazpena ikasleetatik %20k entzun dute.

Lagunartean, gaitzespen-adierazpena maiz agertzen da ikasleen hizketaldietan, ikasleetatik %39k adierazi dutenez, eta onarpen-adierazpena entzuten dutela diote Euskadiko DBHko ikasleetatik %22k.

Laburbilduz, ETArekiko gaitzespena argi eta garbi sarriago agertzen da familietan (sarritan, hamar ikasletatik seik diotenez) eta dezente gutxiago eskolan eta lagunartean (bi eremu horietan, hamar ikasletatik lauk soilik adierazi dute maiz agertzen dela). Goraxeago adierazi duguna berresten dugu: familia da ETAren kontrako lehenbiziko sozializazio-eragilea euskal ikasleen artean.

ETAren alde sarritan hitz egiteari buruzko adierazpenean (“Badira ETAk jarduteko arrazoiak”), ia ez dago alderik: ikasleetatik %18k familia aipatzen dute, %20k eskola eta %22k lagun taldea.

Aurreko datu horiek, ez ahaztu, ikasleen multzo osoari dagozkio. Alabaina, atal honen 3. puntuan azaldu berri dugu osagai nagusien faktore-analisia. Ikusi dugunez, ETArekin eta giza eskubideen defentsarekin lotutako bederatzi itemi emandako erantzunen arabera, hiru erantzun-multzo bereiz ditzakegu. Hiru multzo horiek hiru jarrerarekin, hiru balio-sistemarekin dute zerikusia, euskal ikasleek ETAri buruz eta giza eskubideei buruz duten iritziari dagokionez. Orain beste urrats bat egingo dugu, oso garrantzitsutzat jotzen duguna. Geure buruari galdetuko diogu ikasleek, beren iritziak hartu eta horiei eusteko, zein eremutan bereganatzen dituzten hiru multzo edo faktore horiek (I, II eta III. faktoreak). Orduan, ETArekiko eta giza eskubideak babestu eta sustatzearekiko erakutsi dituzten hiru jarreretan oinarrituta, hiru multzo bereizi eta segmentatu ondoren, hemen bereizi nahi dugu gaur egungo euskal ikasleengan familiak, eskolak eta lagun taldeak nolako garrantzia duten. Hori irakur daiteke 145. taulan.

**145. taula. Familiak, eskolak eta lagun taldeak ikasleen sozializazioan nolako garrantzia duten, ikasle horiek ETAren ekintzez eta giza eskubideez eman dituzten erantzunen arabera multzokatu ondoren**

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| **Zure etxean esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da"** | | | |
| Askotan | -,2426420 | ,1760425 | ,3081580 |
| Batzuetan | ,0786629 | ,0465323 | -,1730413 |
| Gutxitan | ,2153191 | -,0106521 | -,0318949 |
| Inoiz *ez* | ,2327529 | -,3204678 | -,3405982 |
| ANOVA Sig. | .000 | .000 | .000 |
| **Zure etxean esaten da "Badira ETAk jarduteko arrazoiak"** | | | |
| Askotan | ,9607963 | -,3507318 | -,2032325 |
| Batzuetan | ,6726958 | ,0031308 | -,1410275 |
| Gutxitan | ,2607366 | -,0812761 | -,1530669 |
| Inoiz *ez* | -,2552521 | ,0639835 | ,1012770 |
| ANOVA Sig. | .000 | .059 | .002 |
| **Zure eskolan esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da"** | | | |
| Askotan | -,2244716 | ,1441599 | ,2615961 |
| Batzuetan | ,0699476 | -,0346720 | ,0038345 |
| Gutxitan | ,1629027 | ,1557777 | -,1086247 |
| Inoiz *ez* | ,0059052 | -,1686607 | -,1355785 |
| ANOVA Sig. | .003 | .005 | .001 |
| **Zure eskolan esaten da: "Badira ETAk jarduteko arrazoiak"** | | | |
| Askotan | ,7605083 | ,0511381 | -,1412356 |
| Batzuetan | ,3834003 | -,1840174 | -,0037780 |
| Gutxitan | ,2445364 | -,0218579 | -,0533133 |
| Inoiz *ez* | -,2721898 | ,0453451 | ,0488595 |
| ANOVA Sig. | .000 | .360 | .492 |
| **Zure lagun taldean esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da"** | | | |
| Askotan | -,2337830 | ,1994817 | ,3127702 |
| Batzuetan | ,0641245 | -,1000190 | ,0296943 |
| Gutxitan | ,0342361 | ,0558343 | ,0347373 |
| Inoiz *ez* | ,0838010 | -,0789790 | -,1840662 |
| ANOVA Sig. | .015 | .015 | .000 |
| **Zure lagun taldean esaten da: "Badira ETAk jarduteko arrazoiak"** | | | |
| Askotan | 1,0190756 | ,0038017 | -,0594236 |
| Batzuetan | ,4808763 | ,0162075 | -,0897465 |
| Gutxitan | ,1853380 | -,0811162 | ,0033796 |
| Inoiz *ez* | -,3461260 | ,0217696 | ,0484135 |
| ANOVA Sig. | .000 | .905 | .184 |

Hori irakurtzean, nagusiki 1. multzoa aztertu behar da arretaz, ETAren ekintzak, kale borroka eta terrorismoa batzuetan justifikatzen dituzten ikasleen erantzunek osatutakoa. Zehazki, "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" dioen itemak etxean, eskolan eta lagunartean esaten denarekin zenbaterainoko korrelazioa duen aztertu nahi dugu. Eta erantzuna ikaragarria da. Oso korrelazio estua dago ikasleek etxean, eskolan eta lagunartean "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" oso maiz entzutearen eta ikasle

horiek ETAren ekintzak, kale borroka eta terrorismoa oro har onartzearen artean. ETA legitimatzearen sozializazioa nabarmena da eta lan honetan guztian aurkituko dugun indartsuena. Badakigu ikasle multzo txiki baina esanguratsu baten aurrean gaudela. Orain badakigu, orobat, beste ezein multzotan ez dugula aurkituko hori bezalako sozializazio indartsurik ETAren jarduera-arrazoiak legitimatzen.

Hori esanez ageriko zerbait baino ez diogula pentsa liteke. Alegia, etxean, eskolan eta lagunartean ETAk jarduteko arrazoiak badirela maiz entzuten duenarengandik, ETAren legitimazioan sozializatzen duten ikaslearengandik espero daitekeela "ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat" esaten bukatzea, haren ustez "kale borroka beharrezkoa izatea", eta abar. Baina garrantzitsuena, berriro diogu, zera da: egiaztatu dugu sozializazio hori oso indartsua dela, ez duela parekorik beste iritzi batzuk dituzten ikasleen sozializazioarekin. Kopuruek, kopuru hotzek berriro ere, kasu batzuetan eta besteetan sozializazioak duen indarra erakusten digute.

Kopuruen zale ez direnei ere kopuruei pixka bat erreparatzeko eskatzen diegu. Etxean "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" askotan esatearen eta ETA legitimatzearen arteko korrelazioa .96ra iristen da; eskolaz ari bagara, zertxobait jaisten da, baina, hala ere, .76an geratzen da; eta lagunartean 1.02an (horregatik azpimarratu ditugu zifra horiek). Irakurleak errepasatu dezala 145. taula eta ez du aurkituko horiei hurbiltzen zaien zifrarik. Azterlan honetako korrelazio-zifrarik altuenak dira (jakina, ETArekin lotutako alderdietan sozializatzeari dagokion azterlanaren atalaz mintzo gara).

I. Faktorean ere, "ETAren indarkeria onartezina da" itemarekiko korrelazioak –korrelazio negatiboak, noski– askoz ere txikiagoak dira, nahiz eta, kasu guztietan, oso esanguratsua den ANOVA izan.

Gainontzeko bi multzoei erreparatzen badiegu, II. Faktoreari eta III. Faktoreari, korrelazioak txikiagoak dira eta, zenbait kasutan, ez dago batere korrelaziorik. Taula norberaren interesen arabera kontsulta daiteke, informazio izugarri aberatsa eskaintzen baitu. Hemen gauza pare bat adieraziko ditugu multzo edo faktore bakoitzerako.

Bigarren multzoan, giza eskubideen unibertsaltasunaren aldeko erantzunengatik nabarmentzen den horretan, korrelazio benetakoa eta argia dago (baina 1. multzoan gorago adierazi dugun korrelazio indartsutik oso urrun) "ETAren indarkeria onartezina da" dioen itemarekin, baina korrelazioa desagertu egiten da "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" itemarekin, bai familiaren eremuaz ari bagara (hala ere, hemen korrelaziorik handiena), bai eskolakoaz edo lagunartekoaz ari bagara ere. Zergatik? Puntu horrekiko desbideratze bakarra 1. multzoan daukagulako (multzo horretakoak dira ETAren ekintza legitimatzen duten bakarrak).

Hirugarren multzoan –multzo horretan biltzen dira gaur egun, Euskadin, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten duela uste dutenen jarrerak, terrorismoaren biktimen aldekoenak eta ETA suntsitzearen aldekoenak–, oro har, 2. multzorako adierazi berri dugun jarreraren antzekoa ikusi dugu: hau da, jarrera argia "ETAren indarkeria onartezina da" itemaren aurrean; eta eskolan eta lagunartean hori desagertu egiten da "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" itemaren aurrean, 2. multzorako azaldu dugun arrazoi berberagatik.

Normalean familia eta lagun taldea, eta noizbait alderantzizko hurrenkeran, alegia, lagun taldea eta familia agertzen dira lehen tokian sozializazioaren eragile bezala, eta eskola beti hirugarren tokian geratzen da.

Baina hel diezaiogun berriz funtsezkoenari. Eta hauxe esatea da funtsezkoena: lagun taldea eta familia, ia biak batera, eskola ahaztu gabe, oso eragile indartsuak dira ETA justifikatzea eta legitimatzea argitzeko orduan ETA eta beraren ekintzak egiaz justifikatu eta legitimatzen dituzten ikasleengan. Beste kasu bakar batean ere ez dugu aurkitu horren antzeko korrelaziorik. Ez dugu halako sozializazio indartsurik aurkitu ez ETAren indarkeria onartezintzat jotzen duen itemean, ez giza eskubideen unibertsaltasuna onartzen duen horretan, ez terrorismoaren biktimak onartzen dituen itemean, ez torturak eta tratu txarrak gaitzesten dituen itemean, ez ETA suntsitu behar dela dioenean, e.a. Ikasleek ezertan ez dute sozializazioa hain indartsuki azaltzen ETA eta beraren ekintzak justifikatzeari buruz aritzean baino.

“Badira ETAk jarduteko arrazoiak” adierazpenaren aurrean aurkitu dugu korrelaziorik estuena, ahalmen sozializatzailerik handiena, horrela pentsatzen duten ikasleen familietan, beraien lagun taldean eta joaten diren eskolan. Horren ondorioz, ETAren ekintzak legitimatzen dituzten ikasleen taldean, nor bere baitara biltzen da norberaren erreferentziazko mundu endogamiko eta eraginezin batean; mundu horretan ezin dute eraginik izan ez zalantzak, ez beraiek aldeztutako arrazoibideen kontrako arrazoibideek ere. Ikasle horiek aparteko mundua-edo osatzen dute, gizarte paralelo bat: gizarte hori beste gauza eta eremu batzuetan besteekin nahasten da, baina ETAren deslegitimazio etiko eta politikoaz hitz egiten denean, urrundu egiten da.

Bukatu baino lehen, ikastetxea aipatu beharra dago, lerro pare batean bederen. Egiaz, ETA legitimatzeari buruzko kasu horretan ere, familiaren eta lagun taldearen ondoren kokatzen den arren, balio garrantzitsua da oraindik ere. Familia, jakina denez, emana datorren datua da ikasle batengan; lagun taldea, mugatua eta aukeratua izaten da; ikastetxea, aukeratua izan daiteke ala ez eta, batez ere, homogeneoa edo ez hain homogeneoa izan daiteke. Ikastetxe bereko irakasle guztiek ez dute berdin pentsatzen. Horregatik, 1. multzoko ikasle batek bere ikastetxean “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” askotan entzuten duela adierazteak ez du esan nahi, derrigorrez, ikastetxeak berak ETA legitimatzen duenik. Ziurrenik irakasle bat, bi edo irakasle talde txiki batez mintzatzen ari da, ez ikastetxeak ezarritako jarraibide batez.

Honaino DBHko euskal ikasleek indarkeria terroristaz dituzten jarrerei buruzko azterlanaren azalpena. Hori irakurri ondoren, berriz azpimarratu behar da euskal erakundeen erantzukizuna dela bigarren mailako biktimizazioa murrizteko helburua lortzea, terrorismoaren biktimei konpromisozko mezua helaraziz. Gure gazteetatik batzuek deskribatu den moduan pentsa badezakete ere, guri dagokigun erantzukizun publikoaren esparruan, erakunde publikoek gauzak aldatzeko eta balio zibiko batzuk bultzateko konpromisoa hartu behar dute. Balio zibiko horiek ez dute utzi behar giza eskubideen zatiezintasuna eta elkarrekiko mendetasuna apurtzen, ez dute utzi behar pertsona talde batzuei gizatasuna kentzen eta terrorismoa justifikatzen.

Terrorismoaren biktimak aintzat hartu gabe jarraitzen duen gazte portzentaje horrek uste du helburuak bitartekoak justifikatzen dituela, beren buruak biktima gisa ikusten dituzte,

biktimismoan eroriz[46] edo eragindako mina gutxietsiz. Ondorioz, kontzientzia edo errua neutralizatzeko teknika ezagun batzuk erabiltzen dituzte, Sykes eta Matza kriminologo estatubatuarrek gazteetan jada ikerturikoak 1957an. Egindako inkestak adierazten digun moduan, gazteek ez dute sentsibilitaterik terrorismoaren biktimekiko, bai, ordea, beste biktima batzuekiko edo ekologiarekiko. Terrorismoaren biktimekiko ere sentsibilitatea edukiko lukete, kontzientzia neutralizatu edo isilduko ez balute halabeharrez gizartean ikasi behar izan diren balio eta teknika batzuen bitartez. Hori erakusten digute indarkeria mota ezberdinei buruzko ikerketa sendoenek.

Erakunde publikoak ezin dira beti eraginkortasunez iritsi gazteen sozializazio agenteen eremu guztietara (familiak, ikastetxeak, lagunak, aisialdi jarduerak, hedabideak…), baina bai sustatu behar dituzte balio argi batzuk terrorismoari legitimazioa kentzeari dagokionez. Bertan, jarrera eta ekintza miresgarriak ez dira terroristenak izango, baizik eta terrorismoaren biktimenak erabat. 4/2008 Legeak berak dioen moduan, bakerako, askatasunerako eta bizikidetza anitzerako eskubidea gizarte osoarena da, eta, beraz, hura defendatzea, egunetik egunera, guztioi dagokigu. Eskubide honek, gaiaren alorreko nazioarteko doktrinak onartzen duen moduan, betebehar eta eginbehar zehatzak sorrarazten ditu.

Sarreran jasotako hitzetatik metaforikoki ondorioztatzen denez, Euskadiko toki askotan bizikidetza pluralaren balioa sustatzea zaila eta deserosoa izango da, baina ukaezina aldi berean, terrorismoa murriztu nahi bada. Erakundeek ezin dute hori egin gazteei Euskadiren duintasunik gabeko historiaren zati bat erakutsi gabe: terrorismoaren biktimek jasandako abandonua. Deserosoa da haiek tratatzeko izan den krudeltasuna edo gizartearen zati handi baten axolagabekeria hainbat urtetan, izan ere, horrek ezinbestean berekin dakar gutako bakoitzak geure buruari non geunden eta gaizki zer egin genuen galdetzea. Dudarik gabe, errazagoa da ekologia edo giza eskubideak abstraktuan irakastea[47]. Bestalde, zailtasun horrek ere altxor balioduna eskaintzen digu.

Gauzak konpontzeko aukera dugu aurrean, gure gazteekin eta gure gazteentzat biktimei begietara begiratzeak beldurra emango ez digun gizarte hobea eraikitzeko aukera, pertsona haiengan gu topatzen jakingo dugun gizarte hobea, jazotako bidegabekerien erantzukizuna hartuko dugun gizartea, berriro errepika ez daitezen. Erakunde guztiek giza eskubideen aplikazioa zehazteko berehalako erronka dute haien aurrean, eta aplikazio hori zatiezintasunean eta elkarrekiko mendetasunean, terrorismoaren biktimekiko tratuan eta haien parte-hartzean gauzatuko da, gazteei gizarte ikaskuntzako eredu okerrak ez eskaintzeko, bai, ordea, zailagoa den zerbait: justiziaren aldeko borroka bakezalearen unibertsaltasunarekin benetako konpromisoa.

Nolabaiteko porrota onartu egin behar da gure "bizitza demokratikoan"[48], gure sozializazio sisteman, haren maila ezberdin eta anitzetan, izan ere, terrorismoaren biktimen aitorpen mailan aurrerantz egin bada ere erakunde askoren aldetik, egun oraindik gure

---

46 Biktimismoan oinarritutako erakunde pedagogia baten gizarte arriskuari buruz, ikusi Enzensberger (2006) eta Balibar (2005), azken hori identitatearen kontzeptu monolitikoari dagokionez.

47 Biktimei eginkizun pasiboa ematen zaien bakerako hezkuntza ereduak dira; ikusi Etxeberria (2009, 26).

48 Kontzeptu horretan sakondu daiteke ikuspegi biktimologikotik begiratuta, Valladolidetik (2008).

gazteen portzentaje kezkagarri batek justifikatu egiten du edo axolagabe agertzen da herrikide askok egunero jasaten duten bidegabekeriaren aurrean.

Itxaropenik ezean eroriko ginateke ondorioztatuko bagenu gazteak erabat iragazgaitzak direla ikastetxeetako, erakunde publikoetako, hedabideetako edota terrorismoa justifikatzen ez duten beste senide eta lagun batzuen sozializazio positiboaren aurrean. Aipatutako azterlan horretan, ikastetxeak nolabaiteko eragin positiboa duela igartzen da adinean aurrera egin ahala. Sinesmenak eta jarrerak zalantzan jartzen dakiten gazteak trebatzeko benetako aukera da; biktimen egi krudela erakusten zaien eta haien interpelazioa sentitzen duten gazteak; ETA babesten duten senideak maitatzen jarrai dezaketen gazteak, haien ideiak partekatu gabe; azken batean, behar dituen gizarte plural bateko kide sentitzen diren gazteak, erabat garatzeko aukerak eskaintzen dizkienak eta ezberdintasunak onartzen dituena, baina ez indarkeria.

Azkenean, txosten honetako VIII. eta IX. kapituluek biktimizazio esperientziei buruz jasotzen duten moduan, gogoratu egin behar dugu terrorismoaren biktimek gehien errepikatzen dituzten itxaropen legitimoen aurrean gaudela: bidezko bakearen etorkizuneko agindua egungo gazteen bitartez, manipulazioan eroriko ez diren gazteen eta egiari eta erreparazioari beldurrik izango ez dioten gazteen bitartez.

## 3. Irakasleen jarrerak bake eta indarkeria ezeko balioen hezkuntzan

Gazteen arteko balio berenganatzearen azterlanetik ondoriozta daiteke familia dela kontrabalioak berenganatzeko agente nagusia. Kontrabalio horiek indarkeria babestuko lukete, eta, ondorioz, baita bake eta indarkeria ezeko balioak berenganatzeko agente nagusi ere. Galdetu liteke ea hezkuntza sistemak paper garrantzitsua betetzen duen bake balio horiek berenganatzerakoan, eta, erantzuna ezezkoa bada, bake kultura defendatu eta indarkeria errefusatzekoa finkatzerakoan funtsezko agente izatea lortzea posible den galdetu.

Gai batzuk, ezaugarri bereziak izateagatik, ez dute gizartearen ahobatezkotasuna ekartzen, jarrera ideologiko ezberdinetatik jorra daitezkeelako. Horrek nolabaiteko inhibizioa eragiten du irakasleen artean, balizko neutraltasun jarrera batetik tratatuak izaterakoan.

Elisa Usategui eta Ana Irene del Valle irakasleen lan paregabe batean zera adierazten da (2007, 269):

> *"Ikastetxeetan balioak biltzen dituzten curriculumak aztertzetik eduki 'kritikoak' identifika daitezke, hau da, ikastetxean agertu eta praktikan jartzea zailagoak diren edo arazo gehiago ekartzen duten balioak. 'Kritikotzat' jotzen dira, mota ezberdinetako erresistentziak planteatzen dituztelako eta, horregatik, gutxiago lantzen dira, saihestu egiten dira edo baztertu egiten dira. Euskal ikastetxeetan balioekin egindako lanaren 'gune gogor' hori, irakasleek aho batez aitorturikoa, hurrengo balorazio edukiek eratzen dute: kultura, hizkuntz eta erlijio aniztasuna, erlijio identitatea eta identitate nazionala, eta bakea/indarkeria eza. Konnotazio ideologiko eta politiko sendoak agertzen dituzten alderdiak dira, eta zailtasun moralak eta pedagogikoak sortzen dituzte irakasleen artean, neurri handi batean adostasuna falta delako zer landu behar den,*

*nola eta nork zehazteari dagokionez. Aurrez aurre dauden esanahi eta sentsibilitateen ondotik agertzen dira, eta horiek ikastetxeetan tratatzea hautaz egiten da, izan ere, ikastetxean gatazkarako arrazoi izanda, 'saihestu edo horien aurka borrokatzen' da modu gutxi gorabehera tazituan irakasleen aldetik".*

Euskal ikastetxeetan gatazka sorrarazten duen hiru balioko multzo horretan, bereziki nabarmentzen da bakerako eta indarkeria ezerako hezkuntzarena. Usategui eta del Valleren adierazitako lanean zera esaten da (2007, 271):

*"Bakerako eta indarkeria ezeko balioetatik esan daiteke lantzen diren balioak direla –biziki zenbait testuingurutan–, baina ikastetxeetako esperientzian saihesten, baztertzen edo agertzen ez diren balioak ere badira. Gure ikastetxeetako bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzari buruz egin berri diren beste azterlan batzuetan adierazi denarekin bat eginez (Fernández Sola, 2004; hainbat egile, 2004), irakasleen hitzetatik prebentzio eta kontu handia eratortzen dira, neurtutako neutraltasunarekin batera. Horrek argitu egiten ditu distantzia, sentsibilitatea, jarduteko borondatea eta esku-hartzea. Gauzak horrela, errespetua, tolerantzia eta bizikidetza bezalako balioak lantzeko beharra irmotasunez onartzen duen irakasle taldearen aurrean gaude, hau da, bakerako hezkuntzaren barruan agertzen diren balioetan hezteko beharra. Irakasleen taldea, halaber, ikasleen artean gainerakoen minarekiko edo sufrimenduarekiko igarritako axolagabetasun eta begirune faltarengatik eta ezberdina eta ahulagoa denarekiko ankerkeriazko portaerengatik kezkatuta dago. Adostasuna zabala da maila horretan. Hala eta guztiz ere, agertokia eraldatu egiten da erreferente semantikoa 'bakea' izan, eta euskal gizartean bake faltako arazo zehatzetara daramanean. Izan ere, ez irakasleek, ez ikastetxeek ez dute sentsibilitate berdina balio horrek ikastetxeetan duen agerpenaren edo agerpen faltaren aurrean, ezta ikastetxeko dinamikan balio honek duen garrantziaren aurrean edota horrekiko duten erantzukizunen aurrean ere. Hori islatu egiten da erantzukizunari aurre egiteko moduan eta ikastetxeak euskal gizartean bakearen eta bizikidetzaren aldeko lanari egiten dion ekarpenean".*

Bake balioetako heziketari aurre egiteko modua ezberdina da irakasleak eta ikastetxeak gorabehera. Azterlan berdinean zera adierazten da (2007, 271-2):

*"Ondorioztatu daiteke hiru modu daudela bakearen / indarkeria ezaren balioa kokatzeko, hezkuntza eremu ezberdinetako irakasleen artean nahiko banatuta. Batetik, bakeaz zuzenean hitz egin behar ez dela uste dutenak daude, nahiz eta zeharka bakearekin zerikusia duten balioak landu. Diskurtso hori maizago agertzen da sare publikoko eta D ereduko irakasleen artean. Bestetik, bakeaz hitz egiten dena baino gehiago hitz egitearen aldeko apustua egiten dutenak daude. Sentsibilitate hori bi sareetako irakasleen eta hizkuntza eredu guztien artean agertzen da, eta horren atzean igarri egiten da euskal gizartean indarkeriaren arazo zehatzarekiko konpromisoa falta dela aitortzen dela. Eta, azkenik, euskal gatazka saihestuko, ikusezin bihurtuko edo neutralizatuko duen bakerako hezkuntza jorratzea posible ikusten ez dutenak egongo lirateke. Ikuspegi hori bi sareetako A eta B ereduetako irakasleen artean igartzen da batez ere.*

*Bi kasuetatik edozeinetan, ondoriozta daitekeena da ikastetxeetan euskal gizartearen gainerako eremuetan gertatzen den gauza bera gertatzen dela. Egia da ikastetxeak protagonismoa duela bakerako hezkuntzan, baina belaunaldi berriekin gainerako gizarteak egin ez duena egin nahi izatea eta irakasleei konpromisoa eskatzea lan hori legitimo bihurtuko duen eta defendatuko duen agertokia bermatu gabe ez da oso zintzoa. Erlijioaren eta ideologiaren alorreko beste gai batzuekin gertatzen den moduan, bakea gai konplexutzat hartzen da eta hezitzaileari segurtasun eza eragiten dio. Euskal*

*eskolari asko geratzen zaio egiteko bakearen / indarkeria ezaren alorrean, baina, horretarako, irakasleen esku-hartzea ez ezik, hezkuntzaren alorreko administrazioaren babesa, hezkuntza komunitatearen barruko eta hezkuntza komunitate ezberdinen arteko adostasuna eta baliabide pedagogikoak eta trebakuntzak ere behar ditu, sentsibilitatea, adorea eta gaitasuna behar dituen lan bat garatze aldera".*

Bakerako hezkuntza plan batean, aintzat hartu behar da irakasle taldeari dagokion funtsezko papera.

## 4. Berariazko esperientzia praktikoen gaineko balorazio laburra

Herritarren hezkuntzari eta giza eskubideei buruzko nazioarteko araudiak azpimarratu egiten du beharrezkoa dela horiek garatzeko behar diren baliabide egokiak martxan jartzea, nazioarteko lankidetza sustatzea eta ikerketa eta ebaluazio askeak egitea aintzat hartuz esku hartzen duten pertsonen parte-hartze irizpidea. Indarkeriazko erradikaltasuna prebenitzeari buruzko esperientzia positiboen orain dela gutxiko berrikuspen batean, berretsi egiten da beharrezkoa dela lankidetza eraginkorra garatzea agintarien eta gizarte zibilaren artean. Lankidetza hori politiken eta programen diseinuari nahiz horien gauzatze eta ebaluazioari zabaldu behar zaie (The Change Institute 2008, 125-6)[49].

Orain dela hamar urtetik hona, delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioen Nazio Batuen aplikazioari eta erabilerari buruzko Gidaliburuan zehaztu egiten da biktimen lekukotzak eraginkorrak eta erabilgarriak direla, biktimizazioa prebenitzearen gaian *"ikasleak trebatzeko hezkuntzako metodo garrantzitsu modura"*. Metodo hori zehatzagoak diren beste irakaskuntza eta trebakuntza ikastetxe batzuetako gidaliburuan ere zabaltzen da, gaizkileekin garatu daitezkeen proiektuetara bezalaxe. Gainera, ebaluazio ezberdinek aukera ematen dute horrelako programak gizarte gaitasuna sustatzen duten eskolako programen eraginkortasunari buruzko parametroen barruan sartzeko (Topping, Holnes eta Bremner 2000).

Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren 2007ko jarduera memorian, ikasleak kontzientziatzeko programa ezberdinak eta bizikidetzan heztekoak aipatzen dira. Horietan, biktimen lekukotzek garrantzia berezia hartzen dute. Gauzak horrela, 2003tik eta, hasiera batean, Madrilgo Erkidegoan, Bizikidetzarako Hezi proiektua garatzen da, *"asmo garbia indarkeriaren aurkako pedagogia egitea eta gazteenen artean tolerantzia eta demokrazia ohiturak sustatzen saiatzea izanez"*[50]. Erdi-mailako irakaskuntza zentroetan egiten da, *"gazteenei terrorismoaren biktimen bizipenak hurbiltzeko, haiekin gizarteak orokorrean terrorismoaren aurkako borrokari dagokionez agertzen duen jarrerari eta Zuzenbide Estatuaren esparruko bizikidetzaren arauei buruzko elkarrizketa sorraraziz"*. Biktimen lekukotzekin batera, dokumentalak ematen dira eta gaiarekin zerikusia duen material bibliografiko ezberdina eskura jartzen da. Gainera,

---

49 Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2011) ebaluatzeko 2009an egindako lehenengo azterketan, sartu egiten da erakunde pribatuen funtzioen definizioa egin daitekeen hobekuntza modura, koordinazioa hobea izan dadin.

50 Ikusi 2007ko memoriako 67. or. helbide honetan: http://www.fundacionvt.org.

ikasleek, orokorrean DBHko 3. eta 4. mailakoek eta Batxilergoko 1. eta 2. mailakoek, parte hartzen dute fundazioak antolatutako "indarkeriarik gabeko hiria" marrazki eta idazketa lehiaketetan.

Aipatutako memorian adierazi egiten da 2006-2007 ikasturtean zehar *"Fundazioa hainbat ikastetxe, eskola eta institututan egon dela Madrilgo erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Andaluzian eta Aragoin, hitzaldiak ia 4.000 ikasleraino helaraziz"*. Kopuru horiek aukera ematen dute jada baliabide pedagogiko honen eragin positiboa ebaluatzeko eta, horrez gain, biktimek eurek herritar izatearen zentzua sendo dezakete indarkeria terrorista prebenitzeko konpromisoari dagokionez. Baliabide hori egokia izan dadin, prestaketa egokiaz gain, errespetatu egin behar da ere elkarteen eta biktimen euren arteko lankidetza printzipioa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak saiakuntza esperientzia garatu zuen 2006-2007 ikasturteko azken hiruhilekoan, DBHko 4. mailako ikasleekin, hau da, 15 urteko gazteekin. Sei ikastetxetan egin zen, eta ia 300 ikaslek parte hartu zuen. Hainbat kontzeptu aztertu ondoren, terrorismoaren biktimen lekukotza idatziak lantzen dira, zehazki ETAren eta GALen biktimen testu idatziak. Irakasleei prestakuntza eman ondoren, programak hamar eskola ordu hartu zituen eta ebaluazio bat egin zen. Bertan, alderdi positibo batzuk azaldu ziren terrorismoaren biktimekiko sentsibilizazioaren gaian (Garaigordobil 2008). Ekimen honen balio aitzindariaren kaltetan izan gabe, diseinuaren ikuspegi ezberdinez gain, azpimarratzekoa da ere ahozko lekukotza zuzenak konplexutasunean aberatsagoak izango direla beti idatziz eskaintzen direnak baino. Ahozkoa izateak biktimen benetako parte-hartzea eta biktimizazioaren prozesu dinamikoaren gaineko ezagutza sustatzen ditu. Aldez aurretik trebakuntza eta koordinazioa eskuratuta, biktimek ikasleei galderak egin eta haiek egindakoak erantzun ditzakete, biktimen protagonismoa, beraz, ordezkaezina bihurtuz.

Bestalde, ebaluazioaren gomendioen artean, azpimarratu egiten da beharrezkoa dela programak zuzenduko dituzten helduei trebakuntza psikopedagogikoa ematea eta esku-hartzea geletatik haratagoko testuinguru batean kokatzea (Garaigordobil 2008, 331; 367).

## IV. BIBLIOGRAFIA

AGEJAS, José Ángel. 2004. Un marco adecuado. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

AGUILAR FERNÁNDEZ, Paloma. 2008. *Políticas de la memoria y memorias de la política*. Madril: Alianza.

ALTUNA URCELAY, Ángel. 2007. "La promoción de los valores democráticos en la educación". Esku-hartzea Fernando Buesa Blanco Fundazioak antolatutako mahai inguruan. Mahai inguruaren gaia "*Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana*" izan zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarena, 2007ko azaroaren 22koa, eta Hezkuntzan Balio Demokratikoak Sustatzeari buruzko

Gizarte Hausnarketen VII. Jardunaldien barruan kokatu zen. Helbide honetan eskuragarri: http://www.fundacionfernandobuesa.com/viijornadas.htm.

ARANA, R., HARILLO, S. eta PRIETO, J. 2006. *Historias que nos marcan. Las víctimas del terrorismo en la educación para la paz. Guía didáctica para educación secundaria*. Bilbo: Bakeaz.

ARNEDO, Ángel. 2004. Medios de comunicación social y víctimas del terrorismo. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

BACA BALDOMERO, Enrique. 2006. Los procesos de desvictimación y sus condicionantes y obstáculos. *Manual de Victimología* lanean, E. Baca Baldomerok, E. Echeburúa Odriozolak eta J. M. Tamarit Sumillak koordinatutako lana. Valentzia: Tirant lo Blanch.

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA. 2008. "Indarkeriari zilegitasuna kendu", helbide honetan: http://www.gesto.org.

BALIBAR, Étienne. 2005. *Violencias, identidades y civilidad*. Bartzelona: Gedisa.

BILBAO, G. eta ETXEBERRIA, X. 2005. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz.

CAPITA REZAL, Mario. 2008. *Análisis de la legislación penal antiterrorista.* Madril: Constitución y Leyes.

CARRIÓN ARREGI, Vicente. 2008. Microterrorismo, *El Diario Vasco*, 08.06.20, 26-27. orr.

CEBERIO, Jesús. 2004. Confundir el amor con la muerte. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

CID MOLINÉ, José eta LARRAURI PIJOAN, Elena. 2001. *Teorías criminológicas: explicación y prevención de la delincuencia*. Bartzelona: Bosch.

COMAS, D., zuz. 2003. *Jóvenes y estilos de vida: valores y riesgos en los jóvenes urbanos.* Madril: FAD/INJUVE, helbide honetan: http://www.fad.es/sala_lectura/jovenes_estilos.pdf

COMMITTEE OF EXPERTS FOR THE EUROPEAN YEAR OF CITIZENSHIP THROUGH EDUCATION. 2006. *Education for Democratic Citizenship and Human Rights Programme of Activities (2006-2009): Learning and Living Democracy for All*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.

DAVARA, Javier. 2004. Libertad y defensa de los derechos humanos. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

DÍAZ AGUADO, M. J. eta gainerakoak. "Materiales para la prevención de la violencia y la lucha contra la exclusión desde la adolescencia", helbide honetan: http://www.mtas.es/injuve/.

DOMÍNGUEZ, Florencio. 2004. Las víctimas, personajes secundarios de la película del terror. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

ENZENSBERGER, Hans Magnus. 2006. *El perdedor radical. Ensayo sobre los hombres del terror*. Bartzelona: Anagrama.

ETXEBERRIA, Xabier. Víctimas y educación para la paz, *El Diario Vasco*, 2009ko urtarrilaren 30ekoa, 26-27 orr.

FERNÁNDEZ, C. (1998): *Jóvenes violentos: causas psicosociológicas de la violencia en grupo*. Madril: Icaria & Antrazyt.

FERNÁNDEZ SOLA, S. 2004. *Actitudes y comportamientos hacia la educación para la paz en Euskadi*. Bilbo: Bakeaz.

FERNANDO BUESA FUNDAZIOA. 2008. Aldaketaren eta Fernando Buesa Blanco Fundazioaren arteko III. topaketak: "La visibilidad social y política de las víctimas del terrorismo", Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 23an, helbide honetan: http://www.fundacionfernandobuesa.com.

GABRIEL, José Manuel. 2004. El papel de la prensa en el combate al terrorismo. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

GARAIGORDOBIL LANDAZABAL, Maite. 2008. *"Una sociedad que construye la paz-Bakea eraikitzen ari den gizartea" programaren ebaluazioa.* Ikerketaren txostena. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

GUARDA NACIONAL REPUBLICANA. 2006. 1st Social and Criminal Seminal within the Compass of the Organization: "Victims of Terrorism: The Psychosocial Response of the Security Forces", Lisboa, 2006ko uztailaren 10-21.

HAINBAT EGILE. 2004. Mahai ingurua: "La información en Televisión". *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

HELLER, Agnes. 1996. El último estadio de la Historia (Memoria, rememoración y *Bildung*: Sobre la teoría de la modernidad en Hegel), *Isegoría. Revista de Filosofía, Derecho y Política* 14: 95-110.

LÓPEZ MARTÍNEZ, Juan. 2007. Aurkezpena: *Boletín de Documentación del Centro de Estudios Políticos y Constitucionales* 30, Dossier: Educación para la ciudadanía democrática: 1-2.

McGUIRE, James. 2005. El renacimiento de la rehabilitación en medio abierto. *La delincuencia violenta. ¿Prevenir, castigar o rehabilitar?* Lanean, J. Cidek eta E. Larraurik koordinatuta. Valentzia: Tirant lo Blanch.

MATE, Reyes. 2008. *Justicia de las víctimas. Terrorismo, memoria, reconciliación*. Bartzelona: Alternativas Fundazioa eta Anthropos.

MAYORDOMO, Alejandro. 2003. Valores constitucionales, juventud y educación cívica, *Revista de Estudios de Juventud*, ale berezia: 129-145.

MORÁN, M. Luz eta BENEDICTO, Jorge koord. 2003. *Jóvenes, Constitución y cultura democrática*. Madril: Gazteriaren Institutua.

NOVALES, Félix. 1989. *El tazón de hierro. Memoria personal de un militante de los Grapo*. Bartzelona: Crítica.

SÁNCHEZ, José Antonio. 2004. Por una autorregulación responsable. Informar sobre el terrorismo, pero sin concesiones. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

SYKES, Gresham M. eta MATZA, David. 1957. Techniques of Neutralization: A Theory of Delinquency, *American Sociological Review* 22: 664-670.

THE CHANGE INSTITUTE. 2008. *Study on the Best Practices in Cooperation between Authorities and Civil Society with a View to the Prevention and Response to Violent Radicalisation*. Londres: The Change Institute.

TOPPING, K., HOLNES, E. eta BREMNER, W. 2000. The Effectiveness of School-Based Programs for the Promotion of Social Competence. *The Handbook of Emotional Ingelligence* lanean, R. Bar-On eta J. Parkerrek editatua. New York: Cambridge University Press.

UGARTE GASTEMINZA, Josu. 2008. "¿Es posible educar para la paz en el País Vasco?" *Hika*, 198, 2008ko apirila.

USATEGUI BASOZAL, Elisa eta VALLE LOROÑO, Ana Irene del. 2007. *La escuela sola. Voces del profesorado*. Vitoria-Gasteiz. Fernando Buesa Blanco Fundazioa.

VALLADOLID BUENO, Tomás. 2008. Ecología victimológica: Las bases del habitar democrático. *Hostigamiento y hábitat social. Una perspectiva victimológica* lanean. Granada: Comares.

ZARZALEJOS, José Antonio. 2004. Yo no soy una víctima del terrorismo. *Terrorismo, víctimas y medios de comunicación* lanean. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa.

# VIII. ATALA

## BIKTIMAZIO TERRORISTAKO ESPERIENTZIAK EUSKADIN: ERAKUNDEEK ETA GIZARTEAK EMANDAKO ERANTZUNAREN GAINEAN BIKTIMEK EGINDAKO BALORAZIOA

*“Irria zure begietan da*
*munduko argia...*

*Zure irriak aske egiten nau,*
*hegoak jartzen dizkit.*
*Bakardadeak kentzen dizkit,*
*kartzela eranzten dit”.*

Miguel Hernández, *Nanas de la cebolla*

# I. SARRERA

## 1. Mugapena eta helburuak

Aurreko kapituluetan aipatutako arau-agiri guztiek egiaztatzen dute Euskadin lehen, bigarren eta hirugarren mailako biktimazio terrorista dagoela. Horien bidez ikus daiteke biktimekiko errekonozimendu eta elkartasun neurriak hartu nahi direla. Egiaztapen hori abiapuntu hartuta, kapitulu honen helburua biktimen beren esperientziak aztertzea da. Neurri horiek abiatzeak ekarri dien asebetetasun maila jaso nahi dugu bertan, eta neurri horiek gabe ere, nola lortzen duten pertsonalki zein sozialki lehengora itzultzea, zailtasunak eta bidegabekeria nagusi den prozesuan.

Azterlan honetan analisi gai izango diren biktimazio esperientzien mugaketa egin dugu aldez aurretik. Edozein motatako terrorismoak oinarrizko giza eskubideen urraketa dakar, eta zuzenbide estatuak berezko dituen neurriekin egin behar zaio aurre zigorgabetasunik egon ez dadin. Era berean, arazo guztiak zuhurtziaz landuko dituzten ikerketa zientifikoak behar dira. Zuhurtzia zientifikoaren mesedetan hain zuzen ere, ikerketa honen baliabideak direla eta, ez gara hemen arituko Euskadin egon diren modu terrorista guztien biktimetaz. Hala ere, txostenaren gainontzeko zatia haiei ere aplika dakieke. Kapitulu honetan ETAko biktimei buruz bakarrik mintzatuko gara[1], hori baita indarrean dirauen erakunde terrorista bakarra. ETAren biktimazio terroristaren neurria ikusita eta egungo gaia dela aintzat hartuta, egiaren eta memoriaren printzipioaren barruan, justifikaziorik ez daukana justifikatuko luketen gaizkiulertuak edo datu batzuk eta besteak elkar lotzea saihestu nahi izan ditugu. Bestalde, adierazi bezala, terrorismoaren biktimei buruzko

[1] Iraganean jardun zuten eta ETArekin lotura zuten erakundeen bikimak ere jaso ditugu.

legebiltzarreko osoko bilkura monografikoak, 2007ko urrikoa, Eusko Jaurlaritzari egindako eskaera onartu zuen, 2008ko martxoaren 31 baino lehen GAL eta muturreko eskuineko[2]2 biktimei buruzko txostena egin zezan. Horrekin batera beste azterlan bat agindu zen, "politika arrazoien ondorioz sortutako bortizkeriak ekarritako giza eskubideen urraketaren biktimei" buruzkoa. Hortaz, terrorismoaren bestelako biktimen urraketak espezifikoki jaso dira agiri hauetan.

## 2. Metodologia

Erabilitako metodologia bildutako biktimen lekukotzen zatietan geratzen da islatuta, eta, ondoren, maila biktimologikoen bitartez sistematizatzen dira. Cristina Sánchezek baieztatzen duen bezala (2006, 137): *"Bizitzako istorioak kontatzeak aukera ematen digu gai politikoak ulertzeko lanari aurre egiten, eta, aldi berean, gizakiaren aniztasuna islatzen da horietan bizitza politikoaren aldez aurretiko baldintza modura"*. Hannah Arendten hitzak hartuz: *"Garairik ilunenetan ere, nolabaiteko argia espero izateko eskubidea dugu, eta argi hori teorietatik eta kontzeptuetatik baino, argi aldakorretik, dardaratitik eta askotan gizon eta emakume batzuen argi ahuletik etor daiteke"* (ibídem, 137).

Biktimologiaren diziplinaren barruan, EAEn biktimazio terroristaren errealitateari heltzeko ezintasunari zorrozki egokitzen saiatu gara bere dimentsio eta aldagai guztietan. Horrek esan nahi du onartu egin behar dela definizio edo orokortasun batzuk ez direla erabat egokiak izango. Gainera, COVITE biktimen elkarteak berak aholkatu zion erakunde honi ez zezala erabil –asmo hori bazuen ere– biktimengandik zuzeneko testigantzak biltzeko teknika, izan ere, elkartearen ustez, biktimarentzat beti prozesu mingarria izan ohi da bere biktimazioaren zergatiak berriz gogora ekartzera, eta bazegoen nahikoa material egin nahi zen ikerketa hasteko. Horregatik, biktimazio terroristari buruzko zeharkako iturrietara jo da, hau da, beste azterlan batzuetan edo, zabalago adieraztearren, beste dokumentu batzuetan bildutako biktimen lekukotzetara[3]. Biktimen lekukotzak[4] biktimek sinatutako monografia edo aldizkako argitalpenetatik eskuratu dira, edo bestela

---

2 70eko hamarkadako bukaeratik 80ko hamarkadaren bukaerara, jardun mota horiek bukatu zireneko garaia, berrogeita hamar pertsona inguru hil zituzten ATEk (Antiterrorismo ETA), BVEk (Batailoi Euskaldun Espainiarra), GALek (Grupos Antiterroristas de Liberación) eta Triple Ak (Alianza Apostólica Anticomunista). Asko eta asko Frantzian. Pertsona batzuk zauritu, mehatxatu, bahitu edota torturatu zituzten (Arana, Harillo eta Prieto 2006, 43). COVITEren web gunean grafiko bat dago eta Euskal Autonomia Erkidegoan muturreko eskuinak hildakoen kopurua ageri da (58), 1975etik 1989ra. Ikus. http://www.covite.org.. ETAko biktima batzuek, Cristina Cuesta esaterako, GALeko biltimekin elkartasuna adierazi dute (2000, 85-102). Era berean, Laura Martinekin bat, GALek hildako Juan Carlos García Goenaren alarguna, "*GALen biktimok ezin dugu gure burua biktima errugabetzat jo ez baditugu ETAk egindako atentatu guztiak gaitzesten… Batzuk ETAko krimenak justifikatzeko erabili nahi naute, besteek, ordea, ETA aurretik egotea erabiltzen dute nire senarraren heriotza justifikatzeko" (El Diario Vasco, 97/07/25, Arana, Harillo eta Prieto 2006: 34).*

3 M-11ri buruz, ikusi Torres Fernández (2004).

4 Kasu horretan, halaber, horietako batzuk mugimendu zabalago batzuetan ordezkatzen edo multzokatzen dituzten elkarteen bitartez.

atentatu nahiz bahiketa, mehatxu eta hertsapenaren biktima izandakoen lekukotzak jasotzen dituztenetatik[5].

Modu osagarrian, dokumental eta film moduan dagoen ikus-entzunezko materiala berraztertu da[6], elkarte eta erakundeetako web orrialdeetan bildutako biktimen lekukotzekin batera[7] eta biktimen blogak ere barne hartuz. Xehetasunetan galtzeko asmorik izan gabe, bai, ordea, errespetu sakona izanez, zati batzuk atera dira[8]. Inoiz ez ditugu aipatutako biktimen ahotsak ordezkatu nahi izan, nahiz eta beste testuinguru batean egin. Bildu ez ditugun horienak edo lekukotza isila inoiz jaso ez dieten terrorismoaren biktima anonimoenak ere ez ditugu ordezkatu nahi izan[9]. Bestalde, kontuan izan behar da biktimen adierazpenak data ezberdinetan kokatzen direla, nahiz eta guztiak hamarkada berdinekoak izan. Horrek, adibidez, erakundeen eta gizartearen jarduerei eragin diezaieke, horiek denboran aldatzen joan diren heinean. Biktimek denbora honetan guztian zehar izandako jarrera ezberdina izan daiteke, baina, azterlan honen eraginetarako, horiek bildu ziren unearen arabera zehaztu dira.

Zeharkako iturriak aztertzeko, galdera-sorta gidaria landu da[10]. Etorkizunerako, anbizio handiagoko azterlana egite aldera, biktimazio inkestak egitea gomendatzen da, nazioarteko araudiari eta jazarpen indarkeriari buruzko kapituluetan aipatu bezala. Zailtasunak izanda ere, posible izango da orduan biktimazio tasak[11], kopuruenak (biktimazio terro-

---

5 Biktimazio terroristaren inguruko kexak jakinarazteko eta herritarrek bere jarrera adierazteko bide garrantzitsua topatu dugu egunkarietako zuzendariei helarazitako gutunen atalean; berezko lekukotzak ere topatu ditugu bertan.

6 Ikusi erabilitako materialaren zerrenda bibliografian. Ikusi, orokorrean, Carmona (2004). Dokumentalak ez dira bakarrik informaziorako materiala, ekoizpen artistikoa ere badira, eta horrek errealitatea irudikatzen lagundu digu.

7 Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eta Fernando Buesa Fundazioak, besteak beste, ikus-entzunezko lekukotzak biltzen egindako lan paregabea eta baliotsua azpimarratu nahi dugu –Miguel Ángel Blanco Fundazioak bultzatuta eta Iñaki Artetak zuzendua–. Ekimen hauetan parte hartu nahi izan duten biktimei eskerrak eman nahi dizkiegu beren eskuzabaltasunagatik, beren esperientzia errepika ezinak eskaintzeagatik, min handikoak horiek, baina, aldi berean, etorkizuneko belaunaldientzako eta gure belaunaldirako balio neurtezinekoak diren horiek.

8 Biktimak direnean, zuzenekoak edo zeharkakoak, zatia letra etzanean agertzen da. Elkarte edo gizarte mugimendu baten adostutako iritziaren aurrean bagaude, testua komatxoen artean agertzen da. Kasuren batean hitzen bat erantsi da argibide edo laburpen modura; kasu horretan, kasuan kasuko hitza ez da letra etzanez azalduko.

9 Ez gure zeharkako azterketan, ez beste iturri baten bitartez.

10 Ikusi 1. eranskina. Kapitulu honen eta hurrengoaren eranskinez ari garenean, bakoitzaren bukaeran daudenez ari gara, eta ez txosten osoaren bukaerakoez.

11 Euskal biztanleriaren lagin adierazgarriari galde eginez ea noizbait eraso terroristarik jasan duen. Inkestak azken bost urteetako oroitzapenetara mugatu ohi dira, baina horrelako ekintzen izaera larria ikusita, komenigarria litzateke mugaketarik ez egitea, horrek egiazkotasuna galtzea ekarri gabe. Jazarpen indarkeriaren ataletan jada adieraziko den moduan, metodologia honek egokiagoa dirudi mehatxu edota hertsapen terroristen indarkeria mota honentzat, bertan kopuru beltz edo ezkutuko biktimazio maila altua dagoelako –horrek egon daitezkeen lesio eta kalteak ere hartu beharko lituzke–. Aldiz, biktimazio zuzenean edo hildakoak edota zaurituak dituzten atentatuen kasuan, poliziaren erregistroa zorroztasun handiagokoa da. Edonola ere, zehaztu beharrekoa da lehenengo hamarkadetako atentatu askotan, zaurituen erregistroa ez zela beti xehetasun osoz jaso.

rista zenbat aldiz eta zein motatakoa izan den)[12], salaketenak, segurtasun falta sumatzearenak[13], nahiz biktimek erakundeekiko[14] eta erasotzailearekiko[15] duten jarrerarenak baloratzea. Hain zuzen ere, iturriak aztertzeko gure galdera-sorta gidarietan egokitu egin dugu biktimazioko inkesta orokorren ohiko edukia biktimazio terroristaren arabera. Hala eta guztiz ere, gure azterlan kualitatiboan laginak ez dira adierazgarriak, eta, beraz, ezin dugu estatistikoki orokortu, ezta lortu ere, adibidez, profil soziodemografikoekin bat egiten duen biktimazio arriskuari buruzko kopuru zehatzik. Faktoreak identifikatzeko saiakera egin dugu, ez horiek kuantifikatzekoa, xehetasun gehiagoko beste batzuk bultzatzeko helburua duen azterketan. Mehatxatutako edo hertsatutako pertsonei buruzko kapituluan bezala, benetako *subjektuen* aurrean gaude, ez azterketa xedeen aurrean.

Biktimen adierazpenak bigarren mailako iturrien bitartez aztertzearekin batera, kontuan izan dira monografiak eta artikulu espezializatuak, eta elkarrizketa zuzenak egin dira. Horien iraupena gutxi gorabehera bi ordukoa izan da kasu bakoitzean, eta gaian aditu diren bi pertsonari[16], Eusko Jaurlaritzako Biktimen zuzendariari[17] eta COVITEko bi kideri[18] egin zaizkie. Testuan zehar, elkarrizketa ezberdinetako zatiak islatuko dira, jazarpen indarkeriari buruzko atalean ere erabilitakoak horiek[19].

Bildutako datu guztiak metodo anitzeko edo triangelatze ikuspegiaren bitartez aztertu dira. Termino hori lehenengo aldiz erabili zen topografian, hiru puntu gurutzatzen ziren tokiaren bitartez lortutako kokalekuari heltzeko. Zaila iruditu arren[20], gizarte ikerketan aplika daiteke, baina ez bakarrik metodo edo datu ezberdinak erabiltzeari dagokionez,

---

[12] Kale borrokako erasoak hainbatetan jasan dituzten edo mehatxu, hertsapen edota estortsioen biktima hainbatetan izan diren biktimak daude. Gainera, zeharkako biktima batzuen kasuan, ETAk eraildako senideren bat dutenak, orain zuzeneko mehatxua jasotzen dute biktimen eskubideen aldeko elkarte edo mugimenduetakoak izateagatik.

[13] Arrisku "objektiboko" tasak biktimazio tasen emaitzen azterketatik eta profil soziodemografikoekiko loturaren eraginetik eratorriko lirateke.

[14] Funtsean polizia eta Justizia Administrazioa, baina biktimazio terroristaren kasuan, bigarren mailako biktimazio zabalagoaren nabarmentasuna ikusita, beste erakunde batzuei zabaltzea ere posible litzateke, adibidez Estatu mailako eta maila autonomikoko Biktimen Zuzendaritzari, Giza Eskubideen Zuzendaritzari, eta abarri.

[15] Erasotzaileari jarritako zehapenean nahiago izango lukeenari buruz galdetuko litzaioke: ekonomikoagoa, zigortzaileagoa edota lehengoratzaileagoa.

[16] Enrique Echeburúa irakaslea, UPV/EHUn Psikologia Klinikoko katedraduna (Donostian, 2007ko azaroaren 29an egindako elkarrizketa grabatua), ekarpen garrantzitsuak egin izan dituena gaian, biktimak tratatu dituena eta elkarteen aholkulari izan dena; eta Ana Isabel Simon andrea, Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programako gizarte langilea, zerbitzura 2004ko martxoaren amaiera aldera sartu zena (Madrilen, 2007ko abenduaren 7an, grabatu gabe egindako elkarrizketa). Grabaziorik ez izatearen arrazoia elkarrizketatuak berak espresuki ez grabatzea eskatu izana da, eta, kasu horretan, landa oharrak bildu ziren. Gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diogu Olga Cañas andreari, Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programakoa, harremanetan jartzeko lan atseginagatik.

[17] Maixabel Lasa Iturrioz andrea, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria (Donostian, 2007ko abenduaren 20an eta 28an egindako grabatutako elkarrizketa).

[18] COVITEko bi kiderekin egindako elkarrizketa (Donostian, 2007ko abenduaren 28an, grabatu gabe egindako elkarrizketa).

[19] Ikusi galdera-sorta guztiak eranskinean.

[20] Ikusi García Ferrando (1998, 801-2) eta Gavrielides (2007, 147).

baita *mikro, meso* eta *makro* mailen konbinaketa ahalbidetzen duten ikuspegi teorikoei dagokienez ere. Horrela, horietako bakoitzak egiazta daitekeen ezagutzaren ekoizle modura dituen ahultasunak gutxituko lirateke. Gizarte errealitatearen *mikro* mailak zerikusia du gizabanakoen elkarrekintzen artean, eta pertsonen esanahi subjektiboei heltzen dieten teknika kualitatiboen bitartez aztertu ohi dira. Bertan egongo litzateke lekukotzen garrantzia. *Makro* mailak gizarte orokorra biltzen du, egitura politikoak, kulturalak, ekonomikoak... hartuz, eta haren azterketan teknika kuantitatiboak edo estatistikoak erabili ohi dira. Maila baten eta bestearen artean *meso* maila dagoela kontuan har dezakegu, bertan taldeko alderdiak edo berehalako testuingurukoak kontuan hartuz. *Mikro* mailan banakako lekukotzetara jo dugu, *meso* mailan familiaren, ikastetxearen... alderdiak kontuan har daitezke, bizitzako istorioen zatietan ere aipatzen direnak horiek. *Makro* mailan testuinguru soziopolitikoa eta ekonomikoa topatzen dugu. Hori, toki arrazoiengatik esplizitua egin ez badugu ere, erantsitako bibliografia orokorraren nahiz jazarpen indarkeriari buruzko kapituluan egindako albiste aukeraketaren irakurketatik atera daiteke. Rodríguez Villasantek dioen bezala (1998, 14): *"...orokorrean hartutako gizartearen eta pertsona zehatzen artean, hainbat harreman dago aztertzeko, eta... harreman sare hori da gure eguneroko interesen gunea"*.

## 3. Egitura

Biktimazio terrorista zeharkako iturrien bitartez aztertzeko gure gidak[21] lanaren egituran gida eratzeko balio izan du ere, irakurleak aurrerantz egiteko aukera izango duelako hurrengo goiburuak jarraituz:

- Lehen mailako biktimazioko esperientziak.
- Bigarren eta hirugarren mailako biktimazioa.
- Erresilientziako elementuak.
- Ondorioak eta gomendioak biktimazioa prebenitzearen eta txikitzearen inguruan.

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu biktima guztiei, bereziki beren egia eta memoria iturri ezberdinen bitartez eskaini digutenei. Beren eskuzabaltasunak eta adoreak gainontzekoak gizatiarrago sentiarazten gaitu, eta haiekin konpromisoa dugularik, gure gizartean eskubideak defendatzeko jardunean aritzeko indarra ematen digu. Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarte eta fundazioei, baita kazetari eta ikertzaileei, gure burua ezagutzera eman eta bizitza handitzen duten irudiak eta ahotsak ekarri dizkigutelako, baita justiziaren alde beste pertsona batzuek duten sufrimendua eta borroka ere gerturatu dizkigutelako. Fundazio eta elkarteen barruan, lanaren zati honen oinarria Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren eta Miguel Ángel Blanco Fundazioaren web guneetako ikus-entzunezko testigantzak izan dira, baita Fernando Buesa Fundaziokoak ere. Funtsezkoa da jardun horien balioa onartzea eta horiei babesa irmoki ematea.

[21] Biktimen pribatutasunaren babesari dagokionez, azterlan honen diseinu metodologikoan ere ikusi Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak delituen biktimei laguntzeari buruz egindako Gomendioaren (2006) 2.1 eta 10.8 paragrafoak.

Hirugarrenik, aditu gisa gure elkarrizketa onartu zuten pertsonei eskerrak eman behar dizkiegu. Enrique Echeburúa, irakasle mirestua; Ana Isabel Simón, desbiktimazioan zuzenan dihardu; eta Maixabel Lasa, terrorismoaren biktima izatea den posizio zail baina arduratsuan dagoena eta Biktimen Zuzendaritzako arduraduna. Era berean, eskerrak eman behar dizkiogu Antonio Beristain irakasleari, biktima bera ere eta nazioartean son handiko aditua. Elkarrizketa egitea onartu zuen, baina osasun arazoak tarteko ezin izan gintuen hartu. Nolanahi ere, bere azken lanak aintzat hartu ditugu.

Zor berezia dugu COVITErekin, izan ere eskuzabaltasun osoz erantzun zien gure galderei eta terrorismoaren biktimei buruzko ikus-entzunezko materiala utzi zigun.

## II. LEHEN MAILAKO BIKTIMAZIOKO ESPERIENTZIAK

### 1. Ezagutza zientifikoaren zatidura eta eskasia terrorismoaren biktimen gainean

Terrorismoaren biktimak diziplina oso anitzen interesekoak izan zitezkeen gure herrialdean. Bereziki, Kriminologiak eta Biktimologiak, diziplina arteko jakintza modura, gazteak izanda ere, Zuzenbidearen, Psikologiaren, Soziologiaren, Antropologiaren, Historiaren… interesa har zezaketen. Aitzitik, azterlan txalogarriak salbu, terrorismoaren biktimen gaineko ezagutza gehiena kazetaritzatik eta biktimen euren ikerketa eta saiakera lanetatik eratorritakoa izan da, nahiz eta gaur egun areagotzen joan errealitatera egindako beste hurbilketa batzuen bitartez.

Psikologiaren eremu zehatzean[22], profesional batzuengan eratorpenetik sortu zen interesa, alegia, beste delitu batzuetako biktimak aztertzetik terrorismoaren biktimetarantz abiatuz, bat eginez, halaber, herritar modura zuten konpromisoarekin berarekin bidegabeko tratua egiaztatzean. Horrekin batera, interes profesionala bultzatu egin zen terrorismoaren biktima batzuk psikologikoki tratatzean gizarte babesaren sarerik ez zegoenean eta Israel edo Ipar Irlandako tratamendu adibideak jarraituz.

Psikologia akademikoaren eta ikerketa Psikologiaren eremuan, terrorismoaren biktimak ez dira interesgarriak izan, eta hori argi ondoriozta daiteke terrorismoaren biktimei buruzko aldizkariak eta zentro espezializatuak ez izatean. Neurri batean, pertsona talde mugatuari eragiteagatik, eztabaida politikoa pizteagatik, biktimenganaino iristeko zailtasunak izateagatik… argitu daiteke. Kontrolpeko ikerketa kliniko batzuk egin dira, baina EEBBek, alor honetan punta-puntakoak, I-11ko atentatua jasan arte ez zen azterlan gehiago bultzatu. I-11ko atentatuekin eta guzti, orokorrean gutxiengoari eragiten dion fenomenoa izaten jarraitzen du. Espainian, gaiari buruzko azterlanak ere ezohikoak ziren, nahiz eta M-11n jazotakoarekin eta Psikologoen Elkargoaren erreakzioarekin zabaldu egin diren. Edonola ere, ikusteko dago interes hori denboran mantenduko den.

---

22 Enrique Echeburúa Odriozola irakasleari egindako elkarrizketaren lanketa.

Egun, gure ingurunean ez dugu behar besteko informazio alderaturik, alor horretan biktimei buruzko politikak diseinatzeko. Zatikako ezagutzak eta masa enpiriko oso gutxikoak daude. Enrique Echeburúak uste du Eusko Jaurlaritzako Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak interes berezia duela ikerketa bultzatzeko, adibidez erraildako pertsonen seme-alabei buruzko azterlan zabalak eginez. Horren bitartez, emozionalki nola eboluzionatu duten; bizitzaren aurrean zer jarrera duten; mendeku, gorroto, ideologien edo Euskal Autonomia Erkidegoaren aurkako sentimenduak garatzen dituzten… jakingo litzateke. Edonola ere, biktimekin errespetu handikoa izan behar da, lehentasuna emanez haien interesari, interes zientifikoaren aurretik. Izan ere, COVITEko pertsona batzuk adierazi izan dute noizbait elkarrizketa batzuk modu negatiboan nahastarazten dizkietela oroitzapenak. Zentzu horretan, "ikerketa aplikatu" bat egitea posible litzateke, edo ekintza ikerketa bestela, behar duten pertsonekin modu onuradunean esku hartzeko.

## 2. Zuzeneko eta zeharkako biktimak

Zeharkako biktimazioaren edo familiaren biktimazioaren kontzeptu zabala kontuan hartuz gero zentzu biktimologikoan –ez legezkoan–, ahaidetasun maila guztiak hartuz, argi eta garbi ikusi ahal izango da biktimak ETAk zuzenean egindako erailketek, bahiketek, mutilazioek, lesioek, mehatxuek edota hertsapenek sortutako biktimak baino ugariagoak direla[23]. Are modu zabalagoan, nahiz eta lan honetarako eraginkortasun gutxirekin, lagunak eta lankideak sartuko lirateke ere, eta, azkenik, baita terrorismoak beldurtu nahi duen gizarte osoa ere.

Goiburu honetan bildutako lekukotza gehienak erraildako pertsonen senideenak dira (alargunak, gurasoak, anai-arrebak eta seme-alabak). Zentzu horretan, biktimazioaren deskribapena horietan oinarritzen da. Aitzitik, atentatuak edota mehatxuak eta hertsapenak jasan dituzten zuzeneko biktimak ere sartu ditugu, horien larritasuna objektiboki txikiagoa izatea alde batera utzita. Jarraian adieraziko dugun moduan, askotan biktimek biktimazio anitzak eta behin eta berriro jazotakoak jasaten dituzte, eta, aldi berean, zeharkako eta zuzeneko biktima izan daitezke.

## 3. Biktimazio anitza

Adituek biktimazio anitz, etengabeko edo kroniko moduan izendatzen duten horri dagokionez, Euskadik kasu bitxienetako bat agertzen du, eta ez da bakarrik terrorismoak gure herrialdean egindako denboragatik, ia berrogei urte, argitzen. Eraso terrorista bat baino gehiago jasan duten pertsonak topatu ditugu. Kasu horien barruan, adibidez, hurrengoak izango genituzke:

- Lau atentatutik bizirik irten diren pertsonak[24].
- Atentatu batetik bizirik irten eta bizkartzaina eraman behar duten pertsonak.

[23] Ikusi Beristain (2007).

[24] Cecilio Orcajo polizia nazionalarekin egindako elkarrizketa ikusi, Arteta eta Galleteron (2006).

- Orain urte asko ETAk gurasoa, senarra edo beste senide bat hil zien pertsonak eta orain bizkartzaina eraman behar dutenak zinegotzi izateagatik edo izanagatik, edo biktimen eskubideak defendatzen dituzten erakundeetako kideak, edo, besterik gabe, ETA kritikatzen dutenak izateagatik.
- Senide bat eraila izan eta ordu edo egun gutxi batzuk ondoren pintaketak edota mehatxu eta irain deiak jaso dituzten pertsonak.
- Aldi berean eta jarraian irainduak, erasotuak, mehatxatuak eta, zenbaitetan, erailak izan diren pertsonak edo erailketa saiakera jasan dutenak.

## 4. Kopuruak, batez ere hilketak izan dituzten atentatuei dagokienez: datu soziodemografikoak eta biktimazioari buruzkoak

Orain kalte zenbatezinak gogorarazten dituzten kopuru hotzak eta betirako hondatutako familiak aurkezten ditugu, gerora haien lekukotza batzuetan egiaztatu ahal izango den moduan. Horietan ere, positibo bihurtzeko gaitasuna ere ikusi ahalko da. Kopuruen aldetiko zenbaketaren zorroztasunari dagokionez, hainbat alde daude gaiko iturrien artean, nahiz eta horiek gehiegizkoak ere ez izan. Zoritxarrez, orain dela gutxi arte, biktimekiko utzikeriak kaudimeneko ikerketak eskasak izatea ere ekarri du ondorio modura, eta horrek egiaren eta memoriaren aldarrikapen printzipioari eragiten dio. Atal hau ikuspegi biktimologiko zabaletik egin da, biktimen gainera nolabaiteko ezagutza eraman ahal izateko, eta ez estrategia terroristei buruzkora mugatu[25].

Txosten hau ixteko unean, ETA (m), ETA (pm)[26] eta KAA (Komando Autonomo Antikapitalistak) taldeen hildako biktimak 841 pertsona ziren[27]. Zuzeneko biktima horiei zaurituak[28] –16.000 inguru–, bahituak –hirurogeita hamar[29]–, gogoz kontra hartutakoak eta mehatxaturikoak erantsi beharko litzaizkieke. 42.000 pertsona inguruk mehatxuak eta hertsapenak jasaten dituela kalkulatzen da talde jakin batzuetakoak izateagatik, eta hainbat enpresak estortsioa jasaten du[30]. Bestalde, zeharkako biktimak zenbatu beharko lirateke, funtsean eraildakoen, zaurituen eta mehatxaturikoen senitartekoak. Gainera,

---

[25] Ikuspegi honen azterketarako, ikusi de la Calle eta Sánchez-Cuenca (2004); horiek higadura gerrako biktimen eta biztanleriaren kontroleko biktimen edo fronte abertzalearen biktimen artean bereizten dute.

[26] Erailketen %90 baino gehiago ETA-m taldeak egindakoak dira. 1975etik 1981era, ETA-pm taldeak 24 pertsona hil zituen (Calleja eta Sánchez-Cuenca 2006, 150). ETA-pm taldearen desegitearen balantzea ezagutzeko, ikusi Loza *et al.* (2007). KAAen historia nahiko laburra izan zen, egun ETA-m taldeak bakarrik jarraitzen duela kontuan hartuta.

[27] Ikusi Terrorismoaren Biktimen Elkarteko web orrialdeko zerrenda (http://www.avt.org), Pulgarri jarraiki (2004). Ikusi 825eko kopuru osoa estatistiken arabera http://www.fundacionvt.org helbidean, talde terrorista ezberdinak kontuan hartuta. Sexua bezalako datuak ematen dira, biktimen izenetik ondoriozta daitekeena, lanbidea eta atentatuaren urtea eta tokia. Horrenbeste aldagai erantsi gabe, ikusi Eusko Jaurlaritzako Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak duen zerrenda helbide honetan: http://interior.euskadi.net/datvt. Beste autonomia erkidego batzuetako zerrendak ere badira.

[28] Ikusi COVITEren estatistikak 1978tik aurrera, http://www.covite.org helbidean. Zaurituen barruan helburua lortu ez zuten atentatuetan zauritutakoak nahiz diskriminaziorik gabe zauritutakoak sartuko genituzke. Laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko hamarkadan jazotako biktimazioetarako identifikazio zailtasuna adierazi da.

[29] Ikusi Callejan jasotako zerrenda (1997, 383-392).

[30] Arana, Harillo eta Prieton (2006, 43) bildutako datuak.

Euskal Autonomia Erkidegotik joan eta jada beren burua mehatxatutzat ez duten pertsona guztiak batu beharko litzaizkieke, edozein modutara ere ETAren terrorismoaren biktima izan direlako eta egun ere badirelako. ETA agertu zenetik, pertsona askok utzi behar izan du Euskal Autonomia Erkidegoa mehatxu eta hertsapenagatik (Pereira, 2004).

Kopuruei buruzko atal honetan, beste mota batzuetako biktimazioak aztertzeko zeharkako iturri osorik ez dagoenez, heriotza ekarri duten atentatuei bakarrik emango diegu arreta. Etorkizunean ETAren terrorismoaren biktimei buruzko beste azterlan kuantitatibo eta kualitatibo batzuk irakurri ahal izatea espero dugu. Calleja eta Sánchez-Cuencaren irizpide zorrotza jarraitu dugu (2006, 147-298)[31]; haiek heriotza ekarri duten atentatuen datu basea egin dute eta balio biktimologiko handikoa da. Aurreko zerrenda eskasak zuzendu eta osatu dituzte, adibidez biktimen seme-alaba kopurua erantsiz[32]. Hala eta guztiz ere, sarrera handiagoko irizpideak egokitzearen gaian sakonduko duten azterlanak komenigarriak lirateke.

## 4.1. Biktimen datu soziodemografikoak

### 4.1.1. *Jaioterria eta bizitokia biktimazioaren unean eta gaur egun*

Ez dago informazio osatua duen iturririk[33], baina uste da heriotzen erdia baino gehiagoren kasuan pertsona Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotakoa zela. Ez dakigu Euskadin bizi eta atentatu baten ondotik joan egin zen familia kopurua zein den eta noiz joan ziren.

### 4.1.2. *Sexua, adina, egoera zibila eta seme-alabak*

Hildako biktimetatik %93 gizonezkoak izan dira. Datu horrek badu lotura alargun edo izatezko bikotekide diren biktimen garrantzi numerikoarekin, nahiz eta zerrendetan ez den egoera zibilari edota biktimaren seme-alaba kopuruari aipamen egiten dion daturik agertzen.

Eraildako emakumeetatik %87 diskriminaziorik gabeko atentatuetan hil ziren.

---

[31] Modu osagarrian: heriotza atentatuaren ondorio zuzena izan behar da; eta hura elkarte terrorista batek egindakoa behar du izan. Lehenik eta behin ikusi Calleja (1987). De la Callek eta Sánchez-Cuencak uste dute hildako biktimek biktima guztiak ordezkatzen dituztela orokorrean, nahiz eta zenbatespen hori ETAren zauritu eta ekintzei dagokienez bakarrik egin den Guardia Zibilaren datuetatik abiatuz (2004, 60-61).

[32] Toki arrazoiak direla eta, datu hori ez da argitalpenaren zerrendan sartzen. Edonola ere, atentatuaren unean seme-alabek zuten adinarekin osatu behar da.

[33] Poliziaren estatistiketan datu biktimologikoak falta izatearen ohituratik abiatzen da, orain dela gutxi arte gaiaren alorrean ikerketak falta izatetik bezala.

Biktimen adinak hogeita bi hilabetetatik –ETAren lehenengo biktimak zuen adina[34]–, hirurogeita hemeretzi urtetara doaz. Gehienak gazteak eta adin ertainekoak dira. Biktimen %3 adin txikikoak izan dira[35].

Ernest Lluch katedradun eta ministro ohiak "La primera víctima de ETA" izenburuko artikulua idatzi zuen ETAk bera hil baino hilabete gutxi lehenago. Artikulu horretan zioenez, ETAren lehen biktima Begoña Urroz Ibarrola hogeita bi hilabeteko umea izan zen, 1960ko ekainaren 27an eraildakoa, Amarako estazioan (Donostian) jarritako lehergailu bat leherrarazi zuenean[36].

### *4.1.3. Lanbidea*

Atentatu gehienetan diskriminazio maila altua dago biktima aukeratzerakoan. Eraildako terrorismoaren biktimen erdia baino gehiago Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak ziren[37]. Kopuru horiei zaurituak erantsi behar dizkiegu, 16.000 inguru, gehienak ere Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak. Kidego ezberdinen artean, eraildako 202 pertsona guardia zibilak ziren[38], 145 polizia nazionaleko kide ziren, 24 udaltzaingokoak eta 13 Ertzaintzakoak. Bestalde, hildako militarrak 99 dira.

Zibilen artean, mehatxuen xede diren talde jakin batzuen barruan kopuruak gora egiten duela ikus daiteke, adibidez abertzaleak ez diren alderdietako zinegotzienean[39].

## 4.2. Biktimazioari buruzko datuak

### *4.2.1. Biktimazioaren lekua*

Calleja eta Sánchez-Cuencaren arabera (152-167)[40], ETAren erailketa gehienak Euskadin (566) jazo dira, atzetik Madril (123), Katalunia (54) eta Nafarroa (42) izanez. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Gipuzkoa izan da gehien zigortutako lurraldea (311 hildako), Bizkaia (209) eta Araba (45) atzetik izanez. Interesgarria litzateke zonalde zeha-

---

34 Datu hau oso eztabaidagarria da, eta beste egile batzuk uste dute ETAren lehenengo biktima José Pardines Arcay guardia zibila izan zela, Villabonan eraildakoa 1968ko ekainaren 7an.

35 23 adin txikiko dira, horietatik 12 hamar urtetik beherako adinekin. Ikusi Pulgar (2004, 128-129).

36 LLUCH, Ernest. "La primera víctima de ETA". *El Correo, 2000ko irailaren 19a*.

37 Hemen Barne Ministerioko datuak jarraitzen ditugu. *El Paisek,* 2008ko otsailaren 20an, 18. or., landutako datuak, 2007ko abenduan eraildako bi guardia zibilen datuarekin eguneratuta.

38 Ikusi Guardia Zibilaren datu basea hurrengo helbide honetan: http://www.guardiacivil.org/terrorismo/acciones.

39 Gaur arte, 50 politikari eta kargu publiko erail dituzte.

40 Liburua argitaratu zenetik jazotako zortzi heriotzekin eguneratuta. Calleja eta Sánchez-Cuencak erabilitako iturriek monografia zerrendak eta elkarteen web orrialdeak, prentsa, bigarren mailako iturriak eta ETA eta haren ingurunetik etorritakoak biltzen dituzte (2006, 176-179). Zenbaki zehatzetan 2009ko maiatzaren 1a arte eguneratu dugu biktimen kopurua, baina portzentajeak ez. Hala ere, aldea ez da nabarmenegia.

tzei eta atentatuak jazo ziren tokia hiri edo landa esparrua izateari buruzko azterketa analitikoak egitea, beste aldagai batzuekin uztartuz[41].

#### 4.2.2. Biktimazioaren data

1960az geroztik, ondorengo urte hauetan hogei biktima baino gehiago hil ziren: 1980 (96), 1979 (80), 1978 (65), 1987 (50), 1991 (45), 1986 (41), 1983 (40), 1982 (39), 1985 (37), 1984 (33), 1981 (32), 1990 (25), 1992 (26), y 2000 (23)[42].

#### 4.2.3. Atentatuaren eredua, eguneko unea eta kokapena

841 heriotza sorrarazi zituzten 598 atentatuen ereduari buruz, esan dezakegu %65 tiroz hil zela, %17,5 lehergailua zeraman ibilgailuarekin eta gainerakoak beste lehergailu mota batzuen bitartez.

Atentatuaren uneari dagokionez, heriotza ekarri duten atentatu gehienak goizeko lehen orduan jazo dira, pertsonak lanera doazenean eta gaizkileek tokitik ihes egiteko erraztasun gehien dituztenean. Atentatua beste ordutegi batean jazo izan denean, Calleja eta Sánchez-Cuencaren (2006,79) arabera, *"…horrek islatzen du hiltzaileek hildakoarekiko zuten hurbiltasun maila ezohikoa zela, auzoko ingurunetik ateratako informazioa zerabiltela"*.

Eraso terroristak jazo diren toki zehatzari buruz, aniztasun handia dago. Horiek hainbatetan jazo dira, ibilgailu baten barruan edo kanpoan; bide publikoetan –batzuetan etxetik gertu, senideak egunero pasa beharko diren tokietan eta, agian, atentatua jazo zen toki zehatzean zaborrontziak jarri dituzten tokietan–; lantokian; jatetxe eta tabernetan; etxean bertan; Unibertsitatean…

## 5. Lehen mailako biktimazioari eta haren ondorioei buruzko kontakizunak

### 5.1. Biktimazioaren deskribapena[43]

Hemendik aurrera edozein motatako ekintza terroristei buruz hitz egingo dugu, lehen ere aipatu dugun bezala bahiketak, erailketak, mutilazioak, zauriak, mehatxuak, hertsapenak, estortsioak… bezalako ekintza eta emaitza hain anitzak sartuz, biktima bakarrarekin edo anitzekin. Jada badaude lan paregabeak, adibidez Cristina Cuestarena (2000); bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko biktimazio terroristaren aniztasuna biltzen da. ETAren

41 Ikusi de la Calle eta Sánchez-Cuencia (2004, 71-76).

42 Callejak eta Sánchez-Cuencak hainbat fase bereizten dituzte (2006, 148-150).

43 Nahiz eta ez dagoen gai horren inguruko azterlan enpirikorik, senide askori gaixotasun fisikoak eragiten zaizkie. Gaixotasun horiek atentatuaz geroztik garatu edo agertzen dira, sortutako desoreka emozionalari lotuta.

krudeltasunaren hedapena eta gizartearen zati baten isiltasuna antzemateko beharrezkoa zen liburuaren hitzaurrean (Arteta eta Galletero 2006), Cristina Cuestak zera dio: *"… neroni ETAren terrorismoak, eta, ondorioz, terrorismo guztiak biltzen duen izugarrikeri eta beldur osoaz jabetu naiz biktimekin hitz egitean, eta harritu egin naiz hurbileko beste lekukotza batzuekin. Gizartea kontrolatzeko, gaiztakeriarako eta harrotasun hiltzailerako gaitasun handia deskubritu dut…"* (ibídem, 235).

Beste lan batzuk Pilar Elíasen istorioa bezalako kasu paradigmatikoak biltzen dituzte. Kasu horretan, gizonak haur bat salbatu zuen ibilgailu batek harrapatuta hiltzetik eta, urteak igarota, haur horrek erail egin zuen eraildakoaren lehengusu zen ETAko buruzagi baten aginduaren ondotik. Azkenik, espetxetik irten eta gero, senarra erail zion pertsonak denda jarri zuen alargunaren etxebizitzaren atariaren ondoan (Baglietto, 1999).

Zeharkako iturrien bitartez, biktimen euren kontakizun batzuk aukeratu ditugu, eta, kasuren batean, berezia izateagatik, baita kanpoko narratzaile batena ere. Ondorioa da terrorismoaren biktimei beste gizaki batzuk krudeltasuna eta gizatasun falta ematen dietela, eta gizaki horiek ezagunak edo auzokoak izaten direla zenbaitetan.

> *–…hura agertu egin zen… zazpi tiro eman zizkioten, belauniko agertu zen… Espainiako banderarekin tapatu zioten ahoa… ondoren… telefonoz deitzen zidaten: "badakigu hor zaudela, itzuli egin zarela"…*[44].
>
> *–Denbora luzea egin nuen belarrian "ta, ta, ta, ta, ta" (metrailetarena) nuela, ia urtebete, "ta, ta, ta"… eta sendagileak esan zidan: "ez dakit nola bizi zaren"… ez nintzen hiru edo lau hilabete igaro arte enteratu…*[45].
>
> –"Emazteak eta alabak odolez estalitako gorpua besarkatzen zuten, negar egiten eta hiltzailea madarikatzen zuten bitartean"[46].
>
> *–Nire senarra hil eta bost egunera nire hirugarren semearen erditzea probokatu behar izan zidaten…*[47].
>
> *–…miraria da ni gaur hemen egotea… Hilda behar nuke, bederatzi balarekin zauriztatuta, baina sorospen zerbitzuek lan ikaragarria egin zuten… Lurrean zeundela eta koldar zu garbitzen saiatu direla jakiten duzunean, hori bizitzea ikaragarria da… Lurrean ez naiz arriskutsua. Baina kargagailua hustu zuen nire kontra. Zergatik? Ez dut ulertzen… Baionako komisariatik alde egin zuenean, une zailak izan ziren niretzat, nire familiarentzat… lanera ni garbitzera etorriko zirela uste nuen… Orain administrazioan dut destinoa… erabateko frustrazioa da… Ni oso kirolzalea nintzen… Orain pozik egon behar dut errehabilitazio gisa igeriketa egitearekin…*[48].
>
> *–Estatistikek heriotza ekarri duten atentatuak biltzen dituzte, ez,ordea, fisikoki edo psikologikoki zaurituta bizirik irten diren pertsonek izan dituzten atentatuak. Hori ez zaie inoiz benetan axola izan gobernuei… Hala eta guztiz ere, bizirik jarraitzen duten horiek dira terrorismoaren benetako biktima, izugarrikeria terroristaren lekuko biziak*

---

44 Rosario Zabala, Vicente Zorita Alonsoren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

45 Fausto Escrigas Estrada, Francisco Marañónen gidaria. Atentatutik bizirik irten zen, eta paraplegiko geratu. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

46 Isaías Carrascoren auzokoa, hari lagundu egin zion. *El Diario Vascon,* 2008ko martxoaren 8koa, 34. or.

47 C.V.V., Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide baten alarguna, Pulgarren (2004, 201).

48 Gérard Larroudé jendarmearen aitorpena Pariseko epaitegi batean. *El Diario Vascon* jasotakoa, 2008ko otsailaren 6an, 31. or.

*dira, gainerako herritar espainiarren ulermen faltaren, Estatuko erakundeen aldetik jasotako ahazte eta utzikeriaren lekuko. Gutxi gorabeherako zenbatespenak badira (16.000 pertsona), baina egoera hori islatzen duen errolda edota dokumenturik ez dago... Batzuk beste batzuk baino zorte hobea izan zuten. Batzuk beste batzuk baino ondorio gehiago jasan dituzte. Baina guztiak dira lekuko mutu. Gure iritzia ez dute inoiz eskatu, ez dira inoiz gure kexak aintzat hartu*[49].

*–...atentatu terroristetan zauritutako milaka polizia eta guardia zibilez gogoratu, inork gogoratzen ez dituen horiek. Gure lankideak ez dira zenbakiak, izen-abizenak dituzten pertsonak dira. Sufritu egiten dute eta min ematen diete beren zauriek. Inor ez da haiekin gogoratzen, inor ez, haien familiak salbu, haiekin egunero sufritzen dutenak direlako. Omenaldiak biktima ezagunei, atentatu odoltsuen urteurrena ospatzea; eta, nork gogoratzen ditu herritarren eskubideen osotasuna zainduz hil ziren poliziak eta guardia zibilak? Nor arduratzen da atentatuetatik bizirik irten ziren polizia eta guardia zibilengatik?*[50]

*–Ez nuen onartu nahi, nire alabak eta nire emaztea zirela... ezezkoa ematen nion... ez da bakarrik hildako bat, inguruan horrek sortzen dituen heriotza txikiak ere badira...*[51].

*–Hemen izan zen bizitzaren eta heriotzaren artean borrokan, hogei minutu igarota hil zen arte...*[52].

*–Hura hil zutenean ni zortzi hilabete eta zerbait gehiagoz nengoen* (haurdun)*... irratiaren bitartez izan nuen gertatutakoaren berri, tristea benetan... inork, inork ez zidalako jakinarazi nire senarra atentatu terrorista horretan hil zela... hil ez zela imajinatzen saiatu nintzen... ez nuen errealitatea onartu nahi...*[53].

*–Fabio ateratzera joan nintzenean, besoetan hartu behar izan nuen. Ez zegoen ume bat, haragi multzo bat zegoen... negarrez ari zena kontsolatzen saiatzen zinen...*[54].

*–Askatasunik ez dago hemen... nik hitz egin nuelako, gutunak egunkarietara bidali nituelako, niri mehatxuak bidali zizkidaten, hil egingo nindutela, hitz egiteagatik bakarrik eta nire etxean inork ez daki ezer... Nire anaiaren heriotzaren hirugarren urteurrenean, hona etorri ginen (hilerrira), nire familia eta alderdiko guztiak... omenaldia egitera... ordu gutxi igarota jakin genuen ETAk lehergailua jarri zuela gu guztiak hiltzeko, baina kale egin zuela*[55].

*–Erailda izan baino lehen, jazarpen eta pertsekuzioaren kalbarioa jasan zuen ia bederatzi urtez... jo egin zuten... ibilgailua erre zioten hainbatetan, pintaketak jasan zituen, molotov koktelak bota zizkioten haren etxebizitzari...*[56].

---

49 Terrorismoaren Biktima izandako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteko kide baten eskuhartzea Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko Udako Ikastaroetan 2006ko uztailaren 7an. http://www.acfsevt.es helbidean ikus daiteke.

50 Paco Zaragozaren bloga, 2007ko uztailaren 15a, igandea, terrorismoaren biktima. http://wwwwlegolian.blogspot.com.

51 Álvaro Cabrerizok emaztea eta bi alabak galdu zituen Hipercorren aurkako atentatuan. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

52 Caty Romero, alarguna, *Voces sin libertad* filmean.

53 Carmen Villar, José Rodríguez de Lamaren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean jasotako ikus-entzunezko testigantza.

54 Antonio Moreno, bi urterekin eraildako Fabio Moreno Aslaren aita. Anaia zauririk gabe irten zen. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

55 Inmaculada Iruretagoiena Larrañaga, José Ignacio Iruretagoiena Larrañagaren arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

56 Maite Pagazaurtundúa Ruiz, Joseba Pagazaurtundúa Ruizen arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

*–…Haren ondoan eseri nintzen… orduan hasi nintzen negarrez, txikiari argibideak ematen hasi nintzenean, behera etorri nintzen*[57].

*–Babesa behar izan dut laurogeiko hamarkadatik aurrera, nire seme gazteena erditu nuenetik, guardia zibilak nire atea zaintzen zuen… semea musu batekin agurtzen duzunean, agian zugandik jasoko duen musu bakarra izango dela pentsatzearen ezinegona da. Nola gainditu heriotza mehatxu bat jasotzearen krudeltasuna hura hilabete gutxi dituen zure semearen poltsikoan topatzean aitonak paseatzera ateratzearen ondotik?*[58]

*–Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera… ETAk jazarpena hasi zuenean abertzaleak ez ziren alderdien aurka, kale borroka gure egoitzarekin tematu zen. Egunero, haren erasoek kalte larriak eragiten zizkiguten, suteak barne. Bazkideek etortzeari utzi zioten. Auzotarrek joateko eskatzen ziguten. Inork ez zuen taberna administratu nahi… joan egin behar izan genuen…*[59].

*–Orain hiru hilabete, supermerkatuko kutxan ordaintzen ari nintzela, espetxeratutako etarra baten arreba hurbildu zitzaidan eta zera esan: "akatsa egin duzu itzultzearekin"*[60].

–Egun hartan, arratsaldeko zortzietan, Ertzaintzako bost agente beren furgonetan zihoazen herri iskanbila espero zen Errenteriako zonalde batera… Sutan zegoen autobus baten parera iristean, erradikal talde batek hainbat koktel kimiko bota zituen haien gainera, gasolinarekin eta azido sulfurikoarekin egindakoak hain zuzen. Ertzain bat bete-betean harrapatu zuten botila errekorren kolpeek. Istiluen aurkako kaskoa buruan urtu zitzaion. Hilabete egin zuen bizitzaren eta heriotzaren artean. Beste agente batek sorbalda apurtu zuen ataskatuta zegoen atea irekitzen saiatuz, uniformea sutan zuela irten zen eta lurretik biraka ibili zen hura itzaltzeko. Defendatzen saiatzeko arma atera zuenean, heldulekuko plastikoa, suak urtua, eskuan itsatsi zitzaion. Tranparen hiru egileen aurkako epaiketan, 1996ko maiatzean egindakoa, poliziak gogoratu egin zuen nola harrapatu zituzten bi gazteen garrasiak bakarrik entzuten zituen eta lagundu nahi zioten herritarrak nola hurbiltzen ziren eskuak airean zituztela. Ezin izan zuen arma askatu… Agente bat atera ahal izan zen, eskuak sutan zituela… Bost urte geroago haren familiako medikuak tratamendu psikiatrikoa hasteko gomendatu zion, tranpa hura gogoratzearen ondorioz jasaten zituen arazoak kontuan hartuta… Oroitzapen horiek 2008ko urtarrileko epaiketan biziberritu behar izan zituen. Azkenean, aseguru-etxeak baliaezintasun absolutuaren gastuak ordaintzea erabaki zuen[61].

## 5.2. Biktimazioak denboran eta eremu ezberdinetan dituen eraginen deskripzioa (eremu pertsonalean, familiarengan, lanean…)[62]

Biktimazioaren eraginek, hau da, haren inpaktuak kaltearekin eta hura konpontzearekin du zerikusia. Reyes Materen arabera (2007, 5-6), biktimei egindako bidegabekeria mota neurtzeko, eragindako kaltearen hiru dimentsioak kontuan hartu behar dira erantzun

---

57 Pilar Elías, Ramón Bagliettoren alarguna, atentatuaren unean semeak bederatzi urte zituela aipatuz. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

58 Ana Urchueguía, alkatea, Pereiran (2004) bildutako lekukotza.

59 Ramón Jáuregui (2008, 37).

60 Rafael Marcos Aranda (*El País*, 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

61 *El Diario Vasco*n argitaratutako albistea, 2008ko urtarrilaren 22koa, 29. or.

62 Terrorismoak eragindako balizko traumen inpaktu psikologikoari, soziologikoari eta ekonomikoari buruz ikusi Begeç (2007).

egokiak antolatzeko. Lehenik eta behin, heriotzan gauzatutako kalte pertsonala dago, konpondu beharreko mutilazioa, tortura edota mehatxua. Ahal den neurrian, jada badauden estatu eta autonomia mailako legeen bitartez egin behar da –beti hobe daitezke–. Kalte horri terrorismoa egiten duten pertsonei gizartean eta herritarren partetik eman beharrezko ezezkoa batzen zaio. Erasotzaileentzat, biktimek ez dute tokirik, aniztasun ideologikoa eta politikoa defendatzen dutelako euskal gizartean[63]. Erantzuna gizartearen eta erakundeen aldetik biktimak herritarrak direla errekonozitzea izan behar da, memoria bultzatzeko ekitaldiekin eta terrorismoa gaitzestekoekin. Modu partikularrean egin behar da, haien udalerrietan, *"biktimei sentiarazteko haiek gabe ez dagoela euskal gizarterik"*. Azkenik, gizartea bera kalteturik geratzen da *"pobretuta eta zatituta"* geratzean, askotan gaizkileak *"heroi modura tratatzearen eta biktimak errudun modura"* hartzearen maltzurkeriarekin. Gizarte zatidurarako azken erantzuna adiskidetzea da, *"betiere, horrek jada aipatutako bidegabekerientzako mesprezua ez badakar"*.

### *5.2.1. Batez ere, seme-alabengan izandako eragina, haur eta gazteengan funtsean*

*A posteriori* jasotako lekukotzak izan ezik[64], ez dago gure herrialdean terrorismoaren biktimen seme-alabengan, eta, batez ere, haur, nerabe eta gazteengan izandako eraginari buruzko azterlanik, nahiz eta hori ikertzeko proposamenak izan diren[65]. Horri dagokionez, interesgarria litzateke etorkizunean belaunaldien arteko ondorioei buruzko ikerketa egitea. Egoki daitekeen eredu modura, *Represión, silencio, memoria y salud mental: Efectos psíquicos de la guerra del 36 y la postguerra en la subjetividad de los ciudadanos de Catalunya* ikerketan, Congrés Català de Salut Mental Fundazioaren eta Ramon Llull Unibertsitatearen ekimenaren ondotik, Anna Miñarro eta Teresa Morandi psikologoen gidaritzapean egindakoa errepresaliak jasandako familietako kideei elkarrizketak eginez, traumak zenbaitetan laugarren belaunaldiko senideak harrapatzearen aztarnak igarri dira. Halaber, ikerketarako bildutako testigantzek jasan beharrekoa arintzeko balio pedagogikoa izan dutela azpimarratu da, *"bakoitzaren intimitatean sortutako ahaztearen zuloak irekitzeko"* bezala.

ETAk aita edo familiako beste senideren bat hil zuen seme-alabaren edo beste senideren baten kontakizun batzuk aipatuko ditugu jarraian:

---

63 Arregik biktimen "egi politikoa" deitzen duen horrekin estuki uztartuta. Ikusi, psikologia sozialetik, Sutil eta Lázaro Ezquerra (2007).

64 Ikusi, adibidez, Irene Villa (2007).

65 Eusko Jaurlaritzak Echeburúari eskatutako proiektua ikusi, nahiz eta ez zuen COVITEren babesa izan une horretan biktimentzako egokia zen lehentasuntzat ez hartzeagatik. EEBBn eta Israelen, ikusi Danieli, Brom eta Sills (2005). Ikusi Silke (2007). Haurren erresilientzia orokorrari buruz ikusi Cyrulnik (2002) eta Catret (2007). Terrorismoaren Biktimen Elkarte Kataluniarrarena adingabekoen aldagaia erantsiz estatistikak jasotzen dituen biktimen elkarteen web orrialde bakarra da, nahiz eta Kataluniari buruzkoak bakarrik. Ikusi http://www.acvot.org. Seme-alabei eta bilobei senideen erailketak azaltzeko baliabide pedagogiko modura, ikusi COVITE (d.g.). Ikusi Biktimologia Institutua Fundazioak bultzatutako ikerketa biktima den haur baten diskurtsoaren hizkuntza azterketaren gainean, M-11ko kasuak hartuta. Carolina Foullioux zuzendurikoa izan zen: http://www.institutodevictimologia.com/Investigacion03.html.

*–Nire alabak han izan ziren gorpua altxa arte...*[66].

*–Ni konturatu egin nintzen aita hil zutela, aitonak egun batean azaldu egin zidalako... elkarrizketa honetan eta guzti entzun ditut inoiz entzun ez nituen gauzak*[67].

*–Hamahiru urte nituen nire aita erail zutenean... terroristetako batek ikusi egin ninduen, ni ikasten ari nintzen gelara joan zen... pistola batekin apuntatu ninduen... eta zera esan zidan: "joan zaitez zure... amarekin sukaldera"... bulegoaren aurretik igaro nintzen, eta aita bizirik ikusi nuen azkeneko aldia izan zen... erailtzeko eraman zuten... bi tiro eman zizkioten garondoan... nire amaren garrasi urragarria, hura... garrasi hura hor geratzen da bizi osorako... gau horretan bertan... gogor egin behar izan nion neure buruari eta nire arrebarengana jo, orduan sei urte eta erdi zituena, eta aita zerura joan zela adierazi... orain nik alaba bat dut, zazpi urte eta erdi ditu. Batzuetan, harengan proiektatzen dut gabezia hori, niri urte hauetan guztietan falta izan zaidan hori...*[68].

*–Ezin dut haur horietan pentsatzeari utzi, dolu itzela hasiz Arrasaten. Izan ere, bost urte daramatzat nire ilobak laguntzen aitarengatiko doluan eta egun bakar batean ere ez diote laguntza hori behar izateari utzi. Ez diogu beharra izateari utzi*[69].

*–Gorroto hori haurren barruan geratzen da. Nire semeak jostailuzko pistola hartzen zuen etarren aurka borrokatzeko...*[70].

*–Hark ez zuen arrazoi batengatik bere bizia eman, bizia kendu egin zioten. Ez gaitezen nahastu. Bizitza kendu egin zioten, maiteen zituenekin bizitzeko aukera lapurtu egin zioten*[71].

*–Betirako markatzen zaitu... erabateko apurketa da... bat-batean hainbat urte gainera etorriko balitzaizkizu bezala...*[72].

*–...buelta erdia hartu eta korrika irten nintzen; noski, hamahiru urteko gazte batek ez du uste tiro bat joko ez diotenik*[73].

*–Ezin nuen han jarraitu, alabengatik, hartu eta Euskaditik irten nintzen. Askotan zera galdetzen diot neure buruari: koldarra izan al nintzen?*[74]

*–Ni indarrez egin nintzen heldu... gau hartan...*[75].

*–...atentatuak nire bizitza osoa aldatu zuen... ez nuen erreakziorik izan nire aita hilkutxa batean ikusi nuen arte...*[76].

*–...nire seme-alabei aita nola hil zen kontatzeko ideia horri ere ezezkoa ematen nion. Hasiera batean... haiengan mendeko sentimendurik sor ez zedin...*[77].

---

66 M. Vicotira Vidaur, Alberto López Jaureguizarren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

67 José Rodríguez Villar, José Rodríguez de Lamaren semea.

68 Jose Ignacio Ustaran Muela, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm.

69 Pagazaurtundúa (2008, 37).

70 M. L. B., atentatua jasan zuen zuzenean, Pulgarren (2004, 199).

71 Natividad Rodríguez Lajoren esaldia, Fernando Buesa Blancoren alarguna, Arana, Harillo eta Prieton (2006, 45) bildua, *Asesinato en febrero* filmetik.

72 Sara Buesa, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

73 Jesús Ulayarren semea, hura aurrean zela eraildakoa. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

74 Alberto López Jaureguizarren alarguna, *Trece entre mil* filmean.

75 Ángel Altuna, Basilio Altunaren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

76 Paloma Esteban, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

77 Carmen Villar, José Rodríguez de Lamaren alarguna. http://www.fundacionvt.org helbidean.

*–Nire seme-alabek ez dute inoiz atentatuari buruz hitz egiten, gaia saihesten dute, haiek eta nik. Beste atentatu batzuk daudenean ere... uste dut nire seme-alabek inoiz ez dietela lagunei adierazi aita terrorismoaren biktima izan zenik*[78].

### 5.2.2. Eragin orokorra

Orokorrean, epe ertain eta luzeko biktimazioaren eraginei buruzko beste lekukotza batzuk bildu ditugu:

*–Nire aita nire anaiaren atentatuaren ondorioz hil zen...*[79].

*–Balak burezurra zeharkatu zidan... Zergatik ez nintzen hilko... begiak dituen haragi pusketa bat besterik ez naiz*[80].

*–Aldatzen zaizun lehenengo gauza familiako bizitza da... pentsatzen duzun lehenengo gauza da: zergatik nire semeari eta ez niri... erru sentimendua bizitza osoan zehar izaten jarraitzen duzu*[81].

–(atentatu berri baten aurrean) *Horrelako egunetan gertatu zen guztia sentitzen duzu berriro. Nire aita hil zutenean nik 24 urte nituen. Eta planteatu... bai, planteatua nion neure buruari, nire aita mehatxatuta egon zelako, zerrendetan irtendakoa zen... Gero, atentatua eta gero, aurrera irteten zara. Aitzitik, zaila da. Are gehiago hemen bizitzean. Kalera irteten zara eta manifestazioak, pintaketak ikusten eta ETAren aldeko garrasiak entzuten jarraitzen duzu. Babesgabetasun handian sentitzen zara. Politikoki eta gizartearen aldetik... Jada ezin duzu ahaztu zure aita hil dutela. Ez dela trafiko istripu batean hil, baizik eta oso inguruabar berezietan. Hori betirako geratzen zaizu*[82].

–(atentatu berri bat ezagutzean) *Horrelako albiste bat ematen didaten bakoitzean bezala, bihotza hunkitu egiten zait eta mugi ezinik geratzen naiz. Istant batean 2002ko otsailaren 28 hartako irudiak etorri zaizkit burura, ETAk ni eta nire bizkartzain zen Iñaki hil nahi izan gintuen eguna. Bizkartzainak zauriak hartu zituen atentatuan. Amorru ikaragarria sentitu dut, eta horrelako zerbait berriro egin dutenak atxilotuak izateko nahia...*[83].

*–Lagunak galdu ditugu Donostiako kaleetan, eskubideak eta askatasunak defendatzen zituzten bitartean, pertsonak eta ondasunak babesten zituztenean; eta egun oraindik min ematen digu haien galerak... egun gure zauriek ematen digute min*[84].

*–Zuk atentatu bat jasaten duzunean, betirako ukituta geratzen zara, eta berdin dizu atentatu batean izatea. Horretan askoz ere hobea egiten zara, askoz ere garbiagoa bihurtzen zara, zuk jada ez duzu bereizketarik egiten...*[85].

*–Nire etxean giltzapetu nintzen, hiru urte egin nituen ia irten gabe...*[86].

---

78 C. V. V., Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide baten alarguna, Pulgarren (2004, 202).

79 T. V. G., guardia zibil baten ahizpa (Pulgar 2004, 200).

80 Francisco Marañón, almirante baten gidaria, *Trece entre mil* filmean.

81 Antonio Moreno, bi urterekin erraildako Fabio Moreno Aslaren aita. Anaia zauririk gabe irten zen. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

82 Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

83 Esther Cabezudo, Portugaleteko Udaleko zinegotzi sozialista (*El Diario Vasco,* 2007ko urriaren 10ekoa, 31. or.).

84 Donostiako urrezko domina entregatzeko ekitaldia Terrorismoaren Biktima izandako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteko kideei, haren presidentearen hitzak 2007ko irailaren 26an.

85 M. del Mar Negro, *Voces sin libertad* filmean.

86 Caty Romero, *Voces sin libertad* filmean.

*–Udalerriz aldatu behar izan ginen, etxebizitzaz, guztiaz... nire amak aurrera atera behar zituen sei seme-alaba...*[87].

*–Muxu eman nion eta zera esan: zein goiz abandonatu gaituzun, bakarrik utzi gaituzu...*[88].

*–Zergatik? Zergatik kendu didate horrela? Hori esatearen sentimendua geratzen zaizu*[89].

*–Bala ahotik sartu zen eta lurrera erori zen, bala berdinak errebotatu eta paretan markatuta geratu zen... etxean sartzen garen bakoitzean... zeharka begiratzen dugu orbana...*[90].

### 5.2.3. Hausnarketak terrorismoak gizartean dituen eraginen gainean

Azkenik, biktimazio orokor modura, terrorismoak biztanleria orokorraren gainean dituen eraginak hel daitezke, alderdi politikoen arteko tentsioa barne, horrek dakarren gizarte hausturarekin. Ondorioak izaten dira bizikidetza demokratikoan, garapen ekonomikoan[91] eta ongizate psikologikoan[92]. 2001ean, Isabel López kazetariak artikulu bat argitaratu zuen. Bertan, Psikologiako eta Psikiatriako adituei galde egiten zitzaien gai honen inguruan, eta, pertsona bakoitzaren egoera eta bereziki gogorrak izandako garaiak aintzat hartuta, zera ondorioztatu zen: *"Indarkeria terrorista eta euskal politikaren egoerak eragin nabarmena du biztanleriaren ongizate psikikoan: ezinegona, tristezia eta antsietatea sorrarazten du. Pertsona kopuruaren gaineko azterlanik ez dago... baina egunetik egunera gehiago dira hurrengo galderak egiten dizkiotenak bere buruari: zer gertatuko da? Nolakoa izango da nire etorkizuna hemen? Pena merezi al du bizi eta seme-alabak heztea eta bizitzarekiko edo berdinak ez diren ideiekiko errespetua bezalako oinarrizko balioak galdu dituen gizartean bizitzeak?"* Joatea erabakitzen duten pertsonengan, askotan mehatxuen arriskua oso benetakoa dela baloratuz, nolabaiteko porrot edo amorru hondar gera daiteke, "zure etxetik botatzearen" sentimendua.

Kroniko bihurtutako biktimazioa hartuta, biztanlerian ere neke eta itxaropen falta agertzen dira. Gainera, familiaren, lagunen eta auzokoen artean eztabaidak saihesteko,

---

87 Terrorismoaren Biktimei Omenaldia egiteko eta Errekonozimendua agertzeko Erakunde Ekitaldiaren filma. Euskalduna Jauregia, 2007ko apirilaren 22an. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

88 M. Ángeles Reyren gurasoak. http://www.fudacionvt.org helbidean jasotako ikus-entzunezko testigantza.

89 Antonio Llanos, Manuel Llanosen anaia. http://www.fudacionvt.org helbidean jasotako ikus-entzunezko testigantza.

90 Luis Portero Garcíaren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean jasotako ikus-entzunezko testigantza.

91 Ia ez dago azterlanik. Horietako batean, Alberto Abadierekin batera egindakoa, erdi mailako herritar bakoitzaren erosteko ahalmenaren %10erainokoa izan dela zenbatetsi da kostua. Bestalde, Batasunako 36 buruzagiren aurka Baltasar Garzon epaileak egindako prozesamendu autoan sartutako peritu txostenean, 2005eko urtarrilean, 1970 eta 2003 bitarteko kostu ekonomikoak 15.000 milioi eurokoak ziren (Calleja 2006, 134-136). Ikusi Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Terrorismoaren Ekonomiaren Katedra (http://www.ucm.es/info/cet/investigacion.html).

92 Ikusi ISAVIC taldeak 2009an egindako lana "Taldeko bortizkeriak osasunean duen eraginaren azterlana", Fernado Buesa Fundazioak babestua.

askotan isiltasuna ezartzen da. Horrek kalte gehien jaso dutenen bakardadean laguntzen du. Haurrek gainerakoekin gatazkak izatea saihesteko eta guzti iritzia adierazterakoan, gurasoak isildu egiten dira mehatxu pintaketen edo atentatuen inguruan argibideak eman aurretik (López 2001, 28-29).

## III. BIGARREN ETA HIRUGARREN MAILAKO BIKTIMAZIOA[93]

Bigarren eta hirugarren mailako biktimazioak zerikusia du gizartearen, erakundeen eta politikarien aldetiko utzikeriarekin terrorismoaren biktimekiko. Euskobarometroak, 2007ko irailean eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioak bultzatuta su-etenaren ostean, egindako *Espainiarrak Terrorismoaren eta horren biktimen aurrean. Inkesta nazionala* izenekoan, terrorismoarekiko egoerak okerrera egin izanaren pertzepzioa azpimarratzen da. Halaber, alderdi ezberdinekiko nahiz euskal eliza bezalako erakundeekiko kritika agertzen dira[94]. Zehazki, Eusko Jaurlaritza eratzen duten alderdiei buruz, elkarrizketaturikoen %68ren eta %50en artean uste dute haiek *"biktimen sufrimendua gutxi edo batere ez"* hartzen dutela kontuan. Horren aurrean, gehienek uste dute gizarteak jakin duela biktimei esker ona adierazten eta laguntza ematen (Llera eta Retortillo 2006)[95].

Aditu batzuen arabera[96], *"ahazte larria egon da, baina aldaketa ikaragarria eta onera izan da, nahiz eta are hobea izan daitekeen"*. Hobekuntza adibide modura, udal batzuen lan aitzindaria aipatzen da: lehendakariak barkamena eskatzearekin eta aldez aurretik biktima bakoitza banan-banan agurtzearekin Euskaldunan egin zen omenaldia, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren lana, Eusko Legebiltzarraren aho bateko erabakiak... Une honetan, bigarren mailako biktimazioa orain urte batzuk baino txikiagoa da.

Bestalde, bigarren mailako biktimazioa oso negatiboa izanda, biktimismoa ere negatiboa da. Pertsonak biktimismoan kokatzea saihestu behar da, biktima modura izandako iraganean bakarrik gogoratuz. Biktimek beren aukerak dituzte, asko bikote gazteak dira, eta beren bizitzak etorkizunari begira proiekta ditzakete. Edonola ere, oraindik erakundeen aldetiko neurriz gaineko babesetik urrun gaude, eskasiatik abiatzen ari garelako.

---

[93] Euskadin biktimazio terrorista hain luzearen gaineko azterlan gutxi egonda, adierazgarria da M-11ko eta Leganeseko atentatuetako ondorio psikologikoen eta sozialen gaineko azterlan garrantzitsuak izatea jada. Horrela, adibidez, *Las víctimas treinta y seis meses después* izeneko azterlana dago, psikologo eta gizarte langileek egindakoa 300 biktimako laginarekin izandako elkarrizketa pertsonalen bitartez. Azterlana M-11ko Biktimei Laguntzeko Elkarteak eta Madrilgo Erkidegoak bultzatutakoa izan da. Alderaketa azterlana da, aurretik egindako beste batekin jarraitzen duena. Aurreko hori atentatuak jazo eta hemezortzi hilabetera egin zen. Ikusi Fenix proiektuaren ikerketa memoria terrorismoaren biktimen gainean, Baca *et al.* egile izanda (2004). Biktimologia Institutua Fundazioan nabarmen: http://www.institutodevictimologia.com/Investigacion01.pdf.

[94] Donostiako gotzaintzan 1972tik 2000 bitarte izandako ibilbidearen berri izateko, ikusi Setien (2007). Biktima talde askok biktimekiko behar besteko gertutasunik agertu ez izana egotzi dio. Ikusi Beristain (2007, 251-252) eta Calleja (2006, 303-332).

[95] Lehen mailako taldeen garrantzia identifikatzea biltzen duen helburu zabalago baten barruan, ikusi Elzo irakasleak zuzendutako ikerlan espezifikoa. V kapituluan zati bat jaso dugu eta terrorismoaren biktimei buruz ari den zatiaz ari gara.

[96] Enrique Echeburúa Odriozola irakasleari egindako elkarrizketaren lanketa.

Echeburúarentzat, euskal gizartearen eta gizarte espainiarraren eta euskal erakundeen jarrera "nahiko ontzat" jo daiteke. Gainera, erakunde askok enpatia duten langileak dituzte lantaldearen barruan. Orain, erronka handiena herritarren eboluzioa izango litzateke. Biktimak deserosoak dira, gizakiaren ahultasuna eta, aldi berean, erail dezakeen eta bere familiarekin maitagarria izan daitekeen gizakiaren krudeltasuna noraino iristen den gogorarazten duelako. Kontzientziazio politikoa jazo da jada, ez horrenbeste, ordea, gizarte kontzientziazioa, biktimak deserosoak izateagatik zer esan ez delako jakiten eta gizarteak erantzukizunaren zati bat izan dezakeela uste duelako. Herritarrak iragana gain hartzera iritsi behar dira, hura berriz ez errepikatzeko. Iritzi horren aldean, beste aditu eta biktima batzuk uste dute erakundeek oraindik egiteko bidea dutela, haien kontzientziazioa ez dela benetakoa eta eguneroko jardunean kontraesanak saihestu behar direla.

## 1. Erakundeen aldetik jasotako zerbitzuen eta tratuaren gaineko balorazioa

Argi utzi behar da ez gaudela adierazitako erakundeen ebaluazioaren aurrean, ezta bertan lan egiten duten pertsonen ebaluazioaren aurrean ere. Aldiz, biktima batzuen iritzi zehatzen aurrean gaude, eta horiek onak izan daitezke jardueren gaineko eztabaida ahalbidetzeko eta egin daitezkeen hobekuntzak zehazteko.

### 1.1. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Estatuko Bulegoa

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko goi-komisario modura berak egindako lanaren balorazioan bertan, Gregorio Peces-Barbak zera azpimarratzen du (2008, 38): *"Arazoak konpondu genituen, asko ordaindu gabe zeuden kalte-ordainenak, ebatzi gabeko egoera asko deuseztatu genituen, Sahararen deskolonizazioaren eremuan, Corona de Aragón hotelarenean, Bartzelonako Hipercorreko atentatu ikaragarrietan, besteak beste. Beste babes bide batzuei ekin genien etxebizitzaren, lanaren, osasunaren alorrean, gai psikologikoetan batez ere, eta baita atzerrian espainiarrak tartean izanda gertatutako atentatuetako biktimei babesa ematearekin ere; ezohiko pentsioen alorrean izatezko bikoteei onurak iritsaraztea; terrorismoagatik zigorra jaso dutenei aldentze neurriak jartzea... edo onena eta eraginkorrena: erantzukizun zibila eta ekonomikoa eskatzea"*. Hori guztia, dio Peces-Barbak, adierazitako batzordearen aurkako eraso politikoen eta biktima elkarteetako buruzagi batzuen erasoaren barruan.

Bestalde, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendari nagusiak, José Manuel Rodríguez Uribes (2007), Peces-Barba ordezkatu zuena, 2004tik estatu mailako laguntza baloratzean[97], ondorioztatu zuen ordudanik aurrera Espainiak *"terrorismoaren biktimei laguntzeko sistema onenetariko bat"* duela, hain zuzen ere talde horri emandako tratu bereziagatik eta beste herrialde batzuetan jazotzen denaren aldean. 2004tik aurrera, ekintza positiboko politikak berretsi egiten dira. Horien artean, azpimarratzekoa da kaltetuek ez jakiteagatik ordaindu ez diren kalte-ordainak berreskuratzea (1996tik

---

[97] 1968tik 2004ra, ikusi Pulgarren balorazioa (2004, 154-160).

hirurehun kasutik gora[98], gehienak ETAren biktima); etxez etxeko 229 bisita; telefono bidezko 30.000 laguntza, eta Audientzia Nazionalean egin beharreko epaiketetara 421 alditan laguntzea[99]. Epaiak gauzatzearen ondorioz, ehun eta bost milioi euro ordaindu dira. Gainera, hurrengoak eman dira: laguntza integrala (etxebizitzaren, hezkuntzaren, ezohiko laguntzen... alorrean), Fiskaltzari gizarte informazioa erantzukizun zibileko eskaerak areagotzeko, eta *ad honorem* karguan gora egitea bultzatu da, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta Ejertzitoko hildako biktimen kasuan. Halaber, hiru urteko epean hainbat milioi euro banatu dira terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazio ezberdinen artean. Etorkizunari begira: *"...Solidaritate lege berria landu beharko da... sistema itxiz, eskubide berriekin osatuz eta justifikatu gabeko egoerak berdinduz, baina, aldi berean, testu bakar eta leihatila bakarraren bitartez sinplifikatuz..."*. Desberdintasuneko egoeren barruan, biktimen estatusa onartzen ez den horietan, atzerrian atentatu xede izan diren turistenak eta legez kanpoko atxiloketen xede izandako pertsonenak sartzen dira.

Militar Espainiarren Elkarte Bateratuak eskatu egin zuen Estatuak terrorismoaren biktimen maila eman ziezaiela militarrei eta haien familiei, horiek jarduera militarretan hiltzerakoan edo zauritzerakoan. Izan ere, bakea mantentzeko nazioarteko jardunaren alorrean 2004an onartutako kalte-ordainen Errege Lege Dekretua ez zen nahikotzat jo. Haien ustez, konpentsazio ekonomikoez gain, osasun eremuko, eremu psikologikoko edo etxebizitza eskuratzeko beste laguntza batzuk hartzeko aukera izan behar zuten. Barne Ministerioa Solidaritate Legearen Araubidearen aldarazpena amaitzen ari zen 2008an; neurri horrek hogeita zazpi pertsonari ekarriko lioke ondorioa gutxi gorabehera[100], zaurituak edo hildakoak izan badira talde terroristek Espainiatik kanpo egindako atentatuetan. Halaber, Araudian, eta, ondorioz, baita Legean ere, aldarazpenak aurreikusi dira, beste bi gairen inguruan. Lehenengoak zerikusia du bahituei babes osoagoa ematearekin. Egun, kalte-ordainek ez dituzte legez kanpoko atxiloketen kasuak hartzen, eta, adibidez, 2007an ETAk lau euskaldun preso hartu zituen Frantzian haien furgonetak lehergailua daraman ibilgailu modura erabiltzeko[101]. Aurreikusitako bigarren gaiak zerikusia du lesiodunei kalte-ordaina emateko baremoekin, Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak ezarritakoak aplikatze aldera gertaerak jazotzeko unean indarrean daudenei jarraiki.

---

98 Lehenengo laguntzetatik zenbat izango liratekeen galde daiteke.

99 Pentsatu hemen M-11ko biktima guztiekiko jarduna biltzen dela.

100 1998ko uztailean, Omaghen (Ipar Irlanda), IRAk 12 urteko haurraren eta 23 urteko begiralearen aurka egindako atentatuan erailketa hartzeko, beharrezkoa da legea aldaraztea 2001 baino lehenagokoak izateagatik. Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak hori ere aurreikusi du, antza. 2008ko otsailaren 1ean, Gobernuak xedapen gehigarria onartu zuen Aurrekontu Legean; hura indarrean jarri zen 2008ko urtarrilaren 1ean. Bakea mantentzeko lanean parte hartzerakoan atentatua jasaten duten langileek kalte-ordaina terrorismoaren biktima balira bezala jasoko dutela zehazten da.

101 Ikusi Ordaz (2007), haietako batzuk elkarrizketatzen saiatu zen. Haietako baten amak zera adierazi zuen: *"Ez dut uste nire semeak horri buruz zurekin hitz egin nahi duenik. Ordudanik isiltasunean murgilduta dago. Nik uste dut gu babesteko izango dela"* (ibídem, 6). Kazetariak kasu horiek alderatu ditu egunkarietan bere izena jakinarazita adierazpenak egiteko arazorik izan ez zuen pertsona frantziarrarenarekin. Ordazek zera ondorioztatzen du: *"...egun oraindik Euskadin errazagoa da borrero izatea biktima baino..."*. Gainera, pertsona horiek susmoak eragiten dituzte *"batzuentzat eta besteentzat"* (ibídem, 7).

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Elkartearen aldetik, egungo kondekorazio sistema aldatzea eskatzen da, bidegabekeriak eta horiek emateko izapide eta irizpide prozedurekin zerikusia duten arazoak saihesteko.

Gure aldetik, COVITEren gogobetetasun orokorra jaso dugu emandako laguntza hobetzeari dagokionez, nahiz eta zenbait ñabardurarekin.

Zentzu horretan, testigantza batek zera dio:

> *–Erakundeek diote biktimen behar ekonomikoak estalita daudela, eta hori ez da egia. Paperaren gainean hainbat neurri jartzen da, baina praktikan hori ez da horrela. Guztia mantsoegi doa eta biktimak lehentasuna izan beharko lirateke*[102].

### 1.1.1. Etxez Etxeko Arreta Programa

Programa honen berariazko atala erantsi dugu, oso modu positiboan baloratzen dugulako nazioarteko araudia betetzearen barruan. Horren arabera, biktimekiko hurbileko tratua eta tratu pertsonalizatua behar dira. Antolamenduak Euskal Autonomia Erkidegoan antzeko programa garatzeko eredu gisa balio izan dezake, kontuan hartuz gainera euskal zuzendaritzak gizarte langileak izan nahi dituela.

#### *1.1.1.1. Jardunak eta balantzea*[103]

Herritarren Arretarako eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa Barne Ministerioan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Unitatea da[104]. Informazioa ematen du laguntza publikoak eskatzeko eta, behar bada, doako justiziaren onura lortzeko prozeduren gainean; laguntza espedienteen izapidetzea eta ebazpena dakarren erantzuna, delitu bortitzen biktimei laguntzeko bulegoekin, laguntza publikoak izapidetzeko ardura duten beste unitate administratibo batzuekin eta biktima eta haien familien elkarteekin lankidetzan aritzearekin batera.

1999an, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendariordetza Nagusiaren sorrerarekin, biktimekiko harreman zuzenaren kezka sortzen da. Hasieran kalte-ordainei buruzko baliabidea zen. M-11 eta gero, ildo hori zabaldu egin zen eta, 2006ko apirilean, Etxez Etxeko Arreta Programa martxan jarri zen. Argibideak emateko egindako foiletoan argitzen denaren arabera, Etxez Etxeko Arreta Programaren funtsa esku-hartze psikosoziala bideratzea da gizarte eskaerak, lanekoak, ekonomikoak, osasunekoak, psikologikoak, eta abar sumatzen direnean. Horrela, laguntza ematea posible da behar den denbora guztian zehar, administrazio espedientetik haratago. Biktimekin harreman zuzena izan

---

102 Rafael Marcos Aranda (*El País*, 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

103 Elkarrizketa Ana Isabel Simónekin, Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programako gizarte langilea (Barne Ministerioa). Elkarrizketa egin zen unean, programa honek urte eta erdi inguru zeraman abian. Etorkizunean oso garrantzitsuak izango dira horren jardunaren datuekin egiten diren ikerketak.

104 Datu horiek hurrengo web orrialdean ikus daitezke: www.mir.es.

nahi da, haien beharrei laguntza pertsonalizatua emango zaiela bermatze aldera. Telefonoz harremanetan jarri ondoren, etxez etxeko bisitak egiten dira estatuko lurralde osoan, *"izan ere, helburua biktima guztienganaino iristea da, horien bizitokia non dagoen alde batera utzita"*. Biktimen barruan senideak ere badaude. Etxez etxeko arretako talde bakoitzaren barruan bi gizarte langile dago. Laguntza eskaera telefonoz edo posta elektroniko bidez egin daiteke[105]. Telefono bidezko harremanak aurrerantz egiten badu ere, behin esku-hartzea eginda, Programak Udaleko edo Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetara edo beste erakunde batzuetara bideratzen du kasuan kasuko espedientea, *"haren eremu geografikoan laguntza eman diezaioten, koordinazio joria izanez Ministerioarekin eta kasuan kasuko gizarte zerbitzuekin"*. Foiletoan adierazten denaren arabera, jarduera programa hilabetekoa da.

Elkarrizketako unean, programan zazpi gizarte langilek egiten du lan, bi soziologo eta koordinatzaile batez gain. Guztiak emakumeak izateak ez du arazorik ekarri. Soziologoak 2007an hasi ziren, eta ikerketa lana egiten dabiltza terrorismoaren biktimen egoerari buruzko alderdiak ezagutzeko. Psikologorik ez dago; horiek Zuzendaritzako beste sail baten barruan kokatzen dira. Zenbaitetan, biktimek nolabaiteko lotsa senti dezaketela sumatu da ikuspegia psikologikoa bakarrik bada.

Urte hauetan zehar Programari egindako balantzeari dagokionez, kontuan izan behar dira haren bi helburuak. Lehenengo helburuak biktimen beharrak *in situ* ezagutzea eskatzen du, haien bizitokietan. Bat-batekotasun, hurbiltasun eta enpatia irizpideekin egiten da lan. Beharrizanak bi motatakoak izan daitezke: presazkoak eta prozesuan; azken kasu horretan beharrezkoa da agerikoak ez diren gaiak lantzea. Balantzea positiboa da. Hilero etxez etxeko bi bisita egiten dira gutxienez, hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadako biktimak sartuz.

Bigarren helburua biktimei babesa ematea da, Administrazioan, nahi izanez gero, nora jo dutela jakinaraziz, baina Madrilera joatea beharrezkoa ez dela esanez.

Urteek aurrera egin ahala, mugak ikusi dira jardunean. Zenbaitetan ezinezkoa da eskatutakoari aurre egitea. Ezinezko itxaropenak edota etengabe sorospen edo laguntzen mende egongo diren pertsonak ez sortzearen garrantzia azpimarratu egiten da. Helburua normalizazioaren eta autonomiaren agente modura jardutea da. Mendetasunik edo giro gaixoak edo etsaitasunekoak ez sortzean datza.

Kasu aniztasuna dago. Adibidez, biktima batzuen kasuan, eskaera nagusiak lanarekin du zerikusia. Biktimaren senideei eragiten diten eskaeretan, beharrezkoa bada, psikopedagogoetara bidaltzen dira. Zenbait kasutan laguntzak mugatuak badira, zabaltzea posible da lankidetza hitzarmenen bitartez.

Etorkizunean, baliabide pertsonalak baino, agian lehentasuna izango dute administrazioekin sinatu beharreko hitzarmenek eta erakundeen arteko koordinazio hobeak. Adibidez, zenbaitetan biktimak kexu dira administrazio batzuen aldetik edo administrazio horien barruan kokaturiko pertsona batzuen aldetik nolabaiteko "tratu txarra" jasotzeaz.

105 Posta elektronikoko helbidea honakoa da: asistencia@mir.es

Prestakuntza duten boluntarioen bitartez baliabide gehiago izateko aukerari dagokionez, zalantzak daude horiek berehalako arretarako egokiak izatearen inguruan.

Lankidetza badago Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Orokorraren eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren artean, eta balorazio ona ematen zaio. EAEn Etxez Etxeko berariazko Arreta Programa sortuko balu Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak, interesgarria litzateke hura koordinatuta egitea. Izan ere, horrela egin ezean, bikoizketan eroriko lirateke eta horrek ez du biktimen euren alde egiten.

### *1.1.1.2. Harremana biktimekin eta jarraipena*

Atentatu bat dagoenean, normalean, Zuzendaritza Nagusia harremanetan jartzen da berehala biktimekin, zerbitzuaren arduradunak zuzenean edo gizarte langileak bertaratuko diren baloratuz. Ofizioz jarduten da, baina beti galdetu egiten da laguntza nahi duten, adibidez etxetik kanpo egon daitezkeen lehen une horietarako –senideei dagokienez, biktima ospitalean badago edo atentatua beste toki batean jazo bada–. Ondoren, laguntza horrek aurrera egin dezake administrazio ezberdinekin harremana eratuz eta, gero, epaiketan.

Hasierako laguntza hori eta gero, Zuzendaritzak etxez etxeko bisita nahi duten galdetzen du. Azkenik, gizarte langileek aldian behin deitzen dute telefonoz. Biktimen euren deiak ere jasotzen dituzte. Atentatu bat jazotzen denean, biktimazioa biziberritu egiten da, eta erasoaren xede izan den taldeko biktimen aldetik dei gehiago igartzen dira.

Jada existitzen ziren biktimei dagokienez, publizitatea ematen zaio programari web orrialde baten bitartez eta elkarte eta fundazioen bitartez. Edonola ere, Solidaritate Legea aplikatzeko helburuarekin, ia biktima guztiekin harremanetan jarri zen.

Espedienteak, orokorrean, ixten doaz. Biktimen eskaerei arreta emateko denbora, batez beste, bi urtetan zenbatetsi daiteke.

### *1.1.1.3. Berariazko beharrizanak*

Behar zehatzagoak dituzten lau talde ezberdintzen da:

1. Baliaezintasun maila altuko edo ezintasun iraunkorreko pertsonek laguntza teknikoa behar dute protesiak, lastairak... aldatzeari dagokionez. Zaintzaileek ere laguntza psikologikoa behar izan dezakete.
2. Hildakoen senideen kasuan, batzuetan psikologoen eta psikopedagogoen beharra igartzen da. Ondorioz, zerbitzu horietarantz bideratzen dira, goian ere aipatu den moduan.
3. Laurogeita hamarreko hamarkada baino lehenagoko biktimen kasuan, nabarmen sumatzen da bigarren mailako biktimazioa. Aitzitik, errealitatea da biktima askok aurrera egin duela gizarte babesik edota erakundeen aldetikoa izan gabe eta oso esperientzia gogorrak bizi izanda.

4. EAEko biktimen kasuan, Programaren barruan ere bisitatzen direnak, sumatu ahal izan da biktima gehienak kexu direla gizarte babesa, gizarte ulermena falta izateaz, erakundeen aldetikoa falta izateaz baino. Mehatxatutako pertsonekin ez da jarduerarik bideratzen, ez dagoelako horretarako araudirik. Edonola ere, pena merezi dezake esku hartzeko berariazko jarraibideekin egitea.

## 1.2. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

### 1.2.1. Helburuak eta balantzea

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza 2002an hasi zen lanean. Egun, bederatzi pertsonak egiten du lan bertan[106]. Web orrialdean adierazten denaren arabera, zuzendaritzaren helburua honakoa da: *"terrorismoaren gaitzak bere edozein agerpidetan jotako pertsonekiko Administrazioaren hurbiltasuna adierazi gura du. Ildo horretatik, ukiturikoekiko zuzeneko kontaktua areagotuko du"*[107]. Zuzendariaren arabera[108], tratu pertsonalizatuan nahastu egiten dira deiak, gutunak, omenaldietara joatea, eta abar. Erailketaren urteurrena aprobetxatu ohi da gutun bidez lehen harreman bat eratzeko eta pertsonarengana hurbiltzeko. Ekimena Zuzendaritzatik dator beti. Hasieran harridura erreakzio ugari izaten ziren, uste baitzuten Eusko Jaurlaritza eta, orokorrean, erakundeak biktimen arazo hauetatik urrun mantendu izan direla. Horietako askok honakoa esaten zuten: *"bazen garaia"*. Beste batzuk, gutxiengoa, ez zuten ezer jakin nahi Eusko Jaurlaritzarekin, baina Zuzendaritzaren lana eskertzeko deitu duten biktimak ere izan dira. Orokorrean, geroz eta nabarmenagoa den hurbilketa hori positiboki hartu da.

Ondoren, zenbait kasutan eta normalean zuzendariaren aldetik, bisita pertsonalak egin dira etxebizitzetara. Pertsona batzuekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan da daturik ez egoteagatik, nahiz eta elkarteekin lanean aritu den informazioa eskuratzeko, batez ere lehenengo urteetako atentatuei eta zauritu kopuru altuari dagokionez. Lan hori egitea garrantzitsua da, udalek biktimei omenaldia egin nahi izaten dietenean.

Biktimei laguntzen berri ematen zaie, eta zenbait eremutan funtzionamendua desegokia dela igarri da, adibidez alargun geratzeagatiko ezohiko pentsioa kobratzerakoan. Izan ere, pertsona batzuei inork ez zien eremu horretako orientabiderik eman.

Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programari dagokionez, Zuzendaritzak gizarte langileak izan nahiko lituzke biktimak dauden tokira

[106] Berregituratzea proposatzen da datorren legealdirako, gizarte langileen zerbitzuak hartuz.

[107] Ikusi hurrengo helbidean: http://interior.euskadi.net/datvt.

[108] Elkarrizketa Maixabel Lasarekin. Biktimei Laguntzeko bulegoko zuzendari Maixabel Lasa Gipuzkoako gobernatzaile zibil ohi Juan Mari Jáureguiren alarguna dela. ETAk 2000. urtean hil zuen gizona eta 2008an, bidegabe sufritu du, zeharkako biktima gisa, bere senarraren monolitoa izorratu baitute. Era berean, zuzeneko biktima ere bada, erakunde terroristaren mehatxuak jaso dituelako.

joateko. Izan ere, Barne Ministerioaren Programa urrun gera daiteke berehalako beharra edo behar berezia dagoen kasuan.

Zuzendaritzak berak helburu zehatzagoak betetzeari dagokionez eta euskal errealitatearen eta biktimen beharren aldaketekiko egokitzapenaren gainean egiten duen balantzeari buruz, hurrengo bost puntuak azpimarra daitezke:

1. Irailaren 24ko 214/2002 Dekretuko laguntzen kudeaketa.
   Kalte pertsonalak jasateagatik ematen diren laguntzak Estatuko Administrazioak ematen ditu, eta, normalean, ez da arazorik igartzen. Eusko Jaurlaritzak, aseguru partzuergoaren bitartez, kalte materialak lehengoratzeko bideratzen dituen jardueren kasuan ere ez da arazorik igarri.

2. Biktimek horrenbeste urtean bizi izandako abandonu eta babesgabetasun egoera arintzea.
   Oso egoera txarretik abiatuz, hobetzen joan dela uste da.

3. Gizartearen parte-hartzea bultzatzea biktimak errekonozitzeari eta memoriari dagokionez.
   Une zehatzetan, herrialde honetako herritarrek terrorismoa gaitzesten dutela erakutsi dute, baina badirudi gizartea apatikoa dela. Zuzendaritzak garrantzi handia ematen dio terrorismoari legitimazioa kentzeari, hezkuntzaren alderdiak barne hartuz.

4. Terrorismoko kasu guztiak judizialki argitzen direla bultzatzea, zigorra jasotzeko eta kaltea lehengoratzeko.
   Zuzendaritzak horrek duen garrantzia berresten du. Biktimentzat orrialdea pasa eta Zuzenbide Estatuaren funtzionamendu ona litzateke. Ez da mendekua.

5. Terroristek eragindako kaltea onartzen dela aldarrikatzea, etorkizuneko adiskidetzearen berme modura.

Gaizkileek egindakoa onartzea eta horretaz damu izatea ekintza pertsonal eta epe luzekoa bezala hartzen da. Preso dauden pertsonen senideek ere onartu egin beharko lukete mina eragin dela, beste delitu batzuekin gertatzen den moduan eta haiei ematen zaien laguntzaren kaltetan izan gabe.

### *1.2.2. Biktimen aldeko politika koordinatuaren bidean*

Orokorrean, Zuzendaritzaren aldetik balantze positiboena jaso duen eremua, emandako tratu pertsonalaz gain, EAEko eta Estatuko gainerako tokietako elkarteekiko hurbilketarena izan da, lehenengo aldiz Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza jaso ahalko dutelako.

Zuzendaritzak Terrorismoaren Biktimak Aintzat Hartzeko eta Babesteko Lege Proiektua lantzerakoan hartutako lanari dagokionez, arautu gabeko azterlanak egiteko bekak sartzea eta laguntza psikologikoko mugekiko malgutasuna ere baloratuz, zera dio zuzendariak: *"…une zailak izan dira. Bakarrik sentitu gara eta ez dugu Gobernuaren*

*aldetik berotasunik sentitu, biktimen gaiak behar duen berotasun hori. Edonola ere, hemen jarraitzen dugu. Garrantzitsuena balantzea da…"*[109]. Haren ondokoa den Txema Urkijoren arabera: *"Emaitzarekin pozik egonez gero, eta pozik gaude, horrek esan nahi du laguntza behar bestekoa izan dela, nola sentitu garen alde batera utzita... Gobernua gara eta Gobernu sentitu nahi dugu"*[110]. Bestalde, Zuzendaritzak biktimen presentzia handiagoa ere planteatzen du Hezkuntza Planean.

Zuzendaritza EUDELekin eta udal bakoitzarekin lanean ari da, herritarrarengandik gertuen kokatzen den erakunde bezala. Hainbat kasutan jarrera positiboak lortu dira, baina oraindik hori lortu ez diren beste kasu batzuk geratzen dira.

Gobernuko beste sail batzuekin lankidetza izaten da, hezkuntzaren, lanaren eta etxebizitzaren alorreko gai edo kasu zehatzetarako[111]. Erakunde pribatuekin (aseguru pribatuak, ikastetxe pribatuak...) kasu zehatzetan bakarrik eratu da harremana, adibidez unibertsitate pribatuetan tasak ordaintzetik salbuestearen gairako.

Bestalde, Zuzendaritzak lagundu egiten du epaiketetara. Audientzia Nazionaletik astean epaiketetarako jarritako datak helarazten zaizkio. Euskadin bizi den biktimaren bat badago, Zuzendaritza familiekin harremanetan jartzen da, haiekin joateko aukera eskaintze aldera bertaratzeko asmoa izanez gero. Zuzendaritza hainbat epaiketatan egon da eta ekintza hori positiboki baloratzen da, biktimak babestuta sentitzen direlako.

Elkarteekiko koordinazioa eta lankidetza zuzentzat jotzen da orokorrean: *Haien kritikak dira beti ongien datozkigunak guri zirikagarri modura... oharkabean pasatzen zaizkizun gauzetarako... haiei beste gauza batzuk alde egiten dieten bezala... ona da iritziak trukatzeko aukera izatea...*[112]

### *1.2.3. <u>Terrorismoaren biktimekin lanean: berariazko eskaerak</u>*

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren arabera, biktimekin lan egitearen alderdi positiboena erabilgarria dela igartzea eta haien poza eta gainjartzeko gaitasuna ikustea da zenbait kasutan. Lana etengabekoa da eta ekintza multzoa oso zabala. Jarduera nagusietako bati dagokionez, biktimei egin beharreko omenaldia eta errekonozimendua, Zuzendaritzak uste du haiek edo haien senideak direla horrelako ekitaldiei baiezkoa eman behar dietenak. Pertsona batzuk, adibidez bizitza berregin duten alargunak edo eraildako pertsonaren seme-alabak, nahiago dute horrelakorik ez egin, izan ere, uste dute herriko jendeak jada ez duela gogoratzen zer gertatu zen eta berriro markatzea bezala litzatekeela edota bilobak markatzera iristea. Omenaldi bat eta gero etor daitekeenaren aurrean nolabaiteko beldurra sumatzen da, nahiz eta pertsonalki onarpena adierazi

---

[109] *"...Eusko Jaurlaritzaren barruan sentsibilitate ezberdinak daude, eta gai honetan babesa izatea gustatuko litzaiguke. Zenbaitetan, atzera begiratu eta iruditzen zaizu inor ez duzula atzean, pixka bat bakarrik egote hori..."* (Maixabel Lasari egindako elkarrizketa 2007ko abenduaren 28an).

[110] *El País,* 2008ko otsailaren 17koa, 5. or. Euskadi.

[111] Etxebizitza babestuen birkalifikazioak egitea ez da nahikoa, eta nolabaiteko bereizkeria sor daiteke etxebizitza babestuetan bizi ez diren beste pertsona batzuekiko.

[112] Maixabel Lasari egindako elkarrizketa (2007ko abenduaren 28a).

ohi duten. Edonola ere, errezelo horiek berak adierazgarriak dira egungo testuinguru soziopolitikoan.

Talde ezberdinetako biktimen beharren arabera aritu da lanean zuzendaritza:

1. Baliaezintasun edo ezintasun iraunkor maila altua duten pertsonak.
   Zuzenean ezagutu dute etzanda erabat egon behar izan zuen pertsona baten familia. Egoera hori atentatu baten ondotik etorri zen eta pertsona orain urte batzuk hil zen. Anputazio larriak izan dituzten pertsonen kasuak ere badituzte, eta, aldian behin, protesiak aldatu egin behar dituzte. Kostu handiko tratamenduak dira, eta diru-laguntzak jaso behar dituzte.

2. Hildakoen senideak.
   Senideekiko lana etengabe egiten da Zuzendaritza sortu zenetik. Erakunde honetatik azpimarratu egiten da edozein pertsonarentzat ateak irekita dituztela.

3. Mehatxatutako pertsonak[113].
   Harremanetan jartzen dira inguruabar zehatzen baten berri izanez gero.

4. Zaurituak.
   Haiekin harremanetan jartzeko izandako zailtasunak adierazi dira jada, batez ere lehenengo hamarkadetakoen kasuan eta elkarteekin loturarik ez badute. Zauritu gehienak jatorriko herrietara itzuli diren poliziak, guardia zibilak eta militarrak dira, eta positiboa litzateke udalek egiten dituzten errekonozimendu ekitaldietan egotea.

Azkenik, Zuzendaritzaren lanari buruz bildutako lekukotza kritikoak erantsi dira:

*–…Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzatik, proiektu berri bat aurkezten digute, "Bakea eta bizikidetza", 2006ko apirilekoa. Bertan, terrorismoa eta haren ondorioak iragana balira bezala aztertzen da egoera, eta helburu nagusitzat adiskidetutako gizartea lortzea jartzen da... Une honetan, terrorismoaren biktimak 2. ardatza gara dauden 5 ardatzetatik… "Bakea eta bizikidetza" deitzen diote beren adiskidetze proiektuari...*[114].

*–...aldentze horiek sinesgarritasuna kentzen diote nahitaez eta tamalez Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak terrorismoaren biktimekiko benetako solidaritatekoa izango den lege eraginkorra eta sinesgarria garatzeko asmoari*[115].

## 1.3. Polizia kidego ezberdinak

Polizia kidego ezberdinek paper garrantzitsua dute biktimekiko tratuan salaketak izapidetzerakoan, horien garapenari buruzko informazioa ematerakoan, segurtasun zerbitzuak

---

[113] Ikusi honi dagokion kapitulua.

[114] Ana Iríbar (2006).

[115] Ángel Altuna (2007).

ematerakoan, eta abar. Bestalde, jazarpen indarkeriari buruzko kapituluan bildutako testigantza ezberdinen kasuan, agerian geratzen da biktima batzuk ez daudela pozik poliziaren zenbait ekintzarekin. Halaber, deigarria da Barne Ministerioak berak zera azpimarratu behar izatea: *"ezinbestekoa da gizarteak kale borroka delitu larria dela onartzea"*[116]. Horrek argi uzten du nolabaiteko gizarte tolerantzia dagoela horrelako ekintzekiko, eta, noski, jazotzen diren udalerrien araberakoa izango da. Horrek salaketa baldintzatzen du.

COVITEren iritzian, segurtasun kidegoek terrorismoaren biktimekiko tratu egokia erakutsi dute.

## 1.4. Justizia Administrazioa

Bigarren mailako biktimazioari dagokionez, Justizia Administrazioan, Babes Legearen Arrazoi Azalpenean, abenduaren 11ko 35/1995 Legea, zera adierazten da jada: *"... Askotan, biktimak delituaren ostean jasotzen duen gizarte abandonua, etiketa jartzea, babes psikologikoa falta izatea, prozesuan bertan esku hartzea, jasaten duen presioa, ahozko epaiketaren bitartez delitua biziberritu behar izatea, bertan parte hartzeak sortzen dituen arriskuak, delitutik zuzenean eratorritako ondorioak bezain mingarriak dira biktimarentzat".*

Doktrinaren eta jurisprudentziaren aldetik jarrera berria igartzen da delituen biktimen aurrean orokorrean eta terrorismoaren biktimen aurrean bereziki; haien protagonismoa onartu egiten da eraikuntza juridiko-zehatzaileetan egon ohi den ahaztearen aurrean (Redondo, 2007). Horrela: *"...Biktimaren eta, orokorrean, lekukoaren babesa epailearen eginbeharra da ere..."* (Auzitegi Gorenaren 1990eko ekainaren 25eko Epaia). Ondorioz: *"...Sistema zehatzaileak bigarren mailako biktimazioa, hain zuzen ere sistema zehatzaileak berak sortutakoa, eragingo duen egoeretatik alde egin behar du..."* (Auzitegi Gorenaren 2004ko otsailaren 4ko epaia).

*"...Biktimologiak orientatutako politika kriminalari"* buruz hitz egin daiteke, *"biktimari emandako arretak erantzun zehatzailean paper nagusia izango duena. Horretarako, komenigarria da interes orokorra betez jarduten duen hori saritzea. Izan ere, biktimen interesak babestea ez da jada gai pribatua, erantzukizun zibilekoa, bakarrik, komunitate osoarentzat interesgarria den alderdia ere bada..."* (Auzitegi Gorenaren 2003ko azaroaren 18ko epaia). Auzitegi Gorenaren 2005eko otsailaren 7ko Epaian *"...restorative justice deituriko eredu ingeleseranzko joera..."* igarri eta guzti egiten da. M-11ko epaian, VI.1 atalean, erantzukizun zibilari buruz[117], zera onartzen da: *"Delitu terroristak biktimarentzako estigma eranstea dakar, eta, bere kabuz bakarrik, gizarte eragina eta eragin psikikoa sortzen du harengan, beste delitu batzuekin gertatzen den ez bezala".*

---

[116] *El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 6koa, 44. or.

[117] Epaiak zatiezintzat jotzen ditu terrorismoaren biktimei eragindako kalte materialak eta moralak. Ikusi hurrengo helbidean: http://www.asociacion11m.org/sumario20_04_sentencia.php.

Biktima batzuk bidegabekeria sentsazioa dute epaia ezagutu ondoren, eta horrek zerikusia du gaizkile batzuk epaiketan zehar agertutako jarrera iraingarriarekin, batez ere hedabideetan islaturik geratzen bada.

COVITErentzat, akordio politikoetatik eratorritako aldaketa eta legedia positiboak izan dira. Aitzitik, oraindik, zenbait kasutan, behartu egiten dira biktimak lekuko modura joatera, eta hori ez da beharrezkoa.

Bestalde, Audientzia Nazionalak epaien datu basea izan beharko luke, biktimentzat garrantzitsua den kasu bakoitzaren gaineko informazioarekin batera eta instrukziorik ez badago ere, informazio horri ematen zaion balorazio juridikoa dena dela ere. Gaizkilea behin zigorra beteta aske uzteari buruzko informazioari dagokionez, iritzi aniztasuna dago biktimen artean. Ondorioz, gaiaren alorrean nazioartean dagoen araudiari jarraiki, informazio hori jaso nahi badute bakarrik jakinarazi behar zaie, eta, beti, haientzat arriskua izan badaiteke gaizkile horiek aske uztea.

Jarraian, terrorismoaren biktima batzuk Justizia Administrazioari buruz emandako lekukotza batzuk jasoko dira:

> *–...batez ere, terrorismoaren biktimek transmititzen dutena justizia izateko barru-barruko nahia eta behar handia dira. Guztiek argi eta garbi uste dute gizarte hobe baten oinarriak benetako justizian eta helmen luzekoan eraiki behar direla. Egin oraindik... biktima horiek gizarte eta administrazio bereizketa eta bereizketa judizial argia nahi dute biktimaren eta gaizkilearen artean...*[118].
>
> *–…ez zegoen eskubiderik... nik epaiketa egingo zela jakitea* (ahizparen bitartez, irratian entzun eta gero)*... haiek hor harro abesten... eta jendea agurtzen, eta ni, nire anaiarekin, han penak itota... ez dago justiziarik... horrela geratu nintzen... ezin nuen lan egin... nire senarra hil zuena lanpostuarekin irten zen, nire senarra hil eta zortzi urte eta zerbait geroago*[119].
>
> *–Ez duzu inoiz ahazten, hamabost urte eta gero deitu egiten dizute etarren aurkako lekukotza eman dezazun, une horiek biziberriaraziz. Eta, azkenean, ezertarako ez...*[120].
>
> *–Ez dut arrangurarik eskatzen, ezta gorrotorik edo bestelakorik ere, nik hura harrapatzea, epaitzea eta espetxean sartzea eskatzen dut... Justizia egitea besterik ez dut nahi*[121].
>
> *–ETA talde terroristaren helburu garen eta oraindik atentatu terroristetan hartutako zaurien ondorioak jasaten ditugun Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideok tristatu egiten gara harrapatutako terroristak epaitzen dituzten Audientzia Nazionaleko epaile eta fiskalek alde eta bidegabekeria itzelak sortzen dituztela ikustean terrorismoaren biktimen euren artean... kalte-ordain hori miserablea eta patetikoa da kalteturiko pertsona Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide bat bada anputazio eta antzeko ondorioekin, edo tetraplegiko geratuta, edo gurpil-aulkiaren*

---

[118] Ángel Altuna (2007).

[119] Rosa Durán, Ángel Rodríguez Sánchezen alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[120] M. L. B., atentatua jasan zuen zuzenean, Pulgarren (2004, 199).

[121] Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

*beharrean geratuta mugitu ahal izateko, edo, besterik gabe, gizartean inolako lanik betetzeko gaitasunik gabe geratzen bada*[122].

*–Gregorio Ordóñezen hilarriaren aurka joan den urtarrilean erasoa egiteagatik bi gazteei jarritako lanordu batzuen epaiaren ondotik (kaleetatik pintaketak garbitzea), epai hori gauzatzea ezinezkoa izan da. Izan ere, kasuko epaileak salatzen duenaren arabera, sailburuak… ez du baliabiderik*[123].

*–…uste dut beharrezkoa dela zigorrak erabat betetzen direla eskatzea, eta legezko neurrietan eta neurri judizial eraginkorretan lanean jarrai dadila erreklamatzea, herrialde bakar bat ere ez dadin izan terroristen babesleku. Halaber zera eskatzen dut… atentatu terroristak ez preskribatzea eta azkenean epaitzea posible izan dadila*[124].

*–"…eta eremu horiek, nireak ziren eremu horiek, Audientzia Nazionalean jarritako kamerak publiko bihurtu zituen, nik epaile baten aurrean jarri behar nituelako, kasuaren epaia eman ahal izan zezan. Inork ez zidan galdetu kamera hori piztuta egotea nahi nuen"*[125].

*–Generalitat-eak akusazio partikular modura jardun zuen bere semea hil zioten etarren aurkako epaiketan.*[126]

## 1.5. Osasun eta gizarte zerbitzuak

Egindako azterlan batean zenbatetsi zen terrorismoaren biktimen %40k gutxi gorabehera (zuzenak eta zeharkakoak) trauma-ondoko estresa jasaten dutela trauma eragin duen gertaeraren ondorengo urtebetean. Portzentaje altua bada ere, kontuan izan behar da %60k ez dutela horrelakorik jasaten. Gainera, portzentaje hori bikotearen aldetiko indarkeria edo eraso sexuala jasaten duten biktimek bizi dutenarekin alderagarria da. Aldiz, istripuen biktima direnen kasuan, hau da, nahita egin ez diren gertaeretan, portzentajea ez da hain altua. Trauma-ondoko estresa gainditzen duen biktima kopuruaren zenbatespena eta gainditzeko behar den batez besteko denbora eskaintzeko ez dago daturik. Edonola ere, egun tratamendu eraginkorrak ditugu estresa gainditzeko eta denborak horren alde egiten du[127].

Osakidetzak ez du prestatutako profesionalik, ezta berariazko zerbitzu psikologikorik edota psikiatrikorik ere, terrorismoaren biktimei arreta eskaini ahal izateko. Orain arte egin dena diru-laguntzak bultzatzea izan da, nahiz eta horiek behar bestekoak ez izatea gerta daitekeen tratamenduek luze joz gero. Kontsulta pribatuetara jotzean, hobeto bermatzen da psikologoaren eta biktimaren artean behar den konfiantza. Izan ere, kasu batzuetan gertatu izan da psikologoa ETAren jarraitzailea izatea.

---

122 Paco Zaragozaren bloga, 2007ko ekainaren 4a, astelehena, terrorismoaren biktima. http://www.legolian.blogspot.com.

123 Ana Iríbar (2007).

124 Cristóbal Díaz Lombardo, Cristóbal Díaz Garcíaren semea (*El País,* 2008ko martxoaren 11koa, 46. or.).

125 Eduardo Madina, *El País*en argitaratutako elkarrizketa digitala, 2006ko abenduaren 31koa: http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes.

126 Santos Santamaría, eraildako Kataluniako poliziako kide baten aita (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

127 Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin.

Bestalde, atentatu bat jazotzen denean, Osakidetzak biktimekin izandako tratua egokia da orokorrean –gela egokia izaten da, eta abar–. Hala eta guztiz ere, kexa batzuk ere jaso izan dira[128].

Atentatu terrorista batean zauritu zuten pertsona batek adierazi zigun ez zela inoiz Osakidetzara joan atentatuaren ondorioak tratatzeko, zegokion sendagileak ETAko presoen aldeko kontzentrazioetan parte hartu izan zuelako.

## 2. Araudiaren eta erakundeen jardunaren balorazioa, biktimazioa prebenitzearen alorrean

### 2.1. Estatuko araudiaren eta araudi autonomikoaren aurreikuspena eta aplikazioa

Atal honetako berezko hausnarketa batzuk egin dira jada terrorismoaren biktimei aurre egiten diten erakundeekiko, estatu eta autonomia erkidego mailetakoak izan alde batera utzita. Estatu mailako araudiari dagokionez, arazo batzuk daude araudi hori erreferentzia modura hartzen delako "terrorismoaren biktima" nor den mugatzeko hain zorrotza ez den irizpidea behar izan daitekeen kasuren bat agertzean[129]. Bestalde, COVITEren arabera: *"Biktimen senideentzako laguntza ekonomikoari dagokionez, arazo batzuk daude izatezko bikote moduan inskribatuta ez dauden bikote batzuen pentsioei dagokienez. Zurztasunaren mailan ere badira kexa batzuk"*.

EAEn gogoratzekoa da Eusko Legebiltzarreko Bigarren Ebazpena, 2007ko urriko osoko bilkura monografikoan onartutakoa. Bertan, publikoki eta bene-benetan barkamena eskatu zen terrorismoaren biktimek behar baino urte gehiagotan jasandako ahazte eta babesgabetasunagatik[130]. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak geroz eta gehiago igo ditu babes mailak kalte materialei dagokienez eta terrorismoaren biktimentzako laguntzen lehenengo dekretutik. Lehenengo hura 1988an onartu zen, eta 1991, 1993 eta 1995ean aldarazi zen. 2000. urtean beste batek ordezkatu zuen, eta 2002an indargabetu zen. Egun azken hori dago indarrean, 4/2008 Legea arauz garatu arte. Azken hori da

---

128 Elkarrizketa Maixabel Lasarekin. Osakidetzan jarduteko protokolorik badagoen ezezaguna da, terrorismoaren biktimekin eta haien senideekin errespetuzkoa eta egokia izango den tratua bermatzen duena. Berariazko langile eta prestakuntza dagoen ere ezezaguna da.

129 Ikusi 2007ko uztailaren 17ko epaia. Laburki, terrorismoaren biktimentzako estatuko kalte-ordainei dagokienez, ikusi Rodríguez Puerta (2006, 429-436). Bestalde, Audientzia Nazionalak gaitzetsi egin zuen 2008ko martxoaren 14an terrorismoa goraipatzeko salaketa izapidetzea. Hura Dignidad y Justicia elkarteak jarritakoa izan zen alkate baten aurka, plaza bati ETAko buruzagi baten izena jartzeagatik. Audientzia Nazionalak erabaki administratiboa zela uste izan zuen, eta bide zehatzailea egokia ez zela adierazi. Ikusi Estatuko Abokatu Nagusiaren txostena, 2008ko martxoaren 17koa, horrelako erabakiak zuzenbidean erabat deusez bihurtzeari eta administrazioarekiko auzi jurisdikziora egokitzeari buruzkoa. Gizarte osoaren duintasunari ekarritako kalteari buruz ere hitz egiten du.

130 Eremu autonomikoan erakundeen ekimen edo jarduerei egindako aipamenak ikus daitezke dokumentuetako 16. oharrean, 2006ko irailaren 8koan, Eusko Legebiltzarreko Azterlan Zuzendaritzaren 1/2007k eguneratuta. Legebiltzarreko 2003ko erabakiek hainbat akordio ekarri zituzten 2007ko urriaren 5eko lehenengo osoko bilkura monografikora, akordio horiei izaera juridikoa falta bazaie ere.

egun indarrean dagoena. Araudi honetan ez dira berariaz hartzen jazarpen indarkeria deituriko horren biktimak.

Aurreko kapituluetan adierazi bezala, hainbat erakundek Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean hobetu daitezkeen alderdiak aipatzen dituzte –aurreproiektuaren fasean ere egin zuten- eta honakoak dira:

- Mehatxu eta derrigortzeen biktimek ez dute tratamendu zehatzik aurkitu testuan.
- Nazio Batuek 1985ean biktimarako emandako definizioa ez da jaso, ezta terrorismoa gizadiaren aurkako krimena izan daitekeenaren aipamena ere. Hala ere, iritzi horrek eragina dauka araudi nazionalean eta nazioartekoan.
- Jasotako eskubide batzuk ez dira auzitegian eskatu daitezkeen eskubide gisa artikulatu. Bestela, ebaluatzen zailak diren jardunen printzipio informatzaile gisa jaso dira.
- Biktimentzako politiken ebaluazioa eta sustapena modu fidagarrian aztertuko duen ikerketen sustapenaren premia dago.
- Konponketaren esparruari dagokionez, legearen aplikazio modu batzuetarako dagoen lurraldetasun lotura zalantzan jarri daiteke, biktimazioaren neurria dela eta. Izan ere, biktima asko EAEtik kanpora bizi da eta ETAk berak euskal herri gisa ulertzen duenaren izenean hiltzen duelako.
- Euskal erakundeak akusazio partikular gisa pertsonifikatzeari buruzko artikulu zehatzak.

Araudi autonomikoari eta euskal erakundeen babesari dagokionez, COVITEk eskainitako hurrengo testigantzak erantsiko ditugu; 2007ko abenduan egindako elkarrizketatik atera ditugu eta alderdi orokor eta praktikoak azpimarratzen dituzte:

> *–COVITErentzat, laguntza psikologikoari dagokionez, psikologoarekiko konfiantza bermatzeko, laguntza hori psikologo pribatuekin eskuratzeko aukera jartzen da. Edonola ere, bai eremu publikoan, bai pribatuan, prestakuntza falta da, espezializatutako profesional gutxi daudelako. Bestalde, baremoek gehieneko kopuruak dituzte laguntza psikologikorako; horiek behar bestekoak ez izatea gerta daiteke jarraikako tratamenduen kasuan, eta kasu bakoitza aintzat hartu eta haren gaineko jarraipena da egin beharko litzatekeena. Azkenik, laguntza psikologikoa gehien eskuratzen dena bada ere, legeak ez du laguntza psikiatrikoa aintzat hartzen beharrezkoa den kasuan.*
>
> *Etxebizitzetan, ibilgailuetan, dendetan... eragindako kalte materialengatiko laguntza ekonomikoei dagokienez, uste dute arazoak daudela ere gehieneko baremoekin. Agian, ona izango litzateke nolabaiteko malgutasuna agertzea, nahiz eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta abarren bitartez ezohiko bideak badauden.*
>
> *Errekonozimenduari dagokionez, uste dute oraindik beharrezkoa dela alderdi moralean nahiz alderdi etiko-politikoan. Azken puntu hori paraleloan doa terrorismoaren amaierarekiko. Adierazi dute onartu egin behar dela eraildako pertsonak Zuzenbidezko Estatua ordezkatzeagatik erail dituztela, hau da, balio demokratikoen sistema baten ordezkari izateagatik. Distantziakidetasunik egon behar ez dela aldarrikatzen dute, baina positibotzat jotzen dute orain terrorismoari legitimazioa kentzeko ideia azpimarratzea jada.*

Interesgarria da gai hauetan terrorismoaren biktima diren batzuen testigantzak eranstea:

*–Erakundeen aldetiko babesik ere ez. Babesgabe eta bakarrik ikusten duzu zeure burua*[131].

*–Legebiltzarreko talde guztiek Eusko Legebiltzarrean 2003ko ekainaren 25ean onartutako ebazpenak... itxaropen eta eskaera guztiak betetzen ditu. Gure ordezkari politikoak egiteko gai direnaren adibidea da, nahiz eta berandu iritsi. Aitzitik, proiektua ez zen inoiz praktikan jarri, lau ekitaldi salbu... propaganda kutsu nabarmenekoak haiek... Orain museo eta zentroetan erakutsi nahi gaituzte, gure mina erakutsi; gure sufrimendua, ez biktimek jasan zuten jazarpen politika... ez nago ados distantziakidetasun horrekin... ezin da lau haizeetara esan terrorismoaren biktimak babestu egiten direla, aldi berean talde terrorista nolabait babesten duten neurri politiko eta ideologikoak hartzen diren bitartean*[132].

*–Orain lau urteko akordioak ez dira erabat garatu. Borondate politikoa behar zuten, ETAren munduak gizartean zuen zigorgabetasunaren aurkako borrokaren buruan egongo zen lidergoarekin batera*[133].

*–Urradura horien artean aipa ditzakegu: pertsonen duintasunaren aurkako diren ekitaldi publikoak debekatzea, Legebiltzarra eta Gobernua akusazio partikular moduan agertzea Audientzia Nazionalean terroristen aurkako epaiketetan, lanpostu eskaintza publikoan portzentaje bat gordetzea, EiTBren konpromiso editoriala...*[134].

*–Eusko Jaurlaritzak orain dela gutxi onartu du horrenbestetan iragarritako Biktimen Arretarako Legearen proiektua... Baina zentzugabekoa litzateke pentsatzea horrekin egin beharrekoak amaitu direla. Arazoa ez dagoelako prezioan, kopuruan eta laguntzen kalitatean... Erraildakoen senide diren biktimak errekonozitzea ez saihestea eta ez atzeratzea da lortu nahi den konbinazioa, erraildako biktimen esanahi politikoa ezkutatu gabe... Proiektu politiko baten izenean, ETAk lortu nahi zituen estatutu erakundeen legitimazio faltaren izenean eta euskal erakundeei datxekien legitimotasun demokratikoa ukatzearen izenean mila pertsona inguru erail izatea. Erraildako biktimentzat esanahi politiko sakona dute, eta hori ez da baliogabetuta geratzen inolaz ere biktima elkarteen aniztasunarekin... orientazio politikoko aldeekin... Euskal abertzaletasuna deseroso dago erraildako biktimen aurrean, bere egi politikoaren aurrean deseroso dagoelako*[135].

---

131 Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

132 Ana Iríbar (2007).

133 Maite Pagazaurtundúa (2007).

134 Ángel Altuna (2007). Terrorismoaren biktimei buruzko lehenengo osoko bilkura monografikoan, Eusko Legebiltzarrean 2007ko urriaren 5ean egindakoa, Terrorismoaren Biktimen Txostengileei hilabeteko epean egutegia ezartzeko eskatu zitzaien, 2008ko maiatza baino lehendik zain zeuden ebazpenak martxan jartzeko, betetzea ebaluatuko zen bigarren osoko bilkura monografikoa egiterako. Ezarri egin zen memoriaren, duintasunaren eta justiziaren printzipioak eremu horretako politika osoaren oinarrian egongo liratekeela.

135 Arregi (2008: 26). Carlos Martínez Gorriaranek (2007, 72) dioenaren arabera, biktimen sufrimendua arazo politikoa da gai pribatu soila ez izateagatik, eta, batez ere, onartu egin behar da terrorismoaren biktimen balio politikoa, biktimazioaren balizko manipulaziotik ezberdina erabat. Balio hori hiru arrazoi direla eta sortzen da: Esanahi politikoa izan duen erasoaren xede izan da, eraso hori gizarte osoari zuzendurikoa da (*"guztioi ezarri nahi diguten destinoa bere buruarengan sufritzera behartuta egon dira: indarkeriaren pean jartzea"*), eta indarkeria pribatuaren tentazioari uko egin diote ("gu guztion eskuetan jarriz zor zaiena konpontzea"). Ikusi hainbat egile (2007).

*–…erakunde guztiek batera egin dezatela lan, terrorismoari legitimazio etikoa, politikoa eta soziala kentzeko, eta irmotasun demokratiko handiena manten dezatela, ETArekin amaitzeko eta bakea eta askatasuna sendotzeko*[136].

*–Falta dena da biktima, edo abizena, edo zein alderdi politikoko bazkide den… alde batera utzita, biktima berdina izatea guztiontzat… gizarte zibil osoari… gure ondoan egoteko esanez eta eskatuz amaitzen dut*[137].

Balmasedako Adierazpenean, terrorismoaren biktimen duintasunari eta eskubideei buruzkoa, 2007koa[138], adierazi egiten zen abandonua ez zela amaitu oraindik botere publikoen aldetik: *"…egunetik egunera, gure ongizatea, gure osaketa eta eskuratu nahi dugun normaltasuna sendotzetik kanpo geratzen diren beste xede batzuetarako baliabide garela ikusten dugu… Horregatik uste dugu badela garaia agintari politikoek, biktimekiko solidaritateari buruz hitz egiterakoan, erretorikatik ekintzetara igarotzeko…"*. Horren inguruko lege ekimenei dagokienez: *"…lege berriak* (geroago onartutako 4/2008 Legeaz ari da) *'solidaritate' hitza izenean ez sartzea eskatzen dugu, terrorismoaren biktimok gizarte zibil osoan topatu nahi dugulako solidaritatea, botere publikoei… gure eskubideen benetako tutoretza eskatuz…"*. "Babes osoa" bezalako terminoekin ere ez dira pozik agertu, *"…biktima moduan ez dugulako babestuak izan nahi, baizik eta gure eskubideak lehengoratzea"*. Legeek izapide konplexuak eta biktimak beren bizitokietatik mugitzea saihestu behar dute, perituen eta antzekoen gastuak saihestearekin batera. Halaber, tratuan gizakoitasuna izango dela bermatu beharko da.

Terrorismoaren Biktima izandako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteak EAEri eskatu egin dio konpentsazio ekonomikoa dakarren kondekorazioa eman dezala, *"nolabait, horrenbeste urtetan bizi izandako ahaztea, mespretxua eta abandonua lehengoratzeko"*[139].

## 2.2. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila) eta Hezkuntza Saila

Hezkuntzako edukiei buruz, biktima elkarte batzuk azpimarratu egiten zuten testu batzuetan "gu" azpimarratu egiten zela, "haiek" adieraztearen aldean. Hezkuntzako metodologiari buruz: *"Axolagabekeria enpatiarekin ikusi beharko litzatekeena ez ikustea bada –biktimak, alegia–, hezkuntzaren lana saiatu egin behar da ikuspegia hezteko lan egiten, ez ikusten irakasteko lan egiten. Baliabide erabakigarria biktimazio*

---

[136] Esther Cabezudo, Portugaleteko Udaleko zinegotzi sozialista (*El Diario Vasco,* 2007ko urriaren 10ekoa, 31. or.).

[137] Roberto Manrique i Ripoll, Etxeberrian bildutakoa (2007, 102).

[138] "Solidaritate berri bat eraikiz: terrorismoaren biktimen eskubideak" izeneko Lehenengo Lan Jardunaldietan onartu zen, 2007ko otsailaren 23 eta 25 artean egindakoak. Bertan, Euskadiko Terrorismoaren Biktimen ARCO taldeko, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Andaluziarreko, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Galiziarreko, Segurtasun Indar eta Kidegoen Terrorismoaren Biktimen Elkarteko, "Voces en Silencio" Elkarteko eta Victimologia Fundazioko ordezkariak izan ziren.

[139] Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimak Aintzat Hartzeko eta Babesteko Lege Zirriborroari Elkarteak egindako proposamena, 2007ko uztaila, 5. or.

*esperientziak behar bezala agerian uztea, hau da, eskatzaile bihurtzea da, kasuan kasuko kontakizunen bitartez"* (Etxeberria, 2008). Axolagabekeriak terrorismoa garatzea errazten du, bidegabeko egoeren aurrean biktimen babesgabetasuna ahalbidetzen duelako. Axolagabetasun horren aurrean eman beharreko hezkuntzan ez da bakarrik ikastetxea agertzen, familiak, hedabideak, erakundeak eta herritarren mobilizazioa ere bertan kokatuko liratekeelako.

Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzaren Euskal Plana (2008-2011) 2008ko urtarrilaren 4an aurkeztu zuten Hezkuntza eta Justizia sailburuek eta Giza Eskubideen zuzendariak[140]. Ikastetxe guztiek, publikoek eta itunduek, bakean hezteko ikasgai bat eskainiko dutela aurreikusi da. Horren lehentasuna *"terrorismoari legitimazioa erabat kentzea izango da, giza eskubideak aurrez aurre urratzen dituen praktika izateagatik"*, nahiz eta giza eskubideen beste urradura batzuk osorik ere aintzat hartzen diren. Gutxi gorabehera sei milioi eta erdi euroko aurrekontuarekin, garapenean Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek esku hartu behar dute, ikasgelen barruan eta haietatik kanpo ekintzak bultzatuz. Urtarrilaren 4an aurkeztutako testuaren arabera, biktimen ordezkari bakar batek ere ez du parte hartuko planaren aholkularitza batzordean edo jarraipenerako eta kontrolerako organoan. Bertan hogeita bat kide izango da[141]. Testuan gizarte talde eta talde politikoen proposamen batzuk sartu ziren, adibidez *"arrazoi politikoengatiko indarkeria"* adierazpena, ez, ordea, biktimen parte-hartzea kontsulta organoan edota elkarteentzako diru-laguntza publikoak indarkeria terrorista esplizituki gaitzestearen mendeko izatearen eskaera.

Aurreko kapituluan aipatu den moduan, saiakuntza proiektuak garatu dira hainbat ikastetxetan, biktimen testigantzekin –bata ETAren biktima eta bestea GALen biktima–. Ondorioak positiboak izan ziren gazteen sentsibilizazioa lortze aldera. Beste saiakuntza proiektu batzuk aurreikusi dira, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sustatutakoak, eta lortutako emaitzekin behin betiko proiektua egingo da, oraingoz testigantzak bertaratuko diren zehaztu gabe[142], ikus-entzunezkoak izango diren edo idatziz eskainiko diren. Bitartean, egin dira jada saiakuntzak testigantzak bertaratzen zen pertsonen bitartez eskainiz, bai Nafarroako Foru Erkidegoan, bai Madrilgo Erkidegoan.

Adierazi da jada Hezkuntza Plan honen aurrean, biktimen elkarteak kexu direla, funtsean, bi konturengatik: distantziakidetasuna eta parte-hartze falta.

Hezkuntzari buruzko biktimen hurrengo kontakizunak kontuan har daitezke:

---

140 Egun Plana Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ari da, Giza Eskubideen Batzordearen barruan.

141 Aholkularitza batzordean lehendakari bat, Eusko Jaurlaritzak izendatutako aditu independentea, erakundeen hamar ordezkari (Gobernuko lau, aldundietako hiru eta Eudeleko bat) eta gizarte erakundeetako beste hamar (Ararteko erakundeko ordezkari bat, EHUko bat, Eskola Kontseiluko lau eta elkarte espezializatuetako lau; horien artean ez dira terrorismoaren biktimen elkarteak agertzen) egotea aurreikusi da (*El Diario Vasco,* 2008ko urtarrilaren 5ekoa, 33. or.).

142 Ikastetxeetan, sufrimenduaren aurrean axolagabekeria saihesteko eta indarkeriari legitimazioa kentzeko, gizakien aurkako delituen erabilerari eta garrantzia pedagogikoari buruz, ikusi Forges (2007).

*–Erailketak gure begien aurretik igarotzen dira, eta beste haur batzuk doktrinapean jartzen dituzte gorrotoaren kartzelan atxilotu arte; eta euskal gizarteak ez du behar besteko erreakziorik haur gehiagok sentsibilitate falta ez agertzeko haiei esan bezala pentsatzen ez duten horien bizitzaren aurrean. Etorkizuneko odolusteak saihestu behar ditugu, ikastetxeetan eta aisialdi eta denbora libreko jardueretan jardunez, baita hedabideetan ere, egiarekin eta erakundeen aldetiko benetako lidergoarekin. Biktima errugabeak identifikatzea bultzatu behar dugu, inongo gaztek auzotarren aurka armak har ez ditzan*[143].

*–Gure aitaren bigarren hiltzailea hiru hilabetez egon zen, adi, psikologia orientatzaile modura nire seme-alaben ikastetxean*[144].

*–…biktima hauek bereizketa garbia nahi dute… biktimaren eta gaizkilearen artean… Historiak ez badu hori argi eta garbi eta zalantzarik gabe argitzen, hurrengo belaunaldiak ez dira gai izango irakaspen moral hori ere ikasteko…*[145].

*–Haiek gu ez maitatzen irakasten diete beren seme-alabei…*[146].

## 2.3. Aldundiak eta udalak

Monolitoak eta herrietako omenaldiak ere terapia dira memoriaren eskakizunari dagokionez[147]. Horren aurrean, ETA goraipatzen duten kartelak eta pintaketak, taldekideei eginiko omenaldiak eta haien omenezko toki publikoak daude.

Tokiko erakundeen aldetik abandonua jaso duten biktimen testigantzak topa ditzakegu, orain dela gutxi arte hain bidegabeki gutxietsi den taldearentzako lehengoratze sinbolikoa baloratzen duten beste batzuekin batera. Talde hori, hain zuzen ere, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoena litzateke. Bataren eta bestearen artean jarduera anitzak daude:

*–Nola uler daiteke herriko alkateak, herria ordezkatzen duenak, herriaren ahotsa denak, herriaren alde begiratzen duenak, herria non begiratzeko ispilua balitz bezala maite duenak bere postua bai baina bere kargua ez uztea, hura bertaratzea beharrezkoa denean?*[148]

*–Gure lankide eta senideek Donostiara itzultzeko lana jarri digute, udal horrek emandako kondekorazioa jasotzera, haiek ez dutelako ez behar besteko indarrik, ez animorik etorri eta hura jasotzeko*[149].

*–Pertsona batzuk ezin dute jasan pintaketak eta kartelak ikustea… baina ni, jasango ez banu, ezingo nintzateke etxetik atera. Pintaketak oso gaizki daude, eta norbaitek konpondu egin beharko lituzke… Udal askotara deitu dugu kasu zehatzak direla eta…*[150].

---

[143] Pagazaurtundúa (2008, 37).

[144] Jesus Ulayarren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

[145] Ángel Altuna (2007).

[146] M. L. B., atentatua jasan zuen zuzenean, Pulgarren (2004, 199).

[147] Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin.

[148] José María López, Isaías Carrascoren lehengusua, *El Diario Vascon*, 2008ko martxoaren 13koa, 29. or.

[149] Donostiako urrezko domina entregatzeko ekitaldia Terrorismoaren Biktima izandako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteko kideei, haren presidentearen hitzak 2007ko irailaren 26an.

[150] Maixabel Lasa (2007ko abenduaren 28an egindako elkarrizketa).

## 3. Gizarte erantzunaren balorazioa

Terrorismoaren biktimei emandako gizarte babesa agertzen eta zabaltzen joan da, batez ere laurogeita hamarreko hamarkadatik. Aitzitik, isiltasunezko urte asko izan dira, eta biktimek ez zuten solidaritate adierazpenik jasotzen. Egun oraindik, zenbait udalerritan errazagoa da gaizkile izatea, biktima izatea baino. Zenbait udalerritan ETAko kideen izenak daramatzaten kaleak, plazak eta parkeak daude (Pagola 2007 eta Couso 2007), eta euskal udalerri askotan ETA goraipatzen eta babesten duten kartelekin eta pintadekin bizi behar dugu.

### 3.1. Gizartea oro har

Enrique Echeburúaren ustetan, *"terrorismoak degradazio morala sortu du. Denboran luzatutako fenomenoa denez, zuzenean eragiten ez digun bitartean hura existituko ez balitz bezala jarduten dugu. Aitzitik, degradazio morala da, gure auzokoek ez dutelako askatasunik eta ez diegulako gizarte babeseko plusik eskaintzen. Horrek nolabaiteko koldarkeria esan nahi du, erabat errugabeak diren biktimen aurrean gaude, gertatzen zaiena bidegabekoa da erabat eta hau onartzeko zer egin dugun galdetu behar diogu geure buruari. Axolagabekeria txikitu egin zen erailketa batzuk izan zuten inpaktuarekin, euskal gizartean erreakzio zibila eragin baitzuten"*[151].

> *–Hasieran jendearen hiletetara joaten hasi zen, inor joaten ez zen horietara... hiletatik hiletara ibiltzen ginen, isilik, guk heriotza haiek sentitzen genituela adierazteko, polizia bat hiltzen zutenean... "zer egingo genuen" esaldi horrez gain...*[152].

Biktimen testigantzek gizarte babes horren beharra adierazten dute:

> *–Bereizkeria sentitzen dut biktima zibilei ematen zaien tratamenduagatik, biktima militarrei emanikoaren kaltetan*[153].
>
> *–Jende askok uste izan zuen beste toki batera begiratuta ez zitzaiela gertatzen ari zitzaiena gertatuko... Gizartea mugitu egin behar duzu, motibazioa eman behar diozu... garai hartan alderantzizkoa zen, gertatzen ari zena ezkutatu egiten zen, gizarteak erantzunik eman ez zezan... Uste dut terrorismoaren biktimok... jende asko ohartu ez arren, testigantza paper garrantzitsua izan dugula, gizartea kontzientziatzea bezalakoa, eta uste dut horretan jarraituko dugula*[154].
>
> *–Eta gizarte babesa espero duzu. Norbait zugana hurbildu eta zera esatea: "Aizu, asko sentitzen dut". Baina horrelakorik inolaz ere ez da gertatzen*[155].

---

151 Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin.

152 M. Vicotira Vidaur, Alberto López Jaureguizarren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

153 T. V. G., anaia erail zioten, Pulgarren (2004, 201).

154 Ana María Vidal-Abarca, Jesús Velascoren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

155 Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

*–Nik ez dut errukirik nahi, ez dut ni begiratzea eta "gaixoa!" esatea. Nik nahi dudana gizarteak, behingoz, "Nahikoa da!" esatea da*[156].

*–Guk jasandako atentatuaren ondotik iritsitako lehenengo larunbatean, Portugaleteko nire auzokoak eta milaka pertsona kalera irten ziren ETAri berriro ere eskatzeko desegin zedila eta bakean eta askatasunean bizitzea ahalbide ziezagula. Uste dut orain gauza bera egin behar dugula*[157].

*–Non zeuden intelektualak hemen guardia zibilak bakarrik hiltzen zituztenean?... Lurperatu eta gertatutakoa ahazturik zegoen jada. Orain gertatzen ari dena da indarkeria euskal gizartea bera barrutik ukitzen ari dela... biktimekiko bidegabekeria mantendu da erabat, biktimak ahazte ikaragarriaren pean egon dira, eta haiek dira errudun*[158].

*–Denbora pixka bat igarotzen da eta jendeak bere bizitza du; zu zure semearekin geratzen zara, zure bizitza hankaz gora duzula, zure tristezia eta ezinegonarekin*[159].

*–Jendeak... jende askok... alde batera uzten zaitu... oso gogorra da... eta hori egin dizuten minaz gain*[160].

*–…euskal herria oso koldarra da…*[161].

*–Nire aita... euskalduna zen... gure erreferentziak... hemengoak dira... atentatu baten aldarrikapena euskal herriaren izenean egiten da*[162].

*–…euskaldunak koldarrak gara funtsean... ez dugu erreakziorik izan hainbat, ehunka atentaturen aurrean, eta, ETA euskal jendea hiltzen hasi denean, orduan hasi gara pixka bat ulertzen…*[163].

*–Gizarte gehiena beste toki batera begiratzen ari da*[164].

## 3.2. Biktimaren udalerriko biztanleak

*–Nire senarra hil zuena hor parean bizi da, harekin topo egiten dut kalean*[165].

*–Begira. Gure aita erori zen tokian, omenaldi modura... zaborrontzi polit batzuk daude*[166].

*–Nire senarra hil zuten eta, gainera, alabarekin kaletik paseatzen nintzenean, iraindu egiten gintuzten*[167].

*–Euskadin terrorismoaren biktima izatea oso zaila da, ia jasanezina Andoain edo Arrasate bezalako tokietan, ume horiek isolatuko dituzten gazteak egongo direlako* (ETAk eraildako pertsona baten seme-alabak). *Gerta daiteke edozein egunetan haien*

---

156 Sampedroren alarguna, *Trece entre mil* filmean.

157 Esther Cabezudo, Portugaleteko Udaleko zinegotzi sozialista (*El Diario Vasco,* 2007ko urriaren 10ekoa, 31. or.).

158 Santiago González, *Voces sin libertad* filmean.

159 Begoña Elorza, *Voces sin libertad* filmean.

160 Arrate Zurutuza, Luis Domínguez Jiménezen alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

161 Cosuelo Ordóñez, *Voces sin libertad* filmean.

162 Ángel Altuna, Basilio Altunaren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

163 Mikel Azurmendi, *Voces sin libertad* filmean.

164 Fernando Savater, *Voces sin libertad* filmean.

165 Arana, Harillo eta Prietoren (2006, 45) lanean bildutako esaldia, *Trece entre mil* filmean.

166 Arana, Harillo eta Prietoren (2006, 45) lanean bildutako esaldia, *Trece entre mil* filmean.

167 Arana, Harillo eta Prietoren (2006, 45) lanean bildutako esaldia, *Trece entre mil* filmean.

*kontura barre egitea. Adierazi bezain gogorra da, gorrotoak itsututa dagoen jendea dagoelako, eta abertzaleak ez garenok ez gaituzte gizaki modura ikusten. Konstituzioaren aldekoak geratzen ez direnean haien ingurunean, zenbaitetan, beste alderdi batzuetako abertzaleak ikusten dituzte etsai gisa eta haiek jazartzen dituzte*[168].

–*…beti joan beharko ginateke* (manifestazioetara eta kontzentrazioetara)*… beti mugitu beharko ginateke… besterik ezin dut nire aitarengatik egin, baina hori gutxienez ikus dezatela…*[169].

–*Terrorismoaren biktima garela jakin dutenean, badirudi alde batera baztertu direla…*[170].

–*Gaizki sentitzen nintzen autobusean jendeari zera entzuten nionean: "ah, beste atentatu bat egon da". "Beste atentatu bat" bezala adierazten dute… Atentatu batek zer dakarren jakingo balute…*[171].

–*Niri hau gertatu zitzaidanean, mundu guztiak paso egin zuen nitaz*[172].

–*Lehenengo bi egunetan, etxea jendez gainezka zegoen… Bizi duzun guztia nebulosa moduko bat da, hiru egun igarota jada ez dago inor, inor ere ez… ezer gertatu izan ez balitz bezala da. Hemen bizitzea oso gogorra da… etengabeko erasoa da, egunetik egunera, zuk sinesten duzun horren guztiaren aurkako erasoa… mehatxuzko pintaketak dira, presoen senideen manifestazioak dira astero… eta kartzelan hiltzaile izateagatik daude. Eta, batez ere, benetan pentsatzen duzuna ezin esatea da…*[173].

–*…Gero, nire aitaren hiltzaile guztiak hemendik igaro dira, atearen aurretik, lasai asko… familia honen benetako drama ez da jada gure aita erail izana… baizik eta borobila itxi egiten dela… edozein egunetan… gure aitaren hiltzaileak… topatu egiten ditugulako*[174].

–*Nire senarra hil zuen komandoko bat aurkeztu egin zen eta hautatua irten… biktima eta borreroa mahai berdinean*[175].

–*Hil egin dute eta… zure aurrean jartzen diren gizon-emakumeak daude ETAri "gora" oihukatuz gainera, "ETA hil itzazu" esanez*[176].

–*Errukiak denbora gutxi irauten du, garrantzia duena errekonozimendua da*[177].

## 3.3. Bizilagunak, ezagunak eta lankideak

ETAk lortu nahi duen beldur giroak solidaritatea ere sortzen du, baina gehienetan isiltasuna eta konfiantza falta da ekartzen duena. Mehatxupean daudenak badakite ETAk

---

168 Pagazaurtundúa (2008, 37).

169 Luis Domínguez, *Voces sin libertad* filmean.

170 Vanesa Ruíz Lararen familia, 11 urterekin erailda Vic herriko kuartel-etxearen aurkako atentatuan. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

171 Caty Romero, *Voces sin libertad* filmean.

172 *Voces sin libertad* filmean.

173 Alberto Negroren alaba. http://www.fudacionvt.org helbidean jasotako ikus-entzunezko testigantza.

174 Jesus Ulayarren alkate ohiaren semea. Hil eta urte gutxira, udalak seme kutun izendatu zituen haren hiltzaileak. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

175 Pilar Elías, Ramón Bagliettoren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

176 Consuelo Ordóñez, Gregorio Ordónez Fenollarren arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

177 Conchita Martín, Pedro Antonio Blanco Garcíaren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

haien aurka egin ahal izateko behar duen informazioa auzokoen edo ezagunen aldetik eskuratutakoa dela.

*–Iraindu egiten gaituzte, mehatxatu, gure ibilgailuak erretzen dituzte, baita gure etxeak ere, gure auzokoek informazioa pasatzen diete gure aurkako atentatua egingo duten komandoei*[178].

*–Jarri zuena* (lehergailua) *ez dakit, baina informazioa pasa zuena, ziur, zarauztarra da*[179].

*–Nola izan zintezke euskalduna eta Madril futbol taldekoa?... faxista esaten dizute... Ni nahi dudana izan naiteke... Horretaraino ere iristen dira... eta politikaz jada ezin duzu hitz egin...*[180].

*–Harritu egin ninduen auzotarrak hurbiltzen ez zirela ikusita, hura izugarri gogorra egin zitzaidan...*[181].

*–Esaldi itzela esan zidan norbait egon zen, dudarik gabe gehien identifikatu ninduena: "Ez diozu erantzunik bilatu behar galderarik ere ez duen zerbaiti"... Zergatik bat jartze soilak nolabaiteko justifikazioaren aukera dagoela onartzea dakarrelako... jende gehiago ere igaro da egoera berdinetik... eta ospitalera iritsi eta zera esan zidanik ere egon zen: "Nork aginduko zizun zuri politikarengatik zure burua ematea... Hori da, sartzea; zer nolako akats bitxia. Inoiz ez zitzaidan bururatuko, baina zuzenagoa eta guzti da. "Politikarengatik zure burua ematea..."*[182].

*–"...nire lehengusuaren hiltzaileengan pentsatu dut; bik alde egin zuten (ardura gehien zutenak...); baina beste asko ez ditut manifestazioan ikusi, nahiz eta kaletik ikusiko ditudan. Nire lankideak, ezagunak, lagunak eta baita senideak ere falta ziren..."*[183].

## 4. Hedabideen inguruko balorazioa, terrorismoaren tratamenduari dagokionez[184]

Dagokion kapituluan adierazitako nazioarteko araudiarekin bat etorriz, kode etikoen edo portaera jarraibideen aplikazioa bultzatu egin behar da, hedabideek biktimazio berria ekar ez dezaten. Biktimen bizitza pribatua errespetatu egin behar da, eta ez bakarrik atentatuen alderdi sentsazionalistena edo morbosoena erakutsi. Hori hedabideetan etengabe azaltzeak min eman diezaieke biktimei, eta terroristak protagonista bihurtzen bakarrik laguntzen du. Gainera, biktima batzuk ez dute ulertzen zergatik batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen zaien, bai atentatua jazotzen den unean, bai egon daitezkeen epaiketetan.

*–ETBk... ezkutatuz gogoratzen ditu biktimak. Biktimekin konplitzen du, ez zaiolako beste erremediorik geratzen, eta kontrakoa onartezina litzatekeelako. Aitzitik,*

---

[178] Ana Urchueguía, alkatea, Pereiran (2004) bildutako lekukotza.

[179] Iruretagoiena *Voces sin libertad* filmean.

[180] Luis Domínguez, *Voces sin libertad* filmean.

[181] Caty Romero, *Voces sin libertad* filmean.

[182] Eduardo Madina, *El País*en argitaratutako elkarrizketa digitala, 2006ko abenduaren 31koa: http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes.

[183] José María López, Isaías Carrascoren lehengusua, *El Diario Vasco*n, 2008ko martxoaren 13koa, 29. or.

[184] Alderaketak egiteko, ikusi Hernández Nieto (2005).

*gau ilunenaren iluntasunean egiten du, jendeari dokumental bat eskainiko dela ez jakinaraztearen iluntasunean*[185].

–"Gauerdia eta gero, film porno bat balitz bezala. Horrela eskaini zuen joan den larunbatean ETB2k Corazones de hielo dokumentala. Bertan, terrorismoaren biktima diren emakumeen ahotsak biltzen ziren… gizarte lobotomizatua bada nahi dutena, zentzu kritikorik gabekoa… hori bai izango litzatekeela pornografikoa erabat"[186].

–*Prentsak egiten duenerako ez dago eskubiderik. Gaur goizean nire amonari telefonoz deitu diote eta nire aita hiltzearen albistea eman diote*[187].

–*Alderdiek agertzen dituzten aldeekin… ETAk protagonismo gehiago du (hedabideetan)…*[188].

–*Terroristari goitizen bat jartzen zaio, buruzagi historikoei buruz hitz egiten da… bizitza eta protagonismoa ematen ari zaie… zentzu horretan indarkeriaren bitartez biktimen bizitzaren protagonismoa usurpatu dutenean*[189].

–*…atentatu bat politika dela uste izatea, ETA politika ez denean. Hobe egunkariek ETAren atentatuak gertaeren orrialdeetara eraman izan balituzte, eta ez politikaren orrialdeetara. Askoz ere hobea zatekeen guretzat*[190].

## 5. Elkarteek emandako laguntzaren balorazioa

Hainbat adituk zera adierazi dute: *"arriskua dago* (elkarteek) *biktimak biktimaren egoeran egonkortzearen alde egiteko eta haiekin etiketa hori etengabe eramateko… erronka biktimari bere egoera gainditzen laguntzea da, nahiz eta logikoa den hori baino lehen errekonozimendua lortzeko borroka egitea"* [191]. Hori izan da, dudarik gabe, terrorismoaren biktimen elkarteen lorpen handia.

Elkarteen garrantziari dagokionez, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legeak –2008ko ekainaren 19an onarturikoak– zera adierazten du zioen azalpenaren 5. atalaren hirugarren paragrafoan: *"Benetan, ezin da proposatu biktimei laguntzeko politika publikorik, biktimen elkarteek eta biktimak antolatzeko beste era batzuek hartu duten garrantziari erreparatu ez, eta dagozkien gaiei buruz euren iritzia kontuan hartu gabe"*. Eusko Legebiltzarrak onartutako seigarren Ebazpenean 2007ko urriko osoko bilkura monografikoan, biktimek parte hartzeko mekanismoen garrantzia azpimarratu zen.

---

185 *Corazones de hielori* aipamen eginez; Pedro Arjonak egindakoa, Arregi (2008, 26).

186 Lucía Cristóbal Gómezek zuzendariari helarazitako gutuna (*El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 26koa, 27. or.).

187 Ainara Carrasco, *El Diario Vascon,* 2008ko martxoaren 8koa, 35. or.

188 Terrorismoaren Biktimei Omenaldia egiteko eta Errekonozimendua agertzeko Erakunde Ekitaldiaren filma. Euskalduna Jauregia, 2007ko apirilaren 22an. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

189 Ángel Altuna, Basilio Altunaren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

190 Eduardo Madina, *El País*en argitaratutako elkarrizketa digitala, 2006ko abenduaren 31koa: http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes.

191 Ikusi Josep Tamarit Sumilla irakasleari, Biktimologiako Elkarte Espainiarreko presidente, egindako elkarrizketa hurrengo helbidean: http://www.institutodevictimologia.com/Entrevistas04.html. Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren eta elkarte eta fundazio ezberdinen helburuei buruz, ikusi Pulgar (2004, 167-188). Espainian terrorismoaren biktimen elkarteek duten paper ezberdinari buruz, ideologia, estrategia edota lurralde aldeak azpimarratuz eta "gobernantza" edo parte-hartze publikoari dagokionez eskubideen kudeaketa eredua eratzearen bidean, ikusi Tapia Gómez (2006).

Testigantza baten arabera:

> *–Babesgabe eta bakarrik sentitzen zara. Horregatik sartzen zara talde batean. Paper kontuak konpondu egiten dizkizutelako. Erakundeek kale egiten dutelako. Biktima bihurtzen zara, biktimismorik gabe, baina biktima*[192].

## 6. Epaitegiek eta gizarteak erasotzailearekiko duten erantzunaren balorazioa

Puntu hau gaizkilea epaitzearekin uztartzen da biktimazioa gainditzeko faktore moduan, aurrerago ikusiko den bezala. Orokorrean egiazta daitekeen bezala, biktimek ez dute mendekua bilatzen. Aldiz, justizia behar dute eta hura jasotzeko eskubidea dute. Gainera, justizia terapia ere bada, nahiz eta etengabeko baliabideekin biktimazioa luzatzea gerta daitekeen, gaizkilea zigortzeari eta kalte-ordain kontuei dagokienez benetako tutoretza judiziala izateko eskubidea alde batera utzita[193]. Haien itxaropenak ez zapuzteko, Justizia Administrazioaren aldetik zer espero dezaketen jakinarazi behar zaie zintzotasun osoz.

Barne Ministerioko Etxez Etxeko Arreta Programan harremana izaten da Audientzia Nazionaleko Biktimen Arretarako Bulegoarekin[194]. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadako biktima askok ez du epairik bere kasurako[195]. Iristen ari diren horien kasuan, epaia bizitzako kapitulu bat ixtea bezala da, batez ere bahituak izan ziren horien kasuan, izan ere, haiek dira lekuko gisa jardun behar dutenak.

Terrorismoaren biktimek ez dute justizia beren kontu hartu. Zuzenbidezko Estatua errespetatu duten lehenengoak izan dira, erasotzaileek egunero zirikatu eta mespretxatu izan badituzte ere eta baita erakundeek denbora luzez abandonatu badituzte ere. Justizia nahi dute beren bizitzako kapitulu bat neurri batean ixteko, eta zaila egiten zaie ulertzea gaizkileei haiei baino babes gehiago ematea; gertatutakoa inoiz ez epaitzea, delitua preskribatuta dagoelako edo erruduna harrapatzea lortu ez delako; balizko amnistiei buruz hitz egitea, kaltea onartzeko eta lehengoratzea gauzatzeko keinurik egon ez denean oraindik; zigorra jaso duena urte gutxiren bueltan kalera irtetea…

> *–…terrorismoko delituak ez preskribatzearen bidean jarri beharko litzatekeen legedia. Horren bitartez... ibilbide kriminal iraunkorreko pertsonak zigorrik gabe bizitzea eta biktimen eta konstituzio demokrazien kontura ezkutatu gabe barre egitea saihestuko litzateke. Estatu demokratikoen arteko lankidetza, oraindik egiteko asko*

[192] Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

[193] Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin. Zentzu bereko ondorioa ateratzen da ere Ana Isabel Simónekin izandako elkarrizketan, hurrengo oharrean aipaturikoa hura.

[194] Elkarrizketa Ana Isabel Simónekin, Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programako gizarte langilea.

[195] Laurogeiko hamarkadako biktimei buruz, elkarrizketak ikus daitezke Arteta eta Galleteron (2006).

*duena, batez ere izugarrikeriaren eta beldurraren hamarkada haietan jazotako delitu terroristei dagokienez, horrenbeste biktima judizialki babesgabe utzita*[196].

*–Nahiago dut hil den baten ama izan, hiltzaile baten ama izan baino*[197].

## IV. ERRESILIENTZIAKO ELEMENTUAK

Atariko azterlan eta behaketa ezberdinek adierazten dute terrorismoaren biktima batzuk, atentatu oso larriak jasan dituztenak barne, trauma-osteko hazkuntza bizipenak izaten dituztela, egunerokoaz eta bizitzaz orokorrean intentsitate gehiagorekin gozatuz. Beste kasu batzuetan, atentatu terrorista jazo zenetik depresioan murgilduta dauden pertsonak daude. Bi mutur horien artean, bitarteko puntu ugari ditugu[198].

Biktimek eskubidea dute lehengoratzeko, baina alderdi psikosozialean lehengoratzekoa ere, eta hori zoritxarra gainditzeko eta handik sendotuta irteteko erresilientzia elementuak edo giza gaitasunekoak daudenean errazten da[199]. Hori dela eta, erakundeek beren esku duten guztia egin behar dute elementu horiek bultzatze aldera.

Pertsonek, familiek, ikastetxeek eta komunitateek arrisku eta babes faktoreak dituzte elkarren artean uztartuta, biktimazio terroristaren aurrean (Garrido, Stangeland eta Redondo 2001, 791-5). Lehen mailako prebentzioan, nahiz eta bigarren mailakoari eta hirugarrenekoari ere heldu, paradigma aldaketa jazo da arrisku faktorearen kontzeptutik babes faktorera edo delinkuentziaren eta biktimazioaren aurrean erresistentzia agertzekora. Horri erresilientzia ere deitzen zaio[200]. Cyrulnikentzat (2002, 14): *"Erresilientzia ez da gizabanako batek izan ditzakeen gaitasunen katalogoa. Jaiotzetik heriotzara bitarte etengabe saretzen gaituen prozesua da, gure ingurunera lotuz"*. Kontzeptua ezagun bihurtu zen laurogeiko hamarkadaren amaiera aldera. Haren jatorrian zegoen froga zientifikoa izan zen kontrakotasun gehieneko inguruneetan ere -adibidez, tratu txarrak ematen dituen familia; ETAk aita erail duen familia, erakundeen eta gizartearen aldetik inolako babesik ez zegoenean; edota kontzentrazio esparru bat- haur, eta, denborak aurrera egin ahala, heldu osasuntsuak sortzen direla, hau da, garapen normala dutenak eta, zenbaitetan, baita gizarte gaitasunaren aldetik garapen paregabea dutenak ere.

Honakoa da Bloomek planteatzen duen ikuspegia (1996b) prebentzioaren ekuazio sistematikoaren bitartez[201]:

---

196 Cuesta eta Cuesta (2007, 26).

197 Arrate Zurutuza, *Voces sin libertad* filmean.

198 Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin.

199 Horri dagokionez, Viktor Franklen lan klasikoa aipatzen da: *El hombre en busca de sentido*. Bai Frankl, bai Cyrulnik bizirik irten ziren kontzentrazio esparruetatik. Ikusi Brooks eta Goldstein (2004).

200 Ezagutza zientifikoarekiko egokitzapen handiagokoa, ahultasun falta, immunitatea edo pixkanakako egokitzapen psikologikoarena baino gehiago.

201 Garridok, Sangelandek eta Redondok adierazitako moduan (2001, 796).

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Areagotu** | | **Areagotu** | | **Areagotu** |
| Aukerak | ◄------► | Babesak | ◄------► | Baliabideak |
| Banakakoak | | Gizartekoak | | Ingurumenekoak |
| ^ | | ^ | | ^ |
| ------------ | ------------ | ------------ | ------------ | ------------ |
| ^ | | ^ | | ^ |
| **Gutxitu** | | **Gutxitu** | | **Gutxitu** |
| Mugak | ◄------► | Tentsioa | ◄------► | Presioak |
| Banakakoak | | Gizartekoak | | Ingurumenekoak |

Enrique Echeburúa irakaslearen arabera (2004b, 34): *"Estresari eusten dioten nortasunen ezaugarriak honakoak dira: emozioen kontrola, autoestimu egokia, irizpide moral irmoak, bizimodu orekatua, poztasuna dakarten zaletasunak, gizarte bizitza pizgarria, barruko mundu aberatsa eta bizitzaren aurrean jarrera positiboa agertzea. Horrek guztiak aukera ematen du eskura dauden baliabideak erabiltzeko zoritxarra gainditze aldera eta bizipen mingarrietatik ikaste aldera, bizitzako helburuei uko egin gabe"*. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, John P. J. Dussich irakasle estatubatuarrak biktimazioari eta beste zoritxar batzuei gizartearen aldetik aurre egitearen teoriaren aukera planteatu zuen. Horrela, pertsona bakoitzaren egoeraren berezitasunaren barruan prozesu horretan eragiten duten elementu psikiko eta sozial ezberdinen artean dagoen lotura ulertzea posible litzateke haren ustetan. Biktimak osatzerakoan eragin negatiboa duen alderdietako bat, eredu teoriko horretan azpimarratutakoa hain zuzen, abandonu edo gaitasun faltaren sentsazioa da babestu behar gaituzten erakundeen aldetik. Azken batean, analisi horretan euskal testuinguruaren berezko elementu soziopolitikoak sartzea izango litzateke.

Enrique Baca Baldomero irakaslearen arabera, *"...edozein motatako egoera traumatikoren aurrean (arinenetik hasi eta larrienera iritsiz), jasaten duenak horri aurre egiteko jokabidea garatu behar du. Erantzun hori... norberaren gaitasun pertsonen araberakoa izaten da, eta horien artean ez dira bakarrik nortasunaren egitura eta baliabideak kontuan hartu behar, baizik eta gaitasun intelektuala, kultura ezagutzak, oinarritzat duen gizarte ingurunea, eta abar. Faktore multzo konplexu hori guztia da, aurretik jasan ahal izan diren egoera traumatikoak konpontzeko bizipenekin batera (ez dute zertan mota berdinekoak izan), ematen den erantzuna egokitzekoa izatea (hau da, kaltea gutxitzeko eta aldez aurretiko oreka berrezartzeko joera izatea) edo kaltegarria izatea edo hondamena ekartzekoa izatea eragiten duena... Espainian M-11 baino lehenagoko atentatu terroristen biktimak 'tantakako' erailketen ondorio izan ziren (garaien arabera etengabekoa). Horiek egun gutxi edo aste gutxi igarota 'ahaztu' egiten ziren, eta biktima horiek (toki jakin batzuetan batez ere) gizartearen aldetiko babes oso txikia zuten, babes faktore modura funtsezkoa den elementua izanda ere..."*[202].

---

202 Pilar Arrate Junquerak Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Psikiatria katedraduna den Enrique Baca Baldomero irakasleari egindako elkarrizketa. Madrilen egin zen 2004ko irailaren 7an, eta hurrengo helbidean argitaratu: http://www.institutodevictimologia.com/Entrevistas01.html.

Antonio Sánchez González psikiatrarentzat, Biktimologiako Elkarte Madrildarreko kide: *"ahaztea bateraezina da lehengoratzearekin"*. *"Oroimen ekoizlearen alde"* egin behar da lan, *"mugatzailea den beste baten aurrean"*. Lehengoratzea, *"ikuspegi klinikotik, atentatu batean bizitakoa eta handik eratorritako ondorioak atzean uztea lortzea litzateke, zerbait berria sortzeko gai izanez eremu pertsonalaren eta gizartearen arteko elkarrekintzan"*. Horretarako, beharrezkoa da erakundeen aldetik banakako tratua bultzatzea, eta, halaber, beharrezkoa da gizarteak lehengoratze prozesuan esku hartzea[203]. Erresilientzia etsipenaren antitesia litzateke, gizarte inguruneko baliabideekin nahasten den jarrera aktiboa izatea eskatzen duelako (Sánchez González 2007, 68).

Terrorismoaren biktimak geroz eta ageriagokoak izatea erresilientziaren datu esanguratsua da, funtsean, nahiz eta ez bakarrik elkarteen bitartez. Elkarteak eta erakundeak zuzentzen dituzten biktimak daude, nazioarteko batzarretan parte hartzen dutenak, lanak argitaratzen dituztenak, zuzendariei gutunak helarazten dizkietenak eta egunkarietan iritzi artikuluak idazten dituztenak, maiteen dituzten horiei eginiko omenaldietan parte hartzen dutenak[204], dokumentaletako protagonista direnak…

Lehengoratzeko gaitasunean atentatuaren larritasunak zeresanik badu ere, jarraian beste aldagai batzuei helduko diegu. Inoiz ez da posible izango behin betiko ondorioak ezartzea biktimazio bakoitzaren konplexutasunaren eta aniztasunaren aurrean. Horren adibide modura, nahikoa da familia berdin baten barruan igartzen diren erreakzio ezberdinak behatzea.

## 1. Seme-alabak

*–Seme-alabak dituzunean, zu izan behar zara eredu… arnasa sakon hartu eta gauean bakarrik negar egin behar baduzu ere…*[205].

*–Aurrera atera beharreko bost seme-alaba nituen eta borroka egin behar zen… depresioarekin egon nintzen… psikiatrak… zera esaten zidan: "badirudi zugan bi pertsona dagoela, bata hondoratuta dago, baina besteak atera egin nahi du"*[206].

*–Harro egin behar genion aurre, duintasunarekin… ni sendotu egin nintzen haiek aurrera ateratzeko* (seme-alabak)*… hondatutako familia gehiegi ikusita nituen jada, agian ama ez zelako gertatutakoa gainditzeko gai…*[207].

---

203 *El País*ek egindako elkarrizketa 2007ko ekainaren 27an eta hurrengo helbidean argitaratua: http://www.institutodevictimologia.com/Articulos02.html.

204 Ikusi EUDEL (2007), terrorismoaren biktimei egindako udal omenaldi batzuen zerrenda eskuratzeko. EUDELen 2002ko maiatzaren 3ko "Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa" ere bertan kokatzen da.

205 Ana María Vidal-Abarca, Jesús Velascoren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

206 Arrate Zurutuza, Luis Domínguez Jiménezen alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

207 Conchita Martín, Pedro Antonio Blanco Garcíaren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

*–Niri esan izan balidate hau pairatzeko gai nintzela, ezezkoa emango nukeen... baina gero, egunetik egunera, aguantatzen zoaz, eta ahal dena egiten zoaz bizitzen jarraitzeko eta ondoan duzun alabagatik bizitzeko*[208].

*–Nire beste bi seme-alabak izan dira nire pizgarria*[209].

*–Ez dut ez barkatzen, ez ahazten, baina bizitzak aurrera jarraitzen du. Bi alaba ditut, eta borrokan jarraitzeko helburu asko*[210].

*–Nire lehenengo kezka lana topatzea zen, nire seme-alabak aurrera ateratzeko...*[211].

## 2. Adina

Lehen emandako seme-alaben testigantzetatik ondoriozta daitekeen moduan, pertsona horiek markatuta geratzen dira betirako jasandako galerarengatik, nahiz eta gaztea izateak osatzea erraztu dezakeen. Oraindik ez dago ikerketa adierazgarririk, eta horren inguruan testigantza adierazgarririk ere ezin dugu eskaini. Edonola ere, azterlan zabalak bultzatu beharko lirateke.

## 3. Denboraren joan-etorria

Onerako izaten bada ere, elkarren artean zerikusia duten hainbat aldagairen araberakoa izaten da ere. Terrorismoa luzatzeak, atentatu berriekin, eta, horrelakorik badago, epaiketa egiteak hainbat urte igarota oroitzapen mingarriak izatea eragiten dute. Terrorismoaren 2.998 biktima espainiarren (1997-2001) laginarekin egindako azterlanean, denborak aurrera egin ahala antsietatea eta sintoma psikosomatikoak agertzen zirela ikusi zen, zenbait kasutan baita atentatua izan eta hogeita hiru urte igarota ere. Atentatu terroristak buruko osasunerako arriskuko faktoreak direla eta biktima batzuei bizitza osoan zehar eragingo diela ondorioztatu zen (Baca *et al.* 2004).

*–Denborak aurrera egin ahala... terrorismoaren biktimok gure bizitza berreraiki behar izan dugu...*[212].

## 4. EAEtik kanpo bizitzea

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizitzea lagungarri izan zaien biktima batzuk badira. Zenbait kasutan, batez ere erroak uztea eskatzen badu, arazoa saihestea izan daiteke nolabait[213].

---

208 M. del Prado Encinas, José Ángel de Jesús Encinasen ama. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

209 Santos Santamaría, eraildako Kataluniako poliziako kide baten aita (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

210 Mari Mar Blanco, Miguel Ángel Blancoren arreba (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 25. or.).

211 C. V. V., Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide baten alarguna, Pulgarren (2004, 202).

212 Ángel Altuna, Basilio Altunaren semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

213 Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

*–Gainera... han borroka egiteko geratu ez izanaren aladura dago... seme-alabarik izan ez banu, geratuko nintzatekeen...*[214].

## 5. Erasotzailearen/Terroristaren prozesamendua

COVITEko kideek adierazi digute biktima gehienak ados jartzen dituen zerbait badago, hori justiziaren kontzeptua dela, hain zuzen ere, erruduna zigortzea eta lehengoratzea ekarri behar dituena.

*–…guztia justiziaren eskuetan uzten dut...*[215].

*–Behintzat, sistemari eskatzen dioguna justizia egitea da... nola da posible, Zuzenbidezko Estatu batean egonda, justizia egin ezin izana guri gertatu zitzaigun horretan*[216].

*–…mendekua, bai, nik hasieran sentitu nuen... gertatzen dena da gero ohartu egin nintzela, nire kabuz, horrek ez ninduela inora eramaten*[217].

*–…kontsolamendua topatu dut epaiketetan eta atxiloketetan, askatasunen aldeko eta terrorismoaren kontrako ituna bezalako akordioetan...*[218].

*–Oso pozik gaude. Inoiz ez genuen uste izan une hau iritsiko zenik... Eskerrak ematen dizkiogu Espainiako eta Frantziako Fiskaltzei, Dublingo estradizioaren ituna sinatu zuten gobernuen irmotasunari, egindako lanagatik eta izandako dedikazioagatik... Gogoan ditugu eta oso arduradun sentitzen gara lehengoratzea inoiz lortuko ez duten biktima horiengatik guztiengatik, horrela sentitzen ginen gu orain dela oso gutxi*[219].

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera eta 1982 eta 1989 artean amnistia edo indultua jaso zuten pertsonek egindako atentatuen biktima askorentzat ez zen justiziarik izan: *"...gure zoritxarra bakardadean eta isiltasunean onartu genuen"*, askok demokrazia eta bakea ospatzen zuten bitartean; ez zen kaltearen onarpenik egon, ezta gizarteratze aktiborik ere. Aldiz, "bidegabeko egoera" da egon zena, terrorismoarekin amaitzea lortu ez zuen egoera gainera. 2005ean irekitako bake prozesuaren aurrean, biktimen ahotsak ere entzun ziren hurrengoaren beldur: *"…mespretxua, gutxiespena eta bake saiakeraren trago garrantza, zorigaitzaren biktimen odolarekin merkataritzan (oinarrituta)"*[220]. Baldintzarik gabeko amnistiaren gaitzespena badirudi gizarte osoa ados dagoen alderdia dela, batez ere odola izan duten delituak agertzean[221].

---

214 M. Vicotira Vidaur, Alberto López Jaureguizarren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

215 Paloma Esteban, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

216 José Ignacio Ustaran Muela. Aita hil egin zion ETA p-m taldeak 1980an. Hurrengo helbidean aztergai: http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm.

217 Carmen Villar, José Rodríguez de Lamaren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako testigantzetan.

218 Ana Irîbar (2007).

219 Cuesta eta Cuesta (2007, 26).

220 Buesan (2006, 12-3) aipatutako adierazpenak. Ikusi Pérezen (2006) bildutako dokumentuak.

221 Ikusi Buesa (2006, 14-7).

Balizko bake prozesu bati dagokionez: *"…nik ere uste dut hitz eginez ulertzen dela jendea. Aitzitik, inor hiltzea posible ez izatearen oinarritik abiatu behar da. Ezin zara 'bai, zurekin hitz egiten dut, baina ados ez banago, nire lagunei zuri tiro egiteko esango diet' esaten duen norbaitekin eseri. Giza eskubideak errespetatzen ez dituen jendearekin ezin zara hitz egitera eseri. Niretzat, biktima naizen aldetik, izugarria litzateke hori. Orduan, zera galdetuko nioke neuri buruari: izandako hildako guztiek, ez al dute ezertarako balio?"*[222]

Bakearen Aldeko Koordinakundearekin bat etorriz: *"Adiskidetzeak oinarri solidoa izango du bakarrik justizia zorroztasun osoz aplikatzea gertatzen bada. Zentzu horretan, gertatutako delituzko gertaera guztiak ikertzen jarraitu behar da, egiteko dauden epaiketak egin, edo haietatik eratorritakoak gauzatu, eta zigorrak bete. Jende guztiak atentatu gehiago ez jazotzeko aukera nahi izateak ezin du errudunak jazarri eta epaitzeko betebeharra eraldatu. Epaiketa egiteak esan nahi du publikoki onartu egiten dela norbaiten aurka bereziki eta guztion bizikidetzaren aurka delitu bat egin zela eta horien egileak zeintzuk diren onartu egiten dela. Biktima askorentzat, erasoa jasotzean, nola, nork eta zergatik gertatu zaien arrazoitzeko saiakera antzua hasten da. Nekez erantzun ahalko die inork galdera horiei guztiei; aitzitik, bidegabekeria baten xede izan direla onartzeak, maite duten horren heriotzaren gainean dolua eratzen eta etorkizunari itxaropen eta duintasun gehiagoz aurre egiten lagunduko die… Gainera, uste dugu biktimek, horrelakorik nahi zianez gero, zuzenean eragiten dieten prozedura judizialei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izan beharko luketela… uste duguna onartzea justiziazkoa da: biktimak benetan geratu zena jakitea"* (Bilbao eta Etxeberrian, 2005, 91-2).

Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko IV. Batzarrera bertaratu ziren elkarte guztiek sinatutako adierazpenaren barruan, 2008ko urtarrilaren 24an egindako itxiera ekitaldian, gizateriaren aurkako delitutzat hartzea eskatu zen terrorismo delituak, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzio subsidiarioaren pean. Horren ondorioz, delituak ez preskribatzea eta amai-puntuko legeak jartzea zaila izatea lortuko litzateke. Biktima batzuen ustez, eskaera horren helburua *"justizia izateko eskubidea bermatzea da, besterik gabe"*. Biktimaren batek kritikatu egin zuen Biktimentzako goi komisarioa, haien arabera *"egin zuen lehenengo gauza preso etarrekin eskuzabalak izateko prest geunden galdetzea izan zelako"*[223].

Lehen adierazitakoarekin uztartuta, azken bake-prozesuaren saiakeran, badira *"beharrezkoa ez zen mina"* pairatu duten biktimak, *"ETArekin amaitzen saiatu behar zela eta aukera terrorismoaren aurkako estrategiatik kanpo zegoela uste zuen jendearen erabakiaren ondotik"*. Edonola ere, biktima batzuk gardentasuna eskatzen dute eta bake prozesu baten baldintza orokorrak zeintzuk izango liratekeen ezagutzeko interesa agertzen dute, izan ere, *"ez dira jokoan jartzeko pieza txoroak"*. Zentzu horretan, biktimek *"legezko iruzurrik gabeko terrorismoaren amaiera"* merezi dute, eta bertan, *"gizarteratzea lortzeko beharrezkoa izango da damu izatea"*. Izan ere, *"giza eskubideen ideia aurrerakoian beharrezkoa da amai-puntu legeak dituzten toki*

---

[222] Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

[223] *ABC*, 2008ko urtarrilaren 23koa, 16.-17. or.

*horietatik edo mendekua eta terrorismoa gurutzatu diren toki horietatik ezberdina den zerbait"*[224].

## 6. Lehengoratzeko justiziako balizko topaketa

Aitaren eta haren bizkartzainaren erailketaren aurrean, alabek zera esaten digute: *"Terroristek ezezagunak zitzaizkien pertsona batzuekin amaitzea erabaki zuten. Euskaldunak ziren, gu bezala, ez zuten ez goserik, ez beharrik pasa, euskara ikasteko aukera izan zuten, alderdi ezberdinei botoa emateko aukera, garagardo batzuk hartzera irtetekoa, lan egin eta bizitza normala izatekoa, baina fanatiko bihurtzea erabaki zuten, askatasun osoz eta kontzienteki. Beste hainbat umezurtz, zauritu eta gutxietsik gizalegezko pertsonak izatea erabaki genuen"*[225]. Fanatikoen ezaugarria da errealitatea distortsionatuta ikustea eta beren buruak biktimatzat izatea. Gainera, ez dute ez enpatiarik, ez aladura edota iritzi kritikorik. Horrekin batera, familiak, ikastetxeak, lagun taldeak eta udalerriak eratutako haztegia egongo litzateke, bertan, modu akastunean, terrorismoari legitimazioa ematen bazaio. Denborak aurrera egin ahala, ETAko ekintza terroristak egiten dituzten pertsonak geroz eta gazteagoak dira, gehienak demokrazian jaio eta hezitakoak eta inolaz ere kontrakoak ez ziren baldintza ekonomikoetan, eta indarkeria legitimatzen jarraitzen dute.

Lehengoratze justiziarako beharrezkoa da biktimaren eta gaizkilearen artean lehengoratzeko borondatezko topaketa izatea, hirugarren baten laguntzarekin. Lehengoratzearen ikuspegian, justizia biktimen beharretatik hasten da. Behar nagusienetako bat jasandako kaltearen lehengoratze materiala eta sinbolikoa da. Konpondu ezin daitezkeen kalteak badaude ere, lehengoratze justiziak *"katalizatzailea edota topaketarako tokia eman dezake, behar, erantzukizun eta itxaropen horiek aztertu eta egokitzeko"* (Zehr 2002, 29). Edonola ere, kaltea lehengoratzeak esan nahi du prebentziorako interesa dagoela beti, eta horrek gizarte eta egitura faktoreetan eta faktore pertsonaletan arreta jartzea esan nahi du. Arau-hauslearen erantzukizuna eragindako kaltearen ulermena bezala definitzen da, horren gainetiko justifikaziorik izan gabe. Halaber, esku hartzen duten alderdien konpromisoa eta justizian parte hartuko dutela esan nahi du, gertueneko komunitateak eta gizarte taldeak bezala eta estatuak babestutako interes publikoaren kaltetan izan gabe.

Beste herrialde batzuetan agerian geratu dira lehengoratze justiziaren onurak, oso delitu larrien biktima direnen lehengoratzerako, terrorismoaren biktima direnak barne. Aitzitik, ezin da euskal testuingurua kontuan hartzen ez duten aingerukerietan edo idealismoetan erori: nola planteatu adierazitako hori, kasu askotan atentatuak gaitzetsi ere egiten ez badira. Benetan atentatu bat gauzatzen duen pertsona batentzat, "gainetik" geratzen diren helburu batzuengatik justifikatzeko joera handiagoa izango da ziurrenik. Hori da

---

[224] *El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 26koa, 44. or. Joseba Pagazaurtundúari egindako omenaldiaren berria jasotzen du ETAk erail zuenetik bosgarren urteurrena bete zenean. Maite Pagazaurtundúaren adierazpenak jasotzen dira bertan.

[225] Cuesta eta Cuesta (2007, 26).

goiburu honek funtsean etorkizuneko proiekzioa izatearen arrazoia[226], egon daitezkeen kasu paradigmatiko batzuen kaltetan izan gabe.

Nazio Batuen 2002ko printzipioekin betez, lehengoratzeko justiziak ez du errugabetasuna adierazi nahi, ezta barkamena edo ahaztea ere edota ETArekin amaitzeko metodo bat. Aldiz, borondatezko esku-hartzea litzateke, orokor bihurtu ezin daitekeena, pertsonen artekoa eta, horrelakorik balego, komunitatekoa, terrorismoaren amaiera eta gero[227]. Beste gizaki batek horrenbeste min nahita eragin dezakeela ulertzeak ez du esan nahi barkatu edota justifikatu egiten denik, baina prebentzio elementuak bilatzen lagun dezake. Lehengoratzeko topaketa batean, bermatu egin behar da, une oro, biktimek adierazitako printzipioei errespetua izango zaiela: egia, memoria, duintasuna eta justizia.

Lehengoratzeko justiziari buruz berariaz ari ez bada ere, Bakearen Aldeko Koordinakundeak zera baieztatzen du: *"...elkarrizketa posible da bakarrik solaskidea gizaki gisa onartzen bada, bere eskubide, muga eta arrakasta guztiekin; norberaren jarrerak aldarazteko aukerarekiko jarrera irekia mantentzen bada... gizaki batek beste baten aurka indarkeria erabiltzeko aukera egiten duenean, bere egintzak justifikatzeko eta berdinkide bati eraso egitera behartu duten arrazoiak argitzeko behar larria sentitzen du... helburu desiragarria litzateke indarkeria erabili edo babestu duten pertsonek gizarteratzeranzko ibilbide osoa egitea... Prozesu hori indarkeriaren erabilera abandonatzearen justifikazio estrategikoarekin hasten da, eta gertatutakoaren gaineko hausnarketa etikoarekin amaituko litzateke. Horrela, ibilbide horren amaieran, horrenbeste min izateko justifikaziorik ez zela izan eta ez dagoela onartuko da modu naturalean... Barkamen eskaera eta hura ematearen aldeko jarrera ezin dira ezarri... Aparteko adore eta onginahi dosia esan nahi du... Barkamena eskatzeak ez du duintasun galera ekartzen. Barkamena emateak, ez du, inolaz ere, ahaztea esan nahi"* (Bilbao eta Etxeberrian 2005, 95; 97-98). Ondorioz, erasotzailearen gizarteratzearen lehenengo fasea kaltea onartzea eta eragindako sufrimenduarekiko errespetu sakona izan behar dira, eta hori ez dator bat omenaldiak egitearekin edo hauteskunde zerrendetan edo erakunde publikoetan sartzearekin (ibídem, 98).

Lehengoratze justiziaren ataria esparru eskatzailea izan daiteke, biktimazio esperientziak kontatzen dituzten biktimak errekonozitzea eskatzeko. Galdetzeak emozioak eta erantzukizuna gain hartzea ekarri behar du, axolagabekeriaren aurkako hezkuntzarekin lortu nahi den moduan: *"Sektore adierazgarri bati bihotzera iritsiko zaio, zentzurik zintzoenean. Beste sektore batentzat zailagoa izango da, biktimen aurrean estalkia jartzeaz gain izaera hori kenduko ziotelako, etsai soil edo antzekoren bat bihurtzeko. Hori horrela izanda ere, funtsezko bidea biktima den pertsona benetan ikustarazten saiatzea da, defentsak baxu izanda harritzea eta hura izatea estalkia zartatzen duena eta aurreiritzi horiek bertan behera uzten dituena. Axolagabekeriak bestea benetan ez ikustea ekartzen badu, axolagabekeria falta ikuste hori izango da, eta hura, aldi berean, erantzukizun bihurtuko da, hau da, beste hari erantzuteko deia, beste biktima*

---

226 COVITErentzat ez da posible izango terrorismoa amaitu, egileak epaitu eta zauriak orbandu arte. Ana Isabel Simónek positibotzat jotzen du biktima batzuen kasuan epe luzera.

227 Ikusi Beristain (2007, 243-244). Azken bake prozesuaren aurkako biktimen lekukotzei buruz, ikusi "biktimen hausnarketak" atala Terrorismoaren Biktimen Elkartearen web orrialdean, http://www.avt.org.

*hari... indarkeria jasan dutenek eskubidez jaso ditzaketen justizia neurriak betetzeko konpromiso bihurtuko da"* (Etxeberria 2008, 24). Lehengoratzeko topaketa batean suposatzen da gaizkileak egindakoa eta bere erantzukizuna onartzen dituela, terrorismoa gaitzesten duela eta, nolabait, biktimak lehengoratzeko prest dagoela agerian uzten duela. Halaber, suposatzen da biktimek lehengoratze hori jasotzeko jarrera dutela, egon daitezkeen ondorio juridikoak zein diren alde batera utzita. Pertsona batzuk prest egongo dira eta beste batzuk ez, eta horiek guztiek eskubidea dute prest egoteko edo ez egoteko. Helburua prest daudenen biktimazioa gutxitzeko hautabidea aurkeztea da.

Lehengoratze Justiziaren Batzorde Europarrak terrorismoaren biktimentzako lehengoratze justiziako adibideak aztertu ditu[228], eta berariazko mintegi batean aztertzeko gaia izan zen Kriminologiako Nazioarteko Sozietatearen Mundu-mailako XV. Batzarrean, Bartzelonan, 2008ko uztailaren 24ean. Alderatutako esperientzien artean San Karloseko Lehengoratzeko eta Adiskidetzeko Hurbilketa Zentroa (Kolonbia) aipa daiteke. Bertan biktimek eta gaizkileek (paramilitarrak) egiten dute lan. Semearen torturatzaile eta hiltzaileetako batekin hasiera batean zorizkoa izan zen topaketaren ondoren, Pastora Mirak zera hausnartu zuen: *"Talde paramilitar horiek hierarkia handiarekin funtzionatzen zuten, eta inoiz ezingo ginateke goiko mailara iritsi, bai, ordea, oinarrietara, eraikina azpitik eraisteko, pixkanaka"*[229].

Eusko Legebiltzarraren ordezkaritzak Belfastera egindako bisitan, 2008ko otsailaren 5 eta 6an, bilera egin zen biktimei laguntzeko ardura zuen gobernuko bulegoko arduradunekin eta haren elkarte batzuetako kideekin. Biktima batzuk barkamena eskatu zieten beren senideen hiltzaileekin izandako topaketak kontatu zituzten. Aurretik, 2007ko abenduaren 6tik 8ra, adiskidetzera zuzendutako gobernuz kanpoko erakunde batek, *Glencree Centre of Peace and Reconciliation,* Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona talde bat hartu zuen mintegi batean parte hartzeko eta *"Glencreeren esperientziatik ikasteko adiskidetzearen eta bakea eraikitzearen alorrean"*[230]. Edonola ere, onartu egin behar da Ipar Irlandako eta Euskadiko terrorismoaren egoeraren artean aldeak agertzen direla.

Reyes Materentzat (2001, 14): *"Biktimak ez dira bakarrik konpondu beharreko arazo bat, baizik eta edozein konponbidera iristeko derrigorrez egin beharreko urratsa, izan ere, haiek indarkeria erabiltzen duen alderdia adiskidetutako etorkizuneko komunitate politikoan integratzeko gakoa dute. Hortik dator haien agintaritza morala... Egon daitekeen elkarrizketa hastapeneko erritu batetik igarotzen da gizakiaren hizkuntzan, eta bertan borreroa biktimaren eskutik bakarrik abia daiteke... Politikak beti izango du denborak eteteko joera, indarkeriaren amaiera ahalbidetuz edozein prezio ordainduta, baina denbora mozketa hori mozketa morala ere bada".*

Adiskidetzeak "biktima eta gaizkilea berreskuratzea" ekarriko luke. Lehenik eta behin, biktimari lehengoratu behar zaio kalte pertsonala eta herritartasuna ukatu izana, gaizkileak eragindakoak horiek. Gaizkilea berreskuratzeak esan nahi du *"eragindako kalteez damu*

228 Terrorismoa izan, eta jada amaiturik duten herrialdeekin egindako alderaketaren adibideak, adibidez Ipar Irlandarekin eta Alemaniarekin, eta, gutxi gorabehera, bat-batekoak diren esperientziak Italian.

229 *El País,* 2008ko urtarrilaren 24koa, 14. or.

230 Ikusi http://www.glencree.ie/site/news.htm.

*izatea dakarren prozesua"* garatzea. Bertan, *"betirako errua" "indarkeriarik gabeko politikaren aldeko konpromisozko erantzukizuna"* bihur daiteke (Mate 2007, 6).

*–…Bai, hitz egitera eseriko nintzateke. Eta begira iezadazu aurpegira, aizu, pertsona naiz eta esanez. Zuk ere emaztea eta seme-alabak dituzula, egoera berdinean gaudela… Zergatik ezin dute batera agertu zure munduak eta nireak? Zergatik jarraitu behar duzu hiltzen? Zergatik ezin diogu elkarri hau guztia aurpegira esan? Inoiz ez badugu egin… Politikarien eta istorio handien bitartez egiten dugu. Ez, ez. Pertsonatik pertsonara. Bestela, biharko egunean, nire seme-alabak bazter batean geratutako pertsona ahulak, kikilak eta beldurrak jotakoak bihurtuko dira, edo hil egingo dituzte edo haiek hilko dute norbait…*[231].

*–Nik hori ez, nik EHkoekin hitz egingo nuke, baina oinarri honetatik abiatzen badira: "…pertsonak errespetatu egin behar dira. Ezin da inor hil"*[232].

*–Terroristak eta haien inguruneak biktima errugabeak direla uste dute… Krudeltasuna eta errua existitu egiten dira haien ustetan, proiektatutako irudiari eraso egiten diotelako benetako pertsonak erailda ere eta emozionalki erabat hondaturik geratzen diren familiak uzten badituzte ere*[233].

*–…erasoa erasotzaileetik ezberdintzea… gure artean gorrotoa sendotzen ez utzi… zauria orbantzearen alde lan egin… mina eragiten duenari lotuta egotea ekartzen duen begizta askatu… gure bizitzako uneren batean barkatzen ikasi beharko dugu*[234].

*–Norbaitek barkamena eskatzen duenean, bere buruarekiko ekintza dela pentsatzen dut, bere kontzientzia garbitzeko. Ez da interesatzen zaidan dinamika bat. Hor konpon haiek eta haien kontzientzia eta hura garbitzeko moduak… Ez nieke ezer esango. Agian, irakur dezatela. Mario Onaindiak esaten zuen espetxean egindako urteetan ahal izan zuen guztia irakurri zuela, eta horrek zertan sartuta ibili zen jabearazi ziola. Haren bizitza espetxea eta gero kontrakora zuzenduta egon zen… Denetarik egongo da. Yoyes bezalako jendetik hasi, izan nahi izan eta utzi ez ziotena, inoiz izango ez den jendera iritsi arte. Gehiago interesatzen zaidana horri guztiari musika jarri dion gizarte multzoa berreskuragarria izatea da*[235].

## 7. Biktimaren nortasuna eta oreka emozionala

Zenbait aditurentzat, alderdi hauek oso garrantzitsuak dira erresilientziari dagokionez, eta hezkuntzaren alderdietako bat izan behar da egoera zailen aurrean egokitze eta gainditze gaitasunak landu ahal izateko. Hori guztia terrorismoaren salbuespena natural bihurtu gabe[236].

*–…Berriro ere bide hori bilatu behar duzu… zure burua berriro topatu… zentzu bat, eguneroko gauzetan poza… hau gertatu zenetik gizakiago sentitzen naiz, beste*

231 Cristina Sagarzazu Lambert, Ordazen (2001, 4).

232 Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

233 Pagazaurtundúa (2008, 37). Zentzu berean: *"Biktimek ezin dugu jasan hil dutenek edo hiltzen lagundu dutenek egin zutenaz barre egitea, burututako krimenak heroien ekintzatzat hartzea eta heroi deitzea gure hiltzaileei"* (Markiegi, 2000).

234 Zentzu orokor eta banakakoan, Irene Villa (2007, 92).

235 Eduardo Madina, *El País*en argitaratutako elkarrizketa digitala, 2006ko abenduaren 31koa: http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes.

236 Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa, Etxez Etxeko Arreta Programako gizarte langilea.

*pertsona batzuen sufrimendua ulertzeko gaitasun gehiagorekin… hori asko baloratzen dut… tolerantzia… uste dut orain toleranteagoa naizela… arinkeria gutxiagorekin epaitzen dut… sufrimenduzko bizipenetatik gauza asko ikasten dira*[237].

*–Terroristek mina, mina eta mina besterik ez dute jartzen, eta biktimek ausardia, adorea eta are adore gehiago*[238].

*–Biktima naiz baina biktimismorik gabe bizi naiz*[239].

*–Haserrea, mina, hasieran amorrua, gero amorrua itxaropen bihurtzen da… terrorismoa… euskal gutxiengo batean dago, euskal herriak… bakea nahi du*[240].

*–Aurrerantz egin behar genuen… aurpegia erakutsi… bai, nire anaia hil zuten, baina hari egin zekion omenaldi onena, haren memoriari, ez koldartzea zen, ez haserretzea… benetan gorrotoa izango bagenu, nire anaia hil zutenak eta haiei laguntzen dietenak izango lirateke bataila benetan irabaziko luketenak… nire anaia hil egin zen, baina ezingo duzue gurekin bukatu*[241].

*–Hau bizi dugun pertsona guztiak minarekin bizitzen amaitzen dugu, baina agian min hori eraldatzea posible da… eta eraldatzeko gai bagara… beste pertsona batzuk honetatik ez igarotzea lortuz*[242].

*–…nik ezagutzeko aukera izan dudan terrorismoaren biktima gehienekin ikusi eta egiaztatu dudana transmititzen saiatuko naiz… haiengan ontasun handia igarri ahal izan dut eta haien begiradetan duintasuna igarri. Min sakona ikusi dut haien bizitzetan, baina, aldi berean, bizitzarengatik maitasun sakona sumatu ahal izan dut. Haiengan errespetu handia, zuhurtasuna eta haserre gutxiago… sumatu ditut. Justizia behar handia*[243].

*–…ETAren biktima bat naiz, baina ez hori bakarrik. Edonor hainbat gauzaren batura da; ni, ere bai. ETAk ni egun batean hil nahi banau ere. Guztia bere tokian jartzen saiatu naiz, ETA izan ez dadin –edo ETAk 2002ko otsailaren 18an sortu zuena– nire itxaropenak erabakitzen dituena, nire iragazkiak jartzen dituena, nire kritikak sortzen dituena eta nire pentsamendu politikoak eraikitzen dituena, ni izan nadin hori guztia egiten duena. Ez horri bizkar emanda. Horrekin. Baina ez horrekin bakarrik… Lehergailua jartzen dizutenean eta zu hiltzen saiatzen direnean, hortik irteteko prozesua oso luzea eta oso zaila da. Eta garrantzitsua da barruko kai bat eraikitzea, ETAk bisitatzen dituen pertsonengan bilatzen dituen gorrotoek, ETAk sortzen dituen edo sortu nahi dituen pasioek urpetu ez zaitzaten. Izan ere, hori da bilatzen duena. Gorroto injekzioak. Ondorioz, barruko kaiak jarri behar dira, pentsatzeko gune askeak egon daitezen, giza garapena egon dadin. Ia bost urte daramatzat nire barruan gorrotoaren aurkako kaiak eraikitzen… Zoramena positibo bihurtzen saiatu naiz. ETAren atentatu batek suposatzen duen gauaren amaierarako bidaia. Eta, beno, denbora bat igarota egun bihurtzen hasi zen. Egoera ez da erabat argia oraindik, baina geroz eta argi gehiago dago*[244].

---

237 Sara Buesa, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

238 Teresa Jiménez Becerrilen hitzak Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko IV. Batzarra, 2008ko urtarrilaren 22an.

239 Terrorismoaren Biktimei Omenaldia egiteko eta Errekonozimendua agertzeko Erakunde Ekitaldiaren filma. Euskalduna Jauregia, 2007ko apirilaren 22an. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

240 Paloma Esteban, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

241 Joaquín Samperio, Luis Andrés Samperio Sañudoren anaia. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

242 Luis Portero Garcíaren alaba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

243 Ángel Altuna (2007).

244 Eduardo Madina, *El País*en argitaratutako elkarrizketa digitala, 2006ko abenduaren 31koa: http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes.

*–Bizitza salbatzeko ordaindu behar izatearen ideiak asaldatu egiten nau... zerbait bada nire kontzientzian, nire izateko moduan, edozein gauza nahiago dut nire lurraldea hondatzen ari den xantaia onartzea baino*[245].

## 8. Biktimaren prestakuntza eta maila sozioekonomikoa

Mehatxu eta hertsapen terroristen biktimen kasuan bezala, alderdi horiek ez dirudite garrantzitsuenak direnik biktimazioa gainditzerakoan, nahiz eta baliabide ekonomikoak izateak biktimazio hori arin dezakeen. Hala eta guztiz ere, aditu batzuk hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen dute adimen emozionala, harremanak eratzekoa eta gizartean jardutekoa sartuz gero[246].

## 9. Bikotekidearen, familiaren eta hurbilekoen babesa

Adituentzat funtsezkoa da alderdi hau. Pertsona batzuk beren burua isolatu dute eta orduan beharrezkoa izan daiteke familiekin esku-hartzea bideratzea[247].

*–…nire ama ainguratze hori izan zen, gidatu gaituen babes hori... nire amak zerikusi handia du pertsona alaiak, lasaiak izatearekin, mendeku sentimendurik ez izatearekin, pentsamendu positiboa izatearekin*[248].

*–Aurrerantz egiten baduzu, zure familiagatik da. Baina gizarte babesa eta babes politikoa, batere ez*[249].

*–…Oso argi nuen, eta hor nire familiak asko lagundu zidan... guztiok izan dugu aurre egiteko muga hori... aurrerantz egin behar genuen... bizitzak oraindik hainbat gauza on zituelako...*[250].

*–…gorputzeko zati bat galdu genuen... pixkanaka gainditu egin dugu, iraunkorrak izanez, adore handiarekin eta baikortasun handiarekin... pizgarria gure ama izan zen... zera esan zien sendagileei... emadazue hanka bat alaba ikustera joan behar dut eta...*[251].

*–Nire familian desegituratze izugarria egon da, nire amak eta nire anaiak... arazo psikologiko larriak jasan dituzte... oso gaizki pasa dugu... batu egin gara... planteamendu oso sinplea egin dugu: honek ezin du gure bizitza eten, aurrerantz egin behar du... ez dugu onartuko terroristek gure bizitzako proiektuekin amaitzea... nire alabengatik borrokatu... balio etikoak eman haiei... aitona bertan ez egotearen arrazoia jakinarazi behar izan nien...*[252].

---

245 Juan Alcorta, enpresaburua, 1980an hedatutako gutuna, Callejan bildutakoa (2006, 130).

246 Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa, Etxez Etxeko Arreta Programako gizarte langilea (Barne Ministerioa).

247 Horrela egiten da Barne Ministerioan Etxez Etxeko Arreta Programa. Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

248 Jose Ignacio Ustaran Muela, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm.

249 Teresa Díaz Bada, Ordazen (2001, 4).

250 Sara Buesa, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

251 Irene Villak hankak galdu zituen hamabi urterekin, lehergailu batek eztanda egitean haren amaren ibilgailuan. Amak hanka bat eta beso bat galdu zituen. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

252 Paloma Esteban, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

*–…nire lagunen aldetik, niri, orokorrean, ez zidaten lagundu... minbiziaz edo istripuz hil izan banintz bezala...*[253].

*–…Egunerokoaren gaia da gehien kostatzen dena... zure benetako laguntzak zeintzuk diren jabetzen zara... gurea bezalako herri txikietan, hurbil kokatzen diren tabernak dituena... ezin zara... sartu... ezinezkoa da*[254].

*–Eta lagunak ere bai... Aberatsek psikiatra dute, eta pobreok lagunak ditugu*[255].

## 10. Biktimaren lan ingurunea

Garrantzitsua da lan inguruneak babesa ematea, biktimen beharretara egokituz (ordutegi malgutasuna kontsultetara, errehabilitazioetara, eta abarretara joateko, aldaketa arkitektonikoak egitea edo altzariak aldatzea ezgaitasunak gorabehera…). Lan ingurunea ere garrantzitsua da biktimentzat, bizitza normalizatzeko elementu modura[256].

*–Gure zaurituek, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetakoak, zer ziren isildu dute, gure nagusiek eta gainetik daudenek ezkutatu egin zutelako gure gizaki sufrimendua hiltzea edo zauritua suertatzearen arriskua gure funtzioen barruan egotearen arrazoiak erabilita, edo gure kondekorazioetarako baldintza gisa jarri zuten haiek ere poliziaren parteetan agertzea. Bestalde, gizarteak arriskuaren aurrean kokaturiko taldetzat hartu gintuen...*[257].

*–Ia astebete, bi aste erabateko shockean igarotzen dira... ondoren, aldaketa orokorra ekarri zuen... oso azkar jarri genuen arreta lanean, gure irtenbidetzat hartu genuen...*[258].

## 11. Biktimaren konpromiso etiko eta politikoa

*–Bere ibilbide profesionalak... jopuntuan egotea eragiten zion... etxean guztiok genekien zerbait zen, ez zen zergatik bere buruari galdetzen dioten beste biktima batzuk bezala...*[259].

---

[253] Consuelo Ordóñez, Gregorio Ordónez Fenollarren arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[254] http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

[255] Santos Santamaría, eraildako Kataluniako poliziako kide baten aita (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

[256] Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

[257] Terrorismoaren Biktima Izandako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren Elkarteak egindako proposamenak Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimak Aintzat Hartzeko eta Babesteko 2007ko Legeproiektuaren zirriborroari. Ikusi http://www.acfsevt.es helbidean.

[258] Ibai Korta, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

[259] Rubén Múgica, Fernando Múgica Herzogen semea. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

## 12. Biktimak elkarte bateko kide izatea. Beste biktimekiko konpromisoa edo beste biktima batzuk laguntzea[260]

Aditu batzuen arabera[261], biktimen elkarte bateko kide izatea gomendagarria izan daiteke, kasua gorabehera. Gainera, beste mota batzuetako elkarteetako kide izatea ere sustatu egin behar da, beti biktimen ingurunean ez mugitzeko biktimismo edo mendetasun arriskua badago.

Ondoren, norberaren biktimazioan min gehien ematen duten faseei aurre egin eta gero, elkarri babesa ematea edo beste biktima batzuen aldeko lana egitea garrantzitsua da, eta erakundeen bitartez bideratzen ez diren bideetatik ere hori ongi gauzatzea posible da.

> –*Nik berehala pentsatu nuen zerbait antolatzea, biktima horiek guztiak biltzeko, isilean zeuden horiek, senarra, aita, semea, anaia hiltzeaz gain, hileta eta lurpetze lotsagarrietara joan behar izan zuten horiek... eta asko laguntzen du gainerakoek laguntzeak... Niri horrek asko lagundu zidan...*[262].
>
> –(M-11 eta gero), *beste biktima batzuei lagundu egin behar nien...*[263].
>
> –*Bizitza honetan dudan eginbeharretako bat nirea bezalako trauma jasan duten pertsonei laguntza ematea da. Babes horrek aurrerantz egiten laguntzen dizu*[264].
>
> –*Biktimen alde borroka egin eta haien mina partekatu*[265].

## 13. Beste biktima batzuen laguntza jasotzea

Biktima batzuk balora dezakete antzeko egoeran dauden pertsonek biktimazioa gainditu egiten dutela, neurri batean behinik behin, baina beste batzuk okerrago senti daitezke, gaitasunik ez dutela sentitzeagatik. Kasu honetan, profesionalen ikuskapena edo bitartekaritza beharrezkoa izan daiteke. Bestalde, talde jakin batzuk, adibidez guardia zibilek, babes osagarria topatzen dutela ematen du kidegoko psikologoen laguntza eskuratzean[266].

---

[260] 2007ko urriaren amaiera arte, COVITEk 170 pertsona inguru atenditu zituen, laguntza psikologikoko, juridikoko, sozialeko eta/edo ekonomikoko zerbitzuak emanez. Horrez gain, bestelako jarduera osagarriak ere egin zituzten (*El Diario Vasco,* 2007ko urriaren 22koa, 26. or.).

[261] Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

[262] Ana María Vidal-Abarca, Jesús Velascoren alarguna. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[263] Irene Villak hankak galdu zituen hamabi urterekin, lehergailu batek eztanda egitean haren amaren ibilgailuan. Amak hanka bat eta beso bat galdu zituen. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[264] Santos Santamaría, eraildako Kataluniako poliziako kide baten aita (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 24. or.).

[265] Mari Mar Blanco, Miguel Ángel Blancoren arreba (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 25. or.).

[266] Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa. Jazarpen indarkeriari buruzko kapitulurako guardia zibilekin egindako gure elkarrizketak gai hori ñabarrarazten digu, nahiz eta ñabardura horiek benetako atentatuen kasuan egokiak ez izan agian.

*–Nik laguntza topatu nuen kontzentrazioetan jendea ezagutzen hasi nintzenean...*[267].

## 14. Eztabaida politiko-sozialean parte hartzea

Adituek uste dute eztabaida politiko-sozialean parte hartzea garrantzitsua dela, alderdi politikoek eta elkarteek eurek baliabide bihurtzen ez duten bitartean parte-hartze hori[268].

*–Gai honetan gaitasunik ez dugula esatera ere iritsi dira, guregan jasan izanagatik... terrorismoaren biktima bat naiz eta ez dut isiltzeko asmorik, ez naiz inoiz isilduko*[269].

## 15. Gizarte babesa

Sánchez Gonzálezentzat (2007, 70): *"Biktimen historia apurketen historia da, abandonu ugarikoa eta loturetan hainbat oztopo izandakoa. Besteen bitartekaritza funtsezko sostenguaren bidea izango da bere kabuz eusteko gai ez denarentzat... beste gizaki baten ekintzagatik pairatutako atentatua orekatzera dator; horrela gizateriarekiko harremana lehengoratzeko prozesua has daiteke, atentatuak hondarazi zuena hain zuzen"*.

Biktimologiako azterlanek argi uzten dute biktimekiko gizarte identifikazioak justiziaren eta solidaritatearen alde egiten duten gizartearen aldeko jarreren oinarria eratzen duela: hori *"gizartearen aldetik enpatia duen etorria"* pertsonei biktimen tokian jartzean ahalbidetzen dienean gertatzen da. Gainera, neurriz gaineko kalteagatik gizarte aurpegiratzea eta biktimena adierazteko hautabideak dauden gizarteetan, mendeku jarreretan erotzea saihestu egiten da (Herrera 2006, 107-109).

Urteek aurrera egin arren, gizarte babesa eskasa da oraindik. ETAren 2008ko martxoaren 7ko atentatuaren aurrean, Arrasaten eraildako zinegotzi sozialista ohi zen Isaías Carrascoren auzoko batek zera adierazi zuen, loteriari buruz edo etsipena besterik onartzen ez duen zorizko gertaera bati buruz ariko balitz bezala: *"Baten bati tokatu behar zitzaion, eta hari tokatu zaio"*[270]. Ikus dezakegu askotan biktimek bere auzokoen eta herrikideen aldetiko babesgabetasuna sumatzen jarraitzen dutela. Horrek badirudi normalizatu egin duela hain ezohikoa eta gaitzesgarria den gertaera gizarte demokratikoetan, hain zuzen ere beste era batera pentsatzen duten pertsonen erailketa.

---

[267] Consuelo Ordóñez, Gregorio Ordónez Fenollarren arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[268] Enrique Echeburúari, Ana Isabel Simóni eta Maixabel Lasari egindako elkarrizketak.

[269] Maite Pagazaurtundúa Ruiz, Joseba Pagazaurtundúa Ruizen arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[270] TVEko teleberriaren bigarren edizioan bildutako testigantza, 2008ko martxoaren 7an.

*–Edozein modutara ere, egoera ekonomikoa ez zen okerrena izan gure kasuan. Okerrena gure bizitzak betirako markatu eta aldarazi zituen krimen hura justifikatzen eta ulertzen zuen gizarte ingurunean bizi behar izatea izan zen. Terrorismoa goraipatzen zuten pintaketekin bizi behar izatea, egunero hiltzaileen lagun izateagatik harro agertzen ziren pertsonekin topatu behar izatea, moralki gaixo dauden herritarren aldetik beldur edo koldarkeria erreakzioak jasan behar izatea. Gaizkilearentzako zigorgabetasun ingurunea jasatea, biktimei errua botatzen zitzaien bitartean. Gure biktima izaera ezkutatu, ez izendatu, ez salatu ahots ozenez…*[271].

*–…lehenengo egun horietan, gizarte babesa, ezertaz ezagutzen ez duzun jende horrena guztiarena, jende guztia kalean ikustea… Unibertsitatean bildu ziren sinadura horiek guztiak… atentatu bat egon, eta norbait entzuten dudan bakoitzean zera esanez: "zertarako joango zara* (kontzentrazio eta manifestazioetara), *ez du eta ezertarako balio", nik beti pentsatzen dut: noski balio duela! Une horretan kontsolatzen zaituen gauza bakarra da, ez zait bakardadean hori bizi behar izatea baino gauza ikaragarriagorik bururatzen*[272].

*–Jendeak asko lagundu zigun… horregatik nahi izan dut nik babes hori biktima guztiei helarazi, berotasun hori, osatzen zaituena dela uste dudalako… biktimek behar duguna gizakien berotasun hori da, bakarrik ez sentitzea, ulertzen ez gaituztela ez sentitzea… baina baita beren mina, beren amorrua askatzea ere, kexatzea, eta hori biktima askori ukatu zaio*[273].

*–Kaletik ezagutu egin nauen jende horrek guztiak ere asko lagundu dit… solidaritatea erakutsi didate…*[274].

*–Biktimazioan erori ez izana goraipatzen dut, ez dugu errukirik behar. Ahaztea urruntzeko, garrantzitsuagoa da errekonozimendua. Gure indar guztiekin borroka egiten jarraitu behar dugu, horrenbeste desiratzen dugun bakea lortzean, oraindik zoritxarrez bide luzea behar izango duen hori lortzean, biktimak berriro ere biktima izan ez daitezen… Esan nahiko nuke herri espainiarra gabe biktimak ahaztu egingo liratekeela, eta gure borroka guztiak ez lukeela ezertarako balio izango, beraz, inoiz baino gehiago behar zaituztegu eta eskerrak ematen dizkizuegu guztiagatik*[275].

## 16. Babes politikoa

Faktore hau garrantzitsua da biktimak batasun esparru batean lehengoratzeko. Biktima batzuk benetan nahi dute alderdi politikoak *"diagnostiko komunera eta estrategia historikora iristea benetan, ETArekin amaitzeko"*[276]. Biktima batzuk biktima eta biktimatzaileen arteko parekatze iraingarriak egiten dituzten iritziez kexu dira, baina horiek ez

---

[271] Cuesta eta Cuesta (2007, 26).

[272] Sara Buesa, http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-hijos.htm helbidean.

[273] Irene Villak hankak galdu zituen hamabi urterekin, lehergailu batek eztanda egitean haren amaren ibilgailuan. Amak hanka bat eta beso bat galdu zituen. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[274] Consuelo Ordóñez, Gregorio Ordónez Fenollarren arreba. http://www.fudacionvt.org helbidean bildutako lekukotza.

[275] Cristóbal Díaz Lombardo, Cristóbal Díaz Garcíaren semea (*El País,* 2008ko martxoaren 11koa, 46. or.).

[276] *El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 9koa, 36. or. Joseba Pagazaurtundúari egindako omenaldiaren berria jasotzen du, ETAk erail zuenetik bosgarren urteurrena betetzean.

ditugu aintzat hartuko, ezta biktimen iritziz ETAren bortizkeria terrorista behar besteko irmotasunez eta argitasunez gaitzesten ez duten ekitaldi instituzionalak ere.

> *–Beti hobe da errekonozimendu horiek egitea, berandu bada ere, baina alderdi batzuk ez dute ez gertutasunik, ez berotasunik agertzen... erailketetatik urrundu egiten dira eta ez dago adierazpen askatasunik. Zure erkidegoko Gobernuak abandonatu egin zaituela sentitzen duzu*[277]*.*
>
> *–...kezkatu egiten nau ETAk Euskadiko alderdi batzuk oztopotzat inoiz hartu ez izana, bere proiektu totalitarioaren aurrean. Han tokirik ez duela uste dutena garbituz ezarri nahi duten ereduaren aurrean ez dira inoiz jarri. Horregatik gara biktimak, ETAk hiltzeko aitzakiatzat duen ametsean soberan gauden biztanleak. Alderdi horiek ez al diete beren buruari galdetzen zergatik ez dituzten proiektu faxista baterako oztopotzat hartu?*[278]
>
> *–Alderdi politiko guztiek memoria, duintasun eta justizia balio horiek defendatzen lagun gaitzatela behar dugu, baina arau politikorik gabe. Terrorismoaren aurkako borrokaren arrakasta alderdi guztien batasuna izan da beti... Terrorismoaren biktimak ere ezin dira eztabaida politikoan terroristek duten maila berdinean jarri. Ez gara distantzia berdinera kokaturiko bi errealitate... Ezin gara inpartzialak izan bidegabekerien eta beldurraren aurrean...*[279]*.*
>
> *–Urte asko behar izan dira erreakzionatzen hasteko*[280]*.*

## 17. Erakundeen jarduerak biktimen segurtasuna, lehengoratze ekonomikoa eta laguntza psikologikoa bermatzeko

Erakundeen laguntza ekintzak garrantzitsuak dira, nahiz eta horren inguruko azterlanak falta diren. Agian, eragin handiagoa du hurbileko babesak, babes pertsonalizatuak eta laguntza emozionalak, hainbat beharren aurrean[281].

Bidezko tratua jasotzearen pertzepzioa uztarturik dago erakundeen legitimotasunarekin eta haien arteko lankidetzarekin, esate baterako gertaera ezberdinak salatzerakoan edo, besterik gabe, mehatxatutako pertsonei buruzko gurea bezalako ikerketetan parte hartu nahi izaterakoan[282]. Solidaritate neurri orok lagundu egin behar du pertzepzio horretan.

Hala eta guztiz ere, hainbat lekukotzak agerian utzi duen moduan, epe luzera ezin da laguntzekiko mendetasun osoko egoerarik sustatzen lagundu, ezta soilik laguntza izaera duen horretara mugatu ere. Harrigarriro, 1992 urtera bitarte atentatu terroristagatik ezohiko pentsiorik jaso ez zuten alargunek aurrerantz egin zuten ardurapean seme-

---

[277] Mari Mar Blanco, Miguel Ángel Blancoren arreba (*El País,* 2007ko urriaren 6koa, 25. or.).

[278] Eduardo Madina, *El País* egunkariaren bertsio digitalerako egindako elkarrizketa, 2006ko abenduaren 31koa (http://www.elpais.com/articulo/portada/dique/frente/odio/elpepusoceps/20061231elpepspor_1/Tes).

[279] Irene Villa (2007, 104-105).

[280] Gorka Landaburu, Etxebarrian jasotakoa (2007, 101).

[281] Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

[282] Ordenamendu juridikoari buruzko gai hori azpimarratu zuen jada Matzak (1964, 101), Cid eta Larraurik gogorarazten diguten moduan (2001, 189).

alabak izanda. Askok ez zuen laguntza psikologikorik jaso, nahiz eta beharbada horrek lagunduko ziekeen.

## 18. Babes erlijiosoa eta izpirituala

Babes erlijiosoa eta izpirituala garrantzitsua da pertsona askorentzat. Hain zuzen ere, Barne Ministerioko Etxez Etxeko Arreta Programa harremanetan jarri da zenbaitetan apaizekin[283].

> *–Apaiz batek edo bestek ezezkoa eman zion haren oroimenez meza emateari, "jada zeruan egongo da" esanez*[284].
>
> *–Gertatutakoa gertatuta ere, inoiz ez nuen nire buruaz beste egitea pentsatu. Agian nire fedeagatik. Nik fede handia dut*[285].

# V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK BIKTIMAZIO TERRORISTA PREBENITZEAREN ETA TXIKITZEAREN INGURUAN

Azterlan honetan ez dago zeharkako iturrien bitartez mugatutako helmuga bat. Aitzitik, etengabeko bilaketaren barruan, zorrozki egin da lan Biktimologiaren alorrean, jarraian aurkeztuko dugun ondorio multzora iristeko etorkizuneko azterlanen abiaburu gisa.

Aurreko orrialdeetan aztertzeko lana aurkeztu dugu, xehetasunez beterikoa ez dena, EAEn biktimazio terroristaren bizipenen konplexutasunaz, dinamismoaz eta aniztasunaz jabetuta. Biktima batzuk gertatu zena gogoratu nahi dute, beste batzuk saihestu egiten dute; batzuk emandako medailengatik eskerrak ematen dituzte, beste batzuei nazka ematen die edo ez die axola; biktima batzuk bizitza berregiten dute, beste batzuk bizi diren bitartean hilda daudela diote... Horregatik ez da behin betiko emaitza edo ondorioetara iristen, baizik eta xehetasunezko azterlanak merezi dituzten faktoreak identifikatzera. Biktimazio bizipen anitzei dagokienez, Reyes Matek *"pasadizoaren mutina"* edo *"teoria bat zalantzan jartzeko gaitasuna, hari egokitzen ez zaion adibide batekin"* (2006, 4) deitzen duena topatzen dugu. Gainera, idazle berdinarekin jarraituz eta haren hitzak azterlan honetarako interpretatuz, biktimak lagundu egin gaitzakete *"...bizitzan, haren min eta kontraesanetan, perfektua ez dena ikusteko gaitasuna berreskuratzen, mugikortasun faltatik gu ateratzeko gai den zentzu bakarra..."*.

Biktimazioa prozesu bat da, ez emaitza bat. Ez du nortasun kategoria bat edo kategoria homogeneoa eta bateratzailea hartzen. Hori erraz ondoriozta daiteke existitzen den elkarte eta fundazio kopurua ikusita.

Zeharka biktima diren emakumeek eratutako kopuru garrantzitsua eta protagonismoa (alargunak, amak, arrebak eta alabak) kontrajarri egiten zaio Unibertsitateek eta erakunde

---

283 Ana Isabel Simóni egindako elkarrizketa.

284 Cuesta eta Cuesta (2007, 26), Enrique Cuestaren alabak, bizkartzainarekin batera erailda.

285 M. Ángeles Alonso, hamalau egunez bahitutako eta eraildako militar baten alarguna (Arteta eta Galletero 2006, 168).

publikoek bultzatutako genero azterlanen barruan hauen gaineko ia ikerketarik ez egoteari[286]. Zoritxarrez, hori terrorismoaren biktima guztientzat esan daiteke orokorrean, gure herrialdeko giza eskubideen eta Biktimologiaren alorraren barruan. Terrorismoaren biktimak, aldi berean hain hurbilekoak eta abandonatuak, ez dira interesgarri izan ezta ere ikertzaileentzat edo instituzio eta erakunde finantzatzaileentzat.

Lehen eta bigarren mailako biktimazioko esperientzia anitzen aurrean, erantzun aniztasunarekin eta tratu pertsonalizatu eta hurbilekoarekin erantzun behar da. Horrela, lehen eskutik, pertsona bakoitzaren beharrak eta interesak ezagutuko dira. Edonola ere, kapitulu honetan egindako azterketaren sistematizazio helburua kontuan hartuta, beharrezkoa izan da hainbat orokortze egitea, betiere, biktimekiko errespetuaren eta desadostasunak eta bereizkeriak saihesteko printzipio orientatzaileetatik abiatuz.

Echeburúari jarraituz (2007, 9): *"...biktimak modu iraunkorrean biktimatzat hartzea ez da egokia, triste daudenean dolua luzatu egiten duelako eta bizitzako kapitulu berri batekin asteko pisua jartzen dielako"*. *"Etsaia eraikitzera edo biktima izaera luzatzera"* daramaten sentimenduak saihestu egin behar dira, *"sufrimenduaren motxila uztea"* lortzeko. Echeburúak biktimazioaren bizipena eguneroko bizitzan sartzeko gaitasuna bezala deskribatzen du biktimen lehengoratzea, gainezka eginaraziko ez dieten edo etorkizuneko bizitza modu negatiboan baldintzatuko ez dieten oroitzapenetan geratuz bizipen haiek (ibídem, 8). Edonola ere, lehengoratze prozesuak gorabeherak izango ditu, eta *"galeraren garrantzia gutxiesteko joera"* saihestu egin behar da bat egiten dutenean *"gertatutakoari aurre ez egiteko biktimaren nahiak eta haren inguruan gaudenok haiek suposatzen duten minari eta sufrimenduari etengabe aurre ez egiteko beharrak"* (Sánchez González 2007, 68)[287].

Hala eta guztiz ere, biktima eta aditu batzuentzat[288], *"biktimak biktima izateari uzteari"* buruz hitz egitea sakonki ahaztuta izan diren eta biktimazioak dimentsio politikoa duen tokian, Eusko Legebiltzarrak berak onartu duen moduan, irain osagarria izan daiteke. Biktima askok ez du ahaztu nahi, eta ez du lehengoratze psikologiko soilean geratu nahi bere ingurune pertsonalari eragiten dion zerbait bezala bakarrik. Gainera, lehengoratzearen joera eraldaketarena izan behar da, berria izango den zerbait eraikitzearena, distantziakidetasuna deitzen den hori saihestuko duen gizarte parte-hartzeko testuinguru batean.

Distantziakidetasunak arazo etikoa dakar. Terrorismoaren biktimek irudikatzen dituzten aniztasun eta Zuzenbidezko Estatuarekiko errespetu balioak gaizkileek irudikatzen dituzten

[286] Ikusi *Corazones de hielo* filma; bertan, emakumeen testigantzak biltzen dira.

[287] Sánchez Gonzálezen iritziz (2008, 69): *"Terrorismoaren kaltea jaso dutenak onartu nahi ez diren gizarte ahultasunaren eta ahultasun pertsonalaren adibide biziak dira, eta ukatzea beharrezko bihurtzen den oroitzapen bizi bihurtzen dira. Batzuetan argi eta garbi eta beste batzuetan modu inplizituan, denbora asko igaro izanaren mezua helarazten zaie eta, ondorioz, beren lanak ez du jada tokirik"*. Biktimek suposatzen duten ahultasun eta minari, gizartea deseroso jartzen duena, batu egin behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoan biktimek ere irudikatzen duten *"egi politikoa"*, Arregiren hitzetatik hartua (2008). Beste era batera esanda, erail, mutilatu edo mehatxatu egin zaie, zenbait xede politikotarako beharrezkoak ez direla uste dutelako. Gai horrek ere deserosotasunak sortzen ditu.

[288] Ikusi, orokorrean, Beristain (2007).

tolerantzia falta eta indarkeriazko balioak baino handiagoak dira etikoki. Biktimen eta gaizkileen arteko distantziakidetasuna eta, azken batean, gizarteko sektore batzuk egiten duten parekatzea gutxiespen erantsi bezala bizi dute biktimek. Gutxiespen hori bi aldiz kaltegarria da berariaz onartu behar dituzten erakundeen euren aldetik ere badatorrela uste dutenean, are gehiago horrenbeste denboran abandonaturik izan dituztenean. Gutxiespen horrek ez dio hazteari uzten biktimak sor zitekeen indarkeriazko borobila apurtu duten lehenengoak izateagatik (Altuna 2008)[289], pertsona ororen giza eskubideak errespetatzen eta aplikatzen lehenengoak izateagatik –baita erasotzailearenak ere–, edota justizia bere esku ez hartzeagatik ezta duintasunean etengabe jasotako erasoen aurrean ere. Haiek bizirik dagoen froga enpirikoa dira, justifikazio posiblerik ez dagoela argitzeko, indarkeriak ez duela indarkeria sortu adierazteko. Aldiz, kasu askotan lehengoratze pertsonalaren eta herritar diren aldetik itxaropena dira, etengabeko mina hor egonda ere.

Terrorismoaren biktimen elkarteek lau kontzepturekin laburbiltzen dituzte beren eskakizunak: memoria, egia, duintasuna eta justizia. Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriko osoko bilkuran onartutako Bosgarren Ebazpenaren bitartez, Legebiltzarrak bereak egiten ditu biktimen politika ororen oinarrian egon beharreko jarduera printzipioak. Hirugarren Ebazpenarekin bat etorriz, biktimen memoriak askatasun eta aniztasun balioak irudikatzen ditu ETAren totalitarismoaren aurrean. Omenaldiez eta oroitzapen ekitaldiez gain, biktimen testigantzak etorkizuneko proiekzioa du, eta hori bereziki garrantzitsua da Terrorismoaren Biktimei buruzko Ponentzian aurreikusitako bakearen aldeko hezkuntzako planean (Laugarren Ebazpena), erabilera alderdikoirik egin gabe (Zortzigarren Ebazpena).

Trantsizioko justizia ereduak aplikatu dituzten beste herrialde batzuetan, lau egi motari buruz hitz egiten da: faktuala eta auzitegikoa (objektiboa); pertsonala eta narraziokoa (subjektiboa); soziala (taldekoa); eta lehengoratzekoa (etorkizunari begira) (Feyter *et al.* 2005).

Bestalde, oroitzapen ekitaldiak behar baino gehiago erabiltzea saihestu behar da, aldez aurretik egi politikoa onartzen ez bada. *"Dolua amaitu"* gabe: *"...ez Memoriaren Zentroak, ez monumentuak. Ageriko gauzak izango dira, baina inolako edukirik gabekoak"* (Pagazaurtundúa 2006, 75).

Justizia, termino juridiko soiletan, esparru zehatzailean, administratiboan, zibilean eta politikoan bila daiteke. Justiziak prebentzioa eta lehengoratzea esan nahi du. Biktimek exijitu egiten dute gertaerak berriro ez errepikatzea, ez haiengan, ezta beste pertsona batzuengan ere. Prebentzioan etikoki, politikoki eta gizartearen aldetik terrorismoari

289 Altunarekin bat etorriz (2008): *"Zergatik ez aldarrikatu balio hobeak eta okerragoak daudela? Agian norbaitek adierazpen hori kontuan hartzea alboratuko du, beste batzuk ezarpen manikeo, interesatu edo subjektibo moduan uler dezaketenaren beldur izateagatik. Aitzitik, ez genuke ahaztu behar gure lege arauak bezalako hain gauza naturalak printzipio moral esplizituak oinarri hartuta garatzen direla beti. Legeen eta dekretuen hitzaurreek kutsu morala dute, beste batzuen aldean kasuan kasuko jardunbide politikoa justifikatzen saiatuz. Horrela, halaber, lotsarik gabe konbentzitu egin beharko gara biktimak beren hiltzaileen eta haiek onartzen dituztenen gainetik sentitu behar direla moralki".*

legitimazioa kentzearen lanari buruz hitz egin behar dugu[290]. Lehengoratzeari buruz: *"Biktima bakoitzak bizi berri bat berreraikitzeko berezko modua du... Trauma modu normalean baina bakarrean bizi den bezala (horrelakorik dagoenean), lehengoratzea eta errutina berriaren eraikuntza ere bakarrak izan behar dira..."*[291].

Biktimek lehengoratzeko eskubidea dute, psikosozialki lehengoratzea barne hartuz, eta hura errazagoa da erresilientzia elementuak eskura daudenean. Hori dela eta, erakundeek beren esku duten guztia egin behar dute elementu horiek bultzatze aldera. Emozionalki helduak izango diren pertsonak, autoestimua eta iritzi kritikoa izango dutenak balioetan heztea eta horiek praktikan jartzeko teknikak, familiak, eskolak, erakundeek, hedabideek eta hurbileneko gizarteak emandakoak, babes komuneko etengabeko faktorea da, bai biktimazioaren kasuan, bai etsai politikoa garbitzeko helburua duen kriminaltasun terroristaren kasuan.

Biktimekin egiten diren jarduera guztiak agentzia independenteek ebaluatu behar dituzte, haiek ezarritako printzipioak nola bete diren zehazteko eta haien gogobetetasun maila baloratzeko prozesuekiko eta biktimekiko politiken emaitzekiko. Biktimen eskubideak eta interesak babestuko dituen edozein araudik, artikuluen aldetik egokia izateaz gain, aplikazioan eraginkortasunaren erronkari egin behar dio aurre. Orokorrean, biktimak errekonozitzeko eta babesteko lege baten funtzionamendua haiek instituzioen eta haiekin zerikusia duten erakundeen gainean egiten duten balorazio positiboaren; biktimek beren eskubideak ezagutzearen; araua eta hobekuntza proposamenak egiterakoan nahiz hura aplikatu eta ebaluatzerakoan izandako parte-hartzearen; eskura dauden baliabide material eta pertsonalen eta horien koordinazioaren; biktimekin harremanetan dauden profesionalen jarreraren eta prestakuntzaren; epaitegietara edo beste maila batzuetara ez betetzeak salatzera joateko aukeren eta gizarte babesaren araberakoa izango da.

Praktikarekiko zuloak esan nahi du legeak biktimen eskubide eta interesei egokitzeari ez zaiola bakarrik arreta eman behar. Horrekin batera, profesional eta arduradun politiko ezberdinek sentsibilitate biktimologikoa agertzen dutela bultzatu behar da horien aplikazioan nahiz baliabide nahikoak zuzkitzean eta garapenaren ebaluazio aske eta jarraituan. Horrela, informazio biktimologikoa jasotzen duten politikak ahalbidetuko dira.

Erakunde publikoek bultzatu egin behar dute biktimen testigantzak errespetuz biltzen direla, batez ere ikus-entzunezko moduan, keinuen eta begiraden indarrari sartzen uzteko. Haien bizitzako istorioek lekukotza balio kalkula ezina dute, historikoa eta pedagogikoa, eta, agian, baita terapeutikoa ere, euskal herritarren belaunaldi guztientzat eta, orokorrean, giza eskubideen errespetuzko balio unibertsala dute[292].

Terrorismoaren biktimen bizitzako istorioek, sentimendu hunkigarriak sorrarazteaz gain, horiek gizartean sartzea eta politika berrantolatzea planteatzeko ezagutzak sor ditzakete. Haien istorioek zentzua dute. Biktimek egia, memoria, duintasuna eta justizia

---

[290] Eusko Legebiltzarraren 2007ko urriko osoko bilkura monografikoan onartutako Laugarren eta Hemezortzigarren Ebazpenetan, erakunde publikoei eta hedabideei legitimazio hori kentzeko eskatzen zaie.

[291] 1999ko Eskuliburuko II. kapitulua, 6, d), 1. paragrafoa.

[292] Ahozko historiaren balioari buruz, ikusi, orokorrean, Whitlock (2007) eta Ritchie (2003).

eskatzen dute. Agian justizia terminoak itxaropen guztiak biltzen ditu, azken batean, erantzukizunaren etikaren alde egiteko helburua izan behar duen euskal gizartearen barruan pertsona batzuk eragindako kalteak onartu eta lehengoratzeari dagokionez. Kapitulu honetan adierazitako esperientziek ez digute bakarrik biktimen sufrimendua agertzen, baizik eta erakundeek eta gizarteak min horrekiko duten eta nolabaiteko solidaritatea dakarren erantzuna.

Biktima askorentzat lehengoratzeak esan nahi du barkamen eskaera publikoetan edo minaren adierazpen publikoetan ez geratzea, kasu horietan biktimazioak dimentsio politikoa duelako. Hori dela eta, egia eta memoria eskatzeak egi eta memoria politikoa ekartzea ere suposatzen du, nahiz eta horrek ez duen esan nahi agenda politikoa zehaztu behar dutenik. Ez pertsonala, ez politikoa ez den baina publikoa baden den justizia nahi dute. Biktima gehienek baliabide bihurtzetik ihes egiten dute[293]. Hori bateragarria da erabaki baten eraginak jasoko dituen pertsona orok jokoan dauden interesak ezartzerakoan parte hartu behar duela ulertzearekin.

Bestalde, biktimen aldeko politikak ez dira, ezta ere, laguntza soilekoak diren politikekin identifikatu behar. Biktimek beren eskubideak onartzea nahi dute, batez ere lehengoratze eskubidea dimentsio guztietan eta epaitegietan eskatzeko modukoa izanez.

Terrorismoaren biktimen istorioak, haien senideenak barne, amaitu gabe dauden eta amaiezinak –ezta terrorismoa amaitzen denean ere– diren sufrimendu istorioak eta herritarren eta ordezkari politikoen aldetik solidaritate gutxi agertzen duten istorioak dira. Edonola ere, argi unibertsala barreiatzen dute, beren bizitzetatik haratago, gure Euskal Autonomia Erkidegotik haratago. Gizakiak bere burua gainditzeko duen gaitasuna eta justizia nekatu gabe desiratzeko nahia gogorarazten dituen argia da. Kontakizun askok duintasunaren aldeko borrokari atxikitako edertasuna erakusten digute, minaren beraren barruan. Itxaropenari begiak irekitzen laguntzen digute, besterik itxaron gabe konprometitzen laguntzearekin batera.

## VI. BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, Ángel. Justicia real y de alcance, *El Diario Vasco*, 2007ko urriaren 5ekoa, 29. or.

ALTUNA, Ángel. Víctimas y legitimidad moral, *El Diario Vasco*, 2008ko martxoaren 2koa.

ARANA, Ricardo; HARILLO, Susana; eta PRIETO, Jesús. *Historias que nos marcan. Las víctimas del terrorismo en la educación para la paz. Guía didáctica para educación secundaria*. Escuela de Paz/11. Bilbo: 2008, Bakeaz.

293 Ikusi elkarte ezberdinek 2003ko irailean onartutako Adierazpena; bertan, alderdi demokratiko guztientzat erreferentzia izatea eskatzen dute, erabilera alderdikorik jasan gabe.

ARREGI, Joseba. Víctimas incómodas, verdad incómoda, *El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 26koa, 26. or.

ARTETA, Iñaki; eta GALLETERO SEPÚLVEDA, Alfonso. *Olvidados*. Madril: 2008, Adhara.

AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkartea). *Manual de autoayuda para víctimas de atentados terroristas*. Madril: 2004, AVT.

BACA BALDOMERO, Enrique; eta CABANAS, M.L. Niveles de salud mental y calidad de vida en las víctimas del terrorismo en España, *Archivos de Neurobiología* 60: 1997, 283.-296. or.

BACA BALDOMERO, Enrique; CABANAS, María Luisa; PÉREZ RODRÍGUEZ, María Mercedes; eta BACA-GARCÍA, Enrique. Trastornos mentales en las víctimas de atentados terroristas y sus familiares, *Medicina Clínica* 122, 17: 2004, 641.-647. or.

BACA BALDOMERO, Enrique; ECHEBURÚA ODRIOZOLA, Enrique; eta TAMARIT SUMALLA, Josep M. *Manual de Victimología*. Valentzia: 2006, Tirant lo Blanch.

BAGLIETTO, Pedro Mari. *Autobiografía póstuma de una víctima de ETA*. Madril: 1999, Espasa-Calpe.

BATANZAT ALONSO, Syra *et al. Las víctimas 36 meses después. Estudio comparativo. Consecuencias psicosociales del atentado del 11-M*. Madril: Madrilgo erkidegoa, Asociación de Ayuda a las Víctimas del 11-M (http://www.ayuda11m.org helbidetik eskuragarri), 2007.

BILBAO, Galo; eta ETXEBERRIA, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz, 2005.

BEGEÇ, Suat. *The Integration and Management of Traumatized People after Terrorist Attacks*. Amsterdam eta Washington, DC: IOS, 2007ko ed.

BERISTAIN IPIÑA, Antonio. *Protagonismo de las víctimas de hoy y mañana (Evolución en el campo jurídico penal, prisional y ético)*. Valentzia: 2004, Tirant lo Blanch.

BERISTAIN IPIÑA, Antonio. *Víctimas del terrorismo. Nueva justicia, sanción y ética*. Valentzia: 2007, Tirant lo Blanch.

BROOKS, R.; eta GOLDSTEIN, S. *El poder de la resiliencia. Cómo lograr el equilibrio, la seguridad y la fuerza interior necesarios para vivir en paz*. Bartzelona: 2004, Paidós.

BUESA, Mikel. Víctimas del Terrorismo y políticas del perdón, *Cuadernos de pensamiento político* (apiriletik ekainera): 2006, 9.-22. or.

CALLE, Luis de la; eta SÁNCHEZ-CUENCA, Ignacio. La selección de víctimas en ETA, *Revista Española de Ciencia Política* 10: 2004, 53.-79. or.

CALLEJA, José María. *La diáspora vasca. Historia de los condenados a irse de Euskadi por culpa de terrorismo de ETA*. Madril: 1999, El País.

CALLEJA, José María. *Algo habrá hecho. Odio, muerte y miedo en Euskadi*. Madril: 2006, Espasa-Calpe.

CALLEJA, José María; eta SÁNCHEZ-CUENCA, Ignacio. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*. Madril: 2006, Adhara.

CARMONA, Luis Miguel. *El terrorismo y ETA en el cine*. Madril: 2004, Cacitel.

CARO BAROJA, Julio. *Terror y terrorismo*. Bartzelona: 1989, Plaza y Janés.

CATRET MARCARELL, Amparo. *Infancia y resiliencia: Actitudes y recursos ante el dolor*. 2007, Brief.

CID MOLINÉ, José; eta LARRAURI, Elena. *Teorías criminológicas: explicación y prevención de la delincuencia*. Bartzelona: 2001, Bosch.

COSTA, Pere-Oriol; PÉREZ TORNERO, José Manuel; eta TROPEA, Fabio. *Tribus urbanas. El ansia de identidad juvenil: entre el culto a la imagen y la autoafirmación a través de la violencia*. Bartzelona: 1996, Paidós.

COUSO, Carolina. Testimonios. Calles a etarras, *Revista Fundación Víctimas del Terrorismo* 21: 2007, 30.-31. or.

COVITE (Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Taldea). *Orientación psicoeducativa para víctimas del terrorismo de 2.ª y 3.ª generación. ¿Cómo murió papá? ¿Por qué mamá va en silla de ruedas? ¿Qué le pasó al abuelito? La comunicación y las respuestas a los niños que son hijos y nietos de víctimas del terrorismo. Confianza. Verdad. Apoyo. Tranquilidad*. COVITE (http://www.covite.org helbidetik eskuragarri)., d. g.

CUESTA GOROSTIDI, Cristina. *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*. Madril: 2000, Temas de Hoy.

CUESTA GOROSTIDI, Cristina; eta CUESTA GOROSTIDI, Irene. “Capullo”, *El Diario Vasco*, 2007ko abenduaren 20koa, 26. or.

CYRULNIK, Boris. *Los patitos feos. La resiliencia: una infancia infeliz no determina la vida*. Bartzelona: 2002, Gedisa.

DANIELI, Yael; BROM, Dany; eta SILLS, Joe, ed. *The Trauma of Terrorism. Sharing Knowledge and Shared Care. An International Handbook*. Binghamton, NY: 2005, Haworth.

De FEYTER, K. *et al.*, ed. *Out of the Ashes. Reparation for Victims of Gross and Systematic Violations*. Antwerpen-Oxford: 2005, Intersentia.

DUSSICH, John P. J. Social Coping: A Theoretical Model for Understanding Victimization and Recovery. *Victimology. International Action and Study of Victims. Papers Given at the "Fifth International Symposium on Victimology", 1985 Zagreb, Yugoslavia, vol. I Theoretical Issues (General Part) and Documents* lanean, Zvonimir Paul Separović-ek argitaratua. Zagreb: Zagrebeko Unibertsitatea, 1988.

ECHEBURÚA, Enrique. *Superar el trauma. El tratamiento de las víctimas de sucesos violentos*. Madril: 2004a, Pirámide.

ECHEBURÚA, Enrique. Cada persona es distinta, *El País*, 2004b, martxoak 24, 34. or.

ECHEBURÚA, Enrique. Cuando las víctimas dejan de serlo. Biktimologiako Elkarte Espainiarraren II. Biltzarrean. Conocer, reconocer y reparar a las víctimas, Donostia-San Sebastián, 2007ko ekainak 25, 26 eta 27. Laburpenen liburua. Donostia.

ELORZA, Antonio, koord. *La historia de ETA*. *2. ed.* Madril: 2006, Temas de Hoy.

ESTATU BATUETAKO JUSTIZIA SAILA. *Manual de la OVC para ayudarlo a superar el impacto emocional de actos terroristas: una guía para curarse y recuperarse*. Washington, DC: Justizia Saila, Krimenaren Biktimentzako Bulegoa, 2001.

ETXEBERRIA, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Bilbo: Bakeaz, 2007.

ETXEBERRIA, Xabier. Educar contra la indiferencia, *El Diario Vasco*, 2008ko urtarrilaren 30ekoa, 24. or.

EUDEL. *Bakea eta elkarbizitza udalen ekintzetan*. EUDEL, 2007.

FATTAH, Ezzat A. *Understanding Criminal Victimization*. Ontario: 1991, Scarborough.

FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE, Carlos; eta JIMÉNEZ GARCÍA, Francisco. *Terrorismo y derechos humanos: una aproximación desde el Derecho Internacional*. Madril: 2005, Dykinson.

FERNÁNDEZ MORENO, Sergio A.; PÉREZ GARCÍA, Rafael; eta JIMÉNEZ SEGURA, Jesús, koord. *Terrorismo, comunicación y sus aspectos criminológicos*. Valentzia: 1998, CSV

FORGES, Jean François. *Educar contra Auschwitz*. Bartzelona: 2007, Anthropos.

FRAIJÓ, Manuel; BENJAMIN, Walter. Las reflexiones de una víctima de la violencia. *Pensando en la violencia* lanean. *W. Benjamin, H. Arendt, R. Girard eta P.*

*Ricoeur*-en lanetik, J. A. Binaburok eta X. Etxeberriak argitaratua. Bilbo: Bakeaz, 1994.

FUNES, María José. *La salida del silencio. Movilizaciones por la paz*. Madril: 1998, Akal/Foca.

GARCÍA FERNANDO, Manuel. Triangulación. *Diccionario de Sociología* lanean, S. Ginerrek, E. Lamo de Espinosak eta C. Torresek argitaratutakoa. Madril: 1998, Alianza.

GAVRIELIDES, Theo. *Restorative Justice Theory and Practice: Addressing the Discrepancy*. Helsinki: European Institute for Crime Prevention and Control, 2007.

HAINBAT EGILE. *Clave. Diccionario de uso del español actual*. Madril: 1996, SM.

HAINBAT EGILE. *Víctimas del terrorismo y violencia terrorista. I Jornadas sobre Víctimas del Terrorismo y Violencia Terrorista*. Donostia: COVITE, 2000.

HAINBAT EGILE. *Terrorismoaren Biktimei buruzko Nazioarteko III. Biltzarra, Valentzian egina 2006ko otsailaren 3an eta 4an*. Madril: San Pablo-CEU Unibertsitate Fundazioa, 2006.

HAINBAT EGILE. *Las víctimas del terrorismo en el discurso político*. 2007, Dilex.

HERNÁNDEZ NIETO, Macario. ETA y el nacionalismo vasco en la Transición. Análisis del tratamiento periodístico de la organización ETA en un periódico nacionalista vasco: Deia, *Historia Contemporánea* 17: 2005, 345.-371. or.

HERRERA MORENO, Myriam. *La hora de la víctima. Compendio de Victimología*. Madril: 1996, EDERSA.

HERRERA MORENO, Myriam. Victimación. Aspectos generales. *Manual de Victimología* lanean, E. Bacak, E. Echeburúak eta J. M. Tamaritek koordinatutako lana. Valentzia: 2006, Tirant lo Blanch.

HOFFMAN, Bruce. *Inside Terrorism*. Londres: 1998, Victor Gollancz.

HOFFMAN, Bruce; eta KASUPSKI, Anna-Britt. *The Victims of Terrorism: An Assessment of Their Influence and Growing Role in Policy*. Santa Monica, CA: RAND Center for Terrorism Risk Management Policy, 2007.

IRÍBAR, Ana. Un camino de humana libertad, *El Diario Vasco*, 2007ko urriaren 5ekoa, 28. or.

JAIME-JIMÉNEZ, Óscar. Legislación antiterrorista y agencias estatales de seguridad: un análisis preliminar de la experiencia española, 1960-1966, *Revista de Derecho penal y Criminología* 6: 1996, 569.-597. or.

JÁUREGUI, Gurutz. *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, 2. ed. Madril: 1985, Siglo XXI.

JÁUREGUI, Ramón. En tu memoria, Isaías, *El Diario Vasco*, 2008ko martxoaren 8koa, 36.-37. or.

KUSHNER, Harvey W. *Encyclopedia of Terrorism*. Londres: 2003, Sage.

LÓPEZ, Isabel. El terrorismo y la crispación política afectan a la salud mental de los vascos, *El Diario Vasco*, 2001, martxoak 4, 28.-29. or.

LOZA AGUIRRE, Jesús *et al*. *El significado político de las víctimas del terrorismo: el valor del Estado de Derecho y de la ciudadanía*. Vitoria-Gasteiz: Fernando Buesa Fundazioa, 2006.

LOZA AGUIRRE, Jesús *et al*. *Luces y sombras de la disolución de ETA político-militar*. Vitoria-Gasteiz. Fernando Buesa Fundazioa, 2007.

LLERA RAMO, Francisco; eta RETORTILLO PANIAGUA, Alfredo. *Los españoles y las víctimas del terrorismo*. Madril: CIS, 2004.

LLERA RAMO, Francisco; eta RETORTILLO PANIAGUA, Alfredo, koord. *1.ª Encuesta nacional sobre percepción ciudadana sobre las víctimas del terrorismo en España*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas, 2005.

LLERA RAMO, Francisco; eta RETORTILLO PANIAGUA, Alfredo, koord. *2.ª Encuesta nacional sobre percepción ciudadana sobre las víctimas del terrorismo en España. Junio-julio 2006. Avance de resultados*. Madril: Terrorismoaren Biktimen Fundazioa eta Euskobarometroa, 2006.

McCAULEY, Clark, eta besteak. *Terrorism Research and Public Policy*. Londres: 1991, Frank Cass.

MARDONES, José M.; eta MATE, Reyes, ed. *La ética ante las víctimas*. Bartzelona: 2003, Anthropos.

MARKIEGI CANDINA, Xabier. Eusko Legebiltzarrean izandako esku-hartzea, urtarrila, 2000.

MARTÍN BERISTAIN, Carlos; eta PÁEZ ROVIDA, Darío. *Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social. Experiencias internacionales y el desafío vasco*. Madril: 2000, Fundamentos.

MARTÍNEZ FERRA, Juan José. *Pasos perdidos: víctima real del terrorismo: su vida posterior al atentado, sus secuelas, sus pesadillas, su supervivencia*. Madril: 2005, Entrelíneas.

MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos. El valor político de las víctimas. Biktimologiako Elkarte Espainiarraren II. Biltzarrean. Conocer, reconocer y reparar a las víctimas,

Donostia-San Sebastián, 2007ko ekainak 25, 26 eta 27. Laburpenen liburua. Donostia.

MATE, Reyes. ¿Pero quiénes son las víctimas? *El País,* 2001, urtarrilaren 18a, 14. or.

MATE, Reyes. Un filósofo que piensa de nuevo, *Babelia.* El País, 2006, martxoaren 25a, 4. or.

MATE, Reyes. El significado de las víctimas en nuestro tiempo. Biktimologiako Elkarte Espainiarraren II. Biltzarrean. Conocer, reconocer y reparar a las víctimas, Donostia-San Sebastián, 2007ko ekainaren 25-26-27. Laburpenen liburua. Donostia, 2007.

MEDEM, Julio. *La pelota vasca, la piel contra la piedra*. Madril: 2003, Aguilar[294].

MEDINA AMOR, José Luis. *Trastorno por estrés postraumático en víctimas del terrorismo: evaluación clínica, psicofisiológica y pericial*. Madril: 2005, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

MONTERO GÓMEZ, Andrés. El espíritu de Ermua. Una aproximación psicológica, *Ciencia Policial* uztaila-abuztua: 1998, 179.-196. or.

NOVALES, Félix. *El tazón de hierro. Memoria personal de un militante de los GRAPO*. Bartzelona: 1989, Crítica.

ORDAZ, Pablo. Diálogo entre víctimas. Hablar de la paz y de la justicia, *El País*, 2001eko martxoaren 4koa, Euskadi, 4. or.

ORDAZ, Pablo. La noche de los secuestrados, *El País Domingo*, 2007ko abenduaren 9koa, 6.-7. or.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. *Los Pagaza.* Madril: 2004, Temas de Hoy.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. La doble victimación. Loza Aguirre, Jesús *et al*.-en. 2006. *El significado político de las víctimas del terrorismo: el valor del Estado de Derecho y de la ciudadanía*. Vitoria-Gasteiz: Fernando Buesa Fundazioa.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. Cuestión de justicia. *El Diario Vasco,* 2007ko urriaren 5ekoa, 28. or.

[294] Idatzitako testua nahiago izan da pelikula-dokumentalaren aldean. Izan ere, egileak berak dioen moduan hitzaurrean eta atzeko azalean, liburuak proiektu honen “etxe handiagoaren” papera hartzen du. Modu osagarrian: *“Adierazpen ezberdinek azalpeneko 20 aldiz denbora gehiago dute hemen pantailan baino... liburuan ez zaio zinemako montajeko ‘subjektibotasunik’ eman, elkarrizketatuek modu jarraituan hitz egiten dute, testuinguruari dagokionez argitasun gehienekoa gozatuz”*.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. Esos niños, *El Diario Vasco*, 2008ko martxoaren 8koa, 37. or.

PAGOLA, Javier. Calles, plazas y parques del País Vasco llevan el nombre de militantes de ETA, *Revista Fundación Víctimas del Terrorismo* 21: 2007, 26.-28. or.

PECES-BARBA MARTÍNEZ, Gregorio. Sobre el terrorismo y sus víctimas, *El País*, 2008ko otsailaren 28koa, 37.-38. or.

PEDRAZA, A.; eta RUIZ, G. *Myriam fue uno de ellos*. Madril: 2005, Letra Clara.

PÉREZ, Kepa. *Las víctimas ante el proceso de paz. El proceso de paz en Euskadi día a día. Cronología del proceso de paz*. Bilbo: Giza Duintasunaren Defentsarako Elkartea eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, 2006.

PULGAR GUTIÉRREZ, María Belén. *Víctimas del terrorismo. 1968-2004*. Madril: 2004, Dykinson.

RAPOPORT, David C. *La moral del terrorismo*. Bartzelona: 1985, Ariel.

RECALDE, José Ramón. *Fe de vida*. Bartzelona: 2004, Tusquets.

REDONDO HERMIDA, Álvaro. La víctima del terrorismo: una reflexión jurídica, *La Ley* 6.807: 2007, 1.-6. or.

REINARES NESTARES, Fernando, eta besteak. *State and Societal Reactions to Terrorism*. Oñati: Lege-soziologiako Nazioarteko Erakundea, 1997.

REINARES NESTARES, Fernando, eta besteak. *Terrorismo y antiterrorismo*. Bartzelona: 1998, Paidós.

REINARES NESTARES, Fernando, eta besteak. *European Democracies against Terrorism*. 2000, Ashgate.

REINARES NESTARES, Fernando, eta besteak. *Patriotas de la muerte*. Madril: 2001, Taurus.

REINARES NESTARES, Fernando, eta besteak. *Terrorismo global*. Madril: 2002, Taurus.

RITCHIE, Donald A. *Doing Oral History: A Practical Guide*. Oxford University Press, 2003.

RODRÍGUEZ PUERTA, M. José. Sistemas de asistencia, protección y reparación a las víctimas. *Manual de Victimología* lanean, E. Bacak, E. Echeburúak eta J. M. Tamaritek koordinatutako lana. Valentzia: 2006, Tirant lo Blanch.

RODRÍGUEZ URIBES, José Manuel. La asistencia a las víctimas del terrorismo en España (2004-2007), *Revista Fundación Víctimas del Terrorismo* 21: 2007, 56.-57. or.

RODRÍGUEZ VILLASANTE, Tomás. Persona y sociedad, *Babelia. El País*, 1998, urriak 3, 14. or.

SÁNCHEZ, Cristina. *20 pensadoras del siglo XX*. Oviedo: 2006, Nobel.

SÁNCHEZ GONZÁLEZ, Antonio. Psicopatología en las víctimas de atentados, *Psiquiatría y humanidades* 1: 1999, 8.-11. or.

SÁNCHEZ GONZÁLEZ, Antonio. Tratamientos psiquiátricos de las víctimas del terrorismo, *Archivos de Psiquiatría* 63, 3: 2000, 297.-310. or.

SÁNCHEZ GONZÁLEZ, Antonio. La lucha de lo posible. La reparación frente al olvido. Biktimologiako Elkarte Espainiarraren II. Biltzarrean. Conocer, reconocer y reparar a las víctimas, Donostia-San Sebastián, 2007ko ekainak 25, 26 eta 27. Laburpenen liburua. Donostia, 2007.

SÁNCHEZ, Antonio; DÍAZ-CARRALERO, P.; eta MÉNDEZ, J.A. Psicoterapia breve de grupo en el tratamiento de las víctimas de atentados terroristas, *Mapfre Medicina* 13, 1: 2002, 36.-45. or.

SEPAROVIC, Zvonimir. El terrorismo internacional y sus víctimas, *Cuadernos de Criminología*, Txile 12: 2003, 85.-97. or.

SETIÉN, José María. *Un obispo vasco ante ETA*. Bartzelona: 2007, Crítica.

SILKE, Andrew, ed. *Terrorists, Victims and Society: Psychological Perspectives on Terrorism and its Consequences*. Chichester, Inglaterra eta Hoboken, NJ: 2003, Wiley.

SOYINKA, Wole. *Clima de miedo*. Bartzelona: 2007, Tusquets.

SUÁREZ GONZÁLEZ, Adolfo *et al. Terrorismo, víctimas y medios de comunicación*. Madril: 2005, Estudio Arcadia.

SUTIL, Lucía; eta LÁZARO EZQUERRA, Eduardo E. *El dolor incomprendido. El sufrimiento de las víctimas del terrorismo*. Bartzelona: 2007, Plataforma.

TAMARIT SUMALLA, Josep María (koord.). *Estudios de Victimología: Actas del I Congreso Español de Victimología, celebrado los días 21, 22 y 23 de octubre de 2004 en Lérida*. Valentzia: 2005, Tirant lo Blanch.

TAPIA GÓMEZ, Ariel Alejandro. La gobernanza de las víctimas del terrorismo. La experiencia española: ¿modelo europeo de política victimal?, *Universitas. Revista de Filosofía, Derecho y Política* 3: 2006, 131.-154. or.

TORRES FERNÁNDEZ, Pablo. 2004. *11-M, Homenaje a las víctimas: testimonios de vida*. Madril: Martínez Roca.

TRAVERSO, Enzo. *El pasado, instrucciones de uso. Historia, memoria, política*. Madril: 2007, Marcial Pons.

UNZUETA, Patxo. *El terrorismo. ETA y el problema vasco*. Bartzelona: 1997, Destino.

VILLA, Irene. *Saber que se puede: recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*. Bartzelona: 2005, Círculo de Lectores.

VILLA, Irene. *SOS Víctima del terrorismo*. Madril: 2007, Pirámide.

WALDMAN, Peter. Terrorismo: concepto, estrategia y alcance. *La Criminología aplicada II* lanean, Cristina Recheak zuzendua. Madril: BJKN, 1999.

WHITLOCK, Gillian. Review Essay: The Power of Testimony, *Law and Literature* 19, 1: 2007, 139.-152. or.

WIEVORKA, Michel. *The Making of Terrorism*. U. P. Chicago: 1993.

WILKINSON, Paul; STEWART, Alasdair M.; eta besteak. *Contemporary Research on Terrorism*. Aberdeen: 1987, Aberdeen University Press.

ZEHR, Howard. *The Little Book of Restorative Justice*. Intercourse, PA: 2002, Good Books.

ZUÑIGA RODRÍGUEZ, Laura. Sobre la resocialización de los presos terroristas, *Jueces para la Democracia* 35: 1999, 28.-30. or.

**Ikus-entzunezko materiala**[295]:

ARJONA, Pedro, zuz. *Corazones de hielo*. Jorge Martínez Revertek ekoiztua Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan arituz, 2007.

ARTETA, Iñaki, zuz. *Voces sin libertad*. Valladolid: 2004, Divisa.

ARTETA, Iñaki, zuz. *Olvidados*. Iñaki Artetak ekoiztua, 2004.

ARTETA, Iñaki, zuz. *Trece entre mil*. 2005, Leize Producciones.

ORTEGA SANTILLANA, Eterio, zuz. *Asesinato en febrero*. Elías Querejetak ekoiztua, 2001.

ORTEGA SANTILLANA, Eterio, zuz. *Perseguidos*. Elías Querejetak ekoiztua, 2004.

*Terrorismoaren biktimei omenaldia egin eta aintzatespena eskaintzeko ekitaldi instituzionala. Euskalduna Jauregia, Bilbao, 2007ko apirilaren 22a,* 2007, EiTB.

---

[295] Ikusi aurreko oharra, *La pelota vasca* filmari buruzkoa.

# VII. ERANSKINAK

## 1. BIKTIMAZIO TERRORISTA ZEHARKAKO ITURRIEN BITARTEZ AZTERTZEKO GIDA[296]

**I. LEHEN MAILAKO BIKTIMAZIO ESPERIENTZIA**
**II. BIGARREN MAILAKO ETA HIRUGARREN MAILAKO BIKTIMAZIOA**
**III. ERRESILIENTZIA ELEMENTUAK**
**IV. BIKTIMAZIOA PREBENITZEKO ETA TXIKITZEKO GOMENDIOAK**
**V. OHARRAK ETA AIPAMENAK**

### I. LEHEN MAILAKO BIKTIMAZIO ESPERIENTZIA

- GENEROA:
- ADINA:
- EGOERA ZIBILA ETA SEME-ALABAK:
- LANBIDEA:
- BIKTIMAZIOAREN UNEKO BIZITOKIA ETA EGUNGOA:
- ZUZENEKO/ZEHARKAKO BIKTIMA:
- BIKTIMAZIOAREN DATA ETA TOKIA:
- BIKTIMAZIO ANITZA:
- BIKTIMAZIOAREN DESKRIBAPENA:
- DENBORAN ETA EREMU EZBERDINETAN IZANDAKO ERAGINEN DESKRIBAPENA (EREMU PERTSONALA, FAMILIA, LANA...):

### II. BIGARREN MAILAKO ETA HIRUGARREN MAILAKO BIKTIMAZIOA

- HURRENGO ERAKUNDEEN ALDETIK ESKURATUTAKO ZERBITZUEN ETA TRATUAREN BALORAZIOA:
  - TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ESTATUKO BULEGOA
  - EUSKO JAURLARITZAKO TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA
  - POLIZIA KIDEGO EZBERDINAK:
  - SEGURTASUN PRIBATUKO ZERBITZUAK:
  - FISKALAK ETA EPAILEAK:
  - OSASUN ZERBITZUAK:
  - GIZARTE ZERBITZUAK:

---

[296] Biktimen pribatutasunaren babesari dagokionez, azterlan honen diseinu metodologikoan ere ikusi Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak delituen biktimei laguntzeari buruz egindako Gomendioaren (2006) 2.1 eta 10.8 paragrafoak.

- BIKTIMAZIOA PREBENITZEKO ARAUDIAREN ETA ERAKUNDEEN JARDUEREN BALORAZIOA:
  - ESTATUKO ARAUDIA ETA ARAUDI AUTONOMIKOA (IDATZITA ETA APLIKATUKO DENA):
  - EUSKO JAURLARITZAKO GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA:
  - EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA:
  - ALDUNDIAK ETA UDALAK:

- GIZARTE ERANTZUNAREN BALORAZIOA:
  - GIZARTEA OROKORREAN:
  - BIKTIMAREN UDALERRIKO BIZTANLERIA:
  - AUZOKOAK, EZAGUNAK ETA LANKIDEAK:

- HEDABIDEEN GAINEKO BALORAZIOA, TERRORISMOARI EMANIKO TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ:

- HORRELAKORIK DAGOEN KASUAN, ELKARTEEK, SINDIKATUEK ETA ALDERDIEK EMANDAKO LAGUNTZAREN BALORAZIOA:

- EPAILEEK ETA GIZARTEAK ERASOTZAILEARI EMANDAKO ERANTZUNAREN BALORAZIOA:

## III. ERRESILIENTZIA ELEMENTUAK

- DENBORAREN JOAN-ETORRIA
- EAETIK KANPO BIZITZEA
- ERASOTZAILEAREN/TERRORISTAREN PROZESAMENDUA
- BIKTIMAREN IZAERA EDO IZATEKO MODUA
- BIKTIMAREN PRESTAKUNTZA
- BIKTIMAREN MAILA SOZIOEKONOMIKOA
- BIKOTEKIDEAREN, FAMILIAREN ETA HURBILEKOEN BABESA
- BIKTIMAREN LANEKO INGURUNEA
- BIKTIMAREN KONPROMISO POLITIKOA
- BIKTIMEN ELKARTE BATEKO KIDE IZATEA
- BESTE BIKTIMEKIKO KONPROMISOA EDO BESTE BIKTIMA BATZUK LAGUNTZEA
- BESTE BIKTIMA BATZUEN LAGUNTZA JASOTZEA
- EZTABAIDA POLITIKO-SOZIALEAN PARTE HARTZEA
- GIZARTE BABESA
- BABES POLITIKOA
- ERAKUNDEEN JARDUERAK BIKTIMEN SEGURTASUNA, LEHENGORATZE EKONOMIKOA, LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA ABAR BERMATZEKO
- BESTE BATZUK (ZEHAZTU)

## IV. BIKTIMAZIOA PREBENITZEKO ETA TXIKITZEKO GOMENDIOAK

## V. OHARRAK ETA AIPAMENAK

# 2. BIKTIMAZIO ETA DESBIKTIMAZIO PROZESUETAN ADITU DIREN PROFESIONALENTZAKO GALDERA-SORTAREN GIDA

## AURKEZPENA

## I. Elkarrizketaren datuak

*Elkarrizketatzailea:
*Egin zen data eta tokia (salbuespen modura telefonoz):
*Iraupena:

## II. Elkarrizketatutako pertsonaren datuak

*Lantokia:
*Lanbidea:

## III. Elkarrizketaren edukia

### A. Ibilbide profesionala eta ezagutza eremua

1. Nola hasi zen terrorismoaren biktimekiko zure interes profesionala?
2. Pertsonalki, laguntza psikologikoa edo bestelakoren bat emanez, lagundu al duzu terrorismoaren biktimaren bat edo mehatxu edota hertsapen terroristen biktima izandakoren bat?
3. Zure diziplinan gai honen gaineko interesa badagoela uste al duzu nazioartean, estatu mailan eta maila autonomikoan?
4. Gure ingurunean behar besteko informazio alderatua dugula uste al duzu, alor horretan biktimei buruzko politikak diseinatzeko?
5. Nola bultza daitezke alor horretako azterlanak/ikerketak zure ustez? Uste al duzu erakunde publikoek horiek bultzatzeko interesa dutela?

### B. Biktimen gaineko inpaktuari buruzko azterlanak eta zenbatespenak

1. Biktimazio terroristaren eraginen buruzko azterlanen batean parte hartu al duzu edo parte hartzen duzu? Zeintzuk dira ondorio orokorrak?
2. Nola baloratzen duzu bigarren mailako biktimazioaren eragina EAEko terrorismoaren kasuan? Biktimak babestu eta haiei laguntza ematen dien estatu mailako eta maila autonomikoko legediaren eta erakunde ezberdinen aldetik (polizia kidego ezberdinak, fiskalak, epaileak, Herrizaingo Saila, Biktimen Zuzendaritza, Giza Eskubideen Zuzendaritza, eta abar) jasotako tratuaren artean zartadurak daudela uste al duzu?

3. Gure herrialdean traumak jasaten dituzten terrorismoaren biktimen portzentajearen zenbatespena eskaintzea ahalbidetzen duen azterlanik ba al dago?
4. Traumak gainditzen dituen biktima kopuruaren zenbatespena eta gainditzeko behar den batez besteko denbora eskaintzeko azterlanik ba al dago?
5. Terrorismoak denboran aurrera egitearen eragina, hau da, urte askoan zehar biktimazioa jarraikakoa izatearen eragina zein dela uste duzu? Zeintzuk dira belaunaldien arteko eraginak?
6. Mehatxatutako pertsonei edo jazarpenaren biktima direnei dagokienez, egoerarekin eta "bidegabekeria", "tristezia", "askatasuna falta izateagatiko estresa", "bakardadea" edo "barne erbesteratzea" (adibidez norberaren hiriaren gaineko pertzepzioan aldaketak igartzea) bezalako sentimenduekin aurrerantz egiteko egokia al litzateke laguntza psikologikoa jasotzea?
7. Mehatxatutako pertsona askok nolabaiteko haserrea agertzen dute bizkartzainekiko harreman pertsonalean; beharrezkoa al litzateke bizkartzainak gizarte gaitasunen alorrean prestatzeari arreta ematea eta komunikazio joria bermatzea, enpresek eta babes zerbitzuaren koordinatzaileek arazoak suma ditzaten?
8. Nola baloratzen duzu terrorismoak gizartearengan orokorrean duen inpaktu psikologikoa? Biktima batzuk "lozorroa" eta "moraltasun eskasa" kritikatzen dute, beste toki batera begiratzeagatik...

## C. Biktimazioa gainditzearen edo erresilientziaren *mikro, meso* eta *makro* aldagaien balorazioa

1. Nola uste duzu zuk laguntzen dutela hurrengo elementuek biktimazioa gainditzen?
   – denboraren joan-etorria
   – EAEtik kanpo bizitzea
   – erasotzailearen/terroristaren prozesamendua
   – erasotzailea/terrorista aldentzea
   – erasotzailearen eta biktimaren arteko balizko lehengoratze topaketa
   – biktimaren izaera edo izateko modua
   – biktimaren prestakuntza
   – biktimaren maila sozioekonomikoa
   – bikotekidearen, familiaren eta hurbilekoen babesa
   – biktimaren laneko ingurunea
   – biktimaren konpromiso politikoa
   – biktimen elkarte bateko kide izatea
   – beste biktimekiko konpromisoa edo beste biktima batzuk laguntzea
   – beste biktima batzuen laguntza jasotzea
   – eztabaida politiko-sozialean parte hartzea
   – gizarte babesa
   – babes politikoa
   – erakundeen jarduerak biktimen segurtasuna, lehengoratze ekonomikoa, laguntza psikologikoa eta abar bermatzeko.
   – beste batzuk (zehaztu)

2. Biktimazioan alderdi positiboak topa al daitezke? Adibidez, gizakiak bere burua gainditzeko duen izpiritua, solidaritatea, giza eskubideen babesean beldurraren aurrean atzerantz ez egiteko gizarte kontzientziazioa, eta abar ospatzea.

**Gai honi buruz galdetu ez dugun zerbait erantsi nahi duzu?**

**ESKERRAK**

**GALDETU beste aditu batzuen izen-abizenak eta harremanetarako helbideak**

**OHARRAK ELKARRIZKETAREN GARAPENAREN INGURUAN**

## 3. TERRORISMOAREN BIKTIMENTZAKO ETXEZ ETXEKO ARRETA PROGRAMAKO GIZARTE LANGILEARENTZAKO GALDERA-SORTA (HERRITARREN ARRETARAKO ETA TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO BULEGOA, BARNE MINISTERIOA), DESBIKTIMAZIO PROZESUETAKO ESKU-HARTZE MOTEI ETA BALANTZEARI BURUZ

– Egin zen tokia eta data:
– Elkarrizketatuaren izena:

**AURKEZPENA**

**EDUKIA**

1. Zein urtetan hasi zen Etxez Etxeko Arreta Programa Zuzendariordetza Nagusiaren sorrerarekin bat eginez? Noiz hasi zinen zu lanean?
2. Zein da Programaren balantzea helburuei eta denboran egokitzeari dagokienez?
3. Zenbat pertsonak egiten du lan Programan? Programaren garapenerako baliabide eta prestakuntza gehiago beharko al lirateke? Adibidez, egunero biktimazioko oso esperientzia gogorrak atenditu beharraren gogortasuna ikusita, gizarte langileek eurek babesik ba al dute?
4. Foiletoaren arabera, Programaren helburuetako bat biktimak eta haien beharrak benetan ezagutzea da, egun eskaera berriak ba al daude?
5. Biktimek espresuki eskatuta jarduten al duzue beti? Nola ezagutzen dute biktimek Programa? Elkarteen bitartez edo beste bide batzuk erabilita –elkarte bateko kide ez badira, batez ere laurogeita hamarreko hamarkada baino lehenagoko biktimak–?
6. Programak biktimei eskainitako laguntzaren batez besteko epea zenbat denboran zenbatesten duzu? Hilabete batzuk, urtebete, bi urte…?

7. Programan lehentasuna duten taldeei dagokienez, esan al diezagukezu zeintzuk diren haren behar zehatzenak?
- baliaezintasun edo ezintasun iraunkor maila altua duten pertsonak
- hildakoen senideak
- laurogeita hamarreko hamarkada baino lehenagoko biktimak lehentasunezko taldetzat har al daitezke, behar bereziak dituztela kontuan izanda?
- beste talde batzuk

8. Zer da biktimekin lan egitearen alderdirik gogorrena? Eta positiboena?
9. EAEn biktimak bisitatzen al dira? EAEko biktimen eremuan berariazko beharrak edo arazoak sumatzen al dira?
10. ETAn mehatxatutako pertsonaren bat lagundu al duzu inoiz? Adibidez, 2007an Leioako Unibertsitateko ikasle bati egindako erasoa.
11. Beste erakunde publiko (poliziari, justizia administrazioari, Gizarte Segurantzari, osasunari, lanari, hezkuntzari, etxebizitzari, eta abarri buruzko gaietan) eta pribatu (elkargoak, aseguruak...) batzuekiko lankidetza nola baloratzen duzu?
12. Zer nolako lankidetza dago Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin? Nola baloratzen duzu lankidetza hori?
13. Zergatik daude laguntzarik behar ez duten edota beste batzuk baino lehen osatzen diren biktimak? Nola uste duzu zuk laguntzen dutela hurrengo elementuek biktimazioa gainditzen?
    - denboraren joan-etorria
    - EAEtik kanpo bizitzea
    - terroristaren prozesamendua
    - terrorista aldentzea
    - erasotzailearen eta biktimaren arteko balizko lehengoratze topaketa
    - biktimaren izaera edo izateko modua
    - biktimaren prestakuntza
    - biktimaren maila sozioekonomikoa
    - bikotekidearen, familiaren eta hurbilekoen babesa
    - biktimaren laneko ingurunea
    - biktimaren konpromiso politikoa
    - biktimen elkarte bateko kide izatea
    - beste biktimekiko konpromisoa edo beste biktima batzuk laguntzea
    - beste biktima batzuen laguntza jasotzea
    - eztabaida politiko-sozialean parte hartzea
    - gizarte babesa
    - babes politikoa
    - erlijio erakundeen babesa
    - erakundeen jarduerak biktimen lehengoratze ekonomikoa, osasun laguntza, laguntza psikologikoa eta abar bermatzeko
    - beste batzuk (zehaztu)

**Zure lanari buruz galdetu ez dugun zerbait erantsi nahi duzu?**

**ESKERRAK**

**OHARRAK ELKARRIZKETAREN GARAPENAREN INGURUAN**

# 4. ELKARTEEN ORDEZKARIENTZAKO GALDERA-SORTA, TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIAREN BIKTIMEN EGOERARI BURUZ

## AURKEZPENA

Ararteko erakundeak EAEn terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arretari buruz egindako ezohiko txostenaren barruan, Eusko Legebiltzarrean 2008an aurkezteko, xehetasun gehiagoko azterlana egiten gabiltza “jazarpen indarkeria” deiturikoaren biktimen gainean, hau da, jazarpen, mehatxu edota hertsapen terroristen biktima direnen gainean.

Zeharkako iturriak aztertuko dira, eta mehatxaturiko pertsonekin elkarrizketa kopuru mugatua gauzatuko da. Aitzitik, elkarteen ordezkari direnen iritzia ere eskuratu nahi dugu, helarazi genien galdera-sortaren bitartez. Elkarrizketaturikoen anonimotasuna errespetatu egingo da, azterlan honen baitan eskuratutako edukien konfidentzialtasuna bezalaxe, azken helburua biktimazioa txikitzea ahalbidetuko duten hobekuntzak lortzea delako.

Edozein zalantza argitzeko jar zaitezte harremanetan Ararteko Erakundearekin. Erakundeak zuen laguntza eskertzen dizue bihotzez.

## GALDERA-SORTAREN DATUAK

- Elkartearen izena:
- Galdera-sorta egin zen data eta tokia:

## I. JAZARPEN BIKTIMAZIOAREN BALORAZIOA, TERMINOLOGIA, AZTERKETA ETA ERAGINA

1. EAEn dagoen mehatxatu kopuruaren batez besteko zenbatespena eman zenezakete?

| |
|---|
| |

2. Zer iruditzen zaizue “jazarpen indarkeria” terminoa erabiltzea jarduera terroristei edo antzeko ekintzei uztartutako jazarpenari, mehatxuei edota hertsapenei buruz hitz egiteko?

| |
|---|
| |

3. Horren inguruko azterlanik egin al duzue? Erantzuna baiezkoa bada, adieraz iezaguzue erreferentzia osoa, mesedez.

| |
|---|
| |

4. Zein uste duzue dela mehatxaturiko pertsonek jasandako biktimazioaren eragin orokorra jardun profesionala garatzerakoan?

## II. ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN ERANTZUNEN GAINEKO BALORAZIOA

1. Zeintzuk diren jazarpen indarkeriaren biktima diren pertsonek planteatzen dituzten eskaera ohikoenak terrorismoaren biktima izango liratekeen horiek planteaturikoen aldean?

   – Estatu mailako eta maila autonomikoko araudiari dagokionez (egon daitezkeen gabeziak, hutsuneak, konplexutasuna…).

   – Polizia kidego ezberdinen aldetik jasotako zerbitzu eta tratuari dagokionez, horrelakorik izan bada (salaketak izapidetzeko, segurtasun zerbitzuak emateko, informazioa eskuratzeko…).

   – Segurtasun pribatuko agenteen aldetik jasotako zerbitzuari eta tratuari dagokionez, horrelakorik egon bada.

   – Fiskalen eta epaileen aldetik jasotako tratuari dagokionez, horrelakorik egon bada.

   – Gizarte zerbitzuen edota osasun zerbitzuen aldetik jasotako zerbitzuari eta tratuari dagokionez, horrelakorik egon bada.

2. Hurrengo erakundeek terrorismoaren biktimen eta mehatxaturikoen egoera hobetzeko eta jazarpen indarkeria prebenitzeko garatu duten jardun orokorraren alderdi positiboena eta negatiboena zeintzuk diren adieraz zeniezaguke?

   – Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila

      *positiboena:

*negatiboena:

– Eusko Jaurlaritzako Biktimen Zuzendaritza

*positiboena:

*negatiboena:

– Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza

*positiboena:

*negatiboena:

– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, hezkuntzaren bitartez bideratu beharreko prebentzio lanetan

*positiboena:

*negatiboena:

– Aldundiak eta udalak

*positiboena:

*negatiboena:

3. Zuen ustez, gizartea jabetzen al da Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona askok bizi duen jazarpenaz? Biktimekiko babes jarrera duela uste al duzue?

4. Egokitzat jotzen al duzue gai honi hedabideek emandako tratamendua?

## III. ELKARTEAK JAZARPENAREN BIKTIMEI EMANDAKO ZERBITZUAK

1. Zer nolako zerbitzuak ematen dizkie zure elkarteak jazarpen biktimei? Adibidez, babesa salaketetan eta kasuak epaitegietan jarraitzerakoan, laguntza pertsonala eta psikologikoa, gizarte kontzientziazioko kanpainak, eztabaida publikoetan parte hartzea, eta abar.

2. Zeintzuk dira zerbitzu horiek ematerakoan igartzen diren oztopo nagusiak?

3. Nazioarte mailan lanik egiten al duzue, adibidez beste herrialde batzuetako taldeekin ekintza bateratuak bideratuta? Nola baloratzen duzue EAEn mehatxaturikoekiko eta, orokorrean, terrorismoaren biktimekiko nazioarteko solidaritatea?

## IV. ERASOTZAILEARI EMANIKO ERANTZUNA

1. Terroristei ematen zaizkien zigor eta gizarte erantzunak egokiak iruditzen al zaizkizue? Bestelako erantzunak proposatuko al zenituzkete?

2. Etorkizunean eta egindakoa onartzeari eta damu izateari buruzko gutxieneko betekizunak beteta, eta zigorgabetasuna ekarri gabe, uste al duzu komenigarria litzatekeela biktimei erasotzaileekin topatzeko aukera eskaintzea egindako kaltea adierazteko eta gaizkileek lehengoratzeko konpromisoa hartzeko?

## V. BIKTIMAZIOA GAINDITZEKO ELEMENTUAK

**Mesedez, atal honetan erantzunak jazarpen indarkeriaren biktimei nahiz orokorrean terrorismoaren biktima direnei buruzkoak izatea nahi genuke.**

1. Zer uste duzue dela biktimei egoera hobeki eramaten laguntzen diena? Garrantzia txikiagoaren edo handiagoaren arabera, jarri 0tik 3ra bitarteko izartxo (*) kopurua hurrengo elementuen ondoan:

   – denboraren joan-etorria____
   – EAEtik kanpo bizitzea____
   – erasotzailearen/terroristaren prozesamendua___
   – izaera, izateko modua edo biktimaren oreka emozionala___

– biktimaren prestakuntza___
– biktimaren maila sozioekonomikoa___
– bikotekidearen, familiaren eta hurbilekoen babesa___
– biktimaren laneko ingurunea___
– biktimaren konpromiso politikoa___
– biktimen elkarte bateko kide izatea___
– beste biktimekiko konpromisoa edo beste biktima batzuk laguntzea___
– beste biktima batzuen laguntza jasotzea___
– eztabaida politiko-sozialean parte hartzea___
– -gizarte babesa___
– babes politikoa___
– erakundeen jarduerak biktimen segurtasuna, lehengoratze ekonomikoa, laguntza psikologikoa eta abar bermatzeko___
– beste batzuk (zehaztu)

2. Zure taldeko zein biktima portzentaje, gutxi gorabehera, zenbatesten duzu osatu dela edo traumarik gabeko bizitza daramala (horrek ez du esan nahi bere biktimazioa ahaztu duenik)?

3. Erakunde ezberdinek beste ezer egin al dezakete terrorismoaren biktima eta jazarpen terroristaren biktima diren pertsonei laguntzeko?

**Beste ezer erantsi nahi al duzu?**

**ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ ESKAINITAKO LAGUNTZAGATIK**

## 5. GALDERA-SORTA EUSKO JAURLARITZAKO TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZAKO LANGILEENTZAT, DESBIKTIMAZIO PROZESUETAKO ESKU-HARTZE MOTARI ETA BALANTZEARI BURUZ

– Egin zen tokia eta data:
– Elkarrizketatuaren izena:

## AURKEZPENA

## EDUKIA

1. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza 2002 urtean sortu zen. Noiz hasi ziren zu bertan lanean?

2. Web orrialdean adierazten denaren arabera, zuzendaritzaren helburua honakoa da: “terrorismoaren gaitzak bere edozein agerpidetan jotako pertsonekiko Administrazioaren hurbiltasuna adierazi gura du. Ildo horretatik, ukiturikoekiko zuzeneko kontaktua areagotuko du”. Tratu pertsonalizatu hori nola erakusten da? Bisiten bitartez, deien bitartez…? Zuzendaritzaren ekimenez ala biktimek eskatuta egiten da?

3. Zein da Zuzendaritzaren lanaren balantzea berariazko helburuak betetzeari eta euskal errealitatea eta biktimen beharrak aldatu izanari egokitzeari buruzko balantzea?
   Zehazki, web orrialdean Zuzendaritza aurkezteko irakur daitezkeen helburuen artean, posible al litzateke hurrengoak nola betetzen ari diren argitzeko adibide zehatzak jartzea?:
   – Irailaren 24ko 214/2002 Dekretuko laguntzen kudeaketa.
   – Biktimek horrenbeste urtean bizi izandako abandonu eta babesgabetasun egoera arintzea.
   – Gizartearen parte-hartzea bultzatzea biktimak errekonozitzeari eta memoriari dagokionez.
   – Terrorismoko kasu guztiak judizialki argitzen direla bultzatzea, zigorra jasotzeko eta kaltea lehengoratzeko.
   – Terroristek eragindako kaltea onartzen dela aldarrikatzea (damu izatea), etorkizuneko adiskidetzearen berme modura.
   – Mehatxatuekiko solidaritatea bultzatzea eta laguntzak zehaztea.

4. Zuzendaritza sortu zenetik eskaera berriak al daude?

5. Zenbat pertsonak egiten du lan Zuzendaritzan? Baliabide gehiago izatea nahiko zenuke? Zein neurritan dago mugatuta zure lana?

6. Zuzendaritzak biktimei eskainitako laguntzaren batez besteko epea zenbat denboran zenbatesten duzu? Hilabete batzuk, urtebete, bi urte…?

7. Berariazko beharrak dituzten taldeei dagokienez, esku-hartzearen lehentasunak zeintzuk diren esan zeniezaguke?
   – baliaezintasun edo ezintasun iraunkor maila altua duten pertsonak
   – hildakoen senideak
   – laurogeita hamarreko hamarkada baino lehenagoko biktimak
   – zaurituak
   – mehatxaturikoak

8. Zer da biktimekin lan egitearen alderdirik gogorrena? Eta positiboena?

9. Beste erakunde publiko (poliziari, justizia administrazioari, Gizarte Segurantzari, osasunari, lanari, hezkuntzari, etxebizitzari, eta abarri buruzko gaietan) eta pribatu (elkargoak, aseguruak, bizkartzainak…) batzuekiko lankidetza nola baloratzen duzu?

10. Tratu pertsonalizatuari dagokionez, nola baloratzen duzu Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimentzako Etxez Etxeko Arreta Programak egindako lana? Programa horrekiko zure lankidetza zein da? Eusko Jaurlaritzak antzeko programa bat sortu beharko lukeela uste al duzu?

11. Zergatik daude laguntzarik behar ez duten edota beste batzuk baino lehen osatzen diren biktimak? Nola uste duzu zuk laguntzen dutela hurrengo elementuek biktimazioa gainditzen?
    – denboraren joan-etorria
    – EAEtik kanpo bizitzea
    – terroristaren prozesamendua
    – terroristaren aldentzea
    – erasotzailearen eta biktimaren arteko balizko lehengoratze topaketa
    – biktimaren izaera edo izateko modua
    – biktimaren prestakuntza
    – biktimaren maila sozioekonomikoa
    – bikotekidearen, familiaren eta hurbilekoen babesa
    – biktimaren laneko ingurunea
    – biktimaren konpromiso politikoa
    – biktimen elkarte bateko kide izatea
    – beste biktimekiko konpromisoa edo beste biktima batzuk laguntzea
    – beste biktima batzuen laguntza jasotzea
    – eztabaida politiko-sozialean parte hartzea
    – gizarte babesa
    – babes politikoa
    – erlijio erakundeen babesa
    – erakundeen jarduerak biktimen lehengoratze ekonomikoa, osasun laguntza, laguntza psikologikoa eta abar bermatzeko
    – beste batzuk (zehaztu)

**Zure lanari buruz galdetu ez dugun zerbait erantsi nahi duzu?**

**ESKERRAK**

**OHARRAK ELKARRIZKETAREN GARAPENAREN INGURUAN**

# IX. ATALA

## MEHATXU EDOTA HERTSAPEN TERRORISTEN BIKTIMAK EUSKADIN: BIKTIMAZIO ESPERIENTZIAK ETA ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN ERANTZUNAREN GAINEKO BALORAZIOA

*"Harrizkoak, garrasi egiten ez dutenak.*
*Harrizkoak, barre egiten ez dutenak.*
*Harrizkoak, abesten ez dutenak.*

*Ni ez naiz inoiz harrizkoa izango.*
*Garrasi egingo dut behar denean.*
*Barre egingo dut behar denean.*
*Kantatu egingo dut behar denean".*

Rafael Alberti, *56. abestia*

# I. SARRERA

## 1. Helburuak

Terrorismoari buruzko ikerketan interes biktimologikokoak diren gaien artean, Terrorismoa eta Indarkeria Politikoa Aztertzeko Zentroak, 1994an St. Andrews (Eskozia) Unibertsitatean kokaturikoak, zera adierazten du: *"heriotzaren mehatxu terroristaren eragina aldez aurretik biktima direnen bizitzetan"*[1]. Aldez aurretiko, aurreikusitako edo etorkizuneko biktimazio terroristak kalte larriak eragiten ditu bere horretan hura jasaten duten pertsonengan, haien familiengan eta, orokorrean, gizartearengan. Bereizketarik gabeko biktimetatik kanpo[2], ETAk eraildako edo zauritutako pertsona gehienak mehatxatutako taldeetako kide ziren aurretik. EAEn, biktimazio hori azterketa paradoxikoa da Kriminologian, erasoari beldurra izatea objektiboa baita. Pertsona guztien segurtasun eza benetakoa da, norberaren bizipen subjektiboen kaltetan izan gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat talderen aldez aurretiko ezohiko biktimazio egoera bizi dugu, eta horrek orokorrean gizakiaren ezaugarrien berri ematen digu.

Kapitulu honetan batera zein bestera erabiliko ditugu hurrengo esapideak: *jazarpen indarkeria, eta mehatxu eta hertsapen terroristak*. Indarkeria terroristari jazarpen-indarkeria deitu ahal zaio, hiltzeko mehatxua eta kolektibo batzuetako kideen mugimendu-askatasuna mugatzea dakartzalako berekin, alderdi politiko jakin batekoak edo kidego

1 Ikusi bederatzigarren puntua: http://www.st-andrews.ac.uk/academic/intrel/research/cstpv/research/desiderata.php. Kriminologian aldez aurretiko biktimazioari buruz hitz egiten da ere, "kriminaltasunaren atariko eremu" modura.

2 ETAk "kontakatilu" edo narkotrafikantetzat jotako pertsonak bezala.

profesional batzuetakoak izateagatik soilik. Orain aipatzen ditugun biktima guztiak, ETAren mehatxuaren biktimak dira, gaur egun Euskadin diharduen erakunde terrorista bakarra delako. Horrenbestez, kapitulu honetan zehar behin eta berriro jazarpen, edo mehatxu eta hertsapen terroristak aipatzen direnean, ETAren terrorismoaz ari gara, nahiz eta ez den espresuki esaten.

Oso dokumentu arautzaile eta analitiko gutxi dago fenomeno horri aipamen egiten dionik. 2002ko maiatzaren 3an, EUDELek "Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa" onartu zuen. Bestalde, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak terrorismoaren biktimen egoeraren eta beharren azterketari buruz 2005eko otsailean egindako irizpenean, hainbat proposamen bildu zen Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekaineko ez legezko proposamenaren inguruan. Bertan, mehatxurako kartelak eta pintaketak kentzea eta unibertsitatean mehatxaturiko langileei babesa ematea zeuden, joan egin behar izan zuten pertsonak itzultzearekin batera. 2003ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak Eskubideak eta Askatasunak Defendatzeko eta Jazarpen Indarkeriaren Aurkako Plana landu zuen.

Gizarte erakundeen aldetik, aipatzekoa da Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Elkarriren manifestu bateratua jazarpen indarkeriari buruz, 2004ko ekainekoa. Bertan, azpimarratu zen biktimazioak kaltetu egiten dituela bai mehatxaturikoak eta haien familiak, eta baita gizarte pluralean bizikidetza demokratikoaren oinarri direnak ere. Balmasedako 2007ko adierazpenean, hain zuzen ere terrorismoaren biktimak duindu eta haien eskubideei buruzkoan, eskatu zen jazarpen eta mehatxuen xede ziren pertsonak terrorismoaren biktimen kontzeptuaren barruan sartzea, arrazoi hori dela eta Euskal Autonomia Erkidegotik joan egin behar izan duten pertsonak sartzearekin batera[3].

Azkenik, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legean ez da "jazarpen-indarkeria" esapidea erabiltzen. Hala eta guztiz ere, arazo horren berariazko aipamenak jasotzen dira legean. Hala, bada, zioen azalpeneko 2. paragrafoan aipatzen da ezagun dela *"erailketek, mehatxuek, bahiketek, estortsioek eta xantaiek sortutako min eta sufrimendu itzela"*. Haien memoria aipatzen da 57. paragrafoan, eta hurrengoan, biktima-izaera pertsona estortsionatu eta mehatxatuen senitarteko eta lagunengana zabaltzen dela. II. Kapituluko III. Kapituluaren barruan (Euskal Herritarren eskubideak), 9. artikuluan baieztatzen da mehatxua ezin justifikatuzkoa dela edozein egoeratan, eta botere publikoek begiratuko dutela pertsonek biolentziarik, beldurrik, zapalketarik edo larderiarik gabe bizitzeko duten eskubidea. III. Tituluko (Laguntza integraleko sistema) I. Kapituluaren barruan, 11. artikuluan xedatzen da ordaindu ahal izango direla mehatxupean edo arrisku-egoeran dauden pertsonek segurtasun-arrazoiengatik ondasunetan egin behar izan dituzten gastuak. Titulu bereko II. kapituluan (Kalte materialen prebentzioa), segurtasun-sistemen instalazioa aipatzen da *"ekintza terroristekin lotutako jazarpena,*

3 Adierazpen hori "Solidaritate berri bat eraikiz: terrorismoaren biktimen eskubideak" izeneko Lehenengo Lan Jardunaldietan onartu zen, 2007ko otsailaren 23 eta 25 artean egindakoak. Bertan, Euskadiko Terrorismoaren Biktimen ARCO taldeko, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Andaluziarreko, Terrorismoaren Biktimen Elkarte Galiziarreko, Segurtasun Indar eta Kidegoen Terrorismoaren Biktimen Elkarteko, "Voces en Silencio" Elkarteko eta Victimologia Fundazioko ordezkariak izan ziren.

*mehatxua edo hertsapena jasaten duten"* pertsonak direla eta; alderdi hori, txosten honetan lehen ere adierazi denez, arautegi baten bidez garatu beharra dago.

Kapitulu honen azken helburua prebentzioarena da. Lehen mailako biktimazioaren eraginak eta izan daitekeen bigarren mailako biktimazioarenak arintzean datza, etengabeko biktimazioa eta mehatxua betetzea saihestearekin batera. Hori dela eta, mehatxatutako talde ezberdinetako kide diren pertsonen lekukotzak eskaintzen ditugu, bizi duten bidegabeko egoera eta haien eskaerak ezagun bihur daitezen.

Ez ditugu datu kualitatiboak pilatu nahi, baizik eta mehatxaturiko pertsonei ahotsa eman eta haien egoera hobetzen lagundu. Elkarrizketen eta eztabaida taldeen emaitzak ez du behin betiko irudi egonkorra ezartzen mehatxaturiko pertsonek bizi duten egoeraren eta beharren gainean. Aitzitik, lehen zirriborro bat izango da etorkizunari begira.

Jakina da Ararteko erakundearen funtzioa herritarren eskubideak botere publikoen jardueren edo jarduera faltaren aurrean babestea dela. Euskal erakundeak mehatxaturiko taldeen erantzule dira, mehatxaturiko biktimen interes eta beharrek eratutako prebentzioari buruzko zenbait alderditan. Beste era batera esatearren, euskal erakundeek neurri bateko erantzukizun maila dute beharrezko neurriak hartzerakoan, eta horiek, kasu bakoitzean, egokiak izan behar dira mehatxaturiko eta hertsapen terroristen pean kokaturiko biktimen segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa, duintasuna, bizitza pribatua, mugimendu eta adierazpen askatasuna eta haien eskubide politikoak babesteko.

## 2. Metodologia

Nazioarteko araudi eta jarduera terroristei buruzko kapituluen ildoari eta biktimazio terroristaren aurrean erakundeek emandako erantzunari jarraiki, **Biktimologia**ren ikuspegi teorikotik egin da lan. Biktimologoek, modu enpirikoan eta diziplina artean, ezagutza fidagarriak jartzen dituzte biktimazio eta desbiktimazio prozesuen gainean. Bertan kokatuko lirateke pertsona bat biktima bihurtzeko modua, biktimazioaren lehen maila eta bigarren maila eta haren prebentzioa eremu guztietan[4].

Kopuru beltz edo ezkutuko biktimazio ugariko eremuan gaude. Datu hori abiaburua da metodologia egokia bilatzerakoan. Horrelako ikerketa bateko zorroztasuna hiru printzipiok zehazten du: objektibotasuna (subjektuak behatzeko modua aukeratzerakoan behatzaileari eragin gutxien ekarriko diona hautatzea, aukeratutako gaiaren sentsibilitatearen kaltetan izan gabe); ulergarritasuna (ikusitakoaren irudikapen edo sinplifikazio trinkoa), eta dialektika (etorkizuneko azterlanetan egiaztapenak egiteko aukera iraunkorra)[5], *"etorkizunean hausnarketarako tarteak irekitzea"* posible izan dadin (Vila-Matas 2008, 13). Banakako elkarrizketetatik eta eztabaida talde batetik etorritako ahozko lekukotzekin egin da lan, adituei egindako hainbat elkarrizketarekin batera. Ahozko material hori ez da inoiz gardena izatera iritsiko. Gainera, elkarrizketa egiten den subjektua bakar, trinko eta ezin hobeki perfilatu moduan agertzea ezinezko izateari egokitu egin behar

4 Ikusi Baca, Echeburúa eta Tamarit (2006).

5 Ikusi Wagensberg (1997, 32), metodo zientifikoaren betekizun orokorrei buruz.

zaio. Zweig aipatuz: *"Gizaki orok beste aurpegi bat agertzen du bere burua behatuta sentitzen duenean"* (Vila-Matas 2008, 13). Planteatutako galderen helburua pertsona horiek beren biktimazio zehatzaren eraginak nola bizi dituzten ezagutzea izan da, gizarte prozesu dinamiko, anitz, konplexu eta interaktibo moduan. Elkarrizketaturiko pertsonen anonimotasunak eta eskuzabaltasunak erosotasunaren eta zintzotasunaren alde egin dute erantzunak emateko garaian.

Ikerlari orori eskatutako **objektibotasuna**ri dagokionez, azterlanak distantzia hartzea eskatzen badu ere aurreiritziak eta aldez aurretiko ideiak alde batera utzita, ezin da ezkutatu bidegabeko egoera bat bizi eta, inolako interesik gabe, txosten honetarako beren bizipenak, oso gogorrak zenbaitetan, kontatzeko denbora jarri duten pertsonekiko enpatia agertu dela. Inkesta erantzun dutenei zor zaien konfidentzialtasunarekiko errespetua bezalako metodologia gaietatik haratago, alderdi etikoak planteatzen dira. Elkarrizketaturiko askoren iritzia da *"gizarteak beste toki batera begiratzen duela, erdi lo dagoela"*, eta horrek euskal gizarteko kide guztiei dei egiten digu, mehatxaturiko gure herrikideen askatasunarekin dugun konpromisoa agertzeko behar beste egin dugun gure buruari galdetzeko. Edonola ere, lana oso aberasgarria izan da gizakiak terrorismoaren aurrean duen egokitzapen positiboko, biziraupenarenerako eta norberak bere burua gainditzeko ahalmena berresteagatik, askatasuna eta bakea izateko desira sumatzeagatik eta pluraltasunaren balioa igartzeagatik.

Pertsona mehatxatuen laginak ETAren mehatxu edo hertsapen terroristak nozitzen dituen euskal gizarteko azpitalde bat barne hartzen du. Batzuk dagoeneko atentatuak nozitu dituzten eta mehatxatuta jarraitzen duten biktimak dira, behin eta berrizko biktimak. Lagina ez da adierazgarria, ez eta ausaz aukeratua ere. Ez da harremanik ezarri jazarpen-indarkeriaren biktimak diren pertsonak ordezkatzen dituzten entitate eta elkarteekin; banakako lekukotasunak lortu nahi izan ditugu, ordea. Pertsona jakin batzuei eman diegu ahotsa, era anonimo batean, askatasun osoz hitz egiten diezaguten beren eskubideen mugapen bidegabe horren aurrean izan dituzten bizipen eta esperientziez. Aukeraketa zabal eta askotarikoa lortzeko helburuarekin, "elur-bola" izeneko teknika erabili dugu: Ararteko erakundeak ezagun dituen pertsona batzuen bitartez, kolektibo mehatxatuetakoak diren pertsonenganaino heltzen saiatu gara.

Egin dugun **aukeraketa**n, irizpidetzat erabili dugu gutxienez pertsona bat egotea osorik mehatxatuta dagoen kolektibo bakoitzetik (ETAk hala adierazi duelako eta kolektibo horien aurka bereizkuntzarik gabeko krimenak egin dituelako). Kolektibo horiek dira: militarrak, guardia zibilak, polizia nazionaleko kideak, ertzainak, epaile eta magistratuak, fiskalak, espetxeetako funtzionarioak, eta PSE-PSOEko eta PPko kideak.

Egon badira beste alderdi politiko batzuetako kideak (EAJ/PNV, EA, EB-IU, Aralar, UPyD) ETAren edo hura aldezten dutenen mehatxuak, hertsapenak eta erasoak nozitu dituztenak beren osotasun fisiko eta moralaren, askatasunaren, duintasunaren edo ondasunen aurka, eta haietako batzuk eskolta eraman behar dute bizia babesteko. Edozelan ere, irizpide murrizgarria erabili dugu aukeraketa egitean, eta, kolektibo politikoei dagokienez, alderdi politiko bateko kide izateagatik soilik bizia mehatxatu dieten eta indarkeria terroristaren eskutik kide ugariren hilketa nozitu duten bi alderdietakoak diren pertsonen lekukotasuna jaso nahi izan dugu.

Egin dugun aukeraketan bizkartzain pribatu bat eta bizkartzain-lanetan aritzen den udaltzain bat gehitu ditugu, ETAk ere pertsona horiek mehatxatu dituelako eta halakoen aurkako atentatuak gertatu direlako. ETAk, gainera, Donostiako bi udaltzain eta Andoaingo beste bat hil ditu.

Era berean, garrantzitsua iruditu zaigu mehatxupeko kazetari baten eta unibertsitate-irakasle baten lekukotasunak izatea. ETAk hil ditu kazetariak eta komunikazio-enpresatako zuzendaritzetako kideak, intelektualak, artikulugileak, eta abar; hiltzeko mehatxatu ditu unibertsitateko edo Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko irakasle ugari, artistak, idazleak, eta abar, eta haietako batzuek eskolten babesa behar dute, edo Euskaditik joan behar izan dute; ETAk komunikabideen aurkako atentatuak egin ditu… Laburbilduz, ideiak sortu edo transmititzeko jarduerekin zerikusia duten pertsona asko izan dira eta badira oraindik terroristen helburu. Horrenbestez, beharrezkoa iruditu zaigu aukeratu ditugun pertsonen artean ETAk mehatxatuta dauden eta iritzi-sortzaile dei genitzakeen horien kolektibo zabalekoak diren bi pertsona gehitzea.

Enpresaburu baten lekukotasuna nahi genuen, baina ez da posible izan. ETAk enpresaburu ugari hil du (txosten hau bukatzeko unean, azken biktima Ignacio Uría enpresaburua da, hain zuzen), eta haietako asko ETAren hiltzeko mehatxua dute edo estortsioaren eta hertsapenaren biktima dira. Pertsona elkarrizketatuak aukeratzeko erabili dugun metodoaren bitartez egindako saioek ez dute emaitzarik lortu, eta sentitzen dugu. Edozelan ere, adierazita utzi nahi dugu enpresaburu askok nozitzen duten egoera izugarria, ETAren mehatxua, estortsioa eta xantaia dela kausa; egoera hori, gainera, isilpean bizi izaten dute gehienetan, salatuz gero hilko dituzten beldur direlako.

Egindako **elkarrizketak** gai zehatzean oinarritzen dira edo ikuspegi argia dute, biktimazio bizipen zehatzari arreta eman diogulako. Helburua eskuratzen zaila den informazioa lortzea izan da, horren inguruan azterlan zientifiko oso gutxi dagoelako. Arrazoi argiengatik beharrezkoa da aztertzen ari garen biktimazioa jasaten duten pertsonen aldetik neurri bateko konfiantza izatea. Ahozko grabazio soilak keinuen aberastasuna galtzen duen modu berean, paperean elkarrizketen zati batzuk islatzeak ahotsa edo tonu tristea, esperantzarik gabekoa, eszeptikoa, lotsatia, sinesgaitza, zintzoa, konpromisozkoa, zalantzazkoa, energiazkoa… galtzea ekartzen du halabeharrez. Horiek guztiak, zenbaitetan, txandakatu egiten dira elkarrizketa berdinaren barruan. Hainbat aldiz entzunez gero, ñabarduna berriak eta hausnarketa garrantzitsuak topa daitezke.

**Galdera-sorta** egituratu irekia erabili da[6], erantzunak mugatu gabe, tonalitate eta xehetasun guztiak posible izan zitezen. Galdera-sorta jarraituz, gertaera eta emozioen narrazioa saretuz joan da, haiek bizitako modu berdinean eta haien ahotsean. Halaber, iritzi eta ezagutzak biltzen dira. 1985eko Deklarazioa aplikatzeari buruzko Nazio Batuen Gidaliburua kontuan hartuta, biktimek bizitzari buruz itxaropenez pentsatzeko etorkizunerako dituzten itxaropenak aztertu nahi izan ditugu. Biktimazioa beren bizitzaren historian sartu eta hari zentzua ematea lortu duten pertsona batzuk topatu ditugu, nahiz eta: “*…gizaki batzuk beste batzuekin hain krudelak diren munduaren zentzugabekeria eta absurdua gainditu arte, nekez indarberrituko dira erabat biktimak*

[6] Ikusi eranskinean.

*biktimazioa jasan ostean"*[7]. Are zailagoa izango da xedea beste era batera pentsatzen duena garbitzea denean. Lan horretan, funtsezkoa da erakundeen eta gizartearen aldetiko solidaritatea izatea, biktimazioaren zenbait eragin belaunaldi batetik bestera igarotzea ere saihesteko.

Banakako hamasei testigantza biltzeaz gain, **eztabaida taldea** antolatu zen aldez aurretik elkarrizketaturiko eta talde oso anitzetako pertsonen arteko bederatzirekin. Metodo hori desegokia dela irudi dakiguke taldeak banakako erantzunak desitxuratzen baditu. Neurri bateko entzutea duten pertsonek parte hartzen badute batez ere, horiek agintaritzaren agente modura har daitezke, eta eginbehar anonimoagoa duten beste pertsona batzuek hitz egiteari utz diezaiokete. Azterlan honetan ez zen horrelakorik gertatu, parte hartzen zuten pertsonek agintaritza edo ordezkaritzagatik baino biktimazioan izandako esperientziagatik eta guztion intereseko gaien planteamenduan laguntzeko borondateagatik egiten zutela argitu zitzaielako[8]. Edonola ere, alderaketa eginez gero, datuak biltzeko teknika ekonomikoagoa eta aberasgarriagoa da, EAEko mehatxu eta hertsapen terroristen gaia elkarren arteko harremanen edo talde moduan planteatzeagatik, parte-hartzearen, konplexutasunaren, aniztasunaren eta dinamismoaren alderdiak oinarri hartuta.

Parte-hartzaileak, biktimazio esperientzien protagonistak, ez dira inolaz ere azterketaren "xede" edo "lagin". Aldiz, euskal errealitatean izandako gizarte ibilbidearen, harremanen kokapenaren eta banakako ikuspegien bitartez, beren erantzunekin elkarrizketatzaileari galderak berriro planteatzen lagundu diote. Funtsezko alderdi horri esker argi eta garbi uler daitezke informazioa izatearen ondoriozko baiezkoari, pribatutasunari eta elkarrizketaturiko pertsonen babesari buruzko alderdi etikoak, elkarrizketa biktimazio erantsi bihurtu gabe inoiz.

Eztabaida taldea, taldeko elkarrizketa edo taldeko bilera ere deiturikoa[9], *"gizarte ikerketa kualitatiboaren praktika nagusi"* gisa hartzen da egun (Ortí 1998, 335). Gehienez ere hamar pertsonara mugatu ohi da taldea; elkarren artean interakzioa egoten da bi orduz gutxi gorabehera. Haien parte-hartzea "neurri batean zuzentzen du" koordinatzaile batek –kasu honetan elkarrizketatzaileak berak–. Kontrolatutako komunikazio prozesua izatean, azken helburua taldeko hitzaldiak aztertzea da. Ez da teknika itxia, emaitza zehaztugabeak dituen dinamika baizik (Ibáñez, 1979). Teknika horren bitartez lortu nahi den elkarrizketan loturak topatu nahi dira ikuspegi eta kezka ezberdinen artean, erdi egituraturik dagoen formatuari jarraiki.

---

7 NBen 1999ko Gidaliburuko III. kapituluko 6 c) idatz zatia, 2. paragrafoa.

8 Taldeko elkarrizketatzaile modura jardun ahal izateko, moderatzaile lanak egin behar dira malgua, objektiboa, enpatiaduna eta entzuteko gaitasun ona duena izateaz gain. Horrela, talde batek edo pertsona batek elkarrizketa berea bakarrik egitea edo errespetu faltak izatea saihestuko da. Gainera, parte-hartzearen oso aldeko ez diren horien parte-hartzea sustatu behar du. Erronka taldeko dinamikaren gida modura lan egiten jakitean dago (Fontana eta Frey 1998, 54-5).

9 Teknika hori joan den mendeko hogeigarren hamarkadakoa bada ere, berrogeita hamarreko hamarkada izan zen hari buruz hitz egiteko EEBBetan beste termino bat hartu zen garaia: *focus group*. Merkatuaren gaineko azterketak egiteko ez ezik, erabaki politikoen eraginaren, politika publikoei buruzko iritziaren, gizarte ordezkaritzen eta abarren gainean ere erabili da (Fontana eta Frey 1998, 54).

Grabazioa eta hitzez hitzeko transkripzioa egin ziren, ondoren azterketa soziohermeneutikoa egiteko (Alonso, 1996). Ortíri jarraiki (1998, 335), zera da lortu nahi dena: *"...mikro taldearen hitzaldi testuinguruak erreferentziako gizarte makroegoeraren unibertso sinbolikoa dialektikoki azaltzea"*, hau da, EAEn mehatxu edota hertsapen terroristen egoerak talde eta pertsona ezberdinei eragindakoa islatzea. Mehatxaturiko pertsona ezberdinak biltzeko interesa, eginbehar eta bizipen ezberdinekin, Ararteko erakundeari txosten honetako kasuan kasuko kapituluan islatzeko balioko dioten irizpide orokorrak adosteko aukera da. Erakundeak hainbat gomendioren bitartez gauzatuko luke hori. Banakako elkarrizketetan egindakoa ez bezalako informazio bilketa eta ikuspegia erabiltzea esan nahi du, ikerketa berdin batean triangelatze helburuarekin edo aldi berean iturri, metodo edo ikuspegi ezberdinak erabiltzeko helburuarekin. Horren bitartez, *mikro, meso* eta *makro* gizarte eremuak konbinatzea ahalbidetzen da, lehen mailako eta bigarren mailako biktimazio esperientziei buruzko kapituluan adierazi den moduan.

Testuan zehar, zenbait **zati** islatu dira eta horietan aldarazpenak egin dira anonimotasuna bermatze aldera. Adibidez, garrantzitsua ez bada, izen eta izenondoen genero maskulinoa orokor bihurtzea aukeratu dugu, identifikaziorako balio duten alderdiak kanpo uztearekin batera. Arrazoi horrengatik eta datuak elkarren artean lotzea saihesteko, ez da aipamenik egiten elkarrizketaren erregistro zenbakiaren gainean. Bestalde, formaren aldetik aldaketa sinple batzuk egin dira testuari egitura emateko, hitzen batekin osatzeko, ulermena errazteko eta narrazioak laburtzeko. Lekukotza pertsonalak galdera-sortan proposaturiko ordena berdinean bildu dira, eta ia osoosorik islatu dira.

## 3. Egitura

Jarraian adierazten den testuan, testuingurua ematen zaie elkarrizketei eta mehatxaturiko pertsonekin garatutako eztabaida taldeei. Adituek jazarpen indarkeriari buruz emandako datu eta iritzi batzuk aurkeztu ondoren, prentsan agertutako hainbat berri aukeratu dira gai horren barruan. Banakako elkarrizketetako emaitzak dagoen araudiaren balorazioari, gizarte eta erakundeen erantzunari, erasotzaileari emandako tratuari eta biktimazioa txikitzen duten elementuei buruzko galdera-sortaren egitura jarraituz bildu dira. Elkarrizketen azterketatik interes komunak ateratzen dira eztabaida taldean eztabaidatu beharreko abiaburu moduan. Horrela, txosten berezi honetan plantea daitezkeen berariazko hainbat eskaera ondorioztatu ahal izango dira.

## 4. Eskerrak

Zoritxarrez, erakunde honek ezin ditu elkarrizketaturiko pertsonak izendatu, segurtasun arrazoiak direla eta. Haien eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu barru-barrutik. Txosten hau irakurtzean, espero dugu zuei hutsik ez egitea. Egoera garratz honen barruan dugun erantzukizunaren konpromisoaren sentimendua helarazi izana espero dugu. Egunen batean haiek izendatu ahal izatea espero dugu, Euskadin aniztasunaren isla izatea ETAren aldetiko erailketara, ezta gizartearen eta erakundeen nolabaiteko utzikeriara ere, makurturik ez dagoen egunean.

# II. TESTUINGURUA

## 1. EAEn mehatxaturiko pertsonen inguruan bildutako datuak eta egindako azterlanak[10]

### 1.1. Biktimaren eremu juridikoa eta politikoa

Ikuspegi juridikotik begiratuz gero, Euskadin ez dago hurrengo eskubideak urratzeari buruzko xehetasunezko azterlanik: bizitza eskubidea, askatasunarena, segurtasunarena, askatasunez ibiltzearena, bizitokia aukeratzearena, pentsamendu askatasunarena, iritzi eta adierazpenarena, parte-hartze politikoarena eta ordezkari politiko modura aukeratua izatearena[11].

Biktimen aldeko politiken alorrean, Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren helburuen artean, web orrialdean adierazi duen moduan, honakoa dago: *"mehatxatuekiko elkartasuna sustatzea eta laguntzak definitzea"*. Zuzendariaren arabera, mehatxuen berri izatean telefono bidezko harremana eratzen da, batzuetan alderdi politikoekin kargu publiko bat bada. Araudirik ez badago ere, laguntza eman da bizitokia aldatzeko eskaera jaso ondoren. Orokorrean: *"Badakigu, adibidez, PP eta PSE alderdiko zinegotzi guztiak jazarpenaren biktima direla... egongo den kazetari, epaile eta abar pila. Hemen mehatxaturiko pertsonen zerrenda dugu... noiz edo noiz etorri izan da bat edo beste... Harremanetan jartzen gara inguruabar zehatzen baten berri izaten dugunean... laguntza eman diezaiegun horretarako, gure laguntza jaso nahi badute... Erakunde mailatik haratago, laguntzen mailatik haratago, laguntza ekonomikora mugatu ohi delako beti, alderdien egoitzak aseguratzeko edo eskura geratzen diren etxebizitza jakin batzuk blindatzeko eta abar. Horrelako gauzak existitzen dira jada"*[12]

Gogoratzekoa da 2003ko uztailaren 30ean Juan José Ibarretxe lehendakari ohiak jazarpen indarkeriaren aurkako Plan Orokorra aurkeztu zuela. Politika Orokorreko Eztabaidaren arabera, 2003ko irailaren 26koa, helburua honakoa da: *"gizartearen eta erakundeen laguntza jasotzeko sare bat eratuko dudala, sare horren bitartez jazarpen indarkeriaren biktimak babestu eta sistema demokratikoaren defentsa sendotzeko. Horretarako, Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta nik neuk osatutako gestio organo berezia eratuko da –nik neuk zuzendu eta bultzatuko dut organo hori–..."*. Horren bitartez jada bazeuden ekimenak koordinatu nahi izan ziren, adibidez Eudelen adierazpen zibikoa, Arkauteko akordioak, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren Laguntza Plana eta Eusko Legebiltzarraren biktimei buruzko legezkoa ez den Proposamenetik eratorritakoak. Gure azterketaren emaitzek ez dute aukerarik ematen ekimen horien eraginkortasuna egiaztatzeko.

---

10 Datuak eta lekukotzak eskasak eta topatzen zailak izateagatik, atal honek ez dio bakarrik azterketa akademikoari edo zientifikoari heltzen. Horrekin batera, xehatua izateko asmorik ez duen kazetaritza informazioa ere biltzen du.

11 Ikusi Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuan erreferentzia laburra (2004, 24).

12 Elkarrizketa Maixabel Lasarekin. Estatuko bulegoak ere ez du berariazko programarik edo programa espezializaturik mehatxaturikoentzat.

Bestalde, terminologiari dagokionez, COVITEk nahiago du "terrorista" adjektiboa sartzea eta jazarpen terroristaren indarkeriari buruz hitz egitea. Baliabide muga duenez, COVITEk ez du berariazko azterketarik egin fenomeno honen benetako dimentsioaren gainean, biktimazioaren kopuru beltza edo kasu ezberdinak aintzat hartuz. Horretarako beharrezkoak izango lirateke banan-banako inkestak, arazoaren eragina ebaluatzeko, eta baita biktimazioko inkesta orokorrak ere. COVITEri kexak iristen zaizkio, anonimotasun hori errespetatzea eskatuz pertsona ezberdinek jasaten duten presioaren gainean. Adibidez, kioskoetako saltzaileek *Gara* egunkaria adierazten zaien tokian jartzeko jasotzen dituzten presioak aipa daitezke.

Pertsona bakoitza egoera bere kabuz konpontzen saiatu da. Berezko fondoekin, COVITEk laguntza ematen du hainbat dimentsiotan. Horiek ere erakundeen aldetiko jardunaren xede izan litezke: babesa, laguntza psikologikoa, laguntza etxebizitza aldatzerakoan, laguntza lanean (joan beharrik ez izateko, joateko, itzultzeko), kontzientziazio publikoa eta bizkartzain pribatuen profesionalizazioaren eta prestakuntza handiagoaren beharraren sustapena, Segurtasun Indar eta Kidego ezberdinen eta bizkartzain pribatuen arteko koordinazioarekin batera. Gainera, babes eta konfidentzialtasun bermeekin beti, Barne Ministeriotik edo Herrizaingo Sailetik informazioa eskuratzeko telefonoa jar daiteke. Horren bitartez, mehatxaturiko pertsonei eragiten dieten kasuen gainean interesa erakuts daiteke, baita mehatxatu bakoitzari eragiten dion segurtasun ezaren balorazio polizialean egon daitezkeen aldaketen gainean ere.

Mehatxuek kalteturiko pertsonen laneko bizitzan duten eraginari dagokionez: *"Pertsonalki, niri, terrorismoaren biktimen gaietan lan egiten dudan mehatxaturiko pertsona moduan, ez dit eragiten. Edonola ere, azterketa egin beharko litzateke. Izan ere, biktimazioa epe luze batean egin da eta mundutik isolatzeko jarrerak eta sentimenduak eragin ditzake, justizia falta dela sumatzearekin batera. Edonola ere, printzipio etikoak eta politikoak sendotzea ere gerta daiteke"*[13].

## 1. 2. Eremu psikologikoa

Eremu psikologikoan[14], badirudi mehatxaturiko pertsonek ez dutela laguntza gehiegirik eskatzen. Ez dago horren gaineko azterlanik, eta hipotesien alorrean jardun behar dugu. Laguntza psikologikoa eskatzeak esan nahi du gure ahultasuna onartzen dugula nolabait, edo baliabide pertsonalen edo hurbileko baliabideen eskasia bestela. Ordezkari politikoen edo Zuzenbidezko Estatua irudikatzen duten beste profesional batzuen kasuan, haien konpromiso politiko edo profesionalak beren balioak sendotzea ekar dezake, aldagai ezberdinak gorabehera. Espetxeko funtzionario batentzat, militar batentzat, polizia edo guardia zibil batentzat, zailagoa izan daiteke, nahiz eta horiek beren alde duten anonimotasuna, landa esparruetan txikiagoa izaten den anonimotasuna hain zuzen. Gainera, kontuan izan behar da talde bakoitzaren barruan biktimazioa arintzen lagun dezaketen ordainsari ezberdinak. Mehatxaturiko pertsona askok alde egiten dute asteburuan. Edonola ere, estrategia hori ez da pozgarria orokorrean, pertsona batzuek beren etxean egotea nahiago dutelako bidaiatzearen aldean. Bestalde, harreman egokia, profesionala

13 COVITEko bi kideri egindako elkarrizketako oharrak (2007-12-28).

14 Elkarrizketa Enrique Echeburúa Odriozola irakaslearekin.

edota enpatiazkoa izaten saiatu behar da, nahiz eta beharrezko distantziak mantenduta, bizkartzainaren eta babestutako pertsonaren artean, estres osagarria ez sortzeko.

Mehatxu eta hertsapen egoerak eragin zuzena izaten amai dezake, beldurra, antsietatea, lo egiteko zailtasunak, etengabe behatuta izatearen sentsazioa, errutinak saihesteko egokitzapen arazoak, eta abar eraginez. Sintoma horiek arinagoak dira zuzeneko biktimen eta haien familien kasuan. Edonola ere, horrek ezinegona sortzen du, eta zenbait kasu berezitan arazoa gainditzeko estrategia negatiboak ager daitezke, alegia, zenbait substantzia neurriz gain kontsumitzea.

Halaber, estrategia negatibotzat har daiteke –nahiz eta zenbaitetan beharrezkoa izan– isolamendua (ez da irteten, bizkartzainekin joatea deseroso izateagatik) edo zenbait tokitara joatea saihestea. Ondorioz, pertsonaren askatasuna mugatu egiten da. Hor dago haien biktimazioaren neurria eta justiziarik ez izateari buruz pertzepzioa. Izan ere, haiek ikusten dutenaren arabera, herrialde demokratiko batean askatasuna falta zaie ideia politikoen aniztasuna izateagatik edo beren lanbidearen eginbeharrak betetzeagatik, beste pertsona batzuk lasai eta eraginik gabe bizi daitezkeen bitartean.

Mehatxaturiko pertsonek sufritzen edo gainezka egiten badute bakarrik bilatu beharko lukete laguntza psikologikoa. Edonola ere, gizakiak egokitzeko eta egoerak gainditzeko gaitasun izugarria du, nahiz eta pertsona batzuk beste arrazoi batzuei egotzitako arazoak izan ditzaketen. Azkenik, biktimaren kontzeptuan osagai objektiboa eta subjektiboa dago, eta antzeko inguruabarren aurrean igarritako biktimazio maila asko aldatzen da batzuetatik besteetara.

Familia Terapiako Euskal Eskolako zuzendari den Roberto Pereiraren arabera (2004), jazarpen indarkeriak goibeltasun, neke eta atsekabe sentimenduak luzaroan izatea ekar dezake. Errutinekin hausteak kokapen falta eta ezinegona sor dezake, etorkizunean eragina izango duen harremanen multzoa estutzearekin batera. Komunikazio aukerak mugatu egiten dira, eta, beraz, laguntzetara iristeko aukerak ere bai. Zenbaitetan, errudentasun sentimendu batzuk sortzen dira familia jartzen den egoera zailarengatik. Giza eskubideak, estatu mailako erakundeak eta Euskadin aniztasun politikoa eta ideologikoa babesteko jarrera etikoan zalantzak sor daitezke.

## 1.3. Kopuruak

Mehatxu eta hertsapen terroristak aspalditik existitzen dira. Hala eta guztiz ere, horiek bizi dituen pertsona kopurua areagotu egin zen ETAk “sufrimenduaren sozializazioa” deiturikoa martxan jarri zuenetik: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideetatik hasi –ondoren ertzainak ere bertan sartuz–, militar eta xantaiaren aurrean makurtzen ez diren enpresaburuetatik igaroz, abertzaleak ez diren politikarietara, epaileetara, fiskaletara, espetxeetako funtzionarioetara, intelektualetara, ETArekin kritikoak diren kazetarietara... iritsiz[15]. Bakearen Aldeko Koordinakundearen *Bake Hitzak/Palabras*

[15] Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren datuen arabera, hurrengoak terroristen eskuetan hil dira: hiru kazetari, espetxeetako zazpi funtzionario eta bederatzi magistratu, epaile eta fiskal. Kazetariei dagokienez, ikusi Gabriel Sanchez Rodriguez (2007) eta Calleja (1997, 193-197; 2006, 209-245).

*de Paz* argitalpenaren 40. alean, jazarpen indarkeriari zuzendurikoa, berrogei mila pertsonatik gora hura jasaten duela uste da[16]. Arrazoi hori dela eta, pertsona asko joan egin dira Euskal Autonomia Erkidegotik[17].

Kopuru horri hainbat hamarkadatik hona estortsioaren xede diren ehunka enpresaburuak erantsi beharko litzaizkioke, beren taldeko bahitutako eta eraildako pertsonekin batera. Batzuk EAEtik edo Nafarroatik alde egiteko erabakia hartu dute; askok ezezkoa ematen diote ordaintzeari, beste batzuk irtenbideren bat negoziatzen dute eta beste batzuk ordaindu egiten dute. Estortsioa merkatari txikiei ere zabaltzen zaie. Hori guztia, Pagazaurtunduak (2007) adierazten duen moduan, *"isilik gertatzen da, iritzi publikoaren atentzioa ez deitzeko eta familia ETAren biktimazioaren estigmatik, arrisku pilaketatik, babesteko"*.

Orain dela gutxiagoko sektorekako azterketaren barruan, mehatxatutako talde zehatzen gainean, *Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren Aldizkariaren* 19. alea aipa daiteke. Bertan, erreportaje laburra eskaintzen zaio mehatxaturik dauden zinegotzien gaiari. Fernando Delgadok idatzitakoa da, eta haietako hiruren testigantzak biltzen ditu. 2008ko martxoaren 7an Arrasateko zinegotzi sozialista ohia zen Isaias Carrascoren erailketaren ondoren, are argiago geratzen da zinegotziei egindako mehatxua denboran luzatzen dela, beren eginbeharra utzita ere[18]. 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeetan, bizkartzainarekin bizi behar duten Alderdi Sozialistako 339 zinegotzi eta Alderdi Popularreko 184 aukeratu ziren; horiek poliziaren, Guardia Zibilaren eta segurtasun pribatuko mila agente baino gehiagoren babesa jaso behar dute, *"askatasuna indarkeria erabiltzen dutenen alde daudenentzat edo beste toki batera begiratzen dutenentzat gordetzen den gizartean"* (Delgado 2007, 14-15). Azken su-etenean, guztiek elkar ezagutzen duten udalerri txikiei dagokienez, zinegotzi batek zera aitortu zuen: *"hemen ez gaituzte erailtzen, baina ez digute bizitzen uzten"* (ibídem, 14). Urtero, Barne Ministerioak ehun milioi euro inguru jartzen ditu babeserako. 2004tik aurrera areagotu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan kargu publikoak babestera zuzendutako partida.

Euskadin eta Nafarroan bizkartzain lanetan aritzen den hiru mila pertsonatik gora dago. Horietatik bi mila bostehun enpresa pribatuetakoak dira, nagusiki zinegotzi eta enpresaburuen babesaz arduratuz. Batzuk jasan dituzte jada babespean dituztenei zuzendutako erasoen ondorioak, eta Segurtasun Indar eta Kidegoetako bizkartzain batzuk hil egin dira. Gabriel Ginesek, zinegotzi baten bizkartzain pribatua, Bilbon, 2007ko urriaren 9an jasandako atentatuaren kasuan, hurrengoak bezalako testigantzak jaso ziren lankideen artean: *"Saihestezina zen azkenean gure bila etortzea"*. Gasteizko UPV/EHUren campusean hori baino lehen agertu zen pintaketaren bat, eta horietan honakoa irakur zitekeen: "Polizia eta Guardia Zibila + bizkartzainak: ETA hil itzazu". Bizkartzain pribatu asko Euskaditik

---

16 Ikusi, halaber, *La violencia de persecución en Euskadi,* Giza Duintasunaren Defentsarako Elkarteak argitaratua.

17 Euskaditik alde egitea erabaki duten mehatxaturiko pertsonei buruz, ikusi Calleja (1997).

18 Kasu honetan, eraildako pertsonak bizkartzaina izatea errefusatu zuen 2007ko maiatzeko udal hauteskundeetan hautetsia irten ez zenean. Hemerografiaren berrazterketatik egiazta daiteke nahikoa dela hauteskunde zerrendetan sartzea, bazkide izan zein ez, hautetsia izan zein ez, mehatxuen eta hertsapenaren xede izateko.

kanpoak dira[19]. Batzuentzat: *"lan honetan konbentzituta zaudelako zaude, edo bestela joan egiten zara"*. Uste dute ez duela merezi bizitza jokoan jartzeak etxetik eta familiatik urrun bizita. Gainera, baliabideak eta prestakuntza hobetzea eskatzen dute[20].

Ibilgailuaren behealdea aztertzeko makurtzeko errutina hartu behar duten bizkartzain nahiz Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta Indar Armatuetako kide guztiei, espetxeetako funtzionarioei eta, orokorrean, bere burua babesteaz arduratu behar duten guztiei dagokienez: *"Ez da bakarrik lurrean etzan behar izatearen erosotasun falta, batzuetan bustita edo zikin egonda; kontua da keinu horrek, gauza jarri dizuten begiratzera makurtu behar izateak, zer zaren gogorarazten dizula: heriotzara kondenatua dagoen norbait… iraintzeko mekanismoaren alderdi bat da. Ez da begirada bat bakarrik, belaunikatzea ere bada…"*[21].

Azken batean, gabeziaren aurrean[22] azpimarratu egin behar da beharrezkoa dela mehatxaturiko talde bakoitzaren egoerari buruzko azterlan xehatuak egitea, epaileak eta fiskalak, institutu eta unibertsitateetako irakasleak, kazetariak, intelektualak, artistak, biktimen babeserako elkarteetako kideak… ere barne hartuz, ETArekiko jarrera kritikoa agertu dutenean. Ez dira ahaztu behar bere burua babestu behar duten pertsonak: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak, bizkartzain pribatuak, militarrak eta espetxeetako funtzionarioak. Biktimaziotik hurrengo epigrafean bildutako kazetaritza informazioaren datu mugatuak bakarrik atera ditzakegu.

Biktimologiatik kroniko bihurtutako eta pertsona jakin batzuetan oinarritutako biktimazio mota hori bereziki ikertzea sustatu behar da, pertsona horiek biktima izatea prebenitzearen eraginak gain hartu behar izatearen beharra sartuz. Hori bizkartzainarekin bizitzearen edo norberak bere burua babestu behar izatearen gainean egingo litzateke, arriskuaren berariazko izaera ikusita[23].

## 2. Elkarrizketak eta eztabaida taldeak egin diren aldian zehar prentsan bildutako berrien aukeraketa

Banakako elkarrizketak eta taldeko eztabaida egin ziren garaian, hau da, 2007ko azaroaren erdialdetik 2008ko urtarrilaren amaiera bitarte[24], mehatxatuta dauden pertsonen egoerarekin berariazko zerikusia duten hainbat berri jaso dira prentsan. Ezkutuko

---

19 Adibidez, lan hogei egun egin eta hamar libre izan ditzakete, familiarekiko harremana erraztuz horrela. Bizkartzain batzuk beren familiek mehatxuen egoeraren aurrean bizi duten kezkaren berri ematen dute.

20 David Guadillak bildutako informazioa *El Diario Vasco* egunkarian, 2007-10-10, 32. or.

21 Ertzain bizkartzain baten testigantza, David Guadillak bildutakoa *El Diario Vasco* egunkarian, 2007-10-10, 32. or.

22 Ikus-entzunezko materialen barruan, ikusi EiTBk bizkartzaina daramaten pertsonei buruz egindako dokumentala. Hori liburu batean islatu da, bizkartzaina daraman sei pertsonari egindako elkarrizketekin (magistratu bat, kazetari bat, hiru zinegotzi eta legebiltzarkide bat) (Lasheras, 2006). Ikusi, halaber, Ortegaren dokumentala (2004) eta berrikiago Arteta eta Galletero (2009).

23 Ikusi Herrera (2006, 111-118).

24 Salbuespena 2008ko martxoaren hasieran egindako banakako elkarrizketa da, aldez aurretik harremanetan jartzeko zailtasunak izan zirelako.

biktimazioa handia eta jazarpen terroristaren indarkeriaren alderdi orokorrak ikusita, hainbat gertaera eta berri geratzen dira kanpo. Ez da xehetasun osoz egindako bilketa, baizik eta gaia hedabideetan nola islatzen den argitzeko adibide soila. Halaber, aniztasuna azpimarratu nahi da, aldi horretan jasandako mehatxu mota eta baita heriotza ekarri duten atentatuak ere testuinguruan kokatzearekin batera. Halaber, erakundeek horri guztiari emandako erantzuna azaldu nahi da, idatzitako prentsak adierazitako moduan eta iritzi artikuluak sartu gabe.

Berriak Gipuzkoan –elkarrizketaturiko pertsona gehienen bizitokia– gehien irakurtzen den egunkaritik, *El Diario Vasco*tik, ateratakoak dira batez ere, nahiz eta Ararteko Erakundeko prentsa txosten orokorretan jasotako idatzizko beste hedabide batzuetakoekin osatu diren[25], hedabideen web orrialdeetako inprimatutako edizioetan egindako bilaketa zehatzekin batera. Testuak hitzez hitz islatzerakoan, kazetaritzako zehaztasun ezak agertzea posible da hemen, egindako elkarrizketen testuinguru modura, heldu nahi ditugun inguruabarrak adierazterakoan.

Jarraian, kronologikoki, berri horietako zati batzuk adieraziko dira hitzez. Horietatik, noski, Frantzian buruan tiro emanda eraildako bi Guardia Zibilen kasua aipatuko dugu, Raul Centeno eta Fernando Trapero, Arrasateko zinegotzi ohi zen Isaias Carrascoren kasua bezala[26]:

> –Andoaingo PSEren Estanis Etxaburu zinegotziak ehunka mehatxu, eraso fisiko eta psikiko ditu: *"Nire ibilgailua erretzen saiatu dira, nire etxeari su eman diote eta nire alabaren ibilgailuari eraso egin diote... Zure ezagunak espaloiaz aldatzen direla ikustea, pintaketak, mehatxuak..."*. Bere eguneroko bizitzaren ezaugarria bizkartzainen itzala eta garai batean ezagunak izandakoen errefusa dira (*Deia,* 2007-11-14).
>
> –Deustuko Unibertsitatean Etika irakasle den Galo Bilbaok defendatu egin zuen komenigarria zela ETAren terrorismoak kalteturiko pertsonek beren testigantza eskaintzea ikasleei, Bilbon Bakearen Aldeko Koordinakundeak egindako indarkeriak kalteturikoei buruzko jardunaldien seigarren edizioan (*El Correo,* 2007-11-16, 24. or.).
>
> –Balzak *"gutxienez..."* bi urteko terrorismo zikloa iragarri zuen (*El País,* 2007-11-19, 3. or., Euskadi).
>
> –Txanodunek Leioako PPren hautagai bati eraso egin zioten eta astindu zuten EHUn. Muturreko sei pertsonak lepokoa eta belarritakoak kendu zizkioten indarrez, hark atzerako martxan ibilgailuan alde egin ahal izan zuen arte... iraindu egin zuten, eraso egin zioten eta astindu egin zuten... Ikasleak azken hilabeteetan atxikipen politikoa dela eta beldurrarazteko hainbat ekintza jasan ditu... egoera salatuta zuen jada Ertzaintzaren aurrean... datozen egunetan salaketa jarriko du poliziaren aurrean... "espainiarra", "faxista" eta "pepekoa" deitzen hasi zitzaizkion, "ezer ez duela ikasi" edota "eskarmenturik jaso ez zuela" bota aurretik. Hitzetatik, txanodunak eskuetara igaro ziren... (*El Diario Vasco,* 2007-11-20, 31. or.)
>
> –Ugazaberiak *"eredutzat"* jotzen du enpresaburuek estortsioaren aurrean azaldutako jarrera. Confebaskek esan du ETAk gutunak bidaltzearen ekintza *"eteten ez den*

---

[25] Edonola ere, azpimarratu egin behar da orokorrak izateagatik txosten horietan ez direla xehetasun osoz jasotzen ETAren mehatxuen edota hertsapenaren biktimei buruzko berri guztiak. Bestalde, ETAko kide diren pertsonen adierazpenak biltzerakoan, egiten duten mehatxuaren adibide modura egiten dugu eta ez du, inolaz ere, justifikaziorik onartzen.

[26] Erailketa hori 2008ko martxoaren 7an jazo zen, txosten hau amaitu baino egun bat lehenago; ondorioz, ez dira kazetaritzako erreferentziak bildu horren inguruan.

*marea"* dela... enpresaburuek... erakundeari *"ez ordaintzeko konpromiso etikoa"* dute, *"salbuespenetatik haratago"*... estortsio gutunen bidalketa... *"etengabeko prozesua"* da... argitu zuen estortsioak, *"noski, kaltea eragiten duela"*, izan ere *"mota guztietako inpaktuak suma daitezke"*, adibidez *"kalte pertsonala, psikologikoa eta materiala"*... Edonola ere, azpimarratu zuen *"horrez gain, lakra horrekin bizitzen daramatzagun urteetan guztietan borroka egiten eta aurrerantz jarraitzen ikasi dugu"*. Hori, haren ustetan, *"babesa eta laguntza sentitu izanaren ondorioz jazo da"*, bai erakundeen aldetik, bai gizartearen aldetik (*El Diario Vasco,* 2007-11-20, 31. or.).

–Margo gorriarekin eraso egin diote Zarautzeko PSEren egoitzari... PSEren tokiko taldeak... baieztatu egin zuen... erasoaren egileak... aldez aurretik *"azken hauteskundeetako hautagai sozialistaren ibilgailua erretzen saiatu zirela"*, eta horiek ere *"orain dela gutxi EAko zinegotzi baten ibilgailua margotu zutela"* eta *"EAJren batzokiari eraso egin ziotela"* eta udalerriko Ertzaintzaren komisarian lehergailua jarri zutela. *"Badakigu nortzuk diren, noren aginduak betetzen dituzten, nortzuk diren haien irakasle, non ikasten duten, nondik irteten diren, zein den haien asmoa, noren babesa duten eta nork ulertzen dituen..."* (*El Diario Vasco,* 2007-11-20, 31. or.).

–*"Oraindik shock-a bizi dut; valiumari esker jarraitzen dut"*. EHUn erasoa jasan zuen PPren hautagaiak zera baieztatu du: *"zigorgabetasunaren erdian etsaikeria ikaragarria jasatea"*... *"Argi dut ez naizela inor... Alderdiaren alde dagoen pertsona xumea, bazkide ere ez naiz eta... Etsaikeria ikaragarria jasan dut zigorgabetasun handienaren erdian"*... Konbentzituta dago bere erasotzaileentzat *"ez dudala eskubiderik EHUra joateko. Uste dut probokazioa naizela haientzat hara ikastera joateagatik ere"*. Ikasleak dio erasotzaileak *"zigorgabetasun osoz"* mugitzen direla. Azken hilabeteetan jasan dituen erasoetatik beste batean: *"bost minutu pasa nituen unibertsitateko aparkalekuan klaxona joaz, eta inork ez zidan kasurik egin... EHU jende horren herriko taberna da. Paretak presoen aldeko pintaketez josita daude. Nik beldurra dut; beldurra nire amarengatik, nire anaiarengatik eta nire senarrarengatik. Ez naiz inor; ez naiz ausarta, ezta burugabea ere. Haien helburuak haiek bezala pentsatzen ez dugun guztiak gara, eta unibertsitatean giro erasokorra, oldarkorra dago... Ez nion nire senarrari ezer esan atzo arte... noski ez dagoela askatasunik: ez dago adierazpen askatasunik, eta jendea immunizatuta eta anestesiatuta dago izugarrikeriaren aurrean"* (*El Diario Vasco,* 2007-11-21, 31. or.).

–Euskadin giza eskubideek zuten egoerari buruzko bigarren txostenean, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak gomendatu egin du erakunde publiko guztiek terrorismoaren biktimak *"prestazioak jasotzen dituzten subjektu pasibotzat"* jotzeari utzi behar diotela, eta *"irmotasunez"* babestu beren eskubideei eragiten dieten gaietan parte hartzeko eskubidea (*El Mundo,* 2007-11-21, 14. or., Euskadi).

–Behin-behineko askatasuna jaso du Otaolari Lizartzan mehatxu egiteaz akusatu dutena (*El Diario Vasco,* 2007-11-21, 32. or.).

–Bost atxilotu Nafarroan, kale borrokako hogeita hamar ekintza baino gehiago egiteaz akusatuta. Miaketetan alderdi politikoen hauteskunde zerrendak topatu ziren, eta horien artean PP eta PSOE zeuden. Aurten, Nafarroako Foru Erkidegoak kale borrokako 83 eraso erregistratu ditu, azken bost urteetako kopuru altuena (*El Diario Vasco,* 2007-11-21, 30. or.).

–Frantziako Justiziak Omako basoari egindako erasoaren balizko egilea entregatzea agindu du, PP eta PSOE alderdietako politikariei egindako mehatxu terroristengatik betetzeko duen zigorra bete dezan (*El Diario Vasco,* 2007-11-21, 30. or.).

–Luesmak, Gobernuaren ordezkari Euskadin, bizkartzain pribatuen lana goraipatu du, ETAk mehatxatu dituen pertsonek beren bizitza garatu ahal izateko *"bermea"* direlako. Bilbon, joan den urriaren 9an, ETAren atentatu batean, zauriturik irtendako bizkartzaina gogoratu zuen, eta berretsi egin zuen hari bezala talde osoari babesa ematen diela, *"haien lana funtsezkoa delako"* (*El Diario Vasco,* 2007-11-21).

–Adegik mehatxaturiko enpresak babesten ditu. Babes guztia adierazi zien euskal Y-aren trenbidea eraikitzeko lanean dihardute enpresa guztiei, eta gaitzetsi egin zituen *"erabat mehatxuak edo hertsapenak"* (*El País,* 2007-11-25, 3. or. Euskadi).

–2008ko aurrekontuei buruzko akordioa. Adostutako zuzenketek hurrengo gastu konpromisoak hartzen dituzte Donostiako Udalari dagokionez: Herrizaingo Saila: 1.950.000 euro; horietatik, 750.000 alderdien segurtasunerako izango dira, eta milioi bat Oroimenaren Lorategirako (*El País,* 2007-11-30, 1. or., Euskadi).

–EiTBk "lehentasuna" emango dio terrorismoaren biktimei buruzko informazioari. Giza Eskubideen zuzendariarekin eta Biktimei Laguntzeko Erakundeko zuzendariarekin batera, EiTBko zuzendariak giza eskubideen, biktimen arretaren eta bakearen alorreko ekintzak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Horiek euskal ente publikoak garatzekoak izango lirateke 2008an zehar. Jarduera hori Terrorismoaren Biktimen Ponentziak adostutako konpromisoetatik eratorritakoa da, eta Jaurlaritzaren Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Planaren barruan kokatzen dira. Ente publikoak azterlana egingo du bere hedabideetan eta beste batzuetan biktimek jasotzen duten tratuaren gainean, eta, emaitzen arabera, barne prestakuntzako plana diseinatuko da (*El País,* 2007-11-30, 1. or., Euskadi. Ikusi, halaber, *Berria,* 2007-11-30,12. or.).

–ETAk lehenengo aldiz erail du guardia zibil bat Frantzian eta beste bat zauritu du –azkenean, hura ere, hil egin zen– (*El Diario Vasco,* 2007-12-02, 1. or.).

–EHUk hogei aditu prestatu ditu genero indarkeriaren eta terrorismoaren biktima direnei atentzioa eskaintzeko. Ekimena urrian hasi zen, eta atzo berretsi egin zen lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera. Hitzarmena Jon Mirena Landaren, Giza Eskubideen zuzendaria, eta Maixabel Lasaren, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria, artean sinatu zen (*El Diario Vasco,* 2007-12-06, 10. or.).

–Berrizen atxilotutako etarrak Bizkaiko PPren buruzagi bati buruzko informazioa zuen. Atxilotuak, halaber, ertzainei eta kazetari euskaldunei buruzko datu zehatzak zituen (*El País,* 2007-12-13, 16. or.).

–ETAk iragarri egin du poliziak hiltzen jarraituko duela, *"den tokian izanda ere"*. Taldeak Centeno eta Trapero guardia zibilen erailketak aldarrikatzen ditu (*El País,* 2007-12-15, 14. or.).

–ETAren lehergailu batek, hiru kilo amonal zeramatzana, kalteak eragin ditu Sestaoko bake epaitegian (*El Diario Vasco,* 2007-12-16, 1. or.).

–Balzak ohartarazi du Ertzaintzak, *"mehatxuak jasota ere,... ez duela milimetro bateko tartea ere utziko"* ETAren aurkako borrokan. Euskal Poliziak lehentasuntzat izango du erakunde terroristari aurre egitea, hark *"herrialde honetako herritarren askatasuna eta segurtasuna mehatxatzen"* jarraitzen duen bitartean. Herrizaingo sailburuak talde terroristari erantzun dio Jose Maria Agirre ertzain erailari egindako omenaldian, ETAk Guggenheimen hil zuenetik hamargarren urteurrena bete den honetan. Egindakoa bezalako omenaldien garrantzia azpimarratu zuen. Ertzainaren arrebak, Maria Jesus Agirrek, hitza hartu du zera azpimarratzeko: *"igarotako hamar urteak igarota ere, minak hor jarraitzen du"*. Bere amari buruz hitz egin zuen. 83 urte ditu eta ezin izan zen ekitaldira joan. Hari buruz esan zuen semearen erailketatik *"egunero hil nahi izan duela"* (*El Mundo,* 2007-12-16, 13. or.).

–PP alderdiko zinegotzi bat mehatxatu dute Barrikan: *"Kontuz ibili, kontu handiarekin ibili"*. PPk bere zinegotziari egindako mehatxuak salatu ditu EAEANko fiskaltzaren aurrean. Bizkaiko PPko lehendakariak uste du udalerri horretan jazotakoa ohikoa bihurtzen ari dela Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta argi uzten du *"indarkeriazko ingurunea ausartzen ari dela"* (*El Mundo,* 2007-12-16, 13. or.).

–*"1979an, Jose Luis Arreseren eta Juan de Diosen erailketen ondotik, armak eraman nitzakeela esan zidaten. Ezezkoa eman nion horri erabat. Ordudanik aurrera, askatasun falta dut. Orain segurtasun zerbitzuek esango dute"*. Miguel Ángel Echevarríaren adierazpenak, Gasteizko Udaleko PPren zinegotzi, 65 urte bete eta erretiroa hartu ondoren (*Diario de Noticias de Álava,* 2007-12-18, 26. or.).

–Zazpi molotov koktel bota dituzte Hernaniko Herriaren Etxearen aurka. Joan den irailaren 28an, antzeko eraso bat jazo zen (*El Diario Vasco,* 2007-12-20, 30. or.).

–Bakearen Aldeko Koordinakundeak terrorismoak kalteturikoekiko konpromisoa berretsiko du igandean Bilbon. Gizartea aipatu zuen indarkeriari legitimotasuna kentzeko

bide gisa, terrorismoaren aurka konpromiso publikoa izanez. Izan ere, *"ezin dugu unadura gure artean geratzen utzi"* (*El Diario Vasco,* 2007-12-20, 31. or.).

–Donostiak biktimak gogoratuko ditu gaur kontzentrazio isil batean. Hori baino lehen harrera egingo dio Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimen Udal Foroari (*El Diario Vasco,* 2007-12-20, 30. or.).

–ETAren biktimak gogoratu egin ziren berriro ere Donostian egindako kontzentrazio batean. Donostiako Udalak Eguberrien atarian egin ohi duen jarduera da. Kontzentrazioan, Donostiako alkateak adierazpen laburra egin zuen: *"...gaur, berriro ere, bakearen eta askatasunaren aldeko konbentzimendutik, ozen esan nahi dugu exekuzio deitzen dituzten horiek, mehatxuak, jazarpena eta estortsioa erabat gaitzesten ditugula"* (*El Diario Vasco,* 2007-12-21, 30. or.).

–Eudelek babes neurri gehiago hartu ditu mehatxatutako zinegotzi eta alkateentzat. Euskadiko udalen elkarteak zinegotzi estatutua onartu du. Dokumentuak, "Udal gobernagarritasunerako eta euskal zinegotziek eta alkateek euren karguak askatasunez betetzeko akordioa" izenekoa, ez ditu hiru hiriburuetako udalak hartzen. Orientabidea izango da udalentzat, eta haiek berretsi egin beharko dituzte. Testuak *"errekonozimendua izan nahi du mehatxupean dauden 562 zinegotzi eta alkateentzat, bizkartzaina eraman behar izanez ideia batzuk defendatzeagatik eta egunero herritarrak babesteko lana egiteagatik"*, argitu zuen Eudeleko lehendakari den Jokin Bildarratzek (EAJ). Zoritxarrekotzat jo zuen XXI. mendean oraindik *"hertsapen eta xantaia"* egoera hori existitzea, eta mehatxaturiko zinegotziei *"berotasuna"* ematearen alde egin zuen, laguntza emanez ere *"egoera ahalik eta duinena izan dakien"*. Akordioak zinegotzi horien babesean, bostetik bat, izan beharreko esku-hartzea jasotzen du. Neurri horien barruan egongo lirateke teknologia berrietara iristea edo gizarte errekonozimenduko eta solidaritateko antolamendu egokitzapenak eta ekimenak bideratzea mehatxatutako gizarte ordezkariekiko (*El Diario Vasco,* 2007-12-21, 31. or.).

–PSEren egoitzari egindako erasoa gaitzetsi egin dute. Hernaniko Udaleko PSE, PP, EAJ, EA eta EB alderdiek, EAE-ANVren abstentzioarekin, gaitzetsi egin zuten atzo PSEren egoitzari molotov koktelekin asteazken gauean egindako erasoa. Gainera, EAE-ANVk aurkeztutako beste testu bat onartu egin zen EBren babesarekin. Bertan, "gatazka" bat egotearen barruan kokatu zen eraso hori, ETAk Sestaon bideratutako atentatua eta 18/98 kasuko epaia (*El Diario Vasco,* 2007-12-21, 31. or.).

–*"Egunero saiatzen naiz 562 zinegotziez gogoratzen, batez ere PP eta PSE-EE alderdietakoez, beren lana bizkartzainekin garatu behar izateagatik. Uste dut lan paregabea egiten ari direla, besterik gabe ideologia edo politika zehatza defendatzeagatik"*. Jokin Bildarratzen adierazpenak, Eudeleko lehendakari (*Noticias de Gipuzkoa,* 2007-12-23, 9. or.).

–ETAk eraso egiten die berriz ere politikariei. Taldeak bost kiloko lehergailuarekin egin dio eraso Balmasedako egoitza sozialistari. Alderdi bati zuzendutako lehenengo erasoa da, su-etena amaitu zenetik. Bestalde, Getxo udalerri bizkaitarrak kale borroka jasan zuen astelehenean. Txanodun batzuk molotov koktelekin egin zioten eraso hiru banketxeren egoitzei eta aseguru-etxe bateko bulegoari. Eusko Jaurlaritzaren arabera, erasoetan emakume batek kea arnastu izanaren kaltea jasan zuen (*El País,* 2007-12-26, 13. or.).

–PPk salatu egin du Guardiako udalerriko egoitzaren aurka jasandako erasoa. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak joan den astearteko goizaldean ere Gobernuaren Ordezkariordetzaren eraikina babesten duen Guardia Zibilaren zaintza-etxolaren aurka egindako erasoa gaitzetsi du (*El Mundo,* 2008-01-03, 10. or., Euskadi).

–PPk Eusko Jaurlaritzari egotzi dio Biktimen Legearekin hartutako konpromisoak ez betetzea. Joan den urriaren 5ean, terrorismoaren biktimei buruzko osoko bilkura monografikoan, hartutako akordioak ez betetzea salatu zuen, batez ere Legebiltzarrari Biktimekiko Solidaritateari buruzko Lege proiektua 2007ko abenduaren 31 baino lehen bidaltzea eskatzen ziona (*El Diario Vasco,* 2008-01-04, 29. or.).

–ETAri egindako elkarrizketa: *"Inork ez du herri honek Euskal Herria Estatua sortzeko duen nahia geldiaraziko... Zentzu horretan, dei egin nahi diogu herriari,*

*zapalkuntzaren aurka altxa dadin... Askapen nazionaleko prozesuak ez du atzera bueltarik... Gudari edo euskal herritarren aurka doazen errepresio baliabideen aurka jardungo dugu... Independentziaren aldeko militanteak kondenatzen ari dira... PSOEko bazkideek hausnarketa egin beharko lukete horrelako jarduerek dakartzaten ondorioen gainean"* (*Gara,* 2008-01-05, 6.-7. or.).

–Maixabel Lasak deia luzatu die udalei, ETAren biktimekin *"esku har"* dezaten. Omenaldiak ez egiteko *"tinko jarraitzen"* duten udal horien parte-hartzea eskatu du. Adierazpen horiek Bakeaz-ek Deustuko Unibertsitatean antolatutako mahai-inguruan egin ziren, Bilboko Udalak bultzatutako Bakearen aldeko IV. Astearen esparruan. *"Gure gizartearen tragedia handia herria ikusle bihurtu dela da"*. Esaldi horrek, Jose Angel Cuerdak esandakoa idazle mexikar bati helduz, orokorrean laburbiltzen du hizlarien tesi nagusienetako bat *"biktimekiko solidaritatea toki esparruan"* gaiari buruz eztabaidatzerakoan. Talde armatuaren jarduna gaitzestea bakarrik *"ez da nahikoa"* gizarteak, *"ahaztuta"* izandako horrenbeste urteetan, eragindako *"kaltea"* eta *"herritarren absentismoa"* lehengoratzeko. Zera falta da: *"kalera irteteko urrats hori egitea, gure kideekin hitz egitekoa"*, azpimarratu zuen Lespadak, Bakearen Aldeko Koordinakundeko batzorde iraunkorreko kide. Maixabel Lasak azpimarratu egin zuen udalerriak toki *"paregabeak"* direla sentsibilizazio programak garatzeko. Izan ere, horietan jazo dira *"erailketak"*, han *"iraindu dira biktimak"* eta han *"goraipatu"* dira borreroak. Zentzu horretan, Lasak zoritxarrekotzat jo zituen herri batzuetan herritarren aldetik sumatutako parte-hartze eskasa, udal batzuk agertutako *"sentsibilitate"* urria eta beste batzuen erresistentzia. Arritxu Marañonek, Donostiako Udaleko zinegotzi ordezkari, 1999an topatutako zailtasunak azaldu zituen, bere Udalak, *"115 erailketarekin terrorismoak gehien zigortutako hirietako batean"*, *"lokarturik zegoen"* hiri batean garatu beharreko giza eskubideen programa garatzeko lana agindu zionean. Balioen inguruan antolatutako hezkuntzaren garrantzia nabarmendu zuen, ikastetxeetatik haratago, azkenean konpromiso pertsonala lortze aldera. *"Hori izango litzateke biktimekiko solidaritatea azaltzeko ekintza onena"*, ondorioztatu zuen Jose Angel Cuerdak lagun zahar bat aipatu aurretik: *"Jada ez da nahikoa minutu bateko isilunea egitea. Garrasizko bizitza bat behar dugu"* (*El Diario Vasco,* 2008-01-25, 37. or.).

–Nafarroako enpresaburuen lehendakariak esan du ETAren estortsioak jarraitu egiten duela. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakariak zera baieztatu zuen: *"ETAk tantaka foru erkidegoko enpresaburu batzuei bidalitako estortsio gutunak etengabekoak" dira"*. Ohartarazi zuen gutunetan *"diru kopuru altuak"* eskatzen direla, eta *"gutun berririk agertzen ez den astea izatea bitxia"* dela. Halaber, zera erantsi zuen xantaiaren inguruan: *"mota guztietako enpresaburuei eragiten die, txikiei nahiz handiei"*. Gainera, adierazi zuen gutunaren tonua *"gogorra"* dela, elkarte terroristak, 2007ko ekainean su-eten iraunkorra apurtu zuenetik, egiten duen bezala. Su-etenak iraun zuen bitartean, terroristek hainbat estortsio gutun sorta bidali zituzten: *"antolamendu terroristak estortsioaren bidetiko finantzazioa behar du, beste bide batzuk itxita dituelako"*, eta zera adierazi zuen: ETA *"gutun bat baino gehiago eta guzti bidaltzen ari da estortsionatu berdinei"*. Enpresaburuei eskatu egin zien *"irmo mantentzeko, taldea oso indargabeturik dagoelako, eta horren gainean ez dagoelako inolako zalantzarik"*. Halaber, ohartarazi zuen *"ordaintzen duena ETAren estortsio sarearen barruan dagoela, estortsio sare horrekin konprometituta"* (*El Diario Vasco,* 2008-01-26, 34. or.).

–Loiolak omenaldia egiten dio erails dako sukaldariari. Ramon Diazen auzokoek, lagunek eta senideek hura gogoratu zuten ETAren atentatutik zazpigarren urteurrena betetzen den honetan. Haren alargunak eskerrak eman zituen egunero auzokoen aldetik jasotzen dituen ardura adierazpenengatik, eta atzokoa bezalako omenaldiak *"egiten jarraitzea"* nahiko lukeela adierazi zuen. Zentzu berean hitz egin zuen Maixabel Lasak ere, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoko zuzendaria. Hark babesa eman zion alargunari, 20:30etan gordetako bost minutuko isilunean. *"Garrantzitsua da Loiolak Ramon gogoratzen jarraitzea. Horrelako ekitaldiak auzo eta herri gehiagotan*

*egin beharko lirateke. Kontzentrazioan bildu den jende kopuruak harritu egin nau"* (*El Diario Vasco,* 2008-01-27, 43. or.).

–*"Mehatxatu egiten gaituzte, baina ogia irabazten jarraitu behar dugu"*. Euskal AVEko langileek jazarpen *abertzalearen* aurrean bizi duten egoera kontatu dute. *"Enpresa pribatu batekin segurtasuna sendotu dute, baina gure aurka egin nahi badute, ez da haiek gelditzeko gai izango denik... Mehatxatuta gaude, baina eutsi egin behar diogu... Ogia irabaztera etortzen gara, besterik ez. Saiatu egiten gara guzti honen eraginak ez hartzen, baina nagusiak dei egiten dizunean eta lanera ez etortzeko eskatzen dizunean 20 txanodun harrika ari direla esanez, horrek pentsarazi egiten dizu"*. Langile gehienak euskaldunak dira. Onartu egiten dute joan den azarotik hona horrelako gertakariek behera egin dutela. Pintaketetatik eta trazatuaren eraikuntzaz arduratzen diren bulegoen aurkako harriren batetik haratago, azken 14 hilabeteetako balantzeak 14 sabotaje aipatzen ditu, datu ofizialen arabera. Kezkak gorantz egin du nabarmen orain dela gutxi jasotako mehatxuen ondotik. Herrizaingo sailburuak, Javier Balza, zera aitortu du: *"Oso adi egon beharko dugu. Segurtasun oztopo guztiak altxatuta eta alarma guztiak piztuta egon beharko dugu, ETAk Lemoizekiko eta Leitzarango autobidearekiko berdintze hori antzeztu nahi duelako"*. Taldeak bi azpiegituren aurka egindako erasoek zortzi erailketa ekarri zituzten guztira (*El País,* 2008-01-27, 14.-15. or.).

–Kale borrokak bederatzigarren erasoa gauzatu du hiru eguneko epean Bizkaiko EAJren egoitzen aurka egitearekin (*El Correo,* 2008-01-28, 24. or.).

–Eudelen 2008-2012 Plan Gidariaren aurkezpenean, haren lehendakari eta Tolosako alkate den Jokin Bildarratzek egun Euskadin funtzioak betetzen dabiltzan 2.500 zinegotziak gogorarazi zituen. Horietatik 562 mehatxaturik daude eta bizkartzaina daramate: *"Biktimekiko gizartearen errekonozimendua berreskuratu behar da euskal udaletxeen barruan, haien sufrimendua barneratu eta bakearen aldeko hezkuntza plana garatu"* (*El Diario Vasco,* 2008-01-29, 29. or.).

2008ko otsailetik eta martxoaren erdialdera bitarte –azterlanaren atal hau amaitu zenean–, mehatxaturiko taldeei buruzko bi berri azpimarra ditzakegu datu kualitatibo garrantzitsuekin[27]:

–Epaileek segurtasun handiagoa eskatzen diote Herrizaingo Sailari ETAren erasoaren aurrean. Euskal epailetzak Herrizaingo Saileko eta Barne Ministerioko bigarren arduradunekin izandako bilerari buruzkoa da, euskal magistratuek ETAren azken erasoaren aurrean agertutako kezkaren berri emate aldera. Segurtasuna hobetzeko itun batera iritsi ziren, *"fiskal eta idazkari judizial guztiak ere hartuz..."*. Bilera talde horrek Euskadin bizi duen mehatxu bereziko testuinguruan egin zen... ETAk su-etena apurtu zuenetik, taldearen indarkeriak euskal epaitegiak izan ditu lehentasunezko helburuen artean. Horiek justifikatzeko ezker abertzalearen alderdien jarduerak eten izanari eta Batasunako buruzagiak espetxeratzeari heltzen diote. Eraikinen segurtasunaren gaia ere jorratu dute orain dela gutxi epailetzak eta Justizia Saileko arduradunek. Aitzitik, orain arte ez da akordio handiegirik lortu (*El Diario Vasco,* 2008-02-27, 44. or.).

–ETAk estortsio gutunen sorta berria bidali du. Terroristek 70.000 eta 150.000 euro artean eskatzen dituzte. Gutunek otsaileko data daramate. Poliziaren iturriek uste dute 2008ko lehen sorta hori zabala dela eta 100etik gora izan daitezkeela. Sortak, Frantzian terroristei harrapatutako dokumentazioaren arabera, hilero 70 eta 130 gutun bitartekoak izan dira azken urteotan. 2006an, su-etenak iraun zuen bitartean, ETAk *"ekarpen boluntarioa"* adieraztean erabilitako etsaitasunik gabeko tonua desagertu

27 Edonola ere, kale borroka deiturikoak jarraitu egin du, eta baita egoitza judizialei eta alderdi politikoen egoitzei egindako erasoak ere. Halaber, ertzainei zuzendutako lehergailu tranpa ere egon zen.

egin da. Orain enpresaburuak bereizten ditu hurrengo multzoetan: gogoz kontra *"langileak ustiatuz"* kentzen dutena ordaintzen dutenak; euskal gatazka *"beraien arazoa ez dela"* uste dutenak eta, azkenik, *"egungo zapalkuntza egoera mantentzen atsegin osoz laguntzen dutenak"*. Mota guztietako enpresaburuei zuzentzen zaizkie, ertainak eta txikiak barne hartuz. Zenbaitetan lehenengo aldia izaten da, beste batzuetan behin eta berriro errepikaturikoa. Noizbait bidali izan zaio gutuna enpresaburuari enpresaren helbidearekin eta enpresari estortsionatuaren emazteak bidali izan balu bezala. Horrela, gutunari ezezkoa ematen bazaio, hura hartzaileari itzultzen zaio, bigarren kasu horretan enpresaburuaren helbidera eta haren emaztearen izenera. Formula horrek agerian uzte du terroristek estortsionatu nahi duten haren familiari buruz duten informazioa. Gutunek *"erabateko diskrezioa"* eskatzen dute, *"ETAren eta zure artean dagoen harreman hau existitzen dela edozein polizia kidegori jakinaraztea saihestuz"*. Halaber, zera adierazten du: *"Eskaera honi behar bezala erantzuten ez badiozu, ETAk zure aurka edo zure ondasunen aurka bideratzen dituen neurrien hartzaile izango zara"* (*El País*, 2008-02-28, 25. or.).

Labur adieraztearren, transkribatutako zati horiek elkarrekin irakurtzetik egoeraren larritasuna ondoriozta badaiteke ere, kontua da Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzak aurrera egiten duela ezer gertatuko ez balitz bezala, bildu diren gainerako berri gehienetan ere ikus daitekeen moduan. Gizarte alarma falta izatearen sentsazioa, neurri batean, gutxiengoari kaltetzearen ondorio da.

Hala eta guztiz ere, aldi honetan hainbat sentsibilizazio jardunaldi antolatu da. Azterlan honen landa lana garatu den bitartean, topaketak antolatu ziren terrorismoaren biktimen gaiaren gainean. Horiek Deustuko Unibertsitateak, COVITEk, Bakearen Aldeko Koordinakundeak, Donostiako Udalak... antolatu zituzten. Eusko Jaurlaritzako Biktimen Zuzendaritza horietako gehienetan egon zen, eta baita zenbait udalerritan egindako omenaldietan ere. Halaber, 2008ko urtarrilaren 23tik 24ra, Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko IV. Batzarra egin zen Madrilen. Topaketa horietatik antzeko ondorioak atera daitezke biktimekiko babesa eman beharrari eta terrorismoari legitimotasuna kendu beharrari dagokionez. Biktima zuzenak aipatzen dira, kalte maila handiagoa jaso izanagatik, noski; mehatxaturikoei, ordea, ez zaie ia aipamenik egiten.

## III. BANAKAKO ELKARRIZKETEN EMAITZEN AURKEZPENA

Elkarrizketak, ia guztiak, proposatutako galdera-sortaren hurrenkera jarraitzen duten transkripzioen bitartez azalduko dira. Lehen adierazi den moduan, gure elkarrizketatuen anonimotasuna eta segurtasuna bermatze aldera, zenbait datu kendu ditugu eta hainbat aldarazpen egin ditugu esanahia edota erantzun eta hausnarketen funtsezko edukia eraldatu gabe. Adibidez, nahiago izan dugu orokorrean lanbidea kanpo uztea, datuak uztartzea saihesteko.

Edonola ere, erantzun eta hausnarketa hauek elkarrizketatu diren pertsonen iritziak, gogartzeak, ezagutzak edo bizipen pertsonalak dira, eta ez Ararteko erakundearenak. Horrek ez du, inolaz ere, gure gutxiespena ekartzen erakundeekiko edota kritika daitezkeen taldeekiko. Aldiz, etorkizunean aldera daitezkeen balorazio subjektiboak izango lirateke. Errealitatearen gaineko ikuspegia da, gure elkarrizketatuek bizi duten moduan, eta, horrela, haiek erabilitako hitz berdinekin islatu nahi izan dugu orrialde hauetan.

Bertan, lehentasuna eman diogu subjektiboa denaren balioari, azterlan sakonagoak egiteko nahia pizteko asmoz.

## 1. Elkarrizketetako datuak

I.2. epigrafean adierazi diren mehatxatutako taldeetako hamasei kide elkarrizketatu dira[28]. Elkarrizketa guztiak pertsonalki egin dira 2007ko azaro eta abenduan eta 2008ko urtarrilean[29]. Gehienak Arartekoaren Donostiako egoitzan (7) eta Gasteizko egoitzan (3) egin dira. Beste toki batzuk udaletxe bat (1), egoitza judizial bat (3), unibertsitate bat (1) eta bizitoki partikular bat (1) izan dira. Elkarrizketa guztiak ahotsa gordetzen duen grabagailu digital batekin bildu ziren, eta horien batez besteko iraupena ordubete eta hogeita hamar minutukoa izan zen. Laburrena ordubetekoa izan zen eta zabalenak, berriz, bi ordu eta erdi hartu zituen.

## 2. Elkarrizketatutako pertsonen datuak

Hamabi gizon eta lau emakume elkarrizketatu dira, hogeita hamahiru eta hirurogeita bi urte bitartekoak. Batez besteko adina berrogeita lau urtekoa izan da. Elkarrizketak egin ziren garaian, elkarrizketatu gehienak Gipuzkoan bizi eta lan egiten zuten, baina hurrengo bizitoki eta lantoki konbinazioak ere topatu ditugu:

- Gasteizen bizi eta lan egin;
- Gasteizen bizi eta Gipuzkoako herri batean lan egin;
- Gipuzkoako herri ezberdinetan bizi eta lan egin;
- Arabako herri batean bizi eta Gipuzkoako beste batean lan egin;
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi eta lan egin.

Laginaren aukeraketan faboratuta irten dira Gipuzkoako eta Arabako lurraldeak. Edonola ere, Gipuzkoa, eta haren barruan Donostia, terrorismoak asko zigortu duen lurraldea da, batez ere mehatxu eta hertsapen terroristen aldetik. Gainera, orokorrean, nahiz eta erabateko oreka gorde gabe, kontuan izan dira hirien eta landa esparruen artean dauden aldeak. Edonola ere, berriro adierazi nahi dugu azterketa honen helburua ez dela egoeraren ordezkari izatea, baizik eta hasierako hurbilketa eta azterketa bat egitea. PP eta PSE alderdietako zinegotzi mehatxatuen taldeetako kideek, unibertsitateko irakasleek, kazetariek, espetxeetako funtzionarioek, polizia nazionalek, ertzainek, guardia zibilek, epaileek, fiskalek, militarrek, udaltzaingoek eta bizkartzain pribatuek parte hartu dute.

[28] Beste talde batzuk jasaten duten biktimazio larriaren eta azterlan osagarriak beharrezkoak izatearen kaltetan izan gabe.

[29] Salbuespen modura bi elkarrizketa egin ziren martxoaren hasieran, orduan bakarrik izan baitzen posible harremana eratzea eta mehatxaturiko talde horretako pertsonen onarpena eskuratzea.

# 3. Elkarrizketaren edukia

## 3.1. Biktimazio esperientziak

### *3.1.1. Iraupena*

**Noiztik jasaten dituzu ekintza terroristei edo antzeko inguruabarrei uztartutako jazarpena, mehatxuak edota hertsapenak? Zer nolako maiztasunarekin jazotzen dira horiek? Denboran zehar mehatxuekiko nolabaiteko "egokitzapena" egin dela uste al duzu?**

*–Zortzi bat urte. Ezohiko egoera batera ezinezkoa da inoiz egokitzea, gizarte osoa ez delako inguruabar horiek bizitzen ari. Egia da bakea topatzeko irekitako azkeneko prozesuarekin arnasa hartu dugula, oxigeno baloi bat izan da. Zortzi urteak erritmo berdinarekin egon izan bagina, ez dakit zer aguantatzeko gai izango ginatekeen.*

*–Une honetan ez dago irain edo iseka pertsonal zuzenik, bai, ordea, edozein unetan tiro egin edo erail diezazuketela jakitearen presioa, mehatxatu orokor izateagatik. Presioa sumatu egiten da goizean etxetik irtetean eta bizkartzainak zain dituzula ikustean, eguna amaitu arte zurekin izanez. Ibilgailura igo edo handik jaitsi behar duzun bakoitzean, askatasun galera itzela, itzela, igartzen da... Nik uste dut biziz gero bakarrik uler daitekeela, baina askatasun galera oso handia da. Horren froga da kanpora zoazenean, eta bizkartzainik gabe ibili eta kafe bat hartzen duzunean, egunkaria erosi... ez dituzun balio batzuk berreskuratzen dituzula.*

*–Mehatxatuta egoteaz jabetzea, edo, behintzat, zure izena edo zure familiarena komando baten paperetan agertzen dela esaten dizuten lehenengo aldia, eta, aldi berean, aspalditik agertzen ari dela jakiten duzun unea lankide bat hil baino pixka bat lehenago izan zen, orain sei urte edo. Lehen intuizioa nuen, eta ondoren izan dudana baino beldur gehiago nuen... Mehatxua lausoa zenean, mehatxaturik egon nintekeela uste nuen, baina inork ez zidan ezer esaten. Ezjakintasun hori, norengana jo ez jakite hori... beti sortzen zaizu buruan, beharbada mehatxaturik egongo naiz... Komando bat erortzen zenean, jasangaitza egiten zitzaidan polizia agertu eta, benetan, mehatxaturik nengoela esango zidanaren ideia... sinetsi eta nahi izan ez horri nion beldurra... Gizakiak egokitzeko gaitasun izugarria du, eta mehatxatuta egotera "ohitu" egiten zara, esaera hori erabil badaiteke behinik behin. Ziurrenik jada ez duzulako horri buruz pentsatzen, jada ez duzu beldurrik, inkontzienteki edo beldurrik ez izateko lana hartzen duzulako. Izan ere, beti beldurrarekin bizitzea duintasun gutxikoa da, ez dakit nola azaldu... Zenbait unetan, kaletik zerbait arraroa ikusten duzunean... Nire familiak nik baino okerrago bizi du, adibidez nire amak, adinekoa delako jada, eta oso gaizki bizi du... mehatxupean seme bat izatea, bere hirian, bere auzokoen aldetik... Lagunek ere oso gaizki bizi dezakete.*

*–Bizitzak aldatu egiten zaitu erabat, ez mehatxupean izateagatik, baizik eta mehatxutik babesteko egin behar denagatik. Askatasun falta izugarria da, eta denborarekin okerrera egiten du, ez diozulako amaierarik ikusten... modu ankerrean eragiten dizu bizitzaren maila guztietan...*

*–Inoiz ez dut zuzeneko mehatxurik jaso. Zeharka bai, mehatxupean dagoen talde batekoa izateagatik orain bederatzi urtetik hona, eta, batez ere, hemen orain zortzi urtetik hona bizi naizenetik... Hasieran, lankideekin aipatzen nuen ea nola ziren gai honetara ohitzeko eta zera erantzuten zidaten: "lasai, ohitzen amaituko duzu edo bestela joan egingo zara"... eta ez dago erdibideko konponbiderik... azkenean egia da pixka bat ohitu egiten zarela.*

*–Arriskuko edo mehatxupeko talde bateko kide naiz, orain zazpi urtetik hona. Inoiz ez zara ohitzen, ezinezkoa delako ohitzea. Baina, bai, azkenean egokitu egin behar zara mugitzeko modu baten barruan eta, nolabait, zure gain hartzen saiatzen zara.*

*–Talde bateko kide naizenetik, Miguel Angel Blanco erail zutenetik, ordudanik jabetu ginen edozeini gerta dakiokeela, eta, batez ere, bizkartzaina jartzen dizutenetik, nire kasuan orain dela hamar urte... Eta une horretatik aurrera erlaxatu egiten zara, ohitzen zoaz, normaltzat jotzen dituzu hasiera batean normalak ez diren egoerak... Gizakia guztira egokitzeko gai da, hori oso txarra bada ere.*

*–Orain bost hilabetetik hona mehatxupean dagoen talde bateko kide naiz. Hala eta guztiz ere, sei edo zazpi urte bizkartzainarekin daramaten senideak baditut lehendik...*

*–Bizkartzain gisa zazpi urte daramatzat bi pertsona ezberdinekin, eta, aldizka, baita beste batzuekin ere... denborarekin, errutinak hondatu egiten zaitu pixka bat...*

*–Orain hamalau urte inguru, lanean hasi nintzenetik, nire taldea mehatxupean dagoen taldea da... Ordudanik, nolabait, mehatxupean edo hertsatuta sentitu naiz...*

*–Lau urte eta erdi ingurutik hona mehatxupean dagoen talde bateko kide naiz, eta bizkartzaina eraman behar izan dut eta egun daramat... Hasieran, beharbada, herriko jendearen aldetiko mesprezua edo nigana hurbiltzeko beldurra sumatu nituen... betidanik ezagutzen nituen horien aldetik... jende ezaguna ikusten nuen... eta espaloiez aldatzen ziren "kaixo" esan beharrik ez izateko... Hori oso hasieran gertatu zen... Egun esan behar dut agian jendearen konfiantza irabazi dudala, benetan uste dudalako lan ona egin dudala... herriko jendearen alde... gaur jendea hurbildu egiten zait, eta "goazen kafe bat hartzera" esaten didate, eta hori bada urrats bat... Zentzu horretan oso kontentu nago.*

*–Bizkartzain pribatu modura hasi nintzen orain hamar urte baino gehiago, eta lan honetan sei urte edo daramatzat. Pertsona ezberdinentzat egin dut lan... Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera hasi nintzenean, egoera latzagoa zen mehatxaturikoentzat... orain badirudi mehatxua bizkartzainarentzat ere badela.*

*–Hemezortzi urte daramatzat mehatxaturik dagoen talde batean lan egiten... azken bake prozesuaren ondoren, badirudi serioagoa dela, eta segurtasun neurriak hartzen ditut... prozesu horrek iraun zuen bitartean, erabatekoa zen hau bukatu egingo zenaren konfiantza, guztian igartzen zen, jendean, etortzen ziren turistetan, jendea lasaiago sumatzen zen...*

*–Orain dela hamar urte izan zen mehatxu gehien sentitu nuen unea... eta Euskaditik joatea erabaki nuen.*

*–Orain hamahiru urtetik hona, eta, zuzenago, orain sei urtetik hona... Gu etxebizitza batean geunden... atentatu bat jasan zuen beste baten ondoan... Atentatu horretatik aurrera... ba, ibilgailuaren behealdea begiratzen duzu, zure ondoan urratsak sentitzen badituzu, nor den begiratzea...*

*–Mehatxaturiko talde modura, mehatxaturik nago hona iritsi nintzenetik orain dela hogei urte ia... Hasieran, lehenengo zazpi urteetan, ez nintzen gai zenbait zonaldera joateko, beldurragatik edo nolabaiteko tentsioa saihesteagatik, norbaitek ezagutuko ninduen beldur. Orain bai... uste dut ni aldatu egin naizela, eta baita gainerako herritarrak ere, "txakurra" deitzen dizun gutxiengo bat izan ezik... Azkeneko su-etenarekin, nik zera esaten nuen: haiek daude etenean, ni ez... nik ez nuen sinesten, oker egotea gustatuko zitzaidan arren... Sumatu nuen gauza bakarra kale borrokak beherantz egin zuela izan zen... Etengabe zure burua babesteko neurri batzuk gain hartu behar dituzu...*

*–Mehatxatuta igarotako urteak baino, sentsazio bat da... Jazotzen joan diren gertakariekin du zerikusia... honek berrogei urte daramatza jada, eta ezingo nuke data bat eman... hori bai, mehatxaturik dagoen talde honetakoa naiz orain hogeita hamar urte baino gehiagotik hona... garai batzuk beste batzuk baino latzagoak izan dira... ETAren gaitasuna gorabehera...*

*–Eraman dituzten nire bizitzako zazpi urte dira... azken bake prozesua iragarri zuten egunean irteten ari naizen depresio batean sartu nintzen... mehatxuen egunerokoan bizitzen jarraitu behar duzulako, zure lagunek ongi ikusi behar zaituzte... eta,*

*bat-batean, konponbidea iritsiko zela zirudienean, nire bizitzako zazpi urte galdu nituela ohartu nintzen... nire semearen nerabezaroa, horrenbeste gauza nire bikotearekin... horrenbeste gauza horrenbeste alorretan... jendeak bere biziarekin jarraitu duelako... baina zu bilduago egon zara, gutxiago irten zara...*

### *3.1.2. Eraso mota*

**Jasaten dituzun ekintza moten adibideak jarri eta horiek non eta noiz jazotzen diren adieraz diezagukezu?**

*–Asko izan dira... ordu eta toki ezberdinetan. Irainak eta mehatxuak gogoratzen ditut. Nigan eragin handiena izan zuena, eta ez naiz beldurtia, baina hor beldurtu egin nintzen, lehen ere egin bazidaten ere... Gau batean, pertsona talde batek "hiltzaile" egin zuen oihu nire abizenarekin, ordu erdiz. Familia lotan izanda, badirudi ondoan zeudela... esnatu egiten zara, zuri "hiltzaile" deika ari direlako zure intimitatean bertan... Lehenik eta behin, oso gaizki pasatzen duzu beldurtu egiten zarelako...; bigarrenik, kale osoarengan pentsatzen duzu, auzokoak, jende guztia. Beno, hurrengo egunean... inork ez zuen ezer esaten... ez dute ez solidaritaterik agertzen, ez ezer... normala balitz bezala. Batetik, beldurra jasaten duzu eta, bestetik, abandonatuta sentitzen zara... Erakundeen aldetiko utzikeria ere izan da.*

*–Nire gurasoen etxera nindoala, nire ama eta ilobarekin nindoan. Ibilgailutik jaitsi behar nuen unean bertan, herriko taberna bateko jende talde bat irten egin zen ni iraintzera. Nire iloba korrika atera zen beldurrez etxearen atariraino... Amorru bizia ematen dizu bizitza normala egin ezin izateak maiteen dituzun horiekin. Beti kontuan izan behar duzu normaltasunik gabeko inguruabarra dagoela, eta hori hain dela handia, min itzela egiten dizula.*

*–Gutunak pila bat. Gutunak bidaltzen dizkidate nire lanera mehatxuekin, iraindu egin naute eta zuzenean mehatxatu nire lanean, "badakit nor zaren, zure aurpegia gogoan dut" bezalako esaldiekin.*

*–Mehatxatutako taldeetako hiru pertsona paseatzen ari ginen hiri erdialdean, afaldu ostean, eta "hiltzaile" egin ziguten garrasi, eta guk pentsatu genuen: norentzako izango da? Aukerak hirurok genituen. Hori izan zen lehenengo aldia...*

*–Nire izena ETAren zenbait paperetan azaldu da... nik badakit niri eraso egiteko gogoa dutela.*

*–Lehergailu bat jarri zuten nire gurasoen etxean, ni han bizi nintzela uste zutelako... hori zuri jartzea baino okerragoa da. Oso gaizki sentitu nintzen, baina babesgabetasunean zaude eta ez duzu oso gaizki ere sentitzeko eskubiderik, pareta baten aurka zure burua jotzea bezalakoa delako. Ahalik eta lasterren gainditu egin behar duzu, eta behatzak gurutzatu jende horri zure familiaren aurka ezer ez egitea bururatu ez dakion... Komando baten paperetan azaldu naiz...*

*–Lan egiten dudan tokian gaizki begiratzen zaituzte, behatzarekin seinalatu egiten zaituzte... noizean behin pintaketaren bat agertzen da, taberna batera sartzera zoazenean begiratu edo zuri buruz ari direla igartzen duzu. Indarkeria fisikoa... jasan dudanik ezin dut esan... baina egia da, zenbaitetan, okerragoa dela zomorro arraro bat bazina bezala sentitzea ezberdin pentsatzeagatik bakarrik. Zerbait psikologikoagoa da... erasotzaile sentiaraztea da, erasoa jasan duen alderdia bezala baino, gertatzen ari zaizunaren errua zuk izango bazenu bezala. Egoera bitxia da, onartzen zaila. Inoiz ez diot kalterik egin inori. Honetan nabil defendatzea merezi duten ideia batzuk ditudalako, eta norbaitek defendatu behar dituelako. Guztiok ezin ditugu eskuak garbitu eta "niri beldurra ematen dit" esan, beldurra guztiok dugulako, nik ere beldurra dut. Ez da arrazoiz kanpoko beldurra... baina ez duzu ulertu ere egiten, ez nabilelako ezer txarrik*

*egiten ari... bizi duzun egoera bizi behar izatea beste era batera pentsatzen duzulako, beraz, tristea da benetan... Tristea iruditzen zait gizarte modura, orokorrean...*

*–Ni bizi naizen tokian, bizkartzaina jarri zidaten arte, ni pertsona anonimoa nintzen... inork ez zekien zer pentsatzen nuen..., ezta lan zertan egiten nuen ere... Orain, txakurra ateratzea edo ogia erostera joatea bezalako gauza sinpleak egiterakoan, lagunduta ikusten naute... hirugarren egunean harritu egiten dira... Bizi naizen tokian, lasai bizi naiz... lan egiten dudan tokian, ordea, ez, han bizi izan naizelako bizitza osoan eta mundu guztiak ezagutzen nau... badakite zer pentsatzen nuen... eta orain aurpegia ematen zabiltza... Gainera, aurpegia ez ezik, ahotsa ere bazara... inork ezin ditu beste pertsona baten ideiak mugatu... Hor beti egon beharko da norbait aurpegia emateko... Nik ulertzen dut beldurra askea dela, jende askok atzera egitea... betidanik ezagutzen zaituen jendeak, bizkartzainarekin ikustean, kasu egitea edo zurekin hitz egitera gelditzea saihestea... edo onartu egiten duzu edo une txar ikaragarriak hartzen dituzu, baina hori da dagoena... Min gehien egiten duena ez da jendearen errefusa, hasieratik argi baitut errefusatu egingo nautela... benetan min ematen duena hitz egiteari uzten dion edo saihestu egiten zaituen jendearen errefusa da, lehen horrelakorik egiten ez zuenean, zuk lagunak zirela uste zenuenean... eta zurekiko jarrera aldatu egiten dutela sumatzen duzu...*

*–Pertsonalki ez dut mehatxurik jaso... gogoratzen dudan gauza bakarra da herri batean, erakunde ekitaldi batean, gertatutakoa... bizkartzaina nintzela igarri zuten eta batek esan zuen "jendaila ugari dago hemen"... Nik babesten dudanari bai, hari gertatu zaio herri batean, terraza batean egon eta alde egin behar izatea arrautzak botatzen zizkiotelako... Udaltzaingoak erail zituztenean nik oraindik ez nuen lan egiten... Tentsio gehiagoko uneak badaude, Donostiaren egunean, Salbean, egon izan dira irainak...*

*–Inoiz ez dut mehatxu pertsonalik edota irainik izan...*

*–Zuzenean bitan bakarrik egin dut talka nirekin tinko sartu diren bi pertsonarekin... ahozko erasoak, irainak... Ondoren oihu orokorrak ere izan dira osoko bilkuraren batean... Beste gauza bat da zeharka bizkartzaina eraman behar izatea... Talkak kalean izan ziren, lan egiten dudan herrian... asko ezagutzen nituen pertsonekin...*

*–Auzokoa eta betidanik laguna izandako bat, ezker abertzalearen aldekoa hura, eta nik topo egin genuen jai batzuetan... eta nire jardunari buruz galdetuta, bizkartzain pribatua naiz, zera esan zidan: "jakizu behar denean armak hartzeko prest nagoela, besterik gabe kontu izan dezazun...". Egia da pertsona horrek behar baino gehiago edan zuela, baina ni mehatxaturik sentitu nintzen pixka bat... Bestalde, bizkartzain gisa jardutean, ez dut nik babestutakoen aurkako mehatxu zuzenik sumatu.*

*–Mehatxatutako talde bateko kide naiz, eta nire ibilgailu pribatua zerrenda zabal batean agertu zen... Lanean jaso izan ditut irainak, bai, eta nire taldearen aurkako pintaketa orokorrak badaude... nire ama bizi zen etxeko atarian pintaketa batzuk jarri zituzten, bazekien nor zen, harekin hitz egin nuen eta horiek kentzeko eskatu nion, eta kendu egin zituen. Ez dira berriro agertu... agian pentsatu zuen bestela salatu egingo nuela...*

*–Orain hamar urte edo, joateko erabakia hartu nuen. Urtebete lehenago pintaketaren bat izan nuen, mezu anonimoak jaso nituen... irainik ez... inoiz ez ziren hain ausartak izan... gero, aurrerago, lehergailua zeraman pakete bat bidali zidaten. Orduan izan zen hemendik alde egiteko aukera planteatzen hasi nintzen unea... Orain, Euskaditik kanpo, ez dut nire burua mehatxaturik sentitzen... lur honetako kide ere ez naiz sentitzen jada...*

*–Oso gutxitan iraindu naute... Terrorismoagatik atxilotutako batzuk badaude, gero kalean topatzen dituzunak... begiradak trukatzen ditugu... noizbait nire lagunei esan izan diete "hau polizia da... ez dakizue norekin zoazten"... Behin panfleto txiki bat bota zidaten postontzian "¡boom!" adieraziz... auzoko bat zen... hari bera izan zela nekiela ikusarazi nion eta ez zen besterik izan.*

*–Inoiz ez dut irain edota gutun pertsonalik jaso… baina kide asko hil dituzte…*

*–Bizi ginen tokian beti zeuden "joan zaitezke behingoz" bezalako pintaketak… agian ez ziren pertsona bakar baten aurkakoak, baina…*

Azkenik, eraso motari dagokionez, bigarren mailako iturri modura, Gipuzkoako denda bateko titularrak orain urte asko jasotako ETAren gutun bateko zati bat transkribatu nahi dugu[30]. Enpresaburu askok jasotzen duen mehatxu eta estortsio motaren adibide da: *"Zu, eta zure klasekoak, egoera honen arduradun zuzenak zarete, ideologikoki eta ekonomikoki euskal langileak zapaldu eta ustiatzen dituen Estatu Poliziala eusten ari zaretelako zergak ordaintzearekin. Ondorioz, logikoa da trukean ETAk derrigorrez eskatzea zuk atsegin osoz gure etsai nazionalei eta klasekoei eman ohi diezuna: Euskal Herri Langilearen borrokan laguntzeko kopuru ekonomiko bat. Eskatutakoa egin ezean, zure jarrera euskaldunen kontrakotzat joko da argi eta garbi, eta horren araberako tratua emango zaio. Horrela, bada,… baino lehen, harremanetan jarri beharko zara… jaunarekin euskal baliabideak erabilita. Hari… entregatuko diozu zenbaki txandakatuko billete erabilietan, edo, bestela, atzerriko txanponen batean. Ez baduzu eskatutakoa epe barruan egiten, bilatu egingo zaitugu zu exekutatzeko. Polizia jakinaren gainean jartzen baduzu, edo edozein motatako inguruabarrik gertatuko balitz, berdin exekutatuko zaitugu Europatik irtenda ere…"*.

### *3.1.3. Erasotzailearen identifikazioa*

**Noizbait identifikatu al duzu erasotzailea? Zure udalerri edota auzo berdineko norbait dela uste al duzu?**

*–Bai, batzuk betidanik ezagutzen ditut… bat edo beste datuak biltzen zebilen nire aurkako atentatua bideratzeko eta atxilotu egin zuten. Noski, iraintzen zaituen jendea ezagutzen zaituztenak dira… baina konpentsazioa da pentsatzea nik demokrazia defendatzea dela haiei enbarazu egiten diena.*

*–Ez, nire auzoan niri buruzko informazioa pasako duela uste duzun jendea identifikatzen dut, inguruan dabiltzala ikusten duzu. Guztiok elkar ezagutzen duten hiria da; zure etxeko atariaren inguruan dabilen jendea ikusten duzunean, badakizu zu kontrolatzen egon daitezkeela…*

*–Etxe bat erostea pentsatzen duzunean, goian edo behean egon daitezkeela pentsatzen duzu… Sentsazio hori oso gaizki bizitzen da, egia esan okerren daramadana da… ezin da inorekin intimitaterik lortu. Hainbatetan aldatu dut etxebizitza; aldatu nintzen aldi horietako batean, neurri batean, auzoko batek nire lantokian ikusi ninduela uste izatearen susmoa nuelako izan zen. Aldi berean ezezagunak eta auzokoak diren pertsonek, nire lanbidea ezagutzen dutenek, etxebizitza aldaraztera eraman ninduten.*

*–Ez naiz segurtasunik gabe sentitzen, baina nire hirian eta nire auzoan oso ezaguna naizela sentitzen dut.*

*–Norbaitek etxearen atariko atea ireki behar izan zuen lehergailua jartzeko, baina ez dut ikertu nahi izan ez baitut uste gauza handiegirik ekarriko didanik.*

---

[30] Pertsona horrek gutuna utzi zigun, eta anonimotasunean mantentzea nahiago du.

*–Nire herrian guztiak gara ezagun, oso argi dugu... haiek gobernatzen dute, baina zerbaitetarako laguntza behar dutenean, badirudi hobeto tratatzen zaituztela... Nik jendea gonbidatuko nuke herrietan osoko bilkura bat bizitzera... bilkuretara ezker abertzalekoak bakarrik joaten diren horietakoa... eta udal politika gutxi jorratzen da horietan, benetan jendeari axola zaiona izaki... galderen eta eskeen unea iristen denean, estatu mailako makropolitikara igarotzen gara... eta hautetsiak esaten ez dizuna, jendartean dagoenak esaten dizu... Osoko bilkuretara joateko gonbitea luzatuko nuke, jendeak zer nolako tentsio egoerak bizi ohi diren jakin dezan, mehatxukoak... Zenbaitetan oso bakarrik sentitzen zara... izugarri bakarrik... badakizu zuri botoa eman dizun jendea badagoela, ez zaude hor egoteagatik... badakizu zuk bezala pentsatzen duen jendea badagoela, baina gero lau urte igaro arte ez duzu sentitzen berriro zurekin daudenik... Azkenean gizarte gai bat da... keinu polit eta monumentu ugari dago, baina azkenean gauzak sentitzen dituzun unea buruz burukoan da... kalean... Jendeak bere arazoa ez denez, bere egunerokoa ez denez... eta jendea oso berekoia da... axolagabetu egiten da... faltan botatzen dut parte-hartze gehiago.*

*–Maila pertsonalean... lagun min baten arreba... garrasika ikusi nuen osoko bilkura batean... eta gero agurrik ere ez dizu egiten...*

*–Pertsona ezaguna naiz lan egiten dudan tokian, herrikoa naizelako, nahiz eta hainbat urtetik hona hirian bizi izan naizen...*

*–Hauteskundeetako zerrendetan sartzeko herriko jendea ez topatzea presioaren adibide da...*

*–Nire talka zuzenak ezagutzen nuen herriko jendearekin izan dira... zain dauden begiak egongo dira, bai... Ni oso euskalduna naiz, euskararen defendatzaile handia, euskaraz hitz egiten dut... mehatxuen egile izan daitezkeen horiek ere... ikusten dute hori... hori bai, ni ez naiz fio... oso gaztetatik pertsona borrokalaria izan naiz herrian... hirurogeita hamalaua baino askoz ere lehenago jaiotakoa... demokrazia gainerako guztiaren gainetik defendatzen zuenetako bat nintzen, horrek garai hartan esan nahi zuenarekin... Alderdi horiek guztiak... jendeak ezagutzen ditu eta ezin naute deitu ohi nautena deitu... Bizitokitzat dudan etxean ez dut segurtasun falta sumatzen... are gehiago esanda, segurtasun neurri jakin batzuetarako, auzotar elkarteak ez zidan inolako trabarik jarri... ezker abertzalearen aldeko jendea eta guzti egonda ere...*

*–Euskadiko zonalde gatazkatsu batean bizi naiz... ni ez naiz joaten haiek dauden tokira, eta haiek ez dira etortzen ni nagoenera... gu hemen hezi gara eta onak garela uste dugu, eta haiek gaiztoak, eta ez dugu zertan joan... ni haiekin hezi naiz eta ikasi dut... eta ez naiz zaintzapean sentitzen... nik ez dut inoiz esan zertan egiten dudan lan, baina mundu guztiak daki... eta ez dut arazorik izan... elkar lagundu behar dugu, gutxi eta koldarrak dira...*

*–Nirekin batera hazi diren pertsonak... une bat iritsi zen kasurik ere egiten ez zidatela... eta harriak botatzen dizkizute... eta harritu egiten zara... laguna zen eta... Nik uste dut haietako askok ez zigutela ezer egin ezagutzen gintuztelako... guk haiek bezain beste... agian horregatik ez gara haien beldur, aurpegi bat dutelako... are gehiago esatearren, helburu errazagoa gara...*

*–Pentsatzen dut Ikasle Abertzaleakekin zerikusia zuten ikasleek... ingurune hori... gure aurrean jartzen zela gu iraindu eta mehatxatzera... fakultatean kontzentrazioak-eta egin izan direnean... Nire ikasleek terrorismoarekin zerikusia duten gertaerengatik zigortu izan dituzte...*

*–Auzoko bat izan zen postontzian paper bat bota zidana... arreta handiagoa izan behar nuen topatzen nuen kasuan... orain alde eginda dago... haren aitak jarraitzen du bertan, eta eremu berdinekoa da hura ere...*

*–Ez dut segurtasun falta sumatu... edota nire etxebizitza zaintzen zutenik, bai, ordea, senitartekoren batenean, auzokoren baten aldetik... banekien komunitate horretan atxilotutako pertsonak zeudela, eta gutxi joaten zara hara noski... ETAn amaitu duen institutuko ikaskideren bat izan dut... topatu egiten dituzu eta begiratu egiten zaituzte "badakit nor zaren" esango balute bezala...*

*–Auzoko batzuekin ere sumatu izan dugu lasaitasun falta... uniformea barrutik zintzilikatu behar dugu...*

### *3.1.4. Salaketa jartzea*

**Salaketarik jarri al duzu? Egin baduzu, norbaitekin aipatu al duzu? Unea iritsita, salaketa jarriko al zenuke?**

*–Inguruabar batzuk ez, senitartekoak deklarazioa egitera behartu behar nituelako eta okerragoa zela iruditu zitzaidalako. Publikoki inoiz ez dut salatu nahi izan, uste izan dudalako haiei mesede egitea zela... gehiago ausartzen dira, egin dizuten kalteaz jabetzen dira. Nire izen-abizenekin egindako jopuntuengatik behin bakarrik jarri dut salaketa. Etxeko atarira sartzera nindoala, tinta gorriz zikindutako panpina topatu nuen "hil egingo zara" jartzen zuen kartel batekin. Ertzaintzari deitu nion eta hiru ordu laurden-edo behar izan zituen iristeko; haiek esan zutenaren arabera, panpinarik ez zegoen, nire senide batek ere ikusi zuenean. Gure burutazioak izan zitezkeela esan zuten... Agian hori da poliziak egin beharreko lana, baina ni gaizki sentitu nintzen. Zerbait gertatzen zaidan bakoitzean haiei deika nabilen pertsona izango banintz... baina ez diet inoiz hots egin. Deitu dudan aldi bakarra, zerbait gehiago zela iruditu zitzaidalako izan zen... bazirudien etortzeko gogorik ez zutela... Ertzaintza iristean panpina bertan ez egotea are okerragoa zen, noiz iristen nintzen kontrolpean zutelako eta gero kendu... Hurrengo goizean, lanera irten nintzenean, panpina berriz jarria zuten (edo han egin zuen gau guztia, ez dakit), baina han zegoen behinik behin. Orduan Polizia Nazionalari deitu genion; haiek panpina hartu zuten, hatz markak atera eta gertu bizi zen beste bat iraintzera ere joan ohi zen pertsona bat atxilotu zuen. Beste era batera esanda, ez ziren paranoiak, ez nintzen ezer asmatzen ari... Are gehiago esanda, poliziaren aurrean salaketa bar jartzen duzunean, sentitzen duzu gizarteak asmatzen ari zalera uste duela, gezurra izango dela... eta horrek min handia ematen dit, izan ere nork du horrelako zerbait salatzeko gogoa, nahi duzuna zuri ezer ez gertatzea denean? Une hartan ez nintzen oso ondo tratatua sentitu.*

*–Salaketa jarri ez arren, ez naiz lankideei asko kontatzen dien horietakoa; bikoteari bai, elkarrekin bizi dugulako... egun batean zuk duzu jopuntua, beste egun batean beste batek du... baina ez dugu biktimismorik egiten horretako ezeren gainean. Agian garaipen handia gurea da, eta, ondorioz, terroristen porrot handia da hainbat urte eta gauzaren ostean oraindik burutik ondo gaudela eta lanean jarraitzen dugula... eta karga pertsonalagoa bezala daramat, intimitate gehiagorekin, nire gurasoei ere aipamenik egin gabe prentsan berriren bat ateratzen ez bada behintzat.*

*–Lanean jasotako gutun eta mehatxuei dagokienez, ez dut salatu... ez beldurragatik. Ordezkatzen ditudan erakundeei eraso egiten badiete, orduan bai, erakundeen duintasuna oso garrantzitsua delako... baina eraso pertsonala ez. Lotsagatik? Ez dakit. Salaketa horrek nora eramango nauen ez dakidalako? Guztitik pixka bat.*

*–Bai, nire hurbileneko ingurunean aipatzen dut... lotsatia naiz... Zenbaitetan, pertsona batzuk errentagarritasuna ateratzen diote honi guztiari, eta hori izugarria iruditzen zait. Orduan inoiz ez dut nahi izan horrelako zerbait gertatzea niri.*

*–Horrelako zerbait pasako balitzait, salatu egingo nukeela pentsatzen dut, baina kasu bakoitza ikusi beharko litzateke.*

*–Estortsio gutun bat jasoko banu, dudarik gabe gertatutakoa Segurtasun Indar eta Kidegoen aurrean salatuko nuke, argi eta garbi.*

*–Lehergailua jarri izana salatu genuen, kalte materialak izan ziren. Egun hartan hiru lehergailu egon ziren hiru etxebizitzatan, Ertzaintza etorri zen.*

*–Nik nire senide bat begia ubelduta eta ezpaina zaurituta zituela osoko bilkura batera etortzen ikusi dut, eta, bai, salatu egin zuen, epaiketa izan zen... Beste senide batek uste dut ez zuela salatu eta jopuntuak jarri dizkiote bere izenarekin, salatu du Udalean... Udalbatzak akordioa onartuta du horrelako pintaketak 24, 48 orduko epean desagerrarazteko. Praktikan hori ez da betetzen, beti dago aitzakiaren bat: "ez dago denborarik", "...herriarentzat diru asko dela ulertu behar duzue"... Gainera zu errudun sentiarazten zaituzte.*

*–Iruditzen bazait garrantzitsua dela, bai, salatuko nituzke mehatxu edo hertsapenak...*

*–Ez dut salatu ahozko talkak izan zirelako... ez nituen serioski hartu... erantzun egin nien... Nik nire bizkartzainei beti esaten diet inor ni iraintzera hurbilduz gero, esku ez hartzeko inolaz ere, nahikoa naizelako ni erantzuteko... norbait ni jotzera hurbiltzen bada..., ez dut beste masaila jarriko...*

*–Nire amaren auzokoaren pintaketarenarekin ez nuen nire burua arriskuan ikusi; tontakeri bat zela pentsatu nuen, ez nuen salatu... Zuzendu egin zuen eta kito... epaiketara bagoaz, zer egingo diote pintaketa batengatik?... Haren hitza da nirearen aurka... frogatu egin behar da bera izan dela...*

*–Mehatxu bat zen erabat... eta nire nagusiari jakinarazi nion... baina, azkenean... ez zen jarraitzeko beharrik izan... Salatu nahi ez duen jendea egon daiteke, agerian ez geratzeko edo agian beldurra dagoelako nor izan den zehazterakoan erratzeko...*

*–Salatzeko moduko mehatxua jazoko balitz, ez dakit zer egingo nukeen... egoeraren arabera, pentsatu egin beharko nuke...*

### *3.1.5. Segurtasun eza sumatzea*

## Nola baloratzen duzu jazarpena segurtasun ezaren pertzepzioaren aldetik eta gertaeren larritasunaren aldetik?

*–Bai, segurtasun faltan sentitzen naiz, ezingo nizuke esan zein portzentajetan.*

*–Nire pertzepzioa da egoera ez dela orain hamar urte bizi zena bezalakoa... orain hamar urte, orokorrean, egoera tentsio gehiagokoa zen...*

*–Noiz edo noiz planteatu diot neure buruari hemendik joatea. Gainera, ez dut esaten azkenean ez dudanik egingo, mundua ez baita hemen amaitzen... Ez da erraza horrelako giro gogorrean lan egitea, konplexua da.*

*–Bai, guztiok daramagu bizkartzaina. Batzuetan bizkartzainik gabe alde egiten duzu, bizitza, bizitza delako... Une horretan da babesgabetasuna gehien sentitzen duzun unea, batera eta bestera begiratzen duzu, zerbait arraroa egiten dutenei begiratzen diezu... zentzumenak aktibatu egiten dira, arnasa azkartu, beldur pixka bat pasatzen duzu...*

*–Egun, orain hamar urte baino lasaitasun gehiagorekin bizi da egoera... eta ez dakit noraino den hori ona... Orain urte batzuk nik beldur gehiago nuen bizkartzaina jarri zioten nire senidearengatik nigatik baino, eta orain ni naiz lehenengo pertsonan gauza bera bizitzen dabilena...*

*–Bizkartzain naizen partetik, uste dut gure babespean daudenak seguruago sentitzen direla gurekin... Mota guztietako pertsonak daude, bakoitza mundu bat da.*

*–Nire segurtasun eza da hiriko zonalde batzuetara joateko ausardiarik ez dudala... Nik egoera normalean baino segurtasun falta gutxiago sentitzen dut, bizkartzaina daramadalako... Beste batzuk ez daude ni bezain babestuak... Segurtasun eza da nik ezin dudala iritzia aldatu nire bizkartzainei etxetik ez ateratzea erabaki dudala jakinarazi badiet... orduan ez naiz kalera irteten bizkartzainik gabe irten beharko nintzatekeelako eta, hain zuzen ere, hori da ez ateratzearen arrazoia, segurtasun falta... Are gehiago esatearren, poliziekin eurekin ere, badira saihesten ditudan zonaldeak...*

*–Terrorismo ekintzak intentsitate gutxiagorekin jasotzen dituen zonalde batetik nator… baina betidanik bizi izan naiz horrekin… Atentatuak gogoratzen ditut txikitatik… orduan hona iristen zara, eta intentsitate gehiagokoa da, baina animoen aldetik prest zatoz. Aitzitik, nik trauma handiagoa sumatzen dut kanpotik datozen lankideekin, gehienak… Ezinegon handiarekin etorri ohi dira, ez bakarrik beren iritzi pertsonalagatik, baita senitartekoen presioagatik ere. Orduan, nire lehenengo funtzioa haiek lasaitzea da, segurtasun neurriak azaldu… haiek bai datozela ezinegon handiarekin… denborarekin tentsioa lasaitzen doa, behar baino gehiago zenbaitetan…*

*–Nik beldurra ez dut inoiz izan… arreta izan dut… uste dut beldurrarekin ezingo nukeela egunero lan egin… Hori bai, beti esaten dut guztiak zozketaren barruan bagaude, ni ere bertan nagoela… baina ez dut beldurrik…*

*–Aldea igarri egiten da bizkartzain pribatu modura hirietan edo herrietan bizitzen diren pertsonak babesterakoan… Herrietan guztiek ezagutzen dute elkar, presio handiagoa dago…*

*–Ni ez naiz mehatxaturik sentitzen mehatxupean dagoen talde gisa egiten dudan lanetik kanpo… zure lana bezala hartzen duzu… eta arrisku bat du… Ez gara segurtasunaren gaiarekin obsesionatuta bizi… horrela defendatzen gara, pentsatzen dugu ez zaigula inoiz iritsiko… segurtasun neurriak hartzen dituzu… egunerokoa da… normala den zerbait bezala ikustera iristen zara, eta hori egiten dudan bitartean, uste dut seguru nagoela.*

*–…Niretzat orain egoera hasieran baino erosoagoa da… lagun batzuk beldurra izan diote etortzera, eta zurekin ibiltzeko nolabaiteko beldurra adierazten zizuten… diskrezio handiagoko lana dut, eta niretzat asko hobetu da bizi kalitatea… baina lankide batzuk mehatxaturik sentitzen ziren iritsi bezain laster… Norberaren araberakoa da… politikariekin, epaileekin, eta abar hasi zirenetik… egoera aldatu egin zen… Lehen gu bakarrik ginen, eta gainera babesgabe eta inork ulertuko ez balizu bezala sentitzen zinen, inork ez zuelako ezer egiten… Miguel Angel Blancorena gertatu arte… Askok esaten zuten moduan, "egingo zuen zerbait", eta sinestera iristen zara… baina gazte bat hiltzen zutenean, zera esaten zenuen: "eta zer da ba egin duena, ez badu ezer egiteko denborarik izan?"… horrelako gauzak…*

*–Beldurra bezala da, benetako mehatxu edo mehatxu objektibo berdin batekin, pertsona bakoitza mehatxatuago edo ez hain mehatxatu sentitzen da… oso mehatxaturik sentituko banintz, aukera hemendik joatea litzateke… Beste aukera bat aurre egin eta alde ez egitea da… gogor egitea pixka bat… aurrerantz jotzen baduzu, agian gaindituko duzu; geratzen bazara, agian… nik aukera egin eta aurrerantz jo nuen…*

*–Bizkartzainik ez daramadan arren, askatasun falta igartzen dut lagunekin taberna batera joan eta nahi duzunaz hitz egin ezin dezakezunean, ez dakizulako ondokoak nola pentsatzen duen eta, hitz eginez gero, hura "probokatzen" egon zintezkeelako… Lagunekin politikaz hitz egitea saihesteko joera dagoela asko igartzen da… Hori faltan botatzen da hemen nabarmen, guztiekin hitz egin ahal izatea, dituzten ideiak izanda ere…*

*–Irtenbidea anonimotasunean bizitzea izan da… ohitu egiten zara… ez zaituzte ezagutzen, eta hori da babesik onena… egunero ibilgailuaren azpian begiratzen jarraitzen duzu, hori ohituraz hartzen duzun zerbait da eta egin egiten duzu… Tradizioz, gure taldeak mehatxu zuzen baino atentatu zuzen gehiago jasan ditu…*

### 3.1.6. Beste atentatu batek ekarritako eragina

**Nola eragiten dizu beste pertsona baten aurkako atentatu edo mehatxu terrorista gauzatzeak?**

*–Mehatxuek eragina dute, baina guztiok ditugunez eta egunero bizi ditugunez, ba gutxiago; baina atentatuekin, heriotza dakartenean, eta ezagutzen duzun norbaitena denean, hutsune itzela sentitzen da, erabateko ezintasunarekin batera; gero amorrua eta mina bihurtzen da. Ondoren, hartzen dituzun nekeek merezi ote duten pentsatzen duzu, eta zenbaitetan...*

*–Eragin eragiten dit, baina ez beldurragatik... Atentatu itzelen garai batean... nire lanagatik atentatu ikaragarriak ikusi ditut, eta oso gaizki bizi izan ditut, zentzugabekeriaren eta zerbaitek eragiten duen min itzelaren lekuko zuzena izan naizelako... bizitza bat hondatu besterik ez da egiten, errepika ezina den bizitza bat, eta familia bat, eta asko bizi izan dut mina jende horrekin... Orain badago solidaritatea biktimekiko, baina orduan ez zitzaien hiletarik egiten... eta zenbaitetan familiari atentatuaren berri emateko deitu behar izan dut, Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide ez izatean inork ez zuelako haren ardura gain hartu nahi izan. Politikariak eta gizarte mailan nolabaiteko entzutea zuten pertsonak hiltzen hasi zirenean, orduan ikusi nuen lehenengoz politikariak eta jendea kezkatzen hasten zirela, eta horrek min gehiago eragin zidan.*

*–Gogoratzen dut une bat, lankide bat hil zutenean, izututa, hor ezinegonez sentitu nintzen.*

*–Kolpe handia da... lanean denbora asko daramadan arren, eta nolabaiteko koraza profesionala eraikitzen duzun arren, apurtzen doa... eta terrorismoaren orrialdeak igarotzeko horrenbeste denbora behar izateak ere, atsekabe handia sorrarazten dizu.*

*–Muturreko ankerkeria dago. Nahigabea hartzen duzu... baina biziraupenaren legea da... azkenean esaten duzu: hementxe nago... Zoritxarrez hainbatetan tokatu zaigu alargunak eta umezurtzak ikustea, eta ezbehar hori ez diot inori gomendatzen... Haiek dira gaizki pasatzen dabiltzanak... ez dut kexatzeko eskubiderik... gure zereginetan gabiltza, ez gaude untxiak bezala haztegi batean. Badakigu mehatxaturik gaudela deserosoak garelako, ez da zorizko gauza bat. Ni orain Euskaditik joango balitz, ez nuke arazo hori izango. Nik badakit arazo hori nola ez izan, baina arazoa badut izan behar dudala uste dudalako da... Hobeto nago hemen nire eginbeharra betetzen... Harrotasun eta askatasun sentimenduaren kontuak dira.*

*–Jabetzen aurkako atentatuak, enpresaburuei egindako estortsioak... hor daude... pertsonen aurkako atentatu zuzenak dira, antza, atentzioa erakartzen dutenak... Heriotza dakarren atentatua azken ondorioa da, okerrenetik okerrena. Baina bizitzarekin hertsatzea, zure herrialdean gainerako guztiek bezala ezin bizitzea oso gogorra da... Munduan ez dago beste herrialde bat Euskadin bizi garen bezala bizi direnik... Inor hiltzen ez badute ere, mehatxaturik dauden pertsonen egunerokoa... ogia erostera noiz irtengo zaren planifikatu behar izatea... lagun batekin kafe bat hartzera ezin irtetea... beno, zaila da.*

*–Nik beti onartu izan dut mehatxua benetakoa dela... itxaropena genuen eta mundua pixka bat erori zitzaigun azkenengo bake prozesua apurtu zenean, baina beti jabetu izan gara beldurra hor dagoela... Beste hainbat gauzarekin bezala, beti pentsatzen duzu ondokoari gertatuko zaiola... Ez duzu pentsatu nahi egunen batean zuri gertatuko zaizunik... Zerbait gertatzen denean, eragin egiten dit baina hori nire bizitzatik ateratzen saiatzen naiz... Ni ezingo nintzateke bizi egun osoan zerbait gertatuko zaidala pentsatzen arituko banintz... Egunero gertatzen da, era batera edo bestera, eta lankideak dituzu... haientzat beren bizitzako errealitatea da... Gai politikoak eta pertsonalak nahastu egiten dira, eta benetan egoera beldurgarriak daude... baina hortik ihes egiten saiatzen zara... Zenbait gauza egiteari uztea nahikoa lan ekartzen ari zait, onartuta izan arren...*

*–Eragiten dizu, baina gero ahaztu egiten zaizu. Adibidez, bizkartzainaren atentatua; ba, bai, lehenengo egunetan kezkatu egiten zara, baina gero...*

*–Zerbait gogorarazten dizu... denboraldi bat atentatu terrorista larrik gabe igarotzean, ardura gutxiagotzeko joera izaten da... Edo izenak dituen komando bat*

*atxilotzen denean... Nire lankideekin aipatu ohi dut "hori arreta ez galtzeko da"... Bai, mailuko hotsa izaten da...*

*–Min moral ikaragarria eragiten dit... gauza bera gerta dakit niri... baina tristezia eragiten dit... baina zer etorkizun... gure seme-alabentzat... noraino iritsi gara... Nire aitak ez zekien gazteleraz ongi egiten, joera abertzalekoa zen gehiago, eta... terrorismoaren lehenengo urteetan, atentatuak zeudenean, negar egiten zuen horrelako gauzaren bat jazotzen zenean, malkoak irten egiten zitzaizkion eta esaten zuen "gu ez gara eta horrelakoak, euskaldunok ez dakigu horrelako gauzak egiten...". Ni tristatu egiten nau egoera honek eta... okerrena da gauzak ikusten ditudan bakoitzean, eta oso positiboa izan arren ni, ikuspegi oso beltzarekin ikusten ditudala... askotan guztia bertan behera uzteko gogoa ekartzen dizun tristezia datorkizu, zer egiten dut nik hemen? esatekoa... Lasaitasun osoz alde egiteko aukera dut eta... eta gero esaten dut: baina zergatik joan behar dut nire etxetik, nire lurretik, nire arbasoetatik? Guztia, nire zuhaitz genealogikoa lur hauetan dago, ni hemen finkaturik nago, nire erroak itsatsita daude... eta errealitate bat da... Ulertzen dut jendeak azkenean guztia bertan behera uztea eta joatea, baina... tokia aske uztea da... ni oso borrokalaria naiz.*

*–Bizkartzainaren aurkako atentatuaren ondoren, oraindik zalantzak dituena, arreta handiagoz ibiltzen naiz bizkartzain pribatu modura... badirudi bizkartzainen aurka ere badoazela ulertarazten dabiltzala... lehen, aparte bezala ikusten zenuenean zure burua... Beste atentatu batzuekin eragiten dizu, baina ez horrenbeste...*

*–Nik ikusi ditut lankideak hilda... gogorra da... amorrua sentitzen duzu... Gizartearen babesa sentitzen dugu, hori bai, beste talde batzuk ere sentitzen duten moduan babes hori... Baina amorru handia... hildako lankideen aurrean... parean "gaztetxe" bat zegoen eta barrezka izaten ziren... Profesionalak izan ginen eta eutsi egin genion egoerari... oso gogorra... amorrua da, azken batean, jendaila horrek honelakoak bezalako gauzak egin ahal izateagatik...*

*–Eragin egiten dit, Eusko Jaurlaritzaren eta beste hainbat erakunderen aldetik hainbat hitz polit esaten direla entzun baina azkenean guztiak berdin jarraitzen duela ikusten dudalako... Gaur egun, euskal abertzaletasun osoak... helburu berdina du... beraz, biktimek ez diete axola... Zerbait egiten badute, horretara behartuta sentitzen direlako da, ez konbentzituta egoteagatik... gehiago egiten dute presoengatik eta presoen senitartekoengatik terrorismoaren biktimengatik baino... ez dago aurrekontuak begiratu besterik...*

*–Horrenbeste atentaturen ondoren, azkenean ohitu egiten zara... orain denboran distantzia gehiagorekin jazotzen dira, eta ezer gertatzen ez delako harritu egiten zara... zorionez... Zure nagusia hiltzen dutela ikustea oso gogorra da... Lagun batzuekin bazkaltzen izan eta hurrengo egunean hegan atera direla edo pare bat tiro eman dizkietela jakitea... hori gogorra da... baina gogorrak izan behar gara lanean jarraitzeko eta saihesteko...*

*–Indarkeria terroristaren zentzugabekeria da, guztioi eragiten digu... hainbat urte dira honi guztiari zentzurik ikusten ez diodala... goibeltasuna eta ezer gutxi gehiago da... Batzuetan gertuagotik tokatu zait... lankideekin, lagunekin... eta min gehien ematen duena gizartearen ulertezintasuna eta "zerbait egingo zuen" esaldi tipikoa dira... Utzikeria, ezkutuan mantentzeko nahia izan dira... Hainbat seme-alabarekin geratu ziren alargunek ez zuten ez gizartearen babesik, ezta babes ekonomikorik ere jaso, pentsa...*

*–Beti pentsatzen duzu gizon horri gertatu zaion bezala, eta agian zure taldekoa ez bada ere, zuri ere gerta dakizukeela... Beti pentsatzen duzu edozein unetan zuri gerta dakizukeela, baina ez duzu horretan pentsatu nahi, oso gogorra da. Niri min handia ematen dit uzten dituzten familiak ikustea... Ez naiz ni hilko nautenaren beldur, baina ez dut nire familia sufritzen ikusi nahi... Atentatu batean hil zen lagun bat dut...*

### 3.1.7. Eraginak familiengan

**Egoera honek zein neurritan eragin dio zure bikoteari, familia eta gertukoei?**

*–Atentatu bat egon zenean, nire amak negarrez deitu zidan, datuengatik ni izan nintekeela uste zuen... baina ezin zara obsesionatu, ez duzu bizirik, ez zinateke kalera ere irtengo... arretarekin... baina gauzak normaltasunez garatzen utzi.*

*–Eskuzabaltasun ikaragarrikoak dira, ez baitira kexatzen. Zuk sufritzen ikusten dituzu, ezinegonez daude. Adibidez, atentatu bat dagoenean, haiek ia susto handiagoa hartzen dute guk baino. Ordaindu ezin daitekeen eskuzabaltasuna da, ezinezkoa da ebaluatzea eta ulertzea bizitzen ez baduzu.*

*–Egoera okerren daramana nire ama da, nire bikoteak ez nau gehiago kezkatu nahi, ezin hobea da... Ulertzen dut hura kezkatuta egotea, baina normaltasunez darama. Nire semeak, historia hau guztia hasi zenean txikia zen, ez zuen gehiegi ulertzen hasieran, ez zuen ulertzen zergatik hil nahi ninduten... orain uste du gaindiezina naizela, ezer gerta ezin dakidala. Bizkartzainekin irtetea oso gogorra da.*

*–Denetarik dago. Nire familiaren aldetik, EAEtik kanpoko beste hiri batean dagoena, errespetua dago hemen bizitzeko hartutako erabakiarekiko, baina ulertezintasuna. Bikotearen aldetik, ni hona etorri nintzan bikoteak lana topatu zuelako hemen, eta arazoak daudenean, bidegabe, esfortzu hori plantea daiteke... Ez dugu beldur sentsazioa aipatzen, baina pentsatzen dut hor dagoela, lanera egunero joateko ibilbidea aldatzea beharrezkoa dela aipatzen dudanean bezala... Behin lankide baten aurkako atentatua egon zenean, eta berandu iristean, ni nintzela uste izan zuten hasieran...*

*–Egoera kafkiarra da... ez dute ulertzen, ez lagunek, ez bikoteak, ez familiak... ulertezina egiten zaie bizkartzaina eraman behar izatea.*

*–Edozeinek gaizki eraman behar du, baina nire interes gorenena garrantzirik ez ematea izan da beti. Horrela, haiek ni lasai ikusten banaute, ezer gertatuko ez zaidala pentsatzen dute... kalteturikoak egoera eramateko duen modua hurbileko jendearengan proiektatuko du... Bere garaian onartu nuen arriskua, badakit gainean dudala, baina bizitzen jarraitu behar da; nire seme-alabak eta bikotea lehenengo gauza dira eta ez dut haiek gogaitzeko inolako eskubiderik. Ni ez nago suminduta. Nik badakit arazo bat dudala, baina borroka egitea merezi duen arazoa da... Nire gurasoekin gauza bera aplikatzen dut.*

*–Nire familiak ezagutzen zuen arazoa, lehendik ere bizi zuten horrelako egoera... nahiz eta oso ezberdina izan ikusi ordez bizitzea... Ez dut seme-alabarik, eta horrek baldintzatu egingo ninduen neurri batean... egoera konplexuagoa iruditzen zaidalako... zure seme-alabei argitzea gurasoek bizkartzainarekin joan behar izatearen arrazoia... Nire bikoteak ere bere familian bizia zuen, onartu egin zuen eta nire erabakia errespetatu... Orain onartua du bizkartzainarekin goazela, denborak beste era batera jartzen direla, nirekin lana eta gero kafe bat hartzeko geratzea ezinezkoa dela, ordubete lehenago deitu behar didala... Lagunekin eta lankideekin, mota guztietako ideologikoak daude, ez dut inolako arazorik izan... nire laguntzat izan ditudan horiekin ez dut harritu beharrik izan... eremu horretan zortea izan dut.*

*–Nire kasuan ongi, baina badakit etorri nahi ez zuten eta amaren, neskalagunaren... presioagatik etorri ez diren lankideen kasuak izan direla... Oso gertutik ere ez zaigu tokatu... baina nik loteria ez tokatzearekin bizi naiz... ez naiz oso auzo gatazkatsuan bizi...*

*–Inoiz ez dut gaiari buruz etxean hitz egiten, eta haiek gaia ateratzen badute kezkatuta daudelako, itzulinguruka erantzuten dut beti. Nire estrategia gaiari buruz ez hitz egitea da, informaziorik ez ematea eta haiei ezer ez kontatzea... Prentsan komando batek datuak dituela agertzen denean... erdi gezurka ibili behar duzu, ez dakit sinesten duten edo ez...*

*–Nire etxean zartada izan zen... beti izan nuen kezka politikoa... iritzi ezberdinak irakurtzen ditut... Gregorio Ordoñez hil zutenean, uste dut ez dudala inoiz horrenbeste negar egin nire bizitza osoan... pizgarria izan zen... eta Fernando Buesa hil zutenean... kalera irten nintzen zer egin jakin gabe... zera esan nuen: kalera irten behar dut, norabait jo behar dut... eta orduan hain handia izan zen bultzada, manifestazio bat izan zela, eta, jarraian, abertzalea ez zen alderdi bateko egoitzara joan nintzen, hobeki egokitzen nintzenera, eta esan nuen, lagunak nituen barruan: kontuan har nazazue nahi duzuenerako... ondoren nire herriko zerrendetan joateko deitu ninduten, niretzat sorpresa bat izan zen... baina baiezkoa eman nien... Nire etxean zartada handia izan zen, ez horrenbeste nire senarrarengatik... esan zidaten ea nola joango nintzen zinegotzi modura azken urteetan eremu abertzalea izandako herri batera... eta esan nuen, begira, nire herria da, zer da nire herriko interesak defendatzea baino ohore handiagoa niretzat... kudeaketa egitea, ez horrenbeste politika... Nire seme-alabentzat... haien lehengo hitzak izan ziren: ez, ez, ez... eta haiekin eseri eta bizitza osoan askatasuna defendatu nuela, bizitza osoan, eta niretzat sakratua zela adierazi...: "nik onena nahi dut zuentzat, eta horrela... onena egin dezaket nire herriarentzat, kudeaketan, badakit min ematen dizuela... bizkartzaina eraman behar dut... baina, seme-alabak, beste batzuk erori egin dira nik pentsatzen dudana defendatzeagatik, ez dizkizuet guztiak aipatuko asko dira eta... niretzat, nik pentsatzen dudana esateagatik Gregorio Ordoñezi tiro bat eman diotela ikustea oso gogorra izan zen, Fernando Buesa, Legebiltzarrean askatasuna defendatu ondoren, hil egin zutela ikustea... ba ni ez naiz ez Fernando Buesa ezta Gregorio Ordoñez ere, hondar ale bat naiz bihitegi batean... niri tokatzen zait"... Orain hobeto daramate, beti, "ama, kontuz"... baina, beno, ohitu egin dira... eta inoiz ez dute osoko bilkura batera etorri nahi izan, nire seme-alabetako batek ez du Udaletxea inoiz bisitatu nahi izan... ezezkoa ematen du, herrian bizi izan bada ere..., "ama, ez izan inorekin fio". Adibidez, esaten diedanean nire harremana une honetan... pertsonala, gobernu abertzalearekin ona dela, ideologikoki ez... "ama, ez fidatu", eta ez naiz fidatzen askotan planteatzen diodalako neure buruari... egunen batean niri buruz informazioa emateko aukera badute... Lagun taldearekin harreman ona izan dut... ez die axola nik bizkartzaina izatea... baina adiskidetasuna guztiaren gainetik geratzen da, beste era batera pentsatu arren, eta familiarekin gauza bera.*

*–Nire gurasoek gaizki daramate... baina hau da dagoena... nire bizkartzain lanari esker etxebizitza erosi ahal izan dut... nire bikoteari beldurra ematen dio nolabait, baina ez da guardia zibila banintz bezain gaizki bizitzen egoera, adibidez.*

*–Ez da hitz egiten, azkenean, ez duzu jakinarazten... uste dut familiari ez diozula ezer jakinarazten ez kezkatzeagatik, inoiz ez da gaiari buruz hitz egiten... lehen esan dudana, beti gainerakoei gertatzen zaie, niri ez zait gertatuko... Nire gurasoak beldurtu egiten dira pintaketekin, atentatuekin... kontuz... baina gaia aldatzen duzu berehala... hau ez da zure obsesio bihurtu behar... Nire semeari ez diot inoiz esan zertan egiten dudan lan... badaezpada.*

*–Nire familiari erabat... ni ikusteari utzi diote, joan egin behar izan dut... zorionez ez da familia apurtu, baina, nolabait, urtean, denbora luzez, familiako kide bat bertan ez dagoela bizitzea da... Lagunekin dezepzioak izan ditut...*

*–Agian tentsioagatik, tokiagatik... ordutegiengatik... banantzea ekarri zidan... Atentatuak okerrago bizi dituzte senideek... ni askotan lanean nengoen eta horien berri izan dut deitu egin didatelako... batez ere amak...*

*–Eragin egiten du... baina ez diozu aparteko garrantzirik eman nahi... ez dituzu kezkatu nahi... batez ere seme-alabengatik, ez da gaiari buruz gehiegi hitz egiten... nire seme zaharrenak hamalau urterekin jakin zuen aitak zertan egiten zuen lan... erroldako paperak betetzen dituzunean eta lan zertan egiten duzun esan behar duzunean, asmatu egiten duzu... lanbidea ezkutatuz bizi behar izatea, tristea da...*

*–Senitartekoek esaten dizute ea nola bururatu zaizun Euskadira joatea... beldur handia dute... edonola ere, gero nik gertatutako hainbat gauzaren berri amagandik*

*jasotzen dut, telebistan ikusi duelako, eta ez da bertan agertzen den bezala ere izaten... batzuk ez dute ezta bisitan etorri nahi...*

*–Haurrek ezin dute eskolan esan bere aita edo ama zer den... niri horrek nolabaiteko dilema plantearazten dit, ez litzaidake gustatuko hari gezurra esan behar izatea, edo eskolan gezurra esan dezala eskatzea... Barruan bizi bazara, ezin diezu gezurra esan ere ez, ikusi egiten dutelako... Gero lagunen bat etxera gonbidatzen duzunean, noski, egunen batean zuk laguntxoa gonbidatu behar duzu, eta aldez aurretik haren amarekin hitz egin behar duzu nora datorren jakin dezan... pentsa zerbait gertatzen bazaio... Niri arima lurrera doakit horrelako gauzekin... nahastea sorrarazten dizu buruan, nork du arrazoia: haiek edo guk? Guk ezkutuan ibili behar badugu...*

### *3.1.8. <u>Laneko bizitzari ekarritako eragina</u>*

## **Zer neurritan eragin dio egoera honek zure laneko bizitzari?**

*–Hemen nolabaiteko mesprezua dugu. Adibidez, Espainiako beste toki batzuetan, jendeak heroiak garela uste du. Ni ez naiz heroia, eta uste dut inork ez gaituela heroi bezala ikusi behar, baina egia da hemen mesprezatuta gaudela mehatxatu bezala. Eta hautetsi irten ondoren laneratzeko aukerak oso konplexuak dira, enpresek arazoak dituztelako hain nabarmen ibili den norbait lanean hartzeko. Euskal erakundeek ere programak izan beharko lituzkete, norberaren gaitasunak kontuan hartuta, hemengo enpresetan laneratzea errazteko.*

*–Luzatzen edo taberna batean amaitzen diren bilerak baditugu, bere lana izan arren, bizkartzainengan eta haien familiengan pentsatzen duzu, eta horrek zure gizarte eta lan bizitza mugatzen du.*

*–Laneko bizitzari ez dio inolako eraginik ekarri, jendeak presioei buruz hitz egiten du, baina ez dit eragiten.*

*–Lanera joaterakoan, errutinak aldatzen saiatzen zara eta horrek nolabaiteko iskanbila sortzen du antolamenduan... Lanean aldaketak edo mailan gorantz egiteko aukerak daudenean, geldiarazi egiten zaitu segurtasunak, beste postu batzuetan arriskua handiagoa izan daitekeelako... Lanean modu ezberdinetara eragiten dizu, garai gogorrak etortzen direnean, atentatu gehiago daudenean, lanean giroa atseginagoa da...*

*–Nire lanagatik daramat bizkartzaina... bai, baldintzatu egiten zaitu mugitzeko garaian... Lanera joaterakoan, nik hori oso argi dut, ez dut beldurrik.*

*–Zortea dut nire lan motarekin, baina badakit beste batzuk oso zaila dutela... nolabaiteko errefusa jasaten dutela bizkartzaina eramateagatik... mundu guztiak ez du ulertzen...*

*–Uste dut ezetz, neurri batean nire lan eremuagatik. Eragin handia du lan non egiten duzun.*

*–Laneko bizitzan eragina izan dezake, baina nik uste dut behar beste sendoak garela ez makurtzeko... nik uste dut orokorrean ez digula eragiten... Eragin handiagoa du lanetik irtendakoan, babesik gabe gauden horretan... Salbuespen modura, gerta liteke lanean tentsioa izatea... errieta egiten dizute, ez da atsegina... baina beldurrak lanetik kanpokoak dira batez ere.*

*–Ez dut inolako arazorik, inolako beldurrik, nire ideiak defendatzeagatik... Dendak izateak, zein taldeko bazkide zaren gorabehera, herrialde honetan eragozpenak ditu...*

*–Bizi den egoerak ez dit galarazten bizkartzain pribatu modura nire lana ongi betetzea.*

*–Hau da dagoena... elektrikari batek ere arriskuak ditu...obsesiorik gabe... onak direnen aldean gaude eta egunen batean amaitu egingo da hau guztia; urruti ikusten dut egun, urruti ikusten dut, oso konplexua da...*

*–Nire laneko bizitzari nahiko eragiten dio, Euskal Herriko Unibertsitateak, hitz politak esateaz gain, ez zuelako ezer egin ere ez… Ordainsarien lehenengo osagarriak onartzearekin bat egin zuen… eta ez nituen inoiz kobratu… esan zuten ez nuela horiek jasotzeko eskubiderik… galera ekonomikoa osoa handia da… gero, gainera, soldatan dauden aldeak daude, nire adinean beste hiri batean etxe txiki bat erosteko zorretan sartzea… lanean kalte nabarmena eragin dit…*

*–Ahultasunetik atera ditut indarrak…*

*–Ordutegia aldatzen duzu, malgutasuna sartzen duzu ordutegian, segurtasuneko gutxieneko arauak betetzen dituzu… eragin egiten dizu…*

*–Ez da lan egin eta etxera zoazenean bezala… Kanpoan bizi ez bazara… isolatuta bizi zara… bizikidetza, lana zurekin egiten duten pertsonekin bizi behar izatea, ba ez… pertsonalki, ez zaigu gustatzen… Euskaditik kanpo ez dugu egin, hemen bai segurtasun neurriengatik… lasaiago egiten dut lo… ez duzu ibili behar distantziak gordetzen… baina gizartearengandik isolatuta gaudela sentitzen dugu asko…*

*–Lankide batzuk kalean elkar ikusten dute eta ez diote elkarri agur esaten segurtasun neurri bezala… denda batean elkar ikusi eta ez agurtzea…*

*–Herri txikiren batera uniformearekin joaten ginenean, kale batengatik galdetu eta ez zekitela esaten zizuten…*

### *3.1 9. Eragina denbora librean*

**Eta zure denbora libreari?**

*–Horri eragiten dio gehien.*

*–Asko deprimitzen nau nire hiritik aske ibiltzeko askatasunik ez izateak.*

*–Atsegin ditut hizkuntzak. Eskola batera nindoan eta ikasturte erdian, ahozko ariketetan, ez neraman papera prestatuta eta zera galdetu zidaten: “zuk zertan egiten duzu lan?”. Lehenengoan ateratzen zara galderatik, bigarrenean jada ez zara ateratzen, guztia arraroa bihurtzen hasten da… Hogei pertsonako gela batean elkar ezagutzen hasten zara, jendeak bere bizitza kontatzen dizu eta zuk ez kontatzeko duzun arrazoia zein izango den galdetzen diote beren buruari… Utzi egin nuen, ez dakit zergatik, presioagatik… ezin nion neure buruari errutina bat onartu… ezin dizkiot neure buruari gizarte harremanak onartu… Kale batzuk ez ditut inoiz zapaldu eta egun ere ez ditut zapaltzen.*

*–Ikaragarria da, eragin gehien jasotzen dituen eremua da, ikaragarria da.*

*–Nire lagun taldeak badaki… baina, adibidez, ikastetxeko bilera batera zoazenean edo ezagutzen ez zaituen jendea dagoen batera zoazenean, ohartu egiten zara, jakingurazko begiradak daude, onarpena daramaten begiradak, gaitzespena daramatenak, mota guztietako begiradak… “Begira hori, hona etorri eta guztiak arriskuan jartzeko aurpegia ez du ba!”, aipamen hori entzuten da.*

*–Guztia baldintzatzen dizu erabat… Bizkartzaina jarriko dizutela esateko deitzen dizuten egunean… zera esaten dizute: “edonola ere, honekin zure bizitza ahalik eta gutxien baldintzatu nahi da, ahalik eta gutxien sumatzea hor daudela», eta hori ezinezkoa da… Gainera, badakizu, halaber, zure bizkartzainek ere bizitza dutela beren lana bada ere… eta, une jakin batean, gauzak egiteari uzten diozu haiei kalterik ez eragiteko, azaltzen zaila den gauza da… Pena ematen dit bi pertsonari arratsaldeko azken orduan deitu behar izatea txakurra ateratzera lagun diezadaten… ez dut nik ateratzen eta kito… eta, horrela, beste hainbat gauza…*

*–Ni ez naiz eguneko 24 ordutan polizia modura bizi, nire denbora librean ahaztu egiten dut zer naizen, deskonektatzeko gai naiz… nire lankide batzuk ez dira gai… errutinak saihesten dituzu, ez dituzu gauzak zure izenean jartzen…*

*–Nire denbora librea baldintzaturik dago, lagunekin geratzen zarenean edo tokietara zoazenean jakinaren gainean jarri behar dituzulako "aizu, nik toki horretara ez dut joan behar"... edo "gehiegitan etorri gara toki honetara"... Lankide batzuk gimnasiora joan nahi dute eta ezin dira egunero ordu berdinean joan... Aisialdiak, errutina bat jarraitzen duen horrek jasaten ditu kalte gehien...*

*–Denbora librea konplexuagoa da... zorionez bizkartzainentzat, ez naiz gauean irteten den pertsona bat... gehiago gustatu izan zait paseatzea... orain programatu egin behar dut, hor igartzen dut, benetan, askoz ere mugatuago nagoela...*

*–Bizkartzain pribatu modura ez da gehiegi aldatu...*

*–Irten egiten naiz, paseatzen dut, ez naiz etxean sartzen, ez nago "zulo" batean bezala, bestela, ez nuke honetan lan egingo... Ni toki berdinetatik nabil zenbait kaletan sartu gabe... baina haiek ere ez dira etortzen, oztopo bat bezala dago... Ez dugu inoiz arazorik izan... deskonektatu egiten dugu... nik nire bizitza normal egiten dut...*

*–Uste dut guardia zibil batek gutxiago deskonektatzen duela... obsesio gehiagorekin bizi da... jada ez zara zu, ez duzu zure herrian jardungo zenukeen moduan jarduten... arma gainean daramazu irteten zarenean...*

*–Bizi naizen tokian ez dit eragiten eta hemen... mehatxuak hain deserrotze handia eragin didanez nire lurretik, ba ezta ere... Gehiago gozatzen dut nire familiarekin etxean egoteaz... nire lurraldearen gaineko pertzepzioa aldatu egin da... hemen bezala beste inon bizi ez direla dioen eta saldu nahi diguten ideia hori eta hoberenak garela eta zer ondo jaten den eta abar agertzen duen ideia idiliko hori, ba, hipokresia eta fikziozko azala besterik ez da... asteburu batez etortzen denak ez du ezer ikusten, eta, gainera, ez du ikusi nahi, ez du ikusten... hemen daudenek ez dute ikusten... Hemen tokiren batera banoa, bai, arreta izaten saiatzen naiz... toki batzuetara ez naiz joaten..., ez beldurragatik, baizik eta kartelen erakusketa ez ikusteagatik...*

*–Ezin dituzu errutinazko gauzak egin...*

*–Ez zara zenbait kaletatik joaten... ni lagunekin irteten naiz eta ez dut arazorik zentzu horretan... asko asteburuetan joaten dira eta ez dituzte lagunak egin nahi... irteten saiatu behar duzu, lagunak egin eta ez erratu...*

*–Nik hainbat ikastaro egin dut... hizkuntzatakoak... jende zoragarria topatu dut, gustatuko litzaidake haiekin... geratzea... eta galdetu egiten dizute: "zertan egiten duzu lan?" eta istorio bat asmatzen hasten zara... Beldurra ematen dizu esan behar izateak, nahiz eta gustatuko litzaizukeen... gogorra da... Jakin izan dute noizbait, eta batzuk beste toki batera begiratu izan dute... beste batzuk ez didate hitzik egin... beste batzuk hitz egiten jarraitu dute, eta, agian, pentsa dezakezu datuak biltzen dabiltzala norbaiti pasatzeko...*

*–Maila pertsonalean oso hondaturik gaude... ez dugu bestelako pertsonarik ezagutzen, beno, bai, batzuk... esku bateko behatzekin kontatuko liratekeenak, konfiantzazkoak... Ezin dut lagun taldea eta horrelakoak egin... eta hemendik kanpo egingo nuke...*

*–Gauzak galtzen zoaz, zaletasunak galtzen, adibidez, niri musika gustatzen zitzaidan... irteteari uzten diozu... niretzat, denbora hemen galdutako denbora da gizartearen aldetik eta hori ez dut inoiz berreskuratuko... behin bakarrik bizitzen zara, heldua egiten zara eta ez duzu lagunik... oso tristea da... joan gintezke... agian joan egin beharko genuke, gure harreman pertsonalak... ez daudela eta hondatu egiten direla ikusten dugulako... Badirudi zu zarela zeure buruari koraza jartzen dabilena. Salbuespen batzuk badaude, eta integratzeko gai dira...*

*–Ikastaro batean izena eman nuen... gazteekin... eta batek esan zuen: "ba txapeloker bat hiltzen badute, berdin dio, hil dezatela...". Hain zuzen ere, eskolan egonda, gazte bat atxilotu zuten... ezin duzu esan zer zaren, urte asko igarotzen uzten duzu konfiantzazko norbaiti esaterako...*

*–Uste dut pertsona bezala belzten ari zarela normaltasunez hitz egin ezin izanagatik...*

### 3.1.10. Alderaketa mehatxatutako beste pertsona batzuekin

**Nola baloratzen duzu egoera mehatxatutako beste pertsona batzuekin alderatuta?**

*–Mehatxaturikoen artean, batzuk etekin politiko pertsonala atera nahi diote egoerari, nahiz eta horrelakoak ez diren asko. Gehienek ez dugu errekonozimendurik eta bigarren mailako biktimak garela ematen du. Gehiengoa gara isilik gaudenak, Euskadirengatik aurpegia emanez. Oso gaizki iruditzen zait probetxu alderdikoia eta pertsonala ateratzea.*

*–Ez dakit, batzuetan badirudi gure lanbideko taldea ez dagoela mehatxupean... mehatxatutako beste talde batzuetako auzokoek babes hobea dutelako... ez zara hedabideetan azaltzen eta bosgarren mailako mehatxatua dirudizu.*

*–Nik uste dut ez naizela mehatxatuen dagoenetako bat...*

*–Lagun asko ditut mehatxupean. Ez dakit galdera honi nola erantzun; izan ere, alde batetik, mehatxatutako talde batzuk oso solidaritate lotura estua dute... Nire taldean, asko dira mehatxupean daudenak, eta, neurri batean, zenbaitetan, ez dakit, ez dut erreferentziarik lanbidearen barruan bertan...*

*–Pribilegiatua naiz, bizkartzaina dut, oso garrantzitsua da bizkartzaina izatea... bizkartzainik izango ez banu, ezingo nuke nire jardunarekin jarraitu. Izan ere, agian ez zaituzte hilko, baina bultzadak, irainak... bezalako egoera deserosoak saihestu egin dira... eta zenbait herritan funtsezkoa da...*

*–Uste dut nire egoera jende askorena baino hobea dela, ez naizelako bizi lan egiten dudan toki berdinean... Lankide eta ezagun batzuk toki berdinean bizi eta lan egiten dute... eta landa esparruetan presioa handiagoa da... "Zer esango ote dute" horrek funtzionatzen du: "ez zait interesatzen ez dakit norekin harremana eratzea identifikatu egingo nautelako, nahiago dut albo batean geratu"... zenbaitetan, herri txikietan, jendeak babestu egiten zaitu, baina ezkutuka babesten zaitu... inork ikusten ez dituenean... Jendearen aurrean esatea lotsa emango balie bezala esaten dizute... Hiri batean anonimotasun handiagoa dago... ezberdina da erabat. Ezberdina da erabat ere herri baten barruan bakarrik edo norbaitekin egotea Udaletxean... Bakarrik erabat, bizkartzaina daraman bakarra izanda... are zailagoa da... Bakardadea are handiagoa da oraindik...*

*–Nik uste dut pribilegiatua naizela, bikoterik edota seme-alabarik ez izatean modu autonomoan antola dezakedalako nire bizitza eta nire planteamendua... hemen batzuk seme-alabak dituzte ikastetxean, eta ikastetxean badakite ume horren aita edo ama zer den eta haiek ordaintzen dute...*

*–Agian pribilegiatua naiz neurri batean... lau urtetan jende gutxi sartu da nirekin zuzenean, nire ondasun materialei ez diete eraso egin –beste lankide batzuenekin gertatu ez bezala–...*

*–Bizkartzain pribatu modura babesten dudan pertsonak atentatua izateko %98 edo 99ko aukerak dituela uste badut, nik %45... ezezaguna da ere gertatutako atentatu hura bizkartzain pribatuaren aurkakoa zen jakitea... agian akatsa izan da... Eusko Jaurlaritzak berak bere arrisku baremoak jartzen ditu segurtasun neurriak hartze aldera... lantze mailaren eta exekuzio fasearen arabera... horrek ez du esan nahi egoera aldatuko ez denik... Bizkartzainak oztopoa gara atentatua egiterakoan...*

*–Gure egoera oso ezberdina da beste segurtasun indar eta kidego batzuk bizi dutenaren aldean, guk ez dugu uste hau Beirut denik... paseatzea baduzu... ez gaude egun osoa tiroak ematen... bizkartzaina daramaten pertsonentzat gogorra da... ezin dute bizitza normala egin... Zoratzekoa da hemen bizkartzainen gaiarekin egiten ari dena, okin batek bizkartzaina eramatea, hori ez dut inongo herrialdetan ezagutu... goizeko bostetan jaikitzen den nekazaria traktorearekin... hau ez da normala, Europako*

*inongo herrialdetan ez da hau existitzen... konponbiderik ere ez dagoen bezala... inork eraman behar ez izatea iritsiko al da...*

*–Nik uste dut pribilegiatua naizela, inoiz ez naizelako iritsi bizkartzaina eraman behar izatera, eta horrek modu erabakigarrian eragiten du zure bizitzan... eta lanbidetzat dudanari esker, joateko aukera izan nuen... Enpresa pribatuan, enpresariak... edo autonomoak dira mehatxupean daudenak, hori ezinezkoa da, enpresa altxa eta beste toki batera joan behar izatea gauetik egunera... Nik zorte hori izan dut... hemendik joan ahal izan naiz kalte pertsonaletik eta ekonomikotik haratago besterik jasan gabe... Nahiago izan nuen hemendik joatea, baina ez bakarrik bizkartzainik gabe ibiltzeagatik... baita nire familiagatik ere...*

*–Ia pribilegiatu bat naizela sentitzen dut, neurri batean zure burua babesten duzulako...*

*–Nire egoera hobea da ez naizelako ezaguna, talde moduan mehatxatuta nago, baina uste dut bizkartzaina daramatenak baino egoera hobean nagoela noski... nik inoiz ez diot neure buruari planteatu presio terroristagatik joatea; noski, atentaturik edo mehatxu zuzenik izan ez dudanez, ba ez dut planteatu ere ez...*

*–Niretzat, bizkartzaina daraman pertsona okerragoa da, presio handia izan behar du... ez duzu bizitzarik, guk bizitza gutxi dugu, baina uste dut haiek ez dutela inolako bizitzarik. Gainera, bizkartzaina badaramazu, ez zara anonimotasunean geratzen... Noski, agian nire segurtasuna baino segurtasun hobea izango dute eta familia baduzu...*

*–Nik uste dut mehatxatu mailak daudela, eta gu mailarik baxuenean gaude.*

## 3.2. Dagoen terminologiaren eta araudiaren gaineko balorazioa, biktimazioa txikitzeko

### *3.2.1. Estatuko eta autonomia erkidegoko araudiak egokitzea*

**Estatuko araudiak eta araudi autonomikoak zure egoera arintzeko behar besteko neurriak jasotzen dituela uste al duzu? Terrorismoaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko legediak mehatxaturik daudenen egoera behar beste estaltzen duela uste al duzu?**

*–Uste dut legediak, bai estatu mailakoak, bai autonomikoak, atentatua jasan duten biktimen eta haien familien kasua hartzen duela, baina mehatxaturik bizi garenak zeharkakoak bezain biktima gara. Legedia ahaztu egin da mehatxaturikoez, ez dago esparru juridikorik haiei duintasuna itzultzeko.*

*–Ez, inolaz ere, nik dakidala behintzat; ez dakit zerbait ba ote dagoen, nik uste dut ez dela existitzen edo existitzen bada, ezin izan naiz enteratu.*

*–Ez dakit, inoiz ez dut izan prebentzio edo lehengoratze neurrien berri. Etxebizitza aldatzearen kasuan, ongi legoke, nomina erakutsi behar duzulako eta orduan badakitelako zertan egiten duzun lan.*

*–Botere publikoak aurre egiten ari dira biktimen gaiari. Atzerapenarekin bada ere, aurre egiten ari zaio jardueren bitartez eta babesten duen diskurtso politiko baten bitartez. Beti egin daiteke askoz ere gehiago, pedagogia sozialeko lana, batez ere uste dudalako hemen oinarrizko gaia errutina gehiegi dagoela dela, hau da, euskal gizartea oso anestesiatuta dago hainbat gauzaren aurrean eta baita jazarpen indarkeriari dagokionez ere... Oraindik afektu gutxiko gizartean bizi gara, sentsibilitate gutxikoan...*

*–Ez dakit... Definizioagatik, dagoen guztia gutxi da... inor babesik gabe edo lege hutsunean edo edozein motatako babesik edota arretarik gabe geratzea saihestu behar da... Botere publikoek horren ardura hartu behar dute beren gain.*

*–Babesteko den guztia, biktimei egoera lehengoratzeko dena ezin hobea iruditzen zait, baina uste dut askoz ere gehiago egiten dela, logikoa den bezala, lehengoratzeko prebenitzeko baino... Ez da abertzaleen eta ez abertzaleen arteko eztabaida, gutxiengoaren kasuan salbu, ez dut uste inork gu bezala egon nahi duenik... baina askotan... nola lagun dakit? Ikusten dudan modu bakarra arazoa amaitzea da... eta uste dut denbora asko igaroko dela hori gertatu arte... laguntza psikologikoak, etxebizitza aldatzekoak... ongi iruditzen zait... nahiz eta horrelako neurrien gainean ezjakintasun handia dagoen... Ezjakintasunaz gain, lotsa ere badago, esaten duzu: "nola joango naiz ni ezer eskatzera legea babesle izanda ere?... Nirea baino askoz ere egoera okerragoan dauden pertsona asko daude eta"... Nolabaiteko lotsa dago... Guztiok bizi dugun egoera txarraren barruan, pribilegiatutzat dut nire burua, nire egoera ez delako inguruan dudan jendearen egoera bezain muturrekoa... nola eskatuko dut nik ezer aukera nirea izan bada?...*

*–Ezin dut iritzirik eman, ez dakidalako zer nolako laguntzak ditugun mehatxatuok... Lanbidearen ikuspegitik, honakoa oso destino zaila da, hemen ez dago egonkortasunik lantaldean... Gustatuko litzaidake honi estatu mailan aurre egin ziezaiotela... Egonkortasun gehiago eta guzti ezar zedila, agian oporrak edo soldata areagotzea bezalako kontraprestazioekin... Hona lanera etortzeak beste toki batera joatean dituzun baldintza berdinak ditu, eta uste dut hori ez dela konponbide egokia... legearen aldetiko defizita da.*

*–Kontua da nik entzun behar izan dudala, nahiz eta niri zuzenean inork ez didan ezer esan: "gidaria eta laguntzailea daramatza eta"... Nahiago nuke horrelakorik ez eraman, eta talde hauetan, mehatxaturiko pertsonen taldeetan gauden asko... pribilegiatutzat jotzen gaituzte, maila batzuetan eta agintari batzuk behinik behin. Aho zabalarekin gauza bat esaten dute, eta ahapeka beste bat, ez baitute ezer egiten egoerari konponbidea emateko eta, gainera, uste dute pribilegiatuak garela arreta ematen diguten bi pertsona daramatzagulako gurekin, bizitza zein zorigaitzekoa den ikusi ordez... gutxi gorabehera uste dute egoeraz aprobetxatzen ari garela, eta zein eroso bizi garen, eta hori ez da egia... Nik gogoan dut hiri bateko zinegotzia kafetegi batean haurraren kotxearekin eta bizkartzainekin sartu zen eguna... ondoren hiri berdineko beste toki batera joan ginen paseatzera eta hiri berdineko beste politikari bat ikusi genuen semearekin... eta ez zuen bizkartzainik... eta esan nuen zer gaizki, zer bidegabekeria... eta batzuk pentsatuko dute emakume hura horrela dagoela nahi duelako, eta hain handia izan zen hartutako amorrua, kafeak gaizki egin zidan... Irrati bidezko tertulia batean, kazetarietako batek ulertarazi zuen mehatxaturikook ahoberoak garela... eta ezin izan nuen aguantatu eta telefonoz deitu nuen... eta esan nien... edozein pertsona askoz ere lasaiago dagoela semea bizkartzainik gabe paseatzen... kazetariak barkamena eskatu zidan... nola esan daiteke horrelakorik... horrela ibiltzea beste erremediorik ez dagoenean...*

*–Ezagutzen ditut etxebizitzaz aldatu behar izan duten ertzainak, molotov koktelak iritsiko ez diren etxebizitza garaiagoetara joateko... politikariak ere bai, eta horrek ez dio inori laguntzen... ez da zerbait gertatu arte itxaron behar... prebenitzeko saiakera egin behar da...*

*–Bada laguntza txiki bat, baina txikia iruditzen zait, Herrizaingo Sailaren aldetik, segurtasun arrazoiak direla eta etxebizitza aldatzeko... ekonomikoki, ordea, gai konplexua da, batez ere mehatxatutako talde guztiei zabaltzen bazaie... Gainerakoari dagokionez, laguntza psikologikoa badago, matrikulak aldatzekoa, neurriak daude izendapenetan anonimotasuna mantentzeko, epaiketetan... beno, neurri asko hartzen ari dira...*

*–Nazioarteko araudian biktimak ia ezezagunak dira oraindik... Europar Batasunean badira nolabaiteko parte-hartzea bermatzeko mekanismo batzuk prozedura zehatzaileetan, baina hortik kanpo ez dago ezer... eta kalte-ordainen gaian ere, ez dago ezer... Espainiaren kasuan orain dela oso gutxitik hona hartzen dira kontuan biktimak,*

*ba nazioarte mailan are gutxiago... Espainiako legedian biktima larrienak bakarrik hartzen dira... baina kontuan hartzen ez den talde oso handia ere badago: estortsioa jasaten dutenak... horiek, gainera, azken su-etena deituriko horretan estortsioa jasaten ez zutela esatea entzun behar izan dute. Mehatxaturikoak, laurogeiko hamarkadatik Euskaditik joan zirenak mehatxuaren ondorioz... talde horiek ez gara bertan sartzen... Beraz, gure bizitza gure kabuz konpondu behar izan dugu, bakoitza gure aldetik. Eta, bai, gogorarazi nahi dut laurogeiko hamarkadatik hona Gerra Zibilean baino euskaldun gehiagok utzi duela Euskadi... Ez gara erbesteratuak, izatekotan Zuzenbidekotzat hartzen den Estatuaren ezintasunagatik desterratutakoak gara. Estatua da herritarrak babesteko betebeharra duena, eta Estatua ez da bakarrik agintaritza zentrala, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Eusko Jaurlaritza ere badira... eta haien betebeharra da herritarrak babesteko baliabide guztiak jartzea, eta hori urteetan egin ez dutena da. Estatu mailan dagoen araudia lehen erantzuna da baina ez da nahikoa, biktima larrienei erantzutea da haren xedea... Araudi autonomikoari dagokionez, lotsagarria da ETAren terrorismoa sortzen eta indar gehiagorekin jasaten den lurraldea izanda, kasu honetan ardurarik hartu ez izatea eta hain berandu izan arte ekimenik bideratu ez izana... eta Eusko Legebiltzarrak 2000ren hasieran onartutako neurriak oraindik hitz hutsalak izatea... hori lotsagarria da eta ez da egia esan herritarrak babestea.*

*–Mehatxatutako talde batzuk beste batzuk baino erraztasun gehiago dituztela ikusten dut, adibidez etxebizitza aldatzeko... horrez gain, guk baino soldata hobea dutenean... Bestalde... zuk zure bizitza bilatu behar izatean... ez zara horren biktima bihurtzen...*

*–Uste dut gauzak egin direla, baina ez da nahikoa... eta ez da horrenbeste lehengoratze ekonomikoa, baizik eta gizarte babesa eta ulermena, eta... biktimen aurka doazen ekitaldi politikoak ez daitezela egin. Askotan hitzak ildo batetik doaz eta ekintzak beste batetik, eta hori tamalgarria da...*

*–Terrorismoaren biktimatzat Espainiatik kanpo kokaturiko militarrak ere hartzeraino zabaltzea... ongi iruditzen zait, betiere, talde terroristen biktima badira... bake lanetan dauden pertsonek eta haien familiek errekonozimendu osoa merezi dute... inolako konplexurik gabe, uste dut hori egiten ari dela jada...*

*–Ez dut uste araudia nahikoa denik, kalte material eta kalte pertsonalei buruz dakidan gutxi hori jakinda... Gogoratzen dut behin ez zigutela gorpu baten ibilbidearen zati bat besterik ordaindu nahi izan, hainbat zati egon zirenean agintariek hori erabaki zutelako eta ez familiak... Kalte materialei dagokienez, ehuneko ehunean lehengoratzea jaso ez duten pertsonak ikusi ditut... kasu konplexuak daude...*

*–Ez dago laguntzarik etxebizitza aldaketarekin mehatxuak iristen direnean... ikertu egingo dutela esaten dizute... eta familiarengatik kezkatzen zara... Epe luzera oso eraginkorra ez den konponbidea ematen dute.*

### 3.2.2. Jazarpen indarkeriaren biktima terminoarekin identifikatzea

**Zer iruditzen zaizu *jazarpen indarkeriaren biktima* terminoa? Horrekin identifikatuta sentitzen zara?**

*–Uste dut garrantzitsuena kontzeptuak ez direla, kontzeptua berdina bada, zer axola dio. Solidaritatea erakutsi behar da sufritzen dutenekiko, horrenbeste bereizketa egin gabe.*

*–Niretzat terminoak ez dira garrantzitsuak.*

*–Ez nau kezkatzen.*

*–Hitzak azkenean hitz dira, nik jazarpena jasaten dut nire lana betetzeagatik, hori jazarpena da, erasoa da, zaintza, markaketa, ez nuke jakingo behar bezala azal-*

*tzen. Aitzitik, zentzu horretan, presionatuta nago, eta zentzu horretan jazarpena dago, niri ez dit terminoak trabarik egiten.*

*–Hizkuntza gizartearen zerbitzura dagoen baliabidea da, funtsarekin ados bagaude, hizkuntza funts horren zerbitzura egon behar da. Ez dit inolako arazorik sortzen jazarpenaren biktima deitzea niri, izan ere, egia da, edo terrorismoaren biktima, hori ere banaiz... Hitzak zubiak eraikitzeko daude.*

*–Terminoei ez diet garrantzia handiegirik ematen, garrantzia duena hartzen diren neurriak dira... terminoak hain abstraktuak izatea denez lortu nahi dena... politikoki okerrak ez izatea... azkenean, norbait beti egongo da desadostasunean... Terminoak neurri batean bakarrik dira garrantzitsuak, baina, azkenean, garrantzitsuagoa da zer egiten den... lege batean islatzen dena baino, bakoitzaren egunerokoan esanahia izatea...*

*–Guk ez dugu inoiz hain korapilatsua dirudien terminologia erabiltzen, eta jazarpena deskribatzeko balio izan badezake ere... jazarpena beste toki batzuetan ere ager daiteke... hemen mehatxu eta hertsapen terroristei buruz hitz egiten ari gara.*

*–Errealitate bat da jazarpenaren biktima garela, hori albora ezina den errealitatea da... Gizarteak, gu horrela deitzeagatik, babes gehiago emango digu?... ezin dut jasan heroi edo ausarta deitzea niri, ezetz, ez naizela ez ausarta, ez heroia, nik nire neurriak hartzen ditudala. Aitzitik, hemen, Euskadin, zoritxarrez, hondaketa maila batera iritsi gara, eta esan egin behar dut, jendeak burua besazpian sartu eta ostrukarena egiten duela, ez du inguruan duena ikusi nahi, molestatu egiten die... Jende gehienak ez du ikusi nahi.*

*–Mehatxatuta edo jazarrita egongo ez balira, ez ginateke bizkartzain pribatuak egongo haiekin... bizimodua aldatzera behartuta egoten dira eta guzti. Pertsona bat atzean izatea ez da atsegina inorentzat, eta ohikoa ez den modu batean bizi behar dute.*

*–Nazkatuta nago jada terminoekin, baina oso nazkatuta egon ere... uste dut guztiok dakigula non gauden...*

*–Jazarpen indarkeria terrorismoaren adierazpen modu bat da... azken batean jazarri egiten zaituzte haiek zuk pentsatzea nahi dutena pentsatzen ez duzulako eta menderakaitza, intsumisoa zarelako, herritar izateko eskubidea erabiltzen duzulako, eta hemen, Euskadin, ezin da herritar izan. Esklaboa eta mendekoa bakarrik izan daiteke, herritarra bazara, orduan maletak hartu behar dituzu...*

*–Uste dut jazarpena handiagoa zela lehen... askotan presio hori sentitzen dutenak senideak dira... tokiren batera sartzen zara eta identifikatu egiten zaituzte, eta mundu guztia atera egiten da... zure seme-alabei zertan egiten duzun lan ezin esan izatea... emaztea ez atenditzea edo okerrago atenditzea senarrarekin identifikatzeagatik...*

*–Egia esan, arduradun politikoei botako nieke errua, nik esango nuke "abandonatuak izatearen biktimak" dela terminoa, izan ere, azkenean... buruko egitura nahastuta duen mutiko batengandik... ezin duzu askoz ere gehiago espero... Arazoa da zure ordezkari politikoek, demokratikoki aukeratutako horiek, abandonatu egiten zaituztenean eta ez dutenean behar beste egiten... gizartearen eta talde politikoaren biktimak, jazarpenarenak baino...*

## 3.3. Biktimazioa gutxitzeko gizarteak emandako erantzunaren eta erakunde ezberdinen jardunaren balorazioa

### *3.3.1. Gizartearen jarrera*

**Uste duzu gizartea orokorrean, eta zure udalerriko biztanleak bereziki, zuk bizi duzun jazarpenaz jabetzen direla? Zurekiko babes jarrera dutela uste duzu?**

*–Inolaz ere ez, hori da harritzen zaituen gauzetako bat, txikitatik ezagutzen zaituzten auzokoek bizkartzainarekin bizi behar duzula onartzeko duten erraztasuna, mehatxupean zaudelako. Harritu egin ninduen naturaltasun osoz onartu zela alaba autobusaren geltokira ezin nuela eraman, hura arriskuan jartzen nenbilelako, jada ez nintzen parkera jaisten mundu guztia arriskuan jartzen nuelako eta errutina arriskutsua zen, edo bizkartzaina ikastetxeko bileretara eramaten nuela edo horietara joaten ez nintzala edo alabaren partiduetara ez nintzela joaten, eta hori nirekin solidarioak diren bizilagunak izanda, baina jendeak normaltzat hartzen du… Eta ez da, inolaz ere, normala, jendeak bizkartzainekin bizi behar izatea ez hiltzeko eta hemen normaltasunez onartzea… Legebiltzarrean eserita dagoen gobernu bateko presidente banintz eta bankuak begiratuko banitu eta pentsatu oposizioak bizkartzainarekin bizi behar duela, bestela hil egiten dituztelako nik egiten dudana ez egiteagatik, beldurraz hilko nintzateke, eta, aldiz, hemen mundu guztia pozik dabil… Pentsatzera iritsi naiz hemen Euskadin ez dagoela gizarte kontzientziarik, izan ere, horrelakorik balego, ez lirateke horrelakoak gertatuko.*

*–Ez, nik baietz uste nuen, politikaria den lagun batekin hitz egin nuen arte eta nire egoera nolakoa zen jakin behar zuela pentsatu nuen arte eta ez zekien… Pentsatzen dut hura jabetzen ez bazen, edozein pertsona normal are gutxiago jabetuko dela.*

*–Oso gizarte eroso eta bigunean bizi gara orokorrean, gauza guztietarako, eta ez bakarrik jazarpen indarkeriarako, baita edozein motatako konpromisoetarako ere. Jendea ongi bizi da zuzenean ukitzen ez dituzten bitartean… errukia dizutela ikus dezakezu, gaixo moduko bat bazina bezala… gupida pixka bat badago, baina, orokorrean, jendeak beste leku batera begiratzen du. Gertutik ukitzen ez dituzten bitartean, ez du trabarik egiten, nahiz eta kezkatu… Ez, ez dago kontzientzia handiegirik.*

*–Nire gurasoen etxean lehergailua jarri zutenean, auzotar eta familiako lagun batzuk zera esaten zuten: "pentsa, etxe horretan errugabeak egonda". Haiek borondaterik onenarekin esaten zuten, baina nire familia eta ni errugabeak gara ere, ez gara errudunak… "Errugabeak badaude" adierazpen hori oso larria da, barrutik pentsatu gabe irteten dela jabetzen naizelako… Orduan badirudi justifikatuta dagoela poliziak edo beste pertsona batzuk hiltzea… Noiz hunkituko dira bihotzak? Ba pixkanaka.*

*–Bai, jendeak ulertu ulertzen zaitu, baina zu ezin zara arazo horrekin egon egunero, azkenean aspertu egingo zenuke eta… Orain beldur naiz ez ote garen urrunegi joango… jendeak bere arazoak ditu… nik dudan arazoa ez da nirea, gizartearena da, gizarte osoaren azaro bat da… Zaila da ideia hori jakinarazi eta denboran mantentzea… denborarekin axolagabetu egiten dira… bizitza… zorionez, ez da arazo politikoaren barruan sartzen, hori baino zabalagoa da… Babesa aldatu egiten da denboran eta tokian zehar… Jendeak ulertu egiten zaitu, batez ere, biktimak daudenean…*

*–Jendea jabetzen da egoera surrealista dela… XXI. mendean… baina ez du esku hartzen… Garai batean izan ziren kontzentrazio gehiago… eta kontzentrazioetara jaisten zinenean, lau politikari zeuden, betiko lau pertsonak eta deia egin zutenak… gainerakoak pankartaren aurretik igarotzen ziren eta euria ikusten duenak bezala… Ez dakit horrela bizitzen ohitu egin garen eta normaltzat jotzen dugun, normala iruditzen zaigun ondokoak horrela bizi behar izatea… edo benetan axola ez zaigula den… Eta hurbiltzen dena, ezkutuka bezala da, eta zera esaten dizute: "nik mundu guztiarekin ongi konpondu nahi dut herrian"… "ulertzen zaitut, ulertzen zaitut, baina nahiago dut albo batean mantendu"… Egoera puntuala dela sinetsi nahi nuke, baina uste dut orokorra dela…*

*–Gizarte berekoian bizi gara, mundu guztiak bereari begiratzen dio… zer egingo dute?… Jendeak solidaritatea agertzen du, bai, baina zer egingo dute? Mehatxatuen aldeko manifestazio bat?…*

*–Abstraktuan bai… prentsan edo hitzaldi ofizialetan mundu guztiak islatu egiten du kazetariek, enpresaburuek, epaileek, fiskalek eta abarrek jasaten duten jazarpena, baina gero, egunerokoan, hori ez da ezertan ikusten… Ez digute bizkarrekoa*

*eman behar, ezta gutxiagorik ere, baina egoeraren ondorioez gutxienez ez dira jabetzen. Normalean jendeari atentzioa emanarazten dio edo ohartu egiten da kaletik zoazenean eta bizkartzainarekin ikusten zaituztetenean: "deserosoa behar du izan, ezta?", erosotasunaren ikuspegitik planteatzen dute, beste gauza batzuk ba ez...*

*–Ez dira jabetu nahi, batzuk badute niganako babes jarrera, baina... orokorrean ez dute ikusi nahi... Ez da ikusten ez dutela, ikusi ikusten dutelako, baina erosoagoa da beste toki batera begiratu eta ez ikustea... Nire sentsazioa kaletik noanean, herritik, atzean bi pertsona ditudala, ze gaizki, ze gaizki, esatea da... nire herrira lanera etorri eta bi pertsonarekin etorri behar izatea...nork esango zidan niri horrenbeste urte eta gero askatasunaren aldeko nire borrokan eginda askatasun faltako egoera honetara iritsi beharko nuenik... eta toki batetik bestera oinez noanean hori da sentsazioa, eta jendea ez da hori ikusten ez duenik, beste gauza bat da ikusi nahi ez izatea. Hori da tristea niretzat, euskal gizartea noraino iritsi den ikustea.*

*–Uste dut bizkartzainarekin bizi diren pertsonen zailtasunez gehiago jabetzen direla, uste dut ez direla jabetzen bizkartzainen lanaz...*

*–Senitarteko bat ez duena ez da jabetzen... Gizarte honetan gertatu dena, ETAri esker, bakoitza berera doala da... zuk ikusi egingo duzu hamabost eta hogei urte bitarteko bi mukizuk autobusa erretzen dutela, eta autobusa lanetik datorren jendez beteta joan daiteke eta autobusetik jaisten dira ez erretzeko... untxiak bezala... ea gero niri zerbait esango didaten eta mehatxaturiko bat izango naizen... Gizarteak ez du parte hartzen... galarazi egiten du pixka bat, beharrezkoa dugu gizarteak urratsa egitea aurrerantz... ez da nahikoa manifestazioa egitea... Hitz egiteko beldurra dago... Bozkatu duzun alderdi politikoari buruzko inkestak egiten direnean, hemen horrek ez du ezertarako balio, zuk PP alderdiari botoa eman badiozu, ez duzu esango... Beldurra dugu, gizarteak beldurra du eta beldurra askea da, ezin da aurpegiratu... Jendeak bere bizitza du, penagarriena da azkenean bakoitza bere etxean sartzen dela eta, bai, hil egiten dute, baina hori ez da telebistan agertzen... zuzenean eragiten ez dizun arte, ez dago kontzientziaziorik.*

*–Gizartea ere gehiago mugitzen da, bidegabe, ertzain bat hiltzen dutenean segurtasun indar eta kidegoetako beste bat hiltzen dutenean baino, eta presioa ezberdina da, ertzainek babes gehiago dute Euskadiko gizartean...*

*–Guztiak berdin jarraitzen du, jendeak bere gauzekin jarraitzen du... ostrukarenak ezin hobeki funtzionatzen du eta ez dago ezer egiterik, jendea gustura bizi da horrela, beraz, hor konpon!... Batasunak aspaldi asmatu zuen sufrimendua sozializatzearena eta haiei ongi irten zaie. Sufrimendu hori benetan sozializaturik egongo balitz, agian euskal gizartearen erreakzioa ezberdina izango litzateke. Aitzitik, gertatzen dena da terrorismoaren biktimak, adierazpenaren zentzurik zabalenean, gutxiengoa garela... euskal gizartearen gainerako kideei berdin zaie, ez dago begiratzea besterik... Munduko parrandarik handienarekin pankartaz betetako plazak jasatea edo, beno, ikustea... nazkatzen duten pegatinak... eta horrek ez du sentimendu negatiborik sorrarazten. Jendeak onartu egin du hori hiriko dekorazioa dela, eta nik uste dut gehienei berdin diela. Hain zuzen ere, horregatik eragozten die biktimen presentziak eta haiei emaniko laguntzak, nolabait galde egiten dielako horrek: "zer egiten dugu guk?". Ondorioa da ez dutela ezer egiten... Beldurra guztiok dugu, eta anestesiatuta anestesiaturik egoteko luxua bere buruari onartzen diona dago... edo herritarra zara edo ez zara... Poliziaren eskuetan uztea, haiek konpon dezaten... honetan parte ez hartzea... pasiboa izatea ez dator bat gizarte demokratikoarekin eta balio batzuekin... Gertatzen dena da agian Euskadin, beharbada gure demokraziaren gaztetasunagatik, jende askok ez dakiela zer den demokrazia. Norberekerian bizitzea nahiago dute, Ikearen iragarkian bezala: "Ongietorria zure etxeko errepublika independentera", eta kanpoan gertatzen dena, hor konpon bakoitza... Oso erosoa da errealitatea ez ikustea, zure buruari galderak egitea saihesten duzu, eta, batez ere, nik egiten dudan galderari ez erantzutea lortzen duzu...*

*–Uzte egoera hori hasieran bizi izan nuen… iritsi nintzenean… etxebizitza bat alokatzera joan eta alokatu nahi ez zizutenean segurtasun indarretako kide izateagatik… zu joateko propaganda mehatxatzailea botatzen zizuten auzokoak eta guzti egon zitezkeen… Hasieran ez zinen ausartzen non egiten zenuen lan edo zer zinen esatera… zer zinen esaten bazenuen, ez zuten ezer jakin nahi zuri buruz… Askotan endogamia gertatzen da, beharbada ez guardia zibilen kuartel-etxeetan bezain beste… baina nekeza da harremanak eratzea… Nolabait, salbuespena naiz… gustura nago hemen… nire lagunek esaten didate "oraindik han zaude"… gaizki egon nintzenean, ezin izan nintzen joan, orain ongi egonda ez naiz joango… mehatxatuta, mesprezatuta, ahaztuta, aparte egongo bazina bezala sentitzeaz… "horretarako ordaintzen dizute" esatera iritsi dira… erosoago sentitzera, ez onartua edo babestua… baina bai eboluzio positiboa igartzera… orain ez zaude bakarrik begira-puntuan… nahiz eta Miguel Angel Blancorenarekin izandako mugimendua ezerezean geratu den… gero bazirudien bake prozesuarekin amaitu egingo zela…*

*–Ez dira gehiegi jabetzen… Pentsatzen dut gizakiaren ezaugarria dela tokatzen ez bazaizu beste toki batera begiratzearena… gauzak nekez alda daitezke zentzu horretan… jendeak bere bizitza bizi du… eta inor ezin da egon etengabe prest kalera ateratzeko… baina borondatearekin, batez ere politikan, gauzak egin daitezke… erakundearen beraren aldetik errua ere badago… Segurtasunagatik… gure baitan bildu behar izan dugunez, ezkutatu beharra, anonimotasunean bizi beharra… ikusezinak izan gara gizartearentzat… Bidegabekeria bat ere sumatu dugu… ETAk militarrak, poliziak eta guardia zibilak hiltzen zituen bitartean, inori ez zion horrek axola… Baina, agian, ETAren akatsik handiena… politikariak hiltzea izan da… orduan politikariek serioski hartu dutelako arazoa… hortik aurrera legeak egin dituzte, lankidetzan aritu dira beste herrialde batzuekin, baliabideak jarri dituzte… lehen horrela ez ziren hainbat gauza…*

*–Neska batek, zortzi urterekin, zera esaten zion lehengoan bere amari: "ea, ama, hemen ez bagaituzte nahi, zergatik ez gara joaten… ez dut ezer ulertzen, ez dut ezer ulertzen… hemen ez gaituztela nahi bada, orduan zertarako gaude hemen?"… Gogorra da entzun eta erantzutea…*

*–Gizartea ez da jabetzen, ezta gutxiagorik ere… atentatu bat egon zenean, kalera irten nintzen. Mundu guztia isilik zegoen, norbaitek mutila zein jatorra zen aipatu zuen, baina beste edonon haserre adierazpenak egongo ziratekeen atentatu bat eta gero… jendea isildu egin zen, isiltasuna. Jendeak beldur handia du orokorrean… Atentatu bat dagoenean, normalena horri buruz hitz egitea litzateke, ez naiz zein alderditakoa zaren galdetzen ari, baina horri buruz hitz egin. Gaia atera egiten duzu eta jendeak ez du nahi. Jendeak ez du iritzirik ematen kasuan kasuko gertaeraren gainean, besterik gabe… Hori ez dago ondo eta asko harritzen nau.*

*–Jendeak ez du babes jarrerarik… jai batzuetan Udaletxearen kontra margoa bota zuten eta lau ume ziren. Mundu guztiak korri egiten zuen eta nik esaten nuen: garen guztiak izanda, nola onartzen dugu hau… Tristea iruditzen zait inork "ez" ez esatea… Gaitzesgarria iruditzen zait pixka bat mundu guztiak paso egitea eta aurre ez egitea… Haur horiek umezurtz geratu dira ostiralean, ez diote aurre inori egin behar, baina zergatik ezin dute kaletik burua oso tente dutela joan…*

*–Jendeak ez du gainerakoen arazoen berri izan nahi, lanaren eremuan ere gertatzen da. Ez da zure arazoa egun batean zure arazo bihurtzen den arte.*

### *3.3.2. <u>Babesa lan ingurunean</u>*

## **Lanean nagusien edo lankideen aldetik babesik jaso al duzu?**

*–Lankideen babesa zure egoera berdinean egotetik dator. Nagusien aldetik, beharbada, ez da nahikoa.*

*–Bai, guztiak daudelako mehatxupean. Noizean behin, nagusiak etortzen dira baina agindutakoa betetzeko asmorik gabe, nire sentsazioa da guztia oso gezurrezkoa dela.*

*–Ondo badaramazu, gauzak kontatzen dizkiogu elkarri. Gaur, adibidez, zera esan dit nagusiak: "triste jarri naiz berriro ibilgailuaren behealdea begiratu dudalako eta aspaldi zelako horrelakorik egiten ez nuela". Hari barrena husten uzten diozu eta kito, horrelako babesa, bai... Nagusien aldetik, nik ez dut esango sentsibilitaterik ez dutenik, baina...*

*–Nire nagusiek babesa ematen didate, noski. Hori bai, lanbidea gizartearen isla ere izan daiteke zenbaitetan.*

*–Nire nagusiek babesik emango ez balidate, gaizki ibiliko ginateke. Lankideen babesaren aldetik ere ez dut kexurik.*

*–Lanean ez dut arazorik izan... Lanetik pertsona taldea irteten gara beti kafea hartzera, eta bizkartzaina jarri baino egun batzuk lehenago, nire egoera zein izango zen aipatu nien... Ez nuen nahi nik bizkartzaina eraman behar izateak beste inori bizkartzainpean egotea sentitzerik nahi. Ez nekien oso ondo nola azaldu, gustura egongo ez zen jendea, zaintzapean edo mugatuta senti zitekeen jendea egon zitekeelako... Noski, gaizki irudituko zitzaidan haiek kafea berriro nirekin hartuko ez zutela esatea, baina prest nengoen horrelakoren bat onartzeko... Azkenean betikoak irteten jarraitu genuen... Baina jabetzen naiz jendeari ez zaiola gustatzen bizkartzaina daraman inorekin irtetea... Nik planteatu egin nuen eta ez nuen arazorik izan, ez behintzat aurrez aurrekoan...*

*–Bizkartzain modura beti babestu izan gaitu asko Udalak, udaltzaingoak... baliabideak eman dizkigute dauden mugen barruan...*

*–Udal bizkartzain gisa egiten dugun lana hain berezita dagoenez, gainerako lankideek ez dakite zer egiten dugun... Nagusien aldetik bai sentitzen dut babesa.*

*–Alderdi ezberdinetako pertsonek solidaritatea agertzen dutela ikusten duzu... Gai horretan bada batasunik...*

*–Egoera gogorrak izan direnean deitu egin digute eta zerbait behar genuen galdetu. Zentzu horretan babes handia jaso dugu, babesa jaso daitekeen horretan noski. Hau, nolabait, mehatxu lausoa da eta... egoera larriren bat egongo balitz eta nire nagusiei deitu banie, ziur izango nuke babesa eta laguntza... Zentzu horretan ez dut inolako kexarik.*

*–Nire lankideei dagokienez, babes handia ematen didate... asko lausengatzen naute oso langilea naizela esaten dutelako... Nik bidegabekotzat jotzen ditudan egoeren aurrean, ni ez naiz isiltzen... uste dut begiko nautela gehienek, ezinikusia baino... niretzat oso atsegina da.*

*–Nik igartzen dut babesa, gehiago izan zitekeen, baina guztian bezala. Adibidez, niri, bizkartzain pribatu modura, gustatuko litzaidake enpresak txalekoak jartzeko ardura hartzea... Gobernuak ere ez du zuzkidurarik eskatzen zentzu horretan...*

*–Bai, babestuta sentitzen naiz nagusi eta lankideen aldetik.*

*–Lehenengo pintaketarekin babes komunikatua landu zuten nire lankide eta gainerako langileek..., bik izan ezik: baten aitzakia Eginen idazten zuela zen eta bestea koldarra zelako... agintariekin kontzentrazioa egin zen... Baina hortik bost minutura nik nire bulegora itzuli behar nuen, bakarrik geratzen zara eta, atea jotzen dutenean, ez dakizu nor dagoen beste aldean... Gero, beste eremu batean, zegozkidan ordainsariak ukatu zizkidaten...*

*–Gure lantaldea asko aldatzen da... Berriek lehengoak baino okerragoak diren egoerak bizi dituzte... Ez erlaxatzeko aholkua eman ohi diezu...*

*–Batzuetan, komandoen paperen artean zure izena agertzen bada, hemendik irtetea eskaintzen dizute...*

*–Zomorro arrarotzat gaituzte... "badatoz iparraldekoak".*

*–Nire laneko taldean guztiak gaude zaku berdinean... orduan solidaritatea normala da... Zentzu horretan batuta gaude... ez dudanez mehatxu zuzenik izan, ez dut nagusien babespera jo behar izan...*

*–Zerbait gertatzen denean, jendea nahiko elkartuta dago... horretarako bai, gero beste gauza batzuk ez zaizkit horrenbeste gustatu beharbada.*

*–Ez da horri buruz hitz egiten. Une zehatzetan solidaritatea dago, baina gero ahaztu egiten da... gero, denbora igarotzen denean, inori ez zaio bururatzen esatea "deitu egingo diot, ea nola dabilen". Erakundeek eurek informazioa ematearen ardura har zezaketen... zure taldearentzako babes morala sentiarazten dizun zerbait... Niri ez litzaidake gustatuko medaila bat ematea edo nire guraso edo senarraren bizkarretik eskua pasatzea... Guztia erakundeen aldetik garatzen da, baina gezurra da... izapidea betetzeko besterik ez da.*

*–Urte txarrenetan axolagabekeria egon ahal izan da agintarien aldetik mendekoen segurtasunari dagokionez, lehentasuna emanez norbait atxilotzea lortzeari eta baita hortik etekin pertsonala ateratzeari ere.*

### *3.3.3. Hedabideen tratamendua*

**Hedabidek gai honi ematen dioten tratamendua zuzena dela iruditzen al zaizu?**

*–Uste dut hedabideek berria bilatzen dutela gehiago, une zehatza, eguneroko errealitateari buruzko erreportaje lasaia baino.*

*–Ez dut uste gaiari buruz asko kezkatzen direnik, politikariren bati zenbaitetan propaganda egitetik haratago.*

*–Hedabide motaren araberakoa da.*

*–Orokorrean, bai, zuzena da... Bizi garen espektakuluaren gizarte honetan hedabideek morbora jotzen dute geroz eta gehiago, zoritxarrez. Kritikoa naiz zarata gehien ateratzen duen horrekin...*

*–Egunkari bat egunero titular berdinarekin aterako balitz, eta atera daiteke gutxi gorabehera egoera hau albiste delako egunero, jendeak ez erosten amaituko luke: "Badakigu hori gaizki dagoela", esaten dizu jendeak, "baina ez errepikatu horrenbeste nekatzen ari naiz eta".*

*–Oso erabilera alderdikoia egiten da, eta hori guztia ideologia eta sigletatik haratago doa... Istorio honetan, zoritxarrez, guztiak gaude barku berdinean... Hau arma politiko gisa erabiltzen bada... kalterako da. Beste era batera tratatu beharko litzateke.*

*–Hedabideak zenbaitetan oso sentsazionalistak dira... esan beharko ez lituzketen gauzak esaten dituzte...*

*–Segurtasun neurri garrantzitsuena anonimotasuna da... Orokorrean kazetariek errespetatu egiten dute, baina batzuetan... izenak eta abizenak ateratzen dituzte... hori azpikeria da eta irudia ateratzen bada are gehiago... Hori da kexa handiena, kazetari batzuk ez dutela ulertzen kazetaritzako interesa segurtasun arrazoien mende geratu beharko litzatekeela.*

*–Ez zait zuzena iruditzen... Zenbait hedabideetan, adibidez ETBn, inoiz ez da Espainiari buruz hitz egiten, ezin da egun batean Espainia esan?... Hori ezarritako araua da... askotan erabiltzen den terminologia zuzenduta dago erabat... nagusiaren ahotsa izaten da zentzu askotan, eta terrorismoaren alorrean gauza bera... Ez dago terrorismoari "terrorismo" zertan deitu, ez dago erailketari "erailketa" zertan deitu...*

*–Bizkartzain pribatuei dagokienez... atentatuarekin dokumentala egin zen, baina ez zaio behar besteko indarra eman bizkartzainaren lanari... segurtasunagatik*

*ere sekretismo handia dago. Gure lana dela eta, guk ere ez dugu interes gehiegirik hedabideetan ateratzeko.*

*–Hedabidea gorabehera... alderdikoia da guztia... Gatazka honetan politika da guztia, eta hildakoak hildako dira azken batean... Presoak espetxeetan daudela esaten da. Nik pentsatzen dut: bai, eta guardia zibil honen amak hilerrira joan behar du hura ikustera, uste dut hori okerragoa dela... Politizatuta dago guztia oso.*

*–Hedabideek komeni zaien eran ematen duten albistea. Biktima elkarteek egindako ekitaldi batzuk ez dituzte ia jakinarazten, eta inguruabarrak aldatu egiten badira, atentatu bat badago, orduan hedabideek horri ematen diote arreta. Interesen arabera jarduten dute, ez balioen arabera, eta ardura handia dute boterearekiko.*

*–Askotan entzute handia ematen zaie horrenbesteko entzuterik izan beharko ez luketen egintzei... bidean dauden ikerketak kalte ditzaketelako... Batzuetan zentzurik gabeko galderak egiten dizkiete atentatuak jasan berri dituztenei: "eta nola sentitzen zara?", ba nola sentituko da...*

*–Hedabideentzat ez da bakarrik negozioa izan behar... modu eskasean islatzen dute arazo hau... Hedabideek parte-hartze handiagoa izan beharko zuketen, orokorrean, terrorismoaren aurkako borrokan, botere publikoen ildo berean kokatu... ez dago mintegirik terrorismoari buruzko berrien ikuspegia zehazteko... berrien ikuspegia zehazteko, gizartea babesteko... baina hori da gehien saltzen duena... inork ez du arazoen berri, albiste txarren berri izan nahi...*

*–Badakit eztabaida dagoela... garrantzitsua da estatu mailan, maila autonomikoan... baita udal mailan hezkuntzarekin ere... Egun defizita dago... Atentatuak eta mehatxuak egoteaz kontzientziatu behar izateaz gain, arrazoietara ere jo behar da, inork ezin ditu indarkeriarekin bere ideiak gainerakoei ezarri... Zure iritzia adierazteko, botoa emateko eskubidea duzu... gainerakoek bezala... baina azkenean gehiengoak dira gobernatzen dutenak eta gutxiengoak babesa ematen dutenak... edo oposizioan lan egiten dutenak... Inork ezin du indarkeriaren bitartez demokratikoki lortzen ez duena ezarri...*

*–Zenbaitetan garrantzia gehiegi ematen diote terroristari... edo oraindik eman beharko ez lituzketen datuak ematen dituzte, ikerketa bidean dagoela jakinda... gero, batzuetan, informazioa ematen da eta agian biktimak ematea nahi ez lukeena da.*

### *3.3.4. Hezkuntzaren alorreko erantzunak*

**Nola baloratzen duzu hezkuntza maila ezberdinek jazarpen indarkeriaren horrelako jarraibideak prebenitzeko garatzen duten lana?**

*–Uste dut gaiari buruz hitz egitea saihesten dutela. Ez polarizatzeko, ez sumintzeko, egin dutena ez hitz egitea izan da. Orduan, beno, isiltasunaren konplizitatea da pixka bat. Beraz, uste dut dezente gehiago egin dezaketela.*

*–Nahiko gutxi edo ezer ez da egiten dutena. Ez dut uste ezta jendeak hain egoera latza bizi duela ikastetxeetan jakinarazten denik ere... Atentatu bat dagoenean ikasleak patiora protesta egitera ateratzen dituen ikastetxea topatzean kontentu... eta, orduan ere, guraso batzuei gaizki iruditzen zaie, baina zoratzen ari gara ala? Noski, haurrek jakin egin behar dute eta badakite hil egiten dela eta hori gaizki dagoela. Uste dut nire semeari inork ez ziola hitz egin pertsona batzuk mehatxupean egoteari buruz, gurasoetako bat egoera horretan izanda ere.*

*–Ziurrenik ez dute behar beste egiten.*

*–Hemen lan gehiago egin behar da gizarte pedagogiaren alorrean.*

*–Seme-alabak ditut eskola adinean... eman behar dieguna errealitatea zer den eta zer ez den bereizteko baliabideak dira... Alderaketa hori egiteko gaitasuna*

*izan behar da... Edukia edozein izanda ere, hezkuntza sistemak pertsona askeak egin behar ditu...*

*–Hezkuntzaren alorreko erakundeek ez dute ahal duten guztia egiten... Nik herri bateko institutu batean ikasi dut... txikitatik azaldu beharko lirateke gauzak eta sentsibilitatea bultzatu, genero indarkeriarekin egiten hasi diren bezala... ezberdina denarekiko errespetua bultzatu... Pertsona batzuk sentsibilizatzen dira honekin guztiarekin, baina zure etxe ondoko atean bizi den eta alboratuta sentitzen den, atzerritarra den edo ingurune horretan ideia ezberdinak izateagatik ezberdina den jendearen egoeraren gainean sentsibilizatzea ere komeni da... guztiak dira onargarri; horiek defendatzeko modu guztiak, ordea, ez dira onargarriak... ez da bidezkoa mehatxupean inor egon behar izatea...*

*–Ez dakit zerbait egiten den... orokorrean zerbait egitea ondo iruditzen zait...*

*–Ezin dut iritzirik eman, ez dut harremanik hezkuntzaren alorreko erakundeekin, ez dut seme-alabarik, beraz, ez dakit zer den egiten dena.*

*–Testuliburuetan agertzen diren gezurrak ikusi besterik ez dago, nik ikusi egiten dut historiarekin zorrotzak izan behar garelako, historia guztiarekin. Nik ez dut sinesten ez gure garaian kontatzen ziguten historia, hura ere zuzendutakoa zelako, ez orain kontatzen digutena... ikerketa kazetari batek egindako lan zorrotzetik, kazetari serioa... gainera, hor daude liburuak... kezkatu egiten nau haurrei irakasten ari zaiena... Nire ustez, haurrak hezi egin behar dira, ez zuzendu, askatasunean hezi behar dira... zein printzipio eta baliotan ari gara haiek hezten?... ez da errespeturik irakasten, eta errespetua irakasten ez den bitartean, gaizki.*

*–Estatuak ikastetxeetan hezi nahi badu ere... familian espainiarrei, politikari batzuei, gorrotoa izateko modu hori irakasten bazaie...*

*–Nik ikasi nuen ikastola haztegia zen... edo nortasun pixka bat duzu... edo erraza da sartzea... traila handia sartzen ziguten errepresioaren, presoen gaiarekin... jendea etortzen zen eta hitzaldiak ematen zizkigun... polizia nazionalak jipoitu egin zituela... Azkenean, bakoitzak bere bidea hartzen du... orain egia da terroristak geroz eta gazteagoak direla... hasieran harriak botatzen zizkioten Guardia Zibilari eta orain Ertzaintzari... Ezin da errepresioa ezagutu ez duten gazteak utzi... nik errepresioa bizi izan dut... baina ez dira egun dauden guardia zibilak, hura amaitu zen... Lehen zeuden politikak ez dira egungoak, guztiak hobera egin du, Eusko Jaurlaritzak Osakidetza du, polizia du... guztia dugu... jende horrek hamalau edo hamazazpi urterekin: zer errepresio du? Batere ez... baina norbaitek burua jan die... Oinarritik norbait esaten ari zaie izugarrizko errepresioa bizi duen herrialdean bizi garela... jende hori... eta dakidalako esaten dut, baztertuta dago gelan... baina horiek hartu eta zera esaten dute: “hara!, zerbaitetarako balio dut... ona naizela esaten dute eta harriak botatzera”... Nik dirua ematen zien jendea bazegoela ikusi dut... Hezkuntzak asko egin beharko luke, tamalgarria delako hamazazpi edo hemezortzi urteko umea kartzelan sartzea hogeita hamar urterako...*

*–Hezkuntza erakundeek kale egiten dute argi eta garbi... Euskalduna izateaz gain espainiarrak ere badiren euskaldunei nortasunaren zati bat ukatu egiten diete...*

*–Gehiago azpimarratu beharko litzateke... ez onartu “polizia txarra da, espainiarra dena txarra da” bezalako fobietarako joera, jarrerak erradikal bihurtzera daramaten horrelako gauzak ez onartu...*

*–Gazteengan gorrotoa badago, hezkuntza kale egiten dabilela da... Gazte batzuk manipula daitezke, ez dute irizpide propiorik... zein familiaren baitan bizi diren ere eragina du... zein girotan mugitzen zaren...*

### *3.3.5. Udal babesa*

**Zure kasuan zuzena dela uste al duzu udal agintarien jarduna?**

*–Esfortzua handia da, tratu pertsonalean eta gizakoian gainera biktimekin; ez, ordea, mehatxaturikoekin. Asko geratzen da egiteko.*

*–Nigatik Udalak ez du inoiz ezer egin, inoiz ez dira pertsonalki nirekin harremanetan jarri... Erakunde bakoitzak bere mehatxatuak ditu eta batzuk hedabideetara iristeko eta beren segurtasuna kudeatzeko baliabide ekonomikoak izateko aukera gehiago dituzte. Guk kudeatu ere ezin dugu egin, eta horrelakoa da bizi dugun egoera.*

*–Bai, zuzena iruditzen zait udalaren aldetiko jarrera.*

*–Orokorrean, bai. Nire hirian nahiko lan garbia eta argia egiten ari da biktimekin.*

*–Ahal dutena egiten dute.*

*–Oso konplexua da, azkenean guztia nahastu egiten da... zerbait gertatzen denean, gauzak onartu egiten dira Udalean, nahiz eta talde edo alkate batzuk, kasuren batean, abstentzioa erabiltzen duten... baina egunerokoan ez dago babesik... Zera esaten dizute: "nik ez dut nahi zuk horrela bizi behar izatea", baina gero ez dute ezer egiten horrela bizi beharrik izan ez dezazun, eta, neurri batean, babesa une jakinetan bakarrik sentitzen duzu, zerbait gertatu denean...*

*–Ba ez... gure lehengo lantokia oso gaizki babestutako eraikina zen. Adibidez, edozein pertsonak eguneko hogeita lau ordutan aparka zezakeen ibilgailua eraikinaren ondoan, eta Udalari hainbat eskaera egin zitzaizkion, hori debeka zezan. Izan ere, lehergailua zeraman ibilgailua jar zezaketen eta guztiak hil, eta ez genuen inolako sentsibilitaterik topatu. Zentzu horretan bai naizela oso kritikoa... Hori etengabeko kexa eta inoiz kasurik jaso ez zuena izan zen.*

*–Udalen araberakoa da... bizkartzaina eraman behar izatea normaltzat jotzen den unea iritsi egiten da, eta ez da normala, normaltasunetik kanpo dago... nik euskara eskola partikularrak hartzen nituen lehen Udaletxean, euskara perfekzionatzeko, testu asko elebidunak izan behar direlako eta euskaraz bakarrik ekartzen direlako, eta oso ondo zetorkidan eskoletara joatea... Euskaltegira joan nendila esan zidaten. Nik ez nuen arazorik, baina ordutegiaren aldetik zailtasunak zeudela esan nien, eskolak Udaleko lan bilerekin bateratzeko garaian... ba hor agertu zen neurri bakarrarekin ez neurtzea... haiek dira jendea euskaldun bihurtzea eskatzen duten lehenengoak... kontraesana dago hor, ikusiko dugu nola konpontzen den.*

*–Itolarri abertzalea duten herrietan, abertzalea ez dena gaizki bizi da, presioarekin dago... pentsamendu bakarrez hitz egiten ari gara...*

*–Lan egiten dudan herria kartelez josita dago, horiek kentzeko aurrekontu partidak daude... beste gauza bat da berriro jartzea...*

*–Aldaketa igarri dut delituak prebenitzeko gai teknikoetan...*

*–Uste dut politikariak argazkia ateratzeko bakarrik doazela eta besterik ez... zerbait gertatu denean bakarrik esku hartzen dute...*

*–Udaletxeko inork ez zidan inoiz deitu paketea jaso nuenean, ezta Eusko Jaurlaritzak ere..., bai, ordea, Barne ministroak. Hirian, alkatearen jarduna oso neurtuta dago, guztiak pozik izan behar dira. Terrorismoaren alorrean, ezin dira guztiak kontent eduki, ezin da onartu esparru publikoa erabiltzea terrorismoa goraipatzeko eta, aldi berean, kandelak pizteko... koherentzia falta iruditzen zait.*

*–Ez dut inoiz babesik sentitu... pintaketak ikusi ditut politikari bat bizitzen den etxebizitzaren parean eta, lehen, pintaketek denbora gehiago egiten zuten bertan, orain berehala kentzen dira... baina ez dut ulertzen zergatik onartzen diren kartelak zenbait jaietan... Horrek kaltea eragiten digu guztioi eta irudi txarra ematen du... gero harritu egingo gaitu kanpoan horrelakoak esatea: "nola zaudeten!"... Guztiak horrelakoak izatearen irudia ematen dugu. Zuk kartela jartzen ez baduzu ere, herritar modura ez duzu ezer egiten hori saihesteko... Gatazkak saihesteko Udala izan behar da jarduten duena... Manifestazio batez gogoratzen naiz... eta bat-batean bat irteten zen manifestaziotik eta pintaketa bat egiten zuen... ez zuten inor atxilotu... eta antolatzaileei ere ez zitzaien garbiketa ordainarazi ere ez...*

*–Ohitzera iritsi zaitezke, baina kanpotik jendea datorrenean eta kartelak ikusten dituenean edo zenbait kaletik ibiltzen denean... mundu guztiak haiek bezala pentsatzen duela uste izateko joera dago...*

*–Kidegokoa naiz eta... Pasai Donibanen zintzilik duten maleta hiru adarreko txapelarekin, komikoa da...*

*–Ez genekien Udalak ETAren atentatuan hildako lankideengatik omenaldia antolatu izan zuenik.*

### *3.3.6. Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzen jarduna*

**Zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzek mehatxaturiko pertsonei dagokienez bideratzen dituzten jardueren gainean?**

*–Pertsonalki ezagutzen dut Biktimen Zuzendaritza. Ahal duten guztia egiten saiatzen dira, baina, noski, beti egin daiteke askoz ere gehiago. Giza Eskubideen Zuzendaritza ez dut horrenbeste ezagutzen. Uste dut, hedabideen bitartez jakindakoagatik, giza eskubideen egoerak orekatzen saiatzen direla, eta hori ez zait hain zuzena iruditzen. Giza eskubide guztien babesean sinesten dut, baina ez zait iruditzen guztiak egoera berdinean gaudenik.*

*–Mehatxaturiko pertsona naizen partetik, inoiz ez dira nirekin harremanetan jarri, ez dakit mehatxatuta nagoenaren kontzientzia duten. Hasieran, faltan botatzen nuen erakundeen aldetiko kezka hori, orain jada berdin dit... Hasieran, lo ere egin ezin nezakeenean, ez beldurragatik, zera pentsatzeagatik baizik: zer bizi izango dut? Eta horrek zer esan nahi du? Etxetik irteten naizen bakoitzean pertsona batzuei dei egin behar diet?... ezinegon ikaragarria da.*

*–Nik badakit hor dagoela, baina besterik ez. Aipatutako bigarren erakundea ez dut ezagutzen.*

*–Biktimen Zuzendaritza lan paregabea egiten dabil. Ez dut zalantzan jartzen Giza Eskubideen Zuzendaritzak borondate ona ez duenik, baina, zenbaitetan, uste dut distantziakideegia den ikuspegia duela.*

*–Berriro ere diot: egiten den guztia gutxi da. Biktimen Zuzendaritza sortzeak behintzat, ekintza politikoa izatearen kritikak jasotzen baditu ere, nolabaiteko kezka agertzen du... Giza Eskubideen Zuzendaritzak karga politiko handiagoa du... Ez dut uste irizpide askatasuna izango duten pertsonak prestatzeko oinarriak agertzen ari direnik...*

*–Biktimen arretara zuzendutako edozer gauza ongi dago, baina... guztia hain politizatuta dago... azkenean... erakundeak dira eta, une jakin batean, arreta pertsonalizatua emateko eta ardura gehiago izateko sortzen badira ere... zaila da... Euskadiren arazo handia da jendearen benetako arazoez ahaztu egiten garela goragoko arazoetan sartzeko, jende gehienari axola zaiola uste dugulako eta hori ez da egia... Azkenean jendeari axola dio, entzunarazten diegun gauza bakarra delako... guztia "euskoarazoan" galtzen da, eta hor guztiak ados jartzen ez garenez, ba gainerako guztian ere ez...*

*–Hedabideen bitartez dakidanaren arabera, Biktimen Zuzendaritza lan txukuna egiten dabil.*

*–Ez dakit ezer Biktimen Zuzendaritzari buruz... Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin gai teknikoagoengatik izan da...*

*–Biktimen Zuzendaritza arina, zuzendua iruditzen zait... ez nago ados planteamenduekin, kontent uztea da haien helburua. Guztiak dira biktima, guztia da indarkeria, ez... ados nago GAL taldeen indarkeria egon izanaren inguruan... baina guztia hondorik gabeko zakuan sartu nahi dute eta ez da bidezkoa, ETAren indarkeriaren*

*biktimei..., eta ni mehatxatua besterik ez naiz, haiei eman zaien tratua gutxiesgarria da... Halaber, ez zait gustatu Giza Eskubideen Zuzendaritza gobernuak esaten duenaren arabera jardutea... Herriaren Defendatzailea jarduteko estamentu askea den bezala, ideologia politikoetatik kanpo, izan behar den bezala, beste hainbat gauza ere badira kasuan kasuko gobernuak agindutakotik kanpo geratu behar direnak... Askatasunez jardun behar du...*

*–Nik uste dut segurtasun pribatuko enpresek ez dutela inolako harremanik erakunde horiekin.*

*–Nik dakidala Biktimen Zuzendaritzak ez du gertutasunik azaldu gurekiko, mehatxupeko taldea garen heinean... Giza Eskubideen Zuzendaritzari buruz ere ez dakit ezer...*

*–Biktimen Zuzendaritzari buruz... aurpegia garbitzea eta biktima batzuk harrapatzea da helburua, guztiek Eusko Jaurlaritzaren jarrera kritika ez dezaten... Neurri kosmetikoak edo estetikoak dira... iritzi publikoaren aurrean ongi geratzeko... ez dute inolako konpromisorik ekartzen... eta, bestalde, Jaurlaritzak beste era batera jarduten du... ez da kaltegileetatik aldentzen... Ezinezkoa da terrorismo egoera bat berrogei urtez irautea gizartearen aldetik legitimotasunik ez badu... zuzenena haren ingurunekoa, baina baita euskal abertzaletasunarena ere...*

*–Giza Eskubideen Zuzendaritzari buruz... euskal abertzaletasunak bezalaxe erantzukizun handia du ETAren terrorismoan... euskal abertzaletasunarentzat, ETAkoak, euskaldunak dira lehenik eta behin eta terroristak gero; orduan horrek pisu handiagoa du balantzan, terroristek bortxatutako herritarren eskubideek baino... Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean bezala... Josu Ternera bertan izatea ahalbidetu zen...*

*–Ez dut bi zuzendaritza horien berri.*

*–Nire laneko taldearekin zuzendaritza horiek ez dute inolako harremanik izan ezertarako... giza eskubideen gaian... mingarria da Josu Ternera Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean jartzea... oraindik itxaroten ari naiz inork barkamena noiz eskatuko... Gertaera horrek ad eternum galarazten die izen ona erakundeei... Ez dakit horrek zerikusirik duen Biktimen Zuzendaritzarekin edo ez... Giza Eskubideen Zuzendaritzaren ekimenen berri ere ez dut...*

*–Erakunde horiek ez nituen ezagutzen, Madrilgo zer edo zer bai.*

*–Inoiz ez dut horren berri izan. Hori bai, giza eskubideei buruz hitz egiterakoan, Josu Ternera Eusko Legebiltzarrean datorkit burura...*

### *3.3.7. Herrizaingo Sailaren babesa*

**Nola baloratzen dituzu bideratutako jarduerak eta jasotako tratua zure kasuan Herrizaingo Sailaren aldetik segurtasun/babes neurriak jartzerakoan? Babes hori egokia, behar bestekoa, koordinatua dela uste al duzu?**

*–Oso txarra da nire balorazioa. Nire kasuan ertzainak ditut. Pertsona oso onak daude. Baina azkenean egun osoan zehar zure bizitzan eta zure familiarenean sartzen dituzun ezezagunekin bizi behar duzu, eta bakoitzak bere izaera eta bere istorioak ditu... Ez da ezer zaintzen jartzen den pertsona mota, batere ez. Segurtasunean aditu diren pertsonak izateaz gain, diskrezioa eta enpatia dutenak ere izan beharko lirateke, batbatean pertsona bat bizitzera behartu den egoera konplexuaz jabetzen dena... ni aske izateko hezi naute, ez bizkartzainarekin bizitzeko, eta hori oso gogorra da...*

*–Intimitate galera hain da handia, emakume izanda gainera, eta ez da segurtasunagatik justifikatzen edozein tokitara noan bakoitzean ordenagailu bati datuak hornitzea... Nire bizitza ordenagailu batean dago eta segurtasun arrazoiengatik dela*

*esaten da eta ez da egia, baina gero, gainera, honelako esamesetarako erabiltzen dira datu horiek: "zenbat aldiz joaten da emakume hau ileapaindegira!", edo "laster ginekologoaren miaketa tokatuko zaio"... Agintariek ukatu egiten dute, baina nik egunero entzuten diet ibilgailuan... izugarria da, tratua nolakoa den inork ezin du imajinatu. Azkenean, okerrena ez da mehatxua, baizik eta mehatxuaren aurrean zu babesteko jartzen dizutena... Asteburuan zer egin nahi dudan aurrerapen handiarekin pentsatu behar dut, beste hiri batean bizi diren bizkartzainak jakinaren gainean jartzeko... eta, orduan, zer egiten duzu? Ateratzeari uzten diozu, hain nekagarria delako... Ez ditut bizkartzainak nire eskura ezta larrialdi bati aurre egiteko ere.*

*–Egunerokoan hartutako neurri praktikoetan koordinazio oso gutxi dago eta zaila da. Biktimari eskatu egiten zaio neurri horiek behar izatea asko justifikatzea, eta beharrezkoa da, baina, zenbaitetan, gehiegizkoa bihurtzen da. Bizkartzain batzuen eta besteen arteko komunikazioa hobetzea posible da. Egia da lehen mailako bizkartzainak (ertzainak) eta bigarren mailakoak (udaltzainak eta pribatuak) daudela dirudiela, gehienek pribatuak eta udaltzainak dituztenean. Gainera, ez zait ongi iruditzen horiek Gasteiz, Bilbo edo Donostiako berezko kargetatik ordaintzea; logikoena Eusko Jaurlaritzak zerbitzu horien kostu osagarriak ordaintzea litzateke.*

*–Etxebizitzaz aldatu nintzen jasaten nituen mehatxuengatik, eta ez nuen inolako laguntzarik jaso, eskatu ere ez nuen egin, baina ez dut uste laguntzarik dagoenik.*

*–Lankide bat hil baino hiru egun lehenago, Herrizaingo Sailean ukatu egiten zuten gure taldea mehatxupean zegoenik... gero bizkartzainak inprobisatu behar izan ziren azkar batean, harrien azpitik ateraz, batzuk zigor aurrekariak eta guzti zituztenak. Oso tratu txarra eman ziguten, ez zen erakundeen aldetiko berotasunik izan. Ez naiz aditua, baina oso balorazio txarra dut babesaren gainean. Ez da inolaz ere egokia, behar bestekoa edo koordinatua. Ni hil nahi izan balute, egingo zuketen. Eskaerei ez zaie jaramonik egiten.*

*–Lanean hasten zarenean, Barne Ministerioak zure burua babesteko neurri orokor batzuk ematen dizkizu. Aldizka horiek gogorarazteko eta eguneratzeko ikastaro batzuk ematen dira, baina eskasak dira... Beharrezkoak izan daitezke, baina presa handiagoko xehetasunak daude, adibidez erakunde pribatuei datuak ematea saihestea...*

*–Herrizaingo Sailarekin pozik nago, uste dut arreta badagoela, sentsibilitatea badagoela, jarraipena dago... Noski, babesa ez da inoiz ezin hobea, baina uste dut lan ona egiten dutela eta, orokorrean, egokia eta koordinatua dela uste dut. Aditua ere ez naiz, baina uste dut hobera egin duela. Segurtasunaren profesional onak ditut.*

*–Ezin dut ezer txarrik esan... noski, hiltzen banaute, ez da nahikoa izango... Pribatuak daramatzat Herrizaingo Sailaren zuzendaritzapean. Ni seguru sentitzen naiz, arazoren bat izan denean, konpondu egin da.*

*–Bizkartzainei dagokienez, bizkartzain pribatuak ditut Herrizaingo Sailak koordinatuta. Denetarik dago, tokatzen zaizunaren araberakoa da askotan, ez dut koordinazio arazorik izan. Arazoren bat izan dudanean, erantzun hobea eman dit Ertzaintzak segurtasun enpresak berak baino. Hor bai izan dudala arazoren bat, agian langile kopuruaren aldetik justu samar ibili direlako... Euskadin bizkartzainekin nik ikusten dudan arazo handia da gehiegi behar izateaz gain, gauetik egunera ez zegoela prestatutako horrenbeste langile, eta uste dut horietako askoren prestakuntza dena dela... askotan nire sentsazioa izan da babestu baino oztopo egiten zidatela... Are gehiago esatearren, zenbait unetan askoz ere ageriagoan sentitu naiz... profesional batzuen zenbait jarrerak erabat ikusgarri bihurtzen zaituztete... Hasieran deserosoa zen pixka bat sendagileren baten kontsultara joatea edo denda batean arropa probatzea... eta bizkartzainak zurekin sartzea... Hori nire bizitza pribatua da... ez dute zertan jakin zer erosten dudan eta zer ez dudan erosten... Eta aipatu egin nien, entzun egin zidaten eta ez dut eremu horretan arazorik izan berriro... Zailagoa, arazo handiena da gizonak eta emakumeak tratatzeko moduak daudela... bizkartzain gehienak gizonak*

*direnez, badirudi errazagoa dela uste dutela emakumeak gobernatzea. Nik sentsazio hori izan dut... ez dakit emakumea izateagatik den, gaztea izateagatik, edo bi gauzen nahasketagatik...*

*–Emakume bizkartzainak ere badira, baina gutxiengoa dira... nik uste dut, bizkartzain naizen partetik, gehiago egon beharko liratekeela... agian babespean dauden emakume batzuk hobeto sentituko lirateke haiekin...*

*–Alderdiaren egoitzan izandako hitzaldi batean, segurtasuna nolakoa izango zen azaldu ziguten hasiera batean segurtasun enpresako ordezkariekin... Teorian oso ondo dago, baina praktikan... Babestuak jartzen diguten zenbaki hori gara... ez gaituzte gehiegi kontuan hartzen zer gustatuko litzaigukeen, zer nahi dugun jakiteko garaian... Profesional batzuk beren lana nola egin behar duten adieraztera ez naiz sartuko... baina faltan botatzen dut segurtasun enpresak gu entzutea pixka bat, tratua pertsonalizatuagoa izatea, bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartzea, aldian behin segurtasunarekin gustura gauden galdetzeko guri deitzea... Norbait kentzea eskatzeko nik deitu behar izatea oso deserosoa da, norbaiten lanarekin jolasean nabilela baitirudi... Ulertzen ditut mugak, baina sei hilabeteko epean hogeita hamar bat bizkartzain pasa da nire etxetik... eta ez nik aldatu nahi izan dudalako... diskrezio osoko zerbitzua izango denez...*

*–Batzuetan udaltzaingo modura gure babesari buruzko jarraibideak ematen dizkigute... protokoloa ezagutzen dugu pixka bat gure lanagatik... errutinak saihestea... oso gauza errazak dira...*

*–Uste dut babes neurrietan ez zaiola kopuruari begiratzen... Koordinazioari dagokionez, koordinazioa poliziaren agintarien artean bakarrik dago eskaintzen dugun babesari buruz eta hori finantzatzeko moduari buruz... Batzuetan koordinazioa falta da... batez ere informazioa iristerakoan eta zeharkako bideetatik ez oso modu zehatzean iristean... erresumina dago polizia kidego ezberdinen artean...*

*–Ez da bakarrik bizkartzain izan behar, izatearen itxura ere eman behar da... itxura zaindu, formak, babestuarekiko tratua... elkarrekiko errespetua izan behar da, gehiegikeriarik edo neurrigabekeriarik gabe... hitz egin behar da... Jarraibideak daude eta sen ona daude... adibidez, babestutik pixka bat aldentzea lagunekin edo telefonoz hitz egiten duenean...*

*–Neurriak zuzenak dira... Orokorrean, guztia hobetu daiteke, baina, denborarekin jakinaraziz gero, sistemak funtzionatu egiten du. Koordinazioa dago Euskaditik kanpo iristeko... Ongi iruditzen litzaidake, uste dut arrazoizkoa dela, segurtasunaren ardura dutenek eta babesa jasotzen dutenek komunikaziorako bideak izatea, azken horiek beren beharrak eta abar adieraz ditzaten... Ez diet guztiei bizkartzaina izatea gomendatzen, uste dut bakoitzaren inguruabar pertsonalen arabera baloratu behar dela... Edukiz gero, nire gomendioa da harekin hamar egun egin ondoren bizkartzaina bere lana ongi egiten dabilen baloratzea, izaerak bateragarriak diren, ordu asko elkarrekin igaroko baitituzte. Arazoren bat egonez gero, deitu egin behar da..., orokorrean, deitzen da...*

*–Ez dago benetako jarraipenik, ez dakit gainezka dabiltzan... Bizkartzaina daramagunok akats asko daudela ikusten dugu... Nik bizkartzain pribatuak ditut... Ez naiz nirekin dauden pertsonei kexatuko, denbora asko daramat jada eta nire konfiantza osoko pertsonak dira... haiekin hitz egiten dut. Ez dut niri buruz hitz egingo, baina orokorrean... bizkartzain asko dagoela ikusten duzu, asko, eta ez daude bizkartzain izateko prestaturik eta hori oso arriskutsua iruditzen zait, arma bat dutelako... Nik bat edo beste izan dut... ez zitzaidana iruditzen psikologikoki prest zegoenik arma bat gainean eramateko... Asko ez daude ongi aukeratuta... Enpresaren bati kexaren bat eman behar badiozu, nik enpresaren batekin izan dut eztabaida eta enpresa batzuk nahi dutena egiten dute... bere negozioa egitera doaz eta hau ez da negozio bat... enpresa bat duenak dirua irabazteko du, ez galtzeko, baina hortik gertatzen ari diren gauza batzuetara, ez da normala... Niri guardia zibilak nire burua babesteko neurrien zerrenda eta bizkartzainen zerbitzuak nolakoa izan behar zuen adierazi zidan... Herrizaingo Saileko*

*Eskolten Jarraipenerako Zentroak ez dit inoiz deitu pozik nagoen galdetzeko... eta hori garrantzitsua da... Nik hainbatetan deitu behar izan dut gai zehatzengatik; bizkarrean arazo bat dut eta ibilgailuaren eserlekuan hainbat berezitasun behar ditut, dagokidan mailaren barruan. Sendagilearen ziurtagiria bidali ondoren... kontuan izan beharko lukete... Ondoren, lurralde mugak daude bizkartzain zerbitzuari dagokionez; lehen ez ziren hain zorrotzak, eta hori asko baloratzen nuen senideak ditudalako mugako zonaldeetan. Tokietako batean gaizki begiratzen zaituen jendea dago, etengabe begira ari izatearen egoera horrek eragin handia izan zuen nigan eta Eskolten Jarraipenerako Zentrora deitu nuen eta bizkartzainak etortzen ziren... Orain jada ez... Gehiegikeria batzuk izan direla badakit... niri akatsa iruditzen zait hori... baina uste dut gehiegikeria noren aldetik jazotzen den eta noren aldetik ez bereizi beharko litzatekeela... Arrisku bat da... Nik ez dut gidaria behar, babesa behar dut.*

*–Bizkartzain publiko modura dudan iritzia da babestutako askok bizkartzaina gidari modura erabiltzen dutela... ezin da orokortu... Segurtasunagatik bada, isildu egiten naiz, erosotasunagatik bada, hori guztiok ordaintzen dugun dirua gehiegikeriaz erabiltzea da... nahiago dut diru hori hezkuntzan gastatzea... eta, gainera, arriskua da senitartekoak sartzea... ezezkoa eman dezakegu...*

*–Uste dut erosotasunagatik babes neurri batzuk gehiegikeriaz erabil ditzaketen babestuak gutxiengoa direla... gehienek segurtasunagatik erabiltzen dituzte... hori da bizkartzain pribatu modura dudan eskarmentua.*

*–Herrizaingo Sailak bizkartzain pribatuekin duen koordinazioa uste dut egokia dela... zure lana ongi betetzen zabiltzan kontrolatzen dute eta dei egiten dizute, baita polizia nazionalak ere, guztia ongi duzun aztertzeko... Bizkartzain publikoen aldean balorazio eskasagoa jasotzeari dagokionez, uste dut bizkartzain pribatuok baliabide gutxiago ditugula, eta gure gaineko iritzia hobea izan eta profesionalak bihurtu gaitzakete... Ez dut uste bizkartzain publikoek gu okerrago baloratzen gaituztenik, nahiz eta babestutakoen iritzia ikusi beharko den... Horrenbeste bizkartzainen "booma" egon zenean, uste dut inolako prestakuntzarik ez zuen jendea sartu zela, aldi berean jagole eta bizkartzain titulazioa ateraz, eta sartu egin dira. Nik uste dut bizkartzain gisa lan egiten duen jagoleak jagole bezala hiru edo lau urteko gutxieneko eskarmentua izan beharko lukeela... baina horrelako "boom" bat dagoenean ezin da egin... eskarmentua ezin da ikastaroen bitartez eman... Egokiak ez diren jardueren gaineko kontrola behar da, gainerakoek ospea gal ez dezagun... Sagar ustel bat badago, guztiak berdin katalogatzen gaituzte eta asko balio duen, oso profesionala den jendea badago...*

*–Babestuekiko tratuari dagokionez, prestakuntza izan behar da ere. Hain zuzen ere, bizkartzain ikastaroan, adibidez, arauak ematen dira janzkerari, dokumentazioari, armamentuari, ibilgailuari buruz... Enpresak kontrola egiten du astero edo hilero... arazoa da zigorrak ez direla oso zorrotzak... Komunikazio gehiago egon beharko litzateke enpresen, babestutakoen eta bizkartzainen artean... Babestu batzuk ere ez dute nahi enpresak etengabe molestatzea, galdezka aritzeagatik... Babestuarekin hasieran egiten den elkarrizketan alderdi horiek ziurtatu egin behar dira, ezagutze aldera... ez da bakarrik pertsona babestea... hura zurekin gustura egotea eta zu harekin gustura sentitzea ere bada... Aldaketa asko daude ere bizkartzainek hain gogorra ez den lana bilatzen dutelako, babestuarekin ongi ez konpontzeagatik... Bizkartzain batekin denboraldi batez gustura dauden babestuek ez dute aldatu nahi, horrek berriro beren ohitura guztiak azaltzea ekartzen duelako... haien bizitza pertsonala ezagutzea... Babestua nahi duenean atera daiteke... goizeko lauetan irten behar baduzu, deitu egin behar diozu, bere lana da. Irten nahi baduzu, irten zaitezke...*

*–Neurriak hartzen ari dira. Jendea hil behar izan da, neurriak har zitezen... Aldizka babes neurri batzuk gogoratzen dira, baina ez dira gure taldeko kide guztietara iristen... Kideren bat hiltzen duten bakoitzean, ikastaroen gaiari ekiten zaio berriro... Neurriak hartzen badira, atzetik goaz... Zerbait gertatzen denean, sindikatuak gainera etortzen dira... Bizkartzain pribatuekin dugun tratua... haiek ez dira polizia... eta ez*

*zaie buruan sartzen haiek gure laguntzaile direla... hasieran harreman ona genuen, gero arazoak izan dira... Vietnamera datozela uste dutelako... Ez dute prestakuntzarik, ez akademikorik, ezta pertsonalik ere... Ez litzaidake ongi irudituko armak izatea zerbitzua amaitu ondoren... gainera, jarraikako egun gehiegi egiten dute lan...*

*–Koordinazioari buruz... ertzainok harreman ona dugu guardia zibil eta polizia nazionalarekin, jende gaztea da... Babestutakoei ahalik eta bizitza errazena ematen saiatzen gara... Egunero txostenak egiten ditugu... arazo larrienak buruzagitzara doaz... Agian pertsona batzuen kasuan ez litzateke beharrezkoa izango bizkartzaina jartzea, eta nahikoa litzateke une batzuetan patruilaren baten zaintza izatea...*

*–Anonimoekin, Herrizaingo sailburuarekin elkarrizketa izatea eskatu nuenean, hark esan zuen gustu handiz egingo lukeela bilera nirekin, baina ezin zuela ezar egin, izatekotan agente batzuk bidaliko zituela esan zidan, nirekin hitz egin zezaten, eta horrela izan zen. Gomendatu zidaten gehiena egunkarian idazteari utz niezaiola izan zen.*

*–Noizean behin Barne Ministerioaren idazkia jasotzen duzu, segurtasun neurriak muturreraino eraman ditzazun... Ez dut koordinaziorik ikusten maila politikoan eta erakundeen mailan segurtasun indar eta kidegoen artean... eta lagunak ditut... Gomendagarria litzateke bizkartzainen gaian...*

*–Urte gogorrenetan garraio seguruagoak eskatzen ziren, ordutegi aldaketak, armen aldetiko babesa... Egun gure burua babesteko gomendioak daude Ministerioaren aldetik taldeko kideentzat... Egun neurriak behar bestekoak dira, orain hogeita bost urte ez ziren nahikoak noski, terrorismoaren gaitasunaren araberakoa da pixka bat... Mehatxuengatik etxebizitza eta hiria aldatu behar izan duten nire taldeko pertsonak ezagutzen ditut... baita aldatu nahi izan gabe ere... beroan erreakzioak saihesteko... Taldearen beraren babesa izan da...*

*–Benetan neurriak hartzen badituzu, atentatuak saihestea posible da... Bazkaltzera toki berdinera joaten bazara, zure buruak plater gainean amaituko du.*

*–Eguneroko lanerako gabeziak ikusten ditut... jarduera protokoloen arabera jarduten da gehiago, segurtasuna agian hobeak izan daitezkeen neurriekin muturreraino eramatearen arabera baino, jokoan dagoena bizitza baita... Batzuetan arazoak izaten dira kexatzen bazara... eta, bestalde, nori balio dio kexatzeak eraila izan eta gero.*

*–Armen emakida baloratu egin behar da, armak edonori ematen bazaizkio...*

### *3.3.8. Poliziak eskainitako zerbitzua*

**Nola baloratzen duzu poliziaren aldetik jasotako tratu zehatza (kidego bakoitza zehaztuz) gertaeraren bat salatu duzunean?**

*–Ez dut inolako kexarik segurtasun indar edota kidegoen gainean.*

*–Lehergailua jarri zutenean, guztiak etorri ziren eta tratua oso ona izan zen.*

*–Orain dela gutxi "Gora ETA" zioen pankarta bat jarri zuten herrian, eta Ertzaintzari deitu genion; lehenengo aldian paso egin zuten... Bigarrenean etorri egin ziren... Askotan, horrelako gauzetan, tematzea da kontua...*

*–Ertzaintzak lehergailua zeraman paketearen gaineko atestatua egin zuen, eta ez nuen beste ezer jakin haien gainean. Audientzia Nazionalaren aldetik gutuna jaso nuen, agertu nahi nuen edo haien eskuetan uzten nuen galdetuz, eta utzi egin nuen... eta ez dut beste ezer jakin...*

*–Segun eta nor tokatzen zaizun...*

*–Salaketa deiak atenditu behar izan ditut... eta dituzten frogekin etor daitezela eskatzen diegu, horiek salaketan jasotzeko, eta ondoren kasuan kasuko tokira joaten gara... Salaketa nork jasotzen duen gorabehera, tratua aldatu egiten da... Niri horrek min handia ematen dit... Guztiei tratu berdina ematea gustatzen zait, direnak direla ere.*

*–Ezagun batek... oso gizalegezkoa bera... fatxada batean pintaketak egiten ari zirela ikusi eta zera esan zien: "aizue, ez egin pintaketarik hor, mesedez, hondatu egiten duzue..." eta atzetik pistola bat balitz bezala objektu bat jarri zioten eta aurpegi guztia margotu zioten... Bere taldearekin aipatu zuen eta ez zuten ezer egin ere ez... Txantxa gisa hartu zuten nolabait.*

### 3.3.9. Justizia Administrazioak emaniko tratua

**Salaketa bat jarri duzun kasuan, nola baloratzen duzu fiskalen eta epaileen aldetik jasotako tratua?**

*–Uste dut Justizia Administrazioak ardura handiagoa izan behar duela harreran.*

*–Mehatxu orokorren kasu batengatik fiskal batek deitu zidan. Bati horrelako zerbait gertatzen zaionean, nahi duena lehenbailehen ahaztea da... Hiru hilabete igarota fiskal batek dei egiten badizu, deklaratzera joan behar duzu, gogoratu, susmagarria zu izatearen sentsazioa duzu... Salatzerakoan nik izan dudan esperientzia da behin pasa denean ondoren gogoratu egin behar duzula da, auskalo non artxibatuta gera dadin... Ulertzen dut batzuk ez salatzea ondorengo trantze hori ez pasatzeko... Epaileekin ez naiz tratua izatera iritsi.*

*–Pentsatu nahi dut poliziak, fiskalek eta epaileek gauzak ongi egiteko saiakera egiten dutela... zaila da ere, mehatxu bat frogatu egin behar da... Zenbaitetan, nire herrian, afari bat izan dut... eta taberna batetik irtendakoan kartelak zeramatzaten pertsonez inguratuta ikusi duzu zure burua, eta hurrengo tabernaraino segika izan dituzu... eta, zer egiten duzu? Ba ezin duzu erantzuten hasteko dinamikan sartu, hori delako nahi dutena... zer egiten duzu? ba, beno, aguantatu, aguantatu eta aguantatu... Erakundeengan konfiantza dut, sortu ditugunak direlako... Askotan ere gure utzikeriaren ondorio izan daiteke txorakeria iruditzearena... Kalera irten naiz eta iraindu egin naute, nola salatuko dut hau?... Azken batean, hor jarriko dudan beste paper bat da eta ez du ezertarako balio... Deitu egingo diote eta etzi bere etxean egongo da ni iraintzeko berriro ere...*

*–Orokorrean, hemen fiskalek sentsibilizazio handia dute biktimekiko... eta arreta berezia izaten zaie...*

*–Segurtasun indarrekin jardutean, epaileek ere kontuan izan behar dute lekukotza ematerakoan anonimotasuna gordetzea beharrezkoa dela, legeak aukera hori jasotzen duela... eta epaituek zu ikustea galaraztea... Agian ezagutu ere ez zaituzte egiten hatz markak ikertu besterik ez duzu eta egin... eta hor aurpegia jartzen badizute... Epaiketetara joan naizenean, batzuetan, fiskalak ez dizu aldez aurretik deitzen zurekin hitz egiteko... egindako txostenei buruz...*

### 3.3.10. Gizarte zerbitzuak eta osasun sistema

**Nola baloratzen duzu zure kasuan gizarte zerbitzuen eta/edo osasun sistemaren aldetik jasotako tratua?**

*–Nik, momentuz, ez dut tratamendu psikologikorik behar izan, eta nik bezala hau gainean daramagun gehienok, eta mirari bat da.*

*–Aseguru propioa dugu. Profesional baten zerbitzuak eskatu nituenean, koadro medikoaren barruan, ez ninduen tratatu nahi izan, ez zuelako lan eta bizi ginen tokira etorri nahi... Kexa bat jarri nuen eta oraindik itxaroten ari naiz... Beldurra zuela esan*

*izan balit... baina, ez, nik igarri nuen ez zuela etorri nahi, ez zuelako ezer jakin nahi, orduan zertarako dago koadro horren barruan? Ebakuntza-gela batean gorroto nauen norbaitekin sartu behar badut...*

### 3.3.11. Aseguru pribatuen jarduna kalte materialei dagokienez

**Kalte materialak jasan izan badituzu, egokiak iruditu al zaizkizu bideratutako jarduerak eta jasotako tratua aseguru pribatuen aldetik?**[31]

*–Lehergailuaren kasuan, Madrilgo Zuzendaritzatik deitu zidaten. Haiek arduratu ziren guztia koordinatzeaz. Oso gustura nago.*

*–Uste dut ibilgailuaren kasua erdibana ordaintzen dela aseguru-etxearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean... Uste dut ongi funtzionatzen duela...*

*–Zenbaitetan denbora gehiegi igarotzen da.*

### 3.3.12. "Arnasa hartzeko edo indarberritzeko" asteburuari buruzko iritzia

**Zer iruditzen zaizu mehatxatutako pertsona batek egindako proposamena mehatxatuek diru-laguntza izateari buruz "arnasa hartzeko edo indarberritzeko oporrak" izateko asteburuetan? eta hautetsitako kargu ohiak laneratzeko laguntzak?**

*–Nik ez dut diru-laguntzarik edo arriskuagatiko plusik nahi, baina duintasuna merezi dugu. Noizbait utziko dugu gure jarduna, eta uste dut Estatuak babesa eman diezagukeela laneratzea posible izateko. Bakoitza egoera ezberdinetan gaude, eta konponbide ezberdinak eman behar ditugu. Ongi iruditzen zait asteburu bateko oporren proposamena arnasa hartzeko, eta, orokorrean, Euskadiko kargu publikoen eta haien senideen bizi kalitatea hobetzeko. Sakrifizio itzela egiten da, bakarka sufritzen dutelako. Euskal gizartearen arazoa ez da beste toki batera begiratzen duela, baina, azkenean, esan egiten dute hor nahi duzulako zaudela... beldurrak eta alderdi batzuk maila ekonomikoen gainean duten kontrolak baldintzatu egiten dute inork zu kontratatu nahi ez izatea, lanbidea aldatzea erabakitzen baduzu.*

*–Arnasa hartzeko oporrak ez zaizkit gaizki iruditzen... Hautetsitako karguak laneratzearena mehatxatuta egon zein ez gertatuko da. Politikan aritzen diren pertsona guztiei gertatzen zaiena da. Ez zait egokia iruditzen... Etxebizitza, ibilgailua aldatzeko laguntzak, bai.*

*–Gauza garrantzitsuagoak badaude, neurri xelebre bat bezala da...*

*–Uste dut funtsezkoa dela deskonektatzeko aukera izatea, irten ahal izatea... zure hirian bertan neurri batean preso sentitzen zaren heinean, Nire Hiria espetxe bihurtu da, espetxea da niretzat... hiriaren, zure hiriaren, gaineko pertzepzioa aldatu egiten da, zure erroak, zure lagunak dituzun horren gainekoa... Hiri honetatik irten egin*

[31] Errenterian, 1995ean, tranpa batean erretako ertzaina bati atentatu terroristagatiko lan istripu modura kalifikaturiko kasuan, trauma osteko estresaren sindromea izatearen diagnostikoarekin, arazoak izan ziren erabateko ezintasuna ez ordaintzeko aseguru-etxeak hartutako hasierako erabakian. Izan ere, ez zuen uste izan loturarik zegoenik ertzainak jasandako ondorioen eta atentatuaren artean. 2008ko urtarrilean egindako epaiketaren aurrean izandako barne komunikatu batean, Ertzaintzaren Erne sindikatuak ertzain horri babesa ematea eskatu zuen eta zera ondorioztatu: *"Inoiz ez dakigu nor izango den hurrengoa"* (*El Diario Vasco*, 2008-01-22, 29. or.).

*behar duzu pixka bat askatzeko eta hori drama bat da, eragin psikologiko itzela du... Oso ongi ulertzen dut jendeak atera behar izatea eta aisialdian, denbora librean, arnasa hartzean nolabaiteko konpentsazioa izatea... bestela, azkenean hondatu egiten zaitu.*

*–Oso gaizki iruditzuko litzaidake... Presioak orientazioa galarazten digu, gaizki goaz... Arazoa diruz laguntzen baduzu, bi arazo dituzu...*

*–Ez dut baloratu ere egin nahi ongi edo gaizki iruditzen zaidan... Honetan sartzen zarenean jabetzen zara egoeraz... eta nahi duzulako egiten duzu. Teorian ideia batzuekin konpromisoa duzu... eta badakizu ez duzula soldatarik... Gehiago biktimatzea eta seinalatzea iruditzen zait... Jabetzen naiz pertsona batzuk... deskonektatu egin behar dutela, baina hortik guztiei ordaindu behar izatera, hor nire zalantzak ditut.*

*–Oso ondo iruditzen zait, meritu handia duelako herri batean zinegotzi ez abertzalea izateak, eta are gehiago gutxiengoan, bakarrik... Batzuetan galdetzen dut: zer motibazio pertsonal dute jarraitzeko, urtetik urtera, jendeak iraindu egiten dituen herri batean?... Herrietako zinegotzi batzuen bizkartzainek esan izan didate han presioa gehiago nola bizi den... Niri, bizkartzain modura, oso gogorra egingo litzaidake pertsona horrentzat lan egitea...*

*–Asko eskertzen da arnasa, terminoak adierazi bezala oporraldia ez bada ere. Hemendik atera eta bizkartzainik ez dudanean, askatasun psikologikoa da, hotz ikaragarriarekin euripean paseatzeko besterik ez bada ere... Guztia kontrolatzen duten bi pertsonekin kaletik joatea... horrek asko mozten du zure intimitatea... Ezin hobeki ulertzen dut eta babestu beharko litzatekeen zerbait da, horrek oxigeno asko ematen duelako... Bizi eta/edo lan egiten duzun hiria arazo horiekin identifikatuta geratzen da.*

*–Ni diru publikoarekin hain naiz berezia... agian alderdien bitartez... Ez dakit, beharra nork duen baloratzerakoan hain argia eta garbia izan behar da guztiak berdin baloratzeko... agian laguntzaren bat, baina ez dakit nola... Neurriak eta baliabideak badaude jada presoen senideentzako... eta oso ondo iruditzen zaizkit oinarrizko errentak jasotzen dituzten pertsonentzat, baina errenta handietarako...*

*–Uste dut dirua segurtasunerako dagoela...*

*–Bakoitza hemen dago hemen egon nahi izan duelako... eta ez dugu eskubide gehiago... guk ez dugu arriskuagatiko plusik... Gure zergetan ordaintzen dugun dirua beste gauza batzuetarako da... Guztiok behar dugu oxigenoa, ez bakarrik mehatxupean dauden taldeak.*

*–Ez dut iritzirik... bai, ordea, gaiaren atzealdeari buruz... aukera berdintasunik ez dagoela agerian uzten du... askatasunik ez dagoela... demokraziarik ez dagoela...*

*–Zuzena litzateke alderdien euren laguntzen ikuspegitik bideratzea...*

*–Ongi iruditzen zait zinegotzien taldearentzat... nire taldearentzat ez zait beharrezkoa iruditzen...*

*–Ez nuke gaizki ikusiko, baina horrenbeste gara...*

*–Oso ondo planteatu beharko litzateke, gehiegikeriak saihesteko.*

### *3.3.13. <u>Biktimei laguntzeko elkarteen eta haien elkargo profesionalaren (sindikatuak) lana</u>*

**Nola baloratzen duzu biktimei laguntzeko elkarteen eta zure talde profesionalaren (sindikatuak) lana zure egoerari dagokionez?**

*–Ongi iruditzen zait bizitza publikoan parte-hartzea izatea, baina horietako batzuk oso alderdikoiak dira eta hori ez zait normala iruditzen. COVITEk PP alderdiak ezarritako gidalerroen arabera funtzionatzen du. Hori ez zait bidezkoa iruditzen, ideologia eta irizpide ezberdinetako biktimak daudelako. Nik uste dut sinesgarritasun handia falta zaiela, benetan.*

*–Zinegotziez ez da inor arduratzen, ez dago elkarterik.*

*–Orokorrean ez zait batere gustatzen, ez bakarrik mehatxaturikoekin... beren helburuetara daude... ez naiz haiekin harremanetan jarri... Egia da elkarteek birtualtasun bat izan zutela, terrorismoaren biktima izandako horien ahotsa kalera eramatearena hain zuzen... "hemen gaude" oihukatzea.*

*–"Gaixoak, nola miresten dugu bizi duzuena" bezalako esaldietatik haratago... nire taldearen barruan ez dago gai horren gainean lan egiten duen elkarterik.*

*–Ez dut biktima elkarteetara jo... Sindikatuen aldetiko babesik ere ez dut jaso.*

*–Denetarik dago. Biktima guztiek dituzte, ez arrazoia, baina bai beren arrazoiak, eta uste dut, orokorrean, guztien oinarrian dagoela solidaritatea eta arretan lagundu eta horiek bultzatzea, laguntza neurriak, memoria aldarrikatzea... batzuk, ordea, mugatuta daude nolabait, eta uste dut baliabide politiko gisa erabiltzen ari direla pixka bat... Orokorrean, ez dut uste antolamendu baten babes esplizitua jasotzen ez duten pertsona jazarriez arduratzen direnik.*

*–Euskal sindikatuak ez dira gai honengatik gehiegi kezkatzen, Jainkoaren eskutik utzita bezala gabiltza, ez sindikatuak, ez elkargo profesionalak, gertaera zehatz eta jakinengatik bakarrik kezkatzen baitira...*

*–Europako Parlamentura joan gara eta ongi tratatu gaituzte, baina beste arazo batzuekin doazen beste batzuk tratatuko dituzten bezala... Kontua da hemen konpondu beharreko arazoa dela... bizkarrekoak ez dira nahikoa...*

*–Zorionez elkarte ugari dago, zenbaitetan horietako bati buruz bakarrik hitz egiten dutela entzun arren... Politika alde batera utzita, beti egon behar dira ulertzen zaituen jendearen artean zure arazoari buruz hitz egin ahal izateko tokiak... zure egoera bizi dutenekin... Orokorrean, haien jarduna positibotzat jotzen dut, jendea kontzientziatzeagatik, gauzak antolatzeagatik...*

*–Euskaditik kanpo eta Europan, adierazpen zehatzen babes zehatzak daude; horiek egitea oso ongi geratzen da, zenbait unetan... baina praktikan ez dute balio... Euskadin uste dugu munduaren zilborra garela, eta gero jendeak guri buruz duen pertzepzioa ez da hain garrantzitsua... haien artean konpon dezatela... Espainiak konpon dezala...*

*–Zehazki ez dakit zer den egiten dutena, baina uste dut gauza positibo gehiago egiten dituztela negatiboak baino, COVITEk, AVTk, Bakearen Aldeko Koordinakundeak... Ez naiz elkarte horietako kide, eta profesional moduan ere ez...*

*–Ez dut horiekin traturik izan, ez zuzena, ezta erreferentziengatik ere.*

*–Uste dut COVITEk lan handia egiten duela, baina bazterrean uzten zaiela askotan, Terrorismoaren Biktimen aldeko Elkarteak ere bai... lekuz kanpo ariko balira bezala hitz egiten da haietaz... Beren senide maiteak falta zaizkie, eta gainera egoeraren sortzaile haiek izango balira bezala tratatzea aguantatu behar dute... Sentsibilitate gutxi dago, batez ere gure lurraldean, izan ere... batez ere agintzen duten horiek burua hegalaren azpian sartzen dute eta gizarteak agintariek agintzen dutena egiten du pixka bat... Erakunde publikoen aldetik ez dut jarrera aldaketarik sumatzen... Hitzak besterik ez dira...*

*–Miranda de Ebrotik haratago joan eta talde ezberdinen aldetik babes gehiago sumatzen dugu...*

*–Ez dut berariazko babesik sumatzen hemen lan egiten dugun bizkartzain pribatuontzat, asko kanpotik etorri dira. Orain dela gutxi sortutako elkarte eta federazioen aldetik antolatzen dira ikastaroak...*

*–Ez ditut elkarte horiek ezagutzen, sindikatuak bai mugitzen direla zerbait gertatzen denean... Euskaditik kanpoko elkarteetan ez dut uste kezkatzen direnik...*

*–Oso lan garrantzitsua egiten dute... COVITEgatik ez balitz, Euskadiko biktima gehienak arretarik gabe egongo lirateke... COVITE lanean jarraitzen duen elkarte aitzindaria izan zen... eta gainera gizarte sentsibilizazioko lana egiten du... Ezinbes-*

*tekoak direla uste dut... Haiek dira Administrazioak bete behar izan zuen hutsunea bete zutenak.*

*–Eusko Legebiltzarrean legezkoa ez den proposamena egon zen EHUn mehatxaturiko irakasleen egoera aztertzeko, baina inoiz ez zen ezertara iritsi, ezertara...*

*–Pixka bat sakabanatuta daude, gune komunetik abiatu beharko litzateke gehiago lortzeko...*

*–Sindikatuek ez didate inoiz galdetu ea mehatxaturik sentitzen naizen.*

*–Ez dut informazio gehiegi... prentsan ateratzen dena bakarrik eta, zoritxarrez, gaiaren politizazioa da ateratzen dena... ezin dut iritzirik eman ez dudalako informaziorik... Nire taldearen barruan jarduten duen talderik ere ez dut ezagutzen... biktimen elkarteetakoak diren taldeko pertsonak badira... Europa mailan ere ez dut interesik sumatzen...*

*–COVITEko foiletoak jaso ditugu, baina ez zaie barreiapenik ematen, eta, agian, gustatuko litzaiguke haien ekitaldietara joatea.*

*–Ez dugu harreman handiegirik, eta are gutxiago maila pertsonalean... Baloratuko nuke harremanetan jarriko balira zerbait gertatzean... izan ere, orokorrean, jendeak oso informazio gutxi du.*

### *3.3.14. Erlijio babesa*

**Pertsona fededuna zaren kasuan, nola baloratzen dituzu zure erlijioa ordezkatzen duten erakundeek emandako babesa?[32]**

*–Talde ahulenekin lan paregabea egiten duten erlijio pertsonek ez didate inoiz ezer esan, agian beti irribarretsu ikusten naute eta ez dira jabetzen... Errentaren aitorpenean Eliza Katolikoaren aldeko gurutzea markatzeari utzi nion, aurreko gotzainaren jarreraren ondorioz. Herritar moduan haserre sentitu nintzen barru-barrutik, ez bakarrik mehatxatu moduan.*

*–Babesa negatiboa izan da.*

*–Ez naiz fededuna baina ez zait iruditzen babes argiegirik ere ematen dutenik... ez zait iruditzen diskurtso ebanjelikoan edo pastoralean asko agertzen denik une honetan.*

*–Bai, fededuna naiz, baina errespetu handia dut... ez dut arazorik, ez zait iruditzen berebiziko garrantzia duenik.*

*–Ba gaizki, ni praktikantea naiz eta zentzu horretan sumatzen dut izugarrizko hoztasuna. Atentatu baten biktima banintz, ez nuke konfiantzarik emango hasiera batean, nahiz eta salbuespenak egon daitezkeen.*

*–Euskal elizako nire ordezkariek ez naute ni ordezkatzen... Fededuna naiz eta, une honetan, euskal elizak dezepzionatu nau ni... Koldarrak dira, moldakoiak... eta gauza bera esan daiteke ikastetxe itunduen gainean, diru-laguntzaren truke saldu egin baitute beren burua...*

*–Babesik ere ez dut ikusten...*

*–Fededuna eta praktikantea naiz... nire elizbarrutiaren portaera tamalgarria izan da... atentzioa erakartzen du inoiz terrorismoaren biktimen arretaren aldeko pastoralik egon ez izanak... Etorkinen presentzia agerikoa egin zenean, arreta ildoak sorrarazi zituen... baina terrorismoaren biktimentzako, ezer ez, ezer ez...*

---

32 Elkarrizketaturiko pertsona guztiek katolikoak zirela argitu zuten, praktikante zein ez.

*–...Askotan erratu egin dira babesa nori eman erabakitzerakoan... Urtero zerbitzuan hildako lankideengatik meza egiten denean, noiz edo noiz apaizak eman izan dio ezezkoa meza emateari...*

*–Ez dut informazio gehiegi, baina uste dut euskal elizak nolabaiteko defizita duela... uste dut euskal gotzain batek barkamena eskatu zuela... beste baten adierazpenek, ordea, kalte handia egin dute... eta biktimen pertzepzioa hori da.*

*–Urrats bat aurrerantz eta bi atzerantz. Ez dut uste parte hartuko dutenik... biktimekin egon beharko lukete gehiago.*

## 3.4. Erasotzailearen tratuaren balorazioa

### *3.4.1. Gizarte eta zehapen erantzunak*

**Zer iritzi duzu jazartzen edota mehatxatzen zaituzten pertsonei emandako zehapen edo gizarte erantzunen gainean? Beste erantzun edo erreakzio egokiagorik bururatzen al zaizu, adibidez aldentzekoa?**

*–Uste dut asmatu egin dutela Zigor Kodea gogortzearekin. Kale borroka ezin da zigorrik gabe geratu. Espetxean gizalegezko heziketa eta balio demokratikoena jaso beharko lukete.*

*–Benetan horrelako portaeren aurkako errefusa agertzen duen gizarte kontzientziazioa egongo balitz, haren egileek ez lukete horrelakorik egingo. Nik uste dut ez dagoela horrelakorik. Hirigunean bertan autobusak nola erretzen zituzten ikusi ahal izan dut, eta jendeak argazkiak ateratzen zituen mugikorrarekin. Ergelkeria bat da, nahiz eta agian haien estrategia den mehatxu orokor baten aurrean bizirauteko. Zehazki, auzokoek mehatxu publikoak daudenean mantentzen duten isiltasuna izugarria da.*

*–Zigor erantzunak egokiak eta irmoak dira. Gizartearen erantzuna ahula da, izugarri ahula... Ez dakit nork haserretzen nauen gehiago: mehatxatzen nauen taldeko kide batek edo neurri bateko distantziara mantentzen den horrek. Distantzia hori asko ernegatzen hasi zait, nik ez dudalako zerikusirik, ni biktima naiz... biktima errugabea. Ni errugabea naiz... GALaren mehatxua jaso nuen giza eskubideak defendatzeagatik...*

*–Horrelako mehatxuak argitara ateratzen ez badira, zergatik da? Salatzen ez direlako? Salaketek aurrera egiten ez dutelako?... Aldentze neurriak paregabeak iruditzen zaizkit.*

*–Ez dut irizpide argirik gai horren inguruan... Zigor erantzunaren aldekoa baino, oinarritik gizalegezko heziketa planteatzearen aldekoa naiz, nahiz eta zigor erantzuna ere beharrezkoa iruditzen zaidan. Herritartasunerako benetako hezkuntza herrialde honetan, euskal nerabe eta gazteei zera jakinaraztea litzateke: gizartearen zati bat, gutxi batzuk badira ere, ez direla aske sentitzen lan egin eta bizitzeko.*

*–Terrorismoa arma zikinena da... izan ere, zuk ez dakizu iraindu edo mehatxatzen zaituen auzoko horrek zein neurritan duen norbait atzean. Horrek beldur ikaragarriak sortzen dizkizu, horregatik uste dut legearen nagusitasuna indar guztiarekin aplikatu behar dela... Inoiz ez dakizu noraino doan kontua serioski... izan ere, benetako ondorioa da lehenago edo geroago zerbait gertatzen dela, norbait hil egiten da... Eta hor kokatzen da zehatza ez denarekiko beldurra, mehatxua lausotzen hasten bagara...*

*–Sinetsi nahi dut zigor kodea nahikoa dela; edonola ere, ez da bakarrik zigor kodea, baizik eta egin behar denaren gaineko konbentzimendua.*

*–Ez dut uste aldentze neurriak konponbidea direnik, aurre egin behar diozu.*

*–Adostasun gehiago dut egun zigorrak betetzeko egiten den interpretazioarekiko eta zigorra txikitzeko aukerarekiko... Zigor erantzuna ongi dago... une honetan,*

*ziurrenik, horrelako ekintzetarako neurri bakarra izango da... Epe luzera, ordea... uste dut Euskadiren arazo handia heziketaren aldetik datorrela.*

*–Zigorgabetasuna egon da... lehen autobus bat erretzen zuten eta ez zen ezer gertatzen... orain aldatzen ari da, eta ongi iruditzen zait eskarmentu pixka bat... Mehatxuen gaian ere ongi iruditzen zait prebentzio modura... Urruntze neurriak ere ongi iruditzen zaizkit.*

*–Hiri honetan aplikatzen ziren zigorrak, orokorrean, oso arinak ziren, eraginik gabekoak eta disuasio gutxi eragiten zutenak... Laurogeita hamarreko hamarkadako esperientzia, hemen kale terrorismoko delitu asko epaitzen zirenean, tamalgarria zen. Kontran froga garrantzitsuak zituzten akusatuak errugabe irteten ziren edo zigor irrigarriekin, edo bestela barrez irteten ziren justizia saletatik, biktimak negarrez joaten ziren bitartean... Garai tamalgarria izan zen. Orain hori ez da gertatzen, baina ez da gertatzen gai horiek ez direlako hemen eramaten, beraz, uste dut gai horiek berriro hemen epaituz gero, orokorrean –beti dago salbuespenen bat–, tratua ez litzatekeela ona izango.*

*–Delituren bat egiten duenari, gizarteak delitua egiteagatik ordaintzea eskatzen dio, batek lapurtu egiten badu... zehapena egon behar da, zigor hitza oso gogorra egiten zait... Kasu hauetan... zalantzarik gabe, zuzentzaileren bat egon behar da... Bai, atentatu terroristak egiten dituztenentzat biziarteko espetxe zigorra jartzearen aldekoa naiz... baita bortxatzaileentzat ere, gaixotasunen bat dutela frogatzen ez bada behinik behin. Izan ere, zenbat terrorista aldatu ditugu espetxean?*

*–Ni bizkartzain pribatu lanetan hasi nintzenean, zaborrontzi bat erretzea ez zen ezer eta orain jada bada zerbait... Erailketa gaietan... uste dut zigorren aldetiko tratua zuzena dela... Aldentze neurriak ere egokiak dira.*

*–Hau ez da bide judizialean amaitzen... oinarriak oraindik hor daude... jendeak sartzen jarraitzea eteten ez dugun bitartean... edonola ere, jendeari egiten zuena ez egitea ekarriko dioten neurriak hartu dira judizialki... Gehiago jazartzen dira... sumatu dugu orain epaiketak Audientzian egiten direla... Lehen ertzain baten aurka koktel bat botatzea "umekeria" zen... orain kartzelara doaz... ba lehen koktelak botatzen zituen hamar pertsonatik egun bakarra dago...*

*–Uste dut azken urteotan... politikariek sentsibilitatearen arabera egin dituztela legeak... eta beharra dagoenean egin behar da, ez lehergailua zeraman kotxea dagoenean edo atentatu jakin bat gertatzean, eta horrek eragina izan du zigor araudian, edo, adibidez, De Juana Chaosi eman zitzaion tratuan... Salbuespen hori eginda... legedi zorrotza da, terrorismo delitu bati dagokion bezala, eta etarren munduan parte hartzea erabakitzen duten horiei pentsarazi egin beharko lieke... Aldentze neurria existitzen zen jada, baina hura ez zuen inongo epaile, fiskal edo abokaturik aplikatu, eta oso berandu izan da hura praktikan jarri den garaia.*

*–Epailetza askea dela esaten den arren, presioa ez da ona... Kasu hauetan hobe da Audientzia Nazionalean egitea epaiketak... Batzuetan, atera ohi duzun ondorioa da lehenengo hildakoagatik ordaintzen dela eta gainerakoak doan irteten direla... hori zigor handia da biktimentzat... orain behintzat jarritako zigor osoa betetzen dute...*

*–Uste dut zehapen neurriak ezinbestekoak direla. Zorrotz eta sinesgarritasuna bultzatuz jarduten ez bada, gazteak, ideiak argi ez dituzten gazteak...ez dira ohartuko egiten dabiltzanaz... eta haien gurasoak, erantzule dira ekonomikoki... halaber, jabetu egin behar dira beren seme-alaben ekintzek eraginak dituztela... Beharrezkoa iruditzen zait epaiketak Audientzia Nazionalean egitea, Euskadi oso txikia delako eta hemen epaiketak ez badituzu hain txikia den ingurune geografikotik ateratzen... ezinezkoa litzateke justizia administrazioa izatea, epaile eta fiskalei helarazitako mehatxuengatik... Aldentzearena ere ongi iruditzen zait...*

*–Irudi dakigu zigorrak gogoratzea atzerapausoa dela ikuspegi progresistatik begiratuta, baina egoera eteteko ez zait hain txarra iruditzen.*

*–Bete eta aplikatzea ere beharrezkoa litzateke... aurrerantz doan guztia, ongi, baina gertaerak jazotzen jarraitzen dute.*

### *3.4.2. Lehengoratzeko topaketa*

**Zu entzuteko prest egongo balira, uste al duzu zure erasotzaileekin topatu eta haiei zuri eragindako mina adierazteak, xede politiko gisa zu erabiltzeagatik, eta erasotzaileen biktimismoa bera zalantzan jartzeak pena mereziko lukeela? Ez du ez zigorgabetasuna, ez barkamena, ez adiskidetzea esan nahi. Topaketa borondatezkoa litzateke beti, eta, zentzu horretan, salbuespenekoa.**

*–Ongi iruditzen zait, pertsonak gaizki egin duela onartzen badu. Etorkizunean ulermena egon beharko da, elkarrekiko errespetua.*

*–Ezin hobeki... ni oraindik barkatzeko prest nago. Jende asko ez dago jada barkatzeko prest, eta nik ulertu egiten dut. Niri semea erail izan balidate, inoiz ez nintzateke barkatzeko prest egongo, inoiz... Aurrez aurre egon, arazorik gabe, eta haiek ere biktima izan direla esanez etorrita ere. Aukera izan dut ETAko terroristekin egoteko.*

*–Oso ondo iruditzen zait; hori herrialde honetan gertatzen bada, orrialdea pasa izatearen seinale izango da. Aitzitik, horretarako beharrezkoa da zauriak ixtea, gorrotoa gainditzea, fanatismoa. Azken batean, adiskidetzeko planteamendu teoriko moduan ezin hobea iruditzen zait, hori bai, praktikan uste dut bidaia luzea egin beharko dela oraindik, bidaia handia. Lehenik eta behin denbora; bigarrenik, adiskidetzea ezin dela planteamendu orokorra izan, oso barrukoa da... Irakurkera kritikorik gabe, kaltea onartu gabe, borondaterik gabe, oso boluntarista dirudi.*

*–Hausnarketa teorikoa behintzat egin behar da, gero hori praktikara eramateak zailtasunak ditu eta ez dira gutxi. Oso ondo iruditzen zait, ez dakit posible izango den hori egitea eta egindakoa onartzen duten, aringarria litzateke oso, orain dauden bezala, kontran, egon gabe, Audientzia Nazionalean epaiketak ikusten ditugunean.*

*–Teoriatik erantzungo dizut... inoiz ez dakizu zein izango den pertsona baten erreakzioa egoera jakin batean... Nik pertsonalki ez nuke arazorik izango... ez zait ideia txarra iruditzen... Egunen batean itxaropena dut, ez dakit nire seme-alabekin edo bilobekin izango den, hau guztia bukatu egingo dela... beti izango dira biktimak eta borreroak... eta arazoak konpontzeko modu bakarra horiei aurre egitea da... inoiz ez duzu ahaztuko, ez dakit noraino barkatuko duzun..., baina guztiak elkarrekin eta pistolarik gabe bizi behar izango garen unea iritsi egingo da... Arazoak konpontzeko hitz egitea den guztia ez zait gaizki iruditzen, betiere, muga batzuen barruan...*

*–Ongi iruditzen zait, betiere, erasotzaileak aldez aurretik onartu egiten badu gaizki egin duela... ez berriro mehatxatu edo iraintzeko... Apaiz batek aipatu zuen behin, orain urte batzuk, espetxean zegoen jendearen gurasoak eta terrorismoaren biktima izandakoen gurasoak elkartu zituela elizkizun batean... emozio handikoa izan omen zen...*

*–Ongi iruditzen zait. Ni ez naiz horren aurkakoa inolaz ere ez. Badakit nola funtzionatzen duen justiziak adingabekoen kasuan, han erroturik baitago adiskidetzearen eta biktima lehengoratzearen ideia, eta emaitza paregabeak ematen ditu, batzuetan baita delitu larriekin ere. Damu zintzoa badago terroristaren aldetik, nik oso ongi ikusiko nuke, horrek zigor erantzukizuna kanpoan ez uztearen kaltetan izan gabe, aringarri modura agian. Baina zehapena eta lehengoratze edo adiskidetze saiakera bateratzea uste dut ideia paregabea litzatekeela.*

*–Hori ongi iruditzen zait... Juan Pablo II.a miresten dut eta haren aurkako atentatua burutu zuenarekin elkarrizketa izan zuen... Baina hemen bertan, terrorismoaren historia berrogei urtez izanda, zer dugu? Nik damu kasu bakarra ezagutzen dut, eta terrorismoa utzi nahi izan eta taldeak garbitu egin dituen beste batzuk ezagutzen ditut... zertaz ari gara hitz egiten?... Egun harrotasun nahikoa dute eta ni nahiko ezkorra naiz... Ez nekien mugimendu hori existitzen zenik, baina positiboa iruditzen zait...*

*–Zigorgabetasuna edo biktimarentzako iraina ez badakar, ongi iruditzen zait... terroristarentzat ere horrelakorik ekartzen ez badu,...*

*–Presoei ez diete mundu horretatik irteten uzten... damu den norbait ikusi al duzu? Ikusi al dituzu Audientzia Nazionalean?... Istorio honetan gehien galdu dutenak biktimak dira... legez presoak hurbildu egin behar badira, hurbildu egin behar dira... hau guztia amaitzeko haiek askatzea beharrezkoa bada... askatu egin beharko dira...*

*–Gertatuko balitz, positiboa izango litzateke... Pertsona bat egin duen kalteaz jabetzea... beste gauza bat da horrelakorik izatea... Pertsona batek bide hori aukeratu du, orain hogeita hamar urte ditu eta luditzeko aukerarik ez du... Egunen batean gaizki egin dutela jabetzea, akatsa onartzeko aukera eman beharko da... Urrats hori egiteko gai den jendea badago, ongietorriak izan daitezela... Banaka kontzientzia hartzeak bere balioa du... Senitarteko batzuk egin dutena babesten dute, haientzat ez dira gaizkileak, heroiak baizik. Familiaren ingurunean ere jazo behar da aldaketa hori... hor dago hezkuntzaren garrantzia... Hau moda bat bezalakoa da... orain dela gutxiko inkesta batean esaten zen jende gehiena barkamenaren eta adiskidetasunaren alde dagoela; noski, haiei eragiten ez dienez...*

*–Gertuen dugun adibidea De Juanarena da, eta horrek zer damu adierazpen egiten du? Baten batek esango balu: "hori egin dut konbentzituta nengoelako, baina erratu egin naiz"... Denbora beharko litzateke, memoria historikoa deitu den horrekin bezala... Biktima berriro ez biktimatzeko kontu izan behar da...*

*–Borondatezkoa bada, eta eragindako kaltea onartzen bada, ideia ona iruditzen zait... nahiz eta, egun, ETAko pertsonek hil egin behar dutela uste dutelako hiltzen duten, eta, horrela pentsatzen jarraitzen duten bitartean, oso zaila da egindakoaz jabetzea...*

*–Ez zait posible iruditzen... jarrera zein den ikusten duzunean, biktimaren etxearen behealdean denda jarri zuenarena adibidez... Oso zaila da kasu horietan terroristaren aldetik egindakoa onartzea... Duen babes guztiak zaildu egiten du onarpen hori... Koldarrak dira baita horretarako ere, egin dutenari aurre egiteko... Bestalde, hainbat gauza jakin nahi nituzke nik ere eta gaizkileei galdetu...*

*–Hemen biktimei ez zaie babesik ematen, gehiago emango balitzaie... Terroristen aldetik, agian, denborarekin, orain espetxeratzen ari diren gazteei...*

## 3.5. Biktimazioa gainditzeko *mikro, meso* eta *makro* aldagaiak

### *3.5.1. Elkarren artean mendetasuna duten elementuak*

**Nola uste duzu zuk hurrengo elementuek egoera hobeki eramaten laguntzen dutela? Zein neurritan: asko, gutxi, behar beste?**

| Oreka emozionala, izaera edo izateko modua | Prestakuntza | Maila sozioekonomikoa | Bikotea, familia eta hurbilekoak | Laneko ingurunea | Konpromiso politikoa (etikoa) | Gizarte babesa | Babes politikoa | Erakundeen laguntza (babesa, arreta psikologikoa, lehengoratzea) | Bestelakoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| -Asko<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Asko<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko | -Asko<br>-Asko<br>-Normal<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Asko (balioetan)<br>-Asko<br>-Asko<br>-Ezer ez<br>-Asko (baita biktimologian ere)<br>-Asko, teorian estres handiko egoerak aguantatzeko prestaturik gaude<br>-Ezer ez | - Nahiko<br>-Asko<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Asko<br>-Normal<br>-Gutxi<br>-Asko<br>-Asko<br>-Normal<br>-Normal (arrisku plusagatik inor ez da etortzen edota bertan geratzen)<br>-Ezer ez | -Izugarri<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Asko<br>-Izugarri<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Gutxi<br>-Izugarri<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Izugarri (babes emozionala eta ideiak)<br>-Izugarri<br>-Asko | -Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Normal<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Normal<br>-Normal | -Asko<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Asko<br>-Bai<br>-Ezer ez<br>-Normal<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Normal<br>-Ezer ez, azkenean agian askatasunak defendatzeko konpromisoa<br>-Asko | -Normal<br>-Normal<br>-Asko<br>-Izugarri<br>-Gutxi, aldagarria delako<br>-Normal<br>-Normal<br>-Ezer ez<br>-Ezer ez<br>-Normal<br>-Asko<br>-Ez da existitzen<br>-Ez | -Normal<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Ezer ez diskurtso orokorra bada, bai pertsonalagoa bada<br>-Gutxi<br>-Ezer ez<br>-Gutxi<br>-Normal<br>-Normal<br>-Ezer ez, erretorika<br>-Ez da existitzen hemen<br>-Inoiz ez dugu izan<br>-Ezer ez | -Gutxi<br>-Ezer ez<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Gutxi<br>-Asko<br>-Asko<br>-Asko<br>-Baldintzapekoa<br>-Normal<br>-Ia ez dago<br>-Normal<br>-Normal<br>-Normal<br>-Normal | -Erlijio babesa fededunentzat<br>-Bizitokia eta lan egiteko tokia ezberdina<br>-Ez obsesionatzea |

Orokorrean, eta bi biktima berdin ez egon arren, ondoriozta daiteke baliabide pertsonalik eta familiarrik gabe, gainerako guztia bigarren mailakoa edo aringarria dela.

*–Biktima batzuentzat ezinezkoa da* (gainditzea), *presioa itzela delako...*

*–Batzuk berehala joatea pentsatzen zuten... baina azkenean geratuz joan dira... azkenean lagunak egin dituzte... lagunen babesa eta errotzea oso garrantzitsuak dira.*

*–...Niri sinestezina iruditzen zait pixka bat eta gustuko dut... zerbait pasatzen denean... deiak jaso eta zera esatea: "ba, oso ondo, ausartak"... Norbaitek zerbait gertatu dela daki eta zurekin gogoratzen da, eta zure buruari zerbait ongi egiten arituko zarela esaten diozu... Nahiago dut hori, norbaitek medaila bat edo dirua ematea baino... gauza horiekin sentitzen duzu, normalean adierazten ez bada ere, zer edo zer hor dagoela... jendea jabetu egiten dela zerbait gaizki dagoela.*

*–Lehengoan berandu iritsi nintzen atentatuagatiko kontzentraziora, eta kiosko bateko gizonari galdetu nion ea amaitu zen jada, eta esan zidan berandu iritsi nintzela baina garrantzitsuena asmoa dela. Eta aspaldi ez zidaten hain ondo sentiarazi.*

*–Hemen diruagatik gaudela esan ohi digute, ezta gutxiagorik ere, ez du merezi.*

*–Nik hona etorri edo itzuliko ez litzatekeen jendea ezagutzen dut, nolabaiteko gorrotoa dago... Hori ez zait gustatzen.*

*–Nik nire bikotearen babesa izango ez banu, beste toki batera joango nintzatekeen bizitzera, ezin zara tentsio honekin egon. Inoiz ez diot neure buruari joatea planteatu... Noski, nire bikoteak "ezin dut gehiago" esango balit... Ongi darama, ni guztiaz barre egiten saiatzen naiz.*

*–Bizkartzaina daramazu ez miserable bat edo zorigaiztoko bat zarelako, baizik eta askok aurre egin nahi ez dioten horri aurre egiteko adorea izan duzulako... bizi filosofia da.*

*–Maila ezberdinak daude, norbait galtzea sufrimendu gaindiezina da.*

*–Argi dago konpromisorik izango ez banu, ez nintzatekeela hemen izango... Ez nintzateke hau jasaten ariko, nire amesgaizto gaiztoenean ere ez nukeelako pentsatuko bizitzen ari naizena bizitzen amaituko nuela...*

*–Guztiak edo ia guztiak mehatxaturik dauden laneko inguruneak babestuta sentiarazten zaitu, ulertu egiten naute, esaten dituzun gauza asko ulertu egiten dituzte azalpen gehiegi eman beharrik gabe.*

*–Pertsona bakoitzaren araberakoa da, nire egoera beste batzuena baino hobea zela jabetu arren, oso gaizki neraman... nik abioia hartu behar nuenean eta guztiak irribarretsu ikusten nituenean... eta nik derrigor eta nire poltsikotik ordainduta joan behar nuenean, sentitzen nuena gorrotoa zen eta, horrela, bi urtez... Bidegabekeria egoera bat bizi duzu eta gainerakoei badirudi ez diela axola, bakarrik zaude... nire egoera onartzen ez dudan bitartean... Psikoterapian ere izan nintzen..., haserretu arren egoera ez zela aldatuko ulertu nuen... bidegabekeria onartzea... ez sufritu gainerakoen pasibotasunagatik... horrek zugan eragina duelako, zure familiaren ingurunean bezala...*

*–Familia berdin baten barruan, anai-arreba bakoitza ezberdina da...*

*–Familiarengatik joateko erabakia hartzea kaltegarria izan daiteke... lanaren aldetik okerrago geratzen diren lankideak ikusi ditut...*

*–Niri ongi eta guzti etorriko litzaidake bizkarrekoa, erakunde politikoen babesari dagokionez. Izan ere, segurtasun indarretako kide naizen partetik, inoiz ez dugu horrelakorik izan, ezta une gogorrenetan ere,... badirudi oztopoa zarela...*

*–Pertsona bakoitza mundu bat da; nire taldean ezagutzen ditut iritsi eta hurrengo egunean bertan alde egiten dutenak eta beste batzuk, beren izena komando baten paperetan agertu dela jakinda, beren etxean jarraitzen dute... Iparraldeko sindromea deiturikoa duten militarrak ere ezagutu ditut... Egoitza batean sartu dira eta ia bi urte egin dituzte kalera irten gabe... kasu gutxi dira, baina egon dira... kanpotik zetozen...*

*hau Ulsterra zela pentsatuz... eta hori da ETAk pentsarazi nahi duena... beste asko ez datoz horrela...*

*–Eusko Jaurlaritzak Espainiako zati bat bezala ikusten gaitu. Ezin dira gu babesteko kontraesanean erori... hemen egon behar ez bagina bezala da, ez dugu egiteko ezer hemen... Gobernu espainiarraren aldetik ere ez da babes zuzena sentitzen dugunik, ekitaldi jakin batzuetara etortzen direnean... ekitaldi horiek ez zaizkit iristen... jendearen keinuak askoz ere gehiago baloratzen ditut.*

### *3.5.2. Laguntza psikologikoa jasotzeko beharra*

**Laguntza psikologikorik behar izan al duzu inoiz? Horrek zure egoera hobetzen lagundu al dizu edo lagunduko al lizuke?**

*–Uste dut une honetan ez dudala behar; beharko banu, ziur nago positiboa litzatekeela.*

*–Garrantzitsua litzateke... lehenago edo geroago eraginak sumatuko ditudala dakidalako... honekin guztiarekin zerikusirik ez duen terapia batean izan nintzen, baina pentsatzen dut guztiak duela zerikusirik.*

*–Ez dut beharrik izan, pentsatzen dut lagunduko lidakeela... Ezin duzu gai politikoei buruz hitz egin eta, hitz egiteko aukera izango bazenu ere, nolabaiteko nekea dago... baina niri barrena husteko balio dakit... Zurekin hitz egiten ari naizen gai hauen kasuan, orokorrean, zaila da horiei buruz hitz egin nahi duen beste inor topatzea... batzuetan nolabaiteko utzikeria, bakardadea igartzen da... Nik krisi txikia jasaten dut urtero kanpoan lan egiteko aukera planteatzen didatenean... eta nik zera esaten duen bakarra naiz: pena merezi du? Zein neurritan nago gaizki, zein neurritan nago ondo?... Biktimazio lausoa da, eta hondatu egiten zaitu pixkanaka.*

*–Nik ez dut nahi izan, oso barruan dut, badakit zein den jatorria... baina onartzen dut horren beharra izan dezakeen jendea badagoela.*

*–Hau ez da zure bizitzan hilabete batean gertatzen zaizun zerbait, hamar urte daramagu eta ni ulertzen hasi naiz etengabeko presioak bere eraginak dituela, ez dakit zeintzuk, baina etengabeko presioa... pertsona nahiko arraroa zarela sinestarazi diezazuke... Hori ez da ona, eta agian laguntza psikologikoa beharko dut... baina psikologoak ezin nau lagundu gizartearekin dudan arazoan... Egin dezakegun terapia bakarra da merezi duen zerbait egiten ari garela sinestea... Nik, momentuz, indarra dut, ez dizut esaten bihar ez naizenik gaizki egongo... orduan ulertuko dut ahal izan dudan guztia jartzen aritu naizela eta ezin dudala gehiago... Drama bat denik ere ez dut uste.*

*–Ez dut arazorik, ongi iruditzen zait eskaintza egitea... laguntza psikologikoa behar izatera irits zaitezke eta garrantzitsua iruditzen zait une hori noiz den identifikatzea, eta, gainera, laguntza hori jasotzea.*

*–Ongi irudituko litzaidake behar izan dezaketen bizkartzainentzat... Nik, bizkartzain modura... ez dakit babestu batzuen egoera aguantatuko nukeen, batez ere haien benetako lanak erakunde publikoekin zerikusirik ez duten horien kasuan (TAOko funtzionarioak, garbiketa lanak egiten dituzten emakumeak...), herri txikietan zinegotzi gisa aurkezten direnak.*

*–Pentsatzen dut baietz, ez dakit... nik uste dut ez dudala arazo psikologikorik honengatik... barneratu egin dut, arazoak eta deserosotasunak sortzen dizkit, baina estresik ez... Batzuk oso gaizki daramate... Nik oso gaizki eraman nuen bizkartzain pribatua izan nuenean, pertsona ona zen, baina profesional txarra zela uste dut eta ez zuen gaitasunik. Oso gaizki pasatu nuen eta ezinegona sortzen zidan... Ordu asko pasatzen genituen ibilgailuan, eta goizero topatu beharrak bakarrik tentsio ikaragarria sortzen zidan... okerren pasatu dudan garaia izan da, eta ez zen mehatxuengatik izan,*

*baizik eta pertsona hori ez zelako oso egokia edo, agian, izaeraren aldetik ez ginelako moldatzen... Garai hartan estresa izan nuela gogoratzen dut... Gero tentsioa une zehatz batzuetan izan dut, lanean jendeak garrasi egiten dizunean, baina ez dut uste estres edo ezinegon arazorik izan dudanik.*

*–Ez dut beharrik izan, baina beharra izango duen jendea egongo da... orain dela gutxi Leioan, PPren zerrenda batzuetan joateagatik, eraso egin zioten pertsonak familiari ezer ez esatea erabaki zuen, haiek ez kezkatzeko; asko jasango zuen...*

*–Ongi iruditzen zait beharrezkoa badute... kasuan kasuko pertsonak hemendik joatea pentsatzea saihestu dezakezu, zertan joan ez duenean... Bizkartzain pribatuek osasun zerbitzua dugu eta, eskatuz gero, arreta psikologikoa eskura dezakegu gure lanean babes gaitzaten, izan ditzakezun arazoak konpontzeko... Beste gauza bat da horrelakorik erabiltzea... ez da ia erabiltzen... Nik oraingoz ez dut behar... behar izango banu, bai, joango nintzateke...*

*–Ertzaintzan izandako baja psikologikoen indizea areagotu egin zen... jendea oso hondatuta dago jada...*

*–Ni ez nintzen izan laguntza bilatu zuena, baina uste dut oso ona dela, niri ongi etorri zitzaidan.*

*–Lehen kabinete psikologikoa genuen... iparraldeko sindromea laneko gaixotasuntzat jotzera iritsi zen, jende askok ez zuen presioa aguantatzen... Aspalditik jada ez da existitzen... aurrekontu arrazoiengatik edo jada ez dagoelako horrenbesteko eskaririk... Lagundu egiten zizuten... batzuetan entzuteko bakarrik...*

*–Uste dut laguntzen duela... gure taldearen barruan bada lankide batek zu aztertzeko osasun laguntza... behin psikiatra batengana joan nintzen ezinegona nuelako, eta osorik aztertu ondoren, harengana bidali ninduten... eta hitzorduan hartu ninduenean... orain urte batzuk... zera esan zidan: "zuk ez duzu psikiatra behar izatearen aurpegia, zertan egiten duzu lan?" Esan nion Euskadin destinoa zuen militarra nintzela, eta esan zidan kanpora pare bat egun joanda, guztia pasako zitzaidala... Estres egoera jasaten ari nintzela uste dut... agian terrorismoaren arazoarekin zerikusia zuena, ez dakit...*

*–Hau gizarte psikiatrakoa da, ETA joaten den egunean, herrialde honek terapia behar izango du...*

*–Uste dut eragina duela... gauza batzuk hondatu egiten zaituzte...*

*–Jende askok iparraldeko sindromea deiturikoa jasaten du.*

*–Kidegoko laguntza psikologikoak ez dit balio izan. Pribatu batera joan nintzen... denetarik pixka bat, estresa... eta, noski, lan non egiten dudan esan behar dut...*

### *3.5.3. Erakundeen aldetiko beste neurri batzuk*

**Erakunde ezberdinek zer gehiago egin dezakete jazarpenaren biktima diren pertsonei laguntzeko?**

*–Formalizazio gehiagoko eta eskuragarriagoa den laguntza plana, zein taldekoa zaren alde batera utzita.*

*–Jendaurrean bakarrik ez jardutea eta biktimak ez manipulatzea.*

*–Erakundeek kezka agertu behar dute mehatxaturiko pertsonen alde, jarduera hutsetatik, erakunde adierazpenetatik haratago... erabat abandonaturik dauden taldeak daude... Legebiltzarrean adierazpen zoragarriak egiten dituzte... lehendakariarena... baina etxea edo ibilgailua aldatzea bezalako behar zehatzak daude... Oso gaizki bizi den jende asko dago eta oso gogorra da... nork laguntzen dio bizkartzainarekin goizeko seietan garbiketa lanak egitera doan emakumeari? Nola onartzen du gizarteak hori?... ez da pertsona nabarmenenak direnengan pentsatu behar, baizik eta lanean dauden eta benetan mehatxaturik dauden herrietako zinegotziengan... oso jende ahula da, zer*

*aurrekontu neurri dago?… Inork ez du ezer egiten… ezta Arartekoak ere… eta nola kenduko dugu hori guztia gainetik, herritar modura, nola ahaztuko dugu hori guztia, nola osatuko gara berriro? izugarria da… Erakundeak eratzen dituzten pertsonek ezertarako balio ez izatea lortu dute. Herrialde honetan gertatzen dena ikaragarria da, kaleetan hildakoak egotera, bizkartzainetara… ohitzea… zer zorakeri da hau?… zer egin dute erakundeek?… honetara nola iritsi garen hausnartu beharko da…*

*–Ez dakit nire taldeari iritsiko zaizkion neurriak badauden, eta horrek zer edo zer esan nahi du jada.*

*–Gizalegezko hezkuntzaren ideia berretsi nahi dut, sentsibilizazio gizakoia, eta gero jazarpen indarkeriari legitimotasuna kendu, baita adierazpen politikoetatik ere. Gizarte kontzientziazioko lan hori asko behar da oraindik Euskadin.*

*–Ez dut uste gakoa erakundeen eskuetan dagoenik, haiek beren papera badute ere… zailagoa da hori baino, beste lasaitasun bat behar da, eta beti erruduna topatu beharrik ez izatea… Biktimei min gehien egiten diena ez da gizartearen aldetik errekonozimendurik ez izatea… nahiz eta erakundeen aldetik babesa sentitu… Biktimak gehien sufritzen dugun momentua gure arazoa dela esaten dutela dirudienean da, guztion arazoa dela esan ordez, hala beharko luke eta… Erakundeek erantzukizunaren zati bat dute, baina ez uste bezain handia… gizartea kontzientziatzeko erantzukizuna epe luzerako lana da… Konformatuko nintzateke bere buruari kritika gehiago egiten dion gizartea eraikitzeko oinarriak jartzen joatearekin.*

*–Bizkartzain pribatuen kasuan, lanorduetatik kanpo armak eduki ahal izatea.*

*–Bizkartzain publiko modura, koordinazio handiagoa egon daiteke egutegietan, ez gara asko eta. Bajak eta horrelakoak gertatzen diren une zehatzetarako baliabide pertsonalak falta dira.*

*–Esan da jada, asteburuko arnas-hartzea oso ongi irudituko litzaidake.*

*–Burua hegalaren azpian ez sartzea… Ararteko erakundearen bitartez, gustatuko litzateke lan ona egitea agintzen dutenak ohartarazteko… ez daude eta sentsibilizatuta… bidea, txikitatik, hezkuntzarena da…*

*–Bizkartzain pribatu modura lan egitean, atentatu bat gertatzen denean, enpresak gogorarazi egiten du mezu baten bitartez neurriak muturrera eraman behar ditugula eta adi egon behar dugula… ikastaroa egiten duzunean, zure burua babesteko arau batzuk ematen dizkizute, arazoa da zerbitzutik irtetean, arma entregatu egin behar dudala… Babesik gabe sentitzen naiz… Arma erabiltzeko aukera izan behar da, baina psikologiaren aldetik kontrol gehiago pasata… armak dituzten guztiei kontrol psikologiko handiagoak egin beharko litzaizkieke… arma hori eramateko prest zaudela egiaztatzeko kontrol handiagoa egon beharko litzateke… Estatuaren aldetik errekonozimendu handiagoa izatea gustatuko litzaiguke… adibidez, profesional modura, espezialitatea dugun jagoleak garelako lanbidez… lanbidea izatea, ez beste lanbide baten ordezkoa… Orain dela gutxi arte greba egitea debekaturik genuen…*

*–Babestu batzuentzat bizkartzain kopurua areagotzea ezinezkoa da ekonomikoki, baina neurri batzuetarako zuzkidura hobetzeak (txalekoak, arma…), jarduera profesionalizatzeak, kidegoen arteko koordinazioa hobetzeak… Babestuarekin lankidetzan aritzeak… babesa ez hain itogarria bihur dezake azken horrentzat…*

*–Gatazka konpontzea.*

*–Ertzaintza Frantzian onartzea…*

*–Terrorismoari legitimazioa kentzea… lehen mailako eta bigarren mailako euskaldunik ez egotea ezberdin pentsatzeagatik… hori mirari bat litzateke… nortasunak inolako arazorik gabe partekatzea onartzen ez den bitartean, ez dago zer eginik.*

*–Babesle mota ezberdinen artean koordinazio pixka bat…*

*–Gu ez goaz hor zehar laudorio esperoan… baina agian arrazoizkoagoa izan daiteke… errekonozimendu normala nahi dugu… normalizazioari buruz hitz egiten denean, harreman hori ere normalizatu egin behar da… horretan guk okerrera egin*

*dugu... Hasieran lehendakariak harreran hartzen zituen buruzagi militarrak... atzerritar gisa ez ikustea gu... okupazioaren indar bezala... onar gaitzatela eta kontuan har gaitzatela... euskal erakundeek... gu kontuan har gaitzatela... Larrialdi unitateak ditugu... oso baliabide onekin... hondamendi naturalen aurrean... bake misioetan atzerrian... Ejertzitoarekiko lankidetzaren alderdi positiboak barneratu beharko lirateke... toki guztietako jendea prestatzen ari delako, baita euskaldunak ere... eta historian zehar ere horrela izan da eta hori ez zaie haurrei irakasten...*

*–Uste dut betebeharra politikarien etxean dagoela... hezkuntzaren alorra azpimarratu behar dute... funtsezkoa da umeei eta gazteei indarraren bitartez ezer ezarri ezin dezaketela jakinaraztea... hedabideek ere esfortzua egin behar dute errealitatea eta mehatxuen arrazoiak erakusteagatik...*

*–Hegoamerikan eta beste herrialde batzutan, Estatuko terrorismoa izan dutenetan, biktima elkarteak egin dira eta memoriaren etxeak eraiki dituzte, jendeak informazioa eskuratzeko aukera izan zezan... museoak ere egin dira, pentsatzen dut munduan biktimen alde egin dena sakonki begiratu behar dela... Batailoi Euskaldun Espainiarraren eta abarren biktimentzako tratamendu berdina ematearen kontra ez nago, baina gauza batzuk bereizi egin beharko lirateke, eta guztiak zaku berdinean ez sartu polizia gatazkak daudenean, eta abar. Kontua ez da "indarkeria, datorren tokitik datorrela" gaitzetsi egiten dela esatea. Bidezko indarkeria badago, demokratikoki erabilitakoa agintaritza duenaren aldetik, eta erabili egin behar du... ez da gauza berdina ideiak defendatzeko terrorismora jotzea... Adibidez, GALa gaitzesgarria da, baina poliziaren jardun legitimoa ezin da horrekin alderatu...*

*–Memoria, agian, biktima elkarteen ardura da gehiago... Ez ahazteaz arduratuko dira, baina erakundeei eskatu beharrekoa egia eta justizia dira, lehengoratzeak ekarri beharrekoak horiek. Esan egin behar da nola eta zergatik sortu den hau... eta biktimak daude...*

### *3.5.4. <u>Egoera berdinean dauden beste pertsona batzuentzako aholkuak</u>*

**Zer gomendatuko zenieke zure tokian dauden beste pertsona batzuei?**

*–Mehatxuak ahalik eta gehien minimizatzeko esango nieke, beren lanak eta konpromiso politikoak merezi duten balora dezatela eta, erantzuna baiezkoa bada, aurrerantz jarrai dezatela. Egoera horien aurrean, konpromiso politikoak merezi ez badu, orduan ez du aurrera egiteak merezi, asko sufrituko dutelako.*

*–Ba, ez dakit zer esango nieken... ez dakit... pena handia emango lidake... badakizu zer kalbario duten aurretik... besarkada bat eman eta behar duenerako hemen nauka esateaz aparte, ez nuke jakingo zer esan... familian babesa hartu behar duzu, hitz horiek guztiak... aurrerantz begiratu behar dela... Konpromiso formula hutsen zale ez naiz... eskutik helduko nioke... Nik izaera oso gogorra dut eta animo handikoa, baina ikaragarria da... ez nuke jakingo zer esan.*

*–Ahalik eta normaltasun handienarekin bizitzeko, diskrezioa gordez eta segurtasun neurriak betez. Lan egiten duzun tokian ez bizitzeko, "bunker" batean sartuta ez egoteko.*

*–Haserrea eta amorrua hozten saiatzeko gomendatuko nioke, umore handia izatearekin batera.*

*–Lanarengatik zorionduko nuke eta sinesten duenaren alde borroka egiteko esango.*

*–Pazientzia... hitza ez da pazientzia... zuri esaten dizutena esango nioke, teorian oso polita dela, bere bizitzarekin jarraitzeari ez uzteko, lehen egiten zuen guztia egiten saiatzeko, bizkartzainak horretarako daudela eta ez zure bizitza baldintzatzeko, baina*

*esan egiten dizute eta hitz soiletan geratzen da, oso zaila da... Inoiz ez dut alde egitea pentsatu, euskaldun jaio nintzen eta euskaldun hilko naiz, eta nire delitua abertzalea ez izatea bada, ba orduan abertzale izan gabe hilko naiz baina Euskadin hilko naiz, atsekabetzen duena atsekabetuta ere, hori argi dut... Kanpoan ikasi dut... kanpoan gera ninteken... baina ez dut nahi, hau haiena bezain nirea da eta ez dut joateko gogorik, eta zergatik joan behar dut nik eta ez haiek?*

*–Uste dut bizkartzain lanaren alderdi positiboei eman behar zaiela arreta... arriskuetan pentsatu gabe... ibilgailu istripuak daude, baina ez dut pentsatzen niri tokatuko zaidanik, kontua izan, hori bai...*

*–Norbait berria sartzen denean, esan egiten diet gizartearen zati batek gaizki ikusten gaituela eta gero terrorismoaren arazoa dagoela... esaten diet hemen bizitza normala egiten dugula... orokorrean, kaleak lasaiak dira... bizkartzaina behar duten balora dezatela... bizkartzaina edo eraso gutxiagoko babes neurriak... Beren burua babesteko ikastaroa hartzen dute, eta ona dela iruditzen zait...*

*–Pertsona horri gomendatuko nioke den bezalakoa izateko, eta kontzientziari jarraituz jardun dezala. Beldurra badu, ez dezala lana hasi, ez du merezi, ez baita ongi egongo. Beldurrarekin ezin da lan egin, nik beti esaten dut hori... kontu beti izan behar da... eta zintzoa eta zuzena izan dadila barruan duenarekiko...*

*–Lanean hasten den bizkartzain pribatu bati esango nioke ongi egiteko lan, epaiketarik ez egiteko... Euskaditik kanpoko jendeak neurriz gaineko pertzepzioa du agian... irteteko, jendea ezagutzeko, dagoen arazoa aztertzeko pixka bat, kontua ez dela lan egin eta kito, eta profesionalak bezala jarduteko... Hau erraza dela pentsatuz bazatoz, oso oker zaude, ez etorri, bi egun igarota joan egingo zarelako...*

*–Esango nioke ertzainak lan ona egiten gabiltzala... orain gurekin herritarrek segurtasuna dute... eta hemengoak gara, herrikoak... eta, batez ere, lasai hartzeko esango nioke... gehienak jende normala gara...*

*–Esango nioke aukera izanez gero joateko, ez duela merezi, azkenean bizitza jokatzen duzulako eta, zertarako? Zu babesteko eta balio jakin batzuk defendatzeko betebeharra dutenek betebehar hori ez betetzeko... hobe da ideia horien alde beste toki batetik borrokatzea...*

*–Obsesioa saihesten saia daitezela... lanetik irteterakoan... arduratsua izaten jarraitzeko... bizitza normala eramatea nor zaren eta non zauden ahaztu gabe...*

*–Zoritxarrez, ahalik eta anonimoena izateko da esan beharko niekeena, auzotarrek horren berri izan ez dezaten... horrela da... Nik uste dut ETAk ez duela luzaro iraungo... Espainiaren aurkako independentzia zaleen multzo bat mantendu egingo da, espainiarra gorroto duena... baina, agian, ordurako ez da beharrezkoa izango ezkutuan bizi behar izatea...*

*–Bizitza normala diskrezioarekin egiten saiatzeko... bestela, azkenean, arazoa sortzen amaitzen duzu... Hemengo jendea maite dut orokorrean... gero, pegatina ikusten duzunean, aurpegi okerra ikusten duzunean lan zertan egiten duzun esan behar izan duzulako, ba batzuetan...*

## 3.6. Beste hausnarketa batzuk

### Zure egoerari buruz galdetu ez dugun zerbait erantsi nahi duzu? Galdera-sortan zerbait bota al duzu faltan?

*–Preso sentitzen zara zure hirian, kontraesanean dauden barne sentimenduak dituzu, gertatzen zaizunagatik bidegabekeria sentimendua duzu, amorru sentimendua ere, eta hori menderatu egin behar duzu, eta, noski, kezka ere baduzu. Orduan, sentimendu pilaketa horrekin lan egin behar duzunean, egoera zaildu egiten da egia esan,*

*eta are zailagoa da nahita egiten duzulako, hor geratzen zara eta ez zara joan. Ez naiz inolaz ere heroi sentitzen, eta ez ditut heroien ezaugarriak, inolaz ere, hori oso argi utzi nahi dut. Aitzitik, nolabait, horrela bizi eta lan egitera mesprezaturik ikusteak sendotasuna ematen dizu aldi berean.*

*–Guztia erlatiboa da, pertsona bakoitzaren pertzepzioaren araberakoa izango da. Ni oso ongi nago, noski, pertzepzioa aldatu egiten da babestu bat hiltzen badute... Bizkartzainaren eta babestuaren artean arazoak badaude, gauzak hitz eginez konpontzen dira... eta, besterik ez, espero dut bizi dugun egoera hau ahalik eta lasterren amaitzea.*

*–Muineraino euskalduna izanda, ez naiz abertzalea sentitzen, zer egingo diogu ba! Ez abertzale euskalduna, ez abertzale espainiarra... Berdintasunean eta solidaritatean sinesten dut, zentzu horretan zenbaitetan itolarria sentitzen dut Euskadin...*

*–Laguntza psikologikoa baino, nahiago nuke auzokoek auzoko moduan ni hartzea... gainerakoa nazismoa da...*

*–Zerbait positiboa bada... egunetik egunera bizi zarela jabetzen zara, eta hori ona da. Azkenean bidea da garrantzitsua...*

## IV. EZTABAIDA TALDEAREN GARAPENA

### 1. Aurkezpena

Metodologiazko alderdi zenbait –kapituluaren hasiera aipaturikoak– gogoraraziko ditugu orain pertsona elkarrizketatuekin eginiko eztabaida-taldeari buruz, azaldu zitzaien bezala. Horrez gain, oro har, haren garapenari buruzko ohar batzuk ere emango ditugu. Bilera honen helburua banakako elkarrizketetan lortutako emaitzak egiaztatu eta azterketa aberastea da, taldeko dinamika baten bitartez. Eztabaida taldea kasu honetan duen puntu sendoagatik aukeratutako ikerketa teknika kualitatiboa da, hain zuzen ere: parte-hartze dinamikoa. Teknika horren bitartez lortu nahi den elkarrizketan loturak topatu nahi dira ikuspegi eta kezka ezberdinen artean, banakako elkarrizketetan eskuratutako emaitzen inguruan erdi egituraturik dagoen formatuari jarraiki. Parte-hartzaileak, biktimazio esperientzien protagonistak, ez dira inolaz ere azterketaren "xede" edo "lagin" –terrorismoak ematen dien xede izaera aldatuz–. Aldiz, euskal errealitatean izandako gizarte istorioen, harremanen kokapenaren eta banakako ikuspegien bitartez, beren erantzunekin elkarrizketatzaileari galderak berriro planteatzen laguntzen dioten subjektuak dira.

Puntu ahulak parte-hartzea eta elkarrizketaren dinamismoa sustatzeko ardura duen koordinatzaileak kontrolatu behar ditu, aurreikusi den iraupena gutxi gorabehera ordu eta erdikoa dela kontuan hartuz. Teknika itxia ez denez, emaitza zehaztugabea izan daiteke. Koordinatzaileak galarazi egin behar du talde edo pertsona batek elkarrizketa berea bakarrik egitea, edo errespetu faltak izatea. Gainera, parte-hartzearen oso aldeko ez diren horien parte-hartzea sustatu behar du. Metodo hori desegokia dela irudi dakigu, taldeak aurretik emandako banakako erantzunak desitxuratzen baditu. Neurri bateko entzutea duten pertsonek parte hartzen badute batez ere, horiek agintaritzaren agente modura har daitezke, eta eginbehar anonimoagoa duten beste pertsona batzuek hitz egiteari utz diezaiokete. Hori dela eta, argi utzi behar da parte hartzen duten pertsonek ez dutela agintari izateagatik edo izena edukitzeagatik parte hartzen, baizik eta izandako biktimazio esperientziagatik, horren gainean hausnarketa egiteko gaitasunagatik eta guztiontzat interesgarriak diren gaiak planteatzeko parte-hartze borondatea izateagatik.

Grabazioa egin zen, ondoren banakako eta taldeko diskurtsoak transkribatu eta aztertzeko. Bertatik identifikaziorako balio izan zezaketen datu guztiak ezabatu ziren (izenak, informazio pertsonala eta/edo lanbidekoa), parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatze aldera.

Topaketa Arartekoak Donostian duen egoitzan egin zen 2008ko urtarrilaren 31n. Hiru egun lehenago une horretara arte elkarrizketatutako hamalau pertsonetatik hamaikak bertaratuko zirela konfirmatu bazuen ere[33], azkenean bederatzi izan ziren parte-hartzaileak. Horietako bat taldea jada lanean hasita zegoenean sartu zen, eta pertsona berdina amaitu baino lehen joan behar izen zen ere. Beste pertsona bat taldeko lanarekin hasi baino lehen bertaratu zen, larrialdi bat sortu zitzaiolako barkamena eskatzeko. Koordinatzailearekin gai batzuk aipatzeko aukera izan zuen. Pertsona horri eta hurrengo egunean bertaratu ezin izanagatik barkamena eskatzeko deitu zuen beste pertsona bati, taldeko lanetik ateratako ondorioak bidali zitzaizkien, iruzkin laburrak egin zitzaten idatziz.

Pertsona guztiek parte hartu zuten neurri handiagoan edo txikiagoan. Hain zuzen ere, elkarrizketa aurreikusitakoa baino denbora gehiagoz luzatu zen -hiru ordu inguru, aurkezpena eta agurra barne-, taldeko dinamika horrekin jendea eroso sentitzen zela zirudielako. Taldearen koordinatzaileaz gain, bertan izan zen, ikusle modura, Iñigo Lamarca arartekoa.

Jarraian grabazio horretako zatiak bilduko dira, ia oso-osorik islatuta[34]. Formaren aldetik beharrezko aldarazpenak egin dira, baita informazioa berrantolatzeko, batzeko eta behar baino errepikapen edo duda-muda gehiago saihesteko beharrezkoak zirenak ere, irakurketa errazte aldera. Halaber, aldaketa arinak eta deuseztapenak egin dira, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatze aldera.

## 2. Eztabaidatutako puntuak

Banakako elkarrizketen azterketatik irtendako datu bitxi bat da guztiak pribilegiatu sentitzen direla mehatxaturik dauden beste pertsona batzuk bizi duten egoeraren aldean, eta landa esparruetan bizi diren pertsonen zailtasunak azpimarratzen dituzte.

Etorkizunean xehetasun gehiagoko azterlanak egitearen kaltetan izan gabe, eztabaida bateratua da egin nahi dena mehatxaturiko taldeentzako interesgarriak diren gaien inguruan. Horrela, Ararteko erakundeak gomendioak edo praktika egokien printzipioak adierazi ahalko ditu. Eskakizun maila altua da, pertsona hauek nekea agertzen dutelako hitz politen, hutsen edo anbiguoen aurrean, bizi duten errealitatea mehatxaturik bakardadean bizitzearena delako. Banakako elkarrizketetan hainbatetan errepikatu dira “izugarria”, “bidegabekeria”, “bakardadea” eta “isolamendua” hitzak.

---

33 Mehatxatutako taldeetako bi kidek martxoaren hasieran erantzun zioten galdera-sortari, harremanetan jartzeko eta baiezkoa jasotzeko izandako zailtasunengatik.

34 Eztabaida talde guztietan bezala, zati batzuk galdu egin dira. Izan ere, aldi berean pertsona batek baino gehiagok hitz egin duen eta ahotsak bata bestearen gainetik geratu diren kasu eskas horiek daude. Talde honen kasuan, parte-hartzaile guztiek errespetu handia izan zuten txanda gordetzerakoan, nahiz eta batzuk beste batzuk baino oparoagoak diren gauzak azaltzerakoan.

Terrorismoaren biktimen elkarteek lau kontzepturekin laburbiltzen dituzte beren eskakizunak: memoria, egia, duintasuna eta justizia. Halaber, egindako elkarrizketetatik ETAk mehatxaturiko taldeen beharrak eta eskaerak laburbiltzen dituzten lau puntu atera ditugu[35]:

1. Babesa. Egokia, koordinatua eta profesionala izan behar da (prestakuntza egokiarekin), babestuarekin parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko hainbat biderekin (informazioa eta komunikaziorako bideak), tratu duina eta elkarrekiko errespetua bermatuz.

2. Solidaritate publikoa, erakundeen arretaren bitartez, hainbat eremutan: eremu psikologikoa, materiala (etxebizitza), gizarte eta lanekoa... bertan geratu nahi duten pertsonak hartuz, baina baita joan direnak edota Euskadira itzuli nahi dutenak ere.

3. Kontzientziazioa eta gizarte erantzukizuna (eta erakundeena) bultzatzea, bidegabeko egoera baten aurrean axolagabekeria saihesteko: "nola egin bere buruarekin kritikoagoa izango den gizartea... nola ulertarazi arazoa ez dela banakakoa, guztion arazo bat dela?".
   Orain urtebete baino gehiago, T-4ko atentatua eta gero, zuzendariari idatzitako gutun bat argitaratu zen euskal egunkari batean. Hura, ETAko batzorde exekutiboari zuzendu zitzaion, zera idatziz: *"Beti bezala, berriro ere lurralde honetan bizitzeko eskubidea nork duen erabakitzen duzue, edo, besterik gabe, bizitzeko eskubidea nork duen erabakitzen duzue, eta berriro ere gure lagunak ikusiko ditugu kaletik ibiltzen, silueta horiek urrats batzuk atzerago dituztela, aldi berean defendatu eta unatu egiten dituzten silueta horiek, zerrendan daudela gogorarazten dieten horiek. Zinegotziak, kazetariak, enpresaburuak, epaileak...behin baino gehiagotan entzungo zutenak 'Lagunduko nizuke kafe bat hartzera, baina mehatxaturik zaudenez...' Beste batzuei, aldiz, horrek ez die eragiten... Zera esaten dute: 'A zer nolako izugarrikeria!' Eta hortik bost minutura Real Sociedad taldea bigarren mailara jaisteko aukerari buruz hitz egiten ari dira... Multzo orokorreko euskalduna naiz. Ezer garrantzitsurik inoiz egin ez duen horietakoa, baina nire ideiak eta nire ekintzak mehatxaturik daudenekin daude, eta zuekin lotsaren ituna ez dudanez inoiz sinatu eta ez dudanez inoiz sinatuko, ziurtasunez uste dut zuen legegabeen zerrendan egongo naizela..."*. Mehatxupean dagoen jende askorentzat, lotsaren ituna ez da bakarrik ETA babesten dutenen ituna, baizik eta haiek justifikatu edo legitimotasuna ematen dietenen ituna eta isilik geratzen direnena.
   Gizarteak orokorrean ematen duen babesari buruz, kontrako prozesuak egon daitezke, abandonutik hasi eta egokitzapen hoberaino, militarren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide direnen kasuan. Aldiz, mehatxupean dauden talde "berrien" kasuan, agian okerrago sentitzen dira alderdi horretan denborak aurrera egin ahala.

---

[35] Ikusi 2. eranskinean eztabaida taldea garatzeko gidoia.

4. Indarkeriazko jokabideak, jokabide terroristak prebenitzea, funtsean hezkuntzaren bitartez eta, orokorrean, terrorismoari legitimazioa kentzearen bitartez. Mehatxaturik dauden pertsonen seme-alaben bitartez biktimazioaren eragin batzuk belaunaldi batzuetatik besteetara igarotzearena eztabaidagarria izan daiteke.

Proposatutako puntuekin bat etorriz, hiru puntutan batutakoak, taldea jarraian zehaztuko den moduan garatu zen:

## 2.1. Babesaren kalitatea

Puntu honek bizitza eskubideari eragiten dio, segurtasun pertsonalari, ongizate fisiko eta psikologikoari zor zaion errespetuari, duintasunari eta bizitza pribatuari[36], askatasunari bezalaxe.

*–Nik Ertzaintzako bizkartzainak daramatzat, eta, egia esan, uste dut ez dela eraginkorra. Uste dut atzera eragiten duela, terrorista batek, bizkartzaina daraman norbait eta bizkartzainik ez daraman norbait izanda, argi eta garbi, bizkartzainik ez duen horren aurka egingo duelako. Zentzu horretan, noski, babestuta sentitzen naiz. Baina uste dut sistema hori ez dela eraginkorra... Ez bakarrik prestakuntza egokia ez dutela edota behar besteko baliabiderik ez dutela esaten didaten horiengatik... Horrez gain, guztia Herrizaingo Sailetik bertatik hasten da... bizkartzainaren funtzioa gogoz kontra bezala hartzen du... pentsa hori horrela den Ertzaintzako bizkartzain zerbitzuak ez duela bizkartzain zerbitzu izena, Laguntzaile Zerbitzua deitzen da, lotsa ematen dielako bizkartzainak dituztela esatea... Ez da bakarrik termino kontua, benetan barneratuta dute zenbait hiltzailek pertsona batzuk hiltzea saihesteko daudela hor... Nik uste dut ertzainen prestakuntzak, behinik behin niri tokatzen zaidan horretan, gabeziak dituela...*

*–Inoiz ez da hau errealitate gisa hartu nahi izan; horregatik, Ertzaintzaren barruan, bizkartzain zerbitzuak betetzen dituzten ertzainak ez dira existitzen. Hau da, honakoa amaitzen denean, zortzi edo hamar edo lanean aritu diren urteetan auskalo zer egiten aritu diren, ez baitago onartuta ere... Modu lotsagarrian konpontzen da, arazo hau egongo ez balitz bezala. Hori da nik dudan sentsazioa.*

*–Gero bizkartzain pribatuak daude... horiek ere, neurri batean, Herrizaingo Sailaren mende daude... azkenean diruagatik mugitzen dira... eskaintza merkeena egiten duen enpresa da zerbitzuen esleipena hartuko duena...*

*–Nik udaltzaingoak ditut... pribilegiatu bat naiz... Tratua ezberdina da eta babesa ere ezberdina da une honetan, oso ezberdina... udaltzaingoak edo ertzainak ditugunok, txandaka aritzen diren bizkartzainak ditugu; bizkartzain pribatuekin daudenen kasuan, beti pertsona berdinarekin egoten dira... Babesaren arazoetako bat babespean daramagun denbora da, ez baita aipatu eta hori garrantzitsua da... Ez da gauza bera... hemen urte asko egitea eta zure bizitzako helburua hemen jarraitzea izatea... Orain dela gutxi kanpoan izan naiz denboraldi luze batez eta zorionez egiten nuen negar... nire bizitzaren eta nire denboraren jabe izatearen sentsazioa gogoratzen ez nuen zerbait zelako... ez dakit noraino iritsiko garen gutako batzuk... baina babesaren*

[36] Ikusi Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 3. artikulua.

Ararteko erakundeak hurrengo esaldia jartzen du, euskaraz nahiz gazteleraz, bere idazki guztietan eta ETA EZ lemarekin batera: "Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea".

*kalitatea garrantzitsua da… Bizkartzain pribatuekin… pertsona berdinarekin egoten zara egunero… ez zara inor gehiagorekin egoten… egunero eta horrenbeste ordu… gainera, bizkartzainak ere ez du atsedenik hatzen… administrazioak ere beharrezkoa dena baino gehiago gastatzea saihesten du… Derrigorrezko atsedenaldiak egon beharko lirateke… Euskadin babestutako pertsona gehienak bizkartzain pribatuekin daude…*

*–Udaltzaingoan Agintarien babesaz hitz egiten dugu… lan hau egiten duten udaltzaingoek borondatez erabakia hartu dutelako egiten dute… baina agintariak onenak ez uzten saiatzen dira, horiek beste eremu batzuetan falta izatea saihesteko… hondarrak dira nolabait… Udal erakundeek ezin dituzte baliabideak jarri… Arkautek ere ez ditu eskaintzen… nola argitu daiteke inoiz baliabiderik ez izatea… ezta udaltzaingoek prestakuntza birziklatzeko ere… Babesten gaituzten pertsonek birziklatzeko ikastaroetara joateko aukera izatea gomenda daiteke…*

*–Bizkartzain lanak egiten dituzten bost kidego daude: polizia nazionala, udaltzaingoa, guardia zibila, ertzainak eta bizkartzain pribatuak… bakoitza mota batekoa, prestakuntza maila ezberdinarekin, maila kultural ezberdinarekin, toki geografiko ezberdinetakoak… bere bizkartzainarekin oso gustura egongo den jendea izango da, beste batzuk ez… Garrantzitsua iruditzen zait babestuaren eta bizkartzainaren arteko komunikazioa…*

*–Nik zazpi hilabete inguru daramatzat bizkartzainarekin, eta bizkartzain gisa berrogei pertsona ezberdin inguru izan ditut… ez dago bizitzeko modurik… eta hau ez da gertatu nik aldaketa eskatzeagatik edo arazoak izateagatik… enpresaren aldetiko kontuengatik baizik… zer konfiantza izango dut haiekin komunikatzeko?… Zoratzekoa da…*

*–Alde handia dago sektore publikoaren eta pribatuaren artean… ordainsariak, lanaldiak…*

*–Niri bizkartzain pribatu onak ere tokatu zaizkit… baina zera esan behar da ere… beharraren aurrean… segurtasun enpresa baten barruan zegoen edozeinek balio izan du… eta hori arazo bat da.*

*–…Bizkartzain pribatuen "booma" egon zenean… lehenik eta behin urteak zeramatzaten jagoleekin hasi ziren… amaitu zenean… aldi berean jagole eta bizkartzain bihurtzen ziren… Euskaditik kanpoko jende asko etorri zen… segurtasunari buruz ezer jakin gabe… ikastaroa… ez da praktikoa… ikastaro bat egin nahi bada, bakoitzak ordaindu beharrekoa da… orduan ikastaro teorikoa egiten da… erraza…*

*–Segurtasun enpresek bizkartzainak aldatzeko joera dute… bizkartzainak aldatzen badoaz, zure bizitzaren berri biztanleriaren erdiak du…*

*–Hau erakundeen erantzukizuna da… lanaldiak… kontratatzeko modua… Ardura duen erakundeak ez du serioski hartzen arazo hau… Egia da une jakin batean bizkartzainak inprobisatu behar izan zirela, eta harrien azpitik ere atera genituela, baina ordudanik denbora luzea igaro da, pertsona horiek prestatzeko denbora izan dugu… non kexatu behar dugu?… hasieran kexatu egiten ginen… nik orain ez dut jada denborarik galtzen…*

*–Emakumeena… badirudi azkenean kontua erabat kontrolaturik egotea dela… jada etsita nago Herrizaingoaren ordenagailuan… ile apaindegira, ginekologoarengana zenbatetan joaten naizen jakiteaz… non zauden zehatz-mehatz jakinarazten da… eta gero ile apaindegira askotan joatearen edo ginekologora zer gutxi joaten zaren bezalako aipamenak egitea onartzen da… zure bikotea zein gutxi ikusten duzun… gehiegizkoa da… eta hori jasan egin behar dugu… agian gizonezkoei ez dizkiete hain aipamen hutsalak egiten…*

*–…Argi dago gure bizitza guztien ahotan dagoela… mundu guztiak jakin dezake zer egiten dugun… ikaragarria da, baina horrela da… Zuk beste pertsona batzuei buruz entzuten duzu, beraz, guri buruz ere berdin egingo dituzte…*

*–Emakume izateagatik, eta gainera gaztea, badirudi tuntunagoa zarela... bizkartzainen bat dendan eta guzti sartu da nirekin barruko arropa erostera... baten batek behar baino gehiago edan du nire familiarekin "poteoan" irten naizenean...*

*–Emakume bizkartzain oso gutxi dago... agian logikoena emakumeak emakumeekin izatea litzateke...*

*–Hain zuzen, ateratzen hasi direnak asko eskatzen dituzte...*

*–Ez, ni ez nago horrekin ados...*

*–Ez naiz emakumea, baina niri ere atera zidaten argazki bat... eta balizko bizkartzainekin nuen harremanari buruzko aipamenak egin zituzten...*

*–Trauma handienetako bat pribatutasuna galtzen duzula da, bizkartzaina beti dagoelako hor... ezin duzu zure bikotearekin eztabaidarik izan... erosketak bizkartzainarekin egin behar dituzu... txakurra atera... guztia...*

*–Nik bizkartzain pribatu berdinak ditut nahiko aspalditik... kontentu nago... konfiantza handia dut haiengan... diskrezio handikoak dira... enpresari nire kexa eta guzti adierazi diet, bizkartzainei ematen zaien tratua dela eta... Baina ziur nago inolako gaitasunik gabeko jendea badagoela... Psikiatriko batean sartzeko moduko bat edo beste izan dut... Automatikoki "kanpora" esan nuen, arrisku publikoa zelako... eta bizkartzain gisa jarraitzen du beste pertsona batekin... eta ez dugu ahaztu behar arma bat daramala...*

*–...Errotze aldeak daude..., ez da gauza bera udalerrian bertan familiaren eta gizartearen aldetik erroturik dauden bizkartzainak izatea... errotzerik gabe datoz, batzuetan ezkongabeak eta gazteak dira... beste batzuk ez... horrek egoera konplexuak eragiten dizkie... bizkartzain pribatuei, deserrotzekoak...*

*–Mehatxaturikoen artean desberdintasunak daude... okerren daudenak ezer ez dutenak dira... gero herri txikietan bizi direnak... erraztasun gehien duten horien aurka joango dira beti...*

*–Mehatxaturikook badakigu bizkartzainak gu babesteko faborea egiten dabiltzala... baina hori eskubide bat da eta egoerarekin ados ez bagaude... esan egin behar dugu.*

*–Baina babestu batek nahikoa du duenarekin, bizkartzainen profesionaltasuna ebaluatzen hasteko... orain hain gertu ez jartzeko esan behar badiot... atzerago jartzeko... mesprezua iruditzen zait nolabait... lotsa ematen du... orain gizon bati deitu behar diot, norbait ken diezadan eskatzeko... asko kostatzen zait... nik kezkatu behar dudalako... Nik ez diet gainerakoei galdetzen nola egin behar dudan nire lana...*

*–Babesten gaituzten pertsonei egingo niekeen eskaeretako bat da, noizean behin, arau modura, bizkartzaina daramanarekin harremanetan jartzea da, bizkartzain zerbitzuari buruz duen iritzia galdetzeko... haiekin hitz egin dudanean, telefonoa zure esku dagoela esaten dizute... baina... lotsa ematen du telefonoa hartu eta deitzea. Nik uste dut haiek telefonoa hartu eta aldizka babestuei deitzeko esfortzua egin beharko luketela... Adibidez, janzteko moduari buruzko gauza hain sinpleei buruz, batek egunero traje eta gorbatarekin jantzi behar badu eta bizkartzaina txukun ez badoa, galtza motzetan... orduan bikote oso bitxia gara... ez gara oharkabean geratzen... Lotsa ematen dit bere nagusiari deitzeak txukun eta ongi jantzita doan bat jartzea eskatzeko... Zerbitzua eman behar da babestuen gogobetetasun mailaren berri izateko... horrelakorik ez dago... nik deitzen badut, badirudi haien lanpostua arriskuan jartzen nabilela... bizkartzainek eurek esaten dute, txosten negatiboa eginez gero, kendu egiten dituztela...*

*–...Nik oso kaskar batzuk izan ditut... batere diskreziorik gabekoak... enpresara deitu nuen eta kendu egin zizkidaten, tematu egin nintzelako... eta asko kostatzen zait beren lanean kaltetu ditzakedala pentsatzea... horretaz bizi diren seme-alabak ote dituzten pentsatzea...*

*–...Gehiegikeriak ere badaude,... bizkartzainak gidari modura erabiltzen dituztenak... tratu gutxiesgarriren bat... tratu duina bi alderdien artekoa izan behar da...*

*–Batzuetan egoera konplexuak ikus daitezke... gehiegikeria ez litzateke izango... adibidez, senide batekin sendagilearengana joan behar bada, batez ere haur batekin, eta hura eramateko beste inor ez baduzu eta bizkartzainak tematu egiten badira zu bakarrik babes zaitzaketela eta gainerako pertsona guztiak ibilgailu ezberdin batean joan behar direla esanez...*

*–Uste dut hor bizkartzainak gainditu egiten dituela bere mugak... zentzugabekoa iruditzen zait...*

*–Nork eramaten du semea sendagilearengana?... Auzoko batek?...*

## 2.2. Eskubide eta solidaritate publikoak, alor ezberdinetan garatutako arreta neurrien bitartez

Hemen solidaritate neurriak berdintasunez eskuratzeko eskubidearen eremuan mugitzen gara, kasu bakoitzaren berezitasunen barruan eta mehatxatutako pertsonek jatorrian dituzten desberdintasunak kontuan hartuta.

*–...Etxebizitza alokatu ahal izateko, jabeek nahikoa dute nire bikoteak nomina aurkeztearekin... nik erakutsi beharko banu, ez nuke egingo ez dudalako nahi lan zertan egiten dudan jakiterik... ez dakit nola egiten duten bakarrik bizi diren mehatxatutako taldeetako pertsonek nomina aurkeztu behar ez izateko etxebizitza bat alokatzerakoan... azkenean, norberaren harremanetara jotzen da... arazoa ahal bezala saihestu... Nomina aurkeztu beharrik gabe aloka daitekeen etxebizitza fondoa edo poltsa egongo balitz...*

*–...Gainera, testuinguru honetan etxebizitzaren arazoa orokorra da...*

*–Talde batzuen kasuan, konponbidea azkenean kasuan kasuko erakundeko pabiloi batzuetan pilatzea da... oso baldintza txarretan... umorez "Anaia Handia" deitzen diote... ni kanpoan bizi den gutxitako bat naiz... baina sinestezina da armairurik gabe beste hamahiru pertsonarekin bizi ahal izatea... zoramena da...* Gainera, gizartearen aldetik isolamendua ere badakar. Horrek esan nahi du, gainera, baldintza horiek eragina dutela epe luzera, batez ere lanaren kalitatean.

*–Harritu eta eskandalizatu egiten nau Biktimen Zuzendaritza honetaz ez arduratzeak... zer gertatzen da, guk deitu behar diegula?...*

*–Uste dut zuzendaritza horrek gai hauek koordinatu beharko lituzkeela...*

*–Zentzu horretan, Biktimen Zuzendaritzak Herrizaingo Sailak baino ikuspegi zabalagoa du... eta zenbait eskaerari aurre egiteko baliabideak izan beharko lituzke... Adibidez, udal erakundeekin hitzarmenak sinatzearen bitartez eta abar, etxebizitza politikak bultzatu beharko lirateke zentzu horretan... Horren guztiaren atzean... familiak daude, pertsonak, ez da zenbaki bat gehiago...*

*–Denbora asko daramat... inoiz ez didate inolako laguntzarik eman... ez dut dominarik nahi... ohorezko errekonozimendu horiek ez dute ezertarako balio hilda bazaude... baina bai uste dudala mehatxaturik bagaude, Zuzenbideko Estatua defendatzeagatik gaudela... Alderdi abertzaleko bazkide batek gauza bera aipatu dit gaur: "batzuetan ez dakit okerragoak ez garen ezikusiarena egiten dugunok... mehatxatzen zaituztetenak baino...". ...Euskal gizarte eta gizarte espainiar hau oso solidaritate gutxikoa da... Erakundeetan karguak betetzen ditugunoi eta kargu publikoak dituztenei ez zaigu eskatu bizitza osoan egoera honetan egon gaitezela... Nire kargua betetzeari uzten badiot... gehiago ezin dudalako, utzi egin nahi dudalako... nik Euskadiko enpresa publiko eta pribatuetan lan egin dezaket... karguak utzi dituzten alderdi abertzaleetako kideek egin duten moduan? Ez... enpresa publikoan ez, hura ez dagoelako alderdi ez abertzale baten eskuetan, horrela da... eta pribatuan ez, azkenean markatuta zaudelako... erakundeetatik lagun gaitzatela kasu bakoitzean etorkizunean laneratzen...*

*besterik ez... Uste dut horrelakorik ez dela existitzen, eta jende asko beharturik dagoela jarraitzera, ez dagoelako atzera bueltarik... eta hori ikaragarria da... zera esaten duzunean: "nik jada ezin dut atzera egin"... egoera ikaragarria iruditzen zait...*

*–...Solidaritate publikoko gai bat da, guztiontzat berdina izan dadin. Izan ere, une honetan, harremanen araberakoa da... harremanak badaude, orduan laguntza jasotzen da... hori tristea da...*

*–Egia esan, berdintasun printzipioa berdin tratatzean datza berdin daudenak, baina gu ez gaude berdin...*

*–...Funtzionarioak diren beste pertsona batzuei ere eragin egiten die beste modu batera bere ibilbide profesionalean mehatxu egoera honek...*

*–Laguntza zehatzei dagokienez, nik esan nuen niri ez zidala ezer konpontzen "arnas asteburu bat" diruz laguntzeak pixka bat, itzuli egin behar dudalako eta urteko gainerako egunetan jarraitu egin behar dut... eta ezikusiarena egiten jarraituko didaten egoerara itzultzea... Niri balio didana urte osoan zehar egoera honetan gaudenok gugatik kezka agertzen dutela sentitzea da... era batera edo bestera...*

*–"Arnas asteburuarena" ongi irudi dakion jendea badago, ordea, eta beharrezkoa du...*

*–Herri txikietan horrelakoren bat behar izan dezaketen zinegotziak daude... zergatik jartzen da zalantzan laguntza hori eta inoiz ez ETAko presoei ematen zaiena?*

*–"Hau biktimaz doa" pentsatuko duen jendea egongo da... bizkartzainekin...*

*–Pertsona batzuk uste dute izugarri gustuko duzula horrela egotea... garrantzitsutzat jotzen duzula zure burua bizkartzainekin joateagatik...*

*–Beste batzuk esaten dute: "zuk ezin baduzu, utzi...", baina nik utzi egiten badut, beste pertsona batek hartu behar du... Gainera, eskubide bat da, zergatik ezin dut lan nahi dudan horretan egin?... gauza bera eginda, batzuk mehatxatuta daude eta beste batzuk ez... zein alderdiri ematen dioten botoa gorabehera...*

*–Funtzionarioa naiz... ez dut joan nahi... utzi egiten dut... eta zertan egiten dut lan?...* Jada egindako lana ez da baloratuko.

*–Banakako gai bat da... gai honetako tratua banakakoa izan behar da Biktimen Zuzendaritzatik... ez dago konponbide magikorik guztientzat... eta funtsezko erantzunak dira... funtsezko gaiez hitz egiten ari gara eta... beste gai batzuk, ETAko presoen senideentzako laguntzak bezala, eta ongi iruditzen zaizkit beharrezkoak badira, ez dira zalantzan ere jartzen, kontrakoa, defendatu eta babestu egiten dira...*

Familiaren multzoa pisu izugarria jasaten ari da, eta banakako elkarrizketetan identifikatu egin da biktimazioa gainditzeko funtsezko aldagai gisa. Zentzu horretan, erakunde publikoek balorazioa egin behar dute babes neurriak aurreikusterakoan, eta mehatxatutako pertsona isolatutako zerbait bezala ez hartu.

*–Zure familiak arnasa hartzen du etxean sartu eta atea ixten duzunean...*

*–Nik beti esan izan dut aurrera jarraitzen dudala, nire familiak arriskua gain hartzerakoan babesa ematen didalako, baina ez ditut haiek kaltetu nahi... hori izugarria da... ez dut ondoan dudan pertsonarengatik beldurra izan nahi... hori bai iruditzen zaidala negargarria.*

*–Seme-alabak izatearen errealitatea are okerragoa da... bizitzako esperientziei eta guzti egin behar zaie uko... horretan ere ari dira pertsonen bizitzak baldintzatzen...*

*–Seme-alabak izatea planteatu ere ez dut egiten...*

*–Geldiarazi ninduen alderdi handiena, nire baldintzatzaile nagusia seme-alabak izan ziren... eta helduak ziren... Nire seme-alabek ez zuten ulertzen zergatik hartu nahi nuen lan hori... orain bai... azkenean ulertu egin zuten... orain niri tokatzen zitzaidala esan nien, beste batzuk nik defendatzen dudana defendatzeagatik erori zirela eta, argitu*

*nahi dut, ez naiz heroia... beldurgarria iruditzen zait jendeak hori esatea... Nire bizitza osoan zehar ezinegon handiko pertsona izan naiz, eta une batean ezinegon hori hara doa, izan ere, gure pentsatzeko modua, gure lurraldea utziz gero,... sinesten duzuna defendatzea da eta uste duzu zerbait egin dezakezula... nire hondar alea da...*

*–...Zergatik sentitu behar dut deseroso, adibidez, euskalduna eta militarra naiz esaterakoan?... Zergatik itxaron behar dut nire seme-alabak hazi arte haiei lan zertan egiten dudan azaltzeko?*

*–Uste dut aurrerantz egin behar dugula "euskalduna" hitza osotasunez erabili ahal izateko, beste pertsona batzuk erabiltzen duten bezala...*

*–Ni euskalduna naiz, zergatik esan behar didate nik ez dudala euskal kultura defendatzen?...*

## 2.3. Gizarte kontzientziazioa eta prebentzioa: terrorismoari legitimazioa kentzea

*–Mehatxaturiko pertsonei emandako babesaren gaineko pertzepzioa negatiboa da... ez dute kontuan hartzen zure egoera... beste gauza bat familiaren edo oso lagun direnen babesa da... Bitxia da kasuren batean, bizkartzainik gabe goazenean, jendea gehiago hurbiltzen zaizula eta bizkartzainengatik galdetzen dizula...*

*–Izugarria iruditzen zitzaidan mehatxaturik egotea eta mundu guztiaren bizitzak berdin jarraitzea... amek seme-alabekin parkera joaten jarraitu ahal izatea... nik ez... nik ezin nituen geltokira ere eraman... bizitzak berdin jarraitzen du mundu guztiarentzat... eta ez die axola zu mehatxaturik egotea... hori ikaragarria iruditzen zait...*

*–Gizarteari ez diogu axola... jendeari axola izan balio, ez ginateke horrela egongo... hori da arazoa... gizartea gertatzen ari zenaz jabetu izan balitz, hau konponduta zatekeen jada...*

*–...Batzuk esaten dute: "utzi ezazu, ez sartu nahaste horretan...".*

*–...Iraindu egin nindutenean, "hiltzailea" oihukatuz nire bizitokian gauez... pertsona bakar batek esan zidan "zurekin nago"... auzokoek... inork ez zuen gaiari buruz hitz egiten... Eta nik esaten nuen: "baina hau mundu guztiak entzun du eta", behintzat esan: "zer moduz zaude?"...*

*–Ostrukaren politika da...*

*–Baina erakundeen euren aldetik ere... abertzalea ez den alkateren bat eta guzti kexu zen epaitegietan auzokoei eragiten zieten lehergailuak jartzen zirelako, ez jada epaileei... haien aurka lehergailuak jartzea legitimoa balitz bezala... sinesgaitza da, izan ere... Orain, hoberantz egin dugu, politikariak... atentatu bat jazo zen tokian... ikusi nituen lehenengo aldia Gregorio Ordoñez hil zutenean izan zen... orduko pertsona asko hil zituzten jada... ordurako hildako polizia nazional kopurua gogoratu ere ez dut egiten... gorpua altxatzean, jendea gogoan dut tabernan "txikitoa" eskuan zutela, kasurik onenean, beste batzuetan "ETA hil itzazu" oihu egiten zuen jendea pilatzen zen...*

*–Lehen... militarrak, guardia zibilak eta polizia nazionalak bakarrik hiltzen zituztenean... atentatu bat zegoen eta ezer gertatu izan ez balitz bezala zen... Inor ez zuen kezkatzen...*

*–...Inori ez zion axola...*

*–Egia da, neurri batean, mehatxua zabaldu egin denez, gizarte kontzientziazio handiagoa egon da, eta horrek talde horiek bakarrik ez sentitzea ekarri du. Ez erratu, ordea: areto honetako guztiak bakarrik gaude.*

*–Egia da.*

*–Bai.*

*–Bai, bai.*

*–...Polizia nazionala, militarra, guardia zibila... ez dago jada hain bakarrik... Gehiago gara bakarrik gaudenak...*

*–Gizartearentzat nahitaezkoa ez den gutxiengoa gara... nahitaezkoak ez. Eta hor da ni errebelatzen naizen eremua... ez pertsona modura... baizik eta bakoitzak betetzen duen postuagatik... ez bagina egongo, ez litzateke demokraziarik izango... eta hori beste kontu bat da, herrialde honetan zalantzan jartzen da demokrazia batean gaudenik eta, zalantzan jartzen denez, posible da gainerakoak hiltzea. Guztiaren jatorria da... Sistema demokratikoa nolabait babesten dugunok zigortuta gaude, oso zigortuta, oso prezio altuarekin..*

*–Ez gaitezen harritu, biktimak, jada esan den moduan, estatu espainiarra defendatzen edo ordezkatzen dugunak gara. Nik uste dut abertzaleak arazoaz jabetuko liratekeela bakarrik biktima balira... Irlandan gertatzen dena gertatuko balitz... hemen biztanleriaren ehuneko berrogeita hamar batekoa den jendea bakarrik hiltzen da. Gizartea asko aldatu bada, biktimek aurrerapauso garrantzitsua eman dutelako da. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik biktimak atzerapausoak ematen zihoazen... une batean, Estatuaren laguntzarekin, biktimek aurrerapausoa eman zuten. Gizartea aldatu egin da, baina ez mundu abertzalea kontzientziatu izanagatik. Nik uste dut ez direla inolaz ere kontzientziatu. Are gehiago esatearren, zorrotza iruditu arren, uste dut abertzaleek etekina ateratzen diotela nolabait. Eusko Jaurlaritzak nolabaiteko laguntzak ematen baditu, ez da konbentzituta dagoelako, baizik eta beste erremediorik ez duelako...*

*–Ados nago.*

*–Orduan, uste dut terrorismoa jasaten ez duen gizartea kontzientziatzeko beregan jasan behar duela, bestela, beste batzuen arazoa izango da eta, gainera, beste horiek etsaia dira. Ez dute pizgarririk arazoa konpontzeko... Ziur nago Euskadi barruko hainbat tokitan euskal abertzaletasuna oso sendoa dela, PP eta PSEko pertsonak hil egiten dituztelako...*

*–...Lehendakariak ez zuen ezer esan Frantzian erraildako azken guardia zibilen inguruan gabon zahar gauera arte, eta presoekin parekatu zituen... Eta horiek dira erakundeek egiten dituzten keinuak... eta erakundeek kontrolaturiko hedabideetara iristen dira...*

*–Jaietan batzuk exijitu egiten dute presoak agertzen diren kartelak egotea, eta hedabideek jakinarazi egiten dute hori, ETAk hiri horretan erraildako ehunka pertsonei aipamenik egiten ez zaien bitartean... hori da herrialdeko errealitatea...*

*–Erakundeen aldetik ezikusia dago... euskal erakundeak edo euskal hedabideak kritikatzen badituzu, euskaldunen aurkakoa zara... Herrialde bateko edozein lehendakarik... legebiltzarrean mehatxatuta bizi delako bizkartzaina eraman behar duen oposizio guztia begiratuta, zerbait zalantzan jarri beharko luke...*

*–Bai... gero askatasuna eskatzen bada ere, gauza ezberdinak dira...*

*–Guztiok iritzi berdina izateak zerbait esan nahiko du... Herrialde honetan beldurra diogu gauzak diren bezala esateari...*

*–Guztia politikoa da... Biktimen Zuzendaritzak gai politikoak jorratzen ditu... politikan sartu behar da... epaileek "hau juridikoa da, ez gara sartuko" esango balute bezala da... Ados egon zaitezke edo ez, baina esan egin behar duzu... Ongi dago Zuzendaritza sortu izana, denbora asko igaro da hori baino lehen... baina baliabideak jarri behar dira... baita mehatxaturikoentzat ere... euskal gizarteak minbizi bat du, mehatxupean pertsona asko izatearen minbizia...*

*–Ez da bakarrik gizartearen edota erakundeen babesik ez dagoela, baizik eta zalantzan jartzen dela ETAk mehatxaturik dituen taldeek egindako lana eta giza eskubideei dioten errespetua. Erakundeek eurek zalantzan jartzen dute, eta hedabideek zabalago bihurtzen dute.*

*–Gero oso gauza konplexu bat dugu, behetik gorako heziketa, badakigu nola dagoen...*

*–Bai, bai.*

*–Hezkuntzako gaietan ere, beste zuzendaritza baten ardurapekoak horiek, Biktimen Zuzendaritzak edukiak moldatu beharko lituzke... Zeharka jardungo duen zuzendaritza bat egon beharko litzateke, eta hura kontuan hartzea benetan, eskuduna izatea... gomendioak egiten ditu baino ez du agintzen... Horrek duen garrantziaren berri izan dezakegu, Eusko Jaurlaritzako beste erakunde batzuen aldean duten aurrekontua ikusita... bakoitzak duen aurrekontuaren arabera, ematen zaion garrantzia politikoa dakit... Herrialde honetan, uste dut Biktimen Zuzendaritza oso garrantzitsua izan behar dela, oso garrantzitsua... Halaber, uste dut gobernu espainiarrak keinu publiko gehiago izan behar dituela mehatxatutakoekin... nola kontzientziatu gizartea?... garrantzitsutzat jotako pertsonek eta agintariek ikusten diren keinuak badituzte... bestela jendearentzat ez gara garrantzitsuak, ez gara garrantzitsu inorentzat...*

*–Gizartearen axolagabekeria hor dago, zuzenean ez dielako eragiten...*

*–Eta ez dute egon nahi...*

*–Pertsona batzuk uste dute hau minbizia bezalakoa dela, "minbizia du, gaixoa"... tokatu egin zaio. Edo gobernuak uste du klima aldaketarena bezalakoa dela, aurre egin behar zaiola baina ez dela muturreraino eraman behar, ez zaio iruditzen gauza benetan serioa denik. Oso ongi bizi daiteke, "hemen oso ondo bizi gara", esaldi hori...*

*–Munduko beste toki batzuetan bezala da... jendea gosez hiltzen dela...*

*–Bai, baina nire auzotarra da honakoa esaten duena: "hiri honetan zein ondo bizi garen". Batzuetan, nire irudikerian, esaten dut: "zein ondo nagoen nire hirian".*

*–Ohartzeko zuri gertatu behar zaizu.*

*–Gizarte kontzientziaziorik ez da gertatuko...*

*–Ia gertatu zen... eta abertzaletasuna beldurtu egin zen... hitz egin dezagun argi, politikaz ari gara... herritarrez... Euskadin jende asko bizi da aurrekontutik... hori da arazoa... hemen instituzio eta erakunde garrantzitsu guztiek "goazen honekin amaitzera" esaten ez duten bitartean, hau ez da amaituko... gune eraginkor guztiak pertsona berdinen eskuetan daudenez... Ni familia abertzalekoa naiz eta bazkide izandakoa naiz... eta badakit zertaz ari naizen... Ez da bakarrik hiltzen duena... Onartzen duena... Gizartea ohituta dago aginduak jasotzen...*

*–Gizarte mugimendua Euskadin bahituta dago... Nik ez dut keinu hori espero herritarren aldetik... hauteskundeak iritsi zirenean, jende asko ikusi nuen bozkatzen... baina ez zen ulertzen urte batzuetan oposizioan egotea... jende gutxik onartzen du bere alderdiaren barruan akatsak izan direnik... ETAk hil egiten duen bitartean, hau legena bezalakoa da, kutsatzeko beldur da, jendeak zera esaten du: "badago zu bezalako jendea edo beste pertsona batzuk, zergatik pasako dut nik gaizki? Agian emango diot botoa, baina inork jakin ez dezala, nahikoa egiten dut ezkutuan bozkatzen, baina nik ez ditut arriskuan jarriko nire etxebizitza, nire familia, nire etorkizuna, nire...".*

*–Enpresaburuen munduak berak, askotan, ordaindu egiten du arriskurik ez izateko...*

*–Nik, iritsi nintzenean..., aldaketa ikusi nuen Miguel Angel Blancoren erailketaren ondotik, ilusioarekin ikusten zintuztedan... gizarteak ausardia ateratzen jakin izanaz harrituta, eta, bat-batean, hori hustu egin zen... erakundeei buruz esaten da... baina azpitik ere bai, noski, heziketa izan behar da...*

*–Baina askoz ere min gehiago ematen du kaleko axolagabekeriak, zure auzokoarenak, zure herrian bizi denarenak, erakundeenak baino.*

*–Niri ez.*

*–Niri bai.*

*–Niri ez, nire auzokoak ez duelako erantzukizunik... gizalegezko izpiritu nahiko gutxi dago, eta erakundeetan badakigu hori, herritarren aldetiko parte-hartzea lortzeak lana ematen digulako... Erakundeek, ordea, erantzukizuna dute... lehendakari jauna bere alderdikoen eta gainerako guztien lehendakaria da... guztiok ordaintzen ditugu zergak...*

*–Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioaren eraikinen kudeaketa kontrolatzen du, Euskadiko multzo judizialak ez du bere eraikina ere kudeatzeko aukerarik, argiak itzali egiten dira bukatu duzula uste dutenean... ez dute ezta elkarrekin erabakitzeko eskubiderik ere... oso tratu txarra ematen zaie... gauzak kudeatzen dituzte... baina zerbait gaizki doanean... kudeatzen ez duenari errua botatzeko gaitasuna dute...*

*–Auzitegietara begiraleak bidaltzen ditu Eusko Jaurlaritzak, horietan eskubideak errespetatzen diren ikusteko...*

*–...Erakundeetan ikusezinak bihurtzen dituzte beren ideia politikoak babesten ez dituzten pertsonak...*

*–Epaitegi batzuk zinemak izan litezke... ez dago Justizia Administrazioaren sinbolo bakar bat ere, ezta bat ere... bisitak hartzeko gela batean... ahal izan duten guztia kendu dute... Konstituzioaren armarria daramaten tapizak... beren sinboloak bai... kendu egin dituzte justiziaren elementuak... ez dira hemengoak... hegazkin batean etorri, hemen askatu eta gauetik bildu egingo bagintuzte bezala da... ez gara hemengoak?...*

*–Politikari batzuk esaten dute: "ez dugu ulertzen zergatik irabazten dituzten hauteskundeak zenbait udalerritan"... haien ustez, hemengoa ez den norbaitek nola irabaz diezaieken...*

*–Kontzientziazioa izateko, beharrezkoa da herritarren aldetik errebolta izatea... garai hartan, oso tunel beltza ikusten genuen, biktimak existitu ere egiten ez ziren tunela... herritarren aldetik errebolta egon zen, Miguel Angel Blancoren hilketa hain gogorra izan zen... baina behin herritarren gar hori igarota... solidarioak izan ziren... gero... horietako batzuk beste toki batera begiratu zuten...*

*–Ardanzak irizpidea mantendu izan balu...*

*–...Ideologiak baino, beste interes ekonomiko batzuk dira lotzen dutenak... ETAren mehatxua izan daitekeenaren aurrean... itunak egiten dituzte... interesak mantentzeko... hori da herrialde honetako errealitatea... edozein herrialdetan gizarte aldaketa egon liteke eta itxaropena izan, baina herrialde honetan gizarte aldaketa ezin da jazo aldaketa politikorik ez badago... horrela da, izugarria...*

*–Nik uste dut jendeak barneratu duela hau betirako...*

*–Ah, bai, hau bizi osorako da...*

*–Orain, nik uste dut ETA ahulago dagoela... Nik uste dut poliziaren eraginkortasuna oso altua dela... herritarrek orokorrean dugun sentsazioa da ia guztiak harrapatzen ari direla, eta horrek lasaitasuna ere ematen dizu... bestela, ez ginateke hain lasai egongo, ezta bizkartzainak izanda ere... zoroen pare egongo ginateke... Berriro erailketak badaude..., hemen gaudenetako askok agian alde egingo dugu...*

*–Jendeak barneratu ditu jada bizkartzainak zerbait normala bezala..., orain normala ez dena bizkartzainik gabe joatea da...*

*–Bi bizkartzain dituzunez, jada zoriontsu bizi zara, zertaz kexatzen zara? Ba zertaz kexatzen naizen... ba, zu bizi zaren bezala, bizkartzainik gabe, hobeto bizitzen dela...*

*–Eraman eta ekarri egiten zaituzte... baina nik gustuko dut gidatzea eta ezin dut...*

*–Oso gutxi kexatzen gara, eta, publikoki, ni ez naiz inoiz kexatzen... gu baino okerrago dagoen jendea badago... baina egoera oso txarra da.*

*–Okerren daudenak herri txikietako zinegotziak dira, Estatuko segurtasun indar eta kidegoetako kideak... gainera, gizartearen aldetik tratu okerragoa jasotzen dute...*

*–Herrietan jendeak ezagutu egiten zaitu...*

*–Ba ni oso lasai ibiltzen naiz nire herriko kaleetatik...*

*–Oso pertsona ausartak daudelako... defentsa mekanismo bat da...*

*–Begira, gauza bat esango dizut, nik ez dut beldurrik, ez dut inoiz izan, beldurrarekin ezin dela ezer egin uste dudalako... Hori argi eta garbi dut...*

*–Zurekin nago...*

*–Beldurra ez, ardura guztia...*

*–Zerbait normala bezala hartzen duzu, horrekin bizi zara...*

*–...Sentitzen dudana askatasun falta da...*

*–Beldurra ez, baina nik beldur sentsazioa une jakin batzuetan izan dut...*

*–Beldurra baduzu, joan egin behar zara...*

*–Nik nire beldurra aldarrikatzen dut, baina gainditu egiten dut... bestela, ez nintzateke hemen izango...*

*–Beldurra izateari uzten diogun egunean, hilda gaude... segurtasun neurriak hartu egin behar dira...*

*–...Buruan sartuta duzu bizkartzainik ez daraman norbaiten aurka egingo dutela... norberak bere burua babesteko duen mekanismoa da...*

*–Eta hori da salbatzen gaituena, bestela...*

*–Honetan guztian zerbait positiboa ikusi behar badugu... oso ezberdinak garen pertsonak, gu bezala, elkarrengandik oso hurbil sentitzen gara... beste toki batean biziko bagina, elkarri agur ere ez genioke esango, eta distantzia handiko tratua litzateke. Aldiz, oso hurbil sentitzen naiz... terrorismotik, sufrimendutik eratorritako nolabaiteko anaitasuna da... positiboa dela uste dut... Hemen entzun ditudan gauzak bihotzera iritsi zaizkit, beste toki baten entzun izan banitu "bere arazoa da" esango nukeen bitartean agian...*

*–Positiboena da pentsatzea, gu guztiak existitzeari esker, axolagabetasunez begiratzen gaituzten gainerakoak ongi bizi daitezkeela...*

*–Edo batzuk pentsatzen dute gu hemen izango ez bagina, hobeto bizi ahalko liratekeela...*

*–Batzuk hori uste dute, baina ez da egia...*

*–Baina askok hori uste dute...*

*–Nazismoa bezala... baina aberatsagoa al da haren zati bat deuseztatzen duen gizartea...? Ba ez... Hori pentsatzen duen pertsonak hobeto bizi daitekeela uste du, baina gizartea pobreagoa izango litzateke... Gu deuseztatuko bagintuzte, gizarte hau pobreagoa litzateke... Hori da "merezi du egoteak" esateko indarra ematen didana...*

*–Baina gu bertan izatea justifikatu behar izan gabe...*

*–Gero, erakundeak kritikatzen ari gara, hemen dugu Ararteko erakundea... gizarteak ikas dezala hezkuntzaren bitartez, eta erakundeek erantzun dezatela... legeak aplikatuz... beste indarkeria mota batzuen aurka, emakumeen aurkakoan, eta abar jardun da, baina indarkeria politikoaren aurrean erakundeek erantzun gabe jarraitzen dute... Arartekoaren bitartez zerbait egin daiteke...*

*–Emakumearen aurkako indarkeria... argi dago delitua dela, nik ez dut oso argi jendeak terrorismoa delitua dela uste izatea. Azken hauteskundeetan, Ertzaintzako kargu batek galdetu egiten zuen ea esku hartu behar zuten hautesleku bateko korridorean, bozkatzera doan norbaiti mehatxu egiten bazaio eta mahaiko presidenteak esku hartzeko eskatzen ez badu... pentsa zinegotzi ez abertzale bat mehatxatu ordez emakume bati eraso sexuala egiten zaiola, noski hori delitua da...*

*–Hori da deformazioa... ez zaie ongi iruditzen hiltzen eta mehatxatzen ibiltzea... baina ez dira gaizkileak, ez da delitu bat... gatazka dago...*

*–...Inoiz ez da inor atxilotzen mehatxua egitean... hori bai dela arazo bat... begira... baita mehatxatuek ere, zalantza egiten dute salaketa jartzerakoan... hori oso larria da...*

*–Kontzientzia moralari eta gizarte kontzientziari buruz... hedabideak ere... eta ukitu ez dugun erakunde bat ere badago... euskal eliza... hiletetan omenaldiak egiten jarraitzen dute, eta uste dute egin beharrekoa dela barkamena mundu guztiarentzako dela...*

*–Bai, bai.*

*–Ahotsa behar dugu...*

*–...Eragozpena gara... gastu publikoa gara... eta gainera irizpidea dugu...*

*–Etorkizunerantz begiratzen dugunean, oso latza dugu eta, berriro ere diot, batez ere hezkuntzagatik da...*

*–Nik uste dut datozen gazteek... ez dituztela gure belaunaldiak izandako konplexuak... guztiak hemengotzat jotzen dira eta ezberdin sentitzen dira... "D" ereduko haurren bat kexu da euskaraz hitz egitera behartzen dituztelako, andereñoak gazteleraz hitz egin dezakeen bitartean... esaten dute... diktadura bat da...*

*–Jendeak "D" eredua aukeratzen ez duten gurasoak kritikatzen ditu, harritu egiten dira... zera esaten dute: "ez du euskara jakingo"...*

*–...Arazoa ez da hori... Niri hizkuntzarenak ez dit axola, kezkatzen nauena da... Espainiari buruz dakitena... historia... Guraso batzuk ez dute ikuspegi itxi hori nahi... beldurtuta gaude... esaten dute akastuna dela hau... dagoena da... baina haurrak hartzen ari direna ez da benetakoa, edo, hobe esanda, ez da benetakoa batzuentzat...*

*–Nik uste dut hedabide handien bitartez beste eredu batzuk daudela...*

*–...Internetek... globalizatu egiten du...*

*–...Agian garrantzia gehiegi ematen zaie hezkuntza erakundeei... frankismoaren adibidea hartzen badugu, guztiak frankista beharko genuke izan... uste dut eskolak indar gutxi duela horrelako balioak hartzerakoan... familiarekin edo lagun taldearekin alderatuta... gehiago kutsa dezakete... eskola amaitzean bizitzak aurrera egiten du... uste dut garrantzitsuagoa dela balio positiboak jasotzea familien bitartez, erakunde publikoen bitartez...*

*–Baina gurea bezalako gizartean, nahiko ustelduta dagoela esaten ari garena, zer balio ikasten da?... ostrukaren politika...*

*–Balioak... ni kezkatzen nauena gertatzen ari denaren aurrean isilik dagoen gizartea da, ikaragarria da, ez gara bizirik egongo honi guztiari epaiketa egiten zaionean... non geunden hori guztia gertatu zenean? Nola onartu genuen?... Guk eta guzti onartzen dugu gu baino egoera hobean dauden mehatxatuak daudela... haurrei zer ari zaie esaten?... distantzia horiek gehiago kezkatzen naute historiak faltsutzea baino... haurrak traumatizatu egiten direla esaten dute biktimei entzunez gero... nik nire semeari ez diot inoiz ezkutatu zer gertatzen den... jakin dezatela, atentatuak daudenean nagusiak atera ditzatela isiltasunezko minutua gordetzeko... hamasei urte dituztenek jakin egin behar dute zer den gertatzen ari dena... ni ezkorra naiz horri dagokionez.*

*–Bai, bai... baina frankismoan gizartea ere ustelduta zegoen... eta jende askok ideia haien aurka egin zuen... itxaropena badago... pertsonek ikastetxeetan amaitzen ez diren baliabideak dituzte...*

*–...Kontrol hegemonikoa bideratzeko saiakeraren aurrean... errealitatea anitza da... gizartea askoz ere anitzagoa da... sinestarazi nahi digutenaren aldean...*

## 3. Agurra[37]

Espero dugu parte-hartzaileentzat interesgarria izatea nolabait behartutako foro edo elkarrizketa bitxi honetan parte hartu izana. Azterlanaren mugak hor egonda ere, gure konpromisoa eta esker on pertsonala adieraziz amaitu nahi dugu.

[37] Taldea agurtzerakoan koordinatzaileak esandako hitzak jaso dira, egokituta eta zabalduta.

Hasieran, mehatxaturiko biktimei protagonismoa kenduko ez zien metodologia bilatu genuen. Aztertzeko aukeratutako gaiak bere horretan gutxituko luke edozein distantzia etiko gordetzeko saiakera. Espero izan gabe, elkarrizketatzaile izatetik elkarrizketatu izatera igaro ginen lehenengo elkarrizketatik: mehatxatuta dauden gure herrikideen askatasunarekin dugun konpromisoa azaltzeko behar beste egin al dugu beti? Nola azaltzen diegu gure seme-alabei beren hiriko kaleetan jendea erailtzen eta mehatxatzen dela beste era batera pentsatzeagatik? Nola islatu benetan arduratzen gaituela? Haientzat gordeko ditugu Arartekoaren Ezohiko txosten honetan islatutako hitzak, Euskadiko historia ez duinaren zati bat bezala... Elkarrizketa guztiak, guzti-guztiak, harritu egin gaituzte eta oinarrizko eta sen oneko gauzak gogorarazi dizkigute, egunerokoan ahazteko joera dugun horiek: pertsonak sailkaezinak direla, haien bizitza konplexua dela, xehetasunez aberatsa, bakarra eta balioduna, pertsona jakintsuak, hausnartu egiten dutenak, errealitatearen gaineko ezagutza sakonekin, bidegabeko errealitate baten gainean. Hori guztia partekatu nahi izan dute, eta ohituraz ditugun gatazka politiko zorrotzetan zirrikituak ireki. Entzundako hitz guztien artean, isilik, beldurrak geldiarazten ez duen gizartean bizitzeagatiko itxaropena zegoen, zauriak izanda ere; demokrazia anitzean oinarrizko eskubideen defentsan parte hartuko duen gizartea, eta, azkenean, terrorismoari legitimazioa kenduko diona. Itxaropen hori bidegabeko errealitatean eta egunerokoarekin konpromisoa duenean erroturik dago.

Kalera irtetean, parte-hartzaile gehienek bizkartzainak zain zituzten, banakako elkarrizketetan eta eztabaida taldean adierazitako bizipenak gogorarazten zituzten irudi gehiegi. Haien agerpen nabarmenak berriro ere berretsi egiten zuen agurtu berri genituen pertsonen egunerokoan bizi den normaltasunetik kanpoko egoera. Urruntzen ikusi genituen, eta elkarrizketatuetako batek esan zuena gogoratu genuen: *"...ez erratu, guztiak bakarrik gaude"*.

## V. ONDORIOAK: ZER ESPERO DUTE GIZARTEARENGANDIK ETA ERAKUNDEENGANDIK ETAk MEHATXATUTA ETA HERTSATUTA DITUEN PERTSONEK?

Parte-hartzaileetako batek adierazi zuen bezala, adierazgarria da zera: *"ETAren mehatxupean egonda, beldurrik edo lotsarik ez hartzea esatearekin edo nor garen adieraztearekin"*. Hori da lan honek izan duen giroa. Euskadiko *"bizitzako ur bizietan"*[38] mehatxaturiko pertsonen istorioak arrantzatu ditugu; ur horiek beren ibilgua jarraitzen dute elkarrizketetatik aurrera. Atentatuak eta erasoak izaten jarraitzen duten ur horietan istorio ugari arrantza daitezke. Barru barruko hausnarketak eta pentsatutako sentimenduak eransten dituzten oso esperientzia sakonak kontatu dira.

Gure azterlan mugatuak hipotesi batzuk berretsi ditu (gizartearen eta erakundeen aldetiko bazterkeria), alderdi batzuetan sakondu du (solidaritate aktiboaren eskaera), eta gai berriak utzi ditu agerian (prebentzioaren interesa). Agian, ekarpen handia izan da

[38] Jose Luis Cuerda zinema errealizadoreari hartutako adierazpena, Santa Teresa de Jesus aipatuz: *"las mesmas vivas aguas de la vida"* (Harguindey 2008, 100).

ere elkarrizketatzaileek, nolabait, barrena husteko, egoeraz kexatzeko eta hobekuntzak planteatzeko foroa jarri izana.

Heterogeneotasunaren eta aldaketa politiko eta gizartearen aldetikoen aurrean, beharrezkoa da landa esparruetan eta udalerri txikietan mehatxaturiko pertsonei buruzko berariazko ikerketak garatzea, mehatxatutako taldeen xehetasunezko azterlanak egitea bezalaxe.

Biktimazio oso larrien aurrean gaude. Mehatxaturiko pertsonen giza eskubideen urradura hiru alderdiri zabaltzen zaio gutxienez:

1. Aldez aurretik zehaztuta, kronifikatuta dagoen biktimazio baten higadura. Egunetik egunera, urtetik urtera, pertsona horiek mugaturik dute beren askatasuna dimentsio ezberdinetan, eta bizitza eskubidea, osotasun fisikorakoa, ongizaterakoa, bizitza familiarra izatekoa, intimitatea izatekoa... urraturik dituzte. Bizitzera behartuta dauden inguruabarrek isolamendua biziagotzen diete.
2. Inoiz itzuli ahalko ez zaizkien bizitzako denbora eremuak berreskuratzea ezinezkoa izatea. Inoiz ez dira aske izango biktimazioa jasan zuten adinean, inoiz ez dute berreskuratuko beren senideei kendutako askatasuna, batez ere bikote eta seme-alabei kendutakoa. Bihar ETAren terrorismoa amaituko balitz ere, une horiek ezingo dira berriro askatasunez bizi, besterik gabe igaro egin direlako jada. Alex Rovira Celmak Carl Gustav Jung psikologo ospetsuaren esaldia gogorarazten digu: *"Bizi ez den bizitza heriotza ekar dezakeen gaixotasuna da"*. Mehatxatutako pertsona batzuk beste batzuk baino hobeto egokituko zaizkio inguruabar horri terrorismoa amaitzen denean, baina erakundeek eta gizarteak zorra izango dute oraindik mehatxatutako pertsonekin: orduan jabetze horren eraginak ahalik eta gehien txikitu beharko dira, beren bizitzetan urte luzeetan eta Zuzenbideko Estatuko aniztasunaren ordezkari izateagatik bakarrik jasandako askatasun galera eta isolamendua sartu ahal izan ditzaten.
3. Biktimazioaren ondorioa, neurri handiagoan edo txikiagoan, bizitzaren alderdi guztietan eta, batez ere, familiako bizitzan.

Eskubideen urradura eta mugaketa beste batzuk baino hobeki daramaten pertsona batzuk daude. Batzuk askatasun pertsonal handia agertzen dute etsita dagoen gizartearen eta, zenbaitetan, koldarra den gizartearen aurrean. Are gehiago esanda, horrek bizitza kontzientzia gehiagorekin bizitzea ekarri die, egunerokoa baloratuz biktimazioaren aurrean.

Mehatxu eta hertsapen terroristen biktimek eztabaidaturiko hiru aldarrikapenak oinarrizkoak dira biktimazioa gutxitzeko eta haien eta beren familien ongizatea berreskuratzeko:

1. babesaren kalitatea;
2. errekonozimendua arreta publikoko neurrien bitartez alor ezberdinetan; eta
3. prebentzioa, gizarte kontzientziazioaren eta erakundeen babesaren bitartez.

Elkarrizketatu guztiek, batez ere bizkartzaina daramaten pertsonak, jabetzen dira beren segurtasun neurriek eragiten duten kostu ekonomikoaz, eta eraginkorrak eta gizakoiak

izatea nahi dute. Jokabide kodeak edo praktika onekoak jarri behar dira babestuaren eta bizkartzainaren arteko harremanetan lankidetzari, gehiegikeriak saihesteari, formei, errespetuzko tratuari –matxista ez izatea–, bizitza pribatuan eta familiarenean sartzeari (adibidez, etengabe langileak aldatzea saihestuz), konfidentzialtasunari eta prestakuntzari dagokienez. Alderdi horiek nahitaez behar dute erakundeen aldetiko eta babesa bermatzen eta koordinatzen duten agentzien aldetiko esku-hartzea.

Funtsezkoa da biktimazioaren eragina txikitzen duen solidaritatezko sare informala, eta lehengoratzen laguntzen du erakundeen eta gizartearen aldetik babesa falta izatearen sentsazio orokor zabalagoaren aurrean. Erakundeek erreakzioa agertu behar dute. Gainera, sare informalak gero eta ahulagoak dituen eta geroz eta konplexuagoak diren gizarteen aurrean –aldi berean etengabeko biktimazioaren ondorioak ere jasan ditzake–, beharrezkoa da errekonozimendurako eta solidaritate publikorako mekanismoak martxan jartzea. Edonola ere, gure azterlanaren kasuan harrigarria da baliabide pertsonalak, familiarenak eta lagun ingurunekoak zein eraginkorrak diren ikustea biktimazioa arintzeko. Ikerketa longitudinal zabalago batek aukera emango luke higatzen nola joan daitezkeen eta, beraz, biktimazioa nola areagotzen den egiaztatzeko. Bestalde, ziurrenik, pertsona batzuk, zoritxarrez, ez dituzte baliabide pertsonal eta afektibo horiek izango, biktimazioari aurre arrakasta osoz egiteko.

Mehatxatutako pertsonei eta haien senide zuzenei laguntza psikologikoa eskuratzea erraztu behar zaie eskatzen badute; halaber, etxebizitzari eta lanari buruzko errekonozimendu eta solidaritate neurri publikoak hartu beharko lirateke.

Euskal erakundeek neurriak hartu behar dituzte alderdi guztietan mehatxu eta hertsapen terroristak jasaten dituzten biktimen askatasuna, bizitza, segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa, duintasuna, bizitza pribatua eta eskubide politikoak babesteko. Horretarako, pertsona bakoitzaren faktoreak baloratu behar dira adinari, generoari, lanbideari, bizitza familiarrari, osasunari, lehengo biktimazioei, mehatxuen iraupenari, eta abarri dagokienez. Neurri horien joera mehatxupean dagoen pertsonaren bizitza ahalik eta gehien normalizatzekoa izan behar da, betiere, etsaia garbitzea xedetzat duen proiektu politiko zehatzean jatorria duen giza eskubideen hain urradura larriaren egoera natural bihurtu gabe.

Azterlan hori lehen hurbilketa bat da jorratu beharreko alderdiekiko, mehatxatutako pertsonen gizarte bazterkeria eta erakundeena saihesteko. Jarduteko helburuak zehaztu egin behar dira, beharrezko baliabideen zuzkidurarekin batera. Denbora bat igarota, beharrezkoa izango da jardun horrekin mehatxatutako pertsonen bizitza benetan hobetu den ebaluatzea, hau da, esku-hartzea jarraipen aske luzearekin planifikatu behar da.

Terrorismoaren biktima modura mehatxatutako pertsonek funtsezko papera izan dezakete hezkuntza planetan. Haien lekukotzak beharrezkoak eta erabilgarriak dira, errealitatea ezagutzen duten baliabide, kontzientziazio, sentsibilizazio eta indarkeriazko portaeren prebentzio modura, baina baita balio positiboak bultzatu dituzten baliabide modura ere: Zuzenbideko Estatuaren, askatasunaren eta demokraziaren aldeko borrokan gizakiak bere burua gainditzeko erakutsitako gaitasuna. Haien istorioak Euskadiren Historia dira. Etorkizunean egiten den ahozko agiritegiak mehatxatutako eta hertsatutako pertsonen testigantzak bildu beharko ditu, betiere, berriro biktimazioa ez jasateko bermeekin eta zorroztasun zientifikoarekin eginda.

Mehatxatuta dauden pertsonei oso zaila egiten zaie gizartearen eta erakundeen aldetiko bazterkeria barneratzea. Ulertzen dute bizitzak aurrera egiten duela haientzat nahiz gainerakoentzat, baina errealitate zail bati egokitzeak ez du esan nahi etsi egiten dutenik. Etsitzeak esan nahi du arrazoi zehatz batzuetan sortutakoa den gainerakoen sufrimendua ez dela ikusi nahi. Aitzitik, jarrera horrek ez du galaraziko existitzen jarraitzea eta egunen batean, lehenago edo geroago, elkarrizketaturiko pertsonek hurrengo galdera egin nahi izatea: *"eta zuk zer egiten zenuen?"*. Erakundeak eratzen dituzten pertsonek eta herritar guztiek bidegabeko egoera honen ikusle izatearen edo, bakoitzak gure gaitasunen eta erantzukizunen barruan, egoera aldatzeko inguruabarrak sortzearen artean aukera dezakegu, adorez eta iraunkortasunez.

Azterlan honek lagundu egin nahi du gauzak ikusten ditugun moduan, bidegabe ezartzen dizkiguten moduan onartzeko joera naturala apurtzen. Giza eskubideen urradura egoera eratzen duten elementu batzuk berraztertzera bultzatu nahi du. Egoera horren konplexutasunaren barruan, uste dugu elementu batzuk aldaketa orokor positiboak ekar ditzaketela mehatxatutako pertsonen eta gizarte osoaren bizitzetara.

Mehatxaturiko pertsonek ez dituzte gomendioak behar asmo onen zerrendak balira bezala, baizik eta konpromiso zehatzak arazo baten ondotik sortutako testuinguru soziopolitiko zehatz batean. Mehatxaturiko pertsonek, halaber, egi politikoa irudikatzen dute: mehatxatu egiten dituzte euskal gizartearen aniztasunaren sinboloa izateagatik. Espero dugu transkripzio hauen irakurketaren ondotik berdin ez geratzea eta axolagabekerian zirrikituak irekitzen lagundu izana, pentsamendu kritikoa bultzatzearekin batera.

## VI. BIBLIOGRAFIA


ALONSO, L.E. "El grupo de discusión en su práctica: Memoria social, intertextualidad y acción comunicativa", *Revista Internacional de Sociología*, 13. zenbakia, 1996.

ARTETA ORBEA, Iñaki eta GALLETERO SEPÚLVEDA, Alfonso. 2009. *El infierno vasco*. Málaga: Sepha.

BACA BALDOMERO, Enrique; ECHEBURÚA ODRIOZOLA, Enrique; eta TAMARIT SUMALLA, Josep M. (koord.) *Manual de Victimología*. Valentzia: 2006, Tirant lo Blanch.

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA: *Bake Hitzak/Palabras de Paz*, 40. aleko gai nagusia: jazarpen indarkeria.

CALLEJA, José María. *La diáspora vasca. Historia de los condenados a irse de Euskadi por culpa de terrorismo de ETA*. Madril: El País, 1999.

DELGADO, Fernando. Amenazados, *Terrorismoaren Biktimen Fundazioko aldizkaria,* 2007, 19 zenbakia, 14-19.

DOMÍNGUEZ, Florencio. *Las raíces del miedo*. Madril: 2003, Aguilar.

FONTANA, Andrea; eta FREY, James H. Interviewing. The Art of Science. *Collecting and Interpreting Qualitative Materials*-en, Norman K. Denzinek eta Yvonna S. Lincolnek argitaratua. Londres: 1998, Sage.

HARGUINDEY, Ángel S. El retiro del centurión, *El País Semanal* 1, 2008, 636, 96-100.

HERRERA MORENO, Myriam. Victimación. Aspectos generales. *Manual de Victimología*-n, E. Baca Baldomero *et al.*-en koordinaziopean. Valentzia: 2006, Tirant lo Blanch.

IBÁÑEZ, Jesús. *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: Técnica y crítica*. Madril: 1999, Siglo XXI.

LASHERAS, Joana. *Escoltados*. Bilbo: 2006, Elea.

ORTÍ, Alfonso. Eztabaida taldea. *Diccionario de Sociologían,* S. Ginerrek *et al.* argitaratua. Madril: 1998, Alianza.

PAGAZAURTUNDÚA, Maite. Víctimas de extorsión, *Terrorismoaren Biktimen Fundazioko aldizkaria,* 2007*,* 20.

PEDRO ARRUPE GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA. *Los derechos humanos en el País Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004.

PEREIRA, Roberto. Violencia de persecución en el País Vasco. *Perspectivas Sistémicas*, 2004, 81.

ROVIRA CELMA, Alex. La hoja de ruta personal, *El País Semanal* 1, 2008, 635, 31-33.

SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, Gabriel. *Periodistas en la diana. Treinta años de amenaza terrorista a los medios de comunicación*. Madril: Madrilgo Prentsaren Elkartea, 2007.

TRAVERSO, Enzo. *El pasado, instrucciones de uso. Historia, memoria, política*. Madril: 2007, Marcial Pons.

VILA-MATAS, Enrique. El dibujo de la vida, *El País Babelia,* 2008ko otsailaren 2koa, 13.

YOW, Valerie Raleigh. *Recording Oral History. A Practical Guide for Social Scientists*. 1994, Thousand Oaks: Sage.

WAGENSBERG, Jorge. ¿Qué es la ciencia? *El País*, 1997ko apirilaren 9koa, 32. or.

# VII. ERANSKINAK

## 1. JAZARPEN INDARKERIA / MEHATXU ETA HERTSAPEN TERRORISTEN BIKTIMENTZAKO GALDERA-SORTAREN GIDA

### AURKEZPENA

### I. ELKARRIZKETAREN DATUAK

*Elkarrizketatzailea:
*Egin zen data eta tokia:
*Iraupena:

### II. ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAREN DATUAK

*Generoa:
*Adina:
*Familia egoera (bikotea/seme-alabak):
*Bizitokia eta lantokia:
*Lanbidea:

### III. ELKARRIZKETAREN EDUKIA

#### A. Biktimazio esperientzia

1. Noiztik jasaten dituzu ekintza terroristei edo antzeko inguruabarrei uztartutako jazarpena, mehatxuak edota hertsapenak? Denboran zehar mehatxuekiko nolabaiteko “egokitzapena” egin dela uste al duzu?
2. Zer nolako maiztasunarekin jazotzen dira horiek?
3. Jasaten dituzun ekintza moten adibideak jarri eta horiek non eta noiz jazotzen diren adieraz diezagukezu?
4. Noizbait identifikatu al duzu erasotzailea? Zure udalerri edota auzo berdineko norbait dela uste al duzu?
5. Salaketarik jarri al duzu? Egin baduzu, norbaitekin aipatu al duzu?
6. Nola baloratzen duzu jazarpena segurtasun ezaren pertzepzioaren aldetik eta gertaeren larritasunaren aldetik?
7. Nola eragiten dizu beste pertsona baten aurkako atentatu edo mehatxu terrorista gauzatzeak?
8. Egoera honek zein neurritan eragin dio zure bikoteari, familia eta gertukoei?
9. Zer neurritan eragin dio egoera honek zure laneko bizitzari?
10. Eta zure denbora libreari?
11. Nola baloratzen duzu egoera mehatxatutako beste pertsona batzuekin alderatuta?

**B. Dagoen terminologiaren eta araudiaren gaineko balorazioa, biktimazioa txikitzeko**

1. Estatuko araudiak eta araudi autonomikoak zure egoera arintzeko behar besteko neurriak jasotzen dituela uste al duzu? Terrorismoaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko legediak mehatxaturik daudenen egoera behar beste estaltzen duela uste al duzu?
2. Zer iruditzen zaizu “jazarpen indarkeriaren biktima” terminoa? Horrekin identifikatuta sentitzen zara?

**C. Biktimazioa gutxitzeko gizarteak emandako erantzunaren eta erakunde ezberdinen jardunaren balorazioa**

1. Uste duzu gizartea orokorrean, eta zure udalerriko biztanleak bereziki, zuk bizi duzun jazarpenaz jabetzen direla? Zurekiko babes jarrera dutela uste al duzu?
2. Lanean nagusien edo lankideen aldetik babesik jaso al duzu?
3. Hedabidek gai honi ematen dioten tratamendua zuzena dela iruditzen al zaizu?
4. Hezkuntza erakunde ezberdinek ahal duten guztia egiten dutela uste al duzu, jazarpen indarkeriazko horrelako jokabideak prebenitzeko?
5. Zure kasuan zuzena dela uste al duzu udal agintarien jarduna?
6. Zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzek bideratzen dituzten jardueren gainean?
7. Nola baloratzen dituzu bideratutako jarduerak eta jasotako tratua zure kasuan Herrizaingo Sailaren aldetik segurtasun/babes neurriak jartzerakoan? Babes hori egokia, nahikoa, koordinatua iruditzen al zaizu (adibidez: etxebizitza aldatu behar izatea…)?
8. Nola baloratzen duzu poliziaren aldetik jasotako tratu zehatza (kidego bakoitza zehaztuz)?
9. Horrelakorik egon bada, nola baloratzen duzu fiskalen eta epaileen aldetik jasotako tratua?
10. Nola baloratzen duzu zure kasuan gizarte zerbitzuen eta/edo osasun sistemaren aldetik jasotako tratua?
11. Kalte materialak jasan izan badituzu, egokia iruditu al zaizkizu bideratutako jarduerak eta jasotako tratamendua aseguru pribatuen aldetik eta kalte materialei dagokienez?
12. Zer iruditzen zaizu mehatxatutako pertsona batek egindako proposamena mehatxatuek diru-laguntza izateari buruz “arnasa hartzeko edo indarberritzeko oporrak” izateko asteburuetan?
13. Nola baloratzen duzu biktimei laguntzeko elkarteen eta zure talde profesionalaren (sindikatuak) lana zure egoerari dagokionez?
14. Pertsona fededuna zaren kasuan, nola baloratzen dituzu zure erlijioa ordezkatzen duten erakundeek emandako babesa?

**D. Erasotzailearen tratamendua**

1. Zer iritzi duzu jazartzen edota mehatxatzen zaituzten pertsonei emandako zehapen edo gizarte erantzunen gainean? Beste erantzun edo erreakzio egokiagorik bururatzen al zaizu, adibidez aldentzekoa?
2. Zu entzuteko prest egongo balira, uste al duzu zure erasotzaileekin topatu eta haiei zuri eragindako mina adierazteak, xede politiko gisa zu erabiltzeagatik, eta erasotzaileen biktimismoa bera zalantzan jartzeak pena mereziko lukeela?

**E. Biktimazioa gainditzeko *mikro, meso* eta *makro* aldagaiak**

1. Nola uste duzu zuk hurrengo elementuek egoera hobeki eramaten laguntzen dutela? Zein neurritan: asko, gutxi, behar beste?
   -zure izaera edo izateko modua
   -zure prestakuntza
   -zure maila sozioekonomikoa
   -zure bikotea, familia eta hurbilekoak
   -zure laneko ingurunea
   -zure konpromiso politikoa
   -gizarte babesa
   -babes politikoa
   -erakundeen jarduerak zure segurtasuna, lehengoratze ekonomikoa, laguntza psikologikoa eta abar bermatzeko
   -beste batzuk

2. Laguntza psikologikorik behar izan al duzu inoiz? Horrek zure egoera hobetzen lagundu al dizu edo lagunduko al lizuke?

3. Erakunde ezberdinek zer gehiago egin dezakete jazarpenaren biktima diren pertsonei laguntzeko?

4. Zer gomendatuko zenieke zure tokian dauden beste pertsona batzuei?

**Zure egoerari buruz galdetu ez dugun zerbait erantsi nahi duzu? Galdera-sortan zerbait bota al duzu faltan? Galderaren batekin minduta edo deseroso sentitu al zara?**

**HARREMANA EZTABAIDA TALDEARENTZAT (ASTEKO EGUNA ETA ORDUA)**

**ELKARRIZKETATUARI LAGUNTZEKO BALIABIDEAK ERABILTZEA**

**ESKERRAK**

**OHARRAK ELKARRIZKETAREN GARAPENAREN INGURUAN**

## 2. EZTABAIDA TALDEARENTZAKO GIDOIA

* Egin zen data eta tokia:
* Iraupena:
* Parte-hartzaile kopuruari eta haien profil soziodemografikoari buruzko datuak:

### HARRERA

- Parte–hartzaileen aurkezpena.
- Bertaratu ez direnak.
- Eskerrak.
- Lanaren egoera.
- Anonimotasuna.

### HELBURUAK ETA MUGAK

- Banakako elkarrizketetako emaitzen azterketa egiaztatu eta aberastea, taldeko dinamika baten bitartez. Helburua Ararteko erakundeak hainbat gomendio egin ahal izatea da ezohiko txosten honetan.

### EZTABAIDATZEKO PUNTUEN PROPOSAMENA

1. Babesa.
2. Solidaritate publikoa, errekonozimendu eta laguntza neurrien bitartez.
3. Kontzientziazioa eta gizartearen eta erakundeen aldetiko erantzukizuna bultzatzea.
4. Indarkeriazko jokabideak, jokabide terroristak prebenitzea, funtsean hezkuntzaren bitartez eta, orokorrean, terrorismoari legitimazioa kentzearen bitartez.

- Terrorismoaren biktimen elkarteek lau kontzepturekin laburbiltzen dituzte beren eskakizunak: memoria, egia, duintasuna eta justizia. Mehatxatutako pertsonen interesak batzeko hitz batzuk proposa genitzake?

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarentzat zer proposamen bururatzen zaizu gai honetan berariazko lan ildoa sortzeari dagokionez?

- Guztiek “pribilegiatutzat” dute bere burua beste batzuen aldean. Kasu larrienentzat edota presazkoenentzat azterlan xehatuen beharra identifikatzeko xedez (adibidez, landa esparruak, enpresaburu txikiak…), zer taldek izango luke lehentasuna?

- Arartekoaren ezohiko txostenean islatuta ikustea gustatu litzaizuekeen hainbat gairen inguruan hitz egin dugu. Besteren bat ba al da? Zer ez litzaizueke gustatuko bertan ikustea?

- Euskal erakunderen batek ba al du eredu/positiboa izan daitekeen zerbait gainerakoek jarraitzeko?

- Bidegabeko egoera honetatik zerbait positibo pertsonala azpimarratuko al zenukete?

- Lekukotzek izan dezaketen balio pedagogikoa eta ahozko historia izatearena.

- Adierazi edo eztabaidatu nahi dituzuen beste gai batzuk.

**AGURRA**

# X. ATALA

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Lehenik, enfasia jarri behar dugu demokraziaren arrazoitik sortutako balioak, giza eskubideak errespetatzeri buruzko etikarekin lotutakoak bereziki, bizikidetasuna eta gizarte harremanak bideratzen dituztenak izan daitezen, salbuespen eta itzulingururik gabe. Horrek berekin dakar, ezinbestean, bortizkeria terrorista irmoki eta sakonki gaitzestea eta demokraziaren sarea osatzen duten erakunde publiko guztiek eta eragile politiko eta sozial guztiek batera eta ekintza bakarrean aritzea, horrela, izendatzaile komunetako txikiena ezarriz, balio horiek etengabe indartu eta sendotzeko diskurtsoari eta praxiari eutsi diezaioten eta euskal gizarte osoko txoko guztietara eramatea lor dezaten, batez ere balio horiek oraindik eraginik ez duten txokoetara.,

Adierazitako noranzkoan hainbat eta gehiago aurreratuz, orduan eta gehiago arinduko da terrorismoaren biktimen sufrimendua. Askok bizi duten isolamendu eta bakardade edo enpatia gutxia ezabatuko dira. Oinarrizko giza eskubideak urratu izanaren biktima gisa onartuko dira, baita adierazle totalitarioak demokraziaren aurak egindako erasoen biktimatzat ere. Irmotasunez, eta atzera ezin egiteko moduan kokatuko dira duintasun, egin, memoria, justizia eta konponbidearen parametroetan, hor egon behar baitira.

Biktimizazio terrorista giza eskubideen urradura larria da, eta zuzeneko nahiz zeharkako biktimak eta biktimizazio orokor eta lausoa eragiten ditu. Gainera, terrorismoaren biktimek, lehen mailako biktimizazioa jasan izan eta egun oraindik jasateaz gain, bigarren mailakoa eta hirugarrenekoa ere pairatu dute erakundeen eta gizartearen aldetik. Haren eraginak zuzentzen joan badira ere azken urteotan, erakundeek neurri zuzentzaile ezberdinen eraginkortasuna eta biktimen gogobetetasuna ebaluatu behar dituzte, haien eskubideak gauzatzera arin egokitzeko prozesu dinamiko, iraunkor eta parte hartzekoaren barruan. Horrela, bidegabeko egoerek berean jarraitzea saihestuko da.

Komenigarria da ohartzea Euskadin, biktimizazio terroristaren esperientziak, anitzak direla. Eraildako edo erailtzen saiatu diren eta beren ondasunetan kalteak jasan dituzten pertsonekin batera, txosten honek berariaz heldu die ere ETAren mehatxu edota derrigortze terroristen biktimei ere. Biktima hauek ere urradura eta mugaketa larriak jasaten dituzte hurrengo eskubideetan: bizitzeko eskubidea eta osotasun pertsonala izatekoa, ongizate fisikoa eta psikologikoa, mugimendu askatasuna eta bizitokia aukeratzekoa, ideologikoa eta adierazpenekoa, bizitza pribatua eta familiakoa izateko eskubidea, partehartze politikoa edukitzekoa eta ordezkari politiko gisa aukeratua izatekoa. Biktimizazio honek oso kalte larriak eragiten dizkie jasan behar duten pertsonei, haien senideei eta euskal gizarteari orokorrean. Zoritxarrez eta bidegabe, zuzeneko biktima askok lehenago, eta baita ondoren ere, jasan du aldez aurretiko biktimizazio anitz eta errepikakorreko eredu hori.

Txosten honek, neurri batean, jarduera publikoak ebaluatzen ditu terrorismoaren biktimekiko orokorrean. Emaitza modura, kapitulu honetako gomendioak terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko 4/2008 Legean espresuki jasotako eskubideak jarraituz antolatu dira. Legea Eusko Legebiltzarrak onetsi zuen urte horretako ekainaren 19an, eta biktimen aldeko politiketan gertaera gogoangarritzat hartu behar da.

Eskubide bakoitzaren lege erreferentzia aipatu eta gero, gomendio orokor bat egingo dugu letra lodiz. Ondoren, dagokion testuinguruan kokatuko dugu eta, azkenik, hartatik eratorritako ekintza zehatzak adieraziko ditugu.

## I. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

**Parte-hartzea (4/2008 Legeko 6. art.)**

*"1.- Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortzen da.*
*2.- Kontseilu honen xedea izango da terrorismoaren biktimen partaidetza bideratzea haiei eragiten dieten gai guztietan, bai eta administrazio publikoei arlo honetako politika zehatzak abiaraz ditzatela proposatzea ere.*
*3.-Kontseilu honetako kide izango dira, modu paritarioan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza edo ordezkaritza duten terrorismoaren biktimen elkarteak, terrorismoaren biktimaren bat dela-eta sortutako euskal fundazioak eta euskal elkarte bakezaleak, bestetik. Nolanahi ere, gizarte zibilaren gehiengoaren ordezkaritza biktimen elkarteek izango dute.*
*4.- Kontseiluko burua prestigio aitortuko pertsona bat izango da eta administrazioek eta gizarte zibilak adostasunez izendatuko dute.*
*5.- Kontseiluaren osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira".*

**Biktimen politikaren definizio dinamikoak, bere dimentsio guztietan, biktimen parte-hartzea eduki behar du, beren elkarte eta erakundeen bidez, kasu horietan. helburua jardunak zehazterakoan euren ikuspuntua aintzat hartzea da, baita haien laguntza ziurtatzea ere, aplikazioak eraginkortasun handiagoa izan dezan.**

Horregatik, erakundeek aitortu eta babestu egin behar dute terrorismoaren biktimen eskubideak defendatzeko elkarte, fundazio eta erakunde ezberdinek egindako laguntza eta kontzientziazio lana. Parte hartzeko eskubidea legez, berariaz eta espresuki jasotzen da egia jakiteko eskubidearen garapenean (7.2.a) artikulua) eta, hezkuntzaren alorrean, terrorismoari legitimazioa kentzeko helburuaren barruan (9.4. artikulua).

Gure ustez, esparru horretan susta zitezkeen hainbat jardun adieraziko dugu:

– Biktimen behar adina ordezkari ziurtatu beharko litzateke terrorismoaren biktimen eskubideen defentsarako administrazio publikoen kontsulta organoetan, baita biktimen eskubideekin lotutako politika publikoen ebaluazioan ere.

– Biktimen interesen aniztasuna bermatu egin behar da, baita beren eskubideen babeserako erakunde edo elkartekoak ez diren horienak ere.

– Zehazki, egia jakiteko eskubidearen eta toki eta autonomia erkidego esparruetan ordain morala eskuratzearen eskubidearen garapenari dagokionez, terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta solidaritate adierazpena zabaltzen laguntzen duten ekintza eta ekimenak egiten direnean, biktimek horien prestakuntzan eta garapenean parte hartzeko aukera eduki behar dute, baita oroigarri gisa jar daitezkeen plaketan idatziko den horretan parte hartzeko aukera eduki ere. Biktimizazio berriak prebenitzeko beharrezkoa denez tratu pertsonala eta hurbilekoa edukitzea, saihestu egin behar da kasuan kasuko ekitaldiaren berri prentsaren edo telefono dei edo gutun inpertsonal baten bitartez edukitzea. Gainera, nahi izanez gero, behar besteko denbora eduki behar dute ekitaldi horren barruan beren hitzekin esan nahi dutena adierazteko, pertsonalki edo beste pertsona batzuen bitartez.

– Terrorismoari legitimazioa giza eskubideen sustapenaren bitartez kentzeari dagokionez, bermatu egin behar da terrorismoaren biktimen eskaerak behar bezala ordezkatuko direla Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordearen bitartez, otsailaren 10eko 31/2009 Dekretuak sortu eta arauturikoa hura. Zehazki, eta ebaluazio zientifikoak oinarri hartuta, aintzat hartu behar da biktimek egindako eskaria ikasgeletan lekukotza zuzenekin laguntzeko.

## II. DUINTASUNERAKO ESKUBIDEA

**Duintasuna (4/2008 Legeko 4. art.)**

*"Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako:*
*a) Neurri egokiak hartuko dituzte, beren eskumenen barruan, justizia egitera eta kaltea erreparatzera bideratutako prozedura judizial eta administratiboek beste prozesu traumatiko batzuk eragin ez ditzaten.*
*b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umilazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goresten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.*
*c) Hedabideetan biktimen eta haien familiakoen intimitatea eta irudia babes dadin sustatuko dute, haien irudiak modu desegokian eta gehiegikeriaz erabil ez daitezen.*
*d) Biktimen eta haien familiakoen eskubideen eta duintasunaren defentsa sustatzeko, informazioaren profesionalak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak bultzako dituzte.*
*e) Prestakuntza-sistema espezifikoak bultzatuko dituzte biktimei arreta emateko ardura duten pertsonentzat, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideentzat, Justizia Administraziokoentzat, gizarte-zerbitzuetako eta terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza ematen dieten kolektiboetako kideentzat".*

**Duintasuna Zuzenbide Estatuko bidezko bizikidetzaren eta bizikidetza bakezalearen esparru gisa antolatzen da. Biktimen duintasuna errespetatu egin behar da ekintzen aldeko politikekin, koordinatuak, parte hartzekoak eta biktimologiaren aldetik trebakuntza egokia duten profesionalekin eginak. Erakundeek galarazi egin beharko dituzte, eta baita konpondu ere hala badagokio, gizaki orori, gizaki izate soilagatik, zor zaion estimuaren aurka jasandako mespretxuak. Arreta berezia eman beharko zaie biktimizazio terroristaren ahultasun testuinguruei.**

Erakundeek biktimen aldeko politikak antolatu beharko dituzte modu koordinatuan eta zeharka, errealitate bilakatuz terrorismoaren biktimek bere egindako printzipioak: duintasuna, egia, memoria, justizia eta ordaina. Biktimizazio prozesuak anitzak, dinamikoak eta konplexuak direnez, beharrezkoa da faktore anitzeko erantzunak, koordinatuak, hurbilekoak eta pertsonalizatuak ematea. Horietan, gauzatu egingo da biktima bakoitzaren duintasuna, bere egoera propiorako tratu egokia merezi duen eta errepika ezin daitekeen eta baliotsua den pertsona gisa. Biktimei lagundu eta haiekin lan egin behar duten profesional eta boluntario anitzek trebakuntza eskuratu behar dute, zehatza eta iraunkorra, bai ezagutzen alorrean, bai gizarte gaitasunenean.

Haien duintasuna ez aitortzea uztartu egiten da, orokorrean, erakundeen eta gizartearen aldetik biktimizazio terroristarekiko azaldutako “ikusgarritasun ezarekin” eta “ulermen faltarekin” (4/2008 Legeko zioen azalpeneko 6. paragrafoa). Egunetik egunera, ETAren biktimen etengabeko umilazioa islatu egiten da zenbait euskal udalerritan, pintaketen, kartelen eta gaizkileei eginiko omenaldien bitartez.

Txosten honen arabera, Ararteko erakundeari erantzun dioten udalerrietatik lauren batek gutxienez jarduerak bideratu ditu biktimen memoriaren, haien eskubideen edo duintasunaren aurkako pintaketak eta kartelak kentzeko. Udal betebehar hori eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da jardutearen aldeko jarrera edukitzea eta aurrekontuen aldetik plangintza egokia edukitzea. Halaber, garbiketa lanak egiten dituzten enpresetako langileek babes egokia jaso behar dute, horrelakorik eskatzen badute.

Zazpi euskal udalerrik bakarrik adierazi du biktimen memoriaren aurka egingo zuten ekitaldi publikoak debekatu edo saihesten saiatu dela. Zoritxarrez, datu hori are adierazgarriagoa da beste iturri batzuekin alderatzean, adibidez terrorismoaren biktimen elkarte batzuekin alderatuz gero. Kasu horietan, biktimizazio arriskuko testuinguru gisa, aldizkako festak, tokiko ospakizunak, kirol ekitaldiak edo gaizkileei egin ahal zaizkien omenaldiak aipatzen dituzte.

Udal esparruko ordain moralaren gaian (4/2008 Legeko 5.3. artikulua), terrorismoaren biktimekiko aitorpen eta solidaritate adierazpena zabaltzen laguntzen duten ekitaldi eta ekimenak antolatzeari dagokionez, Ararteko erakundeari informazioa helarazi dioten udalerri guztietatik %43ak adierazi du ez dituela jarduera horiek egin. Ekitaldi horiek egin dituztenen kasuan, hurrengo lau jarduera taldeak aipatu dira:

- banakako eta taldeko omenaldiak, batzuk urtean behin, eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan jardunez;
- dominak ematea eta seme kutun izendatzea;

- banderetan krepe beltzak jartzea, gaitzespen manifestuak lantzea eta kontzentrazio isiletarako deialdiak egitea, atentatu edo eraso terroristak jazotzen direnean eta aldez aurretik horrelako gertakariak jazotzen direnerako garatu izan den protokoloa jarraituz;
- erakusketak antolatzea.

Salbuespen modura, jazarpenaren biktima direnei udalerriaren solidaritatea helarazi izan zaie espresuki eta aldizka. Nolanahi ere, beharrezkoa da biktimen euren parte-hartzea edukitzea. Haiek, zenbaitetan, gerta liteke omenaldi edo jarduera horiek ez onartzea, *"une zail haiek berriro bizi nahi ez izateagatik"* edo *"besterik gabe ekimena beranduegi iristen dela uste izateagatik"*. Gainera, ordain moralaren kasuan bereziki, tratu pertsonalizatuaren eta hurbilekoaren beharra ikusten da, memoriari buruzko *infra* idatz-zatian berretsi genuen moduan.

Jarraian, esparru honetan susta zitezkeen hainbat jardun zehaztuko dugu:

- Gertaera Traumatikoen Biktimei Laguntzeko Graduondoa sustatzea, biktimizazio terroristan espezializatuz. Orain dela bi urte hasi zen honekin, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren (Eusko Jaurlaritzarenak biak) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Biktimekin ordain pertsonal (fisikoa eta psikologikoa), material eta sinbolikoko prozesuen esparru ezberdinetan harremanetan jartzen diren administrazio eta entitate pribatuetako langile guztien ordezkaritza izaten saiatu behar da. Biktimekiko tratu egokia bermatzea eta biktimologiaren alorreko trebakuntza eta sentsibilitatea areagotuko duten agente gisa jardun ahal izatea da kontua. Halaber, graduondo horretan kazetariek eta kazetaritza ikasleek parte hartzearen alde egin behar da.

- Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren lankidetza eta koordinazioko berariazko protokoloak sinatzea bultza daiteke terrorismoaren biktimekin harremanetan dauden erakunde pribatu eta publiko ezberdinekin. Parte hartzeko mekanismoak aurreikusi behar dira, horien bitartez protokolo horiek betetzen direla ikuskatzeko eta alor bakoitzean biktimen eskubideen aurka doazen jarduerak konpontzeko beste jarduera zehatz batzuk proposatzeko.

- Biktimentzako justizia printzipioen deklarazioa aplikatzeari buruzko Nazio Batuen Gidaliburua egokitu eta barreiatzen dela sustatu behar da berariazko talde profesional bakoitzaren baitan. Horrela, konpromiso egokia eta aktiboa hartuko da biktimizazio terroristaren esparru bakoitzean.

- Udal esparruan, biktimentzako umiliagarriak diren ETAren aldeko pintaketak eta kartelak kentzearen lana giza eskubideen zainketan lehentasuna duen berariazko lan gisa jorratu behar da, eta ez kaleak garbitzeko lan orokor gisa.

- Beren eskumenen barruan, udal erakundeek eta, subsidiarioki, baita foru erakundeek eta erakunde autonomikoek ere, ofizioz hasiko dituzte kasuan kasuko lege izapideak, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz gaizkileen omenez jarritako plakak eta monumentuak bertatik kentzeko.

– Printzipio eta balio demokratikoen inperioak berekin ekarri behar ditu Euskadin profil ideologiko desberdina duten taldeek egiten duten indarkeria terroristarekin zerikusia duten ekintzak kondenatu eta baztertzen dituzten politika publikoen oinarria eta pentsamendu soziala barne hartzea.

## III. JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA

**Justizia (4/2008 Legeko 3. art.)**

*"1.- Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek lagundu egingo dute, ahal duten neurrian eta eskumenek ahalmentzen dieten heinean, terroristen zigorgabetasunak eragindako egoera bidegaberik edo babesgabetasun-egoerarik izan ez dadin. Hartara, biktimek benetako babes judiziala jasotzean euren eskubideak zaindu daitezen, euren gorabehera bereziak kontuan har daitezen eta horrek eragin diezazkiekeen eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezen sustatuko dute botere publikoek.*
*2.- Horretarako, esleitutako eskumenen barruan eta botere judizialari zor zaion errespetuarekin, xede hauek dituzten neurriak ezarriko dira:*
*a) Eragiten dieten prozeduren egoerari buruzko informazioa ematea.*
*b) Zigor-arloko prozesuetan eta administrazioarekiko auzi-prozesuetan zehar biktimek prozeduretara irispidea izatea eta behar ditzaketen baliabide juridiko, ekonomiko, tekniko eta psikologikoak eskuragarri izatea.*
*c) Ekintza terroristen eraginpeko bihurtu dituzten ekintza terroristak direla-eta egiten diren epaiketetara joateko laguntza pertsonala eskaintzea.*
*d) Biktimen segurtasunaren eta intimitatearen zaintza sustatzea, prozesu judizialetan parte hartzen dutenean, esku-sartze ez-legitimoetatik edo beldurrarazte- eta errepresalia-egintzetatik eta bestelako edozein irainetatik edo laidotatik babesteko.*
*3.- Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek lankidetzako baliabide egokiak ipiniko dituzte Justizia Administrazioarekin eta Fiskaltzarekin artikulu honetako 2. paragrafoko neurriak abian jartzeko".*

**Biktimen justizia eskari legitimoa bete egin behar da, eskari hori prozesu eta emaitza modura ulertuta beti Zuzenbide Estatuaren barruan. Justiziak, balio etiko eta juridiko gisa, zigorgabetasun falta esan nahi du, hau da, biktimizazioek erreakzio publikoak eskatzen dituzte, erantzule zehatzak nortzuk diren ezartzeko eta konponezina dena nola konpondu behar den zehazteko. Administrazio eskumendunek zaindu egin behar dute ordain hori eraginkorra izatea eta inoiz bigarren mailako biktimizaziorik ez gertatzea.**

**Justizia administrazioari dagokionez, administrazio eskudunek zaindu egin behar dute justizia eskuratzeko eskubidea, parte hartzekoa, informazioa eskuratzekoa, babeserakoa, ordaina jasotzekoa eta biktimizazioa prebenitzekoa benetan baliatzen direla, hau da, biktimen aurka edota beste pertsona batzuen aurka antzeko gertaerarik berriro jazo ez dadila zaindu behar dute. Azken alderdi horrek hartu egiten du bigarren mailako biktimizaziorik ez jasateko eskubidea. Bigarren mailako biktimizazio hori gizartearen eta baita biktimak babestu, atenditu eta haiekin lankidetzan aritu behar duten erakunde eta profesionalen axolagabetasunaren edo zabarkeriaren ondotik ere etortzen da.**

Euskal erakundeek justizia betebehar saihestezinak dituzte terrorismoaren biktimekin. Haien giza eskubideen babesa terrorismoa prebenitzeko ekintza onena da, baina horrek ez du esan nahi gaizkileen eskubideak kaltetzen direnik. Erakundeen aldetiko abandonuak eta gizartearen aldetiko axolagabekeriak lagundu egiten dute zigorgabetasunean eta biktimizazio iraunkorrean erailketa, lesio, kalte material, mehatxu edota derrigortzeetan.

Eskubideen aldarrikapenaren eta horien aplikazioaren artean dagoen tartea murrizteko, haien benetako eraginkortasuna ebaluatu behar da, aldizka eta banaka, nazioarteko araudian proposatutako adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak gorabehera. Oinarrizko edo gutxieneko tratu printzipio edo estandar batzuk dira, beti hobetzeko modukoak barne eskala batean. Euskal erakundeek erantzukizun berezia dute biktimizazio anitza eta iraunkorra saihesteari dagokionez.

Bestalde, ETAk mehatxaturiko edota derrigorturiko pertsonek hainbat urte daramatzate bidegabeko egoera bat jasaten, eta erakundeek eta gizarteak ez dute garaiz eta behar bezala erreakzionatzen jakin haien duintasun eta eskubideak aitortu eta babesteko. Terrorismoaren beste biktima batzuei dagokienez, eskubideak eta zerbitzuak zehaztu egin behar dira, horien bitartez biktimizazioa gutxitu eta prebenitzeko. Mehatxaturiko pertsonentzat, ezkutuko biktimizazio maila altua existitzen da. Hori dela eta, erakundeek biktimen aldeko politikak diseinatu behar dituzte, benetan gertakariak salatzen ez dituzten biktimenganaino iritsi ahal izan daitezen. Euskal erakundeek politikak sustatu behar dituzte epe labur, ertain eta luzera, eta horiek egokiak eta bidezkoak izan beharko dira. Politika horien helburua mehatxuen edota derrigortze terroristen biktima diren pertsonen eskubideak babestea izan behar da, aldez aurretiko biktimizazio terrorista nahiz babes neurrietatik eratorritako ondorio negatiboak berak gutxituz.

4/2008 Legeak, funtsean, ohiko zehapen justiziari heltzen badio ere, nazioarteko araudian oinarritzen diren eta bertan jaso diren printzipio gidarien artetik beste justizia mota batzuen aukerak aipa daitezke. Justizia modu horiek ezin dira, inolaz ere, zigorgabetasuna edo bidezko erantzun falta izan. Aldiz, azterlan zientifiko ezberdinen arabera, lehen postuan kokatzen dituzte biktimen ordain integrala eta gaizkileen erantzukizuna. Prozeduratik, terapiatik eta ordainetik etorritako justizia dira, guztiak elkarren osagarri eta, beti, zehapen eta zuzenbide antolamenduaren berme sistemaren barruan. Justiziak, nahitaez, burututako egintzengatiko zehapen publikoaren deklarazioa egitea eskatzen du, egilearen aldetiko erantzukizun aktiboaren beharra eta biktimei ordain eraginkorra ematea.

Zehazki, lehengoratzeko justizia biktimak ahazten ez dituen eta beste ezer baino lehen haien eskubide eta interesak babesten dituen justizia da. Gaiaren alorreko nazioarteko printzipioekin bat etorriz, euskal erakundeek etorkizuneko aukerak hausnartu behar dituzte, terrorismoak eta bidegabeko egoerak amaitzen direnerako eta biktimek horrelakorik nahi badute. Horretarako, beharrezkoa da aldez aurretik gertakari horiek publikoki gaitzestea, indarkeriari legitimazioa kentzen dioten eta beren delituen ardura gain hartzeko eta biktimei ordaina emateko prest dauden gaizkileekin batera.

Justizia administrazioaren alor zehatzean susta daitezkeen ekintza zehatz modura, hurrengoak azpimarratzen ditugu besteak beste:

- Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak berariazko protokoloak sinatzea bultza dezake hurrengoen artean, esparru honetan errealitate bihur daitezen laguntza eta koordinazio printzipioak: Justizia Ministerioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Estatuko Fiskaltza Nagusia, Barne Ministerioa, Lan Ministerioa, Herrizaingo Saila, Justizia Saila (azken biak Eusko Jaurlaritzarenak), eta terrorismoaren biktimen eskubideak babesteko erakunde ezberdinak. Protokolo horien helburua eraginkortasunez bermatzea izango da informazio, babes, tutoretza judizial eta parte-hartze eskubideak nahiz ordaina eskuratu eta prebentziokoak eskuratzen direla, zehapen jarduera guztiak zentzurik zabalenean hartuta.

- Zuzendaritzak ofizioz jardun dezake informazio eraginkorra hornitzeko ikerketen egoeraren gainean eta jazotako biktimizazio terroristei buruzko zehapen prozeduren gainean, betiere, kalteturiko pertsonek hori nahi badute. Halaber, biktimen euren auzira bertaratzeko aukerak ere eskainiko dira.

- Zuzendaritzak biktimei, zentzurik zabalenean hartuta, zehapen prozedura osoan zehar laguntzea susta dezake, horretarako gai honetan trebatutako langileak jarriz.

- Zuzendaritzak azterlan iraunkorrak egitea bultzatu eta haietan lagundu dezake. Azterlanak erakunde zientifiko batek egingo lituzke biktimizazioaren eraginari eta biktimek Justizia Administrazioarekiko duten gogobetetasunari buruz, esku hartzen duten agente ezberdinak eta egon daitezkeen zehapen erantzunen aurrean dituzten jarrerak zehaztuz. Azterlan horren oinarrian, epaiketa egin ondorengo edo epaiketarik gabe behar besteko denbora egin ondorengo inkesta pertsonal labur bat egon daiteke. Inkesta horrekin lagundu egin beharko litzaieke biktimei kezkak hitzez adierazten, biktimizazioa murrizten, eta ordura arte aintzat hartu ez diren eskari eta interes legitimoak biltzeko helburua nagusi izango litzateke. Azterlan horien emaitzak ikusita, hala badagokio, indarrean dagoen legedia hobetzeko edo moldatzeko beharra aztertzea komeniko litzake.

- Horretarako eskumena duten erakundeek akusazio publikoa egiteko aukera aztertu beharko litzateke, horren bidez ekintza terroristak euskal gizarte osoaren aurkako delitua direla sinbolizatzeko eta biktima zehatzek babesa dutela erakusteko.

- Administrazio eskudunei helarazi egin behar zaie beharrezkoa dela bereizkeriak saihestea Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko Legearen aplikazioari dagokionez (egun erreforma bidean).

- Terrorismoaren Biktimen Sare Europarraren eta Europako Kontseiluaren markoan planteatzen ari diren ekimenak aztertu beharko lirateke terrorismoa Nazioarteko Gorte Penalaren eskumenpeko nazioarteko krimenen artean sartze aldera.

# IV. ORDAINA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

**Ordaina (4/2008 Legeko 5. art.)**

*"1.- Euskal botere publikoek, biktimekiko elkartasunaren printzipioa oinarri hartuta eta lege honetako III. Tituluan aurreikusten den laguntza integraleko sistemaren bitartez, biktimei erreparazio eraginkorra eta integrala egitea sustatuko dute, lehengoratzeko, kalte-ordainak emateko, errehabilitatzeko, laguntzeko eta kalte morala ordaintzeko neurriak hartuz.*
*2.- Lege honetako III. tituluan aurreikusitako laguntza integraleko sistema aplikatzerakoan printzipio eta xede hauei emango zaie lehentasuna:*
*a) Biktima, ahal den neurrian, kaltea egin aurreko egoerara itzul dadin ahalegintzea.*
*b) Biktimari askatasuna, identitatea, familiako eta gizarteko bizitza eta bizitza politikoa berreskura ditzan laguntzea.*
*c) Biktima bere bizilekura itzul dadin eta bere lanean baldintza egokietan berriro has dadin sustatzea, edo, hala badagokio, bizilekua aldatu eta lanera itzultzen lagunduko dioten baldintzak ezartzea.*
*d) Biktimaren egoera aintzat hartuta, ahalik eta azkarren babes eta laguntza sistemaren prestazioak eskuratzeko erraztasuna bermatzea.*
*e) Biktimaren eguneroko bizitzako eremuak zaintzea, ekintza terroristak eremu horietan egindako kaltea leunduko duten ongizate-baldintzak sortzeko.*
*3.- Erreparazio-neurrietan sartzen da, halaber, hainbat jarduera publiko bultzatzea, biktimei ordain morala emateko eta haien duintasuna, izen ona eta eskubideak jendaurrean lehengoratzeko. Horrela, honako hauek sustatuko dira biktimekin adostuta eta, hala badagokio, haien elkarteekin: omenaldiak egitea, oroigarriak altxatzea, terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta horiekiko enpatia izateko tokiko ekimenak sortzea, bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzak egotea, bai eta terrorismoaren biktimei babesa eta aitorpen sozial, etiko eta politikoa erakusteko izaera sinbolikoa duten bestelako adierazpideak izatea ere".*

**Biktimekiko solidaritateak hurrengo printzipioek gidatutako ordaina exijitzen du: indarkeria terroristari legitimazioa kentzea, osotasuna, malgutasuna, koordinazioa eta parte-hartzea.**

4/2008 Legeko zioen azalpeneko 50. paragrafoan aitortu egiten da kalte asko "konponezinak" direla. Konpondu ezin daitezkeen kalte horiek aitortzeak haien duintasuna aitortzea esan nahi du, eta, aldi berean, berriro ez errepikatzeko prebentzioa edo bermea jartzeko nahiz bigarren mailako biktimizazioak saihesteko konpromisoa hartzea. Alor honetan garatzen den biktimen aldeko politika ororen buruan, segurtasun eta laguntza alderdi ezberdinetan –osasuna, etxebizitza aldaketak, lana, irakaskuntza eta trebakuntza, kalte materialak konpontzea, eta abar–, terrorismoari legitimazioa kentzeko printzipioa eta Zuzenbide Estatuaren barruan herritarren aniztasuna berrestea egon behar dute.

Ordaina arautzen duen legean espresuki aipatzen diren printzipioen artean, hurrengo bostak daude:

a) Heinekotasuna, malgutasuna, egokitzapena eta integralitatea (4/2008 Legeko zioen azalpeneko 52. eta 53. paragrafoak).

b) Irizpide zabala eta zehatza babes eta laguntza sisteman, hau da, solidaritatean eta administrazio prestazioetan (zioen azalpeneko 8. paragrafoa).

c) Azkartasuna eta biktimaren aldeko tratua [26.1.b) art., zioen azalpeneko 72. paragrafoa]. Honek biktimaren beraren balizko ahultasunaren kontzientzia hartzen du [26.1.a) art.].

d) Agente publikoen (estatu, autonomia erkidego, foru eta toki mailakoen artekoa) eta pribatuen arteko koordinazioa, biktimen elkarteen euren parte-hartzearekin (zioen azalpeneko 19. paragrafoa; 4., 6. eta 26.2. art.).

e) Ordaina gidatzen duen helburua hau da: "*biolentzia errotik deslegitimatzea*" eta "*berariaz onartzea inoiz ez dela biolentzia justifikatzeko arrazoirik izan*" (zioen azalpeneko 51. paragrafoa). Ordaina, paragrafo horren arabera, ez da ekintza puntuala edo aukerakoa, baizik eta helburu hori lortzera zuzendutako hainbat ekintza zehatzez osatutako prozesua. Ekintza horiek, nazioarteko araudiaren beraren eskakizunak gorabehera, islatu egin behar dira berriro ez errepikatzeko berme jakin batzuetan.

Eremu horretan jardun zehatz hauek planteatzen dira:

– Konponketari buruzko hainbat betebehar publikok 4/2008 Legearen araudia garatzean jarri beharko lukete arreta. Lege horren arabera, araudiaren garapen posibleek Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren sei alderdi barne hartuko lituzkete.

  A. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren eraketa eta funtzioak (6.5 art.).
  B. Prestazioen garapena kalte materialak arintzeko nahiz osasun psikologikoari, irakaskuntzari, laneko trebakuntzari, etxebizitzari eta lanari uztartutako berariazko neurriak (zioen azalpeneko 70. eta 72. paragrafoak).
  C. Ekintza terroristekin lotutako jazarpena, mehatxua edo hertsapena jasaten duten pertsona fisiko edo juridikoek diru-laguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan (17. art.).
  D. Prestazioak koordinatzeko organo eskumenduna izendatzea (25. art. eta 4. xedapen iragankorra). Organo horrek berehala jarduteko protokoloa diseinatu behar du, etorkizunean jazotzen diren atentatuentzako (3. xedapen gehigarria).
  E. Eusko Jaurlaritzak beharrezko aldarazpenak aurkeztuko dizkio Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legeari, bertan jasotako arauetatik eratortzen direnak horiek (3. azken xedapena).
  F. Erregelamendu bidez aurreikusiko da aparteko epea irekitzea, sei hilabetekoa izango dena, kalte materialak erreparatzeko laguntzak jasotzerik izan ez dutenek, eskabidea formalizatu gabe urtebete igaro zelako, ekintza terrorista gertatu zen unean terrorismoaren biktimei laguntzeko indarrean zegoen programan sartzeko eskatu ahal izateko (3. xedapen iragankorra).

– Konstituzio jurisprudentziarekin bat etorriz, lanaren, etxebizitzaren, irakaskuntzaren alorretan edo beste alor egoki batzuetan hartzen diren bereizketa positiboko

neurri guztiak bidezkoak eta proportzionalak izan behar dira biktimizazio prozesuekiko. Arrazoizko eta proportzional izate hori ezingo da benetan egiaztatu, esparru bakoitzean berariazko azterlanik egiten ez bada.

- Beharrezkoa bada, ETAk mehatxupean dituen pertsonek nahiz haien zuzeneko senideek laguntza psikosoziala eskuratzea erraztu behar da.

- Politika berritzaileak eta eraginkorrak sustatu behar dira lanaren esparruan, norberaren eta familiaren biktimizazioaren eraginak eta, zentzurik zabalenean, biktimen lana (zauritutako pertsonei edo bizirautea lortu dutenei dagokienez) bateratzea posible izan dadin.

- Neurri zehatzak antolatu behar dira mehatxatuta dauden taldeentzat eta haien senideentzat, horiek Euskadin bizi diren edo jasandako jazarpenagatik alde egin behar izan duten alde batera utzita. Talde profesional bakoitza aintzat hartu behar da, laneko bizitzan sortutako ondorioak arintze aldera.

- Etxebizitza aldaketak erraztu behar dira jazarpen indarkeria jasaten duten pertsonentzat, mehatxua eta derrigortzea badagoela egiaztatu ondoren.

- Babes pedagogikorako neurri teknikoak pizteaz gain, gizarte babeseko taldeak eratu behar dira trebakuntza eta irakaskuntzako zentroetan bertan, erresilientzia prozesuetan elementu osagarri den heinean. Horren berri izateak, halaber, pertsona guztien irakaskuntza eta trebakuntza aberasten du.

- Garrantzia berdina eman behar zaie kalte psikologikoei zein fisikoei, horiek biak biktimizazio terroristak eragindakoak direnean. Epe labur, ertain eta luzera kontuan hartu behar dira osorik, lesio ezberdinak ebaluatzeko berariazko baremoa edukiz.

- Kalte psikologikoei dagokienez, estaldura zabaldu egin behar zaie hildakoen, zaurituen, mehatxaturikoen edota derrigorturikoen senide guztiei, horiengan biktimizazio terroristak ondorioak izan baititzake epe labur, ertain eta luzera. Estaldura horrek kontuan izan beharko lituzke gai honen alorrean egindako ikerketa biktimologiko solido eta aurreratuenetan eskuratutako emaitzak.

- Praktika onen gidaliburuak egitea sustatu behar dute, babesaren kalitatea, eraginkorra eta gizakoia, bermatze aldera. Gidaliburu horiek segurtasun pribatuko enpresen, Herrizaingo Sailaren eta mehatxatutako talde profesionalen artean sustatuko lirateke. Pertsona babestuaren eta haren bizkartzainaren artean harreman egokiak bermatzea litzateke kontua.

# V. EGIA JAKITEKO ESKUBIDEA

**Egia (4/2008 Legeko 7. art.)**

*"1.- Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek ekintza terroristetatik eratortzen diren giza eskubideen urraketei buruzko egia eta biktimizazioaren benetako arrazoiak ezagut daitezen lagunduko dute, bai eta egia hori jendaurrean aitor dadin ere, biktimek eta haien familiakoek horretarako duten eskubidea betetzeko.*
*2.- Horretarako, neurri aktiboak hartuko dituzte:*
*a) Biktimen memoria eta aitorpena ziurtatzeko, lege honetako 4. artikuluan aipatzen diren ekimenetan biktimek parte har dezaten, presentzia izan dezaten eta arretaren erdian egon daitezen bultzatuz.*
*b) Biktimek eta haien familiakoek beren eskubideen defentsarako eta ikerketa historikorako datu edo informazio garrantzitsua dagoen artxibategi ofizialetara jotzeko duten eskubidea bermatzeko eta/edo sustatzeko.*
*c) Biktimak identifikatzeko, haien nortasuna edo egonlekua ezezagunak direnean, edo heriotza izan bada, lurperatuta dauden tokia ezagutzeko".*

**Biktimizazio prozesuak zabalera, aniztasun eta dinamismo osoz ezagutzeko ikerketak eta azterlan zientifikoak sustatu behar dira. Horrela, modu dinamikoan eta informazio alderatuarekin, aurre egin ahalko zaie biktimen behar ezberdinei, jasandako bidegabekeria larrien gizarte kontzientziazioaz hasita.**

Arartekoak txosten honetako galderak erantzuteko deia luzatu zion hainbat euskal udalerriri. Horietatik lauren bat, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokaturikoak nagusi, isilik geratu zen, eta hortik ondorio negatiboa atera daiteke egia jakiteko eskubidea nahiz biktimek memoriarako duten eskubidea betetzeari dagokionez.

4/2008 Legeko zioen azalpeneko 1. paragrafoan aitortu egiten da terrorismoak eragindako kalte pertsonal eta sozialen tamaina, baina baita gizarte kontzientziazioa falta dela ere, eta, beraz, analisi eta azterlan zorrotzak falta direla ere. Espero dugu txosten honekin ezagutza hobea ematen laguntzea, bai, behinik behin, errealitate konplexu honen esparru batekoa.

4/2008 Legeko zioen azalpeneko 19. paragrafoan adierazten den moduan, "*laburbilduz, abiapuntua egia eta memoria dira, eta hortik abiatuta finkatzea zer gertatu den eta zer gertatzen ari den, eta zergatik gertatu den eta zergatik oraindik ere gertatzen ari den*". Txosten honetatik eratorritako mugen barruan, biktimizazio esperientziei buruzko txosten honetako bi kapituluek sakondu egin dute zergati horretan bizipen subjektiboetatik abiatuz, baina prebenitzeko gomendio batzuk ateratzea ahalbidetzen duten gizarte ondorioak ikusiz.

Egia jakiteko eskubidea memoriarako eskubidea baino lehenago dator: *"Egiak gertakariak ezagutzea esan nahi badu, memoriak, berriz, gizarteak gertakari horiek aitortzea esan nahi du" (zioen azalpeneko 55. paragrafoa).* Zioen azalpeneko 54. paragrafoak honela laburbiltzen du biktimek eta gizarteak egia jakiteko duten eskubidea: "*gertakariak guztiz eta osorik ezagutzea, gertakarietan nortzuek hartu zuten parte*

*jakitea eta egindako urraketen inguruabar espezifikoak eta motibazioak ezagutzea".* Guztiaren berri edukitzea lan paregabea izan daitekeela jabetuz, eta, edonola ere, bertatik kanpo dimentsio subjektibo batzuk gera daitezkeela jakinda, ikerketa zientifikoek aukera emango dute herritarrek ezagutzen ez dituzten esparruei argia emateko. Horren helburua biktimizazioa murriztea izango da. Bereziki sustatu behar dira biktimizazio arrisku altuko eta gizartearen eta erakundeen aldetik babesgabetasun egoeran dauden taldeei buruzko xehetasun azterlanak eta ikerketak, batez ere landa esparruetan eta udalerri txikietan.

Beharrezkoa den lankidetza printzipioaren kaltetan izan gabe, aintzat hartu behar da Biktimologiaren eta biktima elkarteen arteko bereizketa, eta ikerketa biktimologikoak sustatzeko betebehar publikoa azpimarratu.

Lehen eta bigarren mailako biktimizazioak jarrera kritiko, zorrotz eta eszeptiko osasuntsua bultzatu du terrorismoaren biktimengan eta haien eskubideak babesteko elkarteengan. Jarrera hori beharrezko da sorginkeria faltsuetan ez erortzeko eta haien interes legitimoak zaintzeko. Gidaria benetako gizarte justiziaren bilaketa izan behar da. Jarrera hori alor honetako interpretazioen inguruan ageri den iluntasun estalkia murritzen laguntzen duen ikuspegi zientifikoaren parekoa da.

Hala eta guztiz ere, biktimen eskubideen borrokaren benetako bultzatzaile izandako elkarteetako mugimenduak ez dira nahastu behar gizarte zientzia erako Biktimologiarekin. Biktimologiak datu alderatuak ematen dizkigu, eta horien bitartez printzipio zientifikoaren ondotik sortutako biktimen aldeko politikak egitea posible da, hau da, politika horiek egon daitekeen objektibotasunaren, sinplifikazio konplexuaren eta dialektikaren bitartez antolatzen dira. Horrela, ikerketa oro testuinguru bakoitzean ezagutza fidagarriko ekoizpen amaiezinaren prozesu gisa hartzen da, nahiz eta behin-behinekoa izan. Euskadiko biktimizazio terroristari buruzko ikerketa zientifikorik gabe, ez dugu behar bezala oinarritutako biktimen aldeko politikarik edukiko, eta, ondorioz, bigarren mailako biktimizazioa sakontzen lagunduko da. Horregatik guztiagatik, eta beste autonomia erkidego eta herrialde batzuen aldean, deigarria da oso Euskadin katedrarik edo berariazko ikerketa zentrorik ez egotea biktimizazio terroristen gainean.

Alor honetan susta litezkeen ekintza zehatz modura, hauek nabarmenduko genituzke besteak beste:

– Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako biktimizazio terroristako esperientzien balio unibertsala aitortu egin behar da, izan ere, giza eskubideekiko konpromisoa dira bidegabekoa erabat den egoera batek sortutako sufrimenduaren aurrean. Eragindako biktimizazioaren ezagutza pizteko, sustatu egin behar dira materialak bildu, sistematizatu, artxibatu eta maileguan uzteko ekintzak. Horiek, aldi berean, uztartu egiten dira bakerako hezkuntzarekin. Horretarako, komenigarria litzateke elkarteekin, unibertsitateekin eta erakunde zientifiko eta kulturalekin hitzarmenak sinatzea. Helburua berariazko dokumentazio zentroak sortzea litzateke terrorismoaren biktimen gainean eta maila autonomikoan, foru eta udalekoan. Udal esparruan, gaiaren alorreko argitalpenekin eta dokumentalekin eratutako fondoak sortzea azpimarratuko litzateke.

Gainera, ahozko artxiboak garatzeko aukeran pentsa daiteke, batez ere udalerri bakoitzarekin lotura estua duten biktimekin eginak (jatorria bertan dutenak, bertan bizi direnak edo biktimizazioa jazo den udalerrian). Hemen “biktimaren” kontzeptu zabala erabili behar da, mehatxaturiko pertsonen gainean eta baita senide eta lagunengan ere eragindako biktimizazioa sartze aldera. Biktimen lekukotzek balio metodologikoa, pedagogikoa eta, luzeran, baita historikoa ere dute terrorismoaren azterketan eta prebentzioan, giza eskubideak urratzen dituen fenomenoa izaki.

– Gizartearen eta erakundeen aldetik aitortu egin behar da terrorismoaren biktimek, mehatxaturiko pertsonak barne, egi politikoa irudikatzen dutela, izan ere, eraso edota mehatxu egin diete euskal gizartearen herritar aniztasuna sinbolizatzeagatik eta askatasuna defendatzeagatik.

## VI. MEMORIARAKO ESKUBIDEA

**Memoria (4/2008 Legeko 8. art.)**

*“1.- Memoriarako eskubideak bere baitan hartuko ditu ekintza terroristak jasan dituzten herritar errugabe guztiek nozitutako bidegabekeriak. Euskal botere publikoek bakean eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzen lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin sustatuko dute.*
*2.- Memoriarako eskubidean, halaber, funtsezko elementua izango da terrorismoaren biktimen esanahi politikoa, eta esanahi horren baitan terrorismoak bere proiektu totalitarioa eta baztertzailea inposatze aldera suntsitu nahi duen guztia dago: Zuzenbide Estatu demokratikoaren ezaugarri diren askatasunak eta elkarbizitza integratzailea izateko herritarrek duten eskubidea. Terrorismoaren biktimen esanahi politikorako ezinbestekoa da herritarrek horren aitorpena gizartean egitea.*
*3.- Memoria eta terrorismoaren biktimen esanahi politikoa iraunaraztea funtsezko tresna da orobat terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa egiteko”.*

**Bakezko etorkizun baten oinarrian herritarren memoriarako politikak egon behar dira, zehatzak eta aktiboak, herritarren pluraltasunaren etengabeko babesaren balioa berretsiz eta, orokorrean, giza eskubideak eta betebeharrak berretsiz.**

Memoriak zera eskatzen du: *“Jendaurrean eta ofizialki aitortzea errugabe bati eragindako sufrimendua eta biktima izateagatik duen esanahi politikoa”* (4/2008 Legeko zioen azalpeneko 55. paragrafoa). Zentzu horretan, *“Euskadin (...) bai Jaurlaritzak bai Legebiltzarrak irmotasun eta seriotasun osoz adierazi dute gure elkarbizitzaren etorkizuna biktimekiko memorian oinarrituta eraiki beharko dela, halabeharrez”* (zioen azalpeneko 5. paragrafoa).

Biktimen eta gizartearen eskubide bat bada ere, hura zehazteko modua banakakoa izan behar da, izan ere, falta direnen, bizirautea lortu dutenen, senideen eta biktimen lagunen memoriari buruz hitz egiten da (zioen azalpeneko 57. paragrafoa). Edonola ere, “memoria bateratuaz” ari gara biktima guztiak gizartearen kide baliotsu eta ordezkaezin

direla baieztatzeko. Memoria "terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko elementua da". Memoria etorkizunari begira dagoen iragana da, gizarte "libre eta gehitzailea" eraiki ahal izateko. Berriro ere, biktimen esanahi politikoa "memoriaren funtsezko alderdia" da, biktimazioak, bizitzeko eskubidea, adierazpen askatasuna edo osotasun fisiko eta morala izateko eskubideak ukatzea ez ezik, herritar multzo anitzetik kanpo uztea ere badakarrelako (zioen azalpeneko 59. eta 60. paragrafoak eta 9. artikulua).

Lehen esan denaren aurrean, Ararteko erakundearekin lankidetzan aritu diren udalerrietatik %19ak bakarrik garatu ditu biktimen memoriaren eta terrorismoa gaitzestearen aldeko ekimenak. Ekimen horiek, funtsean, udaletxeetan pankartak erakustea, monolito eta monumentuak jartzea edo toki publikoak terrorismoaren biktimen izenekin edo bake balioen izenekin deitzea izan dira.

Alor honetan susta litezkeen ekintza zehatz hauek planteatu ditugu:

- Berariazko atalak sortzea terrorismoaren biktimei buruz erakundeetako, udalerrietako eta foru organoetako web orrialdeetan –edo hala badagokio, linketan–. Eusko Jaurlaritzak jada sortu dituenak, funtsean Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren bitartez (bereziki adierazgarria da ETAren biktimen erakusketarengatik sortutakoa 2008an), aldizka eguneratu eta ebaluatu behar dira.

- Udalerri guztietan, eta, halabeharrez, biktimizazio terrorista bizi izan dutenetan, terrorismoaren biktimen memoriarako kale edo instalazio publikoak egotea sustatzea, pertsonalizatuta eta biktimaren parte-hartzearekin. Halaber, urtero, harekin zerikusia duen hezkuntza jardueraren bat antolatzea.

- Terrorismoaren biktimak oroitzeko eta begirunea erakusteko egiten diren ekimenek gogoan izan behar dute terrorismoaren biktimek duten esanahi politikoa. Hau da, herritar izaera kendu nahi izan zitzaiela indarkeria erabiliz eta bizitzeko eskubidea eta beste oinarrizko giza eskubide batzuk murriztuz, modu totalitarioan eta antidemokratikoan, helburu politiko batzuk lortzeko. Horrenbestez, bidegabekeria konponezina gogoratzean eta terrorismoari legitimazio etikoa, soziala eta politikoa kentzeko konpromiso aktiboa edukitzean datza, berriro ere jazo ez dadin. Biktimen duintasuna berretsi egin behar da eta haien herritar talde batekoak izatearen sentimendua sustatu.

# VII. BAKE, ASKATASUN ETA BIZIKIDETZA ESKUBIDEAK

**Bakea, askatasuna eta bizikidetza (4/2008 Legeko 9. art.)**

*"1.- Herritarrengan, pertsona talde batengan edo partikularrengan izu-egoera sortzeko asmoz indar ez-legitimo baten erabilera edo mehatxua ezin justifikatuzkoa da edozein egoeratan, edozein izanda ere justifikatu nahi izateko erabil daitezkeen gogoeta politikoak, filosofikoak, ideologikoak, arrazakoak, etnikoak, erlijiosoak edo bestelakoak.*
*2.- Euskal botere publikoek, beren eskumenen eremuan, Zuzenbide Estatu demokratikoan aurreikusitako neurriak hartuko dituzte eta guztiak bideratuko dituzte pertsonen eta taldeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen sustatzeko eta hori eragozten dituzten oztopoak kentzeko.*
*3.- Horretarako, euskal botere publikoek:*
*a) Pertsonak bakean eta askatasunean eta biolentziarik, beldurrik, zapalketarik edo larderiarik gabe bizitzeko eskubidea begiratuko dute, gai politikoei buruzko edo bestelako ezadostasunak soil-soilik bitarteko demokratikoak erabilita konpontzen dituztelarik, albo batera utzita indar ez-legitimo baten erabilera edo mehatxua.*
*b) Hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatuko dute.*
*c) Gizarte-hedabideek oro har balio demokratikoekin, giza eskubideekin, bakearekin eta askatasunarekin konpromisoa izan dezaten sustatuko dute, eta bermatuko dute horien aurkako adierazpenak ez direla zabalduko euskal Autonomia Erkidegoko hedabide publikoetan, edo bestela gizarte aske eta demokratiko baten balioekin konprometituta dagoen editorialen ikuspuntutik jasoko direla.*
*d) Terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako neurri aktiboak abiaraziko dituzte, Zuzenbide Estatu demokratikoaren zilegitasuna gizartean sustatuz eta, gure askatasunen eta bakezko elkarbizitzaren berme gisa, elkarbizitza integratzailerako arauetan antolatuz.*
*4.- Balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatzeko egoki iritzitako ekimenetan, terrorismoaren biktimen lekukotza eta partaidetza kontuan hartuko dira".*

**Administrazio ezberdinen jarduera guztietan, hezkuntza eta kultura agenteekiko eta hedabideekiko harremana barne, berretsi egin behar da ez duela inolako justifikaziorik askatasunari eta aniztasun politikoari egindako erasoak, gure bizikidetza Zuzenbide Estatuari zor zaion errespetuan oinarritzen baita. Botere publikoek bizikidetza hori bermatzeko betebeharra dute, horretarako terrorismoa prebenitzeko lehen, bigarren eta hirugarren mailako neurriak martxan jarriz.**

Biktimazio terrorista gehienak ezin dira konpondu, eta horrek esan nahi du biktimek ezin diotela biktima izateari utzi, egunetik egunera bizikide izango duten bidegabekeria bat delako. Egoera bereziki traumatikoa da ETAren terrorismo iraunkorraren kasuan. Hala eta guztiz ere, bitkimizazio horrekin bizitzen lagun dezaketen alderdiak bai bultza daitezkeela. Biktimek herritar gisa balio dutena eta herritarren taldean funtsezkoak direla etengabe berrestean datza, bai gizartean, bai erakundeen aldetik. Gauzak horrela, sustatu egin beharko da biktimizazioak ez baldintzatzea biktimen aukera guztien garapena etorkizunean.

Biktimizazio terroristak alderdi pertsonalak eta pertsonen artekoak gainditzen ditu, dimentsio soziopolitikoei eragiteko. Biktimen minari aurre egiteak ez die bakarrik laguntza alderdiei heltzen; horrekin batera, herritar eta erakunde gisa ditugun erantzukizunak gain hartzea ere bada. Horrela bakarrik hasi ahalko dugu biktimizazioa deuseztatzeko eta lehengoratze sozialeko benetako prozesu bat, eta bertan terrorismoak ez du inoiz tokirik topatuko zigorgabetasunerako edo legitimaziorako. Horrela bakarrik sentituko dute biktima askok benetako ordaina eskuratu dutela, dauden aukeren barruan. Horrela bakarrik berretsiko dira biktimek irudikatzen duten Zuzenbide Estatuaren aniztasun eta errespetu balioak. Hainbat urtean jasandako abandonuaren aurrean, egun erakundeek erakutsi egin behar diete biktimei haiekiko hartutako konpromisoa benetakoa, egiazkoa eta iraunkorra dela.

Biktimei izugarrizko mina eragiten die gizartearen axolagabekeriak, batez ere bizilagun eta lankideengandik etorritakoak, baina baita erakunde publikoetatik etorritakoak ere, izan ere, erakundeek biktimei laguntzeko eta herritarren konpromisoa sustatzeko betebeharra dute. Konpromiso horren barruan, biktimek prebentzio neurri egokiak espero dituzte arrisku egoeretarako, eta baita gizartearen aldetik arduratsuak diren eta terrorismoari legitimazioa kentzen dioten hezkuntza erakundeak eta hedabideak ere.

Udal eremuan, tokiko foro zibikoak sortzeari dagokionez, udalerrien %12ak bakarrik jarri du martxan ekimen hori, eta, zenbaitetan, edukia zehaztu gabe. Foru horien eraketa 2002ko maiatzaren 3ko EUDELen Deklarazioan ezartzen zen. Txosten honetatik ere beste datu bat atera daiteke: Ararteko erakundeari informazioa helarazi dioten udalerrietatik %45ak bakarrik erantzun du baietz demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakiak hartzeari buruzko galdera (hori ere EUDELen 2002ko maiatzaren 3an onetsitako Deklarazio Zibikoan aurreikusi zen eta 2003, 2005 eta 2007ko legebiltzarreko erabakietan gogorarazi zen). Lurralde historikoen artean, Gipuzkoa nabarmentzen da berriro ere negatiboki, bai erantzun kopuru baxuagatik, bai akordioak onartu dituen udalerri kopurua eskasa izateagatik. Edonola ere, akordio horiek onartu zituzten udalerri guztiak 2002an egin zuten. Hori dela eta, erabakiak eguneratu egin behar dira eta erretorika hutsean geratzen ez direla bermatu. Horrela, zehaztu egingo da eta, beraz, aldizka ebaluatu, zein izan den helburu eta edukien garapena.

Erabakiak onartu ez izateko aitzakia gisa, ezin da esan eraso terroristarik egon ez dela edota kasuan kasuko lurraldean hildakorik egon ez dela, ezta biztanleria eskasa dela edo sakabanatuta dagoela ere. Gogoratu egin behar da giza eskubideekiko konpromisoa unibertsala dela, eta unibertsaltasun hori, gainera, zehaztu egiten da “euskal herria” izena talde terrorista batek legitimotasunik gabe erabiltzearekiko errefusean, eta hori udal bakoitzak terrorismo ekintzetan esku har dezaketen eta udalerriari lotuta egon daitezkeen pertsonekiko prebentzio neurriak hartzeko duen betebeharraren kaltetan izan gabe.

Eskubide ezberdinen artean dauden loturak, zehazki memoriarako, ordaina eskuratzeko eta bizikidetzarako eskubideen artean dagoena, hezkuntza dimentsioan islatzen dira, biktimizazioak eta biktimizazio berriak etengabe prebenitzeko modu gisa bake kulturarantz abiatuz (zioen azalpeneko 63. paragrafoa). Horrela, 4/2008 Legeko II. Tituluan, eskubideei zuzendurikoa, hezkuntza 5. artikuluan (biktimen eskubidea ordaina

eskuratzeko) nahiz 9.3. artikuluan eta 9.4.an (herritarrek bakerako, askatasunerako eta bizikidetzarako dituzten eskubideak) aipatzen da.

Terrorismoari legitimazioa kentzea ordainerako politika oro orientatu behar duen printzipioa da. Berriro ez errepikatzearen funtsezko bermea balioen eta printzipio demokratikoen sustapena da, horretarako batez ere gazteenei zuzendutako bakean hezteko neurriak jarriz. Azpimarratu egin behar da Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, aurreko legegintzaldian ekimenak bideratu dituela biktimen parte-hartzea bermatzeko, alor honetako hezkuntza ekintzetan lekukotza pertsonalen bitartez. Edonola ere, adierazi egin behar da ez dela erabateko garapenik egon alderdi zehatz honetan.

Alor honetako udal ekimenen barruan, txosten honen arabera udalerrien %14ak bakarrik aipatzen ditu giza eskubideen aldeko ekintzak eta, normalean, izaera orokorrekoak izaten dira. Gauzak horrela, hurrengoak aipatzen dira: bideo forumak; zinema zikloak; bakerako hezkuntzako ekintzak; haurrentzako programak; gida eta foileto argitalpenak; komunitatean bitartekaritza sustatzea; gatazkak ebazteko agenteak trebatzea; erakusketak; ludotekak berariazko jarduerekin; web orrialdeak lantzea; kontzertuak; sentsibilizazio kanpainak; sariketa deialdiak; jardunaldiak eta topaketak egitea; "Terrorismoaren Biktimen Memoriaren eta Oroitzapenaren Egun Europarra" (M-11) ospatzea… Ekintza horietako asko ez dira zehatzak eta parte-hartze gutxi dute Euskadin terrorismoaren biktima izandakoen aldetik. Gainera, beharrezkoa litzateke gai honetan duten benetako inpaktua ebaluatzea.

Hezkuntza politiken barruan, jarraikakoak eta zeharkakoak direnak, sustatu egin behar dira kriminalitate eta biktimizazio terroristaren aurrean erresistentziako eta babeseko gizarte faktoreak eta faktore pertsonalak. Azkenik, biktimen aldeko politika orok aintzat hartu behar ditu administrazio ezberdinek garatutako praktika onen adibideak edo beste herrialde batzuetan ebaluazio positiboa jaso duten esperientziak. Horrela, ideia berritzaileak ekarri ahalko dira, giza eskubideekin errespetu gehiagokoak izango direnak. Esparru teknologikoan eta zientifikoan gertatzen den moduan, euskal erakundeek biktimen aldeko politikak sustatu behar dituzte terrorismoaren esparruan, XXI. mendean nabarmendu egingo direnak Zuzenbide Estatu bateko justizia, iraunkortasun eta eraginkortasun demokratikoagatik.

Alor honetan susta litezkeen ekintza zehatz modura, hauek nabarmenduko genituzke besteak beste:

## Bizikidetza askearen bermeak

– Udalerri guztiek demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko hartutako udal erabakiak eguneratu egin behar dituzte, edo, halakorik ez badago, horiek sortu eta aldizka ebaluatu.

– Euskal erakundeek etengabe ebaluatu behar dituzte beharrezko neurrien egokitasunak, kasu bakoitzerako zehatzak, mehatxu eta hertsapen terroristak jasaten dituzten biktimen askatasuna (alor guztietan), bizitza, segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa, duintasuna, bizitza pribatua eta familiakoa babesteko.

– Arreta egokia eman behar zaie polizia indar demokratikoen trebakuntzari, haientzako segurtasun neurriei eta gizartearen eta erakundeen aldetiko babesari, batez ere udalerri txikietan destinoa dutenenak. Indarrean dauden eta eraginkorrak diren balio demokratikoak oinarritzat dituen bizikidetza babestu behar da eta guztiz sustatu. Herritarren eta kargu publikoen askatasuna, duintasuna eta osotasun fisiko eta morala guztiz babestu behar dira horretarako beharrezkoak diren baliabideen bitartez.

**Hedabideak**

– Mehatxupean dauden kazetariei erakundeen eta gizartearen babesa erakusteko ekitaldiak piztu behar dira.

– Trebakuntzaren eta lankidetzarako protokoloen lanketaren bitartez, hedabideek, publikoek batez ere, biktimizazio terroristaren kontzientziaziorako balio behar dute, bidegabekoa eta justifikaezina, heterogeneoa, konplexua eta dinamikoa den fenomeno bat den heinean. Saihestezina da iritzi kritikoa bultzatuko duen iritzi publikoa, behar bezala informatuta dagoena, eratzeko konpromisoa hartzea.

– Hedabideek biktimizazioa deuseztatzeko prozesuen gaineko informazioaren alde eta biktimen lehengoratze sozialaren alde egin behar dute, estigmak saihestuz. Biktimen euren aniztasunaren aberastasuna erakutsi behar da, eta baita gizarte eta erakunde babesean eraginkorrak direla erakutsi duten gizarte mekanismoak ere.

– Prentsa eta adierazpen askatasunarekiko errespetuaren barruan, nahiz informazioa emateko eskubidearen barruan, mugak terrorismoaren biktimek duintasunerako eta segurtasunerako duten eskubideak jartzen ditu. Hedabideak erantzule dira biktimen duintasunari edota bizitza pribatuari edo familiakoari kalte egin diezaioketen gauzetan sartzen badira, sartze hori morbozko irudi edo aipamenak, edo irudi edo aipamen faltsuak, sentsazionalistak edo friboloak egitearekin gauzatzen direla ulertuta. Gainera, hedabideek ezin dute lagundu biktimak eta haien senideak arriskuan jartzen.

**Hezkuntza**

– Etorkizuneko biktimizazioak ekiditeko biktimek duten eskubideak eskatzen du herritarrak gorroto eta beldurrik gabe heztea, balio demokratikoak etengabe babesteko konpromisoa hartzea, eta helburu pertsonalak zein politikoak lortzeko bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzea, horrela bermatuko baita askatasunezko eta justiziazko bizikidetasuna.

– Prebentziorako neurri guztiekin gertatzen den bezala, hezkuntzaren alorrekoek faktore anitzeko ikuspegia, dinamikoa eta beste sozializazio agente batzuekiko koordinatua eduki behar dute. Bertan, lehen mailako prebentzioko edo prebentzio orokorreko alderdiak, bigarren mailakoak edo arrisku taldeenak eta hirugarren mailakoak edo zehatz eragindako pertsonenak jorratu behar dira, egon daitezkeen biktimei, gaizkileei eta biktimizazio testuinguruei begira.

- Jada existitzen diren zentro fisiko eta birtualetan dagoen material pedagogikoa erabiltzea bultzatu behar da, hau da, web orrialdeen bitartez eskura daitezkeen baliabideak, filmak, dokumentalak, prentsan agertutako albisteak, bideokonferentziak, erakusketak, museoekin eratutako akordio egonkorrak eta dokumentu idatzi eta ahozkoen artxiboak erabiltzea bultzatu behar da.

- Kontzientziaziorako eta bizikidetzarako hezkuntzarako programen diseinuak eta ebaluazioak, ikasle taldeei eta gizarte zibileko foro guztiei zuzenduak, biktimen euren parte-hartzea eduki behar dute. Gainera, haien lekukotza pertsonalak eta programen hartzaileekin aurrez aurre aritzeko dauden aukerak saihestezinak dira programen eraginkortasuna eta parte-hartzaileen gogobetetasuna baloratzeko. Alor honetan interesgarriak izan daitezke ikerketa-ekintza sareak, teoria eta praktika batzeko eta biktimek terrorismoaren prebentzioan duten interesen gauzatzea etengabe hobetzeko.

# ERANSKINAK

# I. ERANSKINA

## BIKTIMIZAZIOAREN ARRASTOAK: BATEZ ERE HILDAKO TERRORISMOAREN BIKTIMAK

### 1. Beste biktimizazio batzuk, etorkizuneko azterlan kuantitatiboen xede gisa

Orrialde hauek zuzenean hil diren biktimei buruzkoak badira ere, komenigarria da zehaztea etorkizunean ahaztu behar ez diren beste biktimizazio mota batzuen kopurua zabaldu egingo dela. ETAren adibidea hartuz gero, behin eta berriro errepikatzen den fenomenoa den heinean, zehaztapena egitea zaila da, ez dagoelako datu ofizial edo zientifiko irmorik. Biktimizazio esperientziei buruzko kapituluan jada adierazi den bezala, hurrengoak aipa daitezke: 16.000 zauritu eta haien senideak; kalte materialen biktimak; mehatxu edota derrigortzeen xede izandako 40.000 pertsona inguru, eta baita haien senideak ere; Euskaditik alde egin behar izan duen euskal herritar ugari; bahituak izan direnak; gogoz kontra atxiki dituztenak…

Aintzat hartu behar dira bereziki zauritutako pertsonak, haiei geratu zaizkien ondorioak biktimizazioaren lekuko baitira. Zeharkako biktima modura, espresuki gogoratu behar dira haien bikoteak, emakumezkoak gehienetan, eta haien seme-alabak. Azterketa kuantitatiboetatik haratago, batzuk honela adierazi dute jasandako biktimizazioaren neurria[1]:

> *–Atentatutik bizirik irteten zarenean, ezer gertatu ez balitz bezala da. Haiek ez dira existitzen eta gu ere ez… Gehien sufritu zutenak gure seme-alabak izan ziren… (beste atentatu bat jazotzen zenean) gelan giltzapetzen zen eta ez zion negar egiteari uzten.*
>
> *–… zaurituen emazteek bizi guztirako sufritzen dute. Beti hurrengo egunean gerta daitekeenaren tentsioarekin.*
>
> *–Ez genuen berriro Gabonetako zuhaitzik jarri, guztia gezurra zela esaten zuelako, seme-alaben urtebetetzea ere ez zuen ospatu nahi, eta izugarri maite zituelarik ere… Hil egin behar zuen zorigaiztoko bat zela esaten zuen bere buruari buruz…*

---

1 Lorena Gilek emakume ezberdinen ahotik jasotako lekukotzak. 2008. “Víctimas en la sombra”. *El Diario Vasco,* 2008ko otsailaren 8a, 34-35. orr.

*–...ohetik erortzen zen eta ni hura altxatzen saiatzen nintzen, baina ezin nuen harekin... Arazo psikologikoa jasaten laguntzen zioten pilulak kendu zizkioten. Baina oraindik, zenbaitetan, ohetik jaikitzen denean, begiratu egiten diot eta zera pentsatzen dut: "Gaur behar izango dituzu".*

## 2. Hildako biktimak

Idatz-zati honetan oinarrizko eskubidea, iraunkortasun izugarri luzearekin eta agian amaitu gabea oraindik, urratu dela erakutsi nahi diogu irakurleari: bizitzeko eskubidea, eta, harekin, baita pertsona hauei, haien senideei, lagunei, lankideei eta gizarte osoari kendu zaizkien gainerako eskubideak ere. Herritarren kide bat deuseztatzeak gizartea bera pobretzen du nabarmen, eta bizikidetza galarazten du oinarrizko eskakizun demokratikoa bada ere.

Ez da irakurketa erraza, baina uste dugu beharrezkoa dela. Egun hemeroteka digitalek, FVTko ahozko artxiboek eta idatzizko eta ikus-entzunezko beste iturri batzuk eskaintzen dituzten aukerekin osatu behar da. Han hunkitu egingo gaituzten eta gure herrikideen minak, gure auzoko edo hiriko herrikideak batzuk, inolako erreakziorik eragin zigun edota bere horretan utzi gintuen gure buruari galdetzera eramango gaituzten xehetasun batzuk topatuko ditugu.

Izen bakoitzak pertsona bat izaten jarrai zezakeena eta izan ez zena gogorarazten du, helburuak bitartekoak justifikatzen dituela dioen teoriaren pean nahita egindako bidegabekeria baten ondorioz. Halaber, biktimizazioaren uhin hedakorra ere erakartzen du, hau da, hurbileko ingurunean sortzen den eta konponezin bihurtzen den sufrimendua. Pertsona berezien aurrean gaude, batzuk haur eta gazte. Abizenak eta testuingurua aintzat hartuz gero, ikuspegi biktimologikoa duen irakurleak ikusiko du egintza terroristak hildako biktima bat baino gehiago ekarri zuela familia berdinera, hainbat zaurituez gain. Gehienak egintzan bertan hil ziren, beste batzuk egun batzuk geroago. Talde profesional ezberdinetako pertsonak topatu ditugu, erretiroa hartu dutenak edo lana utzi dutenak zenbaitetan. Udalerri ezberdinei uztartutako pertsonak dira, ideia ezberdinekin..., baina guztiak bidegabe erail dituzte, eta batzuk, orain dela gutxi arte, bidegabe ahaztu dira. Haien izenek publikoki gogoratzeko konpromisoan jartzen gaituzte, terrorismoari legitimazioa kentzeko, berriro errepikatuko ez denaren benetako berme gisa.

Baina ez du edozein oroitzapenak balio, eta idatz-zati hau bilaketaren hasiera besterik ez da. ETAk eraildako pertsona baten alabak zera idatzi du orain dela gutxi: *"...askotan demagogikoegiak diren hitzaldiak ematen dira. Baina oso gutxi jakiten da omenaldia jasotzen duen pertsonaren gainean. Agintariek hitz egiten dute, baina gutxi entzuten zaio biktimari, semea, anaia, senarra edo zoritxarreko mutilazioren batekin geratu zen senitartekoa zein zen esateko beharra duen hari. Askotan ahazten den zerbait garrantzitsua dago hemen. Biktima guztiek izen-abizenak dituzte. Ezin da orokortasunez hitz egin, eta, horregatik, bereziki beharrezkoak dira aitorpen eta oroitzapen pertsonalizatuak, pertsona hauek egiten dituzten eskaerei emaniko arreta bezalaxe"*[2].

---

2 Teresa Díaz Bada. 2009. "El aniversario de aquel horrible día". *El Diario Vasco*, martxoaren 11koa, 26. or.

## 3. Zehaztapenak erabilitako iturrien gainean

Arartekoa erakunde autonomikoa denez, hildako biktimen zerrenda lantzeko Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren (TBLZ) irizpideak erabili ditugu, beste erakunde batzuk adierazitako beste biktima batzuen gainean argibide erako oharrak sartzearen eta datu batzuk osatzearen kaltetan izan gabe[3].

TBLZren zerrendak ez ditu Iraultza – Euskal Ezker Erradikalaren biktima batzuk hartzen, ezta Grupo de Resistencia Antifascista Primero de Octubre (GRAPO) taldeak eragindako batzuk ere baina bai aipatzen ditu Euskaditik kanpo jardun zuen talde terrorista honen beste batzuk. Aipatu zerrendan FVTk ETAren biktimatzat jotzen dituen pertsona batzuren izenak falta dira, eta, zenbaitetan, baita eskuin muturreko taldeen biktimenak ere, nahiz eta talde horien biktimei dagokienean TBLZren irizpidea zehatzagoa eta zabalagoa den[4]. Nolanahi ere TBLZren zerrenda osatu egin dugu aurkitu ditugun gabeziak konponduz. GRAPOren biktimak gure zerrendan sartu ditugu, lehen esan bezala TBLZren zerrendak horietako gehienak jasotzen zituelako, baina Euskaditik kanpora jardun duten gainerako talde terroristen biktimak ez ditugu sartu.

Bestalde, COVITEk, "minaren balantzea" izeneko atal orokor bat du, eta bertan Mendeku eta Jarrairen (kale borroka) biktimak jasotzen dira espresuki[5].

---

3 Victimas del Terrorismo Fundazioaren zerrenda eguneratuak begiratu ditugu (http://www.fundacionvt.org helbidean), Victimas del Terrorismo Elkartearenak (http://www.avt.org helbidean) –Belen Pulgarren liburua oinarri hartuta (2004)– eta COVITErenak (http://www.covite.org helbidean). Biktimizazio terroristaren esperientziei buruzko kapituluan aipatu den moduan, fundazioak ahozko istorioen artxibo garrantzitsua ere jaso du bere web orrialdean, hainbat biktimaren ikus-entzunezko lekukotzaren bitartez. Kasu zehatz batzuetan, desadostasunak daude zerrenda hau alderatzeko kontsultatu diren lau zerrenden artean: Victimas del Terrorismo Elkartea, Victimas del Terrorismo Fundazioa, COVITE eta hemeroteka digital ezberdinak. Edonola ere, horietako batzuk ez dituzte lehenengo urteak hartzen. Gainera, aintzat hartu dira terrorismoaren biktimei buruzko informazioa duten beste web orrialde batzuk, adibidez Guardia Zibilarena (http://www.guardiacivil.org/terrorismo/acciones/busqueda.jsp?Por=ETA&Fecha=TODOS), eta horiekin batera baita berariazko blog batzuk ere (http://victimas-de-eta.blogspot.com).

Corona de Aragón Hoteleko suteari dagokionez (1979-07-12), 80 pertsona hil zirela zenbatetsi da, nahiz eta gutxi gorabeherako batura bat den. TBLZko zerrendan, 78 ageri dira. Zaurituak ospitale ezberdinetara eraman eta batzuk aste batzuk igarota hil zirenez, ez zen horren berri xehetasun osoz jaso zentro horietako zerrendetan, hotelekoetan edo hedabideenetan. Victimas del Terrorismo Elkarteak beti adierazi izan du ETAren atentatu bat izan zela. Azkenean, 2000 urtean, senideei Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko 32/1999 Legearen babesean eman zitzaien kalte-ordaina. Estatu Kontseiluak gai horri dagokionez emandako irizpenarekin bat etorriz, 2000ko martxoaren 30ekoa hura, organo jurisdikzionalek ez zuten behar besteko aztarnarik topatu zehapen prozedura bat bideratzeko, "*bai, ordea, administrazio erabaki baten funtsa izateko*", aipatutako legeko 2.1 artikuluan ezarritakoa bezalakoa. Arrazoiketa hori sendotu egin zen terrorismoaren biktimei laguntzeko legediari laguntza izaera onartzean. Kasu horretan, biktima erakundeen zerrenda ezberdinek ez dute pertsonaren lanbidea adierazten. Esaten dutena biktimizazioa hotel hartan gertatu zela da. Lanbideari buruzko ezaugarri hori ere "California" kafetegiko biktimei ere aplika dakieke (1979-05-26), GRAPO taldearen kasuan.

4 TBLZk hurrengo siglak jasotzen ditu: Extrema Derecha (ED); Batallón Vasco Español (BVE); Sáez de Inestrillas, Duce (SIN); López Ocaña, Rafael (LO); Triple A (AAA); Grupo Antiterrorista de Liberación (GAL); Galindo, Dorado, Bayo (GDB); eta Mikel Otegi (MO). Gainera, zehaztu gabeak (ZG) eta kontrolik gabeak (KG) ere ageri dira.

5 Ikusi http://www.covite.org helbidean, data eta talde arduraduna gorabehera antolatuz zerrenda.

Uste dugu komenigarria dela biktima guztien lanbidea edo egitekoa sartzea, alderdi horretan hutsune batzuk ematen direlako TBLZren zerrendan, batez ere ez funtzionario, ez kargu publiko ez ziren pertsonei dagokienez. Hutsune horiek konpontzeak biktimizazioaren zabaltze maila ikustea ahalbidetzen du, pertsona bakoitzak, banan-banan, duen balioa eta esanahia gogorarazteaz gain. Adibidez, beti ez da zehazten pertsona erretiroa hartuta edo lana utzita zegoen, eskola adinean zegoen, etxekoandrea zen edo tailerreko mekanikaria zen, eta hori biktimizazioari aurre egiteko baliabide ekonomiko eta sozial urriagoen adierazle litzateke. Gainera, “politikariaren” kategoria zabalaren barruan, zehaztu egin behar da kargu publiko batean zegoen edo ez eta kargu hori zein eremukoa zen. Biktimizazio prozesuari buruzko datu garrantzitsu gehiago emateaz gari gara, jasandako bidegabekeria eta administrazio publikoen oinarrizko betebeharrak berdinak izan arren. Aurreko iritziarekin bat etorriz, uste dugu Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen barruan zehaztu egin behar dela agente bat zen edo goragoko agintari bat. Ohar hori Botere Judizialeko, Fiskaltzako eta Espetxeetako Funtzionarioen Kidegoetako kideei ere zabal dakieke. Enpresaburuei dagokienez, zuzendarien eta denda edo establezimendu txikien jabeen artean bereiztea komeniko litzateke. TBLZko zerrendetan okupazioa ageri ez zeneko kasuetan, eta hemerografikoki bete ezin izan denetan, okupaziorako atala hutsik utzi da.

Azkenik, salbuespen modura, desberdintasunak agertu dira data batzuei dagokienez, talde terrorista zehazteari dagokionez eta izen-abizen batzuei dagokienez. Horiek zehatzak izatea garrantzitsua da, biktimen memoria delako eta zerrenda publikoa delako[6].

[6] Orokorrean, gehiengoaren irizpidea jarraitu dugu, hau da, sartu ez diren biktimentzako edo datuetan ageri diren desadostasunetarako, lehentasuna eman zaie gutxienez bi iturritan berdin agertzen direnei. Barkamena eskatu nahi diegu biktimen senitartekoei, egon daitekeen edozein akats edo errorerengatik, eta benetan eskertuko genuke horiek konpontzen lagunduko baligute.

**30. TAULA:**
**ATENTATU TERRORISTEN BIKTIMAK**
**(edizio inprimatuaren bertsio eguneratua eta berraztertua)**

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| **2009** | | | | | |
| 2009-07-30 | SÁENZ DE TEJADA GARCÍA, Carlos*** | 2009-07-30 | ETA | Guardia zibila | Palmanova |
| 2009-07-30 | SALVA LEZAUN, Diego*** | 2009-07-30 | ETA | Guardia zibila | Palmanova |
| 2009-06-19 | PUELLES GARCÍA, Eduardo Antonio | 2009-06-19 | ETA | Polizia Nazionaleko inspektorea | Arrigorriaga |
| **2008** | | | | | |
| 2008-12-03 | URÍA MENDIZÁBAL, Ignacio | 2008-12-03 | ETA | Enpresaburua | Azpeitia |
| 2008-09-22 | CONDE DE LA CRUZ, Luis | 2008-09-22 | ETA | Militarra | Santoña |
| 2008-05-14 | PIÑUEL VILLALÓN, Juan Manuel | 2008-05-14 | ETA | Guardia zibila | Legutiano |
| 2008-03-07 | CARRASCO MIGUEL, Isaías | 2008-03-07 | ETA | Langilea, PSE-EE alderdiko zinegotzi ohia | Arrasate/Mondragón |
| **2007** | | | | | |
| 2007-12-01 | CENTENO BAYÓN, Raúl | 2007-12-01 | ETA | Guardia zibila | Capbreton |
| 2007-12-01 | TRAPERO BLÁZQUEZ, Fernando | 2007-12-05 | ETA | Guardia zibila | Capbreton |
| **2006** | | | | | |
| 2006-12-30 | ALONSO PALATE, Carlos | 2006-12-30 | ETA | Langilea | Madrid |
| 2006-12-30 | ESTACIO SIVISAPA, Diego Armando | 2006-12-30 | ETA | Langilea | Madrid |
| 2006-02-06 | HERRERO IZQUIERDO, Ana Isabel* | 2006-02-06 | GRAPO | Enpresaburua | Zaragoza |
| **2003** | | | | | |
| 2003-05-30 | EMBID LUNA, Julián | 2003-05-30 | ETA | Polizia nazionala | Sangüesa |
| 2003-05-30 | MARTÍN HERNÁNDEZ, Bonifacio | 2003-05-30 | ETA | Polizia nazionala | Sangüesa |
| 2003-02-08 | PAGAZAURTUNDUA RUIZ , Joseba | 2003-02-08 | ETA | Udaltzaingo burua | Andoain |
| **2002** | | | | | |
| 2002-12-17 | MOLINA MARTÍN, Antonio | 2002-12-17 | ETA | Guardia zibila | Collado Villalba |
| 2002-09-24 | BEIRO MONTES, Juan Carlos | 2002-09-24 | ETA | Guardia zibila | Leitza |

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2002-08-04 | GALLEGO ALAMINOS, Cecilio | 2002-08-04 | ETA | Telefono enpresa batean erretiroa hartuta | Santa Pola |
| 2002-08-04 | MARTÍNEZ SANTIAGO, Silvia | 2002-08-04 | ETA | Ikaslea | Santa Pola |
| 2002-03-21 | PRIEDE PÉREZ, Juan | 2002-03-21 | ETA | PSE-EE alderdiaren zinegotzia Orion | Orio |
| **2001** | | | | | |
| 2001-11-23 | ARÓSTEGUI LEGARRETA, Mª Isabel | 2001-11-23 | ETA | Ertzaina | Beasain |
| 2001-11-23 | MIJANGOS MARTÍNEZ DE BUJO, Javier | 2001-11-23 | ETA | Ertzaina | Beasain |
| 2001-11-07 | LIDÓN CORBI José Mª | 2001-11-07 | ETA | Bizkaiko Probintzia Auzitegiko magistratua | Getxo |
| 2001-08-20 | ERAUNCETAMURGIL ALKORTA, Mª Francisca | 2001-08-20 | ZG | Bestelakoak | Donostia-San Sebastián |
| 2001-07-28 | OREJA PEDRAZA, Justo | 2001-07-28 | ETA | Teniente koronela | Madrid |
| 2001-07-14 | MÚGICA ASTIBIA, José Javier | 2001-07-14 | ETA | UPNko zinegotzia Leitzan | Leitza |
| 2001-07-14 | URIBE AURKIA, Mikel | 2001-07-14 | ETA | Ertzaintzako ikuskaritza burua | Leaburu |
| 2001-07-10 | ORTIZ DE LA ROSA, Luis | 2001-07-10 | ETA | Polizia nazionala | Madrid |
| 2001-05-24 | OLEAGA ELEJABARRIETA, Santiago | 2001-05-24 | ETA | Diario Vascoko finantza zuzendaria | Donostia-San Sebastián |
| 2001-05-06 | GIMÉNEZ ABAD, Manuel | 2001-05-06 | ETA | PP alderdiaren presidentea Aragoin | Zaragoza |
| 2001-03-20 | ELESPE INCIARTE, Froilán | 2001-03-20 | ETA | PSE-EEko alkateordea | Lasarte-Oria |
| 2001-03-17 | SANTAMARÍA AVEDAÑO, Santos | 2001-03-17 | ETA | Mosso d'esquadra | Roses |
| 2001-03-09 | TOTORIKA VEGA, Iñaki | 2001-03-09 | ETA | Ertzaina | Hernani |
| 2001-02-22 | LEONET AZKUNE, Josu | 2001-02-22 | ETA | Elektrako langilea | Donostia-San Sebastián |
| 2001-02-22 | SANTOS LARANGA, Jóse Ángel | 2001-02-22 | ETA | Elektrako langilea | Donostia-San Sebastián |
| 2001-01-26 | DÍAZ GARCÍA, Ramón | 2001-01-26 | ETA | Itsas Komandantziako sukaldaria | Donostia-San Sebastián |
| **2000** | | | | | |
| 2000-12-20 | GERVILLA VALLADOLID, Juan Miguel | 2000-12-20 | ETA | Udaltzaingoa | Barcelona |
| 2000-12-14 | CANO CONSUEGRA, Francisco | 2000-12-14 | ETA | Viladecavallseko PPko zinegotzia | Terrassa |

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2000-11-21 | LLUCH MARTÍN, Ernest | 2000-11-21 | ETA | Osasuna eta Kontsumoko ministro ohi sozialista | Barcelona |
| 2000-11-17 | SANZ MORALES, Francisco | 2000-11-17 | GRAPO | Polizia nazionala | Madrid |
| 2000-11-08 | SÁNCHEZ MARTÍNEZ, Jesús | 2000-11-08 | ETA | Autobus gidaria | Madrid |
| 2000-10-30 | ESCUDERO GARCÍA, Jesús | 2000-10-30 | ETA | Polizia nazionala | Madrid |
| 2000-10-30 | MEDINA SÁNCHEZ, Armando | 2000-10-30 | ETA | Auzitegi Goreneko gidaria | Madrid |
| 2000-10-30 | QUEROL LOMBARDERO, José Francisco | 2000-10-30 | ETA | Auzitegi Goreneko magistratua | Madrid |
| 2000-10-22 | CASADO CARRERA, Máximo | 2000-10-22 | ETA | Espetxeetako funtzionario kidegoko zerbitzu burua | Vitoria-Gasteiz |
| 2000-10-16 | MUÑOZ CARIÑANOS, Antonio | 2000-10-16 | ETA | Sendagile militarra | Sevilla |
| 2000-10-09 | PORTERO GARCÍA, Luis | 2000-10-09 | ETA | Andaluziako Justiziako Auzitegi Nagusiko fiskalburua | Granada |
| 2000-09-21 | RUIZ CASADO, José Luis | 2000-09-21 | ETA | PPko zinegotzia Sant Adrià de Besòs udalerrian | Sant Adrià de Besòs |
| 2000-08-29 | INDIANO AZAUSTRE, Manuel | 2000-08-29 | ETA | PPko zinegotzia Zumarragan | Zumarraga |
| 2000-08-20 | FERNÁNDEZ PEREDA, Irene | 2000-08-20 | ETA | Guardia Zibila | Sallent de Gállego |
| 2000-08-20 | JESÚS ENCINAS, José Ángel de | 2000-08-20 | ETA | Guardia Zibila | Sallent de Gállego |
| 2000-08-09 | CASANOVA VICENTE, Francisco | 2000-08-09 | ETA | Ejertzitoko tenienteordea | Berriozar |
| 2000-08-08 | KORTA URANGA, José Mª | 2000-08-08 | ETA | Enpresaburua, Enpresaburu Elkar-teko presidentea | Zumaia |
| 2000-07-29 | JAUREGI APALATEGI, Juan Mª | 2000-07-29 | ETA | Gipuzkoako gobernatzaile zibil ohia | Tolosa |
| 2000-06-15 | MARTÍN CARPENA, José Mª | 2000-06-15 | ETA | PPko zinegotzia Malagan | Málaga |
| 2000-06-04 | PEDROSA URQUIZA, Jesús Mª | 2000-06-04 | ETA | PPko zinegotzia Durangon | Durango |
| 2000-05-08 | SOBRAL OTERO, Jesús | 2000-05-08 | GRAPO | Zinpeko guardia | Vigo |
| 2000-05-08 | TORRES LAGE, Gonzalo | 2000-05-08 | GRAPO | Zinpeko guardia | Vigo |
| 2000-05-07 | LÓPEZ DE LA CALLE, José Luis | 2000-05-07 | ETA | Kazetaria | Andoain |
| 2000-02-22 | BUESA BLANCO, Fernando | 2000-02-22 | ETA | PSE-EEko eusko legebiltzarkidea | Vitoria-Gasteiz |

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2000-02-22 | DÍEZ ELORZA, Jorge | 2000-02-22 | ETA | Ertzaina | Vitoria-Gasteiz |
| 2000-01-21 | BLANCO GARCÍA, Pedro Antonio | 2000-01-21 | ETA | Ejertzitoko teniente koronela | Madrid |
| **1998** | | | | | |
| 1998-06-25 | ZAMARREÑO VILLORIA, Manuel Francisco | 1998-06-25 | ETA | PPko zinegotzia Errenterian | Errenteria |
| 1998-05-08 | PARADA ULLOA, Alfonso | 1998-05-08 | ETA | Guardia zibila | Vitoria-Gasteiz |
| 1998-05-06 | CABALLERO PASTOR, Tomás | 1998-05-06 | ETA | UPNko zinegotzia | Pamplona/Iruña |
| 1998-01-30 | GARCÍA ORTIZ, Ascensión | 1998-01-30 | ETA | Abokatua, PPko zinegotziaren emaztea | Sevilla |
| 1998-01-30 | JIMÉNEZ BECERRIL BARRIO, Alberto | 1998-01-30 | ETA | PPko zinegotzia Sevillan | Sevilla |
| 1998-01-09 | IRURETAGOYENA LARRAÑAGA, José Ignacio | 1998-01-09 | ETA | PPko zinegotzia Zarautzen | Zarautz |
| 1997 | | | | | |
| 1997-12-11 | CASO CORTINES, José Luis | 1997-12-11 | ETA | PPko zinegotzia Errenterian | Irun |
| 1997-10-13 | AGUIRRE LARRAONA, José Mª | 1997-10-13 | ETA | Ertzaina | Bilbao |
| 1997-09-05 | VILLAR ENCISO, Daniel | 1997-09-05 | ETA | Polizia nazionala | Basauri |
| 1997-07-10 | BLANCO GARRIDO, Miguel Ángel | 1997-07-10 | ETA | PPko zinegotzia Ermuan | Ermua |
| 1997-05-13 | CAÑO IBÁÑEZ, Clemente del | 1997-05-13 | ZG | Bestelakoak | Irun |
| 1997-05-03 | GARCÍA FERNÁNDEZ, José Manuel | 1997-05-03 | ETA | Guardia zibila | Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena |
| 1997-04-24 | SAMPEIRO SAÑUDO, Luis Andrés | 1997-04-24 | ETA | Polizia nazionala | Bilbao |
| 1997-03-11 | GÓMEZ ELÓSEGUI, Francisco Javier | 1997-03-11 | ETA | Espetxeetako funtzionario kidegoko psikologoa | Donostia-San Sebastián |
| 1997-02-17 | RICO PASARIN, Modesto | 1997-02-17 | ETA | Polizia nazionala | Bilbao |
| 1997-02-13 | PORTUGAL DEL ALAMO, Ángel | 1997-02-13 | ZG | Autobus gidaria | Donostia-San Sebastián |
| 1997-02-11 | ARRATIBEL FUENTES, Francisco | 1997-02-11 | ETA | Enpresaburua | Tolosa |
| 1997-02-10 | MARTÍNEZ EMPERADOR, Rafael | 1997-02-10 | ETA | Auzitegi Goreneko magistratua | Madrid |
| 1997-02-10 | PUENTE MARÍN, Domingo | 1997-02-10 | ETA | Ile apaintzailea | Granada |

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1997-01-30 | OLACIREGUI BORDA, Eugenio | 1997-01-30 | ETA | Saltzailea bizikleta denda batean | Donostia-San Sebastián |
| 1997-01-08 | CUESTA ABRIL, Jesús Agustín | 1997-01-08 | ETA | Militarra | Madrid |
| 1996 | | | | | |
| 1996-10-14 | APELLANIZ PAGOLA, Serafín | 1996-10-14 | CCAA | Enpresaburua | Tolosa |
| 1996-07-26 | USABIAGA ESNAOLA, Isidro | 1996-07-26 | ETA | Enpresaburua | Ordizia |
| 1996-05-20 | AYLLON DÍAZ-GONZÁLEZ, Miguel Ángel | 1996-05-20 | ETA | Ingeniarien sarjentua | Córdoba |
| 1996-03-04 | DORAL TRABADELO, Ramón | 1996-03-04 | ETA | Ertzaintzako inspektorea | Irun |
| 1996-02-14 | TOMÁS Y VALIENTE, Francisco | 1996-02-14 | ETA | Zuzenbide katedraduna, Konstituzio Auzitegiko presidente ohia | Madrid |
| 1996-02-06 | MÚGICA HERZOG, Fernando | 1996-02-06 | ETA | Abokatua, PSE-EEko militante | Donostia-San Sebastián |
| 1995 | | | | | |
| 1995-12-22 | CORTIZO ALONSO, Luciano | 1995-12-22 | ETA | Artilleriako komandantea | León |
| 1995-12-16 | CORRESA HUERTA, Josefina | 1995-12-16 | ETA | | Valencia |
| 1995-12-11 | CARRASCO ALMANSA, Manuel | 1995-12-11 | ETA | Armadako gidari zibila | Madrid |
| 1995-12-11 | ESTEBAN JUNQUER, Santiago | 1995-12-11 | ETA | Armadako administraria | Madrid |
| 1995-12-11 | INTRIAGO ESTEBAN, José Ramón | 1995-12-11 | ETA | Armadako txapista | Madrid |
| 1995-12-11 | LÓPEZ DEL CASTILLO, Florentino | 1995-12-11 | ETA | Armadako gidari mekanikoa | Madrid |
| 1995-12-11 | RAMOS BAILÓN, Félix | 1995-12-11 | ETA | Armadako txapista | Madrid |
| 1995-12-11 | ROSA VALERO, Martín | 1995-12-11 | ETA | Armadako gidari mekanikoa | Madrid |
| 1995-12-10 | GONZÁLEZ VILLANUEVA, José Luis | 1995-12-10 | MO | Ertzaina | Itsasondo |
| 1995-12-10 | MENDILUCE ETXEBERRIA, Iñaki | 1995-12-10 | MO | Ertzaina | Itsasondo |
| 1995-06-19 | REBOLLO GARCÍA, Jesús | 1995-06-19 | ETA | Udaltzaingoa | Madrid |
| 1995-06-08 | NIETO VIYELLA, Enrique | 1995-06-08 | ETA | Polizia nazionala | Donostia-San Sebastián |
| 1995-04-20 | LÓPEZ MORENO, Eduardo | 1995-04-20 | ETA | Polizia nazionala | Lesaka |
| 1995-04-19 | GONZÁLEZ MANSILLA, Margarita | 1995-04-19 | ETA | Erretiratua | Madrid |
| 1995-04-10 | JUAN SANTA MARÍA, Mariano de | 1995-04-10 | ETA | Militarra | Donostia-San Sebastián |

| ATENTATUAREN DATA | IZENA | HERIOTZA | EGILEA | LANBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1995-01-23 | ORDÓÑEZ FENOLLAR, Gregorio | 1995-01-23 | ETA | Alkateordea, PPko presidentea Gipuzkoan | Donostia-San Sebastián |
| 1995-01-13 | DURÁN DÍEZ, Domingo | 1995-03-07 | ETA | Polizia nazionala | Bilbao |
| 1995-01-13 | LEYVA LORO, Rafael | 1995-01-13 | ETA | Polizia nazionala | Bilbao |
| 1994 | | | | | |
| 1994-12-15 | MORCILLO CALERO, Alfonso | 1994-12-15 | ETA | Udaltzaingoa | Lasarte-Oria |
| 1994-03-21 | SANTANA RAMOS, José | 1994-08-21 | ETA | Polizia nazionala | Berango |
| 1994-08-10 | DÍAZ LOSADA, José Antonio | 1994-08-10 | ETA | Igeltseroa | Bilbao |
2. ___Bizitzeko eskubidea, ideia politikoak edozelakoak izanda ere (35)
3. ___Etxebizitza duina izateko eskubidea (36)
4. ___Lana edukitzeko eskubidea (37)
5. ___Hezkuntza hartzeko eskubidea
6. ___Sexu, arraza, hizkuntza, erlijio, orientazio sexuala eta abarrengatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea
7. ___Haurtzaro duina izateko eskubidea
8. ___Osasunerako eskubidea
9. ___Ingurumen osasungarria izateko eskubidea
10. ___ Beste batzuk (Zehaztu.........................................................)

**Amaitu dugu. Orain itxi liburuxka eta egin kasu inkestak banatu dizkizuenari.**

**ESKERRIK ASKO**

# V. ERANSKINA

## TERRORISMOAREN BIKTIMEN ALORREAN APLIKA DAITEZKEEN ARAUAK, BALIABIDEAK ETA DOKUMENTU ARAUTZAILEAK

Nazioarteko, estatuko, autonomia erkidegoetako, foru aldundietako eta tokiko arau eta baliabide zerrenda –izaera juridiko ezberdinekoak– luzeari buruzko idatz-zati hau irakurtze soilarekin posible da ondorioztatzea behar bestekoak direla aurreikuspen arautzaileak, horiek denborak aurrera egin ahala egokitu behar izatearen kaltetan izan gabe. Berriro ere, ordea, deigarria da testuetan agertzen den eskubideak benetan gauzatzen den eskubidearekiko duen aldea, txosten honetan aztertu den modura. Bien arteko zirrikituak biktimizazio bizipenetan, biktimen euren eskaeretan edo eguneroko gizarte babesean ageri dira. Alde horrek larriki kaltetzen ditu terrorismoaren biktimak, eta gizarteari irudi dakioke eskubide eta itxaropen legitimoak behar bezala beteta daudela. Gaiaren alorreko arauditik eratorritako betebeharrak, euskal administrazio guztientzat, ekintza zehatzetan islatu behar dira, kanpotik ebalua daitekeen modu batean, eta, horrekin batera, jarrera aktiboa, hurbilekoa, kalteturikoekiko errespetu eta enpatiazkoa erakutsi. Halaber, konpromiso esplizitua, argia eta iraunkorra eduki behar da, herritar gisa ezinbestekoak direla berresteko.

Hurrengo zerrenda arau edo baliabide bakoitzaren lurralde eremua bereiziz antolatzen da: nazioartekoa, estatu mailakoa, autonomikoa, foru aldundiena edo udaletakoa. Barne hurrenkera maila arautzailearen, kronologiaren eta haren jatorria zein organotan dagoen gorabehera antolatu da. Gehienentzat testuaren deskribapen laburra erantsi da, “on line” kontsultatzeko esteka bat bezalaxe[1]. Baliabide bakoitzaren zuzenbide balioa ezberdina da duen izaera gorabehera, nahiz eta guztiek garrantzia izan maila ezberdinetako interpretazio iturri gisa.

## 1. Nazioarteko eremua[2]

### 1.1. Nazio Batuak

– *Delituen eta Botere Abusuen Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Deklarazioa* (1985). Deklarazio horretan delituen eta botere abusuaren biktimak definitzen dira, eta haien eskubideen zerrenda ematen. “Biktimatzat” hartuko dira banaka zein taldeka kalteak jasan dituzten pertsonak, lesio fisikoak edo burukoak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideetan urradura garrantzitsua jasan duten pertsonak, baldin eta ondorio horiek

[1] Web orrialdea zehazten da, eta, zenbait kasutan, hara irits daiteke sagua baliabidearen izenaren gainean jarriz. Esteka horiek idatz-zati hau idatzi zen unean eguneratu ziren, ondoren eduki ahal izan dituzten aldarazpenen kaltetan izan gabe.

[2] Arauak eta baliabideak egin dituzten nazioarteko erakundeen hizkuntza ofizialen barruan, gaztelerazko testua zuen helbidea bilatu da lehenik eta behin. Horrelakorik ez bada topatu, ingelesez edota frantsesez azalduko dira.

estatu kideetan indarrean dagoen zehapen legedia –botere abusua debekatzen duena barne– urratzen duten egintzen edo egintza ezen ondotik etorri badira. Deklarazioarekin bat etorriz, "biktimatzat" hartu ahalko da pertsona bat kaltea eragin duen pertsona identifikatzen den, harrapatzen den, epaitzen den edo zehatzen den edo ez alde batera utzita eta egilearen eta biktimaren arteko familia harremana edozein dela ere. "Biktima" adierazpenean, gainera, biktimarekin harreman zuzena duten senideak edo pertsonak ere sartzen dira, eta baita arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartu duten eta kalteak jasan dituzten pertsonak ere. Deklarazioko xedapenak pertsona guztiei aplikatuko zaizkie, haien arraza, kolorea, sexua, adina, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoa edo bestelako iritziak, sinesmenak edo kultur jarduera, egoera ekonomikoa, jaiotza edo familia egoera, jatorri etnikoa edo soziala edo eragozpen fisikoa bezalako alderdiak aintzat hartu gabe. Biktimek eskubidea dute justizia eta bidezko tratua, konpentsazioa, ordaina eta osasun laguntza, laguntza psikologikoa, laguntza materiala eta soziala eskuratzeko.
Botere abusuaren biktimek ere eskubide berdinak dituzte. "Biktimatzat" hartuko dira banaka zein taldeka kalteak jasan dituzten pertsonak, lesio fisikoak edo burukoak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideetan urradura garrantzitsua jasan duten pertsonak, baldin eta ondorio horiek estatu bateko zehapen zuzenbidearen urradurak izatera iritsi ez, baina giza eskubideei buruz nazioartean onartutako arauak urratzen dituzten ekintzetatik edo ekintza ezetatik eratorri badira. Estatuek botere abusua debekatzeko eta abusu horien biktimei konponbideak emateko arauak estatu mailako legedietan sartzeko aukera hausnartuko dute.
Http://www.unodc.org/pdf/compendium/compendium_2006_es.pdf, 313-316. orr.

– *Biktimentzako Justizia Gidaliburua: Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Nazio Batuen aplikazioari eta erabilerari buruzkoa* (1999). 1985eko Deklarazioaren argibide gida bat da, delituen eta botere abusuaren biktimekin lan egiten duten profesional eta boluntarioentzat.
  Http://www.justiciacordoba.gov.ar/site/Asp/DerechoshumanosPublicaciones.asp

– *Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioen Nazio Batuen Deklarazioa aplikatzeko agintarientzako gida* (1999). Jarduera printzipio hauek maila ezberdinetan biktimen aldeko politikak diseinatzen dituztenei zuzendurikoak dira.
  Http://www.uncjin.org/Standards/policy.pdf

– *Delitu eta Botere Abusuaren Biktima direnentzako Justizia eta Laguntzaren Hitzarmen Proiektua* (2006). Oraindik amaitu eta berretsi gabe dagoen proiektu bat bada ere, haren garrantzia etorkizunean izan dezakeen lotura juridikoan dago. "Biktimak" hitzak esan nahi du pertsonek, banan-banan edo taldeka, kaltea jasan dutela biktimizazioaren alorrean, alderdi fisikoak eta psikikoak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoa eta oinarrizko eskubideen urradura barne. Espresuki aipatzen da izaera terrorista duen kaltea. Pertsona bat biktima da kontuan hartu

gabe delitua poliziaren aurrean salatu den edo ez, egilea identifikatu, atxilotu, epaitu edo zehatu den edo ez, edo egilearen eta biktimaren artean harremana egon edo ez. "Biktimak" terminoak, halaber, pertsonaren hurbileneko familia edo haren ardurapean daudenak hartuko lituzke beharrezkoa balitz, eta baita kalte edo biktimizazio berriak saihesteko esku hartu duten gainerako pertsonak ere. Espresuki azpimarratzen dira biktimen informazio eta babes eskubideak. Gainera, lehengoratzeko justizian gelditu egiten da, eta baita biktimen eskubideen aplikazio eraginkorrean, ikuskapenean eta lankidetzan ere.
Http://www.tilburguniversity.nl/intervict/undeclaration

– *Delituen biktimak: Justizia administratuz haiek lagundu eta babesteko.* 39. argitalpena, 2003 *Delinkuentzia Prebenitu eta Kontrolatzeko Institutu Europarrarena, Nazio Batuei uztartua (HEUNI). Azterlan horretan praktika onen adibide batzuk erakusten dira orokorrean delituen biktimentzako tratamenduarekin uztartuta.*
*Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/crime victims.pdf*.

– *Lehengoratzeko justizia programen erabilerari buruzko Oinarrizko Printzipioak zehapen gaietan* (2002). Onartu egiten da lehengoratzeko justizia biktimen eskubide eta interes legitimoen artean mugitzen den justizia bat dela. Http://www.unodc.org/pdf/compendium/compendium_2006_es.pdf, 134. or. eta hurrengoak.

– *Lehengoratzeko Justizia Programen Gidaliburua* (2006). Gidaliburu hau erakundeei zuzendurikoa da, gobernukoak eta gobernuz kanpokoak, lehengoratzeko justiziaren kontzeptua, balioak eta helburuak argitzeko xedez. Helburua biktimen eskubide eta behar guztien, gizartearen eta biktima eragin duenaren artean oreka topatzea da, premisa gisa hartuz giza eskubideak elkarren mendeko direla eta funtsezkoa dela lehen eta bigarren mailako biktimizazioak saihestea.
Http://www.unodc.org/pdf/criminal_justice/06-56290_Ebook.pdf

– *Justizia Gidalerroak Biktima eta Delituen Lekuko diren Haurrentzako* (2005). Bereziki ahula den talde modura, adingabekoek babes berezia jasotzen dute delituen biktima eta lekuko modura, baina horrek ez du esan nahi biktimak eragin dituztenen eskubideak urratzen direnik.
Http://www.unodc.org/pdf/compendium/compendium_2006_es.pdf, 323-326. orr.

– *Biktimak eta Lekukoak (Zehapen Justiziaren Ebaluazio Baliabidea, Nazio Batuena,* 2006). Administrazio publiko ezberdinak biktimen eta lekukoen eskubideekiko errespetuari buruzko hainbat adierazle jarraituz ebalua daitezke.
Http://www.unodc.org/pdf/criminal_justice/VICTIMS_WITNESSES.pdf

– *Giza Eskubideen Nazioarteko Arauetan Urradura Nabarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Urradura Larriak Jasan dituzten Biktimen Eskubideari buruzko Oinarrizko Printzipioak eta Gidalerroak, Errekurtsoak Jartzeko eta Ordaina Eskuratzeko* (2005). Giza eskubideen eta zuzenbide

humanitarioaren nazioarteko zuzenbidearen alor bikoitzean justiziarako, egia jakiteko eta ordaina eskuratzeko printzipioak onartzen dira zabalera osoan biktimen alde. Bereziki adierazgarria da berriro ez errepikatzeko bermea izateko eskubidea prebentzioko politika publikoetan –gizakoiak eta eraginkorrak–, biktimen interes legitimo modura.
Http://www.iccnow.org/documents/E-CN_4-RES-2005-35.pdf

– *Nazioarteko Gorte Penalaren Erromako Estatutua* (1999). Epaitegi horren eraketa eta eskumenak arautu egiten dira, eta haren funtzionamendua osatzen joan da giza eskubideen urradura larri eta sistematikoen biktima izan direnen eskubideei buruzko nazioarteko kasu multzoarekin. Egun terrorismoa gortearen eskumenetatik kanpo geratzen bada ere, nazioarteko zehapen zuzenbidean berretsi egiten da biktimen babes printzipioa, justiziaren funtsezko interes modura.
Http://www.iccnow.org/documents/E-CN_4-RES-2005-35.pdf

– *Egia jakiteko Eskubideari buruzko Azterlanaren jarraipen txostena. Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi-komisarioaren Bulegoak egindako txostena* (2007). Ezin da aurrerantz egin irakurri gabe, batez ere giza eskubideen urradura larri eta sistematikoei dagokien atala. Egia jakiteko eskubidea ikertzeko betebehar publikoarekin eta biktimek justizia eskuratzeko, ordain eraginkorra hartzeko, informazioa edukitzeko eta memoriarako duten eskubideekin uztartzen da.
Http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/5session/reports.htm

– *Terrorismoaren aurkako Nazio Batuen Estrategia Globala,* 2006koa, Batzar Nagusiak 60/288 Ebazpenean onarturikoa. Estrategia honek funtsezko aldaketa eskatzen du Nazio Batuen politikan, arreta berezia eman izan baitzaio tradizionalki biktimak sortu izan dituztenei. Horretatik abiatuz, funtsezko garrantzia ematen zaio aldi berean terrorismoaren biktimen babesari.
Http://www.unodc.org/pdf/terrorism/Index/60-288en.pdf

## 1.2. Europako Kontseilua

### *1.2.1. Hitzarmenak*

Europa mailako hurrengo hitzarmenek terrorismoaren errepresioa eta prebentzioa jorratzen dituzte, biktimak sortzen dituztenen irudia oinarri hartuta. Azpimarra daitekeen gauza bakarra, biktimologiaren alorrean berariaz, Indarkeriazko Delituen Biktimentzako Konpentsazioari buruzko Hitzarmena da. Haren barnean jasotakoak indarkeriazko delituen biktimei buruzko estatu mailako 35/1995 Legean islatu dira, eta baita terrorismoaren biktimei buruzko berariazko barne araudian ere. Horiek aurrerago zehaztuko dira. Europako Kontseiluaren hitzarmen guztien zerrenda eguneratua hurrengo helbidean topa daiteke: http://conventions.coe.int. Berrespenen egoera xehakatuko dugu, aipatutako hitzarmen bakoitzaren herrialdea gorabehera eta berariazko orrialdera joaz.

– *Terrorismoa Deuseztatzeari buruzko Konbentzioa* [ETS, 90. zk.] eta hura erreformatzeko *Protokoloa* [ETS, 190. zk.].

- *Estradizioei buruzko Konbentzioa* [ETS, 24. zk.] eta haren lehenengo *Protokolo Gehigarria* [ETS, 86. zk.] eta bigarrena [ETS, 98. zk.].

- *Zehapen Gaietan Elkarrekiko Laguntzari buruzko Konbentzioa* [ETS, 30. zk.] eta haren lehenengo *Protokolo Gehigarria* [ETS, 99. zk.] eta bigarrena [ETS, 182. zk.].

- *Zehapen Gaietako Prozeduren Lekualdaketari buruzko Konbentzioa* [ETS, 73. zk.].

- *Indarkeriazko Delituen Biktimentzako Konpentsazioari buruzko Konbentzioa* [ETS, 116. zk.].

- *Kapitalen zuriketari eta delitutik eratorritako mozkinen konfiskazioari buruzko Konbentzioa* [ETS, 141. zk.].

- *Ziberdelinkuentziari buruzko Konbentzioa* [ETS, 185. zk.] eta *Arrazakeria eta xenofobia izaera duten egintzei buruzko Protokolo Gehigarria, horiek sistema informatikoen bitartez burutu direnean* [ETS, 189. zk.].

- *Terrorismoaren Prebentzioari buruzko Hitzarmena* [CETS, 196. zk.].

- *Diru-zuriketari eta terrorismoaren finantzazioari buruzko hitzarmena* [CETS, 198. zk.].

### *1.2.2. Ministroen Batzordearen gomendioak, gidalerroak eta ebazpenak*

Ministroen Batzordearen dokumentu gehienek terrorismo egintzetan esku hartu duten pertsonak ikertu, epailearen aurrera eraman, epaitu edota zehatzeko xedea izaten dute. Aitzitik, orain dela gutxi beste baliabide batzuk sortu dira, eta horiek agerian uzten dute justizia izateko eskubideak biktimentzako legitimoak diren beste interes batzuk hartzen dituela. Mota horretako testuetan bakarrik geldituko gara, eta horien barruan, berrienetan. Horretarako arrazoiak bi dira funtsean: batetik, gainerako gomendio eta ebazpenak gehiagotan aztertu dituzte gaian aditu direnek; bestetik, haiek biktimei berariaz hartzen diete, eta berrienak dira egungo biktima politikei buruzko informazioa eman behar dutenak.

- (74) 3 Ebazpena, nazioarteko terrorismoari buruzkoa.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_cooperation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Resolution (74) 3.pdf

- (77) 27 Ebazpena, 1977ko irailaren 28koa, delituaren biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– Terrorismoari buruzko adierazpena (1978).
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Declaration on Terrorism 1978 E.pdf

– R (82) 1 Gomendioa, terrorismoaren ikerketan eta zigorrean nazioarteko lankidetza egoteari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Rec (82) 1 E.pdf

– R (83) 7 Gomendioa, 1983ko ekainaren 23koa, jendeak zehapen politikan parte hartzeari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– R (85) 11 Gomendioa, 1985eko ekainaren 28koa, biktimak zehapen zuzenbidearen eta zehapen prozeduraren esparruan duen kokalekuari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– Hiru-aldeko deklarazioa egintza terroristei buruz (1986).
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Declaration on terrorist acts 1986 E.pdf

– R (87) 21 Gomendioa, 1987ko irailaren 17koa, biktimei laguntzeari eta biktimizazioa prebenitzeari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– R (97) 13 Gomendioa, 1997ko irailaren 10ekoa, lekukoekiko larderiari eta defentsaren eskubideei buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– R (99) 19 Gomendioa, 1999ko irailaren 15ekoa, bitartekaritzari buruzkoa zehapenen gaian.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT (2007) 2 e rev 2 - Background documents on issues related to victims.asp#TopOfPage

– (2001) 11 Gomendioa, delinkuentzia antolatuaren aurkako borrokako printzipio arautzaileak.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Rec (2001) 11 E.pdf

– Nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokari buruzko Deklarazioa (2001).
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CM Declaration fight int terrorism 2001 E.pdf

– Giza Eskubideei buruzko eta Terrorismoaren aurkako borrokari buruzko Gidalerroak (2002) eta Terrorismoaren Biktimak Babesteari buruzko Gidalerroak (2005). Azken gidalerro horietan giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea aplikatzen da berariaz terrorismoaren biktimentzako, haien eskubideak eta definizioa zehaztuz. Haren edukia bat dator, funtsean, lehen aipatutako Nazio Batuen testuetan jasotakoarekin.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/Guidelines HR 2005 E.pdf

– Adierazpen askatasunari eta informazioari buruzko adierazpena, terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan (2005).
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/Declaration freedom and media 2005 E pdf.pdf

– R (2005) 7 Gomendioa, nortasunari eta bidaiako dokumentuei, eta terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/Rec_2005_7E.pdf

– R (2005) 9 Gomendioa, lekukoen eta justiziari laguntzen diotenen babesari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/rec_2005_9E.pdf

– R (2005) 10 Gomendioa, delitu larriak –terrorismoa barne– ikertzeko teknika bereziei buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/rec_2005_10E.pdf

– R (2006) 8 Gomendioa, delituen biktimentzako laguntzari buruzkoa.
Gomendio honek espresuki eta xehetasun osoz onartzen du biktimek laguntza, ordain orokorra, babesa, informazioa eta datu pertsonalekiko konfidentzialtasuna eskuratzeko eskubidea dutela. Terrorismoaren biktimak bereziki ahulak direla aipatzen da. Biktima kontzeptuak zera harrapatzen du: "*kaltea jasan duen pertsona fisikoa, kalte fisikoa edo burukoa, sufrimendu emozionala edo galera ekonomikoa barne, baldin eta kalte hori zehapen zuzenbidearen urradura dakarten egintzengatik edo egintza ezengatik etorri bada. Halaber, egoki deritzonean, hurbileneko familia edo zuzeneko biktimaren mendeko direnak ere sartzen dira*". Estatuek bermatu egin behar dute biktimen eskubideak eraginkortasunez aitortu eta errespetatuko direla. Bereziki, haien segurtasuna, duintasuna, bizitza pribatua eta familiakoa eta biktimizazioaren eragin negatiboen aitorpena errespetatu behar da. Administrazioek adierazpenean deskribatu diren neurriak martxan jarri eta aplikatu behar dituzte, inolako bereizkeriarik egin gabe. Neurri horiek ere ez dira

delituzko egintzaren arduraduna identifikatu, atxilotu, epaitu edo zehatzearen mendeko izango.
Gomendioan biktimizazio iraunkorrari eta bigarren mailako biktimizazioari buruzko kontzeptuak ere definitu dira. Behin eta berriro jazotzen den biktimizazioak esan nahi du pertsona berdin batek zehapen inguruabar bat baino gehiago jasaten duela egoera batean eta denboraldi batean zehar. Bigarren mailako biktimizazioa dagoela esaten da delitu zuzenen ondotik baino, erakundeek eta gizarteak biktimei ematen dieten erantzunaren bitartez agertzen denean biktimizazioa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/Rec(2006)8E Assistance to crime victims.pdf

– R (2007) 1 Gomendioa, Europako Kontseiluaren, haren estatu kideen eta Poliziaren Nazioarteko Erakundearen (INTERPOL) arteko lankidetzari buruz terrorismo gaietan.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/Rec_2007_1E Interpol.pdf

### 1.2.3. *Parlamentu Biltzarraren gomendioak eta ebazpenak*

– 684 (1972) eta 703 (1973) gomendioak, nazioarteko terrorismoari buruzkoak.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/PA Rec 684 (1972) E.pdf
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/PA Rec 703 (1973) E.pdf

– 852 (1979) Gomendioa, Europako terrorismoari buruzkoa.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/PA Rec 852 (1979) E.pdf

– 916 (1981) Gomendioa, Europan demokrazia defendatzeko eta terrorismoaren aurka egiteko konferentziari buruzkoa – Betebeharrak eta arazoak.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/PA Rec 916 (1981) E.pdf

– 941 (1982) eta 982 (1984) gomendioak, Europan demokrazia defendatzeari eta terrorismoaren aurka egiteari buruzkoak.
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/PA Rec 941 (1982) E.pdf
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta92/ERES982.htm

– 1.024 (1986) eta 863 (1986) Gomendioak, Europak nazioarteko terrorismoari emaniko erantzunari buruzkoak, terrorismoa deuseztatzeari buruzko Europako Konbentzioa sendotze aldera.

Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta86/EREC1024.htm
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta86/ERES863.htm

– 1.132 (1997) Ebazpena, Europan sistema demokratikoak eta terrorismoaren aurkako borrokako lankidetza sendotzeko konferentzia parlamentarioa antolatzeari buruzkoa.
Http://assembly.coe.int/Mainf.asp?link=/Documents/AdoptedText/ta97/ERES1132.htm

– 1.426 (1999) Gomendioa eta 555 (1999) Agindua, terrorismoari aurre egiten dioten demokrazia europarrei buruzkoak. Gomendioan, zera hartzen da terrorismotzat: "*gizabanakoek edo taldeek egindako edozein arau-hauste, indarkeria edo indarkeriarako mehatxua erabiltzen dutenak beren herrialdearen, erakundeen, orokorrean herritarren edo pertsona zehatzen aurka baliatuz, eta haien arrazoiak separatismo itxaropenak, muturreko ideologia iritziak, fanatismoa edo arrazoiz kanpoko faktoreak eta faktore subjektiboak direnean. Haien helburua agintarien artean, pertsona batzuen artean edo gizarteko talde edo jendearen artean beldur giroa sortzea da*".
Babes integralaren printzipioa, barrukoa eta nazioartekoa, sartzen du terrorismoaren biktimentzako. Ez da bakarrik kalte pertsonalak jaso dituzten biktimei buruz ari, baita kalte materialak eskuratu dituztenei buruz ere. Europa mailan zehapen epaitegia sortzeko aukera aintzat hartzen du, kasu batzuetako terrorismo kasuetarako. Arreta jartzen du terrorismoaren prebentzioan, eta horretarako balioen irakaspena aipatzen da, gainerakoekiko jarrera negatiboak irakastea deuseztatuz eta bake kultura garatzea sustatuz.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta99/EREC1426.htm
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta99/EDIR555.htm

– 1.534 (2001) Gomendioa eta 1.258 (2001) Ebazpena, terrorismoari aurre egiten dioten demokrazia europarrei buruzkoak. Ebazpenean azpimarratu egiten da Nazioarteko Gorte Penala eskumenduna izango dela agian etorkizunean jasaten diren eraso terroristen kasuan. Ez dago justifikaziorik terrorismoarentzat, nahiz eta fenomeno horren erroak eta azaltzen dituzten baldintzatzaileak aintzat hartu behar diren prebentzioa egite aldera.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta01/EREC1534.htm
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta01/ERES1258.htm

– 1.550 (2002) Gomendioa eta 1.271 (2002) Ebazpena, terrorismoari aurre egiteari buruzkoak giza eskubideei dagokienez.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta02/EREC1550.htm

Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta02/ERES1271.htm

- 1.549 (2002) Gomendioa, aireko garraioari eta terrorismoari buruzkoa: nola areagotu segurtasuna.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta02/EREC1549.htm

- 1.584 (2002) Gomendioa, helburu terroristak betetzeko funtsak neutralizatzeko nazioarteko lankidetza biziagotzeko beharrari buruzkoa.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta02/EREC1584.htm

- 1.644 (2004) Gomendioa, terrorismoari buruzkoa: mehatxua demokrazientzat.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta04/EREC1644.htm

- 1.367 (2004) Ebazpena, bioterrorismoari buruzkoa: mehatxu larria herritarren osasunerako.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta04/ERES1367.htm

- 1.677 (2004) Gomendioa, Europako Kontseiluko estatu kideetan terrorismoak suposatzen duen erronkari buruzkoa.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta04/EREC1677.htm

- 1.687 (2004) Gomendioa, terrorismoari kulturaren bitartez aurre egiteari buruzkoa. Kultura agentzia ezberdinek terrorismoa prebenitzeko mekanismo gisa jardun dezakete, giza eskubideak, kultura artekotasuna, aniztasuna eta gatazkak elkarrizketaren bitartez konpontzea bezalako alderdiekiko errespetua sustatuz. Bertan, indarkeria terroristak ezin du justifikaziorik izan.
Http://assembly.coe.int/Main.asp?link=http://assembly.coe.int/Documents/AdoptedText/ta04/EREC1687.htm

- 1.706 (2005) Gomendioa, hedabideei eta terrorismoari buruzkoa. Talde terroristek egungo hedabide handiak erabiltzen dituztela azpimarratzen da, beren mezua barreiatzeko. Helburua beldur giro orokorra sortzea izatean da. Sektorean profesionalak behar bezala trebatuz, biktimei bigarren mailako biktimizazioa eragin diezaiekeen albiste sentsazionalistak ematea saihestu behar da. Adierazpen eta informazio askatasunaren barruan, hedabideek ezin dute terrorismoaren legitimazioaren alde egin, eta, bai, eztabaida publiko arduratsuaren alde. Irakaskuntza orokorraren barruan, hedabide ezberdinen azterketa kritikoa egiteko gaitasuna sartu behar da.
Http://assembly.coe.int/main.asp?Link=/documents/adoptedtext/ta05/erec1706.htm

- 1.713 (2005) Gomendioa, segurtasunaren sektorearen ikuskapen demokratikoa egiteari buruzkoa estatu kideetan.
  Http://assembly.coe.int/main.asp?Link=/documents/adoptedtext/ta05/erec1713.htm

- 1.849 (2008) Gomendioa, demokraziaren eta giza eskubideen kultura sustatzeko irakasleen trebakuntzaren bitartez (HTML bertsioan).
  Europako Kontseiluak uste du hezkuntza, kultura eta zientzia gizarte europarraren zutabeak direla. Balio demokratikoak irakaskuntzaren alderdi bat izan behar direnez, funtsezkoa da irakasleak trebatzea. Demokrazian bizitzeko hezkuntza zeharkako helburua izan behar da lehen eta bigarren hezkuntzako zikloetako hezkuntza politiketan. Horretarako, irakasgai guztietako irakasleek trebakuntza egokia eta iraunkorra eskuratu behar dute, aldatzen doazen beharretara egokitze aldera. Helburu horrekin ere, aintzat hartu behar dira Europako Kontseiluak sustatu eta garatutako baliabide eta programak.
  Http://assembly.coe.int/Mainf.asp?link=/Documents/AdoptedText/ta08/EREC1849.htm

### 1.2.4. *Justizia eta Barne ministro europarrak*

- 24. Konferentzia, Moskun, 2001eko urriaren 4-5ean: 1. Ebazpena nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa. Terrorismoaren biktimentzako eta haien senideentzako babesa, laguntza eta ordaina hobetzea aldarrikatzen da, aniztasun demokratikoa sustatzearekin batera.
  Http://www.coe.int/T/E/Legal_Affairs/Legal_co-operation/Conferences_and_high-level_meetings/European_Ministers_of_Justice/2001(Moscow)Resolution1.asp#TopOfPage

- *2. proiektu integratua: egunerokoan, indarkeriari ematen zaizkion erantzunak gizarte demokratikoetan. Ad hoc Konferentzia, egunerokoan indarkeria prebenitzeko ardura duten ministroena* (Oslo, Norvegia, 2004ko azaroaren 7-9a) – *Europan egunerokoan jazotzen den indarkeria prebenitzeari buruzko ebazpena*. Diziplina arteko eta parte hartzeko ikuspegiaren beharra azpimarratzen da, biktimekiko orientazioa izanez indarkeria prebenitzeko politikak planifikatzerakoan, garatzerakoan eta ebaluatzerakoan, batez ere hezkuntzaren alorrean. Lehentasuna ematen zaie udal programei, eta beharrezko baliabideak aurreikusi behar dira.
  Http://www.coe.int/T/E/Com/Files/Ministerial-Conferences/2004-violence/resolution.asp

- *Barne ministroen goi mailako alde anitzeko hirugarren topaketa: 2005eko martxoaren 17-18an Varsovian (Polonia): Terrorismoaren eta antolatutako krimenaren aurkako borroka Europan segurtasuna hobetzeko – Ebazpena.*
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/M-Mint_2005_ResE.pdf

- 26. Konferentzia, Helsinkin, 2005eko apirilaren 7-8an: 3. Ebazpena, terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa.

Http://www.coe.int/T/E/Legal_Affairs/Legal_co-operation/Conferences_and_high-level_meetings/European_Ministers_of_Justice/MJU-26(2005)Res3E.pdf

- 27. Konferentzia, Yerevanen (Armenia), 2006ko urriaren 12-13an: "Biktimak: papera, eskubideak eta laguntza" -*1. ebazpena, delituen biktimei buruzkoa*. Arreta berezia ematen zaie biktima ahulei nahiz bigarren mailako eta behin eta berriro jazotzen den biktimizazioa prebenitzeari, eta baita biktimekin harremanetan jartzen diren agentzia ezberdinen berariazko trebakuntzari eta diziplina anitzeko trebakuntzari ere.
  *Http://*www.coe.int/t/dghl/standardsetting/minjust/mju27/MJU-27(2006)Res1E.pdf

## 1.2.5. *Kulturako ministro europarrak*

- Kulturen arteko elkarrizketari eta Opatijako (Kroazia) gatazkak prebenitzeari buruzko deklarazioa, 2003ko urriaren 22koa. Hezkuntzaren alorrean arduradun diren agintarien betebeharrak azpimarratzen dira, aniztasunarekiko errespetuan oinarritzen diren gizarteak sustatzeko. Horrela, indarkeriari aurrea hartuko zaio eta etorkizuneko adiskidetzea garatuko. Nortasuna definitzeko eskubide alienaezina du pertsona bakoitzak, eta giza eskubideekiko errespetu betebeharra. Erakundeek elkarrizketa eta topaguneak sustatu behar dituzte indarkeriazko jarrerak eta ezberdina dena errefusatzekoak prebenitzeko, aniztasunaren balioa bultzatuz.
  Http://www.coe.int/T/E/Com/Files/Ministerial-Conferences/2003-Culture/declaration.asp#TopOfPage

## 1.2.6. *Tokiko eta eskualdeko agintarien kongresua*

- 134 (2003) Gomendioa eta 159 (2003) Ebazpena, terrorismoari buruzkoak. Tokiko agintarien papera eta erantzukizunak. Ebazpenean, azpimarratu egiten da tokiko agintariek herritarrak babesteko betebeharra dutela, eraso terroristen aurrean. Halaber, zera adierazten da: "*terrorismoa, aldaketarako mekanismo gisa, ez da beti eta erabat gaitzetsi izan Europan behar den moduan*", eta kultura identitateek ezin dute indarkeria justifikatu. Terrorismoaren prebentzioak ausardia, irmotasuna eta konpromisoa eskatzen dizkie agintariei. Halaber, lankidetza sustatu behar da tokiko sareen artean, prebentzio hori lortze aldera.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CRLAE Rec 134 (2003) E.pdf
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/2_adopted_texts/CRLAE Res 159 (2003) E.pdf

## 1.2.7. *Epaile Europarren Aholku Batzordea (EEAB)*

- 8. iritzia (2006), Ministroen Batzordearen arretarako. Gaia: "*epaileen papera legezkotasun printzipioaren eta giza eskubideen babesean, terrorismoaren testuinguruan*" (CCJE(2006)OP8S /).

Terrorismoak ez ditu bakarrik oinarrizko eskubideak arrisku larrian jartzen, bizitzeko eskubidea eta osotasun fisikoa izatekoa batez ere; horrekin batera, arrisku larrian jartzen ditu ere Zuzenbide Estatua eta demokrazia plurala. Susmopekoen, epaituen eta zehatuen giza eskubideak babesteaz gain, epaileak aintzat hartu behar ditu ere terrorismo egintzen biktimen tokia babesten duten nazioarteko zuzenbide arauak, batez ere prozesuan lekukoaren tokia betetzen dutenean. Epaileari dagokio prozeduraren fase bakoitzean neurri egoki guztiak hartzea, biktimek beren eskubideak erabat balia ahal izan ditzaten. Neurri egokiak beste agintari batzuen eskuetan uzten ez direnean, edo agintari horiek neurri egokiak hartzen ez badituzte, epaileak aukera eduki beharko luke biktimei segurtasuna, senideen eta bizitza pribatuaren babesa, justizia eskuratzea, berdintasunezko tratamendua eta doako laguntza judiziala bermatzeko, estatu mailako beste erakunde batzuk, finantza arrazoiak edo bestelakoak direla-eta, eskumen botere horiek behar ez bezala mugatzeko aukera ez edukitzeko. Biktimek ordain egokia eskuratzeko eskubidea dute, adibidez Estatuak ordaindutako kalte-ordain modura edo delituen egileen ondasunak konfiskatzetik etorritako diruarekin ordaindutakoa. Azkenik, azpimarratu egiten da beharrezkoa dela Estatuek ikertzaileen, epaileen eta terrorismo gaiak ezagutu behar dituzten pertsonen multzo osoaren segurtasuna bermatzea.
Https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?Ref=CCJE(2006)OP8&Language=lanSpanish&Ver=original&Site=COE&BackColorInternet=FEF2E0&BackColorIntranet=FEF2E0&BackColorLogged=c3c3c3

### 1.2.8. *Lankidetza Juridikoko Europako Batzordea*

- Terrorismoaren biktimei kalte-ordaina emateari buruzko txostena: Alderaketa inkesta bat Lankidetza Juridikoko Europako Batzordearentzat (EEAB), Bernhard A. KOCH-ek egina, Aseguruen Zuzenbideko Zentro Europarra, Austria - CDCJ-BU(2006) 19.
  Txostenaren abiaburua hau da: orokorrean, terrorismoaren biktimek ez dute ordain ekonomikorik jasotzen gaizkileen aldetik. Ondorioztatu egiten da beharrezkoa dela aseguruen sektore pribatuaren eta botere publikoen arteko osagarritasuna topatzea. Azken horien kasuan, ordain materiala egiteko moduak anitzak izan daitezke.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CDCJ-BU (2006) 19 e - ECTIL Report.pdf

- Iritzi proiektua Parlamentu Biltzarraren hurrengo Gomendioaren gainean: 1.778 (2007) Adingabeko biktimak - CDCJ (2007) 5 rev.2.
  Esperientzia trukea sustatu behar da etorkizun gehieneko praktikei dagokienez biktimen kategoria ahulenen biktimizazioa txikitzearen eremuan, hau da, adingabekoen eremuan.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CDCJ (2007) 5 rev.2.pdf

### 1.2.9. *Zehapen Arazoen Europako Batzordea*

- Adituen Taldearen txostena, biktimei laguntzeari buruzkoa, 2007ko irailaren 17tik 20ra egindako topaketakoa.

Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CJ-S-VICT _2007_ 11 e - 2nd meeting report 17-20 Sept 2007%E2%80%A6.pdf

- Biktimei Laguntzeari buruzko Espezialista Taldea (PC-S-AV). *Amaierako 5. topaketaren laburpen txostena*, Estrasburgon, 2006ko martxoaren 15-16an egina - PC-S-AV(2006)9. Txostenean azpimarratu egiten da garrantzitsua dela ikusgaitasuna sustatzea eta nazioarteko estandarrak aplikatzea, biktimekiko politikak ebaluatzeko tresna gisa. Zehazki, 1985eko Nazio Batuen Deklarazioan jasotako eskubide bakoitzari dagozkion estandarrak azpimarratzen dira. Gainera, espresuki aipatzen da lehengoratzeko justiziaren kontzeptua. Halaber, ikerketa biktimologikoa publikoki sustatzeko beharra nabarmentzen da, batez ere alderaketa modura. Ikerketan pertsonen gaineko inpaktuari, arrisku eta babes faktoreei, hartutako neurri ezberdinen eraginkortasunari eta erakunde eskumendun ezberdinen esku-hartzeari buruzko azterlanak sartu behar dira. Ez dira politika publikoak martxan jarri behar horiek ikerketa biktimologiko berrietan eskuratutako datuetan oinarritzen ez badira. Horretarako, ezagutza trukea sustatu behar da maila ezberdinetan.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/PC-S-AV _2006_ 09 - e - Summary report 5th meeting1.pdf

- Biktimei Laguntzeari buruzko Espezialista Taldea (PC-S-AV). Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko txostena – PC-S-AV (2005) 7. *Europan Terrorismoaren Biktima direnei buruzko politikei eta legediari* buruzko txostena jaso da. Hans-Jörg Albrecht-ek eta Michael Kilchling-ek landu zuten (Atzerriko eta alderatutako zuzenbideko Max Planck institutua). Alderaketako metodo baten bitartez, herrialde europarren eta baita EEBBen artean ere, ondorioak ateratzen dira. Ondorio horien arabera, terrorismoaren biktimei ordaina emateko eredu publikoa babesten da, solidaritate printzipioan oinarrituz. Gainera, terrorismoaren biktimentzako laguntza eta babesa hobetzea ahalbidetzen duten praktika alderatuak bilatu behar direla azpimarratzen da.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/PC-S-AV_2005_07 - e.pdf
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/FA_AlbKilch.pdf

- Kontseilu Zientifiko Kriminologikoa (PC-CSC). Biktimei laguntzeari eta biktimizazioa prebenitzeari buruzko R(87)21 Gomendioaren egungo garrantzia. Helen Reeves-ek egina, PC-CSC (2003) 1. Ikerketaren eta gaiko nazioarteko araudiaren egoerari buruzko azterlana egiten da, 2003 artekoa, eta aldaketa batzuk proposatzen dira delitu orokorren biktimen alorrean garatzen diren politikekiko.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/pc-csc _2003_ 01 - e _relevance of R _87_ 21 - H Reeves_1.pdf

### *1.2.10. Terrorismoan Aditu direnen Batzordea (CODEXTER)*

- Argitalpena: Biktimak – Babesa eta laguntza. Europako Kontseiluaren nazioarteko arauen bilduma da, gehienak zerrenda honetan bildutakoak.

Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/6041-6-ID3996-Victims - Support and assistance.pdf

- CODEXTER (2006) 57 – 11. topaketako txostena, 2006ko abenduaren 4-6an eginikoa. Txostenean, berariazko idatz-zatia dago terrorismoaren biktimak babestu eta haiei ordaina emateari buruz. Halaber, hutsune ezberdinak azpimarratzen dira terrorismoaren prebentzioan, eta ziberterrorismo deiturikoaren berariazko arazoak zehazten dira.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CODEXTER _2006_ 57 E report 11th meeting - Internet version.pdf

- -CODEXTER (2004) 15 – Babes esparrua terrorismoaren biktimentzako Espainian.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CODEXTER _2004_ 15 e Protection of Victims Spanish system1%E2%80%A6.pdf

- CODEXTER (2004) 13 – Kalte-ordaina eta terrorismoaren biktimen statusa Frantzian.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/CODEXTER _2004_ 13 e Protection of Victims French system1.pdf

Interesgarriak dira terrorismoaren biktimekin zerikusi gehiago duten CODEXTER-en lan dokumentuak. Europako Kontseiluaren, Nazio Batuen eta ESLAren beste erakunde batzuei dagokienez, eguneratzeak ikus daitezke helbide honetan:
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/fight_against_terrorism/3_CODEXTER/Working_Documents/default.asp#TopOfPage

## 1.3. Europar Batasuna

- *Lehendakaritzaren ondorioak* (Ondorioen 32. puntua: V. Justizia hobeki eskuratzea Europan) – Tanpereko Kontseilu Europarra (1999ko urriaren 15 eta 16a). Zehapen politiketan lankidetza europar biziagoaren hasiera da, eta biktimekiko ikuspegiak ere erantsi behar ditu.
  Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/Tampere European Council 15-16_10_1999 Conclusions of the Presidency - European Council Tampere 15-16_10_1999 Conclusions of the Presidency.pdf

- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2000ko ekainaren 15ekoa, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari helarazi beharreko Komunikazioari buruzkoa: Delituen biktimak Europar Batasunean. Arauak eta neurriak.
  Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1131_1.pdf

– Laguntza judizialerako hitzarmena zehapenen gaian, Europar Batasuneko estatu kideen artean. Bruselan egina 2000ko maiatzaren 29an (10. eta 11. artikuluak).
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1130_1.pdf

– Kontseiluaren Esparru Erabakia, 2001eko martxoaren 15ekoa, biktimak zehapen prozesuan duen estatutuari buruzkoa. Delituen biktimen eskubideek ikuspegi orokor eta koordinatua behar dute. Izan daitekeen zehapen prozesua baino lehen eta haren ondoren agertzen diren mailei eragiten dieten hainbat neurri jasotzen dira.
Http://europa.eu.int/eur-lex/pri/es/oj/dat/2001/l_082/l_08220010322es00010004.pdf-
Erabaki honen lege eta antolamendu burutzapenari buruzko inkesta hurrengo helbidean kontsulta daiteke: http://www.apav.pt/vine/index.php?option=com_content&view=article&id=48&Itemid=2. *Ikerketa alderatuko proiektu bat da, Europako Batzordeak finantzaturikoa. Landa lana 2008 eta 2009an garatu da.*

– Kontseiluaren Esparru Erabakia, 2002ko ekainaren 13koa, terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa. Erabaki hau aldarazi egin da, delitu modura sartzeko terrorismo egintzak internet bidez eragin, hartu eta horietan trebatzekoak, Europako Kontseiluaren Terrorismoa Prebenitzeko Hitzarmenari jarraiki. Biktimentzako eta haien senideentzako erantzun egokiaren bermea azpimarratzen da.
Http://europa.eu/scadplus/leg/es/lvb/l33168.htm

– Kontseiluaren 2004/80/CE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, delituen biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa.
Http://europa.eu.int/eur-lex/pri/es/oj/dat/2004/l_261/l_26120040806es00150018.pdf

– Europako Parlamentuaren ebazpena, Espainiako bake prozesuari buruzkoa (2006). Bake prozesuan terrorismoaren biktimak gogoratu behar dira, eta haiekiko solidaritatea agertu.
Http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?language=ES&reference=B6-0527/2006

– Delituen biktimen eskubideei buruzko dokumentua: SCADplus (Europar Batasunaren politikei buruzko informazioa, erakundeen gaiak, herritarrekiko elkarrizketa, eguneraturiko dokumentu erreferentziak biltzen dituzten gida eta baseak).
Http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/legal_co-operation/steering_committees/cdcj/cj-s-vict/SCADPlus Crime victims rights.pdf

## 1.4. Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea (ESLA)

ESLAk 56 herrialde hartzen ditu, Europatik kanpoko Estatuak barne. Gai politiko eta militarrez, ekonomikoez eta ingurumenekoez gain, “giza dimentsioa” deituriko horren barruan giza eskubideekin zerikusia duten gai ezberdinez arduratzen da.

– Terrorismoaren Biktimei buruzko Goi Mailako Topaketaren amaierako txostena (Vienan, 2007ko irailaren 13-14an). Topaketak laguntza programak, biktimek zuzenbide prozesuan duten papera eta gizarte zibilaren parte-hartzea hartu zituen oinarri. Horri buruzko prentsa dokumentua ikus daiteke: **Biktimentzako babesa, terrorismoaren aurkako borrokako funtsezko faktore gisa.** Http://www.osce.org/item/26233.html

## 2. Estatu maila[3]

– Ebazpen proposamena, Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak egina 2003ko uztailaren 10eko bileran. Arrazoia honakoa izan zen: "*Gobernuaren komunikazioaren eztabaida; bertan, politika orokorreko eztabaida egitea eskatu zen, Nazioaren egoeraren gainean*". Proposamen horretan, "*terrorismoaren biktimei ahalik eta babes handiena onartzeko helburuarekin emandako babes eta aitorpenaren barruan, eta Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko Legeak jarritako ildoan sakonduz, Diputatuen Kongresuan Azpibatzorde bat sortzea proposatzen da, sei hilabeteko epean irizpena egin dadin gai garrantzitsu honetan egin daitezkeen hobekuntza guztien gainean. Horretarako, aintzat hartuko da indarreko legedia, legebiltzar autonomikoetako ebazpenak eta, batez ere, Eusko Legebiltzarrak aurtengo ekainaren 25ean onetsitako legez besteko proposamena, eta, halaber, terrorismoaren biktimen elkarteek esateko dutena entzungo da*".
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1072_1.pdf

– 19/1994 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, lekukoak eta perituak babestekoa auzi kriminaletan.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1097_1.pdf

– 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa eskuratzeari buruzkoa.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1103_1.pdf

– 31/1991 Legea, abenduaren 30ekoa, 1992rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa –hogeita zortzigarren xedapen gehigarria– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa). Zuzeneko biktimen ezohiko pentsioa arautzen da, edo, hala badagokio, zeharkako biktimena, estatuko aurrekontuaren kontura.
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le31-1991.html

– 13/1996 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga, administrazio eta gizarte motako neurriei buruzkoa –93.etik 96.era bitarteko artikuluak eta hirugarren xedapen iragankorra– (BOE, 315. zk., abenduaren 31koa), hurrengoek emandako idazketan: abenduaren 30eko 66/1997 Legeak –48. artikulua– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa), abenduaren 30eko 50/1998 Legeak –berrogeita bi-

[3] Iturria: Barne Ministerioaren web orrialdea (http://www.mir.es/SGACAVT/indeyayu/ayudasvictimasterrorismo). Bertan, etorkizuneko eguneratzeak ikusi ahalko dira.

garren xedapen gehigarria– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa), abenduaren 27ko 24/2001 Legeak –43. artikulua– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa), abenduaren 30eko 53/2002 Legeak –49. artikulua– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa) eta abenduaren 23ko 2/2008 Legeak –azken xedapenetatik laugarrena– (BOE, 309. zk., abenduaren 24koa). Estatuak kalte pertsonalak eta materialak ordaintzeko izango duen modua arautzen da. Laguntzen xedea zabaltzen joan da, adibidez atentatua gertatu den tokirainoko senideen bidaia eta hango ostatua barne hartuz.Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le13-1996-93-96.html

– Kalte-ordainen kopuruak betirako izango diren eta baliaezintasuna ez dakarten lesioen, mutilazioen eta deformazioen araberako Gizarte Segurantzaren baremoari jarraiki, horiek laneko istripuengatik eta lanbide gaixotasunagatik sorturikoak direnean. Lan Ministerioaren Aginduaren Eranskina, 1969ko apirilaren 15ekoa (13/1996 Legearen aplikazioa).
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1101_1.pdf

– 32/1999 Legea, urriaren 8koa, Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzkoa (BOE, 242. zk., urriaren 9koa), hurrengoek emandako idazketan: abenduaren 29ko 14/2000 Legeak –bederatzigarren xedapen gehigarria– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa) eta martxoaren 12ko 2/2003 Legeak (BOE, 62. zk., martxoaren 13koa).
Lege hau aho-batez onetsi zen. Zentzu horretan hobekuntzak egiten baditu ere, eta ondorengo erreformek ordain sinbolikoaren garrantzia azpimarratu bazuten ere, helburua ez zen orduan indarrean zegoen legediaren babesean emandako prestazioak perfekzionatzea, "*baizik eta kalteturikoek, solidaritate arrazoiak direla-eta, ordaina edo kalte-ordaina eskuratzeko duten eskubidea eraginkor bihurtzea. Ordain hori erantzukizun zibilaren kontzeptuagatik eskuratuko litzateke, eta Estatua subrogatu egingo litzateke horiek ordaintzeko betebeharra dutenen aurrean*".
Zioen azalpeneko azkenaurreko eta azkeneko paragrafoen arabera, "*helburua ez da biktimek jasandako mina ordain material soil baten eraginarengatik ordezkatzea, izan ere, hori, bere horretan, onartezina litzateke. Biktimen mina lekukotza bat da –eta izango da beti–, gizarte espainiarrari bakean bizitzeak esan nahi duenaren gaineko zentzu benetakoena ez galtzeko balio izan dakion. Biktimentzako, indarkeria behin betiko deuseztatzea bakarrik izan daiteke konpentsazio bakarra. Bere horretan terrorearen zorigaitza jasan dutenek guztioi eskatzen digute tolerantzia faltak, bazterkeriak eta beldurrak inoiz hitza eta arrazoia ordezka ez dezatela lortzeko gai izan gaitezela. / Lege hau, bada, espainiarren legezko ordezkari multzoaren akordioaren adierazpena da, bakea adiskidetzearen eta justiziaren emaitza izaten laguntzeko…*".
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le32-1999.html

– R 22/2/1999 – Seg. Zuz. Orok.: heriotzagatik, lesio iraunkorrengatik eta aldi baterako ezintasunagatik eskuratzen diren kalte-ordainen zenbatekoa. Horiek 1999an zehar aplikatuko zaizkio trafiko istripuetan pertsonei eragindako kalte eta eragozpenak baloratzeko sistemari (32/1999 Legearen aplikazioa).

Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1099_1.pdf

- EZren eta ibilgailu motordunen zirkulazioan aseguruaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 29ko 8/2004 Errege Dekretu Legegilearen Eranskineko ondorio sailkapena eta balorazioa (32/1999 Legeari aplika dakioke).
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1099_1.pdf

- 14/2000 Legea, abenduaren 29koa, zerga, administrazio eta gizarte motako neurriei buruzkoa –bederatzigarren xedapen gehigarria– (BOE, 313. zk., abenduaren 30ekoa), 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 2/2008 Legeak emandako idazketan –azken xedapenetatik hamalaugarrena– (BOE, 309. zk., abenduaren 24koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le14-2000.html

- 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa (BOE, 276. zk., azaroaren 18koa), hurrengoek emandako idazketan: abenduaren 28ko 42/2006 Legeak –azken xedapenetatik zortzigarrena– (BOE, 311. zk., abenduaren 29koa) eta abenduaren 23ko 2/2008 Legeak –azken xedapenetatik hamaikagarrena– (BOE, 309. zk., abenduaren 24koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le38_2003.html

- 2/2008 Legea, abenduaren 23koa, 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa –hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, 2009rako Ondorio Ugariko Errenta Adierazle Publikoa zehazteari buruzkoa– (BOE, 309. zk., abenduaren 24koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le02_2008.html

- 1.576/1990 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Gizarte Segurantzaren sisteman terrorismo egintzengatik eratorritako ezohiko pentsioak ematea arautzen duena (BOE, 294. zk., abenduaren 8koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd1576-1990.html

- 851/1992 Errege Dekretua, uztailaren 10ekoa, terrorismo egintzengatik eratorritako ezohiko pentsio batzuk arautzen dituena (BOE, 184. zk., abuztuaren 1ekoa), hurrengoek aldarazia: 38/1998 Errege Dekretuak, urtarrilaren 16koa –10. artikulua eta xedapen iragankor bakarra– (BOE, 15. zk., urtarrilaren 17koa) eta 1761/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 28koa –seigarren xedapen osagarria– (BOE, 313. zk., abenduaren 31koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd851-1992.html
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd38-1998.html
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd1761_2007.html

- 1.912/1999 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legea burutzeko araudia onesten duena (BOE, 305. zk., abenduaren 22koa), hurrengoek emaniko idazketan: martxoaren 7ko 288/2003 Errege Dekretuak (BOE, 65. zk., martxoaren 17koa) eta otsailaren 17ko 199/2006 Errege Dekretuak (BOE, 43. zk., otsailaren 20koa).
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd1912-1999.html

- 1.974/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Terrorismoaren Biktimentzako Errekonozimendu Zibileko Errege Ordenaren Araudia onesten duena (BOE, 307. zk., abenduaren 24koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd1974-1999.html

- 288/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, terrorismo delituen biktimei laguntza eta ordaina emateko araudia onesten duena (BOE, 65. zk., martxoaren 17koa), otsailaren 17ko 199/2006 Errege Dekretuak emandako idazketan (BOE, 43. zk., otsailaren 20koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd288-2003.html

- 4/2005 Errege Lege Dekretua, martxoaren 11koa, Terrorismoaren biktimentzako laguntzak eskatzeko ezohiko epea ematen duena (BOE, 61. zk., martxoaren 12koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd04_2005.html

- 199/2006 ED, otsailaren 17koa, indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza araubidea aldarazten duena, 32/1999 Legearen burutzapen araubidea eta terrorismo delituen biktimentzako laguntzen eta ordainen araubidea.
  Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1104_1.pdf

- 6/2006 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, atentatu terroristengatik eratorritako ezohiko pentsioei buruzkoa (BOE, 150. zk., ekainaren 24koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/rd/rd06_2006.html

- INT/2662/2004 Agindua, uztailaren 29koa, atentatu terroristek eragindako pertsonei buruzko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena, horien kudeaketa Barne Ministerioari dagokionean (BOE, 189. zk., abuztuaren 6koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/or/int/orint2662-2004.html

- INT/1658/2008 Agindua, ekainaren 3koa, terrorismoaren biktimen arreta xedetzat duten irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakundeentzako diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzen duena (BOE, 143. zk., ekainaren 13koa).

- INT/1019/2009 Agindua, apirilaren 14koa, terrorismoaren biktimen arreta xedetzat duten irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakundeentzako diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzen duena (BOE, 102. zk., apirilaren 27koa).

Terrorismoaren kategorian sartzen ez diren baina indarkeriazko portaeren biktima direnentzako prestazioei buruz, hurrengo araudia ikus daiteke:
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/or/int/orint1658_2008.html

- 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntzari buruzkoa (BOE, 296. zk., abenduaren 12koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le35-1995.html

– 38/1998 Legea, azaroaren 27koa, Indarkeriazko eta Sexu Askatasunaren Aurkako Delituen Biktimei Laguntzeko Batzorde Nazionalaren eraketa aldarazten duena (BOE, 285. zk., azaroaren 28koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/le/le38-1998.html

– 738/1997 ED, maiatzaren 23koa, indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza araubidea onesten duena.
  Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1104_1.pdf

## 3. Eremu autonomikoa

Denboran zehar, ikus daiteke arau autonomikoak sortu direla, eta horiek, subsidiarioki eta modu osagarrian, ondasun higigarri eta higiezinetan izandako kalteetarako, osasun laguntzaren alorrerako, etxebizitzarako, enplegurako eta ikasketetarako laguntzak arautzen dituzte. Halaber, lege batzuk ordain sinbolikoak edo ohorezkoak hartzen dituzte.

### 3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

#### *3.1.1. Eusko Jaurlaritza*

*Dekretuak*

– Abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretua, 1991, 1993 eta 1995ean aldarazia, ekainaren 13ko 107/2000 Dekretuarekin ordezkatu zen azkenean. Hori, aldi berean, irailaren 24ko 214/2002 Dekretuarekin ordezkatu zen (abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuak aldarazia).

– 214/2002 Dekretua, irailaren 24koa, terrorismoaren biktimentzako laguntzen programa arautzen duena (EHAA, 185. zk., 2002/9/30ekoa). Iturria: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
  Http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/ver_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000043490&CONF=bopv_c.cnf

– 313/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, terrorismoaren biktimei laguntzeko programa arautzen duen dekretua aldatzen duena (EHAA, 249. zk., abenduaren 31koa).
  Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/autonomicas/paisvasco/de313_2002.htm

*Planak*

– Bake eta Bizikidetza Plana, Gobernu Kontseiluak onetsitakoa 2006ko maiatzaren 2an. Plan horrek bost jarduera ardatz ditu: giza eskubideak, terrorismoaren biktimak, memoria berreskuratzea, eskubide zibilak eta politikoak eta tortura prebenitzeko ekimenak, bakean hezteari buruzko ardatz osagarri batez gain.

Bakea eta Bizikidetza (pdf 201 kb.). Bakea eta bizikidetza plangintzaren 2007ko urteko txostena (pdf 356 kb).
Http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-2312/es/contenidos/informacion/paz_convivencia/es_paz_conv/adjuntos/paz_convivencia.pdf

– Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011).
Http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19299/eu
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzaren plan hau Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2007ko abenduaren 26an, eta eztabaida xede izan zen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean 2008ko apirilaren 2an.
Bertan adierazten dena gorabehera, plan hori justifikatzen duena, lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarraren agindua da, terrorismoaren biktimei buruzko 2003ko eta 2005eko Legebiltzarreko erabakietan txertatzen dena (sarrerako lehenengo paragrafoa). Planarekin bat etorriz, "*gizarte demokratiko guztiek dute giza eskubideen eta bakearen ezagutza eta errespetu sakona herritarren artean sustatzeko betebeharra. Euskal gizartearen kasuari dagokionez, gaur egungo betebehar unibertsal horri, biolentziaren iraunkortasunak eta bereziki, ETAren terrorismoaren iraunkortasunak oztopaturiko gizartearen berezitasuna erantsi behar zaio. Gurearen moduko gizarte batean pertsona guztien bizitza, duintasuna eta eskubideak salbuespenik gabe babesteko hezkuntza-lan handia behar da. Lan horretan gizarte sektore askok parte hartu beharko dute eta erakundeek buruzagi izan, bultzatu eta koordinatu egin beharko dute, betiere, aintzat hartuz benetako protagonismoa gizarteari berari dagokiola*". (Sarrerako hirugarren paragrafoa).
Espresuki aipatzen dira biktimen lekukotzak, bakerako hezkuntzaren baliabide modura (95.etik 97.era bitarteko orrialdeak), eta terrorismoaren biktimen arretan graduondoko trebakuntza sustatzeko aukera jasotzen da. Bestalde, eranskinean Euskal Irrati Telebista ente publikoaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren arteko lankidetza hitzarmen iraunkorra erantsi da, 2007ko maiatzaren 2an sinaturikoa. Bertan, terrorismoaren biktimekiko ekimen zehatzak biltzen dira.
Erakundeen arteko koordinazioaren barruan, espresuki aipatzen dira Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Erakunde arteko Batzordea (Eusko Jaurlaritza) eta Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Ararteko erakundearen ordezkari bat sartzen dira. **Batzorde hori Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea sortzen eta arautzen duen 31/2009 Dekretuaren bitartez arautu zen** ()[4]. Dekretu horretako 3.2.c) artikuluaren arabera, batzordearen osoko bilkuran elkarte eta erakundeen lau ordezkarietatik batek "izan behar du bakearen aldeko hezkuntza-proiektuekin, eta zehazki, terrorismoaren biktimei zuzendutakoekin, lanean diharduela egiaztatzen duen erakunde batekoa".

4 Http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20090310&a=200901331.

### 3.1.2. Herrizaingo Saila

– Agindua, 2007ko maiatzaren 30ekoa, Herrizaingo sailburuarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautzen dituena.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1124_1.pdf

– Agindua, 2005eko apirilaren 26koa, Herrizaingo sailburuarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautzen dituena.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1125_1.pdf

### 3.1.3. Eusko Legebiltzarra[5]

*Ebazpenak, legez besteko proposamenak, irizpenak eta erabakiak*

– 2008ko urriaren 1eko ebazpena, euskal udalek biktimen memoriari buruzko legebiltzarreko ebazpena betetzeari buruzkoa.
Oraindik horrelakorik egiten ez duten udalei, eskatu egiten zaie terrorismoa goraipatzen duten eta haren biktimen memoria iraintzen duten mota guztietako kartelak, pintadak eta sinboloak berehala eta sistematikoki ken ditzatela.

– Legez besteko proposamena, terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzkoa. Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak onetsi zuen 2003ko ekainaren 25ean (Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 100. zk., 2003ko uztailaren 4koa).
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_1068_1.pdf

– Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak egindako irizpena terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak aztertzearen gainean. Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak onetsi zuen 2005eko otsailaren 17 eta 18an.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1069_1.pdf

– Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako ebazpenak, terrorismoaren biktimei buruz hartutako erabakiak betetzeari dagokionez (Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 126. zk., 2007ko urriaren 26koa).
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1076_1.pdf

5 Ez gara idatz-zati honetan geldituko, erabaki hauen edukiak Ararteko Erakundearen beraren txostenaren xedea eratzen duelako. Edonola ere, ekimen ezberdinak ikus daitezke web orrialde honetan http://www.victimasdeeta-parlamento.com/. Bertan, Biktimen Txostenaren lana azpimarra daiteke Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen barruan.

Legeak

– 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoa (EHAA, 124. zk., uztailaren 1ekoa). Egungo 4/2008 Legeko azken xedapenetatik bigarrenaren arabera: "*Erregelamendu bidezko garapena argitaratu arte –sei hilabeteko epea jarri da 4/2008 Legea argitaratzen denetik aurrera– Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen 214/2002 Dekretuan (abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuak aldatua) aurreikusitakoa egongo da indarrean*". 4/2008 Legeko I. tituluan, espresuki errefusatzen da *terrorismoaren biktimen* kontzeptua definitzea, eta nahiago da definizio pragmatikoa ematea. Hala eta guztiz ere, "jurisprudentziaren doktrina solidoa" jarraitzen da, zabaltzeko joerarekin (zioen azalpeneko 33. paragrafoa). Helburua ahalik eta kasu gehien hartu ahal izatea da, horiek terrorista modura kalifikatutako taldeetako kideek eginikoak izan zein ez. Ondorioz, antolamendu egonkorrik gabeko banakako egintzak eta baita taldekoak ere sartzen dira, betiere, herritarren bakea eta segurtasuna larriki astintzea helburutzat izan badute (zioen azalpeneko 31. paragrafoa). Edonola ere, kontzeptu juridiko zehaztugabeen aurrean gaudela onartzen da (zioen azalpeneko 32. paragrafoa).
2. artikuluan "malgutasun" printzipioa ezartzen da Legearen aplikazio eremuan, eta beti biktimen alde. Aplikatzeko lurralde eremuari dagokionez, 2.3 artikuluak zera dio: "*Lege honetan aurreikusitako neurriak gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean izaten direnean aplikatuko dira, edo, beste leku batean izanez gero, eragina nozitu duten pertsonek bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutenean. Hala ere, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako laguntzak bakar-bakarrik aplikatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatutako ekintza terroristen kasuan*".
II. tituluan biktimen eskubide batzuk (justizia, duintasuna, erreparazioa eta partehartzea), biktimenak eta gizartearenak (egia eta memoria) eta herritarrenak (bakea, askatasuna eta elkarbizitza) zehazten dira.
III. tituluak solidaritate neurriak hartzen ditu babes eta laguntzako sistema koordinatu baten bitartez. Horrek aukera emango du biktimei ordaina emateko, lehengoratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, arreta eta gogobetetasun morala hartuz (5. art.). Neurriek jabetzari, osasun fisikoari eta psikologikoari, irakaskuntzari, laneko trebakuntzari, etxebizitzari eta lanari buruzko alderdiak hartzen dituzte.
Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/autonomicas/paisvasco/le04_2008.html

### 3.1.4. Bestelakoak

– Terrorismoaren biktimei begirunea erakusteko adierazpen instituzionala. Euskalduna Jauregia, 2007ko apirilaren 22a.
Deklarazio horretan onartu egiten da biktimak anitzak direla, baliabide gisa haiek erabiltzea errefusatzen dela, solidaritate aktiborako eta bakean elkarrekin bizitza eraikitzeko konpromisoa hartzen dela eta aurreko urteetan jasandako abandonuaren aurrean haien memoriarekiko justizia sustatuko dela.
Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1074_3.pdf

### *3.1.5. Udal eremua*[6]

*EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea)*

- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin sinatutako hitzarmena, 2001eko biktimei laguntzeko.

- Bizitza eta Askatasuna Defendatzeko Manifestu Instituzionala, 2001ekoa.

- Pertsona guztiek bizitzeko eta askatasuna eta segurtasuna izateko duten eskubidea babesteko manifestu etikoa.

- Euskadiko alkateentzako gutun irekia, udal esparruan aniztasunaren defentsa bultzatzeko. 2002ko martxoaren 27koa.
  Gogorarazi egiten da "*Aniztasuna Errespetatu eta Defendatzeko Herri Foroa*" sortzeko konpromisoa dagoela, bertan "*era eraginkorrean konprometituta dauden indar politikoak barne hartuz. Herritarren eta elkarteen parte-hartzeari irekita egongo da foroa, eta aldian-aldian bildu egin behar da ideiak direla-eta mehatxatuta dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatzeko. Herri bakoitzeko iritzi sozial eta politiko desberdinen arteko hartu-emana sustatzeko topagunea izango da foroa. Bertan, dauden adostasunak ugaritu ahal izango dira eta arrazoi politiko edo ideologikoak direla-eta euskal gizartearen zati bat baztertzea saihestu*". Aniztasuna benetan gauzatzeko printzipio eta konpromiso eskema eransten da.
  Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1070_1.pdf

- EUDELen 2002ko maiatzaren 3ko Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa.
  Adierazpen horren bitartez, udalerriek hurrengo konpromisoa hartu zuten: "*demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa*" onestea. Konpromiso hori 2003ko eta 2005eko Legebiltzarreko akordioetan berretsi zen. Akordioetan giza eskubideak errespetatzeko eta babesteko hainbat printzipio gain hartzen dira, eta baita "*ETAren ekintza terroristak*" gaitzestekoa ere. Halaber, konpromiso zehatz batzuk hartzen dira.

---

6 Lurralde historikoen jardunari buruz, ikusi, memoriari dagokionez, III. eta V. kapituluei dagokiena. Ikusi aldundi eta batzar ezberdinen web orrialdeak, nahiz eta bilatzailean akatsen bat egon daitekeen. Edonola ere, horietako bakar batean ere ez da berariazko atalik jaso terrorismoaren biktimei buruz. 2009ko otsailaren 19an, batzarren web orrialdeek (Arabarentzat berariazko bilatzailerik topatu ez bada ere) ehun sarrera inguru erregistraturik zituzten "terrorismoaren biktimak" terminoarekin bilaketa eginez gero. Sarrera horietatik, azpimarratzekoak dira lehendakarien hitzaldiak, bertan biktimak, planak edo eskulturak jarriz biktimen lehengoratze sinbolikoa eta atentatu terroristen gaitzespena bezalako alderdiak aipatzen dira (ikusi helbide hauetan: http://www.jjggalava.es; w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/index.jsp; eta www.jjggbizkaia.net). Arabaren kasuan, 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertaeren biktimekiko elkartasunari buruzko azaroaren 10eko 18/2008 Foru Araua nabarmentzen da. Bestalde, aldundiek erreferentzia batzuk jaso ohi dituzte diru-laguntzen eta zerga kontuen alorrean (www.gipuzkoa.net; www.bizkaia.net; www.alava.net).

Gainera, EUDELen adierazpenean, eta aipatutako legebiltzarreko erabakietan ere gogorarazita, udalerriek honakoa sortzeko konpromisoa hartu zuten herritarren parte-hartzearen printzipioaren pean: "*demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko toki foroa sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibilitate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibilitate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik:*

- *Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbideratuko duten ekimenak garatuko ditu.*
- *Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du*".

Http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1071_3.pdf

– EUDELeko 2009ko apirilaren 2ko aitorpena, udal demokrazioaren hogeita hamargarren urteurrena dela eta. Hildako eta mehatxatutako zinegotzien eta zinegotzi ohien lana publikoki onartu da (http://www.eudel.net).

## 3.2. Beste autonomia erkidego batzuk

### 3.2.1. Nafarroako Foru Komunitatea

– 254/1988 Foru Dekretua, urriaren 27koa, atentatu terroristek eragindakoei laguntzak ematea arautzen duena.
(NAO, 137. zk., 1988/11/11koa).
Iturria: Nafarroako Aldizkari Ofiziala.
Dekretu horrek zera arautzen du: "*bandetan edo talde antolatu eta armatuetan eta haiei uztarturikoetan sartutako pertsonek egindako atentatu terroristen ondorioz edo horiengatik kalteak jasaten dituzten pertsona fisiko edo juridikoei eman ahalko zaizkie laguntzak, betiere, kasuan kasuko egintzak talde horiek aldarrikatu badituzte edo garai bereko aurrekariak edo ondorengoak harmoniaz interpretatzeagatik arrazoiz ondorioztatu badaiteke kaltea jarduera terroristak sortutakoa izan dela*" (1. art.).
Http://www.cfnavarra.es/INFO-LOCAL/NORMATIVA/PRESIDENCIA/75010000.htm

### 3.2.2. Aragoiko Autonomia Erkidegoa

– 4/2008 Legea, ekainaren 17koa, terrorismoaren biktimen aldeko neurriei buruzkoa (AAO, 94. zk., uztailaren 3koa; BOE, 189. zk., abuztuaren 6koa).
Hitzaurreko 8. eta 9. paragrafoen arabera, "*Terrorismoaren biktimek guztioi, gizarte espainiar osoari, eskatzen digute lan egin dezagula tolerantzia faltak, bazterkeriak eta beldurrak inoiz ordezka ez dezaten hitza eta arrazoia, eta ziur daude terrorismoa Legearen eta Zuzenbideko Estatuaren pisu guztia gainean*

*jarrita eta indar demokratiko guztien batasunarekin batera bakarrik ezabatuko dela. / Ezerk ezin du orekatu terrorismoak eragiten duen kaltea. Inork ezin du itzuli indarkeria terroristak pertsonei kentzen diena. Baina, gutxienez, biktimizazio bikoitza deitu izan dena saihesteko asmoa duen laguntza politika garatu behar dugu, eta biktimizazio bikoitz hori biktimak abandonaturik edo hainbat familiatan, atentatu terrorista baten ondotik, sortzen diren beharrak erantzunik gabe uztetik eratorri ohi da. Gauzak horrela, lege honek laguntza politika osoa ezartzen du pertsonen eta familien hondamena arintzeko, hondamen hori atentatu terroristen ondotik datorrenean".*

Legea "*egintza terroristen biktimei edo banda edo talde armatuetan edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzeko helburuz jardun duten pertsonen kaltea jaso dutenei aplikatuko zaie, betiere, egintza horiek Aragoiko Autonomia Erkidegoaren lurraldean jazo badira. Halaber, gertaera berdin horiei dagokienez, lurralde espainiarreko edo atzerriko beste toki batean jazotzen direnean ere aplikatuko da adierazitakoa, betiere, horien biktimak Aragoikoak badira lege honen indarraldiak iraun bitartean*" (2. art.). Aplikazioa, zenbait kasutan, kalteturiko pertsona juridikoei zabaltzen zaie, eta baita biktimen eskubideen babeserako erakundeei ere. Bestalde, kalte fisiko, psikiko eta materialez gain, laguntza psikosoziala bereizten da epe labur, ertain eta luzera.

Http://www.mir.es/SGACAVT/derecho/autonomicas/aragon/le4_2008.html

### 3.2.3. *Extremadurako Autonomia Erkidegoa*

– Terrorismoaren Biktimei Laguntza eta Arreta Emateko Neurrien eta Bakerako Azterlanen Extremadurako Zentroaren sorreraren Legea. Extremadurako Batzordeak onetsi zuen osoko bilkuran, 2005eko abenduaren 22an.

(Extremadurako Batzordearen Aldizkari Ofiziala, 332. zk., 2005/12/23koa).

Iturria: Extremadurako Erkidegoko Aldizkari Ofiziala.

Legearen onuraren eraginetarako, terrorismoaren biktimatzat edo haren senidetzat hartuko dira hurrengoak, betiere, erkidego horretan erroldaturik badaude –egintza terrorista jazo ondoren erroldatzea barne–:

a) Egintza terroristen edo bandetan edo talde armatuetan sartutako pertsonek egindakoen biktimak, haien xedea herritarren bakea eta segurtasuna larriki aztoratzea izan bada.
b) Biktimaren senarra edo emaztea, edo harekin antzeko afektibitate harremana mantenduta modu iraunkorrean bizi izan den pertsona.
c) Biktimaren senideak, ahaidetasuneko bigarren mailaraino eta hura barne.

Http://www.asambleaex.es/html/publicaciones/boae-vi-legis/boletines/BOAE-332.pdf

### 3.2.4. *Madrilgo Autonomia Erkidegoa*

– 51/2004 dekretua, apirilaren 1ekoa, Gobernu Kontseiluarena. Horren bitartez, eguneratu egiten da terrorismoaren biktimei eman beharreko laguntzen zenbatekoa.

(MEAO, 79. zk., 2004/4/2koa).
Iturria: Madrilgo Erkidegoko Aldizkari Ofiziala.
Http://www.madrid.org/wleg/servlet/Servidor?opcion=VerHtml&nmnorma=1898&cdestado=P

– 12/1996 Legea, abenduaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa.
(MEAO, 307. zk., 1996/12/27koa).
Iturria: Madrilgo Erkidegoko Aldizkari Ofiziala.
Biktima onuraduntzat hartzen dira delitu jardueren ondorioz edo horiengatik kalteak jasaten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, jarduera horiek banda armatuek edo elementu terroristek egindakoak izan direnean Madrilgo Erkidegoaren lurraldean. Laguntzak banakakoak dira (1. art.), eta "*eragindako kalteen izaera eta tamainaren, hartzaileen inguruabar sozioekonomikoen eta une bakoitzean eskura dagoen aurrekontuaren arabera modulatuko dira*" (2. art.).
Http://www.madrid.org/wleg/servlet/Servidor?opcion=VerHtml&nmnorma=1898&cdestado=P

### *3.2.5. Valentziako Erkidegoa*

– 1/2004 Legea, maiatzaren 24koa, Generalitatearena, terrorismoaren biktimei laguntzekoa.
(VEAO, 4762. zk., 2004/05/27koa).
Iturria: Valentziako Generalitatearen Aldizkari Ofiziala.
Http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/va-l1-2004.html
Hitzaurreko seigarren paragrafoaren arabera, "*egintza terroristen helburua gizartean beldur egoera sortu eta jartzea, eta balio demokratikoak eraldatzea da. Biktimak dira tolerantzia faltaren ondorioak zuzenean jasaten dituztenak. Guztiok dugu haiekiko zor morala eta materiala. Inoiz iritsiko ez bagara ere ordain hori erabat osatzera, zor diegu gure errekonozimendua, arreta eta solidaritatea*".
Legearen artikuluetan jasotako laguntzek zera eransten dute: "*kalte-ordainak kalte fisiko edo psikikoengatik; kalte materialak osatzea; Generalitatearen diru-laguntzak eta laguntza egintzak biktimentzat, gertueneko senideentzat, ezkontideenaren antzekoa den afektibitate harremana zuten pertsonentzat edo biktimarekin modu iraunkorrean bizi diren beste pertsona batzuentzat haren mendekoak badira, eta arrazoia Valentziako Erkidegoan egiten diren egintza terroristak badira. Hori guztia bigarren xedapen gehigarrian Xedatutakoaren kaltetan izan gabe egingo da. Erregelamenduak ezarri egingo du zeintzuk diren laguntzen hartzaile izango diren hurbileneko senideak eta baita haien hurrenkera ere, laguntzak eta sariak emate aldera. Kalte materialengatik eskuratu beharreko kalte-ordainei dagokienez, hartzaile izan ahalko dira ere horiek jasan ahal izan dituzten pertsona juridikoak*". Valentziako legea apirilaren 14ko 3/2009 Legearen bidez aldatu dute, eta helburua –aitzinsolasaren arabera– "*ez da nagusiki laguntzak ugaritzea, egoera bereziki larriei erantzunak emango dizkieten kontzeptu berriak diseinatzea baizik*".
Erreformak hainbat esparru hartzen ditu baitan: kalte ordainena, mendetasun

egoeretarako laguntzak sartuta; laguntzarena, hezkuntza eta ohiko etxebizitzari dagokionez; zergena, zerga neurriak bultzatuz; enplegu publikoarena, eskubideak eta egoera administratiboak programatuz eta erakundeena, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzak Koordinatu eta Jarraitzeko Batzordea eratuz –nahiz eta horren osaeran biktimen ordezkaritzak kale egin duen–.

# VI. ERANSKINA

## GOBERNUKO NAHIZ GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ETA TERRORISMOAREN BIKTIMEN GAIKO ERAKUNDE ZIENTIFIKOEN ZERRENDA[1]

Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko 4/2008 Legearen zioen azalpeneko 74. paragrafoaren arabera, "kudeaketa erretikulatu bat, horizontala eta deskontzentratua" ezartzen da, terrorismoaren biktimen gaineko politika publikoak kudeatzeko eredu modura. Horietan, botere publikoek ekintzak koordinatzen dituzte, elkarteek biktimekiko arretaren kudeaketa aktiboa gain hartzen duten bitartean. Nazioarteko araudian nazioarteko koordinazioa eskatzen duen gai batean, Europa mailan eta nazioartean helmena duten erakundeak aipatzen ditugu ere. Horietarako guztietarako web orrialdea adierazten dugu.

Bestalde, gobernu erakunde zehatzenak adierazten ditugu terrorismoaren biktimen arretaren gaian eta estatu mailan nahiz autonomia erkidegoan. Horiekin batera, gai hau aztertu eta ikertzera zuzendutako erakunde ezberdinei heltzen diegu, biktimekiko politika bidezkoak eta eraginkorrak diseinatu eta aplikatzeko iritzi modura, nazioarteko estandarrei jarraiki.

### 1. Gobernuz kanpoko erakundeak[2]

### 1.1. Estatu eta euskal eremua

11-M afectados terrorismo Elkartea: Http://www.asociacion11m.org/

Terrorismoaren biktimen Andaluziako Elkartea (AAVT): Http://www.aavt.net/

Terrorismoaren Biktimen Elkartea (AVT): Http://www.avt.org/

Verde Esperanza terrorismoaren biktimen elkartea: Http://www.ararteko.net/asociación víctimas del terrorismo verde esperanza: http:/www.verdeesperanza.org/

---

1 Zerrenda honen asmoa ez da bakarra izatea, nahiz eta hautapenerako irizpide mugatzailea jarraitu. Izan ere, terrorismoaren biktimen gainean berariazko lan eremua duten edo zentzu horretan ekintzak edo azterlanak garatu dituzten erakundeak bakarrik kontuan hartu dira. Batez ere, txosten honetan aipatutako erakundeak adieraziko ditugu, haien *online* kokalekua jakinaraziz, idatz-zati hau idatzi zen unean eguneratuta.

2 Gobernuz kanpoko erakundeen zerrendan irizpide zorrotza jarraitu da, Ararteko erakundearen web orrialdean agertzen den moduan. 2009ko otsailaren erdialdera web orrialdea martxan zutenak kontuan hartu dira. Edonola ere, aipatutako erakunde bakoitzaren esteka interesgarriak kontsulta daitezke, zerrenda luzeagoa eskuratze aldera. Hausnarketa berdina aplika dakieke erakunde zientifikoei.

Associació catalana de víctimes d'organitzacions terroristes: Http://www.acvot.org/v2/ini.php?id=1

Terrorismoaren Biktimen Galiziako Elkartea
Terrorismoaren Biktimen Valentziako Elkartea[1]

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako Terrorismoaren Biktimen Elkartea (http://www.acfsevt.es)
Euskal Herriko terrorismoaren biktimen elkartea (COVITE): Http://www.covite.org/

Fernando Buesa Fundazioa: Http://www.fundacionfernandobuesa.com/

Gregorio Ordóñez fundazioa: Http://www.gregorioordonez.es/

José Luis López de Lacalle fundazioa: Http://www.lopezdelacalle.org/

Joxe Mari Kortaren Bidetik Fundazioa: Http://www.bidetik.org/default_02.htm

Manuel Giménez Abad Fundazioa: Http://www.fundacionmgimenezabad.es/

Miguel Ángel Blanco Fundazioa: Http://www.fmiguelangelblanco.es/

Manuel Broseta irakaslearen fundazioa: Http://www.infonegocio.com/fundaciobroseta/Castellano/fundacion.htm

Tomás Caballero Fundazioa: Http://www.fundaciontomascaballero.org/

Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: Http://www.fundacionvt.org/

Terrorismoaren Biktimen Elkarte Autonomikoen Federazioa (http://www.faavt.org).

## 1.2. Europa maila

- Lotura komuneko proiektua. I-11ko biktimen inguruan sortu zen, eta jarduerak beste herrialde batzuetako terrorismoaren biktimak sartuz garatzen ditu, horien artean europarrak. Biktimen seme-alabak elkartzen saiatzen da, jarduera komun ezberdinetan. (http://www.projectcommonbond.com)

- Terrorismoaren Biktimen Sare Europarra (European Network of Victims of Terrorism). Europako Batzordearen finantzazioarekin, terrorismoaren biktimen eskubide eta interesen alorrean lan egiten duten erakunde ezberdinak batzen ditu. (http://www.europeanvictims.net)

- Biktimentzako Zerbitzuen Foro Europarra (Victim Support Europe). (http://euvictimservices.org). Zerbitzuak biltzen ditu, publikoak eta izaera pribatukoak,

solidaritatekoak eta laguntzazkoak, delitu ezberdinen biktimei dagokienez. Forotik eratorritako dokumentuen artean, hurrengoak azpimarra daitezke:

- Biktimek Zehapen Prozeduran dituzten Eskubideei buruzko deklarazioa.
- Delituaren Biktimen Gizarte Eskubideen deklarazioa.
- Biktimek Zerbitzu Estandarrak Eskuratzeko duten Eskubidearen deklarazioa.
- Europarako Manifestua.

– Hiri Segurtasunerako Foro Europarra
Hirietako segurtasun eza prebenitzearen gaian alkateak eta zinegotziak biltzen dituen erakunde bat da. Foroaren Zuzendari Batzordearen deklarazioan, "Hiriak eta terrorismoa" (2001), indar berezia jarri zen toki mailako erantzukizunean, terrorismoa prebenitzeari dagokionez. (http://www.fesu.org)

## 2. Gobernuko erakundeak[3]

### 2.1. Estatukoak

– Barne Ministerioa – Terrorismoaren Biktimak Babesteko Zuzendaritza Orokorra.
Http://www.mir.es/MIR/estrorganica/estructura/subsec/Victimas.html

### 2.2. Euskal Automia Erkidegokoak

– Eusko Jaurlaritza – Herrizaingo Saila – Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
Http://interior.euskadi.net/datvt/castellano/home.html

– Ararteko Erakundeko terrorismoaren biktimen arloa.
Http://www.ararteko.net

## 3. Erakunde zientifikoak[4]

– St. Andrews zentroa, terrorismoa eta indarkeria politikoa aztertzeko (Erresuma Batua). Azpimarratzekoa da terrorismoaren alderdi ezberdinetako ikerketa zien-

3 Orain estatu mailakoak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak bakarrik adieraziko ditugu. Edonola ere, kontuan hartu behar da *supra* aipatu diren erakunde guztiak, nazioarteko eta Europako eskualdeetako eremuetako nazioarteko arauen sustatzaile bezala.

4 Nazioarteko estekekin hasiko gara eta gero barrukoekin jarraituko dugu, nagusiki unibertsitateak, baina bestelako erakundeak ere. Hautapen irizpide ez xehatua jarraitzen dela gogorarazi nahi dugu. Aldiz, 2009ko otsailaren erdialdetik aurrera web orrialdea martxan duten erakundeei lehentasuna ematen zaie, horietan terrorismoaren biktimei buruzko dokumentuak sartu badituzte espresuki eta, batez ere, txosten honetan aipatu badira. Erakunde hauek, besteak beste eta neurri ezberdinean, begirada zorrotzagoa ahalbidetzen dute biktimen errealitatearen gainean, ulertze aldera eta ahaztea saiheste aldera. Terrorismoaren gaian, biktimekiko politiken alderdi ezberdinetan jakinaren gainean jartzen dituzte agintari eskudunak modu alderatuan, nazioarteko araudiak eskatzen duen eta jada adierazi dugun moduan.

tifikoan izandako ibilbide luzeagatik. Elementu kuantitatiboen eta terrorismoaren baldintza pertsonalak, testuingurukoak, gizartekoak eta haren alde edo kontra egiten duten politiken ohiko azterketari, biktimizazioari buruzko alderdiak erantsi zaizkio orain dela gutxi. (http://www.st-andrews.ac.uk).

– Lehengoratzeko Justiziaren Foro Europarra (http://www.euforumrj.org). Beste hainbat erakunderekin batera, foro honek terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko deklarazioa ekarri du, Terrorismoaren Biktimentzako estandarrei buruzko Konferentzian onarturikoa 2008ko martxoaren 11n. Lehengoratzeko Justiziaren Foro Europarrak sustatutako proiektua da, Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko (Herbehereak) Institutuarekin lankidetzan eta Lovainako Unibertsitate Katolikoaren, Terrorismoaren eta Indarkeria Politikoaren Azterlan Zentroaren (St. Andrewseko Unibertsitatea, Edinburgh) eta *Victim Support* erakunde herbeheretarraren laguntzarekin. Proiektu honek Europako Batzordearen VICT 2006 Programaren finantzazioa jaso du (Justizia, Askatasuna eta Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia). Konferentzia 2008ko martxoaren 10 eta 11n garatu zen, Tilburgeko Unibertsitatean (Herbehereak), eta, hori baino lehen, bi mintegi egin ziren 2007ko azaroan. Gaiari buruzko dokumentu ezberdinak azter daitezke hurrengo helbidean (http://www.euforumrj.org/Projects/projects.terrorism.htm).

– Nazioarteko Biktimologia Orrialdea, Haga (http://www.victimology.nl/). Biktimologiako Nazioarteko Tilburgeko Institutuak landutakoa da, eta nazioarteko ikerketa sustatzen du *on line* erako hainbat baliabideren eta eztabaida fororen bitartez.

– Terrorismoaren biktimentzako baliabide europarrak sustatzeko Europar Batasunaren proiektua (http://www.eureste.org). Biktimologiaren, hezkuntzaren eta zuzenbidearen arloak bereizten dira.

– Biktimologiako Mundu Mailako Elkartea (http://www.worldsocietyofvictimology.org). Web orrialde horretan ikerketa biktimologikoaren pisua ikus daiteke terrorismoaren biktimen inguruan, alderatutako eskalan eta nazioarte mailan.

– Bakean Hezteko Nazioarteko Institutua (http://www.i-i-p-e.org/). 1982tik Columbiako Unibertsitateari uztartuta dago (New York), eta sarean egindako lanaren adibidea da, hezkuntzaren alorreko profesionalei baliabideak eskaintzeko. I-11ko biktimekin topaketak sustatu ditu.

– Bakeaz (http://bakeaz.org). Bakearen kulturaren eta garapen iraunkorraren eremuan lan egiten duen erakundea. Bake kulturaren bere arloaren barruan, espresuki aipatzen dira terrorismoaren biktimak. Halaber, bakean hartzeari buruzko ikerketak garatzen dituzte.

– Terrorismoari eta haren biktimei buruzko azterlanen “Antonio Beristain” katedra. “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutua. Carlos III.a Unibertsitatea. (http://catedravt.idhbc.es). Gai honi buruzko berariazko katedra izateagatik nabarmentzen da, eta hainbat dokumentu eta esteka espezializatu hartzen ditu.

- Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Terrorismoaren Ekonomiaren katedra. Terrorismoaren gaineko azterketa, ikerketa eta irakaskuntza lanak egiten ditu, ikuspegi ekonomikotik begiratuta. Argitalpen ezberdinez gain, web orrialdean ikerketa ildo nagusiak topa daitezke. Besteak beste, terrorismoaren zuzeneko kostuak eta zeharkako ondorioak agertzen dira, sektoreko inpaktua (batez ere turismoan eta garraioan) eta talde terroristen finantzazioa barne (http://www.ucm.es/info/cet/investigacion.html)

- Biktimologia Institutuaren Fundazioa. Diziplina anitzeko helburu zientifikoa izanda, web orrialdean biktimen gutunak nahiz terrorismoaren biktimei buruzko berariazko ikerketak biltzen ditu. Gainera, ezagutza biktimologikoa hedatzen laguntzen du hainbat jardueraren bitartez. Horietako batzuk Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin lankidetzan egin dira. (http://www.institutodevictimologia.com).

- Biktimologia Fundazioa. Murtziako Unibertsitateari uztartuta, Biktimologiako Mundu Mailako Elkarteko eta ISPAC-eko (Aholkularitza Kontseilu Zientifiko eta Profesionala Delinkuentziari Aurrea Hartzeko. Nazio Batuak) kide da. Ikerketa eta esperientzia profesionalak trukatzea sustatzeaz gain, ezagutza biktimologikoak barreiatzen ditu sozialki. Azterlan biktimologikoen editorialaren barruan, *La Victimología en la función policial* argitaratu da. Haren 4. kapitulua terrorismoaren biktimei zuzendurikoa da. Ikerketa arloari dagokionez, proiektu hau azpimarra daiteke: *Víctimas de persecución. Las víctimas silenciadas. Las víctimas vivas*. (http://www.funvic.org).

- Fernando Buesa Fundazioa. Dokumentazio zentro espezializatua du. (http://fundacionfernandobuesa.com).

- Manuel Giménez Abad Fundazioa. Terrorismoari buruzko azterlanen atala du. (http://www.fundaciongimenezabad.es).

- Gernika Gogoratuz – Bakearen Aldeko Aztertegia. Bizitzen historiei buruzko lan-esparrua dauka, eta bertan, beren beregi aipatzen da xede pedagogikoa duen terrorismoaren biktimen gaineko agiriekin egindako lana.

- Bakearen Aldeko Koordinakundea (http://ww.gesto.org). Gobernuz kanpoko erakunde honek ez ditu bakarrik mobilizazioak egiten. Horrekin batera, hainbat dokumentu lantzen ditu indarkeriari legitimazioa kentzeari buruz eta biktimen egoerari buruz hausnartzeko, jazarpen terrorista barne.

- Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea. Terrorismoaren biktimetan oinarritutako jarduera ezberdinetan lagundu du, eta Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideei buruzko azterlanen barruan sartzen ditu. (http://www.idh.es/).

- San Pablo CEU Unibertsitate Fundazioaren Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Behatokia. Nazioarteko kongresuak, unibertsitateko jardunaldiak eta mintegiak antolatzeaz gain, azpimarratzekoa da biktimen memoriarekin uztartutako

agiriak argitaratzeko helburua. (http://www.uspceu.com/CNTBNR/sitio_ID/pages/id_oivt.htm).

- Terrorismoari buruzko Azterketa eta Dokumentazio Unitatea. Rey Juan Carlos Unibertsitatea. (http://www.urjc.es). Espainian aitzindaria den unibertsitate zentroa da, eta "*fenomeno terrorista aztertu eta ikertzera bakarrik zuzentzen da barne nahiz nazioarteko adierazpen ezberdinetan. Horrekin batera, gobernu demokratikoek hura prebenitzeko garatzen dituzten politikak eta indarkeria horrek gizartean dituzten eraginak aztertzen dira*". Arreta jartzen du dokumentazio eta azterketa eskariei, horiek ikertzeko, irakasteko, aholkatzeko eta barreiatzeko asmoekin egiten direnean ingurune akademikoan nahiz esparru politikoan, bai eskualde mailan, bai estatu mailan, erakundeenean eta gobernu maila ezberdinetako agentzia publikoenean, hedabideenean eta gizarte zibilean jarduten duten beste talde batzuenean. Hitzarmen eta sinposioez gain, Terrorismoa Aztertu eta Prebenitzeko master ofiziala eskaintzen du, eta lan paper ezberdinak eta mintegi iraunkorra mantentzen ditu terrorismoaren inguruan.